

# **LANGILERIA BERRI BATEN ERAKETA IRUÑERRIA 1956-1976**

**NEREA PEREZ IBARROLA**

**upna**

Universidad  
Pública de Navarra  
Nafarroako  
Unibertsitate Publikoa

**ZUZENDARIA: EMILIO MAJUELO GIL**

**GEOGRAFIA ETA HISTORIAKO**

**DEPARTAMENTUA**

**Iruñea, 2015eko urria**

# LANGILERIA BERRI BATEN ERAKETA. IRUÑERRIA 1956-1976

Nerea Perez Ibarrola

Zuzendaria: Emilio Majuelo Gil

**Tesi hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikerketa dirulaguntza bati esker  
burutu ahal izan da.**

## AURKIBIDEA

ESKERRAK .....	7
ERABILITAKO SIGLAK .....	9
HITZAURREA.....	11
1. Ikerketaren objektua eta ikerketaren planteamendua: iruñerriko langile klasearen eraketa.....	11
2. Ikerketaren egitura eta edukiak .....	27
3. metodologia eta iturriak .....	30
1. KAPITULUA: LANGILE KLASEAREN ERAKETA BERE TESTUINGURUAN KOKATZEN .....	45
1.1 Frankismoa eta langile klasea .....	46
1.1.1 Langile klase baten suntsiketa.....	47
1.1.2 Langileak eta estatu frankista .....	48
Langileen autonomiaren eta klase izaeraren ezeztapena .....	50
Langileen menderatzea .....	51
1.2 Eraldaketa sozioekonomiko handien aldia .....	58
1.2.1 Eraldaketa ekonomikoa: Ekonomia industrialaren egonkortzea .....	58
Politika ekonomikoaren norabide aldaketa .....	58
Hazkundera eta eraldaketa .....	61
1.2.2 Eraldaketa soziala: Gizarte berri bat.....	62
1.3 Iruñerriko eraldaketa sozioekonomikoa .....	70
1.3.1 Iruñea, hiri tradizionaletik hiri moderno eta industrialera .....	70
1.3.2 Modernizazioaren auzia. Eztabaida bat.....	75
1.3.3 Modernizazioaren elementuak: Industria eta gizartearen dinamika.....	79
Nafar industrializazio prozesua .....	79
Gizartearen dinamika, gizarte dinamiko bat.....	86
2. KAPITULUA: IRUÑERRIKO LANGILERIA BERRIA.....	99
2.1 Langile berriak, ezaugarri berriak .....	102
2.1.1 Jatorria. Nafar langileria bat.....	102
2.1.2 Hezkuntza eta formakuntza. Gutxi kualifikatutako langileak?.....	119
2.1.3 Industria alorreko eta fabrikako langileak .....	133
Bizibidea: soldatapeko industria langileak .....	134
Lantokia: fabrika handietako langileak.....	140
Lanpostua: lanpostu desberdinetan aritzen diren langileak.....	141

2.1.4 Langileria gazte bat .....	142
2.2 Iruñerriko langileen profil desberdinak.....	154
<b>3. KAPITULUA: LANGILEAK ETA ERREALITATE SOZIOEKONOMIKO BERRIAK .</b>	<b>163</b>
3.1 Lanaren mundua. lan harremanak eta lan baldintzak.....	165
3.1.1 Lanaren antolaketarako modu berriak. Fordismoa .....	165
3.1.2 Lan harremanak, enpresaren barneko harreman eredu eta fabrikako giroa .....	172
Autoritatea, araua, zigorra .....	172
Enpresariak eta paternalismoa .....	175
3.1.3 Lan baldintzak.....	181
Segurtasuna eta higiena. ....	181
Soldatak eta lanaldiak.....	183
3.2 Langileen bizitza. eguneroko errealitateak, eguneroko zailtasunak .....	189
3.2.1 Bizitza mailaren hobekuntza? .....	189
3.2.2 Etxebizitzaren arazoa .....	197
3.2.3 Desoreka sozialak .....	210
3.3 Langile auzoak. agertoki berri bat.....	217
3.3.1 Langile auzoen sorrera: hiriaren banatze klasista bateruntz .....	217
3.3.2 Langile auzoak: esparru berriak, errealitate sozial berriak, arazo berriak .	223
Populazio homogeenak jasotzen, komunitate homogeenak sortzen.....	224
Auzoen gabeziak, komunitateen arazoak.....	229
<b>4. KAPITULUA: AUZOA, KOMUNITATEA ETA SOZIBILIZATEA. LANGILEEN BEREZKO ESPARRU BERRIAK .....</b>	<b>243</b>
4.1. Auzoak eta auzo komunitateak.....	245
4.2 Auzo komunitateen hastapenak. iruñerriko auzo baten adibidea: Txantrea ....	256
4.2.1 Auzoaren jatorria. Etxebizitza merkearen promozioa: langile nukleo berri bat ibaiaz bestaldera.....	257
4.2.2 Auzoaren eraikitze aldia.....	258
4.2.3 Auzoaren hazkundea eta garapena.....	262
4.2.4 Eguneroko bizitza eta bizi baldintzak.....	263
4.2.5 Auzo bizitza. Harreman sareak eta sozializazioarako esparruak .....	266
4.2.6 Txantrearen historiaren berrirakurketa: auzo komunitate baten sorrera....	270
4.3 Langile sozializazioa eta auzo komunitateen garapena .....	273
4.3.1 Aisialdirako elkarteak: Iruñeko peñak .....	278
4.3.2 Kirol asoziazionismo: kirol elkarteak eta mendia .....	289

4.3.3 Parrokiak. Bizitza sozialaren erdiguneak.....	295
4.3.4 Auzo Elkartek. Gizarteratzerako eta borrokarako esparruak.....	299
Esperientzia komunitario bat eta alternatiba herrikoi bat: Txantreako kukuso merkatua.....	305
<b>5. KAPITULUA: ELIZAREN ESPARRUAK ETA APOSTOLUTZA MUGIMENDU</b>	
<b>SEKULARRAK. LANGILE KULTURA BERRI BAT SORTZEKO GUNEAK.....</b>	<b>309</b>
5.1 Erlijioaren eta elizaren eragina nafar eta iruñar gizartean .....	311
5.2 Eliza frankismoan. jarrera hartze berrien gizarteratzea .....	317
5.2.1 Eliza frankismoan: erregimenaren sostengu izatetik, oposizioan kokatzera .....	321
5.2.2 Elizaren Eraginguneak langileen arteko loturak sortzen dituzten esparru bezala .....	326
5.2.3 Kleroa. Ikusmolde erlijioso eta sozial berrien hedapenerako funtsezko eragilea .....	334
5.3 Apostolutza mugimendu sekularrak: esparru berriak, langile kultura berria .....	346
5.3.1 Acción Católica eta Acción Católica Obrera .....	347
5.3.2 Apostolutza Mugimendu Sekularrak. Jatorria. ....	348
5.3.3 Apostolutza mugimenduen urrezko aroa .....	351
Sozializatorako esparru, zirkuiturako sarbide.....	353
Militanteen formakuntzarako eskolak. Metodologia eta edukiak.....	356
Formakuntzarako eta kontzientziatorako bestelako elementuak .....	362
Militante kristauak eta konpromiso mundutarra .....	364
kontzeptualizazio lana: langile kultura kristau berri baten elementuak .....	375
5.3.4 Acción Católicaren mugimendu espezializatuen krisia .....	382
<b>6. KAPITULUA: FRABRIKAREN BAITAKO LANGILEEN GIZARTERATZE</b>	
<b>SOZIOPOLITIKOA ETA LANGILE MUGIMENDUA .....</b>	<b>389</b>
6.1 Fabrikak, langileak, militanteak, komisioak.....	391
6.1.1 Fabrikaren baitan jaiotzen diren antolakuntza eta protesta moduak .....	396
6.1.2 Langile mugimendua eta erregimenaren egitura sindikalak .....	405
Karguen erabilpena, hauteskunde sindikaletan parte hartzea.....	406
Nafarroako Langile Kontseilua.....	412
6.1.3 Langile mugimendu antolatu bateruntz: fabrika komisioretatik CCOOetara.....	417
Fabrikaz kanpoko dimentsioa: Nafarroako CCOO.....	422
6.2 Iruñerriko langileen kultura politikoaK.....	428
6.2.1 “Ideologikoki birjina” zen langile mugimendu bat?.....	437

6.2.2 Alderdi komunistaren “hamarkada iluna” .....	441
6.2.3 Apostolutza mugimendu sekularretatik ezker iraultzailera .....	445
Ezker iraultzailearen talde politikoak.....	448
6.3 Langile militantzia. langileen ibilbide militanteak .....	457
6.3.1 Ibilbide militanteen azterketa .....	458
6.3.2 Ibilbide militanteak. Ondorioak.....	474
7. KAPITULUA: BORROKAK ETA GATAZKAK. LANGILE IDENTITATEAREN PRESENTZIA FRANKISMOAREN AMAIERAN .....	481
7.1 Langileriak presentzia hartzen du .....	484
7.1.1 Iruñerriko langile mugimendua etapa berri batean .....	487
7.1.2 Lege sindikal berria.....	489
7.1.3 Dimisioak eta hauteskunde sindikalei boikota .....	492
7.1.4 Lan gatazkak marko honetan.....	496
7.1.5 Langile mugimenduaren etapa honen amaiera .....	503
7.2 Langileriak borroka egiten du. langile identitatearen presentzia.....	504
7.2.1 Lan gatazkak frankismoaren bitartean. Eztabaida bat.....	505
7.2.2 1973. Langile mugimendua agertokian sartzen da: Motor Ibéricako grebatik greba orokorrera .....	511
7.2.3 1974ko udazkena .....	516
7.2.4 “Meatzarien matxinada” .....	519
7.2.5 Langile borrokak azaleratzen duen langile identitatea.....	524
ONDORIOAK.....	537
BEGIRATUTAKO ARTXIBATEGIAK .....	549
BEGIRATUTAKO PRENTSA.....	549
BEGIRATUTAKO ALDIKARIAK .....	549
AHOZKO ITURRIAK.....	551
BIBLIOGRAFIA.....	555

## ESKERRAK

Tesi bat egiteak ahalegin handia eskatzen du. Zailtasunez beteriko bidea da, bizia eta neketsua, poztasunez eta frustrazioz beterikoa, oso momentu on, ez horren on eta txarrez beterikoa. Horregatik, urte luze hauetan, ezinbestekoa izan da niretzat modu batean edo bestean lan hau aurrera ateratzen lagundu nauten pertsonak ondoan izatea. Ez dut hitzik aurkitzen zor diedana azaltzeko.

Jende askori eskerrak ematea gustatuko litzaidake, baina ezinezkoa da tesi hau egiten eman dudan denbora honetan nirekin eta lan honekin harremana izan duten pertsona guztiak aipatzea. Espero dut guztiek euren laguntza biziki eskertzen dudala jakingo dutela.

Hala ere, hainbat pertsona aipatzeko nahia eta beharra dut, euren papera funtsezkoa izan baita prozesu polit eta gogor honetan:

Elkarrizketatu ditudan pertsona guztiak, nirekin euren denbora, memoria eta bizitzaren parte bat inolako erreparorik gabe eta gogo onez partekatu dutelako.

Lana erraztu didaten pertsona guztiak, bereziki, begiratu ditudan artxibategietako langileak eta elkarrizketak egiteko kontaktuak lortzen edota dokumentazioa aurkitzeko erreferentziak ematen eskuzabalki inplikatu diren pertsonak. Halako oinarritzko laguntzarik gabe, ikerketa bat egiterik ez dago.

Gerónimo de Uztáriz Institutuko kideak, hausnarketa historiografikorako eta ideia elkartruckerako esparrua eman didatelako. José Miguel Lana Berasain irakaslea, beste gauza askoren artean, bere bulegoko atea beti zabalik dagoelako eta “Historia eta Ekonomia” ikerketa taldeko kide izateko aukera eman zidalako. Fernando Mendiola irakaslea, beti aholku edo iradokizun interesgarri bat izan duelako niretzat eta nire lana irakurtzeko gogoz dagoela badakidalako. Zuriñe eta Edurne, gure arteko lankidetzak tesi hau zentzu guztietan aberastu duelako.

Emilio Majuelo irakaslea, tesi zuzendaria baino gehiago izan delako, maisua, laguna. Nire lanean konfiantza izan duelako eta tesi hau egiteko ideiak, ikerlari zein historialari bezala haztera eraman nauten modu batean zuzendu dituelako. Eskerrik asko, Emilio.

Nire lagunak, denbora honetan bizi poza eman didatelako eta lan honen zama arintzen saiatu direlako beti.

Azkenik nire gurasoak eta ahizpa, nire euskarria izan direlako, tesi hau nik bezainbeste disfrutatu eta sufritu dutelako, are gehiago. Haiek gabe, egindako guztia ez zatekeen posible izango. Tesi hau zuena ere bada.

Ahaztu ditudan guztiei, barkatu.

Bide hau nirekin egin duzuen guztiei, eskerrik asko.





## ERABILITAKO SIGLAK

### ERAKUNDEAK

AST: Acción Sindical de Trabajadores  
CCOO: Comisiones Obreras  
CECO: Coordinadora de Euskadi de Comisiones Obreras  
CEN: Comités de Estudiantes de Navarra  
CNT: Confederación Nacional del Trabajo  
CONE: Comisión Obrera Nacional de Euskadi  
CSUT: Confederación de Sindicatos Unitarios de Trabajadores  
EAJ: Eusko Alderdi Jeltzalea  
EGI: Euzko Gaztedi Indarra  
ELA: Eusko Langile Alkartasuna  
ETA: Euskadi Ta Askatasuna  
FLP: Frente de Liberación Popular  
FOS: Federación Obrera Socialista  
GAI: Gazteria Abertzale Iraultzailea  
HB: Herri Batasuna  
HOAC: Hermandad Obrera de Acción Católica  
JEC: Juventud Estudiante Católica  
JIC: Juventud Independiente Católica  
JOAC: Juventud Obrera de Acción Católica  
JOC: Juventud Obrera Católica  
LAB: Langile Abertzaleen Batzordeak  
LAIA: Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia  
LC: Liga Comunista  
LCR: Liga Comunista Revolucionaria  
MCE: Movimiento Comunista de España  
OIC: Organización de Izquierda Comunista  
ORT: Organización Revolucionaria de Trabajadores  
PCE: Partido Comunista de España  
PCE(i): Partido Comunista Internacional  
PSOE: Partido Socialista Obrero Español  
PSUC: Partido Socialista Unificado de Cataluña  
PTE: Partido del Trabajo de España  
SU: Sindicato Unitario  
UGT: Unión General de Trabajadores  
USO: Unión Sindical Obrera  
VOJ: Vanguardia Obrera Juvenil

### ITURRIAK

AFPI-PIFA: Archivo de la Fundación Pablo Iglesias-Pablo Iglesias Fundazioaren Artxibategi Orokorra.  
AGA-AAO: Archivo General de la Administración-Administrazioaren Artxibategi Orokorra.  
AGN-NAO: Archivo General de Navarra-Nafarroako Artxibategi Orokorra.  
AHOAC-HOACA: Archivo de la HOAC-HOACaren Artxibategi Orokorra.  
AHPC-AKAH: Archivo Histórico del Partido Comunista-Alderdi Komunistaren Artxibategi Historikoa.  
AJOC-JOCA: Archivo de la JOC-JOCaren Artxibategi Orokorra.  
DN: Diario de Navarra.  
PN: El Pensamiento Navarro.



## HITZAURREA

### 1. IKERKETAREN OBJEKTUA ETA IKERKETAREN PLANTEAMENDUA: IRUÑERRIKO LANGILE KLASEAREN ERAKETA

Frankismoaren amaiera eta trantsizioa, soilik elite politikoen kontua izateari utzi diote. Historiografian beran nabaritzen da. Izan ere, duela urte batzuetatik hona, haren parte bat, prozesuotan fabriketatik, auzoetatik eta kaleetatik parte hartu zuten pertsonak aldaketa soziopolitikoan izan zuten papera berreskuratuz joan da.

Tesi honek, behetik egindako historiaren ikuspegi hau hartuta, pertsona haietariko batzuk, Iruñerriko langileak, ditu ikerketarako objektutzat. Hauek funtsezko papera izan zuten frankismoaren amaieran hirian gertatu zen mobilizazio herritarraren oinarrian egon zen protesta sozialaren eta erregimenaren deslegitimatzearen egituraketan. Guztiarekin ere, tesi honek ez du langileen bete izandako paper hura aztertzeko asmorik, paper hura betetzera nola iritsi ziren azaltzea, hots, diktaduraren amaieran eta trantsizioan jardungo zuen subjektu historiko bezala nola itxuratu ziren azaltzea, baizik. Horretarako, bere kontzientzia frankismoaren bitartean eman ziren eraldaketa sozioekonomikoetan, tentsioetan eta lan zein gizarte gatazketan eratu zuen langile klase industrial eta hiritar berri baten parte izan zirela kontutan izan behar dugu.

Ikerketa honek ekarpen garrantzitsuak egiten ahal dituela hainbat arrazoiengatik uste dugu. Orokorrean, diktaduraren amaiera eta trantsizioa Nafarroan eta Iruñerrian nolakoak izan ziren hobe ezagutzeko hainbat gako ematen ahal ditu (dinamikak, eragileak). Historia sozialetik alorretik, gainera. Egun ere, frankismoaren bitarteko nafar gizarteari buruzko ikerketek, urriak izaten jarraitzen dute. Adibidez, oraindik ezer gutxi dakigu garai honetako nekazal gizartearen bilakaerari buruz, eguneroko bizitzari buruz edota familia egituretan izan ziren aldaketei buruz. Ildo horretan, industrializazio garai honetako Iruñerriko klaseari buruzko ezjakintasuna ere handia dela esan dezakegu. Ezjakintasuna ez haren antolakuntza eta gatazkei dagokionean, hau jada José Vicente Iriarte Aresok sakonki aztertu baitzuen<sup>1</sup>; ezjakintasuna urte hauetako borroka eta mobilizazioen oinarrian egon zen aipatu kontzientzia kolektiboaren sorrerari dagokionean. Zentzu honetan, tesi honek, Nafarroan eta bereziki Iruñerrian, frankismoaren amaieraren eta trantsizioaren, langile klasearen eta orokorrean XX. mendearen bigarren erdialdeko prozesu historiko-sozialen inguruko ezaguerari ekarpen garrantzitsuak egiten ahal dizkiola estimatzen dugu.

#### **Langile mugimenduaren historia edo langile klasearen historia. Ikuspegiaren auzia.**

Frankismoaren garaiko langileria ikerketarako gaitzat hartzerakoan, lehen begiratuan, gai horren inguruan ezer berria planteatzeko aukera murrizak izan ditzakegula pentsa daiteke. Gaiaren inguruko produkzio historiografikoa ugaria eta aberatsa izan da: langileriak diktaduraren historiari buruzko lan orokorretan leku nabarmena hartu izan du erregimenaren aurkako oposizioari buruzko orrialdeen baitan, eta ez hori bakarrik, ikerketa berezitu anitz argitaratu izan dira ere epealdi frankistako langile klase eta mugimenduari buruz. Aipatutako azkeneko ikerketa hauek mota askotarikoak izan dira eta ikuspuntu ezberdinetatik heldu izan diote gaiari, diktaduraren kronologia osoa aintzat hartzen dute edota epe mugatuetan kokatzen dira; geografikoki estatu osoa barne hartzen dute edota tokian tokiko esparruetan arreta jartzen dute; langile mugimendua ardatz nagusitzat hartuta, erakundeak, ekimen sindikala edo lan

---

<sup>1</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en Navarra (1967-1977). Organización y conflictividad*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1995.

gatazkak aztertzen dituzte edota ikuspegia zabaldua, lan eta bizi baldintzak eta are langile kultura eta identitateak ere jorratzen dituzte. Ekoizpen aberats honek aro frankistaren historiografiari ekarpen garrantzitsua egin dio eta erregimenaren aurkako oposizioan izan duen paper erabakigarria aintzat hartuz hala nola diktaduraren zein trantsizioaren marko sozialean aldaketarako indar dinamiko gisara onartuz, langile klasea historiaren subjektu aktibo gisara ezagutu du.

1995ean José Vicente Iriarte Aresok, 1966-1976 bitarteko nafar langile mugimenduari buruzko aipatu lana argitaratu zuen. Bertan, langile mugimendua, hots, antolakuntza, langile erakunde sindikal zein politikoak eta hauek sustatutako lan gatazkak eta borrokak sakonki aztertu zituen, langileria Nafarroan, diktaduraren azkeneko urteetan, protagonista oso nabarmendua izan zela azaleratuz. Gaiari heldu zion lehenbiziko lana izan zen. Alta, ezer gutxi gehiago egin da ildo honetan orduz geroztik. Gaiari berriro ekin eta ikerketa berri bat planteatzerakoan, frankismo garaiko nafar langile mugimendua, antolakuntza, erakundeak eta lan gatazkak jada ikertu direnean, ekarpen historiografikoak zein bidetik egin nahi diren pentsatu beharra dago lehenik eta behin. Guk, tesi honekin, berrikuntza historiografikoa, gaiari heltzeko ikuspegiaren aldetik egin nahi dugu.

Langile mugimenduaren historiografiaren bilakaeran, berrikuntza garrantzitsuenak ikuspegiaren bidetik egin izan dira. Langile mugimenduaren espainiar historiografiaren kasuan, 1982. urtean José Álvarez Junco eta Manuel Pérez Ledesma abiatutako langile mugimenduaren historiari buruzko hausnarketa zentzu honetan mugarrria izan zen nolabait<sup>2</sup>. Artikulu batean ordura arte Espainian egindako langile mugimenduaren historiaren birpaso kritikoa egiteaz aparte, bi autore hauek berrikuntza historiografikorako hainbat proposamen egiten zuten, lehenik eta behin, ikerketen ikuspegiaren eraberritze bat beharrezkoa zela aldarrikatuz.

Frankismoaren eta trantsizioaren garaian, jarduera historikoa -jarduera politiko berarekin lotuta zegoen heinean- baieztapen politikoaren arabera bideratu izan zelako analisia eginez, egitate honek, langileriaren historia egiteko moduak eta ikuspuntuak, nola edo hala, baldintzatu egin zituela ondorioztatzen zuten: ikerketa historikoaren objektuak langile erakundeak (antolakuntza eta ideologia), euren liderrak eta euren borrokak ziren eta langile mugimenduaren historia, langileria diktaduraren aurkako oposizioaren funtsezko zutabe bezala agertzen zen momentu honetan, klase erakundeek historikoki agertu izandako izaera iraultzailea eta eurei zegokien paper eraldatzailea nabarmentzeko tresna bezala funtzionatzen zuen. Beraz, langile mugimenduaren historia eta espainiar historiografia soziala bera ere, langile-antolakuntzaren historia instituzionalean, hots, Georges Hauptek 80. hamarkadaren hasiera hartan langile mugimenduaren historiaren “mitologizatzea” deitzen zuen horretan<sup>3</sup>, geldirik zeuden, aurrera egiten uzten ez zieten mugak agertzen zituztelarik. Hauptek oso modu argian azaldu zuen langile historia tradizional horren muga horiek, orokorrean, zeintzuk ziren. Hasteko, langile mundua, alor politikora eta ideologikora mugatzen zuen, langile klaseari ez eta soilik honen antolakuntza irudikapenei, bereziki alderdi buruzagitzei, begiratzen baitzien. Hala zen, langile historia hori, militanteek militanteentzat egina zelako eta hauek, erreferentzia eta eredu izan behar ziren “izen handiak iraurariz” eta iraganarekiko jarraitutasunak azpimarratuz, orainean kohesioa lortzeko eta honekin garapen propioa bermatzeko tresna gisara erabiltzen zutelako. Horregatik, langile mugimenduaren historia egiteko modu tradizional hau gainditu

<sup>2</sup> José Álvarez Junco eta Manuel Pérez Ledesma, “Historia del movimiento obrero, ¿Una segunda ruptura?”, *Revista de Occidente*, 12. zkia, 1982. 19-41 orr.

<sup>3</sup> Georges Haupt, “¿Por qué la historia del movimiento obrero?”, *El historiador y el movimiento social*, Siglo XXI, Madril, 1986, ikusi 16-17 eta 20 orr.

beharra zegoela planteatzen zuen, horretarako, bestelako gizarte zientziek irekitako bideak ibiliz, langile historia sozial batetara iristea proposatzen zuelarik.

Langile mugimenduaren espainiar historiografiaren baitan, auzi hau, demokrazia egonkortu ahal piztuz joan zen. Jada 70. hamarkadan, Ignacio Olábarri edota Juan Pablo Fusi bezalako autoreek historia militantearen aurreko ildo kritikoa zabaldu zuten, historiografia honen gabezien inguruko hausnarketa mahaigaineratuz. Tuñón de Larak 1972an *El movimiento obrero en la historia de España* argitaratu zuenean izan zen, lana hein handi batean langile mugimenduaren historia egiteko modu horren adierazletzat jo baitzuten. Langile mugimenduak historiografian zuen nagusitasun hori zalantzan jartzen zuten eta langileen historia osoago bati lehentasuna ematen zioten ikuspuntu berrien alde egiten zuten, lan eta bizi baldintzak, mentalitateak edota kultura bezalako alorrei arreta jarri behar zitzaie aldarrikatuz eta langile kontzientzia erakunde sindikal eta politikoetan militatzearekin identifikatzen zuen ikusmoldeekin apurtuz. Ildo horretan, aipatu 1982ko artikuluan, Alvarez Juncok eta Pérez Ledesmak, espainiar langile mugimenduaren historiografiak “bigarren haustura” bat, non “auzi historikoak, ikuspegi trinkoetatik planteatuta, kategoria egiaztatuen bitartez aztertuko ziren”<sup>4</sup>, behar zuela planteatu zuten. Berrikuntza hau behar historiografikotzat jotzen zuten praktikan, oraindik, langile errealitatearen parte handi bat analisi sozialetik kanpo geratzen zelako. Esate baterako, autoreek jarritako adibide berberei jarraiki, industria langile izatearen irizpidea betetzen ez zuen protagonista oro, artisauak eta langile gaituak kasu, edota helburu iraultzaileetatik baino jomuga erreformistetatik gertuago zeuden langile erakundeak, langile mugimenduaren historiatik at uzten ziren<sup>5</sup>. Are gehiago, ikerlanen gai eta ikuspegiak, alderdi marxistetako militantziarekin identifikatzen zen kontzientzia bat agertzen zuten klase adierazpenak azaleratzera mugatzen ziren. Hau da, industria langileak eta sozialismoarekin, komunismoarekin edo anarkismoarekin lotzen zen kontzientzia politiko-ideologikoa agertzen zuten elementuak aintzat hartzen ziren bakarrik, bestelako mugimendu edota adierazpen sozialak kanpoan utziz.

Artikulu honek hausnarketarako bide bat ireki zuen espainiar historialari sozialen artean, hauek, langile mugimenduaren historia, historia sozialaren ikuspuntutik egiteko bidean jarri zirelarik. Ikerketa eremu berriak bilatu ziren, langile mugimenduaren historiak bere nagusitasuna galdu zuen eta langile historiaren eta historia sozialaren arteko harreman estutu zen. Adibidez, langile mugimenduaren borrokak, bakarrak eta are zenbaitetan funtsezkoenak izan ez zirela erakutsi zen eta honekin, protesta saiaketa kolektibo guztiak zein eraldaketa sozialerako proposamen guztiak barne hartzen zituen ildo berri bat sortu zen, gizarte mugimenduen historiarena. 80. hamarkadan zehar hedatu ziren historia egiteko forma berri hauetan, aurreko hamarkadetan mendebaldean izandako berrikuntza historiografikoek izan zuten eragina agerikoa izan zen, historiografia marxista britainiarraren eta E.P. Thompson eta Eric. J. Hobsbawm bezalako autoreen ikuspegiak, gizartean integratutako langile klase baten historia egitearen beharra kasu, orduan zabaltzen hasi zirelarik<sup>6</sup>. Orduan ere sortu ziren, arlo profesionalean, abiada berriztatzaile honen

---

<sup>4</sup> Ángeles Barrio, “Clase obrera y movimiento obrero: ¿Dos compañeros inseparables?”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 30. zkia, 2008, 83-104 orr., 86. orr.

<sup>5</sup> José Álvarez Junco eta Manuel Pérez Ledesma, “Historia del movimiento ...” Op. Cit. Ikusi 33-36 orr.

<sup>6</sup> E.P. Thomsonen lanak esaterako, 70. hamarkadaren amaieran itzuli ziren gaztelerara lehenbizikoz. *The making of the english working class* Laiak itzuli zuen 1977an *La formación histórica de la clase obrera: Inglaterra* izenburupean (Críticak argitalpen berri bat egingo zuen 1989an jada *La formación de la clase obrera en Inglaterra* izenburuarekin) eta Crítica 1979an hasi zen haren testu ezberdinak gazteleraz argitaratzen, *Tradición, revuelta y consciencia de clase* testu bildumaren lehen edizioarekin.

arrakastan funtsezkoak izango ziren elkarte eta argitalpen espezializatuak: *Debats* (1982), *Historia contemporánea* (1988) eta *Historia social* (1988) aldizkariak, adibidez.

Bitartean, historia soziala bera, orokorrean, interpretazio handien agorpenaren eskutik etorriko zen eraberritze prozesu baten atarian zegoen. Abiapuntua, Lawrence Stone historialari britainiarraren historia narratiborako itzuleraren aldeko aldarriak ipini zuen nolabait. Historia zientifikoari (Annales, marxismoa, cliometria iparramerikarra) eta eraldaketa historikoak azaltzeko lege orokortuak sortzeko honen jomugari kritika egin zion, prozesu historikoak eta hauen sorburuak ulertzeko egituren analisisa egitea nahikoa ez zela adieraziz. Horregatik, historia narratiborako itzulera proposatzen zuen eta azalpen historikoan, historiaren protagonisten alde subjektiboak, hots, faktore intelektualak, kulturalak, erlijiosoak eta are sinbolikoak kontutan hartzea eskatzen zuen<sup>7</sup>. Adierazpen hauek eztabaida piztu zuten historialari sozialen artean eta Eric J. Hobsbawmek adibidez, Stonek egindako kritikei, gizarteei buruz orokortzea posible zela sinesten zutenen artean oraindik zergatik handiei buruz kezkatzen ziren historialariak bazirela erantzun zien. Ildo horretan, subjektuen, mentalitateen, ideologiaren eta gertakarien azterketari ongietorria ematen zion arren, honek interpretazio handien historia ordezkatu behar ez zuela, hau da, egitura sozioekonomikoen azterketarekin batera egin behar zela, defendatzen zuen ere<sup>8</sup>. Espainiar historiografia sozialean, eztabaida hau, “bigarren hausturak” 80. hamarkadan zehar lehen emaitzak eman ondoren piztu zen. 90. hamarkadaren hasieran, adibidez, Josep Fontanak historia narratiborako itzulerak, banakako kasuetatik estrapolatutako azalpenei maila unibertsala ematerakoan, historiaren ikuspegi globala galtzen ahal zelaz ohartarazten zuen bitartean; Santos Juliák, berrikuntzek zabalduko ildoak beharrezkotzat jotzen zituen, krisian zegoen historiaren interpretazio handien paradigmaren aldean, paradigma pluraltasunaren bidetik jo baino ez zegoela adieraziz<sup>9</sup>.

Zer eragin izan zuten berrikuntza guzti hauek eta eztabaida guzti hauek langile mugimenduaren historia egiteko moduetan? “Bigarren hausturak”, erronka handia proposatu zion langile mugimenduaren espainiar historiografiari: ikuspegi berrien eta ordura arteko jarduera historikoaren arteko bateraketa nola egin. Aurrera begira, langile klasearen eta langile mugimenduaren arteko harreman historiografikoa nolakoa izango zen zehaztu beharra zegoen. Manuel Tuñón de Larak adibidez, langile historia egiteko forma berriekiko zalantzak agertu zituen, langile munduaren egunerokotasuna eta haren dimentsio antropologikoa ikuspegi berrien ardatz egiteak, subjektu indibiduala langilerari buruzko diskurtso historiografikoaren erabateko erdigune bihurtzen ahal zuelako eta honek, langile erakundeak, abangoardiak eta klase ideologiak analisi sozialetik at uzten ahal zituelako. Horregatik, langile mugimenduaren historiarako ikuspegi berrikuntzaren beharra onartzen zuen arren, eztabaida historiografikoak alboratu behar ez zuten funtsezko gako bat ekarri zuten gogora: auzia ez zen klase sozialaren historia ala langile erakundearen historia egin, historialarien erronka, biak bateratzea zen<sup>10</sup>.

---

<sup>7</sup> Proposamen hura 1979an *Past and Present* aldizkariaren 85. zkan argitaratutako “The revival of narrative” artikulua entzutetsuan egin zuen.

<sup>8</sup> Hobsbawmek *Past and Present*en hurrengo zenbakian bertan (86. zka, 1980) erantzun zion, “The revival of narrative: some comments” izenburuko iruzkin batean. Stone eta Hobsbawmen arteko eztabaida hau *Debats* aldizkariak jasoko zuen urteak geroago Lawrence Stone eta Eric J. Hobsbawm, “La historia como narrativa”, *Debats*, 4. zka, 1983, 92-105 orr.

<sup>9</sup> Ikusi Josep Fontana, *La historia después del fin de la historia*, Crítica, Bartzelona, 1992 eta Santos Juliá “La historia social y la historiografía española”, *Ayer*, 10. zka, 1993, 29-46 orr.

<sup>10</sup> Ángeles Barrio, “Clase obrera y ...”, Op. Cit., 86-87 orr.

90. hamarkadan, langile mugimenduaren espainiar historiografia egiazki soziala egin zen, langile mugimendu eta protestarekin batera, langileen bizi baldintzak eta lan baldintzak hala nola lan harremanak aztertzen hasi baitziren. Ideologiak, gatazkaren eta ekintza kolektiboaren arrazoi bakarra izateari utzi zion. Klase sindikalgintza aztertzerakoan militantziaren pizgarri bezala azaleratzen hasi ziren faktore berriak, erakundeen baitako identitateen sorrera, lidergo egiturak edota buruzagi eta oinarritzko militantziaren arteko harremanak kasu, honen adibide dira<sup>11</sup>. Ildo horretan, erakundeek eta sindikatuek historiaren subjektu bakarra izateari utzi zioten eta klasea bera bihurtu zen, orain, historiaren subjektu nagusia. Igarobide honetan, identitatea, hots, klase identitatea eta identitate politikoa, ekintza kolektiboaren eta mobilizazioaren atze oihal bilakatu zen.

Bilakabide eta berrikuntza hauek, nola edo hala, frankismoaren bitarteko langile mugimenduaren historia sozialean ikusi ahal izan dira<sup>12</sup>. 90. hamarkadan, hain zuzen ere langile mugimenduaren historiografia espainiarra egiazki soziala egin zenean, gaiari buruzko lanen lehenbiziko loraldi bat bizi izan zen. Orduan, adibidez Sebastian Balfour, Carme Molinero eta Pere Ysás edota José Babiano bezalako autoreek, ondorengo ikerketetan maneiatuko ziren kontzeptuak, eredutzat hartuko ziren interpretazioak eta landuko ziren problematikak finkatu zituzten. Orokorrean, urte hauetan lan ezberdinek jorratu zuten interpretazio ildoak, garapen ekonomikoarekin eta eraldaketa sozialarekin batera sortu zen langile mugimendu berri baten agerpenarena izan zen. Ildo hau, aurreko langile mugimenduarekiko haustura argia eman zelako egitatean oinarritzen zen. Izan ere, langileak berriak ziren (emigraziotik sortutakoak eta gerra zibila bizi izan ez zuten belaunaldietako kideak) eta hauek garatutako antolakuntza eta gatazka ereduak ere berriak ziren (ez zuten zerikusirik aurreko erakunde politiko eta sindikalekin). Hausturaren eta berrikuntzaren oinarri horretatik abiatuta langile mugimenduaz egiten ziren interpretazioak ordea, desberdinak ziren. Alde batetik, hura, garapen ekonomikotik eratorritako jomuga kontsumistak asetzearren soldaten goititza bilatzen zuen langile mugimendua zelako interpretazioa zegoen. Honen arabera, mugimendu berria, aurreko klase baloreekin eta tradizioekin apurtzen zuen ekonomismo batean oinarritzen zen, bere jomugak hazkunde ekonomikoaren markoan asetzeko aukerari esker, langile klasearen integrazioa lortzen baitzen. Bestetik, mugimenduak garatu zituen gatazka molde berriei eta hauek frankismoaren amaieran izan zuten paper nagusiarri lehenetsua ematen zien ikuspegia zegoen. Honen arabera, mugimendu berria eta honen antolakuntza eta gatazka forma berriak, garapen ekonomikoak sorrarazitako errealitateei emaniko erantzunak ziren.

Bigarren ildo honi jarraiki, azken urteotan, identitatearena, langile mugimendu berri honi buruzko eztabaidara sartu den elementua izan da. Langile identitateen sorrera eta identitate hauetan zer dagoen zahar eta zer dagoen berri aztertzea bilakatu da frankismoaren aldiko langile mugimendu berriari buruzko azken lanen hizpide. Langile identitate berrien sorreran, aurreko langile kultura politikoen elementuen jarraitutasunak egon zirela eta hauek, desagertu baino, errealitate berrietara egokituz berrirakurri eta moldatu egin zirela izan da ikerketa hauen ondorio nagusia. Honela, Errepublikaren eta gerra zein errepresioaren memoria partekatuek iraun zutela eta familiaren baitan edota are fabrika bezalako esparruen baitan belaunaldien arteko hauen transmisioa gertatu zela azaleratu dute. Javier Tebarrek adibidez, langileen

---

<sup>11</sup> Ángeles Barrio, "Historia obrera en los noventa: tradición y modernidad", *Historia social*, 37. zkia, 2000, 143-160 orr.

<sup>12</sup> Ikusi Xavier Domènech historialariak frankismoaren garaiko langile mugimenduaren historia sozialari buruz *Ayer* aldizkarian egin zuen saiakera bibliografikoa. Oso baliagarria izan zaigu gaiaren inguruko hurbilketa orokor bat egiteko. Xavier Domènech, "La formación de la clase obrera bajo el franquismo. Nuevos debates", *Ayer*, 79. zkia, 2010, 283-296 orr.



militantziaren aurreko esperientziak arakatu zituen eta fabriketan eta auzoetan gauzatzen zen gizarteratzean, aldez aurretik militantziarako prestatzen zuten halako memorien transmisioak ematen zirela topatu zuen Katalunian. José Antonio Pérezek, Bilbo Handiaren kasuan, familiaren baitan, fabriketan, auzoan eta are lagun taldeetan halako transmisioak eman zirela ikusi zuen ere. Xavier Domènechek, bere aldetik, memorien transmisio hauetaz beste, errealitate berriei aurre egiteko erabili ziren jakintza praktikoen transmisioak ere gertatu zirela baieztatu zuen. Guztiarekin ere, jarraitutasunetik langile identitate berrien sorreran izan zuten paperaz aritzerakoan, Rubén Vegak, aurrera begira oso kontutuan hartzekoa den oharrazpena egin zuen transmisioak egon zirela baieztatzea erraz samarra den bitartean, egiazki zaila dena hauek identitateen sorreran izan zuten eragina balioestea dela esanez.

Modu honetan, berrikuntza historiografikoen bidetik, hein handi batean gaiari ekiteko ikuspegia zabaltzeari esker, frankismoaren garaiko langilearen historia egiteko moduak ere aldatuz joan zirela esan daiteke. Historia sozialaren ildoan, langile mugimenduari, erakunde sindikal eta politikoei eta hauek protagonistatzat izan zituzten lan gatazkei ez beste, *langile klaseari* berari arreta jartzen hasi zitzaion, langile errealitatea begiratzeko esparruak zabaltzeko zirelarik (lan eta bizi baldintzak hala nola langile errealitatearen bestelako esparruak, sozializazioa edota aisialdia kasu) eta *klase kontzientzia* eta *klase identitatea* bezalako kontzeptuei heldu zitzaizlarik.

Frankismoaren aldiko langile mugimenduaren historia, era berean, tokian tokiko ikerketen bitartez asko aberastu da. Pedro Ibarak, Bizkaiko kasua aztertuz, langile mugimenduaren erakundeak, ideologiak eta gatazkak aztertzeko eredu bat sortu zuen<sup>13</sup>. Sebastian Balfourrek burutu zuen Bartzelonako metropoli eremuko langile

---

<sup>13</sup> Pedro Ibarra, *Movimiento obrero en Vizcaya (1967-1977). Ideología, organización y conflictividad*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbao, 1987. Lan honen ildoan egin zuen adibidez José Vicente Iriarte Aresok Nafarroako langile mugimenduari buruzko berea. Hauek, 80. hamarkadan argitaratu ziren tokian tokiko hainbat lanen ildoan jarraitzen zuten nolabait, Kantabriako langile mugimenduari buruzko José Carlos Argos Villar eta José Emilio Gómez Díazen *Movimiento obrero en Cantabria 1955-1977*, Puntal Libros, Santander, 1982, Valentziako langile mugimenduari buruzko Josep Picoren *El moviment obrer al País Valencià sota el franquismo*, Ed. E. Climent, Valentzia, 1977 edota Kataluniako langile mugimenduari buruzko Pere Gabrielen *Comissions Obreres de Catalunya 1964-1989*, Ampuries, Bartzelona, 1989. Langile erakundeak hizpide izan dituzten lan asko, frankismoaren garaiko langile mugimenduari berezkoak izan zitzaizkion forma berriak, hau da, Langile Komizioak, aztertu izan dituzte bereziki. David Ruizek 1994ean zuzendutako lana da adibiderik argiena, non frankismoaren bitarteko langile antolakuntzan arituak ziren zenbait autorek, estatuko lurralde desberdinetako (hain zuzen ere Katalunia, Euskal Herria, Asturias, Madril, Valentzia, Andaluzia, Aragoi, Galizia, bi Gaztelak, Extremadura eta Balearrak) CCOOen jatorria eta garapena azaltzen zuten. David Ruiz (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras, Siglo XXI*, Madril, 1994. Lan kolektibo honetan parte hartu zuten autoreen artean, 90. hamarkadan zehar frankismoaren garaiko langile mugimenduaren, antolakuntzaren eta lan-gatazken, ikerketaren bidea zabaltzeko eta denbora luzez funtsezko erreferentzia izan direnak aurkitzen ditugu. Aipatu Pedro Ibarrekin batera, besteak beste, Carme Molinerok, Pere Ysásek eta Javier Tebarrek (Katalunia); José Gómez Alének (Galizia); edota José Babianok (Madril) tokian tokiko ekarpenak egiten zituzten. Molinerok eta Ysásek geroago, oraindik erreferentziazkoa den *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista*, Siglo XXI, Madril, 1998 argitaratu zuten, Gómez Alének *As CCOO de Galicia*, Edicions Xerais, Vigo, 1995 eta *Historia de Comissões obreiras de Galicia nos seus documentos*, Edicions do Castro, A Coruña, 1996 eta José Babianok, ikusiko dugun bezala, frankismoaren garaiko lan mundura gai desberdinei helduz gerturatzen zen hainbat lan. Lan kolektibo honek, trantsizioaren garaiaz aritzen zen Álvaro Soto Carmonaren ekarpen bat bazuen ere. Soto Carmona lan gatazken arloan nabarmendu zen bereziki, hein handi batean gatazken izaeraren edo arrazoien inguruko eztabaidari (gatazka ekonomiko edo politikoak?) bide eman ziolako. Erreferentziazkoak ditugu adibidez *Clase obrera, conflicto laboral y representación sindical. Evolución socio-laboral de Madrid. 1939-1991*, Ediciones GPS-Madrid,

mugimenduari buruzko azterketak berrikuntza garrantzitsuak ekarri zituen berekin. Ikuspegia aldatu eta langile mugimendu desberdinen kultura anitzek (zeinetan egitura sozio-ekonomikoak edota antolaketarako zein protestarako tradizioak bezalako faktoreek zeresanik zuten) mugimenduon protesta moldeetan nola eragiten zuten azaltzen zen, langile erakundeen jardueraren zein lan gatazken dinamikaren analisia egiteko elementu berriak kontutan hartzen zirelarik<sup>14</sup>. José Babianok, Madrilgo langile mugimendua aztertzerakoan, haren osaera, lan harremanen egitura, lan eta bizi baldintzak eta honek garatutako antolakuntza eta protesta molde berriak izan zituen hizpide<sup>15</sup>. Aipatu José Antonio Pérezek eta Xavier Domènechek berdin egin zuten 2000. hamarkadan, Bilbo Handiaren eta Sabadellen kasuetan<sup>16</sup>. Bigarren honek, langile identitatearen eraketa egin zuen bere ikerketen ildo nagusienetarako bat<sup>17</sup>. Azken aldian ere, langile mugimenduari buruzko ikerketak, gutxi industrializatutako probintzietara, ekialdeko Andaluzia kasu, zabaldu dira ere<sup>18</sup>.

Hartara, langile mugimenduaren espainiar historiografiaren aipatu bilakaeraren baitan eta aipatu ikuspegi desberdinen artean, non kokatzen da gure ikerketa? José Vicente Iriarte Aresoren lanak azaleratutako langile antolakuntzaren eta gatazkaren forma hartu zuen langile mugimendua baino, ikerketa honen subjektua langile mugimendu hori sortu zuen langileria, klasea bera, da. Duela urte batzuk, Emilio Majuelo historialariak, 50. hamarkadan abiatu zen prozesu batean, Euskal Herrian langileria berri bat sortu zela adierazi zuen<sup>19</sup>. Hazkunde ekonomikoak eragindako gizarte eraldaketen eskutik jaio zen, hauek talde sozial berri bat, langileria industrial, gazte eta hein handi batean esperientziarik gabekoa, osatu zutenean. Osatu zen hori ez zen, ordea, zuzenean klase sozial kontziente bat izan. Talde sozial berri bat zen, klase sozial gisara itxuratu zen arte, oraindik eraketa prozesu bat bizi behar izan zuelarik. Zentzu honetan, talde hura nola eta zein baldintzatan bihurtu zen klase sozial izango litzateke azaldu beharrekoa. Ikuspuntu hau geureganatu eta frankismo garaiko Iruñerriko langile klasearen historia modu horretan, hura prozesu klabean ulertuz egitea beharrezkoa eta posiblea dela uste dugu.

---

Madrid, 1994 edota "Huelgas en el franquismo: causas laborales, consecuencias políticas", *Historia social*, 30. zkia, 1998.

<sup>14</sup> Sebastián Balfour, *La dictadura, los trabajadores y la ciudad: el movimiento obrero en el área metropolitana de Barcelona (1939-1988)*, Edicions Alfons el Magnanim, Valentzia, 1994.

<sup>15</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y huelgas. Un estudio sobre el trabajo y los trabajadores durante el franquismo (Madrid 1951-1977)*, Siglo XXI, Madrid, 1995. Frankismoaren garaiko lan mundura gai desberdinei helduz gerturatu zen eta adibidez, lan harremanak eta lanaren antolaketarako moldeak, paternalismoa eta fordismoa kasu honetan, aztergai izan zituen ere, hauek langileriarengan izan zuten eragina azaldu asmoz.

<sup>16</sup> José Antonio Pérez, *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del gran Bilbao (1958-1977). Trabajadores, convenios y conflictos*, Biblioteca nueva, Madrid, 2001 eta Xavier Domènech, *Cuan el carrer va a deixar de ser seu. Moviment obrer, societat civil i canvi polític. Sabadell (1966-1976)*, Abadia de Montserrat, Bartzelona, 2002.

<sup>17</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, Bartzelona, 2012.

<sup>18</sup> Ekialdeko Andaluziaren kasurako ikusi Teresa Ortega López eta Francisco Cobo Romero, "La protesta de sólo unos pocos: el débil y tardío surgimiento de la protesta laboral y la oposición democrática al régimen franquista en Andalucía Oriental, 1951-1976", *Historia Social*, 26. zkia, 2003, 113-160 orr. Granadari buruz zehazki, Teresa Ortega López, *Trabajadores y jornaleros contra patronos y verticalistas. Conflictividad laboral y reivindicación democrática en una provincia periférica y escasamente desarrollada: Granada 1936-1982*, Granadako Unibertsitatea, Granada, 2001. Ildo berean, Oscar Martín García Albaceteren kasua aztertu du, *A tientas con la democracia. Movilización, actitudes y cambio en la provincia de Albacete 1966-1977*, Los libros de la Catarata, Madrid, 2008.

<sup>19</sup> Emilio Majuelo, "50eko hamarkada: langileriaaren historiako gunea", *Jakin*, 159. zkia, 2007, 109-125 orr.

Horretarako, hots, klase sozial baten eraketa prozesuaren azterketari heltzeko, lehenik eta behin geure burua klasearen kontzepzio teorikoari buruzko eztabaida historiografikoan kokatu behar dugu. Ikerlan hau teorikoki funtsatzeko klaseaz eta haren auzi historikoez pentsatu eta hausnartu behar izaterakoan, E. P. Thompson historialari britainiarrarengana hurbiltzea oso ariketa interesgarria izan da. Haren proposamen historiografikoak kontzeptu eta tresna teoriko erabilgarriak eskaini dizkigu frankismoaren garaiko Iruñerriko langileriarengana hurbildu, bizi duen prozesua ulertu eta honi esker, langile klase horren historiaren inguruko ikerketa berri bat planteatu ahal izateko.

### **Oinarri teorikoak. E.P. Thompson eta langile klasearen eraketa**

EP Thompson eta bere lanik adierazgarriena, *The making of the english working class*, 60. hamarkadan gorantz ari zen historiografia marxista britainiarraren tradizioaren eskutik, industria iraultzaren historia soziala egiteko moduak betiko aldatu zituen. Britainia Handiko historialari marxistekin partekatzen zuen ildo komunari jarraiki, bere azterlanek kapitalismoaren sorburua, garapena eta hedapena aztertzea zuten hizpide eta hauetan guztietan prozesu horren zentzu ekonomikoaz haratago joan zen klase borrokak ikusgarri egiten zituen prozesu sozial sakonagoak azalertzeko. Horregatik bere ikerlanak klase borroka haietako protagonistak eta euren ekintzak berreskuratzea eta azaltzea bideratuta egon ziren, “behetik egindako historia” egiteko moduaren bidea jarraituz<sup>20</sup>.

Ildo horretan, bere jarduera historiografiko guztia garatzeko, historia sozialaren eta marxismoaren auzi garrantzitsuenak barne hartzen zituen adierazpen teoriko propio bat osatu zuen. Thompsonen lanak marxismoaren baitan eragin izan dituen eztabaida eta ondorioetan sartu gabe, bere historia egiteko modua, esparru teorikoan zein praktikoan, determinismo ekonomikoaren lehentasuna eta giza ekintzaren ukatzea irizpidetzat zuten marxismoen eta gizarte zientzien aurkako borroka intelektuala izan zela nabarmentzen ahal da<sup>21</sup>. Borroka honetan adierazpen marxista ortodoxoen berrikuspina egitea izan zuen xede eta horretarako, hauen aurrean, marxismo heterodoxo eta humanistan oinarritutako materialismo historiko berritu bat jasotzen zuen berezko eskema teoriko bat mahaigaineratu zuen. Materialismo kultural bat zen hura, estalinismoari kritika egitearekin batera, eraldaketa sozial eta kulturalerako berezko proiektu politiko bat aurreikusten zuena. Thompsonek berak eta Raymond Williams edota Richard Hoggart bezalako autoreek gorpuztu zuten materialismo kultural hau, haren eragina historiografiara, antropologiara, soziologiara, literatura teoriara eta are azterketa kulturaletara zabaldu zelarik.

Thompsonen obra, kontestu intelektual orokor baten baitan ulertu behar dugu. Hura, alor desberdinetako intelektual ezkertiarak ideia elkartrukeetan, eztabaidetan eta elkarren arteko eraginetan harremanatu zituzten eta ezker berria deitu izan zena sortu markoa izan zen<sup>22</sup>. 50. hamarkadaren amaieran sortu ziren *The New Reasoner*

---

<sup>20</sup> Britainia Handiko historialari marxisten artean ez zen bakarra izan eta berak langileak klasearen eraketaren protagonista bihurtu zituen moduan, George Rudék jendetza iraultzaileei aurpegia jarri zien eta Eric J. Hobsbawmek langile eta nekazari mugimenduak landu zituen, langile mugimenduen garapenaren aldiari langileen baldintza sozial eta ekonomikoak aztertuz eta mobilizazio nekazari eta herrikoiei buruzko ikerketak burutuz.

<sup>21</sup> Thompsonen figura bere kontestu historiografikoan kokatzeko, ikusi Bryan Palmer, *E. P. Thompson: objeciones y oposiciones*, Valentziako Unibertsitatea, Valentzia, 2004 eta Alejandro Estrella, *Clío ante el espejo. Un socioanálisis de E. P. Thompson*, Cádizeko Unibertsitatea, Cádiz, 2012.

<sup>22</sup> Giro honetan parte hartzen edota eragina jasotzen, besteak beste, filosofiaren alorretik Charles Taylor, kultura teoriaren alorretik Stuart Hall, historiaren alorretik Raphael Samuel edota literatura kritikaren alorretik Terry Eagleton aurkitzen ditugu. Autore hauen lan

(Thompson, John Saville, Raymond Williams eta Alasdair MacIntyrearen ingurukoa) eta *Universities & Left Review* (Charles Taylor, Raphael Samuel, Stuart Hall eta Gabriel Pearsonen ingurukoa) talde eta aldizkariak, izan ziren orduko giro horren gunerik emankorrenak. Izan ere, bien arteko harremana, lehen *New Left Review* aldizkariaren sorreraren pizgarria izan zen 60. hamarkadaren hasieran. Aipatu materialismo kulturalaren lorretatik jaioa, azken hau, obrerismo zaharrea jada ezagutzen ez zen eta mugimendu sozial berriei begiratzen ziren ezker berri baten adierazpen teorikotzat jotzen da.

Thompsonekin mantendu izan diren eta oraindik mantentzen diren elkarrizketak eta eztabaidak direnak direla, historialari sozialen artean, orokorrean, langileriaren historiografiari egin zizkion ekarpen garrantzitsuak eta emankorrak onartzean adostasuna dago. Ezin da zalantzan jarri, adibidez, *The making of the english working class* bere lan handia historia sozial berriaren bilakaeran mugarri izan zela eta historialari askorengan eta are beste alorretako adituengan eragina izan zuela. Maiztasunez aipatzen diren ekarpen horien artean beti nabarmentzen da Thompsonen langile klasearen presentzia azaleratzen duten adierazleak biderkatu egin zituela eta langile errealitatea behatu eta aztertzeke eremuak eta elementuak, sindikatu, doktrina eta soldaten gora behereaz gaindi zabaldu zituela; ohitura politiko eta erlijioso herrikoiak, errituak, jai eta jaialdi, ereserki eta olerkiak edota langileen bilera zentro eta sozializazio esparruak klasearen azterketa egiteko elementu bezala kontutan hartzea, lorpenetat jotzen delarik. Izan ere, elementu hauek, klase kontzientzia edota identitatearen agerpenaren aurretik langileek berezko esparruak, berezko harreman moldeak eta berezko elkartasun sareak sortzen zituztela egiaztatzen dute eta honek, kontzientzia maila jakina zuten erakundearen presentzia ez zegoen markoetan ere klasearen presentzia bilatzen ahal zela erakusten zuen. Zentzu honetan, Thompson, arestian aipatutako langile mugimenduaren historia egiteko forma berrien erakusle bikaina da, oso modu argian lekualdatzen baitu azterketa historikoaren fokua langile mugimendutik langile klasera, langile erakunde antolatuek eta ideologiak alboratuz eta klasearen inguruan dauden alor desberdinak, sozialak, kulturalak eta are antropologikoak aintzat hartuz.

Egun oraindik, Thompsonengana jotzeak, klaseez eta euren sorrera eta bilakaera historikoaz pentsatzeko lagungarri izaten jarraitzen du. Izan ere, klasearen izaeraren, klasearen eraketaren, klase borrokaren eta klase kontzientziaren funtsezko arazo teorikoei aurre egiteko tresnak eta kontzeptuak proposatu zituen, hauek, berak aztertu zituen Ingalaterrako kasu jakinetan ez beste, bestelako kasuetan, frankismoaren garaiko Iruñerriko langileriaren kasuan esaterako, erabiltzen ahal direlarik. Klase sozialen historiaren inguruan planteatu zituen galderak eta ikuspegiak egun ere adierazgarriak dira, hauen oinarrian dauden elementu teorikoek eta analisirako kategoriek, historiaren eta honen dinamika sozial, kultural eta politikoaren azterketa egiteko giltzarri izaten jarraitzen baitute. Honen adierazle dira 2013 urtean, *The making of the english working class* argitalpenaren berrogeita hamargarren urteurrena ospatzeko, mundu mailan burutu ziren ekimenak, jardunaldiak eta argitalpen bereziak batez ere. Espainiar estatuan adibidez, Capitan Swing argitaletxeak egin zuen lanaren edizio berriaz aparte, Fundación 1º de Mayo eta Fundación de Investigaciones Marxistas erakundearen eskutik, "Medio siglo después. E. P. Thompson y la formación de la clase obrera en Inglaterra" izenburupeko

---

ezberdinetan aipatu elkarren arteko harrimananak eta eraginak ikusten ahal dira, bai Raphael Samuel editoretzat izan zuen *Historia popular y teoría socialista* lan kolektiboan, Crítica, Bartzelona, 1984, non beste askoren artean Stuart Hallek idazten zuen; eta baita Charles Taylorrek Hegelen pentsamoldeaz egin zuen berrirakurketan, *Hegel*, Anthropos, Bartzelona 2010 (jatorrian 1975ean argitaratutako lana) edota Terry Eagletonen azken lanetariko batean, *Por qué Marx tenía razón*, Península, Bartzelona, 2011.

hausnarketa eta eztabaida jardunaldiak antolatu ziren eta Sociología Histórica aldizkariak, bere 3. zkian lanaren urteurrenari buruzko monografiko bat egin zuen<sup>23</sup>. Ekimen guzti hauek, bai autoreak eta baita bere obrak oraindik ere historiografiari ekarpen garrantzitsuak egiten ahal dizkiotela kontsideratzen dela erakusten dute nolabait.

Gure kasuan, aipatu elementu teorikoen eta analisirako kategorien artean, bereziki erabilgarriak izan zaizkigu klasearen kontzeptu bera, haren eraketa prozesu historikotzat ulertzen duen planteamendua, klasea kontzientziarekin identifikatzen duen ikuskera, subjektuek eta hauen ekintzek prozesu historikoan duten paperari buruzko hausnarketa eta esperientziaren kontzeptuaren erabilera. Guztiak, nola edo hala, eragina izan dute gudan ikerketa planteatzerakoan.

Thompsonen klase kontzeptua, eztabaida handia sortu duen elementu teorikoa izan da. Tradizio marxistaren beraren baitan, adibidez, betidanik gertatu den klaseari buruzko bi ikusmoldeen arteko norgehiagoka oso modu argian erakusten du, klase kontzeptuari izaera dinamiko, dialektiko eta historiko bat ematen dion ikusmoldea, soilik egitura teoriko baten baitan definitzen ahal den kategoria estatikoaren izaera ematen dion ikusmoldearen aurka jarritz. Thompsonentzat, hartara, klasea ez da kategoria sozial bat, giza harremanetatik eratorritako fenomeno historiko bat baizik eta horregatik, ekonomismoan oinarritutako planteamenduak eta planteamendu estrukturalistak baztertzen ditu, klaseak definitzerakoan, nahimena, kultura edota autoeraketa bezalako faktoreak lehenesteko. Ildo horretan, haren klase kontzeptuaren bereizgarri nagusia, klasea, jendea modu objektiboan klase desberdinetan banatzen duten produkzio moduen arabera baino, kontzientzia edo identitate terminoetan definitzen dela da. Zentzu honetan, oso kritikoa izan zen alde aurretik zehazten ziren eta denboran estatiko mantentzen ziren kategoria hutsak maneiatzen zituzten interpretazioekin. Izan ere, hauek, klasea neurri kuantitatibo soil bihurtzen zuten (produkzio bideekiko harreman mota zehatz bat zuten pertsona kopuruaren arabera), klasea kontestu errealean bizi ziren pertsona errealean haragitzen zela kontutan hartu gabe.

Kritika hauek bereziki Louis Althusserren pentsamoldearen, hots, estrukturalismoaren aurkakoak izan ziren. Oso modu argian jaso zituen, adibidez, *Miseria de la teoría*. Horregatik, bere klase kontzeptuari egin izan zaizkion kritika adierazgarrienak, hein handi batean, ildo horretan kokatutako zenbait autoreen partetik etorri dira. Perry Andersonenak izan ziren, agian, entzutetsuenak<sup>24</sup>. Thompsonen ikuspegiaren aurkakotzat jotzen ahal den beste ikusmolde batekin, harentzat klaseak produkzio moduek sortutakoak dira, zuzenean. Pertsona baten klasea, honek jabetza harremanen sarearen baitan hartzen duen toki objektiboak xedatzen du eta bere kontzientziak, bere kulturak edota bere hautabide politikoak, ez du bere klase egongunearen definizioarekin zerikusirik. Azken batean, klase sozialak ez dira zertan euren buruaz kontziente izan beharrik eta ez dituzte zertan klase jokabide komunak azaldu beharrik, berez klaseak direlako jada.

Thompsonentzat ordea, klasearen definizio estruktural soil batek ezin du, berak bakarrik, klasearen eraketa azaldu eta pertsonak objektiboki klase egoeretan banatuak izaten direla onartzen duen arren, harentzat hori klasearen eraketa prozesuaren

---

<sup>23</sup> “Medio siglo después. E. P. Thompson y la formación de la clase obrera en Inglaterra” jardunaldiak 2013ko ekainaren 27-28an izan ziren Madrilen. *Sociología Histórica* aldizkariak aipatu monografikoak (3. zkia, 2013) Thompsonen figuraren eta bere lanaren alderdi ezberdinen inguruko hamasei artikuluko biltzen zituen osotara.

<sup>24</sup> Ikusi, bereziki, Perry Anderson, *Teoría, política e historia: un debate con E. P. Thompson*, Siglo XXI, Madril, 1985.

hasiera da, ez amaiera. Nabardura garrantzitsua da, alde batetik produkzio moduek sortzen dituzten klase egoerak eta bestetik klasearen beraren eraketa prozesua bereizten baititu. Honetaz ari ginen 50. hamarkadatik aurrera eraldaketa sozioekonomikoek langileria talde sozial berri gisara itxuratu zutela baina klase historiko gisara sortu zen arte prozesu bat bizi behar izan zuela esaten genuenean. Bi prozesu desberdin dira, elkarren osagarri direnak. Alde batetik, pertsonak, banaka, egokitu zaien produkzio moduen baitako egongunean batu egiten dira; bestetik, banakako elkarreratzte hauek gainditzen dituzten klase taldeetan biltzen dira. Azkeneko honek, taldearen klase kontzientziarekin eta taldeak esperientzia komun eta interes komun araberako modu kolektiboan jarduteko agertzen duen joerarekin du zerikusirik.

Gu, ikerketa honetan, Thompsonen klase kontzeptutik oso gertu kokatzen gara. Klasea berezko identitate batekin identifikatzea eta identitate hura prozesu historiko batean sortzen dela aintzat hartzea izango dira ikerketaren planteamenduaren oinarri teorikoak. Bi kontzeptu hauek, abiapuntutzat izan genituen galderei erantzuteko oinarri bat ematen zigutela ikusi genuen: zer gertatu zen Iruñerrian 70. hamarkadaren lehen erdian langile mugimendua horrenbeste indarrarekin eta borrokarako grinarekin (José Vicente Iriarte Aresok baieztatu zuen moduan) agertoki soziopolitikora sartzeko? Klase kontzientzia bat, berezko langile identitate bat sortu zela (“orduan klase kontzientzia zegoen” urte haiei buruz aritzerakoan askotan entzuten den azalpena da). Beraz, klase kontzientzia edota langile identitatea interes komun araberako modu kolektiboan jarduteko motorea izan zelako ikuspegia, langile mugimenduaren jardunaren, mobilizazioaren eta gatazken atzean egon zen indarra azaltzen ahal duen kontzeptutzat hartzen dugu. Galdera berri bat ekartzen du honek berekin, nola sortu zen langile kontzientzia hura Iruñerriko langileen artean? Erantzuteko, prozesuaren ideia oso egokia iruditzen zaigu, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran Iruñerrian jardun zuen langile mugimendu indartsua eta gertatu ziren langile mobilizazio eta gatazkak, bat-batean sortu ez zirelako<sup>25</sup>. Atzera begiratzeak eta bataren eta besteen sorrerara eraman zuten baldintzen eta eragileen elkarrekintza arakatzeak, prozesu baten ideia iradokitzen du nola edo hala. Aipatu galderei erantzuteko klasea egitura estatiko bezala ulertzea ez zitzaigun erakargarria gertatzen, hein handi batean klaseari buruzko ikusmolde estrukturalistek, klaseak bere logika nola ezarri zuen aztertzerako behartzen ez gaituztelako (klasea definizio hutsez hor baitago alde aurretik) eta honek Iruñerriko langileriak, langile mugimenduak eta langile mobilizazio zein gatazkek agertu zituzten berezko ezaugarriak azaltzen laguntzen ez duelako. Zentzu honetan, klaseari buruzko ikusmolde dinamiko eta historikoak onartzen duen kontestu partikularren papera<sup>26</sup>, oso baliozkotzat jotzen dugu. Ikerketa honek, hartara, bide hori jorratzen du eta klasearen eraketa, orokorrean Iruñerriko kontestu partikularretik azaldu behar du.

Honek ez du esan nahi Thompsonen teoriak eta planteamenduek sortu izan dituzten eztabaidak eta aurkakotasunak arbuiatzen ditugunik. Baina Thompsoni egin izan zaizkion kritiken argudio eta azalpenek harengana hurbiltzeko zuhurtziaren beharra erakutsi diguten arren, ikerketa hau planteatzerako orduan eta frankismoaren garaiko Iruñerriko langile klaseaz eta haren eraketaz pentsatzerako orduan, behin ta

---

<sup>25</sup> Iruñerriko langile klasearen presentzia frankismoaren amaierako borroka eta gatazka soziopolitikoetan aurkitu zen bat-batean, aurretik, langile mugimendu antolatu eta indartsu baten ezean, langile klasea existituko ez balitz bezala. Fenomeno haren ikuspegi zabalago bat lortzearen denboran atzera egitea interesgarria izan zitekeela pentsatu genuen, eraketa prozesuaren ikusmoldea geureganatu eta klasearen arrastorik ez zegoela zirudien testuinguru batean, langileak hura sortzen ari zirela ulertu genuen.

<sup>26</sup> Juan José Carrerasek adibidez, Thompsonen eginiko ekarpen handienetarikoa bat, kontestu orokorraz haratago kontestu partikularren garrantzia ematea izan zela esan zuen. Juan José Carreras, *Seis lecciones sobre historia*, Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 2003, 75 orr.

berriz itzuli gara Thompsonen kategoria historiko hauetara erremediorik gabe. Ez ditugu haren planteamenduak baldintzarik gabe jarraitzen, baina planteatutako galderak erantzutearren, klasea historikoki ulertzeko eta aztertze bide eman digun ikuspegia berea izan dela onartu behar dugu. Horregatik ikerketa teorikoki funtsatzerakoan, eztabaida sakonetan sartzeari baino, ikerketa bideratzeko orduan kategoria historiko hauek egin dizkiguten ekarpen baliagarrien inguruan aritzea hobetsi dugu.

Nabarmendu behar dugun lehenbizikoa, prozesuaren ideia da. Klaseak eraten dira eta eraketa hori prozesu historiko baten emaitza da. Prozesu honek talde soziala klase sozial bihurtzen du, honen bitartean, langileak berezko identitate bat eraten joaten baitira. Prozesu hori gure ikerketarako objektu bihurtzen da, izan ere, identitate eta klasea eratuko diren prozesu historiko hori da aztertu behar duguna.

Prozesu horretan parte hartzen duten elementuen artean, bik dute berebiziko garrantzi teorikoa: subjektuak eta esperientzia. Subjektuei dagokionean, paper aktiboa dute klasearen eraketa prozesuan, autoeraketaz hitz egiten ahal delarik eta giza ekintzarako gaitasunak prozesu historikoaren garapenean esku hartzen duelarik. Subjektuei lotuta, esperientziaren kontzeptua aurkitzen dugu, subjektu haien eta eurak sortutako identitatearen artean kokatzen dena. Izan ere, esperientzia biziz eta esperientziari aurre eginez da subjektuek identitatea sortzen dutela. Ildo horretan, esperientzia, subjektuen bizitzak baldintzatzen dituzten errealitateek osatzen dute eta esperientzia hori bizitzea da, hain zuzen ere, subjektuak hari aurre egiteko erantzunak sortzera eramaten dituenak. Beraz, izate sozial eta kontzientzia sozialaren arteko harremanaren norabidea modu honetan irudikatzea posiblea dugu: langileek bizi dutenari buruzko (*baldintza materialak, produkzio harremanak*) interpretazio subjektiboa egiten dute (*esperientzia*) eta honen arabera jokatzeko bizi duten egoerari aurre egiteko forma ezberdinak bilatuz (*giza ekintza*).

Planteamendu honekin, Thompsonek, historiaren gertakariak jende arrunt eta errearen esperientzia bihurtu zituen. Horretarako, lehenik eta behin, subjektuak, hau da, langileak, zeintzuk ziren, nondik zetozen eta nolakoak ziren zehaztu zuen. Bigarrenik, esperientzia azalatu zuen, zeinaren aurrean subjektuek pentsatzen, sentitzen eta ekiten (jokabide kontzienteak) zuten. Ildo berean, adibidez George Rudé, iraultzaren garaiko Parisi buruzko edota Hannoverren Londresi buruzko bere ikerketetan, klase sozialak ikerketarako objektu bihurtu zituen, baina hauei “aurpegia” jartzen saiatzeko asmoarekin<sup>27</sup>. Horretarako, klaseak osatzen zituztenak zeintzuk ziren, nola pentsatu zuten eta nola jardun zuten azaldu zuen, jendetzari berezko izaera eta motibatzeak ezagutu zizkiolarik. Subjektuak modu honetan aintzat hartuta, esperientzia material biluzi baten gainean gertatzen ez dela, hau da, euren tradizio eta baloreak edota mundua ulertzeko bere modu propioa (sinesmen, ideiak) duten izaki historikoen gainean gertatzen dela kontutan izan behar dugu prozesua aztertzerakoan, honek, esperientziak nola bizi dituzten eta hauen aurrean nola erantzuten duten baldintzatzen baitu. Ez bakarrik langile klasearen kasuan. Antzeko planteamendua atzematen ahal da Jaume Torras historialariak XIX. mendearen lehen erdiko nekazarien mugimendu kontrairaultzaileez aritzen denean<sup>28</sup>. Jatorrizko ordena berrezartzeko helburua zuten matxinada hauek, nekazarien mentalitatea eta bizimoduak kontutan hartzen zituen eskema batean kokatu behar zirela adierazten zuen. Izan ere, nekazarien erritu eta balore sistema, esperientziak ordenatzeko eta

<sup>27</sup> Adibidez, George Rudé, *La multitud en la historia. Los disturbios populares en Francia e Inglaterra, 1730-1848*, Siglo XXI, Madril, 2009.

<sup>28</sup> Jaume Torras “¿Contra-revolución campesina?”, Jesús Izquierdo eta Pablo Sánchez León, *Clásicos de la historia social en España*, UNED, Francisco Tomás y Valiente Zentroa eta Instituto Historia Social Fundazioa, Valentzia, 2000.

interpretatzeko erreferentzia puntua zen, honek, liberalismoa, euren bizitzari eta bizimoduari eraso egiten ziela ulertzera eramán zituelarik. Liberalismoaren aurkako nekazal erantzunak hartu zuen arbuio forma, hartara, nekazariak berak eta haien erreferentzia puntuak aintzat hartuta azaldu behar ziren.

Prozesuaren bigarren elementua, esperientzia, teorikoki gakoa da guretzat ere. Esan dugun bezala, subjektuek, esperientzia biziz eta esperientziari aurre eginez sortzen dute berezko identitatea, azken batean, euren bizitzak baldintzatzen dituzten esperientzia hori bizitzea da, hain zuzen ere, hari aurre egiteko erantzunak sortzera eramaten dituena. Horrek ikerketa bideratzeko ildo bat ematen digu, esperientzia azaleratzea eta honek langileen bizitzetan eragiten duena eta langile horiek, bizitukoaren aurrean, egiten dutena azaltzeko bidean jartzen baikaitu. *The making of the english working class* Thompsonen lanean adibidez, argi ikusten da langileek baldintza materialak eta produkzio harremanak esplotazio bezala bizi izan zituztela eta hau izan zela protagonista haiek, bai erresistentzia eta borroka mugimenduetan eta baita euren familia eta komunitateetan, euren atsegín hartzeko esparruetan, euren sinesmen eta jardute erlijiosoetan edota euren lantokietan ere, esplotazio horren aurreko erantzunak sortzera eramán zituená. Esperientzia beti prozesu baten baitan gertatzen da eta horregatik, prozesu historikoez ari garen heinean, esperientzia hori erabat aldakorra da, haren barruan, kontestu historiko ezberdinetan, toki desberdinetan eta momentu desberdinetan, ezberdintasun asko aurkitzen ahal ditugularik. Gakoa gure kontestuan gertatzen dena behatzean eta azaleratzean dago. Honela, Iruñerriko langileek esperientziak bizi izan zituztela eta esperientzia hauek arakatzen ahal ditugula izango de ikerketari heltzeko abiapuntu bat. Bestea, esperientzia horri aurre egin ziotela eta honi aurre egiteko sortu zituzten erantzunak aztertu behar ditugula.

Ikerketa hau planteatzerako orduan esperientziaren kontzeptu hau aurkitzea inflexio-puntu garrantzitsua izan da, frankismoaren garaiko Iruñerriko langileen ekintzaren berezko zentzua, hots, berezko identitate baten edota klase kontzientzia baten existentzia, azaltzeko faltan botatzen genuen pieza bezala agertu baitzaigu. Egia da kontzeptuak hutsuneak dituela, subjektuaren eta kontzientzia sozialaren arteko inferentzia klase zentzuan nola ematen den zehazten ez duela eta praktikan zaila egiten dela inferentzia hori azaleratzea, hau da, subjektuek esperientzia, subjektiboki, nola bizi eta barneratu zuten zehaztea. Baina hauek kontutan hartuta ere, kontzientzia sozialaren sorreraz pentsatzeko oinarri bat ematen duen erreferentzia eta tresna teorikoa dela uste dugu zalantzarik gabe.

Ikerketaren helmuga, langileek prozesu historikoaren bitartean berezko identitate hori sortu zutela eta haren arabera jardun zutela erakustea izango da, orduan talde soziala klase sozial historiko bihurtu zela esan baitaiteke. Klasearen beraren eta bere kontzientzia edo identitatearen arteko erlazioa ulertzeko modu bat dago proposamen honen atzean. Berriz ere Thompsonengana jotzen dugu, honek klase eratua eta kontzientzia parekatu egiten baititu eta kontzientziarik gabe klaserik ez dagoela esaten baitu. Thompson ez zen halako proposamenak egiten bakarra izan eta ildo honi jarraiki, Manuel Pérez Ledesma, klasea eraketa kulturaltzat jo zuen, klasearen beraren eraketa prozesuari heltzerakoan, arreta identitate herrikoien jatorria azaltzean jarri zuelarik<sup>29</sup>. Klasea honela, euren artean egoten ahal diren lanbide eta diru sarrera desberdintasunen gainetik, esperientzia, interes, helburu, tradizio eta balore sistema berberean parte hartzen duten gizabanakoek osatutako itxuratze sozial

---

<sup>29</sup> Ikusi Manuel Pérez Ledesma, "La formación de la clase obrera: una creación cultural", Manuel Pérez Ledesma eta Rafael Cruz Martínez (koord.), *Cultura y movilización en la España contemporánea*, Alianza Editorial, Madrid, 1997.



eta kultural gisara, hots, subjektuak batu eta elkarren artean ezagutu egiten dituen identitate kolektibo gisara, ulertzen da.

Gure ikerketa, frankismoaren amaieran eta trantsizioaren bitartean langileak, helburu, borroka, erakunde zein marko kontzeptual berean bateratzearen bitartez, mugimendu herrikoi eta mobilizazio sozialean ikusgarri egiten den identitate kolektibo bat sortu zelako adierazpenetik abiatzen da. Beraz, identitate horren sorrerara eramango gaituen klasearen eraketa prozesua aztertzea izango da gure helburua. XX. mendeko 50 hamarkadaren erdialdetik aurrera, 60. hamarkada osoan zehar eta 70. hamarkadaren lehen erdian, Iruñerriko langileek esperientziak bizi izan zituzten eta bizitukoari tradizio, balore sistema, ideia eta forma instituzionalen bitartez erantzuna eman zioten, erantzun horiek sortuz, identitate komun bat sortu zutelarik. Prozesu hau, aipatu analisirako kategoriak erabiliz egingo dugu: subjektuak, hau da, langileak, zeintzuk ziren, nondik zetozen eta nolakoak ziren azalduko dugu; esperientziak zeintzuk izan ziren ikusi eta subjektuek hauek subjektiboki, mentalki eta emozionalki, *nola* bizi izan zituzten zehaztuko dugu, 50. hamarkadaren erdialdetik 70. hamarkadaren hasierara arte Iruñerriko langileek bizi izan zituzten *klase esperientziak* azaleratuz; eta ekintza, hots, langileek klase esperientzia horien aurrean eman zituzten erantzunak, non abiatu zen eta nolakoak izan zen azalduko dugu.

Gure subjektuak, 50. hamarkadaren erdialdetik aurrera, eraldaketa sozioekonomikoetatik eratorrita sortzen ikusi ditugun langileak dira, hots, jada aipatu ditugun industria langile gazte eta hein handi batean esperientziarik gabekoak. Ez dira beraz, Thompsonen kasuan bezala, artisauak, ehuleak edota ogibide tradizionalak ofizialak, hiriko fabrika handi berrietako langileak baizik. Hauek ezagutzea ezinbestekoa izango da klasearen eraketa prozesuaren bitartean nola pentsatu, sentitu eta jardun zuten ulertzeko eta azaltzeko. Frankismoaren garaian Iruñerriko langile hauek bizitako esperientzia, bizitzaren alor desberdinetan (lanean, egunerokotasunean, auzoan) esplotaziozko zat jotzen ziren bizipenekin du zerikusirik. Gure kasuan, esplotazioaren agerpenak modu batekoak edo besteak izango dira, elementu batzuetan edo besteetan azalduko zaizkigu eta langileen bizitzetan eragin bat edo bestea izango dute, baina frankismoaren bitartean esplotazioak hartu zituen forma ezberdinak topatzen baditugu eta langileen bizitzaren zein esparrutan igarri ziren eta nola pertzibitu ziren zehazten badugu, prozesu historikoaren bilakaeran parte hartzen duten esperientziak zeintzuk izan ziren argitzeko bidean jarriko gara.

“La presencia de la clase obrera” izeneko *The making of the english working class* hirugarren atalean, Thompsonen oso modu adierazgarrian erakutsi zuen subjektuen ekintza zertan gauzatu zen. Bertan, langileek hauteman eta barneratu izandako esperientziaren aurrean nola erreakzionatu zuten jasotzen da eta subjektuek bizitako esperientziari emaniko erantzun ezberdinak harilkatzearen bitartez, langile kultura berri baten sorrera, haren elementuak eta irudikapenak azaltzen dira. Langile kultura hura, erreakzio hauetatik sortzen hasi zen, sortutako erantzunek langileen artean kapitalismoaren aurkako atsekabea orokortu zutenean eta sistema sozio-ekonomiko bezala kapitalismoaren kritika moral jakin bat gorpuztu zutenean. Subjektuek kultura sortzeko aurkitu zituzten esparruak eta hauetan hura garatu eta langileen artean orokortzeko erabili zituzten baliabide eta tresnak zeintzuk izan ziren aztertu zuen, langile kultura berria eta honekin langile identitatearen adierazleak subjektu, esparru eta baliabide hauek zeharkatzen zituzten ideia, ikusmolde, sinbolo, irudi eta jokabideetan azaleratuko zituelarik. Eredu ona iruditu zaigu eta guk, identitatearen sorreraren azterketa, zirkuitu bat irudikatuz egingo dugu. Izan ere, langile identitatearen sorrera azaltzerako orduan, zirkuitu hori eta bertan gertatu ziren loturak irudikatzea, elkar ezagutzen ez zuen subjektu multzo batengan elkarrekiko leialtasun sentimendu indartsuen errotzea argitzeko lagungarria izan daiteke. Gakoa beraz, protagonisten arteko konexioak topatzean, aurkitutako puntu komun hauek

langile identitatea giltzatzerako orduan nola funtzionatu zuten ulertzean eta subjektuen arteko kointzidentziak, erakarpenak eta harremanak zeren arabera finkatu ziren azaltzean egongo litzateke. Frankismoaren garaiko Iruñerrian langileak euren artean elkarlotuko dituen zirkuitu horren irudia osatzea oso interesgarria izan daitekeelakoan gaude, subjektu, esparru eta batzuetatik besteetara ibili ziren ideiak elkarren artean harilkatuko dituen sare moduko bat aurkeztearekin, frankismoaren garaiko Iruñerriko langile klasearen presentzia aditzera emateaz beste, elementu ezberdin hauek langile identitatea sortzeko nola jardun zuten ezagutarazten ariko garelako.

Zirkuitu hau, bizitako esperientziaren hizkerazko formulazioa egin eta ideal kolektibo jakin baten adiera gorpuzten duten esparrua izango da. Are gehiago, hizkerazko formulazio horietan eta ideal kolektibo jakin horren adieran oinarrituta, langileek berezkozat ezagutuko eta barneratuko duten ulermen marko komuna sortzen eta zabaltzen den esparrua izango da ere. Manuel Pérez Ledesma emandako adibide adierazgarri batekin, zirkuituak zentzu honetan betetzen ahal duen paperaren idea bat egin dezakegu. Pérez Ledesma azaldutako klasearen eraketa kulturean, langileek, patrioiak esplotatzaile, langileen etsai eta hautematen duten dikotomia sozial baten aurpegi negatibo bezala irudikatzen dituzte eta euren burua, dikotomia horren beste aurpegian, esplotazioa sufritzen, ezagutzen dute; oinarrizko kontrajartzeen (esplotatzaileak/esplotatuak, jaunak/lagunak) sumatzean eta berdinen arteko elkarrekiko ezagutzan (*gu* orokor baten nozioa) funtsatzen den ulermen marko komuna osatuz<sup>30</sup>. Guzti hau, zirkuituaren baitan gertatuko litzateke.

Frankismoaren garaian sortuko den langile identitateak agertuko dituen berezko hainbat elementu, aldi honetako langile mugimendu eta klaseari buruz egin diren ikerketa ezberdinen bitartez azaleratuak eta aztertuak izan dira jada. Aipatu dugunez, azken urteotan, identitatearen auzia, frankismoaren garaiko langile mugimenduaren historiografian indarrez sartu da, frankismoaren bitartean sortutako langile identitateen elementu bereizgarriak azalratzea helburu duten planteamendu berriekin. Hainbat autorek, adibidez, urte haietako klase identitateetan zer dagoen zahar eta zer dagoen berri bereizteko ahaleginak eta tradizioak langile esperientziaren marko berri batean nola berrirakurriak eta moldatuak izaten diren argitzeko saiakerak egin ditu. Zentzu honetan, frankismoaren garaian *zaharra* dena nekazal kultura herrikoi baten arrastoan bakarrik ez ikusteak eta gerrak, errepresioak eta suntsipenak jotako langile kultura errepublikarrek prozesu historikoan paper garrantzitsu bat jokatu dutela aditzera emateak (behintzat Kataluniakoa bezalako kasuetan<sup>31</sup>), bide hura frankismoaren garaiko kontestuari berezkoak zaizkion ezaugarri eta dinamikekin batera ibili behar dela iragartzen dute. Gu ere identitateaz ariko garen heinean, sortzen ikusiko dugun identitateetan zer dagoen zahar eta zer dagoen berri ikustean erronka bat dugu. Frankismoaren markotik eratorritako bestelako bereizgarria bat langileek berezko esparruak, klasearen erreproduktzioarako esparruak, sortzeko eta garatzeko izan zuten ezintasuna (debekua) gainditu behar izan zutela izango da. Hauei, frankismoaren bitartean gertatu ziren eraldaketa sozioekonomikoak gehitu behar zaizkie. Hauek, fenomeno bereizgarriak baino, fenomeno orokortuak jarri zituzten martxan, kapitalismo industrialaren garapena, hazkunde ekonomikoa, fabrika handien ezarrendua, landatik hirirako emigrazio mugimenduak, hiritartzea, langile auzoen sorrera, klase egituraren eraldaketa, gizarte talde berrien sorrera, aldaketak oso bizkorak eta errotikoak izan zirelako berezitasunarekin.

Hain zuzen ere errealitate berri hauetatik sortzen dira langileek esperientziak biziko dituzten eta erantzunak sortuko dituzten bi agertoki printzipalak: fabrika eta

<sup>30</sup> Manuel Pérez Ledesma, "La formación de..." Op. Cit., 224 orr.

<sup>31</sup> Kataluniako kasuaz sakonean aritu dira, adibidez, Javier Tebar eta Xavier Domènech bezalako autoreak.

auzoa. Biak, prozesua gertatu zen, identitatea sortu zen, esparru nagusienak dira. Esate baterako, langile kultura errepublikarren eta gerraren eta errepresioaren memorien jarraikortasuna aztertu duten autoreek, tradizioen (kode kulturalen eta ideien) transmisioa gertatu ziren sareak bereziki bi esparru hauetan zabaltu zirela erakutsi dute. Gure zirkuituaren sorreran, langileen berezko esparru bezala, funtsezko papera izango dute ere. Azken batean, diktaduraren kontestuan, eguneroko bizitza politiko eta soziala goitik inposatuta eta kontrolatuta izaterakoan, bi esparru hauek langileen ekimen, jarduera eta ekintza propioak abiatu eta garatzeko aukera ematen zuten gune bakar bezala agertzen baitira.

Frankismoaren garaiko langile identitatearen sorrera prozesuaren berezko ezaugarri bat, fabrikek eta hauen barruan sortu ziren antolakuntza formek eta gertatu ziren gatazkek izan zuten papera da. Fabrikari dagokionean, langileriaren eta langileriarentzako esparru nagusia izan zen, bai langileek topo egin zuten esparru naturalak izan zirelako eta baita berarekin balore eta kultura kodeen elkartruke, transmisio eta errepikapena gertatu zelako ere. Fabrika, zentzu honetan, langileen gizarteratze soziopolitikorako gune abantailatutzat hartzen dugu. Izan ere, antolakuntza forma berriak eta, finean, langile mugimendu berria, fabriken baitan ematen zen elkarreratze hauetatik sortuko dira. Gatazkei dagokionean, fabrikaren barruan gertatu ziren borrokak, langileen ekintza azaleratzeko egoera ezinhobeak izango dira, gatazkaren kontestuan atzematen ahal diren ekintza kolektiboak, eztabaiden eta jarreraren garapenaren bitartez, euren jokabideak, baloreak eta identitateak nola eraldatu ziren ikusgarri egingo delako. Guzti honegatik fabrikaren azterketak tarte handia hartuko du zirkuituaren azterketan.

Langileen bizi espazioak, auzoak, hiri askok frankismoaren garaian bizi izan zuen populazio hazkunde eta hiriritarte prozesuei oso lotuta agertzen zaizkigu. Estatu hiri handienetan prozesu hauen biziagotzea eman zen bitartean, Iruñea bezalako hirigune askotan, momentu honetan gertatu zen immigrazioaren orokortzea eta langile auzuneen agerpena. Auzo hauek, klase komunitate eta klase identitate autonomoak sortuko diren agertokiak izango dira. Fabriketan gertatu bezala, auzoetan ere langileek topo egin zuten eta eguneroko bizitza komunitarioan, aipatu balore eta kultura kodeen elkartruke, transmisio eta errepikapen horiek bilduko zituzten "biziraupen sareak" sortu zituzten. Sare hauen dinamika, ezinbestekoa izan zela ikusiko dugu, langileek berek behetik sortzen zituzten berezko gune autonomoak (kirol elkarteak, aisiadirako elkarteak, auzo elkarten haziak, parrokiak eta erakunde katolikoak...) hauen barruan giltzatu baitziren. Esparru hauetan ere identitatea sortu eta hedatuko da. Horregatik, auzo esparruaren azterketak tarte garrantzitsua hartuko du ere zirkuituaren azterketan.

Frankismoaren bitarteko langile klasearen eraketa, orokorrean estatu mailan gertatu zen prozesua izan zen. Hain zuzen ere tokian tokiko ikerketak ari dira espainiar estatuko puntu desberdinetan prozesu hauek nola eman ziren argi egiten. Ikerketa hauei esker ikusten denez, tokian toki berezko prozesuak bizi izan ziren, berezko aldaerak agertzen dituztenak. Hauek azaldu berri ditugun elementuekin dute zerikusirik. Adibidez Iruñerrian subjektuak batzuk ziren eta berezko ezaugarriak zituzten; berezko esperientziak bizi izan zituzten, zeintzuk ziren arabera eta esperientzia hauek hartu zituen berezko formen arabera; berezko modu batean erantzun eta ekin zuten; eta zirkuituaren baitan berezko esparruak sortu zituzten, ez nahitaez estatuko beste puntuetako langileek sortu zituztenekin berdina edota berdina izan zirenean, ez nahitaez estatuko beste puntuetako "zirkuituen" baitan betetzen zuten paper berberarekin. Zentzu honetan, Iruñerriko langile klaseak bere berezko identitatea sortu arte bizi izan zuen prozesuak bereizgarriak izan zituela esan daiteke, langile klasearen eraketaren berezko eredu bat osatzen ahal dugularik.

## 2. IKERKETAREN EGITURA ETA EDUKIAK

Tesi honen ikerketarako objektua, esan dugun bezala, frankismoaren bitartean Iruñerrian sortu zen langile klasea da. Honen eratzeko prozesua 1956-1976 urteen arteko marko kronologikoan kokatu dugu. 50. hamarkadaren erdia hartzen da abiapuntutzat, behin gerraosteko urte gogorrenak atzean utzita, orduan, Iruñerriko langileentzat, aro berri bat hasi zela ulertzen dugulako. Aurretik, hainbat mugarririk adierazi zuen horrela izango zela: 1950ean bertan Txantrea langile auzoaren lehen harria ipini zen, 1951n zenbait egunez Iruñea osoa gelditu zuen greba orokor bat gertatu zen eta 1954ean, Iruñeko udalak industriaren babeserako oinarriak adostu zituen, hirian enpresen zein fabriken ezarmendua sustatu asmoz (hain zuzen ere, nafar industria garapenaren motore izango ziren industria garrantzitsuenetarikoz batzuk, orduan hasi ziren finkatzen bertan). 1956an, greba berri batek beste mugarri bat jarri zuen. Oraingoan, langileen aldarrikapen ekonomikoek, soldatei lotutakoak, gatazka eredu berri bat aurreratu zuten, fabriken errealitateak eta lan baldintzetatik eratorriko zena. Zentzu honetan, 1956 urtea, langile klase berri batean abiagunetzat hartu ohi da. Kronologiaren beste muturrean, 1976 urtea ipintzen dugu frankismoaren amaiera eta trantsizioaren hasiera bereziten dituen muga delako. Izan ere, trantsizio prozesuaren hasierarekin eta harekin batera etorriko ziren aldaketa politikoarekin, askatasun sindikalarekin, Moncloako Itunen sinadurarekin edota krisi ekonomikoarekin, klasearen eraketa eman zen markoa neurri handi batean aldatu zela ulertzen dugulako, hau da, eraketa bideratu zuten dinamika nagusienak marko berri bat osatzeko eraldatu zirela ulertzen dugulako.

Lanaren egituraketa klasearen eraketa prozesuaz aztertu eta azaleratu nahi diren alor desberdinen arabera egin da. Hiru bloke nagusi bereizten dira: lehenbizikoan, prozesua ematen den markoaren deskribapena egiten da, hura baldintzatu zuten dinamikak azalduz eta protagonistatzat izan zituen subjektuak aurkeztuz; bigarrean, prozesua bera aztertzeko, langile klasea eratu zen zirkuitua, hau da, langileriak bere egin edota sortu zituen esparruak eta sareak, berregiten dira; eta hirugarrenean, prozesuaren goren unea jasotzen da, frankismoaren azkeneko urteetan langileriak sustatu zituen borroka nagusienak eta hauen antzean atzematen den langile identitate gorpuztua azalduz.

Lehenengo blokea, prozesua eman zen markoaren deskribapena egiten duena, hiru kapitulutan banatzen da. Lehenbizikoak marko hori bera hiru ikuspegi desberdinetatik aztertzen du. Lehenbizikoan, frankismoa bera, prozesua hasieratik baldintzatu zuten elementu bezala aztertzen da. Bigarren ikuspegiak, prozesua, bereziki 60. hamarkadaren bitartean espainiar estatuan bizi izan ziren eraldaketa sozioekonomikoen markoan kokatzen du. Hirugarren ikuspegian, aurreko marko horiek berak Nafarroako eta Iruñerriko errealitateetan ikusten dira. Nafarroak orduan utzi zion nekazal lurralde bat izateari zentzu guztietan, egitura ekonomikoari hala nola populazio, gizarte egiturei eta are kultura zein mentalitate egiturei dagokienean eta onduan bihurtu zen lurralde hiritar, Iruñerria aipatu dinamika sozial berrien erdigune bilakatuz. Hartara, hiriaren hazkundera, fabrika handien eta industrialdeen ezarmendua, gizarte agertoki berrien sorrera, hots, langile auzoak, eskola profesionalak, unibertsitatea, hala nola aktore sozial berrien agerpena (fabriketako langileak, auzoetako bizilagunak, landa mundutik eta estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteak, ikastunak eta Lanbide Heziketako langile gazteak, Nafarroako Unibertsitateko ikasleak, estatuko beste unibertsitatean ikasiak ziren gazteak, Vatikanoko Ibiaren kontestuan seminarioan ibili ziren apaizgaiak) dinamika sozial berri haien osagaiak izango ziren hemen Iruñerrian. Osagai guzti hauek, nola edo hala, klasearen eraketa prozesuaren baitan elkarri eragiten diotela ikusiko da.

Bigarren kapituluaren klasea eratu zuten subjektuak, protagonistak, aurkezten dira. Geroago berregingo den zirkuitua sortu zutenak, haren baitan sozializatu eta mugitu zirenak, nortzuk ziren? Nolakoak ziren? Erantzun nahi izango diren galderak dira. Horretarako, subjektu aktibo hauen ezaugarri nagusienak identifikatzen dira eta hauekin, protagonisten profil eredu ezberdinak osatzen dira. Izan ere, subjektuak ezagutzea, zirkuituaren baitan izan zuten parte hartzea, hartu zituzten jarrerak eta egin zituzten hautabideak azaltzeko ezinbestekoa gertatzen da.

Hirugarren kapituluak, lehenbiziko bloke honi amaiera emateko, protagonista jakin hauek bizi izan zuten errealitatea zein izan zen azaltzen da. Hau da, lehenbiziko kapituluaren aztertutako markoa, bigarren kapituluaren ezagututako subjektuek euren egunerokotasunean nola bizi izan zuten azalartzea izango da helburua. Industrializazioaren beste aurpegian, lan baldintzek, fordismoak eta lanaren antolaketarako modu berriek, produkzio lerroek, denbora-neurtzeek eta produkzio lantzariek, langileengan zer nolako eragina izan zuten ikusiko da. Hazkunde ekonomikoaren beste aurpegian, bizitza maila hobetu arren, langileen eguneroko bizitza zailtasunez bete zegoela ikusiko da, izan ere, etxebizitzarena bezalako arazo larriek edota oraindik oso agerikoak ziren desoreka sozialek, langileek hazkunde haren onuretatik gutxi jasotzen ari zirela iradokitzen zuten. Hiritartzearen beste aurpegian, langile auzoen sorrerak, gabezia argiak azaltzen zituzten bizi errealitatea berriak osatu zirela eta hauek bizitokiaren araberako desberdintasun sozialak agertu zituztela ikusiko da. Finean, hazkunde eta garapen industrial eta ekonomikoaz haratago, bizitza mailaren hobekuntzak, langile klaseari, bizitza kalitatearen hobekuntza ekarri zion ala ez mugatzea eta auzo honen langileen bizitzetan sortu zituen esperientziak ezagutzea izango da kapitulu honen helburua

Bigarren blokean, esan bezala, langile klasea eratu zen zirkuitua berregingo da. Azken batean, zirkuitu hau esparruak eta pertsonak elkarlotzen zituzten sareez osatuta zegoen eta haren baitan, langileek esperientziak, ideiak eta arazo sentimenduak eta irrikak partekatzen zituzten. Klasea zirkuitu honetan eratuko zen heinean, honakoa, lanaren funtsezko parte izango da. Blokeak hiru kapitulu hartzen ditu, haietarik bakoitzak zirkuituaren parte bat berregiten duelarik: hiriko langile auzoetan sortzen dena, erlijiosotasunaren eta Elizaren esparruetan sortzen dena eta fabriketan eta langile mugimenduaren ekimenaren bitartez sortzen dena.

Laugarren kapituluak langile auzoak aztertzen ditu. Klasearen sozializazioarako eta erreproduziorako gune hartzen dira berauetan klase komunitateak osatzen direlako eta arazo berauetan borroka kolektiborako berezko esparruak sortzen direlako. Hasteko, komunitate hauen hastapenak, Iruñerriko auzo baten adibidearen bitartez azaltzen dira. Txantrea auzoaren kasua adierazgarria da langileek berek eurentzat izango ziren etxeak eraiki zituztelako eta eraikitzealdi horretan bertan, auzoaren klase komunitate bezala osatzera eramango zuten elementuen oinarriak ipintzen hasi zirelako. Ondoren, komunitateon bilakabide hau, berauetan langileek garatu izan zituzten sozializazioarako formen azalpena eginez aztertzen da. Hots, langileek auzoetan bere egin eta sortu zituzten elkargune kolektiboak azalartzen dira. Alde batetik, orokorrean Iruñerrian existitu egiten zen asoziazionismoa arakutzen da, sozializazio herrikoierako bide zen heinean, langile auzoetara ere iritsi baitzen. Bestetik, auzoaren bizitza dinamizatzen zuten bestelako erdiguneak identifikatzen dira. Auzoetan topatzen ditugun esparru guzti hauek, langileek bere egingo dituzte eta klasearen eraketa gauzatzen den esparru bilakatuko dituzte. Auzo elkarteek tarte berezia dute azterketan, izan ere, hauek, aipatu sozializazioarako esparruetariko bat izateaz beste, borroka kolektiborako esparruak izan ziren ere.

Auzo mugimenduaren borrokei buruzko azken parte honi dagokionean, zehaztutako marko kronologikoa apur bat luzatzen dela esan beharra dago. Abiatzen

ikusten diren auzo mugimenduaren dinamikak, trantsizioaren garaian mantendu eta are 80. hamarkadara arte iritsi ziren eta horregatik ez ziren adibidez langile mugimenduaren dinamikak bezainbeste aldatu. Auzo komunitateen une gorena erakusteko kapitulu honen amaieran aztertzen den Txantreako kukuso merkatuaren ekimenak, honela, hasieran zehaztutako kronologia gainditzen du, marko kronologikoa 70. hamarkadaren amaierara eta 80. hamarkadaren hasierara arte zabalduz.

Bosgarren kapituluaren erlijiozaletasunak eta elizak zirkuituaren beste parte nagusi baten sorreran eta garapenean izan zuten paper garrantzitsua aztertzen da. Izan ere, Nafarroan erlijioa pisu sozial eta kultural handiko elementua izanik eta tokian tokiko idiosinkrasiaren edota identitatearen parte zela kontutan hartuta, erlijioso tasunak eta haren esparru zein eragileek, prozesuan eragin nabarmena izan behar zuten nahitaez. Elizak erregimenaren euskarri nagusienetariko bat izatetik, oposizioko indarretako bat izatera eman zuten bilakabidea eta jarrera hartze berri hauek gizarteratzeko lruñerrian egon ziren esparruak eta jardun zuten eragileak, hots, apaizak eta apostolutza mugimendu sekularrak, kapitulu honen ildo nagusienak dira. Tarte berezia dute apostolutza mugimendu sekularrek, hauei lotutako erakunde zein militanteek, funtsezkoak izan baitziren zirkuituaren oinarriak ipintzerakoan. Honengatik, HOAC, JOC eta jesuiten Vanguardias bezalako erakundeek langileen sozializatorako esparru gisara izan zuten papera aztertzen da, klasearen eraketa prozesuan izan zuten eragina nolakoa eta zenbaterainokoa izan zen argitzea helburu izango dugularik.

Seigarren kapituluak, zirkuituaren berrosatzeak fabrikaren esparruari eta haren baitan klasearen adierazpen nagusiena den langile mugimenduari heltzen dio. Alde batetik, fabriketan barna militanteen lehen lidergoak egonkortu zituzten kargu sindikalak (ordezkari sindikal eta enpresa epaimahai kideetatik hasita, sindikatuetaiko sail sozialenetako goi mailako karguetara iritsi arte) eta Nafarroako Langile Kontseilua, zirkuituaren parte bezala aztertzen dira. Bestetik, fabriketan sortu ziren langileen autoantolaketarako forma berriak, komisiok, nola sortu ziren eta frankismoaren bitarteko langile mugimenduaren adierazpen nagusiena izanen zen CCOO mugimenduari bide eman arte nola bilakatu ziren ikusten da.

Langile mugimendu honen kultura politikoak aztertzea, ezinbestekoa da honen garapena, izaera eta jokabideak ulertzeko. Hau da, Nafarroako CCOOek agertzen dituen ezaugarri bereziak, ezin dira subjektuekin eta euren profilekin zerikusirik duten nafar langile mugimenduaren kultura politikoak kontutan hartu gabe ulertu. Izan ere, protagonisten jatorria, geografikoa baina baita ere sozial eta kulturala, adibidez, abangoardia militanteen jatorria, euren sozializatorako bideak eta tradizio kulturalak baldintzatu egiten ditu. Zirkuituaren baitan, subjektuen artean eta langile mugimenduan nagusi izan ziren kultura politiko hauek arakatzea da kapitulu honen helburua.

Kapituluarekin amaitzeko, protagonisten ibilbide militanteen azterketa bat egiten da. Helburua sozializazio esparruen, zirkuituaren baitako mugimenduen eta kultura politikoen arteko iradoki elkar lotura baieztatzea izango da. Honela, langile militantzia soziopolitiko haien sorburua identifikatzen da eta euren garapen bidea zehazten da, bitarte guzti horretan zirkuitua osatzen duten esparru ezberdinak -auzoa, apostolutza mugimenduak, fabrika, langile komisiok, talde politikoak edota auzo mugimendua- eta berauetatik abiatzen diren sareak ibilbideotan nola elkarlotzen diren ikusteko.

Hirugarren blokean, behin zirkuitua berregin dela, klasearen eraketa prozesua bere goren unera iristen da. Hau, langile borroka garrantzitsuenak azterkatuz azaltzen da. Zazpigarren kapituluaren, aipatu borrokak bi aldi desberdinetan banatzen dira. Lehenbizikoan, 60. hamarkadaren bitartean biz izan zen langile mugimenduaren artikulatzealdiaren ostean, langileriak protagonismo gehiago izateko borroka egingo du. Langileen ordezkartasunarengatik borroka izan zen, bere buruaz eta izan nahi

zuen paperaz geroz eta kontzienteago zen langileria zelaren seinale. Borroka honetan eragina izan zuten faktoreak, sortu ziren eztabaidak eta gertatu ziren gatazka desberdinenak ikusiko ditugu. Bigarren aldian, fabriken markoa gainditzeko greba orokor eta mobilizazio kolektibo handiak aztertzen dira. 1973ko ekainean Motor Ibéricako langileekin elkartasunean piztu izan zen lehenbiziko greba orokorra, 1974ko udazkenean fabrika desberdinetako milaka langilek batera gauzatu izan zuten gatazka uholdea eta 1975eko urtarrilean beste greba orokor berri bat abiarazi izan zuen Potasa seko meatzari talde baten itxialdia, klasean eraketa prozesuaren goren puntua adierazten duten borrokatzat hartzen dira hemen.

Kapitulua amaieran, borroka hauetan parte hartu zuten langileak batzen zituen berezko langile identitate baten existentzia baieztatzea eta hura osatzen zuten elementu nagusiak azalratzea izango dugu helburu, eraketa prozesua amaitutzat emateko.

### 3.METODOLOGIA ETA ITURRIAK

Ikerketa burutzeko erabili ditugun iturriak anitzak izan dira. Hauen hautaketa eta lanketa egiterakoan lehenbizi, eta lortutako informazioa interpretatzerakoan gero, langilariaren presentzia azalratzea izan da gure helburu nagusia. Horregatik erreferentziako iturri bat izan eta honen lanketa sistematikoa egin beharrean, langilariaren presentziaren lekukotasuna ematen ahal zutela estimatu den iturri desberdinetara jo dugu: gairi buruzko hautaketa bibliografikoa; ahozko iturriak; instituzioetako zein langile erakundeetako iturri dokumental publiko zein pribatuak; iturri hemerografikoak, hots, eguneroko prentsa zein prentsa klandestinoak eta aldizkariak, bai mugimendu, mobilizazio eta borroka sozial eta herrikoien berri ematen dituztenak (Punto y Hora, esaterako) eta baita ere ohitura eta kultura aldizkariak (Pregón). Bakoitzak berriazko lanketa izan du, aztertu nahi izan den gaiari egokitutakoa.

#### Hautaketa Bibliografikoa

Hautaketa bibliografikoa ezinbestekoa izan da landuko genituen gaiak zehazteko eta berauetara hurbiltzeko moduak pentsatzeko. Frankismoari, oposizioko mugimenduei, langile klaseari eta langile mugimenduari, hots, erakunde sindikal eta politikoei eta lan gatazka zein gatazka sozialei buruzko bibliografia zabal bat lantzeko aukera izan dugu, ikerketa ugari eman dituzten eta oraindik ere ematen ari diren gaiak direlako. Azken aldian, ikerketa berri hauek, bereziki tokian tokiko errealitateetara ari dira hurbiltzen, frankismoaren garaiko langileria marko hauetan aztertzeke eredu ezberdinak izan ditugularik. Lan hauek oso erabilgarriak izan zaizkigu analisiak egiteko moduen eredu hartzeko, alderaketak egiteko eta adibideak jartzeko. Gainera, lan hauetarako zenbaitek, antzekotasun nabariak dituzte gure marko teorikoarekin eta asko erabili ditugu erreferentzia gisara gure ikerketa planteatzerako orduan. Aipatzekoak dira, zentzu honetan, Bilbo Handiaren markoan kokatutako José Antonio Pérezek ikerketa eta Sabadellen kokatutako Xavier Domènechen ikerketa <sup>32</sup>.

Alor desberdinei heltzen dien ikerketa izaterakoan, hautaketa bibliografikoak anitza izan behar zuen nahitaez. Frankismoaren inguruko monografiatik hasita,

---

<sup>32</sup> Xavier Domènechek gaiari buruzko argitalpenak ditu, estatu mailan kokatuak edo tokian toki kokatuak. Guztiak oso baliagarriak izan zaizkigu, baina kasu honetan, zehazki, *Cruan el carrer...* Op. Cit. Lanari buruz ari gara. Aipatu bi autore hauetaz beste, tokian tokiko ikerketak egin dituzten bestelako autoreak daude, José Babiano Madrilen kasurako, Carmen Benito eta Rubén Vega Asturiasen kasurako, José Gomez Alén Galiziaren kasurako edota Teresa Ortega Andaluzia eta bereziki Granadaren kasurako.

langile mugimenduari buruzko lan orokor eta tokikoetara; CCOO hizpide dutenetatik hasita, apostolutza mugimendu sekularrak sakonean aztertzen dutenetara; ezker iraultzailearen talde politikoen jatorri eta garapena jasotzen dutenetatik hasita, ikasle mugimendua edota auzo mugimendua bezalako mugimenduak aztertzen dutenetara; hazkunde ekonomikoaren eta industrializazioaren dinamikak azaltzen dituzten ekonomiako eskuliburuetatik hasita, populazio eta gizarte aldaketak argitzen dituzten azterlan demografikoetara; alor guzti hauek Nafarroan eta Iruñean kokatzen dituzten erreferentzietatik hasita, dinamika lokalak estatuko eta are nazioarteko dinamikekin lotzen dituztenetara. Ikerketaren diseinuan aurreikusten ziren gai desberdinek, bibliografia askotarikoa, zabala eta aberatsa izatea eskatzen zuen.

Monografia historiografikoekin batera, oso baliagarriak izan zaizkigun bestelako erreferentzia bibliografiko batzuk ere nabarmentzekoak dira. Esate baterako, ikerketa soziologikoak. Javier Echeverría Zabalzak 1940-1991 bitarteko espainiar gizartearen mugikortasun sozialaz egindako azterketa soziologikoa, halako lanei eman ahal zaien erabilpenaren adibide adierazgarria da, datuak eta datu hauek azaleratzen dituzten dinamika sozialak, guk historikoki azaldu nahi izan ditugun zenbait prozesu argitzeko oso baliagarriak izan baitira. Ildo berean, frankismoaren bitartean burutu ziren Foessa txosten soziologiko ezberdinek ere datu interesgarri eta baliagarriak ematen dituzte, batez ere langileriaren bizi baldintzei eta egoera sozialari dagokienean. Bestetik, Iruñerrian, azken urteotan, historia herrikoia berreskuratzeko ahalegin handiak egiten ari dira, egun Iruñako auzoen zein erakunde edo ekimen herriko desberdinen historiari buruzko hainbat lan aurkitzen ahal ditugularik. Hauen balioa, historiografikoa baino, hiriaren memoria herrikoia protagonisten beren ikuspuntutik gordetzen dutela da. Zentzu honetan, laugarren kapituluan langile auzoak aztertzen ditugun heinean, Txantreako, Sanduzelaiko, Mochuelo edo Arrotxapea auzoetako historiari buruzko liburuak oso baliagarriak izan zaizkigu, ez bakarrik auzoen historia bera edota bizitza kolektiboaren forma eta esparruak azaleratzen dituztelako, baita lan hauek historia hura bizi izan zutenen testigantzetan eta ikuspegietan oinarrituta egin direnez, ikuspegi hauek ezagutarazten dituztelako. Berdin gertatzen da adibidez Iruñari oso berezkoa zaion asoziazionismo herrikoia forma nabarmenduenetariko bat diren peñen historiarekin. Zenbait peñek euren historia idatzi zuten elkartearen urtemugaren harira, baina berriki, peña guztien historia jasotzen duen liburu bat argitaratu da, non peñek berek, euren ikuspuntutik, haietariko bakoitzaren historia egiteaz beste, hiriko asoziazionismoaren ehundurari izan duten paperaz hausnarketa egiten dute. Ekimen herrikoiei dagokienean, duela urte gutxi argitaratu zen Txantreako kukuso merkatuari buruzko liburua, adibidez, erabilgarria da sustatzaileen ikuspuntutik idatzita dagoelako (ekimena zergatik eta zein helbururekin sustatu zuten azalduz) eta garai hartako (70. hamarkadaren amaierako) auzoko giroa eta auzo mugimendua nolakoak ziren deskribatzen duelako.

Biografiek zein autobiografiek tartea izan dute ere hautaketa bibliografikoan. Argitaratu berri den Idoia Estornés Lasaren autobiografia lehen eskuko iturri bilakatzen da, bera 60. hamarkadaren bitartean Nafarroako Unibertsitateko ikasle izan zen heinean, bai hirian eta baita unibertsitatean topatu zituen giroei buruzko lekukotza interesgarriak ematen baititu. Biografien adibide adierazgarriena Victor Manuel Arbeloa eginiko Tomás Caballerorena dugu. Figura 60. hamarkadako sindikalgintzan militante nabarmendua izan zen heinean, harengana hurbiltzeak garaiko sindikalgintza "ofizialera" eta entrismoaren estrategiara hurbiltzea esan nahi du, Nafarroako Langile Kontseilua ezagutzeko funtsezko erreferentzia bilakatzen delarik. Azkenik, baliagarriak izan zaizkigu ere garaiko zenbait protagonistek berek eginiko zenbait lan. Esaterako Victor Manuel Arbeloa beraren poemak edota Patxi Larrainzarren zenbait idazki. Hauen bitartez, orduko errealitatea euren begietatik nolabait ikustea posible da.



## Ahozko iturriak

Lehen eskuko iturriei dagokienean, zalantzarik gabe ahozko iturriak izan dira ikerketarako iturri nagusia. Eraketa prozesuaren protagonistak, hots, klasea bera sortu zuten subjektuak, lehenbizi ikerketaren eta ondoren kontakizunaren ardatz egin nahi izan ditugu eta ahozko historiak horretarako, hots, behetik egindako historia egiteko, aukera eman digu.

Ikerketa honen helburua langile identitate baten sorrera aztertzea den heinean eta subjektuak honen eraketara eramaten dituen bizipenak arakatzeko den heinean, ahozko historia ikerketarako teknika bezala oso baliagarria izan da. Izan ere, pertsona baten identitatearen itxuraketa, memoriaren bitartez aztertzen ahal da. Zentzu honetan, ahozko iturriak berez, gertakariak berak eraikitze baina, gertakari horien zentzua azalertzeko, hau da, gertatutakoaren esanahia argitzeko, erabilgarriak direla esan daiteke. Ahozko historiaren bitartez gainera, azalartzen den gertakarien zentzu hori, subjektuek berek hauei ematen dietena da, subjektibotasun honi esker, hauek esperientziak nola bizi zituzten eta hauen aurrean zergatik erantzun zuten egin zuten moduz pentsatzen ahal dugularik. Honengatik, ahozko iturriak funtsezkoak izan dira subjektuak nortzuk ziren, nola pentsatu zuten, nola jardun zuten eta euren motibazioak zeintzuk izan ziren ezagutzeko<sup>33</sup>. Hala ere, hauek erabiltzerakoan, memoriarekin eta subjektibitatearekin lan egiterakoan, kontutan hartu behar da gizabanakoek, oroimenaren irudiak, bizitako esperientziaren arabera, orainaren beharren arabera eta etorkizuneko jomugen arabera birmoldatzen dituztela eta horregatik, oraina bera eta gogora ekartzearen momentuko subjektuen baldintzak, iraganeko oroimenean eragina duten funtsezko faktoreak direla. Adibidez, militantzietan, hautabide politikoei eta are bilakaera ideologikoei buruz ariko garenean, orduko ibilbideen irakurketetan, hauen ondorengo garapenak eragina izango duela gogoan izan beharko dugu.

Ahozko historiak ekarpen garrantzitsu eta interesgarriak egin dizkio lan munduaren, militantzia soziopolitikoaren eta langile identitatearen ikerketari. Alde batetik, ikerlan asko funtsatu ditu, alor hauek lantzeko teknika bezala sendotu egin delarik<sup>34</sup>.

---

<sup>33</sup> Memoria eta subjektibotasunaren arteko harremana eta honek ahozko historian eta elkarrizketetan duen eraginaz ikusi adibidez Ronald J. Grele, "La historia y sus lenguajes en la entrevista de historia oral: Quién contesta a las preguntas de quién y por qué", *Historia y fuente oral*, 5. zkia, 1991, Mercedes Vilanova, "Rememoración en la historia", *Historia, antropología y fuentes orales*, 30. zkia, 2003, 23-40 orr. edota Miren Llona, "Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de vida", Miren Llona (koord./ed.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2012, 15-59 orr.

<sup>34</sup> Askok daude aipatzeko. Espainiar estatuan, 30. hamarkadako langile mugimenduari eta gerra zibilaren bitarteko Kataluniako industria kolektibizazioei buruzko Mercedes Vilanovaren *Las mayorías invisibles. Explotación fabril, revolución y represión*, Icaria, Bartzelona, 1996 oso adibide adierazgarria da. Honekin, frankismoaren garaian kokatzen diren lanak ditugu, adibidez, Javier, "Sobre las imágenes del pasado: memoria, auto-representación y militancia obrera antifranquista", *Historia, antropología y fuentes orales*, 44. zkia, 2010, 147-166 orr., Pilar Díaz Sánchez, "Las fuentes orales y la construcción de relatos biográficos: mujeres trabajadoras en la dictadura franquista", Miren Llona (koord./ed.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2012 edota Iruñean, 2005eko irailaren 7, 8 eta 9an izandako *Ahozko eta irudizko iturriak* Nazioarteko Kongresura aurkeztutako bi komunikazio: Magdalena Garrido Caballero, "Los comunistas murcianos en el franquismo y la transición" eta Oscar Martín García, "Rojo, pero sobre todo demócrata. Memoria del antifranquismo". Hego American oso gauza interesgarriak ari dira egiten zentzu honetan. Aipatzen ahal diren erreferentzia ugariaren artean Patricia Pensadok koordinatutako *Experimentar en la izquierda. Historias de militancia en América Latina 1950-1990*, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales, Ciudad Autónoma de Buenos Aires, 2013 nabarmentzen ahal da. Bertan, ahozko historiaren erabilpenaren adibide desberdinak jasotzen

Bestetik, ahozko iturrien artxibategien sorrera nabarmendu beharra dago. Kataluniako Cckoen artxibategiko ahozko iturrien fondoa kasu adierazgarri bat da<sup>35</sup>. Langile militanteen testigantzak jasoak, bilduak eta artxibategi batean, ikertzaileen esku jarriak izatea, egiazki lagungarriak dira gai honen inguruko ikerketak egiterako orduan. Tamalez, Nafarroan ez dugu halako artxibategirik, hortaz, ahozko iturriekin egin dugun lan guztia, guk geuk sortutako iturriekin egindako lana izan da.

### *Ahozko historiaren eta ahozko iturrien erabilpena ikerketa honetan*

Ahozko historia, egun jada sendotuta dagoen ikerketa historikorako teknika da. Ildo horretan, teoriari, metodologiari eta praktikari buruzko bibliografia zabala dugu eskura, oraindik ere erreferentziazko autore eta lanak direnetatik hasita<sup>36</sup>, *Historia y fuentes orales* eta honen ondorengo izan zen *Historia, antropología y fuentes orales* aldizkarietan biltzen diren artikulua ezberdinetatik pasata eta metodologiaren eta praktikaren arloetan egin diren azkeneko ekarpenak jasotzen dituzten lan berrietara iritsi arte<sup>37</sup>. Lan hauetan ematen diren jarraibideak, ahozko historiarekin egindako lana funtsatzeko eta ahozko iturrien erabilera egokia egiteko ezinbestekoak dira. Jarraian, hauetan oinarrituta, lan honetan ahozko historiarekin nola lan egin den, hots, lagina nola sortu den, elkarrizketak nola prestatu diren, elkarrizketak nola egin diren eta lortutako informazioaren lanketa nola egin den azaltzen da.

Ahozko iturri hauek sortzeko, berrogeita zortzi protagonista ezberdinei eginiko berrogeita bederlatzi elkarrizketa burutu ditugu. Orokorrean, protagonista bakoitzari elkarrizketa bakarra egin zaio, baina zenbait kasutan informazioa osatzeko behararengatik protagonista berberari bi elkarrizketa egin zaizkio eta beste zenbaitetan, haiek hala eskatuta, elkarrizketa bakar batean bi protagonista elkartu dira. Horregatik iturri kopuruaren eta elkarrizketa kopuruaren arteko desberdintasuna.

---

dira, marko geografiko ezberdinetako militante eta mugimenduei buruzko lanak jasotzen direlarik, Aipatzekoa da, adibidez, Pablo Pozziren hitzaurrea, "Sobre entrevistar militantes y activistas".

<sup>35</sup> Ikusi Javier Tebar, "Historia oral y militancia sindical: la creación de fuentes orales para un archivo histórico sindical", *Historia, antropología y fuentes orales*, 18. zkia, 1997, 173-175 orr. eta Cristina Borderías eta Javier Tebar, *Biografías obreras. Fuentes orales y militancia sindical (1939-1978): diseño y desarrollo de la producción de fondos orales del Arxiu Històric de CCOO de Catalunya*, Fundación Cipriano Mera García, Bartzelona, 1998. Aipatzekoa da ere Andaluziako CCOOen Artxibategi Historikoan dagoen ahozko iturrien artxibategia, non langile biografien bilduma bat dago. Ildo berean, AHOA (Ahozko Historiaren Artxiboa) proiektuan, beste fondo askorekin batera, 1970-1992 bitarteko Bizkaiko langile borrokei buruzko bilduma bat dago. AHOA proiektuari buruz ikusi Miren Llona, "Archivar la memoria, escribir la historia. Reflexiones en torno a la creación de un archivo de Historia Oral. AHOA, Ahozko historiaren Artxiboa. Archivo de la memoria", Laura Benadiba (komp.), *Historia Oral. Fundamentos Metodológicos para reconstruir el pasado desde la diversidad*, Suramérica ediciones, Rosario, 2010, 197-214 orr.

<sup>36</sup> Oinarrizko eskuliburuen artean, aipatzekoak dira, besteak beste, Paul Thompson, *La voz del pasado. La historia oral*, Edicions Alfons el Magnánim, Valentzia, 1988, José Miguel Marinas eta Cristina Santamarina (ed.), *La historia oral: métodos y experiencias*, Debate, Madril, 1993 edota Pilar Folguera, *Cómo se hace historia oral*, Eudema, Madril, 1994. Berriagoa da, adibidez, Laura Benadiba, *Historia oral, relatos y memorias*, Maipuei, provincia de Buenos Aires, 2007.

<sup>37</sup> Zentzu honetan, besteak beste, bi lan kolektibo aipatzen ahal ditugu: Laura Benadiba (komp.), *Historia Oral. Fundamentos Metodológicos para reconstruir el pasado desde la diversidad*, Suramérica ediciones, Rosario, 2010 eta Miren Llona (koord./ed.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2012.

Zenbait elkarrizketa ere, beste ikerlari batekin batera burutu dira<sup>38</sup>. Ondorengo taulan, elkarrizketatuak eta elkarrizketak sailkatuta aurkezten ditugu:

---

<sup>38</sup> Zuriñe Sainz Pascualek, bere doktore tesian 60 eta 70. hamarkadetako Iruñeko udala ari da aztertzen, batez ere HOACen ingurutik zetozen zenbait zinegotziren udal jardueraren bitartez. Honek, zenbait gaitan eta zenbait elkarrizketaturengan bat egitera eraman gaitu. Batera egin diren elkarrizketa hauek, bion arteko elkarrekintzaren emaitza dira.

## Ahozko Iturriak: protagonistak eta elkarrizketak. Sailkapena

Iturri zkoa.	IZENA	Elkarrizketa zkoa.	Elkarrizketaren data eta tokia	Iturriaren izaera
1	J.D.C.	1	2009-02-19. Iruñea	Txantreako eraikitzailea
2	N.L.	2	2009-02-28. Iruñea	Txantreako eraikitzailea
3	S.G.	3	2009-05-13. Iruñea	Txantreako eraikitzailea
4	J.M.M.	4 eta 15	2010-03-04. Iruñea 2011-10-26. Iruñea <sup>39</sup>	Langilea
5	E. A.	5	2010-03-11. Iruñea	Langilea
6	F.A.	6	2010-02-27. Badostain	Langilea
7	E.P.M	7	2011-06-06. Iruñea	Langilea
8	J.E.C.	8	2011-06-02. Iruñea	Langilea
9	M.G.	9	2011-06-09. Iruñea	Langilea
10	C.A.	10	2011-06-10. Iruñea	Langilea
11	J.U.	11	2011-06-10. Iruñea	Langilea
12	P.U.	12	2011-06-13. Iruñea	Langilea
13	I.B.	13	2011-08-02. Olaz	Langilea
14	P.M.	14	2011-08-24. Atarrabia	Langilea
15	L.O.	16	2011-09-13. Iruñea	Apaiza
16	J.L.A.	17	2011-12-16. Iruñea <sup>40</sup>	Langilea
17	J.M.V.	18	2011-12-22- Iruñea <sup>41</sup>	Langilea
18	M.A.M.	19	2011-12-23. Iruñea <sup>42</sup>	Langilea
19	A.L.	20	2012-10-16. Iruñea <sup>43</sup>	Auzo mugimenduko militantea
20	J.I.S.	21	2012-12-26. Iruñea	Langilea
21	A.A.	22	2013-01-09. Iruñea	Apaiza
22	J.S.M	23	2013-01-10. Iruñea	Langilea
23	J.L.D.M	24	2013-01-11. Iruñea	Langilea
24	J.A.C.	25	2013-01-16. Iruñea	Langilea
25	M.S.S.	26	2013-01-23. Iruñea	Langilea
26	M.L.C.	27	2013-01-24. Iruñea	Langilea
27	F.E.	28	2013-01-30. Iruñea	Langilea
28	M.A.R.S.	29	2013-02-05. Iruñea	Langilea
29	P.O.	30	2013-02-06. Iruñea	Langilea
30	PA.S.	31	2013-02-13. Iruñea	Langilea
31	R.U.	32	2013-03-06. Iruñea	Langilea
31	V.D.	33	2013-04-15. Iruñea	Langilea
33	S.L.	34	2013-04-17. Iruñea	Langilea
34	M.B.	35	2013-05-06. Iruñea	Langilea
35	J.Z.	35	2013-05-06. Iruñea	Langilea
36	J.M.E.	36	2013-05-06. Iruñea	Langilea
37	R.M.	37	2013-05-07. Iruñea	Langilea

<sup>39</sup> Zuriñe Sainz Pascualekin batera egindako elkarrizketa

<sup>40</sup> Zuriñe Sainz Pascualekin batera egindako elkarrizketa

<sup>41</sup> Zuriñe Sainz Pascualekin batera egindako elkarrizketa

<sup>42</sup> Zuriñe Sainz Pascualekin batera egindako elkarrizketa

<sup>43</sup> Zuriñe Sainz Pascualekin batera egindako elkarrizketa

38	PE.S.	38	2013-05-09. Iruñea	Langilea
39	M.P.	39	2013-05-14. Iruñea	Apaiz langilea
40	C.B.	40	2013-09-03. Iruñea	Langilea
41	C.O.	41 y 42	2013-09-10. Aísa 2013-09-16. Mutilva	Langilea
42	P.I.	43	2014-01-07. Iruñea	Ekintzaile soziopolitiko (langileen abokatu)
43	I.N.	43	2014-01-07. Iruñea	Langilea
44	M.BU.	44	2014-05-20. Iruñea	Langilea
45	A.H.R	45	2014-08-19. Iruñea	Langilea
46	J.P.	46 y 47	2014-11-18. Iruñea 2014-11-25. Iruña	Auzo mugimenduko militantea
47	A.G.	48	2014-12-22. Iruñea	Auzo mugimenduko militantea
48	K.P.	49	2015-01-04. Iruñea	Langilea

### 1.Lagina. Elkarrizketatuen aukeraketa eta hauen ezaugarriak

Profil desberdinetako elkarrizketatuak bilatu dira, baina espero izatekoa den moduan, langile profileko elkarrizketatuak izan dira nagusi. Taulan ikusten ahal denez, bestelako profilen artean, auzo mugimenduko militanteak, auzoetako parrokiako erretoreak eta apaiz langileak, Txantrea auzoaren eraikuntzan parte hartu izan zuten lehenbiziko bizilagunak eta langileen abokatu bat (ikaslea lehenbizi, abokatu gero eta militante politikoa bitartean) ageri dira. Alta, profil desberdinak bereizteak eta protagonistak hauen arabera sailkatzeak ez du esan nahi elkarrizketatuek izaera bakar bat azaltzen dutenik. Hau da, langile bezala sailkatutako bat, auzo elkarte bateko militantea izan zitekeen aldi berean eta auzo elkarte bateko militante bat, langile izan zitekeen mugimendu sindikalean parte hartuz. Militantzia aniztasunaren fenomenoaren ondorio da hau. Baina sailkapen honek, elkarrizketatuarengan nagusi den militantzia, izaera, profila hartzen du erreferentziatzat, honakoa, harengandik lortu nahi izan dugun informazioak zehaztu duelarik. Adibidez, A.L. protagonista bezala aukeratu genuen Sanduzelaiko Auzo Elkarteko erreferentziazko militantea zelako eta harengandik bereziki auzo mugimenduari buruzko informazioa lortu nahi genuelako. Ildo berean, L. O.-rengana iritsi ginen apostolutza mugimenduetan erreferentziazko figura izan zelako eta berarengandik bereziki mugimendu hauei buruzko eta orokorrean garai hartako Elizaren eraberritzeari buruzko informazioa lortu nahi genuelako. Izaera berezia da "Txantreako eraikitzailea" izena daramana. Kasu hauetan, protagonista hauek auzo honen eraikuntzan parte hartu izanagatik aukeratuak izan direlako eta hein handi batean esperientzia horri buruzko informazioa lortu nahi izan dugulako sailkatu ditugu modu honetan. Azkenik, sailkatzeko zailena P.I. izan da. Oso modu orokorrean "ekintzaile soziopolitiko" gisara sailkatu dugu, gehien bat bere profilak aurpegi desberdin asko dituelako (seminarioko ikaslea, Nafarroako Unibertsitateko ikaslea, ezker iraultzaileko talde politiko bateko militantea eta langileen abokatu) eta hain zuzen ere, haietariko bakar bat baino, guztien bateratzea, militantzia sozial eta politikoa, izan delako interesgarria iruditu zaiguna.

Elkarrizketatuak Iruñerriko langileriaren erakuskari ahalik eta adierazgarriena izatea bilatu dugu. Honela, adibidez, euren jatorri geografikoan hala nola militantzia sindikal zein politikoan aniztasuna egotea nahi zan dugu; hau da, gure elkarrizketatuak, bertako langileak eta emigranteak, erakunde eta joera politiko

desberdinetako militanteak (besteak beste CCOO, USO, ezker iraultzailearen talde politiko desberdinak, alderdi komunista) dira. Hala ere, protagonistak hautatzeko eta hauengana iristeko erabili izan dugun metodoak, aldagai hauetariko bakoitzak gure laginean izan duen ordezkari maila baldintzatu du; honek, azalpen osoan zehar ikusteko aukera izango dugunez, dinamika interesgarriak iradokitzen dituelarik.

Ildo horretan, elkarrizketatuengana iristeko erabili dugun modua, kontaktu sare bat osatzearena izan da. Hasteko, bai euren profilengatik (industria sektore edota fabrika jakin bateko langile izatea, CCOOen kargu garrantzitsu bat izatea, apostolutza mugimenduren bateko edota talde politiko zehatz bateko militante izatea, interesa dugun mugimendu sozialen batean aritutakoa izatea) edota gertutasunarengatik, hau da, berarekin alde aurreko nolabaiteko harremana izateagatik, gaketzat jo izan diren hainbat pertsonekin zuzeneko kontaktua egin da. Ondoren, protagonista gako hauen bitartez, euren sareetan kokatzen ziren bestelako protagonisten kontaktua lortu da. Modu honetan, ez dugu bakarrik protagonista gehiagoengana iristeko aukera izan eta honekin batera, zenbait sare berregitea eta azalratzea lortu da. Protagonistek berek berregindako sare hauek izan dira, hartara, aldagai bakoitzaren ordezkari maila zehaztu dutenak, hau da, euren artean ezaugarri batzuk edo beste batzuk, ibilbide batzuk edo beste batzuk nagusi izan zirela esan digutenak.

Laginari buruz aipatu behar da ere 1976tik aurrerako ibilbide soziopolitikoak ez direla hura osatzeko irizpidetzat erabili. Hau da, geroko ibilbideak ez dira elkarrizketatuen artean aniztasuna ziurtatzeko irizpide izan. Hala erabaki da dibergentzia politiko eta sindikalak ordutik aurrera gertatzen direlako (adibidez, 1976an ospatzen da Bartzelonan CCOOen asanblada, non mugimendua sindikatutzat egituratzen da eta haren baitan lan egin izandako zenbait korrante bertatik irten da aukera sindikal berriak sortzeko) eta ondorioz hauek, gure marko kronologikotik kanpo, behin prozesua amaituta, gertatzen direlako.

## 2. Elkarrizketak prestatzen, elkarrizketak egiten<sup>44</sup>

Orokorrean, ezin da esan bizitza historiak egitea bilatu dugunik, izan ere, elkarrizketatuen bizitza ibilbidea osoa baino, ibilbide horren aspektu jakin batzuk ezagutzea interesatu zaigu bereziki. Bizitza historia oso batek informazio gehiegi emango zuelakoan, aipatu aspektuei buruzko informazioa lortzera bideratutako amaiera irekiko elkarrizketa sasi-egituratua erabili da tresna gisara<sup>45</sup>.

Beraz, elkarrizketak, ikerketaren edukietara egokitzearen lortu nahi izan dugun informazioaren arabera planteatu ditugu. Adibidez, ahozko iturrien bitartez, azaldu ikerketaren planteamenduaren bi eduki nagusi landu nahi izan ditugu. Alde batetik, bigarren kapituluaz aztertzen diren protagonisten ezaugarrien identifikatzea egin nahi izan da. Horretarako, elkarrizketatu bakoitzari datu pertsonalen fitxa moduko bat egin diogu, non protagonistak sailkatzeko eta profilak eratzeko funtsezkotzat jo dugun informazioa jasotzen da: jaiotze data eta tokia; familiaren maila sozialaren eta tradizio politiko eta kulturalen inguruko informazioa; ikasketak; eta lan ibilbidea, hau da, marko kronologikoaren bitartean zein industria sektore, fabrika eta lanpostutan lan egin zuen. Bigarren kapitulu osoa datu hauen azterketan oinarrituta dago. Bestetik, seigarren

---

<sup>44</sup> Elkarrizketak prestatzeko eta burutzeko metodologiari buruz ikusi, adibidez, Chantal de Tourier-Bonazzi, "Propuestas metodológicas", *Historia y fuente oral*, 6. zkia, 1991, 181-189 orr. eta Linda Shopes, "Diseño de proyectos de historia oral y formas de entrevistar", *Historia, antropología y fuentes orales*, 25. zkia, 2001, 133-141 orr.

<sup>45</sup> Zaharra den arren, elkarrizketa mota honi buruz oso erabilgarria da oraindik ere Dean Hammer eta Aaron Wildavskyren, "La entrevista semi-estructurada de final abierto. Aproximación a una guía operativa", *Historia y fuente oral*, 4. zkia, 1990, 23-65 orr.

kapituluaren azken atalean, protagonisten ibilbide militanteak azaldu nahi izan ditugu. Ahozko iturriak daude, berriz ere, azterketa honen eta ondorioz, atal osoaren oinarrian. Honela, elkarrizketa guztietan nahitaezkoa izan da ibilbide hauei buruzko ahalik eta informazio gehien eskuratzea zirkuiturako sarbideak topatu eta militantziarako eredu desberdinak ezagutzeko. Zentzu honetan, ibilbideak non hasi ziren eta zein esparrutan edota zein sareren bitartez garatu ziren azaleratzen duen informazioa bilatu da batez ere. Azkenik, elkarrizketak, ikerketaren diseinuan aurreikusitako bestelako edukiez informazioa lortzeko planteatu dira ere, azaleratu nahi izan dugun langile esperientzia, protagonisten ikuspuntutik ezagutzeko eta azaltzeko aukera izan dugularik: bizi eta lan baldintzak nola bizi, pairatu eta jasaten ziren (1 eta 3 kapituluetan), langileek auzo komunitateen osaeran nola parte hartzen zuten eta hauetan barna zein sozializazio esparrutan harremanatzen ziren (4 kapituluan), apostoluz mugimenduekiko hala nola auzoetako erretore edo apaiz langileekiko zein harreman zuten (5 kapituluan), euren fabriketako komisioak nola hasi ziren eta haien zat CC OOeko militante izatea zer suposatzen zuen (6 kapituluan) edota lan gatazka edo borroka garrantzitsuenak nola bizi izan zituzten (7 kapituluan).

Informazio guzti hau lortzeko, lagineko pertsona guztiekin solasaldiaren bitartean garatu beharreko oinarriko zenbait gai xedatu dira gida bezala. Gaitegi hau prestatzeko lehenenik eta behin elkarrizketatuaren kontestua ezagutu eta hari buruzko ahalik eta informazio gehien bildu behar da, azken batean, elkarrizketagile bezala kontestu horretan zenbat eta kokatuago egon, elkarrizketa aberatsa izateko aukera gehiago izango dugu. Jarraian bloke hauek eta bakoitzarekin gutxienez lortu nahi izan dugun informazio mota zehazten dira:

1. **Datu pertsonalen fitxa:** aipatu bezala, jaiotze data eta tokia, familiaren maila soziala eta tradizio politiko zein kulturalak, burututako ikasketak eta lan ibilbidea.
2. **Bizi eta lan baldintzak:** nolakoak ziren elkarrizketatuek fabriketan (langile profileko protagonisten kasuan), eguneroko bizitzan eta langile auzoetan bizi zuten errealitatea.
3. **Militantzia.** Bloke hau elkarrizketatuen profiletara egokitu behar izan da. Elkarrizketatuak langile profilekoak izan direnean, hauek izan dira bloke hau lantzeko erabili diren ildo nagusienak:
  - a) Zein (tzuk) izan z (ir)en elkarrizketatuak izan z (it)uen sarbidea (k)
  - b) Ze antolakuntza maila zegoen lantokian elkarrizketatua bertara iritsi zenean
  - c) Nola funtzionatzen zuen langile antolakuntzak, bai egitura sindikaletan barna eta baita erakunde klandestinoetan (batez ere CC OO). Elkarrizketatuaren ibilbidearen arabera, elkarrizketak fabrika komisioetara, CC OOera eta CC OOen koordinakundera, Sindikatu Bertikaleko ordezkariak karguetara edo Langile Kontseilura bideratu dira.
  - d) Elkarrizketatuak bere ibilbidean garrantzizkotzat jotzen dituen bestelako sozializazio eta militantzia esparruak (esate baterako, euren militantzia politikoarengatik galdetzen ahal den bezala, auzoetako sozializazio esparruengatik edota mendi taldeak edota peñak bezalako asoziazionismoarengatik galdetzen ahal da)

Elkarrizketatuaren izaera bestelakoa denean, ildoak haren izaeraren arabera definitu dira. Auzo mugimenduko militanteen kasuan, ildo berberak errepikatzen dira, baina azaleratu nahi den ibilbidea auzo mugimenduari dagokio. Protagonistak apaizak direnean ordea, bloke hau Vatikanoko Ibiaren eragina neurtzeko eta ikusmolde erlijioso berriak ezagutzeko, apaizen jarrera hartze sozialak azaleratzeko eta hauen langilegoaren arteko harremanak azaltzeko tartea bihurtzen da. Txantreako eraikitzaileen kasua berezia da eta militantziaz aritzeko bloke bat izan beharrean, hirugarren hau auzoaren eraikuntzaren esperientziaz eta auzoren hastapenetan sortu ziren esparruez zein auzo bizitzaz mintzatzeko blokea izan da. Are gehiago, elkarrizketa hauek bloke honekin amaitzen dira.

4. **Borrokak eta gatatzak.** Bi ildo nagusi planteatzen dira: lehenbizikoa nola hasten, garatzen eta bizitzen ziren fabrikaren baitako gatatzak; bigarrena, Nafar langile mugimenduak fabrikaren esparrua gaindituta sustatu zituen borroketatik, zeintzuk dira elkarrizketatuak nabarmentzen dituenak.
5. **Hausnarketarako tartea.** Langile mugimenduak eta borrokak frankismoaren amaieran bete izan zuen paperetik hasita, klase kontzientzia eta identitate baten existentziaren baieztapenera edo ezeztapenera iritsi arte.

Elkarrizketak beti elkarrizketatuak proposatutako tokian burutu dira, hauek eroso sentitzea bilatuz. Gehienak elkarrizketatuaren beraren etxean egin dira, baina baten bat, elkarrizketatuak berak proposatuta, taberna batean egin da. Elkarrizketak soinu grabatu dira. Irudiak ez dira grabatu, hein handi batean elkarrizketari kutsu informalago bat emateko. Aipatu beharra dago elkarrizketatuen jarrera oso ona izan dela, bai kontaktua eta harremana egiterakoan eta baita elkarrizketa egiterakoan ere. Izenak emateko eta elkarrizketak erabiltzeko baimena eskatu zaie eta guztiek eman dute<sup>46</sup>. Ahoz emandako baimena izan da.

### 3. Lortutako informazioaren lanketa

Informazioaren tratamenduari dagokionean, urrats ezberdinak eman dira. Lehenbizi, elkarrizketa guztiak osorik transkribatu egin dira, grabazioarekin eta transkripzioarekin aldi berean lan egin ahal izan dugularik<sup>47</sup>. Ondoren elkarrizketak banaka landu ditugu eta eskuratutako informazioa gaika (aipatu ikerketaren eduki desberdinak) sailkatu dugu. Gai bakoitzeko pasarte adierazgarrienak aukeratu dira ere. Azkenik, hiru datu base sortu dira. Datu base orokor bat, elkarrizketa guztiak etiketatzeko, non elkarrizketaren datuak (tokia eta data), elkarrizketatuaren datuak eta elkarrizketan jorratu diren gai garrantzitsuenak (denborak markatuta) jasotzen dira. Azken alor hau bereziki erabilgarria izan da informazioaren sailkapena egiteko eta ikerketaren eta azalpenaren bitartean iturrien erabilpena egiteko. Beste datu base bat, elkarrizketatu bakoitzaren fitxaren datuak (aipatu jaiotze data eta tokia, familiaren maila soziala eta tradizio politiko zein kulturalak, burututako ikasketak eta lan ibilbidea) ordenatzeko. Hirugarren datu base bat, elkarrizketatu bakoitzaren ibilbide militantea urratsez-urrats jasotzeko.

Elkarrizketen kopurua emaitzek berek mugatu dute. Elkarrizketatuen historietan profilak, ibilbideak, esparruak edota sareak errepikatzen hasi direnean eta dinamika nagusi batzuk azalertzeko nahikoa informazioa bildu dugula estimatu dugunean, amaitutzat eman dugu ahozko iturriekin egindako lana. Egia esan, ikerketa prozesu osoan zehar egindako lana izan da. Elkarrizketak 2009-2015 urteen bitartean burutu dira, baina taulan ikus daitekeenez, 2009-2010 bitarteko lehenbiziko fase baten ostean, 2011 eta 2013 urteak izan dira ahozko iturriak biltzeko urterik bizienak. Ondoren, 2014ean eta are 2015 hainbat elkarrizketa gehiago egin dira, baina hauek orokorrean, informazioaren bat edota profilen bat osatzearren beharrezkotzat jo ditugulako bilatu ditugu zuzenean.

<sup>46</sup> Erabilitako testigantzetan elkarrizketatua izan ez den pertsonaren baten izena agertzen denean, honen izena eman beharrean inzialak erabiltzea erabaki dugu.

<sup>47</sup> Transkripzioei buruz, ikusi, adibidez, Victoriano Camas Baena eta Iñaki García Borrego, "La transcripción en la historia oral: para un modelo 'vivo' del paso de lo oral a lo escrito", *Historia, antropología y fuentes orales*, 18. zkia, 1997, 41-61 orr. edota Kate Moore, "Sentido y sensibilidad: forma y contenido en las transcripciones de la historia oral", *Historia, antropología y fuentes orales*, 21. zkia, 1999, 163-179 orr.



## Iturri dokumentalak

Iturri dokumentalei dagokienean, dokumentazio mota desberdinak eta artxibategi desberdinak kontsultatu dira. Alde batetik, dokumentazio instituzionalarekin lan egin dugu, instituzioek sumatzen zuten langileriaren presentzia azalertzeko eta hura sumatzen zutenean, hari buruz zuten ikuspegia ezagutzeko. Bestetik, langile erakunde desberdinen dokumentuekin lan egin dugu ere. Iturri hauek zirkuituaren parte desberdinak berregiteko erabili ditugu bereziki, erakundeon egiturak eta are euren militanteak zein saretan kokatzen ziren eta hauetan barna nola mugitzen ziren aztertzeko oso baliagarriak izan baitira.

Aipatu dugun dokumentazio instituzionala, Administrazioaren Artxibategi Orokorrean (AGA) topatu duguna izan da. Hemen, Erakunde Sindikalak sortutako dokumentazioarekin lan egin dugu batez ere. Lan munduaren, fabriken eta langileen egoeraren berri eta sindikalgintza ofizialaren zein klandestinoaren egoeraren berri ematen duen dokumentazioa da. Sindikatuen Probintzia Ordezkaritzaren dokumentazioa Nafarroako Artxibategi Orokorrean ez dagoenez, Administrazioaren Artxibategi Orokorrean gordetzen den Sindikatuen fondoa arakatu dugu guretzako interesgarria izaten ahal zen Nafarroako Ordezkaritzaren informazio guztia topatu nahian. Aurkitu dugun dokumentazioaren artean, aipatzekoak dira Nafarroako egoera sindikalaren eta lan gatazken berri ematen duten txostenak (esaterako 1970-1971 urteetan Nafarroak bizi zuten egoera gatazkatsua aztertzeko dutenak), gatazka jakinen inguruko txostenak edota Nafarroako Erakunde Sindikalaren jardura guztia jasotzen duten urteroko memoriak. Hauekin batera, Nafarroako Langile Kontseiluari buruzko zenbait txosten eta hauei atxikitzen zitzaizkien kontseiluaren osoko bilkuren aktak, hala nola kontseiluaren jardueraren urteroko memoriak topatu ditugu ere, ezinbestekoak Langile Kontseiluari buruzko azterketa bat egiteko. Administrazioaren Artxibategi Orokorrean ere bestelako fondo batzuk landu ditugu, baina ez aurrekoa bezain biziki. Esate baterako, 1961-1971 bitarteko Nafarroako Gobernadore Zibilaren urteko memoriak kontsultatu ditugu<sup>48</sup>. Hauetan, probintziaren urteko ikuspegi orokorra ematen da eta erabilgarriak izan zaizkigu, adibidez populazio eta ekonomiari buruzko datuen bat eskuratzeko (migrazio mugimenduen bilakaera, emigranteen jatorria kasu) eta bereziki, jardura sindikal eta politikoen berri ematen den atala aztertuta, erregimenak Nafarroan zein oposizio mehatxu sumatzen zuen eta oposizio honen baitan langile mugimenduak zuen goranzko pisua ikusteko. Azkenik, Kultura fondoan, "Gabinete de enlace" delakoaren saileko dokumentazioarekin lan egin dugu ere. Hemen Iruñeko diozesiaren inguruko informazio interesgarria topatu dugu, batez ere gatazka diozesiarrei buruzkoa, oposiziokotzat jotzen diren apaiz edo erretore eta predikuei buruzkoa eta hauen kontrako jazarpenari buruzkoa. Baliagarria izan zaigu Elizaren zenbait esparru eta eragile zirkuituan kokatzeko. Egindako arakatzeko lanarekin batera, alde aurretik bagenituen zenbait erreferentzia aipatu behar ditugu ere. Presidentzia fondoan, "Movimiento" delakoaren Idazkaritza Orokorraren sailean gordetzen den 1951ko Iruñeko greba orokorrari buruzko Gobernadore Zibilaren txostenaren kasua izan da adibidez. Txosten honen berri bagenuen eta haren edukiak ezagutzen genituen iturria jada hainbat lanetan erabili izan delako. Hala ere, guk iturri hori bera, beste modu batean erabili dugu. Grebaren garapenaren kontakizuna baino, guk beste motatako informazioan izan dugu interesa; izan ere, grebaren bitartean gertatutakoari azalpena eman nahian, Gobernadore Zibila Iruñerriko gizarte sektore eta sektore politiko ezberdinez eta euren jokabideez aritzen da, honek zenbait eragile, pertsona, esparru eta jarrera zirkuituan kokatzeko aukera eman digularik.

Nafarroako Artxibategi orokorrean (AGN) ere iturri instituzionalekin lan egin dugu. Hain zuzen ere, elkarteen fondoa arakatu da. Gure helburua dokumentazio honengana

---

<sup>48</sup> Hauek dira ikusgarri daudenak, ordutik aurreragokoak ezin dira oraindik kontsultatu

jotzerakoan, Iruñerriko asoziazionismo herrikoari buruzko ikuspegi bat osatzea izan da. Bertan elkarreak erregistratzerakoan sortzen ziren hauei buruzko dosierrak gordetzen dira, hauei esker elkarre hauek zein motatakoak ziren ezagutzen ahal dugularik. Lan berezia egin dugu Iruñeko peñen dosierrekin, berauetan dokumentazio anitza eta baliagarria topatu baitugu: elkarrean estatutuak, zuzendaritza batzordekideei buruzko informazio oharrak eta ekintza anitzak antolatzeke eskabideak. Peñen osaera eta jarduera aztertzeke oso baliagarria izan da. Gehien bat peñen dokumentazio honekin lan egin dugun arren, bestelako elkarrean dosierrak kontsultatu ditugu ere, bereziki auzo elkarreana. Hala ere, esan beharra dago, uste baino auzo elkarre gutxiagoren dosierrak topatu ditugula hemen.

Langile dokumentazioari dagokienean, erakunde desberdinen artxibategietan lan egin dugu: JOC eta HOAC apostolutza mugimenduen artxibategietan, alderdi komunistaren artxibategi historikoan eta Pablo Iglesias fundazioaren artxibategian, non ORTaren fondoak arakatu ditugu. Artxibategi hauetan lortu dugun dokumentaziotik, informazio mota desberdina eskuratu ahal izan dugu. Alde batetik, erakundeen antolakuntzarako egiturei buruzko informazioa, hau da, hauen antolakuntza egituren hedapena, egituren garapena, zuzendaritza eta militantziaren indarra, hala nola jardueraren norainokoa azaleratzen duen informazioa. Esate baterako alderdi komunistaren artxibategi historikoan aurkitutako dokumentazioaren artean, antolakuntza txostenak nabarmentzen dira. HOACaren artxibategian GOES ikasketa taldeen galdetegi eta erantzunak topatu ditugu, Iruñean zenbat taldek funtzionatzen zuen eta zer motatako lana egiten zuten ikusten ahal dugularik. JOCaren artxibategian oso informazio aberatsa lortu dugu, Zonalde eta Federazioen saileko euskal eta nafar zonaldeko dokumentazio guztia aztertuta: antolakuntzari buruzko txostenak, formakuntzarako orientabideak, erakundeak sortzen eta zabaltzen zituen materialak eta lurraldekako zuzendaritzen bileren aktak. Hauek, JOCaren hedapenaren eta indarraren berri izateke baliagarriak izan zaizkigu, baina baita 70. hamarkadan agerikoa izango zen erakundearen antolakuntza krisia barrutik ezagutzeko ere.

Bestalde, dokumentazio guzti honek, beste motatako informazioa eman digu ere. Honela, sozializatorako esparruak erakundeon eragina zabaltzeko bide ziren eta izaten ahal ziren heinean, halako dokumentazioa langileen sozializazio moduak aztertzeke baliagarria izan da. Landu dugun alderdi komunistaren dokumentazioan adibidez, antolakuntza txostenetan erakundearen ezartzea indartzeko zenbait eragingune posible proposatzen zirenez, Iruñean existitu egiten ziren sozializazio herrikoierako esparru desberdinen berri izateke aukera izan dugu. Ildo berean, langileen lan eta bizi baldintzei buruzko informazioa ematen duen dokumentazioa aurkitu dugu ere. JOCen artxibategian, militanteek egindako bizitza berrikuspen ariketak aurkitu ditugu, berauetan, langile gazte diren heinean, eurak berak bizi dituzten edota ingurunean ikusten dituzten arazoak jasotzen dituztelarik. Bilera eta ikastaroetan ere problematika hauetaz hitz egiten da eta are gehiago, militanteek berek, bai aipatu bilera zein ikastaroetan azaldu eta erabiltzeko, problematika hauei buruzko txostenak burutzen dituzte. Nabarmentzekoa da, adibidez, Iruñeko militanteek hiriko auzoei buruz burututako txosten bat, non haietariko bakoitzaren azterketa soziologiko txiki bat egiten zen. Alderdi komunistaren artxibategi historikoan, “La Pirenaica” irratia fundazioan, langileen bizi eta lan baldintzen berri ematen dituzten nafar entzuleen gutunak topatu ditugu ere. Berauetan askotan, langileek bizi zituzten esplotazio egoerak edota injustiziak salatzen dira, halako egoerak xehetasun handiz deskribatuz. Zentzu honetan, langile erakundeen dokumentazio honek, nolabait, langileen esperientzia erakusten du langileen beren ikuspuntutik.

Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentazio Gunea ere begiratu dugu. Hemen, momentuan eskuragarri zegoen dokumentazioaren artean, euskal langile mugimenduaren erakundeen dokumentazioa aurkituko dugu, bereziki Euskadiko

CCOOi buruzkoa (txostenak, manifestuak). Nafarroako CCOOen eta Nafarroako LCR-ETA Viren argitalpenen (*Navarra Obrera* eta *Proletario*) hainbat ale topatu dugu ere. Alta, dokumentazio honek emandako informazioaren izaera dela eta (70. hamarkadaren erdian datatutakoa eta zehazki erakundeen barne bizitza edota estrategia politiko zein sindikalei buruzkoa), hura azkenean uste bezainbeste erabili ez dugula esan beharra dago.

### Iturri hemerografikoak

Azkenik, iturri hemerografikoak ditugu, garaiko prentsa eta aldizkariak. Eguneroko prentsari dagokionean, bereziki Nafarroako egunkariekin lan egin dugu, *Diario de Navarra* eta *El Pensamiento Navarro*. Iturriok modu desberdinetara erabili ditugu, eskuratu nahi izan dugun informazioaren arabera. Orokorrean, prentsa gertakari zehatzak baieztatzeko eta gertakari zehatz haiei buruzko informazioa lortzeko balizko iturria izan da: grebaren bat, polemikaren bat, atxiloketaren bat, maiatzaren lehenaren mobilizazioa, lege sindikal berriari buruzko inkesta bat... kasu hauetan, zuzenean jo dugu bai *Diario de Navarra* eta baita *Pensamiento Navarrosa*, data eskuan, informazio jakin baten bila. Baina prentsa oso iturri aberatsa izan daiteke langileriaren presentzia (figurak, esparruak) eta errealtatea (eguneroko bizitza, arazoak) azaleratzeko. Kasu honetan, lana sistematikoagoa izan behar da, egunkariek ematen duten mota askotariko informazioaren artean, interesatzen zaiguna aurkitzeko.

Hori da, hain zuzen, *Diario de Navarrosa*ekin egin dugun lana. 50 eta 60. hamarkadetako egunkari guztiak kontsultatu ditugu (1950tik 1971era, azken hau barne<sup>49</sup>) eta langileriaren presentziaren adierazle oro, ikerketak barne hartzen dituen gaien arabera sailkatu egin dugu. Emaizak oso positiboak izan dira eta lan sistematiko hau, langile bizitza eta bizimoduen, langileen arazo larrienen, asoziazionismo herrikoia edota apostolutza mugimendu sekularren jardueraren azterketa egiteko oso baliagarria izan da. Zentzu horretan, aipatzekoak dira, adibidez, “*Cartas al Repoter*” sailera iristen ziren bizilagunen gutunek, “irakurleen postak” edota zenbait erreportaje sailek eguneroko bizitzaren gai eta arazoez ematen duten informazioa. Hasteko, aipatu “*Cartas al reporter*” delako saila oso informazio iturri interesgarria izan da auzoetako bizi baldintzak eta arazo nagusienak ezagutzeko. Bizilagunek berek azaltzen zituzten, gutunetan haien inguruko kezkak eta kexak planteatzen zituztenean. Honekin batera, egunkarian argitaratzen ziren auzoetako jaien programak eta kronikak, auzo hauetan garatzen zen bizitza kolektiboari eta kolektibotasun hartan parte hartzen zuten eragileei buruzko informazioa ematen dute. Ildo berean, erreportaje kopuru garrantzitsu bat aurkitu dugu langile auzoei buruz eta hiriko elkarte herrikoiei buruz: hiriko kirol elkarte desberdinei buruzko erreportaje segida luze bat argitaratu zen, mendizaletasunak berezko tartea zuen egunero kirol sailean (Nafarroan jarduera egiazki errotuta zegoela baieztatzeko aukera izan dugularik) eta zentro parrokiak zein gazte klub edo elkarteek antolatutako jardueren berri ematen zen.

Langile erakundeen prentsari edo prentsa klandestinoari dagokionean, ez dugu lanketa sistematiko bat egin. Kontsultatu eta erabili dira, baina gai jakinak lantzeko edota gertakari zehatzei buruzko informazioa eskuratzeko jo dugu hauengana. Alderdi komunistaren *Mundo Obrero*, batez ere 60. hamarkada osoan zehar argitaratu zelako eta ORTren *En Lucha*, batez ere taldeak nafar langile mugimenduaren baitan indar handia izan zuelako, begiratu dira. Nabarmendu beharra dago biak Hezkuntza, Kultura eta Ministerioaren Prentsa Historikoaren Liburutegi Birtualean eskuragarri daudela.

---

<sup>49</sup> Tarte hau erabaki dugu zirkuituaren berreraikuntzari eman diogun tartea izan delako. 1971tik aurrera, 7. kapituluaren gatazkak eta borroak aztertu dira eta horretarako, aipatu informazio jakina bilatzearen bidea hartze erabaki genuen.

Garaiko aldizkariak iturri gisara erabili ditugu, nahiz eta euren pisua, aurkeztuko ditugun emaitzetan, txikiagoa izan. *Punto y Hora* aldizkariarekin lan egin dugu (Nafarroako Eusko Ikaskuntzaren egoitzan gordetzen den aldizkariaren bildumarekin) baina 1976 urtean argitaratzen hasi zela kontutan hartuta, azaltzen dituen dinamikak gure marko kronologikotik at geratzen dira. Hala ere, trantsizio osoa hartzen duen lanketa bat egin dugu (zenbaki guztiak 1976-1981era arte), bitarte horretan agertzen diren mugimendu zein gatazka sozialetako pertsonaiek eta dinamikak, guk ikertu dugun etapakoekiko jarraikortasuna azaltzen ote diren ikusteko. Honela, lortutako informazioari eman diogun erabilpena mugatua izan da: orduan nabarmenak ziren figurei eginiko elkarrizketen kontsulta, hauetan askotan pertsonaien ibilbidearen kontakizuna egiten delako eta honen bitartean, esparru eta sareen papera azaleratzen delako; aldizkariak antolatzen zituen eztabaida edota mahainguruen azterketa (1976ko maiatzean, aldizkariaren bigarren zenbakirako, “ezkerreko apaizekin” antolatutakoa kasu); edota borroka eta mobilizazio herrikoien azaleratzea, bereziki, auzo mugimenduen kasuan bezala, marko kronologikoa apur bat luzatu dugunean. Azkenik beste motatako aldizkariak ere kontsultatu ditugu, baina egia esan, ez zaizkigu oso erabilgarriak izan, berez, langileriaaren presentzia gutxi azaleratu dutelako. *Pregón* ohitura aldizkariak (Nafarroako Unibertsitate Publikoko liburutegian kontsultatu genuena) esaterako, nafar landa munduko baserriarrak protagonistatzat zituen kontakizun sail bat zuen non 60. hamarkadan zehar, hirirako emigrazioaren eta landa munduaren eta hiriaren arteko bizimodu desberdintasunaren gaiak islatuta ageri dira. Baina horretaz aparte, langileriaz ezer gutxi.

Beste motatako aldizkariak kontsultatu dira ere, baina ez garaikideak. Iruñeko auzoetako aldizkariak ari gara. Txantrean eta Arrotxapean, *Txantrean Auzolan*<sup>50</sup> eta *Ezkaba* izenekin, auzoan egindako auzokideentzako berezko aldizkariak argitaratzen dira, 90. hamarkadatik. Berauetan, 60 eta 70. hamarkadetako borroka eta auzo mugimenduaren oroitzapenak egiten dira noizean behin, bai artikuluen forman eta baita urte haiek bizi izan zituzten auzokide nabarmenduei eginiko elkarrizketetan.

### **Hizkuntzari buruzko oharra**

Tesia euskaraz idatzi dugu beraz, iturrietatik zuzenean ateratako aipuak egiterakoan, hauek zein hizkuntzatan egingo ziren erabaki behar izan genuen. Azko iturria ikerketaren oinarri nagusia denez, testuan protagonisten testigantza-elkarrizketa pasarte ugari txertatu da, klasea sortu zuten subjektuen ahotsa, ikuspuntua jasotzeko modurik zuzena dela estimatu dugulako. Elkarrizketa gehienak gazteleraz egin ditugula kontutan hartuta (hain zuzen ere guztiak, bakar bat izan ezik) pasarteak itzultzea erabaki dugu testigantzak, oso garrantzitsuak ikerketan, testuaren parte izatea nahi izan dugulako. Euskaraz idatzitako testu bat gaztelerazko pasarte ugarirekin aurkeztu baino, nahiago izan dugu hauek euskaratzea. Ildo berean eta iturrien arteko bereizketarik ez egitearren, bestelako iturrietako aipuak, hots, bibliografia pasarteak, dokumentuen pasarteak, egunkarietako berrietako edo erreportajeetako pasarteak ere euskaratu dira. Hauen izenburuak ordea, jatorrizko hizkuntzan aipatzen dira.

Jatorrizko hizkuntza erabili da ere erakunde soziopolitikoaren izenak aipatzeko (erabiltzen diren siglak jatorrizko izenen siglak dira) eta aipamen bereziak egiteko, poemaren baten edo kantaren baten pasarte bat aipatzeko adibidez. Lehenbizikoaren kasuan, komenigarria iruditu zaigu erakunde haietariko batzuen siglak, CCOO, PCE edota ORT kasu, jatorrizko hizkuntzan ezaguterrazak direla uste dugulako. Erakundeen berezko izena euskalduna denean, euskarazko siglak erabili dira, noski. Bigarren kasuan, itzulpenarekin errimak eta neurriak galtzea nahi ez genuelako.

---

<sup>50</sup> Denboraldi batez aldizkari hau *Iruñerrian Auzolan* izenarekin argitaratu zen



## **1.KAPITULUA:**

### **LANGILE KLASEAREN ERAKETA BERE TESTUINGURUAN KOKATZEN**

## 1.1 FRANKISMOA ETA LANGILE KLASEA

Frankismoaren garaiko langile mugimenduaren historiografia, gerra zibilak eta diktadurak espainiar langileriaren historian inflexio puntu bat markatzen dutela esatean bat dator orokorrean. Frankismoak, itzulerarik gabeko ondorioak izan zituen 30. hamarkadako langile klasearentzat, ez dago zalantzarik. Estatu frankistak, langile klase hari berezkoak zitzaizkion antolakuntza, politika eta kultura adierazpen guztiak deuseztatu zituen eta honekin, klasea bera historikoki desagerrarazi egin zuen. Epe luzera ordea, frankismo hori bera, subjektu historiko baten desagertzea eragin zuen markoa izatearekin batera, beste subjektu berri baten eraketaren markoa izan zen ere, langile klase berri baten eraketaren markoa.

Beraz, langile klase berri baten sortze prozesuari heltzeko, langileek agertutako jarrerak ulertu eta azaltzeko, geure buruari egin beharreko lehenbiziko galdera honakoa izango litzateke: zer ondorio ekarri zituen frankismoak langile klasearentzat?

Errepresio frankistak langile klasea, haren proiektu soziopolitiko eta honekin bat egiten zuen mugimendu sozial oro bortizki zapaldu zituen. Berezko langile identitatea desagerraraztea bilatu zen, horretarako hura gorpuzten zuten elementuak, militanteak, erakundeak, erretorika eta ideiak, ezabatu eta hauek, frankismoak berak sortutako osagaiekin ordezkatu zirelarik. Suntsitze-sortze dialektika honek<sup>51</sup> klasearengan konpondu ezineko haustura bat eragin zuen, XX. mendean lehen herenean nagusi izan ziren langile kultura politikoekiko behin betiko etendura eraginez.

Erregimen frankistak, egiazki, langileen protesta moldeen eta militantzia zein antolakuntza ereduaren bilakaeran zerikusirik izan zuen. Izan ere, diktadurak, langileriaren praxia baldintzatu zuen erabatean. Parte hartze sozial eta politikoa ezezten zion markoa ezarri zuen haren gain, klasearen erreproduktzioarako esparru guztiak itxiz. Are gehiago, langile jarduera autonomoa legez kanpo utzi zuen eta horren ordez, langileak erregimenean integratuko zituen esparru berriak sortu zituen, helburu hirukoitz batekin: hauen baitan langileen nortasun kolektiboa eta klase izaera galaraztea, laneskua kontrolatzea eta mendean hartzea eta langileen jarrerak edo jokabideak baldintzatzea eta mugatzea.

Hala eta guztiz ere, langile klase berri bat jaio zen frankismoaren pean eta haren gogoz kontra. Honetan ere frankismoaren garaiko langile klasearen eta mugimenduaren historiografiak bat egiten du: 50. hamarkadaren erditik aurrera, langileria subjektu historiko bezala eta identitate politiko, sozial eta kultural bezala osatzera eraman zuen prozesu bat, klasearen eraketa prozesua, abiatu zen<sup>52</sup>. Frankismoa beraz, aipatu eraketa prozesua nola edo hala baldintzatzen duen marko bezala agertzen zaigu eta hala izango den heinean, langileen esperientziak eta jokabideak baldintzatuko dituela kontutan izan beharko dugu.

---

<sup>51</sup> Dialektikaren kontzeptu hau Xavier Domènech historialariak erabiltzen du, *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, Bartzelona, 2012, 17. orr.

<sup>52</sup> Langile klase berri baten sorrera buruzko ikusmoldeek, hala ere, ez dituzte aurreko klasearen militantzia, tradizio eta kultura politikoaren arrastoak ezezten. Zentzu honetan, E.P. Thompsonen ildo berean, Xavier Domènechek frankismoaren peko klase identitatearen formakuntza prozesuan “tradiziotik jasotzen diren materialak, klase berriaren esperientziatik sortutako materialetik” bereiztu egin behar ditugula adierazten du, beti ere klase identitatea, “belaunaldi bakoitzak bere esperientziaren arabera berrirakurtzen, berregiten eta eraldatzen duen kultura tradizio” baten parte dela jakinda. Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit. 30. orr.

### 1.1.1 Langile klase baten suntsiketa

Gerra zibilak eta frankismoak 30. hamarkadako langile klaseari eragindakoa, benetako suntsiketa historikoa izan zen. Erregimen berriaren ezarpenaren arrakasta bermatzearen, garaileei ezinbestekoa izan zitzaizen lehenbizi aurkakoa bortizki ezabatzea eta ondoren, honen birsorkundea ekiditeko, hura guztiz ezindua uztea. Honela, langile klasea desagerrarazia izan zen, bai fisikoki, militanteak eta erakundeak bortxaren bitartez ezereztuz; eta baita kulturalki ere, haren identitatea deseginez eta ordezkaturik. Beraz, frankismoarekin XX. mendearen lehen hereneko langile kultura sindikal, antipolitiko eta antiestatal tradizionala desagertu zela esan daiteke, honekin batera, langile izateko, langile sentitzeko eta langile bezala jarduteko forma jakin bat ere desagertu zelarik<sup>53</sup>.

Suntsiketa horretan errepresioak funtsezko papera izan zuen. Indarkeriaren erabilerari hiru funtzio nagusi aurreikusi zitzaizkion eta hiruak, langile klasea guztiz suntsitzera bideratuak egon ziren. Lehenbizikoa politikoa izan zen, “gutxi batzuek gehienek kontra” egin zuten “klase arteko” gerra zibil hartan, “ikararen bitartez etsaia geldiaraztea”, helburu izan baitzuen<sup>54</sup>. Bigarrenak erregimen berriaren ezartze, egonkortze eta baieztatze prozesuarekin izan zuen zerikusia, ordena sozial berria eta haren proiektu soziopolitikoak kolokan jartzen ahal zuten indarren deuseztatuz, hau da, erro erreformista zein iraultzaileko mugimendu sozial, politiko eta kultural oro ezabatuz, espainiar gizartea “onbideratzeko” tresna gisara erabili zelarik<sup>55</sup>. Honek 30. hamarkadako langile klasearen antolakuntza egitura osoa eta Errepublikaren sostengu izandako oinarri sozialak desegin zituen; izan ere, anarkosindikalismoan eta sozialismoan biltzen zen langile mugimendu indartsua zigortzeaz beste, klasearen erreproduktzioarako ezinbestekoak ziren ateneoak, kooperatibak eta bestelako esparruak itxi eta hauen buru politiko, sozial eta kulturalak jazarri egin ziren. Hirugarren funtzioak epe luzearako betekizuna izan zuen, errepresioak berekin ekarri zuen “beldurraren sozializazioak”, diktadurak iraun bitartean, gizartearen desmobilizazioa eta despolitizazioa errotzea eta honekin protesta eta erresistentzia mugimendu denak eragozteko lortu baitzuen nolabait.

Errepresioa beraz, ez zen gerrarako estrategia hutsa izan eta frankismo osoaren bitartean, langile klasearen presentzia sozio-politikoaren eta borrokaren birsortzea galarazteko erabili zen. Alde batetik, klasearen erakunde eta buruak desagerrarazi ziren, langileak antolakuntzarako eta militantziarako erreferenterik gabe utziz. Bestetik, hutsune honen eraginez, proiektu soziopolitiko errepublikarraren eta langilearen memoria galduz joan zen, honen diskurtso soziala, protestarako tradizioa eta jomuga iraultzailea, desagertzeko bidean jarri zirelarik. Are gehiago, memoria guzti horren berreskurapena oztopatzearen, klasearen eta klase arteko borrokaren existentzian oinarritutako ikusmolde zein praxi politikoa baztertu egin ziren. Lehenengoei dagokienean, oso modu sotilean egin zen, langilea “ekoizle” bihurtzen zuen edota klase arteko borrokaren kontzeptua deuseztatzen zuen erretorika baten erabilpenaren bitartez, adibidez. Praktikan, modu are agerikoago batean egin zen eta alderdi politikoak eta sindikatuak legez kanpo utzi ziren eta gatazka soziala debekatu zen, [langile] klase politika egiteko aurreko bideak eta moduak ahantzarazi eta ezabatu asmoz.

---

<sup>53</sup> Santos Juliá, “obreros y sacerdotes: cultura democrática y movimientos sociales de oposición”, Javier Tusell, Alicia Alted eta Abdón Mateos (koord.), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madrid, 1990, 147-159 orr., 150 orr.

<sup>54</sup> Josep Fontana, “Introducción: reflexiones sobre la naturaleza y las consecuencias del franquismo”, Josep Fontana (ed.), *España bajo el franquismo*, Editorial Crítica, Barcelona, 1986, 18 orr.

<sup>55</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, *Productores disciplinados y...* 2 orr.



Zentzu honetan, geldiera egoera hau gainditzeko klaseak izan zituen zailtasunak, langile erakundeen indarren agortzeak eta ekintzarako ezintasunak eragindakoak izan ziren ere; txikituta eta legez kanpo, erakunde politiko eta sindikal hauek, euren jarduera, klandestinitatean eta erbestean garatu behar izan baitzuten. Klandestinitateari dagokionean, egiazki ez zen praktika politiko edo sindikala berreskuratzeko egoerarik aproposena, langile jarduera militantzia nukleo txiki, itxi eta isolatuetara mugatu behar zelako. Erbesteari dagokionean, urruntasun fisiko eta geografikoa, barnealdean langile jarduera indartsu bat dinamizatzeko oztopo izan zen, espainiar barne errealtatearekiko loturak erabat galduta, erakundeetatik sustatzen ziren lerro eta estrategia politikoak herrialdearen eta langileen problematika eta behar berrietara moldatzen ez zirelako eta ondorioz, langilegoari alternatiba berriak eskaintzeko gai izan ez zirelako. Honela, haustura gainditu ezinezkoa izan zen bizirautek izan zuten erakundeen geldikinen eta barneko langileen artean ere<sup>56</sup>.

Langile klasearen suntsiketa oster, honen txikitze eta paralizatze hutsa baino askoz ere konplexuagoa izan zen eta suntsitze-sortze dialektika baten bitartez gauzatu zen, hau da, klasearen adierazle guztiak txikituz, baina aldi berean, hura ezezten zuten elementu berriak sortuz. Izan ere, Xavier Domènech historialariak azaldu duen bezala, frankismoa sostengatuko zuten sare sozial berriak *sortzearren*, lehenik eta behin Errepublika garaiko elkartasun forma tradizionalak *suntsitu* behar ziren, hots, komunitate nazional eta izpiritual garbi eta eraberritu bat *sortzeko*, proiektu errepublikarra *errotik suntsitu* beharra zegoen<sup>57</sup>. Harreman dialektiko hau oso argi atzematen ahal da identitateen alorrean. Frankismoak, klaseari berezkoak zitzaizkion identitateak erabat suntsitu eta hauek identitate berriekin ordezkatzeko saiakera egin zuen. Horretarako lehenbizi, klase kultura baten existentzia ahalbidetzen zuten egitura sozial, kultural eta politiko guztiak deuseztatu eta debekatu zituen. Gero, aurrekoak ordezkatzeko, erregimenak masa erakunde propioak sustatu zituen (Erakunde Sindikala adibidez), hauen bitartez, langile klasea frankismoan integratuko zuten identitate berriak errotzeko<sup>58</sup>. Ildo horretan, frankismoaren bitartean langile identitate berri bat sortu zenean, ez zen soilik aipatu klase suntsiketak eragindako hutsunea betez sortuko, frankismoak langileria gain ezarritako identitate honen aurka jarriz sortuko zen ere.

### 1.1.2 Langileak eta estatu frankista

Estatu frankista, haren oinarrian zeuden ikusmolde politiko eta sozialak hala nola bere egitura eta erakundeak, klasearen sortze prozesuaren egiazko baldintzatzaileak izan ziren. Erregimenak ezinbestekotzat jo zuen langileria *menderatzea* eta ordena berria *integratzea* eta horretarako, tresna eta baliabide desberdinak sortu zituen, erakunde errepresiboak (poliziaren indarkeria, justizia arbitrarioa, kartzelaren zigorra) edota masa erakundeak (Falangea, Sindikatu Bertikala), besteak beste. Hauek, langileen klase izaera kolektiboa ezabatzeko eta berauen jokabideak kontrolatu eta mugatzeko erabiliak izan ziren.

Langilegoak, estatu frankistaren baitan, parte hartze politiko eta sozial erreale baterako eta berezko jarduera autonomo eta kolektibo baterako gaitasuna galdu zuen.

---

<sup>56</sup> Soilik alderdi komunistak lortu zuen, masa mugimenduetan parte hartzeko politikaren eskutik, barneko oposizioan presentzia eraginkorra izatea. Errepublika garaiko gainontzeko erakunde sindikal eta politiko zenbaitek, diktadura amaitezear eta trantsizioa abiatzear zela, erbestetik itzultzerakoan, indartzerik izan bazuten ere, ordura arte ez zuten oso paper nabarmendua izan frankismoaren aurkako barne oposizio horren baitan.

<sup>57</sup> Ikusi Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 19-21 orr.

<sup>58</sup> *Ibid.*, 21. orr.

Estatu totalitarioen antzera, gizarte zibila (emakumeak, gazteria eta langileak) kokatzea eta kontrolatzea izan zuen helburu, horretarako populazioaren bizitzaren aspektu guztietan eragiten zuen esku hartze mekanismo sorta oso bat martxan jarri zuelarik. Modu honetan, Alderdi bakarrak, erregimenaren kontrolpeko masa erakunde sozial eta kulturalak, komunikabideen gaineko kontrol zorrotzak eta oposizio forma ororen gaineko errepresio bortitzak, estatuaren egituretatik kanpo kokatzen zen edozein jardura politiko, sindikal eta kulturala zailtzen eta galarazten zuten. Honek praktikan ondorio larriak izan zituen langileriarentzat; frankismoak ezarritako egituren mesedetan, langileak berezko esparrurik gabe geratu zirelako eta honekin, berauetan garatzekoa zen berezko jardura politiko, sindikal, sozial eta kultural erreal bat garatzeko baliabiderik gabe geratu zelako<sup>59</sup>.

Politikaren arloa langileriaren ekintzarako gaitasunaren murrizketaren adibide adierazgarrienetarikoa bat izan zen. Erakunde politikoak legez kanpo uzterakoan eta adierazpen politikoak egiteko legezko marko bakar bat -Alderdi Bakarra-definitzerakoan, langile klasearen praxi politikoa, erremediorik gabe blokeatu egin zen; jardura eraginkor bat aurrera eramateko ezintasunak, langileei proiektu politiko propio batean pentsatzeko eta sinisteko bidea zaildu zuelarik. Tresnarik eta proiekturik gabe, langile klasearen ahalmen politikoa eta izaera politikoa bera, ia desagertu arte murriztu egin ziren.

Halako marko batean beraz, oso zaila izan zen langileriarentzat berezko jardura bat garatzea eta jokabide kolektiboak agertzea. Zaila izan zen erregimenaren ideologia nagusi egiteko, aniztasuna gaitzesten eta zigortzen zelako eta ondorioz, eztabaida ideologikoak lekurik ez zuelako. Zaila izan zen gizabanako oro estatuaren egituren baitan integratuta zegoelako. Zaila izan zen populazioa, bereziki garaitua izandako populazioa, ejerzitua eta eliza bezalako botere hertsatzaileen bitartez, eguneroko bizitzaren zati txikienean ere kontrolatuta izaten zelako. Eta zaila izan zen, batez ere, langileriak, gizarte zibil osoak bezala, bere oinarrizko eskubide eta askatasunak urratuta zituelako.

Adierazpen askatasuna, elkartze eta bilera eskubideak eta manifestazio eskubidea, bertan behera geratu ziren; alderdi politikoen eta sindikatuen debekua, masoneria eta komunismoa zigortzeko legeak (1940an), zibilen aurkako guda kontseiluak edota Tribunal de Orden Público (TOP) delakoaren eraketa (1963an), oposizioaren ideia eta ekimenak itoartzeko eta hauek praktikan jartzera ausartzen zen gizabanako edo talde oro jazartzeko tresna gisara erabiltzen ziren bitartean. Comisiones Obrerasen kasua. adierazgarria da langileen eskubideen urraketa noraino ematen zen ikusteko. 1967an ilegaltzat jo ziren, Erakunde Sindikaletik kanpo kokatzen ziren langileen erakunde autonomoak zirelako. Orduz geroztik eta 1976ra arte, hauen bilera eta ekintza guztiak debekatu ziren, beren propaganda eta prentsa banatzea eta jasotzea gogorki zigortu zen eta berauetan aritzen zen militante asko atxilotua, torturatua eta kartzelaratua izan zen. Beraz, langileek, euren oinarrizko eskubideak gauzatzen saiatu zirenean, hauen ezeztapen bortitza jaso zuten estaturen partetik. *Salbuespen egoera* hau gainera, frankismo osoan zehar mantendu zen eta denborarekin erregimenak halako irekierarako joera agertu zuen arren, oposizio politikoari eta langile protesta zein autoantolaketari, errepresioarekin eta jazarpenarekin erantzun zien beti.

---

<sup>59</sup> Honek ez du ez du esan nahi frankismoaren bitartean esparru hauek irekiko ez zirenik eta langile klaseak bere esparru propioak sortu eta garatzeko gaitasuna izan ez zuenik. Kontran, halaxe egin zuen, klasearen sorkuntza prozesua, berezko esparru hauek sortzearekin batera eman zelarik. Hain zuzen ere, inposatutako egoera horri aurre eginez, langileek esparruak nola sortu edo bere egin zituzten ikustea, ikerketa honen erronka nagusienetarikoa bat da.

### *Langileen autonomiaren eta klase izaeraren ezeztapena*

Estatu frankistak lan munduaz eta langilegoaz izan zuen ikusmoldea, klasearen beraren ezeztapenean oinarritu zen. Frankismoak bere oinarrizko printzipioetan eta erretorikan, langileriaren klase entitatea arbuiatzeaz beste, praktikan, bide ezberdinak erabili zituen langileria subjektu kolektibo bezala indargabetzeko.

Lan harremanen eredu frankista izan zen bide horietariko bat. Erregimenak ezarritako lan harremanen marko berrian, langileei, euren lan baldintzen xedatzean parte hartzeko gaitasuna kendu zitzaion ahalmen hau, erabatean, estatuaren esku uzteko. Langileen eta enpresarien arteko negoziaketa zuzena baliorik gabe utzita - 1958an Hitzarmen Kolektiboen Legea aldarrikatu zen arte behintzat- gobernuak zuzenean ezarri zituen lan baldintzak, soldaten maila mugatuz, lantokien barne araudiak xedatuz edota, Lan-Magistraturaren bitartez, langileen kezka eta gatazkak bideratuz eta ebatziz. Estatuak beretzat gorde zuen paper ahalguztidun honen atzean, lan harremanen ikusmolde paternalista bat atzematen ahal da. Kontratazio kolektiboa, lan lotura indibidualetan funtsatutako harreman sistema batekin ordezkatu zen, lan eskubideen babesa, langileen afera kolektiboa izateari utzi eta arazo indibidual bat izatera igaro zelarik: lan eskubideen babesean kolektiboaren indarrak balioa galtzen zuen arren, langileak, baldintzen xedapenean erabateko eskumena zuen estatuaren eskuzabaltasunean uzten ahal zuen bere lan baldintzen hobekuntza. Horrela sortzen zen nolabaiteko kutsu paternalista zuen harremana langilearen eta estatuaren artean. Langileak, hartara, bere kideekin aldarrikapen kolektiboak egiteko aukera galtzen zuen, baina horren truke, indibidualki estatuaren babesa jasotzen zuen, bai legediaren bitartez (lanpostuak bermatzearekin, adibidez) eta baita Erakunde Sindikalaren gizarte-ekintzaren bitartez ere<sup>60</sup>.

Horretaz gain, lan harremanen markoak, langileen eta enpresariaren arteko harremanari dagokionean, klase arteko borroka gainditzea eta produkzioaren eragile sozioekonomikoen arteko harmonia berrezartzea izan zuen jomuga, lanaren eta kapitalaren arteko edozein dikotomiaren aurrean, adostasuna lehenetsiz. Marko honen arabera, erregimenak hobestutakoa, egunerokotasunean biei, enpresariari zein langileei, mesede egiten zien ereduak zen; elkarrenganako leialtasun printzipioan oinarrituta, enpresariak langileei asistentzia eta babesa eskaintzen baitzieten, hauen zintzotasunaren eta menpekotasunaren truke.

Erregimenaren ikuspuntutik, interes kontrajarrien adiskidetze hau, langileak eta enpresariak interes komun eta bakar baten mendean -interes nazionalaren mendean-jartzeko ezinbestekoa zen. Hau da, erregimenak, enpresa, eragile sozioekonomikoen arteko *anaitasun* eta *kooperazio* lokarrien bitartez osatutako "lan komunitate" bezala definitzen zuen eta "lan komunitate" hura aberriaren zerbitzura zegoen "unitate ekonomiko" bezala ulertzen zuen heinean, interes nazionalaren izenean, langile eta enpresariaren arteko elkarlana exijitzen zuen. Honek praktikan zer ondorio ekartzen zuen? Kapitalaren eta lanaren arteko liskarra sortzen zutelako, klase izaerako elkarreratzeak, hots, langile eta ugazaben erakunde propio eta autonomoak, arbuiatzen zirela eta hitzarmen kolektiboak, lan baldintzen erregulaziorako tresna bezala, ezeztu egiten zirela. Honekin beraz, lan harremanen markoaren oinarriak erabatean aldatzen ziren, eragile antagonikoak aurrez-aurre jartzen zituen produkzio komunitateari, lan komunitate batu eta harmonikoren irudia nagusitzen baitziztaion.

---

<sup>60</sup> Sebastian Balfour, "El movimiento obrero y la oposición obrera durante el franquismo", Javier Tusell, Alicia Alted eta Abdón Mateos (koord), *La oposición al régimen de Franco*, I. Liburukia, UNED, Madrid, 1990, 11-18 orr. 13 orr.

Lan harremanen markoari buruzko ikusmolde honek, halabeharrez, frankismoaren modelo sindikala gorpuztu behar zuen. Hura, sindikatu bakar eta bertikaleko sindikalgintza eredu korporatibista izan zen, langileen ordezkari bat aurreikusten ez zuena eta langileen interes kolektiboen adierazpenerako tarterik uzten ez zuena. Arlo politikoan gertatu bezala, jarduera sindikalean aritzeko legezko marko bakar bat xedatu zen, Erakunde Sindikal frankista, langileek, arlo sindikalean ere, praxi propio eta autonomo bat garatzeko aukera murriztu izan zituztelarik. Esate baterako, Erakunde Sindikalaren egiturek berek, sindikatuei berezkoa zitzaien klase izaerako jarduera sindikala galarazi zuten, langileak eta enpresariak elkartzen zituen sektorekako, arlokako edota ogibidekako egitura bertikalak ezarri, sindikatuen izaera horizontala ezabatu baitzuten. Beraz, ordura arte praxi sindikalaren ardatz nagusi izandako eragile sozioekonomikoen arteko enfrentamendua, eredu sindikal berriaren baitan desegin zen.

Guzti honi, langileek egitura haien baitan presentzia eta parte hartze erreal bat izateko topatu zituzten zailtasunak gehitu behar zaizkio. Erakunde Sindikalaren aginte larrea gobernuak zuzenean izendatutakoa izan zen beti (burukideak Alderdi Bakarreko militanteak izan ziren gehienetan) eta langileek ez zuten inoiz euren buruak hautatzeko egiazko ahalmenik izan. Horretaz gain, langileek sindikatuen oinarriko mailetan (enpresa, maila lokal eta probintzialeko arlokako sindikatuen Sail Sozialak) ordezkari bat gauzatzeko betetzen ahal zituzten karguak, praktikan, ezin ziren erabatean eraginkorrak izan; izan ere, ordezkari sindikalek, askatasunez jarduteko eragozpen eta hertsapen handiak topatzen zituzten.

Erakunde Sindikalak, egiazki, langile klasearen aurreko antolakuntza moldeekiko erabateko haustura suposatu zuen. Glicerio Sánchez Recio adibidez, Erakunde Sindikalak sindikalgintza tradizionalaren oinarriko printzipioak urratzen zituen heinean, erregimen frankistak sindikatuaren esanahi historikoa irauli egin zuela aipatzen du<sup>61</sup>. Azken batean, sindikatuak (langileenak edo enpresariak) berez, borondateko elkarte batetik sortutako erakundeak eta negoziazioaren zein presioaren bitartez ordezkari bat eta aldarrikapen funtzioak betetzeko tresnak ziren eta frankismoak, bat-batean, izaera hori kendu zien. Erakunde Sindikalarekin, hasteko, elkarteko askatasunaren printzipioa indargabetu zen, langileei eta enpresariei sindikatu bakarrean kide izateko beharrezkotasuna inposatu zitzaielako; ondoren, sindikatuen ordezkari funtzioa baliogabetu zen, estatuak erakundearen erabatean kontrolatzen zuelako; eta azkenik, lan baldintzak defendatzeko eta hobetzeko sindikatuak praktikan jartzen zituzten prozeduren eraginkortasuna galarazi zen, aldarrikapenerako eskubidea, langileen eskubide kolektibo bezala ezagutzen ez zelako (ez behintzat 1958ra arte)<sup>62</sup>. Ondorioz, sindikatuak langileriaren berezko esparru izateari utzi zion eta euren interesen defentsarako tresna eraginkor baten faltan, langileen praxi sindikala, erremediorik gabe gelditu egin zen.

### *Langileen menderatzea*

Estatu frankistaren ezarpena espainiar langileriaren egoeran izan zuen eragina, bestelako aspektu batean nabaria egiten da ere: honek jasan behar izan zituen kokapenean, kontrolean eta menderatzean. Ezin eztabaidatuzkoa da frankismoak, hasieratik, langileriaren men egitea ziurtatzea helburu izan zuela. Hiru izan ziren, hartara, erregimenak langileen menderatze hau ziurtatzeko erabili izan zituzten

---

<sup>61</sup> Glicerio Sánchez Recio, "El Sindicato Vertical como instrumento político y económico del régimen franquista", *Pasado y Memoria*, 1. zkia., 2002, 19-33 orr. 7 orr.

<sup>62</sup> *Ibid.*, 8-9 orr.

erraminta nagusienak: Erakunde sindikala bera, enpresarien langileekiko jokabidearen mugarik gabeko onarpena eta errepresioa<sup>63</sup>.

1940ko Batasun Sindikalaren Legeak, Erakunde Sindikalak “nazioaren elementu ekoizleak” alor ekonomikoan zituzten jomugak eta beharrak estatuarengana helduarazteko eta estatuaren ildo ekonomiko nagusiak ekoizlearengana iristeko tresna izan behar zela xedatzen zuen arren<sup>64</sup>, honek politika sozial eta ekonomikoaren diseinuan izan zuen parte hartzea, eskasa izan zen. Praktikan, Erakunde Sindikalari, bestelako funtzio bat betetzea egokitu zitzaion: langileak kokatu, kontrolatu eta menperatzearena, horretarako praktika hertsatzaile bat aurrera eraman zuelarik. Lehen mailako funtzio politikoa zen hura, langileen gaineko etengabeko presio honen bitartez, Erakunde Sindikalak, lan gatazken erreproduzioa eragozteko eta honekin “bake soziala” mantentzeko ardura hartzen baitzuen. Estatuak berak eman zion ardura hori, erakundearen funtzioak legediaren bitartez -Lanaren Forua (1938), Batasun Sindikalaren Legea (1940) eta Erakunde Sindikalaren Oinarrien Legea (1940)-arautzerakoan. Erakunde Sindikalaren Oinarrien Legeak adibidez, espresuki xedatzen zuen sindikatu frankistak izan behar zuen langileak kokatzeko, kontrolatzeko eta menderatzeko funtzioa. Bertan, erakundearen helburu nagusienetariko bat, “batasunaren eta elkarlanaren printzipioen mesedetan, ekoizleen diziplina soziala ezartzea” zela xedatzen zen, horretarako, *milizietan* antolatutako ekoizleen kokapena hobesten zelarik<sup>65</sup>. Langileak mendearen hartzeko funtzio honen osagarri bezala gainera, gobernuak ezarritako lan baldintzak interferentzia politiko eta sozialik gabe betetzen zirela bermatzea, ugazaba eta langileen arteko hitzarmenak ekiditea edota ekoizpen prozesuan menderatze harremanak iraunaraztea bezalako eskumenak ezagutzen zitzaizkion<sup>66</sup>.

Praktikan, bere jarduera fronte ezberdinetan garatu zuen, bizitza laboralaren eta sozialaren alderdi desberdinetatik, langileen gaineko kontrol zorrotz bat gauzatzeko. Adibidez, lanpostuen eskariaren eta eskaintzaren kontrola bere esku zuen, kontratua izateko, Erakunde Sindikalaren enplegu bulegoetan izena ematea eta bertan jaulkitzen zen *txartel profesionala* eguneratuta izatea derrigorrezkoa baitzen. Txartel hura gainera, langileen gaitasunaren eta espezializazioaren egoera erreala ezagutzeko asmoarekin jaiotzen bazen ere, praktikan, hauengan zeharkako presio iraunkorra eragiteko oso tresna eraginkorra izan zen. Txartelik gabeko langileak kontratatzea debekatuta zegoen eta aseguru sozialak eskuratzeko aukera izateko edota Lan Magistraturaren bitartez eskaerak eta kezkak azaltzeko ere, txartela derrigorrezkoa zen. Baldintza hauek kontutan hartuta, langileen gaineko erabateko presioa, txartelean, datu pertsonal eta laborekin batera, aurreko lan guztietan jasotako zigorrak eta hauen arrazoiak, hala nola langileak FETeko militanteak ziren edo ez adierazten zelako gauzatzen zen.

Jarduera sindikala bera, Erakunde Sindikalaren bitartez langileak menderatzeko beste modu bat izan zen. Erakundearen egitura hierarkiko eta zurruna, oso lagungarria izan zen horretarako, egitura honek goi-karguen, enpresarien eta langileen parte hartzerako eta ekintzarako gaitasunaren artean, ageriko desorekak sortzen baitzituen. Goi-karguek, Alderdi Bakarrekoko militanteak ziren heinean eta

---

<sup>63</sup> Came Molinero eta Pere Ysás, “Productores disciplinados: control y represión laboral durante el franquismo”, *Cuadernos de relaciones laborales*, 3. zkia, 1993, 33-50 orr. Autoreek artikulu osoan zehar egiten dute erraminta hauen azterketa.

<sup>64</sup> 1940ko uztailearen 7ko Batasun Sindikalerako Legea. Jasoa, Carme Molinero eta Pere Ysás, *Productores disciplinados y...* Op. Cit., 7 orr.

<sup>65</sup> 1940ko abenduaren 6ko Erakunde Sindikalaren Oinarrien Legea. Jasoa, José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 140 orr.

<sup>66</sup> Came Molinero eta Pere Ysás, “Productores disciplinados: control...” Op. Cit., 34 orr.

zuzenean politikoki izendatuak izaten ziren heinean, interes politikoa lehenesten zuten beti langileen interesen aurrean, azken hauek sindikatuko buruen erabaki politikoen mende geratzen zirelarik. Enpresariak ber aldetik, egitura sindikaletan parte hartzeko eta jarduteko langileek baino gaitasun handiagoa izan zuten beti. Arlokako sindikatu nazionalen zuzendaritzetan langileek inoiz izan ez zuten presentzia izateaz beste, ez zuten inolako oztoporik izan euren artean elkartu eta antolatzeko: alde batetik, euren interesak defendatzeko, Erakunde Sindikalaren baitan haien kontrolpeko organismoak sortzeko aukera izan zuten; bestetik, ez zuten arazorik izan Erakunde Sindikalaz kanpo ere berezko entitate eta elkarteak martxan jartzeko<sup>67</sup>.

Aholkularitza eta asistentzia ere, langileak sindikatuaren eraginpean mantentzeko bideak izan ziren, langileen erakundearekiko mendekotasun harreman bat sortzen baitzuten. Aholkularitzari dagokionean, Erakunde Sindikalak, lan arazoak bideratzeko eta konpontzeko zerbitzu desberdinak eskaintzen zituen, lan munduko araudi eta zuzenbidearen esparruan informazio eta asistentzia juridikoa eskaintzea, langileen izenean Lan Magistraturara jotzea edota adiskidetze sozial eta sindikala lortzeko bitartekaritza lanak egitea kasu, langileengan hauekiko nolabaiteko mendekotasuna eragiteko. Asistentziari dagokionean, *gizarte-ekintza* desberdinak martxan jarri zituen, eguneroko bizitzaren zenbait alderditan eraginez, langileen gaineko kontrola, fabrikaz haraindi, bizitza sozialaren esparru desberdinetara, zabaltzeko. Enpresetan kirol eta folklore taldeak osatuz aisialdian eragiten zuen gizarte ekintza soziokulturalek, etxebizitza bat lortzeko erraztasunak ematen zituen “Etxebizitzarako Gizarte-Ekintza Sindikalak” edota eskola profesionalak eraikiz eta Lanbide Heziketa sustatuz formakuntza profesionalen eragiten zuen gizarte ekintzak, langileen gaineko kontrol hura ze alorretan gauzatu nahi izan zen erakusten digute. Halako ekintzen bitartez gainera, Erakunde Sindikalak, erregimenaren langileenganako kezka eta dohakabeen babesaren erretorika paternalista gauzatzen laguntzen zuen; izan ere, gizarte ekintza sindikalek, langileen egoeraren hobekuntzan estatuak azaltzen zituen gabeziak konpentsatzen zituzten.

Langileen Erakunde Sindikalarekiko jarrerak interpretatzea eta azaltzea ez da erraza. Zentzu honetan, hauek egitura sindikalen aurrean agertu izan zuten pasibotasuna, hau erakundearen kontrako ageriko erresistentzia edo oposizio falta bezala ulertuta, sindikatu frankistarekiko onespren bezala ulertzen ahal da; baina kontutan izan behar dugu ere, halako jarreraren atzean, axolagabekeria eta beldurra bezalako faktoreek ere zerikusirik izaten ahal dutela, erakundearen aurreko langileen jarrera, onsprenaren eta etsipenaren artean kokatzen direlarik. Dena dela, langileen artean, sindikatuarekiko atxikimendu falta argia izan zela dirudi. Erakunde Sindikalak ez zuen inoiz langileek hura euren erakundea zela sentitzea lortu. Haren presentzia eta jarduera jasaten ziren arren, langileek zilegitasunik gabeko erakunde bezala, erakunde arrotz bezala, hartu zuten hasietatik, bai estatuak, dekretu bidez eta haien iritzia kontutan izan gabe, sortutako egitura zelako eta, baita ere langileek bertan parte hartzeko eta langile ordezkariak eraginkor bat gauzatzeko esparrurik topatzen ez zutelako. Zentzu honetan, atxikimendu faltak agerikoa izan behar zuen erregimenak berak egituraren oinarriko mailak indartzea eta enpresan zein eskala lokal eta probintzialeko erakunde sindikaletan, langileen kezka eta eskaerak bideratzeko zituzten kanalak irekitzea ezinbestekotzat jo zuzenean. Azken batean, langileek hautatutako ordezkari sindikalen eta enpresa epaimahai kideen figurekin eman nahi izan zen langileen parte hartzea areagotzen zelako eta praktika sindikalari egiazko edukia

---

<sup>67</sup>Carme Molinero eta Pere Ysás, *Productores disciplinados y ...* Op. Cit., 9 orr. Nafarroan adibidez, enpresariak ez zuten arazorik izan probintziako industria garrantzitsuenak barne hartzen zituen “Asociación Industria de Navarra” sortzeko.

ematen zitzaiolako itxura<sup>68</sup>, hain zuzen ere, atxikimendu falta honi aurre egiteko saiakera bat bezala ulertzen ahal da.

Lantokien baitan, bereziki lanaren antolaketa moduen bitartez eta langileen eta enpresarien arteko harremanaren egituraketaren bitartez gauzatu zen langileen menderatzea. Bi elementu hauek diziplina zorrotzaren printzipioa gailendu zuten enpresetan, lehenengoen (fordismoak) langilegoa kuartel antzeko egitura batean sartu zutelako eta bigarrenak, nagusiekiko erabateko obedientzian oinarritutako langileen eta ugazaben arteko harreman desorekatuak sustatu zituelako. Fordismoaz luze arituko gara hurrengo kapituluan, beraz oraingoan, enpresari langileekiko jokabideak azken hauek menderatzeko nola eragin zuen azalduko dugu. Aipatu fabriken baitan ezarri zen harreman eredu desorekatuan, enpresaria autoritate handienez bihurtu zen, hierarkiak ematen zion langileen gaineko botere hori berresteko, estatuaren onspenarekin, beharrezkoak izan zituen tresna guztiak erabili zituelarik: depurazioak, barne araudietan zigorgarritzat jotzen ziren jarreraren zehaztugabetasuna, jarrerak horiek zigortzeko barne araudiaren erabilera arbitrarioa (aldi baterako lan eta soldaten gabetzea, isunak eta kaleratzeak) edota gehiegikeriez jositako langileekiko tratua, izan ziren haietariko batzuk. Langileek kontrari, inolako babesik gabe aurre egin behar izaten zieten lantoki barneko harreman desorekatu hauei. Adibidez, Lan Magistraturara jo zezaketen eta apelazioak banan-banan aurkeztu, baina ohikoa zen magistratuek apelazio hauek, alderdikeriaz, ugazaben alde ebaztea.

Lantokietan barna langileen men egitea ziurtatzeko halako laguntzaz beste, estatu frankistak, ugazaben aldeko lan baldintzak iraunarazteko bermea eskaini zien enpresariei. Honela, estatu paternalista eskuzabalaren irudiari jarraiki, lan harremanak arautzen zituzten hainbat lege langileria babesten zuen arren (lanpostuaren defentsa kasu), enpresariei oso gutxitan exijitu zitzairen lan-legeak xedatzen zituen langileekiko babes neurri haiek egiazki betetzea. Frankismoak aldarrikatutako "Justizia sozialaren" erretorika paternalista, hutsean geratu zen; batez ere lan baldintzen ezartzaile bezala zuen papera, "dohakabekoen" babesera bideratu beharrean, enpresariaren interesekoak ziren lan baldintzak bermatzera mugatu zenean. Honen ondorioz, langileek, gutxienez soldata zurrinak, hauen eroste ahalmenaren galera jarraitua, oporraldi eskasak, lanaldi trinkoak, erabateko segurtasun eta higiene falta edota estaldura ekonomiko eta sozial urriko gizarte segurantzak bezalako lan baldintza gogorak jasan behar izan zituzten diktaduraren lehenbiziko hogeitun urteetan<sup>69</sup>. Egoera honen aurrean gainera, ezer gutxi egiten ahal zuten, euren interesen defentsarako tresnarik edo aukerarik ez izateaz beste, erresistentzia edo protesta txikienaren aurrean (hobekuntza eskaerak, lan erritmoen borondatezko murrizketa) patrioiek arbitrariorotasunez zigortzen zituelako eta estatuak gehiegikeria haiei mugarik jartzen ez zizkielako.

Enpresari langileak mende hartzeko erabili zituzten mekanismoak ordea, ez ziren beti arbitrariorotasun eta gehiegikeria horretan funtsatu. Zentzu honetan, paternalismoa industrial ere, langileak diziplinatze eta menderatzeko metodo oso eraginkorra izan zen. Paternalismoak lan eskua enpresetara erakartzea eta hura berarautan egonkortzea izan zuen jomuga eta horretarako fideltasun bertikaleko loturak indartzea ezinbestekoa zenez, estatuak egin bezala, enpresari ere, langileen babesa eta asistentzia beregain hartu zuten gizarte-ekintza desberdinak sustatuz. Hauen

---

<sup>68</sup> Ikusi José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 144-145 orr. Kargu hauen ordezkartasuna beti baldintzatuta egon zen. Alta, ikusiko dugunez, hautaketa prozesuei hala nola karguen jarduerari ezarritako mugen gainetik, ordezkartza sindikalaren maila hauek, langile klaseak, langile mugimenduaren antolakuntza eta protesta abiarazteko, bere egindako esparru errealetariko eta eraginkorretariko bat izan ziren.

<sup>69</sup> Carmen Benito del Pozo, *La clase obrera asturiana durante el franquismo*, Siglo XXI, Madrid 1993, 406 orr.

bitartez langileen enpresariarekiko mendekotasun harreman bat sortzen zen, lantokiaren esparrutik haratago, langileen eguneroko bizitzaren eta familiaren esparruetan ere eragina zuena eta ondorioz, enpresarien langileen gaineko kontrola berauetara zabaltzen zuena<sup>70</sup>.

Langileen menderatzea lortzen lagundu zuen hirugarren erreminta errepresioa izan zen, langileen jarrerak hertsatzeko disuasio lan oso eraginkorra burutu baitzuen. Estatu frankistak, bere proiektu politiko eta soziala ezartzeko sortu zuen errepresiozko aparatua, langileen protesta mugimendu edo saiakera oro zapuzteko eta langile antolakuntzarako ahalegin oro gogorki zigortzeko erabili zuen diktadurak iraun bitartean<sup>71</sup>. Ildo horretan, langileen jokabideak baldintzatzeko funtsezko elementua izan zen eta ez bakarrik praktikan mehatxu iraunkor bezala funtzionatu zuelako, baita gerra garaian eta gerraostean langile erakundeak eta militante belaunaldi oso bat suntsitu eta gero, hurrengo belaunaldiko langileen memorian, disuasiorako oroimen bezala markatuta geratu zelako ere. Langileen jokabideak errepresioaren mehatxuaren eta honek sorrarazten zuen beldurraren bitartez baldintzatzeak, asko erraztu zuen hauen menderatzea.

Estatuak zein enpresariak erabatean mendeantzen zuten, langileriak, ezer gutxi egin ahal izan zuen gerraostean bizi behar izan zituen miseriazko bizi baldintzei aurre egiteko. Historiografiak ez bairik gabe onartzen du gerraostean bizitza mailak nabarmenki okerrera egin zuela, langileen orduko eguneroko errealtatea azaltzerakoan, soldata maila oso baxuak, ez ohiko lanorduen biderkatzea, haurren lanaren berragerpena, errazionamendua eta gosea, bizitza kostuaren areagotzea, oinarritzko zerbitzuen kontsumoa asetzeko ezintasuna (etxebizitzaren arazoa, higie eta osasun baldintzen okertzea, gaixotasunen pizte eta hedapena) edota merkatu beltza bezalako fenomenoak azaleratzen dituelarik. Iruñean, esaterako, 1954ean oraindik desoreka sozialak sakonak ziren, soilik sektore txiki bat nolabaiteko erosotasunarekin bizitzen ahal zen bitartean, biztanlegoaren gehiengoak, erdiko klaseak eta klase umilak, biziraupenaren minimoetara iristeko zailtasunak zituen; emakume askok lan egiten zuen senarraren soldata osatzeko eta zortzi orduko lanegunak, aparteko orduak sartuz edota enplegu-aniztasunera joz, luzatu behar ziren; eta enplegua sortuko zuen industria berririk ez zegoenez, egoera benetan estu bilakatzeko bidean zegoen, azken hamabost urteetako hogeita hamar mila biztanleko hazkunde demografikoak, langabezia arazo larriak sortzen ahal zituelako<sup>72</sup>.

Carme Molinero eta Pere Ysásek, frankismoaren lehen hogeitaz urteetako bizi baldintzak aztertu ondoren, egoera deitogarri hau erregimenarentzat arazo politiko bihurtu zela ondorioztatu zuten<sup>73</sup>. Erregimen frankistak hasiera batean bere burua komunitateko kide guztientzako lana eta ongizatea ekarriko zuen ordena gisara aurkeztu zuen arren, eguneroko errealtatean bizi zen bizi baldintzen okertze honek, estatu berriaren *justizia sozialaren* diskurtsoa baliorik gabe utzi zuen laster. Horregatik, agerikoak ziren erretorikaren eta errealtatearen arteko desorekak eta populazioaren pobretze orokortuak erregimenaren euskarri sozialak areagotzeko oztopo izaten ahal ziren neurrian, benetako kezka piztu zenbait agintari frankisten artean, maila lokal eta

<sup>70</sup> Frankismoaren garaiko paternalismoaz gehien aztertu izan duen autoreetariko bat José Babiano izan da. Gaiaz aritzeko funtsezko erreferentzia dira bere lanak, bereziki *Paternalismo industrial y disciplina fabril en España (1938-1958)*, Consejo Económico y Social, Madril, 1998.

<sup>71</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, "Productores disciplinados: control..." Op. Cit., 44 orr.

<sup>72</sup> Honelakoa zen Iruñeko egoera sozioekonomikoa hiriko polizia-etxeko Informazio Zerbitzuaren arabera, María del Mar Larrazak jasotzen duenez. María del Mar Larrazak, "Leal, católica... y carlista: Pamplona (1936-1959)", María del Mar Larrazak (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, Ediciones Eunote, Iruñea, 2006, 17-50 orr., 41 orr.

<sup>73</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, "El malestar popular por las condiciones de vida. ¿Un problema político para el régimen franquista?", *Ayer*, 52. zkia, 2003, 255-282 orr.



probintzialeko autoritateen artean bereziki<sup>74</sup>. Hauentzat, populazioak pairatzen zuen egoera latza, gizartearen estatu berriarenganako konfiantza murrizteko faktore arriskutsua zen. Are gehiago erregimena, egoera hau zuzentzeko ezintasun eta are borondate falta argia azalduz (adibidez ez zien mugarik jartzen hornikuntzen arazoa eta salneurrien igoera larriagotzen zuten korrupzioari eta merkatu beltzari), egoera horren luzapenaren erantzule nagusi bezala agertzen zenean.

Kezka hauek, diktaduraren sostengu ziren indarren eta gizarte sektoreen artean tentsioak sortu zituzten halaberrez. Falangeren kasuan adibidez, kezka, bizi baldintzen arazoa konpondu ezean egiazko oinarri sozial herrikoi bat lortzerik izango ez zuelako sortu ziren; apostolutza mugimenduei lotutako sektore katolikoen kasuan, egoerari aurre egiteko estatuaren jarrerak justizia sozialarekin zerikusirik ez zuelako<sup>75</sup>. Hala eta guztiz ere, bizi baldintzen arazoak bai gizartean eta baita erregimenaren baitan tentsioak sortzen ahal zituen arren, agintari frankistek ez zioten egoera honi behar bezalako irimotasunez aurre egin. Hala izan zen, hein handi batean, estatu berriak, momentu honetan, populazioaren gehiengoaren beharrak asetzeaz oso bestelakoak ziren lehentasunak izan zituelako: autarkiaren arrakasta ahalbidetzea, langileen gaineko kontrola ziurtatzea eta batez ere, produkzio-bideen jabeen interesak defendatzea. Azken batean, soldata baxuez, salneurri altuez eta estraperloaz etekin gehien ateratzen zutenak, erregimenaren euskarri sozial nagusienak ziren orduan<sup>76</sup>.

Bizi baldintza latzek eta hauen aurreko estatu autoritateen jarrera honek ordea, ez zuten berekin gatazka sozial orokorturik edota oposizioko taldeenganako sostengu aktiborik ekarri. Hainbat faktorek azaltzen du halako egoera baten aurreko langileen "pasibotasuna" eta are gazta sozialaren gabezia: alde batetik, errepresio gogorrak sortutako beldur giroak<sup>77</sup> eta erakunde politikoen zein sindikalek sustatutako proiektu iraultzailearen porrotak markatu zuten gerra zibilaren memoria; eta bestetik, orduko gizartearen kezka nagusia zen biziraupenarengatik borrokaren lehentasuna. Hala ere, frankismoaren lehen hogeitau urte hauetan, langileen jokaerak ez ziren higiezinak izan eta denborak aurrera egin ahala, jasotzen ziren egoera berrietara moldatzearen, bilakatuz joan ziren. Honela, David Ruizek azaldu zuen ibilbideari jarraiki, langileen jarrerak, gerraoste zibilean biziraupen hutsekoak izatetik, gerraoste mundialean erresistentziakoak eta eskaerak egitekoak izatera eta hemendik, 50. hamarkadan aldarrikapenekoak izatera igaro ziren<sup>78</sup>.

---

<sup>74</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, *"El malestar popular..." Op. Cit.*, 256 orr.

<sup>75</sup> *Ibid.*, 280 orr.

<sup>76</sup> *Ibid.*, 279-280 orr.

<sup>77</sup> Interesgarria da errepresioari eman izan zaion populazioaren jarrerak moldatzen zituen elementu bezalako paperan erreparatzea, askotan, erregimenarekiko adostasuna lortzeko abiapuntua izaten baitzen. Zentzu honetan, errepresioak eta bortxak sorrarazten zuten beldurra eta desmobilizazioa, erregimenaren onespenerako lehengo pausutzat hartzen ahal dira. Ildo honetan dago, beste batzuen artean, Conxita Mir, "Violencia política, coacción legal y oposición interior", *Ayer*, 33. zkia, 1999, 115-146 orr. Errepresioaren erabilpen honek gainera, jarraipena izan zuen diktadura osoan zehar, 1963tik aurrera TOPa beldurra eta ikara eragiteko eta populazioaren jarrerak hertsatzeko tresna nagusia izan zelarik. Hala ere, errepresioarekin oso lotuta, Manuel Ortiz Herasek bestelako faktore interesgarri bat iradokitzen du: erregimenak populazioaren artean ordena publikoari balio handiegia ematen zioten baloreak gizarteratzeko egin zuen ahalegina. Izan ere, autore honek adierazten duenez, erregimenak, populazioaren parte handi batengan, segurtasuna eta bake soziala zaindu behar zirelako ideia, askatasuna eta berdintasuna bezalako oinarritzko printzipioen gainetik, errotzea lortu zuen. Manuel Ortiz Heras, "Control social y represión en la dictadura franquista", Abdón Mateos (ed.), *La España de los cincuenta*, Eneida, 2008, 15-43 orr., 37 orr.

<sup>78</sup> David Ruiz, "De la supervivencia a la negociación. Actitudes obreras en las primeras décadas de la dictadura (1939-1958)", David Ruiz (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 47-68 orr.

Diktaduraren lehenbiziko hogeitun urteetan zehar, bat-bateko izaera zuten protesta moduen, unean-unean planteatzen ziren boikoten edota lan errendimenduen borondatezko murrizpenen gisarako ekintza kolektiboak azaleratzen ahal ditugun arren, langileen ezinegona adierazteko biderik ohikoena, gatazka indibiduala izan zen. Carmen Benitok adibidez, ongi aski aztertu zuen langile asturiarrek, garai hartan, euren kezkek, protestak eta eskaerak bideratzeko, gatazka indibiduala nola erabili zuten<sup>79</sup>. Hari esker, langile haiek, patrioiak kalifikazio profesionalaren, soldaten, lanaldien edota diziplina zigorren alorrean legeak xedatzen zuena betetzera behartzeko, gatazka indibiduala modu defentsiboan erabili zutela ikusten ahal dugu. Zentzu honetan, “60. hamarkadaren hasieran piztuko diren meatzarien borrokaren aurrekari izango den ezinegon ezkutu bat” azaleratzen duten heinean, banakako gatazka hauek, gatazka kolektibo orokorturik ez zegoen momentu batean, lan harremanen eta produkzio harremanen aurreko langileen nolabaiteko arbuioa bazegoela adierazten dute<sup>80</sup>.

Gatazka kolektiboa, hala ere, ez zen erabatean desagertu. 1945-1947 biurtekoan, esateko, dimentsio politikoa eta erbesteko indarrekiko lotura agertu zuten grebak gertatu ziren Bizkaian eta Katalunian<sup>81</sup>. Gatazka hauen ezaugarri nabarmenena ordea, barne errealitatetik eta bizi baldintzetatik eratorritako faktoreek oso paper garrantzitsua bete izan zutela da, faktore politikoak bakarrik nekez azaldu baitezake deialdi hauek -batez ere Bizkaikoak- lortu zuten jarraipen eta hedapen maila. Ildo honi jarraiki, 50. hamarkadaren bitartean gertatuko ziren gatazkek, protesta kolektiboak erbesteko erakundeek ematen zioten dimentsio politikoa galtzen zuela eta espainiar barne errealitatetik sorrarazitako kezkek jasoaz, eguneroko bizitzaren alorretara igarotzen zela are argiago erakutsi zuten. Iruñeak aldi honetan -1951n eta 1956an- bizi izan zituen greba orokorrak, honen adibide argia izan ziren. Subsistentzia krisi tradizioaletatik hurbilago lehenbizikoa eta lanaren munduko kezkekin zuzenago lotuta bigarrena, bi gatazka hauek bizitzaren kostua, salneurriak eta soldadak ardatz nagusizat zituzten langileen protestarako joera berriak sortzen ari zirela azaleratu zuten<sup>82</sup>.

---

<sup>79</sup> Carmen Benito del Pozo, *La clase obrera...* Op. Cit.

<sup>80</sup> *Ibid.*, 407 orr.

<sup>81</sup> Greba politikoaren adierazle izan zen, adibidez, 1947an, Eusko Jaurlaritza erbestean osatzen zuten indar politikoek deituta, maiatzaren 1ean Bizkaian gertatutako greba. Ikusi José Antonio Pérez *Los años del...* Op. Cit., 230-233 orr. Greba honi buruz gehiago, José María Lorenzo Espinosa, *Rebelión en la ría: Vizcaya 1947, obreros, empresarios y falangistas*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1988

<sup>82</sup> Hala ere, ez dugu ahaztu behar 1951 eta 1956ko istiluak, adierazgarriak eta garrantzitsuak diren arren, errepresioak bere “bake soziala” gordinki ezartzen zuen garai batean, gehiago salbuespen bezala ikusi behar ditugula.

## 1.2 ERALDAKETA SOZIEKONOMIKO HANDIEN ALDIA

Frankismoaren bitartean, Espainiar estatuan inoiz bizi izandako eraldaketa ekonomiko eta sozialik azkarrena eta sakonena jazo zen. Batez ere 60. hamarkadan zehar egitura sozialean eta harreman sozioekonomikoetan eman ziren aldaketek, urte gutxitan, espainiarra hiri eta industria gizartetzat osatu zuten; agertoki eta subjektu sozial berriak azaleratuz eta bizimoduak hala nola portaera ereduak irauliz. Espainiar gizartea, orduan mundu mailan bizi zen “Iraultza sozialaren” dinamikan murgiltzen ari zen<sup>83</sup> eta hura igartzen zuten fenomeno globalen eskutik, Mendebaldeko Europako gizarteekin parekatuz zihoan.

Prozesu honek ondorio garrantzitsuak izan zituen erregimenaren beraren bilakaeran, mendebaldeko europar gizarteengana hurbiltzen zen heinean, espainiar gizartea, erregimenarengandik aldentzen zelako. Zentzu honetan, aldaketa sozial eta ekonomikoetatik eratorritako gizarte berri haren eta frankismoaren egituren arteko bateraezintasunaz hitz egin ohi da, frankismoak berak sustatutako modernizazioak, erregimena sendotu beharrean, higitu egin zuela azpimarratuz. Izan ere, diktaduraren egitura politiko estatikoen eta errealtate sozioekonomiko berri eta dinamikoen arteko desorekak, barne tentsioak sorrarazi behar zituen nahi ta nahiez. Honela, Subjektu sozial berriek, euren jomugak asetzearren, esparru politiko, sozial eta ekonomikoak eskatzen hasi zirenean eta diktadurak errealtate berriei egokitzeko ezintasuna agertu zuenean, haustura itzulerarik gabekoa izan zen.

### 1.2.1 Eraldaketa ekonomikoa: Ekonomia industrialaren egonkortzea

Aurreko atalaren amaieran ikusi dugun 50. hamarkadaren hasierako egoera ekonomiko eta sozial zailak, premiazkoa egin zuen berehalako hazkunde ekonomikoa erdiestea. Honen oinarrien ipintze lanek ordea, hamarkada osoa hartu zuten, garapen ekonomikoa 60. hamarkadara arte orokortuko ez zelarik. Baina ordutik aurrera, espainiar ekonomia oso azkar eta asko hazi egin zen. Halako hazkunde ekonomikoa azaltzen duten faktoreen artean, aldaketa, elementu komun bezala nabarmentzen da. Alde batetik, mendebaldeko ekonomia garatuek bizi zuten hazkunde ekonomiko globalaren uholdea hartzearen espainiar ekonomia nazioartera zabaltzea ezinbestekoa zen heinean, erregimenaren politika ekonomikoaren norabidearen behinbetiko aldaketa gauzatzea beharrezkoa zen. Ez zen erraza izango, horrek, estatu berriaren printzipio bezala aldarrikatu zen autarkia alboratzea eskatzen baitzuen. Bestetik, zaharkitutako egitura ekonomikoa bera ere **aldatu** beharra zegoen, hau da, nekazal oinarriko egitura tradizionala, industrian eta zerbitzuen hedapenean oinarritutako egitura ekonomiko moderno batekin ordezkatu eta espainiarra azkenik, ekonomia industrial eta kapitalizatua bihurtu.

#### *Politika ekonomikoaren norabide aldaketa*

Estatu frankistaren ezartze prozesuan autarkia ez zen bakarrik herrialdearen ekonomia antolatzeko eta kudeatzeko modelo bat izan. Autarkia berez, frankismoaren proiektua elikatzen zuten oinarrietariko bat izan zen eta honengatik, nolabaiteko adiera ideologikoa azaltzen zuen. Hori dela eta, autarkiaren emaitza ekonomikoak onak izan ez ziren arren, bereziki zaila izan zen politika ekonomikoaren norabide aldaketa sustatzea; gaia 50. hamarkadaren hasierara arte, hots, krisi ekonomikoak erregimenaren biziraupen politikoa bera arriskuan jarri zuen arte, mahaigaineratu izan ez zelarik.

---

<sup>83</sup> “Iraultza soziala” deitu zion Eric Hobsbawmek bigarren mundu gerraren ostean abiatu zen gizartearen eraldaketa garaiari. Eric Hobsbawm, *Historia del siglo XX*, Crítica, Bartzelona 2011. Hobsbawmek eraldaketa prozesu hau iraultza sozial globaltzat ulertzen du.

Ekonomiaren kudeaketari dagokionean, autarkia egiatzko porrota izan zen. Hasteko, mende hasieran abiatutako modernizazio ekonomiko, sozial eta profesionalarekiko mozketaren eraginez, berekin espainiar ekonomiaren nolabaiteko atzerapena ekarri zuen. Honekin batera, estatu interbentzionismo gogor baten bitartez, espainiar kapitalismoaren egitura zurruna eta joera protekzionista indartu zituen, espainiarra nazioarteko ekonomiaren zirkuitutik at utzi zuen eta guzti honen ondorioz, jarduera ekonomikoaren geldialdi kronikoa eragin zuen. Eta azkenik, krisi ekonomiko larria sortu zuen: nekazaritza gainbeheran zegoen, industria jardueraren ahulezia agerikoa zen eta merkatu beltza, merkatu ofizialaren gainera hazi egiten zen<sup>84</sup>; errentak ez zuen gerra aurreko maila berreskuratzen, nekazaritza eta industria produkzioaren gelditasuna erabatekoa zen, oinarritzeko hornikuntzen eskasia larria zen eta bizitzaren mailaren atzerapena etengabekoa zen.

Guzti honengatik, autarkiarenak, oso urte latzak izan ziren, bai ekonomiarentzat eta baita ere populazioarentzat, bereziki landa munduko eta hiriko sektore herrikoientzat. 50. hamarkadaren hasieran oraindik, adierazle ekonomikoek negatiboak izaten jarraitzen zuten eta miseria eta gosea nabariak ziren. Ekonomiari dagokionean, inbertsio eta produkzioaren ahuleziak, inflazioaren jarraipen gorakorrak eta estatuaren aurrekontu hala nola ordainketa balantzaren defizitak jarduera ekonomiko guztia itozteko arriskuan jartzen zuten bitartean, politika ekonomiko autarkikoak ez zuen ekonomiaren joera ezkor hau zuzentzeko baliabiderik aurreikusten. Populazioaren ongizateari dagokionean, Espainia, Europako herrietan pobreenetariko eta azpigaratuenetariko bat zen, haren ongizate eta kontsumo publikoaren maila, Hego Amerikako herri hainbatena azpitik ere zegoelarik<sup>85</sup>. Krisi sozioekonomiko honek sortzen zuen ezinegonaren adierazle bezala, 1951ko grebek, politika ekonomikoaren aldaketa ezinbestekoa zela ikusarazi zuten.

1951n bertan izendatutako gobernu berriak, politika ekonomikoaren norabidea aldatzeko ardura beregain hartu zuen. Orduetik aurrera eta hamarkada osoan zehar politika ekonomikoari egin zitzaizkion aldaketek, frankismoaren pean ekonomiak bizi izan zuen bilakaeraren bi muturrak uztartzen dituzte: 40. hamarkadako krisi ekonomikoa eta 60. hamarkadako hazkunde ikusgarria. 50. hamarkadako lehen aldaketa hauek, bien erdian kokatzen dira, derrigorrezko inflexio puntu bat izango balira bezala. Espainiar ekonomia autarkia alboratzeko bidean jarri zuten 1951ko lehenbiziko neurrietatik hasita eta 1959ko Egonkortze Planak abiatutako liberalizazio erabakigarria iritsi arte, mailaz-maila, eraldaketa eta hazkundera ahalbidetuko zuten baldintzak urte hauetan ipiniak izango dira. Orduan hasiko ziren eredu autarkikoa ordezkatzeko eta estatu interbentzionismoaren kontrolak lasaitzeko saiakerak; orduan hartu ziren, nazioarteko ekonomiarekiko elkartrukeak sustatzearren, ekonomia liberalizatzeko lehen neurriak; eta orduan aldatu zen eredu ekonomikoari buruzko erretorika, industrian oinarritutako hazkunde ekonomiko azkarraren modeloa onetsiz.

Politika ekonomiko frankistaren norabide aldaketa hau ordea, ez zen tentsiorik edo gorabeherarik gabeko prozesua izan. Ekonomiaren liberalizazioak, ezinbestean, tirabirak sortu behar zituen erregimenaren baitan, autarkia proiektu bezala alboratzeak,

---

<sup>84</sup> Ikusi datu adierazgarri batzuk Enrique Moradiellosen sintesi lanean, *La España de Franco (1939-1975)*, Síntesis, Madril, 2000, 82 orr.

<sup>85</sup> *Ibid.*, 114 orr. Politika ekonomiko autarkikoak izan zituen ondorioez gehiago, José Luis García Delgado, "Estancamiento industrial e intervencionismo económico durante el primer franquismo", Josep Fontana (ed.), *España bajo el franquismo*, Editorial Crítica, Barcelona, 1986, 170-191 orr. eta Carlos Barciela López (koord.), *La autarquía y el mercado negro: el fracaso económico del primer franquismo 1939-1959*, Crítica, Barcelona, 2003 eta Carlos Barciela, "Autarquía y mercado negro", Ángel Viñas Martín (ed.), *En el combate por la historia. La República, la guerra civil y el franquismo*, Pasado y presente, Barcelona, 645-658 orr.

politika ekonomikoan aldaketak egitea baino zeozer gehiago suposatzen baitzuen: gerra zibilarren ostean ezarritako estatu modelo frankista berari ere aldaketak egitea<sup>86</sup>. Erregimenaren indarren baitan, hartara, politika ekonomikoaren inguruan, autarkiaren aldekoen eta liberalizazio ekonomikoaren aldekoen arteko eztabaida sutua piztu zen. Norgehiagoka honetan, politika ekonomikoaren aldaketa defendatzen zutenek, argudio erabakigarria bat izan zuten euren alde, Europako ekonomia kapitalisten hazkunde orokortua. Nazioarteko testuinguruak gainera argudio hura indartzen zuten, gerra hotzaren markoan AEBengana gerturatzeak eta gutxika nazioartean onartua izateak, hazkundera bultzatzeko laguntza ekonomiko garrantzitsua ekartzen ahal zuten hitzarmenak sinatzeko aukera ematen baitzuten<sup>87</sup>. Eta aukera ezin zen pasatzen utzi. Mundu gerraren ostean European abiatutako berreraikuntza programei eta liberalizazio ekonomikoari esker, bertako herrialdeek, inoiz ezagutu izandako zabalkunde ekonomikoa bizi zuten: hazkunde ekonomikoa jarraitua zen eta hari esker, gerra arteko aldiak kapitalismoak bizi izan zituen arazoa larrienak erabatean desagertzeko bidean zeuden<sup>88</sup>. Espainiar ekonomiaren hazkundera, nazioarteko goranzko joera honi probetxu ateraz bultzatzen ahal zen, baina horretarako, liberalizazio ekonomikoari ekitea nahitaezkoa zen.

Espainiar ekonomiaren liberalizazioa ordea, ez zen erraza izan eta hura martxan jartzeko lehenbiziko erabaki garrantzitsuak 1951n hartu baziren ere, hamarkadaren amaieran gobernu berri batek beharrezkoak ziren behin betiko neurriak hartu zituen arte, ez zen egiazki gauzatzen hasiko. Prozesua graduala eta geldoa izan zen. 1951n hartu ziren lehenbiziko neurriak adibidez, oraindik partzialak eta urriak izan ziren, ondorioz mekanismo interbentzionista askok funtzionatzen jarraitu zuelarik. Hala ere, politika ekonomikoaren nolabaiteko lehenbiziko norabide aldaketa honek emaitza positiboak lortu zituen eta hazkunde nabarmena jazo zen, bai jarduera eta produkzio ekonomikoari dagokionean (nekazaritzan, baina batez ere industrian) eta baita populazioaren ongizate mailari dagokionean ere (per capita errenta handitu egin zen). 1957rako ordea, joera gorakor honek agorpen zantzuak agertu zituen. Azken finean, hazkunde jarraitu bat sostengatzeko, eredu autarkikoaren arrasto interbentzionistak oztopo ziren eta horretaz gain, ekonomiaren itotze berri bat eragiten ahal zuten. Hala gertatu zen eta 1957an, egoera ekonomikoa berriz ere larriagotu egin zen: inflazioak, balantza komertzialaren defizitak, dibisen eskasiak eta erreserben agorpenak, krisi berri bat adierazi eta hazkunde ekonomikoaren dinamika ezerezean geratzen ahal zelako arriskua erreala zela iragarri zuten. Politika ekonomikoaren norabidea

---

<sup>86</sup> Hala izan zen eta aipatu 1951ko gobernu aldaketak, proiektu falangistaren porrota erakutsi zuten, Francok, erreparu askorekin, proiektu teknokratikoaren eta desarrollistaren alde egin behar izan zuelarik.

<sup>87</sup> 50. hamarkadan zehar erregimenak onespina lortu zuen nazioartean. 1951n AEBekiko harremanak berrezarri ziren (gerra hotzaren kontestuak lagunduta hein handi batean) eta 1953an Vatikanorekin konkordatu sinatu zen. Urte horretan bertan, hitzarmen garrantzitsuak sinatu ziren AEBekin, zeintzuen arabera hauek espainiar lurraldean base militar garrantzitsuak ezarriko zituzten eta Espainiak laguntza ekonomikoa (maileguak ematea barne) jasoko zuen. Hala ere, Espainiak AEBengandik jasoko zuen laguntza hau ez zen inoiz Marshall planaren herrialdeek jaso zutenaren hainakoa izan.

<sup>88</sup> “Langabezia ugaria? Hari buruz hitz egiten ahal da mendebaldeko herrietan, 60. hamarkadan, Europak % 1,5eko eta Japoniak %1,3ko batz besteko langabezia mailak agertzen zituztenean? (...) Pobrezia? Noski, gizadiaren gehiengoak pobrea izaten jarraitzen zuten, baina langile erdigune industrial zaharretan, zer zentzu zuten orain Internazionalaren *zutik lurrean kondenatu [zaren langile tristea]* hitzek euren kotxe propioa zuten eta oporrak Espainiako hondartzetan igarotzen zituzten langileen artean? Gauzak okertzen bazitzaizkien, ez al zien geroz eskuzabalagoa zen ongizate estatuak gaixotasun, zorigailtz edota zahartzaroaren aurrean lehen pentsaezina zen babesa emango? Langileen diru sarrerak urtero kasik automatikoki hazi egiten ziren (...) [eta] produkzio sistemak eskaintzen zuten ondasun eta zerbitzu sorta eskuragarria zitzaizen heinean, lehen luxuzkoak ziren produktuak orain eguneroko kontsumokoak bilakatzen ziren (...)” Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit. 270 orr.

zuzentzea ezinbestekoa zen beste behin ere eta orain bai, inolako mugarik gabe, ekonomiaren erabateko liberalizazioari ekin behar zitazion.

1957an agerikoa zen krisi egoera horren aurrean, Francok, gobernu berri bat izendatu zuen. Gobernu hartan “teknokrata” deitutako ministroek presentzia handia izan zuten, 1951tik Gobernu Lehendakariaren Idazkariorde ministroa zen Luis Carrero Blanco almirantearekin batera, Alberto Ullastres (Komertzio Ministroa), Mariano Navarro (Hazienda Ministroa) edota Laureano López Rodó (Presidentziaren Idazkari Teknikoa), Opus Deiaren ingurukoak guztiak, erregimenaren figura indartsu izatera igaro zirelarik. Hauekin, aldi berri bat hasi zen frankismoaren bilakaeran, Espainia moderno eta garatuarena. Teknokratak, hazkunde azkar eta jarraitu bat sustatu ahal izateko aurrena egoera egonkortzea zela, hau da, autarkiaren aztarna oro garbitu behar zela, erabateko liberalizazio ekonomikoa burutu behar zela eta egitura ekonomiko zurrun eta zaharkituak modernizatu behar zirela argi izan zuten. Horretarako, 1959an Egonkortze Plana abian jarri zuten. Honek emaitza ekonomiko positiboak izan zituen eta porrot finantzarioa saihestea, dibisen erreserba berreskuratzea eta inbertsioaren bolumena igotzea lortu zen. Orduan, aurrekaririk gabeko garapen, hazkunde eta eraldaketa aldia hasi zen espainiar ekonomiarentzat.

### *Hazkundera eta eraldaketa*

60. hamarkadaren bitartean espainiar estatuan biziko zen aro ekonomikoak bi elementu hauek izan zituen ardatz. Lehenbizikoa, hazkundera, benetan ikusgarria izan zen, bai jarduera ekonomikoaren bolumenari dagokionean eta baita populazioaren errenta mailari dagokionean ere. Bigarrenak, eraldaketak, egitura ekonomikoan eraginez, espainiar ekonomiaren modernizazioa eta kapitalizazioa ekarri zituen berekin.

Hazkunderari dagokionean, hura azalduko luketen faktoreen artean, lehen aipatutako nazioarteko ekonomien hazkunde orokortuaren dinamika hartzeko aukera izan zen funtsezkoenatariko bat. Zentzu honetan, Espainiar hazkunde ekonomikoaren gakoa, hein handi batean barne potentziala kanpo pizgarrien bitartez bizkortzean egon zela esan daiteke. Pizgarri hauek, emigrazioa, turismoa eta kanpo inbertsioa izan ziren bereziki. Suitza eta Alemania bezalako herrialde europarretarako emigrazioarekin, espainiar lan merkatuaren gaineko presioa erlaxatzeaz beste, dibisa kopuru garrantzitsua sartu zen espainiar estatua emigranteek bidalita. Mendebaldeko turista europarren aurrezkiei esker, diru sarrera iturri oso emankorra lortu zen. Europar hazkunde ekonomikoak ahalbidetutako kapital metaketak gainera, merkatu espainiarrean inbertsioak egiteko aktibo berriak sortu zituen eta hauek berekin, atzerriko kapitalaz beste, industriarako teknologia eta lanaren antolaketarako modu berriak ekarri zituzten. Hiru elementu hauek, espainiar ekonomiak agertzen zuen hutsune kezkarriena betetzen lagundu zuten: likideziaren falta.

Haren jarduera oztopatzen zuten trabak (kapital urritasuna, likideziaren falta, teknologia eta ekipamendu zaharkitua) gaindituta, industria, hazkunde ekonomikoaren fundamentu nagusia izan zen. Sektore industriala lehenesten zuen garapen eredu bat ezarri zen, egitura ekonomikoaren pisua honen gain utzi eta hazkunderako ahalegin handienak harengana bideratu zirelarik. Sektorearen barne modernizazio eta eraldaketa sakon bat sustatu zen ere: alor industrial berriak garatu ziren eta jarduera industriala bera berri egin zen, bai industriak lehengai eta makineria edo teknologia berriekin hornituz eta baita produkzioarako modu modernoak saiatuz ere.

Bereziki bi faktorek azaltzen dute 60. hamarkadako espainiar industriaren garapen azkarra, arlo industrial berrien hazkundera eta espainiar industrien produktibitatearen handitzea. Lehenengoari dagokionez, adar jakin batzuek hazkunde

prozesuan izan zuten protagonismo nabarmenak, alor berri eta dinamikoagoen mesedetan, industria egituraren eraldaketa argia gertatu zela agerian uzten du. Inbertsioen bolumenaren gehiengoa, berehalako errentagarritasuneko proiektu industrialetara zuzendu zen, alor industrial ezberdinen pisu ekonomikoaren birbanaketa eraginez: ehungintza edota elikagaiena bezalako industria alor tradizionalak adibidez, indarra galdu zuten industria astunaren aurrean. 60. hamarkadaren bitartean beraz, garraio materialetan, siderurgian, produktu metalikoetan, industria kimikoan eta meatzaritzan oinarritutako industria eredia nagusitu zen erabatean. Hala ere, eraikuntzaren adarrarena bezalako kasu bereziak egon ziren, honek ere hazkunde ikaragarria ezagutu baitzuen garai honetan. Ez da harritzekoa, turismoaren *boomak* eta hiritartze prozesuak 60. hamarkadaren bitartean goiena jo zutela kontutan hartzen badugu.

Industriaren hazkunde ikusgarria azaltzen duen aipatu bigarren faktoreari dagokionez, espainiar industrien produktibitatearen handitzea, egiazki aparta izan zen. Orduan espainiar fabriketan, hainbat berezitasunekin, orokortzen hasi zen produkzio modu fordista<sup>89</sup>, handitze hau azaltzen duen elementu nagusia da, zalantzarik gabe. Langile kopuru handi bat fabriketan kontzentratzearekin eta laneku guzti hori lanaren antolaketarako metodo zientifiko berrien pean lanean jartzearekin (makina, katea, denborak, kronometrajeak), prozesu produktiboa razionalizatzea lortu zen. Izan ere, Espainian ordaintzen ziren soldata baxuei<sup>90</sup> razionalizazio prozesu hau gehitzaerakoan, aldi berean produkzio kostuak murriztea eta produkzio tasak areagotzea lortu zen, jardura industrialaren produktibitatea eta mozkin-marjina nabarmenki areagotuz.

Azaldu dugun “Espainiar mirariak” ordea, bestelako aurpegi bat izan zuen<sup>91</sup> eta garapen eta hazkunde ekonomikoaz beste, desoreka handiak ekarri zituen berekin. Enpresariak, garai honetan aberastasuna eta boterea euren eskuetan kontzentratzea lortu zuten, prozesu honen onuradun nagusiak izan ziren. Langilegoak ez zuen horrenbesteko onurarik jaso eta urte hauetan bere ongizate maila orokorrean hobetu zen arren, “mirariaren” alderik txarrena bizitzea tokatu zitzaion: lantokietako segurtasun eta higiene falta kezkarria zen, produktibitatearen helburuek euren lanarengain etengabeko presioa eragiten zuten, kaleratzeen aurrean babes falta sumatzen zuten, oinarritzko beharrak asetzeko oraindik ahalegin eta sakrifizio handiak egin behar zituzten, zerbitzu sozialen gabezia pairatzen zuten eta hiri esparruetan bizi zuten pilaketa larria zen. Fenomeno guzti hauek garapen prozesuarekin batera etorritako langile esperientziak izan ziren eta aurrerago, 60. hamarkadatik aurrera piztu ziren gatazka sozialekin lotura izan zutela ikusiko dugu

### 1.2.2 Eraldaketa soziala: Gizarte berri bat

60. hamarkada, “Iraultza sozialaren” hamarkada izan zen mundu osoan. Urte haietan, gizarteak, egitura sozialaren maila guztietan eragina izan zuen eraldaketa sakona, bizia, azkarra eta unibertsala bizi zuen, “gizadiak ordura arte bere historian bizi izandako eraldaketarik sakonena, biziena, azkarrena eta unibertsalena”, Eric

<sup>89</sup> Fordismo espainiarraren berezitasunak: José Babiano, “Las peculiaridades del fordismo español”, *Cuadernos de relaciones laborales*, 3. zkia, 1993, 77-94 orr.

<sup>90</sup> Ez dugu ahaztu behar aurreko atalean deskribatu dugun markoak, langile klasea, bere interesak defendatzeko eskubiderik, esparrurik eta aukerarik gabe utzi zuela. Hala ere, aurrerago ikusiko dugun bezala, lan harremanen markoan izandako aldaketek (Hitzarmen Kolektiboen Legeak esateko) eta langile antolakuntzak, soldatak apurka igotzea ahalbidetuko zuten.

<sup>91</sup> Xavier Domènech, “La otra cara del milagro español. Clase obrera y movimiento obrero en los años del desarrollismo”, *Historia Contemporánea*, 26. zkia, 2003, 91-112 orr. “Mirari ekonomikoaren beste aurpegiarena” oso esapide egokia suertatzen da hazkunde ekonomikoak berekin bestelako errealitate “ilunagoak” ekarri zituela adierazteko.

Hobsbawmen hitzetan<sup>92</sup>. Aldi hartan espainiar estatuan ikusgai diren aldaketa sozial eta kulturalak, prozesu global honen adierazle bezala ulertu behar ditugu eta, bertako fenomenoek agertzen dituzten xehetasun eta berezitasunak kontutan hartuta, dinamika orokorragoetan kokatuta azaldu behar dira.

Mundu mailan gertatu zen bezala, 60 hamarkadaren bitartean, espainiar gizartearen ezaugarriak sakonki aldatu ziren. Gizartearen eraldaketa hau azaltzeko aztertu ohi diren fenomenoaren artean, biztanleriaren hazkundera, populazio aktiboaren egituraren eraldaketa, emigrazio-immigratio mugimenduak eta hauek berekin ekarri zuten gizartearen hiritartze prozesua, nekazaritza tradizionalaren desagertzea edota klase egitura sozial berri baten sorrera dira, besteak beste, nabarmenduenak. Dinamika guzti hauekin batera, gizarte berri bat osatzen ari zela, aktore sozial berrien agerpenak iragarri zuten, langile klasea, ertain klase berriak, gazteria eta emakumeak, 60 eta 70. hamarkadetako espainiar bilakaera sozialaren protagonista nagusitzat hartzen ahal ditugularik.

Industrializazio prozesu bizi eta azkarrak abian jarritako aldaketa estrukturalen artean, begien bistakoa izan zen, lehenbiziko momentuetatik, populazio aktiboaren egiturak jasan behar zuten eraldaketa. Urte gutxitan, nekazal populazioa gogorki murriztu zen, langile industrialean kopurua etengabe handitzen zen bitartean eta zerbitzuen sektorean jarduten zutenen zenbatekoa hedatzen hasten zen bitartean. Prozesu honek iragartzen zuten “Nekazalgoaren heriotzarekin”, Espainiar estatua bezalako industrializazio berantiar eta bizkorreko herrialdeetan Marxen aspaldiko iragarpena betetzen ari zela zirudien, langileria industrialak, nekazalgoa desagerrarazten ari baitzuen<sup>93</sup>. Garai hartan bertan ohikoak izan ziren besorik gabeko landa munduaren irudien eta langileez betetako fabriken irudien arteko aldeak behintzat, halaxe gertatzen ari zela adierazten zuten.

Populazio aktiboaren egituraren eraldaketa hau, 50. hamarkadan hasi, 60. hamarkadan bizkortu eta 70. hamarkadaren hasierara arte iristen diren populazioaren lekualdaketa garrantzitsuekin batera eman zen. Urte guzti haietan euren sorlekua utzi zuten emigranteek, nekazaritzarekin lotutako lanbideak utzi zituzten ere, harrera guneetan industria eta zerbitzuen sektoreetako lanesku merke bihurtu zirelarik. Zentzu honetan, landatik hirirako jauzia, nekazaritzaetik industriarako jauzia izan zen aldi berean. *Nekazal exodo* honek, Espainiar estatuko hainbat eskualde hustu eta bi milioi pertsona inguru euren jaioterrietatik immigrazio gune tradizionaletara eta industrializazioaren bidean zeuden nukleo berrietara (Iruñea, esaterako) bidali zituen. Honekin, biztanleriaren eskualdekako banaketa berri bat itxuratzeaz beste, migratio mugimenduek, espainiar populazioaren egitura erabatean aldatu zuten. Nekazal populazio gune txiki eta barreiatuak desagertu ziren eta populazioa, geroz eta gehiago, hirigune handietan kontzentratu zen. Bi datu hauek oso ongi azaltzen dute prozesu hau: bitarte honetan, 100.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan bizi zen populazioaren portzentajea nabarmenki hazten zen bitartean, 2.000tik behetikoa bizi zenarena argiro murriztu zen; are gehiago, 1970ean, espainiar populazioaren bi heren baino gehiago, 10.000 biztanletik gorako udalerrietan bizi zen<sup>94</sup>.

Populazioaren lekualdaketa masibo honek beraz, hiria, populazio erdigune nagusienean bilakatu zuten urte hauetan. Hiritartze prozesu hau gainera, oso bizkorra

---

<sup>92</sup> Eric Hobsbawm, *Historia del siglo ...* Op Cit., 291 orr.

<sup>93</sup> *Ibid.*, 292-293 orr.

<sup>94</sup> Datuak, Carme Molinero eta Pere Ysás, “Cambio socioeconómico y conflictividad social en la España del Desarrollo”, José Manuel Trujillano Sánchez eta Pilar Díaz Sánchez (koord.), *Testimonios orales y escritos. España 1936-1996*, Fundación Cultural Santa Teresa, Ávila, 1996, 27-48 orr., 30 orr.



izan zen, hiriguneak etorkinen heldueraren erritmora zabaldu baitziren. Biztanlegoaren hazkundeari eusteko, hiri periferiako lur-eremuak okupatzen hasi ziren eta berauetan, populazio langileaz eta emigranteaz osatutako auzo, aldiri eta hiri-sateliteak sortu ziren. Hiritartze prozesuak honela, talde sozial homogeenak biltzen zituzten populazio nukleo berriak eratu zituen, hiri esparruaren funtzio sozialak birdefinituz eta hirien zabalkuntza klase irizpideen arabera bideratuz.

Industrializazio eta hiritartze prozesuen beste aurpegian, landa mundu tradizionalaren desagertzea zegoen. Populazio aktiboaren egituraren eraldaketak agerian uzten zuen bezala, nekazaritza tradizionalaren produkzio moduarekiko haustura, ezin geldituzkoa zen. Izan ere, nekazaritzaren sektoreak bizi zuen lanekuaren etengabeko galerak, espainiar nekazaritza behin betikoz eraldatu zuten prozesuak jarri zituen martxan. Esaterako, nekazaritzarako laneku ugari ziurtatzen zuen landa munduko gainpopulazioa emigrazioaren bitartez arintzeak eta honek berekin ekartzen zuen nekazaritza-ustiategi txiki edo nekazari jabe zein errentari txikien desagertzea, espainiar nekazaritzaren behin betiko modernizazioa ahalbidetu zuten; beso eskasiaren aurrean, sektorearen errentagarritasuna bermatzeko, haren kapitalizazioa eta mekanizazioa beharrezkoa izan baitziren. Lurraren jabetzari lotutako gizarte antolaketa ereduaren erabateko haustura gertatu zen garai hartan ere. Oligarkia lur-jabeak ezinbestean galdu zuen ordura arte elite gobernariaren baitan izandako hegemonia, haren ordean, boterearen esferetan, kapital finantzarioa eta burgesia industrial zein komertziala nagusitu zirelarik<sup>95</sup>.

Prozesu guzti hauekin batera, espainiar gizartearen egiturak aldaketa garrantzitsuak bizi zituen. Hauetan nabarmenenak, talde sozialek berek jasan zituzten barne eraldaketa estrukturalak izan ziren. Langile klasearen kasua bereziki adierazgarria da guretzat, urte hauetan zehar, ezaugarri berriei jantzita agertuko baitzaigu. Berrikuntza hauen artean, nabarmentzekoa da, adibidez, langile klase hura osatu zuten elementuek bizi behar izan zuten bapateko lanbide aldaketa. Belaunaldi bakar batean, elementuok, euren gurasoek edota haiek berek aurretik izandako lanbideetatik oso desberdinak ziren jardueretan enplegatu ziren, industria langile bihurtuz. Honekin langile klasea, egitura, fabrika proletalgori bezala osatzen zen azkenean<sup>96</sup>. Lanbidearen bapateko aldaketa honek ordea, ez zuen, orokorrean, kualifikaziorik gabeko langile klase bat sortu. Izan ere, industria alor berrien garapenak eta zerbitzuen sektorearen hedapenak giza kapitalaren prestakuntza tekniko eta profesional handiago bat eskatzen zuten heinean, langileen lanbide-prestakuntzarako ahalegin garrantzitsuak egin ziren. Honela, aipatu fabrika proletalgoriaren parte bat, gutxieneko prestakuntza profesionala zuten langileek osatu zuten; kualifikazioa, langile klasearen baitan dibertsifikatze estruktural berri bat eragiten zuen elementu bilakatu zelarik. Are gehiago, prestakuntzak eta formakuntzak langileei edota euren seme-alabei mugikortasun sozialerako aukera berriak eman zizkieten eta hauek orain, kualifikazioari esker, eskuragarri zituzten administrazio eta komertzio langile bezalako edota enpresa teknikari edo kudeatzaile kualifikatu bezalako lanpostuak, ertain klaseetarako ohiko sarbide bihurtu ziren.

Gizarte taldeek bizi zituzten halako barne eraldaketa estrukturalen ondorioz, subjektu sozial berrien agerpena eta hauen pisu eta paper sozialaren itxuratze berri

---

<sup>95</sup> José A. Moral Santín, "El cambio de rumbo del capitalismo español: de la autarquía a la liberalización. Del agrarismo a la industrialización", Roberto Carballo, Antonio G. Temprano eta José A. Moral Santín, *Crecimiento económico y crisis estructural en España (1959-1980)*, Akal, Madril, 1980, 67-88 orr., 82 orr.

<sup>96</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, "Cambio socioeconómico y..." Op. Cit., 32 orr. Autoreek oso datu adierazgarriak ematen dituzte orrialde horretan bertan jasotzen den 2. Taulan "Evolución de la población activa según la categoría profesional (%)"

bat gertatu zen gizarte egituraren baitan. Langile klasea, ertain klaseak, gazteria eta emakumea, lehen mailako aktore sozial bihurtu ziren egitura sozialaren eta dinamika sozialaren protagonista bihurtu zirelarik. Espainiar estatuan adibidez, 60. hamarkadaren bitartean, haietariko bakoitzak pisu soziala irabazi zuen eta izatetasun sozial propio bat garatu zuen eta honek, frankismoaren amaieran eta trantsizioaren bitartean, espainiar bizitza publikoan protagonismo handia izatera eraman zituen; izan ere, erresistentziaren, oposizioaren eta aldaketa nahiaren elementu nabarmenduenak izan ziren.

Gizarte post-industrialaren etorrerak eta klase erakunde politiko klasikoen krisiak langileria industrial zaharra hiltzorian uzten ahal zutela pentsa zitekeen arren, ez zen hala izan. Ikuspuntu demografiko batetik behintzat, langile klasea, desagertu baino, mundu mailan handiago egin zela esan daiteke, zifra absolutuek, “urrezko aroan” aurreko edozein alditan baino askoz ere langile gehiago zegoela erakusten baitute: industrializazio tradizionalak herrietan, langilegoa populazio aktiboaren heren batean mantentzen zen; industrializazio berriko europar herri ez komunistetan, langileen hazkunde nabaria bizitzen ari zen; eta industrializazio azkarreko herrialde komunistetan eta euren industrializazio prozesua orduan abiatzen zuten hirugarren munduko herrietan, proletarioaren zenbatekoa bizkor biderkatzen ari zen<sup>97</sup>. Espainiar estatuan, populazio aktiboaren egituraren eraldaketak agerian uzten duen bezala, industria langileen kopurua izugarri handitu zen, espainiar langile klasea, urte hauetan, inoiz baino ugariagoa eginez.

Frankismoaren garaiko historiografian, langile klase berri baten jaiotza, behinik-behin demografikoa, garapen ekonomikoari eta eraldaketa sozialari, lotuta agertzen da maiz<sup>98</sup>. Ildo berean, klasearen osaketa horrek berekin, langileria 60 eta 70. hamarkadetakoa dinamika sozial eta politikoen protagonista egingo zuten praxi sindikalaren, lan gatazkaren eta berezko langile identitate baten garapena ekarri zuela nabarmendu ohi da. Prozesu paradoxikoa izan zen, nazioarteko kontestuan langile kontzientziaren eta haren adierazleen krisi sakon bat bizi baitzen momentu horretan. Langile klaseak orokorrean bizitzen ari zuen eraldaketa estrukturala izan zen, neurri handi batean, nazioarteko bilakaera horren erantzule nagusia. Esate baterako, langileek barneratzen ari zuten garapen ekonomikoan, ongizate materialean eta kontsumoan oinarritutako mentalitate berriak, kolektibitatean oinarritutako langile mentalitate zaharra indargabetu zuen, honekin langile identitateen eta kulturen bereizgarri ziren biziera eta harreman molde zein jokaera kolektiboak, desagertzeko bidean jarri zirelarik.<sup>99</sup> Espainiar langile klase berriaren kasua beraz, langileriak bizi zuen prozesu globalaren markoaren baitan, berezia izango da nolabait, Xavier Domènech historialariak aipatzen duen bezala, “langile klase berri[aren] sorrera kasik masa kontsumo gizartearen osaketarekin batera” ematen delako eta “klase kultura

---

<sup>97</sup> Nahiz eta industria tradizionalaren langilegoaren gainbehera demografikoa hasita, orain berauetan enplegatutako langileen kopurua murrizten ari zen. Britainia Handiko ikatzaren meatzarien kasua izan zen, unibertsitateko lizentziatuak baina urriagoak baitziren edota AEBtako industria siderurgikoetako langileena, McDonald's hanburgesategietako langileak baino gutxiago izateko bidean jarri baitziren. Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit., ikusi 304-305 orr. Hala ere, Hobsbawmek berak ohartarazten duenez, desagertu baino, eremu geografikoz aldatu ziren, izan ere, industria tradizionalak herri industrial zaharretatik desagertzen ziren, baina orduan industrializatzeren prozesua haste zuten herrialdeetara joateko.

<sup>98</sup> Baieztapen hau, inongo zalantzarik gabe, Xavier Domènechek egiten du, “La otra cara...” Op. Cit., 91 orr. Ildo honetan azaldu izan dira orain arte aipatu ditugun autore ezberdinak, Carme Molinero eta Pere Ysás, “Cambio socioeconómico y...” Op. Cit. eta “Historia social de la época franquista”, *Historia social*, 30. zkia, 1998, 133-154 orr. edota Glicerio Sanchez Recio, “Inmovilismo político y cambio social en los años sesenta”, *Historia Contemporánea*, 26. zkia, 2003, 13-33 orr.

<sup>99</sup> Ikusi Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...*, Op. Cit., 307-309 orr.

berri baten sarearen artikulazioa, kultura estandarizatu baten agerpenarekin norgehiagoka” aritzen delako; hau da, “sortzen ari dena, aldi berean, deuseztatze bidean dagoelako”<sup>100</sup>.

Ertain klasekoak bezala definitzen diren soldatapekoek, pisu handia hartu zuten espainiar egitura sozialean 60. hamarkadaren bitartean<sup>101</sup>. Kopuruan hazteaz beste, ertain klase hauek osieran dibertsifikatu ziren ere eta urte hauetan, hauek osatzen zituzten elementuak, nabarmenki aldatu ziren: enpresa zuzendariak eta koadro kualifikatuak, teknikariak edota merkatariak eta saltzaileak geroz eta gehiago handitzen ziren bitartean, industria patroiz txikiak, soldatapekorik gabeko enpresariak eta lanbide liberaletan aritzen ziren profesionalak, drastikoki murrizten ziren. Ertain klaseen baitan eman zen aldaketa nabarmenena beraz, industria berriarekin eta enpresa handiarekin hala nola zerbitzuen sektorearekin lotutako taldeek, azkenik, betiko forma kapitalistekin lotutako lanbide taldeak ordezkatu zituztela izan zen.

Talde hauen garapenak mugikortasun sozialaren handiagotzearekin zerikusirik izan zuen. 60. hamarkadaren bitartean, espainiar gizarte egiturak zurruntasuna galdu eta igoera sozialerako abagune berriak sortu ziren, hain zuzen ere talde berri hauek, ibilbide sozialen malgutasunaren onuradun nagusiak izan zirelarik. Hauek, garapen eta modernizazio ekonomikoak jarduera eta profil profesional berriak eskatu zituelako sortu ziren eta postuok betetzeko eskaintza handia izan zen heinean, hauen bitartez mugikortasun sozialeko goranzko ibilbideak burutzeko egiteko aukerak paregabeak ziren. Zentzu honetan, lanbide-prestakuntzak, jarduera profesional hauetarako sarbidea izan ohi zenez, ertain klaseetara heltzeko bitarteko oso erabilia izan zen, baita langileen artean ere. Hala ere, aipatu aukera profesional berri hauetaz baliatzeko gaitasunak, kasik erabatean, ertain eta goi klaseetako elementu gazteen esku jarraitu zuenez, mugikortasunak mugatua izaten jarraitu zuela zehaztu beharko genuke. Langile edo nekazari familietan jaiotako %80a estratu sozial haiei zegozkien lanbideetan aritzen zelako datuak<sup>102</sup> argi eta garbi azaleratzen du gizarte egituran oraindik nolabaiteko immobilismo soziala bazegoela. Alta, estratu baxuenek bere mugikortasun sozialaz izan zuten pertzepzioa, datu honen gainetik, positiboa izan zen orokorrean; neurri handi batean irudimen kolektiboan, formakuntza eta kualifikazioa, estatus sozial hobeto bat (ertain klasea) lortzeko eskura zituzten baliabideak zirela errotu zelako<sup>103</sup>.

Erdi mailako eta goi mailako ikasketek garapen handia izan zuten urte hauetan. Batxilergoko eta unibertsitateko ikasle kopuruaren hazkundera etengabekoa izan zen eta honek, egiazki, ertain klaseen eta langileriaren sektore kualifikatuenean egonkortzean lagundu zuen, formakuntza, talde hauen erreproduktzioarako bitarteko nagusi gisara gailendu zirelarik<sup>104</sup>. Goi mailako ikasketen hazkundera bereziki nabaria izan zen. Unibertsitateen nola edo halako *masifikazioak*, ordura arte goi mailako hezkuntzatik at egondako sektore sozialen ikasgeletarako bat-bateko sarrerarekin zerikusirik izan zuen. Fakultateek euren ateak ireki zituzten eta berauetan, lehenbiziko

<sup>100</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 27-28 orr.

<sup>101</sup> Santos Juliá historialariak egindako baieztapenaren arabera, 1964-1970 urteen bitartean, goi mailako teknikarien, saltzaileen, bulegoko enplegatuen, erdi mailako teknikarien edota enpresa zuzendarien hazkundera jarraitua izan zen, are langile kualifikatuenean kopuruaren hazkundera baino handiagoa izatera iritsi zelarik. Santos Juliá, “Política y sociedad durante el régimen de Franco”, Manuel Gutierrez Navas eta José Rivera Menéndez (koord.) *Sociedad y política almeriense durante el Régimen de Franco. Actas de las Jornadas celebradas en la UNED durante los días 8 al 12 de Abril de 2002*, Instituto de estudios almerienses, Almería, 2003, 11-31 orr., 26 orr.

<sup>102</sup> Datua, Carme Molinero eta Pere Ysás, “Cambio socioeconómico y...” Op. Cit., 33 orr.

<sup>103</sup> *Ibid.*

<sup>104</sup> Enrique Moradiellos, *La España de...* Op. Cit., 146 orr.

aldiz, familia umiletan jaiotako gazteak –bulego eta administrazio langileen, enpresari eta merkatari txikien edota langile espezializatuen seme-alabak gehien bat- ikasten hasi ziren. Dena dela, 60. hamarkadaren bitartean, hezkuntzaren alorreko desoreka sozialak oraindik agerikoak izan ziren eta unibertsitateko ikasketek, orokorrean, baliabide ekonomiko handiko familien “pribilegio” izaten jarraitu zuten.

Hazkunde etengabearen zegoen aipatu unibertsitate hau, Ikasleria eta gazteria berri baten agertoki bikaina izan zen. Munduko campusak kolektibo sozial berri baten artikulaziorako esparru bihurtu ziren, berauetan ibiltzen ziren ikasleek, presentzia sozial handiago bat izan nahi zuela aldarrikatzen zuen gizatalde aktibo bat osatu zutelarik. 60 eta 70. hamarkaden bitartean ikasleria bizitza kulturalaren hala nola bizitza politikoaren elementu oso garrantzitsua izan zela ezin eztabaidatuzkoa da. 60. hamarkadan sortu ziren ikasle mugimenduek eta protestek ikusarazi zuten, ikasle berriek, euren atsekabe soziopolitiko adierazteko beharra izan zuten; hori egiteko modua, haietariko askorentzat, muturreko ezkerreko eta 68ko maiatzeko amets iraultzaileen artean kokatzen zituen politizazio prozesu bizkor batean murgiltzea izan zen. Espainiar estatuko unibertsitateetan ere, ikasleen protestak ohiko fenomeno izan ziren 60. hamarkadan. Aldi honetan, espainiar ikasle mugimenduak, borroka antifrankistari lotuta egon zen bereziki eta bere jardueran, unibertsitateko ikasleen sindikatu frankistaren desagerpena eta sindikatu aske eta demokratikoen beharra aldarrikatzean, espainiar unibertsitatearen egitura zaharkituak kritikatzeko eta campusetan igartzen zen disidentzia adierazteko ororen gaineko errepresioa salatzean funtsatu zen. Mugimendua masiboagoa egin zen heinean, politizatuz joan zen, 1968az geroztik, ikasleriaren borroka modu erradikalagoan ulertzen hasteraino. Beraz, hasiera batean diktaduraren kontrako borroka, esplotazio kapitalistaren inguruko kritika sozialari nagusitu bazitzaion ere, 68ko maiatzetik aurrera, espainiar unibertsitateetako ikasleek sistemaren kontrako borroka ere bere egin zuten<sup>105</sup>.

Ikasleak, urte hauetan bere burua subjektu sozial gisara aldarrikatu zuen gazteria berri baten adierazpen aktiboena eta politizatuena izan ziren. Hain zuzen ere gizarte talde berezitu eta burujabe bezala itxuratzen ari zen gazteria berri horren agerpena, garaiko gizarte berrikuntza nagusienetariko bat izan zen. Gazteria hura ezaugarritu zuten elementuen artean, gazteak berezko kolektibo bezala definitzen zituzten jokabideak, ideiak eta baloreak, hau da, berezko gazte kultura propio bat, nabarmentzen ahal dira. Elementu hauek, norbere gauzapean pertsonalaren eta arau sozial tradizionalen aurreko erantzunen printzipioak izan zituzten ardatz, gurasoen belaunaldiarekiko haustura, sakona eta argia izan zelarik. Eric Hobsbawmek adibidez, oso ongi azaldu zuen belaunaldien artean sortu zen alde izugarri hau “familia loturak indartsuak izan arren, [eta gazteak] inguratzen zituen tradizio sarea sendoa bazen ere, euren eta aurreko belaunaldikoen bizitza ulertzeko moduen, esperientzien eta jomugun arteko amildegia saihestezina” izan zela esan zuenean<sup>106</sup>. Urte hauetan mundu osotik zabaldu zen gazte kultura berriak, hartara, hausturarako borondate hori adierazten zuten osagaiak azaldu zituen: jokaera eta jarraibide berriak hezurmamitzen zituzten gazte heroiak, estetika bereizgarriak edota musika bera izan ziren, hauen artean, aipagarrienak. Hauek eragin berezia izan zuten goi eta ertain klaseetako gazteengan. Izan ere, kultura berriak barne hartzen zituen hiriko klase baxuen musika, janzkera eta jokamolde ereduak (hizkera barne) bere eginez, euren gurasoen baloreak errefusatzen zituztela eta arauak hausten zituzten harremanak izateko eta bizitzeko forma berriak aztertu nahi zituztela adierazten zuten<sup>107</sup>.

<sup>105</sup> Jaime Pastor, “El movimiento estudiantil bajo la dictadura franquista y el 68 español”, Manuel Garí, Jaime Pastor eta Miguel Romero (ed.), 1968. *El mundo pudo cambiar de base*, Catarata, Madrid, 2008, 283-298 orr., 295 orr.

<sup>106</sup> Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit., 331 orr.

<sup>107</sup> *Ibid.*, 333 orr.

Ildo berean, gazteriari eta bere kultura honi lotuta, 60 eta 70. hamarkadetako mugimendu kontra-kulturalak sortu ziren, “beat generationa”, hippiak, situazionistak, askatasun psikodelikoaren aldekoak, rock jaialdietan parte hartzen zutenak, maitasun askea proposatzen zutenak, e.a. Guztiek, aipatu oinarritzko balore multzoan funtsatzen zirela izan zuten komunean: alde batetik, askatasun pertsonalaren eta askatasun sozialaren uztartzea bilatzen zuten; bestetik, boterearen, estatuaren, gurasoen zein bizilagunen lege edota arauak haustea. Esate baterako, drogak, sexua eta Rock and rolla, zentzu transgresorea izateagatik, mugimendu guzti hauetan presente zeuden elementuak izan ziren, gaur ere orduko gazteriari eta gazte kulturari oso lotuta agertzen zaizkigularik<sup>108</sup>.

Urte hauetan emakumeek ere presentzia publiko handiagoa lortu zuten, jarduera ekonomikoaren eta hezkuntzaren alorretan bereziki. Jarduera ekonomikoaren alorrari dagokionean, soldatapekoen lan merkatuan sartu ziren eta honek, ordura arte erabatean gizonezkoen esparru izandako lantokian eta jarduera sindikalean parte hartzeko aukera eman zien. Hezkuntzaren alorrari dagokionean, presentzia are nabariagoa izan zuten. Unibertsitatean adibidez, euren formakuntza maila areagotzeaz beste (70. hamarkadan heldutasunera iritsi ziren emakume espainiarren belaunaldiak gizonen hezkuntza mailarekiko desberdintasunak nabarmenki murriztu zituen), orduan jaiotzen ziren ikasle eta gazte mugimendu kultural eta politikoetan parte hartzeko abagunea izan zuten ere. Ildo horretan, emakumeek orduan lortutako presentzia publiko hau, eurak gizartean zuten eta izan nahi zuten paperaren inguruko hausnarketa sakon bat jarri zuen martxan. Gazteriaren antzera, emakumea ere aktore sozial berezitu eta burujabe bezala itxuratzen ari zen. Prozesu honetan emakumeak subjektu bezala bizi izan zituen aldaketak, kanpo eta barne aldaketak izan ziren. Lehenbizikoen, lan merkatutarako sarrerarekin, hezkuntza mailarekin eta ekintzarako esparru sozial berrien irekierarekin izan zuten zerikusirik; bigarrenak, gizartean betetzekoa zuten paperari buruzko ikusmolde berrien barneratzearekin eta euren buruei jomuga sozial berriak ipintzearekin. Emakumeen mugimenduen eta feminismoaren loraldia, marko honetan gertatu ziren.

Gizarte eraldaketek eta dinamika sozialean bat-batean sartu ziren protagonista berrien agerpenak, jarraibide kulturalen, bizimoduen eta mentalitate hala nola moralaren aldaketa garrantzitsuak ekarri zituzten berekin. Esate baterako, sexuarekiko, bikotearekiko eta ugalketarekiko jarrera aldaketak, dibortzioaren, seme-alaba ez legitimoen, guraso bakarreko familien eta ezkongabetasunaren kopuruaren hazkundera eragin zuen, familia tradizionalaren ereduaren krisia azaleratuz<sup>109</sup>. Baina jarraibide kulturalen eta bizimoduen erabateko aldaketa gertatzen ari zela argien adierazten duen fenomenoak, zalantzarik gabe, kontsumo gizartearen hedapena eta honek berekin ekarri zuen ongizate materialaren mentalitatearen zabaltzea izan ziren. Kontsumo gizartea espainiar estatuan 60. hamarkadaren bitartean zabaltzen hasi zen, espainiar familiek euren aurrekontuaren geroz eta portzentaje handiago bat etxebizitza duin bat, etxeko tresna elektrikoak eta kotxea erostean gastatzen hasi zirenean. Urte hauetan ongizate materiala hobetu egin zela esan daiteke, poltsiko umilentzat ere lehen pentsaezinak ziren ondasunak eskuragarri egin eta orokorrean populazioaren erosteko ahalmena handitu zelako.

Zentzu honetan, eztabaidatu ezinezkoa da gizarteak bizitza mailaren eta ongizatearen hobekuntza orokortu bat bizi izan zuela. Hala ere, bizitza mailaren hazkunde honek ez zuen zuzenean berekin errentaren birbanaketa orekatu bat ekarri,

<sup>108</sup> Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit., 334 orr.

<sup>109</sup> Adibide adierazgarriak ematen ditu zentzu honetan Eric Hobsbawmek, *Historia del siglo...* Op. Cit., 322-325 orr. “La revolución cultural” kapituluaren lehenbiziko atalean zehar.

ongizatearen banaketa ere, nolabait, desorekatua izan zelarik. Adibidez, soldatapekoek Barne Produktu Gordinean zuten pisua urte hauetan apenas handitu ez zela eta soldata errealek produktibitatearen hazkundea 1970era arte xurgatzerik izan ez zutela kontutan hartzen badugu<sup>110</sup>, hazkunde ekonomikoarekin etekin gehien atera zutenak kapitalaren jabeak izan zirela ondorioztatzen ahal da. Desoreka sozialak oraindik agerikoak ziren. Bestalde, kontsumo gizartearen zabalkuntzak berekin ekarri zuen ongizateak, soilik bizitza pribatuaren alorrean izan zuen eragina. Izan ere, periferiako auzuneez azaltzen zituzten urbanizazio arazoek edota berauetan ikusgarria zen osasun, eskola, garraio eta bestelako zerbitzuen gabeziak, kontsumoaren zabalkuntzak kolektibitatearen ongizatean eragiten ez zuela agerian uzten zuten.

Espainiar estatuan, orduan ere, gizartearen mentalitatean eta portaeretan eragina izan zuten bestelako elementuak garatzen hasi ziren. Aurreko hamarkadetan mendebaldeko Europan eta AEBtan nagusi izandako pentsamendu korronteak, estrukturalismoa, existentzialismoa, humanismo kristaua edota marxismo kritikoa forma zenbait, unibertsitateetan eta eremu intelektualetan barna zabaltzen hasi ziren<sup>111</sup>. Hauekin, zinema, literatura, artea eta musika ere, korronte eta eredu kultural berriak hedatzeko funtsezkoak izan ziren.

Honekin guztiarekin, 60 eta 70. hamarkaden bitartean, haren garapen mailan, egituretan, osaeran eta mentalitatean mendebaldeko Europakoetatik gertuko gizarte berri bat itxuratu egin zela ikusten ahal da. Hain zuzen ere gizarte dinamiko hura, frankismoaren egitura politiko estatikoekin bete-betean talka egiten zuen heinean, barne tentsioak eragin eta erregimena higitzeko funtsezko elementua izan zen.

---

<sup>110</sup> Datua: Carme Molinero eta Pere Ysás, "Cambio socioeconómico y..." Op. Cit., 3 orr.

<sup>111</sup> Glicerio Sanchez Recio, "La percepción de los cambios en los años 60", *Studia histórica. Historia Contemporánea*, 21. zkia, 2003, 213-229 orr., 218 orr.

### 1.3 IRUÑERRIKO ERALDAKETA SOZIOEKONOMIKOA

Langile klasea eratuko den markoaren azalpen honekin amaitzeko, prozesua emango den tokian tokiko testuingurura hurbiltzea falta zaigu. Ildo horretan, ondorengo lerroetan aurreko atalean ikusi ditugun eraldaketa sozial zein ekonomikoak frankismoaren garaiko Nafarroan eta Iruñerrian nola eman ziren aztertuko dugu. Iruñea bera eta Iruñerria izanen ditugu hizpide batez ere, hiria eta haren metropoli-barrutia baitira, azken batean, aztertzeaz gauden eraketa prozesua ematen den agertoki zehatza. Beraz, Nafarroa osoko eraldaketaren dinamika orokorrak azaleratuko ditugu, beti ere fenomeno horiek Iruñerrian nola eragin zuten erakutsiz.

60. hamarkadan zehar Nafarroak bizi izan zituen gizartearen, ekonomiaren, kulturaren edota mentalitateen alorreko egiturazko eraldaketen eskutik, nekazaria, tradizionala eta hein handi batean kontserbadorea zen gizarte bat, gizarte industrial, hiritar eta hein han batean aurrerakoi bihurtu behar zen denbora gutxian. Eraldaketa sakon hau Iruñeko bi argazkiren arteko alderaketa eginez ikusten ahal da. Lehenbizikoan, hiriak 1936ko uztailaren 19an Errepublikaren gobernuaren aurkako matxinatupei harrera egiten die; bigarrenean, 1973ko ekainean, greban zeuden Motor Ibéricako langileei elkartasuna adierazteko kalera irten da. Zer gertatu zen irudi batoren eta bestearen artean? Azkenik Iruñeak hiri tradizionaletik hiri modernorako bidea egin zuela eta prozesu honetan, haren izaera bera irauli egin zela. Iraultza diogu gerra zibileko Francoren aldeko altxamenduaren eta diktaduraren amaierako frankismoaren aurkako giza mobilizazioaren artean, gizartea, tradizionalismotik aldendu eta irekiagoa eta anitzagoa egin zela<sup>112</sup>.

Hortaz, ibilbidearen bi muturrak barne hartzearen, lehenik eta behin matxinatuak eta estatu frankista berria jaso zituen Iruñea tradizional horren argazkia begiratuko dugu, 50. hamarkadaren bitartean irudia nola desitxuratzen hasten den atzeman eta 60. hamarkadatik aurrera, 1973. urteko argazkira eramango gaituen irudi berria nola osatzen den ikusteko. Bitarte horretan azalduko zaizkigun aldaketak, aurreko atalean aztertu ditugun antzera, soziologikoak eta ekonomikoak, bizimoduak eta mentalitateak, kulturalak eta identitateak izango dira. Beraz oraingoan, ikusi berri ditugun eraldaketaren dinamika orokor horiek, Nafarroan eta Iruñerrian azaleratzea izango dugu helburu, azterketa egiteko hauek hemen agertu zituzten xehetasunei erreparatuko diegularik.

#### 1.3.1 Iruñea, hiri tradizionaletik hiri moderno eta industrialera<sup>113</sup>

Hiri bezala Iruñea bereizi egiten duena, 50. hamarkadara arte modernizazioaren bidea osatu izan ez zuela da. XX. mendearen lehen herenean, haren nekazal inguruneari oso lotuta jarraitzen zuen, izan ere, nafar gizartean orokorrean, hiria eta landa mundua, kontrajarri baino, osagarri bihurtzen zituen mentalitate tradizionala nagusi zen

---

<sup>112</sup> Horrela ikusten du, adibidez, Javier Colomok, "El desarrollo industrial y la evolución sindical en el periodo 1955-1975 en Navarra", Príncipe de Viana, 16, eranskina, 1992, 725-737 orr., 726 orr. Antzeko zerbait iradokitzen du María del Mar Larrazak Frankismoaren bitarteko Iruñeari buruz zuzendu zuen lanaren izenburuan, "de leal a disidente" esapidea erabiltzen duenean. María del Mar Larraza, *De leal a disidente Pamplona 1936-1977*, Eunote, Iruñea, 2006.

<sup>113</sup> Hiri tradizionaletik hiri moderno eta industrialerako Iruñearen igarobidea, Zuriñe Sainz Pascualek eta Nerea Perez Ibarrolak alor ezberdinak azalduz (hirigintza, bilakabide sozioekonomikoa) aztertu dute. Ikusi Zuriñe Sainz Pascual eta Nerea Perez Ibarrola, "Transformación urbanística y evolución socioeconómica de una ciudad", Andeka Larrea (koord.), *Euskal Hiria: reflexión sobre la ciudad y las ciudades vascas*, ex liburua, Bilbo, 2012, 105-159. Haiek jasotako ibilbidea da, hein handi batean, hemen jasotzen duguna.

oraindik. Iruñea zaharrak mende hasieran modernizazioaren bideari ekin zionean, hartara, mesfidati eta mantso, bere izate tradizionalari eutsiz, egin zuen, 50 eta 60. hamarkadetako eraldaketa sakonek hiri moderno eta industrial bihurtu zuten arte, hiri nekazari eta artisau bezala mantendu zelarik.

Iruñean denbora gelditu ez bazen ere, hiriak mantentzen zituen bere landa munduarekiko loturek, haren “probintzia hiriburu” bezalako funtzioa aldaketarik gabe iraunarazi zuten nolabait. Nafarroa oraindik lurralde nekazaria zen XX. mendearen erdialdean, bai haren egitura sozial zein ekonomikoari zegokionean eta baita bizimoduei, harreman sozialen moldeei eta forma kulturaleri zegokienean ere. Halako marko batean, Iruñeak, “probintzia hiriburu” bati berezkoak zitzaizkion funtzioak betetzen zituen, hau da, plaza militarren izaera gordetzen zuen eta zerbitzuen eta administrazioaren erdigunea zen; baina aldi berean, oraindik ere nekazal izaeraren adierazle asko barne hartzen zituen, harresiaz bestaldera, hiri paisaian mantentzen zuen zelai eta baratze multzoez osatutako nekazal eremu propioa, esaterako. Javier Ugarte historialariaren hitzetan, halakoa zen probintzia hiriburu tradizional hura: “bere inguruko nekazal unibertsoetik desberdintzen ez zen herria zen [...]; nekazaria, non gizaki eta animaliek espazioak partekatzen zituzten, etxeek [oraindik] ukuluak zituzten eta ingurune naturaletik zetozen usainak, baratze eta laborantza produktuenak [...], nagusi ziren; [...] haren kaleetan jauregi eta etxebizitzak tartekatzen ziren, bertako elite lokalaren kideak eta herria, aristokrazia eta artisau zein nekazari txikiak elkarrekin, espazioan nahastuta, bizi zirelarik [...]; hiriaren profilean oraindik komentuenak, parrokiak eta gotorlekuaren ondoko kuartel etxeak gailentzen ziren; [eta guzti honekin batera], izaeraz nekazaria, militarra eta “lebitarra” izaten jarraitzen zuen, berariazkotzat jotzen zen tokian tokiko kultura berezitu bat [...], berezko balore, liturgia eta esparru sinbolikoen bitartez [...], mantentzen zuena”<sup>114</sup>.

Honek ordea, ez du esan nahi, Iruñeak mende hasieran modernizazioaren bideari ekin izan ez zionik. Prozesua abiatu zuen, baina modu oso partikularrean, landa mundura lotutako gizarte bati berezkoak zitzaizkion kultura kodeen arabera, hau da, “Iraganean bizitza eman zioten oinarritzko elementuei eutsiz”, egin baitzuen<sup>115</sup>. Modu honetan, XX. mendearen lehen herenean Iruñea modernizaziorako bidea hartzen hasi zen arren eta aldaketa ekonomikoak, sozialak eta are kulturalak igartzen hasten ziren arren<sup>116</sup>, abiada hartze hura ez zen iragan horrekiko haustura sozial, ekonomiko edo kultural funtsezko bat gertatzeko nahikoa izan. Honetan, iruñar industrializazioaren hastapenetan eman zen nafar landa mundutik hirirako emigrazio mugimenduek zerikusirik izan zuten. Izan ere, 50 eta 60. hamarkadetako landatiko emigrazioarekin gertatu ez bezala, mende hasierako populazioaren lekualdatze mugimendu hauek ez zuten nekazal eremuaren forma sozial zein kulturalerik erabateko haustura suposatu. Are gehiago, mugimenduok, landaren eta hiriaren arteko jarraitutasuna -espaziala, soziala, kulturala- bermatu zuten nolabait. Beraz, populazio

---

<sup>114</sup> Javier Ugarte, *La nueva Covadonga insurgente. Orígenes sociales de la sublevación de 1936 en Navarra y País Vasco*, Biblioteca Nueva, Madril, 1998, 166-167 orr. Lan honek, orokorrean, Iruñeak XX. mendearen lehen herenean bizi izan zuen garapenaren oso ikuspegi interesgarria ematen du, hiriaren bilakaera prozesua haren berezko izaera, mentalitate eta kulturak baldintzatuta ageri baita.

<sup>115</sup> *Ibid.*, 166 orr.

<sup>116</sup> XX. mendeko lehenbiziko herena, lehen bi hamarkadak bereziki, oso emankorra izan zen. Nekazaritzan laborantza produktu berriak lantzen hasi ziren eta produkzioak gora egin zuen. Industrian abialdia nabarmentzen hasten zen, adibidez kontserbagintza fabriken edota azukre olen ezarpenarekin. Lan publikoak eta eraikuntzaren sektorea jarduera dinamikoak ziren. Azken honi hiriaren hazkundeak mesede egiten zion, orduan, hiriko populazioaren hazkundera zela eta, harresiak bota eta II. Zabalgunearen eraikuntza hasi baitzen. Gizartean ere aldaketak nabaritzen hasten ziren, hiri populazioaren hazkundera edota fabriken ezarpenak berekin ekarri zituen langileria eta langile mugimendu hasi berriak, adibidez honen erakusle izan zirelarik.



mugimenduek, nekazal eta hiri esparruetan aldaketa garrantzitsuak eragin bazituzten ere, ez zituzten hiria eta bere ingurunearen arteko harremanak, hiritarren eta nekazal familia giroaren arteko harremanak, zeharo desitxuratu, landa munduko balore kultural eta ideologikoak Iruñean errotuta mantentzeko jarraikortasun ildo garrantzitsuak ezarri zirelarik<sup>117</sup>. Iraganari begirako elementuei eusterakoan, hartara, Iruñeak, harmoniaren, tradizioaren, harreman pertsonalen eta orekaren printzipioetan oinarritzen zen hiritar familia edo komunitatearen ideiar oso lotuta jarraitu zuen. Guzti honengatik, Iruñearen modernizazioari, berezko idiosinkrasia honen funtsezko elementuak arbuia gabe heldu behar zitzaion.

Ildo horretan, Javier Ugartek 1936ko uztailaren 19ko matxinatuen aldeko giro eta mobilizazio orokortuaz aritzerakoan, Errepublikaren aurkako proiektuaren arrakasta, tokian-tokiko nortasun honetatik proiektu errepublikarra baino gertuago zegoela esanez azaltzen du. Izan ere, Nafarroan eta Iruñean gizon eta emakume askok defendatu zuen proiektu errepublikarra, orduan nafar gizartean nagusi zen mundu-ikuskeraren aurreko alternatibatzat jo zen. Hala izan zen, hein handi batean, Errepublikaren egitasmo modernizatzailearen aspektu asko, bertako idiosinkrasiaren elementu inportanteekin talka egin zutelako eta ondorioz, nafar eta iruñar gizartearen sektore askok, bere burua asmo horietan ezagutzeko zailtasunak izan zituelako. Errepublikak egiazki zaila izan behar zuen nafar gizartearen gehiengoaren babesa lortzea. Honen adibide adierazgarria da lehen gobernu errepublikarrak indarrean jarri zituen gizartearen sekularizaziorako neurriek Nafarroan piztu zuten eztabaida<sup>118</sup>. Auzi erlijiosoak, Errepublikak probintziari eta hiriburuari berezkoa zitzaien harmonia zaharra suntsituko zuelako ideia errotu zuen iritzi publikoaren parte handi batengan, honek proiektu errepublikarra, berariazko nafar nortasunarentzat mehatxu erreal bat zela sentitu zuelarik.

Frankismoaren garaipenak eta estatu berriaren ezartzeak, ez zuten Iruñearen modernizazio prozesuan aldaketa nabarmenik eragin. Errepublikak proposatu izandako proiektua, gerraren eta errepresio bortitzaren pean desagertu zen eta beldur giro orokortuaren, erakunde errepublikarren antolakuntza egituren suntsiketaren eta estatuaren erakunde sozial eta politikoen inposaketaren ondorioz, hura berriz osatzeko aukera guztiak galdu ziren ondorengo urteetan. Modernizaziorako alternatiba desagerrarazita eta tokian-tokiko izaera bereizgarriaren iraupena bermatuta, hiriak, komunitate zahar hura izaten jarraitu zuen diktaduraren lehenbiziko urteetan. Erlijioaren presentzia soziala izan zen honen adierazlerik argiena, nafar izaera tradizionalaren eta erregimen berriaren arteko lotune nagusienean bilakatu zelarik. Nazional-katolizismoak, erlijioak ordura arte nafar gizartean izandako presentzia soziala indartu eta bizitza publikoaren ardatz bihurtu zuen. Honela, birkatolizaziorako kanpainak, misioi herrikoiak, erromesaldiak edota kristautze ikastaroak, katolizismoa indartzeko ekintzak ziren heinean, nafar eta iruñar berezko izaera berresteko tresna

---

<sup>117</sup> XIX. mendearen bigarren erdialdeko eta XX. mendearen lehen hereneko immigrazioaren estrategiak aztertu ondoren Fernando Mendiola atera zuen ondorio nagusienetarikoa bat da. Fernando Mendiola, *Inmigración, familia y empleo: estrategias familiares en los inicios de la industrialización; Pamplona (1840-1930)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2002, 348 orr.

<sup>118</sup> Javier Drondak, bere doktore tesian, auzi erlijiosoan Nafarroan, nafar gizartearen parte handi batek berezkozat zuen kultura klerikal baten eta Errepublikarekin identifikatzen zen kultura antiklerikal baten arteko gatazka izan zela planteatu zuen. Honela, lehen gobernu errepublikarraren sekularizazio neurriak praktika antiklerikalekin (1931ko maiatzeko eliza edo komentuen erreketak adibidez) batera etorri zirenean, honen harira piztu zen eztabaidak eta sortu zen gatazkak, oihartzun handia izan zuten. Javier Dronda, *La cuestión religiosa en Navarra, 1931-1933*. Emilio Majuelok zuzendutako doktore tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Geografia eta Historiako Departamentua, 2010. Berriki, ikerketa honetan oinarritutako monografia argitaratu da: Javier Dronda, *Con Cristo o contra Cristo. Religión y movilización antirrepublicana en Navarra (1931-1936)*, Txalaparta, Tafalla, 2013.

gisara erabili ziren, Iruñea, balore eta jarrera kontserbadoreez jantzitako hiri bezala irauraraziz.

Estatu frankistaren ezartze prozesua ordea, ez zen tentsiorik gabeko prozesua izan. 1936ko uztailleko nafar mobilizazio sozialaren indar lehena izan ondoren, karlismoak ez zen erregimenaren egitura sozial eta politiko berrietarako integrazio prozesu erraz bat izan. Zentzu honetan, estatu berriaren ezartzea Nafarroan nolabaiteko, berezitasunak agertzen ditu erregimenaren eta karlismoaren elementu politikoaren artean, botere lokal eta probintziala kontrolatzearen, nolabaiteko lehia sortu zelako<sup>119</sup>. Aipatu norgehiagoka hura hainbat gatazkaren bitartez azaleratu zen eta hauek 50. hamarkadaren hasierako Iruñeko giro politikoa nahastu zuten. Jada 1945eko abenduaren 3an, Iruñeko kaleetan, liskarrak egon ziren karlisten eta poliziaren artean, indar erakustaldi bat izateko asmoarekin hirian antolatu zen kontzentrazio karlista baten kontestuan. 50. hamarkadan, halako konfrontazioak errepikatu egin ziren eta 1950ean Gobernadore Zibilak agindutako Zirkulu Karlistaren itxieraren aurkako protestak; 1951ko greba orokorraren atzean atzeman ziren botere zentrala higatzeko interes politikoe<sup>120</sup>; hautagaitza ofizialaz aparteko kandidaturak aurkezteagatik urte horretan izan ziren udal hauteskundeetan eman zen egiazko lehia elektoralak; edota Diputazioaren eta Gobernu Zibilaren arteko eztabaida baten harira 1954ko irailean azken honen aurka piztu zen protesta sozialak<sup>121</sup>, Nafarroako dinamika politikoak konplexutasun puntu bat bazuela adierazi zuten. Gatazka guzti hauek komunean izan zuten elementua, auzi forala izan zen. Izan ere, Nafarroan, foru erregimenaren instituzioak mantendu zirelako, boterean jarduteko esparru zabalago bat zegoen, honek bizitza politikoa antolatzeke ikuskera deszentralizatuago bat praktikan jartzeko aukera ematen zuelarik. Zentzu honetan, foruaren berezitasunaren eta frankismoaren estatu ikuskera zentralistaren arteko elkarbizitzak, tirabirak sortu behar zituen halabeharrez. Aipatu liskarrek ordea, ez zituzten, inolaz ere, erregimenaren printzipioak zalantzan jarri lehenbiziko urte hauetan.

Aurreko atalean ikusi dugun 50. hamarkadaren hasierako egoera sozial eta ekonomiko larria egiazko inflexio puntua izan zen Iruñeak bere modernizazioaren prozesuari behin betikoz ekin ziezaion. 1951ko udaberrian gertatu zen greba orokorra, probintziak bizi zuen egoera jasangaitzaren isla izan zen, arazo sozioekonomikoei errotiko konponbide bat ez emateak izaten ahal zituen ondorioak iragarri zituen abisu serioa izan zelarik. Modernizazioaren bidea hartzea ezinbestekoa zela zirudien. Iruñeko Udalak hala ulertu zuen eta 1954an industriaren babeserako lehenbiziko

---

<sup>119</sup> Frankismoaren garaiko karlismoaz ikusi Francisco Javier Caspistegui, *El naufragio de las ortodoxias: el carlismo (1962-1977)*, Eunsa, Iruñea, 1997, Aurora Villanueva, *El carlismo navarro durante el primer franquismo*, Actas, Madril, 1998 eta Manuel Martorell, *Retorno a la lealtad: el desafío carlista al franquismo*, Actas, Madril, 2010. Aipatu lehia, frankismoaren lehen urteetako Iruñeko udalaren baitan atzematen ahal da, ikusi Maria del Mar Larraza, "Leal católica... y ..." Op. Cit.

<sup>120</sup> Hori da 1951n Nafarroako Gobernadore Zibila zen Luis Valero Bermejok grebaren berri emateko burututako txostenean defendatzen zuen tesia. Archivo General de la Administración-Administrazioaren Artxibategi Orokorra (hemendik aurrera AGA-AAO), Presidentzia fondoak, 51-19012 kutxa. Karlismoaren zenbait sektorek greban izan zuen presentzia nabarmenduaz aritzen da ere José Luis Díaz Monreal, *La huelga de 1951 y otros conflictos en Navarra durante los años cincuenta*, Pamiela, Iruñea, 2013, 130-131 orr.

<sup>121</sup> 1954ko iraileko istiluez gehiago, Aurora Villanueva, *El carlismo navarro...* Op. Cit. eta María del Mar Larraza, "Leal, católica... y ..." Op. Cit. Hauekin batera, José María Barogaren kroniketan, 1954 urteari dagokion pasartean, autoreak egun haietan bizi izandakoa jasotzen du, bertan zinegotzi eta diputatuaren papera, Iruñeako biztanlegoaren jarrera edota manifestazioak, kontzentrazioak eta atxiloketak azaltzen direlarik. José María Baroga, *La vida íntima de Pamplona (1950-1955). Los latidos de una ciudad*, Iruñea, [s.n], 1974, 217-232 orr.

oinarriak adostu zituen<sup>122</sup>. Hauekin, enplegua sortzeko eta egoera sozialaren prekarietateari aurre egiteko Iruñeak behar zuen modernizazioa, industriaren bidetik egitea proposatu zen azkenik. Hala ere, modernizazioaren auziak hautsak errotu zituen Iruñea zaharrean eta industrializazioa, eztabaida bero baten erdian kokatu zen. Industriak berekin ekarriko zituen eraldaketa sozial, ekonomiko eta politikoak aurreikusita, tokian-tokiko elitearen hainbat sektore mesfidati azaldu zen, fabrikak eta langileak ezarri ahala, hiri moderno eta industrialak, Iruñea zen komunitate zahar eta tradizional hura desagerrarazten ahal zuelako.

Dena dela, orduan azaleratzen hasten zen zenbait fenomenok, hamarkadaren erdialderako jada modernizazioaren prozesua martxan zegoela agerian uzten zuen: industria garrantzitsuen ezarmendua, Nafarroa osoko eta estatuko beste probintzietako emigranteen harrera, langileak kokatzeko harresiaz bestaldeko nukleoek sorrera, eurekin bizimodu berriak ekartzen zituzten eguneroko bizitzaren alorreko nobedadeak... 1952ko Leoncio Urabayenen testigantza honek islatzen duen bezala, aldaketa errealtate bat zen orduko Iruñean:

[...] ukuluak eta ostatu zaharrak desagertu dira eta Takoneratik behe auzoetako fabrika eta tailerra ikus daitezke; bulego eta saltokiak, eraikinen etxabeak hartuta, biderkatu egin dira eta nekazaritzaren presentzia Gotorlekuko glazisetan irauten duten larrain bakan batzuek baino ez dute igartzen; hiriak bi antzoki eta bost zinematografo ditu jada; eta mendizaletasuna, futbola eta euskal pilota aisialdirako ohitura orokortuak dira. Gutxika kaleetan geroz eta automobil gehiago ikusten da eta bidaiari garraio bideek era dibertsifikatuago batean lotzen dute hiriburua bere hurbileko ingurunearekin eta are gehiago, bestelako hiriekin...<sup>123</sup>

Hiriaren eraldatze prozesu honen hastapenetan, hainbat mugarri egon zen. Hamarkadaren hasieran, 1950. urtean bertan, Txantrea langile auzoa eraikitzen hasi zen, ondorengo urteetan biziagotuko zen harresiaz bestaldeko hiriaren zabalkuntza ikaragarriari hasiera emanez. Hamarkadaren erdialdean, 1954an, Udalak aipatu Industriaren babeserako oinarriak onartu ondoren, udal barrutian industria garrantzitsuak finkatu ziren. Hamarkadaren amaieran, 1958an, Miguel Javier Urmeneta Iruñeko alkate izendatua izan zen eta honek, hiria eta bere arazoak kudeatzeko gestio eredu modernizataileago bat abiatu zuen. Ur hornikuntza sarearen hobekuntza, etxebizitzaren eraikuntza, kooperatiben sustapena, Landaben industria poligonoaren bideratzea, eskola eta kirol instalazioen sorrera edota luxuzko hotel baten eta helduentzako gauerako dantzaleku baten instalazioak izan ziren, besteak beste, Urmenetak sustatuta, Iruñeari kutsu kosmopolita ematen hasi zioten proiektuak<sup>124</sup>.

Ildo horretan, Iruñearen hiri tradizionaletik hiri modernorako igarobidean, 50. hamarkada, etorkizuneko hiri industrialaren oinarriak jarri zituen pasabidea izan zela esan dezakegu. Orduan, periferiako auzoek nolabaiteko indarra hartu zuten. Hiriburua emigrazio mugimendu geroz eta bizkorragoen helmuga izan zen heinean, populazio nukleo berriak agertu eta garatzen hasi ziren harresiaz bestaldera. Aipatu dugu Txantrea auzoa, 1950. urtetik aurrera, Nafarroako eta probintziaz besteko familia

<sup>122</sup> Udalak 1954ko otsailaren 23ko osoko bilkuran onartu zituen industriaren babeserako oinarri haiek. Iruñeko Udalaren industrializazioaren aldeko jarreraz gehiago, Maria del Mar Larraza, "La industrialización desde el Ayuntamiento de Pamplona", Francisco Javier Caspistegui eta Carmen Erro (zuz.), *De agrícola a industrial 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 207-226 orr.

<sup>123</sup> Jasoa: Jesús Oliva eta Andoni Iso, "Las ciudades de Pamplona-Iruñea y su metamorfosis en el siglo XX", VV.AA., *Pamplona metrópoli. 1930...modernidad y futuro*, Delegación navarra de COAVN, Iruñea, 2005, 40-61 orr., 44. orr.

<sup>124</sup> Maria del Mar Larrazarentzat Javier Urmeneta izan zen, hain zuzen ere, Iruñea behin betikoz modernizatorako bidean jarri zuen figura. Maria del Mar Larraza, "Leal católica... y..." Op. Cit., 43-44 orr. Miguel Javier Urmenetaren figuraz gehiago, Miguel Javier Urmeneta, *Memorias de mis tres años* (bi liburuki), Pamiela, Iruñea, 1989-1991. Egun, biografia berri bat argitaratzeke dago familiaren eskutik.

emigranteen eta Iruñeako industria ezberdinetako langileen elkargune izango zena. Honekin, urte hauetan, Arrotxapea, Donibane, Iturrama edota Arrosadia bezalako auzoek eta Burlata bezalako Iruñerriko udalerrriak ere, nabarmenki hazi ziren. Orduan, Iruñeak, industria erdigune garrantzitsu bezala osatzeko lehenbiziko urratsak eman zituen. Adibidez, nafar industrializazioan puntakoak izango ziren Imenasa, Torfinasa eta Potasas bezalako enpresak, 50. hamarkada honetan jaio ziren<sup>125</sup>. Potasasen kasua adierazgarria da, ez bakarrik meategiak, fabrika eta bulegoak kontutan hartuz, Nafarroan langile gehien enplegatuko zuen enpresa izan zelako; baita fabrika 1960an ezarri baino lehen (1953tik aurrera), meatze-putzuek funtzionatzen zutelako eta berautan jada meatzari taldeek lan egiten zutelako ere. Beraz, 50. hamarkadatik aurrera jarduera industrial hau garatu ahala eta fabrika berri hauek kokatu ahala lanekuaren eskaintza biderkatu zen heinean, Iruñea, gutxika, erakarpen gune bihurtzen hasi zen langileentzat eta euren familientzat.

### 1.3.2 Modernizazioaren auzia. Eztabaida bat

Baina esan bezala, modernizatorako bide hau ez zen erraza izan. Industrializazioa bera eta honek nafar eta iruñar izaera tradizionalan eragingo zituen aldaketak, bi mentalitate ezberdin aurrez-aurre jarri zituen modernizazioaren inguruko eztabaidaren ardatz nagusiak izan ziren eta Iruñeako Udalaren 1954ko Industriaren Babeserako oinarriak eta Nafarroako Foru Diputazioaren 1964ko Industriaren Sustapenerako Plana, ez ziren oposiziorik gabe martxan jarri.

Iruñeko Udaleko hainbat zinegotzik aipatu Industriaren Babeserako oinarrien aurka agertu zuen jarrerak, modernizazioaren auziak sentsibilitate ezberdinak kontrajarriko zituela agerian utzi zuen. Polemikaren funtsa galdera bat zen: Ba al zen industria Iruñeak planteatuta zituen arazoek konponbidea? Enpresari kanpotar batek udal barrutian fabrika bat kokatzeko egin zuen eskaeraren inguruan udaleko kideen artean sortu zen eztabaidak, galdera honi erantzuna ematerakoan desadostasunak oso agerikoak zirela azalerratu zuen<sup>126</sup>. Batzuek baietz uste zuten, industria, Iruñeak bizi zuen gelditasun egoeratik irteteko eta garapenari heltzeko bide bakarra zela. Besteek ordea, industrializazioaren abantailak enpresarietako soilik onura aterako ziotela eta fabriken ezarmenduak hiriari, etekinak eman baino, epe luzera arazo sakonak sorraraziko zizkiola uste zuten; izan ere, Industriak berekin ekarriko zituen aldaketak (gizartean, kulturean, mentalitatean), erremediorik gabe, Iruña zaharraren esentziaren galera eta hiri komunitate tradizionalaren desagertzea eragin behar zuten.

1955eko urtarrilaren 19an Udal Aurrezki Kutxak antolatutako hitzaldi ziklo batek hiriko “egungo eta etorkizuneko” arazoak eta gabeziak aztertzen zituen eta bertan, berriz ere, modernizazioaren eta industrializazioaren auziak mahaigaineratu ziren. Jardunaldi hartan Auxilio Gofik industriaren aldeko jarrera azalduz eman zuen hitzaldiaren harira El Pensamiento Navarro egunkariak egin zuen hausnarketak<sup>127</sup>, beste behin ere, modernizazioaren auziaren inguruko parametroak argi utzi zituen. Egunkari tradizionalistak, industriaren aurkariak aipatu mesfidantza eta beldurrak ulertzen zituen, baina era berean, Iruñeak gelditasuna gainditzeko eta modernizazioaren bideari ekiteko industrializazioa baino beste modurik ez zegoela onartzen zuen. Azken batean, “modu batetara zein bestera, industrializazio maitatu eta susmagarri hura eman, emango zen” eta beraz, egin beharrekoa, industrializazioaren bidea gaitzetsi baino, prozesua egokiki bideratzea zen. Hau da, Iruñeak modernizatzea ezinbestekoa

<sup>125</sup> Imenasa 1953an (Huarte y Cía eraikuntza enpresaren baitan laguntza tailer bat izan zen ordura arte) Torfinasa 1955ean eta Potasas 1960an.

<sup>126</sup> Industrializazioaren gaiak Iruñeko Udalaren baitan sortu zuen eztabaida ikusteko, Maria del Mar Larrazza, “La industrialización desde...” Op. Cit.

<sup>127</sup> “Álbum Pamplonés” El Pensamiento Navarro (hemendik aurrera PN), 1955-01-19, 8 orr.

bazuen, egin behar zena, haren nortasun tradizionala errotik aldatzen ez zuten modernizazio dinamikak lehenestea zen:

Industriaren aurreko beldurra –hura nahi edo ez, ukaezina da gertaera hari beldur zaiola-etorkizunarekiko beldurra baino ez da. [...] biziki beldur diogu gure fedearen barruko altxorraren, gure tradizioen, desagertzeari, jaio eta bizi izan garen giroaren edozein aldakuntzari. [...] Egin beharrekoa, alor espiritualean zein materialean beharrezkoa izango den guztia, ahalik eta azkarren, egokiki prestatzea da, horrela lortuko baitugu gertu dugun etorkizun hori, guk nahi dugun eran, gure alde izatea [...] horrela lortuko baitugu Iruñearen bertsio tradizionala mundu modernoan iraunaraztea [...]”<sup>128</sup>

Industrializazio eta modernizazio prozesuak planteatzen zituen arazoek artetik, kezka gehien sorrarazi zuen gaietariko bat, Iruñerako emigranteen etorrera jarraitua izan zen. Jada nabaria zen biztanlegoaren hazkunde azkarrarekin batera, hirian zailtasun materialak agertzen hasiak ziren, populazio guzti hau hartzeko espazio falta eta etxebizitzaren arazo larria, adibidez. Emigrazioak sortzen zuen kezka nagusia ordea, arazo materialen gainetik, etorkinak, iruñar gizartean modu egokian integratu ezean, hiriko tradizio eta esentzia zaharrentzako mehatxu serioa izaten ahal zirela zen. Beraz, arriskua ekiditeko, immigrazio nukleo berrien erabateko asimilazioa lortzea ezinbestekoa izango zen<sup>129</sup>. 1953an Gendulaineko meatze-putzua zabaldu zenean meatzarien asentatzea bideratzeko hobetsi zen bidea, asmo hau praktikara eramateko saiakera argia izan zen: meatzariez bakarrik osatutako herri berri baten sorrerari sumatzen zitzaizkion eragozpenen aurrean, langileak meatze-putzuaren inguruko herrixka ezberdinetan eta Iruñeko auzo ezberdinetan barreiatzea erabaki zen<sup>130</sup>, komenigarriagozat jotzen baitzen “hainbat mendetako bizimodu patriarkalaren arrastoak” gordetzen zituzten herriak handitzea, iruñar gizartearen izaerarekin alderatuta “ezaugarri erabat desberdinak” agertuko zituen herri berri oso bat jaiotzea baino<sup>131</sup>.

Nafarroako Foru Diputazioak 1964ean Industriaren Sustapenerako Plana martxan jarri zuen arte orduan, bi mentalitate ezberdinek topo egin zuten beti nafar modernizazio prozesuaren gaiari heltzen zitzaionean: tradizionala eta modernoa, nekazari-mentalitatea eta industria-mentalitatea, Industriaren aurka agertzen zena eta industrializazioa abiatuarazi nahi zuena<sup>132</sup>. Francisco Javier Caspistegui historialariak

---

<sup>128</sup> Aipatzekoa da ere erreportajearekin batera datorren argazkiaren oina, non industrializazioaren aldeko jarrera, hiriko lantegietako bat (Imenasa) goraiatuz iradokitzen da: “Bereziki industrialia izango den etorkizuneko Iruñearen lehen adierazleak sumatzen dira jada. Argazkian lantegi modernoetariko bat, hiriak harrotasunez begiratzen duena [...] Ikusi ezker aldean langileentzako eraiki den kirol-instalazioa: igerilekua, taberna, jatetxea eta hainbat joku. Politika sozial egoki bat, Iruñeako bizitza nahi dugun moduan gertatu eta hiriarentzat garapen eredu eraginkorra lortzearen sortu behako dugun tradizio berrietako bat da”. “Álbum Pamplonés” El Pensamiento Navarro (hemendik aurrera PN), 1955-01-19, 8 orr.

<sup>129</sup> Hori defenditzen zuen, adibidez, Ollarrak Diario de Navarra. “Desd’el gallo de San Cernin: Problemas de Pamplona” Diario de Navarra (hemendik aurrera DN) 1955-04-05, 10. orr.

<sup>130</sup> “Kezka egon da Nafarroan [...] gure luraren arimaren funtsezko nolakotasunen iraupenari dagokionean. Zalantzak izan dira ustiategi potasikoaren ondoan meatzarien herrixka bat sortzearen komenientziaren inguruan, langileak iritsi ahala gertuko herriak handitzea komenigarriagoa izango ez ote delakoan, bereziki modu honekin aukera gehiago dagoelako gure berezko ezaugarriak kanpotik datozen elementuen izaerarengan eragina izateko”. “Potasa, realidad. Petróleo, esperanza”, PN 1953-04-11, 6. orr.

<sup>131</sup> *Ibid.*

<sup>132</sup> “Orain dela hainbat urte gure herriaren industrializatorako erraztasunak eman izan balira, gaur egun probintzia industrializatuenean maila berean egongo ginateke. Bi mentalitate ezberdin: nekazari-mentalitatea eta industria-mentalitatea” Diario de Navarra 1967 urteko ekainean argitaratutako industriari buruzko gehigarri batean irakurtzen ahal zen titularra aski adierazgarria da, baina edukiak are ageriagoan uzten zuen Nafarroan industrializazioaren

esaterako, urte haietan emango zen mentalitateen arteko eztabaidaren ondorioz, hazkunde eta garapen ekonomikoaren hala nola eraldaketa sozialaren aldi hau Nafarroan, “modernitateak gatazkan” egongo diren denbora tarte bezala definitu izan du <sup>133</sup>. Alta, 60. hamarkadaren hasieran, industrializazioaren aldeko mentalitateak abantaila hartua zuen gaztaka honetan. Geroz eta ahots gehiagok industria, Nafarroak pairatzen zuen gaitz ororen sendagai bezala aldarrikatzen zuen<sup>134</sup>, Félix Huarte enpresariaren aginduz ekonomialari talde batek buruturiko txostena batek, industrializazioak Nafarroari emango zizkion onurez beste, prozesuaren bideragarritasuna azpimarratzen zuen bitartean<sup>135</sup>. Hala ere, Nafarroan, guztiek ez zuten gogoko industrializazioaren aukera eta gizarte sektore zenbaitetan eta are Diputazioaren baitan, Industriaren Sustapenerako Plana onartu aurretik, desadostasun hau azaleratu zen.

Aipatu gizarte sektoreei dagokionean, nafar bizitza sozial zein politikoa oraindik indar handia zuen apaizeria izan zen industrializazio prozesuaren aurka sutsuen agertu izan zenetariko bat: “*industrializazioa, Nafarroan nagusi zen apaiz-kontserbadorismoaren gainetik egin ze[n]; pertsona ona zen parroko batek [...] herrian Mina fabrika eraiki zenean hura infernuaren gelaitzina zela [ere] esan zue[n]!*”<sup>136</sup>. Industriak nafar izate tradizionala desegin eta balore kristauak arbuatuko zituelaren beldur, apaizeriak agertzen zuen industriaren aurkako jarrera hau, Nafarroan industrializazioa atzeratzen zuen faktore garrantzitsu ari zen gertatzen<sup>137</sup>. “Modernitateak gatazkan” egongo ziren bitarte honetan, hartara, industrializazioaren aldekoak, apaizen aipatu ikusmolde honek Nafarroaren etorkizunean

---

inguruan bizi izan zen eztabaida: “Industrializazioa aldaketa prozesu bat da. Eta aldaketak ohitura asko eraberritzea eskatzen du. Eta honek beti kontraktasuna eragiten du, batez ere lehen sektoreari lotuta egon ohi diren gizarte immobilisten artean. Nafarroak mentalitateen arteko norgehiagoka hau bizi du duela zenbait urtetik hona. Industrializazio prozesutik eratorzen diren fenomenoak gure herriko gizarteak behin ta berriz arbuatu izan ditu. Lantegiek kea sorrarazten zutela esan zen, industriarekin langile auzoak jaioko zirela...” DN 07-06-1967, 28. orr.

<sup>133</sup> Francisco Javier Caspistegui, “Navarra desde 1944: modernidades en conflicto”, Reyes Berruezo (koord.), *Iniciativas socioculturales en Navarra en la segunda mitad del siglo XX*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2010, 25-77 orr.

<sup>134</sup>Hala jasotzen zen behintzat Auxilio Goñik 1962ko Nafarroako Kontseilu Ekonomiko-sindikalean hazkunde industrialari buruz aurkeztu zuen txostenean. “Consejo Económico Sindical de Navarra. Segundo pleno. Las sesiones de ayer”, DN 28-02-1962, 6 orr.; edota Diario de Navarrak 1963ko otsailaren eta 1965eko martxoren artean argitaratu zuen nafar herriei buruzko erreportaje segidan, non herriek sufritzen zuten populazio galeraren arazoaren aurrean, industria konponbidea zela etengabe aldarrikatzen zen. Donezteberi inguruko erreportajearen adibidez, honakoa esaten zen: “Doneztebe, hain eder, hain erakargarri, ahultzen ari dela dirudi. Gazteek ongi ordaintzen duten lekuetara alde egiten dute lanera [...] ez da existitzen haren lantegien kearen pean herriko gazte horiek atxiki eta erakarriko dituen industria bat bera ere. Eta hori ez dago ongi. Hori [industrializazioa] kostatzen ahala kostatzen lortu beharra dago”. “Diario de Navarra en Santesteban”, DN 05-07-1963, 6. orr.

<sup>135</sup> Txosten honen berri ematen dute, besteak beste, Javier Paredesek, *Felix Huarte 1896-1971: un luchador enamorado de Navarra*, Ariel, Bartzelona, 1997, p. 267 eta Mercedes Vazquez de Pradak, “Navarra en los años sesenta: el marco histórico de la industrialización”, Francisco Javier Caspistegui eta Carmen Erro (zuz.), *De agrícola a industrial 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 13-42 orr., 29-30 orr.

<sup>136</sup> J. M. M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-04.

<sup>137</sup> Faktore hau 1967an Manuek Ferrerrek nafar industriari buruz Diario de Navarran idatzi zuen artikulu batean, hain zuzen ere “atzerapenaren arrazoi eta ondorioak” izenburua zuen atal batean, nabarmentzen zen: “Kontutan hartzen den azkeneko faktorea, 1936ko gerra zibila amaitu ta hainbat urte geroago, administrazio eta apaiz jarduerak, industrien sorreraren aurka ageriz, mentalitate hau [...] laguntzen dutela da. Lantegiei beldur zaie, berauetatik gatazka sozial eta moralak eratorzen direlako” “La industria navarra”, DN 07-06-1967, 29. orr.

izaten ahal zituen ondorioei buruzko hausnarketa bultzatu eta administrazioa industrializazio prozesuan inplikatzen saiatuko ziren.

Modernitateari buruzko mentalitate ezberdinen arteko lehia hau, Foru Diputazioaren baitan eman zen ere. Javier Paredesek, Félix Huarteren biografian, enpresariaren eta Amadeo Marco diputatuaren figurak kontrajarriz azaldu zuen konfrontazio hau. Huartek ikuskera industrialia irudikatzen zuen, Nafarroa espainiar estatuko probintzia garatuenera atzean ez geratzeko eta Espainian berezko pisua izango zuen eskualdetzat gailentzeko, industria sustatu nahi zuena. Harentzat, “garapen ekonomikoa bultzatzearen beharra bazterrean uzteak, Nafarroaren desagertze fisikoarekin konformatzea suposatzen zuen praktikan”, izan ere, modernizazio eta industrializazio prozesuak martxan jartzen ez baziren, probintziak bere espiritualtasuna mantenduko zuen, “baina bizimodu xebleen museo bezala baino ez zuen biziraungo”. Enpresariaren aurrean, Amadeo Marco aipatu nekazari-mentalitatearen ordezkaria izan zen, industrializazioaren aurrean Nafarroa tradizionalaren, nekazariaren eta espiritualaren utopia iraunarazi nahi zuena<sup>138</sup>. Felix Huarte irten zen garaile nolabait, enpresaria Diputazioaren buru zela, honek, modernizazioa industrializazioaren bidetik eramatearren, 1964ean Industriaren Sustapenerako Plana abian jarri baitzuen.

Foru instituzioak martxan jarri zuen plan honekin, administrazioak beregain hartu zuen nafar garapenaren dinamika bideratzeko ekimena. Baina azkenean mentalitateen arteko norgehiagokan bide industrialia hobetsi zen arren, planaren bultzatzaileek, garapen ekonomikoaren eta nafar izaera tradizionalaren oinarriko ezaugarrien artean oreka mantentzea posiblea zela izan zuten gogoan. Honela, 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkadaren hasieran eredu ekonomiko alternatibo baten inguruko hausnarketa planteatu zutenean, Nafarroarentzat proposatu zuten industrializazio eredu, industria ekonomiak ematen zituen abantailak eta nekazal munduko baloreak, ezaugarriak eta giroa uztartzean oinarritu zuten, “modernizazioaren etorrera-tradizioaren desagertzea” dialektikak Nafarroan eraginik izan ez zezan<sup>139</sup>.

Baina, posiblea al zen nafar “esentziarengan” eraginik izango ez zuen garapen industrialia sustatzea? 60. hamarkadaren bitartean nafar gizarteak biziko zituen eraldaketa sakonei begiratuta, oso zaila izan zela esan daiteke. Modernizazioak abian jarri zituen eraldaketa sozial eta ekonomikoak geroz eta nabariagoak egiten ziren heinean, nafar gizartearen mentalitate eta portaerak ere, Nafarroa nekazari, tradizional eta elizkoiari berezkoak zitzaizkionetaz aldentzen hasi ziren. Esate baterako, aldaketak are nafar ospakizun tradizionalenetan agerikoak izan ziren; Sanferminak, nekazal jai eredu tradizionala atzean utzi eta errealitate hiritar berrira egokitzen ziren; Jurramendiko ospakizuna, Nafarroako amen erromesaldi eliztar izatetik, ekitaldi sozial eta politiko izatera igarotzen zen; eta “Javierada” delakoa, erromesaldi erlijioso beharrean, parrandarako aitzakia zirudien<sup>140</sup>. Tradizio hauen aldaketek adierazten

<sup>138</sup> Javier Paredes, *Felix Huarte 1896...* Op. Cit.; nafar industrializazioarekiko Felix Huarteren jarrera, 270 orr. eta Amadeo Marcoren 272 orr. Bertan jasotzen den Juan Andrés Ciordia, 60. hamarkadan nafar Diputazioko Hezkuntza Zuzendari izandakoaren testigantza honek ongi adierazten du bi mentalitate hauen arteko lehia: “Gogoan izan behar dugu Nafarroan, balore tradizionalen errotutako Nafarroa idiliko eta nekazari baten aldeko korrante oso indartsu bat existitzen zela [...] Hemen, Nafarroa industrializatu behar ez zela zioten gizonak zeuden [...] hemen jada oso ongi geundela”, 300-301 orr. Amadeo Marcoren figurari buruz gehiago, Francisco Javier Asín Semberóiz, *Amadeo Marco Ilincheta: semblanza de un político navarro en el siglo XX*, F. J. Asín Semberóiz, Iruñea, 1996.

<sup>139</sup> Berriazko modernizazioaren eredu horren inguruan: Francisco Javier Caspistegui, “Navarra desde 1944...” Op. Cit., 44-45 orr.

<sup>140</sup> Sanferminen eta Jurramendiko erromesaldiaren aldaketei buruz ikusi Francisco Javier Caspistegui, “Navarra desde 1944...” Op. Cit., 46-47 orr. “Javieradari” buruz ikusi Idoia

zutenez, 60. hamarkadan, Nafarroa tradizionalaren zerizana erremediorik gabe ari zen desitxuratzen.

### 1.3.3 Modernizazioaren elementuak: Industria eta gizartearen dinamika

Aurreko atalean ikusi ditugun eraldaketa prozesuek, euren ibilbidea izan zuten Nafarroan ere 60. hamarkadaren bitartean. Oso prozesu bizkor batean, probintziak herri nekazaria izateari utzi zion, herri industrial gisara itxuratu zelarik. Hogeitaz eskasen buruan (1955ean oraindik gizarte nafarra nabarmenki nekazaria zen eta 1975ean jada gizarte industrial batez hitz egin ahal dugu), gizarte eta ekonomia egiturak aldatzeaz beste, bizimoduak, pentsamoldeak, portaerak eta tradizio politikoak ere oso azkar eraldatu ziren, Nafarroa eduki tradizionalista eta kontserbadore indartsuko probintzia nekazari bezala definitzen zuten ezaugarriak nolabait irauliz<sup>141</sup>. Prozesu honetan, industrializazioa eta egitura sozialaren eraldaketa izango dira engranaje lehenak.

#### *Nafar industrializazio prozesua*

Nafarroako industrializazioaren dinamikaz aritzerakoan, begi bistako bi aspektu nabarmentzen ahal dira lehenik eta behin: alde batetik, prozesu berantiarra izan zela, funtsean ez baitzen 60. hamarkadara arte behin betiko garatzen hasi; bestetik, prozesu bizkorra izan zela, ordutik aurrera industriaren garapena bizia eta jarraitua izan baitzen. Prozesu honetan, Industriaren Sustapenerako Plana nafar industrializazioaren mugari nagusizat hartu izan da, Nafarroari buruz errealitate industrial gisara mintzatzen hasteko, hura martxan jarri zeneko urtea, 1964, abiapuntua izan ohi delarik. Alta, plana bere testuinguruan kokatzen badugu, industrializazio prozesuaren abiapuntua izan baino, hura bizkortu egin zuen funtsezko inflexio puntua izan zela ikusiko dugu. Azken batean, 50. hamarkadaz geroztik, joera industrializatzaile bat martxan zegoen jada Nafarroan eta zentzu honetan plana, berez, joera hori indartzeko, prozesuari jarraipena emateko eta industria eredu jakin bat lehenesteko behin betiko bultzada izan zen.

Industrializazio prozesuak arrakasta izateko funtsezkoak izan ziren faktoreen artetik, Joseba de la Torre historialariak, bereziki, hiru azpimarratzen ditu: 50. hamarkadatik aurrera gailentzen hasi zen fabrika eta sektore garrantzitsuez osatutako oinarritzeko industria egitura; metalaren eta automobilgintzaren exijentzia teknologikoak asetzeko gai zen giza kapitalaren erabilgarritasuna (langile kualifikatuak); eta ekimen publikoaren inplikazioa, bai industria politika aktibo bat indartzeko eta baita ere, zergapizgarrien bitartez, lurraldera enpresa berriak erakartzeko<sup>142</sup>. Hiru faktore hauek izango ditugu hizpide nafar industrializazioaren dinamika azaltzeko .

50. hamarkadaren bitartean, ondorengo hamarkadan emango zen garapen industrialaren protagonista izango ziren sektoreez eta enpresez osatutako oinarritzeko manufaktura egitura bat osatuz joan zen. 1950ean, Nafarroan, bigarren sektorearen

---

Estornés, *Cómo pudo pasarnos Esto. Crónica de una chica de los 60*, erein, Donostia, 2013, 168 orr: "60. hamarkadan (...) "Javierada" bi sexueta nafarren ospakizun folkloriko bat zen, kirol balentria eta parranda etilikoa uztartzeko aukera paregabea. Eliza orduan kezkatzen hasi zen, batez ere nesken mutilen ibilaldian nahastean hasi zirenean eta mutilak, "Zangotzako gauaren esperoan", Xabierrera nesken egunean joaten hasi zirenean".

<sup>141</sup> Javier Colomo, "El desarrollo industrial..." Op. Cit., 726 orr. Zentzu honetan autoreak, ideologia kontserbatzaileak Nafarroan zuen hegemoniaren galera, eraldaketa sozioekonomikoaren prozesuarekin jartzen du zuzenean harremanetan.

<sup>142</sup> Joseba de la Torre, "Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (1950-1980", *Gerónimo de Uztariz*, 22. zkia, 2006, 75-103.



nolabaiteko jarduera ekonomikoa atzematen zen. losu Ardaizek orduko industriaren egitura aztertu zuen eta hamarkadaren hasierako nafar industriaz irudi bat egiteko baliagarria den datu sorta jaso zuen<sup>143</sup>. Garai hartan enpresa asko zegoen, baina gehienak tamaina txikikoak ziren, XX. mendearen erdialdean nafar industriak oraindik artisau-egitura bat mantentzen zuela agerian utziz. Ildo horretan, aktibitatearen sektorekako banaketak adierazten zuenez, jarduera industrialen artean, artisautza tradizionalarekin lotutakoak nagusi ziren: lehengaiekin edota nekazaritzarekin zerikusirik zuten jarduerak indarra zuten, batez ere elikagaigintzak; industriak kimikoeak, papergintzak eta ehungintzak, kontutan hartzeko presentzia zuten, bereziki Iruñean; larruaren eta egurraren industrietan, artisauak, zapatarriak eta zurginak gailentzen, ziren; metalaren alorra oraindik errementarien, sarrailegien, soldatzaileen eta burdinzurigileen jardueratan oinarritzen zen; eraikuntzarena, hazkunde jarraituan zegoen sektorea zen; eta jostunen, ile-apaintzaile edo bizargileen eta ikazkinen ofizioek, oraindik nabarmentzekoa zen jarduera maila mantentzen zuten. Kontsumo hiritarra asetzera bideratutako industria jarduerak ziren.

Enpresen antolaketa moldeak ere adierazgarriak dira zentzu honetan. 50. hamarkadaren bitartean, industria enpresen %16ak bakarrik enplegatzen zuen bost langile baino gehiago eta 1960an, langileen %25a baino gehiago ez zen oraindik soldatapekoa<sup>144</sup>. Bi datu esanguratsu hauek, nafar enpresen izaera familiarra eta langile beregainen kontutan hartzeko pisua azaleratzen dute nolabait. Horretaz gain, enpresak horren txikiak izaterakoan, jarduera txikia izan ohi zuten ere, hein handi batean oso teknologia gutxi erabiltzen zutelako eta euren merkatua zabaltzeko baliabiderik ez zutelako. Halako enpresa egiturak, jarduera industrialaren sektorekako banaketak egin bezala, nafar ekonomia industrialak, industria kapitalista modernotik baino, artisautza jarduera tradizionaletik gertuago zegoela azaleratzen du ere.

50. hamarkadan zehar abiatuko zen garapen industrialak beraz, minifundismoan oinarritutako artisautza egitura hau atzean utzi behar zuten, nafar industria egitura, fabrikari oinarritutako industria kapitalistaren egituraren bidetik eramateko. Beharrezko ekimen eraberritzaile hau hainbat nafar industrialarien eskutik eta Euskal Herriko beste probintzietatik eta Kataluniatik sartzen hasi zen kapital pribatuaren eskutik etorri zen, probintziaren garapen industrialak bultzatzeko inbertsio garrantzitsuak egin baitzituzten<sup>145</sup>. Honela, ekimen pribatuaren pizketa honi esker eta Iruñeko Udaletik eta Foru Diputaziotik sustatu ziren industriaren babeserako lehen neurriek esker<sup>146</sup>, nafar hazkunde industrialaren oinarrian egongo zen industria egitura berri bat osatu ahal izan zen hamarkadaren amaierarako.

Industriaren egituraren aldaketa esanguratsuak atzematen dira losu Ardaizek, 1958ko industria erroldatik abiatuta, jaso zuen datu sorta berri batean:

---

<sup>143</sup> Ikusi losu Ardaiz, *Navarra elementos para su desarrollo regional*, I. liburukia, Eusko Ikaskuntza, Iruñea, 1980, 19-20 orr.

<sup>144</sup> Lehenbiziko datua: losu Ardaiz, *Navarra elementos para...* (I) Op. Cit., 20 orr.; bigarren datua: Javier Paredes, *Felix Huarte 1896...* Op. Cit., 312 orr.

<sup>145</sup> Ikusi tokian tokiko zein Euskal Herriko beste probintzietako eta Kataluniako kapitalen inbertsioei buruzko datuak: Joseba de la Torre "Instituciones, empresarios y mercado: la industrialización navarra bajo el franquismo", *Revista de historia industrial*, 27. zkia, 2005, 121-160 orr., 140-141 orr. 50. hamarkadan zehar ekimen eraberritzailea azaldu zuten industrialarien artean, figura nabarmenduenak Felix Huarte izan zen, orduan hasi baitzen bere jarduerak industrialak dibertsifikatzen eta bere enpresa-talde handia osatuko zuten enpresa berriak sortzen.

<sup>146</sup> Esan bezala, Iruñeko Udalak 1954ean adostu zituen industriaren babeserako lehenbiziko neurriak. Diputazioak bere aldetik, adibidez industria eraikinentzako aldi baterako zerga salbuespenekin, eman zituen lehen pausuak. Ikusi I losu Ardaiz, *Navarra elementos para...* (I) Op. Cit., 24 orr.

elikagaigintzaren sektorean, kontserbagintzaren goraldiari esker, bost langile baino gehiago enplegatzen zuten enpresen kopurua handitu zen, sektorean aritzen zen langileriaren laurdena, fabrika berri hauetan biltzen zelarik; ehungintzan, jantzigintzan eta zapatagintzan oraindik ofizioak nagusi ziren arren, langile kopuru nabarmena enplegatzen zuten enpresa berriak ageri ziren; Industria kimikoetan, osotara mila langile baino gehiago enplegatzen zituzten hogeita bi enpresa zeuden; eraikuntzaren sektoreak hazkunde prozesu nabarmena bizi zuen, populazioaren eta hiriburuaren hazkundearen ondorioz; eta metalaren alorrean, manufaktura tradizionala atzean uzten zuten jarduera berriekin batera, sektorean puntakoak izango ziren enpresa garrantzitsuak agertzen hasten ziren jada<sup>147</sup>. Nafar industria, artisautzaren aldia gainditzeko bidean zegoen jada.

Honela, gerora nafar garapen industrialean protagonista izanen diren hainbat enpresen ezarmenduarekin, 50. hamarkadan dagoeneko, probintzian lehenbiziko industria nukleo garrantzitsuak sortu ziren: Siderurgian, *Inasa* eta *Fasa*; makineria eta industria metalikoetan, *Agni*, *Super Ser*, *Imenasa*, *Torfinasa* eta *Girling*; eraikuntzaren sektorean *Portland* zementu fabrika eta *Huarte y Cia.*; Industria kimikoan, *Inquinasa*, *Penibérica* eta *Potasas de Navarra*; papergintza, prentsa eta arte grafikoetan, *Onea* eta *Papelera Navarra*; eta elikagaigintzan, bereziki bi hestebete enpresa, *Mina* eta *El Pamplonica*<sup>148</sup>. 50. hamarkadaren bitartean finkatu ziren fabrika “goiztiar” hauei buruzko ohar adierazgarri bat: haietariko asko, 60. hamarkadaren amaierako eta 70. hamarkadaren hasierako langile jarduera eta protestaren erreferentziatzko fabrikak izan ziren. Orduko gaztaka nagusien protagonista nabarmenenak izango direnetatik, soilik Authi automobil lantegia -1966an jaioa- eta 60. hamarkadaren hasieran finkatzen hasi ziren automobilgintzaren zenbait enpresa laguntzaile ez ziren 50. hamarkadaren bitartean sortutakoak.

Nafar industriaren mailaz-mailako egituraren eraldaketaren beste adibide adierazgarri bat, 50. hamarkadako enpresariaren profilean atzematen den eraberritzea da. 40. hamarkadako, eraikuntzaren sektoreko enpresaria bazen; 50. hamarkadako, enpresari sortu berria, metalaren sektoreari –makineria, etxetresna elektriko edota automobilen osagarrien ekoizpenari- lotuta agertzen zen. Felix Huarteren enpresa ibilbideak esaterako, oso ongi islatzen du profil batetik besterako igarobidea: 20. hamarkadaz geroztik eraikuntzaren munduan sartuta, haren jarduera industrial metalaren produktuetara bideratu zuen 50. hamarkadan, batez ere Imenasa enpresaren sorreraz geroztik. Enpresa hau, jatorrizko eraikuntza enpresaren tailer laguntzaile bezala jaio zen; gero, manufaktura txikiak eta hormigoi-makinak ekoizteko tailer handiago batean bihurtu zen; eta azkenean, garabiak, auto direkzioak eta hotzeko ijezlanak egiten zituen fabrika handi bezala egonkortu zen<sup>149</sup>. Huarteren enpresari bezalako ibilbideak berak zentzu honetan, nafar industria metalaren sektorean eta automobilgintzan espezializatzeko bidean zegoela agerian uzten du nolabait.

1960. hamarkadaren hasierarako jada, automobilgintza, jarduera industrial bezala nabarmentzen hasia zen. Izan ere, 50. hamarkadaren erdialdeaz geroztik, espainiar merkatuaren eskaria asetzeko, automobilen osagarriari lotutako oinarritzko tailer eta fabrika sare bat osatuz joan zen, honekin balazta sistema, kolpe-motelgailu, karrozeria, eserleku edota abiadura aldagailuen fabrikaziorako espezializazioa

---

<sup>147</sup> Iosu Ardaiz, *Navarra elementos para... (I)* Op. Cit., 21 orr.

<sup>148</sup> *Ibid.*, 23 orr.

<sup>149</sup> 40 eta 50. hamarkadetako Nafar enpresariaren profilen deskribapena eta Huarteren enpresari bezalako ibilbidea, Joseba de la Torre, “Instituciones, empresarios y...” Op. Cit., 143-144 eta 145, hurrenez hurren. Huarteren ibilbideari buruz gehiago, noski, bere biografian, Javier Paredes, *Felix Huarte 1896...* Op. Cit., 152-176 orr.

bideratzen ari zelarik. Hala ere, hastapen une hauetan, automobilgintzaren enpresa osagarrien sare hura tailer txiki eta ertainek osatzen zuten oraindik eta, ondorengo urteetan sektorean puntakoak izango ziren enpresetatik, solik *Imenasa* eta *Frenos Urra* martxan ziren 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkadaren hasieran. Sektorearen gainontzeko enpresa garrantzitsuak, Industriaren Sustapenerako Planaren eta kanpo inbertsioen eskutik sortuz joan ziren<sup>150</sup>. Automobilgintzaren behin betiko sendotzea 1966an gertatu zen, Landaben industria poligonoan, aurreko urteetan arrakastarik gabe horrenbeste bilatu zen automobil fabrika handi bat finkatu zenean<sup>151</sup>. Fabrika hura, Authi, industrializazio prozesua gauzatzeko Nafarroan lehenetsi zen eredu espezializatuaren adierazle nagusienean bilakatu zen.

Nafar garapen industrialean lagunduko zuen bigarren faktorea, langileen formakuntza teknikoa izan zen. Industrializazioa metalaren eta automobilgintzaren bidetik eraman ahal izateko, sektorearen beharkizun teknologikoak asetzeko gai izango zen giza kapitala prestatu beharra zegoen; hau da, industria ofizialak eta maisuak behar ziren. Hauen gabezia agerikoa zen Nafarroan, bai nekazal mundutik etorritako emigranteek osatzen zuten lanekuak, orokorrean, industria ezagutzarik ez zuelako eta baita ere, nafar industria egituran tamaina handiko enpresarik ez zegoenez, langilegoak ordura arte “tailer-ikastunaren” figuraren bidetik baino kualifikatu ezin zirelako<sup>152</sup>. Lanbide Heziketarako politika eraginkor bat bultzatzea ezinbestekoa zen industrializazioaren erronkari heltzeko.

50. hamarkadaren bitartean, Lanbide Heziketa sustatzeko eskola profesionalen oinarrizko egitura sortu zen Nafarroan<sup>153</sup>. Foru Diputazioa izan zen haren osaketaren bultzatzaile nagusia, industria espezializazioarengatik apustu eginez, hezkuntza eta formakuntza profesionalera bideratutako baliabide probintzialak zortzi aldiz handitu zituelarik. Alta, irakaskuntza profesionalaren alorrean atzematen ziren beharrek, oraindik ahalegin gehiago egin behar zela agerian uzten zuten. Honengatik, nafar Lanbide Heziketaren sistemak, eskola profesionalen titulartasunaren eta irakaskuntza modalitateen aniztasuna izan zuen bereizgarritzat eta Diputazioak, Estatuak, Erakunde Sindikalak edota enpresek berek sustatzen zituzten eskoletan, maila ezberdineko ikasketa profesional eta teknikoak eskaini ziren. Honela, salearrek kudeatzen zuten Diputazioaren eskola profesionalean edota *Imenasak* eta *Potasasek* martxan jarri zituzten enpresa eskoletan, ofizialtza eta maisutza ikasketak eskaintzen ziren; Estatuak 1956an Altsasun sortutako institutuan eta, Iruñeako enpresari talde batek

---

<sup>150</sup> Hau izan zen, adibidez Eaton Ibérica enpresaren kasua. 60. hamarkadaren hasieran jaio zen, Tracsa izenarekin. Kamioientzako ardatzak egiten zituen. 1962an laurogei langile enplegatzen zituen eta 1943an ehun eta berrogei. 1964ko uztailan, Industriaren Sustapenerako Plana onartu berria zela, enpresak hitzarmen bat egin zuen Ohioko enpresa batekin, kapitala gehitu eta Eaton Ibérica enpresa berria sortzeko. “Una empresa de Pamplona firma de la EATON de Ohio”, DN 07-07-1964, 9 orr.

<sup>151</sup> 1966a baino lehen Nafarroan automobil fabrika bat ezartzeko ahaleginen porrotari buruz eta honen ezean garatu zen automobilgintzaren enpresa osagarrien sareari buruz gehiago, Joseba de la Torre “Industria del automovil y desarrollo económico regional: la experiencia de Navarra (1955-1980)”, *Investigaciones de historia económica*, 9. kua, 2007, 109-140 orr. Bertan, enpresa osagarrien sare hau Authi Iruñean ezartzeko oso lagungarria izan zela ikusten ahal da.

<sup>152</sup> Joseba de la Torre, “*Trabajadores, empresarios y...*” *Op. Cit.*, 77 orr.

<sup>153</sup> Nafarroako lanbide heziketaren azterketa espezifiko bat, Francisco Javier Caspistegui, “La formación profesional en Navarra (1939-1964)”, Francisco Javier Caspistegui eta Carmen Erro (zuz.), *De agrícola a industrial 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 43-103 orr. Autoreak Industriaren Sustapenerako Plana abian jarri aurretik lanbide heziketak Nafarroan izan zuen ibilbidea aztertzen du, ongintzazko lan gisara ulertua izatetik, industrializazioak berekin ekarriko zituen produkzio prozesu konplexuagoen beharrei erantzutearren, ikuspegi ekonomizista batetik begiratuta izatera eramango duena. Lanbide Heziketa begiratzeko ikuspegi hau Joseba de la Torrek ere aztertu izan du, “*Trabajadores, empresarios y...*” *Op. Cit.*, ikusi 76-80 orr., “Formando trabajadores para el desarrollo industrial” izenburuko atala.

sustatua, Opus deia-ak kudeatzen zuen Irabia institutuan, lan batxilergotik jotzeko aukera zegoen; Goi-mailako ikasketak, Diputazioak sortutako Sarioko Ingeniari Teknikoen Eskolan burutzen ziren; eta honetaz aparte, Eskola Sindikalean ere hainbat gradu edota ikastaro egiteko parada zegoen<sup>154</sup>.

Ikasketa ofizialez aparte, bestelako hainbat erakundek ere, langileen oinarrizko formakuntzan eta gaikuntza profesionalean laguntzeko bestelako eskola eta ikastaro ekimenak abian jarri zituzten. Alde batetik, kongregazio marianoen hala nola Acción Católicaaren San José Obreroren ikasgelatan, ehunka langilek eta ikastunek eskola teoriko eta praktikoa jasotzen zituzten lanbide hezkuntzarako hastapen estimagarri bezala<sup>155</sup>. Bestetik, ikasketarik gabeko langile esperientziadunek, fabriketan eta lanean lortutako formakuntza praktikoa osatu ahal izateko, onarpen ofiziala zuten gaikuntza eta hobekuntza ikastaroak burutzen ahal zituzten<sup>156</sup>. Orduan abian jarri ziren heziketarako ekimenak ordea, ez ziren soilik langileengana zuzendu eta teknikari hala nola erdi-mailako kudeatzaileen prestakuntzan laguntzen zuten hainbat ekintza sustatu zen ere, Iruñean jesuitek zuzendutako erdi-mailako kudeatzaileen eskola edota enpresaren eta lanaren antolaketaarako molde berriekin zerikusirik zuten kronometrajearen edota automatismoen inguruko ikastaroak kasu<sup>157</sup>.

50 eta 60. hamarkaden bitartean esparru guzti hauetan ematen zen formakuntza profesional hura, gainera, industrializazio modelo jakin baten sustapenera bideratuta zegoen. Honela, garai hartan Lanbide Heziketako ikasketak burutu zituzten ofizialak eta maisuak, bereziki metalaren eta elektronikaren alorretan formatu ziren; teknikariak eta ingeniariak, teknologia berrien erabileraren jantzita irten ziren Institutu eta goi-eskolatatik; eta enpresatan kudeatzaile izango zirenak, enpresa eta produkzio prozesuen antolakuntza eredu berrietarako prestakuntza jaso zuten. Zentzu honetan, giza kapitalaren prestakuntzak ere, langileak bereziki alor industrial batzuetarako prestatu zituenez, nafar industrializazioaren espezializazioa sustatu zuela esan daiteke.

Elikagaigintza bezalako sektore tradizionalak mantendu zuten pisuari esker nafar industriak nolabaiteko dibertsifikazioa azaltzen bazuen ere, 50. hamarkadaren bitartean osatutako oinarrizko manufaktura egiturarekin eta bideratutako Lanbide Heziketarako politikarekin, metalaren sektorean -galdaketan, metalezko transformadoreetan, makinerian eta tresnerian, hala nola automobilgintza eta haren

---

<sup>154</sup> Formakuntza erakunde hauen ikasturte hasierak eta bukaerak presentzia handia izan zuten 60. hamarkadako prentsan, burutzen zuten lanari ematen zitzaion garrantziaren isla. Adibidez, "Alsasua. 225 alumnos cursan estudios en el Instituto Laboral S. Miguel de Aralar", DN 15-05-1963, 12. orr.; "Ayer fue inaugurado el curso 64/65 en la Escuela Sindical", DN 08-10-1964, 7 orr.; "Inauguración del curso en las Escuelas Salesianas Profesionales", DN 18-10-1964, 7 orr.; "Apertura del curso en el Instituto Irabia", DN 25-10-1966, 20 orr.; "La Escuela de Ingeniería Técnica Industrial El Sario abrirá sus aulas el próximo mes de octubre", 15-05-1969, 20 orr.

<sup>155</sup> Nabarmentzekoa da erakunde hauen jardura formatiboa, bai oinarrizko hezkuntzan eta baita hezkuntza profesionalean ere, inolako formakuntzarik gabeko langileek (emigranteak, helduak) eta hezkuntza formalerako baliabide ekonomikorik ez zuten langileek gutxieneko jakintzak jasotzea bermatzen baitzuten. Gainera, alor formatiboaz beste, erakunde hauek langileentzako berezko aisialdirako esparruak barne hartzen zituzten, klase haiek, berauetara sartzeko lehenbiziko pausua izaten ahal zirelarik. Jesuiten Zentro Marianoan gauetz ematen ziren klaseak, "240 obreros estudian en las escuelas nocturnas de la congregación Mariana", DN 22-11-1963, 13 orr.; eta "Oscus" delako gizarte ekintzak ematen zituenak, "Nuevo curso en la obra cultural y social Sopeña", DN 24-10-1965, 8 orr.

<sup>156</sup> Adibidez "Termina el primer curso de formación profesional intensiva. 90 nuevos oficiales en 6 meses de aprendizaje", el DN 10-10-1963, 7 orr.

<sup>157</sup> "Ante el curso de la escuela de mandos intermedios de Pamplona", DN 14-10-1965, 16 orr.; "Cursillo de automatismo en las escuelas salesianas", DN 26-06-1964, 5 orr.; edota "Nuevo curso de formación completa de Cronometradores", 13-04-1971, 8 orr.

osagarrietan- oinarritutako espezializazioa bideratu zela argi dago. Bi adierazle, sektorearen enpleguaren bilakaera eta produkzioaren bolumena, metalaren nagusigo honen adibide adierazgarriak dira. Enpleguari dagokienean, metalarena izan zen 60 eta 70. hamarkadetan bilakaerarik bizkorrena ezagutu zuen sektorea: 1978an bostehun langile baino gehiago enplegatzen zituzten hamazazpi fabriketatik, hamabi metalaren sektorekoak ziren; are gehiago, metalaren sektorekoa zen (metalezko transformadoreak) bitarte honetan lanesku kopuru gehien enplegatu zuen jarduera industriala<sup>158</sup>. Produkzioaren bolumenari erreparatzerakoan, metala gainontzeko sektoreen gainetik nabarmentzen dela ikusten ahal da: 1963-1967ko denbora tartean, metalaren ekoizpena, industria ekoizpen totalaren %27,5a izan zen; 1968-1972koan, %33,4a; eta 1973-1977koan, %42,2a<sup>159</sup>.

Nafar industrializatzeko funtsezkoa izan zen hirugarren faktoreak, ekimen publikoak, espezializatorako joera hau sendotu eta are sakondu egin zuen. Ikusi dugun bezala, nafar industrializazioa sustatzeko, 60. hamarkadaren hasieratik metalurgiaren, automobilgintzaren, etxetresnen edota makineria elektronikoaren alorretan sortzen ari ziren merkatu aukerez probetxu atera nahi zuen ekimen pribatua oinarritzeko izan bazen; industria joera honengatik apustu egin eta industrien ezarpeneko lurzoru merkea eskainiz, finantza baliabideen gabezia dirulaguntzen bitartez arinduz edota enpresak erakartzeko zerga salbuespenen bidezko pizgarriak emanez, benetako politika industriala abian jarriko zuen ekimen publikoa ezinbestekoa izan zen. Aipatu gaitasunekin, ekimen publikoak, industrializazio prozesua nahi izan zuen bidetik zuzentzeko aukera izan zuen. Zentzu honetan, Foru Diputazioaren Industriaren Sustapenerako Planaren proiektuak industriaren espezializatorako ekintza espezifikorik aurreikusten ez zuen arren, laguntza publikoen banaketak, espezializazio hura indartzen lagundu zuen, laguntzak ematerakoan, metalaren sektoreko eta automobilaren alorreko barne eta kanpo enpresa handiei lehentasuna eman baitzitzaien<sup>160</sup>.

Zenbait datuk, ekimen publikoak industria eredu jakin bat lehenetsi egin zuela islatzen du argi eta garbi<sup>161</sup>: bere lehenbiziko 6 urteetan, planean babesa hartu izandako enpresen %6ak, dirulaguntza publiko guztien %77a jaso zuen, automobil fabrika batek, bi ijeste galdategik, automobilaren lau enpresa osagarriak, hiru paper fabrikek eta bi elikagai fabrikek, programak aurreikusitako laguntzen hiru laurden bereganatu zituztelarik. Guztiak tamaina handiko enpresak ziren, lanesku kualifikatua enplegatzen zutenak eta puntako teknologia berriek kontsumitzen zituztenak. Planaren helburu nagusia, hartara, Authi automobil fabrika bezalako proiektu handiak erakartzea zela esan daiteke. Hala ere, Industriaren Sustapenerako Planak, aurreko hamarkadan martxan jarri ziren jarduera eta enpresen sendotzean eta zabalkuntzan lagundu zuen ere. Gutxi gora behera programan babesa hartu zuen proposamenen erdia, garapen industrialaren hastapenetan martxan jarri ondoren, orain, ekimen publikoaren laguntzaz, negozioa hedatu nahi zuten enpresariak egindakoa zen. Honekin, industrializazio prozesurako faktore bezala nabarmentzen genuen oinarritzeko manufaktura egitura hura, planaren bitartez hazi eta zabaldu egin zen.

---

<sup>158</sup> Jose Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...*, 35 orr. Metalaren sektoreak Nafar industrian zuen pisua ikusteko, losu Ardaiz, *Navarra elementos para su desarrollo regional*, II. liburukia, Eusko-ikaskuntza, Iruñea, 1981, 447-449 orr.

<sup>159</sup> Datuak: Joseba de la Torre, "Trabajadores, empresarios y...", Op. Cit., 82 orr.

<sup>160</sup> Ekimen publikoak, Industriaren Sustapenerako Planaren bitartez, nafar industria metalaren sektorean eta automobilgintzaren adarrean espezializatzen nola lagundu zuen ikusteko, Joseba de la Torre, "*Instituciones, empresarios y...*" Op. Cit.

<sup>161</sup> Datuak: Joseba de la Torre, "*Instituciones, empresarios y...*" Op. Cit., 132-133 orr.

Ilido berean, industria sektoreei dagokienean, planak aurreikusitako dirulaguntzen banaketa desorekatua izan zen. Industria sektore tradizionalak jaso zuten laguntza, kontutan hartzekoa izan zen. Elikagaigintzak adibidez, portzentaje garrantzitsua hartu zuen, batez ere zenbait harakintza eta kontserbagintza enpresak (kontuan izan behar dugu elikagaigintza hiriko kontsumo eredu berriei egokitu beharra zuela). Baina kontsumo ondasun iraunkorren (automobilak eta etxetresna elektrikoak) eta hornidura ondasunen (metala) alorreko enpresei eman zitzaizkien laguntzen bolumenaren aldean, txiki geratu ziren. Desoreka honekin ekintza publikoak azken alor hauei eman ziren lehentasun estrategikoa, metalgintzan eta automobilgintzan oinarritutako industria egitura finkatzeko funtsezkoa izan zelarik<sup>162</sup>.

Industria egiturarekin eta espezializazioarekin batera, nafar industrializazio prozesuaren beste ezaugarri nagusienetarikoa bat, Iruñea, probintziaren erabateko erdigune sozioekonomikoan bilakatu zela izan zen. Hiriburuak probintzian zuen pisu sozial eta ekonomikoa ez zen inolaz ere berria eta nagusitasun hau industrializazioarekin are gehiago handitzen ahal zelako, Industriaren Sustapenerako Planak, Nafarroa osotik garapenerako guneak aurreikusi zituen arren<sup>163</sup>, praktikan “makrozefaliarako” joera hura bizkortu baino ez zuen egin. Azken batean, zaila zen tradizioaren eta modernitatearen arteko oreka mantentzea helburu zuen nekazal munduari eusteko politika, industrializazio azkarrak sorrarazten zituen behar berriekin bateragarri egitea. Esate baterako, hiriburuak probintziako beste edozein eremu baino azpiegitura hobetoak eskaintzen zituzenez, segurtasun gehiago ematen zien enpresariei euren inbertsioak egiterakoan: aurreko hamarkadatik Iruñean funtzionatzen zuen industria osagarrien sarea, komunikazioak, lanekuaren kontzentrazioa, bizitza maila egokia edota hezkuntza bezalako elementuek, hiria erakargarriagoa egiten zuten, zalantzarik gabe. Baina honekin batera, ekimen publikoak, Industriaren Sustapenerako Planarekin industriak lurralde osotik sakabanatzeko asmoa agertzen bazuen ere, praktikan “makrozefaliarako” bidea indartu zuen, halaber, Iruñerrian dirulaguntza publikoarekin babestutako industria poligono oso handi bat sustatuz, bereziki.

Ikusi dugun sektore industrialaren garapen honek, nekazaritzaren sektorean aldaketa sakonak eta azkarrak abiarazi zituen, nekazal gizarte tradizionalaren krisia piztuz. Azken batean, garapen industrialak berak, nekazaritzaren birmoldaketa az eta sakon baten beharra zuen. Nekazal munduan bizi ziren arazo ekonomikoek, nekazaritzaren batezbesteko soldaten hazkundera bizitza kostuaren adierazgarrien oso azpitik zegoela kasu, populazio nekazaria, Iruñerriko fabrika berrietan lana bilatzera behartzen zuten eta honek herriak eta lurak husten zituen. Modu honetan, aldaketa ekonomiko, produktibo eta sozial garrantzitsuak gertatu ziren nekazal munduan. Hasteko, nekazal kapitalismoaren biziagotzeak, ustiatzearen birmoldatzea eragin zuen, ustiatze ertain eta txiki asko desagertu zelarik. Izan ere, ustiatze handiek makineria modernoaren, aurrerapen zientifiko-teknikoen hala nola komertzializazioaren beharrei aurre egiteko gaitasuna zuten bitartean, nekazari ertain eta txikiak ezin zuten makineria erosi eta ez zuten komertzializazio sare egoki baterako inolako sarbiderik. Honek, ageriko ondorioak izan zituen Nafarroan ibilbide luzea zuen nekazal

---

<sup>162</sup> Joseba de la Torre, “Instituciones, empresarios y...” *Op. Cit.*, 134 orr.

<sup>163</sup> Industriaren sustapenerako planaren helburuetariko bat industria lurralde osotik, modu orekatuan, barreiatzea izan zen. Honela, Industrializazioak Iruñean eragiten zuen hiri kontzentrazioa arintzearen, probintziako hainbat eremutan (Sakana, Tuter...) industria poligonoak sustatu ziren.

kooperatibismoan, mugimendua, nekazal munduan gertatu izandako aldaketan adierazle esanguratsutzat hartzen ahal dugularik<sup>164</sup>.

Nekazal kooperatibismoak bere berezko egiturekin (UTEKO, Unión Territorial de Cooperativas) aurrera egin zuen. Alta, bizirauteko, ekimen kooperatibistari norabide berri bat eman behar izan zion, produkzio kooperatiben eta produktuak biltzeaz eta merkaturatzeaz arduratuko ziren probintzia-esparruko kooperatiben sorrera lehenetsiz. 50 eta 60. hamarkadetan zehar, hartara, kooperatibismoak funtzio konplexuagoak hartu zituen beregain, aipatu produktuen eraldatzea eta merkaturatzea hala nola nekazal makineriaren instalatzea kasu. Helburua, euren kasa makineria eskuratu eta produkzioa merkaturatu ezin zuten nekazari ertain eta txikiak laguntzea zen. Norabide berri honen lehenbiziko ekimen adierazgarria, COPELECHEren (Cooperativa Navarra de Productores de Leche) sorrera izan zen, 50. hamarkadan. Hamarkada honen hasieran, Iruñeko Udalak, hogeita bost mila biztanle baino gehiagoko hiriburuek esnezentral bat edukitzeko zuten obligazioari erantzutearren, lehiaketa publiko bat deitu zuen halako bat ezartzeko eskumena esleitzearren. Aipatu COPELECHE, lehiaketa horretara aurkezteko eratu zen. Haren sorrerarekin (1958an funtzionatzen hasi zen), kooperatibismoak ezaugarri berriak agertzen zituen: orain nekazaritza eta abeltzantzako produktuak industrializatzen ziren, baina upategi eta olio-errotak bezalako egintzen maila gaituz. Ildo horretan, 60. hamarkadako ekimen kooperatibo garrantzitsuenak, produkzioarako eta produkzioa merkaturatzeko probintzia mailako kooperatibak izan ziren, COVinsa (Cooperativa Vinícola de Navarra) eta Conserna (Cooperativa Conservera Navarra). Hauekin batera, lurren ustiaketa kolektiboan eta mekanizatuan oinarritzen ziren kooperatiba berriak sortu ziren ere.

Beraz, nekazal munduan, kooperatibismoan eragin handia izan zuten aldaketak gertatu ziren eta hau, halaber, baldintza berrietara egokitu behar izan zen. Prozesu honetan, zerbitzu, kreditu edota produktuen eraldatzerako tokian tokiko kooperatibek indarra galdu zuten (emigrazioak herriak husten zituen eta kooperatiba lokalak jardunean mantenduko zituen geroz eta nekazari gutxiago zegoen berauetan), probintzia mailako kooperatiba handiagoen mesedetan. Azkeneko hauek, gainera enpresa izaera hartuz joan ziren.

70. hamarkadaren erdialderako, probintziak inoiz bizi izan zuten eraldaketa ekonomiko bizkorrena eta sakonena ezagutu ondoren, Nafarroa azkenik errealitate industrialaren bete-betean. Industrializazio prozesuak bultzatu zituen ekonomiaren hazkundeak eta ongizate mailaren hobekuntzak, industriaren bidezko modernizatzearengatik apustua zuzena izan zela adierazi zuten; baina haren aldeko jarrera hartu izan zutenek aurreikusi ez bezala, Nafarroa, elementu ekonomikoen haraindi modernizatu egin zen ere, nafar gizarteak azaltzen zituen gizarte, mentalitate eta portaera dinamika berriek laster, ordura arte salbu mantendu izandako "esentzia tradizionala" atzean utzi behar zutelarik.

### *Gizartearen dinamika, gizarte dinamiko bat*

Iruñean eta Nafarroan, 60. hamarkada osoan zehar gertatu ziren egiturazko gizarte aldaketak, ez ziren aurreko atalean ikusi ditun dinamika sozial orokorrean arrastelakoak izan eta "Iraultza sozialaren garaian" eman ziren prozesu orokortuek, da, nekazal populazioaren gutxitze zorrotza, klase egituraren eraldaketa, langilegoaren barne dibertsifikatze estrukturala, populazioaren lekualdaketa masiboa, hirien hazkundeak edota mentalitate aldaketak eta portaera eredu berrien agerpena kasu,

---

<sup>164</sup> Ikusi Emilio Majuelo eta Angel Pascual, *Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial. Setenta y cinco años de la federación de cooperativas navarras, 1910-1985*, Ministerio de Agricultura, Pesca y Alimentación, Madrid, 1991.

Nafarroan ere, tokian-tokiko berezitasunekin, gizarte berri eta dinamikoago bat sortzen ari zela iragarri zuten.

### Klase egitura berri bat

60. hamarkadaren bitartean agerikoa izan zen prozesu sozial hauetariko bat, klase egituraren erabateko aldaketa izan zen. Ordura arte nafar gizartean nagusi izandako nekazal munduak pisua galdu zuen eta haren ordean, funtsean industrialak izan ziren egitura sozial bat osatuz joan zen. Klase egitura berri honen finkatzeak, berekin errotiko eraldaketa estrukturala ekartzeaz beste, nafar gizarte tradizionalaren mentalitate nekazari eta harmonikoarekiko behin betiko haustura eragin zuen ere. Honela, gizarte egituraren euren burua industria, hiri eta klase terminoetan definitzen zuten aktore berriak -langile klasea eta ertain klaseak- protagonista bezala gailentzen ziren bitartean; nafar nekazari tradizionalaren figura eta haren mundu ikuskera bereizgarria, desagertu egin ziren.

Aldi honetan eman zen klase egituraren eraldaketan, hainbat fenomenok parte hartu zuten: aipatu nekazal munduaren pisuaren galera egitura sozialaren osotasunean; industria gizarte aurreratuen kapitalismoari lotutako profil sozial berria agertzen zuten langile klasearen handitzea eta garapena; edota egitura profesionalean geroz eta pisu kualitatibo handiagoa izango duten ikasleen, intelektualen, teknikarien hazkundera, izan ziren haietariko batzuk.

Nekazal munduaren bilakaerari dagokionean, aurreko atalean ikusten genuen "nekazalgoaren heriotza" gertatu zen Nafarroan ere urte hauetan. Nekazal populazioaren murrizketa gogorak bereziki jo zuen lurraldea, gizarte talderik kaltetuenak, ordura arte nafar egitura sozialean nagusi izandako nekazari ertainak eta txikiak eta jornalariak izan zirelarik. 1950-1973 bitarteko populazio aktiboaren bilakaerak argiki azalera du prozesu hau: nekazaritzan aritzen zen populazioaren kopurua gutxitu egin zen; industrian aritzen zen aktiboaren areagotzea ikusgarria izan zen; eta zerbitzuen sektorearen goranzko joera, motela baino jarraitua, nabaria izaten hasi zen. Ondorengo taulan ageri den populazio aktiboaren sektorekako banaketaren bilakaerak argiki islatzen ditu bai nekazal populazioaren mailaz-mailako desagertzea eta baita haren bizkar osatuz doan industria populazio berriaren egonkortzea ere.

1.1 Taula: Populazio aktiboaren bilakaera sektoreka

	1950	1960	1973
<b>LEHEN SEKTOREA</b>			
Populazio aktiboa	81.304	73.127	45.583
Populazio aktiboaren gaineko %	53,71	41,49	24,80
<b>BIGARREN SEKTOREA</b>			
Populazio aktiboa	31.452	52.817	78.542
Populazio aktiboaren gaineko %	20,78	29,97	42,70
<b>HIRUGARREN SEKTOREA</b>			
Populazio aktiboa	35.646	50.296	59.433
Populazio aktiboaren gaineko %	23,55	28,54	32,40

*Iturria: 1950-1960 tarteko datuak, Iosu Ardaiz, "Navarra elementos para su desarrollo regional" (I. liburukia), 23 orr. (INE, "1950 Nafarroako probintziaren berri estatistikoa" eta Banco de Bilbao, "Renta nacional de España y su distribución provincial" iturrietatik abiatuta); 1960-1973 tarteko datuak, David Mendaza, "Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en*



Navarra y Zaragoza (1960-1980)", 61 orr. (Banco de Bilbao, "Renta nacional de España y su distribución provincial" *iturritik abiatuta*)<sup>165</sup>

60. hamarkadan zehar gertatu zen soldatapeko langileen kopuruaren areagotze biziak ere, populazio aktiboa bere ezaugarrietan geroz eta industrialagoa egiten ari zela adierazi zuen. Alde batetik, langile beregainen murrizketa agerikoa izan zen, 1960an %22,8a izatetik, 1970ean %14,9a izatera igaro zelarik; bestetik, aipatu soldatapeko langileen hazkundea ikusgarria izan zen, hamarkadaren hasieran enplegatutako langilegoaren %49,1a izatetik, hamarkadaren amaieran %69,8a izatera igaro baitziren<sup>166</sup>. Langile beregainen beherakada hau azaltzen duten faktoreen artean, artisautzari lotutako enpleguen suntsipena eta nekazari jabe eta errentari ertain eta txikiak nekazaritza jarduera utzi izana, nabarmetzen dira<sup>167</sup>. Soldatapekoan hazkundea bere aldetik, industriaren sektorerako lanekuaren etengabeko lekualdatzeri eta hirugarren sektoreko jarduerak dibertsifikatu zituen nolabaiteko burokratizazioari esker gertatu ziren batik-bat.

Klase egituran atzematen ahal den aldaketarik agerikoena, langile klaseak, bere osotasunean, bizi izan zuen garapena da. 50. hamarkadaren erdialdeaz geroztik, numeroz garrantzitsua izango den langile klasea osatzen hasiko da Nafarroan, 60. hamarkadaren bitartean, gizarte egituran inoiz ez izandako pisua hartzen joango delarik. Hala ere, hazkunde kuantitatiboaz haratago, urte hauetan langile klaseak bizi izan zuen aldaketarik nabarmenena, aurreko atalean ikusten genuen aldaketa estruktural hori bera izan zen. Industria berriak exijitzen zuen kualifikazio prozesuak, langilegoaren barnean nolabaiteko estratifikazioa eragin zuen, langileak kategoria desberdinetan banatu zituelarik: langile kualifikatuak eta ez-kualifikatuak, eskulangileak zirenak eta ez zirenak, bulegoko langileak eta tailerrekoak, langileak eta teknikoak... Honekin, langileriaren profil soziala aniztu egin zen, are gehiago kualifikazioaren arabera zirenak soldata maila ezberdinek, soldatapeko langileen artean, bizitza mailaren eta estiloaren bereizkuntza argiak ahalbidetu zituztenean.

Klase egiturak azaldu zuen beste berrikuntzetariko bat, ertain klase eraberritu eta dinamikoen agerpena izan zen. Alta, hauen kasuan ez zen, langile klasearen kasuan bezala, garapen kuantitatibo nabarmen bat gertatu. 60. hamarkadaren bitartean, zalantzarik gabe, ertain klaseek euren presentzia soziala areagotu zuten arren, 1920 eta 1970 urteen artean, hauek osatzen zituzten elementuen kopurua, ez zen funtsean handitu. Aipatu berritasunak beraz, egiturazkoak izan ziren bereziki eta

---

<sup>165</sup> 1973ko datuak jasotzean interesa genuelako eta David Mendazak emandako datuek posible egiten zutelako erabili ditugu bi iturri desberdin (losu Ardaizek ez zituen 1973ko datuak espresuki jasotzen eta David Mendazak ez zituen 1950-1960 tarteko datuak jasotzen). Iturri desberdinak izatea, datuen izaera eta aurkezpena desberdina izatea eragin du eta horregatik, egokitzapen bat egin behar izan dugu. Ardaizek 1950-1960 urteetako datuak aurkezteko, sektoreka egiten du (lehen sektorea, bigarren sektorea, hirugarren sektorea); guri irizpide hori bera interesatzen zitzaigunez, haren sailkapena erabili dugu taula osatzeko. losu Ardaiz *Navarra elementos para... (I)* Op. Cit., I.6 Taula "Evolución de la población activa por sectores (Navarra)", 23 orr. 1973ko datuak aurkezteko David Mendazaren datuak erabili behar izan ditugunez eta honek datuak jardueraka aurkezten duenez (Nekazaritza, industria, eraikuntza, zerbitzuak, sailkatu ezin direnak), gure taulan datu hauen sektorekako aurkezpena egiteko, industria eta eraikuntzaren portzentajeak batu ditugu bigarren sektoreko portzentajea emateko. Ikusi David Mendaza, "Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)", *Gerónimo de Uztariz*, 9/10. zkia, 1994, 55-74 orr., Taula: "Evolución de la población activa de Navarra 1960-1981", 61. orr.

<sup>166</sup> Datuak: David Mendaza, "Cambio en la..." Op. Cit., Taula: "Evolución de la situación profesional de la población activa en Navarra", 63 orr.

<sup>167</sup> *Ibid.*, 67 orr.

euren osieran azaleratu ziren<sup>168</sup>: mendearen lehen herenean Nafarroako ertain klase guztiak *ertain klase zahartzat* jotzen ziren taldeetakoak baldin baziren; 70. hamarkadarako, gutxi gora behera ertain klaseen erdia baino gehiago, *ertain klase berrietakoak* ziren. Lehenbizikoen kasuan, ertain klaseek, nekazaritza gizek bati dagozkion profilak agertzen dituzte: nekazari jabe eta errentari ertainak, artisauak, soldatapeko batzuk euren kargura zituzten patroik txikiak eta lanbide liberalak. Aipatzekoa da, zentzu honetan, 1950ean nafar ertain klaseak numeroz espainiarrak baino gehiago izateak, nekazaritza ustiategi familiarretan ziharduten nekazari jabe ertain eta txikien portzentajeak, mende erdialdera arte hemen mantendu zuen bolumen garrantzitsuarekin zerikusirik izan zuela<sup>169</sup>. Ertain klase berrien kasuan, profilak gizek industrialari eta bigarren eta hirugarren sektoreetako jardueri lotuta ageri dira, 60. hamarkadaren bitartean, enpresa zuzendariak, teknikariak eta industria berriaren garapenarekin lotutako taldeak gehien indartuko zirenak izan zirelarik. Nafar ertain klaseek bizi zuten eraldaketaren funtsa beraz, soldatapekorik gabeko nekazari jabe ertain eta txikiak, industria eta komertzio jarduera ekonomiko berrietatik sortzen diren taldeek, hau da, enpresa zuzendariak eta kudeatzaileak, teknikari kualifikatuak, administrazioko langileak edota bulegoetako enplegatuek, ordezkaturik izan zirela esan daiteke.

Ertain klaseen egitura berri honek mugikortasun sozialerako dinamika malguago bat ahalbidetu zuen. Nekazaritza gizek, lurraren jabetza egitura sozialaren ardatza zenez, mugikortasun sozialeko ibilbideak zurrinak ziren, gizek egitura gora egiteko aukerak mugatuak zirelarik. Alta, gizek industrial berrietan, sozialki gora egiteko abagunea handiagoa zen. Ildo horretan, Javier Echeverría soziologoak, mugikortasun sozialerako ibilbide dinamikoak azaleratu ditu 1956-1976 denbora tarteko espainiar estatuan<sup>170</sup>. Berauetan, gizek egitura gora egiteko erabili ziren estrategia nagusiak ikusten ahal ditugu: industria eta zerbitzuen alorreko ondasun materialen eskuratzea eta, bereziki, baliabide zientifiko-teknikoen bereganatzea. Azken hau, formakuntza, hezkuntza eta kualifikazioa, gizek sektore baxuenek ertain klase berrietara sartzeko erabili zuten estrategia nagusia izan zen, garai hartako mugikortasun sozialaren elementurik dinamikoenean bilakatu zelarik. Hala ere, kontutan izan behar dugu baliabide zientifiko-teknikoak eskuratzea eta hauek eskaintako promozio sozialerako aukerez baliatzea, ez zela talde sozial guztientzat erraza izan eta, zentzu honetan langileak, mugikortasun sozialerako estrategiak gauzatu ahal izateko, oraindik zailtasun askori aurre egin behar izan ziotela.

### Migrazio mugimenduak

60. hamarkadan Nafarroak bizi zuen garapen sozioekonomikoa erakusten zuen adierazle esanguratsu bat, migrazioen balantzaren joera negatibotik, joera positiborako aldaketa izan zen. Urte hauetan, Industriaren enplegua sortzeko gaitasunaren hazkundeak, nafar populazioaren kanporako emigrazioa murriztu zuen eta Nafarroak, azkenik, probintzia emigratzailea izateari utzi zion. Honekin batera gainera, probintzia,

---

<sup>168</sup> Javier Echeverría Zabalza, "Antecedentes de la Navarra actual. Algunos elementos sobre la estructura social de Navarra de los dos primeros tercios del siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, 9/10. zkia, 1994, 31-54 orr., 48 orr.

<sup>169</sup> *Ibid.*, 47 orr.

<sup>170</sup> Hain zuzen ere, 1940-1991 denbora tarteko mugikortasun sozialaren ibilbide nagusiak aztertzen ditu, berauetan gizek egitura gora egiteko erabili ziren estrategia edota mekanismoak identifikatuz. Azterketa hiru aldi nagusitan banatuta dago: 1940-1956; 1956-1976; eta 1976tik aurrera. Javier Echeverría Zabalza, *La movilidad social en España (1940-1991)*, Istmo, Madril, 1999.

estatuko beste lurraldeetako populazioa jasotzen hasi zen, migrazioek, lehenbizikoz, emaitza positiboak azaldu zituztelarik<sup>171</sup>.

Kanpotik etorritakoen goranzko dinamika jarraia eta garrantzitsua izan zen, emigratutakoen kopurua gaintzeko eta balantza positiboa egiteko haina garrantzitsua behintzat. Datuetan, 1960-1970 bitartean, probintziaz kanpo jaiotakoek nafar populazioaren egituran hartzen zuten portzentajea %6 batean handitu zen, 1960an %12,5ekoa izatetik, 1970an %18,5koa izatera igaro zelarik. Orduko hazkunde azkar eta biziaren ostean, 1975an, portzentajea, %19an egonkortu zen<sup>172</sup>. Etorrin hauen jatorriari dagokionean, alde batetik, Nafarroaz gertuko zonaldeetakoak, Zaragoza eta Gipuzkoakoak, nabarmentzen ziren, probintzia hauena 60. hamarkada baino lehen immigrazio tradizio nagusiena zelako eta honen ondorioz, urte hauetan, Iruñeko populazioaren jatorrian joera honen eragina nabarmena izaten jarraitzen zuelako. Bestetik, 60. hamarkadatik aurrera, Andaluzian edota Extremaduran jaiotakoak nagusitzen joan ziren<sup>173</sup>. Hau izan zen, hain zuzen ere, hamarkada hartako Nafarroarako emigrazioaren ezaugarri nagusiena, protagonista berriak izan zituela. Mugimendu bizkor eta jarraituetan, Jaénetik eta Badajozetik etorritakoak gailendu ziren, etorkin andaluziar eta extremadurarrak, oraindik ere, 60. hamarkadako immigrazioaren ikur direlarik<sup>174</sup>.

Iruñea izan zen immigrazio mugimendu hauen hartzaile nagusiena. Nafarroaz besteko emigranteen etorrera, 60. hamarkadaren bitartean orokortu bazen ere, 50. hamarkadaren erdialdeaz geroztik hasi zen bai hiriburuan eta baita inguruko udalerrietan ere nabaria izaten. Esate baterako, 1955ean, Burlatari buruz, Espainiako dialekto guztiak entzuten ziren *Babel penintsularra* zela esaten zen eta 1959an, ordurako jada Iruñeko langileen bizigune nagusienetariko bat zen Txantrea, auzo

---

<sup>171</sup> Angel García-Sanzek eta Fernando Mikelarenak emandako datuen arabera, 1960-1971 denbora tartean Nafarroako migrazio balantza +18.011-koa izan zen. Ikusi, Angel Garcia-Sanz eta Fernando Mikelarena, "Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, 16. zkia, 2000, 125-138 orr., 3. Taula: "SalDOS migratorios y tasas de migrantes anuales por mil habitantes entre 1900 y 1981", 127 orr.

<sup>172</sup> 1960 eta 1970eko datuak, Angel Garcia-Sanz eta Fernando Mikelarena, "Evolución de la..." Op. Cit., 128 orr. eta 1975eko datua, losu Ardaiz *Navarra elementos para... (I)* Op. Cit., 214 orr.

<sup>173</sup> Ikusi datuak, Dolores López eta Carolina Montoro, "Cambios en la ciudad de Pamplona (1946-1975). Una mirada desde la demografía", Maria del Mar Larraza (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*, Ediciones Eunete, Iruñea, 2006, 261-311 orr., 4. Taula: "Provincias mas representadas en la población de Pamplona 1945-1974", 285 orr. Datuak Iruñeko populazio ez-nafarraren jaioterriaren arabera bildu eta aurkezten dira. Ikusten denez, 1945an, Gipuzkoakoa, Logroñokoa eta Zaragozako zen jatorri ez nafarreko iruñar populazioaren gehiengoa. 1975ean, jatorri ez nafarreko Iruñeko populazioan, jatorri gipuzkoarrekoak eta zaragozarrekoak goian azaltzen dira oraindik ere, baina bien gainetik, momento honetan, Jaénen jaiotakoak kokatzen dira.

<sup>174</sup> Iturri desberdinetako hainbat testigantzek ere, bereziki Jaén azaleratzen dute 60. hamarkadako immigrazioaren sorterri bezala. Esate baterako, Nafarroako Gobernadore Zibilaren 1961eko memorian honakoa jasotzen zen: "[immigranteek] Jaén eta hegoaldeko beste hainbat probintzian dute jatorria [...] Jaén eta Iruñaren artean autobus zerbitzuak ere badaude horretarako [batetik besterako mugimendua errazteko]". AGA-AAO, Barne Arazoetako sailaren fondoa, 44-11320 kutxa. "Navarro-andaluzia" deituriko Autobus zerbitzu horrek gainera, Iruñea-Jaén Ibilbidea egiten zuen egunero. Ikusi "Txantreanos de Jimena", Txantrean Auzolan 18. zkia, 200; jasoa, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida en la piedra*, Txantrean Auzolan Kultur Elkartea, Iruñea, 2002, 136 orr. Honekin batera, memoria kolektiboan ere horrelako hainbat testigantza aurkitzen ahal dira: "Magdalena zubian zegoen kartela gogoratzen dut: Jaénera kilometro bat... bi kilometro, edo bat eta erdi, edo halako gauza bat... jartzen zuen" S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13.

emigrante eta *dialektoen babel* bezala deskribatzen zen<sup>175</sup>. Dolores Lópezek eta Carolina Montorok Iruñerako ematen dituzten datuei begiratuta<sup>176</sup>, probintzian bezalaxe 1975ean oraindik probintziaz gertuko lurraldeetatik etorritako elementuen presentzia nabarmena bazen ere, 60. hamarkadaren bitartean hiriburuan gehien entzun ziren *dialektoak* andaluziarrenak eta extremadurarrak izan zirela ondorioztatzen ahal da. Zentzu honetan, 1975ko iruñar populazioaren osaerari buruzko ondoko datua adierazgarria da oso: soilik Jaénean eta Badajozen jaiotakoaren artean, probintzian jaioa ez zen populazioaren %13,4a osatzen zuten.

60. hamarkadaren bitartean, estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteen hazkundeak, hiritik kanpo jaiotako iruñar populazioan, probintzian jaiotakoaren portzentajea murriztu zuen arren, etorkinen gehiengoa nafar jatorrikoa izaten jarraitu zuen<sup>177</sup>. Izan ere, urte hauetan, probintziako landa mundua hustu behar zuten Iruñerako barne emigrazio mugimendu oso garrantzitsuak gertatu ziren. Landatik hiribururako nafar populazioaren barne mugimendu hauek, funtsezko ezaugarri ziren jada Iruñeko populazioaren bilakaeran, XIX. mendearen azken herenetik aurrera nekazal mundua utzi eta Iruñean hiriko sektore apal, herrikoi eta langileen parte izatera igarotzen zen populazio nafar etorkinak, tradizio luzea baitzuen populazio iruñarraren osagai bezala<sup>178</sup>. Joera honek, XX. mendearen erdialdean oraindik iruñar gizartea nabarmenki nafarra izatea eragin zuen: 1945ean adibidez, hiriko populazioaren %84,1a, probintzian jaiotakoa zen<sup>179</sup>. 60. hamarkadan, aipatu populazioaren landatik hiribururako mugimendu tradizional hauek biziagotu egin ziren, probintziako nekazal ingurutiko etorkinek, Iruñeako populazioaren funtsezko elementu izaten jarraitu zutelarik. Mugimendu hauek bitarte honetan izan zuten garrantzia adierazten dute, adibidez, 1970eko Foessa txostenean jasotzen den Nafarroatik-Nafarroarakoa, 1968 eta 1969 urteetan, espainiar estatuan emandako hamar migrazio mugimendu garrantzitsuenetariko bat izan zelako datuak<sup>180</sup>; 60. hamarkada osoan zehar bizi izan zen nafar nekazal munduko herri askoren jendegabetzeak eta Iruñerriak jasan zuen populazio hazkunde ikaragarriak.

Nafar jatorrikoak edo estatuko beste probintziaren batean jaiotakoak izan, emigranteen gehiengoa ekonomia tradizionalerako nekazal zonaldeetatik etorri zen, funtsean arrazoi sozioekonomikoek bultzatuta. 50 eta 60. hamarkadetan, populazio andana, industria guneetan aurreikusten ziren enplegurako aukera hobetuek hala nola bizitza maila altuagoak erakarrita, herritik hirira lekualdatu zen<sup>181</sup>. Ildo horretan, bi

<sup>175</sup> “Desd’el gallo de San Cernin: Burlada y sus problemas”, DN 1955-08-20, 3 orr. eta “Postales iluminadas: el puente de la Magdalena”, DN 1958-09-06, 10 orr.

<sup>176</sup> Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 284-285 orr.

<sup>177</sup> 1945ean Iruñeko populazioaren artean, Nafarroan (Iruñea kenduta) jaiotakoak %42,6a ziren eta estatuko beste probintzietan jaiotakoa %14,7a; 1975ean, Nafarroan (Iruñea kenduta) jaiotakoak % 30,3a ziren eta estatuko beste probintzietan jaiotakoak %21,8. Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 2. Taula: “Población de Pamplona según su origen 1945 y 1975”, 278 orr.

<sup>178</sup> XIX mendearen azken hereneko populazio mugimendua hauek aztertu zituzten, besteak beste, Fernando Mendiola, *Inmigración, familia y...* Op. Cit. eta Pilar Erdozainek, *Propiedad, familia y trabajo en la Navarra contemporánea*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.

<sup>179</sup> Datua, Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 280 orr.

<sup>180</sup> 1970eko Foessa Txostena, 8.30. Taula: “Evolución de los diez movimientos migratorios mas importantes en España (1962-1969)”, 581 orr.

<sup>181</sup> Nafarroako Gobernadore Zibilak berak, 60. hamarkadaren hasierako probintziarako emigrazioa faktore sozioekonomiko hauekin lotzen zuen zuzenean: “[emigranteek] Jaén eta hegoaldeko beste hainbat probintzietan dute jatorria, hau da, maila ekonomiko altuagoko zonaldeetarako eta soldata finkoko [lanpostuetarako] mugimendu naturala egiten dute, eraikuntzaren sektorean dagoen lanesku eskariari esker lanpostua aurkitzen dutelarik [...]”. “Nafarroako Gobernadore Zibilaren Memoria: 1961. urtea”, AGA-AAO, Barne Arazoetako sailaren fondoa, 44-11320 kutxa.

indarrek egin zuten presioa populazioaren lekualdaketa bultzatzeko. Lehenbizikoa, landa munduaren kanporaketarako indarra izan zen, bertan bizi zen egoera zaila, hau da, presio demografikoa, enplegu eskasia, soldaten murriztasuna eta egonkortasunik eza hala nola osasun, hezkuntza, kultura eta komunikazio zerbitzuen gabezia, populazio soberakina, familia osoak, hirira eta industriara bidaltzeko arrazoi sendoa izan baitzen.

Bigarrena, hiriaren erakarpenerako indarra zen. Kasu honetan, industriak eskaintzen zuen enplegurako aukerarekin batera, faktore sozial eta kulturalak ere zerikusirik izan zuten, izan ere, beharra baino, bizitza maila altuago baten jomuga edota bizimodu ezberdin eta hiritarra ezagutzeko nahia ziren, askotan (gazteentzat batez ere), emigrazioa abiatzeko faktore garrantzitsuenak. Ollarrak adibidez, Diario de Navarran, argi eta garbi desberdintzen zituen faktore sozioekonomikoek eragindako bi emigrazio motak: “Lehenbizikoan -beharrak eragindakoa- irteten dena, goseak behartuta egiten du. [...] [Baina] bestelako emigraziorik badago –eta gure kasua delakoan nago- hirian bizitzearen abantailak ezagutzen dituenarena. Haren jomuga egoera ekonomikoa hobetzea da, bere seme-alabei ikasketak ematea, e. a. eta ezagueraz [...] herria uztea erabakitzen du, naiz eta bertan oinarrizko bizigaia eduki eta are bizitza duin bat izateko aukera izan; gertatzen dena da [bizitza duin hori], erdi mailarekin alderatuta, geroz eta baxuagoa dela”<sup>182</sup>. Bereziki kritikoa zen azken mugimendu hauekin, hiriko bizitzak landako bizilagunengan sorrarazten zuen lilura honek, landatar bizimodua gutxiesten zuela, emigranteek fabriketan edo atezain etxeetan lortzen zituzten lanpostuei nolabaiteko prestigio soziala ematen ziela eta hirian emigrante bihurtzen zirenek pairatu beharreko deserrotzea kontutan hartzen ez zuela uste baitzuen<sup>183</sup>.

Etorkinek hirietan, industrian hain zuzen ere, bizitza maila hobeago bat iragartzen zuten enplegu eta soldata finkoak eskuratu zituztenez, emigrazioa mugimenduak, herritik hirirako espazio aldaketak izateaz beste, nekazariak industria langile bihurtu zituzten lanbide aldaketak izan ziren ere. Lanbide aldaketak izan ziren, baina baita errotiko izaera aldaketak ere. Urte hauetan, emakume eta gizon ugari, herria, landa eta lurak uztearekin eta hirirako bidea hartzearekin, berezkoa zuen nekazari izaera galdu zuen; ez hori bakarrik, hirira iristerakoan, lanbide berriak hartzerakoan eta fabrikara sartzerakoan, izaera berri bat, industria langilearena, hartzera behartuta izan zen. Sakontasun handiko eraldaketa izan zen, etorkinen berezko bizimoduak eta mentalitateak astinduko zituen izaera sozialaren aldaketa ekarri baitzuen berekin. Beraz, nekazariak erabatean -lanbideari zegokionean, bizimoduei zegokienean, mentalitateari zegokionean- industria langile bihurtu zituzten heinean, migrazio mugimendu hauek nolabaiteko klase izaera izan zutelaren esan daiteke. Hasteko, emigranteen gehiengoak profil sozial berbera azaltzen zuelako: landa munduan jaioa zen, nekazaritzaren alorrean aritzetik zetorren eta, orokorrean, gizartearen sektore apalenetan zuen jatorria; baina batez ere hirian helmuga sozial beretsua izan zuelako: proletalgora eta gabezia material zein sozioekonomiko agerikoak zituzten giroak.

---

<sup>182</sup> “Desd’el gallo de San Cernin: el campo navarro y la emigración”, DN, 09-01-1966, 16 orr.

<sup>183</sup> “herrietan [...] nolabaiteko ezkonformismoa dago, ezinegon isila, irteerarako psikosia; hirira emigratu eta igandetan, trajea jantzita, itzultzen denarenganako inbidia ezkutua. [Herritarrek] ez dute euren bizitza neurtzen, ez dituzte euren sakrifizioak neurtzen, bere itxura eta [hiritiaz] kontatzen diena miresten dute, ordea [...] izan ere, egia esateko, nekazal aberastasunaren errenta guztien batuketara ere ez da gehiegizkoa. Hemen ez dago ez aseguruirik, ez paga gehigarriarik, ez eta lanordu finkorik”, “Desd’el gallo de San Cernin: un pueblo”, DN 02-02-1966, 16 orr.

Iruñar gizartearen zenbait sektorek 50. hamarkadaren erdialdetik aurrera geroz eta ugariagoa egin zen estatuko beste probintzietatik emigrazioaren aurrean azaldu zituen kezkek, mugimenduen klase izaera erakusten dute nolabait. Izan ere, berauetan, emigranteen etorrerarekin batera agertzen ziren klase errealitateak, armoniaren eta orekaren Iruñearentzako mehatxu larri bezala aurkezten diren heinean, atzematen ahal dira:

[...] egungo immigrazioa, langile immigrazioa da eta honengatik, hain zuzen, arazo bizi eta larriak planteatzen ditu, arazo sozialak [...] Ezinbestekoa da egunero gurera jakatxo higatu bat eta lanerako bi esku baino beste ondasun edo kapitalik gabe iristen den jendetza honek, Iruñearen aurpegiera espiritual eta materiala itxuraldatu ez dezan lortzea. Helburu moralizatzailezik ez dut. Balore kultural eta sozialez, historikoez ari naiz. Beraz, gure eginbeharra, euren arazo ekonomikoari (lanpostu, etxebizitza arazoei e.a) irtenbide eman ondoren, eurak espiritualki geureganatzea izango da. Eurak egiazko iruinseme bihurtzea.<sup>184</sup>

1955ean adibidez, Diario de Navarratik, Ollarrak alarma handiz azaltzen zituen Iruñea ondoko Burlata herrian, populazioaren etorrera masiboak abiarazten ari zituen aldaketak: ezer gutxi geratzen zen jada aitzinean garia, garagarra eta ardoa biltzen zituen nekazal herriaz; herriko etheen atzean, inguruko fabriketan lan egiten zutenentzako auzo berriak jaiotzen ziren; eta gizartearen arteko banaketa soziologikoa, inoiz baino nabariagoa zen; herriko merkatari eta industrialariet osatzen zuten burgesia txikiaren aurrean, populazio apalagoko sektoreak definitzen hasten ziren, desagertzear zeuden nekaraziak eta proletalgo berria, esaterako; azken hau etorri berria zen populazioak osatzen zuten, bi arazo nagusi sortzen zituen, sozioekonomikoa (gehiengoak txiroak zirelako) y asimilatze moral eta kulturalarena; etenik gabe herrira iristen zen emigrante mordoarekin alderatuta, jatorrizko populazioaren nukleo tradizionala geroz eta txikiagoa ari zen egiten, arazo larria benetan jatorrizko populazioak, "urrutitik hala nola gertutik datorren jendetza honen integrazioa" lortzeko eta "eurak egiazko nafar" bihurtzeko, bizilagun berrien gizarteratzean lagundu behar baldin bazuen<sup>185</sup>.

### Populazioaren hiritartzea

Hiritartze prozesua, 50. hamarkadaren erdialdean hasi eta 60. hamarkada orokortu ziren aipatu migrazio mugimenduen ondorio zuzena izan zen, urte gutxiren buruan herriak hustu eta Iruñea gainpopulatu zelarik. Prozesu hau ondorengo taulan jasotzen diren datuetan ikusten ahal da:

1.2 Taula : Nafarroako populazioaren kontzentrazio prozesuaren bilakaera 1960-1975

	1960			1975		
	Udalerrri kopurua	Biztanleak	%	Udalerrri kopurua	Biztanleak	%
Landatar zonaldea	218	135 671	33,8	215	103 130	21,31
Erdibideko zonaldea	45	152 035	37,8	45	166 459	34,40
Hiritar zonaldea	2	114 336	28,4	4	214 278	44,29
Oso tara	265	402 042	100	264	483 867	100

*Iturria: Iosu Ardaiz, Navarra elementos para su desarrollo regional (I. liburukia), 214 orr.*

<sup>184</sup> "Residencia Obrera", DN 1959-07-22:, 8 orr.

<sup>185</sup> "Desd'el gallo de San Cernin: Burlada y sus problemas", DN 1955-08-20, 3 orr.

Taulan ageri den hiritar zonaldearen hazkundera berez, Iruñerria osoaren hazkundera izan zen. 1960-1975 urteen artean, industrializazio prozesuak, hiriburuak iraganetik azaltzen zuen populazioa jasotzeko joera biziagotu egin zuen. Hau da, inbertsioak sartu ahala eta fabrikak udal barrutian kokatu ahala, jende andana ezarri zen Iruñean eta bere inguruetan, nafar populazioaren kontzentrazio prozesuari behi-betiko bultzada emanez. Iruñeaz beste, hiriburu ondoko udalerriak ere prozesu honen parte izan ziren, berauetan hazkunde demografikoa ikaragarria izan zelarik: Antsoaingo hazkundera %507,38koa izan zen, Burlatakoa %311,40koa, Zizurrekoa %207,92koa eta Huartekoa %102,44koa<sup>186</sup>.

Kontzentrazio hiritarraren prozesuak berekin, hirien hazkunde demografikoa eta espaziala ekarri zuen heinean, hiri nukleoak hazi egin ziren estatu guztitik eta hiri handien periferian, langile auzuneak, hiri sateliteak eta egiazko txabola-herrixkak, bata bestearen atzetik, sortu ziren. Hiritartze bizkor honen adierazpen muturrekoenak Bartzelona, Madril edo Bilbo bezalako hiri handietan ageri baziren ere, urte hauetan industrializatu eta gainpopulatu ziren gunek berrietan ere, hiritartze horrek begien bistako ondorioak izan zituen halaber: hirien zabalkuntza, itxuraldaketa edota banaketa funtzional berria.

Iruñearen zabalkuntza, populazio nukleo berriak sortzearen bidetik egin zen. Gune hauen oinarriak 50. hamarkadan jarri ziren, orduan hirian nabaria izaten hasten zen etxebizitzaren arazoari aurre egitearren, harresiaz bestaldera populazio ezarmenduak finkatzen hasi zirenean. Periferiako nukleo desberdinetan (Arrotxapea, Donibane, “tren geltokiaren” auzoa, “Mochuelo” auzoa, Magdalena auzoa), etxebizitza berrien eraikuntza sustatu zen, esparru hauek hiri zabalkuntzarako eremu bezala lehenetsiz. Iruñea beraz, kanpoaldean barreiatutako ezarmenduei nolabaiteko entitatea emanez eta hutsetik ezarmendu berriak sortuz (Txantrea auzoa, adibidez) hazi egin zen. 60. hamarkadako emigranteen etorrerak eta hazkunde demografikoak, periferiako gune hauen hazkunde jarraitua eragin zuen urte hauetan, etenik -eta askotan kontrolik- izan ez zuen etxebizitzaren eraikuntzaren bitartez. 50. hamarkadaren hasieran sortutako Txantrea auzo berrian, garaiera handia hartzen zuten aurrez fabrikatutako etxebizitza sailak eraikitzen ziren orain; Arrosadia, antzinako nekazaritza bidean gainean eta “Mochuelo auzoko” 30. hamarkadako etxeen ondoan altxatzen hasten zen, presaka, lursailak alde aurretik egokitu gabe; eta tren geltokiaz haratago jaiotzen zen Sanduzelai populazio gune berria, espazio berean fabrikak, tailerrak eta etxebizitzak barne hartzen zituen industria zonalde batean eraikitzen zen. Honekin batera, Iruñerriko udalerririk hurbilenak (Burlata, Atarrabia, Antsoain, Berriozar, Barañain) hiriaren zabalkuntzarako berezko esparru bihurtu ziren, laster hauek hiriko auzoetatik desberdintzea zaila izango zelarik<sup>187</sup>.

1945-1975 bitartean periferiako auzoek bizi izan zuten hazkundera, hiri barneko mugimendu demografikoak begiratuta baieztatzen da; izan ere, auzoek bitarte honetan azaltzen duten bilakaera demografikoak, populazioaren hirigunetik kanpoalderako lekualdatze jarraitu bat azaleratzen du. Jatorrizko hiriak -Alde Zaharra eta Zabalgunepisu demografikoa galdu zuen etengabe, bertako populazioaren egiturak zahartzeko joera argia erakusten zuen bitartean. Periferian aldiz, harresiaz bestaldeko auzoen hazkundera eta eraberritze demografikoa agerikoak izan ziren eta biztanlegoaren handitze jarraituarekin batera (Txantrea, Iturrama eta Arrosadia auzoek urte hauetako

---

<sup>186</sup> Datuak, Iosu Ardaiz *Navarra elementos para... (I)* Op. Cit., 214 orr.

<sup>187</sup> 60. hamarkadan zehar, Iruñea ondoko udalerrien hazkunde ikaragarriaren berri ematen zuen erreferentzia ugari ageri da Diario de Navarra. Burlataren eta Barañainen kasurako, adibidez: “Burlada crece a ritmo agigantado”, DN, 16-08-1964, 10 orr. eta “En un plazo de diez años Barañain tendrá 35.000 habitantes”, DN 31-10-1965, 2. zkia (eraikuntzari buruzko gehigarria), 16 orr.

hazkunde tasarik altuenak izan zituzten), nukleo berrietako populazioaren egitura dinamikoagoa eta gazteagoa egin zen.

Populazioaren ezartzerako eredu honek, hiri espazioaren banaketa funtzional argia ekarri zuen berekin. 50. hamarkadaz geroztik Iruñean abian jarritako hiriaren hazkunderako ereduak espezializazio jarraibideen arabeko populazioaren banaketa eragin zuen heinean, euren osieran eta funtzionaltasunean bereizten ziren esparru hiritarrak sortu ziren: “Goi-lautada (Iturrama, Donibane, Mendebaldea, Ermitagaña e.a), kalitatezko bizitegi gunek bezala gailentzen da haren periferiaren aurrean (Arrosadia eta Etxabakoitz) eta Argaren beste bazterreko periferiaren aurrean, non jarduera ekonomikoak (tailerrak, biltegiak, fabrikak), etxebizitza merkearen promozioekin nahastuta ageri dira (Sanduzelai, Berriozar, Arrotxapea, Antsoain, Txantrea, Burlata). Ibaia eta goi-lautada, honela, erabilerak eta talde sozialak bereizten dituzten muga sinbolikoetan bihurtzen dira”<sup>188</sup>. 60. hamarkadaren bitartean populazioaren jatorrian, lanbidean eta ikasketa mailan ikusten ahal diren auzokako desberdintasunek<sup>189</sup>, hiri espazioaren arabeko banaketa funtzional hau, aldi berean, banaketa soziala ere izan zela iragartzen dute.

50. hamarkadatik aurrera Iruñean abian jarri zen eraikuntzarako politikak zerikusirik izan zuen honetan. Etxebizitza merkearen promozioek, eurak eraikitzeke lehenesten ziren tokiek eta toki hauetan ezartzen zen populazioaren ezaugarriek, langile asentatze ezberdinez betetako periferia bat osatu zuten iruñar ingurubidean, banantze espazialaren bitartez, aipatu bereizketa soziala ahalbidetzen zelarik. Urte hauetan, hiriaren lehen hazkundera, periferiako populazio nukleo tradizionalan etxebizitza merkea eraikiz gauzatu zen, hauek langileentzako esparru sozial bereizi bilakatu zirelarik. Nukleo berri hauek gainera, populazioan ez beste, hirigunetik itxuran desberdintzen ziren ere eta lehenbiziko urte haietan, nekazal eremua, industriak eta tailerrak hala nola etxe zahar eta berriak nahasten zituen berezko irudi bat azaldu zuten. Ildo berean, 60. hamarkadan zehar, hazkunde demografiko guztiz bizkorren eraginez, hiriaren hazkunde prozesua nahaspilatuta eta kontrolik gabekoa bilakatu zenean, hiri esparruen arteko desberdintasunak are nabariagoak egin ziren, hein handi batean periferiako auzoetan horniduren, zerbitzuen eta komunikazioen gabeziak, beste inon baino larriagoak eta agerikoak egin zirelako.

Beraz, nolabait, Iruñearen hazkundera langile ezarmenduen, auzo berrien eta komunitate bereizi berrien sorrera jarraitu bat izan zela esan daiteke. Arrotxapea auzoa, langile eta populazio umilarentzako zonalde bezala azaltzen zen gerra aurretik jada; “Iruñeako baratzea” izateaz beste, industria gunek txiki eta goiztiar bat barne hartzen zuen, auzoko populazioa, nahastuta bizi ziren baratzezainek eta industria langileek osatzen zutelarik. 50 eta 60. hamarkadetan bertan eraiki ziren etxebizitza merkeek, kooperatiba erregimenean eraikia izan zirenak eta diru-laguntzaz babestuenak izan zirenak, auzoaren jatorrizko izaera apal hura indartu baino ez zuten egin.

Txantrearen kasua bestelakoa izan zen. 50. hamarkadaren hasieran eta Magdalenako nekazal populazio nukleoa tradizionalaren aldamenean sortua, haren lehenbiziko faseetan, “Francisco Franco” eraikuntzarako patronatuaren babespean, langileek berek eurentzako eraiki zuten auzo berria izan zen erabatean. Orduak aurrera, patronatuaren ongintzazko ekimenarekin lehenbizi eta etxebizitza merkearen

---

<sup>188</sup> Jesús Oliva eta María José Rivera, “Utopías y sentidos de habitar la ciudad dispersa: estrategias residenciales en el área metropolitana de Pamplona-Iruñea”, *Zainak Cuadernos de Antropología y Etnografía*, 23. zkia, 2003, 137-153 orr., 141 orr.

<sup>189</sup> Zentzu honetan, Dolores Lópezek eta Carolina Montorok, auzoka ikusten dituzten populazioaren jatorriaren, lanbidearen eta ikasketa mailaren arteko desberdintasunak oso esanguratsuak dira, “Cambios en la...” Op. Cit.



promozioarekin geroago, populazio langile eta emigrantea jasoaz handitu zen eraikuntzaren ondorengo faseetan. Etxabakoitz guneko goiztiarra izan zen ere. Inquinasa lantegiaren ondoan enpresak haren langileentzat eraiki zituen etxebizitzetan izan zuen jatorria, 1954ko Urdanoz multzoan lehenbizi eta 1958ko Larraskuntxearekin beranduago. 60. hamarkadan zehar, langile auzoek pairatuko zituzten zerbitzu gabeziaren eredu nagusienetarikoa batean bilakatu zen, bizi kalitate gutxieneko hiri esparru bezala nabarmendu zutelarik

Periferiako beste bi auzo garrantzitsu, Arrosadia eta Sanduzelai, alde aurreko populazio nukleo tradizionalatik abiatuta handitu ziren. Arrosadiaren kasuan, nukleo hura "Mochuelo" izenarekin ezagutzen zen auzo zaharra izan zen, soroek, nekazal bideek, etxolek eta landetxeek osatzen zutena. 60. hamarkadan, etxebizitzaren eraikuntza bizkorrak, landetxe eta baratza haiek irensten zituen bitartean, aipatu nekazal bideen trazadura labirintiko hari jarraiki, etxe multzo berri eta garaiak eraiki zituen<sup>190</sup>. Sanduzelaren kasuan, jatorrizko populazio nukleoa, iparraldeko tren geltokiaren inguruan sortutako ezarmendu bat izan zen. Geltokiaren inguruan industriak eta langileen ezarmenduak kokatu zirenez, jatorrizko nukleo hura etxebizitzak eta fabrikak nahasten zituen zonalde misto bat zen. 60. hamarkadaren bitartean, joera hau are gehiago sakondu eta auzo berriaren etxebizitzak, industrietan inguratuta eraiki ziren, euren arteko espazioetan ere erabilera industrialerako etxabeak sortu izan zirelarik. Auzoan barna hasieratik nabaria izan zen presentzia industrial honek, Sanduzelai erabatean langile auzoa izatea eragin zuen<sup>191</sup>.

Donibane eta Iturrama auzoen jatorria beretsua izan zen baina euren bilakaera, aipatu beste auzoetakoarekin alderatuta, apur bat desberdina. Kasu hauetan, aurreko kasuetan bezala, abiapuntua harresiaz bestaldeko soroetatik barreiatzen ziren populazioak, landetxeek eta baratzeek osatzen zituzten nukleoak izan ziren, goi-lautadako landetan kokatutako Donibane eta Iturrama auzo zaharrak, hain zuzen ere. 50.hamarkadaren amaieran, Iruñeko III. Zabalgunea osatzearren, ezarmendu hauen handitzea sustatu zen, erregimen kooperatiboan eta dirulaguntzen gerizpean, etxebizitza berrien eraikuntzari ekinez. 60. hamarkadan zehar eraikuntzarako eredu honek jarraipena izan zuen, baina etxebizitza promozioei eta bizilagunen profilei dagokionean egitura dibertsifikatuago bat azaldu zuen, goi-lautada hau kalitatezko bizitegi gune bezala gailentzen hasi zelarik<sup>192</sup>.

Hiritartze prozesuak ordea, ez zuen soilik hiriaren kanpo itxura aldatu eta Iruñea tradizionalaren barrena astindu zuen, iruñar gizartea ere, sakonki, eraldatuz. Hiria, hartara, gizarte berri baten jaiotzaren agertokia izan zen, hau da, egitura sozioekonomikoetan ez beste, bizimoduetan, pentsamoldeetan, jokabideetan eta mentalitateetan eta are kulturalki eta politikoki, industrialia eta hiritarra zen gizarte "modernoaren" agerpenaren lekuko abantailatua.

---

<sup>190</sup> Mochuelo auzoaren hastapenak ikusteko, Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos del mochuelo*, Lamiñarra, Iruñea, 2011. Bertan jasotzen diren argazkiak oso ongi islatzen dute etxolaz eta baratzeek osatutako landa auzo hura, eraikuntza berriaren ondorioz, nola eraldatu zen.

<sup>191</sup> Egiatan, 1957ko Hiriaren Antolaketaarako Plan Orokorrak, auzoaren zabalgunea eraikia izango ziren lursailak industria eta nekazaritza erabilera lursail bezala definitzen zituen, gunea industrien ezarmendurako nukleo bezala itxuratzen hasi zelarik. Aurrerago ordea, 1957ko plan hori "zuzentzen" zuen plan partzial baten bitartez, etxebizitzekin konbinatutako industria gune bezala definitu ziren, berauetan eraikuntza jarduera ahalbidetuz. Hartara, etxebizitza berriak industrietan inguratuta eraiki ziren

<sup>192</sup> Berriz ere Dolores Lopezek eta Carolina Monteron emandako datuei begiratuta, auzo hauek ertain klaseen eta hezkuntza maila altua zuen populazioaren gune bezala egonkortsu zirela egiaztatzen da. Ikusi Dolores Lopez eta Carolina Montoro, "Cambios en la..." Op. Cit., 289-290 orr. (hezkuntza maila) eta 296-298 orr. (lanbidea).

## Gizarte berri bateruntz

Aurreko atalean ikusi dugun bezala, modernizazioaren, industrializazioaren eta gizarte eraldaketan ondorioz, subjektu sozial berrien agerpena gertatu zen gizarte egituraren baitan. 60. hamarkadaren bitartean, Nafarroan eta Iruñean ere, hauen protagonismo soziala, dinamika sozial berrien adierazle nagusienetariko bat izango da. Atal honekin amaitzeko ez dugu, ordea, eragile hauen bizimodu, pentsamolde eta jokabide berrietan sakonduko. Ez dugu egingo, hauek, datozen kapituluetan, subjektu berri horietariko baten ikuspuntutik, langile klasearen ikuspuntutik, azalduko ditugulako. Beraz, momentuz, protagonista berri hauen presentzia eta euren pisu eta paper sozialaren itxuraketa berria azalera dutelako, langile klase berri baten sorrera eta honek berekin ekarri zuen gatazka sozialaren piztutzea; parte hartze hiritar, sozial eta politikorako ekimen berrien loratzea; emakumearen lan merkaturako sarrera eta genero balore berrien garapena<sup>193</sup>; Nafarroako Unibertsitatearen inguruan sortutako ikasle mugimenduaren agerpena; eta erlijiozaletasunaren alorreko aldaketa instituzional, sozial eta kulturalak azpimarratzen ditugu nafar eta iruñar gizarte dinamiko berria osatu zuten elementu bezala.

---

<sup>193</sup> Eragile sozial berri hauenganako hurbilpen bat marko iruñarrean, Fernando Mendiola, "Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)", Gerónimo de Uztariz, 17/18. zkia, 2002, 211-250 orr.



**2.KAPITULUA:**  
**IRUÑERRIKO LANGILERIA BERRIA**

“Langile klasea ez zen, eguzkia bezala, momentu jakin batean azaldu. Haren eraketa prozesuan parte hartu izan zuen zuzenean”<sup>194</sup>. *The making of de english working classen* hitzaurrearen lehen lerro honekin E. P. Thompsonen aski ongi iragartzen zuen bere lan handiaren orrialdeen baitan eragile historikoek, subjektuek, izango zuten paper aktiboa. Honekin, historialari britainiarrak, subjektu horiek -langileek kasu honetan- euren egitearen bitartez historiaren eraketan parte hartzen zutela aldarrikatzen zuen eta subjektibotasuna, analisi historikoaren ekuazioan sartzen zuen. Hau da, fabrikak langile klasea oihala edota errailak bezain mekanikoki sortzen zuelako baieztapenaren aurrean<sup>195</sup>, subjektuek ere, euren gogoaren arabera eta euren ekintzaren bitartez, klasea sortzen zutela planteatzen zuen. Zentzu honetan, *The makingen* hitzaurreari jarraitzen zion azterketan, prozesu historikoaren ardatza, baldintzatzaile objektiboak baino, baldintza [objektibo] haiek bizi zituzten subjektuak, hots, berezko tradizioak, baloreak, ideiak eta mundu ikuskerak zituzten izaki historikoak, ziren; hauek zeintzuk ziren eta nolakoak ziren ezagutzea, funtsezko bihurtzen zelarik.

Zentzuk izan ziren klasearen eraketan parte hartu zuten protagonista kontzientek? Thompsonen aztertu zuen kasuan, protagonista hauek ez ziren, pentsa zitekeen moduan, industria langileak izan. Denboran atzera egin eta protagonista bezala, hauen aurrekariak seinalatu zituen: fabrika eta merkatu harremanei aurre egin zieten langileengan. Honela, sistemaren aurkako erantzunaren eta matxinadaren erdigunean industria arloko laneskua kokatu beharrian, produkzio modu aurre industrialei eusten zieten langileak, artisauak, ehuleak edota ogibide tradizionalak ofizialak, kokatu zituen. Ildo berean, Manuel Perez Ledesma, halako subjektuak identifikatzen zituen ere XIX mende amaierako espainiar langile klasearen sortze kulturalaren protagonista gisara.

Kapitulu honetan gure helburua, Thompsonen eta Perez Ledesma egin bezala, galdera horri erantzuna ematea izango da. Hau da, Iruñerriko langile klasearen eraketa prozesuaren protagonistak zeintzuk izan ziren definitzea, matxinatu ziren, erresistentzia ekimenak abiatu zituzten, aldarrikapenak egin zituzten, langile protesta eta borroketan egon ziren, harreman sare sozialak eta antolakuntza nukleoak sortu zituzten eta klase identitate bat osatu eta bere egin zuten subjektuak zeintzuk ziren eta nolakoak ziren azaltzea. Thompsonen edota Perez Ledesma identifikatutako oso bestelakoak izango dira, behinik- behin gureak bai, industria eta fabrika langileak izan zirelako; baina klasearen eraketa prozesuan izango duten papera, eragile aktiboarena, berdina izango da. Horregatik guretzat ere ezinbestekoa izan da subjektuak aztertzea, soilik protagonistak zeintzuk ziren, nondik zetozen eta nolakoak ziren ezagutzeko izango dugulako prozesu historikoaren bitartean nola jardun zuten azaltzerik.

Ondorengo orrialdeetan, frankismoaren bitartean Iruñerriko langile klasea osatu zuten langileek azaltzen dituzten ezaugarri nagusienak aztertuko ditugu, gure prozesuaren subjektu historikoak identifikatzen dituzten profilak osatzeko asmoarekin. Azterketa egiteko erabili dugun iturri nagusia, ahozko iturria izan da. Hitzaurrean, ahozko iturri horren sailkapena egiterakoan, izaera desberdineko ahozko iturriak (Txantreako eraikitzailea, langilea, apaiza, auzo mugimenduko militantea, ekintzaile politikoa) erabili ditugula azaltzen genuen, baina azterketa hau egiteko, zehazki, langile

---

<sup>194</sup> Edward Palmer Thompson, *La formación de la clase obrera en Inglaterra*, Capitán Swing, Madril, 2012, 27 orr.

<sup>195</sup> Esapide hau William H. Sewellek erabili zuen, “Cómo se forman las clases: reflexiones críticas en torno a la teoría de E. P. Thompson sobre la formación de la clase obrera” *Historia social*, 18. zkia, 1994, 77-100 orr., 80 orr.

kategorian sailkatutako iturriak erabili ditugu<sup>196</sup>. 50 eta 60. hamarkadetan zehar eta 70. hamarkadaren hasieran lan merkatura sartu ziren, urte haietako protesta, borroka eta gatazkak sustatu zituzten eta mugimendu edota erakunde sindikal zein politikoetan zuzenean (militantzia aktiboa) edo zeharka (gutxieneko militantzia maila ezberdinak) parte hartu zuten langileak dira. Elkarrizketatu bakoitzari datu pertsonalen fitxa moduko bat egin diogu eta bertan, subjektuak sailkatzeko eta profilak eratzeko funtsezkotzat jo dugun informazioa bildu dugu: jaiotze data eta tokia; familiaren maila sozialaren eta tradizio politiko eta kulturalen inguruko informazioa; ikasketak; eta lan ibilbidea, hau da, langile bezala zein industria sektore, fabrika eta lanpostutan lan egin zuen. Informazio honen azterketaren emaitzak dira jarraian aurkezten ditugun langileen ezaugarri eta profilei buruzko azalpenak.

---

<sup>196</sup> Apaiz langile eta ekintzaile politiko bezala sailkatutako biak eta auzo mugimenduko militante bezala sailkatutako bat (Irakaskuntzaren alorreko CCOOen sorreran parte hartu zuena) ere erabili ditugu azterketa egiteko.

## 2.1 LANGILE BERRIAK, EZAUGARRI BERRIAK

“Bada nafar langile mugimenduari komuna zaion elementu bat, ekintzaileok edota buruok ez gara, orokorrean, tradizioetatik datorren jendea... jende prestatuta [gara], Lanbide Heziketako ikasleak, maisutza eta merkataritza ikasketetako ikasleak, ezta? [baita ere] unibertsitatea uzten duen jendea... ezkerreko erakunde politikoen tradizioetatik jaiotzen ez ginela [ere] komunean genuen” [M.B.. Villafranca. Seminarioko ikaslea. Lovainako Unibertsitateko ikaslea. Nafarroako CCOOeko militantea. Nafarroako azken Langile kontseiluko kidea. Legeztatutako CCOO sindikatuaren lehen Idazkari Nagusia]

Elkarrizketatutako langileen datu pertsonalen fitxetan jasotako informaziotik, orokorrean, subjektuei berezkoak zaizkien lau ezaugarri nagusi nabarmentzen dira: estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteen presentzia garrantzitsua den arren, orokorrean, jatorriz nafarrak dira, Iruñean jaiotak edota nafar landatik hirirako emigratio mugimendu tradizionalen biziagotzearekin batera etorritakoak; industrian eta fabriketan lan egiten dute; landatik hirirako emigratio bizkorretik eratorritako laneskuaren kualifikazio falta agerikoa den arren, prestakuntza maila garrantzitsua dute, bai lanbide heziketaren alorrean eta baita ere ikasketa teknikoei dagokienean; eta, oro har, gazteak dira.

### 2.1.1 Jatorria. Nafar langileria bat

Aurreko atalean azaldutako iruñar populazioaren osaerari buruzko edota Nafarroatik-Nafarroarako, hau da, landatik-hiribururako barne emigratio mugimenduei buruzko datuak, burututako elkarrizketen azterketatik ateratako ondorioekin osatzen dira gurea, nafar jatorriko langile klase bat izan zela esateko. Landutako ahozko iturriek, zalantzarik gabe, nagusiki nafarra zen langileria bat begietaratu digute. Klasearen jatorriaren inguruko azalpenarekin hasi baino lehen ordea, ahozko iturrien hautaketari eta honek ezaugarri honi buruzko emaitzetan izan duen eraginari buruzko pare bat ohar egitea ezinbestekoa da. Lehena, azterketa honen helburu nagusia klasea sortu zen zirkuituaren baitan jardun zuten elementuak identifikatzea izateagatik, protagonistengana iristeko erabili izan dugun modua kontaktu sare bat osatzearena izan dela. Euren profilengatik edota gertutasunarengatik gaketzat jo izan diren hainbat protagonistekin zuzeneko kontaktua egin ondoren, iturri hauen bitartez, lehenbizikoen sareetan kokatzen ziren bestelako iturriekiko kontaktua lortu da, iturriek osatu duten kontaktu sarea, nolabait, azaleratu gura dugun zirkuitua berregin duelarik. Bigarrena, iturriek berek sortutako sare hori bera izan dela gure protagonistak nagusiki nafar bezala bereizi egin dituen. Oso gutxitan agertu zaizkigu, sare honen baitan, estatuko beste probintzietatik etorritako langileak. Honek ez du esan nahi estatuko beste probintzietatik etorritako langile horiek iruñar langileriaren parte izan ez zirenik edota orduko borroka eta ekimenetan esku hartu izan ez zutenik, baizik eta orokorrean, salbuespen nabarmenak kenduta, ez direla aztertuko dugun zirkuituren baitan jardungo duten protagonista nabarmenduenen artean egongo. Zentzu honetan esaten dugu protagonistak, zirkuituan baitan aurkituko ditugunak, nafarrak direla bereziki.

Nafar langileen artean, bi profil nagusi bereizten ahal ditugu: Iruñean bertan jaiotakoena eta landa mundutik etorritako emigranteena. Iruñerrena da profil errepikatuena, are gehiago jatorria Iruñerriko udalerritik ezberdinetan, Atarrabian edo Huarten esaterako, jatorria duten langileak “iruñar” bezala sailkatu ditugunean<sup>197</sup>. Hauen ezaugarri nabarmenetako bat gaztetasuna da, iturrien gehiengoa, Iruñerrian jaiotako belaunaldi gazte eta berri bateko kidea baita. Hala ere, aurreko belaunaldiko langileen presentzia oso kontutan hartzekoa da ere, hauek izan baitziren aurrenak

---

<sup>197</sup> Horrela egin dugu, hein handi batean, gure ikerketaren markoa Iruñerria osoa delako, baina baita ere, Iruñerria osoa, *continuum* bat bezala ulertzen dugulako, hau da, hirigunean ematen diren prozesuak, aldi berean eta modu berean, ingurunean udalerrietan emango zirelako.

Iruñeko lehenbiziko fabrika garrantzitsuetan eta langile esparruetan kokatzen. Iruñarren artean beraz, soslai bi desberdin nagusi topatzen ditugu: alde batetik, 50. hamarkadaren bigarren erdialdean eta 60. hamarkadaren hasieran zirkuituaren oinarriak jartzen hasi ziren langileek osatzen dutena (lehenengo belaunaldia); bestetik, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera zirkuitu hori gorpuztu zuten gazteria autoktonoak osatzen zuena (bigarren belaunaldia).

Ahozko iturri nafarrek iruñarren nagusitasuna azaltzen duten arren, hauen artean nafar landa mundutik etorritako emigranteak aurkitzen ditugu ere, nafar nekazal munduko herri desberdinetan sorterrria duten langileen presentzia oso kontutan hartzekoa delarik. Aurreko kapituluan ikusi ditugun migrazio mugimenduei buruzko bi aspektu kontutan hartu behar ditugu emigrante nafarrek Iruñerriko langileriaren osaeran izan zuten pisuaz aritzerakoan. Lehenbizikoa, 50 eta 60. hamarkadetan Iruñeak jaso zuen emigrazioa, estatuko beste probintzietatik etorritakoa izugarri hazi egin zen arren, nagusiki nafarra izan zela: 1975ean oraindik Iruñeko biztanleriak barne hartzen zituen “kanpotarren” artean, nekazal munduko nafarrek gehiengo izaten jarraitzen zuten<sup>198</sup>. Bigarrena, emigrazio horrek klase izaera izan zuela. Nafar emigranteak jatorrian sektore sozial umilekoak, nekazariak -jornalariak eta maizter txikiak noski, baina baita maizter ertainak eta lurjabe txikiak ere- eta artisauak ziren eta hirian, lantegi handietako soldatapeko lanesku arrunt bihurtzen ziren, sektore umilekoak izaten jarraituz.

Kontutan hartzekoa da ere 50 eta 60. hamarkadetakoa nafar emigrazio honek, aurreko landatik hiribururako mugimendu tradizionalekin alderatuta, ibilbideak berriro egin zituela. Ordura arte, Iruñera mugitzen zen nekazal munduko emigranteen gehiengoak jatorria, hiriaren eta haren inguru hurbilaren arteko harremanetik eratortzen ziren mugimendu naturalen ondorioz, hiri ingurunean eta arro aurre-piriniarretan bazuen, ordutik aurrera aldaketa esanguratsuak eman ziren zentzu honetan. Dolores López eta Carolina Montorok biltzen dituzten 1945-1975 bitarteko iruñar populazioari buruzko datu demografikoetan, urte hauetan nafar eskualde guztietatik etorritako emigranteen presentzia modu orekatuago batean banatzen zela eta sorterrien eta hiriburuaren arteko distantziak handitzen dituzten ibilbide berriak egin zirela ikusten ahal da. Honela, 1945eko eta 1975eko datuak alderatzen baditugu, bitarte horretan emigranteen sorterrri bezala gehien hazi ziren bailarak Nafarroako Ertain Zonaldea (batez ere mendebaldekoa) eta Erribera izan zirela ikusten dugu<sup>199</sup>. 1975ean hiri ingurune herrietan edo arro aurre-piriniarretan jaiotako biztanleen presentziak altua izaten jarraitzen du, baina hogeita hamar urte hauetan, nafar emigrazioaren gune igorle bezala bizi duen atzerakada oso agerikoa da; hein handi batean urte hauetan Iruñeaz beste gehien hazi zen zonaldea, hau bera izan zelako (bereziki hiri ingurunea: Burlata, Atarrabia, Huarte edota Antsoain bezalako Iruñerriko herriak). Mendialdeko datuak egonkor mantentzen dira. 1975ean iruñar populazioaren baitan mendialdean jatorria dutenen hazkunde nabari bat ez emateak, zonalde hauetan populazio lekualdaketak Iruñera baino, gehien bat Gipuzkoara edota Frantziara bideratu zirelarekin zerikusirik izaten ahal du.

<sup>198</sup> “Kanpotarren” artean nafarrak %30,3a ziren eta beste probintzietatik etorritakoak, %21,8a. Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 2. Taula: “Población de Pamplona según su origen 1945 y 1975”, 278 orr. Bertan ere ikusten ahal denez, nahiz eta 1945eko datuekiko nafarren murrizpena, estatuko beste probintzietakoen mesedetan, agerikoa izan, datua oraindik adierazgarria da mugimendu hauen garrantzia erakusteko. Ildo berean, aurreko kapituluan ikusten genuen bestelako datu bat gogoratu behar dugu: 1970eko Foessa txostenak, Nafarroatik-Nafarroako populazio mugimenduak, 1962-1969 bitarteko estatuko hamar mugimendu garrantzitsuenen artean kokatzen zuen.

<sup>199</sup> Ikusi datuak, Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 7. Grafikoa: “Inmigrantes navarros según comarcas de origen 1945 y 1975”, 281 orr. eta 3. Taula: “Inmigrantes navarros según comarca de origen 1945 y 1975”, 283 orr.



Ahozko iturriek joera aldaketa hau baieztatu dute. Iruñetik kanpo jaiotako nafar langileen artean, Nafarroako Ertain Zonaldeko herri ezberdinetan jaiotakoak dira nagusi, Erriberan jaiotakoek presentzia inportantea dute, arro aurre-piriniarretatik datozenen pisua, aurrekoekin alderatuta, nabarmenki murriztagoa da (gure iturrietan ez dute apenas presentziarik) eta Mendialdekoak berez, gutxi dira. Jatorriaren arabera, iturrien esperientzietan, emigranteek burutu zituzten migrazio ibilbide desberdinak ere bereizten ahal dira nolabait. Adibidez, Ertain Zonaldeko eta Erriberatik egiten diren populazio lekualdaketa gehienek, faktore ekonomikoekin eta, bereziki, nekazaritza tradizionala uztearekin dute zerikusirik; eta arro aurre-piriniarretatik burutzen direnek, motibazio ekonomikoa badute ere, ez dute nekazaritza jarduera uztearekiko horren lotura zuzena (bertan jatorria duten gure iturriek, adibidez, nekazaritza ez eta ofizioa utzi zuten atzean). Mendialdeko lekualdaketei dagokienean, iturrietan azaldu den ibilbidea berezitua izan da eta joera baino, kasu partikular bat delakoan gaude. Izan ere, mugimendua ez da berez Iruñerakoa, Bartzelonarakoa baizik eta Iruñean egiten den behin-betiko asentatzea, jada esperientzia desberdinak (ikasketak, lana, militantzia) bizi direla burutzen da.

Halako migrazio ibilbideak azaleratzea, emigranteek lekualdatzearen esperientzia nola bizi zuten eta euren bizitzetan zer suposatzen zuten aztertzeko baliagarria izan daiteke. Horregatik, iturriak aztertuta, ibilbide eredu desberdinak osatu ditugu emigranteek, lekualdaketa, nola eta zergatik egin zuten kontutan hartuz. Arestian jada migrazio ibilbide nagusia aipatu dugun arren -faktore ekonomikoek eraginda, nekazaritza tradizionala edota ofizioa utziz burutzen dena-, iturrien esperientzia ezberdinek, halako ibilbideak askoz ere konplexuagoak izan zirela eta ondorioz, aldaerak izan zituztela agerian utzi dute. Jarraian, iturriek azaleratu dituzten eredu edo aldaera nagusienak azalduko ditugu.

Lehenbiziko ereduari, lekualdaketa umetan edo gaztetan, familia osoarekin, burutzen da eta arrazoi ekonomikoak dira mugimendua bultzatzen duten faktore nagusiak (beharrak ihes egitea eta bizitza hobeto bat lortzeko jomuga izaten dira ematen diren arrazoi errepikatuenak). Halakoak familia osoaren mugimenduak izaten ziren arren, oso ohikoa zen familia buruak (aitak), lehenbiziko fase batean, Iruñean asentatzea egitea eta ondoren, bigarren fase batean, familia osoa mugitzea. Honela jasotzen da, iturrien esperientzietan, ibilbide honen funtsa:

Herriko mutikoa naiz ni eta gurasoak, 50 eta 60. hamarkadetan ohikoa izan zen fenomenoari jarraiki, Iruñera etorri ziren [...] batez ere guregatik, seme-alabengatik, guk ikasteko aukera izateko... [aitak] ez zuenez... nekazaria zen, ez zuen ezer... eta Iruñera etorri ziren. [J.S.M. Eneriz]

[...] bizitzak okerrera egiten zuelako. Nire aita gaixo zegoen eta ezin zuen [lurretan] lanik egin, beraz, bertan [herrian] lortzerik zegoen eskasia jaten genuen... orduan hona etortzea erabaki genuen, bueno, haiek erabaki zuten ni umea nintzelako. [P.M.. Olite]

Nire aita, bizibiderik ez zuen, haurtzarotik lan egin behar izan zuen gizona zen eta berrogei urte zituela bost seme-alaba aurrera atera behar zituela ikusi zuenean, gehien maite zuena, bere bizitza, ingurua, bizipenak... atzean utzi eta emigratu behar izan zuen, baina tokian-tokiko migrazio bat izan zen, Iruñerakoa. [M.S.S.. Eslava]

Kasu hauetan, esan bezala, lekualdaketak umetan edota gaztetan burutu ziren eta horrek, eredu honetan sailkatzen diren emigranteek berezko esperientzia bat bizi izatea eragin zuen: euren jardunbide profesionala eta gizarteratzea, erabatean, Iruñean bizi zuten, adinarengatik iruñarren bigarren belaunaldikotzat jotzen ahal ditugun heinean, aipatu "Iruñeko gazterien" profiletatik gertu kokatzen direlarik.

Bigarren ereduaren migrazioa helduaroan burutzen da eta iturria bera da Iruñerako lekualdaketa erabakitzen duena. Berez mugimendu hauek aurreko ereduaren dinamika berbera jarraitzen dute eta faktore ekonomikoek eraginda, bizimodu hobea baten bila, abiatzen diren familia emigrazioak dira; baina aurrekoekin alderatuta, hauetan protagonistaren ikuspuntua beste bat da. Izan ere, oraingoan iturria familia burua da eta berak sortutako familiarekin burutzen du lekualdatzea, emigrazioaren esperientzia berarentzat zeharo desberdina izango delarik. Esate baterako, familia buru hauek, euren jatorrizko herrietan alde aurreko bizibide bat bazuten, nekazariak ziren, ofizio bat zuten edota enplegatu soilak ziren; horregatik haien zatiak, emigrazioak, euren seme-alabentzat ez bezala, euren lanbidearen bapateko aldaketa zuzena suposatzen zuten. Eredu honetan sailkatzen ahal ditugun iturriak herrian euren ofizioa (maisua) eta enplegua (okindegiko laguntzaile) duten langileak dira eta momentu batean, arrazoi ekonomikoengatik, hauek bertan behera utzi eta hirira zein fabrikara alde egiten dute aukera berri baten bila. Iturrien artean, zuzenean, nekazariak topatu ez ditugun arren, aurreko eredu iturrien gurasoen kasuen bitartez, euren presentzia azalertzeko aukera izan dugu. Emigrazioak berekin ekarri zuten bapateko lanbide aldaketari dagokionean, iturriek esperientzia berbera bizi izan zutela ikusten dugu: nekazariak, ofiziodunak edota enplegatuak izan, iturriak zuzenean edota euren gurasoak zeharka, eraikuntza arloan peoi edota fabrika handi batean kualifikatu gabeko laneratu izatera igaro ziren. Maisua, adibidez, sektore kimikoaren fabrika ertain batean hasi zen lanean; okindegiko laguntzailea, metalaren sektoreko fabrika handi batean. Bataren eta besteen esperientziak jasotzen dira ondorengo testigantzetan:

Ni... lan injustizia handi bat pairatu ondoren etorri nintzen [...] Iruñera lanpostu berri baten bila. Hona etorri eta segituan Torfinasan hasi nintzen lanean [...] Oraindik emaztea ez zen iritsi eta osaba-izeba batzuen etxean bizi izan nintzen ostatu hartuta [...] hilabete bat gutxi gora behera, emaztea etorri zen arte. [E. A. Urroz]

Maisu bezala lan egin nuen hamar urtez [...] bost herri desberdinetan, behin-behineko maisua nintzenez, alde batetik bestera ibiltzen nintzen [...] Azkenean ezkondu nintzen eta Etxaurira joan nintzen bizitzera [...] Etxaurin nengoelarik, hilean 525 pezeta jasotzen nituen... eta Penibérrican lan egiten zuten lagun batekin hizketan, esan zidan: “¿No quieres venir a Penibérica?” eta nik esaten diot “Pues no, estoy muy agusto aquí...” [...] Alaba bat nuen jada [...] eta orduan soldata, seme-alaba kopuruaren araberrako osagarri batekin ordaintzen zuten, “puntuak” ... eta alaba izateagatik bakarrik, soldataz beste, 1.500 pezeta ordaintzen zizkidaten “puntuak”... eta nik Etxaurin osotara 525 pezeta jasotzen nituen... eta sekula goserik pasa ez nuen arren [...] hori esan zidanean, horren aurrean ez dago bokaziorik, beharrianaren aurrean ... eta Penibérricara joan nintzen. [J.M.V. Garraldan jaioa eta Etxauritik emigratuta]

Beste bi ibilbide eredu azalerratu dira nafar emigrante diren iturrietan, bereziki bigarren belaunaldiko etorkin gazteen artean. Bietatik lehenbizikoa oso ohikoa da: gaztarroan, oraindik familia buru izan gabe, egiten den mugimendua. Langilea herritik hirira bakarrik lekualdatzen da, gurasoak sorterrian utzita, Iruñean kokatzen ari diren industria berrietan lana topatzeko edota zuzenean senide, lagun edo ezagun baten bitartez, fabrika jakin batean lanean hasteko:

Ahizpa etxe batean ari zen zerbitzatzen jada[...] [eta] bere senargaiak, hemen senargaia egin zuelako, fabrikari langileak behar zituztela esan zidan eta ea... eta nik ez nuen nahi, noski, ni oso gustura bizi nintzen herrian, ongi sentitzen nintzen bertan, hau da, ni hiriburura... [...] Baina aitak, zirikatzegatik, esan zidan: “tú lo que pasa es que eres un cobarde ” [...] orduan horrekin piztu egin nintzen eta “pues vale, pues ya iré”. Orduan horrela gertatu ziren gauzak, horrela ateratzen naiz ni herritik... nire borondatearen aurka, hein handi batean. [R.M. Cabanillas]

Ni, Iruñera etorri nintzenez hogeita hiru edo hogeita lau urte izango nituen [...] lau anai-arreba ginen, ni hirugarrena naiz, [baina] ni bakarrik etorri nintzen, ni bakarrik [...] Bakarrik etorri nintzen eta nire emaztea izango zena ezagutu nuen eta orduan hemen geratu nintzen [...] Etorri nintzenez [...] berehala hasi nintzen fabrika batean lanean baina laster kontuak eskatu, alde egin eta hortik ibili nintzen bueltara, Authin sartu nintzen arte. [JA.C. Gares]

Ibilbide hauetan, landatik hirirako lekualdaketaren bultzatzaile bezala, beharrian ekonomikoaz aparte osagarri berri bat agertzen zaigu: hiriburuak eskaintzen zuen bizimodu ezberdinak eta “hobeagoak” gazteengan sorrarazten zuen erakarpena. 60. hamarkadaren bitartean, nekazal munduak gazteriari etorkizunerako aukerarik eskaintzen ez ziolako sentipena zabaldu zen herrietako gazteen artean eta hauek, bizibide berrien bila, sorterrira utzi eta Iruñera edota Europako herrialdetara lekualdatzen hasi ziren. Mugimendu bizi eta bizkorrak izan ziren, urte gutxiren buruan gazteak herrietatik desagerrarazi zituztenak<sup>200</sup>. Ibilbide hauekin, emigrantearen figura berri bat errotu zen hirian: lehenbiziko momentuetan ugazabandire etxeetan edota langileentzako egoitzetan ostatu hartzen zuen mutil gazte eta ezkongabearena<sup>201</sup>.

Emigrante gazteen bi ibilbideetatik bigarrena, aurrekoa bezain orokortua ez izan arren, oso eredu esanguratsua da. Hemen sailkatzen ditugun iturrien kasuan, etorkin gazteak, ikasketak euren sorterrietatik kanpo burutu ondoren, Iruñean finkatu ziren. Hau da, Iruñean egin diren ikasketak amaitutakoan, bertan geratzen dira bizibide bila, gehienetan hura hiriburuko fabrika berri eta handietan topatuko dutelarik. Aldagai interesgarri bat atzematen da ibilbide honetan, izan ere, Iruñean egiten diren finkatze hauek, militantzia politikoa zuzeneko lotura agertu izan dute hainbatetan. Lekualdaketaren burutu aurretik jada erakunde politikoren batean militatzen zuten iturrien kasua da, hirian finkatzea eta lantegi handietan lanean hastea, militantzia hori gauzatzeko modu bezala ulertzen direlarik. Era berean, oraindik talde politiko jakin batean sartuta egon gabe, hiriburura, hain zuzen, militantzia politikoa hasteko

---

<sup>200</sup> Gazteen emigrazioak benetako alarma sortu zuen Nafarroan 60. hamarkadaren bitartean, bereziki lehenbiziko urteetan. Diario de Navarra, hamarkadaren hasieran, nafar herriari buruzko erreportaje multzo batean, gazteriaren artean orokortutako fenomeno honen gaineko kezka larria azaltzen zuen benetan. Zenbait kasu adierazgarri aipatzen ahal ditugu. Adibidez, Petilla de Aragón, non Mary Carmen gaztearen egoera, nafar herrietako gazteriaren egoeratzat hartzen zen: “Triste, eder eta bakarrik. Mary Carmenek lagunarte beharra du. Berrogeita hamar familia eta berrehun eta berrogei bizilagun baino zertxobait gehiago. [...] Hogei mutiko ezkongabe inguru eta hogeitaz urteko neska bakarra hamalau urteko neskatoen eta berrogei urteko emakumeen artean. [...] Gizonak lana galtzen hasi ziren. Batzuek alde egin zuten. Neskatoen exodoa duela hiru urte hasi zen gutxi gora behera. Haietariko bat Zaragozara joan zen neskame [bezala lan egitera] familia laguntzeko. Lagunei idatzi zien hori [hiria] amets bat bezala zela esanez. Bata bestearen atzetik [...] Mary Carmenen lagunek Petilla utzi zuten [...] Mary Carmenen bakardadea sinbolo bat baino askoz gehiago da [...] Gaztarora iristear diren Petillako neskatoek euren familia hemen ez sortzeko ideiarekin bailaratik beherako bidea hartzen badute, Petilla ez da [inoiz] bere onera itzuliko”, “Diario de Navarra en Petilla de Aragón”, DN 1963-02-08, 3 orr. San Martin de Unxen kasuan, gazteria eta bizimodu berriak azaltzen dira emigrazio orokortuaren fenomenoaren azaltzeko faktore nagusi bezala: “Bihozmina eragiten du gure nekazariak, hiriko argiek erakarritara, jaiotzen ikusi zituen lurra uzten dutela ikusteak. Emigrazioa konponbide zaileko arazoa da [...] Azken hogeitaz urteotan, populazioa %40 batean murriztu egin da. Gazteek Frantziara edo Suitzara, Espainiako erdigune industrialetara eta lanak bizitzeko haina ematen duen edozein tokitara alde egiten dute. Gazteria mugiarazten duena soldata, dirua da soilik? [...] konponbide zailagoa duten bestelako erakarpenak daude [hirian]. Konplexuagoak dira. Hiriko bizitza, bere erosotasun eta aurrerapen guztiekin, herrietara sartu da. [...] Zergatik uzten du ba nekazari gazte batek herria, non bizitzeko ehun eta berrogeita hamar edo berrehun pezetako solda irabazten du, Gipuzkoan, Bizkaian edota Iruñean, exegintzako langile edo peoi bezala laurogei, ehun edota, askoz jota, berrehun pezeta irabazteko?”, “Diario de Navarra en San Martin de Unx”, DN 11-10-1963, 6 orr.

<sup>201</sup> Hau izan zen, adibidez, R.M. elkarrizketatuaren kasua. R.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-07.

asmoarekin burutzen diren lekualdaketak ere hemen sailkatzen ahal ditugu. Hiru iturriren kasua da: herrian bertan erakunde politiko batekin harremanetan jarri eta, behin antolatuta, politikoki eta sindikalki aktiboa izateko gogoarekin hiriburura etortzen dena; Iruñeko seminarioan ikasketak burutu, atzerrian goi mailako ikasketak egiten hasi, ikasketa garai hauetan egindako harreman sarearen bitartez erakunde politiko batean militatzen hasi eta militantzia hori gauzatzearren, fabrikako langilearen eta militantzia sindikalaren esperientzian parte hartzeko hiriburuan finkatzen dena; eta azkenik, seminarioko ikasketak amaitu eta atzerrian hainbat bizi esperientzia aberasgarri ezagutu ondoren, mundu sindikal eta politikoan aritu asmoz, erakunderen batean parte hartzeko Iruñera etortzen dena. Hiru testigantza hauek aipatu hiru kasuak azaltzen dizkigute:

[...] herrian nago eta hemen bertan jaiok baina Iruñean bizi diren erakunde politiko bateko hainbat kiderekin harremanetan hasten naiz; honekin nire bizitza erabatean aldatzen da eta Iruñera nator zuzenean ezkerreko erakunde politiko hartan aritzeko. Orduan... hemendik aurrera, lanpostu eske ibiltzen naiz eta bereziki enpresa handietan sartzan saiatzen naiz [...] eta Potasasen sartzeko elkarrizketa egiten didate. Eta Potasasen hasten naiz 74ko azaroaren 2an, hogeita zazpi urterekin. [V.D.. Viana]

Nik seminarioan hartu nuen hezibidea, bederatzi urtez izan nintzen bertan. Ondoren [...] Lovainako unibertsitatera joan nintzen eta hiru urte eman nituen han. Hirugarren urtean [...] ikasketak utzi eta hona etorri nintzen [...] Iruñera; [...] soldaduzka egin ondoren hasi nintzen lanean, 74ean, Iruñeko industria gerrikoko fabrikatxoren batean[...] ni hona nator eta lanean hasten naiz, hau da, ikasketak uzten ditut, ezkerreko erakunde politiko batean sartzan naizelako eta beno, orduan buruan genuen iraultzaren subjektua langile klasea zelako teoriaren arabera, guzti horretan nahasi behar ginen eta langile bilakatu beharra genuen eta orduan beno, hori izan zen motibazioa... eta lanean hasi nintzen lehenbiziko momentutik ideia hori da, ezta? Orduko mugimendu sindikalean parte hartzea. [M.B.. Villafranca]

[...] etorri nintzen ideia batekin, hemen militatu egin behar nuela talde ezkertiarretan gizaritari erabat... bueno, bertze printzipio batzutan oinarritzeko eta bertze gizarte bat antolatzeko [...] [eta] orduan, militatu nahi bazenuen, lehenbiziko helburua edo lehenbiziko bidea zen lantegietara joan. [P.U.. Amaiur]

Iturri nafarren artean, beraz, iruñarrak eta nekazal munduko etorkinak ditugu. Iruñarren artean, langile klasearen esparruak zabaldu zituen belaunaldiko kideak eta gune horiek gorpuztu zituen "Iruñeko gazteriaren" belaunaldiko kideak bereizten ahal dira. Eta nekazal munduko etorkinen artean, txikitik familia osoarekin lekualdatu zirenak, hirira eurak bakarrik bizibide berri baten bila edota zuzenean erakunde politikoetan eta sindikaletan militatzera gaztetan etorri zirenak eta familia buru izanda, ofizioa galdu edo utzi ondoren, familia mantentzeko lanpostu eta soldata hobeagoen bila hiriko fabriketan lan egiteko emigratu zutenak ageri dira.

Nafarroan jaiotakoen gehiengoaren aurrean, estatuko beste probintzietatik etorritako langileen presentzia urria da iturrietan<sup>202</sup>. Subjektuen jatorriaz aritzeko ahozko iturrietan oinarritzeak beste probintzietako emigranteek hauen artean izan zuten presentzia mugatzera eramaten ahal gaituela egia bada ere, guk berregin nahi izango dugun zirkuituari begira, iturri horiekin egin dugun subjektuen jatorriari buruzko azterketaren emaitzak aski esanguratsuak direlakoan gaude. Izan ere, iturrien hautaketa subjektuen eskutik, kontaktu sare bat osatuz, egin dugunez, sare horren bitartez iturriak mugitu ziren zirkuitua berrosatzeko aukera izan dugu, beste probintzietatik etorritako langileak sare horretatik, hots, zirkuitu horretatik kanpo zeudela atzeman ahal izan dugularik. Zentzu honetan, argi utzi nahi dugu estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteak ez direla zirkuitu horren baitan jardungo

<sup>202</sup> Soilik lau dira profil honetakoak: bat Aragoikoa (Huesca) eta hiru Andaluziakoak (Granada eta Jaén)

duten subjektu nagusiak, baina horrek ez duela esan nahi iruñar langileriaren baitan presentzia izan ez zutenik. Are gehiago, aurreko kapituluan ikusi dugunez estatuko beste probintzietako emigranteen presentzia agerikoa izan zenez, hipotesi moduan, emigrante hauek euren berezko sare eta zirkuituak sortu zituztela eta berauetan jardun zutela planteatzen ahal da. Nafarroako alderdi komunistaren antolakuntzan Andaluziako emigranteen sareek izan zuten paperak, hala izan zitekeela iradokitzen du. Sare hauek ordea, ez ziren izan Iruñerriko langile klasea sortu zen zirkuituaren baitako gune nabarmenduak. Ezta Nafarroako alderdi komunista bera ere<sup>203</sup>.

60. hamarkadan zehar estatuko beste probintzietatik zetorren emigrazioaren hazkunde handieneko aldia bizi ondoren, 1975ean, iruñar populazioaren %19a probintzietatik kanpo jaiotakoa zen. Ez da portzentaje baztergarria inolaz ere, baina Katalunia, Madril edota Bizkaia bezalako herrialdeetan jaso zen probintziaz besteko emigrante kopuruekin alderatuta, “txiki” geratzen da. Madrilen adibidez, probintzietatik kanpo jaiotakoen zenbatekoa, 1950-1975 urteen artean, ez zen inoiz %43tik azpikoa izan eta 1975ean, %46,7a izatera iritsi zen<sup>204</sup>. Beraz, langile populazioaren parte inportante bat osatu zuten arren, ez zen herrialde hauetan osatu zutena bezain erabakigarria izan.

Etorrin hauek langile populazioaren parte bat (erabakigarria edo ez horren erabakigarria) osatu zutela diogu, mugimendu hauen klase izaera argi eta garbi ikusten ahal delako. 60. hamarkadaren hasieratik, beste probintzietatik Nafarroara heltzen ziren emigranteek, profil berezia azaldu zuten: “Jaén eta hegoaldeko beste hainbat probintzietan dute jatorria, hau da, maila ekonomiko handiagoa duten, soldata finkoak ordaintzen diren, zonaldeetarako mugimendu naturalak egiten dituzte, bereziki eraikuntzaren arloan dagoen lanesku eskaintzari esker lana topatzen dutelarik”<sup>205</sup>. Mugimenduen klase izaera honi jarraiki, probintziaz kanpotik Iruñera datorren emigrantearen esperientziara gerturatzeko, hiru aspektu izango ditugu hizpide: mugimenduen jatorria, aurreko urteetan sorteri bezala nagusi izandako probintzietatik (Gipuzkoa, Zaragoza, Errioxa) egiten diren mugimenduak oraindik ematen diren arren, oraingoak nagusiki hegoaldetik, (Andaluziatik, Extremaduratik) datozen lekualdatzeak dira; aurrekoarekin oso lotuta, mugimenduen motibazioa, emigrazio mugimenduak abiarazten dituzten faktoreak ekonomikoak dira; eta mugimenduen helmuga, alde batetik eraikuntzaren sektorea eta fabrika handia, bestetik periferiako auzoak, emigranteen bizibide eta bizigune izango dira.

Estatuko beste probintzietatik Iruñerako emigrazioak, 60. hamarkadaren bitartean protagonista berriak izan zituen. Ordura arte Iruñera etortzen zen emigranteen gehiengoa Nafarroatik gertuko zonaldeetatik, Gipuzkoatik, Zaragozatik edota Errioxatik, mugitzen bazen, urte hauetan, sorterriekiko distantziak luzatu ziren, mugimendu bizkor eta jarraituen ondorioz, Jaendik eta Badajozetik etortzen ziren emigranteak, gehiengoa izatera igaro zirelarik. Iturri desberdinetan orduko probintziaz besteko immigrazioari buruz egiten diren erreferentziek, migrazio mugimenduen jatorrian halako joera aldaketa eman zela adierazten dute, berauetan, emigranteen etorreraren fenomenoaz aritzerakoan, andaluziarrak (ez horrenbeste extremadurarrak) eta bereziki jaendarrak, 60. hamarkadako immigrazioaren erreferente nagusienak

---

<sup>203</sup> Zirkuituan presentzia izan zuen, baina 70. hamarkadara arte behintzat, bigarren maila batean beti. Seigarren kapituluan luze arituko gara Nafarroako alderdi komunistaren inguruan eta honek zirkuituaren baitan izan zuen papera zein izan zen ikusteko aukera izango dugu.

<sup>204</sup> Datuak, José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 2. Taula: “Población nacida en otras provincias (en % sobre la población total)”, 17 orr.

<sup>205</sup> Nafarroako Gobernadore Zibilarren Memoria: 1961. urtea, AGA-AAO, Barne Arazoetako sailaren fondoa, 44-11320 kutxa.

baitira. Esate baterako, Jaén eta Iruñearen arteko bidea egunero egiten zuen “Navarro-andaluzia” deituriko autobus zerbitzu erregular batek funtzionatu izana, Jaén-Iruñea mugimenduaren maiztasunaren adierazle esanguratsua eta are sinbolikoa da<sup>206</sup>. Jaendik etorritakoen presentzia esplizituki aipatuta, Txantrea auzoaren kasuan topatu dugu. “Jimenako txantrearrak” izenpean, Txantrean Auzolan aldizkariko artikulua batean, Jaengo Jimena herritik etorritako auzoko bizilagunen historiaren birpaso txikia egiten zen, emigrante hauen etorrera nola gertatzen zen islatzen zuelarik: “Jimena Jaendik 39 kilometrotara dagoen herri txiki bat da. Gaur egun 2.000 biztanle inguru dituen arren, duela 50 urte ia 6.000 izan zituen. Garai hartan, bertan lana topatzeko aukerak urriak zirela eta, biztanle askok bizibidea beste lurralderen batean bilatzea erabaki zuen. Haietariko 27 Nafarroara, Aizpúnera, etorri ziren eraikuntzaren arloan lan egitera. Bertatik, Txantreara iritsi ziren etxebizitzaren bigarren fasea eraikitzen hasia zenean eta, lehenbiziko 27 hauek, dozenaka senide eta lagun [...] gure auzora etortzeko abiapuntua izan ziren”<sup>207</sup>. Ildo berean, ahozko iturrien bitartez, orduko hiriko iritzi kolektiboak immigrazioa eta jaendar etorkinen irudia nola uztartzen zituen ikusi ahal izan dugu ere: “*Magdalena zubian zegoen kartela gogoratzen dut: Jaénera kilometro bat... bi kilometro, edo bat eta erdi, edo halako gauza bat... jartzen zuen*”<sup>208</sup>.

Jimenako emigrante horien kasuak erakusten duen moduan, migrazio mugimendu hauen motibazio nagusia ekonomikoa izan zen, hots, euren sorterrietan kobratzen zuten huskeria baino soldata handiagoak jasotzeko eta lanpostu finkoa lortzeko gogoia. Ahozko iturriek azaleratu dituzten probintziaz besteko etorkinen ibilbideek argi eta garbi iradokitzen dute migrazio mugimenduen motibazio hura. Hauen esperientzia guztiak faktore ekonomikoei oso lotuta agertzen dira, nahiz eta nafarrekin gertatu bezala, emigratzea gauzatze moduan aldagaiak sumatzeagatik, probintziaz besteko emigranteen profil desberdinak osatzen ahal ditugu: alde batetik, sorterrian pairatzen zen lan gabezia egoeraren aurrean aukera berrien bila Iruñera, lagun edo senide batengana, etorri ziren gazteen eredia dugu; bestetik, familia osoarekin, guraso eta anai-arrabekin, landa utzi, lehen momentu batean puntu desberdinetarako lekualdatzea bakarrik egin eta azkenean, familia finkatu zen tokira, Iruñera, abiatu zen gaztearena; eta azkenik, familia osoarekin arrazoi ekonomikoengatik eta baita politikoengatik ere (aita hainbat urtez kartzelan egon ostean, ateratzerakoan enplegua lortzeko zailtasunak zituen) lehenbizi txikitzen Gipuzkoara mugitu eta Gipuzkoatik, behin familia buru bihurtuta, bere familiarekin Iruñera etorri zen gaztearena. Ikusten denez, gaztetasuna eta enpleguaren bilaketa, profil guztiek barne hartzen dituzten elementuak dira.

1964ko memorian Nafarroako Gobernadore Zibilak aurkezten zituen datuen arabera, urte hartan sortu ziren 4.240 lanpostu berrien %15a Jaendik etorritako langileek hartu zuten, %10a Logroñotik etorritakoek, %7a Badajozetik etorritakoek, %6 Granadatik etorritakoek eta %7a beste probintzietatik heldutakoek<sup>209</sup>. Emigrante gehienak prestakuntzarik gabeko langileak zirenez, enplegu hauek eraikuntzaren arloan eta fabrika handietan topatzen zituzten. Peoi edota kualifikaziorik gabeko langile postuak ziren. Probintziaz besteko etorkinak, hartara, nafar landa munduko antzera,

<sup>206</sup> VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 136 orr. Autobus zerbitzu honen existentzia jada 1961 urtean egiaztatzen ahal da urte hartako Nafarroako Gobernadore Zibilaren memorian, probintziaz kanpoko emigrante asko Andaluzian jatorria zuten, populazioaren mugimenduak errazteko Jaén eta Iruñearen artean autobus zerbitzuak bazeudela esaten baita. Nafarroako Gobernadore Zibilaren memoria: 1961. urtea, AGA-AAO, Barne Arazoetako sailaren fondoa, 44-11320 kutxa.

<sup>207</sup> Jaso, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 136 orr.

<sup>208</sup> S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13. Kartel horrek Txantrea auzorako bidea seinatzen zuen.

<sup>209</sup> Nafarroako Gobernadore Zibilaren memoria: 1964. urtea, AGA-AAO, Barne Arazoetako sailaren fondoa, 44-11874 kutxa.

bizibide berri baten bila iristen ziren, ahal zuten lanpostuetan enplegatzen ziren eta hirian topatutako aukerek ahalbidetzen zuten neurrian, aurrera egiten zuten: “lehenbiziko andaluziar eta extremadurarrak Delgado Gómez apezpikuaren eskutik iritsi ziren, Artaso, Domeño eta Eceolazaren eraikuntza lanetan aritzeko. Egurrez edo kartoiez egindako maleta batekin iristen ziren, gero bizikleta bat erosten zuten, beranduago Mobilette bat edo Vespa bat eta, euren egoera onera egiten zuenean, Seat 600 bat”<sup>210</sup>.

Nabarmentzekoa izan zen Potasas enpresan enplegatu izan ziren probintziaz besteko langileen kasua. Nafarroan meatzaritzako tradizioz ez zegoenez, enpresak lurrazpiko meatzeetan eskarmentua zuten langileengana jo behar izan zuen, Potasaseko langileen artean Asturias, Leon, Ciudad Real edota Almeriatik etorritako meatzarien presentzia nabarmena izango zelarik. Meatzari hauek osatu zuten nukleo garrantzitsu honi esker, Potasas, estatuko beste probintzietatik etorritako langile gehien kontzentratzen zituen enpresetariko bat izan zen<sup>211</sup>. Bertan antolatutako lehen langile nukleoak nola sortu eta bilakatu ziren aztertzea, aurrerago zirkuituaren sorreran nafar jatorriko langileen eta beste probintzietako langileen papera zelakoa izan zen azaltzeko baliagarria izaten ahal zaigu.

Estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteen presentzia, lantokietan ez beste, periferiako langile auzune berrietan atzematen da ere. Dolores Lópezek eta Carolina Montorok egindako 1945-1975 bitarteko iruñar demografiaren bilakaerari buruzko azterketan, emigrante hauek hirian kokatzen dituen hainbat datu adierazgarri ematen da<sup>212</sup>. Datuok hogeita hamar urte haietan Nafarroaz kanpo jaiotakoen kopurua hiriko zonalde guztietan handitu zela erakusten duten arren, 1975ko populazio honen zonaldekako banaketak, estatuko beste probintzietan jaiotako populazioa iparraldeko zein hegoaldeko periferietan, hau da, langile auzo berrietan, kontzentratu zela adierazten du. Are gehiago, probintziaz kanpo jaiotako populazio osoaren laurdena inguru iparraldeko periferian biltzen zela ikusten dugu. Ildo horretan, aipatzekoa da emigranteek, euren sorterriaren arabera, hiriko zonalde batean edo bestean ezartzeko joera azaldu zutela. Jaendarrak adibidez iparraldeko periferiako auzoetan (Sanduzelain, Txantrean<sup>213</sup>) kokatu ziren batez ere eta zaragozarrak, hegoaldeko periferian.

---

<sup>210</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 132 orr. Kontutan izan behar dugu liburua auzoko bizilagunen oroitzapen eta testigantzetan oinarritzen dela eta baieztapen hau, auzokideen ikuspegia azaltzen duela. Delgado Gómezen paperari egiten zaion erreferentzia, guk ere ahozko iturrietan topatu dugu batzuetan, nafar langileek probintziaz besteko emigrazioari buruz aritu izan direnean bereziki. Alta, andaluziar jatorriko iturrietako bat lehen eskuko esperientzia bat izan zuen Delgado Gómezekin zentzu honetan. Kontatu zigunez, Iruñera haren eskutik etorri ez zen arren, harengana joan zen lana topatzeko laguntza eske, izan ere, Iruñean komentatzen zenez, andaluziarrak eta extremadurarrak laguntzen omen zituen. E.P.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-06.

<sup>211</sup> Estatuko beste probintzietako meatzari hauen presentziaren berri ematen du, adibidez, José Luis Díaz Monrealek, *Las huelgas de Potasas*, Ahaztuak, Algorta, 2012, 25 orr. Potasaseko langile izan ziren gure iturrietariko zenbaitek ere azpimarratu izan dute beste probintzietako langileen presentzia: “beste jende mota bazegoen ere, bazegoen... batez ere meategian, bazegoen kanpotik etorritako jende asko, Leonetik, Asturiasetik, Extremaduratik, Andaluziatik, Rodalquilarretik –bertan INIkoak ere ziren meategi batzuk zeuden- etorritako jende asko zegoen, bai. Meategian, baina baita ere fabriketan, jende asko zegoen. Gehienak helduak ziren, gu baino helduagoak... [fabriketan] ekoizpen sailean aritzen ziren, zer jan eta zer lan ez zutenak ziren eta han zeuden, ekoizpen sailean”. M.A.R.S.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-05.

<sup>212</sup> Dolores Lopez eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit.; datuak, 2. Taula “Población de Pamplona según su origen 1945 y 1975” eta datuon irakurketa eta azalpena, 284 orr.

<sup>213</sup> Txantrea auzoan Jimena herriko jaendarren nukleo garrantzitsu bat sortu zen. Andaluziako populazioaren presentzia goiztiarra izan zen eta auzoaren bigarren fasea eraikitzen ari zelarik,

Hala ere, zonalde hauetan ez ziren berezko eskualde izaera zuten komunitateak sortu. Aurrerago ikusiko dugun bezala, berauetan auzo komunitateak eta klase komunitateak sortu ziren, baina hauek ez zuten eskualdeko nortasuna osagaitzak izan. Txantrean sortu zen auzo komunitatea adibidez, bertan Andaluziatik etorritako emigrante kopuru garrantzitsua zegoen arren, ez zen komunitate andaluziartzat definitzen. Hala izan zen, hein handi batean, auzo hauetan nafar landa mundutik hiriburura etorritako emigranteen edota hirigunetik periferiara lekualdatutako iruñar familien presentzia, argi eta garbi, beste probintzietatik etorritako emigrante hauen presentzia baino ugariagoa izan zelako. Sanduzelai auzoaren kasua ere adierazgarria da zentzu honetan. Andaluziar jatorriko populazio gehien kontzentratzen zuen auzoetako bat zen baina, hala ere, bertan, nafar jatorriko populazioak nagusi izaten jarraitzen zuen: “*Sanduzelai auzoa ia %35 batean immigrazioarekin osatzen da, baina Nafarroatik immigrazio asko dago, asko... bueno, immigrazio deitzen diot... Iruñeako jendea ez zela esan nahi dut [...] landatik-hirira [etorritakoa] [...] egia da ere Andaluzia eta Extremaduratik etorritako jendeek osatutako portzentaje bat dagoela, baina ez da handiena, immigrazio hori ez da [Sanduzelaiko populazioaren] osagai nagusia*”<sup>214</sup>.

Iruñerriko langile klasearen eraketan aktiboki parte hartu zuten protagonistak nafarrak (Iruñean jaioak, landa munduko emigranteak) izan zirela esateko, ahozko iturrien jatorriari buruzko azterketa txiki hau, frankismoaren amaieran eta trantsizioan langile antolakuntzaren eta protestaren nukleo nagusietan kokatu ziren militante nabarmenduen jatorriari buruzko beste azterketa txiki bat egiten osatzen ahal dugu. Urte hauetan fabriketan langileen ekintza bideratzen zuten elementuen -fabrika batzorde eta asanbladei- eta trantsizioan sortu ziren sindikatu berrien osakerari begiratzea, argigarria izaten ahal da zentzu honetan. Komisioetako kideak, fabriketan barna inizatiba hartzen zutenak, ekintzak piztu eta bideratzen zituztenak edota enpresa zuzendaritzaren aurrean langileen ordezkari bezala jarduten zutenak, hau da, lantokietako nukleo antolatuetan zuzenean parte hartzen zutenak, nafarrak izan ohi ziren, salbuespen garrantzitsuak kontutan hartuta. Asanbladetan ordea, parte hartzea zabalagoa zen eta aipatu nukleoetatik planteatzen zenaren inguruan solasten, iritziak ematen eta proposamenak egiten, lantokiko langileak orokorrean, nukleoetako militanteak zirenak eta ez zirenak topatzen ditugu. Estatuko beste probintzietatik etorritako langileak, adibidez, bereziki bigarren esparru honetan aurkitzen ditugu. Antzeko zerbait gertatzen da langile erakunde zuzendaritzetan. Nafarroako Langile Kontseiluari, Comisiones Obrerasen klandestinitateko koordinakundeari eta trantsizioan sortzen hasi ziren sindikatuei lotutako lehenbiziko izen nabarmenduenak, nafarrak izan ohi dira. Esate baterako, 60. hamarkadaren amaieran lehenbizikoz agertu zen Nafarroako CCOOen klandestinitateko lehenbiziko idazkaritza edo koordinakundea berregiten badugu eta mugimenduaren buru eta militante nabarmenduenak behatzen baditugu, pare bat salbuespen izan ezik, guztiak nafarrak

---

Potasasen lan egingo zuten Andaluziako lehen biztanleak iritsi zien, euren etxeak eraikiko zituzten langile talde bateko kide izango zirelarik. VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op. Cit., 122 orr. Andaluziarren presentzia auzoan kasik bere hastapenetatik nabarmena zela auzoko peñak, hasiera batean, hirian onartua izateko izan zituen arazoen adieraziko lukete ere: “Elkarte bihurtzeko izapideak egiten hasi ginen eta oztopo ugarirekin topo egin genuen [...] [esateko] ez gintuzten oso begiko Txantrean bizi ginenak, “zorigaitzokoak” ginela uste eta andaluziarrak ginela esaten zuen [Iruñeako] hainbat jendek”. Miguel Iraizoz Cía, Peñako lehen lehendakariak 1982an idatziko gutuna; jaso, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op. Cit., 113 orr.

<sup>214</sup> A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16. Elkarrizketatuak auzoa eta auzoko biztanleak oso ongi ezagutzen ditu urte luzez Auzo Elkarteko militantea izan delako.

Auzoko populazioa nola osatu zen ikusteko, Irantzu Urdaniz eta Germán Esparza, *La historia escondida. Historia de los movimientos sociales en San Jorge-Sanduzelai, Umetxea-Sanduzelai*, Iruñea, 2008, 34 orr.



zirela baieztatzen ahal dugu<sup>215</sup>. Berdin gertatzen da 1976an osatutako azkeneko Langile Kontseiluko kideekin edota trantsizioaren hasieran nafar eremu sindikalean nagusi izan ziren legeztatutako CCOO, SU edota CSUT erakundeetako lehen idazkaritzetako kideekin. Hautatuak izan ziren buruen izenen zerrendak begiratuta, aurreko urteetan zirkuituaren baitan ibilitako subjektuak direla baieztatzeaz beste, identifikatu ahal izan ditugunetatik ia guztiak nafarrak dira<sup>216</sup>.

Zentzu honetan esan nahi da iruñar langile klasea osatu zuten subjektuak nabarmenki nafarrak zirela, hura sortuko zen zirkuitua sortu zutenak eta haren baitan mugitu zirenak, langile antolakuntzaren eta protestaren nukleoetan egon zirenak, berez bertakoak zirelako. Horrek ez du esan nahi estatuko beste probintzietatik etorritako langileek zirkuituan parte hartu izan ez zutenik, hau da, aipatu erakundeetako militanteak izan ez zirenik edota lan gazta eta langile protestetan mobilizatu izan ez zirenik. Bai esan nahi du, ordea, klasearen eraketa prozesuaren subjektu gehienak nafarrak izan zirela eta ondorioz, zirkuituaren eraketan nagusi izan ziren elementuak, esparruak edota tradizioak ere nafarrak izango zirela. Honek, Iruñerriko langile klasearen eraketa hainbat arlotan bereizi egiten du nolabait. Izan ere, Iruñerriko langile klaseren kasua, frankismoaren garaian estatuko beste lurraldeetan sortu ziren langile klaseen kasuez, subjektuen jatorriarekin zerikusirik duten zenbait aspektutan desberdintzen da. Esate baterako, Xavier Domènechek aztertu duen Sabadellgo langile klasearen eraketaren kasuan, probintziaz besteko emigranteen eskutik sortutako esparru eta sareak eta berautatik mugitu ziren tradizio ezkertiar eta errepublikarren arrastoak funtsezko elementu dira<sup>217</sup>. Iruñean, ez horrenbeste.

Ildo horretan, ahozko iturrien azterketa tradizio kultural eta politikoen arlora eramaten badugu, hau da, iturriek euren ingurunean, familian esaterako, izan zituzten erreferentzia kulturalak eta politikoak aztertzen baldin baditugu, substratu ezkertiar eta errepublikar horren arrastoa baino, ordura arte nafar gizartean nagusi izandako elementu politiko eta kulturalak, erlijiozaletasuna eta karlismoa nabarmentzen direla

---

<sup>215</sup> CCOOeko koordinakundeko kide, buru eta militante nabarmendu hauek ahozko iturrien bitartez identifikatu behar izan ditugu, mugimendua klandestinitatean jarduten zuela kontutan hartuta, oso zaila izan baitzaigu izenak dokumentuetan jasoak topatzea. Haietariko batzuk iturrien artean ditugu zuzenean eta beste batzuk, iturriek berek identifikatu dituzte (behin baino gehiagotan) buru edo militante nabarmendu bezala.

<sup>216</sup> Izenen zerrenda hauek iturri desberdinetatik abiatuta osatu ditugu. 1976ko Langile Kontseiluko kideen zerrenda José Vicente Iriarte Areso, Movimiento obrero en... Op. Cit., Gehigarri dokumentala, 46. Dokumentua: "Acta de la reunión celebrada por el Pleno del Consejo de Trabajadores de Navarra el día 6 de diciembre de 1976", 404. orr.; Nafarroako CCOOek 1977ko urrian bere I. Kongresuan hautatu zuen idazkaritzako kideak, "I Congreso de Comisiones Obreras de Navarra: Manuel Burguete, elegido Secretario General", Biltzar (Confederación Sindical de CCOO de Euskadi) 1977-10-II. hamabostaldi M.B.-k utzitako dokumentua; Nafarroako SUko lehen idazkaritza osatzen zutenak, Nafarroako SUaren sorreraren berri ematen duen "A todos los afiliados al Sindicato Unitario de Navarra, a la clase obrera y al pueblo navarro" dokumentua, Pablo Iglesias Fundazioaren Artxibategia (hemendik aurrera AFPI-PIFA), SUaren fondoa, 13. kutxa. Hiru zerrenda hauetako kide guztiak identifikatzea zaila izan da, gehienak ahozko iturriak erabiliz egin dugu, baina prentsa ere erabilgarria izan da. Esate baterako, osatu zerrendetan ageri den pertsonaren bat 1977ko hauteskundeetan koalizioaren batean aurkezten bazen, posiblea izan da prentsan haren inguruko informazioa biltzea. Hala ere, esan bezala, egin ahal izan duguna hurbilpen bat baino ez da izan, izen guztiak identifikatu ezin izan ditugulako eta asko, identifikatzeke geratu direlako.

<sup>217</sup> Bere kasuan, oso adibide adierazgarria du Sabadellgo PSUCaren tokian-tokiko komitearen berrosaketan. Honen egoitza Creu de Barberán kokatu zen, Granadako Guardahortuna herritiko emigrazioaren nukleo zen auzo batean; honegatik, hein handi batean, komitean parte izatea errazagoa izan ohi zen emigranteentzat Sabadellgo biztanleentzat baino. Xavier Domènech, Cuan el carrer... Op. Cit. 52-54 orr.

ikusiko dugu. Hau da, nafarrak diren heinean, iturri gehienak, nekazal gizarte nafarraren ondareari, karlismoa erreferentzia soziopolitiko nagusitzat duen eta erlijioa berezko identitate kultural jakin baten egituratzailetzat duen<sup>218</sup> ondareari, lotuta ageri dira. Hau da, berezko nafar mentalitate tradizional eta kontserbadorea nagusi den giroetatik datoz. Hauengan, aipatu mentalitate tradizional eta kontserbadore hori, substratu kultural orokor eta zehazkabe batean atzematen da batzuetan; beste batzuetan, erlijiozaletasunarekiko zein karlismoarekiko harreman zuzen batean.

Hasteko, forma lausoan bada ere, kontserbadorismoa barne hartzen duen nolabaiteko oinarri kultural komuna atzeman daiteke iturri gehiengoaren jatorrizko giroan. Aurreko atalean ikusi dugun nafar izaera “tradizionala” gogora ekartzen duen oinarritzko substratua da:

[gurasoak] herriko jendea, nekazal munduko jendea, jende eskuindarra [ziren]. Nafarroan bezala. [C.B.. Erronkari]

[gurasoak] pertsona oso tradizionalak, oso pertsona erlijiosoak [ziren], oso... hori da, sistemakoa, baina inon militante izan gabe, jende ona zen... baina hori zen berez orduan boladan zegoena. [J.M.E.. Mendigorria]

lido berean, erlijioa espresuki, iturrien familien identitatean garrantzi handia zuen erreferente bezala nabarmentzen da askotan. Azken batean, erlijioa oso presente zegoen nafar gizartearen eguneroko bizitzan eta ez bakarrik erlijiozaletasun herrikoia errotuek oso errotuta jarraitzen zutelako edota praktika erlijiosoa oso zabalduta zegoelako; baita Acción Católicaren jardueraren bitartez edota nekazal kooperatibismoaren bitartez<sup>219</sup>, herri askoren bizitza soziala egituratzen eta dinamizatzen zuelako ere. Euren jatorrizko giroetan erlijiozaletasun bizi eta aktibo bat ezagutu izan zuten iturriek, pare bat zehaztapen egin ahal zaizkie honek eurengan izan zuen eragina zertan gauzatu zen azaltzeko. Lehenik eta behin, halako giroetan hezi izandakoen artean ohikoa izan zen umetan edo gaztetan elizarenak ziren esparruetan (Acción Católica edota bestelako elkarte katolikoetan) jardutea edota hauek sustatutako ekimenetan parte hartzea. Bigarrenik, aipatu lehen belaunaldikoa denean bereziki, iturriak erlijioa ardatz duen identitatea beretu egiten du, elizarekiko eta haren sozializazio esparruekiko harreman goiztiar bat sortzen duelarik:

Hezkuntza erlijiosoa jaso nuen nire aita oso, oso, oso erlijiosoa zelako, eguneroko mezakoa, eguneroko jaunartzekoa, eguneroko arrosariokoa... eta, eta ni, honen ondorioz, gaztaroan, hogeita bi urterekin soldaduzka egitera joan nintzen arte, ideia erlijiosoari eta Gaueko Adorazioari oso, oso lotuta egon nintzen. [P.E.S. Iruñea]

Ni, etxean, ama otoitz egiten baino ez nuen entzuten, goizean, eguerdian, gauean... orduoro. Etxe hartan otoitz egitea baino ez zegoen! Eta gero, beti, halako gauzatan sartuta nengoen, Acción Católica, lehenbiziko ostiralak, bederatziurren guztiak... ez nuen bat ere uzten, mistiko bat nintzen ni, bai. [E. A.. Urroz]

Iturriek euren giro hurbiletan ezagutu zuten erlijiozaletasuna ordea, ez zen monolitikoa izan eta zenbait iturrien ingurunean aldaera bereziekin azaleratu da. Aipatzekoa da, aurrerago zirkuituaren eraketan eta subjektu askoren ibilbide pertsonal eta militantean izango duen garrantziarengatik, erlijioa ebanjeliotik, errealitatetik eta gizartetik gertuago ulertzen duen substratua erlijiosoa:

<sup>218</sup> Erlijioak berezko identitatearen elementu bezala nola jardun zuen azaltzen zuen adibide ona, Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit. eta Javier Drona, *Con Cristo o...* Op. Cit.

<sup>219</sup> Ikusi, adibidez, Emilio Majuelo eta Ángel Pascual, *Del catolicismo agrario...* Op. Cit, 293-298 orr.

erlijioa berarentzat [amarentzat], aitonarentzat, badirudi ba [bizitzaren] funtsezko habeetako bat zela, ezta? Eta hori, eman ziguten hezkuntzaren parte izan zen. [Baina beti] bizitza errealari lotuta, Eliza ofizialetik baino ebanjeliotik gertuago, bizia izaten zen fede baten ikuspuntutik. [J.I.S.. Iruñea]

Nire amona, zentzu horretan, ez-ohiko emakumea zen, ama bezala. Erlijiozaleak ziren, baina andre elizkoiak izan gabe, hau da, oso jende... nolabait, klase interesari erantzuten zioten, baina noski, erlijiozaleak ziren, garai hartako pertsonak ziren. [P.L.. Iruñea]

Nafar gizartearen erreferentzia politiko nagusia izateaz beste, karlismoa, landa munduan zein hiriburuan, harreman sozialak egituratzen zituen funtsezko elementua zen<sup>220</sup>. Ahozko iturriek, karlismoarekiko harreman hau, bi modu desberdinetan azaleratu dute. Lehenbizikoan, familia tradizio karlista luzekoa da, hau da, karlismoarekiko lotura zuzen bat dago, familiak XIX mendera arte atzera jotzen duen iragan militar karlista baten esperientzia izan duelako eta honen oroimena gorde duelako edota familiak, gerra aurretik, Zirkulu Karlista bezalako karlismoaren berezko esparruetan parte hartze zuzen bat izan zuelako. Kasu hauetan, ohikoa izan zen iturriaren giroko tradizio karlista hura, frankismoaren bitartean, erregimenaren kontrako jarrera bilakatzea:

Ni karlista izandako familia batekoa naiz, amonarengandik hainbat gauza gogoratzen ditut, aitarengandik, eta honela... ba karlistak, baina Franko sostengatu izandako karlismo tradizionalarekiko haustura, ezta? Orduan haustura jarrerak ziren. [V.D.. Viana]

XIX. mendetik [karlista izandako familia batekoa], baina oso [karlista] gainera [...] Nire aitona, ez dakit birraitona edo herenaitona izango zen, erbestera egin zuten Gaztelako gobernuaren ez egarritatik. Ofizial karlista zen [...] [1936ko] gerra zibilaren bitartean nire aitona hiru seme izan zituen guda oinera, hau da, gerran, gerran, ezta? ez gaizkile pistoladun bezala, ez ziren ibili herrietatik gaizkile pistoladun bezala, guda oinera joan ziren [...] Baina [gerora] ni umea nintzelarik, bildu egiten ziren, agian lagun batekin [...] eta beti gobernuaren aurka hitz egiten zuten [...] beti ari ziren gobernuaren aurka, gerrarekin engainatu egin zituztela eta hori... beti berdin. Eta hortxe zeuden militar bat -Frankoren militarra zena-, nire aita -gerran egondakoa zena- eta gerran ere izan zen beste lagun bat. [P.M.. Olite]

Bigarrenetan, karlismoarekiko lotura hori oinarri orokorrago eta zehaztugabeago baten ikuspuntutik ulertzen da, beste zenbait elementu, tradizioa bera edo erlijioa kasu, direlarik berez karlismoa iturriaren ingurunera hurbiltzen dutenak. Kasu hauetan gainera, karlismoarekin identifikatua egotearen eta berez karlista izatearen arteko bereizketa argia egiten da:

Eta nire amak, beno, ez dakit, noizean behin gerrari buruzko istorioak, karlistei buruzko istorioak kontatzen zituen... baina beno [...] nolabait haiek [gurusoak] karlismoarekin identifikatzen ziren, baina gero ez zuten inolaz ere [aktiboki] bizitzen, ezta? inolaz ere. [J.A.C.. Gares]

Nire aitona berez ez zen karlista baina gerra karlistan ibili izan zen, bitxia da hori [...] ez zen karlista baina karlismoa bizi egiten zuen... nik uste dut karlista izan eta karlismoa bizitzearen arteko desberdintasuna handia dela, ezta? Karlismoa bizitzea da, nolabait, protesta posiblea bizitzea; karlista izatea beste gauza bat da, soilik aurreratuenek, buruek, gauzatu dezaketena [M.A.M.. Iruñea]

---

<sup>220</sup> Karlismoak XX. mendearen lehen herenean nafar landa munduan oraindik zuen pisu sozial zein politikoaren inguruko azterketa interesgarri bat, Javier Ugarte, *La nueva Covadonga...* Op. Cit. Karlismoak Berrezarkuntzaren bitartean, Iruñean, hauteskundeetan zein bizitza politikoan izan zuen indarraren gakoan azalpen bat, María del Mar Larraza, *Aprendiendo a ser ciudadanos: retrato socio-político de Pamplona, 1890-1923*, Eunsa, Iruñea, 1997.

Nire ama karlista zen, familia karlista batekoa eta... baina laster igarri nuen hura oinarriko karlismo bat zela, oso sinestuna... erlijioa berarentzat [amarentzat], aitonarentzat, badirudi ba [bizitzaren] funtsezko habeetako bat zela, ezta? [J.I.S.. Iruñea]

Nekazal gizartearen mentalitate tradizionalaren ondareari lotutako substratu kontserbadore hau, iturri askoren aitak gerra zibilean alde nazionalaren alde izan zuen parte hartzearen bitartez azaleratzen da ere. Nabarmentzekoa da familian aurrekari hau duen iturrien kopurua. Tradizio karlista luzeko familiakoak diren kasuak aparte utzita (motibazioak agerikoak direlako), aitak gerran izan zuen parte hartze hau, karlismoarekin baino, aipatu ondarea osatzen duten bestelako elementu orokorragoekin, tradizioarekin berarekin eta erlijioarekin izan zuen zerikusirik. Are gehiago, iturri hauetariko zenbaiten kasuan, gerra oroimen hau da, hain zuzen, substratu kontserbadorea inguru hurbilean presente egiten duena:

Oso argi dudan gauza bat [jaso izan nuen] hezkuntza oso erlijiosoa da. Nire etxean hori bai aitaren partetik eta bai amaren partetik ematen zen [...] Nire gurasoak errotik ziren kontserbadoreak. Nire aita gerran boluntario izan zen erreketekin, erlijioarengatik, orduan gorriek elizak erretzen zituztela esaten zelako, ezta? guzti horrengatik. [J.L.D.M. Iruñea]

“Nire aita boluntario joan zen gerra zibilera, nire aita, boluntario karlista izan zen, gerran zauritua, gerra heroi karlistentzat -tiro bat eman zioten buruan- [...] eta [karlistekin] irten zen pertsona guzti horiek, berez, garbiak ziren, [garbiak] ideia baten inguruan mugitzen zirelako zentzuan: erlijioa. “oye, que nos quitan la religión”, “Esto no puede ser, hay que defender la familia”, ez dakit zer eta badakit zer... orduan aitak landan egiten zuen lan [...] eta orduan bertara iristen dira [...] kamioira igotzen dute, ez dakit, hemezortzi urterekin, kamioira igotzen da eta bidaliko zuten tokira [joan zen]: eta hor goitik bidali zuten, euskaldunak hiltzera. Baina gero, hara non, atxilotu ninduten aldietako batean, komisaldegira joan zen aita eta sekulako atrakala sortu zuen han... bertatik atera behar izan zuten “¿Qué ha hecho mi hijo? ¿Yo salí a defender esto y ahora meten a mi hijo en la cárcel?” [oihukatzen zuen]. [J.S.M. Eneriz]

Nire aita erreketea zen: hau da, nire aita zen... gizona eskolagabea zen [...] eta orduan Ertain Zonaldeko [...] jende hura, gabezia horiekin, ba oso maneigarria zen, ezta? eta herriko aberatsa joan zen, hori horrela gertatu zelako, eta guztiak bildu zituen -hori nik amari entzun diot kontatzen- eta esan zien Errepublika kaosa zela, amodio librea, batez ere amodio librea, izugarria, ezta? eta gero umeak baserrietan bezala hazi egingo zirela, Jaungoikorik gabe, legerik gabe, irizpiderik gabe... eta guzti horrengatik joan ziren anaiaren aurka borrokatzera” [M.S.S.. Eslava]

Hala ere, ez dugu ahaztu behar, hainbat iturritan jasotzen den bezala, aita hauetarik asko alde nazionalen borrokatzera behartuak izan zirela: “*Gure aitetariko asko gerran [alde nazionalarekin] borrokatzera behartuak izan ziren; [eta] gutariko asko gerora [horren] aurkako gertatu ginen...*”<sup>221</sup>. Pluralaren erabilpena, oso adierazgarria da. Kasu hauetan gainera, aitak gerran izan zuen parte hartze hau ez da, aurreko kasuetan bezala, aipatu substratu kontserbadorearekin zuzenean uztartzen:

“Nire aitak alde frankistan borroka egin zuen, ezta? bertan egokitu zitzaion baina bera ez zen inolaz ere frankista sentitzen, ezta? besterik gabe alde batean egokitu zitzaion eta hor egon zen, ezta? [...] [Baina] ez, bera ez zen karlista, inolaz ere... ez, pertsona normal bat zen, alde batek hartzen duena eta esaten diona “Oye, a tirar aquí y si no, pues...” eta orduan, ba, tiro egitera... eta nik uste dut guzti horren esanahia ere ez zekiela [...]. [R.M.. Cabanillas]

“Aita, zorigaitzokoa, gerrara eraman zuten, ez dakit, hemezortzi urterekin, agian gazteagoa zen, gizajoa... ezkerreko eskuaren erdia moztu zion istripu bat izan zuen lehergailu batekin, adibidez... eta horrela. Beno, orduan nazionalek eraman zuten, hau da, Francoren aldekoek, eta badakit Katalunian egon zela, lehergailuarekin izandako arazo hau bertan izan zelako.

---

<sup>221</sup> PA.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-13.

Gero, ba gogoratzen dut berak Francoren “desgobernu” deitzen zuenari buruz beti gaizki esaka zebilen gizona zela, bai, baina oso, oso oinarrizko ideiekin. [P.O.. Iruñea]

Iturrien jatorrizko giroetan azaltzen diren ondare eta tradizioen artean, aipatzekoa da hainbatek familiaren iragan errepublikarrari egiten dioten erreferentzia. Aurreko substratuarekin alderatuta, Iturrien artean, argi eta garbi, pisu txikiagoa duen arren, ondare errepublikar honen presentzia nabarmentzekoa da, are gehiago gerra aurretik klase ideologien eta erakundeen errotzea eskasa izan zela eta gerraren errepresio bortitzak langile erakundeen nukleo antolatuak edota nekazal protestaren mugimenduak desagerrarazi zituela kontutan hartzen badugu.

Gerra aurretik, klase ideologiek ozta-ozta lortu zuten Nafarroan presentzia antolatu sendoa izatea eta ondorioz, oso zaila izan zuten bertan errotzea ere. Langile erakundeen eta militanteen presentzia, nukleo sozialisten eta anarkisten jardueraren egiaztatzen ahal da, baina kontua da hauek ez zutela, gerra zibilak Nafarroan eragindako errepresio gogorraren ostean, euren egiturak eta substratu kulturala iraunarazteko haina indarrik izan. Hau da, Emilio Majuelo historialariak esaten duen moduan, “Gerra zibila amaitu zenetik, soilik mugimendu sozial klasiko bakarraren biziraupenaz aritu gaitzke [...] nekazal mugimendu sozial katolikoaren biziraupenaz. Gainontzekoak errepresio frankistaren eskutik gogorki desagerraraziak izan ziren, honek, bide batez, 1936an gertatu izandako XX. mende hasierako kultura politiko liberal errepublikarrarekiko eta langile kulturekiko haustura adierazgarriki baieztatzen duelarik”<sup>222</sup>. Ildo horretan, iturriren baten ingurune hurbilean gerra aurreko klase erakundeetako militanteren bat, giro errepublikarretan mugitu izandako elementuren bat edota gerran Errepublikaren alde egindako eta honengatik errepresaliatua izandako figuraren bat topatzen ahal dugun arren, zaila da subjektuengan ondare errepublikarraren aztarnak identifikatzea eta are gehiago, ondare honek Iruñerriko langile klasearen eraketa prozesuan izan zuen eragina azaleratzea.

Gure iturrietan, substratu errepublikarrarekiko nolabaiteko harremana, langile erakundeekiko loturaren forman azaleratu da. UGTa da presentzia gehiena duena. Lotura hau azaltzen den kasuetan, erakundeekiko harreman mota dena dela (zuzenazeharkakoa, bizia-indargabea, errotuta-ez horren errotuta), modu berean eragiten du iturriaren ibilbidean: ondare errepublikarra langile erakundeekiko loturan presente egiten bada ere, ondare hori bera ez da iturriak bere ibilbide militantean jasotzen duen eraginik erabakigarriena; hau da, ondare errepublikarraren arrastoak arkitu ditugunean ere, iturrien langile identitatea ez da, orokorrean, hauetatik abiatuta osatzen.

Ondare errepublikarraren presentzia eta langile erakundeekiko lotura hiru forma ezberdinetan azaleratu dira iturrietan. Lehenbiziko forman, UGTarekiko edo anarkismoarekiko harreman bat dago, baina hau familiaren adar bakar batean agertzen da (aitarenean orokorrean). Familiaren beste adarra, ikusi berri dugun bestelako elementuren bati, substratu kultural orokor eta zehazkabeari, erlijiozaletasunari edota karlismoari, lotuta ageri da:

Nire aita UGTkoa zen eta egunero ibiltzen zen autobusean Iruñetik Tafallara, Iruñetik ez dakit nora eta ez dakit nora; eta mehatxu egin zioten eta halako gauzak, baina inoiz ez ziren beraren aurka buru-belarri joan, ezta? gerraren bitartean, gerraren bitartean [diot]... [...] Nik banuen anarkista sutua zen osaba bat [ere], anarkista “apaiz-jalea” zen, ezta? nirekin bizi zena; hau da, ni San Agustín kaleko lehenbiziko solairuan bizi nintzen eta nire osaba bigarreanean... nire osaba bigarreanean bizi zen eta eguneko elkarrekin geunden, eta nire etxean sekulako

---

<sup>222</sup> Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX”, José Miguel Lana (koord.), *En torno a la Navarra del siglo XX: veintiuna reflexiones acerca de sociedad, economía e historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002, 289-321 orr., 305-306 orr.

eztabaidak pizten ziren, berarekin [osabarekin] bi anai bizi zirelako eta bietatik bat bera ere ez zelako osaba bezalakoa, bere bi anaiak baziren... klase borrokaren inguruko edozein gauza gogaitarazten zituenekoa, espiritu hori ez zutenez... [M.A.M.. Iruñea. Bere familiaren beste adarra oinarriko karlismoari buruzko bizipen zehazkabe batekin harremanetan ikusi berri dugu. Haren ibilbide militantea, nahiz eta aita eta osabaren militantziak presente eduki, ondare errepublikar honi lotuta agertu beharrean, beste adar horretan du abiapuntu, haren langile izaera zuzenean HOACetik osatzen baita]

Nire aita [...] UGTkoa zen, sozialista zen, bere anaiak bezala, beno, guztiak ez ziren... beno, gerra gertatu zenean, egon ziren... zehazki nire aita, armadan sartzera behartuta izan zen [...] [baina] gizarteari eta politikari buruz izan zuen ikuspegia beti langile klasekoa izan zen, ezta? nire aita sozialista eta UGTkoa zelako" [J.I.S.. Iruñea. Arestian haren familiaren beste adarra karlismoarekin baina, bereziki, honekin identifikatzen zen oinarriko erlijiozaletasunari lotuta ageri zaigu. Kasu honetan ere, haren ibilbide militantea, aitaren ondarearekiko erreferentzia argia den arren, beste adar honen, hau da, erlijioaren, gogo jardueren eta oinarriko kristau komunitateen unibertsoetik abiatzen da]

Bigarren forman, erakundeekiko harremana apur bat zuzenagoa edo biziagoa da. Gure iturriaren kasuan, aita, zehazki, anarkismoari lotuta ageri da. Burgosen jaiotakoa, hainbat urtez lan egin zuen Bartzelonan; bertan, anarkismoaren ideiak ezagutu eta barneratu zituen. Lan arrazoiengatik Iruñean ezarri zenean, berekin Bartzelonan jasotako ondare anarkista ekarri zuen, militantzia hura hemen, aktiboki, gauzatzen jarraitu zuelarik. Militantzia honengatik jazarpena pairatu behar izan zuen gerra zibilaren bitartean, bai berak pertsonalki eta baita bere ingurune hurbilak ere. Gerora, jarduera sindikalerako nola edo halako lotura mantendu zuen, Erakunde Sindikalaren baitan:

[aita] Bartzelonan egondakoa zen, gizonak asko bidaiatu zuen, Parisen lan egiten egondakoa zen ere, han eta hemen ibili izandako zen pertsona zen aita... eta noski, hortik, batez ere Bartzelonatik, ba ideia jakin batzuekin etorri zen... momentu horretan anarkistak ziren, ezta? anarkistak bere erara [...] Gerra bitartean hemen [...] ba, bitan atxilotu zuten [...] eta Gaztelugibel Kaleko lubakietan nire aitaren kuadrillaren erdia erail zuten; eta bera bitan atxilotu egin zuten eta bitan, arrazoi batengatik edo bestearengatik, askatu egin zuten [...] beno, eta ondoren, ondoren ordezkari sindikal bezala egon zen Sindikatu Bertikalean (eta askotan aurpegiatzen genion [...]) hor sartuta ibili zen ere... bere erara, saltsa horietan sartua. [Gero], gu gerra horretan sartu ginean, hasieran askotan esaten genion guk ez genuela Sindikatu Bertikalean egon nahi eta hainbat gauza aurpegiatzen genizkion, baina adarra jotzeko, ezta? gizajoak ahal zuena egiten baitzuen... [M.A.R.S.. Iruñea. Bere ibilbide militantea ez dago zuzenean aitaren ondare honekin lotuta, izan ere horretarako abiapuntua VOJen aisialdirako eta sozializatorako esparruetan topatu zuen, aitaren iraganetik baino, eragin gehien bere orainaldiko ingurune hurbiletik jaso zuelarik]

Hirugarren forman, ondare errepublikarraren presentzia modu adierazgarrian azaltzen da. Kasu honetan, ondare errepublikarra eta langile erakundeekiko lotura, familiaren bi adarretan agertu da: aitaren familiaren adarrean, lotura horrek, gerra zibilean eta gerraostean, Errepublikaren aldeko borrokaren eta errepresaliatu izatearen formak hartzen ditu; amaren familiaren adarrean, auzotasun eta laguntasun loturen bitartez gauzatzen den 30. hamarkadako iruñar giro sozialistarekiko harremanaren forma hartzen du. Are gehiago, ondarearekiko lotura hauek, nolabait, gerraostean mantendu ziren, iturria, frankismoaren aurkako oposizio eta erresistentzia xaloko giro batean hazi egin zelarik:

Nire aitak Iruñean zuen kuadrilla [...] erabatean frankismoaren aurkakoa zen kuadrilla zen. Nik gogoratzen dut [...] aita [...], buruan lau ile ere ez zituen arren, astero Jarauta kalean, La Viña tabernaren parean, zegoen ileapaindegi batetara joaten zela ilea moztera [...] Juanito izena zuen bizarginak, oraindik gogoratzen dut... ni aitarekin joaten nintzen bertara eta [...] adibidez, zu iristen zinen eta bertan kuadrilla osoa zegoen Francori buruz hizketan, Franco ez dakit zer eta badakit zer... eta bapatean, ezagutzen ez zuten tipo bat sartzen zen eta guztiak isiltzen

ziren, kontsigna bat izango balitz bezala, gauza itzela zen hori [...] Orduan [...] ba kuadrilla hartan guztiak ziren... noski, ezin zuten ezer egin [...] baina guztiak frankismoaren aurkakoak ziren eta ahal zutena egiten zuten, ba txapela jartzen zuten edota txistura joaten ziren, ezta? nolabait jarrera xalo bat islatzen zuten gauza txikiak ziren. [P.I. Iruñea. Halako giroan hazi izan arren, kasu honetan ere ibilbide militantea bestelako erreferentzia eta esparruetan du abiapuntua: Iruñeko seminarioan burutu izandako ikasketetan eta urte haietan ezagutu izandako JOCen, hain zuzen. Zentzu honetan, ez dugu ahaztu behar, amaren familia adarraren partetik, ikusi izan dugun oinarriko erlijiozaletasunaren eragina jaso zuela]

Hiru kasu hauetan, ingurune hurbilean langile erakundeekiko nolabaiteko harremana ageri den arren, iturrientzat, iraganeko ondare errepublikar hori baino, erabakigarriagoa suertatuko da, etorkizunean, momentu horretan topatuko dituzten gizarteratze soziopolitikorako esparruak eta bideak. Hauek, aurrerago aztertuko dugun bezala, ez ziren berez ondare errepublikar honen hondarretatik sortu, nekazal gizarte nafarraren ondarea osatzen zuten hainbat elementuetatik baizik.

Estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteen kasuan, ondare errepublikarrarekiko eta langile erakundeekiko lotura agerikoagoa da. Iturrietan harreman hau zuzenean, emigrantearen sorterriko ingurune hurbilean, edota zeharka, nafar jatorriko langileen memoria kolektiboan, azaleratzen da. Bi kasu, Andaluziatik etorritako iturrienak biak, azaltzen dute tradizio errepublikarrarekiko harreman hau zuzenen. Lehenbizikoan, ondarea aitaren figuran agertzen da. Langile erakunde bateko militantea zen, Errepublikaren gudarosteetako kapitain izan zen eta espetxean egon zen. Aita espetxean zegoen bitartean, bera, ezkertiar giro batean hazi zen, errepresio egoera desberdinak ikusi eta bizi behar izan zituelarik. Bigarrenean, harremana iturriak berak sorterrian langile erakunde politiko batean izan zuen militantzian azaltzen da, bertan, klandestinitatean, alderdi komunistako militantea baitzen. Estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteen kasuetan ohikoagoa izaten da ondare errepublikarrarekiko harreman hau askotan, emigrazio mugimenduan, faktore ekonomikoekin batera edota are faktore ekonomikoaren gaitetik, faktore politikoekin (sorterrian pairatu eta pairatzen den errepresiotik ihes egitea) eragiten dutelako ere. Honela, gerta daiteke faktore politikoa mugimendua eragiten duen faktore ekonomiko nagusiaren osagarri izatea<sup>223</sup> edota, zuzenean, emigrazioaren arrazoi lehena izatea. Azken kasu hauetan, ondare errepublikarrarekiko lotura begien bistakoa da. Iruñeko Mochuelo auzoan finkatu zen Feliú Dors familia esaterako, emigrazioaren faktore politikoekin eta ondare errepublikarraren arteko harremanaren adibide adierazgarria da, semeetako batek, Juan Mari Feliú<sup>224</sup>, auzoaren historia jasotzen duen oroimen liburuan azaltzen duen bezala:

“Nire aita 1941ean itzuli zen, Generalitatean hainbat gobernu kargutan aritzeagatik, Frantzian erbesteratuta egon ondoren [...] Nire familia Kataluniako Berga hirikoa zen eta errepresaliak pairatu behar izan zituen erregimen frankistaren eskutik. Nire aita 1941era arte ez zen erbestetik itzuli, bizilekua Kataluniatik 200 kilometrotara izateko obligazioa zekarren trukea hitzartu ondoren. Iruñean duela gutxi finkatuak ziren nire osaba-izebak, José Garreta eta Marta Dord. Honela, Frantziako aiton-amonak gure etxean zirelarik, sorterrik urrun bazen ere, familia zori onez bizi zen elkarrekin. Garai hartan, anai-arrebak eta lehengusuek, II Errepublikaren

<sup>223</sup> Txantreako eraikitzaileen kategoria sailkatutako kasu bat den arren, Valladolideko Santervas de Campos herritik etorri zen J.D.C.-ren esperientzia adierazgarria da zentzu honetan: “Gogoratu nahi ez dudana herri batetik, Valladoliden dagoen Santervas deCamposetik, [etorri nintzen]... bertan aita eta aitaren anai bat hil zituzten. Nire ama onikatera zen sei hilabeteko abortua izan zuelako... ia elbarri geratu zen” Aita hilda, ama eta J.D.C., honek hemezortzi urte zituela, Iruñera emigratu zuten bizitza berri baten eta lan baten bila. Bertan jada alde zuretik alde egin zuen alaba-ahizpa bat bizi zen

<sup>224</sup> Juan Mari Feliú Nafarroako ELAko kidea zen 60. hamarkadaren amaieraz geroztik. Ikusi Iván Giménez, *ELA en Navarra. 100 años de transformación y lucha*, Txalaparta, Tafalla, 2012, 135 orr. eta 150-151 orr.

bitartean Katalunian jaiotakoen eta frankismoaren pean Iruñean jaiotakoen artean, hirugarren belaunaldi bat sortu genuen<sup>225</sup>.

Hala ere, kontutan izan behar dugu etorkin asko Iruñera soilik faktore ekonomikoengatik etorri zela eta tradizio errepublikarrarekiko alde zuzenean inolako harremanik ez zuela. Honela, gure iturrietan, ondare errepublikarrarekin zuzenean inolako harremanik ez duten emigranteen kasu adierazgarriak topatu ditugu: Klandestinitateko nafar CCOOetako koordinakundearen kide nabarmenatariko batena eta nafar langile mugimenduan mugarri den Potasaseko itxialdian parte hartu izan zuen meatzari batena.

Nafar jatorriko zenbait iturriren memoria kolektiboak ere, Nafarroaz kanpotik, Andaluziatik, Extremaduratik edota Asturiasetik (Potasaseko meatzariak) heldutako langile askok berekin ekarri zuen ondare errepublikarra zeharka azaleratzen du. Emigranteen tradizio errepublikarrei erreferentzia egiten dieten testigantzek ez dute, zuzenean, ondare honen presentzia egiaztatzen, baina langile nafarrek hura hautematen zuten heinean, bai iradokitzen dute:

[Potasasen] Bazen oso jende jatorra ere, hortik, Asturiasetik eta, eskarmentu handiarekin zetorrena... amarru guztiak ezagutzen zituzten, Asturiasen edota Leoin meategietan ibiliak zirenez eta han bizitako gerraren ondorioz, eskarmentu handiarekin etortzen zirelako, ezta? [M.A.R.S.. Iruñea]

Nik uste dut euren familiek zuten substratu errepublikarrarengatik oso jatorra zen jendea zegoela [...] oso ongi ulertzen zuten borrokatu beharra zegoela, egiten ziren gauzak egiteko beharra zegoela, bai, bai... nik gogoan ditut kanpotik etorritako lankideak, extremadurarren bat, segoviarren bat, bai, bai... eta langile komisioko kide egiten ziren ere, bai. Horrek zerikusirik izango zuen euren familien aurrekariarekin, ezta? bere garaian errepublikarrak izan baziren [P.O.. Iruñea]

Beraz, ondare ezkertiar errepublikarra, bereziki, modu argian azaltzen da estatuko beste probintzietatik, emigrazio mugimenduetan, etorri ziren langileen artean. Zentzu honetan, Xavier Domènechek aztertutako Sabadellen kasuan bezala, tradizio errepublikarrak, emigranteen eskutik, hirira, auzoetara eta fabriketara sartzen diren arren, nafarren eta nafar ondarearen indar handiagoak, tradizioa haiek hemen Sabadellen izan zuten bezainbeste indarrik edo eraginik ez izatea ekarriko zuen ondorioz.

### 2.1.2 Hezkuntza eta formakuntza. Gutxi kualifikatutako langileak?

Ahozko iturriek azaleratu duten subjektuei dagokien bigarren ezaugarri nagusia, hauek izan zuten lanbide prestakuntzaren maila garrantzitsua da. Gure iturriek, orokorrean, neurri handi batean kualifikatua zen langileria bat erakusten dute, haien artean, ofizialak, marrazkigileak, teknikariak edota ingeniari kopuru garrantzitsua topatzen baitugu. Langileen formakuntza maila hau paradoxazkoa izan daiteke, nafar industrializazio prozesu bizkorra, hasiera batean, landatik hirira emigratu zuen kualifikatu gabeko laneskuarekin hornitu zela kontutan hartuta (*“kualifikatu gabeko jendea [zen], landatik etorritakoak gehienak -destripaterrones esaten genien-, kasik inolako kulturarik ez zutenak”*<sup>226</sup>). Baina aurreko kapituluan ikusten genuen bezala, langileen formakuntza industrializazio prozesuak arrakasta izateko ezinbestekoa zen heinean eta nekazaritzak askatzen zuen laneskua inolako prestakuntzarik ez zuen heinean, instituzioek eta enpresek langile belaunaldi oso bat kualifikatzeko ahalegin

<sup>225</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., testigantza: “los primeros 25 años de mi vida en el barrio del Motxuelo”. 85-86 orr. Bera Iruñean jaiotakoetako bat izan zen.

<sup>226</sup> P.O.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-06.



handiak egin zituzten. Hauei esker, formakuntzarako aukera berriak sortu ziren, ikasketen eskaintzaren areagotzea edota dirulaguntzen ematea, adibidez. Hala ere, langile guztiek ezin izan zituzten eskainiriko aukera hauek modu berean aprobetxatu eta askok, adinarengatik, familiako egoerarengatik edota behar ekonomikoengatik, oraindik zaila izan zuten edozein motatako ikasketak burutzea.

Are kasu hauetan, langileen industria eta fabrika lanerako egokitzapen prozesua erraztu zuten elementuak egon ziren Nafarroan. Lehenbiziko bat, nafar populazioaren oinarrizko kultura maila altu samar bat izan zen. Langile asko, kualifikatua ez izan arren, irakurtzen, idazten eta oinarrizko kalkuluak egiten bazekien eta honek, tailerreko eta fabrikako lanpostuetara azkarrago ohitzeko aukera ematen zien. Bigarren bat, nafar industria ehundura bera izan zen. Tamaina handiko enpresak urriak eta enpresa txikiak ugariak izaterakoan, fabriketako laneskua izango ziren langileek, alde zurretik fabrika txikietan edo tailerretan “ikastun” bezala kualifikatzeko aukera zuten<sup>227</sup>, berauetan nolabaiteko oinarrizko lan praktika, esperientzia eta jakintza eskuratzen zutelarik.

Lehenengoari dagokionean, nafar oinarrizko kultura eta hezkuntza maila aski altua zela esan daiteke. Nekazal munduan, herrietako eskolek eta instituzio erlijiosoek oinarrizko hezkuntza ikasteko aukerak bermatzen zituzten<sup>228</sup>. Hirian, antzeko zerbait gertatzen zen eta udal eskola publikoak eta ikastetxe erlijiosoak ziren oinarrizko hezkuntzaren eskaintza asetzen zutenak. Iturrietan, udal eskola publikoetatiko igarobidea errepikaria den arren, familia umilek euren seme-alaben oinarrizko hezkuntza ahalbidetzeko bestelako bide batzuk ere erabiltzen zituztela azaleratzen dute. Adibidez, ohikoa zen ikastetxe erlijioso pribatuetan izena ematea, horretarako, doan joaterik ez bazegoen, familiak ahalegin bereziak egin behar zituelarik; edota haur kantarien eskolara jotzea, non meza-mutil eta kantari izatearen truke, eskolak jasotzen ziren:

orduan [amak] eskolapioetara eraman gintuen, eskolapioetara. Aitak ordu pila sartu behar zuen [lanean] eta berak ere, amak, gau osoa pasatzen zuen galtzontziloak josten eta gero denda baten -Irca gogoratzen du zela- lisaketa egiten zuen; guzti hori semeak eskolapioetara eramateko... Almuniera edo beste halako tokiren batera eraman beharrean -ni hartara joan nahi nuen nire lagunak eta ezagutzen nuen jendea bertara joaten zirelako-, Iruñeko aberats guztiekin joaten nintzen ni [eskolapioetara]. [R.U.. Maisu industrialia]

<sup>227</sup> Joseba de la Torre, “Trabajadores, empresarios y...” *Op. Cit.*, 76 -77 orr.

<sup>228</sup> Jada hainbatetan aipatu dugun nafar herriei buruz Diario de Navarra argitaratu zuen erreportaje saila, iturri ona da Oinarrizko Hezkuntza Orokorra herrietan zein egoeratan zegoen ikusteko. Herrietako eskolek pairatzen zituzten arazo larrienak azaltzen dira; hauen artean errepikatua, umeak askotan klasera joaten ez zirela da: “Los jornales restan niños a las escuelas”, “Diario de Navarra en Caparrosa”, DN 15-02-1963, 15 orr. edo “Un problema grave: la asistencia escolar”, “Diario de Navarra en Lesaca”, 01-11-1963, 6 orr. Herrietako ikasleen hezkuntza mailaren berri ematen da: “Carcastillo. Setenta bachilleres y cuatrocientos escolares”, “Diario de Navarra en Carcastillo”, DN 19-04-1963, 7 orr. Erlijioak eta erakunde erlijiosoek herrietako biztanleen eskolaratzean zuten garrantzia jasotzen da ere: “Larraga. Pocos bachilleres y muchas vocaciones”, “Diario de Navarra en Larraga”, DN 15-11-1963, 6 orr. edo “Los Arcos. La tercera parte de los niños estudia en colegios apostólicos”, “Diario de Navarra en Los Arcos”, DN 01-03-1963, 7 orr. Azken honi dagokionean, adierazgarria da Cabanillasen jaiotako R.M.-en honako testigantza: “Orduan nik jaso dudana hezkuntza, ba... oinarrizko lehen hezkuntza, baina oso oinarrizkoa, ezta? nik uste dut ozta-ozta jaso nuela, ezta? agustindar errekoletoen apaiz bat etorri zen, orduan askotan ibiltzen zirelako herrietatik umeak erakarri nahian, ezta? [...] orduan bederatzi urte nituenean etorri ziren eta izena eman nuen [...] eta hamalau bete arte izan nintzen bertan, gero atera nintzen”. R.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-07.

Beno, lau urterekin hasi nintzen Compañía kalean zeuden udal eskola publikoetan [...]; hortik Eskolapioetara eraman ninduten [...] gogoratzen dut Eskolapioetan jaunartzea egin nuela, beraz sei urte edo sei urte eta erdirekin sartuko nintzen eta bederatzi urte bete arte egon nintzen bertan. Ordaindu beharreko ikastetxea zen eta legeak doaneko ikasle kopuru bat izatera behartzen zituen, ni ikasle horietariko bat nintzen. [J.L.D.M. Ofiziala]

[...] Lehen Hezkuntzako ikasketa guztiak Iruñean egin nituen, ezta? Lehenbizi Vázquez de Mellan, gero urte bat Eskolapioetan eta bost urte, bederatzi urtetatik hamalau bete arte, Santa María la Real haur kantarietan. Iruñeko parrokia ezberdinetako meza-mutil eta kantariak jasotzen zituen eskola zen, ezta? maila diozesiarrekoa; gainera orduan [eskola honek] meza-mutil izateagatik eskolan gosaltzeko, bazkaltzeko edota askaria hartzeko aukera zegoelako abantaila zuen” [J.I.S.. Ingeniaria]

Begira, ni Calderería kaletik, Compañía kaleko eskoletara pasa nintzen, gero San Agustín kalean zegoen Santa María la Real haur kantarietara. Hemen meza-mutilak ginen eta, era berean, haur kantariak; orduan, mezatan laguntzeaz beste, ba... kantatzera, mezak kantatzera, katedralean mezak kantatzera joaten ginen. Eta bertan ere ikasketak burutzen genituen” [I.B.. Ofiziala]

“Hamar urterekin gurasoek Karlos III. etorbideko kaputxinoen San Antonio haur kantarietan eman zuten nire izena. Gerora nire anaiarena emango zuten [...] Uste dut bertakoa, udal eskolatan jasotzen zen hezkuntza baino hobeagoa zela pentsatzen zutela, nik zalantzan jartzen dut. Eskolak dohainik ematen zizkiguten mezatan kantatu eta laguntzearen truke”<sup>229</sup>

Bigarrenari dagokionean, Iruñean zeuden tailer eta lantegi txiki ugariak, Lehen Hezkuntza amaituta ikasten jarraitzerik ez zutenen aukera onena izaten ziren, bertan “ofizio bat ikasten” ahal zutelako. Zentzu honetan, ofizioa praktikaren bidez ikastea, Lanbide Heziketa ikasketak ere burutu ezin zirenean langileek ibiltzen zuten biderik ohikoena zen. Hamalau urteak bete bezain pronto tailer edota fabrika txikietan “ikastun” bezala nolabait kualifikatzea lortzen zuten langile gazteen kasua eta lanpostuz lanpostu, peoi mailatik hasita, lanerako jakintza praktikaren bitartez eskuratuz zihoazen langile helduagoena, ikasketen ibilbidea jarraitu gabeko iturriek azaltzen dituzten bi profil nagusienak dira.

Profil gazteena, gazte-gaztetatik lan merkatuan sartu eta euren ibilbidea “maca” edota “ikastun” izanez hasi zutenek osatzen dute. Batik-bat familiaren egoera eta behar ekonomikoengatik ezin izan zuten ikasten jarraitu eta ondorioz, oso goiz hasi ziren lanean, familiako ekonomian, dirusarrera osagarri batekin, nola edo halako ekarpena egiteko. Eraldaketa sozioekonomikoaren markoan gazteriak formakuntzaren edo hezkuntzaren alorrean zituen aukera berrien ondorioz “macak” geroz eta urriagoak ziren arren<sup>230</sup>, halako figurek oraindik paper garrantzitsua betetzen zuten, bai tailer eta fabrika txikietan erabilgarriak zirelako eta baita familia umilenen zailtasun ekonomikoak arintzen laguntzen zutelako ere. Tailer eta lantegietan, eguneroko funtzionamenduaren oinarritzko lanak egiten zituzten, mandatuak (erosketak eta eskura emateak) edo mantentze eta garbiketa zerbitzuak, adibidez: “*Nik urteak maiatzaren hogeita bostean betetzen nituen, eta ekainaren zortzirako lanean nengoen jada, hau da, hamalau urte eta egun batekin, ezta? “maca” gisara hasi nintzen, “maca” gisara lan egiten... mandataria lana zen “macarena”, “maca”, horrela esaten zitzaion [...] Han [tailer batean] sartu nintzen eta hau izan zen esan zidaten lehenbiziko gauza, Hi motel! erratza pasatu behar duzu, zaborra bildu behar duzu, txirbilak hona ekarri eta hara eraman behar dituzu, makinak garbitu, olio labaintzailea eman, mandatuak egin eta edozeinek laguntzeko eskatzen dizun guztia egin behar duzu”<sup>231</sup>. Patroientzat gainera oso*

<sup>229</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., testigantza: “Recuerdo de mi infancia y juventud en el barrio del Mochuelo”, 128 orr.

<sup>230</sup> “Los macas escasean. Poco sueldo y escaso porvenir”, DN 23-01-1963, 7 orr.

<sup>231</sup> R.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-03-06.

lanesku merkea ziren, soldata urriak ordaintzen baitzizaizkien. Baina soldata horrek langile bat bizitzeko haina ematen ez bazuen ere, familia ekonomiak osatzeko ekarpen garrantzitsua zen eta horregatik, langile familia ugari bizirauteko soldata eta osagarri ekonomiko asko behar zuenez, euren seme-alabak ahalik eta lasterren jartzen zituen lanean, nahiz eta trukean pezeta gutxi batzuk jaso.

Antzeko zerbait gertatzen zen ikastunekin. Asmo bikoitzarekin hasten ziren oso gazte, hamalau urteak bete bezain pronto, tailer edota lantegi txikietan lanean: soldata batekin familiako ekonomian laguntzea eta gaztetatik ofizio bat ikastea. Ikastunak, “macak” ez bezala, lanpostu batean hasten ziren lanean zuzenean, ofizioaren beheneko mailatik hasi eta praktikaren bitartez ofizioan formatzen joateko: *“Orduan hamalau urterekin lan egitea posiblea zen. Lan asko zegoen eta ikasi nahi edo ezin zuena tailer batean sartzen zuten “ikastun” bezala, iturgintzan, zurgintzan, dena delakoan; orduan han, profesionalarekin ofizioa ikasten zuen eta ofizial egiten ziren. Orduan hamalau urterekin “ikastun” bezala lan egiten zuen mutiko asko zegoen”*<sup>232</sup> Ikastunaldi hau, tailer edo fabrika txiki batean betetzen ahal zen, bertatik, jada peoi espezialista edo ofizial bihurtuta, fabrika handiago batera igarotzeko; beste batzuetan, langileak bere lan ibilbide osoa egingo zuen fabrika handian gaztetan sartzen zen eta bertan, ikastun izatetik, peoi espezialista edo ofizial bihurtu arteko oinarritzeko lanbide formakuntzaren bide osoa burutzen zuen. Ikastun hauetariko askok gainera, euren prestakuntza profesionalean sakontzearen, lanpostuan jasotzen zuten praktikaren bidezko ikaskuntza, lanbide heziketako ikasketekin osatzen zuten, lanegunaren ostean eta gaueko ordutegian, ikastun aldiari ordutegi estutuaren kalteak gehituz. Imenasak adibidez, enpresaren eskola profesionala itxi zuenean, hitzarmen bat egin zuen salestarekin, ikastun gisara fabriketan lanean hasten ziren gazteek Lanbide Heziketa ikasketak bertan, arratsaldean, egin ahal izateko<sup>233</sup>. Goizez lan egitea eta arratsaldean ikasi behar izatea gogorra zen langile gazteentzat eta horregatik, fabriketan langileen nukleo antolatuak sortzen hasi zirenean, hauek, lan ordutegiak eta Lanbide Hezikuntza ikasketak bateragarri egitea eskatzen hasi ziren: *“Lortu izan genuen gauzatariko bat, izan zen... Ikastunak, hainbat enpresetatik [...] eskola propioa ez zuten enpresetatik, salestaretar joaten ziren arratsaldero eta eurak bertara joan ahal izateko erraztasunak izatea lortu genuen; egin genuen greba batean aldarrikapenatariko bat hori izan zen [...] arratsaldero salestaretan ematen zituzten bi orduak lanaldiko ordutzat hartuak izatea... eta lortu genuen”*<sup>234</sup>.

Ibilbide hau, gazte-gaztetik lan egiten hasi eta ikastun bezalako igarobidean formatu zirenean, emakume langile ugari izan zen. Formakuntza jasotzerako

<sup>232</sup> M.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-09. Esperientzia batzuk: M.BU., “hamabost edo hamasei urterekin ofizio bat ikastera jarri nintzen [...] mekanikari-tornulari ikastun bezala hasi nintzen tailer batean [...] orduan hala ikasten zen... gogoratzen dut zazpi ta berrogeita hamar pezeta jasotzen nituela hastean, oso gutxi zen [...] orduan, konponbidea? Ikusten zenuenean tornua menperatzen zenuela [...] ba [beste] tailer batean aurkeztu eta proba bat egiten zizuten eta [...] zenbat ordaintzen dizute han? Ba ez dakit zenbat... beno, ba nik gehio ematen dizut. Eta trikimailu hau, nolabait, hainbatetan erabili izan nuen... uste dut ez nuela bi urte baino gehiago eman enpresa berean... tailer bakoitzean produkzio mota ezberdin bat zegoen, gauza bat edo beste produzitzen zen eta bi urtetan noski, ikasi ahal nuen guztia ikasia nuen jada eta nik ikasten jarraitu nahi nuen”, M.BU.-ri egindako elkarrizketa, Iruñea 2014-05-20; Juan Mari Feliú: “urrian nire lan ibilbidea hasi nuen, arte grafikoetako ikastun bezala, Conde Oliveto etorbidean zegoen Zubillaga inprimategian. Etxetik gertu zegoen. Nire lana “maca” batena zen (mandatuak egin), bizikletan ibiltzen nintzen, bezeroen eskaerak eramateko sasi egokitu bat eramaten nuen. Denborarekin paratzailea, lehen mailako ofiziala izatera iritsi nintzen”, Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “los primeros 25 años de mi vida en el barrio del Motxuelo”, 106 orr.

<sup>233</sup> K.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2015-01-04

<sup>234</sup> I.N.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

orduan emakumeei zuzendutako Lanbide Heziketako ikasketarik ez zegoenez, lan batxilergoan ikasterik ez zuten neskatok, tailer edota lantegi batean (botoi lantegi bat, alfonbra tailer bat) ikastun bezala sartu baino beste irtenbiderik ez zuten, nolabaiteko lan prestakuntza eskuratzeko: *“Hori bakarrik mutilentzat zen [...] Zer gertatzen zen belaunaldi hartan? Emakumeok ez genuela ezer ikasteko [ezta ofizioa ere], etxeakoandreak izan behar ginen. Ni ere, guztiak, joan ginen josten ikastera, etxeakoandre onak izaten ikastera. Baina orduan formakuntza... formakuntza intelektuala edota Lanbide Heziketa, bakarrik gizonezkoentzat zen”*<sup>235</sup>. Gainera emakumeek, gizonek baino denbora gehiago eman behar zuten “formakuntza” aldi honetan, izan ere, kontratuz ikastun aldi luzeagoak bete behar zituzten: *“emakumeok ikastun aldi luzeagoa genuen, denbora luzeagoan ginen ikastun, hau da, gizonak hemezortzi urterekin jada peoi izan zitezkeen... gu ez, inoiz ez ginen horretara iristen, gure ikastun kontratuak luzeagoak ziren, lanesku merke izateko modu bat zen. Hori horrela zen, berez hori zen gertatzen zena, ezta?”*<sup>236</sup>

Berez ikastunaren profil hau izan gabe, gazte-gaztetatik lan esperientzia ezberdinak pilatu izan zituzten profil helduagoak ere bereizten ahal ditugu. Peoi mailan hasi eta lanpostuz-lanpostu eskarmentua eta formakuntza praktikoa eskuratuz joandakoen soslaiak dira. Hauek, horrenbeste lanpostu ezberdinetan eskuratutako prestakuntzari esker, fabrika handi batean euren behin betiko lanpostua izango zenera iristen zirenean, burutu beharreko lanari azkar egokitzeko gai izaten ziren. Beraz, Lanbide Heziketarekin eskuratzen zen kualifikazio maila lortzerik izan ez zuten arren, fabrikaren baitan, praktikaren bitartez, ofizial izatera iristeko eta euren lanpostuak, “ofizioak”, erabatean menperatzeko aukera izan zuten:

Orduan lana erraz topatzen genuen, gaur hemen, bihar han... ni lehenbizi botoi lantegi batean ibili nintzen [...] behin, zigor bezala, lan jakin bat amaitzearren, zegokidan ordua baino beranduragora arte geratzera behartu nindutenez, hurrengo astelehenean ez nintzen lanera itzuli, “Industrias Esteban-en” lana topatua nuelako jada [...] hortik, “Industrias Esteban-en” aritu ondoren, ama eta ahizparekin joan nintzen kontserba lantegira [...] baina hamabost urtean bete nituenean Bilbora joan nintzen kamioiak deskargatzera, goizeko laueta ateratzen nintzen horruntza eta itzultzen nintzenean gaueko hamaikak ziren; baina beno, lan hori ere utzi nuen eta Iruñeko okindegi batean sartu nintzen [...] okin bezala lan egiteko. Hor egon ostean, hemen [Atarrabian] egon nintzen Arrasate okindegian denbora luzez, lau urte, eta zoragarri gainera [...] [baina] azkenean hortik ere atera eta “Zozayara joan nintzen lan egitera”. “Zozaya-n” ere lau urte eman [...] eta bertan lan gatazka bat bizi izan nuen haiekin [jabeekin] [...] Imenasan sartu nintzen [...] hasieran [ofizial baten] laguntzaile gisa egon nintzen, hor, puntuak eta halakoak egiteko, [ofizial harekin], biak elkarrekin. Gero ba, laster, egiturak muntatzera bidali ninduten [...] orokorrean hori izan da nire lana beti, egiturak muntatu eta soldatu [...] makina batekin [...] orduan pentsatu nuen: beno, bizitza osoa makina honekin emango dudanez, egingo dudana nola funtzionatzen duen ongi ikastea izango da, horrela zoragarri funtzionatuarazi egingen dut. [P.M.. Ofizial izatera iritsi zen]

Noski, ni sartu nintzenean eskarmentua nuen eta hainbat gauza banekizkien jada eta orduan, Nafarroan ez zegoen ongi prestatutako jenderik; eta prestatutako jenderik ez zegoenez, nik eskarmentua nuela ikusi zuten, igogailuak muntatzetik etorri nintzelako eta [...] soldatzen banekielako... [eta] instalatze arloa bidali ninduten [...] eta azkenean bertara sartu nintzen eta instalatze arloan garatu dut nire ibilbidea ahal izan dudana moduan. [C.O.. Ofiziala izatera iritsi zen]<sup>237</sup>

Prestakuntzaren falta arintzen gehien lagundu zuen baliabideetariko bat, ikastaroak izan ziren, oinarrizko formakuntza eskaintzen zuten edota lanpostuan jasotako esperientzia praktikoa osatzen zuten mota desberdinetako ekimen ugari jarri baitziren

<sup>235</sup> M.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-09.

<sup>236</sup> I.N.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014.01-07.

<sup>237</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Aísa, 2013-09-10.

martxan garapen industrialeko urteetan. Alde batetik, landa mundutik inolako prestakuntzarik gabe iritsi eta arrazoi ezberdinengatik, adinarengatik eta behar ekonomikoengatik batik-bat, ikastun epealdia bete ezin zuten langileentzat, Erakunde Sindikala eta Nafarroako Industria Elkarteak bezalako instituzioek, hauei oinarritzko gaitasunak ematen zizkieten ikastaroak antolatzen zituzten<sup>238</sup>. Bestetik, fabrikaren baitan ofizioan formatzen ikusi berri ditugun langileek ere, prestakuntza osagarria jasotzen jarraitzeko aukera desberdinak zituzten, langile askok, gaitasunak, prestakuntza eta lanerako autonomia sustatzeko asmoarekin, bere kasara ikastaroak bilatu eta burutu zituelarik<sup>239</sup>:

“Nik planoen inguruko ikastaro ugari egin nituen fabrika nintzela [...] kale nagusian zegoen etxe batean eta Virgen del Camino-n egin nituen; ni etengabe ari nintzen... ba agian planoen interpretazioari buruzko sei edo zazpi ikastaro egingo nituen... eta zertarako? ba horrek gero lana erraztuko zidalako, lanean aritzerakoan independente izango nintzelako, lanean autonomo izango nintzelako” [P.M.. Ofizial izatera iritsi zen]

Industrializazio prozesu bizkorrek ezaugarritzen dituen kualifikatu gabeko lanekuaren ugartasunaren aurrean, gure iturriek, orokorrean, prestakuntza maila nabarmena agertzen dute. Aurreko kapituluak mugikortasun sozial malguago baten inguruan aritzen ginenean, langile familiek gizarte egitura gora egin ahal izateko eskura izan zituzten bitarteko nagusienak prestakuntza eta hezkuntza izan zirela ikusten genuen. Ikasketak eta formakuntza, hartara, sozialki aurrera egitea ahalbidetzen zuten balore bilakatu ziren. Hala ere, nekazal eta langile jatorriko familia umilek zailtasunak izan zituzten (bereziki ekonomikoak) prestakuntza eta hezkuntza bitarteko horiek erabili ahal izateko. Horregatik, oztopoak gainditu eta euren seme-alaben ikasketetan “inbertitu” ahal izateko, familia hauek bestelako baliabideak erabili behar izan zituzten. Javier Echeverría Zabalza soziologoak, bereziki, bi nabarmentzen ditu: alde batetik, ikasle laguntzak ematen zituzten emaitza akademiko onak lortzeko eta seme-alabek ikasketekin jarraitzea ahalbidetzen zuten baldintza ahalik eta aproposenak sortzeko, bai ikasleek eta baita euren familiek ahalegin itzelak egitea; bestetik, seminarioetara eta fraide ikastetxeetara jotzea<sup>240</sup>. Lehenengoari dagokionean, ikasketetarako gaitasunak edukitzea eta dirulaguntzak eskuratzea funtsezkoa zen langile familietako seme-alabek, hamalau urterekin ikastun bezala lanean hasi beharrean, Lanbide Heziketan edota batxilergoan ikasten jarraitu ahal izateko:

---

<sup>238</sup> Adibidez, “Taller-escuela de formación profesional Virgen del Camino. Segundo curso de perfeccionamiento profesional para adultos”, DN 10-08-1963, 9 orr. edota “Termina el primer curso de Formación Profesional intensiva de Navarra. Noventa nuevos oficiales en seis meses de aprendizaje”, DN 10-10-1963, 7 orr. Hauek, Erakunde Sindikalaren Virgen del Camino tailer eskolan antolatzen ziren ikastaroak ziren, langabezia edo azpienplegu egoeran zeuden 18-40 urte arteko langileei zuzendutakoak. Doitzaile, elektrizitate-instalazaiak, zurgin, xafla-langile, soldatzaile eta tornulari espezialitateentzako hobekuntza profesionala eskaintzen zuten eta ikastarora joateagatik ere, soldata edota kalte-ordain bat jasotzen zuten. Sei hilabeteko ikaskuntza prozesu baten ostean, lanean hasten ziren laneku espezializatu, ofizial, bezala. Aukera hau, bereziki, herrietatik kualifikatu gabe etorri eta hirian peoi bezala empletatzen zen lanekuari zuzendutakoa zen, ikastarook “laneku espezializatuaren mailara emigratzeko” bide gisara aurkezten zirelarik. Nafarroako Industria Elkarteak ere, langileen espezializaztea eta maila hobetzea helburu zuten ikastaroak antolatzen zituen. Hauen hartzaileak “Mekanizazioaren ondorioz langabezian geratu diren landatik etorritako peoiak dira, dirusarrera maila altuagoa jaso gura duten *macak*” ziren. Ikasleek amaieran, euren formakuntza egiaztatzen zuen ziurtagiri bat jasotzen zuten, ikasitako espezialitatean lana lortzen lagunduko ziena. “Quinientos soldados han salido de los cursos de capacitación que se celebran en Pamplona”, DN 15-09-1966, 16 orr.

<sup>239</sup> Besteak beste, C.O.-ek urrutiko marrazkigile ikastaro bat egin zuen.

<sup>240</sup> Javier Echeverría Zabalza, *La movilidad social...* Op. Cit., 264-265 orr.

Nik industria maisutzara arte ikasi nuen salearretan [...] ez ohikoa zen hori, bai, ni bezalako, jatorri umileko, jende gehiena hamalau urteak betetzerakoan (agian lehenago ere) lanean hasten zelako, behartutako zoria zen hori, benetan [...] [Nire kasuan] ordea, apaiz horiek, baten batek ziurrenik, ez dakit nigan ikasketatarako gaitasuna ikusi egingo ote zuen eta aitarekin hitz egin zuen [...] beno, eta haren nahiaren kontra izan bazen ere, Diputazioak eta estatuak dirulaguntzekin ikasten jarraitu nuen, familiak ezer ordaindu behar izan gabe, industria maisutzara arte [P.O.. Maisu industrialak]

Zortzi urte bete arte San Frantziskoko eskolan ikasi nuen. Gero [...] hamaika bete arte eskola publiko batean, orduan institutuan hasi nintzen dirulaguntza bati esker, nire familiak nik ikasketak burutzeko baliabiderik ez zuelako. Orduan beno, ba andereñoak amarekin hitz egin zuen eta, orduan esaten zen bezala, ikasteko gaitasuna nuela esan zion... nahikotxo errepikatu zion eta [azkenean] dirulaguntza bat lortzeko izena eman nuen. Institutuan sartu eta bertan batxilergoko 4. mailara arte egon nintzen. [M.L.C.. Lan batxilergoko eta goi mailako batxilergoko ikaslea]

Bekaduna izan zen ere Tomás Caballero, 60. hamarkadako eta 70. hamarkadaren hasierako Iruñerriko mugimendu sindikaleko figura nabarmenduenetariko bat izango zena: *“hamar urterekin hasi zen Tomás, eguneko ikasle bezala, jesuitek zuzentzen zuten San Frantzisko Xabier ikastetxean batxilergo ikasketak burutzen [...] Dirulaguntza batekin burutu zuen batxilergoa amaituta, Tomásék ezin izan zuen ikasten jarraitu eta 1953ko apirilaren 14an, bulegoko enplegatu bezala hasi zen lanean “Fuerzas eléctricas de Navarra” enpresan”*<sup>241</sup>.

Askotan ordea, ikasle laguntza jasotzea ez zen nahikoa izaten familiarentzat seme-alaben soldata osagarriak ezinbestekoak zirelako. Kasu hauetan, ohikoa izaten zen gurasoek edota ikasleak berak izugarritzko ahaleginak egin behar izatea ikasterakoan galtzen zen dirusarreraren gabezia konpentsatzeko: aita fabrikari sartzan zituen ordu gehigarriak, ama etxeko lan moduan egiten zituen enkarguak edota ikasleak arratsaldetarako edota asteburutarako bilatzen zituen lantxoak, honen adibide adierazgarriak dira. Seme-alabek ikasten jarraitzea, familia askok, sekulako sakrifizio bezala bizi izan zuten:

Ni Compañía kaleko eskola publikora joan nintzen [...]. Bertan ikasten genuen oso jatorri umilekoak ginen guztiak [...] nire aita oso gutxi irabazten zuen eta ama gaixo zegoen eta... eta ni oso ikasle fina nintzen, orduan... oso ikasle fina nintzen eta ikasketak erraz ateratzen nituen, klaseko azkarrena nintzen ni, klaseko azkarrena; eta eskola amaitzerakoan, hamabi edo hamahiru urte nituelarik, eskolan bertan esan zidaten: gutxienez ez duzu Lanbide Heziketa ere egingo? Noski, batxilergoa egitearekin ezin nuen amets ere egin, aukera hori ezin gauzatzukoa zen nire jatorri soziala zein zen kontutan hartuta [...] orduan nire ama ba baietz esan zuen eta Virgen del Caminora joan nintzen, Virgen del Caminora joan nintzen eta [eskolen] ostean arratsaldero lan egiten nuen, Virgen del Caminotik ateratzen nintzen eta ardo zahatoak egitera joaten nintzen... bai, lehengusuarekin, lehengusuaren tailerrean [...] lan egiten nuen diru apur bat irabazi eta etxera eramateko... ez zen soldata bat, baina laguntzen zuen. [A.L.. Ingeniaria]

Baina zailtasun hauen gainera, iturri askok ikasketak burutu zituen eta prestakuntza maila garrantzitsua lortu zuen. Gehienek Lanbide Heziketari lotutako ibilbidea burutu zuten. Honen barnean, lanbide prestakuntzaren oinarritzko maila, ofizialtza, iturrien gehiengoak lortu zuen kualifikazio maila handiena izan zen. Ofizial asko dago gure iturrien artean. Baina hauekin batera, Lanbide Heziketaren bidea hartu zuten hauen artean, industria maisutza eta are ingeniarietza teknikoak burutu arte ikasten jarraitu zutenak ere badaude. Iturriek azaleratzen duten bestelako prestakuntza ibilbide bat, seminarioetan, ikastetxe erlijiosoetan hala nola institutu publikoetan batxilergo

<sup>241</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato de Tomás Caballero: 50 años de lucha democrática en Navarra*, Nobel, Oviedo, 2006. Ikusi 16 eta 21 orr.

ikasketak egin zituztenek ibili zuten (oinarrizko batxilergoa, lan batxilergoa, goi mailako batxilergoa). Hauen artean zenbaitentzat ere, bide hori, unibertsitateko ikasketetaraino luzatu zen.

Lanbide Heziketako ikasketen sustatzea, 60 eta 70. hamarkadetako langile asko kualifikatu bilakatzea ahalbidetu zuen faktore nagusia izan zen. 40. hamarkadan hasi ziren jada Nafarroan irakaskuntza profesionala garatzeko saiakerak, baina orduan, oraindik, helburu ekonomikoei lotuta baino, Lanbide Heziketa, sorospen egintza edota egintza moral bezala ulertzen zen. Are gehiago, kontrol sozialerako balio estimagarria egozten zitzaion, irakaskuntza profesionalak, sektore sozial kaltetuenei erregimenaren egituretan gizarteratzeko aukera ematen zien neurrian, harreman sozialak nolabait adosten laguntzen ahal zuela ikusten zelako<sup>242</sup>. Ildo horretan, nafar Diputazioak, urte haietan, jada martxan ziren eskola profesionalak lagundu zituen, orduko aurrekontuen sail bat Iruñeako salestarren eskolarekin eta Tuterako jesuitenarekin hitzarmenak sinatzera bideratuz. Nafar Lanbide Heziketaren egituraren oinarriak, beraz, 40. hamarkadan zehar jarri ziren. 50. hamarkadan zehar, eskualdearen garapen ekonomikoa eta industrializazio prozesua bultzatzeko egin ziren ahaleginen markoaren baitan, irakaskuntza profesionalaren norabidea aldatuz joan zen. Abiatzeaz zen garapen industrialerako langile formatuak behar ziren, sustatuko ziren industria sektore berriek lanerako kualifikatua behar zutelako. Beraz, landatik zuzenean fabrikatara sartzen ziren etorkinen lanbide prestakuntza eskasaren aurrean, ikasketak profesionalen eskaintza areagotzea eta giza kapitalaren formakuntzan inbertitzea, ezinbestekotzat jo zen<sup>243</sup>. Lanbide Heziketaren funtsa hartara, esanguratsuki eraldatu zen marko sozioekonomiko berrira egokitzeko.

Aurreko kapituluan ikusten genuen bezala, nafar garapen industrialia espezializazioan oinarritu zen. Sektore metalurgikoan espezializatutako industria egitura bat hobetsi zen eta horrek, logikoki, jarduera metalurgikoetan gaitutako laneskua eskatzen zuen. Honela, 50. hamarkadaren erdialdetik Industriaren Sustapenerako Plana 1964ean martxan jarri zen arte, hamar urte eskasetan, industria ofizialtza eta maisutza eskoletan, kapital teknologiko handiko industria berrientzako lanerako aditu nahikoa sortzea beharrezkoa egin zen<sup>244</sup>. Nafarroan gainera helburu hori lortzeko aukera bazegoen, hemen lanerako erabilgarri ugari zegoelako; prestakuntzarik ez zuen arren, lanerako horrek ikasteko eta fabrikako lanera moldatzeko gaitasuna

---

<sup>242</sup> Lanbide Heziketarekin, "langilearen goratze kulturala lortzen zen, [langileek] promozio pertsonalerako aukera gehiago izatea eta sistemaren aurkako jarrera hartzeak eragiten ahal zituen miseria egoera ekiditea", Francisco Javier Caspistegui, "La formación profesional.." Op. Cit., 46 orr.

<sup>243</sup> 60. hamarkadaren hasieran lanbide heziketaren sustapenaren beharra aldarrikatzen zuten ahotsak ugariak izan ziren. Horrela adierazi zuen, adibidez, Antonio Sagasetak 1962an burutu zen Kontseilu Ekonomiko-Sindikalean, "Nafar langileen lanbide formakuntza" izeneko txosten batekin. Ikusi "Consejo Económico Sindical de Navarra. Segundo Pleno. Las sesiones de ayer. Resumen de las ponencias presentadas", DN 28-02-1962, 6 orr. Horrela ondorioztatu zuen ere Nafarroako Industriaren Elkartek enpresariaren artean inkesta bat egin ondoren, "La empresa y la formación profesional. Una encuesta de la Asociación de Industria Navarra", DN 29-06-1963, 9 orr. Ildo berean, 60. Hamarkadaren hasieran Ollarrak berak lanbide heziketaren sustapenaren aldarrikapen zuzena egiten zuen Diario de Navarratik, "Desde el Gallo de San Cernin: Escuelas profesionales", DN 31-01-1962, 10 orr.

<sup>244</sup> Joseba de la Torre, "Trabajadores, empresarios y..." Op. Cit., 76 -77 orr. Hau zen lanbide heziketaren sustapena garapen industrialerako ezinbestekoa zela aldarrikatzen zutenen argudio nagusia: "tresneria eraginkorrenarekin hornitutako industrietan bakarrik aurreratu ahal izango diote egungo lehiari arrakasta izateko bermearekin. Aurrerapen teknologikoek kualifikatu gabeko lanerakoentzako enplegu aukerak murrizten dituzte. Beraz, presazkoa da kapitalaren inbertsio prozesua eta langileen lanbide prestakuntzaren prozesua primerako sinkronismoan bizkortzea", "Industrialización y Formación Profesional (I)", DN 28-04-1963, 16 orr.

zuelako; eta itxuraz langile mentaliterik ez zuenez, gatazkarik sortuko ez zuen laneskua izango omen zelako<sup>245</sup>.

Enpresak laster jabetu ziren horretaz eta eurak berak, lanbide eskolak martxan jarri zituzten haien langilegoa prestatzeko asmoz. Halaxe egin zuten Iruñeko industria nagusienetarikoa bik, Imenasak eta Potasasek. Biek euren lanbide eskola propioa sortu zuten eta haiei esker, Lanbide Heziketaren eskaintza instituzionala nahikoa izan ez zen bitartean, etorkizunean enpresan arituko ziren langileak formatzeko aukera izan zuten. Imenasaren eskolak, adibidez, 1969 urtera arte funtzionatu zuten, irakaskuntza profesionalaren eskaintzaren areagotzeak eta eskolak enpresarako langileen kualifikazioan izan zuen arrakastak (Imenasaren langilegoaren gehiengoa peoi espezialista zen jada) premia gabeko egin zutelako. 50 eta 60. hamarkadetatik aurrera nafar Lanbide Heziketak bultzada handia jaso zuten, titulartasun ezberdina zuten eskolak eta irakaskuntza maila eta modalitate desberdinak barne hartzen zituen lanbide hezkuntza egitura oparo bat osatuz joan zelarik. Egitura honetan, Diputazioarekin hitzarmena sinatuta zuten salestari eta jesuiten eskolak, estatuaren Altsasuko lan institutu ofiziala, Erakunde Sindikalaren Virgen del Camino tailer eskola<sup>246</sup> edota ekimen pribatuak sustatutako ikaskuntza ekimen ezberdinak, enpresetako eskola profesionalak edota Nafarroako Industria Elkarrekin bultzatutako Irabia lan institutua kasu, izan ziren lanbide prestakuntza emateko esparru nagusiak. 1969an, Opus Deiaren zuzendaritza pean Nafarroako Ingeniaritza Teknikoko Eskola abian jarri zenean, egitura hori erabatean osatu zen.

Joseba de la Torre hiru datu jasotzen ditu Nafarroan Lanbide Hezkuntza bultzatzeko egin izan ziren ahaleginak, estatu mailan egin zirenen artetik garrantzitsuenetarikoa eta eraginkorrenetarikoa izan zirela ikusarazteko. Lehenengoak, Lanbide Heziketako ikasle kopuruari egiten dio erreferentzia: 60. hamarkadaren amaieran, Nafarroan irakaskuntza profesionalean ikasten zuen ikasle kopuruaren tasak, estatu mailako ikasleena bikoiztu egiten zuten. Bigarrenak, irakaskuntza profesionalaren sustapenerako ahalegin handia azaleratzen du: 70. hamarkadan, Nafarroa, Lanbide Heziketan inbertsio ahalegin gehien egiten zuten eskualdeen artean kokatzen zen. Hirugarrenak, emaitzekin du zerikusirik: 1966an, laneskua kualifikazioa, inongo prestakuntzarik gabeko langileen ugaritasuna zela medio, estatu mailan oraindik arazo larritzat jotzen zen bitartean, Nafarroako Sindikatu Bertikala, hemengo tailerreko ofizialek eta maisuek zuten mailarekin pozik zegoela erakusten du (espezialisten eta erdi mailako teknikarien mailari zegokionean zuhurragoa zen)<sup>247</sup>. Datuok adierazten duten joera positiboarekin batera, beste aspektu batean ere ikusten ahal da Lanbide Heziketak 60. hamarkadan zehar bizi izan zuten gorakada. Orduan, irakaskuntza profesionalak gizartean zuen begiramen soziala handitu egin zen, hura gutxiesten zuten mentalitatearen aurrean, lanbidean kualifikatzea, etorkizun berri bat izateko aukera ematen zuelako ikusmolde berri bat gorpuztu zelarik<sup>248</sup>.

<sup>245</sup> Joseba de la Torre, "Trabajadores, empresarios y..." Op. Cit., ikusi 96 orr.

<sup>246</sup> 1956an jada, Industrializazioaren hazkunde prozesuaren aurrean eta laneku kualifikatuaren arazoari aurre egiteko, Iruñean maisutza industrialeko zentro baten sorreraren beharra ikusi zen. Izan ere, enpresek laneku espezializatu geroz eta gehiago eskatzen zuten eta orduan funtzionatzen zuten zentroekin, ezin zitzaion eskariari eutsi. Arazo hau Txantrea langile auzoan azaleratzen zen bereziki eta horregatik, lehen hezkuntzatik irtetzen ziren gazteen gaikuntza profesionalaz auzoko egintza soziala arduratu behar zelako, lanbide eskola berri hura, aipatu langile nukleo hartan eraikitzea proposatu zen. Francisco Javier Caspistegui, "La formación profesional..." Op. Cit., Caspistegui, 77-78 orr.

<sup>247</sup> Datu guztiak, Joseba de la Torre, "Trabajadores, empresarios y..." Op. Cit., 78,79 eta 80 orr. hurrenez-hurren datu bakoitzeko.

<sup>248</sup> 60. hamarkadan hasieran, Industrializazio prozesuaren harira, hasieran Diario de Navarra argitaratzen ziren artikuluetan, lanbide heziketari buruzko halako ideiak azaltzen ziren: "Egun



Beraz, Lanbide Heziketa, nafar langile askok jarraitzen ahal zuen ibilbide bilakatu zen, beti ere norberaren eta familiaren egoerak horretarako aukera ematen baldin bazuen. Iturrien artean, hartara, ikasketa profesionalak burutu zituen langile kopuru garrantzitsua aurkitzen ahal dugu. Ibilbide honen baitan, Lanbide Heziketan formatutako iturriek jarraitu zuten biderik ohikoena, industria ofizialtzarena izan zen. Haietariko asko, nafar Diputazioak sostengatutako salestarren eskolan, Erakunde Sindikalak martxan jarritako Virgen del Camino tailer eskolan edota Potasas zein Imenasa enpresen eskola profesioaletan ikasi zuten tornulariak, mekanikariak, argiketariak eta soldatzaileak dira:

Mekanikari ofizioa ikasi nuen [salestarretan] [...] salestarretan [gehienak] ofizioa ikastera joaten zen jende umila ginen [...] orduan ez zegoen beste lanbide eskolarik Nafarroan, salestarrena eta jesuitena Tuteran. Eta Iruñeko salestarrak ospe handia zuten. Nik uste dut tontoarenaren bila ere etortzen zirela bertara, [lanesku eske]; ni klasean ikasle txarrena nintzen... baina [praktikari] dagokionean, inoiz ez dut eskuzko gaitasun handiegirik izan, ezta? Orduan nire aitak esan zidan: Zu mekanikari [...] eta ez nion inoiz esan nik ez nuela mekanikari izateko balio... eta ni [salestarretan] sartu bezain pronto konturatu nintzen horretaz; nik gainditzen nuen beste guztian oso nota onak ateratzen nituelako... [...] eta hamazazpi urterekin, [eskolatik] joaten nintzenean, gizon horrek sekulako atsekabea eman zidan, nik banekien, baina tailerreko arduradunak esan zidan: mutiko [...] zer egingo duzu orain? eta nik esan nuen: ba lan egin... eta esan zidan: ba ez daki nik... zergatik ez jarraitu ikasten? [eta nik:] dirurik ez dugulako. Orduan oraindik Iruñean ez zegoen ingeniari-tza teknikoko ikasketarik, Donostiara joan beharra zegoen. [J.L.D.M. Ofiziala]

Nahiko alferra nintzen eta orduan gaztetan, hamalau edo hamabost urterekin, ikasketetan porrot egin eta batxilergoa edota karreraren bat ikasten jarraitzea irudikeria baino ez zen niretzat. Orduan irtenbiderik errazena, momentu hartan boladan jartzen hasia zen Lanbide Heziketa zen: hor urte batzuetan, hiru edo izango ziren, orduko industria ofizialtzak ikasi eta hortik, zuzenean, lanean hasten zinen. [PA.S. Ofiziala]

II. Zabalgunean dauden salestarretatik pasa nintzen. Baina orduan aita Imenasan lanean zegoen jada eta salestarrak hor [Imenasan] lanbide eskola bat jarri zuten. Orduan gogoratzen dut Lan Unibertsitatean ikasi nahi genuenoi probak egin zizkigutela eta bertan industria maisutza eta ingeniari-tza teknikoak ikasteko aukera izan genuela, Kordoban edo Gijónen, uste dut. Nik Kordobara joateko probak gainditu nituen [...] baina aitak esan zuen: ez, Imenasan eskola jarri dute eta hemen hobe, bertan ikasi eta ondoren, fabrikari lanean hasteko aukera izango duzulako. Orduan horrela sartu nintzen ni Imenasan. Lanbide eskolan [...] hiru ikasturte egin genituen [...] [eta] gero ere tailerrean praktikak egin genituen. Orduan, begira nola aldatu diren gauzak, azken ikasturtea ekainean amaitu ondoren, irailera arte eman zizkiguten oporrak eta irailaren lehenengoan hasi ginen fabrikari, kontratu iraunkor batekin lehenbiziko egunetik eta ofiziale mailarekin, noski” [I.B.. Ofiziala]

Gurasoekin iritsi nitzen Arrosadia auzora eta Potasas de Navarra [enpresaren] lanbide eskolara joan nintzen ikastera; orduan hasten ziren lanbide eskolak argiketarien, mekanikarien, eta abarren behar handia zegoelako... batez ere ofizio profesional hauek behar ziren [Iruñean] finkatzen ari ziren industria berrientzako... [ofizio hauen] eskaria handia zen eta eskola hauek ireki ziren. Potasas de Navarra erregimenaren erako enpresa proiektua zen, nolabait eredu garri izan nahi zuena; orduan eskola egin zuen, enpresa denda bat jarri zuen, etxebizitzak...

---

geroz eta apalagoa den ertain klaseko hainbat sektoreren artean, lanbide heziketarekiko nolabaiteko aurreiritzia dago [...] guraso askok euren semeek tornulari edota zurgin izateko ikasteagatik beti sentitu izan duen konplexua desagertuz doa; baina konplexu asko dago oraindik gure familien artean oraindik, egungo errealitateaz ez jabetzeagatik”, “Desde el Gallo de San Cernin: Escuelas profesionales”, DN 31-01-1962, 10 orr.; eta “egun lanarekiko, batez ere lan teknikoarekiko, begiramen soziala indarberritu den arren, oraindik mentalitate atzeratu baten eraginez mespretxuarekin begiratzen dutenak ere badaude”, “Industrialización y Formación Profesional (II)”, DN 05-05-1963, 16 orr.

paternalista zen nolabait [...] orduan Lanbide heziketa amaitu nuenean, nahiz eta ahalegin handiak egin behar ziren... [...] [aitak] esan zidan berak ikasketak ordainduko zizkidala unibertsitatean ikasten jarraitu nahi banuen. Baina ni langile auzo batean bizi nintzen eta nire lagunak lanean hasiak ziren jada, nik hemezortzi urterekin Lanbide Heziketa amaitu nuenerako; eta dirua zuten, gutxi, baina dirua bazuten, lanean ari zirelako... eta ni, txiroen auzo batean, ikasle txiro baten antzera bizi nintzen... eta ezetz esan nuen, nik lan egin nahi nuela. Orduan enpresa batean hasi nintzen lanean” [J.S.M. Ofiziala]

Ofizialtzan geratu zirenen kasua bezain orokortua ez izan arren, pauso bat haratago eman eta ikasketa profesionalak burutzen industria maisutza lortu arte jarraitu zuten iturriak topatzen ditugu ere. Maisutzak prestakuntza tekniko handiagoa ematen zuenez, kualifikazio puntu honek askotan, produkzioaren alorretik bulego teknikora igarotzeko bidea markatzen zuen. Maisutzarekin lortzen zen aipatu kualifikazio puntu hori, marrazkigileek zuten, adibidez:

Salestarretara joan nintzen, gaueko ordutegian, eta bost urtez izan nintzen han, bost urtez industria ikasketen amaierako azterketa egin arte, ezta? ingeniari-tza teknikoko ikasketetarako prestatzeko zen hori. Marrazkigile-proiektugile egin nintzen [...] ofizioa lortu nuen; eta orduan [...] jada marrazkigile-proiektugile nintzenean, garai hartan hori asko zen berez [...] ba esan nuen: Ingeniaritza teknikoko ikasketak egingo ditut... eta hor, Atarrabiako ingeniari eskolan hastekoa nintzen, ezta? [...] Baina paperak egitera joan nintzen eta bertan nintzela, esan nuen: baina zertarako ikasten jarraitu jada ofizio bat baldin badaukat? [R.U.. Maisu industrialia]

Lau urtetatik hamabost urtetara Iruñeako eskolapioetan ikasi nuen; eskolapioetatik atera eta salestarretara joan nintzen ikasketa profesionalak egitera, orduan horrela esaten zitzairen. Marrazkigile egin nintzen. Ondoren Sarion hasi nintzen baina ezin izan nituen ikasketak amaitu ikasketa plana aldatu zutelako... ikasturte batez Ingeniaritza teknikoko lehenengo mailan aritu nintzen eta beno, ba orduan hor geratu eta ikasketek amaitu ziren niretzat. [P.E.S. Maisu industrialia]

Prestakuntza teknikoaren ibilbide guztia bete izan zutenak unibertsitateko ikasketa burutzera -behintzat hastera- iritsi ziren. Kasu hauetan, maisutzatik ingeniari-tza teknikorako igarobidea ohikoa izan zen. Hasiera batean, Lanbide Heziketan formatutako langileak, euren lanbide prestakuntza goi mailako ikasketa teknikoekin osatzeko, estatuko leku desberdinetan sortzen ziren lan unibertsitateetara joaten ziren; gero, Iruñean, Sarioko ingeniariaren eskola martxan jarri zen:

Lanbide eskolara pasa nintzen [...] [eta] lanbide eskolan mekanikari ofizioa ikasi nuen, fresatzaile ofizioa [...] eta hamasei urterekin lanbide eskola hura martxan jarri zuen enpresan hasi nintzen lanean, Imenasan [...] [hala ere] ikasten jarraitu nuen, industria maisutza salestarretan [...] [hau da] nire kasa ikasten jarraitu nuen hainbat urtetan, industria maisutzara arte. Industria maisutzarekin lanean jarraitzen nuen... baina ingeniari-tza teknikoko ikasketak egin nituen [...] hori da nire teknikari bezalako oinarrizko formakuntza”. [C.A.. Ingeniaria]

Hamalau urterekin Lan Unibertsitatean ikasteko ikasle dirulaguntza bat lortu nuen, orduko ikasle laguntzarik osoenak ziren hauek. Bertan, ordura arte soilik lehen hezkuntzako ikasketak eginak nituenez, Lanbide Heziketa osoa egin nuen eta gero, Lan Unibertsitatean ikasle laguntza sistemaren baitan (mutualitateak), Ingeniaritza tekniko egin nuen, ezta? Orduan 60an Tarragonara joan nintzen ikastera, 60ko urrian Lanbide Heziketa ikasketekin eta 67ko urrian... ofizialtzako hiru urteak amaitu nituen, gero prestatze ikastaroa egin nuen eta [ondoren] ingeniari-tza teknikoko hiru urteak. [J.I.S.. Ingeniaria]

Industria ofizialtza ikasi nuen [...] Ofizialtza Virgen del Caminon egin nuen, industria maisutza salestarretan eta gero, hemen ingeniari-tza teknikoko ikasketak egin zituen lehen urtekoa izatera pasa nintzen. Orduan hemen ez zegoen ingeniari-tza teknikoko ikasketarik eta Sario martxan jarri zen, uste dut salestarren zuzendaritza pean egotekotan izan zela, baina azkenean Opus-ari eman zioten; hau da, Nafarroako Unibertsitatekoak ginen sarion ikasten genuenok. Eta

lehenbiziko urtea ginen. Ingeniaritzarako jauzia egiten dudanean[...] ba nik ordaintzen dut, gurasoek ezin dute ezta pezeta batekin ere lagundu, ezta? nire etxean ez zegoen, hau da, ez zegoen dirurik eta orduan lan egin behar dut, udan lan egiten nuen [...] hamabi, hamahiru edota hamalau orduz lan egiten nuen [egunero] udaran... behin adibidez, uste dut Sarioko lehenbiziko urtean nengoelarik, kromatzeak egiten zituzten toki batean lan egin nuela [...]; aste osoa lan egiten nuen eta asteburua iristen zenean, nik lanean jarraitzen nuen, putzuak eta guzti hori garbitzen, larunbatetan eta igandetan... larunbatetan eta igandetan lan egiten nuen astelehenean gainontzeko langileek -ni barne-, lanera sartzerakoan, dena prest izan zezaten lanarekin jarraitzeko. Ez zen erraza izan, ez zen erraza izan. Baina nik ikasteko gaitasuna nuen, hau da, ikasketak niretzat ez ziren inoiz zailak izan eta beno, etxean sakrifizio hori egin zuten. [A.L.. Ingeniaria]

“Lanbide Heziketa ikasi nuen [Potasaseko] eskolan [...] orduan Lan Unibertsitateetan ikasteko aukera bazegoen, esateko Huescan. Nik han egin nuen “prestatze ikastaroa” deiturikoa, orduan Lanbide Heziketatik Ingeniaritzara pasatzeko prestatze ikastaro bat egin behar zenuelako. Gero lehenengo maila egin nuen. Baina han [Huescan] lehenengo maila kimikatan egin nuen [...] eta hona etorri nintzen, Sariora [...] Nafarroako Unibertsitatearena zena. Hemen berriz ere lehenengo maila egin nuen, baina elektrizitatean; eta orduan, bigarren maila egin behar nuenean (matrikulatu eta guzti egin nintzen) utzi nuen, ikasketak utzi nituen... beste momenturen baterako” [M.A.R.S.. Ingeniaritza ikasketak hasi zituen]

Lanbide Heziketaz beste, hainbat iturrik batxilergoaren bidezko formakuntza ibilbideak azaltzen dituzte. Lan batxilergoa izan zen modalitate hobetsienetariko bat. Altsasuko lan institutuak eta Iruñeko enpresari talde batek sustatu zuen Opusaren zuzendaritza peko Irabia institutuak, modalitate honetan mutil gazteentzako formakuntza teknikoaren eskaintza bermatu zuten. Neskek ere lan batxilergoa ikasteko aukera izan zuten, baina euren ibilbideak, bereziki, administrazio jardueren alorretik bideratu ziren. Administrazio ikasketa hauek nabarmenki hazi ziren 60. hamarkada osoan zehar eta hauei esker, geroz eta emakume gazte gehiagok izan zuen formatzeko eta fabriketako bulegoetan lanean hasteko aukera:

Hamabost urterekin Txantreako Jesusen alabetara joan nintzen lan batxilergoko ikasturte bat egitera; orduan horrela deitzen zitzaion, baina berez idazmakinez idazten, takigrafia eta abar ikasten genuen... bulego lanarekin zerikusia zuen, ezta? Urte batez bertan egon nintzen eta gero, jada, lan merkatura sartu nintzen [...] Nik ikasten jarraitu nahi nuen, baina ez zegoen modurik, ez zegoen modurik, izan ere... beno, nik uste dut orduko mentalitateak ere eragin handia izango zuela, ezta? Alaba nintzen, hau da, emakumea, eta oinarrizko batxilergoa nuenez [...] eta orduan bulego batean lan egiteko aukera nuenez, hori *klase jauzi* bat bezala ulertzen zen, ezta? [...] jada andereño bat izango banintz bezala, ezta? fabriketan lan egin beharrean, bulegoan lan egin behar nuen eta orduan ba, [familiak] nirekiko zituen jomugak asetu izan balitu bezala zen [...] neska nintzenez, nirekiko zituzten jomugak beteak zirela estimatzen zuten. [M.L.C.. Lan batxilergoko eta goi mailako batxilergoko ikaslea]

Langileen seme-alabentzat, batxilergoa ikasteko aukerak, gaueko ordutegiari esker areagotu ziren. Lehen aipatu dugun bezala, askotan, ikasle laguntzak eta familien sakrifizioak ere ez ziren lehen hezkuntzaz haratago ikasten jarraitzeko nahikoak, gazteek familian laguntzeko dirusarrera bat bermatu behar zutelako. Kasu hauetan, gaueko ordutegian ematen ziren eskolak ziren batxilergoa ikasi ahal izateko modu bakarra, lan egitea eta klasera joatea bateragarri egiten baitzituen: *“Potasas-en hasi eta gero, ikasteko gogoa nuenez, Ximenez de Rada institutuan gaueko ordutegiko batxilergoa egin nuen; orduan oinarrizko batxilergoa egiten zen, goi batxilergoa eta orduan unibertsitate aurrekoa deitzen zena... nik unibertsitate aurrekora arte egin nuen; baina azkenean gero ez nintzen unibertsitatera joan”*<sup>249</sup>. Horregatik, langileen seme-alabek batxilergoko ikasketak egin ahal izateko baldintza aproposak (gaueko ordutegia, matrikulen kostu murriztua) eskaintzen zituztelako, garai hartan harresiaz besteko auzoetan abian jarri ziren zenbait irakaskuntza ekimen, kontutan hartzekoak

<sup>249</sup> M.L.C.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-24.

izan ziren<sup>250</sup>. Dena-den, zaila izan zen langile gazteentzat halako gaueko eskoletara ere joan ahal izatea, bi arrazoiengatik batez ere: ordu osagarriengatik eta lanaldiengatik. Gazte askorentzat, gaueko eskolen ordutegia -arratsaldeko zazpietatik gaueko hamarrak arte- posiblea zen, baina zaila izaten jarraitzen zuen. Izan ere, gaueko ordutegia izan arren, askotan lanaldiarekin bateraezina izaten jarraitzen zuen, bereziki ordu osagarriak egin behar ziren orduekin batera gertatzen zenean<sup>251</sup>.

Zenbait iturrik batxilergo osoa ikasi zuen, institutu publikoetan edota instituzio erlijiosoetan. Kasu auetan, unibertsitate aurreko batxilergoa deitzen zenak (“pre-u”), erdi mailako ikasketen amaiera markatzen du, iturrian ibilbideetan, ikaslea hemendik lan merkatura edota unibertsitatera eramaten duten bi ibilbide desberdin ikusten ahal ditugularik. Lehenengoan, goi batxilergoa, fabrika produkzio alorrekoa ez zen lanpostu bat, bulegoko lanpostu bat gehienetan, lortzeko aukera bezala ageri da: *“Orduan nire ofizioa... ni ez naiz ofizio bat duen pertsona, ni batxilergotik irtendako pertsona naiz berez [...] nik dudan formakuntza bakarra goi batxilergoa da [...] horrela, lanbide hezkuntza bezala... hori baino besterik ez dut, batxilergoa. Nik ikastetxe erlijioso batean ikasi nuen.[...] [ondoren zuzenean] fabrika sartu nintzen [...] [eta] bulegoan hasten naiz, batxilergoa nuelako. Langileen arduradunak [fabrika sartu eta berehala] esan zidan: zu, bulegora”*<sup>252</sup>. Bigarrenean, puntu eta jarrai bat baino ez da iturriaren hezibidean. Kasu hauetan, goi mailako ikasketak burutzen dira. Nabarmentzekoa da, adibidez, Iruñeko merkataritza eskolan ikasten jarraitzeko eta bertan kontulari aditu bilakatzeko egon zen aukera. Bide hau egin zutenek, gerora, fabrika bateko bulegoan lanean hastea erraza izan zuten:

Nik batxilergoa Plaza de la Cruz institutuan egin nuen, gero merkataritza eskolara joan nintzen eta, merkataritza eskolan nengoelarik, ba egun pentsaezina den gauza bat gertatu zitzaidan, udaran -bigarren mailan nengoela- eskutitz bat bidali zidaten etxera, enpresa batean lanean hasteko; joan nintzen, proba bat egin zidaten, lana lortu nuen eta urte ta erdiz metalaren sektoreko enpresa batean, bulegoan, aritu nintzen. [J.Z.. Kontulari aditua]

Ni Principe de Viana institutura joan nintzen [...] eta orduan ez nekienez ordutik aurrera zer egin nahi nuen edota zer ez nuen egin nahi... hamalau urte eta koskarekin Institutura joan eta ikasi beharra nuela nekien, amaiera azterketa egin eta ikasketak inongo irizpiderik eskuratu gabe amaitzen zirela [...] eta orduan nire gurasoek esan zuten: Zer egingo dugu orain neska honekin? Eta orduan merkataritza eskola zenean eman zuten nire izena, enpresa administrazioa zen nolabait [...] [horrekin azkenean] ba kontulari aditu bilakatzen zinen eta

<sup>250</sup> Esate baterako, 1964ean, San Pedro auzoan, langileentzat espresuki martxan jarri ziren Ximenez de Rada institutuaren eskumendeko gau eskolak, “Comienzan las clases nocturnas en el instituto de San Pedro. Existe una doble preocupación: cultural y socio-laboral”, DN 11-12-1964, 16 orr. Ildo berean, Nafarroako unibertsitatetik irten berriak ziren bost lizentziaturen ekimenez, Arrotxapean akademia bat sortu nahi izan zen, Iruñeako auzoetan agerikoa zen erdi mailako hezkuntzaren hutsuneak betetzeko helburuarekin. Gaueko ordutegian eta merke (muturreneko kasuetan doan ere izan zitekeen), oinarrizko eta goi batxilergoko eskolak eskaintzen ziren. Udal aurrezki kutxak eta Jose Antonio Lopez Cristóbal zinegotziak (“auzoetarako zinegotzi ordezkaria”) babesten zuten proiektua, “Una academia de bachiller para hijos de obreros en la Rochapea. 300 pesetas al mes, promoción cultural de barrio, cinco licenciados y dos asistentes sociales”, DN 27-09-1969, 24 orr.

<sup>251</sup> Beraz, langileen sema-alabek ikasteko zituzten oztopoak ez ziren soilik ekonomikoak. San Pedro auzoko gau eskolen kasuan bezala ikasketak kasik doakoak zirenean, matrikulatzeak eskasak ziren: “Solo cinco alumnos en el primer curso del bachillerato nocturno”, DN 22-10-66, 24 orr.; “El bachillerato nocturno apenas reúne en Pamplona veinte alumnos por curso. Dos inconvenientes: las horas extraordinarias y los turnos de trabajo”, DN 05-10-67, 20 orr. Arrazoiak batez ere lan ordutegikoak zirelako, ekimen hauetako sustatzailek, alde batetik enpresetara jo zuten ikasketetarako gaitasuna azaltzen zuten langileei klasera joatea erraztu ziezaieten; eta bestetik, Erakunde Sindikalari, ordezkari sindikalek gaueko batxilergoaren aukerak eta onurak langileen artea zabaltzeko eskatu zioten.

<sup>252</sup> J.M.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-06.

kontulari aditu izanda, orduan ba oso erraz hasten zinen lanean fabrika batean” [M.S.S.. Kontulari aditua]

Goi mailako ikasketak burutu zituztenen artean, unibertsitateera joan zirenen kasuak ere nabarmentzekoak dira. Lanbide Heziketatik Lan Unibertsitateetan edo Sarion ingeniari teknikoak egin zutenen kasuak aipatu ditugu jada. Hauei orain, batxilergotik Nafarroako unibertsitatean, beste probintzietako unibertsitateetan edota atzerriko unibertsitateen batean bestelako ikasketak burutu zituztenen kasuak gehitu behar dizkiegu. Gure iturrien artean, unibertsitate ikasketak burutu zituztenek kimikak, zuzenbidea eta nekazal ingeniari teknikoak ikasketak burutu zituzten. Beraz, Lanbide Heziketatik goi mailako ikasketak teknikoak egin zituztenen, merkataritza eskolan ikasi zutenen eta batxilergotik unibertsitate ikasketak burutu zituztenen kopurua kontutan hartuta, goi mailako ikasketak dituzten iturrien kopurua garrantzitsua dela esan dezakegu.

Iturrien formakuntzan aipatzekoa den bestelako aspektu, bat instituzio erlijiosoek heziketa bide bezala bete izan zuten papera da. 50 eta 60. hamarkadetan, Iruñeko seminarioko eta fraide eskola desberdinetarako umeen etorrera ugaria izan zen. Bereziki bi faktorek azaltzen dute urte haietan Nafarroan gertatu zen umeen bokazio kopuru handi hura. Alde batetik, nafar gizartean errotutako erlijiozaletasuna bera, ume askorengan “jainkoaren deia” garatzea ahalbidetzen baitzuen eta eskari horri eusteko beharrezkoa zen eskola, seminario hala nola irakasle azpiegitura bermatzen baitzuen<sup>253</sup>. Bestetik, euren semeei hezkuntza eman ahal izateko baliabide ekonomiko eskaseko familiek zuten ezintasuna, eskola erlijiosoak jatorri apaleko umeek hezibidea izateko aukera bakarrenetariko batean bihurtzen baitzuten. Iruñeko seminarioa honen adibide adierazgarria izan zen, gizarte klase eta sektore umilenetako familien semeei, beste modu batean eskuratu ezingo zituzten hezkuntza baliabideak lortzeko aukera eman zielako<sup>254</sup>:

Nire aita ba, landazaina, jabetzarik gabeko nekazaria zen... hau da, oso jatorri umilekoak ginen... gu baginen... jatorri ertain eta apalekoak ginen, hau da, pobreak. Eta beno, orduan ba [seminarioan] baziren bestelako gizarte mailakoak zirenak ere, bestelako klase sozial batekoak zirenak; baina gu, seminarioan ikasten genuen asko, ahalegin handiak eginda, seminaria eramaten gintuzten orduan unibertsitateerik ez zegoelako, ez zegoen deus ez... beno, orduan martxan jarri ziren Opusak zuzendutako Nafarroako Unibertsitateko ikasketak, baina zaila zen bertan ikastea diruarengatik [...] eta orduan ba gurasoek... askok [semeak] fraideetara edota seminaria bidaltzen zituzten, eta horrek ere ahalegin handia suposatzen zuen gurasoentzat... nekazariak ere [euren semeak] seminaria bidaltzen zituzten eta jatorri ertain-apalekoak ere. [M.P.. Seminarioko ikaslea. Karrera erlijiosoa burutu zuen]

“Nire bizitza aldatzen da hamahiru urterekin seminarioan hasi nintzenean. Hona [Iruñera] etorri nintzen ikastera... familia ugaria ginen eta hona etortzen naiz ikastera, orduan ikasteko aukera ematen zuenera, seminaria [...] orduan lau urtez egoten naiz bertan [...] beste anai batek ere fraide izateko ikasi egin zuen eta beno... familia pobrea ginen eta familia pobre batek ez zuen ikasteko aukerarik seminarioaren bidetik ez baldin bazen, familia apalenek seminarioan ikasteko ordaintzen ez zutelako” [V.D.. Seminarioko ikaslea]

Iturrien azterketak, langile antolakuntzaren nukleoetan egon ziren subjektu asko Iruñeko seminariotik pasa zela erakusten du. Alde batetik, seminarioko esperientzia zuzenean bizi izan zuten iturriak aurkitzen ditugu; bestetik, etorkizunean protagonista izango zirenetariko askok seminarioan elkar ezagutu zuela gogoratzen dutenak azaltzen dira ere. Seminarioko ikasle hauek, 60. hamarkadan, Vatikanoko IIaren jarraibideak gauzatzearren, bertan abiatu ziren eraberritzea eta liberalizazioa bizi izan

<sup>253</sup> Ikusi Javier Echeverria Zabalza, *La movilidad social...* Op. Cit., 369-370 orr.

<sup>254</sup> *Ibid.*, 368-369 orr.

zituzten, hezkuntza formal eta erlijioso bat jasotzeaz beste, egiazko piztutze sozial eta kultural bat bizitzeko aukera izan zutelarik. Haietariko askok gero karrera erlijiosoa utzi zuen, baina seminarioan jasotako heziketa honi esker, unibertsitatean ikasten jarraitzeko aukera izan zuen:

Ikasketekin zalantzak izan nituen apaiz bezala hasi nintzenean, hasieran soziologia ikasteko Parisera joatea pentsatu nuelako. Zalantzak izan nituen baina azkenean, apaiz langile izatearen alde egin nuen argi eta garbi, horrek asebetetzen ninduen gehien... baina seminariotik ere, ekonomistak eta holakoak irten ziren, Belgikara joan eta unibertsitate ikasketak egin zituztenak, denetatik egon zen [...] Seminariotik ateratako asko atzerrira joan zen ikastera... hein handi batean, orduan seminarioan aritu ziren irakasle berri [batzuek], Jesús Lezaunek, Equizak eta Javier Osések, seminarioaren nolabaiteko irekitzea bultzatu zutelako... seminarioak monasterio baten antza zuen eta hauek nola edo halako askatasuna eman zuten, esaterako, pisuetan bizitzera irtetzea, edota... orduan askok ba utzi zuten, [seminarioa] utzi zuten... ez ziren apaiztu eta unibertsitate ikasketak egiteko atzerrira joatea edota hemen bertan lanean hastea erabaki zuten. [M.P.. Seminarioko ikaslea. Karrera erlijiosoa burutu zuen]

Beno, ni seminarioan formatu nintzen, bederatzi urtez izan nintzen han. Gero, seminarioak ba... nolabait eztanda egin zuenean... ba beno, hezkuntza eredu hura desagertu eta Lovainako unibertsitateara joan nintzen eta han izan nintzen hiru urtez. [M.B.. Seminarioko ikaslea. Laborantza teknikari ikasketak hasi zituen]

Bi ekarpen garrantzitsu egin zizkion langileen kualifikazioak zirkuituaren sorrerari. Lehenbizikoak, gizarteratze soziopolitikorako esparruekin du zerikusirik, izan ere, lanbide eskolak eta seminarioa bezalako ikastegiak, elkar ezagutzeko, harremanak egiteko eta langile mugimenduan eta erakunde politikoetan jarraipena izango zuten sareak ehuntzeko erdigune garrantzitsuak izan ziren. Bigarrenak, iturriek berek zirkuituan jardun zuten subjektuen formakuntza mailari ematen dioten garrantziarekin du zerikusirik, haiek berek, prestakuntza laborala eta sindikal handiena duten subjektuei, zirkuitu horren baitan paper aktiboago bat aitortzen baitiete:

Hemen, Nafarroan, gauza bat gertatu zen: Imenasako eta Potasaseko lanbide eskolak klase kontzientzia sortzeko esparru garrantzitsuak izan ziren [...] ORTko buru asko Potasaseko eskolatik irten ziren, ezta? eta Comisioneseko hainbat, Imenasako eskolatik. Orduan, zer gertatzen zen? Noski, hauek kulturarik gabeko egoera orokor batean (landatik etorritako jende askok osatzen zuen industria kulturarik gabeko giro batean), nolabaiteko lanbide heziketa bazutela. Orduan hauek laster hasi ziren enpresetan lanean [eta] klase kontzientzia hori jendeak ulertzen zuen hizkuntza batean azaltzen zuten... [eta jendeak] ezagutzen zituen, talde bezala ezagutzen zituen. [J.I.S.. Ingeniaria]

Esan daiteke orduko buruak ginela... ba Lanbide Heziketan ikasitakoak; eta horrek, ez dakit, agian guk kultura apur bat gehiago izatea [egin zuen]... gehiegizkoa izan daiteke hau esatea, baina egia da orduan [Lanbide Heziketa] gazteon artean oso gauza arrunta zela, eta orduan atera ginen buru asko gazteak ginenez... [J.S.M. Ofiziala]

Lanbide Heziketatik irten ginenetariko askok, lanbide eskoletako lehenbiziko ikasturteetan ibili izan ginenetariko askok, garai berean jardun genuen eta momentu berean hasi ginen langile mugimenduan. Belaunaldi bereko jendea gara.[PA.S. Ofiziala]

### **2.1.3 Industria alorreko eta fabrikako langileak**

Hirugarren ezaugarri batek, gure iturriak industria eta fabrika langile bezala definitzen ditu. Fabrika izaera frankismoaren garaiko langile klaseari berez dagokion ezaugarri orokor bat da. Fabrikak berak klasearen sortze prozesuan izan zuen protagonismoak, izaera hau azaleratu egiten du nolabait<sup>255</sup>. Fabrikari langileak bilduko dira, elkar

<sup>255</sup> Xavier Domènechek adibidez, fabrika, langile identitatearen sorrera azaltzekoan aztertu beharreko ezinbesteko elementutzat jotzen du. Ikusi, besteak beste, Xavier Domènech, "La

ezagutuko dute eta elkarrekin, jarrera kolektibo berriak garatuko dituzte, subjektuak, egiatan, “fabrikako langile” bezala bereiziz. Fabrika handietako langileak ziren gainera, laneku kopuru handia kontzentratzen zuten fabrika berrietakoak. Langile mugimenduaren dinamikak berak baieztatzen du hala izan zela, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran gertatu ziren langile protesta eta borroka garrantzitsuenetan, metala bezalako alor industrial berrietako fabrika handiak izan baitziren protagonista nabarmenduenak.

“Fabrikako langile” bihurtzeko bidean, subjektu askok bizibide, bizimodu eta izaera eraldaketa garrantzitsuak bizi izan zituzten. Nekazal mundutik hirira lekualdatu zen emigrante askoren kasua izan zen, nekazaritzatik industriarako bizibide aldaketak berekin, aurreko bizimoduekiko nolabaiteko haustura ekartzen zuelako. Jatorri hiritarra zuten kasuan, eraldaketa ez zen horren agerikoa izan. Hirian jada industriari lotutako jardueretan aritzen zirenek ez zuten berez euren bizibidearen erabateko eraldaketa bat bizi izan eta nabaritu zituzten aldaketak, jarduera industrialaren izaeraren aldaketarekin izan zuten zerikusirik. Izan ere, tailer txikietatik fabrika handietarako igarobidea, lantoki aldaketa ez beste, ezagutzen zituzten lan egiteko moduen edota lan harremanen eredu aldaketa zen langileentzat.

### *Bizibidea: soldatapeko industria langileak*

Industrializazioaren garaian gertatu ziren bizibideen aldaketak, Javier Echeverriak, espainiar gizartearen mugikortasuna aztertzerakoan, aipatzen dituen erreproduzio eta birmoldatze sozialerako estrategiei lotuta azaltzen zaizkigu<sup>256</sup>. Lehenengoak, sektore sozial desberdinek, euren maila sozialari eustearren, abiatu zituzten estrategiak izan ziren. Bizibide aldaketa, kasu hauetan, industrializazioak sortzen zituen errealitate berriei egokitzeko prozesuan gertatzen zen. Gaitasun ekonomiko handiko nekazariak adibidez, euren lur sailak erabilera industrialerako saltzen zituzten, salmentako dirua, gerora alokatuko zituzten industria habetarteak eraikitzean inbertitzen zutelarik. Artisanuak, euren aldetik, ingurune hurbileko fabriketan soldatapeko eskulangile bihurtzen ziren edota industria zein zerbitzuen alorreko negozioak sortzen zituzten<sup>257</sup>.

Bizibide aldaketa argienak eragin zituztenak ordea, birmoldatze sozialerako estrategiak izan ziren. Lanekuaren birmoldatze sektorialean oinarritutako estrategiak ziren, nekazaritzaren arloko jardueretatik, industriaren eta zerbitzuen arloetako jardueretara igarotzerakoan gauzatu zirenak. Berez alor ekonomikoaren aldaketa bat baino ez ziren eta ondorioz, ez zuten eurekin inolako maila sozialaren aldaketarik ekartzen. Bereziki, nekazal munduko langileek abiatu zituzten, nekazaritzaren egoera txarrak sorrarazitako arazoak eta zailtasunak atzean uztearen, industriaren eta zerbitzuen alorrean lanpostu finkoa lortzeko asmoz gauzatu zituztenean. Horretarako, hirirako emigrazioaren bidea hartu zuten, bertan, kualifikaziorik eskatzen ez zuten sektoreak eta lanpostuak (eraikuntza da adibiderik adierazgarriena) helmuga izan zituztelarik<sup>258</sup>.

---

formación de la identidad obrera bajo el franquismo. Materiales para un aproximación”, *Desafectos: publicació d’historia crítica*, aldizkari digitala, 5. zkia, 2004.

<sup>256</sup> Javier Echeverria Zabalza, *La movilidad social...* Op. Cit. Ikusi seigarren kapitulua “Historia de las familias de un pueblo”, bigarren atala, “La industrialización: crisis de la sociedad agraria tradicional”, “Movilidad social y estrategias familiares e individuales en el periodo de industrialización” izeneko azpiatala, 259-268 orr.

<sup>257</sup> Nekazarien eta artisauen mugikortasun sozialeko ibilbideez gehiago ikusteko, Javier Echeverria Zabalza, *La movilidad social...* Op. Cit., 260 orr.

<sup>258</sup>*Ibid.*, 260-261 orr.

Iturriek, bizibideen aldaketa hauek azaleratzen dituzte, baina ez horrenbeste euren ibilbideetan, euren gurasoen esperientzietan baizik. Iturriek azaltzen dutena, hartara, alde batetik nekazaritzan jarduten zuten gurasoen bizibidea aldatu zela eta bestetik, seme-alabek (iturriek) euren gurasoen lanbidea izandakoarekin (nekazaritza) erabatean hautsi zutela da. Herritik familia osoarekin umetan edo gaztetan lekualdatzen ziren iturrien kasuan eta emigrante izandako gurasoak zituzten iruñarren kasuan, gurasoak ziren bizibide aldaketa zuzenean bizitzen zutenak; haiek, familiaren aurreko bizibideekiko haustura hori berresten zuten. Gaztetan eta bakarrik emigratzen zuten iturrien kasuan, gurasoak herrian geratzen zirenez eta bizibidea nekazaritzan izaten jarraitzen zutenez, haiek ziren zuzenean familiaren bizibidearekin hausten zutenak.

Iturrien azterketak, subjektuetariko asko jornalari, lurjabe txiki edota errentari ertain eta txikien seme-alabak zirela azaleratzen du. Gure iturrien familia nekazariak, lurjabetza eredu desberdin hauen ondorioz, nekazal bizibidearen aldaera desberdinak azaltzen dituzte: jabetzarik ez eta beste lurjabeentzako jornalari gisara lan egiten zuenarena; lurjabetza oso txiki bat izanda ere (baratze bat adibidez), apenas bizirauteko eman eta jornalari gisara enplegatzen zenarena; beste lurjabeentzako lan egin beharrik ez, baina bizitzeko lur gehiago errentan hartu eta landu behar zituzten eta horretarako gaitasun ekonomikorik ez zuten lurjabe ertain eta txikiak; eta etxeko ekonomiaren osagarri bezala lurjabetza txiki bat (batze bat adibidez) zuten errentari ertain eta txikiak. Lehenbiziko hiru aldaeren kasuan, emigratio mugimenduak eta bizibide aldaketak gertatu ziren. Orokorrean, familia osoaren mugimenduak izan ziren eta bizibide aldaketa, bereziki aitak bizi izan zuen hirian eraikuntza arloko peoi edota fabrikako kualifikatu gabeko peoi bihurtu zenean<sup>259</sup>.

Laugarren aldaeraren kasuan ere emigratio mugimenduak eta bizibide aldaketak gertatu ziren, baina iturria bera izan zen, oraingoan, hauen protagonista. Izan ere, landatik hirirako emigratio mugimendua berak gaztetan egin zuen, industrian lanean hasteko edota ikasketak burutzeko eta gurasoak, herrian eta lursailetan geratu ziren. Kasu hauetan ez zen gurasoen bizibidearen aldaketa gertatu, seme-alabek (iturriek) harekiko haustura zuzenean bizi behar izan zutelarik. Honen adibide adierazgarria, Iruñerriko familia nekazari batean jaiotako eta hazi zen iturri baten kasua da. Familiak Iruñea ondoko Huarte herrian errentan hartuak zituen lurak aitarekin lantzeaz beste, gure iturriak herriko fabrika batean lan egiten zuen noizean behin, etxeko ekonomian laguntzeko. Aitak jada errentan hartutako lur horiek landu ezin izan zituenean, semeak nekazaritzan jarraitzeari uko egitea, lurak uztea eta behin-betikoz fabrika lanpostu finko batekin lanean hastea erabaki zuen, aitaren bizibidearekin erabatean hautsiz:

Aitak oso laster makuluak behar izan zituen eta hamaika urterekin eskolatik irten eta lurra lantzen hasi nintzen. 50. hamarkadan traktoreak eta halakoak agertzen hasi zirenez, ba abeltzantza [nekazaritza]... lur gutxi zutenak eta abeltzantzara dedikatzen zirenak desagertuz joan ziren [...] Baina nire etxean nekazaritza amaitu zen, aita amaitu zenean. Bai. [...] eta nik

---

<sup>259</sup> Berez helmuga honetan amaitzen ez diren bi kasu interesgarri azaldu dira iturrietan. Lehenbizikoan, helmuga zerbitzuen arloa da, familiari Atarrabiako Zirkulu karlistaren tabernaren ardura ematen baitzaio -famiaren aurrekari politikoekin lotura estuan- bizibide bezala (hori bai, familiak bere ekonomia bestelako lanekin osatu beharko du, amaren lana kontserba fabrika batean, semearen lan ibilbide goiztiarra fabrika, tailer eta lanpostu ezberdinetan, e.a); bigarrean, lurjabetzarik ez edukitzeak, aitaren heriotzaren aurrean, familia bizibiderik gabe uzten du, ama lantxo desberdinei esker bizirauten (arropa garbitzen, e.a) geratzen den bitartean, seme-alabak ikastetxe erlijioso ezberdinetan banatuak izango direlarik euren bizitza egiten eta gure elkarrizketatuaren kasuan, Iruñeara etorriko den arte. P.M.-ri (Atarrabia, 2011-08-24) eta F.E.-ri (Iruñea, 2013-01-30) egindako elkarrizketak, hurrenez-hurren.



hemezortzi urtera arte, hoge... hoge urtera arte lan egin izan dut [bertan]. Baina gertatu zen hamalau urterekin, urrian -urteak irailean betetzen ditut- Minara sartu nintzela lanera, aitak Minara bidaltzen ninduen landan lanik ez zegoenean, neguan, edo lan gutxi zegoenean, ezta? eta gero berriz [landara] ateratzen nintzen. Baina behin, Errearen lursailean lanean ari nintzela, idiekin nenbilen eta idiak hola biratzerakoan, hanka atera zitzaion; orduan ez zegoen hori konpontzeko kirurgiarik [...] eta idia hiltegiara eraman behar izan genuen. [...] Orduan ba aitari esan nion: jada ez naiz Minatik gehiago aterako, Minan jarraituko dut. [J.M.M.. Harakintzaren sektoreko Mina fabrikako langilea]

Gurasoen bizibidearekiko aldaketa edo haustura ez da horren agerikoa iruñarrak diren iturrien kasuetan. Hirian, gurasoak fabrika eta tailerretako enplegatuak ziren. Iruñeako egitura industrialean garrantzitsuak izaten hasiak ziren Imenasa edo Onena bezalako fabriketan, kotxeak konpontzeko tailerretan, lantegi txikietan edota zerratokietan eta eraikuntzaren sektorean lan egiten zuten. Kasu hauetan beraz, ez dago berez gurasoen bizibidearekiko hausturarik; are gehiago, nolabaiteko jarraipena ematen da batzuen eta besteen bizibideen artean. Hauekin batera, ofizio bat zuten gurasoak, hau da, okinak, margolariak edota jostunak, aipatzekoak dira ere. Aurrekoak ez bezala, hauek industria langile izatetik baino, eskulangile edo langile autonomo izatetik gertuago zeuden, horregatik, industria errealtate berrietara egokitzearren, lanbidez aldatu behar izan zuten maiz. Fabrika batean lanean hasi zen okinaren edota jostintza tailer batean enplegatu zen jostunaren kasuak, aldaketa honen adibide esanguratsuak dira. Hauen seme-alabak, zuzenean hasi ziren industria eta fabrika berrietan, aitaren ofizioarekiko haustura nabaria izan zelarik. Baina ofizioko langileek bizi zuten halako bizibide aldaketa, ez zen soilik iruñarren artean gertatu eta nafar herrietatik hiriburura lekualdatu ziren emigranteen artean, hemen euren bizibidea aldatu zutenak ere izan ziren. 40. hamarkadaren bitartean Iruñeako Mochuelo auzoan kokatu zen nafar emigranteen artean, adibidez, hirian eraikuntzaren sektorean edota fabriketan lan egingo zuen hargin, zurgin, eskulangile eta halako profesional asko zegoen<sup>260</sup>.

Zerbitzuen sektoreko bizibideei dagokienean, gure iturrien gurasoek, komertzioetako jabe edo enplegatu, bankaren alorreko langile, administrazioko enplegatu, Nafar Diputazioko bulegari, atezain, liburuzain, maisu eta Guardia Zibil bezalako lanbideak izan zituzten. Kasu hauetan, gutxitan gertatzen da gurasoen lanbide aldaketa eta seme-alabak dira, industrian eta fabriketan lanean hasterakoan, aldaketa burutzen dutenak. Hala ere, aipatzekoa da seme-alaba hauetariko asko industria enpresetako bulegoetan, administrazioan, bulego teknikoetan edota bankaren sektorean ere lanean ikusiko ditugula.

Egin berri dugun iturrien gurasoen azalpen txiki honetatik ateratzen ahal dugun ondorio nagusia beraz, subjektuak industria eta fabrika handietako langileen seme-alabak ez direla izango da. Familia nekazarietatik datozenen kasuetan argi geratzen da, gurasoen bizibidearekiko haustura errotikoa baita. Nekazariak ez diren familietatik datozenen kasuan, gurasoak jarduera industrialetan eta zerbitzuetan enplegatuak diren arren, berez ez dira, gehienetan, fabrika handietako langileak. Izan ere, are jarduera industrialei lotuta agertzen direnak, tailer edo lantegi txikietako langileak eta ofizioa duten langileak dira. Hala ere, salbuespen garrantzitsuak badaude eta Iruñerrian jada fabrika handiak ezartzen hasiak zirenez, Imenasa bezalakoetan lan egiten zuten iturrien aitak ere ageri dira. Kasu hauetan, semea (iturria), aitaren bitartez hasten da fabriketan lanean, lan esparrua ez beste, lanbidean ere elkarrekin izango dutelarik. Gurasoak zerbitzuen sektoreko komertzio, banka eta administrazioko langileak direnean, nahiz eta soldatapeko langileak izan, argi dago ere izatez ez direla industria eta fabrika handietako langileak. Zentzu honetan, iturriak gurasoen

---

<sup>260</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: "Algunos datos del barrio del Mochuelo", 42 orr.

lanbideetatik eta lantokietatik desberdinak diren lanetan eta lantokietan arituko diren industria langileak direla esan daiteke.

Dena dela, gurasoen bizibide edo lanbideekiko ikusi dugun haustura gertatzeak, ez zuen, inolaz ere, gurasoen maila sozialarekiko erabateko haustura ere gertatu zenik esan nahi. 60. hamarkadan zehar eman ziren ekonomiaren, gizartearen eta bizimoduaren alorreko eraldaketen ondorioz, gurasoen belaunaldiaren bizitza maila nabarmenki hobetu zen,<sup>261</sup> baina seme-alabak (iturriak) langileak izan ziren heinean, gurasoen maila sozial berbera mantendu zuten gehienetan.

Gizarte sektore apaletan jatorria izatea, iturri askok, landan zein hirian, bizi izan zuen esperientzia komun bat izan zen. Nekazal munduko esperientzietan, familia osoen emigratio mugimenduak dira zailtasun ekonomikoaren eta pobrezia-aren adierazle nagusienak. Hirian, familien jatorri apala, etxeko ekonomiak osatzearen martxan jartzen ziren estrategia desberdinetan egiten da ikusgarri. Horrela, familia buruek egin beharreko ordu osagarriak eta hartu beharreko enplegu anitzak, seme-alaben ikastun edo “maca” bezalako enpleguak eta emakumeek burutzen zituzten hainbat jarduera, besteentzako garbiketa eta lisaketa egitea, igerilekuko ordainak kobratzea edota azokan salgune bat jartzea kasu, familia askok, biziraupenaren minimoetara iristeko bitarteko osagarriak behar zituela adierazten zuten. Egiatan, familia hauek bizimodua ateratzeko jarduera osagarri andana asmatu behar izaten zuten eta trapuketari bezala zabortegetara botatzen ziren materialen hondakinak edota beroketa sistematarako ikatz hondarrak biltzera eta saltzera iristen ziren ere<sup>262</sup>. Aipatu estrategia desberdin hauekin batera, Iruñeko familia apal ugarik etxeko ekonomia osatzeko erabili zuen beste bitarteko adierazgarri bat, baratzea izan zen. Arrotxapean, Magdalenan eta baita ere Mochuelo auzoan, non etxeek baratzeak, oilategiak eta untxitegiak zituzten<sup>263</sup>, oso

---

<sup>261</sup> Ikusi dugu mugikortasun sozialerako aukerak malgotu zirela eta hezkuntzak eta formakuntzak gizarte egituraren gora egiteko aukerak zabaldu zutela. Ikusi dugu ere gizartea bera eta familia egiturak, enpleguaren egoera eta lanpostuen ordainak, aldatu egin zirela. Zentzu honetan, familien bizimoduak, gabeziak eta beharrak ez ziren gurasoen familiakoen berdinak; baina horrek ez du esan nahi, ordea, aldaketa guzti hauekin familia haiekiko desklasamendu orokor bat gertatu zenik.

<sup>262</sup> Mochuelo auzoko historiari buruzko liburuan biltzen diren testigantza askok halako bizi baldintzak azalerraten dituzte: “trapuketari izatea bigarren lanbidetzat zuten familiak ere baziren. Zabortegean tailer mekanikoetako kamioiek botatzen zituzten hondakinak eta hondarrak jasotzen zituzten [...] eta gero Guindano trapuketariari saltzen zizkieten. Bertan ere instituzio publikoetako berokuntza sistematik bota izandako gaizki erretako ikatza bildu eta birziklatzen zen”; “Perutxikiren familiak Solchaga osasun etxean egiten zuen lan eta neguan eraikinaren berokuntza sistemaren eguneroko garbiketarik ateratzen zena etxera eramaten zuenez, etxetik gertu negozio txiki bat jarri ahal izan zuen, non gure sukalde ekonomikoetarako ikatza erosten genuen”. Biak, Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “Recuerdos de mi infancia y juventud en el barrio del Mochuelo”, 124 orr.

<sup>263</sup> Berriz ere, Mochuelo auzoko historiari buruzko liburuko testigantzek ematen digute bizimodu hauen berri: “herritik etortzen zen jendea baratzean lan egiten zuen. Nire aitak bi zituen, bat gure etxearen aurrean eta bestea Oberenaren futbol zelaitik oso gertu, non uda oro laguntzera behartzen gintuen [...], gure lagunak oso gertu futbolera jolasten ziren bitartean. Oilategi txikiak jartzen ziren ere. Guk dozena erdi oilo genuen, hainbat untxi, usoak eta txerriak ere hazten genituen. Zepoekin txolarreak harrapatzen zituztenak ere baziren [...] [eta] gerora saltzen zituzten [...] Laboreak eriteko lursailik ez genuenez, “galburuak biltzera” jotzen genuen. Uzta eramaten zuen gurdia joan ostean lurrean geratzen ziren galburuak jasotzean zetzan. Goiz jaiki beharra zegoen, goizeko bostetan altxatzen ginen, gainontzeko bizilagunak baino lehen Zolina, Taxoare, Mutilva, eta abarreko soroetara joateko, izan ere, soro batera iristen zen lehenengoaren txanda errespetatzen zen”, Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “Recuerdos de mi infancia y juventud en el barrio del Mochuelo”, 123 orr.

ohikoa izan zen. Iturriek, zentzu honetan, langile familia asko ezkutuzko ekonomiaren errealtate honetan murgilduta bizi zela berretsi egiten dute:

Gu [etxean lan egiten genuen, familiak etxean bertan lanak egiten zituen] Viscarretentzat, bai. Baina gu bezala, familia askok lan egiten zuen, ezta? kutxak eta halakoak egiten... sei pezetatan milakoa. Ezkutuko ekonomia ez da gaurkoa. [I.N.. Papergintza eta arte grafikoen sektoreko Onena fabrikako langilea]

Lau seme-alaba izaterakoan, amak bizimodua ateratzen zuen, bizilagunentzat garbiketa egiten edota halako beste moduren batean, ezta? noizean behin. Azkenean, momentu batean, merkatu berrian barazki salgune bat jartzera iritsi zen ere. [J.I.S.. Sarioko irakaslea]

Gurasoen bizibideari baino, iturrien beren bizibideei erreparatzen badiegu, aspektu honetan errotiko aldaketa bat bizi zutenak berez gutxi izan zirela ikusten dugu. Aldaketa nabarmenenak, espero izatekoa den bezala, landatik hirira etorri ziren emigranteek bizi zituzten. Emigrazio mugimenduak iturriak oraindik umea zelarik burutu ziren kasuetan, bizibide aldaketa gurasoek bizi zuten eta ez horrenbeste iturriek berek zuzenean. Izan ere, hauek jada euren lan bizitza osoa hirian gauzatzen zuten eta ondorioz, zuzenean industria eta fabrika langile bezala hasten zuten euren lan ibilbidea. Emigrazio mugimenduak iturriak gazteak zirelarik burutu zirenean, familia buruak ziren etorkinen kasuak eta ezkongabeak ziren etorkinen kasuak bereiztu behar ditugu. Etorkina familia buru heldua zenean, honek herriko lanbidea atzean uzten zuen eta hirian lanbide berri bat hartzen zuen, aurreko bizibidearekiko haustura agerikoa zelarik<sup>264</sup>. Etorkin gazte eta ezkongabeen kasua bestelakoa zen, ez baitzuten berez euren bizibidea aldatzen. Familiak lurrak jabetzan edo errentan zituenean, seme-alabek berauetan laguntza bezala lan egiten zuten edota inguruko lurretan, lana zegoenean, etxeko ekonomia osatzearren, lan puntualak burutzen zituzten. Beraz, aldaketa berez, ordura arte burutu izandako halako jardueretik aldaketa zen:

“Orduan, hamalau urte ta erdiak bete, fraideetatik ateratzen naiz eta landan ba izatez hasten naiz lanean, ezta? lehenbizi aitarekin, lantzen zuen lursail eskasian, lau erregu lur baino ez zituen alokairuan eta lan horrek ematen zuenerako nengoen ni. Orduan ez zen asko... baina jada hasiak ziren nire bila etortzen, ezta? Lursail gehiago zuen jendea [etortzen zen] Aizu, etorri niregana artoa hartzera, etorri niregana hau egiteko, etorri hona mandoarekin ibiltzera eta... orduan ba nekazaritzan horrela hasi nintzen. [R.M.. Metalaren sektoreko Bendibérica fabrikako langilea]

Gaztea nintzenean nik lan asko egin nuen landan, nire familiaren egoera [...] ez zelako ere... orduan batxilergoa ikasten ari nintzela, uda oro, nire aitarekin eta osabekin beharrezkoak ziren lursailak lantzen nituen: piperra, tomatea, zainzuria [...] Ikaslea nintzen eta uda iristen zenean etxean ikusten nuen egoera ez zela eskuzabal izateko modukoa, ezta? orduan kostu bat kentzeko nire dirutxoak ateratzen nituen nire biziotarako, festetarako eta halako gauzetarako. [J.M.E.. Metalaren sektoreko Super Ser fabrikako langilea]

Bizibidearen errotiko aldaketa baino, iturri askok lanbidearen alorrean bizi izan zuen aldaketa nagusia: lantokiaren eta lan egiteko moldeen aldaketa izan zen. Formakuntzaren ezaugarria aztertzerakoan azaldu dugun bezala, gazte askorentzat,

---

<sup>264</sup> Jada familia burua izateak, subjektuak familia aurrera ateratzeko bizibide egonkor bat behar zuela suposatzen zuelako. Bi kasu zehatz topatu ditugu gure iturrien artean: lehenbizikoa maisua zen herri batean eta bere lanbidea utzi behar izan zuen irabazten zuen diru eskasaren aurrean, hiriko fabrika batean familia horrenbesteko estutasunik gabe mantendu ahal izateko diru gehiago irabazten zelako; bigarrena okina zen eta patrioarekin lan gatazka bat izan ondoren kaleratuta izaterakoan, hirira joaten da fabrikaren batean lana bilatzera. Bi kasuotan argia da bizibidean ematen den aldaketa. J.M.V.-ri (Iruñea, 2011-12-22) eta E. A.-ri (Iruñea, 2010-03-11) egindako elkarrizketak hurrenez-hurren.

tailer edo fabrika txikietan “maca” edo ikastun gisara lanean hastea, fabrika handi batean sartu aurretik nolabaiteko prestakuntza eskuratzeko (“ofizioa ikasteko”) bidea izan zen. Ildo horretan, fabrikako langile bilakatu baino lehen, iturri askok halako lan esperientzia ezberdinak bizi izan zituen, baina hauek industriari lotutako jarduerak izan zirenez, fabrikako lanak gerora, ez zen errotiko bizibide aldaketa bezala bizia izan. Hala ere, iturri hauen kasuan, bestelako aldaketa garrantzitsu bat gertatu zen, lantokiarena. Izan ere, tailer txikietatik fabrika handietara eramango zen lantoki aldaketak, lan egiteko moldeak eta lan harremanak ulertzeko moduak erabatean eraldatu zituen ere<sup>265</sup>:

“[oso desberdina zen] disziplinan, ordutegi zurrunetan, lan egiteko moduan, egin beharreko... atera beharreko produkzioan. Konponketa tailerrean beno, nagusia han zegoen, baina...gu bezainbeste lan egiten zuen nagusiak” [J.E.C.. Metalaren sektoreko Torfinasa fabrikako langilea]

Kontutan izan behar dugu ere, beste iturri askok alde aurreko lan esperientziarik ez zuela eta zuzenean lan ibilbidea, industrializazioak berekin ekarri zituen fabrika berri handietan hasi zuela. Lanbide Heziketan aritu zirenen kasua izan zen, bereziki enpresa eskoletan ikasi zutenena. Hauek, enpresa eskolatik fabrikara salto egin zuten zuzenean, lan ibilbide osoa lantoki berean gauzatzeko aukera izan zutelarik eta ondorioz, lan esparruaren aldaketa bizi behar izan ez zutelarik. Honek, hasieratik industrian eta fabrikari arituko ziren langileak sortzeaz beste, gazte hauek langile ugari biltzen zituen zituzten fabrika handi haietan integratzea erraztu zuen. Azken batean, lanean hasi aurretik, langile gazteek fabrikari indarrean zeuden lan egiteko moduak edota lankideak eta euren harreman dinamikak ezagutzeko aukera zuten, ikasle aldiari esker:

azken ikasturtea ekainean amaitu ondoren, oporrak irailera arte eman zizkiguten eta irailaren lehenengoan hasi ginen fabrikari, kontratu iraunkor batekin lehenbiziko egunetik eta ofiziale mailarekin, noski. Orduetik aurrera jada ez nintzen lmenasatik atera erretiroa hartu izan nuen arte. [I.B.. Metalaren sektoreko lmenasa fabrikako langilea]

eskolak ikasi genuenoi [lan egiteko] deitzen gintuzten, bai; nolana lehenetsuna genuen, guk enpresak, eskola martxan jartzerakoan, bilatzen zuen helburua errealtate bihurtu behar genuen eta beno, bertara sartu ginen. [J.S.M. Industria kimikoaren sektoreko Potasaseko meategietako langilea]

Guk enpresa alde aurretik ezagutzen genuen jada, hau da, lan egingo genuen toki zehatza ez ezagutu arren, bertan lan egiten zuen jendea ezagutzen genuen; orduan gure integratzea [...] berehalakoa da [...] jada ezagutzen genuen zelakoa zen lan egingo genuen enpresa eta jada ezagutzen genituen gure lankideak izango zirenak [...] Berdin gertatzen zen bestelako enpresa eta eskola profesionalekin. Adibidez, lmenasako eskolatik ateratzen ziren langileak oso ongi ezagutzen zituzten lmenasa bera edota enpresa talde bereko besteak, Torfinasa kasu [P.A.S. Industria kimikoaren sektoreko Potasaseko fabrikako langilea]

Beraz, iturri askoren artean bizibideen errotiko aldaketak gertatu ez zirela esan daiteke orokorrean. Berez, gurasoak izan ziren esperientzia hura bizi izan zutenak. Aldakuntzarik nabariena, nekazal mundutik hirira emigratu zuten langileek bizi behar izan zuten, lekualdaketa geografikoak berekin lanbidearen (nekazaritza industriara) eta bizimoduaren eraldaketa ekarri zuelako. Iturrien gehiengoak ordea, ez zuten errotiko

---

<sup>265</sup> Honek zerikusirik izan zuen industriaren garapenaren motore izan ziren industria sektore berriek eta hauek berekin ekarri zituen produkzio prozesuen berrikuntzek. Lantokien izaera aldatu egin zen eta orain, esparru berean lan egiteko kopuru handiak biltzen zituzten eta agintzerro hierarkizatu argi bat eskatzen zuten prozesu mekanizatu, zurrun eta kontrolatuen arabera funtzionatzen zuten. Beraz, bizibidea aldatu behar izan gabe, hauek ere aldaketa garrantzitsu eta sakonak bizi izan zituzten.

aldaketa hori bizi izan. Gehienek, tailer txikietatik industria fabrika handietara igarotzerakoan gertatzen ziren lan giroaren eta lan esparruaren aldaketak bizi izan zituen. Askotan gainera, tailer txikietan bizitzen ziren alde zuzeneko lan esperientzia hauek, bizibide baino, prestakuntza edo ikasketak aldi bezala hartu ohi ziren. Hauei eskola profesionaletatik zuzenean fabrika handietara igarotzen ziren langile gazteak gehitu behar dizkiegu. Hauek, euren lan ibilbidea hasieratik fabrika handi batean garatu zuten heinean, ez zuten aldaketa esanguratsurik bizi euren langile izaeran.

### *Lantokia: fabrika handietako langileak*

Industria langilegoa izateaz beste, gure iturriek osatzen dutena, industriaren zenbait sektoretan kontzentratzen den langilegoa da. Iturrien gehiengoak, industrializazio prozesuak lehenetsi zituen industria sektoretan -metalaren sektorea, automobilgintzaren adarra, meatzaritzan- lan egiten zuten. Ildo horretan, jarduera hauek esparru berean lanekuari kontzentrazio handia behar izaten zuten zuten, fabrika handietan biltzen zen langilegoa zen era berean. Errepublikaren garaiko langile mugimenduaren eta borrokaren dinamikarekiko desberdintasunak argiak markatuz, frankismoaren garaiko langile klaseari orokorrean berezkoa zaion ezaugarria da hau. 30. hamarkadako langile borrokarik eta protestarik gogorrenak nekazaritzan eta eraikuntzaren sektorean gertatu ziren bitartean, 60 eta 70. hamarkadetan, gatazken protagonista nagusia, metalaren sektoreko langilegoa izan zen, frankismoaren bitartean, langile jarduera, desarrollismoan garatu ziren industria alor berriek bideratu zutelarik<sup>266</sup>. Sektore hauek berekin ekarri zituzten fabrika handiak, hartara, langilego berriaren jardunaren agertoki nagusienean bilakatu ziren.

Iturrien azterketak joera hau baieztatzen du. Gure iturrien gehiengoak metalaren sektoreko langilea da, bereziki automobilgintzaren alorrekoa<sup>267</sup>; hala ere, Potasas de Navarra enpresari esker (Nafarroako enpresarik handiena), meatzaritzaren langilegoak ere oso presentzia garrantzitsua du. Lan egiten zuten enpresei dagokienean, Iruñerriko fabrikarik handienak, langile mugimenduaren erreferente nagusienak izango zirenak, azaltzen zaizkigu: Potasas, Authi, Imenasa, Torfinasa edota Super Ser. Hauekin batera, hirian tradizio luzeak ziren hainbat sektoreetako enpresa ertain-handiak nabarmentzekoak dira ere, harakintzaren sektoreko Mina eta El Pamplonica, industria kimikoaren sektoreko Inquinasa eta Penibérica eta arte grafikoen sektoreko Onena bezalako fabrikak ere nabarmentzen ahal ditugularik. Azken hauek iturrien artean duten presentziak, metalaren fabrika handiak Iruñean ezarri aurretik Iruñean jada industria egitura bat bazegoela eta industria langile multzo garrantzitsu bat bazegoela adieraziko luke nolabait. Fabrika handietako langileen ugaritasunaren aurrean, gutxitan topatzen ditugu enpresa edo tailer txikietako langileak. Hauen kasuetan, lantokietan oso langile gutxi zirelako zaila izaten zuten mugitzea eta indarra egitea eta hein handi batean horregatik nekez parte hartzen zuten langile antolakuntzaren eta protestaren nukleoetan:

---

<sup>266</sup> Santos Juliá, "Los cambios estructurales de la sociedad en la etapa final de las dictaduras. El caso Español", Hipólito de la Torre (koord.), *Portugal y España en el cambio político: 1958-1978*, Centro Regional de Extremadura de la UNED, Mérida, 1989, 89-99 orr., 94 orr. Autore honen arabera, Errepublikaren garaian gatazka sozialen protagonista izan ziren sektoreetatik, soilik meatzaritzak mantendu zuen, orokorrean, gatazka maila garrantzitsu eta jarraitu bat; gainerantzean, frankismoaren garaiko lan gatazka berrien protagonista nagusienak, desarrollismoaren garaian garatu ziren industria sektore berrietako langileak izan ziren.

<sup>267</sup> Aurreko kapituluaren metalaren sektorea Nafarroan langile gehien enplegatzen zuten sektorea zela erakusten zuten pare bat datu ikusi ditugu: lehenbizikoa, 1978an 500 langile baino gehiago enplegatzen zuten 17 fabriketatik, 12 metalaren sektorekoak zirela; eta bigarrena, metalaren sektorekoa izan zela 60 eta 70 hamarkadetan lanekuari kopuru gehien enplegatzen zuten alor industrialia (metalezko transformadoreena).

Zoritxarrez, ez garai hartan eta ezta ere orain, Potasasen lan egitea edota “Talleres Manolon” lan egitea ez da berdin; “Talleres Manolon” lan egin duen langile gaixoa babesik gabe dago, [langileoi] babes gehien ematen diguna... kideak direlako [...] nik adibidez neskak laguntzeko deialdiak egin ditut, edo Artica kaleko tailerretako langileak laguntzeko... bertan langile gutxiko tailer asko zegoen, baina noski, ez ziren mugitzen... orduan askotan deialdiak egiten genituen hauek mugitzeko... beno, nolabaiteko laguntza ematen genien, pixka bat ba, eurak adoretzeko, [borrokan] bakarrik ez sentitzeko. [J.S.M. Industria kimikoaren sektoreko Potasaseko meategietako langilea]

Zentzu honetan, subjektuak fabrika handietako enplegatuak izango direnez, fabrika bera langileen jokabidek behatu eta aztertzeko lehentasunezko esparru izango dela ikusiko dugu aurrerago. Azken batean, fabrikaren baitan langileriak topo egingo du eta bere burua klase bezala ezagutuko du, harreman sareak sortuko ditu eta fabrikako errealitate berriei aurre egitearren, erantzunak abiatuko ditu, langile jardueraren eta protestaren erdigune izango delarik:

Hemen iraultza edo lantegietatik hasten da edo ez dago iraultzarik; erran nahi dut, iraultzaileak egon behar dugu sistema honen kontra, eta sistema honen kontra egiteko eta sistema hau bertze leku batetik bideratzeko, egin behar duzuna da kontrolatu, eta non kontrolatzen duzu? Ekoizten den lekutan; eta zuk ekoizpenak kontrolatzen badituzu eta hor... eh, zu zara azken finean gizarte honetan ardatza, langilea, zuk produzitzen duzu aberastasuna, zuk jartzen duzu gizartea martxan, zuk agintzen duzu eta zu aginte horren nagusi bazara eta podere hori erabiltzen baduzu aldaketarako, aldaketa egin dezakezu. Eta hori zen helburu nagusia, eh, eta orduan, fabriketara lanera [...] bueno lehen ni hasi nintzen ardoa banatzen, baina gero azkenean, baino klaro ardoa banatzea zen probisionala, zerengatik hemen behar zena zen fabriketara, jende aunitz zegoen fabriketara” [P.U. Harakintzaren sektoreko El Pamplonica fabrikako langilea]

#### *Lanpostua: lanpostu desberdinetan aritzen diren langileak*

Lanpostuei dagokienean, iturriek dibertsifikatze interesgarri bat azaleratzen dute. Fabriketan lan egiten zutenen artean, gehienak peoiak edo maila desberdinetako ofizialak dira. Baina hauekin batera, bulegoko langileen eta teknikarien presentzia interesgarri bat ikusten ahal da ere. Fabriketatik kanpo, neurri apalagoan bada ere, zuzenean industriaren sektoreari lotuta ez zeuden langileak salbuespen adierazgarriak dira: banka enplegatuak, Lanbide Heziketako irakasleak edota abokatuak, langileen antolakuntza eta protesta nukleoetan paper garrantzitsuak betetzen ikusi ditugu.

Iturrien artean, peoien eta ofizialen profilak nabarmentzen dira eta eraikuntzaren sektoreko peoiak, fabriketako produkzio kateetan lan egiten zuten peoiak, metalaren sektoreko fabriketan lan egiten zuten peoi espezialistak edota ofizialak, mekanikariak, soldatzaileak eta Potasaseko meatzariak nagusitzen dira erabatean. Meatzariak kenduta, profil guzti hauek fabriketako produkzio sailetan lan egiten zuten. Industria sektore tradizionalagoetan, oraindik eskulana eskatzen zuten jarduerak burutzen zirelako, peoiak oso ugariak ziren<sup>268</sup>. Makineria modernoa eta lanaren antolakuntzarako metodo berriak erabiltzen zituzten metalaren sektoreko enpresa berrietan ordea, peoi espezialistak eta maila desberdinetako ofizialak aurkitzen ditugu: fabrikaren eta makineriaren mantentze zerbitzuaz arduratzen ziren mekanikariak eta argiketariak edota metalezko piezak eta egiturak egiten zituzten soldatzaileak. Azken hauek bezalako lanpostu espezializatuagoetan aritzeko lanbide prestakuntza beharrezkoa zen arren, lan esperientziak eta praktikak, langileen

<sup>268</sup> Adierazgarria da, adibidez, arte grafikoetako Onena fabrikako produkzio saileko langile gehienak emakumeak zirela oraindik bertako lanpostuetarako eskulana baino eskatzen ez zelako: “Onenan emakume ugari zegoen poltsak egiterakoan eskulan asko egiten zelako, hauek paketatu beharra zegoen, fardelak egin behar ziren... hau da, teknologiaren erabilera ez zen areagotzen oraindik”. I.N.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

prestakuntza maila areagotzen zutenez, fabrikaren beraren baitan lanpostua aldatzeko aukera ematen zuten. Honela, fabrikaren baitan, lanpostu batetik beste batetara eramaten duten barne ibilbide desberdinak topatzen ahal ditugu<sup>269</sup>: alde batetik, peoi eta peoi espezialista kategorietatik, ofiziale kategoriara; bestetik, hirugarren mailako ofiziale kategoriatik, lehen mailako ofiziale kategoriara.

Fabriketan ere, nahiz eta kopuru txikiagoan izan, langile antolakuntza nukleo ezberdinetan parte hartzen zuten kimikariak, ingeniariak, marrazkigileak eta bulegoetako langileak ageri dira. Ildo horretan, iturriek, Authi, Potasas, Inquinasa, Penibérica edota Onena bezalako enpresa garrantzitsuetako langile komisioetan eta Sindikatu Bertikaleko ordezkaritza karguetan, teknikari eta administrariak esku hartze garrantzitsua izan zutela adierazten dute. Adibide adierazgarriak ematen dizkigute ere: Iruñeko HOACeko figura nabarmenduenetariko bat, kimikaria zen eta erakunde bereko lehendakari diozesiar izandako beste bat, El Pamplonica enpresako bulegoko langilea; ingeniaria eta teknikoak zen beste iturri bat, JOCEko lehendakari nazional izateko hautagai izateaz beste, Nafarroako USOko sortzaileetariko bat izan zen; eta Potasaseko bulegoetako langileek, euren langile komisio propioa sortu zuten. Tomás Caballero, Nafarroako Langile Kontseiluko lehen lehendakaria izan zena, “Fuerzas Eléctricas de Navarra” enpresako bulegoko langilea zen ere<sup>270</sup>.

Iturrietan fabrikako enplegatuek ez diren langileen presentzia adierazgarria da ere. Langile esparruetan eta dinamiketan parte hartzen, Lanbide Heziketako eta ingeniari tekniko irakasleak, bankaren alorreko enplegatuek<sup>271</sup> eta abokatuak aurkitzen ditugu. Javier Yaben, Nafarroako Langile Kontseiluko azken lehendakaria izan zena, multzo honetan sailkatzen ahal dugu ere, aseguruaren sektoreko langilea baitzen.

#### **2.1.4 Langileria gazte bat**

Iturrien azterketak azalera duen subjektuen azkeneko ezaugarri nagusia, gaztetasuna da. Iruñerriko langile klasea, gaztea zen, hiru zentzutan gainera: esperientzia sindikalari dagokionean, gizarte talde bezalako osaerari dagokionean eta hura osatzen zuten langileen adinari, dagokionean. Lehenekin eta behin, Nafarroan desarrollismo frankistaren garaira arte garrantzizko industriarik eta hiri langilegorik izan ez zela kontutan hartuta, nafar langileek alde aurreko garaiko esperientzia sindikalik ez zutela esan daiteke nolabait. Beraz, gaztea zen langile tradizio eta tradizio sindikalari dagokionean. Bigarrenik, desarrollismoaren garaian industrializazio prozesua abiatu zenean, hiri langilego hura prozesu oso bizkor batean sortu zen,

---

<sup>269</sup> Fabrikaren barnean, goranzko lan ibilbideak ohikoak izan ziren. Produkzio sailetan adibidez, posiblea zen, barne promozioaren bidetik, mantentze zerbitzuko arduradun izatera edota bulegoko langile izatera iristea. F.E. Inquinasako produkzio sailean hasi zen lanean eta bulegora, telefonista gisara, salto egiteko aukera izan zuen (F.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-30). Era berean, beheranzko ibilbideak ematen ahal ziren ere. Kasu hauetan, degradatzea militantzia sindikala zigortzeko modu bezala erabiltzen zen askotan. J.M.E.-ri gertatu zitzaion, Super Serreko bulegotik produkzio sailera bidali egin zuten langile mugimenduan nahastu zenean (J.M.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-06).

<sup>270</sup> Aurrerago ikusiko dugu zergatik kokatu ditugu Tomás Caballero eta Langile kontseilua langile antolakuntzaren nukleoetan.

<sup>271</sup> Bankaren sektoreko langile mugimendua egiazki aktiboa izan zen. Sektoreko langileek, euren komisio bat sortu zuten, berezko borroak abiatu zituzten eta langile erakundeetan hala nola Langile Kontseiluan militante nabarmenduak izan zituzten. J.Z.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013- 05-06. J.Z. bera bankaren sektoreko langile izan zen, aipatu sektoreko komisioko kidea, azken Langile Kontseiluko kidea eta legezatzearen ondoren, Nafarroako CCOOeko lehen idazkaritzako kidea.

gizarte talde bezala urte gutxiren buruan osatu zelarik. Beraz, gaztea zen gizarte talde bereizi bezala zuten denboran. Azkenik, gizarte talde hura osatzen zuten elementuak, eskola profesionaletatik atera berriak ziren edota gazte-gaztetatik lanean ziharduten langileak ziren bereziki. Beraz, gaztea zen langileak gazteak zirelako, hau da, gazte belaunaldi berri bateko kideak zirelako.

Iturrien jatorriaren inguruko azterketa egiterakoan jada, hauek aldi errepublikarreko langile tradizio ezkertiarrekin kasik loturarik ez zuten elementuak zirela azaltzen genuen. Nafarroan, industria eta hiri langileria klasiko baten faltan, protesta soziala landa munduan eta nekazaritzaren alorrean gertatu zen nagusiki XX. mendeko bigarren erdialdera arte. Industria eta hiri gatazkari lotuagoak agertzen ziren erakunde sindikal eta politiko proletarioek, hartara, ez zuten apenas bertako klase borroken memorian presentzia izateko aukerarik izan. Ildo horretan, erakundeon eta euren ideologiaren errotzea ahula izan zen eta honek berreskurazina izango zen hutsune bat eragin zuten, errepresio frankista bortitzak, gutxika antolatzen eta garatzen hasiak ziren nukleoak erabatean suntsitu eta desagerrarazi zituelako. Iturriek hutsune hau baieztatzen dute, hutsetik, esperientzia sindikalik gabe, klase tradizioz gabe, antolakuntzarako egiturarik gabe, gatazkarako memoriarik gabe eta aurreko militantzietatik loturarik gabe abiatu zen langileria berri eta gazte bat azaleratzen baitute<sup>272</sup>:

Nik uste dut erabatean hutsa zen mugimendua zela, hutsa inoren eraginpean sortu ez zelaren zentzuan. [I.B.. CCOOeko militantea]

Langile mugimendua Nafarroan [...] ez da existitzen 60 edo 70. hamarkadara arte, ezta? Nafarroa berez nekazaria zen, hau da, 50. hamarkadaren amaieran ia populazioaren %60a landan eta herrietan zegoen... ez zegoen izatezko langile mugimendurik, fabrikak oso txikiak ziren; hemen Errepublika garaian mugitu izan zena ez dakit langile mugimenduzat jo ote dezakegun, ezta? jornalarien, langileen mugimendua zen, baina... ez, ez zegoen hura osatzeko haina entitate industrialik, ezta? [...] hau da, nafar langile mugimenduak ez dauka tradizioz. [...] Nafarroan ez dago langile mugimenduaren tradizioz, beraz, langile mugimenduari lotutako erakunde tradizionalak ere, alderdi sozialista eta alderdi komunista esateko, ez ziren berez existitzen. [J.A.C.. CCOOeko militantea]

Errepublikaren garaiko mugimendu sindikal txikia suntsitu egin zuten; eta ez zegoen tradizioz [...] orduan "hutsetik" hasten ginen. [J.S.M. CCOOeko militantea]

Langileria hau gainera, oso azkar osatu zen gizarte talde berezitu bezala. Soilik bi belaunaldi behar izan zituen: 40. hamarkadaren bukaeran jaio eta 50. hamarkadaren amaieran zein 60. hamarkadaren hasieran lan merkatura sartu ziren langileena eta 50. hamarkadan jaio eta 60 hamarkadaren erdialdetik aurrera egin zuten langileena. Beraz, langileria berri hau gutxi gora behera hamabost urte eskasetan sortu zela esan daiteke, bere talde bezalako ibilbidea oraindik, 70. hamarkadaren erdialdean, motza zelarik. Langilegoa bera, talde bezala, gaztea zen.

Hura osatzen zuten langileak ere gazteak ziren: fabriketan, langile gazteak nagusitzen ziren eta langileen antolakuntza eta protesta nukleoetan, militante gazteak. Zentzu honetan, belaunaldi ordezte, agerikoa izan zen. Garai hartako erakunde sindikal eta politikoetako militante nabarmenduenen adinari begiratzen badiogu, ez dago zalantzarik, apostolutza mugimenduetako langile erakundeetako, Comisiones Obrerasetako edota ezker iraultzailearen talde politikoetako buru edo liderrak oso gazteak ziren:

---

<sup>272</sup> Emilio Majuelok esaten duen bezala: "Nafarroan, Langile mugimenduaren konfigurazioa 60. hamarkadaren bitartean, hutsetik abiatu zen, langile erakunde sozialistekin eta komunistekin harreman nabarmenik izan gabe". Emilio Majuelo, "Movimientos sociales y..." Op. Cit., 309 orr.



Askok osagai sozial hori bazuten eta prestakuntza handiko jendeek eta ekimen sozial handiko jendeek osatutako talde honek, ba, Nafarroan lider sindikal eta politiko oso interesgarriak sortzea eragin zuen. Oso interesgarriak bai. HOACeko gazteak ziren, JOCEkoak, eta baita ere Vanguardiasekoak... arraioa, garai hartan mugimendu indartsuak ziren, gazte mugimenduak; gazteak bai [...] gazteak, gehiengoak gazteak ziren. [P.O.. CCOOeko militantea]

[Gerra zibilaren aurretik] Nafar sindikalismoaren eta ezkerren tradizioa UGTan eta alderdi sozialistan dago batez ere, ez alderdi komunistan, orduan noski, sortuko den guztia berria izango da, eta gainera oso jende gaztearekin ... adibidez, ba, 1977ko kongresu hartan [1977ko urrian ospatutako Nafarroako CCOOen lehen kongresuan], ba [M.B.-k] hogeita bederatzi urte ditu eta idazkari nagusi hautatzen dute, ni hemen nago, kongresuaren mahaiaren buruan, eta hogeita sei urte ditut, ez ditut oraindik hogeita zazpiak bete... argazkian ateratzeko helduagoa zen inor topatzea zaila zen, oso gauza zaila zen, oso zaila... eta hori bestelako erakundeetan gertatzen zen ere. [J.Z.. CCOOeko militantea]

Belaunaldi ordezte hau, funtsezko faktorea izan zen frankismoaren pean langile mugimendua indarberritzeko. Izan ere, langile gazteek, diktaduraren markoan, ez zuten ez aurrekari politiko ezagunik eta ezta errepresioaren memoriarik ere. Langile belaunaldi berri hau, belaunaldi "garbi" bat zen, gazteek ez baitzuten euren aurrekari politikoaren berri ematen zuen poliziaren fitxarik. Honek mugitzeko aukera gehiago eman zien, lehenbiziko momentuan, aurreko belaunaldiko militanteak bezain kontrolatuta ez egoteagatik, errepresioaren eta jazarpenaren mehatxurik gabe lanean hasi ahal izan zirelako. Era berean, langile belaunaldi berriak ez zuen ere gerraren eta errepresioaren memoriarik eta honek gazteen militantzia bera asko erraztu zuen, militante zaharrenak geldiarazten zituen diktadura frankistaren bortizkeriarenganako beldurra, ez baitzen hauen langile jardura baldintzatzen edo mugatzen zuen elementua:

Aurreko belaunaldiarekin alderatuta, sindikalista zaharrekin alderatuta (ez gu baino lehen mugitzen hasi zirenak, haiek ere gazteak ziren)...zaharrenek, aurreko garai batekoek, geldiarazi egiten zituen beldurra zuten, gerra zibila ezagutu izan zutelako; eta hori haien zat atzerabide bat zen, behintzat gauzak pauso bat haratago eramaterako orduan, ezta? Baina guk ez genuen halako beldurrik ez genuelako bizi izan... beno, beldurra genuen, norberak beldurra zuen egun osoan panfletoak soinean eramaten zituelako, beldurra zuen emaztearengatik [...] Baina gure belaunaldiak, aurreko belaunaldiak sentitzen zuen beldur hori, paralizatzen zuena, ez zuen sentitzen. [J.S.M. CCOOeko militantea]

Militantzia berri hauek, hartara, langileen antolakuntza molde berriak sortzeko eta garatzeko gaitasuna izan zuten. Ildo horretan, gazteen lan mundurako eta militantziarako sarrerak, barneko langileen eta erbesteko erakundeen arteko haustura sakondu egin zuen nolabait eta lehenbizikoek, barneko errealitate berriei egokituta, egitura berriak sortu zituzten. Hau da, frankismoaren pean jaio eta hazi zen belaunaldi gaztearentzat, erbestean eta klandestinitatean zeuden erakundeen proposamenak ez ziren aski erakargarriak izan eta heredatutako borroka eta antolakuntza moldeak atzean utziz, langile erakunde berriak sortu zituzten. CCOO, militante berriek osatutako erakunde berriaren adibiderik adierazgarriena izan zen.

Fabriken baitan eman ziren militante zahar eta militante berrien arteko harremanen izaeran erreparatzea, belaunaldi ordezteak langile mugimenduaren indarberritzean izan zuen garrantzia agerian uzteko baliagarria izaten ahal da. Rubén Vega historialariak, adibidez, zentzu honetan, lantokietan gertatzen ziren militante berrien erakartzeak, militante zaharrek abiatu ohi ez zituztela eta militantzia sare hauek, adin beretsuko militanteek (gazteek) osatzen ohi zituztela, hau da, aipatu harremanak egitean eta garatzean ekimena, militante zaharrena baino, langile

gazteena izan ohi zela nabarmendu izan du<sup>273</sup>. Militante zaharren atzera jotze hau, hein handi batean, militante zaharregan beldurra biziagoa zelako (bereziki zuzenean errepresio eta kartzelaratze esperientziak bizi izan bazituzten) eta honek militante hauen jardura geldiarazten zuelako azaltzen da. Honen aurreran, langile gazteek iniziatiba hartu zuten, alde zuzeneko esperientziarik ez zuten arren eta “erabilgarri zuten tresneria ideologikoa” eurentzat, neurri handi batean, ulergaitza zen arren<sup>274</sup>.

Orokorrean belaunaldi berri bati buru ari bagara ere, haren baitan bi adin tarte desberdintzen ahal ditugu: lehenengo bat, belaunaldi ordezte honen aitzindariena; eta bigarren bat, 60. hamarkadan zehar mundu mailan berezko subjektu kolektibo bihurtzen ikusi dugun gazteria berriko kide zirena. Gure iturrien artean, argi eta garbi, bigarren adin tarteko langileak, hau da, 50. hamarkadan jaio eta 60. hamarkadaren erdialdean edota 70. hamarkadaren hasieran lan merkatura sartu zirenak, nagusi dira. Baina horrek ez du esan nahi lehenengo adin tarteko langileak topatzen ez ditugunik eta hauen presentzia, zirkuituaren sorreran eta zirkuituaren baitan, garrantzitsua izan ez zenik. Iturriek agerian utzi duten bezala, lehenbiziko adin tarte honetako langileek oso paper garrantzitsua izan zuten 60. hamarkadaren bitartean. Izan ere, fabriketan kokatzen eta langileriarentzat esparru berriak zabaltzen lehenbizikoak izan ziren. Gure iturrietan, lehenengo adin tarte honetako langile HOACari lotuta ageri dira bereziki, gerora euren bilakaera militantea dena dela, gehienak HOACEko kide izandakoak dira. Oso goiz ikusten ditugu zirkuituaren baitan parte hartzen, haiek izan baitziren, 60. hamarkadaren hasieran, fabriketan lehen antolakuntza nukleoak sortu zituztenak eta lehenbizikoz Sindikatu Bertikaleko ordezkariak karguak eskuratu zituztenak

Gazteen adin tarteko langileak, adinean ez beste, borroka dinamiken planteamenduetan eta estrategietan desberdinu ziren lehen tarteko langileengandik. Izan ere, 60. hamarkadako gazte balore eta mugimendu berrien eraginpean egoteagatik, langile gazteak, ikusmoldeetan, jarreretan eta ekimenetan lehenbiziko labealdiko militanteak baino erradikalagoak izateagatik nabarmendu ziren. Bi adin tartetako langileek esparruetan, sareetan, helburuetan eta borroketan bat egiten zuten, baina langileriak indarra hartu ahal, aipatu desberdintasunak areagotu egin ziren: lehenengo taldekoen pragmatismoari, bigarren taldekoen idealismoa kontrajartzen zitzaion eta lehenengo taldekoek lehenesten zituzten helburu hurbilen aurrean, bigarren taldekoek epe luzerako helburu politikoak xedatzen zituzten<sup>275</sup>. Guztiak izan ziren protagonista, baina zirkuituaren baitan, taldeen arteko hartu emana jarraitua izan zen:

Orduan [...] taldeak zeuden: lehenengoa militante zaharrena, 60. hamarkadan militante izaten hasi zirena, nik dakidala ia guztiak, bakar bat izan ezik, elizaren erakundeetan zuten jatorria, bereziki HOACen eta baita ere jesuiten Vanguardia Obreran... komunistaren bat bazegoen ere [...]; gero Potasaseko eskola profesionaletik zetorren jende talde bat zegoen, umeak guztiak, oso gazteak ziren, eta hauek ere [...] kezka sozialak aditzera eman zituzten jesuita batek zuzenduta [...] hitzaldietan egonak ziren... eta bestalde ere ezkerreko erakundeekin kontaktua egina zuten, ezta? Orduan talde honek aurrekoaren jatorri berbera zuen, ezberdintasuna

<sup>273</sup> Rubén Vega, “Entre la derrota y la renovación generacional. Continuidad y ruptura en la protesta social”, Abdón Mateos (ed.), *La España de los cincuenta*, Eneida, Madril, 2008, 171-200, 191 orr. Militante berriak zirkuiturako sarbide izatean, hau da, militantzia berriak sortzean militante zaharrek izan zuten protagonismo murrizta, landu ditugun ahozko iturrietan agerikoak da. Berarekin azaltzen denez, militante zaharrak ez ziren gure protagonista bat beraren sarbidea izan.

<sup>274</sup> *Ibid.*, 191 orr.

<sup>275</sup> Honek, ordea, ez du esan nahi lehenengoen helburu politikorik ez zutenik edota diktadurarekin amaitu nahi ez zutenik eta bigarrenen, fabrikako lankideen berehalako beharrei erantzuten ez zietenik.

adinean zegoen eta baita ere erradikaltasunean. Lehen taldekoak [...] pragmatikoagoak ziren, bigarren taldekoak... greba bat hasten bazuten amaieraraino eraman behar zuten [...] gainera helburu argi batekin: Francoren erregimenaren erorkoa, askatasun sindikalak, politikoak eta guzti hori- [J.L.D.M. Potasaseko langilea]

...gazteok HOACeko jendearekiko nolabaiteko kezka genuen, helduagoa zen eta moderatuegia, gure ustetan. Egia da gauza asko irakatsi zigutela, baina behin ikasi beharrekoa ikasita, guretzat, gazteontzat, motz geratzen zen. Orduan ba, ba beno, ni hori, Vanguardiasen [sartu nintzen], bertan gazteria zegoelako... mugitzen zen jendea, gazteria, hor zegoen, Vanguardiasen eta JOCen [JE.C.. CCOO militantea]

Bigarren taldeko langile gazteak, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera lan merkatura sartzen hasi zirenetik, euren presentzia fabriketan geroz eta nabariagoa egin zen, gazteek langile populazio osoan pisu handia hartu zutelarik<sup>276</sup>. Ildo horretan, gure iturriek ere, enpresetako langileak gaztetu zirela azaleratzen dute. Izan ere, gehiengoak, emigrante gazte ezkongabea, eskola profesionaletan Lanbide Heziketa ikasitako ofiziale gaztea edota ikastun izandako langile gaztea da. Beraz, orduko langileria gazteari berezkoak zaizkion lan ibilbideak nagusi diren heinean, iturriek, subjektuen gaztetasuna azpimarratzen dute nolabait.

Langileen gaztetasun hau, hainbat arrazoiengatik da kontutan hartzekoa. Iturriek agerian utzi dutenez, adinak, langile hauetariko asko, fabrikara sartu aurretik, gazteriari berezkoak zitzaizkion esparruetan eta harreman sareetan kokatu zituen. Jada hauetan kokatuta egoteak gerora, gehienei, fabriketako langile nukleo antolatuetarako sarrera erraztu zien. Aipatu esparru horietariko bat, lanbide eskola izan zen. Bertan, etorkizunean fabriketako langileak izango zirenak biltzen ziren eta horregatik, gerora lantokietan jarraipena izango zuten harremanak sortzeko elkargune bezala funtzionatzeaz beste, JOC eta VOJ bezalako apostolutza gazte mugimenduek militante berriak erakartzeko gune bezala funtzionatu zuten ere. JOC eta VOJ mugimendu hauek berak ere gazteen berezko gizarteratzerako esparruak ziren eta lantalde eta aisialdi jarduera ezberdinen bitartez, hauek kezka sozial zein politikoetan eta militantzia harremanetan sozializatzeko abiapuntu garrantzitsuak izan ziren. JOCek adibidez, ikastun taldeak sortzen zituen eta berauetan, langileen arazoengatik inguruan hausnartzeaz eta eztabaidatzeaz beste, fabrikaren baitan hauei aurre egiteko ekimenak planteatu eta bideratzen ziren<sup>277</sup>, gazte erakundeko militante izatea, fabrikaren baitan nukleo antolatuak sortzeko edota jada existitu egiten zirenetan parte hartzeko bide bat izan zirelarik.

Adinak ere, langileen jokamolde, protesta eta kultura moldeetan eragina izan zuen. Honek, aurreko kapituluan subjektu kolektibo bilakatzen ikusi dugun gazteria berriarekin eta honek garatu zituen berezko balore, ikusmolde, jarraibide eta mugimenduekin izan zuten zerikusirik. Izan ere, langileak, gazteak ziren heinean, 60 eta 70. hamarkaden bitartean nagusitu zen gazte kultura berriaren eraginpean egon

<sup>276</sup> Madrilen adibidez, 1970ean, hogeita hamar urtetik beherako langileen portzentajea %40,3koa zen. José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 77 orr. Gure ahozko iturriek ere fabriketako langilegoaren gaztetasuna nabarmentzen dute halako testigantzekin: "Nire lankideak, nik orduan helduago ikusten nituenak, ba hogeita hamar urte inguru izango zituzten... hau da... nik hamasei urte nituen baina gehiengoak hemezortzi eta hogeita hamar urteen artean zegoen. Oso gazteak ginen, bai [...] guztiak oso gazteak ginen. Noski, ni gazteenetarikoa nintzen, baina... orduan hasiak ziren denak ezkontzen, seme-alabak izaten eta hori... hemezortzi eta hogeita hamar urteen artean; hemezortzitik hogeita hamarrera, hogeita hamabostera gehienez jota. Guztiak oso gazteak ginen". M.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-09.

<sup>277</sup> I.N., oraindik ikastun zela hasi zen JOCen militatzen. Behin, bileretan lantzen ibili ziren "ikastunen eskubideen" liburua eraman zien bere lankideei halako gaiak fabriketan lantzeko. I.N.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

ziren modu batera edo bestera. Orduko gazteriaren bereizgarri izan zen erradikalismo politikoa, eragin honen adierazle nagusienetarikoa bat izan zen. Hau, mundu mailako ikasle mugimenduetan izan zen bereziki nabaria, baina langile militante gazteengan ere, agerikoa izan zen. Gazte kultura berriaren fenomeno bereziki ikasleei eta gizarteko goi eta erdi mailako gazteei lotuta ikusten bagenuen ere, hauen belaunaldiko kideak ziren langile gazteek ere, ezinbestean barneratu behar zituzten kultura berezitu hari berezkoak zitzaizkion hainbat elementu. Aipatu erradikalismo politikoa, hain zuzen ere, haietariko bat izan zen eta langile militante eta buru nabarmendu askok egin zuen hautabide politikoan egin zen ikusgai.

Gazteak populazio segmentu bezala kopuruan hazten ziren neurrian, hauek, euren burua, kolektibo desberdinu bateko kide bezala definitzen hasi ziren. Berezkoak zitzaizkien jokaera, ideia eta balore sorta berriak garatu zituzten, euren artean, gizarte talde berezi bat osatzen zutelako pertzepzioa zabaltzen joan zelarik. Honela, kezkak, grinak eta jomugak elkarrekin zituztenez, hauen arabera biltzen eta antolatzen hasten ziren. Ildo horretan, ikasle mugimenduak, garai hartan orokortu ziren gazte talde edo kolektiboak eta are langile militantzia bera, gazteek elkarrekin zituzten jakin-nahiak bideratzeko tresnak izan ziren nolabait:

Baduzu nolabaiteko gazte ezinegona [...] baina kezka berberak dituzten adin berekoekin harremanetan jartzen zarenean, ba aurrera egiten duzu eta talde moduko batekin elkartzen hasten zara. Era berean, fabriketan lanean ari direnekin kontaktuak egiten dituzunean [...] ba egin nahi duzunaren inguruan, zure jomugan inguruan eta hauek erdiesteko egin behar duzunaren inguruan ideia osatuago bat sortzen duzu. Modu honetan hasi ginen, hau da, ez da... ez dago kaptazio arraroei buruzko inolako istoriorik; [...] gure adinari eta gaztetasunari oso berezkoak zitzaizkion kezkak baino ez ziren. Ez ginen gerraosteko belaunaldikoak, gehienak 50. hamarkadaren hasieran jaiotakoak ginen [CCOOeko militantea]

Adina bera, mugitzeko gogoak pizteko eta elkargune horiek bilatzeko bultzatzaile garrantzitsua izaten zen askotan. Zentzu honetan, Eric Hobsbawmek gazteria, izatez, gogoberotasunaren, asalduraren eta nahasmenduaren eragile izan dela gogora ekartzen du; eta ez zaio arrazoirik falta, egun ere eztabaidatu ezinezkoa baita irrika iraultzaileak, hemezortzi urterekin, hogeita hamabost urterekin baino biziagoak direla<sup>278</sup>. Belaunaldi honetako goi eta ertain klaseetako gazte askok adibidez, bere gaztaroa aztoramen etapatzat bizi izan zuen, adinari berezkoak zitzaizkion berotasunak eta idealismoak, ikasle mugimenduetan edota ezker iraultzailearen erakundeetan militatzera eramaten zutelarik<sup>279</sup>. Langileen kasuan, gaztetasunari berezkoak zaizkion gogoberotasuna eta ezinegona, langile militantzia abiatzeko eta hau erradikalismo politikoaren bidetik eramateko pizgarria izan zen. Modu honetan, langileak, militanteak eta buruak hein handi batean oso gazteak zirenez, nafar langile mugimenduan beran ere, gaztetasun honi lotzen zaizkion borrokarako grina eta erradikalitasuna egin ziren ikusgai:

Pentsatu beharko genuke, adibidez, Nafarroako langile mugimenduaren borrokarako grina... haren motibazioak zeintzuk ziren, ezta? [...] gazteen mugimendu bat izateak, ez bairik gabe, esperientzia gehiago zuen jende helduagoko mugimendua izaterakoan izango ez zuen indarra eman zion... [helduagoak izan balira] hartutako erabakiak eta beregain hartzen zituzten arriskuak gehiagotan kontutan hartuko zituztelako. [J.Z.. CCOOeko militantea]

Gizon [batek] kristaudi ikastaro [batzuetara] eraman gintuen, Tuteran. Behin, Bilboko Bandas de [Echevarritik] kaleratutako apaiz langile bat etorri zitzaigun hitzaldi bat ematera, gero ezaguna

<sup>278</sup> Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit., 303, Hobsbawmek lan honetan XX. mendearen bigarren erdialdeko mendebaldeko gazteriaren oso erretratu ona egiten du. Haren erradikalismo politikoaren inguruan, ikusi 297-304 orr. eta haren berezko kulturaren inguruan, ikusi 325-331 orr.

<sup>279</sup> *Ibid.*, 303 orr.

egin zen Madrilen CCOOeko buru izateagatik [...] eraikuntzaren alorreko langilea zen eta sekulako mitina bota zigan han... hunkitzen duen horietarikoa. Orduan mutiko gazteak ginen eta idealismoa azalmintzaren azalean genuen... eta indar harekin hitz egin zuten pertsonak ezagutzean... Iruñeara itzuli eta Aizu, konpromisoak hartu behar ditugu, bai, gauzak aldatu behar ditugu, honek ezin du horrela jarraitu... [J.S.M. CCOOeko militantea]

Garai hartako gazteen asaldurak, gizartean euren tokia aurkitzeko izaten ari ziren zailtasunekin zuen zerikusirik baitik-bat. Gazteriak kolektibo bezala zituen jomugak asetzeko gizarteak aukerarik ematen ez ziela sentitzen zuten eta laster, euren nortasuna adierazi ezin zuten egitura sozial haiek zalantzan jartzen hasi eta gizarteko arauen kontra egiten hasi ziren. Honek, gurasoak eta seme-alabak aurrez-aurre jarri zituen belaunaldien arteko haustura sakona eragin zuen. Ikasle mugimenduaren kasuan oso agerikoa izan zen haustura hori, batez ere espainiar estatuan. Hemen, unibertsitateetan ibiltzen zen ikasleen gehiengoa, gerra zibilean garaile izandakoen seme-alabak, hots, polizien, militarren, alferezen eta bestelako gudulari ohien edota erregimenari leial izandako enpresarien edo burgesen ondorengoak zirenez, haustura hori, gurasoen ideia eta hautabide politikoekiko arbuioak agerian utzi zuen. Zentzu honetan, familiaren jatorri soziala “*seme-alabek barne hartu izandako su ezkertiar eta langile gogoetabiderako oztopo baino, pizgarri izan zela*”<sup>280</sup> esan dezakegu, hautabide hauekin, euren gurasoengandik erabatean desberdintzeko aukera baitzuten.

Baina espainiar ikasleen kasuan, frankismoa bera, zalantzarik gabe, ezinegonaren eta asalduraren eragile nagusienetarikoa bat izan zen. Espainiar unibertsitatearen egitura zaharkituak, ikasleek atzematen zuten isolamendu edota atzerapen kulturala eta oinarrizko askatasunen gabeziak campusetan sortzen zuen giro itogarria, erregimenaren aurkako agitazioa pizteko faktoreak izan ziren, oposizio mugimenduen sorrerarako eta garapenerako, ikasle mugimendua kasu<sup>281</sup>, girorik aproposena sortu zutelarik. Ildo horretan, unibertsitatea, mugimendu sozial, politiko eta kulturalen elkargune eta gazteriaren piztutze soziopolitikorako esparru nagusienean bilakatu zen. Alde batetik, demokratek, sozialdemokratek, ildo guztietako marxistek, komunistek eta anarkistek campusetan topo egiten zuten heinean, ideologia eta mugimendu politiko desberdinen bilgunea izan zen<sup>282</sup>, gazteriaren politiziaziorako eta erradikalizaziorako esparru nabarmenduena. Bestetik, jarduera eta ekimen kulturalak burutzen ahal ziren ia esparru bakarra izaterakoan, bertan sortzen ziren antzerki taldeek, zine-forumek edota poesia errezitaldiek, gizarteratze soziopolitikoan laguntzen zuten harreman sareak ehuntzeko esparruak izan ziren ere<sup>283</sup>. Ikasteko aukera zuten langile gazteen kasuan, unibertsitateek baino, lan-unibertsitateek bete zuten erdigune sozial, politiko eta kultural bezalako paper hau:

<sup>280</sup> Rubén Vega, “Entre la derrota...” Op. Cit., 190 orr.

<sup>281</sup> Frankismoaren garaiko espainiar ikasle mugimenduaz gehiago, Miguel Ángel Ruiz Carnicer: *El Sindicato Español Universitario (SEU) 1939-1965. La socialización política de la juventud universitaria en el franquismo*, Siglo XXI, Madril, 1996 eta “Estudiantes, cultura y violencia política en las universidades españolas (1925-1975)”, Javier Muñoz, José Luis Ledesma eta Javier Rodrigo (koord.), *Cultura y políticas de la violencia. España siglo XX*, Siete Mares, Madril, 2005, 251-278. orr. Baita Elena Hernandez Sandoica, Miguel Ángel Ruiz Carnicer eta Marc Baldó, *Estudiantes contra Franco (1939-1975). Oposición política y movilización juvenil*, La esfera de los libros, Madril, 2007.

<sup>282</sup> Ikusi Glicerio Sanchez Recio, “Inmovilismo político y...” Op. Cit., 31-31 orr. Esaten duenez, 1975an politikan interesa zuen populazioaren %15 eskasa, unibertsitatean kontzentratzen zen.

<sup>283</sup> Idoia Estornés, bere autobiografian, bera ikasle zenean Nafarroako Unibertsitatean borborrean zeuden giroetan nola sartzen hasi zen kontatzen du: “urtebetez neure kasa ibili eta [unibertsitatean] zegoen anaitasuna aztertu ondoren, hurbileko taldeetan sartzea zaila ez zelaz jabetu nintzen. Mundu osoan gertatzen zen bezala, Nafarroako unibertsitateak bi aukera nagusi eskaintzen zituen berarengana lotzeko: antzerkia eta literatura aldizkaria”. Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 175 orr.

Bertan, lan unibertsitatean [...] atseginez gogoratzen ditut orduan sortzen hasi ziren mugimendu kultural eta sozial guztiak, ezta? [...] elkarbizitzak giro eta pertsona ezberdinak ezagutzen laguntzen zuen eta hemen ezagutu ere egiten ez genituen kultura txikietan parte hartzeko aukera genuen... mota askotarikoak ziren, mota askotarikoak. Eta azkenean ba, bakoitzak bere esparruak aurkitzen zituen, harremanak, enpatiak eta lan egiteko edota norbere burua garatzeko moduak ere [...] noski, urte hauek oso garrantzitsuak izan ohi dira norbere nortasuna osatzerako eta bizitza aukerak hautatzerako orduan. [J.I.S.. Tarragonako Lan Unibertsitateko ikaslea]

Nafarroan, 60 eta 70. hamarkadetan, Opus Deiaren unibertsitatea baino ez zegoen erdigune paper hau betetzeko. Idoia Estornés unibertsitateko ikaslea izan zen 60. hamarkadan eta bere autobiografian, ikasle garaiki gogora ekartzen dituenean, bertan bizi zen giroaren, bertan biltzen ziren gazteen eta bertan sortu ziren mugimenduen deskribapen oso adierazgarriak egiten ditu. Ikasleriaren artean, gerra zibilean garaile izandakoen seme-alabek presentzia nabarmena zuten: “ministro, Opuseko kide edo bertikaleko [militante] sutsuen seme-alabak edo ilobak, Masoneria eta Komunismoaren errepresiorako auzitegiaren presidentearen seme bat ere. Baita dirudun eskuindarrak: Kanarietan ondasunak zituztenak, andaluziar landetxeetako jauntxoak, Lligako katalanak, Negurikoak, ginearren, filipinarren edota hispanoamerikarren oinordekoak”; baina nafar goi eta ertain klaseko gazteak gehiago ziren, klase ertain eta baxuetakoak ikusten hasten ziren eta Iruñeko klase apalenetako bekadun baten bat zegoen ere<sup>284</sup>. Ikasle hauen eta euren gurasoen arteko belaunaldi haustura, bereziki adierazgarria izan zen Nafarroako Unibertsitatean. Hemen, estatuko beste unibertsitate askotan gertatu bezala, “eskuin frankistaren seme alaba zenbait [diktaduraren kontra] gu baino sumin handiagoaz” altxatu izana, gazteri berriak bere egindako “familiarren eta haren gotorlekuen aurkako” matxinadaren adierazle bat izan zen ere<sup>285</sup>. Baina kasu honetan, haustura, gurasoen belaunaldiarekiko haustura izateaz beste, nafar iraganarekiko haustura zen nola edo hala; aurreko belaunaldiarekin hausteak berez, ordura arte nafar gizartean nagusi izandako mentalitate kontserbadorearekin ere haustea berekin ekartzen baitzuen.

Nafarroako campusak, unibertsitateek eta lan-unibertsitateek izan zuten gazteriaren elkargune bezalako papera bete izan zuen ere garai hartan. Nafarroako Unibertsitatean, Estornésen kontakizunaren ildoari jarraiki, ekimen kulturalak abiatu ziren, talde politikoak sortu ziren eta protestak gertatu ziren, berauetan jatorri desberdinetako gazteek bat egin zutelarik<sup>286</sup>. Ikasle mugimendua, hain zuzen ere, elkarganatze hauetatik sortu zen. 60. hamarkadako nafar ikasleen protestak, unibertsitate handietan (Madril, Bartzelona) eman zirenekin alderatzerakoan txiki geratzen badira ere, ezin uka unibertsitatea, Nafarroan, gazteriaren sozializazio eta jarduera politikorako esparru bat eta korrante ideologiko ezberdinak zabaltzeko gune bat izan zela:

Unibertsitatean ba kristorena izan zen, orduan murgildu nintzen erabatean marxismo-leninismo-Mao Tse Tung pentsamoldean [barre egiten du] eta gainera liburuei oso lotuta egin nuen, garai hartan gu... noski, ni alderdiko kide klandestinitatean egin nintzen, 70ean, Zuzenbideko hirugarren mailan nengoen, berez ikasteari utzi nion... urte hartan eta hurrengoan irakurtzeari

<sup>284</sup> Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 171-172 orr.

<sup>285</sup> *Ibid.*, 198-199 orr.

<sup>286</sup>“Nafarroan batzuen eta besteen arteko elkarrengatzea hamarkada hartan [60. hamarkadan] gertatu zen; ongi egin ziguten haserre zeuden mutil eta neska haiek eta eurekin batera, istilu ederra sortu ahal izan genuen [...] elkarrekin lan egiten genuen, *ismo*-ek ez gintuzten bereizten, ideia batetik bestera salto egiten genuen. Nahi bizi gehiago eta ezberdinak izateko askeak ginen. Nirea: euskal aberria ezagutzera ematearena, nolabaiteko galtzaile eta justiziazale zertzeladekin, *demokrata* adjektibo maitatuenaren osagai gisara hautematen nuelako”. Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 199 orr.

ekin nion erabat, esaten dizut, berez ikasteari utzi nion... han zegoen pisu batean biltzen ginen, orain desagertu da, baina orduan pisu hari "Tirana" esaten genion; bertan ikasle talde bat biltzen ginen. [P.L.. Nafarroako Unibertsitateko ikaslea]

Nafarroako Unibertsitateko ikasle mugimendua, 60. hamarkadaren bitartean garatu zen, bi ikasle labealdi ezberdinen eskutik. Lehenbizikoari, esparruak zabaltzea eta berauetan harremanak sortzea eta ideologiak errotzea egokitu zitzaion. Guztia sortzeke zegoen lehen momentu hartan, frankismoaren aurkako oposizioan kokatzen zen elementu orok bere tokia aurkitzen zuen mugimenduan, unibertsitatean sortzen ari ziren gune haietan, ideiak eta doktrinak nahasten zirelarik. 60. hamarkadaren lehen erdialdeko Nafarroako Unibertsitateko ikasleak, modu gogotsu baino zehaztugabe batean hasi ziren bizitza politikoan eta ikasle mugimenduaren jarduera, mobilizazioak eta erradikalismo politikoak, ez ziren berez hamarkadaren amaierara arte orokortu. 68ko maiatzarekin, aipatu bigarren ikasle labealdia<sup>287</sup> nabarmenki politizatu egin zen 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran. Orduan ikasleek, ezkerreko erakunde politikoak eta ideologia ezkerreko aldeko hautua egin zuten, militantzia geroz eta konprometituago batetara eramango zituzten ibilbideak abiatuz:

68an, ni Zuzenbidea ikasten hasi nintzen urtean, ba urte hartan jada parte hartu genuen... iskanbila egon zen Nafarroako Unibertsitatean, nik uste dut han berezko ikasle mugimendua egon izan den urte bakarra izan dela, 68a, gu bertan izan ginen lehenbiziko urtea. Nik istilu guztietan parte hartu nuen, hainbat egon ziren, ezta? gogoratzen dut unibertsitateko eraikin nagusitik Merindades plazaraino joan zen manifestazio bat egon zela; poliziek Merindadesen eragotzi ziguten bidea eta makilakadaz josi gintuzten, makilakadaz, hor, manifestazioaren amaieran bidea eragotzi ziguten... atxilotutako [ikasle] batzuen askatasuna eskatzen genuen. [P.L.. Nafarroako Unibertsitateko ikaslea]

Sekulako Ikasle liderrak zeuden orduan, oso ongi formatutako jendea zen, ezta? oso ongi formatutako jendea. Horietariko bat E. zen, J. E. [...] J. berezia zen [...] mutil hau ETA-aurreko munduan zegoen, ETA-aurreko esango dugu orduan ez zegoelako ETArrik, baina ETA-aurrekoa bai, ildo horretakoa zen. Gero beste hiru ikasle zeuden, elkarrekin bizi zirenak, bikainak hirurak, filosofia ikasten zuten: haietariko bat A. R. zen, beste bat C. H. eta bestea M. V., hirurak troskistak ziren, bikainak... eta urte hartan, 68an, ba asanbladetara joan eta mugiarazten zintuzten tipok ziren, ezta? oso onak ziren. [P.L.. Nafarroako Unibertsitateko ikaslea]

Ikasle mugimenduan agerikoa izan zen erradikalismo politikoak, aurreko kapituluan azaldu dugun gazte kultura bereizgarriaren adierazpenetariko bat izan zen, kultura horrek politikaren alorrean hartzen zuen formaren adierazpena, hain zuzen. Izan ere, gazte kulturak, orokorrean, arau sozialak arbuaitzen zituen moduan, erradikalismo politikoak, zehazki, indarrean zegoen ordena politikoak eta honetan nagusi ziren egitura politikoak arbuaitzen zituen. Baina alor politikoan ez beste, gazte kulturak, bestelako alorretan ere izan zituen adierazpen esanguratsuak. Esate baterako, "beat generationa" bezalako mugimendu kulturaletan, mugimendu kontra-kulturaletan, komunitate eredu alternatiboetan, sexu ohituren askapen ahaleginetan, familia eredu berrietan edota estetikan, gazte kultura haren adierazpenak ikusten ahal ditugu. Finean, gazteek, arauak apurtzea eta jarraibide berriak aztertzea zuten filosofia bezala eta filosofia hori edozein alorretan praktikan jartzen ahal zen, politikan, kulturean, bizimoduetan eta are musikan, janzkeran eta hizkeran ere.

Ildo horretan, ile luzea, galtza bakeroak edota minigona, belaunaldien arteko desberdintasunak aldarrikatu nahi zituen gazte errebeldiaren ikur izan ziren. Musika,

---

<sup>287</sup> "Xabier Escalada nafarra -gure ingurunean hasi zen euskal abertzale bat- buru zuen hurrengo labealdia izan zen gerora asaldura bideratu zuena. Haren helburua: ez bakarrik erregimena, Nafarroan zegoen Espainiako unibertsitate katolikoa ere "izorratzea" zen. [Escalada] Ikasle ona izan zen bertan, baina ezin zituen ez urdinak ta ezta ere Opus Deikoak jasan, gogaikarria zen haiekin". Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 214 orr.

idea, balore eta jokaera berriak goratzeko tresna bilakatu zen eta musikariak, gazteek jarraibidetzat hartzen zituzten "heroi" berriak: *The Beatles*, *The Rolling Stones*, Jim Morrison, Janis Joplin, Jimmy Hendrix... Rock and rolla adibidez, gazteriaren pentsamenduen, sentimenduen eta jomugen ahotsa izan zen nolabait, bereziki askapenari, arauen kontra egiteari eta ordena burgesarekiko hausturari abesten baitzion. Mugimendu kontra-kulturalak, esperientzia berriak bizitzeko esparru bihurtu ziren eta gazteak, hippi, situazionista, sikodeliko edota maitasun askearen aldeko egiten hasi ziren. Elementu guzti hauek erro bat izan zuten elkarrekin: gazte kultura berria. Guztiek gizarte harremanen egitura zaharra arbuiatzen zuten, boterearen loturekiko eta lege eta arau sozialekiko haustura aldarrikatzen zuten eta askatasun pertsonala eta askatasun soziala uztartzea jomuga zuten. Arbuio honen atzean ordea, ez zen gizarte antolamendu eredu jakin baten aldarria ez eta proiektu soziopolitiko jakin baten defentsa egon. Esaterako anarkismoak, gizarte libertarioaren sorrera ekintza espontaneoaren bitartez gauzatuko zela esaten zuen ideologia antiautoritaria, gazte kultura berriaren aipatu elementuekin neurri handi batean bat egiten zuen arren, ez zuen gazteriarengan interesa pizterik izan<sup>288</sup>.

Ez zuen interes berriturik piztu ezta gazte sektore politizatu eta ideologizatuengan ere. Hauen artean, ikasle errebeldeen artean adibidez, marxismoak izan zuen oihartzun gehien. Are gehiago, marxismoa, urte haietako aktibismo eta erradikalismo politikoaren erreferente nagusia zen. Berrirakurritu eta berriztatuta, alderdi komunista tradizionalen praxitik urrun, proiektu sozialista eta iraultzailea gauzatzeko bestelako bideak hartu nahi zituzten mugimendu politiko ezkertiar [marxista-leninista] berrietan eragina izan zuen bereziki. Hauek, nazioarteko komunismoak bizi zuen Txinaren eta Sobietar Batasunaren arteko hausturaren markoan, Asiara begira jarri ziren, Maorengan erreferente iraultzaile berri bat aurkitu zutelarik. Txinarekin eta Maorekin batera, hirugarren mundua, anti-inperialismoa eta askapen nazionalerako prozesuak, Kuba, Aljeria eta Vietnamen ereduetan gauzatu, mendebaldeko ezkerak bere egin zituen bestelako erreferente iraultzaileak izan ziren. Mao bera, Fidel Castro eta Che Guevara, Vietcong gerrilla edota Aljeriako Frente de Liberación Nacionalaren borroka, hartara, aipatu gazteriaren sektore politizatu eta ideologizatueneren eredu bihurtu ziren. 60. hamarkadaren erdialdean eta 70. hamarkadaren hasieran espainiar estatuan sortu ziren erakunde eta talde politiko ugari, mendebaldeko European sortzen ari ziren fenomeno ezkertiar hauen parte dira. Hemen, ezker iraultzailearen mugimendu hauek, ikasle eta langile mugimenduetan presentzia nabarmena izan zuten, frankismoaren amaieran diktaduraren aurkako oposizioan parte hartzeko eta trantsizioan, hausturaren alde, joko politikoan eta kalean parte hartzeko aukera izan zutelarik<sup>289</sup>.

Iturriek azaleratzen dutenez, Iruñerriko langile gazteen artean, erradikalismo politikoak indar handia zuen. Izan ere, alde zuriaren tradizio sindikalik eta leialtasun politikorik gabe, ezker iraultzailearen aktibismo honek, erabatean erakarri zituen langile gazteak. Euren belaunaldiari berezkoa zitzaion aipatu gazte kulturaren murgilduta bizi ziren nolabait, baina hura, mugimendu kontra-kulturaletan baino, alor politikoan adierazten zuten<sup>290</sup>. Ildo horretan, iruñar langile gazteek, 68ko maiatzaren ostean

<sup>288</sup> Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit., 335 orr.

<sup>289</sup> Nahiz eta diktaduraren ostean, desagertuz joango ziren. Alderdi hauen sorrera, izaera, bilakaera eta desagertpenari buruz, Consuelo Laiz, *La lucha final: los partidos de la izquierda radical durante la transición española*, Los libros de la catarata, Madril, 1995 eta Jose Manuel Roca (ed.), *El proyecto radical: auge y declive de la izquierda revolucionaria en España (1964-1992)*, Los libros de la catarata, Madril, 1994. Aurrerago aztertuko dugu talde politiko hauek Iruñerriko langile klasearen baitan izan zuten presentzia eta eragina.

<sup>290</sup> Adierazgarria da politikak, ikusi ditugun gazte kulturaren gainontzeko elementuen gainetik, langileria gaztearen egunerokotasunean hartu izan zuen tokia: "Fenomeno adierazgarria da ere... nik, adinarengatik Beatlesen jarraitzailea izan behar nintzen, ilea luzea eta kanpai-



indarra hartu zuten ideologia eta kultura politikoak izan zituzten hizpide eta haietariko asko, ezker iraultzailearen erakunde politiko marxista, marxista-leninista, komunista, maoista edota troskista eta iraultzaileetan antolatzen hasi zen. Langile gazte hauen bitartez, talde politiko hauek, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, eragin nabarmena lortu zuten nafar langile mugimenduaren baitan, bereziki Nafarroako CCOOen. Iturrien hautabide politikoei begiratzen badiegu, gehiengoak erradikalismo politikoaren bidetik jo zuela ikusten dugu. Adinak horrekin zerikusirik izan zuen, gehiengo hori gazteria berriaren belaunaldiko kide zelako. Baina nafar langile mugimendu antolatuaren agerpen berantiarrak (CCOOen koordinakundea 1967-1968 bitartean sortzen da) ere lagundu zuen, haren heltze politikoa, ezker iraultzailearen taldeen unerik gorenarekin batera gertatu baitzen. Azken batean, alde aurreko esperientzia sindikalik gabe eta alde aurreko erreferente politikorik gabe, heltze prozesu honetan, langileei errazagoa egin zitzaizen aukera berrietara, Txinako iraultzatik eta 68ko maiatzetik eratorritako ideologia berrietara, gerturatzea. Iturrietan, adinaren eta ideologia berri hauen arteko elkar eragina, oso agerikoa da:

Langile mugimenduaren ideiak Nafarroan, ideologia berriekiko oso irekiak dira, horregatik hemen ere nolabaiteko desbideratzea dago... beno, ba 68ko maiatza deitu izan zeneko ideologiaren *boom* guzti horretara, ezta? eragin handia izan zuten Nafarroan. [JA.C.. CCOOeko militantea]

Apostolutza mugimendu hauen gazte adarretan [...] kezka haiek landuz joan ginen, gure artean bilerak eginez eta arazo sozialen inguruan arituz, urte haietan bizi genuen oinarrizko askatasunen faltaz...pixka bat helduagoak ginenean Frantziako 68ko iraultzari buruzko istorioak entzuten genituen eta oso garrantzitsuak ziren ere orduko Vietnameko gerraren aurkako mugimenduak... hau da, gauza guzti horiek hemen zentsuratuta zeuden arren... [PA.S. CCOOeko militantea]

Gu 68ko maiatzaren eraginpeko belaunaldikoak ginen nolabait, berrikuntza ideiak hunkitutakoa. SESB intelektualen begien aurrean gainbeheran zegoen, sistema hark zituen akatsak azaleratzen ari ziren, ba Stalin eta hori guztiarengatik, eta Europako intelektualak fenomeno hari bizkarra ematen ari ziren, ezta? orduan [guretzat] hurrengo pausoa, gauzak modu ezberdinean egiten zituztenengan sinestea zen... eta nor zer pertsona hori? ba Mao Tse Tung, orduan halako gauzak esaten zituelako: burokraziaren aurka borrokatu behar zela, jendea landara lan egitera bidali behar zela [...] teoria batzuk oraindik pixka bat... [J.S.M. CCOOeko militantea, ORTko militantea]

Egia esan momentu hartan mundua aztoratzen hasten da, ezta? 68ari buruz ari naiz,.. orduan 68ko maiatza gertatzen da, nik ez dut esango horren inguruan ezer nekienik edota ezertan parte hartu izan nuenik, ez baita egia... nahikoa nuen hemengo arazoekin eta ez dut orduan 68ko maiatzari buruzko inolako berririk, nahiz eta horrek jarrera sozial berrietan eragin handia izan zuen [...] 68ko maiatza... jendeak orain lagunarteko berriketaldietan “Joder, llega el mayo del 68, y hay que celebrar, mayo del 68...” entzuten dudanean, badirudi mundu guztia bertan izan zela eta beno, ez dakit... ni, egia esan, ez nintzen enteratu ere egin 68ko maiatzaz, ezta ere prentsatzan bitartez, esan nahi dut... [...] baten batek guzti hori biziko zuen... baina niri ez zitzaidan ezaguna egiten. Egia da gerora askatasun nahi haiek eragin handia izan zutela eta haien bitartez guzti hori helarazi egin zela, ezta? asalduzko momentua zen, baina nik ez nuen 68ko maiatzarekin lotzen, frankismoarekin lotzen nuen... hau da, mugimendu sozialak frankismoaz nekatuta zeuden eta... orduan antolatzen eta matxinatzen hasten ziren. [A.L.. MCEko militantea]

---

formako galtzak eramaten zituzten eta Europako [gazte] ezkonformistak ziren; eta guk ez genuen Beatlesen musika entzuten... beno bai, gustoko zenituen eta hori, baina... baina hemen, nolabait, bigarren mailako fenomeno bat zen; existitzen zen, ezta? Club 29n eta ez dakit, joaten ginen bestelako tokietan, baina... ez genuen gogotik bizitzen, ez beste tokietan bezala... hemen Iruñean gutxienez zen, gu beste gauza batzuetan ibiltzen ginen, politikan, orduan munduko gauzarik inportanteena eta berehalakoena zela pentsatzen genuelako”. J.S.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-10.

Nik uste dut 68ko produktu bat naizela... hau da, 68a iristen denean... nik hemezortzi urte nituela, 68a gertatu zen eta orduan... ba, nire belaunaldiari aldaketa hori bizitzea egokitu zitzaion, hau da, guk aldaketa[rako aukera zegoela] sumatzen genuen eta horrek, nolabait, aldaketarekin bat egitera eramaten gintuen. [S.L.. CCOOeko militantea, ORTko militantea]

Iturriek egin zuten hautabide politikoan ordea, ez zuen soilik euren adinak zerikusirik izan. Euren jatorria ere, erabakigarria izan zen. Haietariko askok erakunde kristau desberdinetan izan zuen militantziarako abiapuntua eta honek, berebiziko garrantzia izan zuen euren ibilbideen garapenean. JOC eta VOJ bezalako gazte erakunde kristauek hasi ziren militanteek adibidez, berauetan konpromiso sindikal eta politiko bat bere egin ondoren, berezko erakunde berriak sortu zituzten eta hauek, askotan, militante kristauek marxismorako bidea ibiltzeko behar izan zuten zubi ideologikoa izan ziren<sup>291</sup>, haren bitartez, ORT, MCE, PCE(i)-PTE edota LCR bezalako erakunde politiko ezkertiarretara gerturatzea errazagoa egin zitzaielarik.

---

<sup>291</sup> Heine Harmut, "La contribución de la nueva izquierda al resurgir de la democracia española, 1957-1976", Josep Fontana (ed.), *España bajo el franquismo*, Editorial Crítica, Barcelona, 1986, 142-159 orr., 156 orr. Ikusiko dugunez, ibilbideen bilakaera hau oso ohikoa izango da gure protagonisten artean.

## 2.2 IRUÑERRIKO LANGILEEN PROFIL DESBERDINAK

Aztertu berri ditugun ezaugarriekin, langile antolakuntzaren eta protestaren nukleoetan egon ziren subjektuen profil desberdinak osatzea posiblea da nola edo hala. Guk, lau profil nagusi bereizi ditugu. Lehenbiziko biak, emigranteen profilak dira: nafar landa mundutik etorritakoena eta estatuko beste probintzietatik etorritakoena. Bigarren soslai hau orokorrean, iturrien jatorria aztertzerakoan azaltzen genuen bezala, zirkuitutik kanpo geratu zen arren, sareetan nabarmendu ziren subjektu nabarmenduak eman ditu. Hirugarren eta laugarren profilak, iruñarren profilak dira: Iruñerrian jaiotako langile helduena eta Iruñerrian jaiotako langile gazteena. Bi hauek dira, berez, iturrien artean gehien errepikatzen direnak, gure zirkuituaren baitan ibili eta jardun zuten subjektuen gehiengoaren artean ere nagusi izan zirela ondorioztatzen ahal dugularik.

### 1. PROFILA: Nafar landa munduko emigrantea

Nafar emigranteek, iruñarren aldean nabarmenki gutxiagoak diren arren, presentzia garrantzitsua dute gure iturrietan. Hauek, burutu zuten emigrazio ibilbidearen arabera, aldaera desberdinak erakusten dituzte (heldua, gaztea, familia duena, ezkongabea, miseriak bidalitakoa, bizimodu berri baten bila datorrena), baina orokorrean, ezaugarri nagusi batzuk izan dituzte elkarrekin: nekazaritzaren alorreko bizibidea, lanbide prestakuntzarik eza eta kultura industrial baten gabezia.

Aurreko kapituluan ikusi genuen bezala, 60. hamarkadan zehar landatik hiribururako populazioaren lekualdaketak bizkortu eta biziagotu egin ziren. Iruñerako emigrazioa, Nafarroan tradizio luzea zuen mugimendua zen arren, XX. mendearen erdialdeko nekazal exodoak hainbat berezitasun izan zituen. Adibidez, mugimenduek nekazari sektore eta gizarte sektore anitzagoengan izan zuten eragina oraingoan eta jornalariekin eta errentari txikiekin batera, hirira, errentari ertainak, lurjabe txikiak eta artisau zein ofizio bat zuten langileak iristen hasi ziren. Honekin batera, orain ere, Industria eta fabrika mugimenduon helmuga bezala orokortu ziren heinean, etorkinak, kualifikaziorik gabeko lanesku huts bilakatzen hasi ziren.

Emigrazio mugimendu hauen ondorioz, profil hauetako subjektuek euren bizibidean eta bizimoduan erabateko aldaketak bizi izan zituzten. Izan ere, etorkinek, behin hirian, fabrikak eta produkzio modu fordista, etxebizitzaren arazoak edota langile auzunetako bizitzak osatzen zituzten errealitate berriei egokitu beharra zuten, bapatean nekazal errealitateekin erabatean hausten zutelarik. Haustura hori oso agerikoa izan zen, esaterako, lan egiteko moduen alorrean, nekazariak eurekin ekartzen zituzten lanerako askatasunaren eta autonomiaren ohiturei, eurentzat erabatean arrotza zen kultura industrial berri bat gailendu baitzitzaion. Ildo horretan, denboraren pertzepzioa jarri ohi da nekazal munduko emigranteek bizi zituzten aldaketen adibide adierazgarri bezala, fabrikara sartzerakoan, denbora norberarena izateari uzten ziola eta patroiena izatera igarotzen zelaz konturatzea, inpaktu handia sortzen baitzuen nekazari izandakoen mentalitatean<sup>292</sup>. Profil honetako subjektuak honela, nekazal kultura herrikoi batetik langile kultura herrikoi berri batetara eramango zituen bidea ibili behar izan zutenak izan ziren. Aldaketa kultural honen prozesuan itxuratu zen langilearen irudia eta honek bizi izan zuen aldaketa horren esperientzia, nola edo hala, modu honetan deskribatzen ahal dira:

---

<sup>292</sup> “[...] phuc [txartela sartzeko erloju] gogoangarria [...] traste hori, esku kolpetik aurrera -¡clinc, clin!- denbora zurea ez dela gogorarazteko dago [...] bost axola eskumuturreko erlojua baduzu, ez zara honen gurpilaren jabea, existitu egiten den denbora bakarra phucarena da, eta honen bitartez, fabrikako jabearena”, José Luis López Bulla, 70. hamarkadan Kataluniako CCOOen Idazkari Orokorra izango zenaren hitzak, jasoak, Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 24-25 orr.

[...] harroa [...] zutituta, herritik pobreziak bidalita etorria [...] baina duintasun handikoa eta herrian funtzionatzeko oso modu bitxia zuena; [lanaldian] *ángelusean* otoitz egiteko gelditzen ziren eta... behia edo zaldia gaixo bazuten, hura zaintzeko ere gelditzen ziren... orduan, patroibatentzat eta aldi baterako lan egiten bazuten ere, euren herrikoak izatearen harrotasuna zuten nolabait. Eta hona iristerakoan, mila pertsona zeuden fabrika batean, zenbaki bat baino ez ziren, ez ziren inor [...] eta enpresak ematen zien lehenbiziko gauza erloju bat zen, jakin zezaten ordu zehatz batean etorri behar zirela [lanera], *ángelusaren* orduan gelditzerik ez zegoela eta hori. Orduan halako jendea oso menderatuta dago eta gainera izugarri faltan botatzen du bere herria [...] halako jendeak herrian bazuen izena, oso pobreak ziren baina bazuten izen bat eta gero, hona etortzerakoan, ez ziren inor. [R.U.. Authiko langilea]

Gure iturrien artean, antolakuntza nukleoetan eta protestaren sustapen nukleoetan, ez da halako aldaketa kulturalak bizi izan zituen subjektu askorik aurkitzen. Iturriek bere ordea, bai nukleoetan lider bezala eta baita langile jardueran parte-hartzaile aktibo bezala ere, zirkuituaren baitan kokatzen dituzte. Langile komisioetan zeuden, greba eta borroka desberdinetan parte hartzen zuten eta fabriketako asanbladetan nabarmentzen ziren. Nekazal mundutik etorritako langile hauen inplikatzeari azaltzen ahal duten faktoreen artean, bi dira bereziki adierazgarriak: nekazari izandakoaren izaera autonomotik eratorritako errebeldiarako berezko joera bat eta tradizio errepublikarrari lotutako nolabaiteko memoria bat:

Orduan ba, herrietatik etorritako jende asko sartzen hasten da, baina jende piloia. Eta lehenbiziko grebak hasten direnean, ikusten dut ezerezetik ateratako lider horietariko parte handi bat [...] Erriberatik etorritakoa zen batik-bat (nik uste) eta hauek, nolabait, sortzetiko jakintza bat bazuten, greba eta asanbladen buruan jartzen ziren eta hitz egiten zutenean txundituta geratzen ziren... [...] Fustiñanako bat zegoen, S. delako bat [...] eta tipo hori asanbladaren aurreran hitz egiten zutenen, sekulakoak esaten zituen... poeta bat zirudien! Eta sortzetikoa zen. Halako jende asko zegoen... eta jende hori niretzat, liderrak baino askoz ere garrantzitsuagoa zen, ezta? Haiek egiazkoak zirelako. [R.U.. Authiko langilea. CCOOeko militantea]

Iturrietan aurkitzen ditugun emigranteak ez dira, berez, nekazal kultura batetik langile kultura herrikoi batetarako aldaketa zuenean bizi izan zuten subjektuen profilarik bat etortzen. Emigrante nafar diren iturri gehienak umetan edo gaztetan etorri ziren langileak dira eta horregatik, euren esperientzia ez zen, erabatean, aurreko emigranteen esperientzia horren berdina izan. Are gehiago, kasu hauetan Iruñeko gazteen profiletatik gertuago daude emigranteen profiletik baino. Umetan familia osoarekin emigratzen zutenean, Iruñeko gazte bezala hazi egiten ziren, bizitako esperientziak, hauenak zirelarik hein handi batean. Gazte ezkongabe garaietan mugitzen zirenean, nekazal giroarekiko haustura nabarmenagoa zen, finean bertan hazitakoak zirelako eta momentu zehatzetan izan bazen ere, nekazal jardueran aritutakoak zirelako. Baina haustura ere ez zen lehenengo emigranteen kasuan gertatutakoa bezain sakona izan, azken batean hauek ez zuten, lehengoek bezala, bizitza propio bat atzean uzten, bizitza propio hori, lehenbizikoz, hirian sortu behar zutelako zutenean.

## 2.PROFILA: Estatuko beste probintzietako emigrantea

Kapitulu honetan jada, estatuko beste probintzietatik etorritako langileen presentzia, Iruñerriko fabrika garrantzitsuenetan eta periferiako langile auzoetan garrantzitsua izan zela ikusi dugu. Gure iturrietan ordea, oso presentzia txikia dute. Honek, nolabait, zirkuitutik at utzi ditu orokorrean, baina iturrien jatorriaz aritzerakoan esaten genuen bezala, horrek ez du esan nahi nukleoetan egon ez zirenik edota langile jardueran eta protestan parte hartu ez zutenik. Egote ziren eta parte hartu zuten, baina nafarrekin alderatuta, bigarren maila batean. Hala ere, euren presentzia alde handiz murriztagoa

izan den arren, iturrien artean, zirkuituaren baitako nukleo garrantzitsuenetan kokatu ziren beste probintzietako emigranteen kasu oso adierazgarriak topatzen ditugu.

Estatuko beste probintzietatik etorritako emigrante hauek Iruñeak topatu zuten errealtatea, berez, ez zen nafar landa mundutik etorritako emigranteek topatu zutenaren oso desberdina izan. Egia esan, bizi izan zituzten esperientziak, zentzu honetan, nahiko antzekoak izan ziren: nekazal mundutik, industrializazioak erakarrita etortzen ziren lan eta bizimodu hobeto baten bila; lan egitea eta familia aurrera ateratzea zen euren helburu lehena, euren emozioen nukleo nagusia; prestakuntzarik eskatzen ez zuten sektore eta lanpostuetan enplegatzen ziren, hau da, eraikuntzaren sektoreko eta industria fabriketako peoiak ziren; etxebizitzaren arazoa gordinki pairatu ondoren, periferiako langile auzoetan kontzentratzen ziren; eta guzti honen ondorioz, bizimodu eta kultura aldaketa sakonak bizitzen ari zituzten. Beraz, bigarren profil honek, lehenbizikoaren oinarriko elementu berberak ditu, baina kasu honetan, hauei, “kanpotarra” izatearen elementua eransten zaizkie. Egiazki kontutan hartzeko bereizgarria izan zen, profil honetako langileek zirkuituan sartzeko izan zituzten zailtasunek, “kanpotarra” izatearekin zerikusirik izan baitzuten. Bi faktorek elkarri eragin zioten “kanpotar” hauek zirkuitutik kanpo uzteko: alde batetik, Iruñea oso hiri txikia zela eta kasik jende guztiak elkar ezagutzen zuela; bestetik, estatuko beste probintzietako etorkin gehienak bertara iritsi zirenerako, langileen berezko lehen nukleo eta esparruak jada sortzen hasiak zirela. Biak uztartuta, bertako inor ezagutu ezean eta nukleo hauek zeintzuk ziren jakin ezean “kanpotarrak” zirkuitutik at geratzen zirela gertatzen zen. Zentzu honetan, zirkuitura sartzeko, profil honetako subjektuek, aipatu nukleo eta esparruetan sartzeko egiazko gogoia, borondatea eta gaitasuna izan behar zuten. Estatuko beste probintzietako emigranteak diren gure iturriek adibidez, euren ekimenez bilatu zituzten nukleoak eta berauetan integratzeko saiakera gogoz egin zuten.

Nolabaiteko presentzia hau lortu zuten arren, emigrante hauek bereziki gure zirkuitutik kanpo zeuden esparruetatik eta sareetatik mugitu zirelakoan gaude. Hain zuzen ere hauek zirkuitutik at geratzen direlako ez ditugu oraingoan aztertu, baina frankismoaren garaiko langileriaz egin izan diren tokian-tokiko ikerketek, emigranteek hirian esparru propioak sortzen zituztela azalerratu dute eta Iruñean ere sortu ez zituztela pentsatzeko arrazoirik ez dugu, momentuz. Aipatu ikerketetan, esparru eta sare hauek, berezko zirkuitu bezala itxuratzen dira. Izan ere, hasiera batean, eguneroko bizitzan emigranteen arteko laguntza eta elkatasuna bermatzeko modu espontaneoan sortzen ziren arren, egonkortzen ziren heinean, gizarteratze soziopolitikorako esparru eta militantzia sare bilakatzen ziren. Xavier Domènechek adibidez, etorkinen halako zirkuituek Sabadellgo PSUCaren bisortzean funtsezko papera izan zutela adierazi du. Zehazki, Granadako Guardahortuna herriko emigranteek sortutako zirkuituaz aritzen da, hauek hirian berregin zituzten sorterriko komunitatearen harreman sareak, erakundearen militantzia sareak suspertzeko oinarria izan baitziren. Emigranteen sare hauek funtsezkoak izan zirela agerian uzten duten bi adierazle: Sabadellgo PSUCaren lehenbiziko tokian-tokiko komitea Creu de Barbera auzoan kokatuta zegoen, hain justu Guardahortunan jatorria zuen populazioaren gehiengo bizi zen tokian; eta Guardahortunatik etorritakoek, komitean sartzeko erraztasun gehiago zuten<sup>293</sup>. José Antonio Pérezek bestalde, emigrante hauen berezko zirkuituak osatzen zituzten esparruen adibide zehatz bat ematen du: Eskualde Etxeena. Hauek, emigranteen oinarriko sozializatorako erdigunetzat jotzen ditu, zentro hauetan harreman sare sozial garrantzitsuak sortzen baitziren. Sareak, eguneroko beharren (etxebizitza, lana) asetzeko laguntzeko sostengu bat baino ez ziren lehenbizi, baina konfiantza sare bihurtzen joan ziren neurrian, zentroak eta

<sup>293</sup> Are gehiago, Guardahortunakoak ez zirenek, zaila izaten zuten komitearen parte izatea. Xavier Domènech, *Cuan el carrer...* Op. Cit., 53-54 orr.

beraueetan sortzen ziren harremanak, emigranteen arteko gizarteratze sozial, kultural eta politikorako funtsezko tresnak izan ziren<sup>294</sup>. Ildo horretan, estatuko beste probintzietatik etorritako emigranteek Iruñean ere euren komunitate sareak berregin zituztela, euren berezko esparruan sortu zituztela eta bereziki hauetan barne mugitu eta jardun zutela planteatzen ahal da hipotesi moduan. Gure iturrietan, adibidez Andaluziatik etorritako emigranteek, iristerakoan, kokatzerakoan eta lehenbizikoz lana topatzerakoan komunitatearen alde zuzeneko sareak oso garrantzitsuak izan zirela eta lanaren edota militantziaren alorretan “paisanajearen” fenomenoak funtzionatu egin zuela erakusten dute. Hala ere, aipatu iturri hauek berak zirkuituaren baitan mugitu ziren eta modu desberdinetan parte hartu zuten Iruñerriko langileen antolakuntza eta protesta nukleoetan:

“[...] haietariko baten hiletara joan nintzen Almansilla del Montera [...] Aparteko gizona zen, borrokalaria... bai, bai arima borrokalaria zuen. Baina halakoengan nagusi zen [nahia] lan egitea zen, lan egin eta, pairatutako miseriaren ondoren, familia mantentzea... haiek hona lan egitera etortzen ziren, arraioa, haientzat sekulako aukera zen... eta hori zen haien emozioen nukleorik indartsuena, baina gero [oso borrokalariak ziren]. Adibidez, [meategiko] itxialdiaren harira nirekin kartzelan egon zena, hori ere andaluziarra zen, hau da... bai, bai, jende aktiboa zen, dudarik gabe” [J.S.M. Potasaseko langilea]

Gure iturriak zirkuituaren baitako nukleo nagusienetan kokatzen dira eta beraueetan lehen mailako protagonismoa dute. Hau da, eurak iritsi aurretik Iruñean jada martxan ziren esparruetan parte hartzen dute, zirkuituko kide nabarmenduak direlarik. Baina hauek duten protagonismoa, salbuespena da nolabait eta profil honetako emigranteak, zirkuituaren baitan mugitu ziren arren, ez zuten orokorrean horren parte hartze nabarmendua izan. Fabriketako komisioetan adibidez, salbuespenak salbuespen, estatuko beste probintzietatik etorritako langile gutxi antolatzen zen, baina nukleo hau zabaltzen zenean, fabrikako gai eta dinamika zehatzak lantzeko biltzen ziren “comisiones ampliadas” direlakoetan eta asanbladetan, euren presentzia handiagoa zen eta euren parte hartzea, aktiboagoa. Kasu hauetan, aurreko profileko Erriberako emigranteekin gertatu bezala, militantzia errepublikarren edota errepresioaren esperientzia eta memoria bat zegoenean, parte hartzerako joera modu naturalago batean sortu ohi zen hauengan:

“Nik [beste probintzietatik] etorritakoak ziren hainbat ezagutzen nituen eta hauek noski, ba fusilatua izandako aita edo aitona zuten, errepublikanoak izateagatik, CNTkoak edo UGTkoak izateagatik, sozialistak edo komunistak izateagatik. Orduan nik uste dut hauek errazago bat egin zutela [gurekin], hemen borroka egiten zela ikusterakoan eta agian ba, etxean aita edo aitona hil zutela, aitona UGTkoa edo CNTkoa edo komunista zela entzuterakoan, ba nik uste dut... [gurekin] bat egin zuen askok, nik uste, halako aurrekariren bat zuela” [I.B.. CCOOeko militantea]

Halako iragan errepublikarra, hain zuzen ere, profil honetan sailkatu ditugun zenbait iturri, Iruñean jada martxan zeuden esparruak bilatzera eta hauetan integratzera eramanean zituen faktore nagusienetariko bat izan zen<sup>295</sup>. Nafarroako CCOOen lehen koordinakundearen sortzaileetariko bat izan zen M.BU.-ren kasua da.

Granadako herri batean jaioa eta Nafarroako CCOOeko sortzaile eta lider nabarmendu, M.BU.-ren figurak primeran hezurramitzen ditu profil honen berezitasun adierazgarrienak. Sorteritik tradizio errepublikarrak eta errepresio

<sup>294</sup> Eskualde etheen paperaz gehiago, José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 86-89 orr.

<sup>295</sup> Profil honetakoak berez oso iturri gutxi direnez, ezin dugu hauek zirkuituan izan zuten presentzia aktiboaren eta esperientzia eta memoria errepublikararen arteko zuzeneko lotura bat egin. Esaterako, gure zirkuituaren baitan lehen mailako protagonista bezala hartzen ahal ditugun hiru kasuetatik (hirurak Nafarroako CCOOen koordinakundearen sortze nukleoaren inguruan egon ziren), batek ez du iragan errepublikarrekin inolako harremanik.

esperientzia gogorak ekarri zituen berekin. Aita, langile erakunde bateko buru eta Errepublikaren gudarosteetako kapitain izateagatik, espetxean egondakoa zen: *“Nire aita Errepublikaren kapitain izan zen, baina ez izatez militarra zelako. Nire aita langile burua zen, ez zuen formakuntza profesional edo kulturalik, baina oso azkarra zen eta gizonak biziki sentitzen zituen sozialismoa, komunismoa... alderdi komunistako kide egin zen”*. Bera, ezkertiar giro batean hazitakoa zen: errepresio egoerak ikusi behar izan zituen eta aitarekin (espetxetik atera zenean) politikaz hitz egiten zuen maiz. Guzti honengatik, langile ideia politiko eta sozialak barrenean errotuak zituen gaztetatik: *“Halako egoeran hazi nintzen, ezkertiar baten semea izanda eta biziki... eta [errepresio] egoera haiek bizi izan nituenez, gehiegizkoak ume batentzat, oso heldua nintzen politikoki... gainera aitarekin asko gustatzen zitzaidan [...] aita oso tipo jatorra zen, oso atsegina, oso ikasia nahiz eta goi mailako ikasketarik ez izan, oso azkarra... orduan [...] gustuko nuen berarekin politikaz aritzea”*. Lehenbizi familia osoarekin Gipuzkoara emigratu ondoren, Iruñera bera bakarrik etorri zen 60. hamarkadaren erdialdean eta bertan, tailer txiki ezberdinetan ibili ondoren, Eaton fabrika handian hasi zen lanean. Ordurako jada zirkuituan sartuta zegoen, sorterritik errotuta zuen gogo soziopolitiko hura gauzatzeko nahiak, bertako jendearekin harremanak egitera eta Iruñean egoten ahal ziren gizarteratze soziopolitikorako esparruak bilatzera eraman baitzuen. Modu honetan, Zentro Marianoan amaitu zuen eta bertatik parte hartu zuen Nafarroako CCOOen lehen koordinakundearen sorreran. Mugimendu sindikalean beti CCOOen ibili zen eta politikoki alderdi komunistako kidea izan izen, adierazgarria AST-ORT erakundearen inguruan hasi zela kontutan hartzen badugu<sup>296</sup>.

Francisco Sánchez Cortazarrek zirkuituaren sare eta esparruetarako antzeko sarbidea izan zuen. Emigrantea zen eta Huarte enpresa taldeko Perfil en Frío enpresako langilea. Nafarroako CCOOen lehen koordinakundearen beste sortzaileetariko bat izan zen eta Nafarroako alderdi komunistako militante nabarmenduenena zen, 60. hamarkadan alderdiak hemen izan zuen ia militante bakarra. Alderdiak apenas presentziarik ez zuelako bere burua isolatuta ikusi zuenean, hiriko langileriaren antolakuntza eta protesta nukleoetarako sarbidea emango zioten harremanak eta esparruak bilatu zituen, HOACen, honek sustatutako “Grupos Obreros de Estudios Sociales” (GOES) izeneko taldeetan eta Sindikatu Bertikaleko ordezkariak karguetan aurkitu zituelarik<sup>297</sup>.

### 3-4.PROFILAK: Iruñerriko “heldu” eta “gazteak”

Bi hauek, gure iturrien artean nagusi diren profilak dira. Iruñarrak biak, adinean dago bien arteko desberdintasuna: hirugarren profileko subjektuak 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran heldutzat jotzen ahal ditugun bitartean, laugarren profilekoak “gazteria berriaren” belaunaldiko kideatzat jotzen ahal dira. Adinak markatzen duen bereizketa hau ordea, iturrien jaiotze dataren araberrako sailkapen soil bat baino gehiago da. Izan ere, profil hauek, aldi berean, zirkuituan sartzeko, nukleoetan kokatzeko eta batean eta besteetan jarduteko modu desberdinak definitzen dituzte.

<sup>296</sup> M.BU.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-05-20.

<sup>297</sup> “Metalaren [sindikatu] lehen lehendakaria Sánchez Cortázar izan zen [...] eta Sánchez Cortázar HOACekoa izan zen; [Francisco] Eguiluzi egin nion azkeneko bisitan [...] esan nion: beno, eta Sánchez Cortázar, nolatan zegoen HOACen? [eta berak:] Bai, Jauna hartu eta guzti egiten zuen! [...] eta CCOOak lehenbizi [...] CCOOak bultzatu izan zituen lehena bera izan zela uste dut, ezta? [...] Perfil en Frío-n lan egiten zuen [...] eta Alderdi Komunistako kidea zen, Sanchez Cortázar... ez zegoen beste komunista ezagunik, ezta? ez behintzat horrela, komunista bezala, ezagutzera ematen zenik”. J.M.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-10-26. Francisco Sánchez Cortázar ez dago gure iturrien artean, baina haren figurari buruzko erreferentziak ugariak dira. Hemendik aurrera, behin baino gehiagotan agertuko zaigu zirkuitua berrosatzen dugun heinean.

Orokorrean profil malguak dira eta zenbait aldaera azaltzen ahal dituzte. Gure iturrietan adibidez, hauek bereziki jatorrian eta formakuntza mailan ikusten dira. Jatorriari dagokionean, bi profilak “irufiar” bezala izendatu ditugun arren, hiritik kanpo jaiotako zenbait iturri ere berauetan sailkatzen ahal ditugula ikusi dugu. Kasu gehienetan, noski, iturriak Iruñian jaiotako dira, baina salbuespen adierazgarriak daude. Agerikoena, haurtzaroan edo gaztaroan Nafarroako herriren batetik emigratu zutenena da. Hauen artean, txikitan familia osoarekin emigratu eta hiriburuan irufiar bezala hazi egin zirenak eta zuzenean talde politiko ezkertiarren batean militatzeko emigratu zutenak aipatzekoak dira. Formakuntza mailari dagokionean, bi profiletan barne desberdintasun nabariak ikusten ahal ditugu. Iturri asko prestakuntzarik gabekoak peoiak edota oso gazte ikastun bezala lanean hasi ziren langileak dira; beste asko Lanbide Heziketa formatutako ofizialak dira; eta beste zenbait, ez gutxi, erdi eta goi mailako ikasketan dituzten langileak dira, batxilergoa edo maisutza industrialia eta unibertsitateko ikasketak, bereziki ingeniariak.

Iruñeko “helduen” profila, 50. hamarkadan eta 60. hamarkadaren hasieran jada, Iruñerriko industrietan lanean ari ziren langileek osatzen dute. Orduko irufiar industria egitura nolakoa zen kontutan hartuta, sektore anitzetako langileak dira, nagusitzen ari den metalaren sektorekoak (adibidez Huarte enpresa taldeko fabriketako langileak), industria kimikoaren sektorekoak edota harakintzakoak, esaterako. Zerbitzuetako eta administrazioko langileak dira ere. Lanpostuari dagokionean, peoiak, ofizialak, bulegoko langileak edota teknikariak dira. Lehenbizikoak dira lan munduan sartzen eta horregatik, zirkuituaren baitan esparruak zabaltzen eta harremanak sortzen dituzten lehenbiziko subjektuak dira ere. Apostolutza mugimenduetako militanteak dira (HOACekoak bereziki) eta Sindikatu Bertikaleko ordezkariak karguak betetzen dituzte. Profil hau M.A.M.-en eta J.M.M.-en figurek hezuramaitzen dute hobekien: lehenbizikoa, irufiarra, teknikoki eta intelektualki ikasia, kimikaria eta industria kimikoaren sektoreko Penibérica enpresako langilea zen<sup>298</sup>; bigarrena, Iruñerriko Huarte herrikoa, familia nekazari batean jaiotakoa, formakuntzarik gabekoa eta harakintzaren sektoreko Mina enpresako langilea<sup>299</sup>; baina biak Iruñeko HOACeko militante nabarmenduak ziren eta 60. hamarkadaren hasieran, Erakunde sindikalaren barnean, euren sindikatuak sail sozialetako lehendakari karguak betetzen zuten.

Iruñeko gazteen profila, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera nafar industriaren enpresa garrantzitsuetan lanean hasi ziren langile gazteek osatzen dute. Bereziki metalaren sektoreko eta fabrika handietako langileak dira. Nola edo halako kualifikazio maila dute, ikastun gisara arituz formatu direlako eta askok eskola profesionaletan Lanbide Heziketa ikasi dutelako ere. Baina ez hori bakarrik, langileria gaztearengan, fabriketan lanean hasi ziren seminarioko ikasle izandakoek eta unibertsitatean ikasitakoek osatzen duten sektore “intelektual” moduko bat bereizten ahal da ere. Sektore hau osatzen dutenen artean, are ertain klaseetako familietan edo behintzat egoera ekonomiko on samarra duten familietan jatorria duten gazteak aurkitzen ditugu. Aniztasun handiko profila da beraz, haren baitan, hamalau urterekin ikastun bezala lanean hasi ziren gazteak, eskola profesionalean ikasiak ziren ofizialak, langile edo

---

<sup>298</sup> M.A.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-12-23. Haren figurari buruz, prestakuntza maila hori azpimarratu ohi da, ez bakarrik kimikaria zelako, intelektualki ere oso gaia zelako ere: “Iruñeko langileak ez ginen maila horretara iristen, ez genuen eskola profesionaletatik gora egin; hau da, oso profesional onak ginen, baina ez intelektuak (nolabait esatearren, ezta?), ez ginen ba...arraioa, M.A.M. bezalakoak, ezta? M.A.M.-ek ikasketak burutzeko zortea izan duen tipoa da, eta ez bakarrik teknikoki, baizik eta intelektualki bilakatzeko aukera izan du ere... unibertsitatera joan da”. R.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea,

<sup>299</sup> J.M.M.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2010-03-04 eta 2011-10-26.



nekazari familia umilen seme-alabak, unibertsitateko ikasleak edota ertain klaseetako familien seme-alabak biltzen baitira. Guztiak belaunaldi bereko kideak ziren eta frankismoaren baitan jaio eta hazi ondoren, haren kontra matxinatzen hasten zen gazteria osatzen zuten<sup>300</sup>.

Ildo horretan, gazte hauetariko askok euren gurasoengandik jasotako ondarea alboratu eta are eraldatu egin zuten, gazteena, Nafarroan nagusi izandako mentalitate tradizional eta kontserbadorearekiko haustura hobekien irudikatzen duen profila dela esaten ahal delarik<sup>301</sup>. Karlismoak belaunaldi berri honetan izan zuen jarraikortasunik eza honen adibide adierazgarria da. Langile gazte hauetariko asko tradizio karlista luzeko familia batekoak ziren edo behintzat, gerra zibilean alde nazionalean parte hartu izandako aita zuten. Haiek ordea, ez zuten karlismo hori euren berezko identitatearen parte bezala ezagutzen, izan ere, hirian, fabriketan eta langile auzoetan osatzen hasiak ziren marko sozial, ekonomiko eta kultural berrietara egokitu behar izan zirenean, ondarrera eta tradizioa (karlismora) jo beharrean, identitate berrietara (klase identitatera, adibidez) jo zuten errealtate berri haiei aurre egiteko. Karlismoa, hartara, hiri eta klase errealtate berrian alboratua izan zen nolabait. Erlijiozaletasunaren kasua, desberdina izan zen. Oraindik nafar familia askoren mentalitatean eta eguneroko bizitzan sakonki errotuta, aipatu errealtate berrietara egokitzeko gai izan zen. Horretarako elementu berriekin jantzi zen (lan munduarekiko arreta, langile diskurtsoa, apostolutza mugimenduak, kristautasunaren eta marxismoaren arteko, elkarrizketa, errealtatea eraldatzeko konpromiso aktiboa) eta hauei esker, karlismoa bezala alboratua izan beharrean, langileentzako baliozko erreferentzia bezala egonkortu zen.

60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, profil honetako gazteak langile antolakuntzaren eta protestaren nukleoetan topatuko ditugu protagonista nabarmendu bezala: Iruñeko langile mugimenduaren abangoardian kokatu ziren, Nafarroako CCOOeko eta langile erakunde politikoetako lider bezala gailendu zirelarik. Klandestinitatean CCOOeko koordinatzaile nagusienetarikoa izan zen J.S.M.-en figurak, profil honen ezaugarri adierazgarrienak biltzen ditu bere baitan. Oso gazte emigratu zuen nafar landa mundutik familia osoarekin, bizitza pertsonal eta profesional osoa hirian garatu zuen heinean, "Iruñeko gaztetzat" jo dezakegarrik; gerra zibilean alde nazionalean parte hartu zuen soldadu zahar baten semea zen; Potasaseko eskola profesionalean ikasi zuen eta ondoren, enpresan hasi zen lanean, meategian; eskola garaian sortu zituen harremanei esker, zirkuituaren lehen esparruetan sartu zen, jesuiten VOJen, hain zuzen; enpresan hasi zenean oso laster kokatu zen bertako langile batzordean; orduetik aurrera, oso bizkor murgildu zen nukleo sindikal zein politikoetan, Nafarroako CCOOen koordinakundearen zuzendaritzan sartuz eta Nafarroako ORTko militante bezala nabarmenduz<sup>302</sup>.

Subjektuak. Lau profil eta hainbat aldaera: militante zahar hainbat eta militante berri asko, euren bizimodua erabatean aldatu zuten emigranteak, Iruñeko gazteak, eskola profesionaletatik ateratako ofizialak, Sindikatu Bertikalean aritutako langile

<sup>300</sup> Belaunaldi gaztearentzat frankismoan jaio eta hazi izateak zer suposatzen ahal zuen ikusteko: "Gu, behintzat jende gaztea, gehien harritzen gintuena askatasun falta zen, ezer egin ezin izatea, liburuei, zinemari buruzko berririk ez izatea... guztia kontrolaturik zegoen, guztia zelatatzen zuten; nolabaiteko psikosia zegoen Iruñeko kuadrillen artean gai hauei buruz mintzo zirenean... kasik ezkutuan egin behar zenuen, inork ezer jakin gabe... edonor zuri begira ari zelako psikosia zenuen... mesfidati azaltzen zinen edonor salatari izan zitekeelako edo erregimenaren egituraren parte izan zitekeelako. Hori, guzti horren presentzia, suntsitzailea zen guretzat" PA.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-13.

<sup>301</sup> Haustura hau bereziki profil gazte honetako subjektuen artean egiten da nabaria. Honek ez du esan nahi, ordea, nafartzat definitu ditugun beste bi profileko (1 eta 3) subjektuek, aipatu mentalitate kontserbadore eta tradizionalarekin hautsi ez zutenik.

<sup>302</sup> J.S.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-10.

ordezkariak, fabriketako komisioetako militanteak, Nafarroako CCOOen koordinakundeko kideak, HOAC eta apostoluzta mugimenduetako langile kristauak, gazte politizatu eta erradikalak... Hauek guztiak izango dira fabrian, auzoan eta orokorrean, zirkuituaren esparru eta harreman sareetan bat egin zutenak, langile antolakuntzaren eta protestaren nukleoetan kokatu zirenak eta finean, langile identitate komun bat sortu zutenak. Guztiak, Iruñerriko langile klasearen eraketa prozesuaren protagonistak izan ziren:

60. hamarkadan langile mugimendu hasiberri eta espontaneo bat agertzen da Nafarroan... nik hori askotan, nahiz eta jornalaria izan, nekazariak duen autonomo izatearen sentimendurekin lotu izan dut, ezta? Hau da, soldatapekoak, klase kontzientzia ez duen bitartean, soldatapekotze edo klase bizipen prozesuetan pairatzen duen arazorik larriena... objektu bat baino ez dela da, objektu bezala bere buruari buruzko kontzientzia, bere autonomia pertsonalari buruzko [kontzientzia], izan daitekeenari buruzko [kontzientzia], galtzen duela [...] orduan Nafarroan, alde batetik, ez zegoen lidergorik, baina bestetik, nolabaiteko, tinkotasuna zuen jendea zegoen, hau da, autonomia sentimendua zuen jendea... orduan ba azaldu ziren errebeldiak oso bereziak izan ziren, ezta? Langile mugimendua sendoagoa zen tokietan ere ematen ez zirenak. Zergatik? Ba hauek, arriskatzen zirela jakinda, zuhurragoak zirelako, ezta? [...] hemen askoz ere agerikoagoak ziren. [J.I.S.. 3. Profileko langilea]

Orduan ba, nik uste dut parte batean emigranteak izan zirela, baina beste parte garrantzitsuago batean hemengo jendea... bitxiki, nik ezagutzen nituen ia guztiak Iruñekoak ginen, begira... mugida nagusia, langile mugimendua, nik uste dut bideratu zela... ni bezalako jendearen bitartez, hau da, Iruñeko jendea, herrietako gurasoen seme alabak baina hemen jaiok [...] Hori bai, egia da borrokan sartzen zen emigrantea oso tinkoa zela, oso pertsona zintzoa, oso prestua; ez zegoen esango zenuenaren zain zu jarraitzeko, egiatan kemen handikoak ziren. [I.B.. 4. Profileko langilea]

Nik uste dut gazteriak nolabaiteko kultura maila eta askatasun nahi bizia erakusten zuen aldia izan zela era berean... orduan boladan zeuden korranteak ziren, Frantziako maiatza eta guzti hori, intelektualak [...] orduan hor ba, adibidez Zentro Marianoko jendea, haztegi nagusi izango zena, ba “progreak” ziren, jende irekia... eta maila... funtsean “aberaskumeak” ziren, ikasleak, gerora sortu ziren lider asko apaiz izateko ikasi zuten, ikasketak zituzten eta euren egoera ekonomikoa ere, itxuraz ona zen... ez zetozen lunpenetik, ez zetozen miseriatik, intelektualak ziren nolabait [...] nik uste dut orduan, ahal zen neurrian, jende honek ba, esperientziagatik eta arbasoen kulturagatik ekartzen nuen “horrekin” bat egin zuela, hazi egin ahala jasotzen eta barneratzen joan ziren, [M.BU.. 2. Profileko langilea]



**3.KAPITULUA:**  
**LANGILEAK ETA ERREALITATE SOZIOEKONOMIKO BERRIAK**

Langile klasearen sortze prozesua ematen den markoaren bigarren parte honetan, langilearen errealitatea bera dugu hizpide. Nolako zen langilearen bizitza bere lantokian? Zer nolako bizi baldintzei aurre egin behar izaten zien eguneroko bizitzan? Nolako ingurune hiritar eta soziologikoa, nolako bizimodua, zuen bere bizitokian, hau da, langile auzoetan? Kapitulu hau berez ez da langile bizitzaren azterketa bat, langile esperientzia gertatzen den bizi markoaren deskribapena bat da, langile klasea nolabait esplotatua izaten zen alor desberdinak azaleratzen dituen errealitateetarako *hurbilpen* bat.

Markoaren parte hau, fabrikaren alorra landuz hasten da: langilea fordismoaren engranajearen pieza huts bihurtu zuten lanaren antolaketarako modu berriak deskribatzen dira; desorekan oinarritzen ziren langileen eta enpresa zuzendaritzen arteko lan harremanek, langilea, lan eta gizarte egitura menpeko bezala nola definitzen duten ikusten da; eta azkenik, fabriketan, langileen ongizateaz arduratzen ez ziren lan baldintzak nagusi zirela erakusten da.

Ondoren, langileen eguneroko bizitzan arreta jarri eta desarrollismoaren garaian agerikoa izan zen bizitza mailaren hobekuntzaz haraindi, bizi baldintzek berekin langileen eta euren familien bizitzak baldintzatzen zituzten esplotaziozko esperientziak ekartzen zituztela azaleratzen da. Etxebizitza urritasunaren arazo larria eta langile klaseak, arrazoi ekonomikoengatik, etxebizitza duin bat eskuratu ahal izateko izan zituen zailtasunak; hala nola langileen ongizatea mugatzen zuten desoreka sozial sakonen iraupena (ondasun materialei zegokienean baino, promozio sozial eta kulturalari zegokienean) esperientzia hauen adibide adierazgarriak dira.

Bukatzeko, langile auzoen jaiotzarekin langileei berezkoak zaizkion hiri esparru eta inguruneak nola sortzen diren erakusten da. Auzo hauek eta euren garapena, kontrolik gabeko hirien hazkundearen garaian, hiri esparruak sortzeko, antolatze eta zonaldeetan banatzeko klase irizpideak erabili zirelaren adibiderik argiena dira. Izan ere, berauetan soziologikoki homogeneoa zen populazioa (langile populazioa) biltzen zen heinean, auzoak eraikiak izan ziren baldintzetatik eratorritako problematikak eta gabetasunak, langileei zegokien berezko errealitate bihurtu ziren; auzoaren esparru fisikoa, esplotaziozko esperientzia komunak elkarrekin bizitzeko agertoki garrantzitsuak izan zelarik.

Marko hau osatzeko, bide ezberdinak ibiliz iritsi gara langile errealitatera. Foessa erakundeak 60 eta 70. hamarkadetan egindako txosten soziologikoei adibidez, populazioaren bizi baldintzei buruzko datu estatistiko adierazgarri ugari jasotzen dituzte. JOC bezalako langile erakundeek, militanteen eta langileen ikuspuntutik irudikatzen dituzte euren lan eta bizi baldintzak, bai gai ezberdinen inguruan burutzen zituzten txostenetan eta baita formakuntza saio edo bileratan jasotzen zituzten hausnarketetan ere. Ahozko iturriek, gure subjektuek lan eta bizi baldintza horiek zuzenean nola bizi eta sufritu izan zituzten aztertzei aukera ematen digute. Prentsa oso erabilgarria izan da langile auzoen errealitateak ezagutzeko, bereziki kazetariak hiriak planteatuta zituen eguneroko arazoei buruz egiten zituzten erreportajeetan eta bizilagunek idazten zituzten eskutizetan agertzen ziren hauei buruzko deskribapenei esker. Beraz, langile bizitza erregistratzen duen berariazko iturririk ez dagoenez, jarraian agertzen den markoa, ahalik eta iturri gehienetan xehetasunak arakaturik osatu dugu.

### 3.1 LANAREN MUNDUA. LAN HARREMANAK ETA LAN BALDINTZAK

Langileen orduko errealitatera hurbiltzerakoan ezinbestean landu beharreko alorretariko bat, lanarena da. Izan ere, lana, langileei euren langile kondizio hori ematen dien elementua izateaz beste, bizi esperientzia anitz gertatzen den markoa da, langile bizitzaren parte handi bat hartzen duen esparrua. Horregatik da garrantzitsua lana nolakoa zen eta langileengan zer nolako eragina zuen aztertzea, bizipen horiek, subjektuen jokamoldeak nola edo hala azaltzen ahal dituztelako. Hau da, lanaren antolaketarako modu berriek, hots, fordismoak; fabriken barnean sortzen zen disziplina giroak eta ematen ziren harreman molde zurrun eta hierarkikoek; hala nola lan baldintzek (segurtasuna, soldatak, lanaldiek), langileen jarrerak piztu, baldintzatu edota mugatu egin zituztelako<sup>303</sup>.

#### 3.1.1 Lanaren antolaketarako modu berriak. Fordismoa

Desarrollismoaren garaiko lan munduaren errealitatera hurbiltzerakoan, oso kontutan izan behar dugu lanaren antolaketarako molde berriek langileek fabriketan bizi zuten egoera erabatean baldintzatu zutela. Bigarren kapituluan ikusi genuen bezala, fordismoa, langileak diziplinaren bitartez menderatzeko balio izan zuen elementuetariko bat izan zen. Izan ere, honek langileengan eragin zuzena zuten zenbait prozesu abiarazten zituen: produkzio-katea, lan-banaketa, kualifikaziorik eza edota denboraren neurketa, besteak beste. Hauek erabatean kentzen zieten lanerako autonomia langileei, makinak eta denborak ezarritako diziplinaren menpeko bihurtzen zituzten bitartean. Fordismoak, hartara, fabriken baitan bizi zen esperientziaren parte oso garrantzitsu bat osatzen zuen<sup>304</sup>.

60. hamarkadaren erdialderako, fordismoa espainiar ekonomiaren sektore dinamikoenetan ezarria zegoen jada, metalaren eta industria kimikoen sektoreko edota automobilgintzaren eta elektronikaren arloko enpresa ertain eta handietan zabaldu zelarik. Honekin batera, industria alorretara ez beste, langile kopuru garrantzitsua kontzentratzen zuten zerbitzuen sektoreko alor desberdinetara, garraioak edo banku jarduera kasu, iritsi zen ere. Beraz, lanaren antolaketarako metodo fordistak bere egin zituzten sektoreek, aurreko kapituluan iturrien sektore bezala bereizten genituenekin bat egiten dutela esan daiteke eta horregatik, subjektuek, maila handiagoan edo txikiagoan, fordismoaren errealitatean murgilduta lan egin zutela ondorioztatzen ahal da.

Fabriketan eta tailerretan lanaren antolaketarako jarraibide izatearekin batera, fordismoa, lanekuaren kudeaketarako eredu izan zen ere. José Babianok aztertu

---

<sup>303</sup> Jarraian langileen esperientziak jasotzen dira, hau da, fordismoaren ezarpena, lan harremanak, fabrikako giroa eta lan baldintzak, langileen ikuspuntutik landuak daude, hauek langileengan izan zuten eragina azaleratu asmoz. Horregatik, azaltzen denean, enpresariaren ikuspuntua, zeharka ageri da. Hau ezagutzeko, Gabriel Imbuluzquetak eta Luis Sarriesek personal-buruen oroitzapenetan oinarrituta egin zuten lana erabilgarri izan zaigu. Izan ere, bertan, testigantzen bitartez, enpresariak langileekiko, euren arazoekiko eta euren aldarrikapenekiko izan zituzten jarrerak, azaletik bada ere, ikusten ahal dira. Gabriel Imbuluzqueta eta Luis Sarriés, *Aquellos conflictos de los 70...: recuerdos y vivencias desde la dirección de personal*, AEDIPE, Iruñea, 2001.

<sup>304</sup> Lanaren razionalizazioa, lanekuaren kudeaketa eta lanaren antolakuntza zientifikoa, jada XIX mendeko industriako langileengan eragina izan zuen prozesua izan zen. Ikusi Eric Hobsbawm, "Costumbre, salarios e intensidad de trabajo en la industria del siglo XIX", Eric Hobsbawm, *Trabajadores. Estudios de historia de la clase obrera*, Crítica, Bartzelona, 1979, 352-382 orr., batez ere 372-382 orr.]

duenez, espainiar fordismoak berezitasunak azaldu zituen zentzu honetan<sup>305</sup>. Haietariko bat, frankismoak ezarritako lan harremanen markoak bere ezarpenean eta garapenean izan zuen funtsezko papera izan zen. Alde batetik, gerraostean fabriketan nagusitu ziren lanekuaren kudeaketarako metodoek, militarizazioak eta paternalismoak, fordismoa arrakastaz ezartzeko beharrezkoak izango ziren diziplina ereduak prestatu zituzten. Bestetik, kapitalaren eta lanaren arteko bitartekari gisara funtzionatzen zuten estatuaren instituzioak ere, lanekua diziplinatzerakoan eta kontrolatzerakoan oso eraginkorrak zirelako, fordismoaren zabalkuntza oztopatu beharrean, erraztu egin zuten. Espainiar fordismoaren beste berezitasun adierazgarri bat, Espainiar estatuan ezarritako fordismo eredu, produktibitatea areagotzeko, teknologia berrien erabilpenean baino, lanaren antolaketa zientifikoan oinarritu zela, hau da, lanaren errendimenduen biziagotzea, lan egiteko moduen berrantolaketa baten bitartez burutu zuela, izan zen.

Honekin, lanaren jarduera bera erabatean aldatzen zen. Orain produkzio prozesua eragiketa desberdinetan zatikatzea, lana eragiketa hauen arabera banatzea, eragiketa horietariko bakoitza burutzeko denbora tarte jakin bat xedatzea eta langileen mugimendu guztiak neurtzea, hau da, produkzio-kate zurrinak ezartzea, bilatzen zen, ekoizpen prozesuren bitartean makinaren zein pertsonen erritmoak geldituarazten zituzten lanik gabeko uneak ezabatzeko helburuarekin<sup>306</sup>. Finean, lan jardueraren intentsitatea areagotzen zuen antolaketa eredu berri bat zen, espainiar industriari zituen teknologia gabeziak konpentsatuz, produktibitatea areagotzen eta hazkunde industrialia bultzatzen laguntzen zuena.

Fordismoaren irakurketa egiterakoan ordea, honek langileengan nola eragiten zuen azaltzea interesatzen zaigu. Lanaren antolaketarako modu berrietan murgiltzeak, lehenik eta behin, aurretiko lan ohitura askeei eta ordenagabekoei uko egitea eta katearen eta makinaren erregulartasun automatikoaren menpe jartzea suposatzen zuten langileentzat. Bi izan ziren langileak prozesu hauek bizitzera eramane zituzten elementuak: lehena, eragiketen araberrako lanaren banaketak berekin ekartzen zuen lanpostuen definizio eta balioeste zurruna; bigarrena, kronometrajeak. Biak, langileek urte haietan bizi izan zuten ekoizpen prozesuaren gaineko kontrolaren galeraren bi aurpegiak izan ziren.

*Lanpostuen definizio eta balioeste zurruna*, fordismoaren oinarritzko printzipioetariko bat da. Haren bitartez, lana, keinu errepikakorrez osatutako ziklo huts batean bihurtzen da, lan profilen balioestea orain, langileen ofizio edo gaitasunen arabera egin beharrean, keinu haien arabera egingo delarik. Beraz, fordismoarekin, produkzio-kate zurrinak ezartzearen ondorioz, eragiketa sinpleen errepikapenean oinarritzen ziren lanpostuak nagusitu ziren eta langileen kualifikazioa, orokorrean, ekoizpen prozesuan ezinbestekoa izateari utzi zion. Horregatik, nola edo hala produkzio-kateko espezializaziorik gabeko lanekuak langile profesionalak ordezkatu zituelako, fordismoak berekin ofizioaren suntsipena ekarri zuela nabarmendu ohi da. Ildo honi jarraiki, Benjamin Coriatek Fordismoari eta taylorismoari buruz egin zuen azterketa sakonean, patroiek berek, ofizioaren aurka egitea edo ofizioa ahultzea helburu izan zutela ikusten ahal da<sup>307</sup>. Azken batean, ofizioa, kapitalaren metaketarako oztopo bat baino ez zen: alde batetik, jakintza baten menderatzea suposatzen zuen heinean, ofizioak, langileek ekoizpen prozesuaren gaineko kontrola izatea ziurtatzen zuten; bestetik, ekoizpen prozesuaren gaineko langile kontrola ziurtatzen zuelako, hain

<sup>305</sup> Ikusi, José Babiano, "Las peculiaridades del..." Op. Cit. eta *Paternalismo industrial y...* Op. Cit.

<sup>306</sup> José Babiano, *Paternalismo industrial y...* Op. Cit., 9 orr.

<sup>307</sup> Benjamin Coriat, *El taller y el cronómetro: ensayo sobre el taylorismo, el fordismo y la producción en masa*, Siglo XXI, Madril. 1982, 16 orr.

zuzen ere, langile antolaketaren, erresistentziaren eta indarraren giltzarria zen<sup>308</sup>. Lanaren antolaketarako metodo berriak, zentzu honetan, ofizioa ekoizpen prozesuan ezinbesteko elementua ez izateko tresna eraginkorrenak izan ziren, langileriaren prestakuntzaren galera prozesu orokortuari bide eman baitzioten. José Babianok adibidez, desarrollismo frankistaren garaian Madrilen sortu zen langile klasea gutxi kualifikatuzat jotzen zuen, paradigma fordistaren ezarpenak, hots, ekoizpen prozesuaren zatikatzeak eta lana eragiketa sinplifikatueta banatzeak, horretan zerikusirik izan zuela azpimarratzen zuelarik<sup>309</sup>.

Beraz, lanaren antolaketarako modu berriek langileengan eragin handia izan zutela esan daiteke, ofizioak ematen ziren berezko izaera kendu ostean, etenik gabe funtzionatzen zuen makineria baten pieza huts bihurtzen zituelako:

Fabrika batera lanera sartzan zaren, zure ikasketak desagertzen dira: ez zara bakarrik zenbaki hutsa zarela, makinaren zati bat zara ere, zure ikasketak ahazten zaizkizu [...] eta jada ez zara hortik [fabrikatik] ateratzen eta zure ikasketak desagertu dira, dena desagertu da. Eta astotu egiten zara, tailerretan jendea astotu egiten delako, esan beharra dago hori ere, ez da inolaz ere erromantikoa, jendea izugarri astotu egiten da. [R.U.. Automobilgintzaren alorreko Authi fabrikako langilea]

Kontua zen fordismoak langile kualifikatuak behar ez zituela eta produkzio-kateetako eragiketa desberdinetan espezializatutako langileekin nahikoa zuela. Beraz, fordismoarekin batera, langile profil berriak agertu ziren eta fabriketan barna, inolako prestakuntzarik ez zuten peoi hutsak edo gutxieneko kualifikazioa zuten peoi espezialistak nagusitu ziren. Orduan lan merkatura sartzan hasten ziren sektore berriek, nekazari emigranteek, emakumeek eta gazteek, halako laneku bat sortzeko lehengaia ematen zuten gainera<sup>310</sup>. Peoien profil hauen gailentzea agerikoa izan zen, adibidez, Madrilen, non José Babianok jasotako datuen arabera, peoi espezialisten kopuruak, ofizialena alde handiz gaintzen zuten<sup>311</sup>. Alta, kontutan hartzekoa den salbuespen bat ikusten ahal da metalari buruzko datu horietan bertan, peoi espezialistak gailentzen diren arren, lanekuaren kualifikazio maila sektore honetan, beste edozeinetan baino altuagoa baita orokorrean<sup>312</sup>. Gure kasuan, metalaren sektoreak nafar egitura industrialean zuen erabateko nagusitasunak eta Lanbide Heziketaren garapenean egin ziren ahalegin bereziek azaltzen dute, bereziki, eskola profesionaletan formatutako ofizialek subjektuen artean duten presentzia nabarmendua. Dena den, ez ofizialen presentzia garrantzitsu honek eta ezta 1960-1975 urteen artean teknikariek eta "lepo zuriko" langileek lanekuaren egiturari hartu zuten pisuak ere, ez zuten fordismoak orokorrean langileengan eragin zuen kualifikazioaren galera hura eten. Kontrari, hauek ere lanaren antolaketarako modu berriek lantokietan abiatu zituzten prozesuetan murgilduak izan ziren nola edo hala.

*Kronometrajea*, fordismoari berezkoa zaion beste oinarrizko elementua da. Produkzio-kateko eragiketa bakoitza burutzeko denbora tarte jakin bat xedatzean eta ezarritako denborak betetzen direla bermatzeko, langileen mugimendu guztiak

---

<sup>308</sup> Benjamin Coriat, *El taller y el...* Op. Cit., 13 orr. AEBtako adibidea jartzen du. XIX. Mendean, bertako langile erakunderik garrantzitsuenean, *American Federation of Labor* delakoan, afiliazioa ofizioaren arabera zen erabatean, espezializatu gabe langileak baztertu egiten zirelarik ere.

<sup>309</sup> Ikusi José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 113-122 orr.

<sup>310</sup> Benjamin Coriat, *El taller y el...* Op. Cit., 112 orr.

<sup>311</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 115 orr.

<sup>312</sup> *Ibid.*, 117 orr. Hala ere, autoreak maneiatzen dituen metalaren datuei ñabardurak egiten dizkie, sektoreko langile kualifikatuaren kualifikazioa, berez nahiko murrizta baita: hauen %84ak lehen hezkuntzako ikasketak baino ez ditu, %8,9ak oinarrizko batxilergoa eta soilik % 4,6ak lanbide heziketa.



neurtzean funtsatzen da. Lanpostuen definizio eta balioeste zurruna bezala, denboraren neurketak honek ere, eragina izan zuen langileengan, erabatean eraldatu baitzuen lanean aritzeko modua. Kronometroa fabrian sartzearekin, langileek, ekoizpen prozesuaren gaineko kontrola ematen zien bigarren elementua galdu zuten, denbora. Izan ere, eragiketa bakoitza burutzeko denbora neurtuak finkatzeak, lan errendimenduaren gaineko kontrola langileei kentzen zien eta kronometroaren (eta kronometratzaileen) bitartez, enpresaren zuzendariari eman zion. Zentzu honetan, kronometroa, lanaren erritmoa markatzen zuen heinean, lanaren eta ekoizpenaren erritmoa kontrolatzeko eta langileak mendean hartzeko tresna izan zela esan daiteke<sup>313</sup>. Lehenbiziko helburua lortzeko, denboraren-neurketa, langileen errendimendua eta soldata elkarlotzen ziren. Oinarritzko soldatak oso baxuak zirenez, finkatutako denborak lortzeagatik ematen ziren ordainketa pizgarri edo osagarriak, langileei lan-erritmo jakin bat ezartzeko elementu oso eraginkorrak ziren, osagarriak lortzearen, langileek berek euren buruari lan egiteko erritmo biziak ipintzen baitzizkieten. Bigarren helburua lortzeko, denbora eta produkzio helburuak betetzen ez zituzten langileak zigortzen ziren. Alde batetik, ordainketa pizgarrien sistemak, berez, produkzio erritmo baxuen zigortzea ekartzen zuen berekin, erritmo baxuek ez baitzuten ordainsaria jasotzeko aukerarik ematen; bestetik, pieza akastunek ere zigorra ekartzen zuten berekin, balio gabeko piezak, ordainsaria kobratzeko bete behar ziren ekoizpen helburuetan zenbatzen ez zirelako<sup>314</sup>. Aldi berean, denborari eta ekoizpenari arreta jarri behar izatetik eratorritako ezin lasaitze honek, langileen gaineko kontrola areagotzen laguntzen zuen. Guzti honekin, kronometrajeak, ekoizpen prozesuaren gaineko kontrola, lan jardueraren gaineko kontrola, langileen denboraren gaineko kontrola eta langileen beren gaineko kontrola ematen zion kronometroa maneiatzen zuenari.

Denboraren neurketak, hartara, kontrol zorrotz baten mendean egotea suposatzen zuen langileentzat. Fabrikan zeuden momentu oro, kronometroaren kontrolpean zeuden, finkatutako denborek, euren mugimendu guzti-guztiak baldintzatzen baitzituzten. Esate baterako, koefiziente bat erabilia, jarduera jarraituak errendimenduan sorrarazten zuen nekearekin galduko zen denbora eta are langileek euren behar fisiologikoak asetzeko behar izango zutena aurreikusten zen, kronometroak nekea eta komunean emateko denbora ere neurtzen zituelarik<sup>315</sup>. Gure iturrien testigantza desberdinek, denboraren neurketak langileengan kontrolatuta eta menderatuta izatearen sentipena sortzen zuela erakusten dute:

Egun batean, pertsonal-buruak, euren egitekoa amaitua zuten bost edo sei [langile topatu zituen erretzen]. Produkzio sistema kontrolatu batean geunden, Bedaux zuen izena, eta pieza bakoitzak denbora bat zuen, hau da, denbora tarte horretan hainbat puntu egin behar ziren eta puntu horiek hainbat zentimoko balioestea zuten. Gutxienekoa orduan 60 puntu ateratzea zen, gehiena 90. Azkenean guztiok 90ak ateratzen genituen eta orduan ba, jendeak amaitzen zuenean, pizgarria kobratzeko egin beharrekoa burututa, erretzen zutenak, komunera joaten

---

<sup>313</sup> Coriatek honi "kronometroaren dimentsio soziala" deitu zion. Benjamin Coriat, *El taller y el...* Op. Cit., 13 orr.

<sup>314</sup> "Hemen ordainsarien arabera lan egiten da, eta haiek bilatzen duten materialaren edo makinaren akats txikienarengatik ere, ordainsaria kentzen diete eta inori, horretarako arrazoirik ez dagoela uste izateagatik, haiengana [ordainsaria] eskatzera joatea eta ozenago hitz egitea bururatzen bazaio, soldatarik gabeko zortzi edo hamabost eguneko zigorra ezartzen zaio, hau da, [ordainsaria] lapurtzen diete eta gainera zigortzen dituzte eta hitz itsusiekin mehatxu egiten diete, langileak gaizkileak izango balira bezala". "Carta desde Estella (26-11-1965)", Archivo Histórico del Partido Comunista-Alderdi Komunistaren Artxibategi Historikoa (hemendik aurrera AHPC-AKAH), La Pirenaica posta fondoa, 190. kutxa.

<sup>315</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 98-99 orr.

ziren, erretzera. Eta arraioa, [hauei] ohartarazte bat bidali zieten idatziz. [J.M.M. Harakintzaren sektoreko Mina fabrikako langilea]<sup>316</sup>

Hasieran, Torfinasaren lehenbiziko urteetan, lanerako erritmoak, kontrola, askoz ere... ez ziren horren estuak. Lehenbiziko urteetan ez ziren horren estuak. 70tik aurrera, gutxi gora behera, ekoizpen kontrolak hasten dira, denbora-neurketak hasten dira... fabrika honetan gutxienez. Denbora-neurtzeak hasten dira eta zortzi ordutan, nahi ta nahiez, atera behar duzun produkzio mota bat ezartzen dizute. Lehen ere, lehenbiziko urteetan, horrelako zerbait bazegoen, baina ordukoa... arinagoa zen, ez zuen zigorrik ekartzen produkzio hori ateratzen ez bazenuen... beno, eta arinagoa zen nolabait. Denbora-neurtzeak ezartzen diren momentutik, esan bezala 70 urtea izango zen, gauza askoz ere gogorragoa egiten da. Nahi ta ez hori egin behar da, bestela, soldata kolokan jartzen zen eta soldatak orduan oso baxuak ziren eta noski... [J.E.C.. Metalaren sektoreko Torfinasa fabrikako langilea]

Fabriketan, beno, nik lan egin dudanetan, kate-produkzioak daude, haiek esaten duten bezala, metodoak daude, metodoak non lanpostu bakoitzak neurkera bat dauka eta pausoak, mugimenduak neurtzen dizkizute; orduan, enpresariet beti, pausuekin engainatu gaituzte, ba, zure gaitasuna hobetu baduzu, denborak murriztu badituzu, [hobekuntza hori] jaten dute eta topeak eguneratzen dizkizute berriro, zortzi orduak, fisiologia beharrak asetzeko edota hamaiketako hartzeko tartekak kenduta, denak emanda lanean egon zaitezten. Ez bakarrik... hau da, beno, gure garaian horrela zen, zu engainatzen saiatzen ziren... eta gero, kontzientzia hartu eta horren aurka borrokatzen hasi ginenean, uko egiten zenuen, gezurra da, ez didazu ongi neurtu, denbora murriztu didazu, ez naiz iristen... beti eztabaidaren bat zegoen, beti. [J.M.E.. Metalaren sektoreko Super Ser fabrikako langilea]

Denboraren neurketa zorrotz honen arduraduna, fordismoak fabriketan ezarri zuen figura berri bat izan zen: kronometratailea, "erloju orratzak dituen langileburua"<sup>317</sup>. Kronometrataileak, lanaren antolaketarako metodo berrien aplikatzea bermatzen zuten langileak ziren; ekoizpen prozesuan eragiten zuten aspektu guztiak (atsedenaldiak, ekoizpen gehien eta gutxienerako uneak, langileen mugimenduak edota baldintza desberdinen pean eragiketa zehatz bat burutzeko beharrezkoak ziren gutxienerako denborak) aztertzen zituzten; eta kontrol orrialdeen eta kronometroaren bitartez, langileei lanerako erritmoa markatzen zieten. Kronometratailea, langileen gaineko kontrola modurik zuzenean gauzatzen zuen figura zen fabrikaren baitan eta horregatik, onarpen gutxi izan zuen beti langileen artean. Are gehiago, ohikoa izan zen langileek, denbora-neurketekiko euren arbuioa, kronometrataileen aurka eginez erakustea.

Denbora neurketekin eta hauek ezartzen zituzten lanerako erritmoek, diziplina berrindartu egin zuten fabriketan barna. Oso modu sotilean egin zuten gainera. Langileburuen edo begiraleen autoritatea, laneskua diziplinatzeke oinarritzko mekanismoa izateari utzi zion, produkzio-katearen eta makinaren erritmoa, langileak ekoizpen prozesuari lotuta mantentzen zituen heinean, askoz ere eraginkorragoa zelako. Azken batean, aipatu berri dugun bezala, denbora-neurketak, erritmoak eta ordainsariak elkarlotzerakoan, langileak berak ziren, kanpo autoritate baten beharrik gabe, lanari eta makinari menderatzen zitzaizkionak<sup>318</sup>.

Kateak eta kronometroak inpaktu handia izan zuten landa mundutik, zuzenean, fabrikara sartzen zen nekazariarengan. Honek fabrikari bizitzen zuen lan egiteko moduen eraldaketa prozesutik eratorritako esperientzia nagusienak, bi elementu hauei lotuta daude. Nekazariak, lanaldi askeagoetara eta lan jarduerari autonomoagoetara

<sup>316</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Iruñea, 2010-03-04.

<sup>317</sup> Izen hau, era adierazgarrian, José Antonio Pérezek eman zion. Jose Antonio Perez, *Los años del...* Op. Cit., 210 orr.

<sup>318</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 149 orr. eta "Las peculiaridades del"... Op. Cit., 80 orr.

ohituta zeuden eta fabrikan, lan egiteko modu erabat desberdin batekin topo egiten zuten, diziplinak eta mendekotasunak, autonomia eta askatasun horiek ordezkatzeko baitzituzten. Ordutegi zurrinak, sartu eta ateratzerakoan txartela sartu eta atera behar izatea edota denbora tarte batean pieza kopuru jakin bat egiteko zeregina, ordezkapen honen adierazle argiak dira. Halako aldaketek eragindako inpaktua are handiagoa izaten zen lurjabe izandako nekazari beregainen kasuan, izan ere, hauei bereziki zaila egiten zitzaien patroien baten, erloju baten edota makina baten diziplinari men egin behar izatea<sup>319</sup>. Menpeko izateaz lotsatu ere egiten ziren nolabait. Aurreko kapituluan ikusi genuen bezala, denboraren pertzepzioa nekaraziek bizitako lan egiteko moduen aldaketaren adibiderik adierazgarriena izan zen. Izan ere, fabriketako ordutegien zurruntasunak eta lan egiteko denboraren neurketak, gizarte nekazarietan denboraren nozioa ardatzen zuen “eginbeharraren orientazioarekin” apurtzen zuten erabatean<sup>320</sup>, lanean jardun beharreko denbora orain, eginbeharrak xedatu beharrean, patroiak xedatzen baitzuen.

Ez da erraza fordismoak langileengan izan zuen eragina hauek berek nola bizi izan zuten azaleratzea. Horretarako, zuzenean edo zeharka fordismoaz mintzatzen diren orduko langileen ahotsak aurkitu behar dira eta hori ez da lan erraza, iturri desberdin askotan arakatu behar delako. Langileek berek sortutako iturriak (langile erakundeek egindako txostenak edo adierazpenak adibidez) dira bereziki fordismoari buruzko langile ikuspegiak jasotzen ahal dutenak eta guk, hain zuzen ere haietariko batean, HOACeko GOES ikasketa talde bateko kide ziren langileek galdetegi bati eman zioten erantzunetan<sup>321</sup>, topatu dugu adibide interesgarri bat. Berauetan, fordismoak langileentzat oso ondorio negatiboak zituela salatzen zen eta hura, orokorrean, langileen gizatasuna eta duintasuna zapaltzen zuen sistema gisara deskribatzen zen: “geroz eta gehiago produzitzeko helburu bakarrarekin sortu diren produkzio kateetan, langilea makinaren esklabo bihurtzen da, haren degradatzea erabatekoa delarik”. Langile hauek ikusten zutenez, bereziki bi modutara zapaltzen zuen sistemak langileen gizatasuna eta duintasuna: alde batetik ekoizpen prozesuaren gaineko kontrola kentzen zien, hauek, edozein momentutan bazterrean uzten ahal ziren pieza huts bilakatzen zituelarik; bestetik, hauen makinarekiko erabateko menpekotasun bat sortzen zuen, langile izaeraren eta duintasuna, beti lan berbera egin behar izaterakoan langilea “despertsonalizatu eta automatizatu” egiten zelako, galtzen zelarik. Beraz, langileek, fordismoaren baitan pertsona izateari uzten ziotela eta produkzioaren zerbitzura egon behar zen tresna bihurtzen zirela sentitzen zuten, izan zere, “lanerako sistemak aukeratzeko ez dira langilearen giza harremanak kontutan hartzen, ez eta haren duintasuna [...] [eta orduan], produkzioaren zerbitzura dauden makinak izango balira bezala tratatuak izaten dira”.

Fordismoak ere bestelako prozesu garrantzitsu bat eragin zuen langileengan, lanekuaren homogeneousazioa. Langileak, egiazki, fordismoaren pean, ekoizpen prozesu beraren pean, produkzio-katearen pean, kronometroaren pean, makinaren pean, homogeneousatu egin ziren. Hau da, fordismotik eratorrita esperientziek, langileak

<sup>319</sup> Gabriel Imbuluzquetak eta Luis Sarriések, nafar enpresetako personal-buruen oroitzapenetatik azalatu zuten langileen sentimendu hau. Gabriel Imbuluzqueta eta Luis Sarriés, *Aquellos conflictos de...* Op. Cit., 39 orr.

<sup>320</sup> Eginbeharraren orientazioa, denboraren kontzepzio bezala, giza ikuspuntutik ulergarriagoa zen, langilea eginbehar egiaztatua zen jarduera batean aritzen zelako, lanaren eta bizitzaren arteko bereizketa arinagoa suposatzen zuelako eta ondorioz, ez zegoelako apenas lanaren eta “denbora pasatzearen” arteko gatazkarik. Edward Palmer Thompson, “Tiempo, disciplina de trabajo y capitalismo industrial”, Edward Palmer Thomson, *Costumbres en común*, Crítica, Bartzelona, 1995, 395-552 orr., 401-402 orr.

<sup>321</sup> Iruñeko “El otro Pensamiento Navarro” izeneko 73A GOESak 1963/1964 ikasturteko “La institución sindical” 2. galdetegiari emandako erantzuna, HOAC-HOACaren artxibategia (hemendik aurrera AHOAC-HOACA), GOES saila, 75. Kutxa.

nola edo hala berdinu egin zituzten. José Babiano adibidez, esperientzia homogeneizatzaile hau nabarmentzen izan du Comisiones Obrerasen sorreran langile katolikoek eta langile komunisten arteko elkarrekintza erraztu zuen faktore bezala<sup>322</sup>. Izan ere, fabriketan barna lan egiteko moduak eta lan baldintzak geroz eta homogeneoagoak egiten ziren heinean, langile katolikoak eta langile komunistak, “langile fordista” bezala berdinu ziren, konbergentzia fenomenoek bide emanaz. Azken batean, fordismoak lanekuaren baitako zatikatzeak desegin zituzten, ofizioko langileen eta ofiziorik gabeko langileen arteko, emigranteen eta bertako langileen arteko eta are industria langileen eta “lepo zuriko” langileen arteko homogeneizazio prozesu bat abiatuz.

Zentzu honetan, Babianok, ekintzaile katoliko eta komunisten profilak eta langile komisioren antolakuntza eredu bera nabarmentzen ditu fordismoak fabrikaren baitako langile mugimenduaren eta protestaren pizkundean izan zuen paperaren adierazle bezala. Ekintzaile sindikal nabarmenduenak, fordismoa paradigmazat zuten enpresa handietako langileak ziren eta orokorrean, fordismoak sortutako aipatu peoi espezialistaren profila azaltzen zuten. Zentzu honetan adierazgarria da, adibidez, 1962 eta 1965 urteen arteko JOCKeko zuzendaritza nazionalako kideak tornulari eta mekanikari bezalako ofizio fordistetan aritzen ziren langileak izatea edota 50. hamarkadan HOACKeko ikastaroetan parte hartzen zuen langile gehienak, kualifikazio apaleko langileak izatea<sup>323</sup>. Langile komisioren antolakuntza eredu, bere aldetik, zuzenean fordismoari lotutako sindikalgintza eredu bezala sortu zen. Izan ere, gerora agerikoa izango zen frankismoaren aurkako borrokaren osagaia alde batera utzita, fabriketan barna sortzen hasi zen langile erresistentzia, antolakuntza, protesta eta borroka, fordismoak ezarri zuen lan egiteko moduaren aurreko erantzun bezala sortu zen. Kronometratzaileen eta tailerretako analisten figurekiko langileen lehenbiziko arbuio jarrerak, honen adibide goiztiar eta adierazgarriak dira<sup>324</sup>, hauek, fordismoak berekin ekarritako denbora-neurketak, lan erritmoak eta diziplina zorrotza errefusatzen zirela adierazteko modu bat izan baitziren:

Gogoratzen dut behin, margoaren arduradun bat zegoela. Hozkailuak deskargatzeko erritmo bat zegoen, airetiko kate batzuetatik deskargatzen ziren. Eta gizon honek, bere kabuz, erritmoa igo zuen; [aldaketa] berehala somatzen zenuen, orduan 100 hozkailu deskargatu behar baldin baziren, orain 125 zirelako... eta orduan gogoratzen dut liskar handia egon zela horrekin, esperientzia horren ondorioz, fabrika gelditu genuen eta gizon hori bota egin zuten. [J.M.E.. Metalaren sektoreko Super Ser fabrikako langilea]

Fordismoa gainera, langile ekintza antolatuen aurrean ahul egiten zuten mugak zituen eta horregatik, erasotzeko erraza zen sistema zen. Paradoxakoa izan daiteke, baina langileei ekoizpen prozesuaren gaineko kontrola kendu eta hau patroiei ematen zien arren, langile ekoizpen-katearen erritmoaren eta diziplinaren menpe jartzen zuen arren, fordismoak, arazo handiak izaten zituen langileak gatazkaren markoan kontrolatzeko. Bestela esanda, fordismoa bera zen gatazka handitzeko, langileak harekin bat egiteko, egoera sortzen zuena. Alde batetik gatazka bera sortzeko aukera ematen zuen, langile asko fabrika bakar batean biltzen zituenez eta hauek prozesu homogeneizatzaile batetan murgiltzen zituenez, langile guztiek beretzat hartzen ahal zituzten aldarrikapenen inguruko borroka kolektibo indartsu bat ahalbidetzen zuelako. Bestetik, gatazkaren beraren garapenean, haren hedapena erraztu egiten zuen, ekoizpen-katearen puntu bakar bat eteteak prozesu osoari eragiten zionez, langile

<sup>322</sup> José Babiano, “Los católicos en el origen de Comisiones Obreras”, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 8, zkia., 1995, 277-293 orr.

<sup>323</sup> Datuak, José Babiano, “Los católicos en...” Op. Cit., 289 orr.

<sup>324</sup> Langileen figura hauekiko arbuio jarreraren adibide bat ikusteko, Italiako Fiat fabrikako langileen kasua, Nanni Balestrini eta Primo Moroni, *La horda de oro (1968-1977). La gran ola revolucionaria y creativa, política y existencial*, Traficantes de sueños, Madril. 2006, 38-39 orr.

gutxi batzuren ekintzak, sistema osoa erraz erasotzen zuelako. Fordismoak ezarri zuen lan egiteko modu intentsiboaren funtzionamendu egokia hein handi batean langileek gordetzen zuten diziplinaren arabera zenez, langileek, diziplina hau hausteko gaitasuna lortzen bazuten, fabrikaren baitan indartsu egiteko aukera izaten zuten<sup>325</sup>.

### 3.1.2 Lan harremanak, enpresaren barneko harreman eredu eta fabrikako giroa

Fabrikako errealitatera hurbiltzeko beste bide bat, langileek bertan bizitzen zuten giroa azalera da. Hori egiteko, fabriken eguneroko bizitzaren parte ziren elementu desberdinetan arreta jarri dugu: barne araudi zorrotzetan eta hauek bete ezean ezartzen ziren zigorretan, enpresaren baitan nagusi zen lan harremanen eredu hierarkikoan eta enpresa paternalismoan. Ikusiko dugun bezala, elementu guzti hauek langilea patrioiaren menpeko huts bat bezala definitu zuten, honek nolabait, bigarrenak lehenbizikoa esplotatzen zuela agerian uzten zuelarik.

#### *Autoritatea, araua, zigorra*

Eatonen hasi nintzanean, 69an sartu nintzen [...] ba jendeak ikastunak, arduradunek langileak, Erdi aroan bezala tratatzen zituzten eta langileek, ia guztien jatorria... herrikoa zenez, ba arduradunari edo dena delakoari "Jabe" esaten zioten, ez zen arduraduna, "Jabea" zen. [M.BU.. Automobilgintzaren alorreko Eaton fabrikako langilea]

Langileak patrioiaren menpe jartzearren, hauen jarrerak erabatean baldintzatzeko hainbat elementu erabili zen fabriketan eta tailerretan. Barne araudi zorrotzak eta zigorrak, oso eraginkorrak izan ziren horretan. Barne araudiek, esate baterako, fabriken funtzionamenduaren aspektu guztiak araupetzen zituzten, lan baldintzak xedatzen zituzten eta lantokiaren barne funtzionamendua definitzen zuten, zigorgarriak ziren langileen jarrera edota jokamoldeak zehaztuz: "*Zigorrekin lan egiten zen [...] eta milaka [zigor] daude, milaka epaiketa magistraturan: zigorrak, zigorrak, zigorrak, zigorrak... zigorrekin funtzionatzen zen, kastinguekin eta guzti*"<sup>326</sup>. Hauek langileak menpeko bihurtzeko ezinbesteko elementuak ziren, zigorraren mehatxuarekin, langileen portaerak enpresen araudietara egokitzea lortzen baitzen. Gainera, araua edo zigorraren definizioa oso argia ez izateagatik langile jarrera bati buruzko zalantzarik bazegoen, araudiaren aplikatzea, enpresaren irizpideen arabera egiten zen, egoeraren arabera edo pertsonaren arabera, hura malguki edo gogorki interpretatzen zelarik. Enpresaren ahalmen hau adibidez, langile antolakuntza eta protesta indartzen hasi zenean, langile militanteak zigortzeko edo kaleratzeko eta ordezkari sindikalak kargugabetzeko erabili zen<sup>327</sup>. Honek, are gehiago uzten zituen langileak patrioiaren nahiaren menpe.

Enpresetan indarrean zegoen lan harremanen eredu autoritarioa ere, langilea menpeko bihurtzeko ezinbestekoa zen. Enpresen antolakuntza moldea, hierarkikoa zen erabatean. Aginte lerroa, mailaz maila, lehenbizi zuzendaritzak, ondoren kudeaketa arduradunek, erdi mailako agintariek eta teknikariek eta azkenik,

<sup>325</sup> Ikusi, adibidez, Xavier Domènech, "La otra cara..." Op. Cit., 100-101 orr. eta José Babiano, "Los católicos en..." Op. Cit., 288 orr.

<sup>326</sup> J.L.D.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-11. José Luis Díaz Monreal historialaria da eta 2012, urtean Potasaseko lan gatazka eta grebei buruzko lan bat argitaratu zuen: *Las huelgas de...* Op. Cit. Lan hori burutzeko, Potasasen izandako zigor eta epaiketen espediente ugari begiratu zuen.

<sup>327</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 182-183 orr. Hala ere, autoreak berak adierazten duenez, zigor hauek askotan, zigortutako langileekiko lankideen begikotasuna eta elkartasuna aktibatzeke, hala nola lehenbizikoak bigarrenen erreferente bihurtu eta fabrikaren baitako lidergoak sortzeko balio izan zuten ere.

arduradunek, langileburuek eta begiraleek osatzen zuten. Langileak, figura guzti hauen autoritatearen pean geratzen ziren. Diziplina ezartzeko erabiltzen zen autoritarismoa edo langileen gainean gauzatzen presioa, autoritateak ematen zuen inposaketarako gaitasuna edota hierarkia markatzen zuten jarrerak eta hierarkia horri erakutsi beharreko begirunea, langileak menpeko zirelaz kontziente egiten zituen esperientziak ziren:

Eta zeure burua ikusten duzu, zure inguruetik, landatik, bidali zaituztela eta diziplina zeharo desberdin batean sartu zaituztela... eta gainera, garai hartan diziplina izugarria zen, izugarria[...] guk begirale batzuk genituen, [...] diziplina giro izugarri, kasik umiliagarri, horren adierazleak ziren nolabait. [J.S.M. Industria kimikoaren sektoreko Potasaseko meategietako langilea]

Enpresa beti saiatzen zen diziplina ezartzen, diziplina izugarria. [...] nik uste [diziplina] gogorra zela, mardula, latza, ezta? Bai, latza zen, tontoena ere arduradun egiten zutelako...bai hala zen...jende [tontoa] baina gogorra. [...] enpresaren partetik beti inposaketa eta diziplina... beti hala izan da, bai, bai, bai. Baina agian gure garaian gordinagoa zen. [P.O.. Automobilgintzaren alorreko Eaton fabrikako langilea]

Ba begira, zuzendaria pixkat halakoa zen... harreman zuzen gutxi zuen langileekin, noski, berak aginduak ematen zituen eta kito. Baina nik uste dut bazela pixka bat... ba ez dakit, paternalista bezala, lana ematen zizulako eta... baina beti dauden erdi mailako agintariak, talde-arduradunak edo produkzio arduradunak, ordea... bazegoen bat... "Tigrea" esaten genion, atean agertzen zenean, guztiak dardarka hasten ginelako, zezenaren arnasa garondoan sentitzea bezalakoa zen... orduan harremana txarra zen. Baina putakeriak egiten genizkien eta horrekin gozatzen genuen; ba, adibidez... piezak bero ateratzen ziren eta hortxe, pasabidean uzten genituen eta orduan, arduradun hori, "Tigrea", hartzera zihoanean, erretzen zen *-barre egiten du-* eta gu lanean jarraitzen genuen *-barre egiten du-* [...] Harremana txarra zen, autoritatean oinarritutako. Hau da, autoritatea oso nabaria zen. [M.G.. Metalaren sektoreko Torfinasa fabrikako langilea]

Fabrikari, disziplina, zuzendaria fabrikari agertzen zen eta guztiak "ea zer gertatzen den, ea zer gertatzen den" pentsatzen...adierazle bat da; edo pertsonal-burua agertzen zen... nik, aldez aurretik, ez nuen inon pertsonal-bururik ezagutu izan... eta berdin, pertsonal-burua agertu eta "ea zer gertatu den", "ea nork epelak hartzen dituen"... nagusiekiko beldurra tailerrean baino askoz ere bortitzagoa zen. [J.E.C.. Metalaren sektoreko Torfinasa fabrikako langilea]

Oso baldintza zailak ziren... eta oso hierarkizatuak; lan harremanak, adibidez, oso hierarkikoak ziren, agintean oinarritutakoak: zuzendaritza agintarietatik, ingeniarietara, lizentziatutako ingeniarien mailara; hemendik erdi agintarietara, teknikarien mailara; gero, beharrezkoak ziren arduradunetara... orduan dena oso hierarkizatuta zegoen, oso... [funtzionamendua] oso egiturarena zen, ezta? Hau da, inork ezin zuen ezer egin baimenik gabe, hau da, zuk ekimen pertsonal edo profesional bat burutu nahi bazenuen, ezin zenuen aurrera eraman zegokion agintariaren baimena jaso gabe [P.A.S. Industria kimikoaren sektoreko Potasaseko fabrikako langilea]

Aita Santua hor goian eta meza-mutila hor behean... ba hor [goian] zuzendaritza zegoen eta gu, meza-mutilen tokian. Halakoa zen harremana. Zuzendaria fabrikatik ibiltzen zenean "Chsssst, kontuz, kardinala datorrela" eta guztiak irmo jartzera [...] Haiek jainkoak ziren eta gu kaka bat. [...] hau da gu, bulegoa zapaltzerakoan jada galtzen ginen, ez zenekien non zeunden, ezta beste munduren batean ote zeunden, ez zegoen inolako harremanik... begira, gogoratzen dut bazegoela baten bat etxeko errotuluan "Ez dakit nor, Imenasako arduraduna" jarria zuena, ezta? horrenbesteraino. Hau da, begira hierarkiak [P.M.. Metalaren sektoreko Imenasa fabrikako langilea]

Bizkaiko JOCekeko militanteek 1972an ospatu zuten Begoñako Kontseilu Diozesiarrean aurkeztu zituzten ondorioek, barne araudiei, zigorrei eta harreman eredu hierarkikoari buruzko langileen ikuspuntu bat ematen digute: hiru elementuek, langilea zapaltzen zuen giro bat sortzen zuten fabriketan. Langileburu eta arduradunei buruz, adibidez,

“pezeta gutxi batzurengatik lankideak saltzen dituztela” eta “[langileak] zelatatzen dituztela eta geroz eta gehiago lan egitera behartzen dituztela” esaten da, hauek langileak zapaltzen dituen figura gisara deskribatuz. Araudi eta zigorrore buruz, langileen portaerak baldintzatzen eta epaitzen zituztela esaten da. Esate baterako, “[...] behar haina produzitzen ez duzunean, araudia aplikatu eta zigortzen zaituzte” eta langileek zigorraren kontra protesta egiten bazuten, enpresak beti “araudiaren halako artikulua” esaldiarekin erantzuten zien, enpresaren legea, hauen gain, “saihestu ezinik jausi egiten” zelarik. Azkenik, langileek enpresa kapitalistaren baitan zuen lekuari buruz hitz egiten da, enpresa kapitalista “langileek ekoizpenari buruz erabakitzeke inolako ahalmenik ez izateko antolatuta” zegoela eta ondorioz, langileak, “eurak kontutan hartu gabe erabakiak hartzen dituzten nagusiek zapalduak” izaten zirela salatuz<sup>328</sup>.

Orokorrean, fabriketan bizi zuten egoerari buruz langileek berek egiten dituzten deskribapenetan, halako diziplina, menderatze eta zapalkuntza giroak azaleratzen dira<sup>329</sup>. Lizarrako fabrika batean, adibidez, langileen gaineko kontrola, fabrikako txoko guztietatik ibiltzen ziren eta xehetasun osoz langile bakoitzaren mugimenduen berri ematen zuten zelatarien bitartez gauzatzen zen, langileak, “atetik sartu bezain pronto, [hauen] zaintzapean” zeudelarik<sup>330</sup>. Azkoieneko enpresa batean giroa are gogorragoa zen, bertako barne erregimena, “hegoaldeko lur sail handietako” erregimen batekin parekatu ahal izateraino: ordezkari sindikal bat bazegoen, baina ez zuen apenas ezer egiten, “jaunei aurka egin ezin” zielako; enpresak langileei ezarritako arauetan, hiru oinarritzko printzipio aurreikusten ziren beti, “lan asko egin, ongi lan egin eta gutxi irabazi”; arau berriak ipintzen zirenean, ez zitzaizkien inoiz langileei jakinarazten eta hauen arabera zigortuak izaterakoan ezagutzen zituzten lehenbizikoz; zigorrak, orokorrean, oso zorrotzak ziren, apur bat berandu iristeagatik edota lankideekin mintzatzeagatik ere soldataren beherapenak ematen zirelarik<sup>331</sup>. Bi adibide hauekin, langileak, modu desberdinetara gauzatzen zen diziplina eta kontrolaren eraginez, fabriketan menderatuak sentitzen zirela ikusten ahal da nolabait.

Fabriketan barna, langileak oso modu sotilean menpeko bezala definitzen zituen bestelako elementu bat egon zen: langileak aginte lerroko karguetan aritzen zirenetatik bereizten zituzten desberdintasun sozialak. Enpresetan indarrean zegoen lan harremanen eredia hierarkikoa izatearekin batera, enpresa osatzen zuten giza elementuen egituraketa soziala, hierarkikoa zen ere. Hau da, gizarte egitura ikusten ahal ziren bereizketa sozialak, lanaren esparruan, fabrikaren egunerokotasunean, ikusgarri egiten ziren ere. Langile apalak zuzendariengandik, teknikariengandik, bulegoetako langileengandik eta langileburuengandik bereizten zituen estatus sozial desberdinak, hartara, adierazle ugari izan zituen, esparruen bereizketatik hasita, adiskidetasunetara iritsi arte. Bulegoa, adibidez, fabrikako giza elementuen estatus sozialak bereizten zituen (goikoak eta behekoak) muga sinboliko bat zen, baina honekin, aldagela, autobus edota jantoki bereiziek, desberdintasun sozialak agerian

---

<sup>328</sup> “XIV Consejo diocesano de JOC, Begoña (1972)”, JOCaren Artxibategia (hemendik aurrera AJOC-JOCA), Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. Kutxa.

<sup>329</sup> Deskribapen hauek, ahozko iturrietan ez beste, langileen ikuspuntutik sortutako dokumentazioan, hau da, langile erakundeetako (JOC, HOAC, PCE) artxibategietan aurkitu dugun dokumentazioan topatu dugu. Ildo horretan, JOCeko militanteen “bizitza berrikuspenak”, HOACeko GOESetako kideek galdetegiari emandako erantzunak edota entzuleek La Pirenaica irrati igorgailura bidalitako gutunak, langileek fabriketan bizi zuten egoera nola ikusten zuten azalertzeko baliagarriak dira.

<sup>330</sup> “Carta desde Estella (26-11-1965)”, AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondoa, 190. kutxa.

<sup>331</sup> “minutu bakar bat ere berandu iristen denari 30 pezetako beherapena egiten zaio [eta] behin bada ere solasean harrapatua izaten denari 60 pezetakoa; bati 100 pezeta kendu zizkioten behin eta beste behin, bi neskari lansari guztia”. “Carta desde Peralta (07-07-1965)”, AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondoa, 190. kutxa.

uzten zituzten elementuak ziren ere. Ildo berean, fabrikaren barnean sortzen eta garatzen ziren harremanek eta adiskidetasunek, bereizketa hauek sakontzen zituzten. Enpresek berek sustatzen zuten, hein handi batean, estatus sozial desberdinetako giza elementuen arteko inongo harreman pertsonalik ez izatea<sup>332</sup>. Honek, teknikarien eta langileen edota arduradunen eta langileen arteko erlazioetan autoritatearen printzipio mantentzea zuen helburu, izan ere enpresek, teknikari eta arduradunek langileen aldarrikapenekin edo ekimenekin bat egitea, autoritatearen printzipioaren haustura arriskutsutzat jotzen zuten. Hala gertatzen zenean, enpresak teknikari edo arduradun hauengain gauzatzen zuen presioa, haiek langileengandik desberdinak zirela oroitaraztera bideratzen zen gehienetan.

Gizon hau, garai haiek nolakoak ziren ikus dezazun, etxe bat zuen fabrikaren barruan, etxeko-morroiak eta zerbitzariak eta guzti zituen han; eta erronbodun galtzerdiak janzten zituen eta bisera eramaten zuen, golfean aritzera joango balitz bezala; eta horrela ibiltzen zen [fabrikatik]. [R.U.. Automobilgintzaren alorreko Authi fabrikako langilea]

[arduradunek] ez zuten langileekin adiskideterik, oso zorrotza zen horrekin; aldagela bereziak, autobus bereziak... hori arduradunek, agintariek... Berdin gertatzen zen Potasaseko herrixkan, hiru etxebizitza mota zegoen: langileentzako ziren etxebizitzak, teknikarientzako zirenak, goi mailako arduradunentzako zirenak... [J.L.D.M. Industria kimikoaren sektoreko Potasaseko meategietako langilea]

### *Enpresariak eta paternalismoa*

Langilearen gaineko kontrola eta hura diziplinatzeko ahaleginak, ez ziren bakarrik lanaren esparrura mugatu eta honen eta haren familiaren eguneroko bizitzaren esparruetaraino iritsi ziren ere. Enpresek abian jarritako langileekiko politika paternalista izan zen horretarako tresnarik eraginkorrena. Industria paternalismoa berez, laneskua erakartzeko eta langileria finko bat sortzeko enpresek martxan jarri zuten langileekiko politika asistentziala izan zen, mota askotariko onura sozialak eskainita, langile haien onespina lortuko zutela eta leialtasun bertikaleko loturak sortuko zituztela pentsatzen baitzuten<sup>333</sup>. Langileen gaineko kontrola gauzatzeko beste modu bat zen.

Frankismoaren lan harremanen markoan paternalismoaz mintzatzea ordea, konplexua izan daiteke. Izan ere, marko hartan berez, paternalismoa jada ez zen laneskua erakartzeko, diziplinatzeko eta kontrolatzeko funtsezko tresna bat eta horretarako orain, bestelako mekanismoak zeuden. Adibidez, nekazal exodoaren kontestuan, enpresek ez zuten laneskua erakartzeko inolako estrategiarik behar,

---

<sup>332</sup> Enpresa zuzendaritzetatik banaketa hau sustatu egin zen arren, estrategia honek ez zuen beti aipatu helburu hau lortu. Harremanak egin ziren eta ez ziren bakarrik fabrikaren esparruaren baitako borrokak partekatu, militantziarako esparruak (apostolutza mugimendu sekularrak, fabrika komisiok) partekatu ziren ere. Inquinasa fabrikako langile komisiok adibidez, produkzio saileko langileekin batera, bulegoko langileek parte hartzen zuten.

<sup>333</sup> Praktika paternalistek, zentzu honetan, "lan komunitatearen" ideia indartzen laguntzen zuten. Lehenbiziko kapituluan ikusi genuenez, erregimenak, lan harremanen markoa definitzerakoan, langileak eta enpresariak interes komun bakar baten, hots, interes nazionalaren, menpean jarri nahi izan zituen. Eragile sozioekonomiko desberdinek, hartara, lan komunitateak sortzen zituzten, non interes nazionalen izenean, langileen eta enpresarien arteko elkarlana sustatzen zen. Klase borroka gainditzeko eta langileak jomuga iraultzaileetatik aldendu eta integratzearen bidetik eramateko modu bat zen. Praktika paternalistak orduan, leialtasun bertikaleko loturak sortzea eta honekin bake soziala mantentzea helburu zuten heinean, "lan komunitatea" indartzen laguntzen zutela esaten ahal da, "lan komunitatearen" ideiarenean eta paternalismoaren arteko lotura atzematen ahal delarik. Hala ere, lan komunitatearen ideia ez da izatez faxismoari edo korporatibismoari berezkoa zaion zerbait, are gutxiago langileak haren parte izatera behartuta daudenean. Honela, orokorrean, "Lan komunitatea" berez langile mugimendua bideratzeko bitarteko bat da, baita demokrazian ere.



emigrazioak berak eramaten baitzuten etengabe langileak fabriketara. Adibidez, fordismoaren ezarpenaren kontestuan, enpresek ez zuten langileak diziplinatzen halako neurri berezirik martxan jarri behar, fordismoak berak, ekoizpen katearen bitartez, kronometrajeen bitartez eta lan erritmoen bitartez, diziplina bermatzen baitzuen. Adibidez, estatu frankistaren markoan, errepresioa edota Sindikatu Bertikala bezalako tresnekin, neurri paternalistak bigarren maila batean geratzen ziren langileen gaineko kontrola gauzatzeko tresna bezala. Paternalismoak, laneskua kudeatzeko politika bezala, indarra galtzen zuela esan daiteke nolabait.

Izan ere, ezin da ukatu frankismoaren bitartean oraindik paternalistatza jotzen ahal diren praktika anitz egon zela. Diktaduraren lehenbiziko urteetan bereziki agerikoak izan ziren, langileen eta ekoizpenaren gaineko kontrola lortzeko beharrezkoa zen kontsentsua ezartzen laguntzen zutelako<sup>334</sup>. Baina 60. hamarkadan, lanaren antolaketa modu fordisten eskutik laneskua kudeatzeko eredu berri bat nagusitu zenean, praktika paternalistek, enpresen barne politikan nola edo halako jarraipena izan zutela ikusten ahal da<sup>335</sup>. Adibidez, HOAC eta JOC bezalako erakundeek fabriketan barna garatzen hasi ziren langile jardueraren ardatzetako bat, neurri paternalisten aurka egitea izan zen, halako politikak oraindik indarrean zeudelaren seinale.

Frankismoaren bitartean ikusgarria izan zen langileekiko politika paternalista, estatuaren eskutik eta enpresariaren eskutik gauzatu zen. Erakunde Sindikala izan zen estatuaren paternalismoaren ordezkari nagusia, asistentzialismoan funtsatutako erregimenaren politika soziala gauzatzeaz arduratzen zen instituzioa baitzen. Erregimena klase umilenen babesletza aurkezteko eta langileen esker ona eta atxikimendua lortzeko, gizarte-ekintzetan oinarritutako asistentziatzako lan garrantzitsu bat eraman zuen aurrera. Aipatzekoa da, adibidez, “Educación y Descanso” deituriko gizarte ekintza. Izaera sasi-kulturaleko ekimen formatiboak eta aisialdirako kirol, folklore eta kultura jarduerak burutzen zituen, hauekin erakundearen eta langileen arteko harremana fabrikaz eta sindikalgintzaz haraindi zabaltzea bilatzen zelarik. Honekin, “Obra Sindical del Hogar” deiturikoa, halako gizarte-ekintzen beste erreferenteetariko bat izan zen. Etxebizitzaren arazoarengatik kezka azaldu nahian eta hura konpontzeko ahaleginak egiteko prest zegoela erakutsi nahian, ekintza honek langileentzako etxebizitza multzoak eraiki zituen, langileen artean erakundearekiko onspena eta atxikimendua errotu asmoz. Baina fabrikaren baitan langileek bizi zituzten giroetatik hurbilago daudenez eta enpresari eta langileen arteko harremanen aspektuetariko batenez, jarraian, enpresetan aplikatu ziren politika paternalistetan jarriko dugu arreta.

Praktika paternalisten bitartez, enpresek, langileen gaineko euren eragina, langileen bizitzaren alor desberdinetara, kontsumoaren, etxebizitzaren, hezkuntzaren edota aisialdiaren alorretara, zabaltzerik izan zuten. Praktika paternalista artean, besteak beste, honako hauek nabarmentzen ahal ditugu: mutualitate edota sorospen kutxen sorrera; jantokien eta ekonomatuen martxan jartzea; enpresako eskola profesionalen irekiera, lehen hezkuntzako ikastetxeen sustapena edota langileen seme-alabentzako beken kontzesioa; osasun zerbitzuen eskaintza; aisialdi

---

<sup>334</sup> Autore honek aipatzen duenez, 1938-1958 bitartean, paternalismoa eta militarizazioa, fordismoa ezartzeko beharrezkoa izango zen laneskua diziplinatzerako funtsezko elementuak izan ziren. Ikusi José Babiano, *Paternalismo industrial y...* Op. Cit., 14-16 orr.

<sup>335</sup> Jose Antonio Perezek, adibidez, garai honetan Bizkaiko enpresek martxan jarri zituzten hainbat praktika paternalista azalera ditu, *Los años del...* Op. Cit., ikusi 191-200 orr. Batez ere 198 orr. 33. Taula: “Obras sociales de las empresas siderúrgicas vizcaínas en el año 1968”. Bertan, zerbitzu medikoa, gabonsaria, etxebizitza, ekonomatua, bizi aseguruia, bekak, eskola, liburutegia, jantokiak edota txangoak bezalako neurriak ageri dira.

kolektiboaren sustapenerako kirol zein kultura jardueren antolaketa, hau da, kirol azpiegituren eraikuntza (futbol zelaiak, igerilekuak, frontoiak), jaialdien ospakizuna, liburutegi zerbitzuaren eskaintza, tabernaren irekiera; eta enpresako langileentzako etxebizitzaren eraikuntza. Hauekin batera, oso ohikoak izan ziren langile eta zuzendaritzaren arteko adiskidetze harremanak sortzea helburu zuten halako jarduera edo keinuak ere: bazkari, afari edota urteurren desberdinen ospakizuna<sup>336</sup>, *“Urtero elkartzan ginen gure patroia egunean, Santa Barbara egunean, Labrit frontoian, lunch bat ematen ziguten... enpresa zuzendariak antolatzen zuen; gizon hau oso paternalista zen, oso erlijiozalea, kristaudi ikastaroak egiten zituen eta orduan bere familia osoarekin etortzen zen eta bere emaztea, seme-alabak, ilobak gurekin nahasten ziren”*<sup>337</sup>; enpresa langilearen bizitzaren momentu adierazgarrietan presente egiten zuten adeitasun seinaleak, ezkontzaren edo seme-alaben jaiotzaren harira enpresak langileei egiten zizkien oparitxoak kasu; edota langileen seme-alabak eta are herrikideak enpresan lanerako hartzea bezalako mesedeak. Praktika guzti hauek, enplegatuen eta zuzendaritzaren arteko harremanak leialtasunaren printzipioaren arabera egituratzeko balio zuten. Gure iturriek, Iruñerriko enpresa desberdinetan halako neurri paternalistek funtzionatzen zutela azaleratu dute:

Eguberritan aperitibo bat egiten zuten... orduan industria habeartea prestatu behar genuen... gainera normalean bertan hotza pasatzen genuen, hotz handia eta eskularruekin eta guzti lan egin behar izaten genuen, berokiarekin eta guzti horrekin... eta orduan bertan mahai handi bat prestatu behar genuen enpresak Eguberritan ematen zigun aperitiboa jartzeko eta noski, egia esan... bai, lehenbiziko urtean, begira zeinen ongi, esaten genuen, ze jatorrak ardoa, patatak... ematen dizkigutela, baina gero... [I.N.. Papergintza eta arte grafikoen sektoreko Onena fabrikako langilea]

Minan, bazkaltzeko jantokiak zeuden. Minak bazkaltzekoa jartzen zuen, adibidez, solomo xerra on bat... [...] orduan guk esaten genuen enpresetan ematen zen halako paternalismoa... jaten ematen zigutela zirudiela. [J.M.M.. Harakintzaren sektoreko Mina fabrikako langilea]<sup>338</sup>

[...] langileen semeontzako [eskola] zen [...] [orduan hortik zuzenean fabrikara] pasatzen ginen eta [enpresak] pentsatuko zuen: “Claro, éstos, los hijos, los padres trabajando. Éstos, vamos, tienen que ser dóciles porque tienen al padre y nos tienen a nosotros para enderezarlos”. Baina azkenean gaizki atera zitzairen gu matxinatzen hasi ginelako[...] gero, grebak hasi zirenean, ba aitari xantaia egiten zioten ere. Zuzendaritzak deitzen zuen [eta esaten zion]: “oye que esta empresa como siga así se va a cerrar, porque aquí hay mucho revolucionario y uno de los peores es tu hijo”. Noski, etxean, bazkaltzen, [aitak esaten zidan]: “Oye ¿Esta huelga hasta cuando va a durar?” eta nik: “Pues durará lo que tenga que durar, hasta que llegemos a un acuerdo” [eta berak]: “Es que, la empresa se va a pique...” eta esaten diot: “¿Que pasa, que te han llamado?” eta: “Sí, ya me han llamado y me han dicho que dos días más de huelga o tres y que cierran la fábrica y todos a la calle”. Noski, zure aitarekin lanean... Gero ere oroitzen naiz asanbladetan nik langileak asko asaldarazten nituela eta aita begiratzekoan, pentsatzen nuen, gizon hau... etxera itzuli eta berriz ere eztabaida. [I.B.. Metalaren sektoreko Imenasa fabrikako langilea]

Nafar enpresariei garai honetan atzematen zaien gogo paternalista, 50. hamarkadaren amaierara arte Nafarroako industriak agertu zuen enpresa txiki eta familiarrez osatutako egiturarekin izan zuen zerikusirik. Tailer eta fabrika txikietan, patroia eta langileen arteko harremana zuzenagoa eta hurbilagoa zen eta honek, jarrera

<sup>336</sup> Adibide bat, “Ayer en Olite Inquinasa celebró sus bodas de plata. Todos los empleados de la empresa vivieron la jornada conmemorativa”, DN 24-09-66, 20 eta 5 orr. O s p a k i z u n e a n langileak eta zuzendaritzako kideak bildu ziren eta egitarauko ekintza guztiak partekatu zituzten. Jaialdi bat egon zen dantzari, herri kirol, omenaldi eta langileei eginiko opariekin; ondoren anaitasun bazkaria; eta azkenik dantzaldia eta zezenketa.

<sup>337</sup> J.L.D.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-11.

<sup>338</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Iruñea, 2010-03-04.

paternalistak, ohikoagoak egiten zituen bertan. Tailer txiki batean gertatutako ondorengo esperientziak, harreman hura nolakoa zen azaltzen du. Patroiek langileei, aitzak semeari ematen dion astesaria izango balitz bezala, San Ferminak ospatzeko opari eta aparteko ordainsari bat ematen zieten eta pertsonalki jai zoriontsuak oparitzen zieten:

Oso paternalistak ziren, ezta? Iruñean guztiok ezagutzen genuelako elkar eta hori, oso paternalistak, esplotatzen zintuzten baina maitasunez. [...] uztailaren 6an lan egiten genuen baina soilik hamabiak arte eta patroia hor jartzen zen eta bulegoko langilea hemen, gutun azalak kutxatxo batean zituela; gu banako ilaran jartzen ginen. Sobrea eman eta berak: “Bueno Don Jesús, que pase buenas fiestas” eta Romeo y Julieta bat ematen zion, puru bat. Eta nik esaten nuen, Arraioa! Bata diruaren gutun azalekin eta bestea puruen kutxarekin... eta nik pentsatzen nuen: gizon honek nire aitarentzako puru bate mango dit, ezta? Romeo y Julieta horietariko bat... gutun azala ematen didate, eskua jartzen dut eta plas! egiten dit [kolpe bat eskuan] “chaval, que tú no fumas” [R.U.. Automobilduntzaren sektoreko Authi fabrikako langilea. Bere lan ibilbidea tailer honetan “maca” bezala hasi zuen]

Halako harreman eta praktika paternalistak, enpresa handi askoren kasuan ere mantendu egin ziren. Felix Huarteren enpresa taldea da, zentzu honetan, adibiderik adierazgarriena. Imenasan adibidez, baieztatu ahal izan dugunaren arabera, halako praktikak, asko ematen ziren: langileen seme-alabei errege egunagatik egiten zitzaizkien oparietatik hasita, langileen seme ugari hartzen zituen eskola profesionaletik pasata, fabrikaren baitan eraiki ziren langileen aisialdirako espazioetara (futbol zelaia, igerilekua, taberna) iritsi arte<sup>339</sup>. Javier Paredesek, Félix Huarteren biografian, neurri paternalista hauek, langileen atxikimendua lortzeko estrategiekin baino, katolikotasunak eragindako enpresariaren pentsamolde sozialarekin lotzen ditu. Zentzu honetan, orduan praktika haiek, zaharkituak egoteagatik, denboraz kanpokotzat jotzen ahal baziren ere, Huarteren paternalismoa, hura enpresa gizon bezala definitzen zuten ezaugarrietariko bat zen berez<sup>340</sup>. “Instituto Nacional de Industria” (INI) delakoaren Potasas de Navarra enpresa ere, politika paternalisten aplikatzearen adibide adierazgarria izan zen, enpresako lehenbiziko zuzendaria izan zen Ramón Rotaechek, aipatu berri ditugun neurrietariko asko martxan jarri baitzituen. Historialaria eta Potasaseko langile ohia den José Luis Díaz Monrealen hitzetan, haren enpresaren kudeaketa eredu, argiki paternalista izan zen. Huarteren figurarekin gertatu bezala, Rotaecheren paternalismo hura haren katolikotasunarekin lotzen du bereziki eta “*Vatikano IIaren aipuetan, Aita Santuen entzikliketan edota agintari falangistek*

<sup>339</sup> Praktikak hauek prentsaren bitartez egiaztatzen ahal dira: enpresaren eskola profesionalaren sorrera, “Bendición e inauguración de la escuela de aprendices en la fábrica de Huarte y Compañía. Conmemoración de las bodas de plata de esta empresa”, DN 1952-12-02, 8 orr.; igerilekua, futbol zelaia, taberna, jantokia edota jolastokiak barne hartzen zituen langileentzako kirol-gunearen existentzia fabrika barrutian, “Álbum pamplonés”, PN 1955-01-19, 8 orr.; anaitasun jaien ospakizunak: “La celebración del día de la familia”, DN 22-08-1969, 11 orr. Ildo berean, Imenasako langileak izan ziren gure iturriek, halako praktikak oso ongi gogoratzen dituzte: “Gogoratzen dut enpresak, erregetan, erregeak antolatzen zituela eta langileon semeoi opariak egiten zizkigula, Olimpiara (orain Carlos III zinema), Gayarrera eramaten gintuzten eta... gero ere, San Pedro bezperan enpresak jai bat antolatzen zuen kirol zelaietan, afariarekin eta guzti. Kirol zelai bat zegoen, jatetxearekin, piztinezkin, frontoiarekin... [...]”. I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olaz, 2011-08-02.

<sup>340</sup> Javier Paredes, *Felix Huarte 1896...* Op. Cit., 410-411 orr. Autoreak jarraian jasotzen duen testigantza adierazgarria da zentzu honetan: “Felix Jaunari paternalista izatea egotzi zaio. Seguruena paternalista zen. Baina [...] ez dut uste Felix Jaunak bidegabeko soldata edo abusuzko lan baldintza eta Eguberrietako opariaren teoria erabiltzen zuenik. Huarteren enpresetan aurrera egin zuten profesionalak ezagutzen ditut, haiek eta euren familiek aurrera egin zuten. Felix Jaunak enplegua sortu zuen, Nafarroan inork ez bezainbeste; ongi ordaindutako lana zen eta gainera bere langileak beti gizatasunez, leuntasunez eta are bihotz onez (hori ere ziur dakit) tratatu zituen. Noski, enpresak bereak ziren, Felix Jauna ez baitzen komunista eta ez baitzuen sozialistek bezala pentsatzen”.

erabiltzen zituen 'ez kapitalismorik eta ezta marxismorik ere' bezalako esaldietan oinarrituta, langilegoari [enpresarekiko] ardura eta ekoizpen gehiago eskatzen" ziela aipatu ostean, gogo-jardunen antolaketa edota igandean meztara joateko baimena ematea bezalako neurriak zehazten ditu ere<sup>341</sup>.

Potasasek gauzatu zuen politika paternalistaren adierazlerik garbiena, Nafarroako herrietatik edota beste probintzietatik, zetorren langileria kokatzearen sortu zuen herrixka izan zen. Enpresa handi askok egin zuen bezala<sup>342</sup>, Potasasek hiri nukleo bat sortu zuen, Beriainen, industria gunetik oso gertu. "Nuestra Señora del Perdón" zuen izena, baina jendeak "Potasaseko herrixka" esaten zion. Proiektua eta eraikuntza, INlaren Gizarte Zerbitzuetarako zuzendaritzatik planifikatu zen eta enpresaren gogo paternalistan oinarritutakoa izateaz beste, eredu hierarkiko eta klasista batean funtsatzen zen. Izan ere, etxebizitza multzoak, enpresaren barne hierarkia egituraren arabera antolatuta zeuden: alde batetik, langileen etxebizitzak arduradun, ikuskatzaile eta nagusiei emanikoenak baino txikiagoak eta kalitate urriagoak ziren -goi agintarientzat txaletak, erdi mailako agintarientzat zonalde bereziak eta langileentzat etxebizitza sailak<sup>343</sup>-; bestetik, herrixkak azaltzen zuen esparruaren antolaketak, klasearen araberrako banaketa argia xedatzen zuen.

Bizitegigune honen lehen fasea 1964ko udan amaitu zen. Etxebizitzak eraikitzeaz gain, enpresak, oinarritzko zerbitzuekin hornitu zuen herrixka berria: zinema, ekonomatua, farmazia, ileapaindegia, arrandegia eta harategia bezalako zerbitzuak barne hartzen zituen eraikin nagusi bat, eliza eta lehen hezkuntzako eskola bat. Ondorengo urteetan, herrixka, hazi baino ez zen egin eta 1966rako, honelako itxura aurkezten zuen: "Zerbitzu moderno guztiekin hornitutako hiria da. Eliza dago, kasinoa, zinema, kontsultategia, lehen hezkuntzako eskolak, lanbide eskola... bizi-mailari dagokionean, telebista eta hozkailu kopuruak Unescok garapen bidean dauden herrientzat ematen duen batezbestekoa gainditzen du. Honako errealitatea, batzuek euren lana eta besteek euren kapitala jartzen duten komunitate bezala ulertzen den enpresaren zentzu sozialari esker lortu da. Teknikariak, agintariak eta langileak bizi diren herrixka berriak 1500 bizilagun baino gehiago ditu jada"<sup>344</sup>. Alta, enpresa epaimahaiak hasieratik arbuatu egin zuen proiektua eta honen aurrean, langileek etxera joaterakoan enpresan jarraitzen zutelako irudipena izan ez zezaten, Iruñeko zonalde ezberdinetan kokatutako eta kooperatiba erregimenean eraikitako langileentzako biziguneen eredia hobesten zuen. Herrixka ez eraikitzea lortzerik ez zuen izan eta enpresak zentzu honetan egin zuen kontzesio bakarra, Etxabakoitzen eta Burlatan berak erosi eta langileentzat alokairuan jarri zituen etxebizitzak izan ziren<sup>345</sup>.

Orokorrean, langileentzako etxebizitzaren eraikuntza, enpresa-paternalismoaren adierazpen agerikoenetariko bat izan zen. Harekin, zuzendaritzak, langileak kontrolpean edukitzea eta euren leialtasuna eskuratzea lortzerik zuen, oso lotura estua sortzen zelako langilearen eta enpresaren artean: etxea bera. Izan ere, etxebizitza

<sup>341</sup> José Luis Díaz Monreal, *Las huelgas de...* Op. Cit., 26 orr.

<sup>342</sup> Enpresek sortutako hiri nukleo hauen inguruan ikusi Babiano, *Paternalismo industrial y...* Op. Cit., 163 orr.

<sup>343</sup> Desberdintasuna eta bereizketa etxebizitzaren tamainan agerikoa zen ere: goi agintarientzako txaletak berrehun eta hogeita bost metro karratukoak ziren, erdi mailako agintarientzako etxebizitzak ehun eta hemeretzi eta ehun eta hogeita hamar metro karratu artekoak, enplegatuentzako etxebizitzak hirurogeita hamabost eta laurogeita hamasei metro karratu artekoak eta langileenak hirurogeita hamar eta laurogeita sei metro karratu artekoak. José Luis Díaz Monreal, *Las huelgas de...* Op. Cit., 33.

<sup>344</sup> "La imagen de Santa Bárbara llega al poblado de Potasas de Beriain", DN 1966-12-03, 24 orr.

<sup>345</sup> José Luis Díaz Monreal, *Las huelgas de...* Op. Cit., 25 orr.

berez jabetzan enpresarena zenez, etxearen gozamenerako kontratua langilearen lan kontratuari lotuta geratzen zen zuzenean, lana galtzeko arriskuak berekin etxebizitza galtzeko arriskua ekartzen zuelarik<sup>346</sup>. Honekin politika paternalistaren helburu nagusienetarikoa bat erabatean lortzen zen, etxebizitzaren bitartez, enpresak, fabrikaz haratago zabaltzen ziren langileekiko loturak (leialtasunezko lotura bertikalak) sortzeko aukera baitzuen. Kontutan izan behar dugu gainera, hiriak hazten ari ziren eta klase apalenentzat etxebizitzaren arazoa larriagotzen ari zen momentu batean, enpresarenak ziren etxebizitza hauek, uko egin ezin zitzaizkien eskaintza zirela.

Etxebizitzaren eraikuntzarako politika honek, nolabait, helburu propagandistikoa izan zuen ere. Halako ekimenekin, enpresek, gizartearen aurrean eta langileen aurrean, familia zabal eta harmoniatsu baten irudia proiektatzeko eta langileen ongizateaz kezkatzen zirela eta hauei babesa ematen zietela erakusteko aukera zuten. Industria kimikoen sektoreko Inquinasa enpresak, bere langileentzako bi etxebizitza multzo eraiki zituen fabrikaren inguruan 1954 eta 1958 urteetan. 1954ean lehenbiziko multzoa inauguratu zenean gerentea zen Manuel Zarranzek egindako mintzaldian adibidez, enpresak proiektatu eta erakutsi nahi zuen hori oso garbi ikusten da: *“Enpresaren gogoan lehen fasea da. [Honetan enpresak] langile eta enplegatuen arazoekin bat egingo du eta maitasun osoz arreta jarriko die, bere helburu lehena langileek eta enpresariak elkarrekin familia berean bizitzea baita”*<sup>347</sup>. Trukean, langileek biziki eskertu behar zuten enpresak haiei eta euren familiei emaniko laguntza eta babesa.

70. hamarkadaren hasieran, nafar mugimendu sindikalaren eta langile gatazken lehen goraldiaren kontestuan, Erakunde Sindikalak, biziki gaitzetsi zuen fabrika askotan oraindik ikusten ahal zen enpresariaren paternalismo hau<sup>348</sup>. Nafarroan industria handi eta berriak zuzentzeko esperientzia profesionalik ez zegoenez, enpresa txiki eta familiarren tradizio paternalistaren zantzuek oso nabariak izaten jarraitzen zuten<sup>349</sup>. Honek erabatean baldintzatzen zuen enpresariaren jarrera sindikala, izan ere, sindikatu frankistak berak salatzen zuenez, paternalismoak eragiten zuen nafar enpresariaren indibidualismoak, sindikatuaren egiturekiko kolaboraziorik ez izatera eta hauek arbuiatzera eramaten zituen. Azken batean, enpresariak, fabriketan elkarbizitza harmoniatsu eta familiar bat bermatzearen eta lan gatazkek ekiditearren, langileekin komunikatzeko, Erakunde Sindikalaz kanpo kokatzen ziren bideak (legez kanpo

---

<sup>346</sup> Honela, langileen eta patroien artean egiten ziren enpresaren etxebizitzaren gozamenerako kontratuak, lan gatazken bitartean, langileengain presioa egiteko erabili izan ziren maiz. José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 200 orr.

<sup>347</sup> “Bendición y entrega de 20 viviendas protegidas a los empleados de Industrias Químicas de Navarra”, DN 1954-07-07, 9 orr. Lau urte beranduago, etxebizitzaren eraikuntzaren hurrengo fasearen inaugurazioan, antzeko hitzak errepikatu zituen, enpresak “langileen baldintza ekonomiko eta moralak hobetzen laguntzeko” proiektu handiak zituela esanez. “Anexión del término de ‘Larrascuntzea’ a Pamplona. Inauguración de viviendas de Inquinasa”, DN 1958-10-05, 1 eta 8 orr.

<sup>348</sup> Are gehiago, Erakunde Sindikalak enpresariak berek langile mugimenduaren indartzea eta egoera gatazkatua sustatu egin zutela uste zuen. Hori izango da 70. hamarkadaren hasiera hartan hainbat txostenetan defendatuko zuen tesia. Adierazgarriena, 1971ko “Informe sobre la situación político-social de Navarra y sus antecedentes”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>349</sup> “[...] ez zuten tradizioz. Normalean jabeak ziren [...], enpresa kudeaketan espezializatutako zuzendari izan beharrean. Are gehiago, enpresariaren mentalitatea, benetako enpresa gizonaren mentalitatetik baino, merkatariairenekin mentalitatetik gertuago dago. Tailerretik fabrikarako trantsizioak agerian utzi zuen, enpresari katalan, euskaldun edota asturiarren aldean, esperientzia ez izateagatik edota enpresari klaseak faltan zuten tradizio nafarren gaitasunik eza”. “Informe sobre la situación político-social de Navarra y sus antecedentes”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa

zeuden negoziazioak eta hitzarmenak, esaterako) bilatzen zituzten<sup>350</sup>. Erakunde Sindikalak, 60. hamarkadaren bitartean Nafarroan sortu zen sindikalismo berria, hain zuzen ere enpresariak eta euren paternalismoak sustatu zutela iradokitzen zuten; langileen aldarrikapenei eta liderrei bide emanez, fabrikaren esparruan jarduera sindikala garatzeko aukera sortu baitzuten<sup>351</sup>. Zentzu honetan, sindikatu frankistarentzat, 1971 urtean Nafarroak bizi zuten lan gatazka egoera orokortuaren erantzule lehenak, enpresariak ziren, paternalismoan oinarritutako langileekiko harreman moldeei eutsita, hauek mahuka zabaleko politikara batetara ohitu zituztelako. Honela, 1971an, aurreko hamarkadaren bitartean sortu eta garatu zen mugimendu sindikala indarrarekin azaleratu zenean eta lan gatazka gogorak abiatu zituenean, euren politika paternalistaren hutsegiteak azaleratu ziren, izan ere, *“Enpresariak gaur larrutik ordaintzen dute legezko egitura [sindikalen] aurkako joerak babesteagatik, langileek enpresa barnean gatazkarik egin gabe eskerrak emango zizkietela uste izanaren akatsa”*<sup>352</sup>.

Zenbait fabriketan, 60. hamarkadaren bitartean, zuzendaritzaren eta langileen arteko komunikazio kanalak eta negoziazio pribatuak egiazki existitu egin ziren. Enpresariak, langileen behar eta arazoak ezagutzeko hizketakide bat izatearren langile taldeak sustatu zituzten eta Erakunde Sindikalak ohartarazten zuten bezala, hauek, lehenbiziko nukleo antolatuak sortzeko hazia izan ziren nolabait. Halaxe gertatu zen adibidez Huarte enpresa taldeko Torfinasa fabrian. Zuzendaria *“Gizon paternalista zen, gauzak berak egin nahi zituelako egitea gustatzen zitzaion eta harmonia egotea bilatzen zuen”*<sup>353</sup>. Horretarako, langile talde bat osatu zuten eta fabrikako arazoak ezagutzeko, harekin bilerak egiten hasi zen. Bilkura hauetan landutako gaiak, kezkak eta proposamenak berez lotesleak ez ziren arren, fabrikako langileentzat, bereziki talde horretan ibili zinenentzat, antolakuntza entsegu interesgarria izan ziren. Gerora, talde horren inguruan ibili zen hainbat, fabrikako langile komisiorekin aitzindari izan zen<sup>354</sup>.

### 3.1.3 Lan baldintzak

Lan baldintza orokorrek, fabrikaren barnean langileek bizi zuten errealiterako hurbilpen hau osatzen dute. Fordismoak ekarritako lanaren antolaketa molde berriekin eta fabrian nagusi zen giroarekin batera, langileek euren lana burutzerakoan topatzen zituzten baldintzek, hots, segurtasuna eta higiena, lanaldien iraupena edota lan jarduera ordainketa (soldatak), langileen lan esperientziak baldintzatu zituzten elementuak izan ziren ere.

#### *Segurtasuna eta higiena.*

---

<sup>350</sup> “60. hamarkadari berezkoa ez zitzaizkion molde paternalistekin, euren enpresetan arazoak saihesteko, [...] langileen aldarrikapen guztiak aintzat hartzen zituzten [...] kontratazio kolektiboa alde batera uzten zuten ‘hitzarmen pribatuak’ eginez eta langile liderrak ohi ezbezala zainduz [...]”. “Informe sobre la situación político-social de Navarra y sus antecedentes”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa

<sup>351</sup> “Azkeneko hiru urteetan probintzian gertatutako greba politiko (Lege Sindikala, Granadako gertakariak, Burgoeko prozesua, amnistiaren aldeko jardunaldiak) bat beran ez dute enpresariak euren autoritate baliabideak erabili jokatu; are gehiago, greba hauek onartuak izaten dira, [enpresarentzako] momentu deserosoetan ez gertatzeko hitzartuta izaten ez direnean [...] Honela [...] langile mugimendu indartsu eta antolatua sustatu da”. “Informe sobre la situación político-social de Navarra y sus antecedentes”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>352</sup> *Ibid.*

<sup>353</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-11.

<sup>354</sup> *Ibid.*

Langileek fabriketan bizi zituzten lan baldintzak osatzen zituzten elementuen artean, aipatzekoak dira, hasteko, lantokietan pairatzen ziren segurtasun eta higiene arazoak. Makina arriskutsuekin lan egin behar izatea eta inolako babes sistemarik gabe egin behar izatea, material toxikoen erabilpena edota fabriketan zein tailerretan sortzen zen ingurumenaren egoera txarra -beroa, hotza, zikinkeria, zarata-, iturri askoren memorian betiko geratu diren langile errealitatearen zatiak dira:

[Iana] gordina zen, oso gordina. Nolakoa zen lana? Eskuzkoa. Eskuzkoa zen orduan ba... teknologia aurrerapen handirik ez zegoelako. Eta ...oso gordina zen, baldintzak oso txarrak ziren; zikina, fabrika zikina zen, hotz handia pasatzen genuen, bero handia pasatzen genuen [...] zorua garbitzen genuen, eta harginen pala horietarikoekin garbitzen genuen, pala horiekin zoruan zegoen zikinkeria guztia karraskatzen genuen, gero erratza pasa eta jasotzen genuen. Hau da, hori... [zikinkeria guzti] hori zen zapaltzen genuena. Edo olio labaintzaile askorekin lan egiten genuen, egun debekatuta dauden isurkarietan lan egiten genuen, adibidez trikloroarekin... trikloroa koipea kentzeko erabiltzen genuen. Trikloroa koipea oso erraz kentzen duen substantzia da; eta gogoratzen dut saski batzuk genituela, zuloak zituzten eta orduan piezak, torlojuak (orduan torlojuak egiten genituen) bertan sartu [...] eta koipea kentzen genien; trikloroz betetako ontzi batean sartzen genituen eta koipea kentzen genien; [...] eta isurkari hori nazkagarria zegoenean, koipez zikin-zikina, eta jada koiperik kentzen ez zuenean, estolda ireki eta botatzen genuen [...] Hau da, horiek ziren orduko lan baldintzak. Noski, eta gero ba, beno... gero esku zikin horiekin ogitartekoa hartzen genuen eta jaten genuen... [M.G.. Metalaren sektoreko Torfinasa fabrikako langilea]

Eta bertan amiantoarekin lan egiten genuen (orduan Ameriketako Estatu Batuetan debekatuta zegoela) eta maskarik gabe lan egiten genuen, urteak eman genituen maskarik gabe lan egiten; egiatan, hildakoak egon dira fabriketan amiantoa arnasteagatik [...] Askotan, lehengaia lantzeko zenituen baldintzak, zenituen erramintak... ba finean, izango ez bazenitu bezala zen, oso erraminta kaxkarrak ziren eta eskumuturra edota sorbalda txikitzen zizuten... pisu handiak hartu behar genituen: hozkailu ateak eta halakoak... [J.M.E.. Metalaren sektoreko Super Ser fabrikako langilea]

Ni hemen, landa munduan, oso gaizki bizi nintzen eta emigratu behar izan zuen; ikusi nuen hemen ez nuela [etorkizunik] eta beste norabaitera joan behar nintzela. Eta beste norabaitera iristen naiz eta egurra toki guztietatik ematen didate [...], kontxo! Lana bazen... hemen ez zegoela inolako segurtasunik, hemen eskua moztzen ahal zizun makina bat zegoen edota... ez zegoen inolako segurtasunik... zarata? Honela daukat nik belarria, bertan [fabriketan] zegoen zaratarengatik lur jota... lortu genuen 80 dezibelengatik soldata plus bat jasotzea (eta ordaintzen zizuten, baina belarria izorratzen jarraitzen zizuten)... eta zaratak kentzeko borroka egiten genuen, beroa kentzeko... [C.O.. Automobilgintzaren alorreko Authi fabrikako langilea<sup>355</sup>]

Berriro ere Bizkaiko JOCeko militanteek 1972an Begoñan ospatu zuten Kontseilu Diozesiarrean jasotzen den langileen egoerari buruzko deskribapenei eusten badiegu, segurtasuna eta higiena langileen artean kezka garrantzitsuak zirela ikusten dugu. Berauetan jasotzen denez, industria-instalazioen egoera kaxkarrarekin batera, langileen babeserako oinarrizko baldintzak (eskularruak, betaurrekoak, aurpegiko babesak edota burubabesak) bermaturik ez izatea jotzen zen lan istripuetarako faktore lehena; askotan ez ziren toxikotasunarengatik eta arriskugarritasunarengatik plusak ordaintzen; eta ingurugiroa, batez ere hotza eta beroa jasangaitzak zirenean langileen egoera fisiko eta psikologian zuzenean eragina zuen: *“Aire egokituak lana erraztuko zuen, horrenbesteko nekerik gabe burutu ahal izango baikenuke, baina momentuz, aire egokitua soilik nagusien bulegoetan ipintzen da”*<sup>356</sup>.

<sup>355</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Aisa, 2013-09-10.

<sup>356</sup> “XIV Consejo diocesano de JOC, Begoña (1972)”, AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. Kutxa.

Langileak babes neurrien beharrekiko sentikor egin zituen faktoreen artean, hauek enpresa epaimahaiek sortu zituzten segurtasun batzordeetan izan zuten partaidetza nabarmentzekoa da. Langileak berauetara sartu ziren arte eta berauetan segurtasunaren eta higienearen ikuskatzean parte hartzen hasi ziren arte, euren gaiarekiko kezka eskasa izan zen. Izan ere, langileek, batzordeen sorreraren aurretik segurtasun neurrien diseinuan parte hartzerik izaten ez zuten, enpresak hartzen zituen zuhurtasunerako neurriak, zuzendaritzak inposatutako diziplina neurritzat jotzen zituzten<sup>357</sup>. Euren ordezkariak batzordeetan sartu eta berauetatik langileen interesen alde borrokatzen hasi zirenean ordea, segurtasun eta higiena baldintzen aldeko kezka indartu zen, hauek bermatzeko eta hobetzeko neurriak aldarrikapen errepikariak izan zirelarik:

Borroka etengabea zen segurtasun eta higienearengatik, hau da, guzti horrengatik. Aldarrikapenak soldataren inguruan ere... soldata onak lortu ziren garai hartan, jendeak, borrokaren bitartez, lanpostu duina lortu zuen nolabait, ezta? Baina borroka egin behar zen... batez ere segurtasunarengatik. Gogoratzen dut Onenan, nahiz eta zentzu horretan arazo handiegirik ez zuen enpresa izan (ez zegoen heriozko istripurik, istripu txikiagoak ziren hatz mozketak eta halakoak) [...] borroka handia zegoela. Gainera garai hartan Segurtasun eta Higiena batzorde bat osatu genuen, enpresetan orduan osatzen hasi zirenen modukoa. Onenan medikua eta erizaina izan genituen, gerta zitezkeen arazoak konpontzeko. Baina borroka handia zegoen, batez ere segurtasunarengatik. Gogoratzen dut lehenbiziko urteetako makina haietan segurtasun gutxi zegoela, transmisio arrabolek ez zuten inolako defentsarik [...] defentsak [makinen] tarte arriskutsuak estaltzen dituzten baliabideak dira; [...] makina haietan, oso zaharrak zirenez, babesgarri gutxi zegoen eta jendeari agian mantala edo lanjantzia katigatzen zitzaion edo... eskua sartu eta [makinak] eskua zapaltzen zion, hau da... orduan askotan aritzen ginen segurtasunaren inguruan. Lan handia egin genuen [...] jendeari min egin ziezaiokeena ekiditeko. [PE.S. Papergintza eta arte grafikoen sektoreko Onena fabrikako langilea]

### *Soldatak eta lanaldiak.*

Soldaten bilakaerari buruzko datu estatistikoek frankismoaren bitartean hauen hazkunde jarraitu bat eman zela adierazten dute<sup>358</sup>. Hala ere, datuoi egiten ahal zaizkien hainbat ñabardurak, hazkunde hura langileentzat horren positiboa izan ez zela adierazten dute nolabait. Adibidez, soldaten hazkunde berez, hazkunde ekonomiko orokorra baino murriztagoa izan zela kontutan hartuta, hazkundeak eragindako aberastasunaren banaketarik eman ez zela ondorioztatzen ahal da. Era berean, langileen soldaten bilakaerari erreparatuz, bi ohar adierazgarri egiten ahal dira: alde batetik, soldaten hazkunde desorekatua izan zen, batezbesteko hazkunde horretan ertain klasea langileria baino mesedetuago irten zelako eta gobernuak inposatutako soldaten igoerarako mugek (1967ko soldaten izoztea, adibidez) desoreka haiek are gehiago nabarmendu zituztelako<sup>359</sup>; bestetik, soldata errealek ez zuten produktibitatean emandako hazkunde 1970. urtera arte bere egin eta orduan ere, mobilizazio sozial zein politiko indartsu baten kontestuan, oso maila apalean egin zuten<sup>360</sup>.

Soldaten osaeran eta honen bilakaeran eragina izan zuten faktoreetan garrantzitsuenetarikoa bat, lanaren antolaketa metodo berrien hedatzea izan zen. Ikusi dugun bezala, oinarrizko soldatak oso baxuak zirenez, ekoizpen prozesuaren eragiketa bat burutzeko finkatzen ziren denborak lortzeagatik ematen ziren ordainketa osagarriak, langileei lan-eritmo jakin bat ezartzeko elementu oso eraginkorrak izan

<sup>357</sup> José Antonio Pérez, *Los años del ...* Op. Cit., 114 orr.

<sup>358</sup> Ikusi José Babiano egindako soldaten bilakaerari buruzko azterketa, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 157-179 orr.

<sup>359</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit. 121 orr.

<sup>360</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, *Productores disciplinados y...* Op. Cit., 84 orr.



ziren. Izan ere, hauek lortzearren, langileek berek euren buruari lan egiteko erritmo biziak ipintzen zizkieten. Langilearen errendimendua eta jasoko zuen soldata diru sarien bitartez lotzerakoan, soldatak orokorrean konplexuagotu egin ziren. Honela, ordainsari kontzeptu anitzez osatutakoak izatera igaro ziren, langileek bukaeran jasotzen zuten lansari osoa, errendimendu, produkzio helburu eta produktibitate maila bezalako emaitzen araberakoa egin zelarik<sup>361</sup>. Soldaten osaeraren konplexutasun honek, eragin handia izan zuen langileen eta euren bizitzengan.

Hasteko, lanaren biziagotze gogor bat ekarri zuen berekin. Honek langileengan eragina izan zuela, hauek erritmoen aurka azaldu zuten arbuioan egin zen ikusgarri. Izan ere, 60 eta 70. hamarkadetako langile erresistentziaren ardatzetariko bat, hain zuzen, lan erritmoei aurre egitea izan zen. Soldata mailak oso baxuak izaterakoan langileek euren sarrerak diru-sarien bitartez handiagotzen saiatzen zirenez, 60. hamarkadaren bitartean, erresistentzia hura, ez zen biziki indartsua izan. Baina 70. hamarkadan bai, errendimenduen areagotzearen aurkako oposizioa, orokortu egin zen. Ordurako jada, langileek, lan erritmoekiko euren arbuioa erakusteko aukera gehiago izan zuten, langile antolakuntzaren eta esperientzia sindikalaren maila handiagoak, hitzarmen kolektiboen negoziazioetan soldaten oinarrizko maila igotzeko eta osagarriei uko egiteko aukera ematen baitzuen<sup>362</sup>.

Gutxieneko soldata murrizak osatzeko, produktibitate, arriskugarritasun eta bestelako ordainsari osagarriekin batera (*“Erabat toxikoa. Bagenituen... maskekin lan egiten genuen; eta egokitzen zitzaigunean.. toxikoak ziren eta ez ziren produktuak zeuden, eta produktu toxikoekin egotea egokitzen zitzaigunean, eguneko hamar pezeta gehiago ordaintzen zizkiguten; orduan hamar pezetarengatik... zure txanda izatea nahi izaten zenuen beti; 60. urtean hileko bederatziehun pezeta irabazten genuen, gero gutxienekoa xedatu zen, mila zortziehun pezeta hilean, hogeita hamar pezeta egunean. [...] baina [orduan] bederatziehun pezeta ziren hilean [eta] atezaintza gastuak genituen, pisua ordaindu behar genuen eta milaka gauza gehiago”<sup>363</sup>), langileek aparteko lanorduak sartzera edota enplegu aniztasunera jo behar izan zuten. Hauek, langile familien etxeko ekonomien oinarrizko elementu bat izan ziren, gutxieneko soldatek biziraupenerako ere aski ematen ez zuten momentu batean. Aparteko orduak hain ziren ezinbestekoak langile familien ekonomian, hitzarmen kolektiboen negoziazio prozesuetan presioa egiteko neurri bezala langileek ordu hauek sartzeari uko egiten ziotenean, etxean zailtasun handiak pairatu behar izaten zituztela. Horregatik, familientzat ezinbestekoak zirelako, aparteko orduak sartzeari edo ez sartzeari buruzko eztabaida beti azaleratzen zen hitzarmen kolektiboaren negoziazioak prestatzeko ekintzak planteatzen zirenean, orduei ezezkoa emateko aukera, askotan, langileen lan egoerak eta egoera pertsonalak baldintzatzen zutelarik:*

Ordu asko sartzan ziren, ordu piloa fabrian. Orduan ni aparteko orduen etsaia nintzen, pentsatzen nuelako ez zegoela eskubiderik batzuek hamabi ordu sartzan zituzten bitartean, lanik ez zuen jendea egotea... ez nuen ulertzen... eta asko eztabaidatzen nuen, langileekin

---

<sup>361</sup> Honek langileek azkenean jasoko zuten soldata osoan gorabehera handiak eragin zituen. Entzuleek La Pirenaicari bidaltzen zizkieten gutunetan, errealitate honen berri aurkitu dugu: “langilea inposatutako jarduera mailara iristen ez bada, oinarrizko soldata beharrezko diote eta gainera, zigor bezala, ohar taulan iragartzen dute langile guztiek jakin dezaten”, “Carta desde Estella (26-11-1965)”, AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondo, 190. Kutxa; “Hainbat neskato lanean ari ziren mahai batean, bestelako zeregin batek ematen duen lan bikoitza suposatzen duen egiteko batean jarduten zen; beraz, espero izatekoa den bezala, gutxiago atera zuten. Honela, astea amaitutakoan, bakoitzari soldatetik 55 pezeta kendu zizkieten”, “Carta desde Peralta (07-07-1965)”, AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondo, 190. Kutxa.

<sup>362</sup> Ikusi lan erritmoen, soldaten eta hitzarmen kolektiboen arteko elkarrekiko erlazioa, Carme Molinero eta Pere Ysás, *Productores disciplinados y...* Op. Cit., 85-86 orr.

<sup>363</sup> F.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-30.

eztabaidan aritzen nintzen, eta ulertzen nien, esaten nien: Bai, zortzi edo hamar ordu sartu behar dituzu zure seme-alabei jatekoa eman behar diezulako, ongi... baina nik ez dut ulertzen horrekin nahikoa baduzu, ba, ordu gehiago sartu nahi izatea. [E. A. Metalaren sektoreko Torfinasa fabrikako langilea]

Garai hartan aparteko ordu asko sartzen zen ere; jendeari ez zitzaion soldata hutsarekin iristen, batez ere familian normalean, bakarrik gizonak lan egiten zuelako. Hitzarmena iristen zenean ordea, jendeak aparteko orduak sartzeari uzten zion, enpresariengain presioa egiteko modu bezala, ezta? Ahalegin handiak egin behar izaten zituzten orduan familiek, noski, [aparteko orduena] oso diru-sarrera garrantzitsua zelako, hilabete amaierara iristeko beharrezkoa zutena... [M.L.C.. Industria kimikoen sektoreko Potasaseko bulegoko langilea]

Aparteko orduak sartzearen praktika, produkzio sektore eta maila profesional gehienetan orokortu zen arren, espezializatu gabeko langileen artean zabaldu zen gehien bat. Azken hauek gainera, aparteko orduei uko egiteko, lehenengoak baino uzkurragoak ziren. Espezializazioaren araberrako gutxienerako soldata mailen arteko desberdintasunak azaltzen ditu langileek erakusten zituzten aparteko orduen aurreko jarreraren aldaera hauek. Espezializatu gabeko langileak soldata murriztenak zituztenak zirenez, etxeko ekonomiak osatzeko ezinbestekoa zuten ahalik eta ordu gehienak sartzea, horregatik, soldataren osagarri hauei uko egitea, bereziki lazgarria izaten zen familia langile askorentzat. Espezializatutako langileek ordea, kualifikazioak ematen zuen plusarengatik oinarritzko soldata altuago bat kobratzen zutenez, aparteko orduei uko egiteko aukera gehiago zuten, honek, era berean, ordainsariak abantailazko jarrera batekin negoziatzeko aukera gehiago ematen zielarik<sup>364</sup>.

Oinarritzko soldata maila baxuak osatu eta etxeko ekonomien osagarri izatearren, oso ohikoa izan zen ere enplegu aniztasunera jotzea. Langile askok, fabrikakoaz aparte, beste enplegu bat zuten, beste enpresa batean orduka lan eginez edota margolariak, zurginak edota soldatzaileak behar zituzten partikularrei euren zerbitzuak eskainiz. Honela, ofizio, trebetasun eta are zaletasunak, gehigarri ekonomikoa lortzeko beste bide bat izan ziren eta ohikoa izan zen, garai hartan, fabrikako eta eraikuntzaren alorreko langile asko, euren ordu libreetan, adibidez ile-apaintzaile edo zapatarari bezala aritzen ikustea: *“Hemen bakoitzak bizimodua atera behar zuen. Mota askotariko ofizioak zeuden. Batek eraikuntzan lan egiten zuen baina gero ile-apaintzailea zen, ez dakit nor zapataria zen... M.k [...] Hamaketakoaren bitartean edo Ordubiak pasata, ilea mozten zuen. Hor geratu eta ‘oye ¿te vas a cortar el pelo?’ guraizeak hartu eta ilea mozten zizun. Mundu guztiak edonondik ateratzen zuen pezeta gehigarriren bat [...] ahal zenuen guztia egin behar zenuen [...] ordu piloan lan egiten genuen... ahal genuen guztia, baina hala ere, ez zen nahikoa”*<sup>365</sup>. Honekin batera, langileek eta euren familiek, bizimodua ateratzeko, jarduera osagarriak asmatu behar izan zituzten ere. Familia buruaren aipatu enplegu aniztasunaz gain, familia osoa inplikatzeko jarduera ekonomiko osagarriak burutzen ziren: zabortegetara botatzen ziren materialen hondakinak edota beroketa sistemetarako ikatza hondarrak bilduz eta salduz trapuketari bezala ibiltzea edota emakumeek burutzen zituzten besteentzako garbiketa eta lisaketa lanak, besteak beste.

---

<sup>364</sup> Horrek ez du esan nahi, ordea, kualifikazioa eta soldata maila aparteko orduen aurreko langileen jarreraren erabatean baldintzatzen zutenik. Langileen antolakuntza maila, langileen arteko elkartasunaren indarra edota klase kontzientzia, jarrera hauek azaltzeko kontutan hartu beharreko faktoreak dira ere (hauen ondorioz adibidez, soldata oso baxuak jaso eta egoera prekarioagoa bizi zuten arren, aparteko orduak sartzen ez zituzten kualifikaziorik gabeko langileak; eta soldata altuagoak jasotzen zituzten langile kualifikatuagoak zeuden). Baina egia da langile ez espezializatuen egoerak, soldata baxuak eta familien premia larria, euren jarrera mugatzen zuela askotan. José Antonio Pérez, *Los años del ...* Op. Cit., 126 orr.

<sup>365</sup> S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13.

Guzti honek, lanaldien iraupenean eragin zuzena izan zuen, aparteko orduen ugaritzeak eta enplegu aniztasunak, langilek lanean ematen zuten denbora luzatzen baitzuten: “Ordu asko lan egiten zen... noski, larunbatetan ere lan egiten zen. Nire orduan irten ahal izateko, kaleko arropa atearen ondoan ezkutatu behar nuen eta lan jantzia jarrita eta guzti, arduraduna ez zegoenean aprobeztatu behar nuen arropa hartu eta salestarreruntz ziztu bizian ateratzeko. Hori oso ohikoa zen. [...] Edo adibidez ere, esaten zidaten: erraminta guztiak taulan ipini behar dituzu, eta baten bat falta bada... gaueko bederatzia arte geratzen nintzen orduan, afaldu gabe, norbaitek lapurtu izandako erraminta bilatzen”<sup>366</sup>. Lanaldiak osatzeko egiten ziren aparteko orduen kopuruaren bilakaera baino, kuantifikatzeko zailagoak diren zenbait esperientzia esanguratsuagoa izaten ahal da lan baldintzek langileen bizitzetan zuten eragina azaltzeko. Bi adibide jarriko ditugu. Lehenengoak Iruñeako Txantrea auzoaren eraikuntza prozesuarekin du zerikusirik. Auzoaren lehen faseak prestazio pertsonalaren sistemaren bitartez eraikiak izan ziren, hau da, langileek berek, biziko ziren etxeak eraiki zituzten. Egunero, euren lan-eguna amaitutakoan, auzoaren eraikuntza lanetan aritzen ziren, euren berezko lanaldiak hiru, lau eta are bost ordutan luzatzen zituztelarik. Kasu honetan, aparteko ordu haiengatik jasotzen zuten ordainsaria ez zen dirutan emandako soldata puska osagarri bat izan, jabetzan lortuko zen etxebizitza bat baizik. Bigarren adibideak, langileek etxetik lantokira eta lantokitik etxera joateko behar izaten zuten denborak ere lanaldia luzatzen zuela agerian uzten du. Iruñea bezalako hiri txikietan horren nabarmena ez zen arren, hiri industrial handietan, lanera joateko bidaiek, nabarmenki handitzen zuten langileek lan horri eman behar izaten zioten denbora. Madrilen adibidez, langile auzuneez pairatzen zuten garraio publikoen gabeziarengatik ohikoa zen, egin beharreko distantzia luzeen ondorioz -lekualdaketak egiteko beharrezkoa izaten zen denbora hirurogei minututik gorakoa zen- bazkal orduan etxera ez itzultzea. San Blas auzoan, langileen %60ak bizi zuten egoera hau<sup>367</sup>.

Orokorrean beraz, fordismoak inposatutako lan erritmoekin eta aparteko orduak, enplegu aniztasunak edota lanerako lekualdatzeak osatzen zuten lanaldien iraupenarekin, lan baldintzek, egiazki, okerra egin zuten. Lanegunak luzeak eta neketsuak ziren, lanegunen iraupenak eta lantokietan ezartzen ziren lanerako erritmo biziak, langileei fisikoki zein psikologikoki eragiten zitelarik.

Nafar enpresariak euren aldetik, ez zuten uste soldata maila baxuen eta lanaldi luzeen errealitate hau, langileentzat esperientzia gogorra izaten ari zenik. Nafarroako enpresetako pertsonal buruontzat adibidez, soldatak ez ziren “gosea pasatzeko modukoak” eta aparteko orduak, “enpresarien langileak esplotatzeko modu” bat baino, “hauek asebetetzeko bide” bat zirela estimatzen zuten<sup>368</sup>. Horregatik, nafar langileek geroz eta maiztasun handiagoarekin egiten zituzten soldaten goititzearen aldeko aldarrikapenek eta borrokek, biziki harritu eta asalatu zituen enpresariak zituen 70. hamarkadaren hasieran. 1971 urtean gobernuko lehendakariordea zen Luis Carrero Blancori bidali zioten eskutitz batean salatzen zuten<sup>369</sup>, nafar industrian bizi zen soldaten igoera jarraituak ez zuten estatuko beste edozein lurraldetan bizi zenarekin alderatzerik: hitzarmen kolektibo nazionaletan xedatzen ziren soldata mailak hartuta, industria mota berberentzako nafar hitzarmenek jasotzen zituztenak nabarmenki handiagoak zirela ikusten ahal zen, hainbat sektoretan hitzarmen batzuen eta besteen arteko desberdintasuna %76koa izatera iristen zelarik. Datu hauekin, nafar soldaten

<sup>366</sup> R.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-03-06.

<sup>367</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 135 orr.

<sup>368</sup> Honela gogoratzen du Iruñerriko fabrika bateko langileen zuzendariak. Jasoa, Gabriel Imbuluzqueta eta Luis Sarriés, *Aquellos conflictos de...* Op. Cit., 50. orr.

<sup>369</sup> Carta del Consejo de Empresarios de Navarra al vicepresidente del Gobierno Sr. Carrero Blanco”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5749. kutxa eta AGA-AAO, Presidentzia fondoa, 51-18769. kutxa. Aurrerago ikusiko dugun bezala, gutun honek oihartzun handia izango zuen.

maila altua baino, altuegia zelaz kexu ziren, honek berekin kostuen kontrolik gabeko goratzea eta nafar industrien lehiakortasunik eza ekartzen baitzuen. Eskutitz honi eman zioten erantzunean<sup>370</sup>, langileek, enpresariak emandako bizitza-maila itxaropentsuaren eta soldata altuen irudiari, aurreko urteetan langileek bizi behar izan zuten egoera kontrajartzen zioten, orduan *“langileek euren premiazko beharrei erantzun ahal izateko hamabi eta hamalau orduko lanaldiak egin behar izaten zituzte[lako] eta bitartean, enpresariak etekin handiak lortzen zituzte[lako]”*. Gainera, 60. hamarkadako desarrollismoaren kontestuan, bizitza maila itxaropentsuago haren gainetik, zortzi orduko lanaldi batekin duintasunez bizitzea posiblea ez zela eta horregatik langileek aparteko orduak egiten jarraitzen zutela salatzen zuten.

Bizkaiko JOCeko militanteek 1972 urtean langile errealtateaz egiten zituzten aipatu deskribapenetan<sup>371</sup> ideia hau errepikatzen da eta berauetan, oinarrizko soldatak baxuak eta bidegabeak zirela salatzen da. Lehenik eta behin, 70. hamarkadaren hasieran oraindik, langileek, euren familien bizi premiak asetzearen, aparteko orduak egin behar zituztela adierazten da: *“Kontutan hartzen badugu soldatei buruz esandakoa, aparteko orduak benetako gain-esplotazioa suposatzen dute. Zortzi orduko lanagatik ordaintzen zaigun soldata bizitzeko nahikoa ez denez, aparteko orduetara [edo] enplegu aniztasunera jo behar dugu. Bizi ahal izateko gehiago irabazi nahi badugu, gehiago lan egin behar dugu. Eta horretarako guk eskurago dugun bidea, haientzat [enpresariarentzat] onuragarriena dena da, aparteko orduak egitea”*. Bigarrenik, lanaldi luze hauek langile bizitzaren eremu guztiak (familia bizitza, aisialdia, harreman sozialak, osasuna, formatzeko aukera) baldintzatzen zituztela salatzen da, langileek, langile ez izateari eta norbera izan eta sentitzeari eskaini ahal zioten denbora, egiazki oso murrizta baitzen: *“Lan egiten hamahiru edota hamalau ordu ematen baldin baditugu, zenbat denbora geratzen zaigu familiarentzako, ikasketetarako, harreman sozialetarako?”*.

Langileek lanaren alorrean bizi zuten errealtaterako hurbilpen honetan, ez dugu ahaztu behar lan harremanen eredu frankistak ere eragin handia izan zuela langileek euren lantokietan bizi izan zituzten esperientzietan. Lehenbiziko kapituluan ikusi genuen bezala, erregimenak, berezko esparrurik gabe utzi zituen langileak, hauek, Erakunde Sindikal frankistaz beste, euren kezkek, kexak eta aldarrikapenak bideratzeko tresnarik gabe geratu zirelarik. Greba sedizio delituztat jotzen zen eta klase erakundeak legez kanpo zeuden kontestu batean, langileek, protestarako eta borrokarako eskubideak galdu zituzten. Ondorioz, erabateko babesgabetasuneko egoera batean aurre egin behar izan zioten ikusi berri dugun lanaren alorreko errealtateari. Honi, errepresioa eta beldurra, lanaren egunerokotasunaren eta lan baldintzen parte izatera igaro zirela gehitu behar diogu. Halako marko batean enpresariarekiko langilearen erabateko menpekotasuna bermatuta zegoen eta langileen erantzuteko gaitasuna, galarazita :

Hasteko, zenbaki bat baino ez ginen, ezta? Orduan ez zenuen eskubiderik, ez zenuen ezertarako eskubiderik [...]. Hau da, nik ikusi dut jendea inolako arrazoirik gabe kaleratzen zutela... adibidez ni, nagusiari aurre egiteagatik kaleratua izan nintzen behin, ezta? Baina makinaren bat hondatzeagatik ere kalera joaten zinen. [R.U.. Automobilgintzaren alorreko Authi fabrikako langilea]

<sup>370</sup> “Sindicato Provincial del Metal. Unión de Técnicos y Trabajadores. Acuerdo Comisión Permanente 20-20-1971”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>371</sup> “XIV Consejo diocesano de JOC, Begoña (1972)”, AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. kutxa.

Hala izan zen frankismoaren lehenbiziko urteetan behintzat. Ostera, fabriketan barna ikusi dugun errealitatearen aurkako erantzuna gutxika suspertzen hasi zenean, langileriaren lan baldintzen marko hau hobetzeko bidean jarri zen:

Garai hartan langile klaseak bizi zituen lan baldintzak gogorrak ziren, soldata baxuak, ordutegi izugarri luzeak, fabrikaren diziplina... eta baldintza guzti horiek aldarrikapenak egitera eramaten zaituzte, hau da... Arraioa! honek ezin du horrela jarraitu, enpresek gainera gora egiten dute geroz eta diru gehiago irabaziz... esatera. Egiazki baldintzak gogorrak ziren ordutegietan eta guztian...[...] beraz, hain baldintza zailetatik abiatzen zara, haiengatik borroka egin behar duzula. [P.O.. Automobilgintzaren alorreko Eaton fabrikako langilea]

## 3.2 LANGILEEN BIZITZA. EGUNEROKO ERREALITATEAK, EGUNEROKO ZAILTASUNAK

Ikusi berri dugun lan munduarekin batera, langile bizitzak, frankismoaren garaiko Iruñerriko langileriaren errealitatera hurbiltzen gaitu ere. Honekin, langileek bizi izandako esperientziak bigarren marko batean kokatzen ditugu -eguneroko bizitzaren markoan- eta berauetatik eratorritako langile jarrerak azaleratzeko bigarren esparru bat xedatzen dugu. Horretarako, bizitza mailaren arloa izango dugu ardatz, langileen eguneroko bizitza baldintzatzen zuten elementu desberdinen (elikadura, etxebizitza, kontsumoa, hezkuntza zien osasun zerbitzuen eskuragarritasuna) bilakaera neurtzen baitu eta honen bitartez, langile familien eguneroko zailtasun eta arazo nagusienak agerian uzten baititu.

### 3.2.1 Bizitza mailaren hobekuntza?

Bizitza maila langileen esperientzia bezala ulertzeak eta honek barne hartzen dituen elementu ezberdinetan arreta jartzeak, adierazle kuantitatiboen eta esperientzia kualitatiboen harremanaren inguruko eztabaida mahaigaineratzen du. E. P. Thompsonek adibidez, *The makingen* heltzen zion eztabaida horri eta neurtzen ahal ziren soldata edo errenta mailaren bilakaera azaltzen zuten adierazleen aurrean, Ingalaterran industrializazioak langileen bizi baldintzen hobekuntza edo hondoratzea ekarri ote zuen kontutan hartu behar zela planteatu zuen. Ildo horretan, soldaten eta errenta mailaren bilakaera positibo bat agertzen zuten datuen gainetik, industrializazioak bizitza maila handitu edo murriztu ote zuen galdera simple horren erantzuna, langileen esperientzietan bilatu behar zela aldarrikatzen zuen. Berea, proposamen interesgarri bat da. Izan ere, “bizitza maila” kontzeptuaren barnean, estatistikoki neurtzen diren datuak (soldatak, errentak edota prezioak) eta estatistika horiek neurtu ezin dituen elementuak (elikadura, etxebizitza, osasuna, hezkuntza, familia bizitza, aisialdia) biltzen dira, objektiboki neurtzen ahal diren bizitza estandarrekin batera, subjektiboagoak eta abstraktuagoak diren “bizimoduak” kontutan hartu beharrekoak bihurtzen direlarik.

Ildo horretan, Thompsonen XIX. mendearen lehen erdialdeko Ingalaterrako langileriaren bizi baldintzei buruz egin zuen azterketan, batezbesteko estatistikoak eta giza esperientziak kontrako norabidean joaten ahal direla ikusten da: “aldi berean gerta daiteke faktore kuantitatiboen hazkunde per capita bat eta bizimoduaren, harreman modu tradizionalen eta populazioaren legitimazioen nahasmendu kualitatiboa. Populazioak ondasun gehiago kontsumitzen ahal ditu baina, era berean, zorigaiztokoagoa izan eta askatasun gutxiagoaz disfrutatu”<sup>372</sup>. Industrializazioak, hartara, datu estatistikoetan, bizitza mailaren hobekuntza txikia ekarri zion langileriari, baina aldi berean, haren gaineko esplotazioa areagotu zuen eta giza miseria hedatu zuen. Hots, XIX. mendearen erdialderako, populazioaren gehiengoak mendearen hasieran baino erosoago bizi zen arren, hobekuntza txiki hura, hondamenezko esperientzia bezala bizia izan zen.

“Bizitza maila eta esperientzia” izena duen *The makingen* hamargarren atalak, argi eta garbi erakusten du bizitza mailaren hobekuntza islatzen duten datu estatistikoek bestelako aurpegi bat izan zutela, zenbakiez haratago kontutan hartu behar den esperientzia kualitatiboak bizi izan zirela eta langile bizitzaren errealitatea konplexuagoa izan zela. Thompsonen, bizitza maila neurtzen duten hainbat adierazleren azterketa modu honetan egiten du, datuen atzean izaten ahal ziren errealitate ezberdinak azaleratuz. Adibidez, elikaduraren alorreko datuek XIX. mendearen lehen erdialdean gosea kuantitatiboki (gosez hiltzen zen populazioaren

<sup>372</sup> Edward Palmer Thompson, *La formación de...* Op. Cit., 237 orr.

kopurua) murriztu egin zela adierazten badute, langileen dieta pobretu zela, hauek ogia edo olo irina patatekin ordezkatu zutela eta garagardoaren beharrea hartzen hasi zirela egia da ere. Hau da, patatari esker jende gutxiago gosez hiltzen zen bazen ere, jende gutxiagok zuen eskuragarri ogia edo garagardoa. Zentzu honetan, bizitza mailaren adierazle positiboek, langileentzat horren positiboak izan ez zirela esan daiteke. Era berean, aberastasun nazionalaren hazkundera begi bistakoa zen arren, langileek biziraupenaren mailatik gertu jarraitzen zuten, aberastasuna langileen lanaren emaitza izanda ere, etekin handienak patroien esku amaitzen baitzuten. Langileek hazkundera izan zuten esperientzia kualitatiboa beraz, modu honetan laburbiltzen ahal da: “garapen ekonomikotik jaso zituzten etekinak, patata batzuk, familiarentzako arropa gutxi batzuk, xaboa zein kandelak eta te eta azukre apur bat baino ez ziren izan”<sup>373</sup>.

XIX. mendearen erdialdean demografia tasek agertzen zuten bilakaera positiboarekin antzeko zerbait gertzen da. Datuak jaiotza tasaren hazkundera, heriotza tasaren jaitsieraz eta bizi itxaropenaren areagotzeaz mintzo dira, baina bilakaera hau langileen bizitza mailaren hobekuntzaren adierazle denik zalantzan jartzen ahal da. Zer gertatuko litzateke demografia tasek populazioaren osotasunari erreferentzia egin beharrea soilik langile klaseari dagozkion datuak jasoko balituzte? Thompsonek, Ingalaterrako industrializazioaren garaiko tasak aztertzen dituenean, halako datuak irakurtzerakoan erabilgarria suertatzen ahal den ohar garrantzitsu bat egiten du: aristokraziaren eta ertain klaseen artean ematen den haurren hilkortasun tasaren jaitsierak eta bizitza itxaropenaren hazkundera lasai asko ezkututzen ahal dute batezbesteko nazionalen, zehazki langile klaseari dagozkion indizeen okerragotzea. Izan ere, gauzak asko aldatzen dira datuak populazioaren osotasunari beharrea, espresuki langile klaseari dagozkienean. Adibidez, ikaragarria da fabrika barrutietako garai hartako hilkortasun tasak ikustea<sup>374</sup>. Azken batean, hilkortasun tasaren jaitsiera eta bizitza itxaropenaren areagotzea, ez ziren klase guztien artean modu orekatuan banatu eta tasa horietan horrenbesteko eragin negatiboa duten haurren hilkortasunak edota gaixotasunak, langile sektoreetan kontzentratuta jarraitu zuten. Iruñean adibidez, ez da harrizkoa Etxabakoitz auzoak -langile auzoen artean pobreenetariko bat- hiriko haurren hilkortasun tasarik altuena aurkeztea, zonalde abantailatuekiko desberdintasun handiak erakutsiz<sup>375</sup>.

II. mendearen bigarren erdialdeko Iruñerriko langileria bizi baldintzei dagokienean, interesgarria izan daiteke frankismoaren eta desarrollismoaren garaiko bizitza mailaren azterketa, kantitate eta kalitateen arteko, hau da, datu estatistiko neurgarri eta esperientzia abstraktuen arteko banaketa gogoan izanda egitea. Izan ere, frankismoaren bitartean gertatu ziren langile mugimendu berri baten sorrera eta lan gatazkaren berpizkundea, hazkunde ekonomikoko momentu batean eta bizitza mailaren hobekuntza nabaritzen hasia zen marko batean azaleratu ziren. Hau paradoxakoa da nolabait, nola da posible per capita errenta horrenbeste hazi eta gero, gauza material gehiago edukita, populazioak gehiago lan egin baina hobeto bizi en arren, pozik ez zeuden talde sozialak egotea<sup>376</sup>. Ekonomiaren eta ongizatearen hazkunderaren gainetik, nafar populazioaren bizitzan berebiziko eragina izan zuten

<sup>373</sup> Edward Palmer Thompson, *La formación de...* Op. Cit., 353 orr.

<sup>374</sup> *Ibid.*, 367-368 orr.

<sup>375</sup> Etxabakoitz haurren hilkortasun tasa milako 55,24koa zen, II. Zabalgunean milako 14, 54koa zen bitartean. Datua ez da ofiziala, Diario de Navarra jasotzen du gizarte-laguntzaile baten doktore tesian oinarrituta burutu zen hiriko haurren hilkortasunari buruzko txosten batetik. “Un dispensario médico infantil en Echavacoiz”, DN 1970-11-07, 24 orr.

<sup>376</sup> Galdera hau Mario Gaviria soziologoak planteatu zuen 1976an Nafarroak etorkizunaren aurrean zituen erronka nagusiez hausnartzeko antolatutako hitzaldi ziklo batean. Mario Gaviria, “Presente y futuro de los recursos naturales navarros”, VV.AA, *Navarra ante el futuro*, Diario de Navarra, Iruñea, 1976, 25-37 orr., 31 orr.

esperientzia kualitatiboak bizi egin zirelako. Adibidez, hazkunde horrek ez zuen askatasun eta demokraziaren areagotzean eraginik izan, ez eta ondasunen banaketa orekatuago batean. Honek, desarrollismoaren garaiko garapen ekonomikoak, egiazki, politikari eta gizarteari zegokionean bestelako aurpegi bat izan zuela erakusten zuen: gizarte mekanismo zaharkituek, zapalkuntzak eta oinarrizko askatasunen faltak, gizarte aurreratu bati dagozkion mekanismo demokratikorik ez zegoela agerian utzi zuten; ekonomiaren eta ongizatearen hazkundera posible egiteko, langileek ikaragarritzko ahaleginak egin behar izan zituzten, "lehen etapetan behintzat, lehenbiziko zortzi orduak oso gaizki eta ondorengoak hobe ordainduta zeudenez, astean hirurogei edo hirurogeita bost ordu" lan egin behar izan zutelarik; hazkunde kapitalistak, "nafar gizaki tradizionala", gainbalioa ateratzeko baino balio ez zuen laneku hutsean bihurtu zuen<sup>377</sup>. Halako esperientziek, langileek, datuek jasotzen ez duten errealitate bat, garbigailuek, telebistek edota kotxeek erakusten dutena baino konplexuagoa den errealitate bat, bizi egin zutela iradokitzen dute.

Desarrollismoaren garaian, nafar populazioaren bizitza maila nabarmenki hobetu zen. Ez da harrizkoa, izan ere, abiapuntua -gerraosteko bizi baldintza latzak- oso maila baxukoa zen eta honek, hobekuntzarako tartea oso handia izatea egin zuen. 40. hamarkadan populazioaren gehiengoak pairatu izandako miseriak eta 50. hamarkadan oraindik agerikoak ziren zailtasunek, 60. hamarkadako hobekuntza oso argia izatea eragin zuten, urte haietan jendartean zabaldu ziren 600a edota telebista, bizitza maila hobego baten eta oparotasun berri baten ikur bilakatu zirelarik. Alta, populazioaren bizitza mailaren eta ongizatearen hobekuntza ahalbidetu zuten eraldaketa sozioekonomikoez, aurpegi bikoitzeko fenomenoak abiatu zuten. Alde batetik, kontsumo gizartearen eskutik, pasibotasun politikoaren eta erregimenaren onspenaren alde egin zuten nolabait; baina bestetik, diktaduraren immobilismo politikoa agerian uzten zuten heinean, oposizioaren lana indartu eta gatazka molde berrien agerpena sustatu zuten<sup>378</sup>. Fenomeno bikoitz honek oso interesgarria egiten du 60. hamarkadan emandako bizitza mailaren hobekuntza horri, langileen esperientzietatik abiatuta heltzea.

Gerraostekoekin eta 50. hamarkadakoekin alderatuta, 60. hamarkadako aipatu hobekuntzak, erabat berriak ziren bizimodu eta kontsumo ohiturak gizarteratu zituen, aldi batzuetan eta bestean eman ziren eguneroko bizi baldintzen esperientziak oso desberdinak izatea eraginez. Gure subjektuek osterera, batak zein besteak bizi izan zituzten eta gerraostetik 50. hamarkadara arte eta hemendik 60 eta 70. hamarkadetara arte zabaltzen diren esperientziak jasotzen dituzte: lehenbiziko aldikoak gurasoek bizitako edota haiek haurtzaroan edota gaztaroan bizitako esperientziak dira; bigarren aldikoak, eurak jada langile zirela bizi izan zituztenak.

60. hamarkadan Iruñeako populazioaren bizitza maila hobetu zen. Ez zen zaila egoera hobego batetara jotzea, atzean uzten ziren baldintzak, gerraostekoak eta 50. hamarkadakoak, oso gogorrak izan zirela kontutan hartuta. 40. hamarkadako bizi

<sup>377</sup> Mario Gaviria, "Presente y futuro de..." Op Cit., 25-26 orr.

<sup>378</sup> Ikusi, besteak beste, Carme Molinero eta Pere Ysás, "La historia social de la época franquista: una aproximación", *Historia Social*, 30. zkia, 1998, 133-154 orr., 138 orr. eta Álvaro Soto Carmona, "No todo fue igual. Cambios en las relaciones laborales, trabajo y nivel de vida de los españoles: 1958-1975", *Pasado y Memoria*, 5. zkia, 2006, 15-43 orr., 17-18 orr. Gerraosteko bizi baldintza gogorrez gehiago ikusteko, besteak beste, Carme Molinero eta Pere Ysás, 'Patria, justicia y pan', *Nivell de vida I condicions de treball a Catalunya 1939-1951*, La Magrama,artzelona, 1985, Manuel González Portilla eta José María Garmendia, *La posguerra en el País Vasco: política, acumulación, miseria*, Kriseilu, Donostia, 1988 edota Miguel Ángel del Arco Blanco, "Morir de hambre. Autarquía, escasez y enfermedad en la España del primer franquismo", *Pasado y Memoria. Revista de historia contemporánea*, 5. zkia, 2006, 241-248 orr.



baldintzez aritzerakoan esan ohi den bezala, urte haietan bizitza, biziraupen hutsa baino ez zen izan. Espainiar populazioaren parte handi bat miseria gorrian bizi zen; premiazko beharrak asetzeko zailtasun ugariarekin, ez zuen oinarrizko zerbitzuez ere gozatzeko aukerarik; goseak eta gaixotasunek jota bizi zen; eta premiazko gaien errazionamenduari batera indartu zen merkatu beltzaren ondorioz, bizitzaren kostuaren neurrigabeko garestitzearen pean zegoen.

Beraz, diktaduraren lehenbiziko urteetan, bizi baldintzek okerrera egin zuten, bereziki, pobretzea euren eguneroko bizitzaren hainbat alorretan atzematen zuten klase herrikoientzat. Soldata errealean atzerakada (soldatak oso maila baxuan mantendu ziren), premiazko gaien urritasun orokortua, merkatu beltzaren hazkundera edota osasunarekin zein etxebizitzarekin lotutako arazoek estuagotzea izan ziren, besteak beste, pobretze horren adierazlerik nagusienak. 1938-1951 artean, soldatak oso erritmo motelean hazi ziren, beti salneurrien mailaren azpian mantenduz, %25aren inguruko erosahalmena galdu zutelarik<sup>379</sup>. Soldaten erosahalmeneren murrizpen hau, elikagaien eta bestelako premiazko gaien eskasi hedatu batekin batera gertatu zen. Honek klase herrikoien egoera are latzagoa egin zuen, eskasiak berekin errazionamendu liburuxkak eta gosea, elikagaien neurritz kanpoko prezioak eta merkatu beltzaren hazkundera ekarri baitzuen. Merkatu beltza, gerraostetik eratorritako gaitz sozial larrietariko bat izan zen, orduko gizarteak pairatu izandako zailtasunen adierazlerik gordinena. Oinarrizko elikagaien errazionamenduak artikuluon hornidura bermatzea helburu izan bazuen ere, erakunde ikuskatzaileen eraginkortasunik ezak eta diktaduraren instituzioetan errotutako ustelkeriak ahalbidetzen zuten enpresarien jardura espekulatiboak, hura, merkatu beltzean etekina ateratzeko aukera paregabearen bihurtu zuten. Merkatu beltz horren hedapenak, hartara, zuzeneko eragina izan zuen klase herrikoien eguneroko bizitzan, bertan salneurriek, batez beste, erabakitako prezioak bi eta hiru bider gaintzen zituztelako<sup>380</sup>. Guzti honekin batera, orduko langile bizitzaren parte izan ziren Gizarte Sorospeneraren zerbitzuen beharren hazkundera edota gosetearengatik, hotzarengatik eta etxebizitzaren osasungarritasun ezarengatik gertatu zen erauzitako gaixotasunen ernaberritzea, miseriazko egoera haren ondorio izan ziren<sup>381</sup>.

Modu honetan, frankismoa, iraganik okerrenera itzultzea suposatu zuen langileentzat, larriagotuta orain lan harremanen marko frankistan ez zutelako ez protesta egiteko eta ezta euren interesak babesteko aukerarik. Miseriazko bizi baldintza horiek jasaten bazituzten, funtsean beldurrarengatik zen, errepresioak protestarako jarrera oro hertsatzen zuelako. Hala ere, tokian tokiko agintari frankista zenbaitek sumatzen zuten bezala, biziraupen arazoetatik eratorritako egonezina, arazo politiko bihurtzen ahal zen erregimenarentzat edozein momentutan<sup>382</sup>. Izan ere, bizitza mailaren gaiaren inguruan sumatzen zen egonezin hura baretu ezean, atsekabea protesta bihurtzeko eta protesta gatazka bihurtzeko arriskua zegoen. 1951n Bartzelonako tranbiei eginiko boikotarekin hasi zen greba uholdeak, kezka haiek

<sup>379</sup> Datuak, Carme Molinero eta Pere Ysás, “El malestar popular...” Op. Cit., 257 orr.

<sup>380</sup> Nahiz eta salneurri hauek, hiritik hirira aldakorrak izan. Ikusi datuak Carme Molinero eta Pere Ysás, “El malestar popular...” Op. Cit., 262-263 orr. Merkatu beltzaz gehiago, adibidez, Eusebio Medina García, “Autarquía y racionamiento. El mercado negro a finales de los años cuarenta”, *Cuadernos de Investigación histórica*, 21. zkia, 2004, 427-434 orr. edota Miguel Ángel Arco Blanco, “El estraperlo: pieza clave en la estabilización del régimen franquista”, *Historia del Presente*, 15. zkia, 2010, 65-78 orr.

<sup>381</sup> “Gerraostea garai grisa izan zen, urritasunen eta murrizketen, estraperloaren, errazionamendu-liburuxkaren, eskola kantinen eta sorospen jantokien, hilabete amaieran ordaintzen zen zorretako erosketaren aldia. Garai hartan ez zegoen gizenik eta babak jaten ziren, batzuetan harrekin eta guzti”. Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “Recuerdos de mi infancia y juventud en el barrio del Mochuelo”, 122 orr.

<sup>382</sup> Ikusi Carme Molinero eta Pere Ysás, “El malestar popular...” Op. Cit.

izatezko arrazoia bazutela agerian utzi zuen. Protesta mugimendu espontaneoan emaitza eta biziraupenarengatik borrokan gatazka erduei lotuta, estatuko puntu desberdinetan gertatu ziren greba hauek, urritasunaren eta murrizpenen jarraitutasunak pilatutako atsekabe sozialaren adierazle izan ziren.

Hamarkadaren hasierako grebek, erregimenak hobetsitako politika ekonomiko autarkikoaren ezintasuna eta porrota agerian utzi zuten. Politika ekonomikoren norabide aldaketa bultzatu orduan, populazioaren bizitza maila hobetuko zuen hazkundearen bidea hartu beharra baitzegoen. Egia esan, 1951n bertan izendatu zen gobernu berriak martxan jarri zituen neurri ekonomikoek, hazkunde ekonomiko baten hasiera iragartzen zuten emaitza positiboak izan zituzten eta honek, hamarkadaren hasierako ongizate mailaren adierazle hobekuntzan lagundu zuen. Baina bizi baldintzen alorrean 50. hamarkadak gerraosteko miseria, gosetea eta errazionamendua atzean bazituen ere, klase herrikoien eguneroko bizitza zailtasunez josita jarraitu zuen.

Adibidez, 1951ko greba uholdearen ostean errazionamendu-liburuxka desagertu zen arren, ondorengo urteetan, bizimoduaren garestitzearen eta soldaten arteko desorekek, langileen eta euren familien artean ezinegon handia eragiten jarraitu zuten. Lehenbiziko kapituluan, 1954ean Iruñeko gizartea egoera larrian bizi zela ikusi genuen: desoreka sozialak sakonak ziren eta soilik gizarte sektore txiki bat nolabaiteko erosotasunarekin bizitzen ahal zen bitartean, populazioaren gehiengoa, erdiko klaseak eta klase umilak, apenas iristen ahal ziren biziraupenaren minimoetara; emakume asko lanean hasten zen soldatak osatu behar zirelako eta hala ere, langileen zortzi orduko lanegunak, aparteko orduekin edota enplegu aniztasunarekin luzatu egin behar ziren; ez zegoen enplegua sortzen ahal zuen industria berririk, egoera benetan larria, hazkunde demografikoa nabarmentzen hasia zela eta aurreko hamabost urteetan, hiriak jada hogeita hamar mila biztanleko hazkundera nabari izan zuela kontutan hartuta. Hamarkadaren lehen erdialdean, Sindikatuen Nafarroako Ordezkaritza Probintzietik Erakunde Sindikalaren Idazkaritza nagusira igortzen ziren albistegi bereziek, ikuspegi hau berretsi egiten dute. Izan ere, berauetan, oinarrizko artikuluen salneurri garaiek, soldata murrizteak eta populazioaren erosahalmenaren txikitzeak jotako herrialde baten egoera deskribatzen da. Era berean, albistegi hauetan etengabeak diren 1951ko hainako eztanda sozial berriak gertatzen ahal zirelari buruzko kezkek, hamarkadan zehar populazioaren gehiengoaren egoerak konponbiderik izan ez zuela adierazten dute:

Premiazko gaien salneurrien goititze jarraitua, probintzia honek duen arazo larrietariko bat da, langile klasearengan honengatik ezinegona sumatzen delarik. Euren familien premiazko beharrei erantzun ahal izateko, [langileek], euren ordutegi arrunta amaitzen dutenean, lanaldi nekagarriak burutu behar dituzte euren enpresetan edo beste batzuetan<sup>383</sup>.

Izan ere, elektrizitatearen tarifen goratzea edota haragiaren prezioen igoera bezalako etenik gabeko zailtasunak, langile familien etxeko ekonomietan ondorio kaltegarriak eragiten ari ziren<sup>384</sup>. Honekin guztiarekin, populazioaren asaldura geroz eta agerikoagoa zen kalean zein lantokietan, bizi baldintzen inguruko gaiak (salneurri eta soldaten arteko desorekarena bereziki), sindikatu desberdinetako sail sozialen bileretan lehentasunezko kezka bihurtzeraino:

---

<sup>383</sup> 1954ko iraileko ezkutuzko informazio adierazpena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4799. kutxa.

<sup>384</sup> 1955eko martxoko eta uztailako ezkutuzko informazio adierazpenak. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4799. kutxa.

Salneurri eta soldaten arteko desorekaren ondorioz, ezinegona hiriburuko zein probintziako industria langileen artean areagotu egiten da, egunez egun; egoera honek, burutzen diren batzorde sozialetan eta Gizarte Saitetako lehendakarien batzordeetan du bere isla. Bilera hauetan argi geratzen da [ordezkariei] ez zaiela aipatutako hau ez den beste gairen baten inguruan aritzea interesatzen, honekin alderatuta, gainontzeko arazoei ez baitiete apenas garrantzirik ematen<sup>385</sup>.

1955eko uztailaren 12tik 17ra burutu behar zen Langileen III. Kontseilu Nazionalak, soldata mailen berrikuspenaren gaia landuko zuelako, itxaropena piztu zuen langileen artean eta Erakunde Sindikalaren beraren barnean ere<sup>386</sup>. José Antonio Girón Lan Ministroak 1956ko otsailaren hasieran iragarri zuen soldaten igoerak, itxaropen hura berretsi egin zuen. Baina martxoan, neurria zehaztu eta apirilaren lehenengotik aurrera indarrean egongo zen soldaten igoera ezagutzera eman zenean, Iruñeko langileek, espero zutena baino murriztagoa zela ikusi zuten, gobernuak dekretatutako goititze hura oraindik eskasa zela iritzi zutelarik. Hala behintzat jasotzen zuen 1956ko otsailari zegokion Sindikatuen Nafarroako Ordezkaritzaren albistegi bereizirik<sup>387</sup>. Horregatik, informazio horretan bertan, langileen jarrera honi aurre egiteko, soldaten igoerak *“langileen soldaten erosahalmenean eta ekonomia nazionalaren aberastean eragina izango duela; aberastasun gehiago sortuko delako eta aberastasun hau merkaturatzeko aukera gehiago egongo delako, azpi-kontsumoaren ondorio penagarriak sailhestuko dituela; eta langileen bizitza maila [...] hobetuko duela”* jakitera emango zuen argibide kanpaina bat abiatu behar zela azpimarratzen zen ere. Egin beharra zegoen, 1956aren hasieran, lanuzteak eta grebak mehatxu erreala baitziren hiriburuan:

Azken hilabete honetan, berbakizun guztiak arazo honen ingurukoak izan dira, gai honi dagokionean nabaria den ezinegonaren ondorioz, lanuzte partzial edo orokor bat aurreikusten zelarik. Langileen adierazpenek zentzu honetan, zuhurtzia galdu eta grebari buruz gauzarik arruntena izango balitz bezala hitz egiten zuten<sup>388</sup>.

Udaberri hartan bertan, soldaten igoera eskatzen zuen greba orokorra hasi zen Iruñean eta laster, Euskal Herriko beste herrialdeetara eta Kataluniara zabaldu zen. Gatazka uholde berri horrek, 1951koarekiko desberdintasun garrantzitsuak erakusten ditu. Hamarkadaren hasierakoa gerraosteko miseria gorriari eta biziraupen krisiei lotuta agertzen bazen (era sinbolikoan errazionamenduaren amaiera adierazten dute), 1956koa politika ekonomikoaren norabide aldaketak nolabaiteko emaitza positiboak ematen zituen momentu batean gertatu zen. Grebek orduan, miseriak eragindako matxinaden ezaugarriak galdu zituzten, soldaten igoeraren aldarrikapena hizpidetzat hartzeko. Azken batean, soldatak ziren familien etxeko ekonomiak orekatzeko elementu nagusia.

Hamarkadaren hasieran gertatu bezala, 1956ko greba uholdeak, berriz ere begien bistan jarri zuen populazioaren bizitza mailaren hondatzea, krisi sozial sakon bat eragiten ahal zuten tentsioen eta asalduren iturburu zela. Beraz, diktaduraren eta honen sistema sozialaren erreproduktzioa bermatu ahal izateko, politika autarkikoa

---

<sup>385</sup> 1955eko abenduko ezkutuzko informazio adierazpena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4799. kutxa.

<sup>386</sup> 1955eko maiatzeko eta ekaineko ezkutuzko informazio adierazpenak. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4799. kutxa. Kontseilu hartan gaia landu zen, beste gauza batzuen artean, gutxieneko soldata prezioen indizeen arabera xedatzea eskatu zelarik. “Don José Solís Ruiz presidió la sesión plenaria del III. Consejo Nacional de Trabajadores”, DN, 1955-07-15, 5 orr,

<sup>387</sup> 1956ko otsaileko ezkutuzko informazio adierazpena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4799. kutxa. Dokumentuaren data 1956-03-17 da, beraz, ordurako soldaten goititzea iragarrita zegoen.

<sup>388</sup> 1956ko urtarrileko ezkutuzko informazio adierazpena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4799. Kutxa.

behin betiko atzean uztea eta orduan nazioarteko agertoki ekonomikoak hazkunderako ematen zituen aukerez baliatzea ezinbestekoa zen. Izan ere, politika ekonomikoaren norabide aldaketak -liberalizazioak- berekin garapen ekonomikoa ekarriko zuela, honek populazioaren gehiengoaren bizitza maila hobetuko zuela, espainiar estatuan inoiz ezagutu izandako oparotasuna sortuko zuela eta populazioaren begien aurrean erregimena legitimatuko zuen hizpide berri bat gizarteratuko zuela aurreikusten zen.

Egiazki 60. hamarkadaren hasierak, bizi baldintzei dagokienean, aldi berri baten hasiera suposatu zuen. Orduan, lehenbizikoz, populazioaren gehiengoari onura ekarriko zion bizitza mailaren adierazle bilakaera positiboa nabaria egiten hasi zen. 60. hamarkadan zehar klase herrikoien bizitza, aurreko hamarkadakoarekin alderatuta, hobetu zen. Soldaten, errentaren eta kontsumoaren bilakaeraren datu estatistikoei begiratzen badiegu, ez dago zalantzarik: gosea gainditu zen, enpleguak eta soldatak egonkortu ziren eta kontsumoa berreskuratu zen, geroz eta jende gehiago, ordura arte "luxuzko" produktutzat hartzen ziren artikuluak eta zerbitzuak (kotxea, telebista, hozkailua eta are erdi mailako eta goi mailako ikasketak ere) kontsumitzen hasi zirelarik. Alta, datu horiek langile esperientzia bilakatu eta kualitatiboki aztertzen baditugu, protagonistek "hobekuntza" hura modu konplexuagoan bizi izan zutela azaleratzen duten ñabardurak topatuko ditugu.

Hamarkada hartan, soldata eta salneurrien arteko desorekak arintzen hasi ziren. Horrek, era berean, batezbesteko erosahalmena handitu zuen. Enpleguak eta soldatak egonkortu ziren, soldatapeko populazioaren kopurua hazi egin zelarik eta BGPan soldatapeko errentek hartzen zuten pisuaren handitze nabaria gertatu zelarik. Enplegu erregular batean lan egiten zuen eta soldata bat erregularri jasotzen zuen jende gehiago zegoen. Jende guzti honek jasotzen zuen ordainsaria gainera, geroz eta handiagoa zen, ez bakarrik soldaten bilakaera positiboak eta hauen salneurriekiko desoreken arintzeak soldata errealean hazkunde jarraitua erakusten zuelako, baita lanekuaren kualifikazio prozesuak, langile askori, hobe ordaindutako lanpostuetarako sarrera erraztu zielako ere. Honekin guztiarekin, klase herrikoien kontsumoa berreskuratu zen, berauen ongizate materialaren adierazleak nabarmenki hobetu zelarik.

Ilido horretan, 1975ean Erakunde Sindikalak eginiko azterketa batek, azken hogeita bost urteetan bizitza maila bikoiztu egin zela azaleratzen zuen oso datu adierazgarri bat jasoz: 1950ean oinarrizko premien heren bat baino asetzerik ez zegoen bitartean, hogeita bost urte geroago, hauen %75ari erantzuteko gaitasuna zegoen<sup>389</sup>. Per capita errentaren bilakaerak, norabide bereko datuak aurkezten ditu. 1960 eta 1980 bitartean, per capita errenta bikoiztu egin zen denbora tarte hartan, honen hazkundera, jarraia eta erregularra izan zelarik<sup>390</sup>. Datuak orokorrean positiboak diren arren, populazioaren gehiengoaren ongizate maila oraindik hazkunde ekonomikoaren mailaren azpitik zegoa gogoan izan behar dugu, honek nolabait, hazkunde ekonomikoak sorrarazitako aberastasun berriaren etekin handiena langileak jasotzen ari ez zirela iradokitzen baitu. Beraz, datuek bizitza mailaren hobekuntza gizarteak bere osotasunean bizi izan zuela adierazten duten arren, gizarte sektore guztiek ez zuten intentsitate berberarekin bizi izan. Klase herrikoientzat, abiapuntutzat zuten bizitza maila baxua kontutan hartuta, hobekuntza hura ikaragarria izan zen, baina gainontzeko sektoreek bizi izan zutenarekin alderatuta, txikiagoa izan zen. Izan ere, erosahalmen handiena zuten gizarte taldeak izaten ari ziren, alde handiz, hazkunde ekonomikotik etekin gehien jasotzen ari zirenak.

<sup>389</sup> Datua, Álvaro Soto Carmona, "No todo fue..." Op. Cit., 40 orr.

<sup>390</sup> Datua, Carme Molinero eta Pere Ysás, "La historia social..." Op. Cit., 145 orr.

Kontsumoaren berreskurapena, langile familien bizitza maila, alderdi materialean behintzat, hobetu egin zelaren erakusle nabarmenena izan zen. Kontsumo eredu berri baten gizarteratzearekin batera etorri zen berreskurapena izan zen, kontsumo ondasunak eskuratzea bideratzen zen gastua, premiazko beharrak asetzea bideratzen zena baino handiagoa izaten hasi zelarik. Klase herrikoek, hartara, lehen haientzat ezin lortuzkoak ziren ondasunak eskura izan zituzten eta ordura arte gizarte sektore ahaltsuenek baino disfrutatzen ez zituzten artikulua berriak kontsumitzen hasi ziren. Hala ere, 60. hamarkadako oraindik, kontsumo gizarte hasiberri bat baino ez zen izan. 70. hamarkadakoari kontsumo gizartea zela esan ahal izan zitzaion arte, langileen kontsumoak, etxebizitza duin baten erosketarekin hasten zen, etxetresna elektrikoak eskuratzearekin jarraitzen zuen eta kotxearen erosketarekin amaitzen zen bidea ibili behar izan zuen. Urte hauetan, produkzio sari edota aparteko orduekin lotutako soldata soberakinak hozkailuak, garbigailuak, berogailu elektrikoak, ur berogailuak, sukaldea, altzariak, irriak eta telebistak erosteko erabili ziren eta gutxika, kontsumo ondasun berri hauek langile etxebizitza askotan ohiko egin ziren<sup>391</sup>. Halako kontsumo ondasunen gizarteratzeak, langileen eta euren familien eguneroko bizitza hobetzeaz beste, hura erabatean aldatu zuen ere. Alde batetik, hozkailua eta garbigailua bezalako tresnek, etxeko lana asko arindu zuten, eguneroko bizitza nabarmenki erraztuz; bestetik, aurretik kolektiboak ziren irratia entzutea edota telebista ikustea bezalako jarduerak banan-banakotu zituen, hauek norberaren etxebizitzaren arlo pribatura mugatuz.

Gure iturriek haurtzaroan eta gaztaroan bizi izan zituzten eguneroko bizitzaren alorreko esperientziak, 50. hamarkadaren erdialdekoak eta 60. hamarkadaren hasierakoak dira. Interes handikoak dira guretzat, batez ere, bi arrazoirengatik: ordurako jada 40. hamarkadako gosea, errazionamendua eta merkatu beltza nolabait gaitzituak zeuden arren, 60. hamarkadako hazkunde orokortuaren aurreko egoera langile familientzat nolakoa zen erakusten dutelako; eta aurrerago ezagutuko zuten bizitza mailaren hobekuntzaren ginetik, subjektuei, euren eta euren familien maila soziala zein zen argi izatera eramaten dituelako:

Familia baten bizitza arrunta...beti pezetari begiratzen zion bizitza bat, soila, soila, oso soila [...] gogoratzen dut, Urdanoz taldean bizi ginenean [...] merienda hartzeko Pedro Mayo ontza erdia ematen zidatela ogiarekin eta ni... ni, nondik datorren ez dakidan harrotasun eta duintasun sentimendu batekin jaio nintzen eta seigarren solairutik oinez jaisten nintzen, eta kalera iristen nintzenerako, hortzak labana txokolatea ebaki zuen aldetik pasa ondoren, ertza karraskatuta uzten nuen, besteek jada erdia jan nuela pentsa zezaten. [M.S.S. Nekazal mundutik etorritako familia emigrante baten alaba]

Ni umea nintzela [lagunekin] irteten hasi nintzenean, zinemara joaten ginen. Noski, diru askorik ez genuenez, anaia maristetara joaten ginen [bertan] filmak ematen zituztelako. Anaia maristen eskolan igande arratsaldetan filmak ematen zituzten neurrizko prezioetan, sei pezeta inguru edo horrelako zerbait izango zen. Jesuitetara ere [joaten ginen]. Hau da, zinema aretoak ez genituen eskuragarri... nik hamabost edo hamasei urte nituela, ezin nintzen zinema aretoetara joan horretarako dirurik ez nuelako. Orduan beste mota horietako zinematara joaten ginen. [M.L.C.. Iruñeko familia apal bateko alaba]

Nik ez dut inoiz goserik pasa, inoiz... baina beti oso justu ibiltzen ginen. Adibidez, arropa [...] aitaldeko aitona bidezaina zen eta orduan, [bidezainei] artilezko pieza batzuk ematen zizkieten

---

<sup>391</sup> José Antonio Pérezek adibidez, datuekin erakusten du 60. hamarkadaren bitartean ur beroa, altzariz jantzitako bainugela osoa, garbigailua eta hozkailua etxebizitza gehienetara iritsi zirela. José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 133 orr. Hala ere, geroz eta gehiago kontsumitzen ziren arren, halako kontsumo ondasunek denbora behar izan zuten oraindik etxebizitza guztietara iristeko. Adibidez, Iruñeko Alde Zaharrean, oraino dutxarrik ez zuten etxeak zeuden, bizilagunek komun publikoaren zerbitzua erabili behar zutelarik. "Notas del Reporter", DN 1964-07-22, 7. orr.

jantziak egiteko, ez dakit nola deitzen ziren, artilezkoak ziren... ez, panazkoak; bidezainak panazko trajeak jantzen zituzten, nolabait euren uniformearen zen; eta urtero [panazko zati guztia] erabiltzen ez zuenez, noizean behin amari [soberan zuena] ematen zion. Ba gogoratzen dut [amak] galtza motz batzuk egiten zizkidala eta [behin], ez dakit zenbat urte izango nituen, bederatzi edo hamar urte, eskolara joan nintzen eta lagun batek [...] esan zidan: “Jo, que pantalones más grandes llevas”. Nik gero amari esan nion eta berak esan zidan: “es que lo hago para que te sirvan para varios años”. [J.L.D.M. Iruñeko familia apal bateko semea]

Dendara joaten nintzenean... amak bertara bidaltzen ninduen eta esaten zidan: “dile que te de azúcar, que ya le pagaremos”. [Hori esaterakoan] dendaria ez zen batere harritzen, koaderno bat zuen eta bertan familia ezberdinek zorretan uzten genion guztia idatzita zuen. Hau da, nire etxean gertatzen zena ez zen ohiz kanpokoak [...] gurasoek etxebizitza erosteko beharra izan eta erosi egin zutenean, estatusun ekonomiko handiak pairatu zituzten, handiak... gu lanean hasi ginen arte. [M.G.. Iruñeko familia apal bateko alaba]

Nire haurtzaroa pobrezia sozialaz inguratuta dago, ezta? ez zen 50. hamarkadako Iruñeko gizarte sektore aunitzen egoeraz oso desberdina. [...] Pobreak ginen, baina ez ginen pobre bakarrik. Ni Telleria kalean bizi nintzen. Hor, Compañía kalearen inguruan, ijitoak bizi ziren ere... hau da, gizartearen parte hartan, maila ekonomiko baxuena zuen horretan bizi ginen [...] pobretasun dexente zegoen, baina bestalde... egoera horretan bizi baginen ere, ba nahiko jasagarria zen. [A.L.. Iruñeko familia apal bateko semea]

Eta ez bakarrik euren eguneroko bizitzaren halako aspektuetan, euren etxebizitzaren baitan ere agerikoa egiten zen urritasun egoera hura:

Nik benetako pobretasun urteak ikusi ditut auzoan, auzoaren maila ekonomikoa oso apala zen, auzoa Iruñeko beste zonaldeetan berralokatuta bizi zen jendearekin eta herrietatik etorritako jendearekin osatzen ari zen, orduan bertara bere etxetxoak egitera zetozen, baina... soinean zeramatenarekin bizi ziren soilik, ni gaixoei bisitak egitera joan naiz eta [etxeetan] ohea, aulki bat eta atearen atzean euritako bat baino ez ditut topatu<sup>392</sup>

Enpresak ematen ziren etxebizitza batetara etortzen ziren. Bertan bizitzen hasten ziren eta bakarrik bi aulki erosten zituzten, bikotearentzat, umea edukitzen zutenean sehaska erosten zuten eta handitzen zenean, hirugarren aulkia [...] bi aulki, hozkailua epetan... hau da, gauza apalak baina bizirauteko ezinbestekoak zirenak, hori zen finean garrantzitsuena... lanindarra eraberritu beharra dago, hau da, egunero jan behar du lan egin behar duelako... baina ezer gutxi gehiago, ez zuen askoz gehiagorako ematen [...] guztia bazen... eguneroko bizitzarako beharrezkoak diren oinarrizko gauzetatik hastea, ezta? jan, lo egin, berokuntza sistema... eta garaian aparteko asmakizunak izan zirenak: hozkailua eta berogailua, bizitza errazteko asmakizun itzelak izan zirenak; orain haietara ohitu egin gara eta hutsalak direla iruditzen zaigu, baina jendearen bizitza izugarri aldatu zuten asmakizunak dira... hozkailua eta berogailua, neguan bero egoteko, egunero erosketa egiten ez duzunean elikagaiak gordetzeko... beno, hori zen funtsean jendearen gehiengoak zuena [J.S.M. Nekazal mundutik etorritako familia emigrante baten semea]

### 3.2.2 Etxebizitzaren arazoa

Urritasunezko egoera honetatik abiatuta, ez da harrizkoa langileek eta euren familiek 60. hamarkadan egiazko hobekuntza bat eman zela sentitu izatea. Hala hauteman zuten eta azaletik ikusi ditugun datu kuantitatiboek hala izan zela baieztatzen dute. Hala ere, hobekuntza honen atzean langileen esperientzia kualitatiboak bilatzen baditugu, langile bizitza baldintzatu eta hobekuntza haren bizipenari hainbat ñabardura egiten dizkioten zenbait elementu topatuko ditugu. Etxebizitzarena esaterako, halako esperientzia kualitatibo ugari azaleratzen dituen gaia da. Hasteko, kontutan izan behar dugu garai hartan etxebizitzaren arazoa, nola edo hala, klase arazo bat izan zela,

<sup>392</sup> Auzoaren hastapenetatik eta denbora luzez Txantreako parrokoa izan zen Manuel Elviraren hitzak. Jaso, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 107 orr.

etxebizitzaren falta eta ostatu hartzeko miseriazko baldintzak, gehien bat, populazioaren sektore umilenean, hots, emigrante iritsi berriek eta etxe propioa erosteko haina irabazten ez zuten gizarte sektoreek, bizi behar izan zituztelako. Izan ere, hirietako populazioaren hazkundeak sorrarazitako gaitzeskeriaren aurreko eskaintza murriztuak eta hiri esparru berrien sorreraren beharrak, jarduera espekulatibo bizi bat sustatu zuen eraikuntzaren alorrean eta honek, gizarte sektore herrikoientzat oso garestiak ziren prezioak eragin zituen. Langileek beraz, “amestutako” etxebizitza duina, enplegu finko bat lortzen zutenean eta ahalegin zein sakrifizio handiak egin ondoren eskuratzen ahal zuten soilik.

Etxebizitza duina jabetzan lortu arte, langile familiak, pisu fimiñoetan, populazio metaketa arazo larriak zituzten bizileku eta eraikinetan, osasungarritasun eta higiene falta larria azaltzen zuten etxebizitzetan eta komunik edota pribatutasunik gabeko tokietan bizi behar izan ziren: *“Ni aberatsak bizi ziren lekuan bizi nintzen, Paulino Caballero kaleko 15. zenbakian, Cafes Costa Fría dagoen tokian. Eta noski, jendeak esaten zuen, arraioa, nola bizi da tipo hau, Zabalgunean bizi da [...] hantxe bizi nintzen ni, han bizi ginen eta esango dizut bertan nola bizi ziren emigranteak eta nola bizi ginen gu. Ni Jarauta kalean jaio nintzen, baina [...] handik sei hilabetetara [...] hara joan ginen bizitzera, Paulino Caballerora. Orduan solairu batean... lehen solairura iritsi baino lehen, egur biltegi bat zegoen eta etxearen jabeak hirutan banatu zuen eta hogeita hamaika metro karratuko hiru etxebizitza egin zituen. Haietariko batean nire gurasoak, amaren neba, amaren ahizpa, aitona eta hiru seme-alaba bizi ginen, pentsa ezazu, hogeita hamaika metro karratutan bizi ginen!”*<sup>393</sup>. Etxebizitza prekarioaren egoera hau, Iruñeko langile familia askok etxebizitza jabetzan eskuratu eta harresiaz bestaldeko auzo berrietan finkatu aurretik bizi bazuen ere, emigranteek pairatu zuten modu gordinean. Euren bizipenetan topatuko dugu etxebizitzaren arazoak eragin zituen esperientziarik gogorrenak eta adierazgarrienak. Emigranteek etxebizitza propio bat lortzeko ibili behar izan zuten bidea, bizipenez josita ageri da, euren ordura arteko ostatu hartzeek, aldi baterako izaera izan zutelako hein handi batean. Familiako kideren batek (osaba-izebaren batek edota anai-arrebaren batek gehienetan) ematen zuen lehen uneko ostatua, “ugazabandre etxeak”, langile egoitzak edota pisu partekatuak izan ziren, besteak beste, etorkinen behin-behineko ostatu hartze hauen artean ohikoenak. S.G. hamasei urterekin iritsi zen Iruñeara Ziraukitik. Denboraldi batez senide batzuekin bizitzen egon ondoren, ama herritik etorri zenean, gela bat hartu zuten alokairuan. Gero bi gela hartu zituzten eta azkenean, pisu oso bat alokatu zuten, orain haiek bertan gela bat alokairuan jarri zutelarik:

Lehengusuekin joan nintzen haien etxera, zerratokian haiekin lan egiten nuen, elkarrekin bazkaltzen genuen... eta handik hamabost egunetara, gutxi gora behera, ama etorri zen, gela bat alokatu zuen [...] eta gela, bertan egon ahal zuenarentzat izan ohi zen. Ni bitartean lehengusuekin jarraitzen nuen eta gero jada, San Agustín kalean bi gela hartu genituen. Bertan hiru edo lau hilabetez egon ginen eta Tafalla kalera joan ginen, 14. zenbakira, Zalbaren etxea zenera. Eta orduan hartu genuen pisua alokairuan, bostehun pezeta ordaintzen genituen [...] eta gero bertako gela bat alokairuan jarri genuen, pixka bat laguntzeko. [S.G.. Nekazal mundutik etorritako familia emigrante baten semea]

R.M. ere gaztetan, hamazazpi urterekin, emigratu zuen Cabanillasetik Iruñera. Berea, emigranteen halako ostatu hartzeek zuten aldi baterako izaera primeran jasotzen duen ibilbidea da. Lehen momentuan senide batzuen etxean geratu zen; gero, langile egoitza batean eta “ugazabandre etxe” batean bizi izan zen; azkenik, arropa ezkondu zenean, haren pisuan geratu zen etxebizitza propioa erosteko aukera izan zuen arte:

<sup>393</sup> R.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-03-06.

Hona etorri nintzenez, lehenbiziko momentuan, egoitza batean bizi izan zintzen. Beno, lehenbizi izeba baten etxera joan nintzen, orduan nire ahizpa etxe batean zerbitzatzen zegoelako, ezta? Orduan izeba bat nuen eta kokatzeko toki bat topatu arte, bere etxera joaten nintzen lotara. Ez dakit zenbat seme-alaba izango zituen, zortzi edo bederatzi [...] baina mundu guztia besoak zabalik hartzen zuen emakumea zen, kristorena zen [...]. Gero, egoitzan kokatu nintzen, hantxe zegoen, Errotazar kalean, oso egoitza merkea zen. Noski, ni hona ikastun edo laguntzaile moduan etorri nintzen eta laguntzaileoi lau ogerleko ordaintzen zizkiguten... ez dakit, berrogeita zazpi pezeta uste dut jasotzen nuela eta soilikan egoitza eta ohea ordaintzeko iristen zitzaidan. Egoitza hori inklusatik irten ziren mutikoentzako egin zuten [...] hemezortzi urte bete eta haur abandonatuen etxetik ateratzen zirenean, norabaitera joan behar ziren eta [orduan] honengatik, gure estatu ongileak, Errotazar kaleko bi zenbakitan, irteten ziren horientzako egoitza bat sortu zuen. Baina handia zenez, jende gehiago hartzen ahal zuen. Oso merkea zen. Noski, ni bertara sartu nintzenez, bazkaldu eta afaldu baino ez nuen egiten han, ez zegoen logela librerik, guztiak hartuta zeuden [...] orduan zer egin nuen? Ugazabandre bat bilatu nuen Errotazar kaleko 38. zenbaki horretan bertan, goian gelak alokairuan jartzen zituztelako; eta han egon nintzen gela txiki-txiki batean [...] eta orduan egoitzan bazkaldu eta guztia egiten nuen, eta goian lo [...] [gerora] soldaduzkatik itzuli nintzenez, nire arreba ezkondua zegoen eta bere pisua zuen jada eta berak alde aurretik esana zidan: “Oye, pues cuando me case y me den el piso, pues te vienes con nosotros hasta que, te den la tuya” [R.M.. Nekazal mundutik etorritako emigrante gaztea]

Ildo horretan, José Antonio Pérezek emigranteen asentatzeari berezkoak izan zitzaizkion hiru fenomeno nabarmendu izan ditu: “ugazabandre etxeak”, txabolismoa eta familia bat baino gehiagok etxebizitza berean bizi izatea<sup>394</sup>. Senideren batekin ostatu hartzearekin batera, “Ugazabandre etxeak”, emigranteek hiriarekin egiten zuten lehenbiziko lotura izan ohi zen. Apopiloto etxe edota ostatu formak hartzen zuten maiz fenomeno honek, baina aipatu senideren batekin denboraldi batez bizi izatea edota familia ezagun nahiz ezezagun batekin ostaturik egotea, “ugazabandre etxeen” esperientzien parte izan zen ere. Berauetara jotzen zuten emigrantea, familia herrian utzi eta hirira iritsi berri zen langile gaztea izaten zen. S.G. eta R.M. gazteak ez bezala, familia buruak ziren askotan, enplegu finko bat lortu bitartean eta gainontzeko familia kideak hirira lekualdatu ahal izateko nolabaiteko egonkortasuna bermatu bitartean, halako behin-behineko konponbideak bilatu behar izaten zituztenak:

Lehenbizi aita eta bi ahizpa helduenak etorri ziren, ba bidea irekitzen joateko eta behin haiek bidea ireki zutela, hau da, aita jada enplegua lortu zuenean [...] eraikuntzaren arloan peoi gisara hasi zen lanean eta ahizpak fabrika ezberdinetan [...] ba orduan...geratzen ginenak etorri ginen. Eta orduan hasi zen bizitza Iruñean [...] [ordura arte] “Ugazabandre etxe” batean egon ziren, “Ugazabandre etxe batean”. Nik zehazki ez dut gogoratzen... badakit kale nagusian egon zirela, “ugazabandre etxe batean”, beste pertsona batzuekin etxe berean bizi ziren [...] Ez zuten... ez genuen etxebizitza propiorik. Arrotxapean txalet txiki batean bizi ginean, San Pedroko igerilekuan ondoan eraikitako txalet bateko bigarren solairuan, alokairuan bizi ginen; alokairuan jarraitu genuen Jarauta kalean [...] eta orduan ahizpak, fabrika ezberdinetatik pasa ondoren, Inkuinagan hasi ziren lanean eta Arrotxapeatik eta Jarautatik oso urrun zegoenez, Urdanoz taldera, “Catangara” [Etxabakoitz] joan ginen bizitzera, urtebetez edo urte ta erdiz, kooperatiba sistemaren bitartez ni bizi izan naizen eta bizi naizen Arrosadiako etxea egin zuten arte. [M.S.S. Nekazal mundutik etorritako familia emigrante baten alaba]

Iruñera etorri nintzen lehenbizi lan bila. Segituan topatu nuen lana eta beno [...] urte batzuen buruan Burlatan etxe bat erosi nuen... eta [ordura arte] “ugazabandre etxe” batean egon nintzen, kale nagusian [...] nik uste dut 63 edo 64 urtea izango zela, gutxi gora behera. Orduan berehala, ni oso ahozabala eta zuhurtzarik gabekoa naizenez, beti nabaritzen zitzaidan komunisten aldekoa nintzela eta [“ugazabandre etxean”] nahiko jatorra zen familia batekin egon nintzen, Arguedasekoak zirela uste dut eta bertara seminarioan zebilen apaiz bat joaten zen ere [...] eta han politikaz eta guztiaz hitz egiten genuen, “ugazabandre etxean”. Eta haiek ba euren lurrari oso lotutako jendea ziren, hemengoak, eskuindarrak ziren, baina halakoak zen hemen

<sup>394</sup> Ikusi José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 74-80 orr.



jendearen gehiengoa... baina nik han nire burua iraultzailatzat azaltzen nuen. [M.BU.. Granadatik etorritako emigrantea]

Bigarren fenomenoak, txabolismoa, ez zen horren ohikoa izan 50 eta 60. hamarkadetakoa Iruñerrian. Egia da Iruñeak jada, aurreko hamarkadetatik, harresiaz bestalde etxola edo txabolen eraikuntza ezagutzen zuela. 30. hamarkadako Mochuelo auzoko lehen asentamenduak begiratu baino ez ditugu behar fenomeno hura hirian nola edo hala existitu egiten zela ikusteko<sup>395</sup>. Baina 50 eta 60. hamarkadetan Madril, Bartzelona edo Bilbo bezalako hiri handiek pairatu behar izan zuten txabola ugaritasunarekin alderatuta, Iruñerriko hau, ez zen neurritzat kanpoko dimentsioa hartu zuten fenomenoak izan<sup>396</sup>. Madrilen esaterako, txabolismoa, 50. hamarkadako hiri hazkunderen berezko ezaugarria izan zen, aldi hartako gaitz sozial nabarmenatariko batean bilakatzeraino. Populazioaren sektore garrantzitsu baten ongizate murriztaren eta higieze zein osasungarritasun baldintza prekarioen adierazle lehena izateaz beste, txabolismoaren fenomenoak arrazoi sakonagoengatik merezi izan zuten instituzioen arreta. Garai hartan txabolen eraikuntzaren aurka hartu ziren neurri asko, diziplina sozialerako neurri bezala ulertzen ahal dira nolabait, bai haiekin atxikitze egonkorra ez izateagatik ordena arazoak sortzen ahal zuten jendea hirietatik kanporatzea bilatzen zelako eta baita, neurriok lanekua ibiltaria izatea saihestean eta langileak bizigune iraunkor batean kokatzen laguntzen zuten heinean, produkzio diziplina ezartzeko tresna gisara funtzionatzen ahal zutelako ere<sup>397</sup>. 1966an iruñar gizartearen begien aurrean txabolismoaren arazoa azaleratu zuen Etxabakoitz, Zizur eta Barañaingo portugaldar eta ijito etxola herrixken aferetan<sup>398</sup>, adibidez, bizi baldintzengatik kezkarekin batera, ordena sozialarengatik kezkak hori agertu zen ere.

Urte hartako udazkenean gertatu ziren uholdeen ondorioz Elortz ibaiak gainezka egin zuenean, ibaiaren ertzean kokatutako txaboletan bizi zen hainbat familia portugaldarri Misericordia Etxean ostatu eman behar izan zitzaion<sup>399</sup>. Gertakari horrek, ageriko egin zuten lehenbizikoak txabolismoaren arazoa Iruñean eta ordura arte hirian kezka eragiten ez zuten errealitate bat, gordinki azaleratu zen bat-batean: Zizur Txikian bazen txabolaz osatutako kanpamentu bat eta bertako biztanleak, giza azpiko baldintzetan bizi ziren. Gizonak, langabezia ez zeudenean, peoi gisara lan egiten zuten, soldata murrizak kobratzen zituzten euren familia ugariak mantentzeko,

<sup>395</sup> Lehen asentamendu haien argazkiak ikusten ahal ditugu, Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 33 eta 35 orr. Hainbat testigantzek ere fenomenoaren berri ematen dute: "XX. mendearen hasieran auzoan ez zen inor bizi, guztia soroak zirelako. Hauek gutxika baratze bihurtu ziren eta lanabesak eta erramintak gordetzeko txabolak agertzen hasi, hauek azkenean etxebizitza bezala erabiltzen hasi zirelarik. Oilategi, untxitegi, txerritegi eta guzti zuten". Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: "algunas raíces de nuestro barrio y de la parroquia San Fermin", 62 orr.

<sup>396</sup> Diario de Navarra "Reporter" delakoak horrela ikusten zuen: "Zorionez, Iruñeak txabolismoaren arazoa pairatu ez duela esan daiteke, ez behintzat bestelako hirietan pairatzen den indar berberarekin. Erdigune industrialak immigrazio masiboa erakartzen dute [...] [Beraz] industrializazioarekin batera, lasai asko agertzen ahal dira txabolismoaren lehen zantzuak", "Notas del Reporter. Atención al chabolismo como problema urbano" DN, 1968-01-14, 7 orr.

<sup>397</sup> José Babianok, fordismoaren zabalpenaren kontestuan, etxebizitza iraunkorrek produkzio diziplina ezartzeko tresna bezala funtzionatu zuela planteatu du. Besteak beste, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 21 orr.

<sup>398</sup> Barañaineko txabolismoaren existentziaz, adibidez: "Hemezortzi urterekin, jende talde batek, gazte klub bat sortu genuen eta lanean hasi ginen... sortu genuen... Barañainen zegoen txabolismoan helduen alfabetatzerako eskola bat. Barañainen txabolismoa zegoen, burdinzuriko txaboletako txabolismoa, bai... eta helduentzat eskola bat sortu genuen [...] [bertako] jende gehiena ijitoa zen garai hartan". A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16.

<sup>399</sup> "No se preve una solución para el problema de los portugueses alojados provisionalmente en la Casa de Misericordia", DN 1966-10-11, 24 orr.

emakumeak txaboletan geratzen ziren eskolatu gabeko haurrak zaintzen eta biztanleen gehiengoa, bai umeak eta baita helduak ere, analfabetoa zen. Gainera nolabaiteko talde izaera etniko edo erregionala azaltzen zuten, euren artean leondar, zamorar edota galiziarren bat bizi zen arren, portugaldarrak zirelako.

Zer gertatuko zen haiekin orain? Misericordia Etxean ezin ziren betirako geratu, oihal-etxolekin ibai ertzerantz itzultzea gizagabea zirudien -neguan bereziki-, euren neurrizko prezioetan alokatzen ziren pisuak topatzea ezinezkoa zen -ez zituzten ez Etxabakoitzen eta ezta ere Burlatan aurkitzen- eta bizitzeko aukerarik ematen ez zuen sorterrira itzultzea ez zen hautabide bat haientzat. Beraz, zer egin “portugaldarrekin”? Arazoa konpontzeko egin ziren saiakera guztiak, hiritik kanpo kokatutako barraka handi batzuetan ostatu emateko proposamen bat barne, alferrikakoak izan zirenez, eurak portugalera bidaltzeko zuzemena egin ziren bertako autoritateekin<sup>400</sup>. Ordurako jada, “portugaldarrekin”, Iruñean kezka larria sortzen zuen auzia zen. Izan ere, txaboletako familiei egozten zitzaizkien ordena sozialeko arazoei (eskaletasuna, haurren eskola gabetasuna edota delinkuentzia), taldearen izaera etnikoak, ibiltariak eta marginalak ondorioz zekarren pertsona hauen integrazioarako zailtasunak eta txabolismoa hirian errotzen eta handitzen ahal zelako mehatxua gehitzen zitzaizkien.

Autoritate portugaldarrekin egindako zuzemenean ostean, Elortz ibaiko “portugaldarrekin” Iruñea utzi zutela eta arazoa konponduta zegoela zirudien. Baina 1967ko azaroan, berriez ere uholdeen ondorioz, ibaiak portugaldarren beste kanpamendu bat urez bete zuen, Zizur Handian oraingoan. Aurreko urtean ibaiak suntsitutako kanpamenduan bizi zen hainbat familia, Iruñean jarraitzen zuen nukleo berri honetan. Hirian errotutako txabolismo bat azaleratzen zuen horrek nolabait. Bigarren ibaialdia gertatuta, Diario de Navarra egunkaria Iruñeko biztanle haien egunerokotasunera hurbildu zen, gizazpiko egoera hartan bizi zirenen arazo eta zailtasun hurbilenak azaleratu asmoz. Adibidez, urak suntsitu berri zuen kanpamendu hartako biztanle baten testigantzak, txabola batean eta ibai ertzean bizitzeak sortzen zuen segurantzarik eza azaltzen zuen: *“gutxika txabolari maitasuna hartzen diozu. Ni hortik ibiltzen nintzen teilatua finkatzen eta lurzorua isolatzen lagunduko zuen edozein gauzaren bila eta orain, ibaia dator eta minutu gutxitan guztia eramaten du berekin”*; baina hala ere sorterrira uzteko, familia lekualdatu arazteko eta ibaiak nahi zuenean minutu gutxitan suntsitzen zuen txabola hartan bizitzeko pisuzko arazoak zituela argitzen zuen: *“Hemen lana dugu. Ez dakizu zuk non lan egiterik, non dirua irabazterik, ez izatea zer den. Oso gogorra da hori. Portugal pobrea da, oso pobrea. Bertan ezin da lanik egin. Han ez dugu deus ez”*<sup>401</sup>. Egunkari berberak “Mudanza de Chabolas: de Cordovilla al barrio de Echavacoiz” izenburupean argitaratu zuen argazkiarekin ere, txabolismoaren problematikarako oso hurbilpen adierazgarria egiten zen<sup>402</sup>. Argazkian, bi eskorgatan burdin xafla batzuk, ohol batzuk eta tximinia eramaten zituzten gizon bat eta ume bat agertzen ziren. Ondoan, argazkiari egiten zitzaion iruzkinean, txabola haren eta bertan bizi zen familiaren istorioa azaltzen zen: Cordovilla eremuan, etxola batean, bikote bat eta bere hiru seme-alabak bizi ziren; familia honen bizimodua txabolismoa zen, ez zuen besterik ezagutzen; argazkiak erakusten zuen txabolaren aldaira hura, Etxabakoitz auzoan kokatzeko burutzen zen, han txaboletan bizi zen portugaldarrez osatutako kolonia bat baitzegoen; ez zuten beste erremediorik, aitzak errepideak egiten peoi gisara lan egiten zuen eta orduko soilik bost ogerleko irabazten zituen, beraz, nola ahal izango zuten pisu bat erosi edo errentan hartu bazkaltzeko ozta-ozta iristen zitzaizkion?

<sup>400</sup> “El asunto de los portugueses ha entrado en fase gubernativa. Gestiones con las autoridades portuguesas para llegar a un acuerdo”, DN 1966-10-15, 24 eta 4 orr.

<sup>401</sup> “En Cizur mayor. Un campamento en el que viven mas de cien portugueses, anegado por las aguas del río”, DN 1967-11-19, 28 orr.

<sup>402</sup> “Mudanza de chabolas: de Cordovilla al barrio de Echavacoiz”, DN 1968-02-21, 16 orr.

Bigarren ibaialdiaren ondoren, txabolarik gabe geratu ziren familiei oihal-etxola militarretan ostatu eman zitzaizen Barañain udalerrian. Aurreko urteko arazo berbera errepikatzeak ordea, epe luzerako konponbide bat eskatzen zuen eta Nafarroako Gobernu Zibilak, Foru Diputazioak, Iruñeko Udalak, Lan eta Etxebizitza Ministeritzetako ordezkariak probintziales eta Cáritasek, elkarrekin, emigranteentzako harrera zentro bat egiteko proiektu proposamen bat aurkeztu zuten<sup>403</sup>. Honen helburua, txabolismoa saihestea zen eta horretarako, Iruñera esku hutsik, inolako alde zuzeneko lotura edo harreman sarrerik gabe, iristen ziren emigranteei gutxieneko azpiegitura duin bat eskaini ahal izatea zen. Zentroa, hartara, txabolarik gabe geratu ziren familien arazoa konpontzera zetozen, baina baita, aldi berean, txabolismoa Iruñetik zabaltzen ez jarraitzeko oinarri trinkoak ezartzera ere. Zentroak behin-behineko izaera izango zuen arren, hau da, etxebizitza duin bat bilatu eta aurkitu bitarteko trantsiziozko konponbidea baino izango ez zen arren, bertan ostatu hartu ahal izateko ezarriko ziren baldintzak, emigranteen integrazioa eta finkapena bideratzeko tresna izateko pentsatuta zeuden: emigranteak zentrotik pasa eta etxebizitza aurkitu ezean ibai ertzera itzultzen baziren, hiritik bidaliak izango ziren; derrigorrezkoa zen lanera joatea eta haurrak eskolatzea; eskaletasuna debekatuta zegoen. Proiektu honen inguruko polemika laster piztu zen. Zentroa auzoan kokatuko zelako Txantreako zenbait bizilagunek Diario de Navarra proiektuaren aurkako euren kezak helarazi zituztenean, portugaldarrak “nahi ez” zituztenen eta jarrera hauen elkartasunik eza gaitzesten zutenen arteko eztabaida hasi zen egunkariaren orrialdeetan barna <sup>404</sup>.

Ika-mika hauek Iruñeko Udalaren osoko bilkurak “portugaldarrei” udal barrutian kanpatzea debekatuko zitzaizela erabaki zuenean iritsi ziren punturik gorenera, 1968 urtearen hasieran. Udalaren akordioaren aurkako erreakzioak berehalakoak izan ziren eta Diario de Navarra, martxoaren 31an, erabakiarekin atsekabetuta azaltzen ziren lau eskutitz argitaratu zituen. Seminarioko ikasle talde batek sinatutakoak, debekua kritikatzeko zuen eta portugaldarren auzia, hau da, txabolismoaren fenomenoak, ikuspegi honetatik begiratu behar zela aldarrikatzen zuen: *“Giza eskubideei buruz, are gehiago, giza duintasunari buruz mintzo gara. Hain zuzen emigratzeko auren arrazoiak izango zituzten gizakien biziraupenari buruz”* <sup>405</sup>. Egunkarira bidalitako eskutitzetan ere, Ángel Hermoso de Mendoza presbiteroak eta osoko bilkuran debekuaren alde bozka eman zuen Justo Luis Tabuenca alkateordeak, txabolismoaren kontrako neurrien aldeko argudio nagusiak azaltzen zituzten<sup>406</sup>. Presbiteroaren arrazoibide lehenak, Iruñera etortzerakoan integratzen ziren emigranteak eta integrazioa bilatzen ez zutenak bereizten zituen, “portugaldarrak”, txabola kanpamentuetan bizi zirenak, bigarren talde honetan sailkatzen zituelarik. Lehenbizikoak eredu gisara jartzen zituen: *“Emigrante bat hatua bizkarrean daramala iristen denean (ehundaka ikusi ditut iristen) segituan enplegua eta ostalua bilatzen ditu. Eta topatzen ditu. Handik hamabost egunetara zapatak erosten ditu; handik hogeita hamar egunetara gabardina eta alkandora; handik hiru hilabetetara janzki bat. Handik urtebetera sukaldea erabiltzeko eskubidea duen gela bat alokatzen du, familia deitzen du eta etxebizitza kooperatiba batean izena*

<sup>403</sup> “Se va a crear en la Chantrea, detrás del manicomio un centro para inmigrantes con cincuenta casas prefabricadas”, DN 1968-01-14, 28 orr.

<sup>404</sup> Hasteko, “Reporter” delakoak Txantreako bizilagun batzuen kezak jaso zituen: “Notas del Reporter. ¿A dónde echamos a los portugueses?”, DN 1968-01-24, 7 orr. Ondoren, egun batzuk geroago, “Cartas y sugerencias de los lectores” sailean, gai horrekiko irakurleen jarrera kontrajarriak azaltzen ziren, polemika hari “los portugueses: un tema que divide los sentimientos de los habitantes de Pamplona” izenburua eman zitzaizolarik, DN 1968-01-28, 7 orr.

<sup>405</sup> “Cartas al Director. Sobre Los portugueses”, DN 1968-03-31, 14 orr. Eskutitza sinatzen zutenen artean CCOOeko eta MCEko militante izango zen Manuel Burguete zegoen.

<sup>406</sup> “Cartas al Director. Polémica sobre los portugueses”, DN 1968-04-02, 24 orr. Egunkariak, gaiaren inguruan gutun asko jaso zituela ohartarazten zuen.

*ematen du. Handik hiru urtetara zoriontsu bizi da etxe polit batean*”, hain zuzen ere, ordenantzak eta hirigintza arauak errespetatzen zituen etxe batean. Kanpamentuetako portugaldarrek kontrari, ez zuten emigranteen bide hori burutzen eta Iruñerriatik alderrai ibiltzen ziren integratzeko inolako saiakerarik egin gabe. Horregatik Iruñeko udalak ez zuen zertan hauei andaluziar, extremadurar, gaztelar edota Erriberako nafar emigranteei baino erraztasun gehiago (lur sailak eta etxeak,) eman beharrik. Tabuencak antzeko argudioa ematen zuen: *“Lan egin nahi dutenak eta duintasunez bizi nahi dutenak ez dira arbuaiatuak izango. Horregatik, hemen bizi nahi baldin badute, arauetara egokitu daitezela”*. Hurrengo egunean, iritzi kontrajarriak erakusten zituen eskutitz sorta berri batean, irakurle batek, Francisco Javier Iriartek, eztabaida ildo beretik eramaten zuen: *“Iruñean ez dago lan egin nahi dutenekiko eta lan egiten dutenekiko arrazakeriarik. Horregatik jakin beharko genuke ibiltari hauen artetik zenbatek nahi duten lan egin eta euren burua hemen integratu y zenbatek duten eskaletasunetik, prostituziotik, lapurretatik... bizitzeko asmoa”*<sup>407</sup>. Arrazoibide hauen aurrean, Seminarioko zuzendari ohia zen Jesús Lezaunek edota Nafarroako Langile Kontseiluko lehendakaria zen Tomás Caballerok ezin zuten udalaren akordioarekin bat egin. Caballerok esaterako, *“Iruñeko udalak ez du jende honen emigratzeko eskubidea ukatzeko eskubiderik, ezta ere gure artean urtebete daramaten bizilagunak bidaltzeko eskubiderik. Dena den, lan egitea eta bizikidetzara arau minimoak errespetatzea eskatzen ahal du”*<sup>408</sup>, argudiatzen zuen.

1970ean oraindik txabola herrixkak aurkitzen ahal ziren hiri aldirietan, zehazki Barañainen. Urte hauetan zehar kanpamentu desberdinetan bizi izan ziren familia hainbat hiriko bizitzan integratzerik izan zuten arren, hirian oraindik sei pertsona inguru ostatatzen zituzten etxoletan eta barraketan eta *“ohol zaharrekin, oihal ziratuekin, plastiko zatiekin, uralitarekin egindako”* geletan bizi ziren familiak zeuden, urik eta argirik ez zuten asentamenduetan<sup>409</sup>. Horregatik 1971ean, Txabola haietan bizi ziren familiei behingoz ostatu duina ematearren, hots, *“Iruñeko populazio nukleo gizapetikoena desagerraraztearren”*, proiektu berri bat martxan jarri zen eta Iruñea ondoko Orkoien udalerrian immigranteentzako herrixkaren sorrerari bidea eman zitzaion<sup>410</sup>. Iruñeko udalaren osoko bilkurak, oraingoan, lursailak erraztea eta etxeak eraikitze materialak eta aholkularitza teknikoa erraztea adostu zuen. 1973ko martxoan, azkenean, Santa Luziako herrixkak ateak ireki zituen.

Emigranteen asentatzean ikusgarria izan zen hirugarren fenomeno bat, familia bat baino gehiagok etxebizitza berean bizi izatearena izan zen. Ohikoa izaten zen hirian jada finkatuta zegoen familia batek, iritsi berriak ziren etorkinei gelak errentan uztea eta sukaldea eta komuna erabiltzeko eskubidea ematea. Berralokatze modu honen bitartez, etxebizitza berean lau eta are bost familia bizitzera iristen ziren. Honek familia guztien, bizitza mailan, kalte ikaragarriak eragiten zituen, bazkaltzeko eta komuna erabiltzeko txanden segida luzeak edota intimitate falta, familion eguneroko bizitzaren berezko ezaugarri bilakatzen zirelarik<sup>411</sup>. Egoera hauek izugarri orokortu egin ziren 60. hamarkadaren bitartean. Izan ere, etxebizitza berean bizi izateak langile familien bizitza are prekarioagoa egiten zuen arren, gizarte sektore apalenen ekonomia kaltetuak arintzen laguntzen zuen nolabait eta apopiloek etxebizitzara dedikatutako gastuen zama murrizten zuten bitartean, etxebizitzaren jabeek familia ekonomientzat ezinbestekoak ziren diru sarrera osagarriak lortzen zituzten. Fenomeno hau azkar

<sup>407</sup> “Cartas al Director. Polémica sobre los portugueses”, DN 1968-04-03, 20 orr.

<sup>408</sup> “Cartas al Director. Polémica sobre los portugueses”, DN 1968-04-02, 24 orr.

<sup>409</sup> “El problema de los portugueses sigue en pie”, DN 1970-09-24, 20 eta 3 orr.

<sup>410</sup> “Proyecto de construcción de un poblado para acoger a inmigrantes”, 1971-04-25, 32 orr. emigranteentzako behin-behineko egonlekua izango zen, hiriko bizimodura egokituko ziren arte eta etxebizitza bat aurkituko zuten arte, bertan bizitzeko aukera izango zutelarik.

<sup>411</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 77 orr.

zabaldu zen langile auzoetatik. Iruñean adibidez, Sanduzelai auzoa bezalako nukleo umiletan halako kasuak eman ziren:

Etxebizitza berean lau familia bizi diren kasu nahikotxo daude. Etxearen jabe den familia errentan hartutako beste hiturekin batera bizi da eta logelarengatik eta sukaldea erabiltzeko eskubidearengatik besteei bi mila edo hiru mila pezeta kobratzen dizkiete. Egoera honen ondorioak oso gogorak dira, baina jendeak hori jasan baino beste aukerarik ez du, etxebizitzaren arazoa Iruñean oso larria delako; eta ez etxebizitza gabezia larria delako, daudenak oso garestiak direnez, langileak berauetan bizi ezin direlako baizik<sup>412</sup>

Hirira bakarrik iristen ziren emigrante gazteen ostatu arazoak konpontzeko, Iruñean oihartzun handia izan zuten “langile egoitzak” sortu ziren. 60. hamarkadaren bitartean, egonleku hauen eskakizuna jarraitua izan zen. 50. hamarkadaren amaieratik aurrera hasi ziren langile egoitzak sortzearen aldeko lehen ahotsak entzuten, ostatu urritasunaren arazoak etorkin iritsi berriei sortzen zizkien zailtasunak ikusita, hauei zuzendutako ekimen bereziak abian jarri behar zirela estimatu zenean. Zentzu honetan, langile egoitzak, hainbat arrazoiengatik, ekimen bideragarritzat eta desiragarritzat jotzen ziren<sup>413</sup>. Hasteko, etxebizitza eskasiaren ondorioz eta pisuen neurritz kanpoko prezioen ondorioz langile gazteek bizi zuten errealitatea oso prekariora zenez, egiazko behar sozial bezala ikusten ziren. Izan ere, gazte hauetariko asko ostatueta bizi zen, berralokatutako geletan pilotuta sarritan eta baldintza material ezin txarragoetan: *“inolako babesik ez zuten, lan egitean zein ostatueta bizitzean beteranoak ziren gazte”* haiek *“[ostatu] merkeena bilatzen zuten beti, bestelako erosotasunak faltan izatearen kontura”*<sup>414</sup>. Era berean, halako apopilo etxe edota “ugazabandre etxeekin” alderatuta, langile egoitzak, langileei, baldintza hobetoagoak eskaintzen zizkieten zalantzarik gabe. Ez bakarrik merkeagoak zirenez gazteen baldintza materialak hobetzen zituztelako, baita elkar bizitzan gazte giro osasungarriago eta baikorrago bat sortuz, langileen baldintza moralak eta espiritualak zaintzen zituztelako ere.

60. hamarkadaren bitartean Iruñean langile egoitzak sortzeko abiatu ziren proiektu desberdinek elizaren instituzioekiko ageriko lotura izan zuten. Goiztiarrena (1961) artzapezpikutzak zuzentzen eta administratzen zuen “Nuestra Señora del Río” izeneko egoitza izan zen. Arrotxapea eta San Pedro auzoen arteko Errotazar kalean kokatuta zegoen, jabetzan Aurrezki Kutxa Probintzialarena zen eraikin batean. Azken honek oso baldintza onuragarrietan uzten zion errenta artzapezpikutzari, honek, egoitzarekin, Iruñean oso beharrezkoa zen lan sozial garrantzitsu bat burutzen baitzuen. Egoitzak, bereziki bi abantaila eskaintzen zizkien langile gazteei: lehena, ordaindu behar zuten errenta gutxienekoa zela, janariaren, zerbitzuen eta gastu orokorren (uraren, argiaren) parte bat baino ez baitzuten ordaindu behar; bigarrena, kooperatiba baten antzera kudeatzen zen etxe “kolektibo” batean bizi zirela<sup>415</sup>.

<sup>412</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>413</sup> “Necesidad de una residencia obrera”, DN 1959-07-22, 8 orr.

<sup>414</sup> “La residencia para obreros solteros Nuestra Señora del río. Una elogiabile obra benéfico-social regida por un entusiasta patronato”, DN 1961-06-20, 12 orr. Hamarkadaren erdialdean, konpondu baino, arazoa larriagotu egin zen, aurreko urteetan salatutako egoera berberak, orduan ere salatu egiten zirelarik: “Kanpotik hona lanera datozen gizonek, landa mundutik emigratzen duten gazteek, ez dute etxebizitzarik, ugazabandre etxe edota pensio bat ordaintzeko ere haina kobratzen ez dute”, “Pensión completa: 55 pesetas diarias. Cientos de solicitudes y solo 85 plazas en la Residencia obrera Nuestra Señora del Río. Necesidad urgente en Pamplona de crear una residencia para jóvenes solteros trabajadores”, DN 1966-10-20, 20 orr.

<sup>415</sup> “bertan biziko diren langileek kooperatiba moduko bat osatuko dute. Zuzendariak kontuak aurkeztuko dizkie eta soberakinak egotekotan, ordaindutakoaren zati proportzional bat itzuliko

Egoitzak bete-betean funtzionatzen zuenean laurogeita bost langile gazteri ematen zitzaizen ostatu berrogeita hamabost pezetako errenta baten truke<sup>416</sup>.

60. hamarkadaren erdialderako, “Nuestra Señora del Río” egoitza txiki geratu zen. Izan ere, emigrazioaren fenomenoaren handitasunak, Iruñeko populazioaren etenik gabeko hazkundeak eta arintzerik ez zuen etxebizitza urritasunak, langile gazteen ostatu arazoak erremediorik gabe larriagotzen ari zituen. 1964ean, Iruñean burutu zen “misioaren” baitan<sup>417</sup> kokatuta, hirian langile egoitza berri bat sortzeko proiektua aurkeztu zen. Egitasmo berri horren itxuratzean JOC eta VOJ gazte erakundeek izan zuten parte hartzea, ostatu prekarioarena gazteriar oso berezkoa zitzaion problematika zela agerian uzten zuen. Diario de Navarrak “misioaren” egun haietan argitaratu zuen elkarrizketa batean, orduan JOCeke lehendakari eta militante ziren Alfredo Caparroso eta Antonio Faura<sup>418</sup>, emigrante gazteen egoerarekin kezkatuta agertzen ziren, honen deskribapen etsigarri bat ematen zutelarik: Iruñeko langileen %20a etxetik kanpo bizi zen, “ugazabandre etxeetan” gehienetan; ostatu ematen zietenentzat etekin ekonomiko hutsa baino ez ziren, beraiengandik abantaila atera baino nahi ez zutelarik; gainera, unibertsitateko ikasleek eskariaren hazkunde garrantzitsu bat eragiten zuten, abusuzko prezioak nagusitzen ari ziren. Egoera honek oso modu negatiboan eragiten zuen langile gazteen bizitzetan. Adibidez, ostatu edo “ugazabandre” etxeetan bizi zuten giroak ez zuten euren promozio profesional eta kulturean batere laguntzen, etxebizitza bezala gela soil bat izateak, irakurtzeko, ikasteko, lasai egoteko espazioa izateko aukerarik ematen ez zuelako eta ondorioz, kaleko eta tabernako aisialdia sustatzen zuelako. 1964ean proiektu bat baino ez zen egoitza horrek beraz, ez zuen soilik langile gazteei ostatu emateko helburua izan behar eta honekin, bestelako zerbitzuak ere, jantokia, liburutegia, telebista edota joko aretoa kasu, eskaini behar zituen ere. Azken hauek gainera ez soilik bertan ostatu hartzen zutenentzat, behar zuen emigrante gazte ororentzat baizik.

1971 urtean “Langilekoa” izeneko egoitza sortuko zen arte ordea, ez zen halako zentro berririk zabaldu Iruñean. Proiektua Udal Aurrezki Kutxarena zen, baina kasu honetan ere zuzendaritza eta administrazioa artzapezpikutzaren eskuetan uztea aurreikusten zen. Helburua, diru gutxiengatik, langile gazteak “*giro abegikor, eroso eta gizatiar*” batean, “*luxu gehiegirik gabe baina oinarrizkoak diren erosotasunekin eta duintasunarekin*” bizi ahal izatea zen<sup>419</sup>. Bertan, ostatu emateaz beste, gazteen lan orientabidean hala nola orientabide sozial, kultural eta erlijiosoan arreta jarriko zela aurreikusten zen. Oraindik 70. hamarkadaren hasieran, langile gazteen ostatu arazoak larria eta kezkarria izaten jarraitzen zuenean, halako egoitzak konponbidea zirela errepikatzen zen eta zentzu honetan, “Langilekoa” proiektuak, langile egoitza kate baten lehenbiziko zentroa izateko asmoa zuen.

---

zaie eta defizita egotekotan, patronatuak galerak beregain hartuko ditu. Honakoa bertan biziko diren onuradunentzako bestelako pizgarri bat da, ez baitira pentsio batean biziko, etxebizitza kolektibo batean baizik”, “La residencia para obreros solteros Nuestra Señora del río. Una elogiabile obra benéfico-social regida por un entusiasta patronato”, DN 1961-06-20, 12 orr.

<sup>416</sup> “Pensión completa: 55 pesetas diarias. Cientos de solicitudes y solo 85 plazas en la Residencia obrera Nuestra Señora del Río. Necesidad urgente en Pamplona de crear una residencia para jóvenes solteros trabajadores”, DN 1966-10-20, 20 orr.

<sup>417</sup> 1964ko martxoaren bitartean (8tik 22ra) “misioa” burutu zen Iruñean. Diozesi desberdinetako ehun bat misiolarik, hiriko eta inguruko udalerrietako hirurogeita hamabost zentrotan, arazo eta gai desberdinen inguruko (parrokiak, gazteria, ohitura erlijiosoak) misio lana egin zuten. “Pamplona misión 64. Se ha dado a conocer a los misioneros los primeros datos de la encuesta sociológica”, DN 1964-03-05, 6 orr.

<sup>418</sup> “La residencia de trabajadores es una necesidad para Pamplona”, DN 1964-03-17, 7 eta 4 orr.

<sup>419</sup> “Para últimos de febrero, Langilekoa una residencia para trabajadores solteros”, DN 1971-01-23, 28 orr.

60. hamarkadan, ostatu arazo larriengatik eratorritako fenomenoak azaleratu ziren arren, etxebizitza jabetzan eskuratzeko fenomenoak orokortu egin zen, bai Iruñeko familia langileen artean<sup>420</sup> eta baita familia emigranteen artean ere. Etxebizitza “merkearen” eraikuntza bizia izan zen jabetzarako joera horren eragileetariko bat. Etxebizitzaren arazoa etxebizitza urritasunak eta hauen gehiegizko prezioek sortzen zuten, estatu frankistak, etxebizitza merkearen eraikuntza sustatzeko hainbat lege egin zuen. Hauei esker, etxebizitza merkearen eraikuntzarako modalitate ezberdinak sendotu ziren (babes ofizialeko etxebizitzak, dirulaguntzak jasotzen zituzten etxebizitzak, etxebizitza sozialak edota errenta mugatuko etxebizitzak), etxebizitza promozioak biderkatu eta aniztu egin zirelarik. Babes ofizialeko etxebizitzak, esaterako, jabetzan oinarritutako etxebizitza politikaren arrakastan funtsezkoa izan zen. Politika honek halako promozioen bitartez ertain klaseak eta klase herrikoiak “jabe” bihurtzeko helburua izan zuen, jabetzak, familiak estatuan integratzen zituen heinean eta hileroko hipoteka bati lotzen zituen heinean, langileen jarrerak baldintzatzen ahal zituelako. Haren ildo nagusiak zehazteko eta hauek praktikan jartzeko beharrezkoak ziren dirulaguntzak xedatzeko eta banatzeko, erregimenak Etxebizitzaren Institutu Nazionala sortu zuen. Ekimenen edo promozioen gauzapena edota kudeaketa ordea, udalen eta instituzio probintzialen, sindikatuen eta erregimenaren bestelako erakundeen edota eraikuntza sustatzea helburu zuen beste edozein erakunde ofizialen esku zegoen.

40. hamarkadan Iruñeko udalak klase apalenentzako etxebizitza multzoak eraikitzekeo proiektu bat abiatzea adostu zuen. Proposamen ezberdinak kontutan hartu ostean, udalaren egitasmo hura, 50. hamarkadaren hasieran errealitate bihurtu zen San Pedro auzoan<sup>421</sup>. Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenetik abantaila hartuta, udalak beregain hartu zuen proiektuaren eraikuntzaren kostu guztia, udal titulartasuneko auzo oso bat eratu zuen eta etxeak langile populazioarentzako gorde zituen, hileko errenta baxu baten truke, hauen eskura jarri. San Pedroko auzotera, hartara, udaletxeko langile askok eta baliabide ekonomiko gutxieneko familiek osatu zuten. 50. eta 60. hamarkadatan Iruñean abiatu ziren etxebizitza merkearen sustapenerako ekimen gehienak, ildo berean, babes erregimenaren pean gauzatu ziren eta Etxebizitzaren Institutu Nazionalak ematen zituen diru-laguntzak jaso zituzten. 50. hamarkadaren hasieran “Francisco Franco” patronatuaren eskutik jaio zen Txantrea auzoa eredu kasua izan zen zentzu honetan. Patronatua 1950ean errenta baxuko etxebizitzaren eraikuntza sustatzea helburu zuen ongintzazko eraikuntza entitate bezala jaio zen, Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren babespean. 60. hamarkadaren amaierara arte, babes erregimenaren pean eraikitako langile etxebizitzak sustatu zituen, prestazio pertsonalaren sistemaren bitartez lehenbiziko faseetan (langileek berek eurenak izango ziren etxeak eraiki zituzten) eta eraikuntza enpresa pribatuak kontratatuz ondorengoetan (enpresak eraikitako etxeak patronatuari eskaria egindako familien artean zozketatzen ziren). Txantrea-arekin batera, patronatuak, antzeko ekimenak abiatu zituen Iruñerriko beste zenbait langile nukleotan, Burlata eta Atarrabia udalerrietan adibidez<sup>422</sup>. Erakunde Sindikalaren baitako “Obra Sindical del Hogar”

<sup>420</sup> Hamarkada hartan ohikoa izan zen ordura arte Iruñeko Alde Zaharrean alokairuan bizi ziren familiek periferian sortzen ari ziren auzo berrietan etxebizitza erostea: “Gero Txantrea bizitzera joan nintzen. Calderería kalean errentan bizi ginen eta ama bere pisua edukitzeko irrikitan zegoenez, ba Txantrea joan ginen”. I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olatz, 2011-08-02.

<sup>421</sup> “Se inauguraron ayer las viviendas del barrio de San Pedro”, DN 1950-07-07, 1 orr. eta “Las viviendas protegidas de San Pedro”, PN 1950-07-07, 4 orr.

<sup>422</sup> Burlataren kasua: “Ayer en Burlada [...] se colocó la primera piedra de un grupo de viviendas”, DN 1952-06-25, 1 eta 3 orr. Atarrabiaren kasua: “Bendición y entrega de viviendas en la Chantrea y en Villava”, DN 1956-05-29, 9 orr. eta “Entrega de viviendas en Villava”, DN1958-10-02, 5 orr.

gizarte-ekintza, etxebizitza merkearen eraikuntzako proiektuen sustatzaile izan zen ere. Zentzu asistentzian eta paternalistan ulertzen zen politika sozial frankistari jarraiki, ekintzak langileei etxebizitza duinak ematea zuen helburu. Praktikan ordean, haren eraikuntza jarduera ez zen etxebizitzaren arazoarentzako konponbide eraginkorra izan eta azkenean, estatu frankista klase umilenen babesle gisara aurkezten zuen propagandarako tresna soil batean baino ez zen geratu<sup>423</sup>.

Etxebizitza merkearen eraikuntza sustatu zuen bestelako ekimen bat kooperatiba taldeena izan zen. Babes erregimenak ematen zituen erraztasunetik abantaila hartuta, kooperatiben bidezko langileentzako etxebizitzaren eraikuntza oso emankorra izan zen 60. hamarkadaren bitartean<sup>424</sup>. Langileez osatutako taldeak izan ohi ziren eta horrek, nolabaiteko izaera herrikoa ematen zien neurrian, erakargarri egiten zituen, etxebizitza bat eskuratzeko bide bezala, hiriko sektore apalenen begien aurrean. Halaxe behintzat azaltzen zuen orduan Iruñeko alkatea zen Miguel Javier Urmenetak 1959an, "San Alberto Magno" kooperatibaren lehen etxebizitza multzoaren obrak hasi ziren eguneko bedeinkapen ekitaldian: "[...] kooperatiba bat zarete. Kooperatibak jende apalaren, jende langilearen ahaleginaren, sakrifizioaren eta elkarlan koordinatuaren emaitza dira. Berezko duen zentzu herrikoia hau da, hain zuzen, kooperatiba erakargarri egiten duen arrazoi lehena [...]"<sup>425</sup>. "El Salvador" kooperatibaren kontsiliaria zen Angel Hermoso de Mendoza Jaunak ere, antzeko zerbait adierazi zuen kooperatibismo honen inguruan talde honen bigarren multzoaren etxebizitzak eskura eman ziren ekitaldian: "Estatuaren eta Jaungoikoaren babespean, jendea euren beharrak asetzeko eta euren arazoak konpontzeko elkartzeara, Iruñeari oso berezkoa zaion fenomeno da"<sup>426</sup>. Gainera, euren burua kooperatiba bihurtzen zuten talde hauek, laguntza garrantzitsua jasotzen zuten instituzioen partetik, sustatzen zituzten eraikuntza ekimenek arrakasta izan zezaten, diru-laguntzak edota lursailak eskuratzeko erraztasunak ematen zitzaizkielarik<sup>427</sup>. Iruñerrian kooperatiba erregimenean sustatutako langileentzako etxebizitza sozialaren eraikuntza argien islatu zuen proiektua, 70. hamarkadaren hasieran udalak berak abian jarri zuen Ermitagaña etxe aldearena izan zen. Lur-sailak beretu ostean, udalak kooperatiba desberdinen esku utzi zuen langileentzako etxebizitzaren eraikuntza<sup>428</sup>. Bere helburua

---

<sup>423</sup> Bizkaian adibidez, eraikuntza jarduera eraginkorra ez izateaz aparte, Obra Sindical del Hogarren etxebizitzaren esleipena, segiozaletasunaren eta ustelkeriaren arabera izan zen. Modu honetan, iragan sindikal eta politikoa zuten langileek halako etxeak lortzeko aukerarik ez zuten bitartean, etxebizitza sindikalen onuradun izan zirenak Erakunde Sindikalarekiko atxikimendu eta menpekotasun soziala agertzerara behartuta ikusi zuten euren burua. José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 162 orr.

<sup>424</sup> Kooperatiba erregimenean eraiki zen Arrosadian (Santa Marta, Santa Maria la Real, Larrabide kooperatibak), Donibanen (San Alberto Magno, San Eloy kooperatibak) edota Arrotxapean (El Salvador kooperatiba).

<sup>425</sup> "600 nuevos hogares serán costruidos en régimen de cooperativa. El domingo se celebró la bendición de la primera piedra del grupo San Alberto Magno", PN 1959-11-17, 10 orr.

<sup>426</sup> "El Domingo se entregaron en la Rochapea 184 viviendas de la cooperativa el Salvador", DN 1963-02-27, 13 orr.

<sup>427</sup> Hauek izan ziren 1966an Juan Miguel Arrieta Iruñeko alkatearen hitzak Udal Aurrezki Kutxak sustatutako etxebizitza multzo baten obren hasiera ekitaldian: "Kooperatiba bat sortu nahi duen talde orori, etxebizitza sozialak eraikitze beharrezkoak izango dituen lur sailak eskatzera eta Foru Diputazioak eta Iruñeko udalak horretarako [etxebizitza sozialaren eraikuntza sustatzeko] ematen ari dituzten [diru] laguntzak eskatzera dei egiten diogu". "Ayer se puso la primera piedra del futuro Pamplona. 600 viviendas de la Caja de Ahorros Municipal van a inaugurar el Plan Sur", DN 1966-04-05, 24 orr.

<sup>428</sup> Ikusi Zuriñe Sainz Pascual, "El despertar de una conciencia ciudadana a través del urbanismo: el Ayuntamiento de Pamplona 1966-1976", *Gerónimo de Uztariz*, 23/24. zkia, 2008, 123-174 orr. Bertan, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera Iruñeko Udalak garatu zuen hirigintza politika aztertzen da; hura, HOACren giroetatik zetozen zinegotzi talde baten eskutik,



bizilagunak proiektuan inplikatzera zen eta horretarako, Iruñerrian jada ezaguna zen etxebizitza kooperatiben eredia gaintzen zuen sistema berri bat saiatu zuen Ermitagañan. Izan ere, lur-sailak esleitzeko oinarriak xedatzen zituen proiektuan, kooperatiben eraketa arautzen zuten baldintzak jaso ziren, sistema kooperatiboaren berezko izaera berreskuratu eta kooperatiben sorrera etekin fiskalak lortzeko tresna huts bezala erabiltzea ekiditeko asmoarekin<sup>429</sup>. Hala ere, kooperatiba bat sortzea edo kooperatiba batean sartzea ez zen langile guztiek eskura izan zuten hautabidea izan. Klase apaleneko kooperatibek ere, langile askok oraindik ordaindu ezin zezakeen abiatze kapitala eskatzen zuten kide egiteko y ezinezkoa zuen etxebizitza bat, kooperatiba erregimenean eraikia eta merkea izanda ere, erosterik<sup>430</sup>.

Kooperatibak ez ziren beti langileek berek, euren kasa sustatutakoak eta sortutakoak izan. Haietariko asko, sindikatuek, erakunde publikoek, enpresek edota eraikuntza enpresa pribatuek abiatutako ekimenak izan ziren ere. Iruñean, esaterako, 60. hamarkadaren bitartean etxebizitza merkearen eraikuntza sustatu zuten kooperatiba ugari, Erakunde Sindikalaren baitako sindikatuek edota talde profesionalak eratutakoak zen: Arrotxapean eraiki zuen “El Salvador” kooperatiba, trenbideetako langileen ermandadeak sortutakoak zen; Arrosadian kokatu zuen Santa Marta kooperatiba, ostalaritza langileena; Arrosadian ere, Nafarroako txoferren elkartearnak etxeak egin zituen; Donibanen etxeak egin zituzten San Eloy eta San Francisco de Paula kooperatibek, metalaren elkarteko langileena eta marrazkigileena ziren, hurrenez hurren. Erakunde Sindikalak kooperatiben bitartez gauzatu zuen eraikuntza jarduera, zentzu honetan, eraginkorragoa izan zela esaten ahal da. Gure iturrien artean adibidez, kasu batean familiaren etxea amona zerbitzaria zelako lortu zen: *“zortzi urte bete nituen arte Descalzos kalean bizi izan nintzen. Nire aita margotzailea zen, etxe margotzailea, hau da, langilea; amak ez zuen lanik egiten. Bi neba-arreba ginen. Eta zortzi urteak beteta, Arrosadiara joan ginen bizitzera, zerbitzarietzako etxebizitzak egin zituen kooperatiba batetara; amona zerbitzaria zen eta berari esker lortu genuen etxebizitza hura. Langileentzako etxebizitzak ziren”*<sup>431</sup>; eta beste batean, iturria bera metalaren sindikatuko langilea zelako: *“Gero Ermitagañako partean etxebizitzak egin ziren, Sindikatu Bertikalaren eskutik, ezta? han, etxebizitzarengatik asoziazionismoa eta guzti hori sortu zen eta orduan beno, lur eremu horiek lortzen dira eta bost kooperatiba jaiotzen dira, ezta? gurea, Pedro de Axular plazakoa (Golem zinema areto ondoko plaza), ‘Danak-bat’ zuen izena eta metalaren langileona zen erabatean”*<sup>432</sup>.

Langileentzako etxebizitza merkeen eraikuntza sustatzeko bestelako ekimen motak izan ziren ere. Foru Diputazioak adibidez, bere langileentzako etxeak eraiki zituen<sup>433</sup>. Udal Aurrezki Kutxak, etxebizitza sozialak sustatzeko ekimen desberdinetan, bere bezeroi zuzendutako etxe aldean eraikuntzarako proiektuak prestatu zituen,

---

ikusmolde sozializatzaileetan oinarritutako hirigintza planifikazio bat praktikan jartzen saiatu zela azaleratuz.

<sup>429</sup> Miguel Ángel Muez eta José Antonio López Cristóbal zinegotziek, adibidez, etxebizitza kooperatibek egiazko espirtu kooperatibista galdu zutelara eta espekulazioa ekiditen ez zutelara pentsatzen zuten. Zuriñe Sainz Pascual, “El despertar...” Op. Cit., 137-138 orr.

<sup>430</sup> Horregatik sortu zen “San José Obrero” ongintzako etxebizitza elkarte. “Asociación Benéfica de Viviendas San José Obrero. de Todo aquel que no tenga vivienda y no disponga de 50.000 ptas. Puede dirigirse al canónigo D. Arturo Beguiristain. Llamamiento para hacer socios protectores de esta gran empresa”, DN 1967-06-21, 4 orr. Iragarki hartan salatzen zenez, etxebizitza merkearen promozioak ugariak ziren arren, populazioaren parte batek etxebizitza bat lortzeko oraindik arazo larriak zituen.

<sup>431</sup> M.L.C.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-24.

<sup>432</sup> R.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-07.

<sup>433</sup> “El domingo se inauguraron ochenta viviendas para empleados del la Diputación”, DN 1961-09-05, 12 orr. Automóvil ofizialen gidarietzako etxebizitzak ziren.

etxebizitzak ordaintzeko baldintza onuragarriak eskaintzen zirelarik<sup>434</sup>. Ohikoak izan ziren ere enpresek euren enplegatuentzat eraiki zituzten etxebizitzak. Lehenago aipatu dugun bezala, langileentzako etxeen eraikuntza, garaiko enpresen paternalismoaren adierazle nagusienetariko bat izan zen. Enpresek sustatutako eraikuntza ekimenek langileen bizi baldintzak eta egoera soziala hobetzea helburu izan bazuten ere, “enpresaren etxeak”, enpleguak menderatzeko tresna sotilenetariko eta eraginkorrenetariko bat izan ziren ere. Hasteko, etxebizitzak fabriken ondoan kokatzearekin, nolabaiteko espazio jarraitutasuna ezartzen zen langileen eta euren lantokiaren artean, askotan enpresak eraikitako etxe multzoak fabrikaren barrutiaren baitan zeudenez, langileek lan esparru non amaitzen zen bereizterik ez baitzuten. Etxe multzo horietan barna gainera, langileen bizitza pribatuari eta egunerokotasunari zegokionean ere enpresako giroa eta harreman egiturak errepikatzen zituzten komunitateak sortzen ziren. Kapitulu honetan bertan aztertu dugun Potasaseko herrixkaren kasua, honen adibide argia da. Honekin batera, etxebizitzak irudikatzen zuen enpresa eta enplegatuen arteko lotura, oso eraginkorra gertatu zen langileen jarrera eta jokabideak kontrolatzerako orduan. Izan ere, etxebizitza hauek jabetzan enpresarenak izaterakoan, etxearen gozamenerako kontratua lan kontratuari lotuta zegoen eta orduan lanpostua galtzeak berekin etxea galtzea ekartzen zuenez, langileak arreta handiz ibiltzen ziren enpresaren aukakotzat hartuak izaten ahal ziren jarrerak ez hartzeko. Iruñean, langileentzako etxeak sustatu zituzten enpresa garrantzitsuak egon ziren. 50. hamarkadan, Inquinasa enpresak bertako langileentzako bi etxe multzo eraiki zituen Etxabakoitzen, fabrikatik oso gertu. Lehena 1954ean, Urdanoz etxe taldea eta bigarrena 1958an, Larraskuntxea taldea<sup>435</sup>. 60. hamarkadan Potasaseko herrixkaren eraikuntza izan zen ekimen honen adierazlerik garrantzitsuena baina *Abonos Químicos de Navarra* edota *Mina* enpresek ere etxeak egin zituzten euren langileentzat<sup>436</sup>.

Etxebizitza merkeek langileei etxeak jabetza erregimenean eskuratzeko aukera eman zieten arren, laster, horren mesedegarria ez zen bestelako aurpegi bat azaldu zuten: eraikuntzen kalitateari zegokionean eta kokatzen ziren zonaldeetako azpiegiturei zegokionean, gabezia nabarmenak erakusten zituzten. Azken honen etsenplu izan ziren Bilboko hainbat langile auzo eta Iruñeko Sanduzelai auzoa. Bilbon babes erregimeneko etxebizitzaren eraikuntzaren parte handi bat zonalde bereziki prekarioetara eta mendi edo harrobi hegala bezalako lur sail desegokietara bideratu zen eta Sanduzelai, lehen batean urbanizatu ezin ziren lur sail industrialen gainean eraiki zen. Aurrerago ikusiko dugunez, azpiegitura egokien falta honetatik eratorri ziren, hein handi batean, halako auzoetan langileek bizi izan zituzten errealitate eta arazo berriak. Etxebizitzaren kalitatea ere uste izatekoaren azpitik zegoen. 1971ean JOcek Iruñeko auzoei buruz egin zuen txosten batean adibidez, etxebizitzaren kalitatearen arteko bereizkuntza argia egiten zen hauek kokatuta zeuden zonaldearen arabera: *“[Etxebizitza] eraikuntza gehienak berriak dira, [baina] lehenengo [auzoetan] gehienak oso apalak diren bitartean (nahiz eta merkeak ez izan), bigarrenetan askoz ere luxuzkoagoak eta maila goratuagoak dira (bai salneurriari eta garaierari*

<sup>434</sup> “Las viviendas de la Caja de Ahorros Municipal en Rosalía (junto al nuevo campo de Osasuna)”, DN 1967-09-05, 4 orr.

<sup>435</sup> Urdanoz taldearen kasua: “Ayer fue inaugurado un grupo importante de viviendas en Echavacoiz”, PN 1954-07-07, 8 orr. eta “Bendición y entrega de 20 viviendas protegidas a los empleados de Industrias Químicas de Navarra”, DN 1954-07-07, 9 orr. Larraskuntxea taldearen kasua: “Pamplona tienen un barrio nuevo Larrascuntzea”, PN 1958-10-05, 4 orr. eta “Anexión del término ‘Larrascuntzea’ a Pamplona. Inauguración de viviendas de Inquinasa”, DN 1958-10-05, 1 eta 8 orr.

<sup>436</sup> Lehenengo kasuan: “Inauguración de viviendas en la fábrica de Abonos Químicos”, DN 1961-05-02, 9 orr.; etxebizitzak fabrikaren barrutian eraiki ziren. Bigarren kasuan: “Huarte Pamplona en fiestas”, 1962-09-16, 7 orr.; etxebizitzak fabrikaren ondoko lursailetan eraiki ziren.

*dagokionean*)<sup>437</sup>. Lehenbiziko auzoetakoak noski, langile auzoetako etxebizitzak ziren, babes ofizialekoak haietariko asko. Etxebizitza mota hauek izan zituzten arazoan artean nabarmentzekoak dira, besteak beste, oinarritzko hornikuntzen urritasuna (komuna, berogailuak) hala nola pisuen tamaina murrizta. Honetaz gain, ez dugu ahaztu behar etxebizitza merkearen eraikuntza sustatzeko egin ziren ahaleginak garrantzitsuak izan ziren arren, eskaintza beti eskariaren azpitik egon zela, desoreka horrek merkatuaren legea alde zuen eraikuntza enpresa pribatuen aritze espekulatiboari onura ekarri ziola eta honek, langileek pairatzen zuten etxebizitza duin bat eskuratzeko ezintasunaren arazoa etenik gabe iraunarazi zuela,

### 3.2.3 Desoreka sozialak

Kapitulu honetan, per capita errentaren hazkundea bizitza mailaren hobekuntzaren adierazle nagusienetarikoa bat dela aipatu dugu jada. Datuek zentzu honetan bilakaera positibo ukazina azaleratzen dute, soilik 60. hamarkadaren bitartean, errenta maila aise bikoiztu egin zela erakusten baitute. Hala ere, langileek hazkunde hartatik atera zuten onura erreala zenbaterainokoa izan zen zehazteko, zifra hutsak baino zertxobait gehiago begiratu behar dugu. Hala eginez gero, adibidez, errentaren hazkundean nabarmenki parte hartu arren, langile klaseak, ekarpen horrekin bat ez zetorren etekinen portzentajea jaso zuela ikuten ahal da. Beraz, datu absolutuak hizpide izan beharrean, errentaren banaketa kontutan hartzen badugu, hau, orekatua izan ez zela ikusiko dugu. Bestela esanda, errentaren hazkundeak ez zuen berekin gizarte espainiarrak gerraostetik agertzen zituen desberdintasun sozialak orekatuko zituen errentaren birbanaketarik ekarri. Soldaten kasuan argi dago: soldata errealek ez zuten produktibitatean eman zen hazkundea 1970. urtera arte beretu eta ordutik aurrera, mobilizazio sozial zein politiko indartsu baten kontestuan, oso gutxigatik egin zuten. Honek, produktibitatearen emendiotik eta hazkunde ekonomikotik etekin gehien atera zutenak kapitalaren jabeak izan zirela adierazten digu. Soldatapeko errentek Barne Produktu Gordinean izan zuten pisua aztertzerakoan ere antzeko zerbaitek gertatzen da. Azaletik begiratuta, langileek garai hartan sortutako aberastasunaren parte garrantzitsu bat bereganatu zutela pentsatzen ahal da, baina soldatapeko langileen kopurua nabarmenki hazi egin zela kontutan hartzen badugu, soldatapeko errenten pisuaren hazkunde hori berez langile kopuruaren hazkundean oinarrituta egon zelaz eta soldatapeko bakoitzaren parte hartzea BPGan kasik areagotu ez zelaz ohartuko gara<sup>438</sup>. Kapitalaren errentak hazkundearen onuradun nagusitzat agertzen dira berriz ere.

Frankismoaren lehen hogeitau urteetan areagotu egin ziren desoreka sozialak beraz, espainiar gizartearen ezaugarri izan ziren 60 eta 70. hamarkadetan ere. Erregimenaren politika soziala arrazoibide sozial eta herrizale batekin jantzita agertzen zen arren eta populazioaren artean bizitzaren hobekuntza ikaragarria ematen ari zelako pertzepzioa nagusitzen zen arren, egiatan, desberdintasun sozialak handiagotzen ari ziren. Zentzu honetan, protagonisten esperientziak, bizitza mailaren hobekuntza orokortu bat ematen ari den momentu batean bizitzen badira ere, desberdintasun sozialek baldintzatuta agertuko direla esan daiteke nolabait.

Behartasun egoerak desberdintasun haien muturreneko aurpegia izan ziren. Industrializazioak eta kontsumo gizarteak berekin ekartzen zutena, pobrezia mota berri bat zen, txiro kopuru gehiago edo gutxiago sortzeagatik baino, gizartearen begien aurrean oso agerikoa izateagatik nabarmentzen zena. 1966ko Foessa txostenak ohartarazten zuen bezala, orduko espainiar gizarte industrializatu berrian, populazioaren gehiengoaren baliabide eta erosotasun materialen areagotze aipagarri

<sup>437</sup> "Situación de Navarra" txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>438</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, "Cambio socioeconómico y..." *Op. Cit.*, 35 orr.

bat eta pobreziaren azaleratze gordinago bat aldi berean gertatzen ari ziren. Paradoxazkoa izan arren, pobrezia agerikoagoa eta errealagoa egiten ari zen gizartean begien aurrean<sup>439</sup>. Iruñean adibidez, pobrezia, Etxabakoitz bezalako langile nukleoetan egiten zen ikusgarria intentsitate handienarekin:

Gero [Etxabakoitz] auzora joan ginen, Urdanoz etxe multzora, berrogeita hiru probintzietatik etorritako jendea bizi ginen han. Orduan, jende guzti haien artean ikusten zenituen gauzak ziren... jendea etortzen zen eta ez zuen jatekorik... ikusten zen txirotasuna horren begien bistakoa zen, [familiei laguntza emateko] talde bat osatu genuela Xabierrera joateko autobusak eta guzti hori antolatzen genuenon artean. Gero ere oso ona zen erretore bat genuen, Fructuoso Jauna [...] eta orduan jende asko joaten zitzaion eskean: “oye, pues a ver si me puedes dar dinero porque mi padre se está muriendo en Andalucía” eta apaizak dirua ematen zien. [...] Beste batzuei janaria ematen genien [...] Cáritasek banatzen zuen janaria zen eta honek familien eguneroko bizitzan laguntzen zuen, noski. Fructuoso Jauna auzoko zenbait familien artean janari hori banatzeaz arduratzen zen eta guri familia behartsuenak zeintzuk ziren jakitea eskatu zigun. [F.E.. Etxabakoitzeko bizilaguna]

1966an pobrezia hura begien-bistakoa egiten zen errentaren banaketaren datuen arabera: populazioaren %20 pobreenari zegokion errenta nazionalaren portzentajea %5a zen bitartean, populazioaren %20 aberatsenari zegokiona, %46a zen<sup>440</sup>. Populazioaren %20 pobreenaren talde horretan, hileko bi mila bostehun pezeta baino gutxiagoko diru sarrerak zituzten familiak sailkatzen ziren. Espainiar estatuan zazpi miloi pertsona baino gehiagok eta guztira populazioaren %24ak bizi zuen egoera hau. Desarrollismoaren garaian nagusitu zen “hobekuntzaren”, “ongizatearen” edota “kontsumoaren” ikuspegi orokortuaren aurrean, errealitate oso desberdin bat topatzen dugu datu hauetan: behartasun larriez josia zegoen langile familia askoren errealitatea. Familia hauek zailtasun handiak zituzten eguneko gastuaren oinarritzko atalei – elikadura, etxebizitza- erantzuteko eta egin ahal zutenean, berauetan etxeko aurrekontu guztia gastatzen zuten, familia bestelako behar edo gastuei aurre egiteko baliabiderik gabe utziz<sup>441</sup>. Halako egoerak, egiazki, 60. hamarkadako Iruñean bizi izan ziren. 1966an adibidez, Cáritas Diocesananaren egintza sozialak, ezinbestekoa izaten jarraitzen zuen familia ugarentzat. Soilik urte hartan, erakunde honek sei milioi pezeta inguru birbanatu behar izan zituen kontsultategien, haurtzaindegien, laguntza medikoa emateko etxex etxeko zerbitzuen, Eguberritako afarien, zentro sozialen eta parrokiaren bitartez, aurrekontuak bete ezin zituzten familia behartsuei laguntzeko<sup>442</sup>.

Ageriko pobrezia egoera hauek izan gabe, eguneroko zailtasunetatik abiatuta, langile familiek desoreka sozialetatik eratorritako esperientzia gordinak bizi izan zituzten<sup>443</sup>. Izan ere, euren bizitza materialen hobekuntza eta kontsumo mailaren

---

<sup>439</sup> 1966eko Foessa Txostena, 276 orr. Kontsumo gizarteetan pobrezia agerikoagoa egiten duten hiru faktore azpimarratzen dira: lehena, industrializazioak berekin dakarren populazioaren metatzearen ondorioz, espazio fisiko berean, sektore behartsuenak eta “zibilizazioaren ondasunetaz” gozatzen ahal dutenak elkarrekin bizi izatea; bigarrena, berdintasun sozialarekiko kontzientziaren handitzea, gehiengoari ematen zaizkion hautabideak eskura ez dituzten gizabanako edo talde marjinalen existentzia geroz eta gutxiago onartzen delarik; eta hirugarrena, kontsumo gizarte egoera batean, gutxiengo batek pairatzen duen kontsumo ondasunen gabezia jasatea geroz eta zailagoa izatea.

<sup>440</sup> 1966eko Foessa Txostena, 8.1. Taula: “Proporción de renta que corresponde a los sectores mas pobres y más ricos, para diversos años y países”, 280 orr.

<sup>441</sup> 1970eko Foessa Txostena, 696 orr.

<sup>442</sup> “A pesar del aumento del nivel de vida, la acción de Cáritas sigue siendo imprescindible”, 6-4-1966-04-06, 16 orr.

<sup>443</sup> “Hala eta guztiz ere, pobreziak gure munduaren parte izaten jarraitzen du. Gure artean ere badu tokirik. [...] Familien intimitatean arakatzen dugunean topatzen dugun pobrezia da. Gorbata daraman pobrezia da, milaka sakrifizioen eta heroikotasunen bizkar duintasunez

hazkundera ahalbidetzeko, familia hauek, euren bizitzetan kostu ikaragarriak izaten zituzten ahaleginak egitera behartuta zeuden. Esate baterako, etxebizitza erosten ahal zuten, baina honek etxeko ekonomiak horren heba induta uzten zituen, familiek diru sarrera gehigarriak bilatu behar zituztela. Aparteko orduak, enplegu aniztasuna eta seme-alaben enplegu goiztiarra, behar honen adibide oso adierazgarriak zira:

Gogoratzen dut gurasoek pisu hau erosi zutenean, lehen ordainketarako hogeita mila pezeta jarri behar izan zituztela... gogoratzen du, bai, nik hamaika urte izango nituen. Orduan, lehen ordainketarako hogeita mila pezeta horiek jartzeko, aitak kreditu bat eskatu behar izan zuen. Bi abal-emaile eskatzen zizkioten eta lan egiten zuen eraikuntza enpresako nagusiak eman zion abala... eta beste halakoren bat, beste boteretsuren bat. Eta gero, hogeita mila pezeta haiek ordaintzeko arazoak izan genituen etxean, arazo izugarriak gu lanean hasi ginen arte. Gero gainera hilean hirurehun pezeta edo halako zerbait ordaintzen zuten. Orduan nire ahizpa nagusia lanean hasi zenean gauzak arintzen hasi ziren, noski, etxera sartzen zen soldata bat gehiago zen... baina ordura arte, arazoak izan genituela gogortzen dut, ez ginen hilabete amaierara iristen, hau da, dendara joan eta “Oye mira, dame tres huevos y ya te los pagaré cuando cobre mi marido” esan behar izatea. [M.G.. Iruñeko familia apal bateko alaba]

Ondasun material berrien kontsumoaren hazkunde orokortuak, era berean, ez du zuzenean esan nahi langileentzat kontsumo maila horretara iristea erraza izan zenik. Prezioak soldatetan neurtzea, produktu hauen kontsumoa langileentzat suposatzen zuen kostu erreala azaltzeko adierazgarria izan daiteke. Adibidez, langile batek, erositako telebista hainbat pezeta beharrezan lau hilabeteko soldata balio zuela esaten duenean, kontsumoak eskatzen zion fabrikako lana zenbaterainokoa zen adierazten du aldi berean:

Soldatarekin iristen ote zen? Inolaz ere! Negargarria zen. Ni ezkonberria nintzela, 69an, biok lan egiten genuen eta ez pentsa... zuri beltzean zen telebista bat, hogeita lau hazbetetako, erosteko behar zen soldata... niri hogeita lau mila pezeta kostatu zitzaidan, hori lau hilabeteko soldata zen, lau hilabetekoa. Orain begiratu ere egiten ez dudan argi aparatu bat erosteko... ia hogeita eguneko soldata kostatu zitzaidan! Soldatetan mintzo naiz niretzat erreferentziarik onena delako... “aspes” garbigailuak, arruntak (garai hartan edonork ezin zuelako garbigailu automatiko bat erosi) hamabi mila pezeta, bi hilabeteko soldata, orain miloi erdi pezeta kostatuko balitz bezala. Horrenbeste balio zuten gauzek. Kasete batek, irratia eta grabatzeko aukerak baino ez zituen kasete batek, egun dituzten modernotasunik gabekoa eta gaur ezertarako balioko ez zuenak, aizu, ba ia hilabeteko soldata kostatzen zuen, kontrabandotik ekarria! Bost mila pezeta inguru izango ziren. Hori 69an kristoren dirutza zen, gauza guztiak oso garestiak ziren [...] ikaragarria zen, familia bat mantendu ahal izateko... [P.M.. Imenasako langilea]

Kontsumo maila haiek erdiesteko langileek egin behar izaten zituzten ahalegin gehigarriek gainera, eragin kualitatibo garrantzitsua zuten euren eta euren familien bizitzetan. Eragin bereziki negatiboa izan zuten ondasun berriak eskuratu ahal izateko ezinbestekoak izan ziren aipatu aparteko orduak eta enplegu aniztasuna, aisialdiari eta familiari emandako esparrua eta denbora murrizten baitzuten. Langileak premiazko beharren asetzetik bestelako helburu sozialetara eraman zituen igarobidea, hartara, langileen bizitza pertsonalari eta familia bizitzari galerak eraginez burutu zela esaten ahal da:

Nik hileko lau mila pezetako soldata nuen gutxi gora behera, lau mila pezetakoa. [...] orduan aparteko orduak berrogeita hamar pezetatan ordaintzen zituzten [eta] ordu horiek betetzera behartuta geundenez, ba hilaren amaieran beste bost edo sei mila pezeta jasotzen genituen... bost mila pezeta aparteko orduetan. Baina nik, momentu batean orduak sartzeari uko egin nion, emaztea ikusten ez nuelako; ez nuen emaztea egun osoan ikusten, arraioa, ez dakit ere nolatan geratu zen haurdun! [P.M.. Imenasako langilea]

---

ezkututzen dena”. “Un hotel para la pobreza: el albergue de transeúntes de las Damas Apostólicas”, DN 1965-07-22, 16 orr.

Ildo horretan, Foessa txostenari ez zitzaion arrazoirik falta orduko hazkundera eta garapena, “langileen ahaleginaren eta pairamenaren bitartez bakarrik” bideratzen ari zela, honek “euren osasunean, atsedenean eta askapenean” laguntzen ez zuela eta “espainiarrek euren familiak zortzi orduko lanaldiekin oraindik mantendu ezin” zutenez, bizitza mailaren hobekuntza “ameskeriazkoa” zela esaten zuenean<sup>444</sup>.

Errenta eta kontsumo mailen hazkunderarekin batera, bizi baldintzen hobekuntza gertatu zela agerian uzten duen beste adierazleetako bat, zerbitzu sozialen, hau da, babes medikoaren, doako edo erdi-doako hezkuntzaren edota erretiro zein asistentzia pentsioen handiagotzea da. Alta, estatu frankistak zerbitzu hauei eman zizkien baliabideen inguruko azterketa zehatzago bat egiterakoan, hauek desoreka sozialak arintzeko nahikoak izan ez zirela ikusten ahal da. José Babiano adibidez, frankismoaren garaiko aseguru sozialen eta ongizate sistema publikoaren ahultasunaz mintzo da eta bereziki hiru aspektu nabarmentzen ditu ahulezia horren adierazle bezala: lehena, estatuak gizarte-segurantzaren finantzatzeari egiten zion ekarpen murrizta, espainiar zerga-sistemak berak gastu sozialetara bideratzen zituen baliabideak urriak baitziren; bigarrena, osasun zerbitzuen gutxiegitasuna, biztanleko ospitale oheen eta osasun zentroen kopuru eskasak agerian uzten zuen bezala; eta hirugarrena, hezkuntza sistemak agertzen zituen hutsuneak, doako irakaskuntza oinarritzko mailetan bermatzen zen arren, oraindik populazioaren oso portzentaje txikia iristen zelako erdi mailako edo goi mailako ikasketak burutzera<sup>445</sup>. Azken honi dagokionean, datuak oso adierazgarriak ziren: 1970ean populazioaren %69ak soilik zituen oinarritzko ikasketak, %12ak erdi mailako ikasketak zituen eta goi mailako ikasketak zituen populazioaren portzentajea, ez zen %2ra ere iristen<sup>446</sup>.

Hezkuntzaren alorrean, desoreka sozialak oso modu argian atzematen ziren. 60 eta 70. hamarkadetan gertatu zen ongizatearen gizartearen hedatzeak, langileentzat, ez zuen soilik kontsumo ondasunen jendarteratzea suposatu eta ordura arte maila sozial handiagoko sektoreek bakarrik eskura zituzten hainbat zerbitzu lortzeko aukera gehiago izatea suposatu zuen ere. Ildo horretan, garai hartan langileen artean zabaldu zen helburu nagusienetariko bat, euren seme-alabei nolabaiteko hezkuntza maila eman ahal izatea izan zen. Agian honengatik egin ziren desberdintasun sozialak horren agerikoak hezkuntzaren alorrean, aukera geroz eta gehiago espero zirenez, errealitatearekiko elkar jotzea gogorragoa izan zelako. Garai hartako ikasleriaren jatorri soziala aztertzerakoan, familiaren errenta agertzen da erdi mailako eta goi mailako ikasketetarako sarbidea baldintzatzen duen elementu erabakigarri bezala. 1975eko Foessa txostenak adibidez, datuekin azaltzen du irakaskuntzarako sarrerak jatorri sozialaren arabera izaten jarraitzen zuela: batxilergo ikasten zutenen %37a baliabide ekonomiko handienak zituzten familietatik zetorren, hauek populazio osoaren %12a baino ez ziren arren; %36a maila ertaineko familietatik zetorren, hauek populazio osoaren %23a osatzen zuten; batxilergo ikasleetatik soilik %27ak zuen langile jatorria, nahiz eta sektore hau populazioaren %66a izan<sup>447</sup>. Gure iturrien esperientzietan ere, jatorri soziala eta baliabide ekonomikoak, ikasketak burutzeko langileen aukeren baldintzatzaile gisara agertzen zaizkigu:

Nik uste dut batez ere bi faktorek eragina zutela [langileen seme-alabek zituzten] ikasten jarraitzeko aukeretan: lehena, egoera ekonomikoa, lan egiteko aukera asko zegoenez...

<sup>444</sup> 1970eko Foessa Txostena, gehigarria. Jaso, Jose Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 131 orr.

<sup>445</sup> Ikusi José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 186-189 orr.

<sup>446</sup> Datuak, Carme Molinero eta Pere Ysás, “Cambio socioeconómico y...” Op. Cit., 33 orr.

<sup>447</sup> Datuak, 1975ko Foessa Txostena. Jasoak, Carme Molinero eta Pere Ysás, “Cambio socioeconómico y...” Op. Cit., 33 orr.

adibidez nire gurasoek laster erabaki zuten gu lanean jartzea [...] orduan ikasteko aukera...[...] etxean dirua behar zenez, segituan bidaltzen zintuzten lanera; eta bigarrena, batez ere emakumeon kasutan, ikasteari ez zitzaiola garrantzi gehiegirik ematen, profesioa ikastea balioesten zen eta mutilak tailerretara ikastun gisa edota Imenasako eskola profesionalera edota salestarrera bidaltzen zituzten... Lanbide Heziketara. [M.G.. Iruñeko familia apal bateko alaba]

Lehen adibidez, zergatik joaten ziren bakarrik aberatsak unibertsitatera? Zergatik pobreak ez ziren joaten? Euren ekonomiak horretarako ematen ez zuelako. Nik horregatik ez nuen ikasi, nork ordaindu behar zizkidan ikasketak? Monjek Magdalenara ekarri nahi izan ninduten, Josefinetara, batxilergoa egitera, baina nork ordainduko zuen? Beste gauza bat zegoen gainera, militarren umezurtzak baziren ere eta militarren umezurtzei, militarrek dena ordaintzen zieten; baina militarren umezurtzak ez gineno (han guztiak elkarrekin geunden, nahastuta baina bereiztuta aldi berean) inork ez zigun ezer ordaintzen... orduan, txikitatik jada ikusten duzu militarren umezurtz izateagatik, dena ordaintzen dizutela, institutura joaten ahal zarela [...] Plaza de la Cruz institutura joaten ziren; gainontzekook ordea, ez genuen inolako aukerarik. [F.E.. Nekazal jatorriko familia apal bateko alaba]

Lehenbiziko kapituluaren mugikortasun sozialaz aritu ginean aipatzen genuen bezala, hezkuntza, gizarte egituraren gora egiteko baliabide bilakatu zen 1956-1976 denbora tartean. Baina formakuntza edota kualifikazioa langile sektoreentzat, egiazki, ertain klase berrietara sartzeko bitarteko eskuragarriak izan baziren ere, eguneroko errealitatean, eurak zaila izan zuten hezkuntza baliabideak eskuratzea eta hauek eskaintzen zituzten promozio sozialerako aukerez baliatzea. Izan ere, langile familiek horretarako topatzen zuten oztupo lehena sema-alaben ikasketatan inbertitzeko haina baliabide material ez zutela izan ohi zen. Bigarren kapituluaren, langile familiek, zailtasun honen aurrean, euren seme-alabeei ikasketak eman ahal izateko bereziki bi bide jarraitu zituztela ikusi genuen<sup>448</sup>: lehena, seminario edo fraide eskolena; bigarrena, sakrifizioarena. Azken hau esperientzia gogorra izan zen langile jatorriko gazteentzat, bekak lortzearren emaitza akademiko onak lortzeko ahaleginaren handiak egin behar zituztelako eta familia diru sarrera osagarririk gabe ez uzteko, ikasketak eta lana bateratu behar zituztelako:

Jatorri umileko familia ginen eta orduan ba... gurasoak oso eskuzabalak izan ziren. Ez duzu etxean dirurik sartzen baina zure ikasketak ordaintzen dituzu, esan zidaten. Ahalegin hori egin genuen [...] bekak egon, bazeuden, arraioa, bestela... bai, baina miseriazko bekak ziren [...] Nik ez nuen behin ere suspenditu, ekainean ez nuen inoiz suspenditu. Sarion lehenbiziko urte hartan izan ginen berrehun eta hirurogeita hamabi ikasleetatik, soilik zazpik gainditu genuen lehenbiziko ikasturtea ekainean, Irailean gero... baina nik ezin nuen irailerako utzi, nik ekainean gainditzin ez banuen... ez zen bakarrik bekarengatik, lana zen, nik udan lan egin behar nuen [ikasten jarraitzeko] dirua egiteko... asko ikasi nuen bai, asko ikasten nuen, ezta? han asko ikasi nuen, ordura arte niretzat erraza zen... baina Sarion asko ikasi behar izan nuen [A.L.. Iruñeko familia apal bateko semea]

Seminario edo ikastetxe erlijiosoetan ikastearena, gure iturrietariko askok elkarrekin izan zuen esperientzia da. Hauek, 50 eta 60. hamarkadetan zentro hauetara sartzen zen umeen parte handi batek bezala, instituzio erlijioso haietara jo behar izan zuten familiek hezkuntzari eskaintzen ahal zioten baliabide ekonomikoen urritasuna gainditu eta ikasketak burutu ahal izateko. Euren ibilbideek azaleratzen dutenez, estrategia honek arrakasta izan zuen eta gazte haiek, langileen sema-alaba izanda ere, ikasketekin jarraitzea eta kualifikazio maila garrantzitsuak eskuratzea lortu zuten. Haietariko askok gerora, instituzio eta karrera erlijiosoak utzi zituzten eta nolabaiteko

---

<sup>448</sup> Ikusi Javier Echeverria Zabalza, *La movilidad social...* Op. Cit., zortzigarren kapitulua "estrategias y mecanismos II. Las instituciones educativas y su papel en las estrategias" atala, "Las instituciones educativas y su papel en las estrategias" atala, 357-389 orr.

kualifikazioa eskatzen zuten enpleguetan hasi ziren lanean edota unibertsitate titulua lortu arte ikasten jarraitu zuten<sup>449</sup>.

Guztiarekin ere, hezkuntza zerbitzuetarako sarbidea izateko aukerei dagokienean, langileen seme-alaben hautabideak, familiaren beharrek baldintzatuta izaten ziren maiz. Izan ere, arrakasta izaten ahal zuten estrategiak hartzen ahal ziren arren (aipatu sakrifizioa, ikastetxe erlijiosoak), behar haiek, gazteek euren langile errealitateak aldentzen ziren xedeekin amets egin ez zezaten, disuasiorako faktore eraginkorrak izan ziren<sup>450</sup>. Kasu hauetan, langile familietako gazteek elkarrekin izan zuten esperientziarik ohikoena, egoera ekonomikoak behartuta eskola goizegi utzi eta lan egiten hasi behar izatearena izan zen. Hauek, familiaren biziraupenean laguntzearren, ikasketak utzi eta oso gazte hasi ziren lanean. Zentzu honetan, hezkuntza familientzako gastu gehigarri bat ez bilakatzearren eta etxera soldata osagarri bat eramaten jarraitzearren bekak lortzea eta gaueko batxilergoen bitartez lana eta ikasketak bateratzea<sup>451</sup>, hezkuntzaren alorrean oraindik agerikoak ziren desberdintasun sozialetatik eratorritako bizipenak izan ziren.

Zerbitzu kolektiboen garapen eskasak, desoreka sozialak oso nabariki islatu zituen ere. Erosahalmenaren hazkundeak eta bizitza mailaren hobekuntzak, kasik eskusiboki, esparru pribatua izan zuten eragina eta ez zituzten, inolaz ere, gizarte hiritar eta industrialak sortutako behar kolektibo berriak asetzeko zerbitzu egokiak ekarri berekin. Jarraian aztertuko ditugun langile auzo berrien errealitateak, zerbitzuok izan zuten garapen murrizaren adibide argia dira: etxeetan kontsumo ondasunak biderkatzen ziren bitartean, auzoetan, hirigintza hondamendiak eta hornikuntza sozialen edota azpiegituren gabezia, ohiko arazo izaten ziren. Hazkunde ekonomikoaren eta desarrollismoaren aurpegi gordinena beraz, bizi baldintzen hobekuntza erakunde publikoen ardura zen esparruetan bereziki egiten zen agerikoa<sup>452</sup>. Izan ere, hobekuntza ez zen langile bizitzaren bi esparruetara, pribatura eta kolektibora, maila berean iritsi eta soldata zuzenek onera egiten zuten bitartean, estatuaren aseguru sozialek eta osasun edota hezkuntza zerbitzuek, ageriko prekarietatea azaltzen zuten. Zergatik? Esparru bataren eta bestearen arteko bereizketa argia eginez, José Babianok hausnarketarako bide interesgarria zabaltzen du galdera honi erantzuterakoan: soldaten hazkundeak langileek lan merkatuan zein lantokietan lortu zuten kontratuzko botereari eta interbentziorako gaitasunari esker azaltzen bada; zerbitzu kolektiboen urritasuna, langileek interbentzio politikorako

---

<sup>449</sup> Lehenbiziko kasuan J.M.E. kokatzen dugu. Ikastetxe erlijioso batean ikasi zuen batxilergora arte; ikasketak amaitutakoan lan mundura irten zen eta fabrika batean, erdi mailako ikasketak izateagatik, bulegoko lanpostu bat lortu zuen. Bigarrena, M.B.-ren kasua izan zen. Iruñeko seminarioan ikasketak burutu ondoren, karrera erlijiosoa utzi eta Lovainako Unibertsitatera joan zen ingeniarietza ikastera. J.M.E.-ri eta M.B.-ri egindako elkarrizketak. Iruñea, 2013-05-06 biak.

<sup>450</sup> Javier Echeverria Zabalza, *La movilidad social...* Op. Cit., 393 orr.

<sup>451</sup> Honek gazteei eragozpen handiak sortzen zizkien. Aurreko kapituluan ikusten genuen bezala, zaila izan ohi zen lan ordutegia eta gaueko eskola bateratu ahal izatea. Iruñean batxilergoko eskolak gaueko ordutegian emateko ekimenak izan ziren arren (Ximenez de Rada Institutuaren eskumeneko zen San Pedroko gau eskola adibidez), ikasle gutxi biltzen zituzten, langile askori klaseak eta lan ordutegiak zein aparteko orduak bateratzea ezinezkoa egiten zitzaielako, hein handi batean. "El bachillerato nocturno apenas reúne en Pamplona veinte alumnos por curso. Dos inconvenientes: las horas extraordinarias y los turnos de trabajo", DN 05-10-67, 20 orr.

<sup>452</sup> Desarrollismoaren garaiko langileen bizi baldintzez, bizitza mailaz eta bizi kalitateaz arduratzen ikusi ditugun autore nagusiak, Carme Molinero eta Pere Ysás, José Babiano eta José Antonio Pérez ideia honekin bat datoz.



aukera errealik ez zutenez, diktadurak ongizatearen birbanaketa ziurtatuko zuen berme sistema bat saihestu ahal izan zuelako azaltzen da<sup>453</sup>.

---

<sup>453</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 193 orr.

### 3.3 LANGILE AUZOAK. AGERTOKI BERRI BAT

50 eta 60. hamarkaden bitartean Iruñeak bizi izan zuen hazkunde azkarrak, hiri espazio desberdinak osatu zituen. Berauetan, langileei berezkoak izango zitzaizkien gunek berriak sortu ziren: auzoak. Hauek, aparteko errealitate autonomoak osatu zituzten heinean, langile esperientziak bizitzeko esparru bilakatu ziren. Izan ere, hirietan, langileak gaizki planifikatutako, oker urbanizatutako, nabarmenki gainpopulatutako eta zerbitzurik gabeko periferiako auzoetan bizi ohi ziren, burgesiaren bizitza eta kultura garatzen ziren erdiguneetatik bereizita. Langileen berezko esparru hauek sortu zituen hiriaren “banatze klasistatik” eta esparruen beren osaeratik zein egunerokotasunetik, langile esperientziak eratortzen dira, auzo berri hauek, nolabait, langileen esplotaziorako “unitate integral” bezala funtzionatzen zutelaren esaten ahal delarik<sup>454</sup>.

#### 3.3.1 Langile auzoen sorrera: hiriaren banatze klasista bateruntz

XX. mendearen lehen herenean berez ezin da Iruñeko hiri espazioaren banaketa sozial eta funtzional batez hitz egin. Plaza militarra izateagatik ezin zen harresiaz bestaldera eraiki eta ondorioz, etxebizitzaren eraikuntzarako, hiri esparru bakarra aurreikusten zen, bertan langileen, ertain klaseen eta burgesiaren bizitokiak nahastuta eta integratuta agertzen zirelarik<sup>455</sup>. Harresien barnean egin zen lehen zabalgunearen eraikuntzak, ez zuen berekin esparruen erabileran bereizkuntza argirik ekarri eta burgesia, zabalgunek sortu behar zion hiri esparru bereziturik gabe geratu zen. 20. hamarkadan hasi zen bigarren zabalgunearen eraikuntzak ordea, zuzenean eta zeharka, nolabaiteko klase izaera azaltzen zuten populazio asentatze berriak sortu zituen hirian. Zabalgunearen eraikuntza lanek langile populazioa erakarri zuten. Honek, langile etxebizitzaren eskaria biderkatu zuen, etxebizitza arazo larri bat zela eta hiri zabaltzea eta hiri esparru berriak sortzea beharrezkoa zela iragarri. Eraikitzen ari zen hiri esparru berria, zabalgunea, ez zen langile populazioaren etxebizitzaren arazoarentzako konponbide bat, burgesiarentzako hiri esparru bereizi bezala osatzen ari zelako, beraz, populazio apala hura kokatzearren, hiri ingurunean, kontrolik gabeko eraikuntza anarkiko bat hasi zen agertzen<sup>456</sup>. Hiritik bi kilometrotara, iparraldeko tren geltokiaren zonaldean, aldi berean industria gunek eta bizigune zen nukleo bat zegoen; Arrotxapea eta Magdalena auzoetan, landa etxeez osatutako eraikuntza moldeak ari ziren agertzen; eta Donibane, Etxabakoitz, Iturrama edota Mochuelo auzoetan populazio nukleo berriak jaiotzen ari ziren<sup>457</sup>.

<sup>454</sup> Ikusi “El barrio: unidad integral de explotación”, *Teoría y práctica. La lucha de clases analizada por sus protagonistas* aldizkaria, 5. zkia, 1977, 8-10 orr. Andrés Herrera Feligrerasek utzitako alea.

<sup>455</sup> “II. Zabalgunearen eraikuntzaren aurretik nafar hiriburuaren ezaugarri nagusiak, nahasketa soziala [k] [iragartzen zuen] hiri esparru desberdindugabe bat izan zen [...] Alde Zaharraren baitan nobleagoak ziren zonalde batzuk zeuden arren, ohikoena zen ‘pobreak’ eta ‘aberatsak’ elkarrekin, kale berean eta are eraikin berean, bizitzea”, María del Mar Larraza, *Aprendiendo a ser...* Op. Cit., 26 orr.

<sup>456</sup> Ikusi Zuriñe Sainz Pascual eta Nerea Perez Ibarrola, “Transformación urbanística y...” Op. Cit., 130 orr. Are gehiago, mendearen hasieran Arrotxapeako eta iparraldeko tren geltokiko lehenbiziko populazio kokaguneez hauteskunde barruti bat osatzen zuten. María del Mar Larraza, *Aprendiendo a ser...* Op. Cit., 85 orr.

<sup>457</sup> Mochuelo auzoa 20 eta 30. hamarkadetakoa kontrolik gabeko eraikuntza anarkikoaren adibide izan zen. Lehenbiziko populazio nukleoa landa munduko ezarmenduen itxura izan zuen baratzeek, oilotegiek, untxitegiek, txerritegiek eta etxolek osatzen zuten. Biztanleak, pobreziatik ihesi, lan bila hirira iritsitako emigranteak ziren. Honela 30. hamarkadan, auzoa, zenbait etxola barreiatuek osatzen zuten eta hiriko zonalde pobreenetako bat zen. Ikusi Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 25-34; bertan 30. hamarkadako auzo hura, nekazal girokoa, baratzeena eta oilotegiena, azaleratzen duten hainbat testigantza biltzen dira, esaterako: “pobrezia asko zegoen, baina ez genuen berez gosea pasatzen txerriak, oiloak,

Modu honetan, industriak eta langile zein nekazari nukleoak harresiaz bestaldera kokatuz, hiriaren nolabaiteko banatze klasista bat aurreikusten zen. Periferiako gune aitzindari hauek hiriko gainontzeko bizitokietatik desberdinu ziren, hiri zonaldeen artean bereizpen geografiko bat eta are bereizpen sozial bat ezarri zelarik. Arrotxapea auzoarena adibide adierazgarria izan zen, 1920 urterako jada langile izaerako errebalaren profila azaltzen baitzuen. Iparraldeko periferian, harresietatik kanpo eta Arga ibaiatz beste aldera kokatuta, industria bakan batzuek, baratzeek eta etxebizitza apalez osatutako populazio nukleoa zen. Hirigunetik bereiztuta egoteak, bizilagunen jatorri sozial definituak, bizitokia eta lantokia auzoan izateagatik populazioak hiria apenas ez zapaltzeak eta auzo komunitate bati zegozkion harreman zein loturen biziagotzeak, berezko auzo kontzientzia argia sortu zuten bertan<sup>458</sup>. Bereiztasun hau biztanleen jarrera politikoetan azaleratzen zen ere eta Iruñeak, orokorrean, tradizionalismo politikoarekiko joera azaltzen zuen bitartean, Arrotxapea bezalako kanpoko auzoetan, sozialismoa, errepublikanismoa eta are nazionalismoa bezalako ideia eta hautabide politiko berriak, inon baino indartsuago agertzen ziren<sup>459</sup>.

Guztiarekin ere, Iruñearen banantze klasista, modu argian, ez zen XX. mendearen bigarren erdialdera arte gauzatu. Orduan, industrializazio eta hiri kontzentrazio prozesuek, ezaugarri sozial oso definituak zituzten esparru fisiko berriak, Iruñeko auzoak, sortu zituzten. 50. hamarkadan, Iruñearen hazkundea, hiria espazioa zabalduz bideratu zen. Harresietatik kanpo, iparraldeko zein hegoaldeko periferietan, hiri esparru berriak sortu ziren eta oraingoan bai, haietariko bakoitzari, ordenadun hierarkia batetik eratorritako funtzionalitate bat egokitu zitzaion. Honekin, aipatu hiriaren banatze klasista igartzen hasi zen, funtzionalitatearen araberrako hiri esparru berrien sorrerak, egiazko gizarte estratifikazio bat azaleratu baitzuen. Esate baterako, zonalde industrial gisara xedatutako hiri esparruei, langile populazioaz osatutako esparru sozialak egokitu zitzaizkien, erabileran eta osaera sozialean, argi eta garbi, hirigunetik bereizten zirelarik. Zentzu honetan, hiri esparruak irizpide sozioekonomikoak jarraituta eratu zirela esan daiteke nolabait.

Bilboko eta Madrilgo kasuak adibide adierazgarriak dira hirien banantze klasista zertan funtsatu zen ikusteko. Lehenbizikoa, José Antonio Perezek aztertu du. 40 eta 70. hamarkaden bitartean hiriak bizi zuen industria bultzadak, industrializazioaren lehen aldiaz geroztik igartzen ziren hirigintza ezaugarriak sakondu zituen, Bilbo Handiko zonalde desberdinen lurzoru espezializazioa sendotuz: Eskuinaldea, klase dirudunen bizitoki gisara indartu zen; Ezkerraldea eta Nerbioi-Ibaizabal gunea,

---

untxiak eta ahateak hazi egiten zirelako eta baratzeetan barazkiak landatzen zirelako”, Testigantza: “Llegamos al mochuelo en el año 1933”, 31 orr. “

<sup>458</sup> María del Mar Larraza, *Aprendiendo a ser...* Op. Cit., 85 orr.

<sup>459</sup> *Ibid.*, 221 orr. Adibidez, burdinbideetako langileek nukleo sindikal garrantzitsua sortu zuten bertan, burdinbideetako langileen zentroa. Honekin batera, 1936 urtean, alderdi komunistak hauteskundeetan presentzia politiko garrantzitsua lortu zuen hiri nukleo bakarra izan zen. Ez da harritzekoa beraz, alderdi komunistak sortu zituen langileen eta nekazarien Milizia antifaxistetan, militante asko, auzokoak izatea. Ez da harritzekoa ere 1936 urte hartako altxamenduan auzoa, Alde Zaharreko hainbat gunerekin batera, errepresioak gogorren zigortu zuen zonaldea izatea. “Apuntes para la guerra civil en la Rochapea: sangre delación y dolor”, Ezkaba aldizkaria, 94. zkia, 2002, 19-21 orr. Arrotxapean bizi izan zen errepresio horren adibide izan zen Juan Pedro Herranzen familia. Aita burdinbideetako langilea izan zen, Izquierda Republicano militantea eta bere anaiak, Juventudes Socialistaseko militanteak. Hirurak atxilotuak eta erailak izan ziren. “A mi no me aceptaron en el colegio Ave María por ser hijo de rojo”, Ezkaba aldizkaria, 96. zkia, 2002, 30-33 orr. 1936ko errepresioari buruz ikusi ere Patxi Abasolo, *Arrotxapea. Historia, memoria y compromiso*, Arrotxapeako Jai Batzordea, Lasarte-Horia, 2013 (2. edizioa), 100-106 orr.

industria zonalde gisara; eta Bilboko hirigunea, zerbitzuen erdigune bezala. Espezializazio honek, Bilbo Handiko zonalde zehatzetan (Ezkerraldean eta Nerbioi-lbaizabal zonaldean) langile klasearen ezarmenduak biziagotzea eragin zuen<sup>460</sup>. Madrilgo kasua, José Babianok aztertu du eta zonalde desberdinetan kokatutako populazioa aztertuz, hiriaren hazkunde prozesuan gertatu zen hiri esparruen espezializatorako joera azaleratu du. Honela, hiriko zonalde desberdinek, jaso zuten populazioaren ezaugarri sozialen arabera espezializazioa agertu zutela ikusi du: hegoaldea jatorri langileko biztanleriaren gune bilakatzen ziren bitartean, iparrekialdea errenta maila goratuagoko populazioaren bizitoki bezala sendotzen zen<sup>461</sup>. XX. mendearen bigarren erdialdetik aurrera sortu ziren langile populazioaren ezarmenduak bereziki hegoaldean kokatu zirela, hegoekialdean kokatzen den Vallecás auzoak baieztatzen du, 60. hamarkadan, auzoko Palomeras nukleoetako soldatapekoen 50%a, eraikuntzaren alorrean edota fabrika zein tailerretan lan egiten baitzuen.

Hiri esparruaren espezializazioa edo “zonifikazioa” Iruñean, gerraostean definitu zen, 1940an, harresiez kanpoko auzoen eraikuntzarako udal arautegiek, aurreko hamarkadetan periferian sortutako etxegintza (Arrotxapea, Magdalena, Mochuelo, Donibane) partzialki ordenatzen saiatu zirenean. Izan ere, udal arautegi hauek, erabilaren arabera hiri esparruen definizio bat aurreikusi zuten, hauen banaketa funtzional eta klasista bat iragarri: hegoaldean eta mendebaldean bizitegi gune bat osatu zen; Iparraldean aldiz, langile populazioaz osatutako gune industrialak. 1957ko Hiri-Antolamendurako Plan Orokorra joera hau are gehiago indartu zuen. Honek, hiri esparruen espezializazioa biziagotu zuen, jada osatzen eta funtzionaltasunean bereizten ziren guneak egonkortu zituelarik: goi-lautada, Iturrama, Ermitagaña eta Donibane, kalitatezko bizitegi gune bihurtzen zen haren periferiaren, hau da, Arrosadiaren eta Etxabakoitzaren aurrean, hala nola ibaiaz bestaldeko zonaldearen aurrean; hemen, Txantrean, Arrotxapean, Sanduzelain, Berriozarren, Antsoainen, Burlatan edota Atarrabian, tailer, biltegi eta fabrikekin batera, etxebizitza merkearen eraikuntzarako promozioen bitartez, langile populazioa biltzen zen.

Hiriaren hazkunde prozesua bera, zonifikazio honen mesedetan bideratu zen. Aldez aurreko harresiaz bestaldeko populazio gune txiki eta barreiatuetatik abiatuta gauzatu zen, etxebizitza berrien eraikuntza sustatuta. Berauetan, Iruñeko auzo berriak sortu ziren. Hauek, hirigunetik bereiztuta egon ziren hasieratik, bai geografikoki eta baita sozialki ere. Bereizketa geografikoa oso agerikoa zen, harresietatik kanpo eta ibaiaz beste aldera kokatzen ziren ezarmenduak baitziren. Bereizketa soziala, berauetan sustatu zen etxebizitza merkearen eraikuntzaren ondorioa izan zen, honek langile populazioaren kontzentrazioarako gune bezala itxuratu baitzuten.

Aipatu dugu jada Arrotxapea auzoa, harresiaz bestaldean kokatzen ziren aldez aurreko populazio nukleo txiki eta barreiatu haietariko bat zela. Erabilera definitua zuen hiri esparrua zen, bai Iruñea elikatzen zuten baratzeen eta hiriko industria goiztiarren kokaleku zelako eta baita bertan jatorri apaleko populazioa (langileak, ortuzainak) biltzen zelako ere. 50 eta 60. hamarkaden bitartean Arrotxapeak aldaketa sakonak bizi izan zituen. Ibai ondoko auzo zaharreko baratzeak desagertuz joan ziren, fabrika eta enpresa garrantzitsuen kokatzearekin (Iwer fabrika handian egoitza zuen Matesa edota Huarte enpresa taldeko Perfil en Frio) lurzoruen industria espezializazioa indartzen zen bitartean. Etxebizitzak biderkatu ziren eta 50. hamarkadatik aurrera, Marcelo Celayeta etorbidea, neurri handi batean babes erregimenekoak ziren etxebizitza multzoek bete zen, hiriko kale luzeenean eta jendeztatuenean bilatu zelarik. Auzoaren hazkundera bideratzeko, etorbide honen bi aldeetara eraiki zen: hamarkadaren hasieran udalak sustatu zituen eta errenta

<sup>460</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 62 y-64 orr.

<sup>461</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 25-26 orr.

baxukoak ziren San Pedro auzoko etxeak; El Salvador etxebizitza kooperatibaren ekimenez eraikitako multzoak; kooperatiba erregimeneko Oscoz etxebizitza sailak; edota Abonos Químicos enpresak langileentzat egin zituen Santa Engraciako etxe blokeak.

Antzeko zerbait gertatu zen Sanduzelai auzoan. Auzo berria, iparraldeko tren geltokiaren inguruan jaio zen alde z aurreko ezarmendu batetik abiatuta sortu zen. Arrotxapeakoa bezala, jatorrizko nukleo horrek etxebizitza multzoak, fabrikak eta tailerrak barne hartzen zituen eta langile populazioa biltzen zuen, hiri esparruaren erabileran eta populazioaren ezaugarri sozialetan nolabaiteko espezializazioa atzematen zelarik. 60. hamarkadan abiatu zen “Sanduzelai” modernoaren eraikuntzak, jatorrizko bereiztasun horiek sakondu zituen kasu honetan ere. Alde batetik, lurzoruak hasiera batean industria eremu bezala definituta zeudenez, zonaldean fabrika garrantzitsuak kokatu ziren (Penibérica, Campsa). Bestetik, bertara erakarri zen populazio berriak, langile jatorrikoa izaten jarraitzen zuen. Honetaz gain, Sanduzelai, hiri esparru oso berezia izan zen itxuran ere. Izan ere, industria guneen eta biziguneen arteko nahasketak, fisionomia oso berezia eratu zuen, etxeak inguratzen zituzten fabrikak edota eraikinen arteko espazio hutsetan azaltzen ziren erabilera industrialerako etxabeak, auzoaren berezko elementu bilakatuz. Etxebizitzak industria gunee bezala definitutako lurzoruetan eraiki izanak auzoaren bizi-gokitasunerako baldintzak izugarri narriatu zituen eta horregatik, zonalde hau, bizi kalitate gutxiko bizi-gokitzat estimatua izan zen denbora luzez<sup>462</sup>.

1950ean, Iparrekialdean, ibaiak bestaldera eta jatorrizko Magdalena nekazal eta baratze gunearen ondoan, Txantrea auzoa hasi zen eraikitzen. “Francisco Franco eraikuntzarako patronatuaren” ekimenez jaio zen, babes erregimenetik abantaila hartuta, etxebizitzaren arazoa arintzeko helburuarekin. Beraz, hasieratik, bizitegi-gune gisara definitu zen<sup>463</sup>. Zehazki, langile populazioaren kokaleku gisara itxuratu zen, prestazio pertsonalaren bidezko sistemaren bitartez, etxeak Iruñeko eraikuntza enpresa garrantzitsuenetako langileek eraiki baitzituzten, lan ordutegietatik kanpo, eurak jabetzan lortzeko. Eraikuntzaren lehen faseetako hirigintza ereduak gainera, auzoa hirigunetik itxuran ere desberdindu zuen: landa etxeen irudira diseinatuak, elkarri atxikitako banakako etxebizitzak ziren (behe solairu bakarrekokoak edota bi garaieratan eraikitakoak) eta baratzerako edota ukuilurako esparrua gordetzen zuten. Ondorengo eraikuntza faseetan Txantrea bereizi egin zuten bi ezaugarri hauek desagertu baziren ere, bertan etxebizitza merkea eraikitzen jarraitu zenez, auzoa, langileen eta emigranteen kokaleku bezala egonkortu zen.

Hegoaldeko goi-lautadan edo terrazan, 60. hamarkadaren hasieran, Iruñeko III. Zabalgunea izango zena hasi zen sortzen, Donibane eta Iturrama auzo zaharretatik abiatuta. Hauek ere, jatorrian, goi-lautadako soroetan bizi zen populazioa, altxatzen ziren landa etxeak eta lantzen ziren baratzeak biltzen zituzten nekazal nukleoak ziren. 50. hamarkadan lehenbiziko etxe berriak eraiki ziren Iruñeko industria desberdinetan lan egiten zuten langileentzat (*Eguarasen etxeak*) eta industria garrantzitsuak kokatu ziren bertan, haien artean Iruñeko fabrika garrantzitsuenetariko bat izan zen Imenasa fabrika. 60. hamarkadan, zonalde hau, hiriko hirugarren zabalgunea kokatzeko aukeratua izan zen, haren kokapenarengatik, hirigunearen jarraipenerako esparru oso aproposa gertatzen baitzen. Udalak lurzoruak bereganatu zituen, babes erregimeneko

---

<sup>462</sup> Sanduzelai auzoaren jatorria eta bilakaeraz gehiago, Irantzu Urdaniz eta German Esparza, *La historia escondida...* Op. Cit. Iruñeko auzoetako arazo nagusiak, Sanduzelaiko hirigintza baldintzak barne, jarraian aztertuko ditugu.

<sup>463</sup> Bizigune gisara bilakatu zen arren, horrek ez du esan nahi auzoaren inguruan industria garrantzitsuak kokatu ez zirenik. Esate baterako, Frenos Iruña, 60. hamarkadako lehenbiziko grebaren protagonista izan zen fabrika, hemen zegoen.

etxebizitzaren eraikuntzaren sustatzaileei (kooperatibak, patronatuak, hauen antzeko bestelako erakundeak) eman zizkien eta hauek, etxe alde-etxe alde, auzo berria eraiki zuten hamarkada osoan zehar. Kooperatibena sistema erabiliena izan zen. Martin Azpilicueta kalean etxeak eraiki zituen San Alberto Magno kooperatiba goiztiarra, Baiona etorbidean kokatu zen San Francisco de Paula marrazkigileen kooperatiba edota *Eguarasen etxeen* ondoan metalaren sindikatuko langileek osatu zuten San Eloy kooperatiba, honen adibide adierazgarriak dira<sup>464</sup>. Jarraian ikusiko dugun bezala, Donibane auzoa, denborarekin, egoera abantailatsuko eta populazio heterogeneoagoko zonalde bezala egonkortu zen aurreko auzoekin alderatuta.

Hegoaldeko periferian, goi-lautadatik haratago eta terrazatik behera, Etxabakoitz eta Arrosadia auzoak sortu ziren. Lehenbizikoa, Zizur Zendeako udalbatzetariko bat izatetik, hiriburuko auzo bat izatera igaro zen 50. hamarkadan. Hego-mendebaldean kokatua, Industria gune garrantzitsua zen, Argal eta Inquinasa bezalako fabrika aipagarriak barne hartzen baitzituen. Auzo berriaren garapena hasi zenean, eraikitzen ziren bizitegi guneak lantegi ertain zein handiekin nahasten ziren, langile populazioa hartzen duen industria hiri esparruaren eredu tipikoa osatuz. Harreman honen adierazlerik argiena, 50. hamarkadan Inquinasa enpresak bere langileentzat eraiki zituen etxebizitzak izan ziren, Urdanoz etxebizitza saila eta Larraskuntxea. Hauekin batera, 60. hamarkadan zehar zonalde honetan abian jarri ziren bestelako etxebizitza merkearen eraikuntzarako promozioek, Mañeru kooperatibak edota Barcos zein Vistabella promozio publikoak kasu, langile sektoreen kokagune egin zuten ere. Oso modu agerian itxuratu zen hirigunetik bereizitako esparru hiritar bezala, izan ere, goi-lautadak geografikoki aparte uzten zuen eta Iruñeko zonalde degradatuenaren itxura erakusten zuen. Azken honi dagokionean adibidez, etxebizitzak industriez inguratuta egoteaz beste, auzoa bera trenbideak eta Elorz ibaiak zeharkatuta, zatituta, agertzen zen.

Arrosadia auzoak soro, baratze, txabola, landa etxe eta ostatuek osatzen zuten "Mochuelo" auzoan izan zuen jatorria. Zonalde hau, industria gune txikia zen ere, bertan suzirigintza fabrika bat, altzari fabrika bat eta *El Pamplonica* hestebete fabrika kokatzen baitziren<sup>465</sup>. 60. hamarkadara arte, auzoaren garapena, Zaragoza etorbidearen bi aldeetara irekitzen ziren nekazal bideetan etxolak etxebizitza bihurtuz eta etxe berriak, (baratzea zuten txaletak eta garaiera baxuko etxeak) eraikiz gauzatu zen. Auzo berriaren eraikuntza lanak 1959an hasi ziren, Larrabide eta Santa Maria la Real kooperatibei bertan eraikitzeko lurzorua baimendu zitzaizkienean. Ordutik aurrera, babes ofizialeko erregimenetik abantaila hartzen zuten kooperatiben sistemari jarraiki, etxebizitzaren eraikuntza oso bizkorra izan zen zonalde honetan<sup>466</sup>. Arrosadiak

---

<sup>464</sup> San Alberto Magno kooperatibari buruz: "602 nuevos hogares serán construidos en régimen de cooperativa. El domingo se celebró la bendición y colocación de la primera piedra del grupo San Alberto Magno" PN 1959-11-17, 10 orr. eta "Solemne colocación de la primera piedra del grupo de viviendas San Alberto Magno. El acto significó la iniciación del tercer ensanche de Pamplona. 600 nuevos hogares en el barrio de San Juan", DN 1959-11-17, 1 eta 11 orr. edo "Inauguración de seiscientas viviendas en la cooperativa San Alberto Magno", DN 1964-07-21, 7 orr. 60. hamarkadaren bitartean eraikuntza jarduerarekin jarraitu zuela ikusteko, San Francisco de Paula marrazkigileen kooperatibari buruz: "Bendición e inauguración de 87 viviendas pertenecientes a la cooperativa de delineantes San Francisco de Paula", DN 1964-04-07, 8 orr. eta Metalurgikoen San Eloy kooperatibari buruz: "Entrega de las llaves de 154 viviendas de la cooperativa de San Eloy", DN 1966-09-16, 8 orr.

<sup>465</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 16-18 orr. El Pamplonica izan zen auzoko industriarik garrantzitsuenak, baina hegoaldeko zonalde honen hegoaldeko muga zen Cordovillan, Iruñeko enpresa garrantzitsuenetarikoa bat kokatzen zen, Super Ser.

<sup>466</sup> 50. hamarkadaren amaieran sortu ziren kooperatiben gehiengoak zonalde honetan eraiki zuten. Milaka etxebizitza izan ziren. Jesús Equiza, "Urbanismo y parroquias en Pamplona y comarca", *Vasconia*, 29. zkia, 1999, 47-65 orr., 54 orr.

ere, hirigunetik nola edo hala bereizi egiten zuen ezaugarri adierazgarri bat azaldu zuen itxuran: bertan lurzoruen alde zuzeneko egokitzapenik gabe eraikitzen hasi zenez, etxebizitzak, nekazar bideen trazadura labirintikoaren gainean altxatu ziren, auzoari oso morfologia bereizgarria emanez.

Iruñerriko udalerriek, antzeko hazkunde prozesuak bizi izan zituzten ere. Iparraldeko periferian, Burlata, Atarrabia edota Huarte bezalako herriak, industrial txiki tradizionalen ingurura langileentzako etxe multzoak biltzen zituzten nukleoak ziren. Industria ezarrendu garrantzitsuak zeuden bertan, Atarrabian esateko Onena papergintza fabrika zegoen eta Huarten, Mina hestebete fabrika. Herriotako populazioa lantegi hauei oso lotuta egon zen beti, biztanleen gehiengoa berauetako langilea baitzen. 50 eta 60. hamarkadetan, industriaren bultzadarekin eta emigrazioak eragindako hazkunde demografiakoarekin, gune hauek Iruñeko fabrika desberdinetan lan egiten zuten langileak jasotzen hasi ziren ere eta urte gutxitan, biderkatuta ikusi zuten euren populazioa. Etxebizitza urritasunaren auziak edota eraikuntza jarduera merke eta bizkor bat planifikatzearen beharrak, hartara, hirigintza arazo larriak sortu zituzten herri hauetan 60. hamarkada osoan zehar<sup>467</sup>. Hegoaldeko eta mendebaldeko beste zenbait herritan, antzeko zerbait gertatu zen, hiriburuko industrializazio prozesuari eta hazkunde demografikoari lotuta garatu baitziren. Mendebaldean, Zizur eta Barañain herri txikiak, etxebizitza promozio pribatuen bitartez handitu ziren, erabatean bizitegi gune bezala itxuratu zirelarik<sup>468</sup>. Hegoaldean, Noain eta Beriain herrien garapena, berauetan fabrika garrantzitsuk kokatzearekin bultzatu zen, hauek langile populazioa erakarri baitzuten. Noainen kasuan Motor Ibérica izan zen, Beriainen kasuan, Potasas, meatze putzuak eta enpresak berak sortu zuen Potasaseko herrixka.

Periferiako auzo guzti hauetan, ikusi berri dugun hirigintza eredu, berauetan bizi zen langile populazioaren esplotaziorako tresna bat izan zen. Hiriaren hazkunde bizkorretik, nahasitik eta kontrolik gabekotik eratorri ziren arazoak, adibidez etxebizitzak lur sail desegoki edo hiritartu ezin zirenetan altxatutakoak izatea edota eraikitako zonalde berrietan oinarritzko hornikuntza eta zerbitzu minimoak ere aurreikusiak ez egotea, bereziki periferiako auzoetan bizi izan ziren. Are gehiago, auzoetako biztanleek arazo horiek pairatzen zituzten bitartean, eraikuntza enpresek, berauetatik etekin ateratzen zuten. Esplotazio horrek, gainera, ez zuen inolako mugarik, instituzioak irregulartasun haien aurrean inhibitzen zirelako eta egoera haiek

---

<sup>467</sup> Iruñerriko herrien kontrolik gabeko hazkundeari eta honek berauetan sortutako hirigintza arazoei buruzko erreferentzia ugari topatu dugu prentsan 60. hamarkadaren bitartean. Huarteren hazkundeari buruz: "Huarte en plena evolución. Proyecto instalar un polo industrial propio", DN 1964-09-20, 4 orr. Atarrabiako hazkundeari buruz: "Villava. 4.000 habitantes por KM cuadrado. La variante de la carretera hará posible que Villava se industrialice y alcance los veinticinco mil habitantes ", DN 1964-10-06, 8 orr. Burlatako hazkundeari buruz: "Burlada crece a ritmo agigantado", DN 1964-08-16, 10 orr. eta geroagoko "Burlada en Fiestas. Un municipio con un crecimiento desproporcionado y con graves problemas a solucionar", DN 1967-08-16, 8 orr. Hain zuzen arazo hauengatik, Burlatan, bere udalerritik (Egues Ibarreko udalerrria) bereizteko eta Iruñeko udalarekin bat egiteko aukera sortu zen, azken honek herriak planteatuta zituen arazo larrienak konpontzeko gaitasun handiagoa izango zuela uste baitzen: "Burlada. Reunión de un centenar de vecinos disconformes con la gestión administrativa de la Junta de Veintena", DN 1966-05-19, 24 orr. eta "El crecimiento de Burlada y sus graves problemas. La anexión a Pamplona", DN 1966-05-22, 24 orr. Antsoain herrian ere aukera hori bera, Antsoaingo Zendeatik bereiztu eta Iruñeko Udalerrian parte bilakatu, sortu zen: "Ansoain pasará a ser Pamplona", DN 1963-03-21, 12 orr. eta "Ante la anexión del pueblo de Ansoain a Pamplona", DN 1963-04-16, 7 orr. Ez bata eta ez bestea azkenean Iruñeko udalarekin bat egin ez zuen arren (biak udalerrri independente bihurtu ziren), anexoaren planteamendua, hazkundeak herri hauetan eragindako ezin eutsizko egoeraren adierazle bat da.

<sup>468</sup> Hauek bizigune gisara garatu ziren erabatean. Barañain adibide adierazgarria izan zen, Landaben industrialdearen gertutasunak, bizitzeko gune oso erakargarria egiten baitzuen.

ahalbidetu eta are iraunarazten zituztelako. Udalak, esaterako, plan partzialen bitartez planifikazio ordenatu bat gauzatu beharrean, ekimen pribatuari lur sailez-lur sail eraikitze baimenak ematera mugatu ziren<sup>469</sup>. Ildo horretan, Zuriñe Sainz Pascual 60. hamarkadaren bigarren erdialdeko Iruñeko udalaz egiten ari den azterketa, hirigintzaren bidezko esplotazio hau nola gauzatzen zen eta udalaren hirigintza politikak horretan zer nolako erantzukizuna zuen ikusteko oso interesgarria da. Bere lanak, 1966-1973 bitartean Iruñeko Udalan aritu zen zinegotzi *sozialen* taldea du hizpide eta honek aurrera eramane zuten hirigintza politikan arreta jartzen du bereziki, urte haietan hirigintza politikaren inguruan udalbatzan piztu ziren eztabaida sutsuek, hirigintza, eraikuntza sustatzea baino konplexuagoa zela adierazten baitute. Udalek hirigintzaren gaiarekiko hartu ohi zituzten jarrerak aldatu nahian, zinegotzi talde horrek, udala hirigintza politikaren egiazko zuzendari egitea izan zuen helburu eta horretarako, lurzoruak udalekoak bihurtzearen alde egin zuten, etengabe baztertzaren ziren Lurzoruaren Legeak eskainitako mekanismoetan oinarritutako hirigintzaren kudeaketarako moduak saiatu zituzten, legedia betetzen ez zuten eraikuntza baimenak bertan behera utzi zituzten eta eraikuntza enpresekin harremanak zituzten zinegotziak eraikuntza baimen, sustapen eta hirigintza udal batzordeetan parte hartzea saihesten saiatu ziren<sup>470</sup>.

### 3.3.2 Langile auzoak: esparru berriak, errealitate sozial berriak, arazo berriak

Iruñeko auzoak 60. Hamarkadaren bitartean bizi zuten euren hazkunderik ikusgarriena. Urte hauetan, hiriko zonalderik dinamikoenak izan ziren, bai euren hazkunde espazialarengatik eta baita euren populazioaren bilakaerarengatik ere<sup>471</sup>. Auzoen hazkunde honek, egiazki, eraldaketa oso sakonak abiatu zituen Iruñea zaharrean: hiri esparruaren antolaketa aldatu zen eta honek berekin, egunerokotasunaren alorrean edota bizitza sozialaren alorrean, ageriko berrikuntzak ekarri zituen. Ollarrak adibidez, 60. hamarkadaren hasieran, nostalgia eta kezka kutsu batekin, auzo bizitza Gaztelu Enparantza hiriko bizitza sozialaren erdigune gisara ordezkatzaren ari zela adierazten zuten Diario de Navarra: *“Iruñean, lehenbizikoz, auzo bizitza egiten da eta egun badaude iruinsemeak Gaztelu Enparantza kasik zapaldu ere egiten ez dutenak eta hiriko bizitzaren erdigunetzat jotzen ez dutenak”*<sup>472</sup>. Aldaketa sotil honek auzoak berezko entitateak eskuratzen ari zirela eta berauetan jada errealitate hiritar zein sozial berriak osatzen ari zirela adierazten du nolabait.

Auzo errealitate berri hauen sorrera, industrializazio prozesuaren, kontzentrazio hiritarren eta hiriek pairatu zuten presio demografiko ikaragarriaren ondorio izan zen. Izan ere, emigrazioak eragindako populazio hazkunderaren aurrean eta etxebizitzaren arazoaren aurrean, populazio gune berriak eratzea ezinbestekoa izan zen, berauetan aipatu errealitateak itxuratu zirelarik. Gune hauek, hiriko beste esparruetatik argiki bereizten ziren, ezaugarri fisiko zein sozial bereizgarriak azaltzen baitzituzten.

---

<sup>469</sup> Izan ere, eraikuntza enpresekin loturak zituzten eta hirigintzaren alorrean funtsezkoak ziren udal batzordetan (eraikuntza baimen, sustapen eta hirigintza batzordeak) parte hartzen zuten zinegotziak, udalean ekimen pribatu horren interesen ordezkari gisari jarduten zuten nolabait. Zuriñe Sainz Pascual eta Nerea Perez Ibarrola, “Transformación urbanística y...” Op. Cit., 149-150 orr.

<sup>470</sup> Ikusi Zuriñe Sainz Pascual, “El despertar de...” Op. Cit. Bertan, orduan eztabaidagai izan ziren hirigintza proiektu garrantzitsuenen azterketa sakona egiten da, talde “sozial” honen hirigintza politikaren honen ezaugarri nagusiak ikusarazteko.

<sup>471</sup> Hirien baitan eman ziren mugimendu demografikoek adierazten dutenez, Alde Zaharrak eta Zabalgunek pisu demografia galdu zuten harresiaz bestaldeko zonaldeen aurrean. Honela, 1975an, Iruñeko populazioaren ia hiru laurden periferiako auzoetan bizi zen, Txantrea eta Arrosadia 1945-1975 bitartean demografikoki gehien hazi egin ziren auzoak izan zirelarik. Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 267-268 orr.

<sup>472</sup> “Desde el gallo de San Cernin: Decadencia en la Plaza del Castillo”, DN 1962-02-21, 12 orr.



Ezaugarri fisiko bereizgarriak, hirigintzaren itxuraren, etxebizitzaren kalitate kaxkarrean, hornikuntza sozialen gabezia eta bizi kalitatearen prekariedade orokorrean egin ziren ikusgarri. Ezaugarri sozial bereizgarriak, jaso zuten populazioaren gizarte mailan egin ziren ikusgarriak, orokorrean langileak eta estatus apaleko jendea bildu baitzuten. Zentzu honetan, hiri inguruko auzoek langile klasearen bereizketa geografikoa ekarri zutela eta klase irizpideen arabera definitzen ziren errealitate homogeenak osatu zituztela esan daiteke<sup>473</sup>. Iruñeko zenbait auzo, Arrotxapea, Txantrea, Sanduzelai, Etxabakoitz edota Arrosadia, esaterako, honen adibideak dira.

Hiri handienetan, Bilbo, Madril edota Bartzelona kasu, halako langile auzoez beste, zonalde are degradatuagoak sortu ziren ere. Berauetan ghettoen moduko komunitateak osatu ziren. Hauek, bizi-gogokitasun okerreneko guneetara baztertuta izaterakoan (bizilagunek legeriatik kanpo eraikitzen zituzten euren bizitzak, mendi magaletan edota ibai bazterretan) eta euren baitan hirietako jatorri sozial baxueneko bizilagunak biltzerakoan, talde marginal bezalako identifikatze soziala beretu zuten. Gainera, komunitate hauetariko askotan, kide gehienek jatorri etniko edota eskualde jatorri bera elkarrekin zuten, nolabaiteko kontzientzia etnikoa edo eskualde kontzientzia garatu zuten maiz<sup>474</sup>. Muturrenoko kasuetan, andeatutako zonalde hauek eta baztertutako komunitate hauek, txabolismoaren fenomenoari estuki lotuta azaldu ziren.

### *Populazio homogeenak jasotzen, komunitate homogeenak sortzen*

Langile auzoetako errealitate berriak gure interesekoak dira berauetatik, nola edo hala, klase esperientziak eratorri zirelako. Hasteko, berauetan bizi zen populazioaren homogeenotasunak berak, klase izaeraz jantzi zituen hasiera batean populazio asentatze hutsak baino ez ziren hiri esparru berriak: biztanleek jatorri sozial berbera (langilea) izan ohi zuten eta ezaugarri soziologiko berberak (langile populazioei dagozkienak) erakutsi ohi zituzten. Langileek auzoetan bizi izango zituzten esperientziak, hartara, klase bereizgarriak azaltzen zituzten komunitate homogeenen parte izatearekin eta komunitate haiek esparru fisiko bati (auzoari) lotuta egotearekin izan zuten zerikusirik:

Hemen ez zen inoiz kapitalista bat bera ere bizi izan [...] esateko, ez zegoen ezta bulegoko langilerik. Bulegoko langileak hemen? Bai zera!<sup>475</sup>

[...] esaten zuten: ene, Txantreakoa! ene, Txantreakoa!. Ez da txantxa. Non bizi zara? Bombatxo hirian. Bombatxoak lan-jantziaren antzekoak diren galtzak dira, soka batekin lotzen diren galtza urdin horietarikoak [...] Non bizi zara? Txantrean. Arraioa! Txantrean bizi zinela esateak ia iraina zirudien [...] Txantreaz mintzatzen zinen eta infernura jotzen zinela esatea bezalakoa zen. [J.D.C.. Txantreako bizilaguna]

Bizitza auzoan egiten duzu, auzoa zurea delako, non bizi dira ba langileak? Txantrea norena da? Aberatsena ala? Txantrea langileena da, ezta? eta Txantrean gertatzen den oro, Txantreako jendearen kontua da, ezta? [R.U.. Burlatako bizilaguna]

<sup>473</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 63. Klase irizpideen arabera definitu ziren auzo komunitateen sorrera, autore honek frankismoaren garaiko langile mugimendua eta identitatea aztertzen dituzten lan desberdinetan jorratu izan duen gai nagusienetariko bat da: Cuan el carrer... Op. Cit. edota "La otra cara..." Op. Cit., besteak beste.

<sup>474</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 66 orr. Berak aztertzen duen Bilbo Handian, fenomeno hau Iruñean baino argiago azaltzen da. Hemen, aurreko atalean ikusi dugun emigrante portugaldarren txabola herrixka, errealitate marginal honen adibide adierazgarria da, nolabait.

<sup>475</sup> J.D.C.-ri egindako elkarrizketa (elkarrizketatuaren emaztearen hitzak). Iruñea, 2009-02-19.

Zeintzuk izan ziren Iruñeko auzoetako populazioak komunean izan zituen ezaugarri nagusienak? 60. hamarkadaren erdi aldean Diario de Navarra idazten zuen *Reporter* delakoak, auzoekin osatzen ari zen “Iruñea gazteari” buruzko ikuspegi orokor bat eskainita, bertako biztanleen honako deskribapena egiten zuen: *“Iruñea gazte honen parte handi bat [auzoak] [...] lanaren usainera, hobetze ekonomikoarekiko maitasunak gidatuta, iritsi den jendeak osatzen du [...] Auzo hauetatik paseo bat emanez gero, berauetatik andaluziar eta extremaduraren hizkera edota Soriakoan eta beste hainbaten gaztelera entzungo dituzue. Auzo oso gazteak dira, umeez, senar-emazte gazteez eta emakume ugalkorrez beteta daudenak. Auzoetan gogor lan egiten da eta gutxienekoa gastatzen da, hobekuntzarekin eta independentziarekin lotzen den helburua lortzearen: etxebizitza erostea”*<sup>476</sup>. Auzoetako populazioa beraz langilea, hein handi batean emigrantea eta gaztea zen.

Gaztetasunaren ezaugarria, datu demografikoei begiratuta, erraz baieztatzen ahal da. Hirien baitako biztanleen lekualdatzeek, berekin, hiri zonalde desberdinetako egitura demografikoen eraldaketa esanguratsuak ekarri ohi dituzte, mugimendu hauen helmuga diren nukleoetan gertatzen den populazioaren gazteagotzea, hauetariko bat delarik. Dolores Lopezek eta Carolina Montorok 1945-1975 denbora tarterako aurkezten dituzten Iruñeko zonalde desberdinetako adin piramideetan, adibidez, horrela ikusten da<sup>477</sup>. Iparraldeko periferian dauden Arrotxapeak eta Txantreak eta hegoaldeko periferian dagoen Arrosadiak, populazio gazte eta dinamikoei dagozkien piramide irudiak aurkezten dituzte: oinarria oso zabala da, ugalkortasun maila altuei eta zahartzearen urritasunari esker batik bat. Auzo berrietako biztanleen artean, bi profil nagusi nabarmendu ziren populazioaren gazteagotze prozesu honen eragile bezala. Lehena, familia bizitza independente bat hasi berri zuten senar-emazte gazteena, hirigunea utzi eta etxebizitza eskaintza handiago eta merkeago baten bila auzoetara lekualdatzen zirenean, izan zen<sup>478</sup>. Bigarrena, Iruñera lan bila etortzen ziren emigrante gazte ezkongabe edo ezkonberriena izan zen.

Populazio emigrantearen presentzia nabaria, periferiako auzoterien bigarren ezaugarri adierazgarria da. Nafarroako herrietatik etorritako emigranteen kokatzeak, hirigunetik zein auzoetatik banatu ziren eta euren presentzia, agerikoagoa edo ahulagoa, hiriko zonalde guztiei berezkoa izan zitzaizen orokorrean<sup>479</sup>. Beste probintzietako emigranteen kokatzean ordea, nolabaiteko joera espazial argiago bat igarri zen. Izan ere, probintzietatik kanpo jaiotako biztanleak periferiako auzoetan kontzentratu ziren bereziki, hainbat zonalde, iparraldeko periferia kasu, andaluziar, extremadurar edota gaztelar emigranteak jasotzeko gune izateagatik bereizi

<sup>476</sup> "Notas del Reporter. Los barrios, los emigrantes, la joven Pamplona", DN 1966-02-27, 7 orr.

<sup>477</sup> Dolores López eta Carolina Montoro, "Cambios en la..." Op. Cit., 2. Grafikoa: "Pirámides de población. Pamplona por zonas, 1945 eta 1974", 270-271 orr.

<sup>478</sup> Senar-emazte gazteak eta umeak Txantreako populazioa ezaugarritzen zuen, auzoko bizilagun batek, elkarrizketatuetako baten emaztea, gogoratzen duen bezala: "[bizilagun] guztiak oso gazteak ginen eta noski, [hemen] seme-alaba asko zegoela esaten zuten [hirian], bana orduan horrela zen, gazte ezkontzen zinen eta..." J.D.C.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-19.

<sup>479</sup> Ez dugu ahaztu behar landatik hirirako emigrazio mugimenduek mende hasieratik tradizio handia zutela Nafarroan eta ondorioz, periferiako auzoen zabalkunde handiaren aurretik jada nafar emigrante asko hirigunean kokatzen zela. Aldez aurreko asentatze honen jarraitutasunak eta hauek populazio mugimendu berrietan, lehenbizikoko momentuetan, betetzen zuten sorterriko emigranteen "hartzaile" paperak, hirigunean nafar etorkinen presentzia garrantzitsua (batez ere estatuko beste probintzietako etorkinen presentziarekin alderatuta) iraunarazi zuten. Hala ere, auzo berriak eraiki ahala, nafar emigranteak ere berauetara lekualdatzen hasi ziren, hirigunean presentzia mantendu zuten arren.

zirelarik<sup>480</sup>. Txantrea eta Sanduzelai auzoak iparraldean eta Etxabakoitz auzoa hegoaldean, honen adibide argiak dira, bai euren populazioetan beste probintziatik etorritakoen pisua beste inon baino handiagoa zelako eta baita hiriak berak emigrante nukleo izateagatik bereizten zituelako ere.

Sanduzelain adibidez, 1971an JOCEk Iruñeko auzoez egindako txostenak emandako datuen arabera, probintziaz besteko populazioaren presentzia ikaragarria zen: 2.284 biztanleetatik, % 27,4a Iruñean jaiotakoa zen, %28,5a probintziatik etorritakoa zen eta populazioaren gainontzekoa, %44a inguru, beste probintzietatik (Extremadura, Gaztela) etorritakoa <sup>481</sup>. Txantrearen kasuan, andaluziar jatorriko bizilagunen presentzia agerikoak, auzoa hirigunearen begien aurrean desberdintzeko balio izan zuen nola edo hala. Txantreako lehen biztanle andaluziarrak 50. hamarkadaren hasieran iritsi ziren auzora, hura eraikitzen hasi eta gutxira. Orduetik aurrera, Andaluziatik heltzen zen populazioa hartzeko nukleo garrantzitsu bat sortu zen bertan. Adibidez, Nafarroara eraikuntzaren sektorean lan egiteko Jaengo Jimena herritik etorri zen hogeita zazpi etorkinek osatzen zuten talde bat auzoan kokatu zen, nukleo hau senide eta lagun ugari bertan ezartzeko abiapuntua izan zelarik<sup>482</sup>.

Aipatu JOCEk Iruñeko auzoei buruz egin zuen txostenean, Etxabakoitzeko populazioaren inguruko bi datu adierazgarri ageri dira ere: biztanlegoaren %56,5a bertakoa zen eta %43,5a, emigrantea eta etorkin hauen %50a baino gehiago Andaluziatik eta Extremaduratik “Etxabakoitzera esku hutsik, arropa egokiez eta etxebizitzaz gabetuta, iristen zen jendea” zen<sup>483</sup>. Haietariko bat A.H.R izan zen. Andaluziarra, 60.hamarkadaren erdian iritsi zen Iruñera eta Etxabakoitzaren izan zuen lehenbiziko kokagunea, aldez aurreko kontaktu bat, herriko lagun bat, bertan bizi zelako eta honek, haren egoera finkatu arte, berarekin gelditzeko aukera eman ziolako. Ordurako jada, auzoa emigrante nukleo garrantzitsua zen hirian (“*orduan Etxabakoitzen, guztia, emigrazioa zen*”)<sup>484</sup> eta bere populazioaren jatorria, haren ezaugarri bereizgarrienetariko batean bilakatzeko bidean zegoen.

Baina auzoetako populazioa soziologikoki bereizi egin zuen ezaugarri nagusiena, bertakoa orokorrean langile populazioa zela da. Berriz ere Dolores Lópezen eta Carolina Montororen azterketa demografikora jotzen badugu, 1945ean eta 1975ean, Iruñeko auzoak, euren biztanleriaren lanbideen arabera sailkatzen ahal zirela ikusiko dugu. 1945ean hiri esparruen espezializazio profesionala igartzen da, bi auzo mota azaleratuz: lehenbizikoan zerbitzuen sektorean aritzen den populazioa

---

<sup>480</sup> Adibidez, hirian bizi zen jaendarren %57,4a iparraldeko periferian bizi zen. Beste aldean, hegoaldeko periferian, halako espezializaziorako joera atzematen zen ere, bertan Zaragozako etorkinen %44a bizi baitzen. Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 284 orr.

<sup>481</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa. Datuak ez dira ofizialak, JOCEko militanteek jasotako datuak dira (txostenean ez da zehazten zein iturrietatik eskuratu dituzten) eta auzoko zonalde zehatz bati, eraikuntza berriko zonaldeari, dagozkio. Hala ere, datuok ezin eztabaidatuzko dinamika bat ikusarazten dutela uste dugu; hain zuzen, Sanduzelai beste probintzietatik etorritako populazio portzentaje handiena zuen hiriko zonaldeetariko bat zela.

<sup>482</sup> “Txantreanos de Jimena”, Txantrean Auzolan 18. zkia, 200; jaso, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op. Cit., 136 orr.

<sup>483</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa. Bertatiarrak gainera, kasik erabatean, emigranteak ziren, auzoko nafar populazioaren %95a, landatik etorritako etorkinek osatzen baitzuten: “gehienetan baserria berea ez zelako etorri dira; beste batzuetan, berea izanda ere, nahikoa ez zelako eta etorkizuna [herrian], sema-alabentzat, itxaropentsua ez zelako” Berriz ere, kontutan izan behar dugu txosten honetan agertzen diren datuak ofizialak ez direla.

<sup>484</sup> A.H.R-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 19-08-2014.

nagusi da (Zabalgunea); bigarrenean, industrian aritzen direnak dira nagusi, lehen sektoreak oraindik nolabaiteko pisua du eta zerbitzuen sektorea bigarren maila batean geratzen da (nukleo periferikoak, Iparraldeko periferia bereziki)<sup>485</sup>. 1975erako hiri esparru berriak sortu ziren arren eta jatorrizko nukleo hauek handitu ziren arren, auzo egituraketa honek ez zuen eraldaketa esanguratsurik nabaritu. Zabalgunean zerbitzuen sektorea alde handiz nagusitzen zen oraindik, populazioaren %81,3a hartuz; industrian, populazioaren % 14,9a baino ez zen aritzen. Iparraldeko periferian biztanleen erdia baino gehiagok industrian jarduten zuen oraindik, %58,9a eta hirugarren sektorean aritzen zen populazioaren zenbatekoak nabarmenki gora egin bazuen ere (1945ean portzentajea %27,3koa zen eta 1975an %38,4koa), bigarren sektorearekiko aldea oraindik garrantzitsua zen<sup>486</sup>. Aldaketarik adierazgarriena hegoaldeko periferiak bizi izan zuen, hemen bai, sektore industrialak pisua galdu eta zerbitzuak nagusi izatera igaro baitziren. Donibane eta Iturrama auzoek bizi izan zuten gorakada sozialaren ondorio izan zen hori, urte hauetan, berauetan, goi mailako profesionalak, erdi mailako arduradunak edota zerbitzuetako langileak kokatzen hasi baitziren <sup>487</sup>. Donibane auzoa, adibidez, estatus sozial eta profesional handiagoko eremu bezala sendotzeko prozesuan murgildu zen eta horregatik, iparraldeko periferiako auzoena baino populazio heterogeneoago bat azaldu zuen: *“Mota guztietako populazioa bizi da bertan, auzoko alde zaharrenean bizi den jatorri oso apaleko langileengandik hasita eta goi burgesiako biztanleengana iritsi arte, ertain klaseetako biztanleak nagusi dira [...] “%50a langile kualifikatuak dira, %15a kualifikaziorik gabekoak. Gainontzeko %45a bulegoko langileak, teknikariak eta zerbitzuetako langileak dira [...]. Goi klasekoa den populazioaren portzentajea kontutan hartzekoa da ere”<sup>488</sup>.*

Beraz, Iruñeko auzoetako populazioa orokorrean langilea bazen ere, hauek kokatzen ziren periferiaren baitan bi motatako zonaldeak bereiztea posiblea da: alde batetik, nabarmenki langileak ziren nukleoek osatzen zutena (iparraldean, Burlata edo Atarrabia herriak eta Txantrea, Sanduzelai edo Arrotxapea auzoak); bestetik, langile edota enplegatuak barne hartzearekin ere, hiriko ertain klase berriak kokatzen zituzten eremuak biltzen zituena (hegomendebaldean, Donibane, Iturrama). Etxabakoitz eta Arrosadia auzoak, geografikoki, bigarren zonalde honetan, hegoaldeko periferian kokatzen dira, baina euren auzo egiturak begiratuta, hauek, Donibane eta Iturramaren eredutik baino, iparraldeko periferiako auzoen eredutik gertuago zeudela ikusiko dugu, hauek, jarraian azalduko den bezala, bete-betea langile auzoak izan baitziren.

Lehen zonalde hartako populazioa, maila sozial apalekoa eta langilea izateagatik bereiztu zen. Iparraldeko periferiako auzoen kasuan, erabilitako datu demografikoek erakutsitakoa berrestea baino ez dugu. 1971ko JOCEk egindako auzoei buruzko txostena argia zen Txantreako populazioari buruz aritzerakoan eta auzoan lau mila langile, kualifikatuak eta kualifikaziorik gabekoak, bizi zirela jasotzen zuen,

<sup>485</sup> Zabalgunean populazioaren % 74,3a hirugarren sektorean aritzen zen; industrian, %23,5a. Iparraldeko periferian aldiz, populazioaren %62,8a aritzen zen industrian; hirugarren sektorean, %27,3a (gainontzeko %9,9a, lehen sektorean, bereziki baratzeazintzan, aritzen zen). Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 11. Taula: “Población ocupada por sectores. Pamplona, 1945 y 1975”, 295 orr.

<sup>486</sup> *Ibid.*

<sup>487</sup> Goi mailako profesionalak auzoko populazioaren %12,1a osatzen zuten, erdi mailako arduradunek %22,3a, eta zerbitzuen sektoreko enplegatuak %21,5a. Beraz, hiru kategoriek, elkarrekin, populazioaren %55,9a osatzen zuten, langile eta artisauek %25,3a osatzen zuten bitartean. Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 13. Taula: “Población según tipo de ocupación. Pamplona, 1945 y 1975”, 297 orr.

<sup>488</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

azkenekoak nagusi zirela zehaztuz<sup>489</sup>. Sanduzelaiko populazioari buruz are argiagoa zen eta bertako populazioa %100an langilea zela aipatzen zuen, auzoa esplizituki langilea zen nukleo bezala aurkeztuz. 1977an auzo elkarte bera zen Sanduzelaikoa populazioa erabatean langilea zela iragartzen zuena eta hainbat datu adierazgarri ematen zituen: bertan bizi zen %99a baino gehiago soldatapekoa zen, gehienak langileak ziren, bulegoko langileren bat zegoen eta profesionalak oso gutxi ziren eta langileen artean hiriko fabrika handietan lan egiten zutenak nagusi baziren ere, eraikuntzaren sektoreko langile asko zegoen<sup>490</sup>.

Hegoaldean, esan bezala, Etxabakoitz eta Arrosadia izan ziren populazio apal eta langileko guneen soslaiak azaldu zituzten auzoak. Etxabakoitzeko populazioaren jatorri sozialari buruzko datuak oso garbiak dira: biztanleen %95a behe klasekotzat jotzen ahal zen<sup>491</sup>. Arrosadiaren kasuan, populazioaren jatorri apala, bertako biztanleen bizi baldintza pobretan egiten da ikusgarri. Familia mantentzeko soldaten ez nahikotasunak eragindako zailtasunak (auzoko familiek baratzea, ukuilua edota untxitegia ezinbestekoa zuten euren mantenua bermatzeko) edota familia desberdinak etxebizitza berean bizitzera behartzen zituen etxebizitzaren arazoa (bertan familia asko berralokatuta bizi zen), ageriko fenomenoak izan ziren hemen, batez ere 40 eta 50. hamarkadetan Mochuelo zaharrea kokatu zirenen artean: *“Laugarren bideak baratzea eta ukuilua zuten hogeit etxebizitza inguru zituen, altuena hiru solairukoa eta gehienak solairu bakarrekokoak edo bi garaieratakoak; ehun ta hamar pertsona biziko ginen gutxi gora behera. Nire bideko auzoteriaren osieran, baita auzo osoarenean ere, orokorrean, herrietatik etorritako jendea nagusi zen. Mochuelo auzoa, hiriko bestelako auzoak bezala, Iruñeko pobreen zabalgunea zen. Ahaltsuenak Bigarren zabalgunean edota Argaraiko txaletetan bizi ziren”*<sup>492</sup>. Iruñeko pobre horiek, langileak ziren bereziki, Mochuelo zaharra lehenbizi eta Arrosadia auzo berria geroago, egiazki, langileez, kualifikatuez eta kualifikaziorik gabekoez, osatuta baitzeuden<sup>493</sup>. Mochueloko hirugarren bidean bizi ziren biztanleen lanbideak begiratzea baino ez dugu egin behar bertan sektore langileetako populazioa nagusi zela ikusteko: gehienak euren negozio edo tailer txikietan lan egiten zuten ofiziodun langileak, hau da, okinak, eskaiolistak, zurginak, iturginak edota errementariak, eraikuntza sektoreko langileak, hala nola Potasas edo Imenasa bezalako fabrika handi eta garrantzitsuetako langileak ziren<sup>494</sup>.

Lanbideen araberako banaketa espazial hau, populazioaren hezkuntza mailaren alorrean hiriko zonaldeek euren artean azaltzen zituzten desberdintasunekin bat dator. Biztanleen ikasketa mailari dagokionean, Zabalgunea hiriko zonalde

<sup>489</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa. Auzoaren hastapenetatik izan zen agerikoa biztanleriaren berezitasun hau. Ikusiko dugun bezala, 50. hamarkadaren hasieran, bertan eraiki ziren lehenbiziko etxeak eraikuntzaren sektoreko langileek eurentzat propio egindako etxeak izan zirenez; auzoko lehenbiziko populazio nukleoak, erabatean langileak izan ziren. 1956an Iruñeak behar zuen maisutza industrialeko zentroa hemen sortzeko egin zen proposamenak (auzoaren langile izaerak bertako gazteria langileari formakuntza irtenbide bat emateko beharra beste inon baino gehiago larrigotzen zuen), joera hau sakondu baino ez zela egin adieraziko luke.

<sup>490</sup> “San Jorge, entre la ilegalidad y la especulación”, *Teoría y práctica. La lucha de clases analizada por sus protagonistas* aldizkaria, 5. zkia, 1977, 5. zkia, 1977, 63-64 orr.

<sup>491</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>492</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “Recuerdos de mi infancia y juventud en el barrio del Mochuelo”, 120 orr.

<sup>493</sup> “Auzo hau, gehien bat, langile kualifikatuek eta kualifikatu gabeko langileek osatzen dute”. “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>494</sup> Ikusi Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “Recuerdos del tercer camino a partir de 1950”, 50-54 orr.

abantailatuena zen (ikasle kopuru handiena biltzen zuen) eta iparraldeko periferia, zonalde kaltetuena (ikasle kopuru txikiena biltzen zuen). Datuek bi zonalde hauen arteko desoreka handia azaleratzen dute alor honetan: Zabalgunean gizonezkoen %18ak eta emakumezkoen %8,5ak zituzten goi mailako ikasketak eta iparraldeko periferian, % 1,7ak eta %1,6ak, baino ez zituzten; Zabalgunean gizonezkoen %20ak eta emakumezkoen %15,8ak zituzten bigarren hezkuntzako ikasketak, iparraldeko periferian, %7,6ak eta %3,6ak<sup>495</sup>. Beraz, populazioaren hezkuntza mailaren araberako bereizketa agerikoa zen hiriko zonalde desberdinen artean. Lehenbiziko zonalde bat analfabetoen eta ikasketarik gabeko biztanleen presentzia urriak eta populazio ikasiaren pisu garrantzitsuak ezaugarritzen zuen. Biztanleriaren estatus sozio-profesionalaren maila altuenak agertzen zituzten guneeekin bat etorriz, Zabalguneak eta hegoaldeko periferiako Donibane eta Iturrama auzoek osatzen zuten. Bigarren zonalde bat ikasketarik gabeko biztanleen nagusitasunak eta erdi zein goi mailako ikasketak zituzten presentzia murrizkak ezaugarritzen zuten. Biztanleriaren estatus sozio-profesionalaren maila baxuenak agertzen zituzten auzoek osatzen zuten zonalde hau, iparraldeko periferiako Txantreak, Arrotxapeak eta Sanduzelaik eta hegoaldeko periferiako Etxabakoitzek eta Arrosadiak. Berauetan eskolatze maila oso baxua zen, “bertakoen maila kulturala”, orokorrean, “oso eskasa” zela esaten ahal zelarik<sup>496</sup>. Sanduzelain adibidez, populazioaren ia %70ak bakarrik oinarrizko hezkuntza zuen amaituta eta gainera, batxilergoa zuen biztanle baino analfabeto gehiago zegoen bertan<sup>497</sup>.

Aztertu ditugun ezaugarriak kontutan hartuta beraz, hiriko zonalde desberdinetan osatu ziten hiru biztanleria eredu bereizten ahal direla esan dezakegu. Zabalguneari zegokion populazioa zerbitzuen sektorearen aritzeagatik, estatus sozio-profesional altuko lanbideak izateagatik eta formakuntza maila garrantzitsua erakusteagatik bereizi egin zen. Prestigio sozial handieneko hiriko populazioa zen. Eredu honen aurrean, iparraldeko periferiako populazioa estatus sozio-ekonomiko apalagoko lanbideetan aritzeagatik, hau da, langile autonomoak, ofiziodun langileak eta soldatapeko industria langileak izateagatik, parte batean emigrantea izateagatik eta eskolatze maila oso baxuak azaltzeagatik bereizi zen. Zalantzarik gabe, hiriko populazio kaltetuena zen. Hauekin, populazio mota biak nahasten zituen hirugarren eredu bat osatu zen Donibane eta Iturrama auzoetan. Hauek, populazio heterogeneoagoak izan ziren, jatorrian hartu zituzten iparraldeko langile auzoetako biztanlegoen ezaugarriei, prestigio sozial handiagoko biztanlegoen ezaugarriak gehitzen joan baitzitzaizkien. Denborarekin, auzo hauetan, erdi eta goi mailako populazioa nagusitu zen.

#### *Auzoen gabeziak, komunitateen arazoak*

Langile auzoak, euren itxuran ere, ezaugarri definitu eta bereziak azaldu zituzten. Haietariko askok gauza bat izan zuen elkarrekin, arazo izaera zuela: planifikaziorik eza, hirigintzazko azpiegituren gabezia, etxebizitzaren kalitate kaxkarra, oinarrizko hornikuntzen falta edota utzikeria, langile populazioko hiri esparruei berezkoak izan

<sup>495</sup> Datuak, Dolores López eta Carolina Montoro, “Cambios en la...” Op. Cit., 7. Taula: “Nivel de estudios alcanzado de la población mayor de 14 años. Pamplona y zonas, 1975”, 289 orr.

<sup>496</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa. Txostenak gainera, egoera honek auzo hauek pairatzen zuten eskola horniduren (haurtzaindegiak, doako eskolak) eta kultura horniduren gabeziarekin zerikusirik zuela salatzen zuen.

<sup>497</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa. Sanduzelaiko hau da adibiderik adierazgarriena. Baina periferiako beste auzoek ere, halako datuak aurkezten dituzte. Hegoaldean dagoen Arrosadian esateko, soilik lehen hezkuntza zuen populazioa nagusi zen ere, erdi mailako eta goi mailako ikasketak zituen populazioaren portzentajeak minimoak ziren bitartean.

zitzaizkien ezaugarri eta problematikak izan ziren aldi berean. Ezaugarri ziren heinean, langile auzoak hiriko beste esparruetatik, desberdintzen zituzten; arazo ziren heinean, bertako populazioaren eguneroko bizitza nola edo hala baldintzatzen zuten.

Auzoen eta hirigunearen arteko desberdintasunak oso agerikoak ziren. Azken honekin alderatuta, lehenbizikoak egoera okerrago batetan aurkitzen ziren, hein handi batean harresiaz bestaldeko zonaldeei apenas kasu egiten ez zitzaielako eta auzoak behar bezala (hirigunea bezala) zaintzen ez zirelako. Horrela gertatzen zela hautematen zuten behintzat periferiako nukleoetako bizilagunek, auzoek hirigunearekiko desabantailak agertzen zituztelako kexak eta salaketak, 50. hamarkadatik aurrera errepikatuak izaten hasi zirelarik. Adibidez, egunkarian, urte haietan, bizilagunen eskutitzak jaso, argitaratu eta azaltzen zituen Diario de Navarra argitaratzen zuen *Reporter* deituriko sailaren bitartez, auzoetako biztanleek aipatu egoera hura azalertzeko, auzoek jasan beharreko utzikeria eta ezaxola salatzeke eta auzoak, hirigunea bezala, hiriaren parte zirela aldarrikatzeko aukera izan zuten. 50. hamarkadaren amaieran, Arrotxapeako bizilagun batek, haserre puntu batekin, honela salatzen zuen *Reporter* sail horretan bere auzoa bazterrera utzita zegoela:

[...] Arrotxapea ere Iruñea da, ez balio turistikorik eta ezta gune erosorik ere eskaintzen ez duenez, hiriko planoetan agertzen ez den arren. Ura belztuta duen ibai bat dago eta eltxoek maite duten zuhaizti bat [...] ez dago esertzeko jarlekurik, ez eta gau beroetan aire hozkirrian egurastearren, parke bezala erabil daitekeen esparrurik. Hiriko Industria gehienak auzoan kokatuak daude eta bertan ez dago posta bulegorik, ez dago telegraforik, ez dago telefonorik. Ez dago "Villavesaren" [hiri autobusaren] esperoan daudenak babesteko aterperik. Ez dago argizatze egokirik... Auzo gaixoa! Industria gizonak kaleak erabiltzen dituzte euren industrietarako. Tira, tira! Eman paseotxo bat auzo honetatik eta ikusiko duzu [...] gaueko zarzuela abeslarien falta izan ezik, gauza guztien falta dugula hemen<sup>498</sup>

*Reporter* sailaren arduradunak berak egiten zuen eskutitz baten honako aipamenean ere, periferiako auzoetako beste bizilagun baten antzeko kexak ikusten ahal dira:

azaltzen duzu harresiaz bestaldeko auzoak ere Iruñea direla eta hala ere, hiria izango ez balira bezala tratatzen dituztela. Zehazki Arrotxapea eta Arrosadia auzoek ari zara [...] non guztiok bezala, zergak ordaintzen dituzten bizilagunak bizi dira [...] Harresiaz bestaldeko auzoekiko adeitasunari dagokionean, udalerriak Jainkoaren grazia hobe banatu beharko lukeela adierazten duzu [...] zuek hiriburuaren edertasuna maite duzuen heinean, auzoak ere haren parte izan beharko lirakeela, eurak Iruñea direlako ere [...]<sup>499</sup>

60. hamarkadan zehar eskutitz hauek are ugariagoak egin ziren, hirigunearen eta auzoen arteko desberdintasunak, azken hauetako biztanleentzat, geroz eta jasangaitzagoak zirela erakutsiz. 1966an, Txantreako bizilagun bat, egunkariaren zuzendariari idatzitako eskutitz batean, oraindik hiriko zonaldeen arteko desberdintasunak oso nabariak zirelax eta hirigunearen eta auzoen arteko desorekak arintzeko hirian zegoen borondate eskasaz kexu zen:

[...] kontutan izan behar dugu Iruñeak gaur dituen ehun ta hogeita bost mila biztanleetatik, erdia baino gehiago langile familiak direla eta orokorrean Iruñeko auzo jendetsu desberdinetan bizi dela. Iruñea hirigunearen eta Iruñea auzoaren arteko arrazakeria moduko horrekin amaitu behar dugu, jakina denez, zoritxarrez, Iruñeako auzoak euren arazo sozial eta kulturaletan, higienezko, argizatzeke, zolatzeko arazo anitzetan, bazterrera utziak baitaude. Auzoak ez dira Iruñea ala? Nik bihotz-bihotzez hirigunean egiten den guztia txalotzen dut: etorbide garbiak, asfaltatutakoak [eta] argi zuriko foku handiak dituztenak, argizatutako kaleak, zaintzen diren plaza eta lorategiak, ongi margotutako jarlekuak, aisialdirako eta kulturarako gune egoki eta

<sup>498</sup> Arrotxapeako bizilagun batek "Reporter" delakoari bidalitako eskutitza. "El Reporter al día", DN 1958-10-30, 2 orr.

<sup>499</sup> "Notas del Reporter", DN 1959-06-19, 2 orr.

freskoak. Nik guzti hau oso ongi ikusten dut eta txalotzen dut, deitoratzen dudana auzoetan egiten ez dena da. Ez dut uste zuzena denik batzuek soberan dutenaz, beste batzuek premia izatea<sup>500</sup>

Orokorrean, auzoen egoera hau, inolako kontrolik eta planifikaziorik gabeko hirien hazkundearen, hazkunde horrek espekulataile eta eraikuntza enpresei ematen zien negoziarako aukeren eta uste izatekoaren azpitik zeuden baldintzetan eraikitzearekiko autoritateek zuten permisibitatearen ondorioa zen. Etenik gabeko eraikuntza jardura lehenesten zen, nahiz eta hau aurreikuspenik eta plangintzarik gabekoa izan. Aldez aurreko inolako egokitzapenik gabe, erabileran hiritarrekoak ez ziren lurzoruetan eraikitzen zen (ikusitako Bilbon bazirela mendi magaletan edo harrobien ondoan altxatzen auzoak eta Iruñean Sanduzelai erabilera industrialeko lurzoruetan eraikia izan zela) eta proiektuak abian jartzerakoan, ez ziren auzo berri batek eguneroko bizitzan beharrezkoak izango zituen ez hirigintzako azpiegitura egokien, ez ezta hornikuntza sozialen aurreikuspena egiten. Enpresek, eraikuntza jardura honi esker, etekin handiak izan zituzten, auzo berrietako bizilagunen ongizatearen kontura gehienetan<sup>501</sup>. Izan ere, eraikuntzarako baldintza hauek, era askotariko gabetasunak eragin zituzten langile auzoetan: alde batetik, urbanizatzeko eskasak eratorritakoak, hau da, kaleen zolatze urri edo erdipurdikoa, ur eta elektrizitate hornidura murrizta, estolderiaren osasungarritasunik eza edota bide seinaleen falta; bestetik, oinarriko zerbitzuen hornikuntza murriztetik eratorritakoak, hots, eskolen, osasun etxeen, komunikazio eta garraio zerbitzuen edota esparru publikoen (parkeak, berdeguneak) ageriko behartasunak.

Gabetasun guzti hauek, nola edo hala, langile auzoetako bizilagunen eguneroko bizitza baldintzatzen zuten arazo bihurtu ziren. Zentzu honetan, auzoetako bizilagunak hein handi batean langileak ziren heinean, arazo hauek langile klaseari berezkoak izan zitzaizkiola eta ondorioz, langileek bizi izan zuten esperientziaren parte direla esan daiteke. 60. hamarkadan zehar auzoetako biztanleek Diario de Navarra egunkariaren *Reporte* sailera bidaltzen zituzten aipatu eskutitzen azterketa egitea, oso erabilgarria da auzoetako *klase errealitate problematiko* horiek nolakoak ziren ikusteko

---

<sup>500</sup> "Cartas al director: Un SOS desde la Chantrea a los nuevos concejales", DN 1966-11-20, 24 orr.

<sup>501</sup> Iruñean adibidez, etxe multzo hauetako batean ("Casas Ibañez. 'Pedimos que nos devuelvan el dinero'. 'Estas casas puede durar dos minutos, dos días o 40 años'" DN 1969-10-16, 28 orr) bizi zen hainbat familia, euren etxebizitzak utzi behar izan zituzten ez zirelako berauetan bizitzera ausartzen ("Ante el temporal de nieve y por miedo al hundimiento, unos cincuenta vecinos de las casas de Ibañez abandonaron ayer sus viviendas", DN 1969-11-27, 20 orr). Eraikuntza enpresak bere aldetik, ez zuen aferan zuen erantzukizuna aintzat hartu eta familien arazoari konponbide bat emateko borondate falta argia azaldu zuen. "Ibañez Etxeen afera" azaleratzen duen errealitatea, parabola batekin azaltzen ahal da: "[...] ehun bat familia buruk [...] euren etxebizitzak erosi nahi izan zituzten. Horretarako dirurik ez zuten, denbora luzez lan egin zuten hauek erosi ahal izateko eta azkenean, hirurehun txanponegatik erosi zituzten eta euren familiekin alai eta pozik joan ziren berauetara bizitzera, ordainketa egin ostean. Bi urte igaro ziren eta hormak pitzatzen hasi ziren, sabaiak sabeldu ziren eta eraikinaren sotoa zutoinez eutsi behar izan zen. Ehun familia buruak, haserre, etxegilearengana joan ziren eta esan zioten: "gure etxebizitza bakoitzarengatik hirurehun txanpon eman dizkizugu, nolatan pitzatzen dira hormak? nolatan sabeltzen dira sabaiak? nolatan eutsi behar dira sotoak zutoinez?" Etxegileak ez zekien zer erantzun [...] Familia buruak ez ziren gogoaserik gelditu [...] eta etxegileari txanponak itzultzeko eskatu zioten; honek ezetz esan zien. Orduan etxegilea auzitara eramatea erabaki zuten [...] Baina bitartean hirian elurra egin zuen eta teilatuak estali zituen. Etxeetako biztanleak, lurreratze arriskuak izututa, korrika eta presaka alde egin zuten, senideen etxean edota aldirietan zegoen etxezar batean babesa hartuz [...] Egunak, gauak, asteak eta hilabeteak igarotzen ziren, legediak ez zuten epaileen gogoeta aurreratzeko indarrik eta exodoak ez zuten amaierarik". "Parábola sobre Pamplona", DN 30-1-1970 p.9.



eta bizilagunek nola hauteman eta bizitzen zituzten azaleratzeko. Urte haietan eskutitzak, salaketak, kexak eta protestak biderkatu egin ziren eta arazoak, askotarikotu. Auzoetako barne errealitatea gainera, oso presente egon zen, garai hartan, egunkarietako orrialdeen baitan, arazo hauen eta bizilagunen egoeraren inguruko erreportajeak maiz argitaratu baitziren. Iturri desberdin hauek azaleratzen dituzten problematikak, hiru alor nagusitan sailkatzen ahal dira: hirigintza baldintzetatik eratorritako arazoak, garraio zerbitzu publikoaren urritasunak eta hornidura sozialen gabezia.

Aipatu lez, hirigintzaren planifikaziorik ezak eta eraikuntza jarduera etengabeak, auzo anarkikoak eta inolako ordenarik gabekoak sortu zituzten, gutxieneko biziegokitasun baldintzak betetzen ez zituzten ingurumenetan askotan. Etxabakoitz auzoa ibai batek, errepide nagusi batek eta trenbideak zeharkatuta eraiki zen, bazterbideen, espaloien eta bestelako oinarrizko hirigintza azpiegituren faltan, auzoan bizitzea benetan esperientzia arriskutsua gertatzen zelarik. Auzoko eguneroko bizitzaren parte izan zen, adibidez, euriarekin gertatzen ziren ibaiaren ur goraldiek kaleak urperatzea edota umeek, eskolara joateko, bazterbide eta oinbiderik gabeko errepide nagusi eta zabal bat gurutzatu behar izatea<sup>502</sup>. Arrosadiaren kasuan, haren itxurak berak, bizilagunentzat oso deserosoa zen hirigintza kaos bat begi bistan uzten zuen: *“Guztiok badakigu Arrosadia auzoa anarkian hazi egin dela zeharo. Auzoa, haren plano labirintikoa, [...] aldizkarietan ikusi ohi diren hirigintza eskemen antitesia da: malda handiko kaleak, etxadi ñimiñoak, eraikinen arteko altuera desberdintasunak, etxalde zaharren hondakinak, kaleitsuak”*<sup>503</sup>. Sanduzelai auzoarena, beste adibide adierazgarria izan zen, industria erabilerarako lurzoru bezala definitutako zonalde batean eraiki zenez, etxebizitzak fabrikaz inguratuta altxatu baitziren, haietariko asko arriskutsuak gainera (Penibérica eta Campsa bezalako industria kimikoak kasu).

Hirigintza baldintzen alorrean, kaleen zolatzearen egoera penagarriaren inguruko kexak etengabean errepikatu ziren. Espaloien gabeziak, asfaltatze deitogarriek eta errepideetako zuloek, bizilagunei kalte handia egiten zieten, adibidez euria eta elurra egiten zuenean, kaleak urez eta lokatzez betetzen zirelako eta honek, auzoak, benetako lupetzetan bihurtzen zituelako. Kaltetuenetariko bat Arrotxapea auzoa zen, non etxebizitzaren eraikuntza etengabeari, ez zitzaion behar bezalako kaleen zolatzeara egokitzen<sup>504</sup>. Kaleak urez betetzen ziren eta etxebizitzetako ateak lokatzez. Umore handiz baina samintasun ukitu batekin ere, auzoko bizilagun batek, kaleak Veneziaarekin alderatuz, egoera hura salatzen zuen:

Venezia ezagutzen duk? Urruti dagoela? Bere xarma gertutik ikusteko dirutza galanta xahutu beharra dagoela? ba... ez jauna. 1,30 pezetarengatik eskura duk. Hartzak Iparraldeko geltokirako hiri autobusa, tabernaren aurreko geltokian jaitsi eta... listo. Hire begiekin ikusiko duk Sanduzelai etorbidearen eta honen zeharkaleen xarma, guzti-guztiak kanal bihurtuta, gondolak soilik faltan. Penagarria da kale hauen egoera ikustea, guztiak zuloz beterik; euria egiten duenean, hauek urez betetzen dira, oinezkoen igarotze ezinezkoa eginez [...] euria egiten duenean [auzoaren itxura] esan dudan bezalakoa da, Venezia Iruñeako harresiaz bestalde, etorbidea urez betea. Ez da zilegi gu hainbat gauzetarako Iruñeko bizilagunak izatea eta beste hainbatetarako ahaztuak<sup>505</sup>

<sup>502</sup> “Mas de 150 niños y niñas tienen que andar 4 kilómetros para asistir a la escuela con peligro de sus vidas. Es urgente la realización de una carretera que una la Venta Andrés con las casas del grupo Urdanoz” DN1966-11-19, 32 orr. eta “Dos millones y medio para Echavacoiz. Urbanización, alumbrado y fin a las inundaciones en las casas de Urdanoz”, DN 1968-01-24, 16 orr.

<sup>503</sup> “Notas del Reporter. Zonas para urbanizar”, DN 1969-02-04, 7 orr.

<sup>504</sup> La Rochapea: agua, barro y anarquía”, DN 1966-11-19, 28 orr.

<sup>505</sup> “Notas del Reporter”, DN 1963-07-04, 2 orr.

Berdin gertatzen zen Arrosadian. Zonaldea hiritu berria zen arren, kaleen egoera errukarria zen. Berauetan, zuloek, zolatzeak baino hedapen handiagoa zuten eta horregatik, euriak hasten zirenean, apirilera arte edo maiatzera arte irauten zuen benetako lokaztegi bihurtzen ziren<sup>506</sup>:

Arrosadia auzoko bizilagunak bazterrera utziak izaten gara eta honengatik, gurekin ura eta lokatza eramaten hasiak gara. Ez da posible ezin ibiliko bide hauek, behin-behinean bada ere, modu batean edo bestean, konpontzea? Auzo honetan bizi garenok, ez al dugu hirigunera zapata garbiekin sartzeko eskubiderik? Beti eraman beharko al dugu pakete bat soinean zikinak bigarren zapata pare batekin ordezkatzeko?<sup>507</sup>

Txantrean adibidez, behin ta berriz salatu ziren hirigintza arazoak, urarekin baino, errepideen egoerarekin eta berauetan biderkatzen ziren bideko zuloekin izan zuten zerikusirik. Auzoa 1950ean hasi zen eraikitzen eta 60. hamarkadaren erdialderako jada, mantentze zerbitzuren ardura zuten autoritateen utzikeriak eta axolagabekeriak, kaleak erabatean hondatuak zituen: *“Ez dago zulorik gabeko kalerik. Halakoa da Txantreako kaleen eslogana [...] 69 kaleak zuloek zipriztinduta daude [...] errepidearen gainazala ilargiarenaren modukoa da, muinoengatik, zuloengatik, sakonuneengatik, harriengatik. Aspaldi arrazoi estetikoengatik eskatu zen kaleak konpontzea [baina egun] zuloak bizirik daude oraindik. Orain behar hutsarengatik eskatzen da zuloak estaltzea”*. Biztanleen kezak jarraituak izan ziren, arazolari konponbide ematen ez zitzaiolaren seinale. Salaketak, behintzat, aldarte onean egiten ziren: *“Zuloei oroitari bat egin behar diegu. Gure begirune osoa dute, maite ez ditugun arren, elkarrekin bizi garelako”*<sup>508</sup>.

Hirigintza baldintza txarretatik eratorrita, bestelako zenbait arazo eta kalte eragin zitzaizkien auzoetako bizilagunei. Izenik edo zenbakikuntzarik gabeko kaleetatik hasita (esate baterako, Arrotxapeako Marcelo Celayeta etorbidean kokatzen ziren Oscoz etxeek, gutxienez zortzi urte eman zituzten zenbakikuntza argi eta zuzenik gabe<sup>509</sup>), elektrizitate eta ur hornidura eskasetara iritsi arte, gabetasunik txikienak ere erabatean baldintzatzen zuen langile auzoetako biztanleen eguneroko bizitza. Argiztapen arazoez zonaldeok ilunpetan uzten zituzten eta eguzki argirik gabeko orduetan, berauetan babesgabetasun eta beldur giroa sortzen zen, bizilagunek linternak edo kandelak eraman behar izaten zutelarik. Ur horniduraren urritasunak bere aldetik, familien egunerokotasuna lardaskatu egiten zuen, urik gabe, higieneko oinarri minimoak ere mantendu ezin zirelako: ezin zuten komuna erabili, bazkaldu aurretik ezin zituzten eskuak garbitu, ezin zuten arropa garbitu, ezin zuten harrikoa egin:

Orain gertatzen bada, zer ez da gertatuko abuztuan? Hau da Arrotxapea auzoko Joaquin Beunza kaleko Oscoz etxebizitzetako solairu altuenetako bizilagun guztion kezka. Bi hilabete

<sup>506</sup> "Varias calles de la Milagrosa tienen mayor extensión de baches que de pavimentos", DN 1966-11-19, 29 orr.

<sup>507</sup> "Notas del Reporter", DN 1965-11-18, 7 orr.

<sup>508</sup> "Quien desbachee la Chantrea buen desbacheador será", DN 1965-04-30, 22 orr.

<sup>509</sup> "Numerar las calles también es hacer turismo. Hay grupo sin numeración desde hace ocho años", DN 1965-04-04, 16 orr. Bizilagunak ere arazo honetaz kezu ziren: "Hiriko bide nagusi honen zenbakikuntza ofizialaz ari[tuko] naiz; ez bakarrik nire izenean, hemen bizi garen bizilagunen izenean baizik. Horrenbeste eragozpen eta kalte eragiten digun arazo honi konponbidea emateko prozedurak daudela uste dugu, nahiz eta hauek behin-behinekoak izan. Kale honen zenbakikuntza, egiazki, inork ulertzen ez duen anarkia bat da: Medikuek ez du pisua aurkitzen, postariak gutunak [...] itzultzen ditu hartzaileak aurkitzen ez dituelako, diru biltzaileak ez ditu banku-letrak kobratzen interesduna topatu ezin duelako [...]". "Notas del Reporter", DN 1964-08-09, 7 orr. Ildo berean, Arrosadia auzoan arazoak izan zituzten kaleen izenekin; izan ere, lehenbiziko bizilagunak "Fuerte Príncipe" kolonian bizitzen hasi zirenean, kaleek ez zuten izenik: "Deficientes servicios en la colonia de vecinos 'Fuerte Príncipe': Poca luz y mucho barro. Urgente necesidad de un pavimento", DN 1963-02-07, 10 orr.

daramatzagu eguneko hainbat ordutan urik ez dugula. Urik gabe, etxeoandreek ezin dute arropa garbitu, ez eta bestelako etxe lanak egin. Gizonezkook ez dugu lanegunaren ostean dutxa bat hartzerik... eta horrelako eragozpen segida luze bat. Ez da ahoberokeria, egunero bizi behar dugun drama txikia da. Gainera, udak aurrera egin ahala larritu egiten dela ikusten dugu. Hartu al ditu inork arazo hau konpontzeko beharrezkoak diren neurriak edo, Iruñea bezalako hiri batean bizi arren, mendialdeko herrietan erabiltzen dituzten jardunbideekin moldatu beharko gara?<sup>510</sup>

Periferiako auzoek garraio zerbitzu publikoarekin izan zituzten arazoak, bereziki bi izan ziren. Lehenbizikoak, hiriko garraioen sareak zonalde desberdinak komunikatzeko zituen mugekin izan zuen zerikusirik; bigarrenak, auzoetako biztanleengan, hau da, populazio xumearengan eta langileengan, eragiten zuten txartelen prezioekin. Nahiz eta hazkunde prozesu azkar batean murgilduta egon, Iruñea berez ez zen oso hiri handia eta garraio zerbitzu publikoa, hiri autobus zerbitzura baino ez zen mugatzen. Hala ere, auzoen eta hauetan bizi zen populazioaren etengabeko hazkundeak, zerbitzuen berritzea eta hiriko zonalde berriak komunikatzeko tresna egokiez hornitzea exijitzen zuen. Alta, hiri autobus zerbitzuari behar berri hauetara egokitzea kostatu zitzaion eta zerbitzu eskasiengatiko eta komunikazio gabetasunarengatiko kexak etengabeak izan ziren. Auzoak lantokiekin lotuko zituzten ibilbide berrien ezartzea, zerbitzuen maiztasuna handiagotzea eta hainbat puntutan, puntako orduetan (lanerako sarrera eta irteera orduetan) zerbitzuak ibilgailu gehiagorekin indartzea eskatzen zen behin ta berriz:

Arrosadiako bizilagunen izenean [...] villavesaren zerbitzua [hiriko autobusen zerbitzua] [auzotik] ordu erdiro igarotzea eskatzen dugu. Egun dugun zerbitzua duela hiru urtekoaren berbera da, auto bat orduoro, eta gaur [zerbitzu hori] ez da nahikoa, argi eta garbi. Hirigunerako bidaiei dagokionaz beste, Renfe geltokiarekin konbinatu ezinean gaude, [bertara joateko] taxi bat hartu behar dugularik (eta horrek berekin gure poltsikoen murrizketa dakar). Auzoa hazi egiten da eta bizilagun gehienak maila apalekoak gara, beraz, honek sorrarazten dizkigun kalteak saihestearren, gure eskaera kontutan hartua izatea eskatzen dugu<sup>511</sup>

Badakigu espainiar izaera dinamikoa, ekintzailea eta ausarta dela. Baieztatu nahi izanez gero, Txantreako autobus geltokira puntako orduan joatea baino ez dago. Zerbitzua arrunta da, baina erabili behar duen jende kopurua, ikaragarria; gainera, erabiltzaileetarako askok ez du apenas denborarik bere zereginetara itzultzeko. Ondorioz: atea ixterakoan guztiak sartu nahi dira eta hori ezinezkoa denez, hantxe ikusiko dira bultzadak, batzuk atetik zintzilikatzen direla eta besteak autobusa martxan dagoela barrura salto egiten dutela<sup>512</sup>

Txartelen prezioari dagokionean, eztabaida nagusia, “txartel murriztuen” inguruan piztu zen. Hainbat zerbitzu lerrotan, bereziki langile auzoetatik igarotzen zirenetan, goizeko bederlatziak baino lehen lau bidaietarako prezio murriztuko abonamendu bat eskuratzeko aukera zegoen. Langileei mesede egin nahi zien neurria zen, haietarako askok egunean gutxienez lau bidaiak egin behar baitzuten bizitokiaren eta lantokiaren artean. Hasiera batean eztabaida hura, txartel murriztua eskuratzeko aukera, beharrezkoa zuten lerro eta auzo guztietara iristen ez zenean sortu zen (Arrosadia auzoaren kasua izan zen 60. hamarkadaren hasieran<sup>513</sup>); gero, halako txartelak edota onurak bertan behera utzi eta praktikan prezioen igoera bat gertatu zenean, biziagotu egin zelarik. 60. hamarkadan zehar Iruñean bizi izan zen hiri garraioei buruzko polemikarik handiena, azken gai honek leherrarazi zuen. 1967ko abuztuan, garraio zerbitzuen ardura zuen “La Villavesa” enpresak, hiriarteko zerbitzu lerroetan txartel murriztuak kentzen zituela iragarri zuen. Hiri barneko lerroetan, enpresak, udalaren onspena behar zuen neurria ezartzeko, udala baitzen hiri garraio zerbitzuaren

<sup>510</sup> “Notas del Reporter”, DN 1963-06-25, 5 orr.

<sup>511</sup> “El Reporter al día”, DN 1961-12-03, 4 orr.

<sup>512</sup> “Notas del Reporter”, DN 1965-12-15, 7 orr.

<sup>513</sup> “Notas del Reporter”, DN 1962-08-15, 4 orr.

alorrean eskumenak zituen instituzioa eta udalak neurria ezartzeko baimenik eman ez zionez, bertan ez ziren txartel murriztuak indargabetu. Hiriarteko lerroei zagokienean ordea, eskumenak Probintziako Garraio Batzordeak zituen eta honek bai, abuztuan, txartel murriztuak indargabetzea adostu zuen, enpresaren argudioak ontzat emanaz. Izan ere, batzordeak, enpresak arrazoitutako hiriarteko lerroen errentagarritasun falta aintzat hartuta eta ordurako, bizitza mailaren hobetzearen ondorioz, txartel murriztua indarrean egoteko arrazoi lehena -langileen behartasun ekonomikoa- desagertu zela gogoan izanda, hartu zuen erabakia<sup>514</sup>. Atarrabiako bizilagun batek, “Prezioen igoera” hark egunean gutxienez lau bidaia egin behar zutenen poltsikoetan eragingo zuen kaltea salatzen Diario de Navarra bidali zuen eskutitza ikusita ordea, garraio batzordeak maneiatzen zituen bizitza mailari buruzko datuak, langile familien errealitatearekin bat ez zetozela zirudien. Nafarroako Langileen Kontseiluak batzordearen akordioaren aurkako helegitea aurkeztu zuen, baina hau ebatzi bitartean, enpresaren neurria ezarri zen, Burlata, Atarrabia eta Huarte murriztutako txartelik gabe utziz. Ordutik aurrera, Iruñerriko herri hauetako biztanleak hiri garraioarengatik “gehiago ordaintzen” hasi ziren, nahiz eta haietariko asko Iruñeko fabriketan lan egiten zuelako, hiri autobusen erabiltzaileen kopurua berauetan, auzoetakoaren oso parekoa izan.

Hiriarteko lerroen eta hauen txartel murriztuaren kontu honek gainera, hiriko autobus zerbitzuen arloan Etxabakoitz auzoak pairatzen zuen bestelako arazo bat azaleratu zuen. Izan ere, Etxabakoitz udal barrutiaren baitan egon arren, hiriarteko lerro bat arduratzen zen bertarako garraio zerbitzua betetzeaz. Auzoko biztanleek honela, gainontzeko auzoetako biztanleekin alderatuta, murrizpen txikiagoko txartelak izan zituzten hasiera batean eta gero, hiriarteko lerroei eragiten zien enpresaren aipatu neurriarekin, inolako mesede edo laguntza neurririk gabe geratu ziren:

Zergatik zigortu izan da Etxabakoitz, orain arte, Iruñeko gainontzeko auzoak baino [...] gehiago ordaintzera txartelen %33ko murrizpenarekin, besteek, Atarrabia eta Huarte barne, txartelak prezio erdira murriztuta izan dituztenean? Orain arte diot hemendik aurrera, udalak onartzen badu, Atarrabia, Huarte edota Huarterekin gertatu bezala, [Etxabakoitzek] ez duelako txartel murrizturik edukiko. Zergatik Txantreak, San Pedrok, Sanduzelaik, Ospitalak, e.a. txartelak, pezeta bateko murrizpena eginda, bi pezetatan izango dituzte eta Etxabakoitzek ez du inolako murrizketarik izango eta 3 pezeta ordaindu beharko ditu? Ez dut uste, ezin dut sinetsi egungo udala hiriko auzo pobreenari %50a gehiago kobratzen jarraitzearen eta gainontzeko auzoek mantentzen duten bitartean hari txartel murriztua kentzearen bidegabekeria onartzen jarraitzeko prest dagoenik. [Honekin batera] Probintziako autoritateek, Huarte, Atarrabia eta Burlatari dagokienean, hitzartutako prezioen igoera berriz pentsatu beharko lukete, bertako erabiltzaileak egunero berregokitze [ekonomikoak] egin behar dituzten langile xumeak baitira<sup>515</sup>

Etxabakoitzek garraio zerbitzuaren salneurriekin planteatuta zuen arazoak beraz, auzorako zerbitzua, Iruñearen parte zelako eta ondorioz “*legalki eta moralki, hiriko gainontzeko auzoek duten hiri [autobus] zerbitzua, baldintza berberatan, edukitzeko eskubidea*”<sup>516</sup> zuelako, hiri autobus lerroetan sartzearekin izango zuen konponbidea. Izan ere, modu horretan, udalak eta ez Probintziako Garraio Batzordeak izango zuen Etxabakoitzerako garraioaren baldintzak arautzeko eskumena. Udalak orduan,

<sup>514</sup> “[Txartel murriztuak] egun, bizitza mailaren igoera dela eta, jada ez dira beharrezkoak [...] bere momentuan, txartel murriztuak estatus jakin bati erantzuna eman zioten, baina gaur, hauen erabiltzaileen egoera ekonomikoa hobetu egin da; beraz, ezin da esan txartelaren desagerpenak hauei kalte ekonomikoak eragiten dizkienik”. “Cartas al director. El gerente de la ‘Villavesa’ explica su postura” (Garraio Batzordearen akordioaren testuaren erreproduktzioa), DN 1967-08-17, 16 orr.

<sup>515</sup> “Cartas al director. ¿Falta de rentabilidad de la Villavesa en la causa de la suspensión del billete reducido?”, DN 1967-08-15, 24 orr.

<sup>516</sup> “Cartas al director”, DN 1967-08-19, 16 orr.

arazoari konponbide bat eman nahian, hiri autobusen zerbitzuei zegokienean ere Etxabakoitz Iruñea zela hitzartu zuen. Kasu honetan, enpresa izan zen udalaren erabakiaren aurkako helegitea aurkeztu zuena eta oraingoan bai, hau ebatsi bitartean, udalaren akordioa bertan behera utzi zen, Etxabakoitzeko bizilagunek hiri garraioa garestiago ordaintzen jarraitu behar izan zutelarik. Egoera honen aurrean, auzoko bizilagunek gogotsuki egin zuten protesta, euren nahigabea modu desberdinetan erakutsiz. Boikot ekintza batekin hasi ziren, arratsalde oso batean hirigunera joateko autobusak erabiltzeari uko eginez. 1967ko azaroaren 12an izan zen, igandea. Auzokideak ez ziren autobusetara sartu eta arratsalde osoan zehar, hirigunera oinez abiatzen ziren pertsona taldeak ikusi ahal izan ziren Etxabakoitzetik hirirako bidean, ibilgailuak ia hutsik joaten ziren bitartean. Protesta haren funtsa, txartel murriztuaren indargabetzea bidegabekeria zela salatzea izan zen, garraioen garestitzea, hiriko zonalde pobreenetako bat Etxabakoitz bezalako auzo batean, langile familien ekonomiei kalte larria eragiten zielako<sup>517</sup>. Gerora, euren arazoa hiriko eta probintziako autoritateen aurrean ikusgarri egiteko asmoarekin, auzoko zazpiehun familia buru baino gehiagok, alkateari eta Diputazioko lehendakariordeari zuzendutako idatzi bat egin zuen egoera zein zen azalduz. Prentsara ere bidali zen, hiri osoak jakin zezan zelakoa zen Etxabakoitzeko biztanleek pairatzen zuten bidegabekeria. Esanguratsua izan zen oso Nafarroako Langileen Kontseiluko lehendakaria zen Tomás Caballerok, bizilagunei, beste eskutitz batean eman zien erantzuna, eurekin borrokan bat egiteaz beste, auzokideek bizi zuten egoera benetan ezin azalduzkoa zela erakusten zuelako<sup>518</sup>. Txartel murriztuaren indargabetzearen kontra Langileen Kontseiluak berak sustatutako helegitearen ondoren, ebazpena iritsi bitartean, txartelak murriztuak kentzen zituen neurria indargabetu ez zen bitartean; udalak Etxabakoitz hiri autobus zerbitzuan sartzan zuten akordioaren aurka “La Villavesa” enpresak aurkeztutako helegitea ebatzi bitartean, erabaki hura bai indargabetu zen. Are gehiago, *“indargabetzen du horrek sozietate anonimo bati kalte handia egingo ziolako, baina ez du etenda uzten [...] nahiz eta txartel murriztua bertan-behera uzteko akordioa, langile familiei kalte, ez dut txikia edo handia esango, egiten dien [...]”*. Enpresaren interesei eta langileen interesei Garraio Batzordeak jarritako arreta desorekatu hura gainera, batzuek eta besteek probintziako autoritateen akordioetan eragin ahal izateko zuten aukera desberdintasunaren isla baino ez zen, izan ere *“Txartel murriztuaren indargabetzea agian, Garraiorako Batzorde Probintzialean bertan konpondu ahal izan zen; bertan, enpresa zegoen modu berberean, erabiltzaileek ordezkaturata egon izan balira”*.

Azkenean, txartel murriztuaren harira sortutako zalapartaren ostean, udalaren eta hiri autobusen zerbitzua kudeatzen zuten enpresaren arteko kontratua deuseztatu egin zen eta udalak, ardura hori, kooperatiban bihurtuko ziren enpresa hartako langileei ematea erabaki zuen 1968aren hasieran<sup>519</sup>. Etxabakoitzeko egoerari zegokionean ordea, aldaketa honek ez zuen momentuan berekin hobekuntzarik ekarri, udalaren erabakiaren aurkako enpresaren helegiteari buruzko ebazpenik ez zegoenez, oraindik 1970an, auzoa hiri garraio zerbitzuaren barne ez zegoelako eta ondorioz,

---

<sup>517</sup> "El domingo de 3 a 7 de la tarde, los vecinos de Echavacoiz hicieron boicot a la villavesa sin montarse en ella para subir al caso urbano. Razón: Precios más caros y ausencia del billete reducido", DN 14-11-67 p 24

<sup>518</sup> "Cartas y sugerencias de los lectores. Carta abierta a 700 cabezas de familia de Echavacoiz", DN 1968-2-04, 7 orr.

<sup>519</sup> Hiri garraio zerbitzuen kudeaketa kooperatiba hari emango zitzaioela 1968ko otsailen iragarri zen: "Transporte urbano de viajeros. Los empleados tienen ahora la palabra para formar la cooperativa, tras la rescisión del contrato", DN 1968-02-15, 20 orr. Kooperatibaren zerbitzuak pixka bat beranduago jarriko ziren martxan, 1969ko abuztuaren: "Mañana entra en servicio la cooperativa de empleados para los transportes urbanos públicos", DN 1969-08-12, 24 orr.

txartel murrizturik gabe jarraitzen zuelako<sup>520</sup>. Urte hartako urrian, kooperatibak Etxabakoitzeko zerbitzua hiri autobus lerroekin betetzen hasi zenean, bizilagunek txartel murrizpenarekin gainera. “La Villavesa” enpresak, antzinako hiriarteko lerroa mantendu zuen, baina kooperatiben hiri autobusetan bidaia berbera erdiko prezioan egiten ahal zela kontutan hartuta, lehenbizikoak bere erabiltzaileak eta bidaiariak galdu egin zituen bigarrenaren mesedetan<sup>521</sup>.

Auzoen kexak eragin zituen bestelako udal zerbitzu bat, zabor bilketarena eta garbiketarena izan zen, hiriaren hazkunderekin batera, ez baitzen udalaren garbiketa zerbitzuari emandako baliabideen hazkundera gertatu. Hau da, auzo berriak handitzen ziren heinean hiriak garbiketa zerbitzuaz zuen beharra biderkatzen zen bitartean, zerbitzu hartako enplegatuen kopurua, ez zen langile bat beran ere hazten. Baliabideen eskasia ostera, hiriko hainbat zonalde jakinetan egin zen agerikoagoa, langile auzoak zabor bilketa zerbitzuaren gabetasunik larrienak pairatu behar izan zituztenak izan zirelarik<sup>522</sup>. Esate baterako, auzo hauetariko zenbaitetatik ibilgailuak soilik astean behin igarotzen ziren eta ondorioz berauetan, Arrosadia auzoko Guelbenzu kaleak azaltzen zuen halako paisaiaren antzeko irudiak sortzen ziren:

Zikinkeria eta kraka lasai baino lasaiago dago Iruñea modernoan [...] kraterren tamainako zuloak, zakarra eta lokatza, lan hondakinak [...] kaleak zabortege publikoetan bilakatuta, garbiketa zerbitzuen arrastorik gabe; eskerrak merezimendu handiko trapuketari eta txatar-biltzaileek gutxienez, euren industriaren lehengaien aztarnategi aberats hau aurkitu zutela eta noizean behin leku bazter hauetatik bilketak egiteko birak egiten dituztela. Hiritar ekintzaile hauek lan handia egiten duten arren, zaborreria geriza lodiak metro ta zerbait gehiagora iristen diren estratuetan pilatzen dira<sup>523</sup>

Horregatik bizilagunen protesta gehienek, auzoetan zabor bilketa eta garbiketa zerbitzua maizkoagoa izatea eskatzea zuten helburu, auzo hauek, zabarkeria itxura agertuz eta osasungarritasun arazo kezkarrien zantzuak azalduz, uste izatekoaren oso azpitik baitzeuden estetikari higieneari eta zegokionean<sup>524</sup>.

Guzti honekin batera, langile auzoek, oinarrizko hornidura sozialen gabezia larria pairatu zuten ere. Berauetan, hezkuntza eta osasun zerbitzuen, baliabide sozial zein kulturalen edota kirol instalazioen eskasia horren agerikoa zen, hutsune hori Caritasek sustatutako kontsultategi edota zentro sozialekin bete behar izaten zela. Arrotxapean adibidez, oinarrizko laguntza medikoa ematen zuen eta gizarte asistentziako jarduerak antolatzen zituen halako doako kontsultategia zegoen<sup>525</sup>. Donibane auzoan, Eguarasen etxean zonaldean (auzoko populazio apalena biltzen zuen zonaldean, hain zuzen), gizarte zentro bat zegoen. Parrokiak sustatutakoa zen

<sup>520</sup> “Cartas al director. Echavacoiz y La Villavesa”, DN 1970-04-12, 6 orr.

<sup>521</sup> “A partir de ayer, autobuses de la cooperativa de transportes hacen el servicio Echavacoiz-Plaza de Argentina”, DN 1970-10-07, 20 orr.

<sup>522</sup> “La recogida de basuras cada vez es peor, sobre todo en algunos barrios”, DN 6-7-1967-07-06, 28 orr.

<sup>523</sup> “¡Pobre calle Guelbenzu! Mantenga limpia la ciudad”, DN 1966-04-27, 20 orr.

<sup>524</sup> Ildo honetakoak ziren, adibidez Txantreako bizilagunen kexak. “Reporterrak” jasotzen zuenez, “[Magdalena-Txantreako bizilagunek] auzoan zabor bilketa maizkoagoa izatea eskatzen dute. Auzotera asko hazi dela eta zaborra biltzen duen ibilgailua bertatik soilik astean bitan pasatzeak etxeoandreak hondakinak ahal duten tokian uztera behartzen dituela (horrek berekin dakarren higiene eta estetika arazoekin) argudiatzen dute. Orain, beroa hurbiltzen denean, ezin da hainbat hondakin, arraina kasu, etxean eduki”. “El Reporter al día”, DN 1962-04-07, 4 orr.

<sup>525</sup> “El domingo se inaugura un dispensario en la Rochapea. Se trata de una nueva obra asistencial de Cáritas”, DN 1963-07-20, 12 orr. eta “Instalaciones sanitarias en la Rochapea”, DN 1963-07-24, 6 orr.

eta errentan hartutako pisu batean, eskola, kontsultategi edota taberna zerbitzuak eskaintzen zituen<sup>526</sup>. Etxabakoitzen ere, Urdanoz etxe multzoan, laguntza medikoa eta haurtzaindegi zerbitzua ematen zituen halako kontsultategi bat zegoen, aurrekoak bezala, Caritasen eta auzoko parrokoaren ekimenez sortutakoa<sup>527</sup>. Hala eta guztiz ere, honelako inizatibek ez zuten inolaz ere auzoek erakusten zuten hornidura sozialen premia asebetetzen. Gabeziak arintzen laguntzen zuten, baina ez ziren inoiz egiazko konponbide bat izan.

1971an JOCEk egin zuen Iruñeako auzoen egoerari buruz txostenak, langile auzoetako biztanleen maila kulturala, orokorrean, oso eskasa zela jasotzen zuen. Errealitate hau azaltzen zuen faktore bezala, auzoek pairatzen zuten haurtzaindegi, zentro kultural, asistentziazko zentro eta doako eskolen behartasun larria nabarmentzen zen. Arrosadian esaterako, auzoak planteatuta zituen arazoaren artean, hezkuntza zerbitzua larrienera iristen ziren gazteak ezin zuten auzoan ikasi eta egunero hirigunera lekualdatu behar ziren); eskola publiko bakar bat baino ez zegoen, nahiz eta eskaintza apur bat zabalagoa izan bi eskola erlijioso eta hiru andereñoek sortutako eskola pribatu bat ere funtzionatzen zutelako; gainera, eskola guzti hauek, erosotasunari zegokionean (eskola bihurtutako etxabeak kasu) eta baliabide pedagogikoei zegokienean, ez zituzten behar bezalako eskola ingurumena sortzeko oinarritzko baldintza minimoak betetzen<sup>528</sup>. Etxabakoitzen, 1967an iragarri zen auzoko eskola hadiagotzeko proiektuak, auzoak zentzu honetan aspalditik premia larriak zituela agerian uzten zuen. Izan ere, eskola gainezka zegoen eta bertan auzoko ikasle guztiak hartzeko tokirik ez zegoenez, umeak hiriko beste eskoletara -Donibanera, San Frantziskora edota hiriko beste puntan zegoen Vilá eskolara- eramateko udalak autobusak antolatu behar izaten zituelarik<sup>529</sup>.

Osasun zerbitzuei dagokienean, azpiegituren eskasia are nabariagoa zen. Auzoek ez zuten berezko osasun zentrorik eta bizilagunak hirigunean kokatzen zen larrialdietarako medikuntza zentro bakarreraino lekualdatu behar ziren artatuak izateko. Txantreak 60. hamarkadaren hasieran lortu zuen bere osasun etxea. Hirian orokorrean eta auzoan zehazki agerikoa zen osasun zerbitzuen beharra ikusita, nafar sindikatuetako sail sozialek, auzoan gaixotasun aseguruaren osasun etxe bat sortzea eskatu zioten "Instituto Nacional de Previsión" delakoari<sup>530</sup>. Halaxe egin zen eta auzoan iparraldeko periferiako populazioaren beharrei erantzuteko medikuntza zentro bat jaio zen. Hamarkadaren amaierarako ordea, txiki geratu zen, hura handiagotzea eta lekualdatzea eta iparraldean beste zentzoren bat sortzea ezinbestekoa zela agerikoa egin zelarik. Azken batean, osasun zerbitzuen azpiegitura berberarekin, euren populazioa biderkatua ikusten ari ziren auzoen beharrei erantzun behar zitzaien orain eta horrek, auzoak, osasun hornikuntza egokirik gabe uzten zituen: *"Txantreatik, auzo jendetsu honen bazterretatik, Landaben industrialderaino, Arga ibaiaren eta Ezkaba mendiaren artean, milaka eta milaka pertsona bizi diren ehundaka etxe hedatzen dira. Guzti hauek San Pedro, Arrotxapea eta Sanduzelaiko bizilagunak dira. Zonalde zabal honek, larrialdi kasuetan, hiriguneko zentzora edota Txantreako zentzora*

<sup>526</sup> "Eguaras. Un centro social para una barriada de trabajadores", DN 1963-08-07, 12 orr.

<sup>527</sup> "Nuevo dispensario en el grupo Urdanoz", DN 1964-02-02, 9 orr.

<sup>528</sup> "El barrio de la Milagrosa: 16.000 habitantes y unas grandes perspectivas de desarrollo. Asistencias sociales han realizado un estudio sobre la enseñanza primaria y los problemas del crecimiento demográfico", DN 1967-02-24, 20 orr.

<sup>529</sup> "Toda la población escolar de Echavacoiz tendrá un pupitre en las escuelas del barrio. Para diciembre estarán terminadas las obras de ampliación", DN 1967-10-14, 20 orr.

<sup>530</sup> "Reporter. Un ambulatorio en el barrio de la Chantrea", DN 1963-06-02, 4 orr.

*joatea baino beste aukera medikorik ez du*<sup>531</sup>. Hegoaldeko periferiako auzoetan egoera ez zen hobea, are okerragoa zen haietariko batek ere ez zuelako berezko zentro medikorik. Arrosadiako bizilagunak adibidez, hiriguneko zentrorra joaten ziren osasun laguntza jasotzeko, medikuntza premia guztiak auzoan ez eta soilik hirian asebetetzen ahal baitzituzten. Arestian ikusitakoen antzeko Caritasen kontsultategi bat zegoen auzo honetan ere, baina honek eskaintzen zituen zerbitzuek (sendaketa arruntak, injekzioak jarri), ez zuten, inolaz ere, behar bezalako osasun hornidurarik ematen<sup>532</sup>.

Bestelako azpiegituren gabeziak, hots, gizarte zentro zein zentro kulturalen hala nola kirol instalazioen faltak, auzoetako bizilagunen egunerokotasuna baldintzatzeaz beste, komunitateen barne bizitza eta dinamika soziala baldintzatzen zuen ere. Arrotxapean adibidez, ez zegoen aisialdirako esparrurik, ez eta bizilagunak elkarrekin denbora lasai igarotzeko plazarik ere; ez zegoen ez liburutegi publikorik<sup>533</sup> eta ezta kirol instalaziorik ere. Hutsune hauek ikusita, bizilagunek berek, Arrotxapeako auzoteriaren arteko loturak indartzeko aukerarik ez zegoela eta behar bezalako harreman sozialak garatzeko esparru publikorik ez zegoela salatzen zuten, hori konpontzearen, bizilagunen elkarbizitzarako gune fisikoak behar zirela aldarrikatzeko. Auzoko bi kirol elkarteek aipatzen zuten bezala, Arrotxapeak behar zuen kiroldegia, gune hau bera izaten ahal zen. Horregatik, auzoteriaren promozio kolektiborako tresna izaten ahal zelako, elkarteok eta bizilagunek (auzoaren egoera hau salatzeko batzorde bat eta guzti izendatu zuten) kiroldegiaren instalazioa eskatu zioten udalari:

Begien bistakoa da Arrotxapeakoon oihua aho batezkoa dela eta Arrotxapea adeitasun seinaleak, mesedeak balira bezala, eskatzen jarraitzeko prest ez dagoela; [...] Arrotxapeako bizilagunak Iruñeko udal pariak gara [...] auzoak elkarbizitza eta promozio sozial egokirako ezinbestekoak diren udal tresnak edo zerbitzu sozialak faltan ditu, Arrotxapeako populazio geografikoak, giza populazioak, populazio zerga-ordaintzaileak ez al ditu hiriko bestelako nukleo edo auzoetako populazioak dituen eskubide berberak -ez gehiago eta ezta gutxiago ere-? [...] udalak badaki auzoaren asmo nagusienetarikoa bat kirol instalazioak lortzea dela, berauetan haur eta helduen, gizon eta emakumeen aisialdi osasuntsua eta promozio kulturala gauzatzeko aukera izan nahi baitugu; honekin, giza elkarbizitza ahalbidetzeko<sup>534</sup>.

Auzoetako errealitate problematiko guzti hauek (hondatutako inguruneak, bazterrera utzitako populazioak, haiekiko autoritateen axolagabetasuna) desarrollismoaren aurpegi gordinena erakutsi zuten. Bilbon adibidez, Recaldeberri auzoak erakutsi zuen hobekien aipatu aurpegi hura: 60. hamarkadaren erdialdean, industrias inguratuta ari zen hazten, hirurehun ta laurogei industria establezimendu baino gehiago, hogeita zortzi garraio agentzia eta hogeita bi hornidura biltegi handi hartzen baitzituen bere baitan; Bilbo inguruko mendi hegaletara zabaldu zen; autobidearen ibilbideak auzoa suntsitu zuen; neurririk gabeko trafikoa jasan behar zuen, baita airearen kutsadura eta kutsadura akustikoa, zolatzearen, argizatzearen eta estolderiaren gabezia, hala nola hondakindegi eta zabortegien ugaritzea. Espero izatekoa den moduan, guzti honek erabatean andeatu zituen auzoaren esparru soziala eta bizilagunen eguneroko

<sup>531</sup> "Esta en proyecto la creación de un centro médico de urgencia en la Avd. S. Jorge. Cubrirá una amplia zona", DN 1968-03-15, 20 orr.

<sup>532</sup> "Situación de Navarra" txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. Kutxa.

<sup>533</sup> Auzoko liburutegi publikoak, arrazoi ekonomikoengatik itxi behar izan zuen 60. hamarkadaren erdialdean: "La Rochapea ha perdido su biblioteca pública" DN 1964-10-17, 7 orr.

<sup>534</sup> "La Rochapea, un barrio sin instalaciones deportivas. Las sociedades Gure Txokoa y Gaztedi -dispuestas a fundirse en un renovado Rochapeano- abogan por el mejoramiento deportivo y cultural", DN 1970-08-16, 13 orr.



bizitza<sup>535</sup>. Iruñean, Etxabakoitz izan zen hondatutako ingurune geografiko eta sozialaren adibiderik argiena: hirigunearekiko kokagune geografiko erabat baztertua batean zegoen, hirigintza eredu penagarri bat aurkezten zuen auzoa ibaiak, trenbideak eta errepideak zeharkatzen zutelako, hiriko populazio apalaren, emigrantearen eta are marginalaren -txabolak- bilgunea zen, hiriko haurren hilkortasun tasa altuenaren erregistroa erakusten zuen eta are hiriko garraio zerbitzuari dagokionean, bazterrera utzita zegoen. Honekin, Sanduzelaik ere antzeko itxura erakusten zuen.

Auzoaren ingurune sozialera hurbildu eta haren arazo nagusien deskribapena egiteko, Teoría y Práctica aldizkariari emandako elkarrizketa batean, Auzo Elkarteko hainbat kidek eskainitako ikuskera eta testigantzak ditugu<sup>536</sup>. Elkarrizketa hark, Sanduzelaik bizi zuen egoera prekarioa, auzoa eraikia izan zen baldintzekin lotzean zuen abiapuntua. 1957ko Hiri Antolakuntzarako Plan Orokorrak, gerora auzoa eraikia izango zen lurzoru industrial eta landatar bezala definitzen zuen eta horregatik, sustatzaileak, udalak zonalde industrial hartan bizitegi gune baten eraikuntzarako plana onartzea lortu behar zuen. Lortu zuen eta lurzoruak, etxebizitzak izan ahal zituen industrial eremu bezala definituak izatera igaro ziren. Etxeak beraz, industrias inguratuta eraiki ziren, fabriken eta bizilagunen arteko elkarbizitza behartuz. Zonaldea, berez industrialia zelako eta bertan jada industria gune garrantzitsu bat kokatzen zelako, ez zen hiri esparrurik egokiena etxebizitzak eraikitzeke eta bertan populazio nukleo bat sortzeko, are gutxiago han ziren fabrikak kutsatzaileak eta arriskutsuak zirenean (Penibérica industria kimikoa edota Campsa erregai industria). Baina, hala ere, bertan, auzo berri bat eraikitzen hasi zen. Zergatik? Lehen etxebizitza promozioen sustatzaileak eremu honetan hainbat lurzoruren jabeak zirenez eta zonaldea bera, langile andana biltzen zuen Landabeneko Industriadetik oso gertu zegoenez (*“langile haietariko asko, euren lanpostuekiko gertutasuna dela eta, hemen etxebizitzak erosi edo errentan hartzen dituztelako”*<sup>537</sup>), bertan eraikitzea negozio ziurra eta bikaina zelako.

Probetxuzko negozio bezala ulertua, Sanduzelai, auzo elkarteko kideen arabera, eredu kapitalista hutsari jarraiki eraikia izandako auzoa izan zen, gutxieneko inbertsioarekin ahalik eta etekin gehien atera ahal izateko diseinatuta izan baitzen. Aztertu berri ditugun errealitate problematikoak, hartara, oso era argian azaleratu ziren hemen eta Recaldeberri eta Etxabakoitzen gertatu bezala, auzoak azaltzen zuen itxura, erabatean andeatutako esparru sozial batena zen: haren kokagune geografikoa eta hirigintza planifikazioa tamalgarria zen, ez bakarrik lurzoru industrialean altxatuta egoteagatik fabrikez, tailerrez eta etxabeez inguratuta zegoelako, baita ibaiaren eta trenbidearen artean estututa aurkitzen zelako eta zirkulazio handiko errepide batek bitan zatitzen zuelako ere; kutsaduraren arazoa oso agerikoa zen eta industria kimikoen jardunak eta Landabeneko industrialdearen zein zabor erraustegiaren gertutasunak, auzoa kiratsez betetzen zuten; hezkuntza azpiegiturak oso eskasak ziren, ume askok auzotik kanpoko ikastetxe pribatuetara jo behar zuen auzoko eskoletan tokirik ez zegoelako eta eskola profesional baten falta nabaria zen, Lanbide Heziketa ikasten zuten auzoko seiehun edo zazpiehun gazteak, egunero hiri autobusetan auzotik lekualdatu behar zirelako (horrek berekin zekarren gastu ekonomiko eta denbora galerarekin); eta zerbitzu medikuak eskasak ziren, auzoak ez baitzuen osasun etxe propiorik<sup>538</sup>.

<sup>535</sup> Recaldeberri auzoaz ikusi, José Antonio Perez, *Los años del...* Op. Cit., 67 orr.

<sup>536</sup> “San Jorge, entre la ilegalidad y la especulación”, *Teoría y práctica. La lucha de clases analizada por sus protagonistas* aldizkaria, 5. zkia, 1977, 5. zkia, 1977, 59-68 orr.

<sup>537</sup> *Ibid.*, 60 orr.

<sup>538</sup> *Ibid.*, 62-63 orr.

Aipatu auzoek bizi zituzten egoera atsekabegarri hauek, auzo elkarteen jaiotza bultzatu zuten nolabait, bizilagunek, auzoek pairatzen zituzten arazo larriei konponbide emateko, elkarrekin antolatu eta kolektiboki jardun behar zutelaren ulertu baitzuten. José Antonio Pérezek oso ongi adierazi duen moduan, auzoak, aldarrikapenerako esparru izaten hasi ziren heinean, protesta sozialaren agertoki berezkoenatariko eta herrikoenatariko batean bilakatu ziren 60. hamarkadatik aurrera<sup>539</sup>. Hasiera batean, bizilagunen eta bestelako indar sozialen (kirol taldeak, talde kulturalak, klubak, parrokia) ekimenez, auzo erakundeak sortu ziren, berauetatik, jendearen bizi baldintzak eta egunerokotasuna hobetzea bilatzen zuten borroka txikiak sustatzeko:

Ahal genuen guztia egiten genuen gauza etxeak, oso etxeak, aldarrikatzeko... ura aldarrikatzen genuen, etxeak ilegalki egin zituen eraikuntza enpresak urerako egin zituen... ura putzu bat baino ez zen, ez zen iturriko ura, ur ona, hau da, ez zen osasungarria; gero berokuntza sistema ere... galdarak ez zeuden baimenduak baina Burgosetik ekarri zituzten eta hemen jarri zituzten eta gero hainbat bizilagun hil ziren [haien erruz], bai, bi edo hiru emakume balkoitik bera erori ziren, haietariko bati hatzak moztu zitzaizkion, bestea hil zen. Antsoingo herrian bertan halako gauza piloa zegoen, orduan ari zen etengabe handitzen eta hiru mila edo lau mila biztanletan egongo zen. Herri zaharrak hogeitaz bizi izango zituen eta [urte gutxiaren buruan] berriak hiru edo lau mila biltzera iritsi zen. [A.A.. Antsoingo parrokoa]

Gerora, borroka txiki haiek, borroka handitan bilakatu ziren eta auzo erakunde haiek, mugimendu sozial antolatu, dinamiko eta indartsu bat bihurtu zirelarik. Auzoen errealitate problematikoetatik jaio ziren auzo elkarteak, hartara, diktaduraren amaierako mobilizazio sozialaren dinamizatzaile nagusienatariko bat izan ziren, protesta modu anitzen eta gizarte ekimen ugariaren abiarazlearen lanak eginez. Bilbon eta Iruñian Recaldeberri eta Sanduzelai auzoak izan ziren, ez halaberharrez, euren hirietan hiritar mugimendu indartsuenak antolatu izan zituzten auzo elkarteetariko batzuk:

Garai hartan Sanduzelaiko Auzo Elkartea atrakala gehien sortzen zuena zen agian, borroka entzutesuenak aurrera eramaten zituena... egia da ere auzoa trapez eginda zegoela, ezta? eta horregatik borrokaldi gogorak egon zirela; esateko lurpeko pasabidearena. Lupeko pasabide hori lortzeko... Nafarroan inoiz egin diren barrikadarik handienak egin behar izan genituen, bi metrotako barrikadak ziren, kotxeak eta guzti jartzen genituen barrikaden gainean... ingurubidean zehar jarri genituen, ingurubidearen zabalera osoan eta hor hainbat egunez eutsi egin genien, ezta? gauean txandak eta guzti egiten genituen...[...] Borrokaldi haiek... oso borrokaldi gogorak ziren. Hemen auzoan hori gogorrenatariko bat izan zen, barrikadekin eta guzti, hainbat egunetan zehar... Gero ere etxabeak botatzearena izan genuen. Etxeen artean altxatzen ziren Etxabe guztiak bota genituen [...] Sanduzelai auzoa eraikitzen denean, honela eraikitzen da: etxebizitza sail bat hemen eta hemen [...] etxabe bat, etxebizitza sailen artean, guztia etxabeak ziren. Egun plaza direnak, lehen etxabeak ziren eta guk geuk bota genituen... bota esaten dudanean ehundaka pertsonen artean pikotxekin, sokekin, erregailuekin... bota genituela esan nahi dut [A.L.. Sanduzelaiko Auzo Elkartekoi militantea]<sup>540</sup>

Zentzu honetan, auzoetan ematen ziren borrokak, fabriketan ematen ziren soldatengatiko edota lan baldintzengatiko borrokak bezain garrantzitsuak izan zirela esaten ahal da; izan ere, fabrikatik ateratzen zirenean, langileek, euren bizitokian, esplotazio esperientziak pairatzen zituzten eta hauei erantzunak ematearren, fabriketan bezala, elkartzen ziren, antolatzen ziren eta protesta egiten zuten. Bizipen eta borroka hauek beraz, klasearen eraketaren parte dira ere.

<sup>539</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 67 orr.

<sup>540</sup> Borroka guzti hauei buruz gehiago, Irantzu Urdaniz eta Germán Esparza, *La historia escondida...* Op. Cit., 62-78 orr.



#### **4.KAPITULUA:**

### **AUZOA, KOMUNITATEA ETA SOZIBILIZATEA. LANGILEEN BEREZKO ESPARRU BERRIAK**

Iruñerriko langile klasearen eraketa prozesua berrosatzeko hasi dugun bidai honetan, orain arte, prozesu haren protagonistak zeintzuk izan ziren eta zein errealitate bizi izan zuten, haiek nolakoak ziren eta euren bizitzak zelakoak izan ziren ikusi dugu. Orain, prozesuan pauso bat gehiago eman eta klasea sortua izan zen zirkuitua, pertsonaiak, esperientziak eta ideiak elkargune ezberdinetan konektatzen zituen zirkuitua, berrosatuko dugu. Izan ere, haren baitan zabaldu ziren langile identitate kolektibo berri bat definituko zuten baloreak eta jokabideak. Berrosatze honetan, gure lehenbiziko geldialdia langile auzoetan izango da. Izatez fabrika langileen sozializazioarako eta balio zein jarrera berrien sorrerako erdigune nagusia bada ere, geroz eta arreta gehiago prestatzen ari zaio langilegoaren bizi esparruari langile identitateen eraketan ezinbestekoa den berezko esparru bezala. Xavier Domènech historialariak adibidez, auzoa eta auzo komunitatea frankismoaren garaiko langilegoari buruzko bere ikerketen ardatzetariko batean bihurtu zituen<sup>541</sup>. Ildo berean, Javier Tebarrek eta bere ikerketa taldeak, CCOOetako militanteen bizi kontakizunak osatzearen ahozko iturriak erabiliz egin zuten lanean, langileen egoera fabrikan eta auzoan aztertu zuten, aktibisten formakuntza bi esparruotan, aldi berean, ematen zela ondorioztatuz<sup>542</sup>. Auzoa guretzat, langile klasearen sorrerako erdiguneetariko bat da zentzu honetan ere.

Gure azterketaren ardatza, auzo komunitateak nola sortzen ziren eta berezko identitate bat garatuta, klase terminoetan nola definitzen ziren azaltzea izango da. Horretarako Iruñeko auzo bat izango dugu erreferentziatzat, Txantrea. Langile auzoen sorrera eta klase komunitateen hastapenak era berezian gertatzen dira kasu honetan, adibide praktiko egiazki interesgarri bat emanez. Komunitateen garapena ordea, langile sozializazioaren azterketa orokor baten bidez ikusiko dugu, azken batean langile sozializazioaren esparru desberdinak (peñak, kirol elkarteak, mendi taldeak, parrokiak) izan ziren, auzoetan berezko bizitza sozial bat antolatuz eta langile eta bizilagunen zako bateraguneak sortuz, euren kanaletatik komunitate sentimendua zabaldu zutenak. Aztertutako esparruotan azkenekoa, auzo elkarteena izango da, auzokideen sozializazioarako eta komunitate identitateen sorrerarako erdigune eta komunitateen eta euren berezko izaeraren existentziaren adierazle bikaina dena aldi berean.

Auzoak eta komunitateak klasearen eraketa prozesuaren agertoki bilakatzearekin, gure helburua, aipatu zirkuituaren parte bat azalratzea, haren baitan topatuko ditugun elkarguneak azalratzea eta protagonistak berautetan elkarri lotuta kokatzea izango da.

---

<sup>541</sup> Aipatu ditugun autore honen lan guztietan, *Cuan el carrer... Op. Cit.*, “*La otra cara ...*” *Op. Cit.*, “*La formación de...*” *Op. Cit.*, eta *Cambio político y movimiento obrero... Op. Cit.*, gai honek protagonismo handia du.

<sup>542</sup> Javier Tebar, “Entre el barri i la fàbrica. Cultures de la militancia sindical a l'àrea metropolitana de Barcelona (1939-1988)”, *Revista d'etnologia de Catalunya*, 25. zkia, 2004, 136-140 orr, 140 orr.

#### 4.1. AUZOAK ETA AUZO KOMUNITATEAK

Gogoratzen dut egunero aitak Peperen tabernara afarirako “ardo litro erdia” eroatera bidaltzen gintuela. Sarrerak jaitsiera bat zuen eta gero gela batetara sartzen zinen, eskubitara ardo kupelak pilatzen ziren bertan. Gogoratzen dut han politikaz hitz egiten zela, elizari buruzko txantxak egiten ziren eta y lizunkeriak ere kontatzen zirela. Ni txikia nintzen, baina guztiaz konturatzen nintzen.

Bizitza auzoan soila zen eta elkartasuna, agerikoa, Norbait hiltzen zenean, ama deitzen zuten hila janzteko. Nire ahizpa Nelly eta beste bizilagun bat, Petra, erizainak ziren eta auzokideei indizioak doan jartzen zizkieten.

Elkartasun eta gogokidetasun handia zegoen. Adibidez, bidetik argi kontagailuak kontrolatzen zituen agertzen zenean, beti norbaitek kaletik “que viene el lucero, el lucero...” oihukatuz korrika egiten zuen, gu jakinaren gainean jarrita, argiarekin egiten genituen tranpak kentzeko. Gogoratzen dut udan, gau partean, aire hozkirrian egurasteko aulkiak kalera ateratzen zirela. Orduan ardo zahagiekin, txutxu-mutxuak kontatzen ziren eta edonorri buruz, apaizei eta Gobernadore jaunari buruz bereziki, bereak eta bi esaten ziren<sup>543</sup>.

Aipu honek, xaloki iradokitzeagatik, oso ongi islatzen du auzoko bizitza etxea hiri esparru berean elkarrekin izatea baino zerbait sakonagoa zela. Izan ere, bizitoki hutsa izateaz beste, auzoak giza komunitateak ziren, langile auzoetan klase izaera argia azaltzen zutenak gainera. Hain zuzen ere horregatik, aldi berean langile eta klase komunitateak zirelako, auzo komunitateak izango ditugu hizpide oraingoan. Interesatzen zaiguna, esparru fisiko hutsetan bizitza kolektibo eta partekatu bat nola garatzen zen eta hartatik abiatuta, auzoa bezalako guneei zehatzei lotuta, klase osagai anitz barne hartzen zituzten identitate berezi eta autonomoak nola sortzen ziren azaltzea da.

Meatzari komunitateak honen adibide argiak dira. Komunitate izaera eta haren kide izatearen sentimendu oso errotuta azaltzen dute eta horregatik, identitate autonomo haien sorrera azaltzeko eredu bikainak dira. Meatzeterietan hainbat elementuk lagundu izan ohi dute euren baitan komunitate sentimendu indartsu bat zabaltzen. Espezializazio ekonomikoarekin bat datorren langileen kontzentratzetik hasita, espazio bereizkeriatik pasata eta lanbidean jardutetik eratorritako lurrazpiko arriskueta, gaixotasunen mehatxura edota heriotza istripuetara iritsi arte, elkarrekin bizi izandako miseriek, laguntasunean oinarritutako zehatzu gabeko identitate komunak sortzen dituzte maiz meatzarien komunitate hauetan. Kontutan hartuta halako giroetan langile soziabilitatea egituratzeko erraztasun handiagoa dagoela, zehatzu gabeko identitate honetan eta haren oinarrian dagoen elkartasunean oinarritzen zen elkarte ugari jaiotzen zen meatzeterietan XX. mendearen lehen hamarkadetan: abesbatzak, langile zentroak, ateneoak edota jolas elkarteak. Hauen artean, nabarmentzekoak dira alderdi politikoen eta sindikatuen tokian-tokiko elkarteak, haiei esker komunitateek klase ideologiak naturaltasun osoz euren gain hartu eta oinarritzko identitate komun haiek klase terminoetan definitu baitzituzten<sup>544</sup>.

Langile auzoetan ere halako komunitate sentimendu indartsuak eta identitate komunak sortu ziren, nahiz eta meatzari komunitateen izaera oso berariazkoa izateagatik, bi kasuon arteko alderaketak egitea zaila izan. Baina bai meatzeterietan eta baita langile auzoetan ere, Hobsbawmek oso ongi deskribatu izan duen komunitatearen ideia aurkitzen ahal da: kolektiboa (“gu”) norbanakoaren (“ni”) gainetik

<sup>543</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “recuerdos de mi infancia y juventud en el barrio del mochuelo”, 126 orr.

<sup>544</sup> Ramón García Piñeiro “Solidaridad de base. Asociaciones primarias y plataformas unitarias de resistencia al franquismo en Asturias”, Santiago Castillo eta José María Ortiz de Orruño (koord.), *Estado, Protesta y movimientos sociales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1998, 463-476 orr., 463 orr.

jartzen zuten; langileak bereizpen sozialean, bizimoduan eta are arropan ere batzen zituen; egunerokotasuna, bizimodua, bizitza bera, publikoa eta partekatua (etxeoandreek merkatuan edo bizilagun etxarteetan egiten zuten bizitza soziala, haurren kaleko jolasak, gazteen gorteatze publikoa, bizilagunen etxean irratia entzutea, taberna batean telebista ikustea, kirolean aritzea, kirol ikuskizunetz disfrutatzea, jaiegunetarako irteerak antolatzea) egiten zuten komunitatearen ideia<sup>545</sup>. Frankismoaren garaiko langile auzoen garapena komunitatearen ideia honi lotzea paradoxazkoa izan daiteke, azken batean, Hobsbawmek berak ohartarazten zuten bezala, komunitate eredu hauek kontsumo gizartearen eta masa kulturaren eraginaren pean desagertzen ari ziren XX. mendearen bigarren erdialdeko Europan. Baina, ikusiko dugun bezala, espainiar estatuko desarrollismoaren hirietan, egiazki, langile auzo berriak komunitate ideia honen elementu asko barne hartzen zituzten errealitate eta esparru bezala itxuratu ziren.

Izan ere, hauek, lehen momentuan, masa kulturaren eraginpetik eta estatuaren ekimenetatik kanpo geratu ziren eta honek, auzoak, errealitate propio eta independente gisara, egiazko komunitate gisara, osatu zituen. Bilbo,artzelona edota Madril bezalako hiri industrial handietan prozesu hau oso agerikoa izan zen eta euren hiriguneen inguruan auzo, behe-auzo eta herri sateliteak etenik gabe hazi egin ziren. Esparru berri hauen garapena gainera hiri-erdigunearekiko inolako loturarik gabe gertatu zen kasu askotan, auzoak hiriaren errealitateetik at geratu zirelarik. Iruñea halako dimentsioetako hiri industrial handia ez izan arren, garai hartan haren periferian sortu ziren auzoak ere, Bilbo,artzelona eta Madril bezalako hiri handietan egin bezala, espazio sozial bereziak sortu zituzten. Iruñeko auzoen eta hirigunearen arteko distantzia eta lotura falta aipatu hirietan ikusi eta sentitzen zena bezain handia ez zen arren, auzoak errealitate independente eta desberdinak osatzen zituztelako ideia, periferiako biztanleek (Arrosadiakoek, Txantreakoek, Arrotxapeakoek) hirigunera joaten zirenean erabiltzen zuten eta oraindik ere erabiltzen duten “*Iruñera igoko naiz*” edo “*Iruñera noa*” esapidean azaleratzen da<sup>546</sup>. Izan ere, honek, kontzientzia maila oso oinarrizkoan bada ere, auzoak euren burua hirigunetik desberdintzen ziren “zerbaiten” gisara ikusten zutela iradokitzen du. Egiatan, horrela zen nolabait. Arrotxapea auzoa dugu honen adibiderik goiztiarrena. Aurreko kapituluan ikusi dugun moduan, XX. mendearen lehenbiziko herenetik jada, auzoak, hiri esparru berezitu bat osatzen zuten: alde batetik, hirigunetik geografikoki bereiztuta zegoen, harresiez bestaldera kokatzen zelako; bestetik, desberdindutzat jotzen ahal zen izaera erakusten zuten eta hura, gainera, berariazko jokabide politiko batekin bat etortzen zen<sup>547</sup>. Ildo honi jarraiki, mendearen bigarren erditik aurrera Iruñean jaiotzen ikusi ditugun langile nukleo berrietan, Arrotxapeako aurrekari hau garatu zen eta ikusi berezko auzo errealitateetatik abiatuta, giza eta espazio komunitateak definitzen zituzten identitateak osatuz joan ziren.

Xavier Domènech historialariak oso ongi azaldu izan du auzo komunitate hauen sorrera eta garapena. Prozesu honetan, harentzat, auzoetako biztanleek euren egunerokotasunean sortzen zituzten biziraupen sareak izan ziren komunitate sentimenduaren sorreran eta hari lotutako berezko identitatearen egituraketan lagundu izan zuten oinarrizko elementuak. Honela, hasiera batean auzoak klase baldintza

<sup>545</sup> Eric Hobsbawm, *Historia del siglo...* Op. Cit., 307-308 orr.

<sup>546</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: “los primeros 25 años de mi vida en el barrio del Motxuelo”, 88 orr. Arrotxapeako bizilagun honen testigantza ere adierazgarria da zentzu honetan: “Niretzat Arrotxapean bizitzea herria batean bizitza bezalakoa zen. [Arrotxapeak] kutsu desberdin bat zuten. Baratzeak zeuden, baratze-belarrez inguratuta zegoen. Hirigunera igotzen nintzen hiri handira joango banintz bezala”, “Entrevista al montañero Mari Abrego”, Ezkaba aldizkaria, 22. zkia, 1995, 5. orr.

<sup>547</sup> Ikusi María del Mar Larraza, *Aprendiendo a ser ... Op. Cit.*, 221-22 orr.

homogeneotan bizi ziren giza multzoak baino ez baziren, biztanleen artean sortuz joan ziren harreman sareetan barna, giza multzo haiek, auzo identitate partekatuei erantzuten zieten komunitate bilakatu ziren. Harreman sareen garapena, auzo berrien sorrera berari eta berauetan hasieratik bizi ziren baldintza prekarioei berezkoak izan zitzairen. Hiri esparru berrien jaiotzarekin eta emigranteen ezarmenduarekin hasten zen prozesu batean, etxebizitza edo lana topatzen laguntzen zuten oinarritzko elkartasun harreman loturak sortzea, auzo berrietako biztanleek euren urritasunezko bizitza haren zailtasunei aurre egiteko zuten modu bakarra zen.

Lehen sare hauen sorrera hobekien azaltzen duen aldaera, migrazio mugimenduetatik eratorritako harreman ereduarena da. Kasu honetan, sareak, hiri industrialetan kokatzen ziren lehen emigrante ezarmenduak ondoren sorterritik iritsiko ziren etorkinentzako erreferente bihurtzen zirenean sortzen ziren, honek maiz auzoetan jaioterriko familia eta harreman sareak berregiten baitzituen. Errealitate hiritar berrietan, sare hauek, emigranteen langile komunitateetarako sarbidea erraztu ohi zuten, arestian aipatu bezala, etxebizitza edota lana topatzeko ezinbesteko oinarri izateaz beste, sozialki integratzea lortzeko funtsezkoak zirelarik. Zentzu honetan, bertan alde zurreko kontaktu bat izateak eta honengatik sare baterako sarbidea erraztuta izateak, emigranteen auzo batean zein bestean ezartzeko erabakian eragina zuen. Hainbatetan aipatu dugu Txantrean ezarri zen Jaengo Jimena herriko emigrante nukleoa. Iturrien istorio pertsonaletan, jarraibide hau are agerikoagoa da. A.H.R autobusetik Etxabakoitzen jaitzi zen bertan herriko lagun bat bizi zelako eta lehen momentu hartan, bere egoera egonkortu arte, harekin bizi behar zelako<sup>548</sup>. E.P.M.-ek berdin egin zuen, baina kasu honetan Sanduzelain, hiru urtez egon zen lagun baten etxean bizitzen azkenean auzo berebanean etxebizitza eskuratzerik izan zuen arte<sup>549</sup>. Sare hauek gainera, herrikideei lanpostuetarako sarbidea errazten zien eta militantzia soziopolitikoaren zirkuituetarako ateak zabaltzen zizkien “paisanajearen” fenomenoak ekartzen zuten berekin.

Baina guk aztertuko ditugun Iruñeko auzoen kasuan, bereziki garrantzitsuak izango dira hirian jada bizi ziren biztanleek, periferiako auzoetara lekualdatu baino lehen eginak zituzten alde zurretiko harreman sareak. Auzo berrietako biztanleetariko askok lehenbiziko bizilekua hiriko Alde Zaharrean (bertan jaiotakoak izateagatik edota lehen bitokia bertan alokatutako pisu edota gela bat izateagatik) izateko esperientzia izan zuten elkarrekin eta horregatik, aldi hartan sortu zituzten harremanak (eskolan, tabernetan, kaleetan, lagun-taldeetan egindakoak), auzoetan nolabaiteko jarraitutasuna izan zuten. Hau da, alde zurreko sare haietariko batzuk auzo berrietan berregin ziren, berauetako sare berrien hainbat korapilo eginez edota euren osagarri bihurtuz.

Sareok auzo identitate komunitarioen egituraketan garrantzitsuak izan ziren, euren bitartez, elkarrenganako konfiantza eta elkarrekiko elkartasun sentimendu indartsu bat sortzen zelako bizilagunen artean. Izan ere, berauetan parte hartzen zutenek, auzoetan bizi zituzten baldintzak soilik benetako komunitate gisara jardunez, hau da, elkarren artean lagunduz eta kolektiboki lan eta protesta eginez hobetu ahal izango zituztela ulertu zuten. Langile auzoetan barna, hartara, halako portaerak -erantzun komunitarioak- sustatzen zituzten berezko soziabilitate jarduteak garatu ziren, langileen bizitza soziala hein handi batean auzoen baitakoa eta berdinen artekoa izatea eraginez<sup>550</sup>. Sare hauetatik laster antolakuntza modu desberdinak jaio ziren eta urte haietan agertuz joan ziren kirol, kultura edo lagun elkarteak, parrokia zentro eta langile erakunde katolikoak, eskualdeko etxeak edota halako bestelako auzo mailako

<sup>548</sup> A.H.R-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-08-19.

<sup>549</sup> E.P.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-06.

<sup>550</sup> Xavier Domènech, “La otra cara del...” Op. Cit., 96 orr.



esparruek, auzoetako behar kolektiboak asetzeko bideak eskaintzearekin batera, militantzia sozial eta politikorako gune berriak sortu zituzten. Honela, Xavier Domènechek berak jaso izan dituen testigantzen bitartez, aipatu sareen garapen hau nola gertatzen zen oso ongi azaltzen da eta lehenbizi “*harremanak tabernetan [...] etxeen aurrean [...] elkarrekin politikaz mintzatzeko erabiltzen genituen futbol partidetan*” egiten baziren, gerora harreman egitura haiek forma antolatuagoak hartzen zituztela, “*guraso elkarteetan parte hartzen dute, osasun zerbitzuak sortzen dituzte, futbola sustatzen dute, e.a*”, erakusten da; beti ere bizilagunei berezkoa izan zitzaaien prozesu bat izan zela, hau da, “*kanpotik ezer etorri ez*” zela eta “*guztia hemen bizi garenok*” sortu zutela, argi utziz<sup>551</sup>.

Elkartasun sareen sorreraren eta garapenaren adibide adierazgarria da Madrilgo Palomeras auzoa<sup>552</sup>. Populazio emigranteaz osatutako nukleoa zen, bizilagunek berek euren etxeak ilegaltasunean eta oinarrizko biziegokitasunerako baldintza minimoak bete gabe eraiki zituzten eta bertako biztanleak, egiazki, baldintza marjinaletan bizi ziren. Marjinaltasun egoera honen aurrean, Palomeraseko bizilagunek elkartasunera jo zuten, lehenbizi guztien biziraupena bermatzeko eta ondoren, euren bizi baldintza kolektiboen hobekuntza orokortua lortzeko. Lehen etapa batean (1950-1964), auzo sareak, eguneroko bizitzaren alor hurbilekoenetan ematen zen laguntza espontaneoak (legez kanpokoa izateagatik gauez egin behar zen etxeen eraikuntzan, esaterako) sortutako elkartasun harreman pertsonalen gisara itxuratu ziren. Auzora iristeko eta bertan etxea eraikitzeke ezinbestekoa zen bizilagunen arteko hasierako elkartasunak, bizitzaren aspektu guztietara iristen ziren harreman kooperatiboak sortu zituen, bizilagunen artean, gaixoak zaintzea, erosketa zorretan uztea edota ikasienera eskola gabekoak oinarrizko irakaskuntza jakintzak eskuratzen laguntzea bezalako jarrera kolektiboak gizartekotuz. Lehen momentu haietan, auzoetako harreman ereduak, ez zen nekazal munduko harreman ereduaren oso desberdina izan<sup>553</sup>. Iruñeko auzoen hastapenetan, berauetako biztanle askoren nekazal jatorriarekin oso lotuta egon zen harreman egitura eta hari zegozkion elkartasunerako jarraibideak ikuten ahal dira. Mochuelo zaharrean etxolek, baratzeek eta inguruko zelaiek auzoari nekazal herri baten itxura ematen zioten, baina bertako bizimodua herrikoenaren oso antzekoa izatea egiten zuena, batez ere, bizilagunen artean nagusitzen zen harreman eredu pertsonal eta familiarra zen:

Garai hartan auzoa familia bat bezalakoa zen: guztiok elkar ezagutzen genuen, etxeak askotan irekiak uzten ziren eta etxera iristen zirenean bertan inor ez bazegoen, bizilaguna arduratzen zen zutaz, merienda ematen zizun (ogia eta txokolatea) eta kalera itzultzen zinen [jolastera]<sup>554</sup>.

Eguberriak iristen zirenean edo urtebetetzeren bat ospatzen zenean, jaiak antolatzen genituen eta bizilagun guztiak elkartzen ginen. Trebea zenak abesten zuen, txisteak kontatzen zituen edo gitarra jotzen zuen; besteok bitartean entzuten genuen edota dantza egiten genuen. [...] Halako bizipenek gure bizilagunekiko gertutasun sentsazioa, ia familia ginela sentitzeraino, sortzen zuen eta horrek, gure orduko bizitzaren parte handi bat partekatzen genuelako, guztion artean horren harreman estua izateagatik, egun ere elkarrenganako maitasuna irautea ahalbidetu du<sup>555</sup>.

<sup>551</sup> Xavier Domènech, “La otra cara...” Op. Cit., 96 orr.

<sup>552</sup> Ikusi María Carmen García Nieto, “Marginalidad, movimientos sociales, oposición al franquismo. Palomeras, un barrio obrero de Madrid, 1950-1980”, Javier Tusell, Alicia Alted eta Abdón Mateos (koord), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madrid, 1990, 269-285 orr.

<sup>553</sup> *Ibid.*, 277 orr.

<sup>554</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 35 orr.

<sup>555</sup> *Ibid.*, Testigantza: “El Mochuelo. Recuerdos en mi memoria de mi viejo barrio, mi barrio, lo que fue y que ya no es, ni será”, 48 orr.

Palomeras auzoaren adibidearekin jarraituz, hasierako nekazal izaerako halako harreman sareak, bigarren etapa batean, eraldatu egin ziren nolabait. 1964tik aurrera, biztanleen ezarmenduek behin-behinekotasuna galdu eta auzoan egonkortu zirenean, biziraupena bermatzen zuen oinarrizko kooperazio pertsonala, auzoko bizi kalitatea hobetzera, hots, marjinazio egoera gainditzera, bideratutako hiri elkartasun bilakatu zen<sup>556</sup>. Langile auzo askok bizi izan zuen bigarren aldi bat izan zen, non antolakuntza molde osotuagoak eta ekintza kolektiboko ekimenak garatuz, bizilagunek, berezko komunitate bat osatzen zutelaz kontzientzia hartu zuten. Alde batetik, garaiko auzo berri hauetan, bizitza sozial eta komunitarioa dinamizatzen zuten eta berezko komunitate baten parte izatearen sentimendua errotzen zuten elementu desberdinak jaiotzen hasi ziren. Harremanak sustatzeko sozializatorako esparruen sorrera, eguneroko bizi baldintzak hobetzeko abiatutako auzo ekimenak eta jai eta ospakizun herrikoiak, haietariko batzuk izan ziren. Aldi honetan hazten eta garatzen ari ziren Iruñeko langile auzo desberdinetan adibidez, auzo mailako kirol elkarteak, jarduera sozial eta kulturalak antolatzen zituzten elkarteak, aisialdiaz arduratzen ziren gazte taldeak, bizi kalitatea hobetzea bilatzen zuten berokuntza sistemak ipintzeko kooperatibak<sup>557</sup> edota auzoetako jai herrikoiak antolatzeko eta ordaintzeko jai batzordeak<sup>558</sup> agertzen hasi ziren, berauetan bizitza eta bizimodu komunitario bat

---

<sup>556</sup> María Carmen García Nieto, "Marginalidad, movimientos sociales..." Op. Cit., 277 orr.

<sup>557</sup> Horrela egin zuten, adibidez, Txantrea eta Donibane auzoetako zenbait etxebizitza multzoetako bizilagunek, berokuntza sistemen arazoari erantzun kolektibo bat emanez: "Calefacción central para 432 viviendas de la Chantrea. Promueven los mismos vecinos y se eleva el precio a 26.000 pesetas por vivienda", DN 1970-04-07, 28 orr. eta "Para noviembre tendrán calefacción. La cooperativa calor Eguaras a punto de comenzar las obras. Agrupa a 250 de los 340 vecinos de las casas de Eguaras" DN 1971-05-15, 32 orr.

<sup>558</sup> Auzoetako jaiak 60. hamarkadaren bitartean hasi ziren ospatzen. Txantreak, auzoko patroia zen San José egunean jai egun bat ospatzen hasi ostean, 60. hamarkadaren hasieran, maiatzaren lehenean -San José Artesano- finkatu zituen bere jai herrikoiak. Jai batzorde bat antolakuntzaz arduratzen zen eta honek osatzen zuen programan, jarduera herrikoi eta ekitaldi folklorikoak nabarmentzen ziren: "Festejos en el barrio de la Chantrea en honor de San José Artesano" (programa), DN 1965-04-30, 22 orr. eta "Festejos populares en la Chantrea" 1965-05-02, 16 orr. Alde Zaharrean, tradizio handikoak ziren San Fermin de Aldaparen omenez ospatzen ziren jaiak. 1940ean debekatuak izan ondoren, 60. hamarkadan berreskuratu ziren. Aldapa Kirol Elkarteak, antzinako jaiak ospatu ohi ziren egun berean ospatzen zuen, patroitzat zuen San Fermin de Aldaparen omenez, elkartearen urteurrena jai egun txiki batekin. Ospakizun txiki hau auzora zabaldu eta jaiak berreskuratzeko lehenbiziko urratsak eman ziren. Elkarteak horretarako jai batzorde bat sortu zuen, auzoko jaiak antolatzeaz arduratuko zen bizilagunen jai batzordearen aitzindaria izango zena: "Como en San Fermin pero en chiquito. La Navarrería abre sus calles a la fiesta. Se celebran desde antiguo con un paréntesis de 12 años", DN 1964-09-25, 16 orr. Antzeko zerbait gertatu zen Arrotxapean. Abuztuan, El Salvadorren omenezko jai eguna ospatzeko, auzoko kirol elkarteak hainbat kirol ekitaldi antolatzen zituen. Ospakizun hau handituz joan zen, haren antolakuntzaz arduratzen zirenengandik, auzoko jaiak antolatzeko bizilagunen batzordea sortu zen arte. Bereziki kirol jarduerak (mendizaletasunari buruzko diapositiba emanaldiak, futbol partidak) eta jarduera herrikoak (paella lehiaketak, bazkari herrikoiak, dantzaldiak) antolatzen ziren. Auzoko bizilagunen presentzia oso garrantzitsua zen, bai antolatutako ekitaldietan oso aktiboki parte hartzen zutelako eta baita ere ekarpen ekonomikoak egiten zituztelako. 1971an jaiak auzoko batzorde batek antolatu zituen, kirol elkarteak, "Unión Deportiva Rochapea", finantzazioan lagundu zuelarik: "En la Rochapea. Fiestas del barrio con concurso de paella para terminar", DN 1971-08-10, 6 orr. San Pedrok ere bere jai herrikoiak zituen. Bizilagunek sortutako batzorde batek antolatzen zituen eta bizilagun guztien artean ordaintzen zituzten: "Dos años consecutivos, Los vecinos del barrio de San Pedro pagan las fiestas. Recorriendo casa por casa se logró una recaudación de 10.000 pesetas", DN 1966-06-30, 20 orr. Arrosadiako jaiak urrian ospatzen ziren, auzoko patroia zen Ama Birjina Garotakoaren omenez: "Hoy a las doce comienzan las fiestas de la milagrosa", DN, 1964-10-10, 8 orr. Hamarkadaren hasieran, auzoko kuadrilla batek antolatu zituen eta gero jai batzorde bat sortu zen, auzoko bi tabernariren ekimenez. Batzordean antolatutako lehenbiziko jaiak, programan iragarkia jarri zuten auzo-

existitu egiten zela agerian utziz. Bestetik, auzoek pairatzen zituzten gabezien eta oinarritzko zerbitzuen faltaren aurrean, bizi kalitatearen hobekuntza aldarrikapenaren eta ekintza kolektiboaren bitartez lortzen saiatzen ziren mugimenduak antolatzen hasi ziren. Bizilagunek Etxabakoitzen kasuan hiri garraioaren prezioaren bidegabekeria edota Arrotxapearen kasuan kirol horniduren gabezia salatuz autoritateei idatzi zizkieten eskutizetatik hasita eta frankismoaren amaieran biderkatu egin ziren manifestazio jendetsuetara iritsi arte, auzoak, komunitateak osatzen, komunitate bezala portatzera igaro ziren.

Bilakabide honek, auzoetan barna eman zen auzokideen kontzientzia-azioarekin izan zuen zerikusirik. Izan ere, auzokideen kontzientzia, eurak komunitate baten parte zirelako zentzuan garatzeaz ez beste, komunitate horrek klase izaera zuelako zentzuan garatu zen ere. Jaioterri anitzekoak zirenez eta berauetatik bizitoki berrietara iristerakoan eurentzat berriak eta ezezagunak ziren errealitateak topatzen zituztenez, auzoetako biztanleek, berezko klase komunitateen parte zirelaz kontzientzia hartzeko, berrosatze sozial, kultural zein erlijiosoaren prozesu bat bizi behar izan zuten<sup>559</sup>. Prozesu hau komunitateen barneko elementuetatik eratorritako faktoreen arabera eta hainbat kanpo eragileren jardueraren arabera izan zen.

Auzo errealitate berrien baitako zenbait elementu, komunitate berriak bestelako hiri esparruetatik eta biztanle nukleoetatik desberdindu egiten zirela eta bereizkuntza hori, hain zuzen, klase irizpideetan oinarrituta zegoela agerian uzten zuen. Komunitateko kideek elkarrekin zituzten ezaugarri sozial eta kultural beretsuak edota auzoek hiriko egitura sozioekonomiko berriak betetzen zuten papera, hauetariko batzuk izan ziren. Bizilagunen ezaugarri sozialak auzo berrietan homogeen bihurtzea, komunitateak klase terminoetan definitzen lagundu zuen faktorea izan zen. Izan ere, maila sozial apala eta industria langile bezalako egoera elkarrekin izatea, egunerokotasunean bizi baldintza berberei aurre egin behar izatea eta auzo bizitzan gabezia berdina pairatu behar izatea, kondizioa, baldintzak eta problematikak elkarlotu zituen, hauek era berean berezkoak eta klasekoak bilakatu. Honekin batera, hiriaren hazkunde ereduak berak, hiri esparruen banketa funtzionala sustatzen zuen neurrian, auzo langileen esparru gisara definitzen lagundu zuen, hiriko egitura sozioekonomiko berriak, hauei, industria eta lan-indarra kokatzeko edo biltzeko esparru izateko zeregina eman baitzitzaien. Honela, auzo komunitateak, sozialki eta espazialki bereiztuta zeuden nolabait, aldi berean langile eta komunitateetako kide ziren subjektuek, "berezko mundu" baten parte zirelako sentipena izan ohi zutelarik:

Gure berezko giroetan bizi ginen, berezko giroetan; bizitza funtsean, bizi zinen auzoan eta egunerokotasunean bizikide zen jendearekin egiten zenuen, [...] Orain Iruñean gertatzen den hori, langilea afaltzera etxetik kanpora irten eta ondoko mahian patroiarekin topo egitea, orduan pentsaezina zen, pentsaezina erabat. Bereizketa hori oso garrantzitsua zen, ezta? oso garrantzitsua eta oso nabarmena. Horrekin batera, desberdintze eta identifikatze fenomenoak ematen ziren ere, biak: bestearengandik desberdintzearena eta berezkoarekin identifikatzearena [C.B.. Eraikuntzaren sektoreko langilea Bartzelonan]

Komunitateei klase izaera eman zien bestelako elementu bat, eragile ezberdinek auzoen baitan burutu izan zuten jarduna izan zen. Hizpide izan dugun Madrilgo Palomeras auzoan adibidez, elizaren, talde politikoaren, auzo elkarten edota guraso elkarten jardunak, bizilagunen kontzientzia-azio sozialean lagundu zuen<sup>560</sup>, esparru hauek orokorrean, klase identitate berri baten osatze eta sozializazioarako gune

---

komertzioen ekarpen ekonomikoekin eta saski baten zozketarekin lortutako diruarekin ordaindu ziren. Ikusi Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 158-160 orr.

<sup>559</sup> Hau da, harreman sarean osatzearen ondoren, Xavier Domènechek langile komunitateen sorrera azaltzerakoan aztertzen duen beste elementu nagusienetarikoa bat.

<sup>560</sup> María Carmen García Nieto, "Marginalidad, movimientos sociales..." Op. Cit., 280 orr.

garrantzitsuetan bilakatu zirelarik. Erdigune hauetan, aipatu berrosatze sozial, kultural eta erlijiosoa, kultura katoliko berri bat (eragileek egiten zuten klase terminoen araberako kristautasunaren berrirakurketatik eratorritakoa) eta ezkerreko langile kultura politikoak (errepublika garaiko langile erakundeen militantzia nukleoen biziraupenetik eta erakunde berrien presentziatik eratorritakoak) artikulatzearen bidetik egin zen.

Garai hartan gizartera eta lan mundura begira jartzeko eliza katolikoaren hainbat sektore egiten ari zen norabide aldaketak auzoetan eragina izan zuen, komunitateen identitate berriei ekarpen garrantzitsuak eginez. Kristautasunaren berrirakurketa “sozial” batetik abiatuta, kapitalismoaren aurkako baloreak, gizarlean eta auzoen errealitatean argiki ikusten ahal ziren ebanjelioaren aurkako elementuen salaketak (gutxi batzuen aberastea, askoren marjinazioa, boterearen gehiegikeriak, errepresioa) eta justizia sozialaren, askatasunaren, berdintasunaren edota konpromezuaren ideietan oinarritutako mezuak errotu ziren bizilagunen irudipen kolektiboan, euren mentalitateetan eta kontzientzietan eragin handia izan zutelarik<sup>561</sup>. Kultura katoliko berri haren oinarriak jendartean zabaltzeko, elizarekin erlazionatutako eragile ezberdinek auzoetan egin zuten lana ezinbestekoa izan zen. Gizarte-langileek zentro parrokialetan burutzen zuten jarduera, adibidez, oso garrantzitsua zen: auzoen behar nagusiak hautemateko azterketa soziologikoak egiten zituzten, oinarritzko zerbitzuen falta arintzeko martxan jartzen ziren kontsultategi edo haurtzaindegietan laguntzen zuten eta bizilagunen arazoak entzuten eta aholkularitza lanak betetzen zituzten<sup>562</sup>. HOAC eta JOC bezalako apostolutza mugimenduek ere kultura katoliko berrian oinarritutako lan formatibo garrantzitsua egin zuten eragileak izan ziren. Izan ere, auzo bizitzan sustatzen zituzten ekimen eta jarduera ezberdinen bitartez (auzo mailako militantzia taldeen dinamika, jantoki sozialen edota langile gau eskolen moduko gizarte ekintzak, aisialdia antolatzeako ekintzak), arestian aipatu ideiak, baloreak eta mezuak zabaltzeko aukera zuten. Ildo berean, parrokiak berak eta parrokiak ere, erreferentziazko figurak ziren auzo komunitateetan. Zentro parrokialak jarduera zein bilera erdigune garrantzitsuak izan ziren eta babes legala eskaintzen zuten heinean, berauetatik abiatuta, auzoetako erakunde herrikoi anitz jaio eta garatu zen. Parrokiak paper garrantzitsua izan zuten komunitate berrien kontzientzia hartzean eta are kontzientzia hori erradikalizatzerara iritsi ziren askotan. Bizilagunak klase borrokan murgildu zituzten maiz, bai alderdi politiko eta sindikatu klandestinoak lagundu zituztelako (bilerak egiteko esparruak eskainiz edo parrokiak eta elizak greban zeuden langileei itxialdiak egiteko utziz) eta baita hauekin batera, auzoetako borroketan edota auzo elkarteetan sorreran lan egin zutelako ere<sup>563</sup>.

Antsoain herriko parrokoa izan zen A.A. honen adibide adierazgarri bat da. Borondatez eskatu zuen langile nukleo bateko parrokiaren baten aritzea, jende apalaren errealitatearekin zuzeneko harremana izan nahi zuelako. Herrian pisu bat hartu zuen errentan zenbait kiderekin eta parrokia, etxabe batean kokatu zuten. Herriko bizitzan eta aldarrikapenetan zein borroketan inplikatu zen, antolatzen ziren

<sup>561</sup> Xavier Domènech, *Cual el carrer...* Op. Cit., 50 orr. Ikusi ere María Carmen García Nieto, “Marginalidad, movimientos sociales...” Op. Cit., 280 orr.

<sup>562</sup> Arrosadian adibidez, gizarte laguntzaileek auzoko hezkuntza zerbitzuei eta euren gabeziei buruzko azterketa soziologikoa egin zuten: “El barrio de la Milagrosa: 16.000 habitantes y unas grandes perspectivas de desarrollo. Asistentes sociales han realizado un estudio sobre la enseñanza primaria y los problemas del crecimiento demográfico”, DN 1967-02-24, 20 orr. Era berean, gizarte-laguntzaile hauek ere, 60. hamarkadan auzo desberdinetan Cáritasen ekimenez sortu ziren kontsultategietan, aholkularitza eta formakuntza zerbitzuak (eskari orriak nola betetzen irakastea) eskaintzen aurkitzen ditugu.

<sup>563</sup>Horren atzean, frankismoaren bitartean eman zen Elizaren funtzionaltasun soziopolitikoaren egon zen nolabait. Ikusi Guy Hermet, *Los católicos en la España franquista*, (bi liburuki), Siglo XXI, Madril, 1985-1986.

manifestazioetan parte hartuz eta parrokiako atea, berarekin elkartu eta hitz egin nahi zuen pertsona eta talde herrikoi, sozial eta politiko orori irekitzen zion<sup>564</sup>:

Ni pisu batean bizi nintzen halako [esperientzia] bat bizi behar nuelako, bestela ez nuen bertan bizitzeko arrazoirik. [Bizilagun] guztiak fabriketan lan egiten zuten eta nirekin hitz egitera etortzen ziren, euren gauzak kontatzen zizkidaten eta sekulako mahai inguruak izaten genituen... baina mota guztietako jendearekin, berdin zitzaidan sigla batekoak edo bestekoak baziren. ORTak nirekin bilera ugari egin zuen eta batzuek pentsatzen zuten, baina gizon hau nolatan biltzen da hauekin? Ba bai, haiekin biltzen nintzen [esateko zutena] entzun nahi nuelako y nondik nora mugitzen ziren jakin nahi nuelako; eta nik esaten zituzten gauza asko, haiekin ados ez nengoelako eta objektibotasunik ez zutelako, ezeztatzen nizkien. Talde guztiek zuten hona etorri eta nirekin hitz egiteko aukera. Horrek, jendearengandik gertu egoteak, nolabaiteko sentikortasuna sortzen du zuregan [...] Eta hori, bilera pila egiten genituen, nik bilera askotan parte hartu nuen! Egunez eta gauez. Gauez askotan [biltzen] ginen, gau osoa iraun ohi zuten bileretan, ezta? Beldurtuta egoten ginen eta beti ea polizia zetorren begiratu behar genuen... ezin zelako bilerarik egin, lau edo bost pertsona baino gehiago bilduta harrapatzen bazituzten, atxilotu eta preso eramaten ahal zintuzten... baina beno, nik jendearen beharrak ikusten nituen eta jendeak gainera [parte hartzea] eskatzen zizun. Ni hemen, langile auzo batean, banago eta ezer egiten ez baldin badut, nire presentzia horrek langile klasea iraintzen duela iruditzen zait. [A.A.. Antsoango parrokoa]

Ezkerreko langile kultura politikoei dagokienean, klase alderdi politikoei lotutako eragileen presentzia eta jardunaren eskutik iritsi ziren komunitate berriengan eragina izatera. Langile auzoak, egiazki, militantzia eta erakunde politiko zaharren berregitearen eta berrien sorreraren funtsezko agertoki bat izan ziren estatuko hiri desberdinetan. Aipatu ditugun harreman, konfiantza eta elkartasun sareak, zeresanik izan zuten horretan. Hasteko, lehenbiziko sare horiek, zuzenean militantzia politikorako sarrera ematen zuten ate bilakatu ziren maiz. Emigrazio mugimenduetatik eratorritako sareen kasua dugu, berriz ere, honen adibiderik esanguratsuena. Gerraostetik aurrera ugaritzen hasi ziren emigratio mugimenduak ez ziren soilik arrazoi ekonomikoengatik izan eta lekualdaketa hauetarik asko, arrazoi politikoengatik (errepresiotik ihes egitea adibidez) burutu ziren. Horregatik, halako arrazoiengatik mugitu ziren emigranteek, militantziatzko iragan bat ekarri zuten berekin, honek nolabait, auzoetan, ezkerreko langile kultura politiko errepublikarren presentzia ziurtatu zuelarik. Langile auzoetan, hartara, sorterriko militantziak berrabiatu eta politikoki antolatutako nukleoak suspertu ziren. Horretarako, komunitateen hastapenetan osatzen ikusi ditugun harreman sareak funtsezkoak izan ziren. Hauek sorterrietako adiskidetasunetan, konfiantza erlazioetan eta are kidetasun politikoetan oinarritzen ziren eta honi esker, auzo komunitateetako kide berrien kokapen politikoa errazten zuten. Gaietik ikusi izan dugun Granadako Guardahortuna herriko etorkinek Sabadellen osatu zituzten sareen kasua, oso interesgarria da azaltzen ari garen hau argi ikusteko, PSUCaren hiriko batzordea, berauetatik abiatuta berrantolatu baitzen. Batzordea bera Creu de Barbera auzoan kokatua zegoen, bertan, herritik etorritako emigranteen ezarmenduak eta harreman sareak zeudelako. Honela, erakunderako sarbidea bera, sare haien parte izatearen edo ez izatearen arabera izan ohi zen, alderdian militatzen hastea, Guardahortunatik etorritakoentzat, bertakoentzat baino errazagoa izan ohi zelarik. Zentzu honetan, sareen dinamika, militantzia berriak eta erakunde politikoen garapena, auzo komunitateen osatze prozesuarekin lotzen zituela esaten ahal da.

Iruñerriko auzoen kasuan, sareen dinamika hau, bestelakoa izan zen. Kontutan izan behar dugu, auzoetako populazioak nagusiki nafarrak zirela, hau da, hirigunetik auzoetara lekualdatu zen eta nafar landa mundutik emigratu zuen populazioa, estatuko beste probintzietatik etorritakoa baino ugariagoa zela, nahiz eta auzoren batean, azkeneko honek, presentzia nabarmendua eduki. Are hainbatetan andaluziar

---

<sup>564</sup> A.A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-09.

populazioaren nukleo nagusienetariko bat zen Txantrean, populazio nafarra nagusi zen<sup>565</sup>. Beste probintzietako emigrazioaren sareak beraz, ez ziren hemen, ikusitako Sabadellgo kasuan bezain funtsezkoak izan, auzoetan ezkerreko langile kultura politikoak errotzeko. Iruñerriko auzoetan, aipatu sareetan berregituratzen ziren militantzia zaharrak edota transmititzen ziren aurreko kultura politikoak baino, militantzia berriak eta kultura politiko berriak izan ziren komunitateak klase terminoetan definitzen lagundu zuten eragileak. Beste modu batetara funtzionatzen zuten sareen bitartez, hein hain batean.

Alderantzizko norabidean, jada antolatuta zeuden eta militantzia bat zuten erakundeek berek, auzoetan lan egitea, bizilagunak kontzientziatzea eta protesta jarduerak dinamizatzea hartu zuten estrategiatzat. Kasu hauetan, ezkerreko kultura politikoaren presentzia (arestian aipatu militantzietatik eratorritako gerraurrekoak baina baita 60. hamarkadatik aurrera jendarteratzen hasi ziren langile kultura berriak ere), auzoetara kanpotik iristen ziren militante antolatuen eskutik heldu ziren. Langile erakundeetako eta erakunde politikoetako kideak ziren eta auzoetan lan egitea, euren militantziaren parte zen haientzat. Hasiera batean auzoetan erakundearen presentzia errotzera iritsitako komunitateaz kanpoko elementuak izan baziren ere, laster auzoko bizitzarekin eta auzoko arazoekin konprometitutako auzo militante bezala egonkortu ziren komunitateen baitan. Gure iturrien artean, auzo militantzia eredu honen adibideak aurkitzen ditugu. A.L. adibidez, MCEko militantea zen eta Sanduzelai bezalako langile auzo batetara lekualdatu zen bertako bizilagunak mobilizatzeko asmoz. Hasiera batean, Arrotxapeako Auzo Elkartean lanean ibili zen, mugimendu herrikoiean esperientzia hartuta, ondoren, zenbait kiderekin, Sanduzelaiko Auzo Elkartzea sortzeko. Auzo honetan existitu egiten ziren esparru eta elementu aktiboek euren ingurura bilduz, 70. hamarkadaren erdialdean, militante hauek, auzo elkarteak sortu zuten. Gaur egun oraindik, herri mugimenduko militante gogotsuenetariko bat da<sup>566</sup>:

Ni auzora etortzen naiz... badakit orain apostolutzazko zerbait bezala ulertu ahal dela, ezta? baina auzora etortzen naiz kontsigna politikoeekin, gizartea frankismoaren aurka mobilizatzen saiatzeko, orduan auzo hau langile auzo bat zen eta... [...] Apostolutzazko zerbait diot ba... misioetara joatea bezalako zelako, misioetara joatearen ideia hori [...] baina hemen [auzoan] alderdi politikoaren eskutik egiten zen. Hau da, Ni Sanduzelai auzora etortzeko ideia alderdi politikoaren da, MCEak esaten du beno, tira, auzoetan lanean ari garenez, nor joango da auzo honetara? Orduan Sanduzelaira noa bizitzera, beste batzuk beste auzoetara joaten ziren bezala. Industriaren munduan lanean ari zen jendea bazegoen [alderdian], ezta? baina auzo mundua oraindik irekitzeke zegoen, hau da, oraindik... hutsik zegoen, eta orduan [esan genuen], auzo mundua landu behar dugu. Eta MCEko jendea ba... batzuk Txantrean egon ziren, beste batzuk Arrotxapean... jende hori [ni bezala] auzoetara joan zen. Eta MCEan egiten genuen bezala, besteek ere egiten zuten, ORTak edo PTEak, orduko ezkerreko mugimendu [politikoe] [...] [A.L.. MCEko militantea eta Sanduzelaiko Auzo Elkarteko militantea]

Auzo berean, M.L.C.-en kasua eredu berberari jarraitzen dio. Beste erakunde politiko bateko militante bezala, agerian uzten du auzoetan jarduteko estrategia, erakunde desberdinek praktikan eman zuten lan ildoak izan zela:

Ni alderdi bateko militantea nintzen, alderdiko militanteak, alor sozial guztietan parte hartzen saiatzen ginen. Orduan ez genuen bakarrik langile mugimenduan lan egiten. Ni adibidez, ezkondu nintzenean, Sanduzelaira bizitzera joan nintzen y nire senarra eta biok Sanduzelai aukeratu genuen, hain zuzen, erabatean langile auzoa zelako, orduan eraikitzen ari zelako eta beno, baita militantziarengatik ere, bertan jaiotzen ari ziren erakunde sozialetan parte hartzeko.

<sup>565</sup> Populazioaren nafar jatorriaren adierazleetariko bat izan zen, adibidez, jai herrikoietako programetan ekitaldi folklorikoei edota herri kirolek zuten presentzia nabarmendua. “El día 30 comienzan las fiestas del barrio de la Chantrea” DN 24-04-1964, 16. orr]

<sup>566</sup> A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16.

Orduan denbora luzez ibili nintzen ni auzo elkartean, bizilagunengan eragin nahian eta auzoko arazoak konpontzen lagundu nahian. [M.L.C.. PCE(i)-PTEko militantea eta Sanduzelaiko Auzo Elkarteko militantea]

Eredu hori bera topatzen dugu Martin Checa Artasuk Bartzelonako Bon Pastor auzoari buruz egin zuen azterketan<sup>567</sup>. Hemen, 70. hamarkadaren hasieran, frankismoaren aurkako indar politikoek presentzia zuten, euren militanteek oso lan garrantzitsua egiten zutelako. Kasu honetan, ikusi dugun Sanduzelaiko kasuan bezala, nukleo hauek auzotik kanpo etorritako pertsonen osatutakoak izan ziren hasiera batean, baina gero, urte haietako auzo aldarrikapenetatik abiatuta, militantziak zabaltzerik eta auzokideen artean euren presentzia errotzerik izan zuten. Militantzia berri hauek, auzoan kokaturik zeuden aurreko elementu militanteak pizteko eta sortua zen esparru eta mugimendu herrikoi oro dinamizatzeko funtsezko eragileak izan ziren. Esate baterako, politikoki definituta ez egon arren ideia sozialistetatik, komunistetatik eta libertarioetatik edota HOAC eta JOC bezalako taldeetatik gertu kokatzen ziren pertsonen, euren eskutik egin zuten hautu politikoa, hein handi batean. Are gehiago, auzo aldarrikapenengatik jarduna eta protesta, lehen momentuan, militante hauen bitartez bideratua izan zenez, bertako auzo elkarteak berak izaera politiko argia erakutsi zuen.

Erakunde politikoetako militanteen lana auzoetan, sareetan sartzean eta berauetatik jendea ekimen desberdinetan (sozialetan, kulturaletan, protestazkoetan) inplikatzeko oinarritu zen. Honek, zalantzarik gabe, sare haietan sortzen ari ziren komunitate identitateei, erakunde politikoei berezkoak zitzaizkien klase edukiak eman zizkien. Auzo sareen erdiguneetan kokatzeko, militante politiko hauek eguneroko lan garrantzitsu bat egiten zuten eta auzokideekiko harreman hurbil bat sortzen zuten. Aipatu Bon Pastor auzoan lan egiten zuten erakunde politikoetako militanteak adibidez, atez ate ibiltzen ziren bizilagunekin aurpegiz aurpegi elkarrizketatzeko, euren erakundeetako egunkariak banatzen zizkieten eta euren eguneroko kezka, arazo eta zailtasunen inguruan mintzatzen ziren haiekin<sup>568</sup>. Modu honetan bizilagunak eta militanteak elkarlotzen zituzten sareak osatzen ziren, militanteek ekimenak edo mobilizazioak planteatzen zituztenean, haiei esker jendearen erantzuna lortzen zelarik. Auzo mugimendu antolatua izan zen sareetan gertatzen zen konexio honen ondorioz berezkoena. Izan ere, auzo elkarteak, nola edo hala, modu batean edo bestean, esparru batean edo bestean, konprometiturik zeuden bizilagunen topaguneak izan ziren, bai mobilizazio espontaneoetatik jaiotzen zirenean eta baita erakunde politikoetako edo bestelako erakunde herrikoietako militanteen ekimenez sortzen zirenean ere. Zentzu honetan, auzo elkarteak, klase erakundeen eragingune nagusienetarikoa izan zirenez, komunitateak klase terminoetan kontzientziazteko oso elementu eraginkorrak izan ziren.

Honekin batera, auzoen eta fabriken arteko loturek, harreman sareek sortutakoak izan edo bi esparruon arteko gertutasun fisikoak sortutakoak izan, komunitate identitateen klase edukiak biziagotzen lagundu zuten. Lehenik eta behin, lantegi edo industrialdeak maiz periferiako auzoetan kokatuak izateak, fabrikaren barneko sareak auzoko sareekin eta fabrikako militantziak auzoko militantziekin nahastea ahalbidetzen zuen, auzo horietan bizi ziren fabrika haietako langileei esker bereziki. Bigarrenik, komunitateen hastapenetan sortzen ziren elkartasun sareek lan mundurako sarbide bezala izan zuten paperak, harremanak auzotik fabrikara eta

---

<sup>567</sup> Martin Checa Artasu, "Forces antifranquistes per un barri: el cas del Bon pastor (Barcelona)", *Actes del Congrés "La transició de la dictadura franquista a la democràcia"* (Barcelona 20, 21, 22 d'octubre de 2000), Universitat Autònoma de Barcelona-Centre d'Estudis sobre les Epòques Franquista i Democràtica, Barcelona, 2005, 47-55 orr.

<sup>568</sup> *Ibid.*, 49 orr. Plataforma antikapitalisteko militante baten testigantza jasotzen da eta honen bitartez, militantea auzora bere erakundearen eskutik iritsi zela eta bertan auzo militantziaren bitartez integratu zela ikusten ahal da.

fabrikatik auzora zabaltzen zituen. Bi esparru hauen arteko halako loturek, ezbairik gabe, antolakuntza eta elkartasun baliabideen metaketan lagundu zuen, lan gatazken eta gatazka sozialen handiagotzerako oso azpiegitura erabilgarriak eskainiz. Adibidez, Bilboko Bandas de Echevarri grebaren moduko gatazka luze bat iraunarazteko, ezinbestekoa izan zen langileek eta euren liderrek oso ongi erabiltzen jakin izan zituzten auzoetako komunikazio eta elkartasun sareen erabilera<sup>569</sup>. Lotura hauei esker, langileen ekintza kolektiboek arrakasta izateko baliabide berriak aurkitu zituzten eta komunitate berriek elkartasun forma ezberdinak ezagutu eta saiatu zituzten; hartu-eman honek, esparru batean zein bestean osatzen ari ziren identitateek elementu komunak zituztela iragartzen zuelarik.

---

<sup>569</sup> José Antonio Pérez, *Los años del... Op. Cit.*, 95 orr.



## 4.2 AUZO KOMUNITATEEN HASTAPENAK. IRUÑERRIKO AUZO BATEN ADIBIDEA: TXANTREA

Klase izaera duten auzo komunitateak Iruñerrian nola osatzen hasi ziren ikusteko, kasu zehatz bat aukeratu dugu, Txantrearena. Auzoak, azterketa interesgarri bat egiteko osagai asko biltzen ditu. Lehenik eta behin, haren kokapenak eta lehen auzokideen profilak, geografikoki bereiztuta bizi zen eta soziologikoki homogenea zen giza multzoaren eredu tipikoa marraztu zuten hastapenetatik: hirigunetik kanpo, periferian eta ibaiak bestaldera, altxatzen zen auzo berri batean, batez ere etorkinez eta hiriko sektore sozial umilenez osatutako langile populazioa biltzen zen. Hasieratik berezko auzo bizitza dinamikoa zuen auzoa izan zen eta bertan, sozializatorako esparru anitz sortu ziren eta ekimen herrikoi aberatsak sustatu ziren. Baina Txantrea auzoa bereizi egiten duena, bizilagunen artean berariazko auzo identitate indartsua argiki azaleratzen zela da, horregatik da adibide esanguratsua guretzat. Hasiera batean, hirigunearrekiko desberdin sentitzean eta kolektibitatearen parte sentitzean oinarritzen zen identitate komunitario hutsa zen. Auzolana eta Elkartasuna bezalako elementuek kohesioa ematen zioten bereziki. Gerora, identitate hura gehiago definitu zen eta hasierako komunitate haren irudiari, frankismoaren amaierako urteetan eta trantsizioan, kontzientzia sozial eta politiko ageriko langile auzo gatazkatsuen irudia gainjarri zitzaion (Barricada musika taldeak ezagutarazi egin zuen “Barrio Conflictivo” haren irudiarena, hain zuzen). Auzo honen kasua are ereduizkoagoa gertatzen da berezko identitate horren zantzuak, auzo komunitate baten parte sentitzea eta horretaz harro egotea, oraindik belautaldi berriengan ikusgarri egiten direnean<sup>570</sup>.

Oraingoan, auzoaren hastapenetan, Txantreak bere burua auzo komunitate desberdindu gisa definitzera eraman zuten faktoreak eta elementuak aztertuko ditugu<sup>571</sup>. Gure asmoa auzoaren historiaren berrirakurketa bat egitea izango da<sup>572</sup>, horretarako auzoaren eta auzo bizitzaren garapena, euren burua aintzat hartu eta klase terminoetan definitzen duten auzo komunitateen sorrera prozesu bezala ulertuko ditugularik. Berez, aurreko atalean azaldu dugun komunitatearen ideia Txantrean nola gauzatzen zen ikustea izango da helburua, lehen harreman eta elkartasun sareak nola osatu ziren azaleratzea, zein sozializatorako esparru sortu ziren aztertzea, berauetan komunitatea jaio zela eta hura definituko zuen berezko auzo identitate autonomo bat errotu zela erakustea. Auzoaren historiaren lehen etapa bat hartzen du azterketa honek, auzolan eta elkartasun elementuetan oinarritutako aipatu identitate komunitario hutsa hizpide duena. Txantrean osatu zenaren gisarako komunitateek orokorrean klase izaeraren osagaiak nola eta zein bidetatik barneratu zituzten azaltzen duen bigarren etapa bat, hurrengo atalean aztertuko da espresuki.

---

<sup>570</sup> “Bertako biztanleak ez dira iruñarrak sentitzen, txantrearrak baizik. Idiosinkrasia hau ekintza [txikienean] ere ikusten ahal da, baita erloju bat laranja kolorez berriz margotzean”. “Ser de la Chantrea”, David Mariezkurrenak utzitako testua. Ekintza hau, hau da, bizilagun talde batek auzoko ikur izandako erloju bat, kokatzen zen sukurtsalaren bankua desagertu eta banku berri baten estetikara moldatzeko gris kolorez margotua izan ondoren, berriz ere jatorrian zuen laranja kolorez margotzea, berezkoa denaren, berezko identitatearen aldarrikapen bezala interpretatzen ahal da.

<sup>571</sup> Ondorengo azterketa, 2010. urtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Geografia eta Historia Departamentuko “Arazo politiko eta sozialak Europako historian” Doktoretza programaren baitan eta Emilio Majuelo irakaslearen zuzendaritza pean, egin genuen *Langile klasearen konformazioa. Iruñea 1950-1962: hurbilpen bat* ikerlanean oinarritzen da. Honen emaitza ikusteko, Nerea Perez Ibarrola, “Klase komunitate baten hastapenak: Txantrea eraikitzen”, *Gerónimo de Uztariz*, 26/27. zkia, 2010-2011, 145-174 orr.

<sup>572</sup> Berrirakurketa, auzoaren historiari buruzko lan bat egin delako jada: VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit.

#### 4.2.1 Auzoaren jatorria. Etxebizitza merkearen promozioa: langile nukleo berri bat ibaiaz bestaldera

Txantrea, harresietatik kanpo, Arga ibaiaz bestaldera, iparraldeko periferian eta baratza eta landa etxez osatutako Magdalena auzo zaharraren ondoan eratutako auzoa izan zen. 1950. urtean hasi zen eraikitzen. Ordurako jada industria ezarmendu garrantzitsuak zeuden hirian eta langile populazioaren kopurua oso kontutan hartzekoa zen. Etxebizitzaren arazoa orduan gori zegoen gaia zen eta Txantrea, etxebizitza merkearen eraikuntza sustatzeko ekimen bezala, arazo hark bereziki gizarte sektore umilenengan eragiten zituen ondorio larriak arintzera zetorren. Modu berezian egin zuen, bertan biziko ziren langileek, euren eskuekin, hutsetik eraiki baitzuten.

Auzoaren eraikuntza, *Patronato Benéfico de Construcción “Francisco Franco”* ongintzako erakundearen ekimena izan zen. Patronatua, erregimenaren gogo paternalistak gidatutako etxebizitza politikak ardatz izan zuen etxebizitza merkearen eraikuntzako sustatzailearen figura adierazgarria dugu. Etxebizitzaren Institutu Nazionalaren babespean jaio zen, honek, errenta baxuko etxebizitzaren eraikuntza bultzatzearen, entitate zein partikularren aldeko babes neurriak aurreikusi zituenean. 1949an, orduan Nafarroako Gobernadore Zibila zen Luis Valero Bermejok patronatuaren eraketarako zuzemenak hasi zituen eta urte hartako irailerako jada, haren estatutuak onartuak zeuden Etxebizitzaren Institutu Nazionalan. 1950eko ekainaren 10ean izan zen fundatze ofiziala eta Valero Bermejo bera, hala nola Iruñeko goi-klasea, hots, alkatea, diputatuak, elizako ordezkariak, bankariak edota industria gizonak, izan ziren haren lehenbiziko kideak. Estatutuetan, erregimenaren politika sozialaren oinarrian zegoen espirtu asistentziala bere eginda, kideok, erakunde berriaren helburu nagusia gizarte sektore gutxietsienentzat mesederako babes erregimeneko etxebizitzak eraikitzea izango zela xedatu zuten.

Horretarako, ezinbestekoa zen lehenik eta behin, tokian-tokiko autoritateek, patronatuari, eraikuntza proiektuen gauzapenerako beharrezkoak izango zituen lur sailak erraztea. Honela, auzo berri bat eraikitzeko bere lehen proiektua aurkeztu zuenean, Iruñeko udalak, etxebizitzaren eraikuntzarako lur-sailak patronatuari doan emateko konpromisoa hartu zuen. Hainbat kokagune aztertu ondoren, udalak auzo berria iparraldeko periferian kokatzea erabaki zuen eta hainbat lur sail erosi zituen Magdalena ondoko zonaldean, ostera patronatuari lagatzeko. Baina udalbatzak osoko bilkuran hartu zuen erabakiaren arabera ere, udalak eginiko lagapen honek, onuraduna lur sailetan babes erregimeneko etxebizitzak eraikitzea behartzen zuen, hori egin ezean, hauek udalaren eskuetara itzuliko zirela aurreikusten baitzuen. Honekin, udalak, Txantreako lehen lur sailak etxebizitza eskaintza babestuen bitartez jendeztatuko zirela ziurtatzen zuen<sup>573</sup>. Baldintza hori betetzearren, patronatuak sistema berezia aukeratu zuten proiektua martxan jartzerako. Eraikuntzaren Sindikatu Probintzian kokatzen ziren eraikuntza enpresa nagusienentzat Txantreako lur sailetakoko partzela ezberdinak banatu ziren eta berauetan proiektuak aurreikusitako etxebizitzak eraikitzeko erantzukizuna eman zien. Eraikuntza prozesuan, patronatuak beharrezkoak izango ziren baliabide guztiak (azpiegiturak, materialak, laguntza teknikoak) erraztuko zituen eta enpresek, euren langileekin lan taldeak osatuko zituzten

---

<sup>573</sup> “ [...] Udala, lur sailen doako ekarpena egitera mugatu da; hauen balioa, udal altxorrek ordainduko du, etxebizitzaren eraikuntzarako beharrezkoak izango diren eraikuntza eta saneamendu gastuak, “Francisco Franco” patronatuaren kargu izango direlarik. [Udalak] lagatutako lur sailetan etxebizitza babestuen multzoak eraiki ezean, hauek edota taldeak [patronatuak] erabiltzen ez dituen hauen parte, udalari, honek eskatu bezain pronto, itzuliko zaizkio”, Iruñeko Udalaren Osoko Bilkura, 1949-09-26. Jasoa, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 81. orr.

eraikuntza lanak burutzeko<sup>574</sup>. Berrikuntza, lan talde haietako langileak gerora, eraikitako etheen jabeak zango zirela zen. Modu honetan, langileek, euren lan indarrarekin ordaintzen zuten jabetzan eskuratuko zuten etxebizitzaren prezioaren zati handi bat.

Txantrean prestazio pertsonalaren sistema praktikan jartzeko erabili zen ereduari, enpresen papera funtsezkoa izan zen, haiek kudeatzen baitzituzten proiektuan parte hartzeko langileen eskaria. Lantokia bera, hartara, promoziorako sarbide izateko bitartekoa izan zen. Ez bakarrik eskakizuna enpresari egin behar zitzaiolako, baita bertan sortzen ziren harreman sareek proiektuari eta esperientziari buruzko informazioa ematen zutelako eta promozioan parte hartzeko aukerak sortzen zituztelako ere. Adibidez, lantokian kideen esperientzia ezagutzeak, Txantreko etheen eraikuntzan izena ematera eraman zituen langile asko eta jada proiektuan sartuta zegoen norbaitekin nola edo halako harremana izateak, promozioan parte hartzeko aukerak areagotzen zituen, izan ere, hutsegiteren bat gertatzen zenean, posiblea zen bete gabeko postu hori, lantokietaraino iristen ziren familia edo adiskidetasun sareen bitartez betetzea. Oso ohikoa izan zen, langile batek, Txantreko etxebizitzaren eraikuntzak exijitzen zion lanari eutsi ezin eta proiektua uzten zuenean, haren ordean berarekin lan egiten zuen senide edo lagun bat sartzen saiatzea edota lan taldeko kideek berek, uko egitea gertatzen zenean, hutsunea betetzeko euren familia kideak edo lankide minenak proposatzea.

#### 4.2.2 Auzoaren eraikitze aldia

Obrak 1950eko martxoan hasi ziren. Eraikuntza enpresek euren langileekin osatutako zazpi lan taldek parte hartu zuen auzoaren eraikuntzaren lehenengo fasean: Arrarás, Erroz, Huarte y Cía., Martincorena, Brun, Barcos eta San Martín. Lehenbizi, talde horien artean, A, B eta C deitu ziren hiru kaletan, etheen eraikuntzarako esparruak banatu ziren, atalka. Gero, bakoitzari egokitzen zitzaion eremua mugarritatu eta langileek beren etxeak eraikitzeari ekin zioten, talde lan kolektiboaren bitartez.

Lan taldetan eraikitze dinamika, oinarrizko faktore izan zen eraikitze aldian bertan, auzolana eta elkartasuna bezalako kontzeptuak langile-bizilagunengan errotzen hasteko. Dinamika hartatik eratorri ziren taldeko guztien artean obren arduraduna izateko lankiderik trebeena aukeratzea, taldekideek berek euren artean lanaren banaketa justu bat egitea edota baldintza gogorrei aurre egiteko elkarren laguntza behar izatea bezalako bizipen kolektiboek, kontzeptuon barneratze goiztiar batean zeresanik izan zuten. Zentzu honetan, lan taldeen funtzionamendua aztertzea oso interesgarria izaten ahal da komunitatearen oinarriak nola jartzen hasten ziren ikusteko.

Taldeak langile eta ogibide desberdinen egiazko topagune izan ziren. Taldekideen arteko lan banaketa ahalik era eraginkorrena lortzeko, lan taldeen osaerak orekatua izan behar zuen eta honengatik, enpresek eta patronatuak berak, talde bakoitzean bizpahiru igeltsero eta gutxienez bestelako "gremioetako" profesional bana (hargina, zurgina, margolaria, iturgina) sartzea hobetsi zuten. Lan taldeetan, hartara, lanbide desberdinetako profesionalak bildu ziren, hauek, beren ezagutza espezifikoa jardun beharreko momentua iritsi arte guztiek bezala obretan peoi lanak

---

<sup>574</sup> Ur eta elektrizitate iturriak ziurtatzea, laguntzaile teknikoak (arkitektoak, marrazkigileak, teknikariak) kontratatzea, materialak erostea eta langileei oinarrizko tresneria (eskorgak, otzarak, pikotxak, palak, paletak) erraztea patronatuaren ardura zen. Euren lantaldeak hormigo-i-makina, oholtza edota astoak bezalako bolumen handiagoko lanabesekin hornitzea, enpresen esku zegoen.

bete behar izan zituelako, gainontzeko langile-taldekideekin berdindu zirelarik. Hala ere, zaila izan zen taldeen diziplina arteko osaera bermatzea. Hainbat taldetan profesional ezberdinak biltzen zituen diziplina arteko osaera hura lortu bazen ere<sup>575</sup>, langile askok, ogibide desberdinak ikasi behar izan zituen eraikuntza prozesuaren bitartean, etxea eraiki ahala<sup>576</sup>. Modu honetan, norberaren profesioa zena zela guztiek taldearen beharren arabera lan egin behar izaterakoan, langile guztiek jartzen zuten lana neurri berean balioesten zen, lanaren banaketa langileek berek, eurak erabakitako irizpideen arabera, egiten zutelarik. Esate baterako, oso ohikoa izan zen langileek, lanak, norberaren trebetasun eta ahalbideen arabera banatzea euren artean<sup>577</sup>. Irizpide honen aplikatzea bereziki nabarmena izan zen taldearen arduraduna izendatzeko orduan, talde bakoitzeko kideek horretarako beti eraikuntzaren gremioan trebeena zen langilea aukeratzen baitzuten:

[...] talde burua guztion artean aukeratzen genuen [...] eraikuntza lana zuzentzeko, Damián izeneko bat izan zen gurea [...] San Martín de Unxeko gizon bat, igeltsero ona burutik oinetaraino [eta] jakituria handiko pertsona. [J.D.C.. Huarte y Cía. eraikuntza enpresako langilea. Txantrearen eraikuntzan parte hartu zuen]<sup>578</sup>

Taldeka lan egitearen mekanikak etxeen eraikuntza prozesua erabatean kolektiboa izatea eragin zuen. Izan ere, proiektuak arrakasta izateko kide guztien inplikazioa funtsezkoa gertatzen zen heinean, lan prozesuak kolektiboa behar zuen izan ezinbestean. Nola edo hala, guztiek ulertzen zuten obrak aurrera ateratzeko modu bakarra, ahalegin komuna egitea eta langile bakoitzak bere eginbidea betetzea zela. Elkarren laguntzaren beharraz jabetzea ekarri zuen honek berekin, prozesu hartan langileen artean sortu ziren harreman dinamiketan, arazo pertsonalen gainetik zegoen elkartasun sentimendu indartsu bat errotu zelarik:

[...] bestela, ez zegoen ezer egiterik [...] anaitasun, elkar ulertze gehiago zegoen [...] bakoitzak ahal zuena egiten zuen, adibidez, ez zekienak... indarra jartzen zuen, zangak egiteko lurzorua zulatu behar bazen eta orduan makinarik ez zegoenez, lan guztia pikotxarekin egin behar zen... eta horretarako borondatea eduki behar zen. [J.D.C.. Huarte y Cía. eraikuntza enpresako langilea. Txantrearen eraikuntzan parte hartu zuen]

Talde lanarekiko honako konpromisoak, hein handi batean, helburu kolektibo bat partekatzearekin zerikusirik izan zuen: etxea eraiki eta eskuratzea, taldekide guztien xede eta "ametsa" zen. Lana, amets hori egia bihurtzeko nor bere buruarekin eta kideekin hartzen zuen konpromisoa zen. Horregatik, gogor lan egiteko prest ez zegoenak, gogorik jartzen ez zuenak edota justifikaziorik gabe lanean huts egiten zuenak, ez zuen tokirik lan taldean. Kontutan izan behar dugu gainera mekanika hartan norberak ez zuela berez bere etxea eraikitzen. Horren beharrean, langile guztien artean talde osoarentzako etxe guztiak eraikitzen ziren, eraikuntza lanak

---

<sup>575</sup> "Denetik zegoen... gurean adibidez etxegintzako langileak zeuden, iturgina zegoen, zurgina... eta peoiak geunden ere, ezta? ni laguntzailea nintzen... eraikuntza lanean ni laguntzailea nintzen". S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13.

<sup>576</sup> "Hogeita lauko talde bat osatu genuen. Sei edo etxegintzako langile... beno, ez horrenbeste, gutariko batzu han egin ginen etxegintzako langile, ni etxegintzako langile bezala aritu nintzen etxegintzako langile izan gabe". J.D.C.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-19.

<sup>577</sup> N.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-28.

<sup>578</sup> Hala ere, zenbait taldetan, enpresak berak izendatu zuen bere lan taldearen burua. Kasu hauetan, enpresan alde aurretik eraikuntza lanen arduradun gisara aritzen zen pertsona bat izan zen beti. Martinicorena enpresaren taldean gertatu zen. Enpresak izendatutako arduradun honek etxea egin zuen bere taldearekin eta Txantrean geratu zen bizitzen. VV.AA., Txantrea. Sembrando vida... Op Cit., 91 orr. eta J.D.C.-ri egindako elkarrizketa (Iruñea, 2009- 02-28).

amaituta, zozketa sistemaren bitartez banatzen zirelarik <sup>579</sup>. Modu honetan, taldekide guztiak beren lana, eraikuntza prozesu osoan zehar eta etxebizitza guztiak altxatzerakoan, gogo eta inplikatzeko handiarekin egitera “behartuak” izaten ziren, inork ez baitzekien guztietatik zein etxe egokituko zitzaion. Norberarentzat eta kideentzat lan egin behar izate horretatik, hau da, taldearekiko konpromiso sentimentutik, jaio zen eraikitze aldiaren egunerokotasunean azaltzen ziren elkartasun jarrera ugari. Zentzu honetan, langileen arteko elkartasun harremanak Txantrean, auzoa bera eraiki bitartean sortuz joan zirela esan daiteke, lan taldeen barne funtzionamenduak, askotan, komunitateei berezkoak zitzaizkien jokabideak erakutsi baitzituen. Adierazgarria da, adibidez, edozein kidek, gaixo egoteagatik edota familia arazo larriengatik, lanean huts egin behar baldin bazuen, taldeak hutsegitea onartzen zuela eta hau iraun bitartean, berari egokitutako lana guztien artean egiteko konpromisoa hartzen zutela<sup>580</sup>. Are gehiago, eraikitze aldiaren bitartean langileren bat hildakoa gertatuz gero, gainontzeko taldekideek, hildakoaren familiaren mesedetan, haren lana amaitzeko ahalegina egiten zuten:

[...] Inork min hartzen bazuen, guztiok haren etxea egiten jarraitzen genuen, berarentzako lan egiten genuen. Edonorri gertatzen ahal zitzaion, gaixo jarri edo dena delakoa... eta gaixo egon bitartean, gainontzeko bere lanarekin jarraitzen genuen. Guztia komunitatean egiten genuen. Bat gaixo baldin bazegoen, gainontzekoak han ginen. Beste egunen batean zuri gertatzen ahal zitzaizun eta. [S.G.. Martinicorena eraikuntza enpresako langilea. Txantrearen eraikuntzan parte hartu zuen]

Prestazio pertsonalaren bidezko sistema eta lan taldeen metodologia hau auzoaren eraikuntzaren bigarren fasean ere mantendu zen. Aldaketa bakar bat baino ez zen egon: taldeen osaera. Oraingoan, hauen antolakuntza jada ez zen enpresen araberakoa izan eta promozioan parte hartzeko aukera, eraikuntzaren sektoreko langileei emateaz beste, industria sektoreko enpresa desberdinetako langileei eman zitzaion ere.<sup>581</sup> Talde berrien artean, Gendulaineko meatze putzuetako langileek osatu zutena izan zen adierazgarriena. 1953an Iruñeko hegoaldean ustiatzen hasi ziren meatze putzuetan lan egitera etorritako langileekin sortu zen. Orduan meatzaritza populazio berria erakartzen ari zen eta putzuen inguruan meatzarien berezko herrixka espontaneo bat sortzeko arriskuaren aurrean, hauei irtenbide desberdinak eskaini zitzaizkien meatzari populazioaren kokapen orekatuago bat lortzeko<sup>582</sup>. Txantreako

---

<sup>579</sup> Patronatuaren proiektuak, etxebizitzaren esleitzea talde bakoitzaren etxebizitza multzo osoa eraikitzeaz amaitzen zenean eta zozketaren bitartez egingo zela xedatzen zuen hasieratik.

<sup>580</sup> Are taldekide bat soldadutza egitera joaten zenean, taldekideek honen hutsegitea bere gain hartzen zuten zerbitzu militarrik iraun bitartean. Hori bai, lehenbizikoa baimenarekin Iruñeara itzultzen zenean, eraikuntza lanetan aritzen zen, beste guztiak bezala.

<sup>581</sup> “[...] fabrika batean lan egiten zuen bat, ez dakit nonen lan egiten zuen beste bat, fabrika bereko hiru edo lau [...] Nik uste dut, ba, [taldekoak] toki desberdinetakoak zirela; haietariko bat, adibidez, esneen enpresakoa zen, beste batzuk Abonos Quimicosekoa ziren... halako jendea zen. Nik Martinicorenan lan egiten nuen, baina bazegoen ere beste zurgin bat, beste tailer batetik etorritakoa [...] hogeita biren bat egongo ginen taldean. Etxeen barrualdea egin behar izan genuenean, gauzak serio egin behar zirenez, pare bat etxegintzako langile hartu genituen, gure taldean apenas ez baitzegoen etxegintzako langilerik”. N.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-28.

<sup>582</sup> 1953an Gendulainen lehenbiziko meatze putzu bat zabaldu zenean, bertan lanean ariko ziren meatzarien bizitokia, eztabaidarako gaia izan zen Iruñean. Izan ere, meatzariak putzuaren inguruan herrixka bat, meatzarien herri bat, sortzea “arriskutsutzat” jotzen zen; meatzariak iritsi ahala, hauek Iruñerriko auzo eta udalerririk desberdinetan barreiatzea hobesten zelarik: “[...] askoz komenigarria da oraindik mendeetako bizitza patriarkalaren aztarnak azaltzen dituzten gure herriak handitzea, [hauekin alderatuta] ezaugarri erabat desberdinak izango dituen herri berri bat sortzea baino “Potasa, realidad, petróleo, esperanza, las dos visitas que hicieron ayer personalidades a Navarra”, PN 1953-04-11, 4 eta 6. orr. Hala ere, ikusi dugun bezala, gerora

etxeen eraikuntzaren promozioa parte hartzea, aukera horietariko bat izan zen. Kale batean zonalde bat eman zitzaion eta bertan euren etxeak, elkarren ondoan eraiki zituzten. Zonalde hori denbora luzez, lehen bizilagunen eta auzoaren memoria kolektiboan, meatzariei lotuta egon da<sup>583</sup>.

Lan taldeen dinamikarekin batera, auzoaren eraikitze aldiko esperientzia baldintzatu zuen bestelako elementu garrantzitsu bat, langileek etxeak eraikitze prozesuan topatu zituzten baldintza pertsonalen eta materialen gogortasuna izan zen. Hasteko, Txantrean etxea egiteak izugarritzko exijentzia suposatu zuen langileentzat, bereziki euren lantokietan eguneko lanaldia amaitzen zutenean, Txantrean hiru edo lau ordu gehiago sartu behar izaten zituztelako etxeen eraikuntzan. Auzoan arratsaldeko seietan edo zazpitan hasten ziren, bakoitzaren lantokiko irteeraren eta Txantreara iristeko egin behar zuten bidearen arabera<sup>584</sup> eta normalean, gaueko hamarrak edo hamaikak arte luzatzen ziren (teilatuko xaflak prestatu behar zirenean adibidez, goizeko hirurak eta lauak arte egoten ziren ere). Beraz, gauez eta argirik gabe egiten zuten lan, bereziki neguan<sup>585</sup>. Honetaz gain, igande goizetan ere lan egiten zuten, goizeko seietatik eguerdiko ordu biak arte. Baina igandetako agindu erlijiosoak betetzearren apezpikutzak Josefinen elizan goizeko bostetarako meza zerbitzu bat jarri zuenez eta langile guztiek, etxeen eraikuntza lanetan hasi ahal izateko meza hartara joateko betebeharra zutenez, igandeko laneguna ordubete lehenago hasten zen.

Baldintza materialei dagokienean, eraikuntza prozesuan sortzen ziren etengabeko oztopoak gainditzea eta zailtasun ugari aurre egin behar izatea izan zen langileen erronka: hainbat zonaldeetan lurren gogortasun eta gainazal hareatsua zela medio, oso zaila zen berauetan lan egitea; lur-azpian topatzen ziren putzuek, langileak urez betetako baldeak etengabe ateratzera behartzen zituzten gauero<sup>586</sup>; eta elektrizitate horniduraren gabeziak, ikusgaitasun faltarengatik, lana zaildu egiten zuten, hormak zuzen altxatzen ari ziren kontrolatzea eragotziz. Honekin batera, eraikuntza materialen kalitate txarrak edota materialaren beraren faltak, obren garapen normala oztopatzen zuten maiz. Esate baterako, patronatuak jarri behar zuen materialak iristen ez baziren, ezin zen lanik egin, obra, materialak iritsi arte gelditzen zelarik. Hau gertatzen zenean gainera, materialak noiz iritsiko ziren ez zekitenez, langileak egunero hurbiltzen ziren obretara materialak jasotakoan, ahalik eta lasterren, egun bat gehiago galdu gabe, lanean jarraitu ahal izateko. Bestalde, patronatuak langileei oinarrizko lanabesak errazten bazizkien ere, bolumen handiko eraikuntzarako tresnak, hormigoimakinak, oholtzak edota astoak, eraikuntza enpresek jarri behar zituzten, nahi izan ezker. Beraz, halako tresneriaren erabilpena, enpresen eskuzabaltasunaren arabera izan zen. *Txantrean Auzolan Kultur Elkarteak* auzoko historiari buruz egin zuen lanean jasotzen diren talde haietako hainbat kideren testigantzek adierazten dutenez, enpresak oso ongi portatu ziren eta langileei euren tresna eta baliabide ugari

---

Potasas de Navarra enpresak berak, "Poblado de Potasas" bezala ezagutuko zen langileentzako benetako herrixka bat sortu zuen.

<sup>583</sup> Bizilagunek, kale hau "meatzarien kalea" bezala ezagutzen zuten. S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13. Are gehiago, urteak geroago auzoan figura frankista ezberdinen izena zuten kale izenak aldatzeko borroka hasi zenean, bizilagunek berek "Meatzarien kalea" zioen kartel bat ipini zuten kale honen sarreran

<sup>584</sup> Martinicorena enpresak adibidez, bizikletak eman zizkien bere langileei lanetik atera eta ahalik eta lasterren Txantreara iristeko. S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13.

<sup>585</sup> VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit. Ikusi, batez ere 86-98 orrialdeetako langileen testigantza ezberdinak.

<sup>586</sup> "[...] ura zegoen... gauero urez betetako putzontziak atera behar genituen etengabe... bai, ura putzontzietan ateratzen genuen, masa egiteko erabiltzen genituen ontzietan... putzuak egiten ziren eta legarra ateratzen zuten... eta han ibiltzen ginen, putzontzietan". J.D.C.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13.

utzi zizkieten Txantreako etheen eraikuntzan erabiltzeko. Hala ere, lan talde guztiek ez zuten euren enpresengandik laguntza bera jaso eta hainbatek, ez zuten hormigoimakina bezalako oinarritzko tresna batekin ere lan egiterik izan: *“orduan ez genuen hormigoimakinarik edo halakorik... lan guztia eskuekin egin behar genuen, nahasi eta guzti, eskuz egin behar izaten genuen”*<sup>587</sup> Kasu hauetan, taldekide guztien inplikazioa eta ahalegina, are beharrezkoagoa zen.

Txantrearen eraikitze aldia berezia izan zen hainbat arrazoiengatik: lehenik eta behin, auzoko etorkizuneko bizilagunak berak etxegileak izan zirelako; gero, etheen eraikuntzaren prozesu hartan langileek esperientzia kolektibo interesgarriak bizi izan zituztelako (prestazio pertsonala, lan taldeen mekanika, auzolana, sakrifizioa, oztupoak gainditzeko elkarrekintza); eta azkenik, esperientzia haiek elkarrekin bizi behar izaterakoan, talde bereko kideen artean eta elkarren ondoan lan egiten zuten taldeen artean, auzo bizitzan jarraipena izango zuten lotura indartsuak eratu zirelako. Zentzu honetan, Txantrean sortu ziren lehen harreman sareak auzo eraiki bitartean sortuko zirela esan daiteke, komunitatearen oinarriak eraikitze aldi bertan finkatzen hasi zirela igartzen ahal delarik. Azken batean, aurrerago ikusiko dugun bezala, etheen eraikuntzaren prozesuan jaio ziren harreman sare hauek, komunitatea eta haren auzo identitatea artikulatuko zuten auzo bizitzaren eta esparru sozialen garapenerako erabakigarriak izan ziren.

#### 4.2.3 Auzoaren hazkundera eta garapena

1950an auzoaren lehen harria jarri zenetik, Txantrea etengabe hazi eta zabaldu egin zen, Iruñeko auzoetan jendetsuenetariko bat bilakatu zelarik. 60 eta 70. hamarkadetan, auzoan eskaintzen ziren promozioak, eraikitze sistemak eta etxeak berak ere, aztertu berri dugun eraikitze aldiarekiko asko aldatu ziren. Etxeen kanpoko itxuraren aldaketak esateko, oso ongi irudikatzen du bilakaera hori, 50. hamarkadako etxebizitzek azaltzen zuten baserri tankera batetik, populazio hazkundeari eutsi eta hiri esparrua ahalik eta gehien baliatzearen hobetsi zen etxe bloke altuetan oinarritutako beste batera igaro baitzen 60. hamarkadaren bitartean. Lehenbiziko etxeek, herrien itxuraren eta bizimoduaren marka utzi zuten; bigarrenak, periferietako auzo industrial tipikoena. Txantrean sortuko zen komunitatearen osakeran, bi ereduok, etxeek islatzen zuten nekazar herriarena eta industria auzo hiritarrarena, elkarri eragingo zioten.

Auzoaren lehenbiziko bi faseak (1950-1953) prestazio pertsonalaren bidezko sistemaren bitartez eraikiak izan ziren, azaldu dugun eraikitze aldiari dagozkien. Etxebizitzaren diseinuen nekazaritza giroa aintzat hartu nahi izan zuten eta herriko etheen antzera, patio eta ukuilu propiorako tokia izango zuten garaiera bakarreko edota bi garaieretako etxeak aurreikusten zituzten. Honek Txantreari fisionomia ezberdindu bat eman zion hirigunearekin alderatuta. 1954 eta 1960 urteen artean, Txantrearen eraikuntzaren bereizgarri izandako prestazio pertsonalaren bidezko sistema, patronatuak zuzenean eraikuntza enpresa ezberdinei agindu zizkien etxebizitza promozioekin nahastu zen. Patiorako eta ukuilurako tokia zuten baserri erako etxeekin batera, hiru eta lau garaieretako etxebizitza blokeak eraiki ziren orain. Hiriburuko populazioaren hazkundera eskatzen zuten eraikuntza bizkorraren beharrei erantzutearren eraikuntza eta auzo ereduaren aldaketa igartzen bazen ere (hiri esparrua eta eraikuntza denbora ahalik eta gehien aprobetxatzeko, herriko etxeak, gora hazten ziren etxebizitza bloke bilakatzen ari ziren), nola edo hala, jatorritzko proiektuaren hainbat elementu mantendu ziren fase honetan eta hamarkadaren amaierara arte gauzatuko ziren hurrengoetan. Adibidez, etheen ezaugarri dagokionean, bloke berriek jada ukuiluetarako tokirik aurreikusten ez zuten arren, norbere erabilpenerako eta elkarbizitzarako guneak sortzeko esparru irekiak

<sup>587</sup> N.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-28.

mantentzen zituzten, blokeen artean kokatzen ziren patio komunitarioei esker. Are 1962-1968 bitartean eraiki ziren lau eta bost garaieretako blokeek, halako esparruak gorde izan zituzten. Bestalde, etxebizitza mota berri hauen eraikuntza oraindik patronatuak sustatzen zenez, Txantreakoak babes erregimeneko promozioak izaten jarraitu zuten<sup>588</sup>. Auzoa beraz, jaio izan zen modu berean hazi eta zabaldu zen 60. hamarkadan zehar, etxebizitza merkearen eraikuntzaren bitartez. Txantreak, langileen eta gizarte sektore apalen kokagune izateko bere jatorrizko helburuari<sup>589</sup> eutsi zion beraz.

1968an patronatuak auzoan sustatu zuen azken etxebizitza multzoa egin zen. Orduetik aurrera, promozioak, eraikuntza enpresa pribatuek eta aurrezki kutxek sustatu zituzten. *Orvina* izenaz (*Organización de Viviendas de Navarrari* dagokion akronimoa) ezagutzen diren hiru egoitza multzoak Txantrearen garapenaren aldi berri honen adibiderik adierazgarriena dira. Lehenbiziko multzoa goiztiarra izan zen eta 1968rako amaituta zegoen. Hiruretatik, auzoaren gainontzeko hiri esparruarekin hobekien integratu zena izan zen. Plaza baten inguruan eraikitako etxebizitza blokeek osatzen zuten eta bizilagunen oposizioak, auzora ematen zuen plazaren aldea itxi gabe, hots, eraiki gabe mantentzea lortu zuen<sup>590</sup> (plaza hori auzoko bizitza sozialaren erdigune garrantzitsuenetariko bat da egun ere). 70 hamarkadaren hasieran estreinatu ziren bigarren eta hirugarren multzoak ordea, auzotik apur bat desberdinu ziren, etxeen kanpo itxuran (bederatzi garaieretako etxebizitza bloke aurrefabrikatuak) eta multzoen barne antolakuntzan, izan ere, zonalde integratu baino, berezko esparru bezala diseinatu ziren.

Txantreako komunitatearen hastapenen azterketa egiterakoan, kontutan izan behar dugu auzoaren garapen prozesuak aldi desberdinak izan zituela eta haietarik bakoitzak, hirigintzazko ezaugarri bereizgarriak izan zituen bezala, bizipen bereziak eragin zituela bizilagunengan. Ikusi dugun bezala, auzoaren eraikitze aldia oso berezkoa izan zen eta ez dago ondorengo eraikuntza faseekin alderatzerik. Auzoaren hazkunde eta garapenean azaldu ditugun aldaketak ordea, ez ziren eraikitze aldian sortu ziren auzo harremanak eta elkartasun sareak testuinguru berrietan mantentzeko oztopo izan. Eraikuntza fase berrietan Txantreara iritsi ziren bizilagunek, bere buruaz irudi berezia zuen eta sozializatorako berezko esparru egitura zuen komunitate hasiberria topatu zuten bertan eta oinarri hauetatik abiatuta parte hartuko zuten komunitate haren ondorengo bilakaeran.

#### **4.2.4 Eguneroko bizitza eta bizi baldintzak: komunitate homogeen bat osatzen**

Txantreako komunitateari hasieratik bere buruaz irudi berezia egiten lagundu zion funtsezko elementua, bertara bildu zen populazioaren homogeneotasun soziala izan zen. Auzoko bizilagunengan, aurreko kapituluan jasotzen ziren langile auzoei berezkoak izan zitzaizkien ezaugarri soziologiko gehienak ematen ziren: bigarren sektoreko lanbideak, ikasketa maila baxua, jatorri emigrantea, gaztetasuna, baliabide gutxieneko gizarte sektoreen maila soziala. Hasteko, langile populazioa zen, behinik-behinik behin biztanleriaren lanbideari zegokionean. Txantrea Iparraldeko periferian kokatua zegoen, hain zuzen ere 1945 eta 1975 urteen artean<sup>591</sup> langile populazioaren

---

<sup>588</sup> Eraikuntzarako sistema jada prestazio pertsonala ez zenez, patronatuak zabaltzen zituen zerrendetan izena eman behar zen. Ondoren, etxebizitzak zozketaren bitartez esleitzen ziren.

<sup>589</sup>Salbuespenak egin ziren, patronatuak kontratatutako promotoreek, besteak beste, Udaleko eta Diputazioko funtzionarioentzako eta gerra zibileko elbarrituentzako eraiki zituzten etxeak kasu.

<sup>590</sup> VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 137 orr.

<sup>591</sup> Denbora tarte hau hartu dugu erreferentziatzat, hainbatetan aipatu dugun Dolores López eta Carolina Montorok bitarte horretarako egin zuten Iruñeko azterketa demografikoari esker,



kopururik handiena biltzen zuen hiriko zonalde bezala sendotzen ikusi dugun gunean. Auzoa hasieratik nabarmendu zen langile populazioarentzako kokagune bezala, auzoaren eraikuntzaren lehenbiziko bi faseetan, prestazio pertsonalaren bidezko sistema erabili zenez, etxegile-azokideak eraikuntzaren sektoreko eta industria desberdinetako langileak izan baitziren. Lehenbizi, Nafarroako hainbat eraikuntza enpresarentzat lan egiten zuten peoiak, igeltseroak, zurginak, iturginak eta halako beste profesionalak izan ziren. Ondoren, hauei, fabrika desberdinetako langileak gehitu zitzaizkien. 70. hamarkadaren hasieran, hiriko populazioaren hazkunde etengabeak auzora populazio anitzagoa erakarri bazuen ere, populazio aktiboaren zati handiena langileek, kualifikatuek baina bereziki kualifikaziorik gabekoek, osatzen jarraitu zuten<sup>592</sup>.

Txantreako biztanlegoa sozialki bereizi egiten zuen bestelako ezaugarri bat, lehen bizilagunen artean, hirigunetik auzo berrira lekualdatutako iruinseme asko egon zen arren, populazio emigranteak pisu garrantzitsua izan zuela zela da. Auzoko jatorrizko bizilagunen parte handi bat, alde batetik, “60. hamarkadan, Nafarroan gertatu zen hazkunde ekonomikoaren eskutik, etorritako andaluziar emigranteek” eta bestetik, “industriar bizitza hobeago bat lortuko zutelakoan, nekazaritzaren egiteko gogorrak utzi zituzten nafar herrietako biztanleek” osatu zuten<sup>593</sup>. Nafar landa mundutik etorritakoak izan ziren emigranteen artean ugariak, Txantrean nagusiki nafarra zen biztanlego bat osatuz<sup>594</sup>. Hala ere, beste probintzietako populazioaren presentzia goiztiarra izan zen auzoan eta kopuruan nafar jatorrikoa bezain garrantzitsua izan ez bazen ere, Txantrea, hiriko emigranteen gune bezala ezaugarritzeko haina nabarmentasun izan zuen. Goiztiarra izan zen auzoaren eraikuntzaren bigarren fasean, 1953 urtean, andaluziar jatorriko lehen bizilagunek bertan etxea eraiki zutelako (“meatzarien taldearen” baitan). Nabarmentasuna izan zuen hainbat elementuk, aipatu Iruñea-Jaén autobus lerroak auzoan zuen geltokiak, Magdalena zubiaren ondoan zegoen Jaenerako bidea Txantrearantz markatzen zuen kartelak, “andaluziarrak izateagatik” auzoko peñak sentitu zuen hasierako arbuioak edota Diario de Navarra eman zion “auzo zabal eta emigrante, espainiar dialektoen babel” bezalako izendapenak<sup>595</sup>, hiriaren begien aurrean, probintziaz besteko emigranteen presentzia hura auzoaren berezko ezaugarri egin zutelako.

Baina guztiaren gainera, txantrear populazioak baliabide gutxiko gizarte sektoreen maila sozialekoa izatea izan zuen komunean, bizilagunek, bizi baldintzei eta bizimoduei zegokienean, antzerako esperientziak bizi eta partekatu behar izan

---

landuak dauden datuak maneiatzen ahal ditugulako. Tarte hori gainera, erabatean bat egiten du Txantrearen sorrera eta lehen garapenaren kronologiarekin.

<sup>592</sup> “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. Kutxa.

<sup>593</sup> Alberto Goñi, *El rastro de la Txantrea. El poder contra la cultura popular*, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte, Iruñea, 2010, 25 orr. Hein handi batean auzoaren memoria kolektiboan oinarritutako lana denez, aipatutakoa, auzoko bizilagunek lehenbiziko biztanleez duten ikuspegia dela esan daiteke nolabait.

<sup>594</sup> 60. hamarkadaren erdialdera, nafar populazioaren gehiengo hau auzoko jaietarako antolatutako ekitaldietan ikusten ahal zen. Diario de Navarra 1964ko auzoko jai herrikoien programaren berri ematen zuenean; bertan ekitaldi folklorikoeak, euskal dantzak eta herri kirolak, zuten protagonismo handia, auzoko populazioaren %85a nafar jatorria (bai herrietakoa eta baita ere hirigunekoak) zuelako azaltzen baitzuen. “El día 30 comienzan las fiestas del barrio de la Chantrea”, DN 1964-04-26, 16 orr. Ildo berean, 1971ko JOCaren Iruñeko auzoei buruzko txostenaren arabera, urte hartan nafar jatorriko populazioak auzoko populazioaren %60a inguru osatzen zuen, beste probintzietan jaiotakoa gainontzeko %40a osatzen zuen bitartean. “Situación de Navarra” txostena (1971). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. Kutxa.

<sup>595</sup> “Desd'el gallo de San Cernin: Postales iluminadas. El puente de la Magdalena”, DN 1958-09-06, 10.orr.

zituelarik. Biziraupenerako estrategietatik hasi eta egunerokotasunaren xehetasunetara iritsi arte, Txantreako biztanleek, zailtasun eta gabezia berberei aurre egin behar zizkieten. Adibidez, bizitza mailaren minimoetan biziraun behar izatea, familia aurrera ateratzeko fabrikari aparteko orduak egin edota enplegu anitzetan ibili behar izatea eta etxea jabetzan lortu arren, etxe hura altzariekin hornitu ezin izatea, auzokideek elkarrekin izan zituzten esperientziak izan ziren:

Etxean [gu, bikotea], hiru seme-alaba eta bi amona ginen [...] eta soldata bakar batekin... eta honek [emazteak] laguntzen zuen, etxeren batean edo ahal zuen tokian garbiketa egiten zuen; baina garai hartan soldatak, badakizu, ez ziren oso... ba hori, hiru seme-alabekin eta bi amonekin... neke asko jasan behar izan genituen. Ahal genuen bezala moldatzen ginen [...] espartinak erosteko baldin bazegoen, espartinekin [ibiltzen ginen] eta ez bazegoen, ba nik esaten nuen bezala, oinutsik. [J.D.C.. Txantrearen eraikuntzan parte hartu zuen]

Halako egoerak gainera, auzoan kolektiboki bizi eta partekatzen ziren eta horrek, bizilagunak euren maila sozialean berdintzeaz beste, bizi baldintza haiei aurre egin eta egunerokotasunean bizirauterik izateko, elkarren artean laguntza eta elkartasuna bilatzera eta ematera eramane zituen, euren arteko berdintasunaren atzematea, areagotuaraziz:

Arazoa zen aste hasieran dirurik ez zenuela y dendara joan behar zinela erosketa egitera. Orduan geroago pagatzen uzten zizuten. Adibidez, asteartean edo astelehenean joaten ziren eta esaten zenien: "oye, dame tal y tal cosa, que ya te pagaré el sábado". Eta larunbatean ordaintzen zenuen [...] hemen ez zegoen ondokoa baino aberatsagoa zenik... adibidez nik, esateko, olio behar banuen, bizilagunarengana joaten nintzen eta olio ematen zidan edo berak behar bazuen eta nik baldin banuen... gure artean konpontzen ginen... beharrezkoa zen guztia bai, ogia eta...<sup>596</sup>

Antzeko zerbait gertatzen zen auzoak pairatzen zituen gabeziekin edo urritasunekin. Bizilagun guztiek elkarrekin zituzten arazotzat jotzen ziren eta honek, nolabait, kaltetu gisara berdintzen zituen. 50 eta 60. hamarkadetan, bizilagun guztiengan eragiten zuten arazoak salatzen zuen eskutitz mordoa bidali zen Txantreatik Diario de Navarra egunkariko "Reporter" sailera. Berauetan, aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, autoritateen utzikeriaren ondorioz periferiako auzoek pairatzen zituzten ohiko arazoak jasotzen ziren: garraio publikoaren zerbitzu eskasiak sortzen zuen hiriarekiko inkomunikazioa, hornidura elektrikoaren hutsegiteak eta gabeziak, kaleen eta errepedeen egoera deitogarria, garbiketa eta zabor bilketa zerbitzuen urritasuna, telefono zerbitzuaren beharra<sup>597</sup>. Hauek, orokorrean auzokide guztiengan eragina

<sup>596</sup> J.D.C.-ri egindako elkarrizketa (elkarrizketatuaren emaztearen hitzak). Iruñea, 2009-02-19

<sup>597</sup> Telefono zerbitzuaren beharraz: "[...] Txantrea jendetsuaren telefono etxearen zerbitzuak bertan behera geratu ziren. Zerbitzuen etendura [...] honek bertako bizilagunei kalte handiak eragiten dizkie [...] [izan ere] Txantreako bizilagunak, hiriburura igo behar dira deiak egin nahi baldin badituzte, honek sorrarazten dizkien atzerapen eta eragozpenekin [...] Denbora pasa da eta zerbitzuak ez dira berriz hasten [...] Txantrea gaur egun oso auzo garrantzitsua da eta ezin da merkataritza eta industria bizitzak garatzeko ezinbestekoak diren telefono zerbitzurik gabe egon". "Notas del Reporter", DN 1958-12-31, 6. orr. Hirigunearekiko komunikazio arazoez: "Txantrea auzo jendetsua [...] gaueko hamarrak eta hogeietatik aurrera, bakartua geratzen da garraio zerbitzu publikoari dagokionean". "Notas del Reporter", DN 1959-07-31, 2. orr. Zabor bilketaz, aurreko kapituluan ikusi dugun bezala: "[Magdalena-Txantreako bizilagunek] auzoan zabor bilketa maizkoagoa izatea eskatzen dute. Auzoteria asko hazi dela eta zaborra biltzen duen ibilgailua bertatik soilik asteen bitan pasatzeak etxeoandreak hondakinak ahal duten tokian uztera (horrek berekin dakarren higiene eta estetika arazoekin) behartzen dituela argudiatzen dute. Orain beroa hurbiltzen dela, ezin da hainbat hondakin, arraina kasu, etxean eduki". "El Reporter aldía", DN 1962-05-07, 4 orr. Hornidura elektrikoaren gabeziez: "Goizueta kalean dugun argiteria horren eskasa da, etengabe argirik gabe gaudela. Itzaltzen den lanpara ez da bi edo hiru hilabetetan konpontzen". "Notas del Reporter", DN 1965-03-24, 7 orr.

zuten problematikak zirenez, bizilagunen autoritateen partetiko utzikeriaren biktima izatearen sentimendu kolektiboa errotu zuen eta horrek, populazioa, are homogeneoago egin zuen.

#### 4.2.5 Auzo bizitza. Harreman sareak eta sozializatorako esparruak

Txantreak bere hastapenetatik hasi zuen berezko komunitate baten osatze prozesua. Eraikitze aldia funtsezkoa izan zen horretarako, lehen etxegile-bizilagunek eurekin ekarri zituzten harreman sareen eta etxeen eraikuntzak iraun bitartean sortu ziren elkartasun sareen bat egiteak, ondorengo auzo bizitzaren garapenaren oinarriak jarri baitzituen. Sare haietatik abiatuta, 50. hamarkada osoan zehar, auzo bizitza kolektibo eta komunitarioa dinamizatuko zuten esparru desberdinak sortzen hasi ziren. Aurreko atalean aztertu dugun komunitateen garapenaren ereduari jarraiki, hauek 60. hamarkadaren bitartean izan zuten garapenean, bereziki bi fenomenok eragin zuen. Alde batetik hasierako auzo sareak hedatu eta konplexuagotu egin ziren, hauetatik abiatuta sozializatorako esparru berriak sortu eta garatu zirelarik. Bestetik, sare eta esparru berri horietan, eliza katolikoaren sektore aurrerakoenetako hainbat elementuren eskutik eta langile mugimenduko zein alderdi politikoetako militantzien eskutik, ideia, eduki eta mezu jakinak zabaltzen hasi ziren, 50. hamarkadan bere buruaz irudi bereizi bat egin zuen auzo komunitate hasiberria, klase terminoetan definitu zelarik.

Eraikitze aldian bertan sortu ziren sareek, etxeak egingo zituzten langileak elkarren artean lotzen zituen aldez aurretiko harremanetan izan zuten abiapuntua. Hauek, berezi bi esparrutan sortutako harremanak ziren, lantokikoak eta bizigunekoak. Obran eta auzoan nolabaiteko jarraipena izan zuten, auzo sare berrien oinarri eta osagarri izango zirelarik. Ikusi dugun bezala, auzoaren eraikuntzaren lehen faseetan, lantokia, etxebizitzak eraikitzeke promoziorako sarbide nagusia izan zen: proiektuan parte hartzeko eskakizunak enpresaren bitartez bideratu ziren eta lan taldeak enpresara antolatzen ziren. Ondorioz, Txantreako bizilagunek euren lantokietan kide izateagatik jada elkar ezagutzen zutela gertatu zen maiz. Hau da, lehenbizi etxeak elkarrekin eraiki zituztenetariko asko eta gerora elkarren ondoan auzotasuna partekatu zutenetariko asko, ez ziren ezezagunak Txantrean bizitzen hasi zirenean, “[...] elkarrekin lan egiten genuelako eta orduan jada elkar ezagutzen genuelako [...] [hau da] beti aldez aurretik, ezkongabeko garaietatik edo, ezagutzen duzun norbaitekin topo egiten duzu, guztiak kaletik ibilitakoak ginenez...”<sup>598</sup>. “Kaletik ibiliak” izateagatik elkar ezagutzen zutelako adierazpen honek, lehenbiziko bizilagunak elkarlotzen zituzten beste motatako harreman sareak existitu egiten zirela azaleratzen du nolabait. Harreman mota informalagoak ziren eta auzokideen jatorrizko biziguneetan zuten oinarria. Iruñeako Alde Zaharretik etorritakoen artean adibidez, oso ohikoa izan zen aldez aurreko harreman hauek kale edo taberna zehatzen inguruan sortutako lagun taldeetatik edota Iruñeko asoziazionismo herrikoari oso berezkoak zitzaizkion peñetatik eratorritakoak izatea<sup>599</sup>. Auzoan garatuko ziren lehen harreman sozialak, hartara, lantokiko eta biziguneko aldez aurretiko sare hauek berreginez jaio ziren: “*Beti batzuekin beste batzuekin baino harreman gehiago duzu. Noski, [adibidez] Manolorekin [...] ni La Única [peñara] joaten hasi nintzenez, bera diruzaina zen [...] Ni Iruñera etorri nintzenez, La Única [peñako] bazkide egin nintzen, bazkide sortzaileetako bat zen el abueloren eskutik sartu nintzen ni bertara. El abuelo*

---

Errepideen egoera deitogarriaz: "Las calles de la Txantrea se quejan de baches". DN 1963-10-17, 7-9 orr.

<sup>598</sup> J.D.C.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-19.

<sup>599</sup> Ikusiko dugun bezala, peñak hiriko bizitza sozialari oso berezkoak zitzaizkion elkarte herrikoiak ziren eta dira. Euren jarduera Sanferminei oso lotuta ageri da, baina bestelako alorretara, kirolaren eta aisialdiaren alorrera bereziki, zabaltzen dute.

*igeltseroa zen eta nirekin lan egiten zuen Huarten. Eta hark sartu ninduen ni saltsa hartan [Txantrearen eraikuntzan] [...] bertatik ere Chiquito, La Únicako bazkide zena ere, ezagutzen genuen*<sup>600</sup>. Txantreako lehenbiziko biztanleak aurreko sare batzuetan elkarren artean lotuta agertzen ziren eta honek gerora, izugarri erraztu zuen auzoko eguneroko bizitzan eta bizitza sozialean elkartasun harremanak eta sozializatorako esparruak sortzea.

Etheen eraikuntzaren aldia bera ere, gerora auzoan garatuko ziren berezko sareen oinarriak jartzeko abiapuntu garrantzitsua izan zen. Auzoaren lehen aldi hau aztertzerakoan ikusi dugu lan taldeen mekanikatik eta eraikuntza prozesuaren bizipena partekatsetik, taldeen baitan eta taldeen artean auzolanean eta konpromisoan oinarritutako elkartasun lotura estuak sortu zirela. Halako loturak, eraikuntza prozesuaren bitartean elkarren ondoan lan egiten zutenen artean ikusten ahal dira argien, langileek eraikuntza aldian sortu zituzten harremanek, zuzeneko jarraipena izan baitzuten euren berehalako ingurunean: orduan taldekide izandakoak, elkarren ondoan -etxebizitza bloke berean- bizi ziren orain eta orduan parez-pare etxebizitza bloke desberdinak eraiki zituzten lan talde desberdinetako langile izandakoak, kale bereko bizilagunak ziren orain. Gertutasun honek, gabonak bezalako ospakizunak partekatzea edota aisialdia modu sinplean baina elkarrekin igarotzea (kaleko solasaldi kolektiboetan) eramaten zituen anaitasun edota familia izaerako harreman mota bat eratu zuen haien artean:

[...] hona iritsi berriak ginela [...] guztiok anai-arrebak izango bagina bezalakoa zen [...] Gabonak iristen zirenean, guztiak elkartzen ginen, aire hozkirria iritsi eta kalera ateratzen ginen, aulkiak ateratzen genituen (orduan ez zegoen errepiderik guzti hau mahastiak zirelako) eta han egoten ginen, aire hozkirrian egurasten, txisteak kontatzen...<sup>601</sup>

50. hamarkadaren bitartean auzo bizitza dinamizatzen eta komunitatea artikulatzen hasiko ziren sozializatorako esparruak eta ekimen herrikoiak, sare hauetatik abiatu ziren. Urte haietan, bizilagunen ekimenez sortu ziren lehenbiziko berezko guneak, kirol elkarte bat, auzoko peña eta zentro parrokiaren inguruan bildutako hainbat talde izan ziren<sup>602</sup>. Guztiak funtsezkoak izan ziren Txantreako komunitatearen hastapenetan, izan ere, berauetan, kirolaren praktikaren, aisialdiaren edota erlijiozaletasunaren bitartez, bizilagunen arteko elkarbizitza komunitarioa garatu zen.

*Unión Deportiva Hogar Chantrea* kirol elkarte (gerora, *Unión Deportiva Cultural Txantrea Kirol eta kultur elkarte* izango denaren aitzindaria) auzoa oraindik jai berria zela sortu zen. “Francisco Franco” patronatuak egin zuen Txantrea eraikitzeke lehen fasearen proiektuak, kirolgune bat eraikitzeke esparru bat aurreikusten zuenez, harengandik auzoarentzako futbol zelai bat egiteko lursailen donazioa lortu zuen bizilagun talde batek. Lursailen emate hura 1952an gauzatu zen eta bizilagun talde hura, segituan, kirol elkarte bilakatu zen. Lehenbiziko urteetan, elkarteak, berezko kirolgunerik gabe funtzionatu behar izan zuen. Luis Valero Bermejo izena hartu zuen futbol zelaia bazuen, baina ez beste inolako azpiegiturarik (esate

<sup>600</sup> J.D.C.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-02-19.

<sup>601</sup>J. D.C.-ri (elkarrizketatuaren emaztearen hitzak). Iruñea, 2009-02-19.

<sup>602</sup> Bizilagunek berek, euren kabuz eta atal honen hasieran aipatu sareez baliatuz sortu zituzten esparruak azalera zea da interesatzen zaiguna. Horrek ez du esan nahi auzoan existitu egiten ziren esparru bakarrak izan zirenik. Erregimenaren asoziazionismoak bere esparruak izan zituen, “Hogar del Productor” eta “Frente de Juventudes” esateko (“En la Chantrea el domingo por la tarde, el Sr. Obispo bendijo el “Hogar de San Francisco Javier” del Frente de Juventudes de la barriada y entronizó el sagrado corazón de Jesús en el círculo de recreo de los trabajadores”, DN 1952-08-05, 3. orr.), baina hauen presentzia soziala, orokorrean eta ikusi dugun esparruenarekin alderatuta, txikia izan zen.

baterako, eraikin sozialik gabe, lehen bazkideek euren bilerak auzoko “Hogar del productor”aren lokalean egin behar izaten zituzten). 1958 urtera arte ez zen kirol instalazioen inaugurazio ofiziala izan. Urte hartan azkenik, igerileku olinpikoa, frontoia, futbol zelaia, aisialdirako terraza eta taberna barne hartzen zituen kirolgune osoa, auzora zabaltzen zen <sup>603</sup>.

Auzoaren eta elkartearen hastapenetan azken honek antolatzen zituen ekimenak, auzoan kirolaren praktika kolektiboa sustatzea zuten helburu. Adibidez, 50. hamarkadan zehar, urtero, jarduera mordoa antolatzen zuen San Jose egunerako: auzoa zeharkatzen zuen lasterketa (San José herri krosaren aitzindaria), auzo mailako pilota txapelketa, futbol partidak, haurrentzako jokoak... Auzoko Acción Católicaren gazteria sailarekin elkarlanean antolatutako egitaraua izan ohi zen, harreman sareek eta sozializatorako esparruek sarri, halako dinamiketara bat egiten zutelara erakutsiz<sup>604</sup>. Kirolgunea estreinatu ondoren, 60. hamarkadaren bitartean, kirol ezberdinen praktikarako esparru bilakatu zen. Jatorrian futbol zelaiaren eraikuntzari lotutako elkarteak izan zenez, jarduera nagusia futbola izan zen, elkarteko taldea kirol lehiaketetan ofizialki parte hartzen hasi zelarik ere. Baina hamarkadak aurrera egin ahala, elkarteak, kirol desberdinetako berezko taldeak sortzen hasi zen (patinajekoak, eskubaloikoak edota txirrindularitzakoak). Talde hauekin, elkartearen jardura esparrua, auzo mailako ekimenetatik, Iruñea zein Nafarroa mailako txapelketetara edota lehiaketa erregularretara zabalduta zen.

Auzoko peña 1956an jaio zen, urte hartako Sanferminetako zezenketetarako abonamenduak erostearren, Felix tabernan elkartzen zen mutil talde gazte bat dirua biltzea erabaki zuenean:

Nire ideia izan zen Felixenean musean jokatzeko ari ginela... nirea eta beste batena, *el Pilarena*, nire bikotea izan ohi zen [musean], biak Buesan lan egiten genuen elkarrekin. Orduan Felix tabernan elkartzen ginen eta bera etorri zen eta [...] [esan zuen] “oye, aquí [podemos] hacer una peña para San Fermín” eta Ducados zigarreta paketea eta zurgin arkatza atera zituen eta izenak apuntatu zituen [...] nik [jende gehiago] abisatu nuen... eta horrela jaio zen peña [S.G.. Txantreako bizilaguna]

Abonamenduak erosteko dirua lortu eta 1956ko Sanferminetan taldean eta berezko janzkerarekin azaldu ziren zezen plazan. Txantrean, jaiak iraun bitartean, auzo animatu zuten egunetik egunera. Ekimenak oihartzun handia izan zuen eta laster ehun ta berrogeita hamar gazte baino gehiago batu zitzaizkien<sup>605</sup>. Arrakasta hura ikusita, hurrengo urterako Iruñeko peña ofizial bihurtzeko eskaria egitea erabaki zuten. Peñaren jaiotza eta honek auzokideen artean lortu zuen arrakasta, lau urte eskaseta auzoak garatu zuen bizitza sozialaren adibide adierazgarria dira. Izan ere, halako elkarte bat osatzeko ekimenak berak eta auzokideek hari, aktiboki parte hartuz, eman zioten erantzunak, Txantrean auzo bizitza kolektibo bat sustatzeko kezka bazegoela eta bizilagunen artean autoantolaketarako gaitasun garrantzitsu bat bazegoela erakusten zuten. Peña bat sortzeak gainera, Iruñeko asoziazionismo herrikoia formarik tipikoa auzo mailan garatzea suposatzen zuen eta honek, hirikoaz aparteko

<sup>603</sup> “Inauguración de las instalaciones deportivas de la Chantrea”, DN 1958-07-19, 3. orr.

<sup>604</sup> “Bihar, [martxoak] 19, gure auzo maitearen patroia den San Joséren jaieguna ospatzen da, Hogar Chantrea Kirol Elkarteak, Acción Católicaren gazteria sailarekin lankidetzan, hainbat ekitaldi antolatu ditu [...]”. “Las fiestas de San José en la Chantrea”, DN 1955-03-18, 5. orr. Acción Católicaren gazteria sailak antolatzen zituen ekitaldien artean, erakunde erlijioso eta kirol taldeentzako elkartasun mezak edota parrokia gaubelak nabarmentzen dira.

<sup>605</sup> “Sanfermin haietan auzoa alaitu genuen [...] gure taldeak [auzoko] gazteriaren artean eragina izan zuen y Sanferminak amaitu zirenean, serio jarri ginen eta ehun ta berrogeita hamar bazkide inguru biltzea lortu genuen”. Miguel Iraizoz Cía, Peñako lehen lehendakariak 1982an idatziko gutuna; jasoa, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 113 orr.

berezko bizitza soziala zuela adierazten zuen. Era berean, auzo identitate desberdinu bat sortzeko prozesuan zegoela iragartzen zuen nolabait, izan ere, Sanferminena bezalako kontestu batean, auzoko peña bat, hiri esparru zehatz bati eta bertan bizi zen biztanlegoari lotuta azaltzeagatik bereizi egiten zen hiri osoaren begien aurrean.

Sanferminetan “*parrandarako eta umore oneko gauzetarako*”<sup>606</sup> antolatzen ziren jardueraz aparte, peñak jarduera bizia izaten zuen urtean zehar. 60. hamarkadatik aurrera, auzoko bizitza sozialaren erdigune bezala sendotu zen eta bertan, mota askotariko ekimenak, kirol edota kultura jarduerak kasu, antolatzen hasi ziren auzokideentzat. Peñaren ekimenez sustatu ziren mendi-taldea, txistulari taldea, Boscos txapelketarako futbol taldea, euskal dantza eta are diska eta guzti argitaratu zuen errondaila<sup>607</sup>, karitate saila, gai desberdinen inguruko hitzaldi zikloak edota zinema jaialdiak, urte haietan auzoa dinamizatu zuten elementu garrantzitsuak izan ziren

Zentro parrokiala, auzoaren hastapenetan, sozializatorako oso esparru garrantzitsua izan zen bizilagunentzat. Gogoan izan behar dugu erlijioa eguneroko bizitzan oraindik oso presente zegoela eta ondorioz, meza, erritu erlijiosoak, edota prozesioak, gertaera sozial garrantzitsuak izan ohi zirela auzoko bizitza sozialean. Are gehiago espiritualtasun sakona azaltzen zuen eta haren erlijiotasuna oso aktiboki erakusten zuen auzoteria batean. Manuel Elvira apaiz laguntzailearen hitzetan hori zen, hain zuzen, Txantreako biztanleriaren kasua: “*Erlijiotasunari dagokionean, gure auzoko jendea oso ona eta oso erlijiosoa zen, parrokiara ere etortzen ziren euren jatorrizko herrietako debozio tradizionalak eskatzera. Gogoratzen dut Uxueko talde handi bat zegoela eta Uxueko Ama Birjinaren bederatziurrena egitea eskatzen, exijitzen, zigutela. Modu honetan euren ohiturekin, euren erlijiotasunarekin jarraitzen zuten*”<sup>608</sup>. Horregatik, auzoko parrokia erraz sendotu zen komunitate haren erdigune sozial gisara eta horregatik lortu zuten eragin handia bizilagunengan haren baitan sortu ziren sozializatorako esparruek, hots, zentro parrokialak eta Acción Católicaaren auzoko etxeak.

Zentro parrokialak, adibidez, bere jarduera erlijioaren alorretik haratago garatzen zuen eta auzoteriaren arteko harreman sozialak dinamizatzeko, ekimen mota ezberdinak sustatzen zituen: kulturalak, musikalak eta artistikoak, San José koralaren sorrera bezala; gizarte ekintzakoak, eskaintzen ziren formakuntza eta aholkularitza zerbitzuak bezala; aisialdikoak, giro “osasungarriak” eskaintzearen, auzoko gazteentzat antolatzen ziren ateraldi, jaialdi edo kirol jarduerak bezala:

Hemen, San José parrokiako zentroan ginen eta apaiza etorri zen, Aizue jendea bildu behar gara futbol talde bat osatzeko... taldea osatu genuen eta gero han behean, zerratokiaren ondoan, anbulatorio zaharra zegoen tokian jolasten ginen... bertan aritzen ginen futboleko bai, San José parrokiarekin [...] apaiza etorri zen eta honek, jende gaztea bildu nahi zuen eta... [S.G.. Txantreako bizilaguna]

Parrokiari oso lotuta, auzo mailako Acción Católicaaren zentroa sortu zen. 1955ean izan zen inaugurazioa<sup>609</sup>. Estreinatze ekitaldian, orduan Txantreako parrokoa zen Mariano Elarrek, esparru hark auzoan bete behar zuen funtzioa zein zen azaldu zuen: elizak egiten zuen lan espiritualaz haratago, zentroak lan soziala eta kulturala egitea izan

<sup>606</sup> S.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2009-05-13. Peñako sortzaileetariko bat eta lehenbiziko bazkideetariko bat izan zen.

<sup>607</sup> "La rondalla Armonia Chantreana ha grabado su primer disco de música popular", DN 1964-10-11, 16 orr.

<sup>608</sup> Manuel Elviraren hitzak. Jasoa, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 107 orr.

<sup>609</sup> "La Chantrea cuenta con una nueva casa-centro de Acción Católica", PN 1955-12-20, 3 eta 10. orr.

behar zuen hizpide. Gotzainak, bere aldetik, zentro hura apostolutza sekularrenen “mundu hobeago baten aldeko” agindua auzora zabaltzeko erdigunea izan behar zela aldarrikatu zuen. Praktikan, egitasmo hauek gauzatzeko ardura, zentro hartan egoitza izango zuten auzoko HOAC eta JOC bezalako apostolutza mugimendu sekularren esku geratu zen.

Zentroa inauguratu ondoren, auzo mailako HOACa aktiboki funtzionatzen hasi zen: lan talde egonkor bat sortu zuen eta jarduera jarraitu bat garatu zuen<sup>610</sup>. Hasierako HOACeko militanteen nukleo hau, Txantrean osatzen hasia zen komunitateari klase izaera eman zioten eragileen artean, lehenbizikoetariko bat izan zen. Alde batetik, auzo errealtateetara apostolutza mugimenduei berezkoa zitzaien Behatu, Juzgatu eta Ekin metodologiaren bitartez hurbiltzeak, HOACeko militanteak errealtate horiek aldatzeko konpromiso aktibo bat hartzera eramane zituen, konpromiso horrek, era berean, auzoan abiatuko ziren ekimen herriko guztietan parte hartzera<sup>611</sup> bultzatu zituelarik. Ikusiko dugunez, auzo elkartearen nukleo sustatzailearen parte izan ziren. Militante hauek, hartara, aurreko atalean aipatu dugun kultura katoliko berria, auzo sareetatik, sozializazio esparruetatik eta aipatu ekimen herrikoietatik zabaldu zuten. Bestetik, enpresa desberdinetan lan egiten zuten auzoko HOACeko militante hauek, fabrika eta auzoa, auzoa eta fabrika, elkarlotzen zituzten norabide bikoitzeko sareen lehen korapiloak izan ziren<sup>612</sup>. Sare hauek ezinbestekoak izan ziren langile mugimenduak auzo komunitateengan eragina izateko. Esate baterako, hauei esker, auzoa, langile mugimenduak sustatutako lan gatazketan inplikatzeko, borrokak eta grebak iraurarazten laguntzen zuten asistentziarako eta elkartasunezko paper garrantzitsua betetz. Txantreako HOACeko lehen nukleo hartako kide izan zen E. A., auzoko bizilaguna eta fabrikako langilea zen heinean, norabide bikoitzeko harreman haien oinarri goiztiarrenak jartzen lagundu zuen. Torfinasako langilea zen eta 1957an iritsi zen Txantreara. Laster, lehengusu baten bitartekaritzari esker, auzoko HOACeko nukleoan hasi zen lanean. Fabrikan, bertako langile batzordeko kide egin zen eta lehenbizi Torfinasan eta gero Imenasan, Comisiones Obrerareko pieza garrantzitsu bat izan zen. Lehenbizi auzo mailako HOACeko militante izateagatik eta gero auzoko hainbat sozializazio esparrutan eta ekimen herrikoietan (parrokian, komunitate kristauean) parte hartzeagatik, auzokideak barne hartzen zituen harreman sare zabala zuen auzoan. Fabrikan, lan gatazkaren bat gertatzen zenean (1971an Imenasan izan zen berrogeita bost eguneko greba kasu), sare hauetaz baliatzen zen greban zeuden langileentzako laguntza ekonomikoa biltzeko edota bilerak zein hitzorduak egiteko tokiak lortzeko<sup>613</sup>.

#### 4.2.6 Txantrearen historiaren berrirakurketa: auzo komunitate baten sorrera

Txantrearen historiaren lehen aldi honetan, auzoaren baitan sortzen ari zen komunitateak haren buruaz irudi jakin bat egitea ahalbidetuko zuten oinarriak finkatu ziren. Auzoaren jaiotzaren berezitasuna, auzoteriaren homogeneotasun soziala eta

<sup>610</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-11. Bera orduan iritsi zen Txantreara eta jada funtzionatzen zuen talde bat topatu zuen.

<sup>611</sup> Txantrea Kirol elkartearen, Kristau komunitateen, Auzo Elkartearen, Auzotegi Kultur Etxearen eta kukuso merkatuaren lehen sustatzaileen artean, HOAC nukleo honetako militanteak topatuko ditugu. E. A.-ri egindako elkarrizketa (Iruñea, 2010-03-11) eta “El Adiós a Cecilio Goñi”, Iruñerrian Auzolan, 7. zkia, 2010eko martxoa, 24-25 orr.

<sup>612</sup> Auzoa fabrikarekin eta fabrika auzoarekin lotzen zituzten sareez, Xavier Domènech, “La otra cara...” Op. Cit., 99 orr.

<sup>613</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-11. Auzoan langile mugimenduarentzako laguntza ekonomikoa lortzearen sortu zituen harreman sareez: “Nik mutil bat nuen [sarean] eta [dirua] behar bagenituen, ba ez dakit, eskupaperak edo egiteko, ba bere tailerra joaten nintzen eta esaten nion: chavalico, que necesito [...]... [eta ematen zizkidan] [...]. [Mutil hori] gure kristau komunitateko kidea zen”

berezko auzo bizitza kolektibo eta asoziatiboa, Txantrea bereizi eta definitu egiten zuten elementuak izan ziren. Zentzu honetan, auzoaren hastapenen historia, auzo komunitate baten sorreraren historia gisara ulertzen ahal da, aztertu ditugun etxeen eraikuntzaren aldiak eta auzoaren lehenbiziko urteetan gertatu ziren hainbat fenomenoak, komunitate hori osatzeko elkarri eragin zioten elementu bezala ulertzen ahal diren moduan. Hau kontutan hartuta, Txantrearen historiaren berrirakurketa, modu honetan egiten ahal dugu:

Txantrea langileen eta gizarte sektore umilen kokagune izateagatik nabarmendu zen. Alde batetik, proiektua babes erregimeneko etxebizitzaren eraikuntza sustatzea helburu zuen "Francisco Franco" ongintzazko patronatuaren ekimen bat zenez, etxebizitza merkeak baliabide ekonomiko gutxiak populazioa erakarri behar zuten auzora. Bestetik, auzoaren lehenbiziko eraikuntza faseak prestazio pertsonalaren bidezko sistemarekin gauzatzearren, lehen promozioak eraikuntza enpresetan eta sektore desberdinetako fabriketan lan egiten zuten langileei zuzendu zitzaizkien, lehenengo auzokideak, halaber, langileak izan zirelarik.

Eraikitze aldia funtsezkoa izan zen kolektibitatearen ideia errotzeko eta auzokideen arteko lehen harreman sareak eratzeko. Prestazio pertsonalaren bidezko eraikuntza sistemak eta lan taldeen dinamikak, etxegileek *elkartasuna* eta *auzolana* bezalako kontzeptuak barneratzea eragin zuten. Etxeak eraikitze lan prozesu kolektibo eta partekatu hark gainera, langileen, etxeen, kaleen eta, orokorrean, auzoaren arteko lotura sendoak garatu zituen.

Auzokideak, eraikuntza prozesu berezi haren esperientzian lehenbizi eta eguneroko bizi baldintzatatik eratorritako bizipenetan gero, auzoan homogeneizatu edo maila bereko egin ziren. Hasteko, etxeen eraikuntza prozesuak berak etxegile-bizilagunak, euren langile egoeran, etxe bat jabetzan lortu ahal izateko hura euren eskuekin eraiki behar izatean eta proiektua aurrera ateratzeko egin behar izan zituzten sakrifizioetan berdindu zituen. Gero, bizi baldintzek, bizilagunak, norbanakoaren egunerokotasunean antzeko zailtasunei aurre egin behar izatean eta auzoan gabezia kolektibo komunak pairatu behar izatean parekatu zituzten.

Auzoan sortu ziren lehen harreman sareak, alde aurreko harreman moldetan izan zuten abiapuntu bat. Txantrea ezerezetik sortu eta ondorioz, auzo bizitzaren dinamikan harreman asko egiteke bazeuden ere, lehenbiziko bizilagunek, euren lantokietatik eta jatorrizko biziguneetatik, oinarriko harreman sareak ekarri zituzten berekin auzo berrira. Azken hauek, lagun taldeetan, peñetan edota lan esparruan garatutako adiskidetasunak zituzten oinarrian.

Lehenagoko sare hauek eraikuntza prozesuaren bitartean berriro eta zabaldu egin ziren. Taldean eta auzolanean lan egiteak, lotura sendoak sortu zituen bai talde bereko kideen artean eta baita lanean ari ziren talde guztietako kideen artean ere.

Lantokitik eta jatorrizko biziguneetatik ekarritako alde aurreko harreman sareak hala nola eraikuntza prozesuaren bitartean sortutako harreman sare berriak, auzoan batu eta garatu ziren, haren baitako bizitza soziala modu komunitarioan dinamizatuz. Honela jaio ziren auzoko lehen sozializazioarako esparruak: Kirol elkarteak, auzoko peña, zentro parrokiala, Acción Católicaaren etxe-zentroa eta auzoko mailako HOAC militanteen lehen nukleoa. Hauek, bizilagunen topagune bezala eta kirola, aisialdia, gizarte ekintza edota kultura barne hartzen zituen auzo bizitza kolektibo baten sustatzaile bezala garatu ziren, berauetan komunitate baten parte izatearen sentimendua eratuz joan zelarik.



Komunitatea bere burua klase terminoetan definitzera eramango zuten eragileak, harreman sareetan eta sozializazio esparruetan jarduten hasi ziren sartzen. Auzo mailako HOAC militanteak, adibidez, auzoa eta fabrika, auzokideak eta langile mugimendua, elkarlotzen zituzten norabide bikoitzeko sareen zabalkuntzan presente egon ziren, auzoa, lan gaztakeria eta langile borroken sostengurako funtsezko elementu bilakatu zutelarik.

Txantreako auzo komunitatea klase terminoetan definituko zuten eragileen jardura ordea, auzoaren historiaren hastapenetako aldi hau baino berantiaragoa izan zen eta ez zen 60 eta 70. hamarkadetara arte orokortu. Orduan, ordura arte bizitza komunitarioa artikulatu izan zuten sareak eta esparruak zabaldu eta garatu egin ziren, militantzia sozialean eta politikoan jarduteko, auzo elkartasuna erakusteko edota auzo identitatea gorpuzten zuen berezko kultura komunitario bat gizartekotzeko gune bilakatu ziren. Eragileok, beraz, jardun zuten aipatu kultura hari klase edukiak emanaz.

### 4.3 LANGILE SOZIALIZAZIOA ETA AUZO KOMUNITATEEN GARAPENA

Egitan, langileak ginen toki guztietan biltzen ginenak. Guraso elkarteetan, kirol elkarteetan, peñetan... guztiak langilean ginen. Auzoetan langileak baino ez zeuden! Orduan noski, hor dago koska...horregatik diete horrenbestearinoko beldurra langileei... batzuei langileon jarduera alor sindikalera, fabrikara, mugatzea gustatuko litzaieke, soilik enpresa den kutxa hartan sartuta egotea; [izan ere] auzoetara [ere] ateratzen garenean [...] orduan biziki izorratzen ditugu [R.U.. Authiko langilea. Burlatako bizilaguna]

Txantreakoa bezalako komunitate desberdinduek azaltzen zituzten klase terminoetan definitutako auzo identitateen garapena, auzo hartan bertan sortzen ikusi ditugun sozializatorako esparruetan gauzatu zen. Prozesu horri heldu gabe, puntu honetan utzi dugu komunitate txantrearrari buruzko azterketa aurreko atalean. Oraingoan, langileen sozializatorako esparru desberdinek ideien eta jokabideen gizartekotzerako, militantzia sozialean eta politikoa jarduteko hala nola elkartasuna erakusteko gune bihurtzeko bidean bizi izan zuten bilakaera izango dugu hizpide. Izan ere, esparru hauek, informagoak edo antolatuagoak izan, eragile ezberdinek klase edukiak sozializatzeko erabili zituzten bitarteko garrantzitsuak izan ziren heinean, funtsezkoak izan ziren komunitateen [auzo eta klase] identitateen artikulazioan. Ildo horretan, atal honen helburua langile soziabilitatearen azterketa orokor bat egitea izango da, asmo bikoitzarekin: lehena, langileen sozializatorako gune gisara jardun zuten esparru desberdinen behaketaren bitartez, auzo komunitateen eraketa prozesuaren jarraipena egitea; bigarrena, auzoetan barna egiteaz haraindi, langileen sozializatorako esparruek, Iruñea osotik ere auzoak, sareak eta subjektuak elkarlotzen zituztela ikustea. Honela, soziabilitateak eta haren esparruak auzoa klasearen eraketa emango den zirkuituaren parte egiten duten bezala, eurak bakarrik, aldi berean, puntu garrantzitsuak izango dira zirkuitu horren baitan.

Soziabilitatea ikerketa alor interesgarria da langileei berezkoa zaien esparrua den fabrikaz haraindi, beste motatako langile esparruak bazirela azalertzeko. Zuzenean eremu politikotik edo lan mundutik eratortzen ez diren elkarte jarduerak barne hartzen ditu eta honekin, lan garrantzitsua betetzen du bateragune sozial bezala: alde batetik, gizabanakoak, komunean dituzten interesen inguruan biltzen ditu; bestetik, elkarte horrek, desberdintasun sozial zein ideologikoak leuntzen edo areagotzen laguntzen dute, berauetan zabaltzen den mezu ideologiko eta politikoen arabera<sup>614</sup>. Honela, esaterako klubak, elkarteak edota lagun-taldeak harremanak egiteko, mota askotariko esperientziak bizitzeko, iritziak, baloreak eta ideiak zabaltzeko eta hainbat jokabide barneratu eta errepikatuzko tokiak izan zirela ikusiko dugu<sup>615</sup>. Zentzu honetan, sozializatorako esparruak identitate kolektiboen berrosatzean eta sorreran laguntzen duten elementuak direla esan daiteke. Paper nabarmena dute, adibidez, identitate haiek alde aurreko tradizioetatik abiatzen ez direnean<sup>616</sup>. Desarrollismoaren garaian sortu ziren auzo berrien kasuan, hauek hutsetik sortuak izan zirenez eta ondorioz euren identitateak hutsetik abiatu zirenez, berezko identitateak egituratzeko eta garatzeko ezinbestekoak izan ziren, auzo bizitza

<sup>614</sup> Mikel Aizpuru, "El asociacionismo popular ¿Reverso de organización social del franquismo? El caso de Barakaldo", Santiago Castillo eta José María Ortiz de Orruño (koord.), *Estado, Protesta y movimientos sociales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1998, 477-494 orr., 478 orr. Zentzu honetan soziabilitatea, oposizio politikoa indartzean eta demokraziarengatik borrokan lagunduko zuten jarraibide sozial, kultural eta politikoak garatu eta zabaltzeko esparru oso eraginkor bezala azaltzen zaigu.

<sup>615</sup> Amaia Lamikiz, "El problema del ocio: la organización del tiempo libre de la juventud trabajadora en Guipúzcoa en la década de 1960", *Vasconia*, 30. zkia, 2000, 283-293 orr., 284 orr.

<sup>616</sup> Mikel Aizpuru, "El asociacionismo popular..." Op. Cit., 478 orr.

dinamizatzen zuten heinean, bestelako esparrurik ez zegoenean (tradiziozko esparru soziopolitikoak) bizilagunak euren ingurura biltzen zituztelako.

Frankismoaren bitartean, gizarte sektore herrikoen bizitza soziala berpiztuz joan ziren esparru antolatu zein informalak egon ziren. Harreman sozialak egiteko oinarrizko gune izan ziren heinean, sareak sortu eta zabaltzeko erdigune abantailatsu gertatu ziren, militantzia soziopolitikorako sarbide gisara itxuratu zirelarik. Hala gertatu zen are soziabilitatearen oinarrizko mailetan, lagun taldeetan esaterako. José Antonio Perezek azaldu duenez, Bilbon, kuadrilla edota baxoerdietan ibiltzea gizarte harremanen garapenerako funtsezko elementuak izan ziren eta hainbat kasutan, berauetatik jarduera soziopolitikoak sustatu ziren<sup>617</sup>. Iruñea bezalako hiri txiki batean erraza zen horrela izatea, ia-ia mundu guztiak elkar ezagutzen zuelako edo gutxienez, harreman sare ezberdinen bitartez elkarlotuta zegoelako eta halako erlazio informalek, hots, kuadrillek, futbol taldeek edota jai sozial zein dantzaldiek, pertsona asko euren artean lotzen zituzten heinean, ideak, iritziak, jarrerak eta jokabideak zabaltzeko eraginguneak biderkatzen zirelako:

Talde hartan [VOJen aurreko formakuntza taldea] soilik hamar mutiko edo biltzen baginen ere, bakoitzak bere kuadrilla zuen, bat Txantreakoa zen, bestea Club Nataciónekoa, beste bati mendira joatea gustatzen zitzaion, beste bat orduan abertzaleak izan zitezkeen giroetatik zetorren [...] Jendeak orduan berezko harremanak zituen, familiakoak eta kuadrillakoak eta [haiekin] hitz egiten zuen, gai [soziopolitiko] haien inguruan hitz egiten zuen [PA.S. VOJeko militantea]

Halako lotura informalek horrenbestera garrantzia izan zuten, militantziarako esparru antolatuagoak, talde politikoak edo auzo elkarteak adibidez, aisialdirako sozializatorako esparruetan -mendian, lagun artean, dantzaldietan- sortutako harreman pertsonalekin elikatu zirela:

[alor] guztiak barne hartzen genituen. Ezta? Auzoetara iristen ginen, Auzo Elkarteetan jendea genuen... mugimendu orotan genuen jendea, bai [...] Kuadrilla eta kirola genituen ere. Egia da kirola, gustuko duzulako egiten duzula eta berez ez dela horretarako... baina beno, beti saiatzen zara [han ere] zure ikuspegia ematen, norbait saltsara erakartzeko esperoan, ezta? [...] Niri mendia ez zitzaidan gustatzen, ez jarduera praktikatzeko eta ezta bertan proselitismoa egiteko ere, baina lagun artean egiten nuen. Lagun batengana joan nintzen eta esan nion Aizu, begira... ikusi nuen halako sentsibilitatea bazuela eta azkenean alderdian sartu zen. Beste batzuekin ikusten zenuen ezinezkoa zela... baina beti saiatzen zinen. Orduan, toki guztietan horrela ibiltzen ginen, ezta? Nik gogoratzen dut garai hartan, kristona zen, dantzaldira joaten zinen eta han ere kalaka ematen zenuen... guztia elkarlotzen genuen eta nik uste dut horregatik ematen zela halako giroa eta kontzientzia Iruñean urte haietan [R.M.. CCOOeko militantea]

Harreman mota hauen garapenerako adibidez, tabernak oso esparru baliagarriak izan ziren. Sozializatorako esparruen artean nagusiena, ostatua, pertsona eta erlazio desberdinen konfluentziarako topagune garrantzitsua zen, bertara langile asko biltzen zelako eta eguneroko bizitza sozialean, jendearentzat erreferentzia puntu garrantzitsua zelako. Izan ere, *“Non elkartzen ginen? Beno, ba, alde batetik peñetan, ezta? eta bestetik... beti tabernetan dauden langileak badira, beti auzoetako tabernetan ibiltzen direnak; ni ez naiz haietariko bat, ezta? Baina berauetan elkartzen ginen bai, berauetan topo egiten genuen beti auzo bizitza egiten genuelako, auzoan integratzen ginelako [...] hau da, auzoan elkartzen zinen eta beno, bertan beti da jendearen gehiengoak biltzen duen tabernaren bat zegoen”*<sup>618</sup>. Are gehiago, peña, elkarte edota klub askok tabernetan sortzen ziren harremanetan izan zuen jatorria, haietariko hainbaten lehen egoitza soziala, berezko egonleku bat lortu aurretikoa, ostatu jakin

<sup>617</sup> José Antonio Pérez, *Los años del... Op. Cit.*, 97 orr.

<sup>618</sup> R.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-03-06.

batean kokatua egoteak aditzera ematen duen bezala<sup>619</sup>. Aurrerago, gatazka eta mobilizazio handien garaian, topagune izateaz beste, tabernak aldarrikapenak egiteko agertoki eta elkartasuna eskatu zein lortzeko leku bilakatu ziren, giro politikoa soziabilitatearen oinarritzko formetara oso modu naturalean iristen zela erakutsiz: *“Tabernetan asko hitz egiten zen politikaz. Nik hainbat esperientzia gogoratzen dut horren inguruan... [adibidez] kuadrillako zortzik edo, gau batean, taberna bateko elkarrizketa eteten genuela eta esaten genuela: Bihar greba orokorra Euskal Herrian... edo Nafarroan... eta parte hartzeko deialdia egiten dizuegu, sistema honekin amaitu behar dugulako... txaloak jasotzen genituen eta beste tabernaren batera joaten ginen [...] oso esperientzia naturalak dira, bai, eta oso onak”*<sup>620</sup>

Soziabilitateak honela, erregimenaren egituratik kanpo biltzeko, nor bere ideiak publikoki adierazteko edota politika egiteko eskubiderik ez zegoen testuinguru batean, askatasun partzelak lortzen hasteko esparruak eskaini zituen. Zentzu honetan, mugimendu asoziatiboak, aisialdirako momentu eta esparruak eta are musika bera, hitz egiteko, elkarren artean komunikatzeko, iritziak emateko, ikasteko, kontzientzia hartzeko eta libre sentitzeko, gune askeak izan ziren:

Guk erabiltzen genituen askatasun esparruak baziren... bazkariak egiten genituen eta bazkari haietan abesten genuen, protesta abestiak kantatzen genituen adibidez [...] eta hori, topatzen genituen esparru eskasetan, gure iritzia, aisialdizko giro batean bazen ere, azaltzeko modu bat zen. Gero ere jendea diskoteketan eta... nola esaten zitzairen? Guatequeetan harremanak egiten zituen [...] Han jendeak nolabaiteko askatasuna zuen, askatasun sentimendu bat zuen. Horregatik ziren garrantzitsuak guatequeak [...] han jendeak muxukatu eta guzti egiten ahal zuen! Eta halako kontestuetan musika elkartzeko eta sozializatzeko elementua zen [...] Protesta abesti asko zegoen [...] euskal abeslariak etortzen hasi ziren eta [...] Fermin Valencia bezalako kantautore asko zegoen ere, [honek] kontu zehatzei buruzko protesta abestiak kantatzen zituen eta... guzti horrek eragina zuen, jendeak bat egiten zuen halako abestiek. [M.P.. Apaiz langilea. Onenako langilea. CCOOeko militantea]

Ez zen erraza izan ordea, aipatu askatasun partzela haiek eskuratzea. 1964an elkartze lege berri bat promulgatu zen arte, asoziazionismoa oso mugatuta egon zen. Elkartek, euren sorrera arautzeko legeak xedatzen zituen parametro estuetara egokitu behar ziren eta hala egin arren, elkartearen sorrera baimenduko zuen gobernuaren erabakiaren mende geratzen ziren beti. Honek bideraezina egiten zuen edozein motatako langile asoziazionismoa, bai alderdi eta sindikatuekin batera, elkarte herrikoiak legez kanpo utzi zirelako eta baita gobernuak batzuen zein besteen birsortzea ekiditeko borondate argia azaltzen zuelako ere. Langileak, hartara, euren interesen adierazpenerako eta artikulaziorako esparrurik gabe geratu ziren, alor politikoan, sindikalean eta are eguneroko bizitza sozialean. Hutsune hau bereziki nabarmena izan zen erregimenaren kontrako erresistentzia jarduerak garatzerako orduan, esparru antolatu eta kolektiboez baliatzeko ezintasunaren aurrean, oposizio jarrerak intimitatera, familia eta lagun giroetara, mugatu behar izan baitziren. Gerraosteko eta 50. hamarkadako Iruñean, nolabaiteko oposiziozko jarrera xaloak sozializatzen ziren halako giroak existitu egin ziren. P.I.-en familia, adibidez, esparru eta sare intimo eta mugatu hauetan murgilduta bizi zen garai hartan<sup>621</sup>. Bereziki aitaren familia tradizio errepublikar errotukoa zen. Aitak, aitona eta osabak errepublikaren alde egin zuten gerra zibilean, erbesteratu egin ziren eta Frantziako kontzentrazio esparru desberdinetan egon ziren hainbat urtez. Frankismo betean

<sup>619</sup> Adibidez, “Los del Bronce” peñak, bere lehenbiziko kokagune soziala Iruñeko Alde Zaharreko kale nagusiko “García” tabernan izan zuen eta “Alegria de Iruña” peñak, San Agustín kaleko “Motor Club” tabernan. Los del Bronce eta Alegría de Iruña peñen erregistro txostenak. Archivo General de Navarra-Nafarroako Artxibategi Orokorra (hemendik aurrera AGN-NAO), Gobernu Zibilaren fondoa, Elkartek saila, 68 eta 69. kutzak, hurrenez-hurren.

<sup>620</sup> J.M.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-06.

<sup>621</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

Iruñera itzuli zenean, aitak eguneroko bizitzaren xehetasun xumeetan (prozesiotara joateari uko egitea kasu) eta hurbileneko harremanen artean baino ezin izan zituen erregimenaren aurreko erresistentzia jarrerak azaldu. Kuadrilla, *“Nire aitak Iruñean zuen kuadrilla [...] erabatean frankismoaren aurkakoa zen. Nik gogoratzen dut [...] aita [...], buruan lau ile ere ez zituen arren, astero Jarauta kalean, La Viña tabernaren parean, zegoen ileapaindegi batetara joaten zela ilea moztera [...] Juanito izena zuen bizarginak, oraindik gogoratzen dut... ni aitarekin joaten nintzen bertara eta [...] adibidez, zu iristen zinen eta bertan kuadrilla osoa zegoen Francori buruz hizketan, Franco ez dakit zer eta badakit zer... eta bapatean, ezagutzen ez zuten tipo bat sartzen zen eta guztiak isiltzen ziren, kontsigna bat izango balitz bezala, gauza itzela zen hori [...] Orduan [...] ba kuadrilla hartan guztiak ziren... noski, ezin zuten ezer egin [...] baina guztiak frankismoaren aurkakoak ziren eta ahal zutena egiten zuten, ba txapela jartzen zuten edota txistura joaten ziren, ezta? nolabait jarrera xalo bat islatzen zuten gauza txikiak ziren”*; bizilagunak, *“eta [nire aitak ere] harremanak zituen, adibidez... amak arropa egiten zion [bizilagunaren] aita Balmasedatik etorri zen erbesteratua abertzalea zelako, eta gizon hau beti zegoen konspiraziotan... beno, konspiraziotan ez, beti marmarrean ari zen: Franco putakume hori... eta nire aita zoriontsua zen berarekin”*; eta egunerokoan frankismoaren aurkako elementuen bilgune zen familiaren denda, *“nire amonaren denda izugarria zen egunero tertulia moduko bat sortzen zelako bertan eta noski, sekulako elementuek parte hartzen zuten [...] Adibidez Ramón Bengarayren arreba, Magdalena, gure ondoan bizi zena... ba Magdalena Bengarayk, prozesioa gure kaletik igaro eta mundu guztia balkoira ateratzen zenean, nabarmenkeriaz leihoak ixten zituen”*, izan ziren aipatu sare edota esparru hauetarik batzuk.

Urte haietan, bizitza asoziatiboa estatuaren eta elizaren monopolio ziren eta askatasunez sortzeko eta jarduteko aukera zuten elkarte bakarrak, erregimenaren baitan jaiotakoak (gazteen Frente de Juventudes, emakumeen Sección Femenina) eta elkarte katolikoak izan ziren. Hauen artean, Elizari lotutakoak, hau da, Acción Católica eta bere erakunde desberdinak, zentro parrokiak eta are ikastetxe erlijiosoetako ikasle ohien elkarteak, izan ziren esparru asoziatibo dinamikoak. Acción Católicaaren erakundeek alor desberdinetan lan egiten zuten. Lan mundua, gazteria edota ikasleria bezalako alor sozialetan elkarte eta jarduera ezberdinak abian jartzen zituzten eta haei esker, eragingune garrantzitsuak lortzen zituzten. Zentro parrokiak bizitza asoziatiboan interesa zuen ororen erreferentzia puntu nagusi bezala jarduten zuten. Ikastetxe erlijiosoetako ikasle ohien elkarteek jarduera oparoa erakusten zuten aisialdiaren eta kulturaren alorretan eta euren bazkideentzat, meza kolektiboak, jaialdiak, kirol taldeak, txangoak, aldizkariak edota zinema emanaldiak antolatzen zituzten<sup>622</sup>. Ikusten ahal denez, Elizak, giro desberdinetik zabaltzen zen sare asoziatibo bat sortu zuen, estatu berriak aitortzen zion mugimendu askatasunari esker talde eta elkarte anitz sustatzeko aukera izan baitzuen. Hauek gerora, edozein jarduera erlijiosotzat edo ez erlijiosotzat jotzeko irizpideen zehaztasunik ezaz probetxu hartuta, esparru asoziatibo alternatibo bat sortzeko egiazko oinarriak izan ziren<sup>623</sup>.

Elizaren elkarte hauek oso aktiboak izan ziren gazteriaren aisialdiaren giroan. Gazteak Ingurugiro mesedegarri batean sozializatzea eta hezteak zuten helburu eta horretarako, zentzu moralean osasungarriak ziren aisialdirako moduak sustatzen zituzten. Amaia Lamikizek adibidez, elkarte haietariko bat, Acción Católicaaren

<sup>622</sup> Iruñean, oso aktiboak ziren, adibidez, Salestarren Ikasle Ohien Elkarte eta San Antonioko Haur Kantarien Ikasle Ohien Elkarte. Azkeneko hau, beste gauza askoren artean, Iruñeko Olentzeroren desfilea antolatzen zuen: "Hoy recorrerá nuestras calles el Olentzero", DN 1961-12-24, 2 orr.; "Hoy a las 7, sale el Olentzero por las calles de nuestra ciudad", DN 1966-12-24, 28 orr.; eta "Olentzero, pamplonés", DN 1970-12-23, 22 orr.

<sup>623</sup> Amaia Lamikiz, "El problema del..." Op. Cit., 285 orr.

mendekoa zen OARGUI (Obra Atlético Recreativa de Guipúzcoa) aztertuz, Elizaren asoziazionismoak Gipuzkoako gazteen aisialdian izan zuen esku hartzea zelakoa izan zen azaleratu du. Zuzenean parroketako gazteen ekimenez sortuak, OARGUI talde ezberdinek kirol, aisialdi eta kultura jarduerak antolatzen zituzten. Mendirako txangoak, herri kirolak, euskal erromeriak edota txistuaz lagundutako euskal dantza emanaldiak barne hartzen zituzten jaialdiak izaten ziren ohikoenak. Hauekin batera, askotan ere, euskararen sustapenerako ekintzak burutzen zituzten, euskaraz ematen ziren hitzaldiak, antzerkiak edota euskarazko eskolak, besteak beste. OARGUI taldeen kasuan, aipatzekoa da 50 eta 60. hamarkadetan, euren jarduera hau, mende hasierako nazionalisten jardueraren oso antzekoa zela, halako elkarte katolikoen esparruen eta lehengo talde nazionalisten jardueraren artean nolabaiteko harremana egon zela iradokitzen ahal delarik. Harreman horretan, Elizak, gazteria erakartzearen, euskal izaerako jardueren mobilizaziorako gaitasuna erabiltzen zuen eta nazionalismoak, Elizak eskaintzen zuen antolakuntza azpiegituraz eta babes legalaz probetxu hartzen zuen<sup>624</sup>. Kasu hauetan, Elizaren elkarteek gazteria aisialdi ingurune batean sozializatzen zuten, baina sozializazio horrek izaera soziopolitikoak, nazionalista, zuen.

Asoziazionismoaren suspertzea eraldaketa sozialarekin batera etorri zen elementuetariko bat izan zen. Elkartze sozialerako bereziki ilunak izan ziren debekuzko, mugaketazko eta baldintzazko urteen ostean, 1964ko Elkartze legeak, gizarte berriak azaltzen zituen harremanatzeko gogo berriei bide eman zien. Orduetik aurrera, kirolaren, aisialdiaren edota kulturaren alorretan forma asoziatibo berriak ugaritu ziren eta hauekin, aukeraz beteriko esparru zibil zabal bat ireki zen. Garai hartan, langile soziabilitatea esparru honetatik abiatuta garatzen hasiko zen hein handi batean, diktaduraren kontestuan, politikoki eta sindikalki elkartzeko ezintasunaren aurrean, asoziazionismoak aukera onak eskaintzen zituelako.

Orduan Iruñean, estatuko beste toki askotan bezala, elkartze mugimenduaren loraldia bizi bazen ere, asoziazionismoaren garapenak hainbat berezitasun izan zituen. Izan ere, 1964ko legearen aurretik, Iruñerrian bazegoen estatuaren eta Elizaren giroetatik aparteko esparru asoziatibo bizi bat. Esate baterako, karlismoari lotutako sare asoziatiboak oinarri garrantzitsuak mantendu zituen, Bateratze Dekretuak haren berezko jarduera irentsiko zuela pentsatzen ahal zen arren. Alde batetik, aisialdiaren eta kulturaren alorrean, jarduera bizia zuen Muthiko Alaiak elkarteari eutsi zion, karlismo gazteenarentzat bilgune garrantzitsu bat bermatuz. Bestetik, gizarteratze soziopolitikorako berezko oinarrizko esparruak, Zirkulu Karlistak, mantendu zituen. 1945ean behin betiko Iruñeko Zirkulua gobernuaren aginduz itxi bazen ere, Atarrabia bezalako beste tokietan, Zirkulu Karlistaren izena galdu eta aisialdirako elkarte soil bihurtu arren (hemen Sociedad Recreativa “La Villavesa” deitzera igaro zen), esparruak, herriko karlismoarentzat erreferentzia eta topagunea izaten jarraitu zuen. P.M.-ren familia elkarteko tabernaren arduraduna izan zen denboraldi batez eta horregatik, oso gertutik bizi izan zuen honek, frankismoaren amaiera aldera, herriko oposizioaren eta “ezkerraren” bilgune bilakatu arte bizi izan zuen bilakaera:

Zirkulua ez zen berez “Zirkulu Karlista” deitzen, Francok guztiak ilegaltzat jo zituelako; eta orduan [Atarrabiakoa] legez kanpo uztea ekiditeko, zirkuluaren baitan elkarte bat sortu zuten, “Sociedad Recreativa La Villavesa” deitu zena. Orduan jada ez zen Zirkulu Karlista, “Sociedad Recreativa La Villavesa” zen eta izen horrekin ofizialki funtzionatzen zuen [...] mundu guztiari irekia zegoen [...] gu [tabernaz] arduratzen ginenean, ba berrehun ta berrogeita hamar bazkide izango ziren, baina mota guztietako jendea zen, ezta? Egiatan, ba... azken etapan,

<sup>624</sup> OARGUI talde hauek, esate baterako, abertzaletasunaren soziabilitatean tradizio handia zuten mendizaletasuna bezalako jarduerak antolatzen zituzten edota euskal tradizio herrikoiak berreskuratzen zituzten ekintzak (Olentzero kasu) sustatzen zituzten. Ikusi Amaia Lamikiz, “El problema del...” Op. Cit., 290-291 orr.

frankismoaren amaiera aldera, ba 71 edo 72tik aurrera, langile mugimendua bertan... bilerak egiten zituen. Atarrabiako langile mugimenduaren pizgarria bertan zegoen. Eta bertara etortzen ziren ba [...] hitzaldiak ematera; hitzaldi klandestinoak ziren nolabait, ez erabatean klandestinoak baina beno... guzti hori mugitzen hasi zenean Auxilio Goñi eta etortzen ziren hitzaldiak ematera;. Eta gero ba, beranduago, sindikatuak eratzen ari zirenean[...] ere hitzaldiak egiten ziren bertan, beste toki batzuetan ere, ez dut esaten bakarrik [zirkuluan] egiten zirenik[...] Baina tira, ez zegoen biltzeko toki askorik ere eta orduan Zirkulua nolabaiteko ezkerreko kutsua zuenez [...] [P.M.. Atarrabiako bizilaguna]

Baina Iruñerrian existitu egiten zen erregimenaren eta Elizaren giroetatik aparteko aipatu berezko esparru asoziatiboak, hirian zegoen aisialdirako eta kirolerako tradizio oparoarekin zerikusirik izan zuen bereziki. Bi alor hauen baitan sortzen ziren elkarte forma anitzek, bereziki kirol elkarteak eta aisialdirako peñak, praktikan, erregimenak sustatutako elkartei erabatean nagusitu zitzaizkien<sup>625</sup> eta iruñar bizitza sozial herrikoiairen elementu nagusienak eta dinamikoenak izan ziren.

#### 4.3.1 Aisialdirako elkarteak: Iruñeko peñak

Peñak hiriko bizitza herrikoia artikulatzen zuten tradizio luzeko elkarteak ziren. Jaiak bizi eta disfrutatzeko forma bezala sortu ziren eta denborarekin, Iruñeko eredu asoziatibo tipikoenean eta bereizgarrienean bilakatu ziren. 50, 60 eta 70. hamarkaden bitartean, gizartearen bilakaeraren parekoa izan zen garapena jazo zuten eta horregatik, garai hartako bizitza sozialaren eta herrikoiairen bilakabidea, euren bitartez berrosatzen ahal dugu neurri handi batean. Zentzu honetan aipatzekoa da Iruñeko Peñen Federazioaren eskutik elkarteok euren historiaren eta hiriko bizitzan eta historian izan duten paperaren inguruan berriki egin duten berrirakurketan<sup>626</sup>, haiek berek nabarmentzen dutela euren izaera herrikoia. Begi hutsez, peñak jaietan ongi pasatzeko eta hiria animatzeko aisialdi elkarte bat sortzen duten lagun taldeak baino ez dira. Baina hauen barne bizitza sakonkiago aztertzen badugu, kideen arteko bizitza sozial kolektibo bat sustatzen zuen ekimen eta jarduera andana antolatzen zutela topatuko dugu (kirolak, dantzaldiak, hitzaldiak); jendearentzat harremanak egiteko egiazko bilgune zirela ikusiko dugu; kultura herrikoia baten adierazle bezala aritzen zirela ulertuko dugu (kalera ateratzen zituzten pankartetako marrazkiak, zezen plazan kantatzen zituzten abestiekin); eta funtzionatzeko moduan “demokrazia parte hartzaile eta asanblearioaren”, “lan altruista eta auzolan” printzipioen eta “kohesio sozialaren” eredutzat ere jotzen ahal zirela<sup>627</sup> atzemango dugu. Ikusiko dugunez, peñak hiri bizitzaren elementu dinamikoenetariko batean bihurtzeraino garatu ziren eta ez bakarrik jai giroari zegokionean.

Auzoetan, halako elkarteek, komunitateen bizitzaren bilakaeran garrantzi handia zuten. Izan ere, auzo izaerako peñen sorrerarekin, hirian tradizio handia zuen sozializazioerako eredu honek, elkartzeko inolako tradizioz ez zuten populazio nukleo berrien barne artikulazioerako elementu gisara funtzionatzen zuen. Hala gertatu zen Txantreako Armonia eta Mochueloko San Fermin peñekin, auzoetako peñen artean lehenbizi sortu zirenak. Hauek auzoetako bizitza soziala eta kultura pizten lagundu

<sup>625</sup> Falangeren sozializazioerako esparruek iruñar gizartearen errotzeko zailtasunak izan zituzten. Alderdi Komunistak, 1956an Iruñean bere eraginguneak sortzeko hiriko bizitza sozialaren azterketa bat egin zuenean adibidez, Iruñeko “Frente de juventudes” delakoa iruñar gazteriaren eraginik ez zuela estimatzen zuen; are gehiago, hiriko kirolgunerik handiena - “Ruiz de Alda”- berea zen arren, gazteek orokorrean Falangerekin zerikusirik zuen ekimen oro arbuatzen zutela adierazten zuen. “Informe de (31) sobre la organización del P en (32) [1956]”. AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 361 Jaq.

<sup>626</sup> Iruñeko Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona: una historia viva*, Iruñeko Peñen Federazioa, Iruñea, 2013.

<sup>627</sup> *Ibid.*, 70 orr.

zuten elementuak izan ziren, gerora oso aberatsa izango zen auzo mugimendu herrikoiauren aurrekari izan zirelarik. San Fermin peña 60. hamarkadaren hasieran sortu zen Mochuelo zaharrean, 1973an urtean desegin zen eta urteak geroago, 1979an, Arrosadian berpiztu zen. Zentzu honetan, lehenbiziko peñak, jaioberria zen Arrosadia auzoko kultura eta kirol mugimendua prest utzi zuela esan daiteke<sup>628</sup>. Txantreakoari dagokionean, auzoko elkarte kulturalen artean goiztiarrenetariko bat izan zenez, txantrea eraiki eta garatu ahala, auzo bizitza eta auzokideen arteko harremanak hobetzen lagundu zuen<sup>629</sup>. Donibane, Arrotxapea edo Sanduzelai auzoetako peñek ordea, garai berri batean, 70. hamarkadaren amaieran sortutakoak izaterakoan, harreman desberdin bat izan zuten auzoarekin, izan ere, jada aberatsa eta dinamikoa zen auzo bizitza bera izan zen euren sorrera sustatu zuena.

Peñak, izatez, lagun taldeak dira, jai giroan elkarrekin disfrutatzen sortzen direnak. Iruñekoak beti sanferminei lotuta ageri izan dira, jaiaren alderdi herrikoia irudikatuz. XIX. mendean geroztik errotuta dago Iruñean sanferminetako lagunarten tradizioa. Orduan peñak erraz agertzen eta desagertzen ziren, oraindik elkarte sendo bezala egonkortu gabe. Gerra garaian peña zein elkarte hauek desagertu ziren, bai erregimenak ezarritako debekuekin jaiak eta ospakizunak galarazi zirelako eta baita lagun talde hauetako kide zen Iruñeko gazte asko gerrara joan zelako edota hirian jazarria izan zelako. Alta, gerraostean jada zenbait elkarte berriz osatzeko baimena eskatu zuen eta 40. hamarkadatik aurrera eta 50. hamarkada osoan zehar, Iruñeko peñak izango zirenak sortuz joan ziren. Euren historia kontatzerakoan peñek berek jaso duten bezala, elkarteok, jatorri eta osatzeko modu desberdinak izan zituzten. Lagun taldeetatik abiatuta sortu zirenak egon ziren: Txantreakoa taberna batean elkartzen zen gazte talde baten ekimena izan zen; La Jarana, Arrotxapeako eta Karmen kaleko hainbat kuadrillen elkartetik sortu zen; La Unica zein Iruñeko Algara, gerra aurreko halako elkarteak berpiztu nahi zituzten kuadrilla ezberdinek sustatu zituzten<sup>630</sup>. Kirol talde edo kirol elkarteetan jatorria izan zutenak izan ziren ere: Aldapa, beisbol talde batean izan zuen abiapuntua eta Anaitasuna eta Irrintzi, futbol talde ezberdinen elkartetik sortu ziren<sup>631</sup>.

Muthiko Alaiak eta Oberenaren kasuak oso bestelakoak izan ziren. Eragile soziopolitiko bik, Karlismoak eta Acción Católicaak, sustatutakoak izan ziren<sup>632</sup>. Muthikoa Iruñeko bizitza kulturalen eta giro karlistan oso pertsonaia entzutetsua zen Ignacio Baleztenaren eskutik jaiotako gazte taldea zen. Errepublikara garaian sortu zen, jarduera kulturalak eta folklorikoak sustatzeko helburuarekin. Honela, Baleztena beraren obrak eszenaratzen zituen Zaldiko Maldiko antzerki taldea eta euskal dantzen berreskurapenean aitzindaria izan zen dantza talde bat barne hartu zituen. Jatorrian karlismoari estuki lotuta egon zen eta haren antolakuntza egituren baitan kokatua egon zen, 1949an berauetatik bereiztu zen arte. Oberena Acción Católicaaren baitako kirol eta aisialdirako elkarte bezala sortu zen. Santos Beguiristainek hiriko parroquia desberdinetako gazte kopuru handia bildu zuen kirola eta folklorea eskainiko zituen klub bat sortzeko. Lehenbizi futbol talde bat sortu zen, ondoren pilota, alpinismo, atletismo, txirrindularitza, igerketa eta dantza taldeak sortuko zirelarik. Aipatu Gipuzkoako OARGUI taldeen antzera, Oberenak elizaren asoziazionismoaren eredu

<sup>628</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 204 orr.

<sup>629</sup> David Mariezcurrena (koord.), *Armonía Chantreana: 1956-2006*, Txantrean Auzolan Kultur Elkarteak, Iruñea, 2006, 9 orr. Peñak auzoari emandakoa azpimarratzeaz beste, auzoak peñari eman diona azpimarratzen da ere: izaera bereizi bat.

<sup>630</sup> Peña guztien jatorriaz gehiago, Iruñeko Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 40 orr. (Armonía Chantreana), 70 orr. (La Jarana), 76-77 orr. (La Unica) eta 52 orr. (Iruñeko Agara).

<sup>631</sup> *Ibid.*, 22-23 orr. (Aldapa), 34 orr. (Anaitasuna) eta 64 orr. (Irrintzi).

<sup>632</sup> Muthiko Alaiak peñaren historiaz, ikusi, bereziki, Manuel Martorell, *75 años de...* Op. Cit. Oberena peñaren jatorria, Iruñeko Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 94 orr.



tipikoaren ezaugarriak aurkezten zituen: gazteriaren formakuntza kristauan lagundu nahi zuen, kaltegarritzat jotzen ziren giroen aurrean, giro familiar eta lasai bat eskaintzen zuelarik; kirol eta aisialdi jardueren praktikan, moralaren aginduak bermatzen zirela zaintzeko asmoa zuen; eta bere jarduera kirolaren, adierazpen artistikoen, folklore herrikoiaren eta musikaren alorretan garatzen zuen, berauetara iritsiz, kristautasunaren eragingunetik at zeuden gazteak erakartzeko aukera izango zuelakoan<sup>633</sup>.

70. hamarkadaren amaieran jaio ziren auzoetako peñen kasuan, garai hartan jada dinamikoa zen auzo bizitza bera izan zen elkarrean sustatzailea. Zenbait kasutan, indar sustatzailea jada auzokideen sozializatorako erreferenteak ziren esparruak izan ziren. Donibane eta Arrotxapeako peñak, adibidez, auzoetako kirol elkarteetatik abiatuta jaio ziren<sup>634</sup>. Beste zenbait kasutan, peña sortzeko ekimena, auzoetan lan egiten zuten mugimendu edo kolektibo herrikoiarena zen. Arrosadiako San Fermin peñaren sorrera, azken honen adibide dugu. Bi prozesu ezberdinek eraman zuten peña honen jaiotzara eta haietariko bakoitza, auzo errealtate desberdin bati dagokio. Lehenbiziko San Fermin peña Mochuelo zaharrean sortu zen, 1963 urtearen hasieran zentro parrokiarean izandako bilera batean, hainbat bizilagunek, kirol, kultura eta gizarte ekimenenganako kezka zutenez, auzoko mugimendu sozialak bateratuko zituen elementu bat beharrezkoa zela mahaigaineratu zuenean. Bilera hartan, kultur eta kirol elkarte bat sortzea erabaki zen, haren baitan sanferminetarako peña bat izango zuena<sup>635</sup>. Hamar urteko jardueraren ostean, lehenbiziko elkarte hura, 1973an desagertu zen. Alta, hamarkadaren amaieran, lehenbizikoak ipinitako oinarrietatik, elkarteak berpiztu egin zen, auzo errealtate berri batean. Bigarren San Fermin peñaren sorrera Arrosadiako mugimendu sozial eta herrikoiari oso lotuta egon zen. 1978ko Iruñeko bizitza herrikoia oso aberatsa zen, bereziki auzoetan, hauetan gizarte, kultur, gazte, sindikatu edota politika mugimenduak ugariak baitziren. Zentzu honetan, 1979ko peña berriaren jaiotza aurreko esperientzian izan zuen oinarria, baina oraingoan sustatzaileak halako mugimenduetan ibiltzen ziren gazteak izan ziren, Elkar Artua [gazte] kolektiboak, Gau Eskolako kideak eta auzoko kuadrillak<sup>636</sup>. Antzekoa izan zen Sanduzelaiko peñaren jaiotza 70. hamarkadaren amaieran, sortzaileak auzoarekin konprometituko gazteak izan baitziren. Kasu honetan herri mugimenduarekiko lotura are nabariagoa izan zen peña berriak bere lehenbiziko egoitza Auzo Elkarrearen lokaleko gela batean izan zuelako<sup>637</sup>.

Baina, nortzuk osatzen zituzten peñak? Zeintzuk ziren sozializatorako gune tradizional hauetan elkartzen zirenak? Langile sozializatorako benetako esparrutzat jotzen ahal ditugu? Galdera hauei erantzun nahian, peñetako lehen zuzendaritza batzordeetako kideenganako hurbilpen bat egin dugu, euren adinaren, bizitokiaren, ogibidearen eta ahal izan denean, aurrekari soziopolitikoen arabera. Frankismoaren bitartean, edozein motatako elkarte legez sortu ahal izateko, gobernadore zibilak honen proiektuari, jarduerari eta zuzendaritza batzordeari oniritzia ematea nahitaezko baldintza zen; horregatik “Dirección General de Seguridad” delakoak, Iruñeko polizia etxetik, elkartekideek proposatzen zituzten batzordekideen inguruko txostenak egiten

<sup>633</sup> “Bases para la constitución de la Institución Escolar-Deportiva Oberena (1952-02-21)”. AGN-NAO, Gubernu Zibilaren fondoa, Elkarreak saila, 69. kutxa. Ildo berean, kirola “kastitatearen diziplinan laguntzeko; [gazteen] gogoia nagusien aginduekiko obedientzian hezteko; [...] zuzentasun, bikaintasun eta zintotasun eskola” bat zela jasotzen zen.

<sup>634</sup> Iruñeko Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 46 orr. (Donibane peña) eta 100 orr. (Rotxapea peña). Bi kasuetan peña gazte kuadrilla batek sustatu zuen, auzoko kirol elkarteen baitan sortu ziren, hauen azpiegiturak aprobetxatuta. Gerora, elkarreetatik bereizi eta errealtate independente gisara garatu ziren.

<sup>635</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 185 orr.

<sup>636</sup> Iruñeko Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 106 orr.

<sup>637</sup> *Ibid.*, 112 orr.

zituena, egun euren oinarritzko profilak eratzeko informazioa (jaioterria, adina, bizitokia, ogibidea hala nola jarrera moralari zein aurrekari soziopolitiko edota ideologikoei buruzko oharrek) eskuragarri dugularik<sup>638</sup>. Datuak begiratuta, kideen gehiengoak gizarte sektore herrikoietatik zetorrela ikusten da, espero izatekoa, peñak berez elkarre herrikoiak direla kontutan hartuta. Badaude errepikakorrak diren beste ezaugarri batzuk, jaioterria eta adina. Jaioterriari dagokionean, Iruñean eta Nafarroako herri desberdinetan jaiotakoak ziren orokorrean, kostatzen da Nafarrak ez ziren kideak topatzea. Adinari begira, gazteak ziren, oso gazteak zenbait batzorderen kasuan, izan ere, salbuespenak egon arren, kideak ez ohi ziren hogeita zazpi urtetik gorakoak izaten<sup>639</sup>.

Gainontzeko ezaugarrietan, aniztasun puntu bat atzematen den arren, joera orokorrak atzematen ahal dira ere. Aurrekari soziopolitikoaren eta joera ideologikoen alorrean, batzordeetako kideak “garbiak” izatea elkarrekin legezatzeko baldintza zenez gero, azaleratu den joera orokorra, batzordekideek aurrekaririk ez izatea edota hauek ideologia ezezagunekoak edota erregimenaren aldekoak izatea da. Espresuki tradizionalismoari, eskuinari eta erregimenaren erakundeei lotutako elementu asko bazegoen ere, ez ziren gutxi erregimenarekiko axolagabetzat jotzen zirenak. Are gehiago, salbuespen oso interesgarriak zeuden eta argiki ezkerreko tradizio eta ideologiek in identifikatzen ziren zenbait elementuekin topo egin dugu. Azken hau La Única peñaren kasua izan zen. Gerraren bitartean fusilatutako izan ziren peñakide kopuru garrantzitsu bat zuen<sup>640</sup> eta horregatik, elkarrekin gerraostean berrosatzen hasi zenean, lehenbiziko batzordeetarako proposatzen ziren kideen artean, “ezkerreko iragana” zuen elementua presentzia garrantzitsu bat egoen zen. Adibidez, 1942ko “Dirección Nacional de Seguridad” delako horrek egindako txostenen arabera, urte hartan proposatu zen batzorde bateko kideetako bat ezkerreko moderatua zela jakina zen; beste bat, alderdi politikoren bateko militante izan gabe ere ezkertiarizat jotzen ahal zen; hirugarren bat argiki lotzen ahal zen ezkerreko ideiekin, hauteskunde garaian, ezkerreko propaganda banatzen eta kaleak nahasten ibili baitzen, muturreko ezkerreko familia batetik zetorren gainera; hurrengo bati ezkerreko joerak ikusten zitzaizkion; eta azkeneko baten familia, ezkerreko politikaren eusle sutsu eta fanatiko gisara agertzen zen. Datarik gabeko beste bi txostenetan antzeko informazioa ematen zen eta proposatutako batzordekide bati buruz ezkerreko egunkariak saltzen zituela, greba eta iraultza guztietan parte hartzen zuela eta bere adiskideak “Iruñeko gizartearen ustelkeria” zirela esaten zen; besteari buruz, ezkerreko ideia aurreratutako zela, ezkerreko mitinetan egondakoa zela, iraultza giroa zegoenean kaleak nahasten ibilitakoa zela eta ezkerreko egunkariak irakurtzen zituela. Are gehiago, 1958ko zuzendaritza batzorde bateko proposamenean, 1951ko Iruñeko greba orokorrean parte hartzeagatik atxilotua izan zen pertsona bat azaltzen zen.

Bizitokia orokorrean hirigunean zuten, bereziki Alde Zaharrean eta neurri apalagoan Zabalgunean. Zenbait peñen kasuan, zuzendaritza taldeetako kideen bizitokiek, elkarrekin jaiotzan kuadrillek edo lagun taldeek izan zuten garrantzia agerian uzten dute, hauek, jendeak hiriguneko zonaldeen arabera elkartzeko joera zuela azalerraten baitute. Alegria de Iruñako batzordekide ugari adibidez Caldereria, Telleria

---

<sup>638</sup> Nafarroako Artxibategi Orokorrean (Gobernu Zibilaren fondoa, Elkarrekin saila) peña gehien erregistro txostenak gordetzen dira eta beraz aipatu zuzendaritza batzordeetako kideei buruzko informazio txostenak ikusi ahal izan ditugu. Jarraian azalduko dugun kideei eta kideen ezaugarriei buruzko informazioa, txosten hauetan oinarrituta dago.

<sup>639</sup> Adibidez, Alegria de Iruña peñako 1953ko zuzendaritza batzordearen batzorde besteko adina 23 urtekoa zen, 1958ko batzordearena, 25 urtekoa. 60. hamarkadaren hasierako Armonia Txantreana peñako batzordeak joera berbera azaltzen dute: 1960ko batzordearen batzorde besteko adina 23 urtekoa zen eta 1961eko batzordearena, 26 urtekoa.

<sup>640</sup> Peñak berak kontatzen du bere historiaren pasarte hau, Iruñeko Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 77 orr.

eta Merced kaleek hartzen zuten zonaldekoak ziren eta Aldapako beste hainbeste, Karmen, Redin eta Mañueta kaleen ingurukoak. Hiriko auzo desberdinetan bizi ziren kideen presentzia garrantzitsua izan zuten peñak izan ziren ere. Txantreakoaren kasua berezia izan zen 50. hamarkadan zehar, erabatean auzokideek osatutako elkarteak izan baitzen. Baina La Jarana peñarena bezalako kasuak ere izan ziren. Honek, bere lehenbiziko urteetan, auzo zehartasun nabaria izan zuen, bere sustatzaileen artean, Navarrieriako kuadrilla ezberdinekin batera, Arrotxapeako hainbat ere egon zirelako. Arrotxapeako eta San Pedroko auzoetako bizilagunen presentzia jarraitua izan zen -zenbaitetan zuzendaritza taldeetan gehiengoak izateraino<sup>641</sup>-, beste auzoetako (Donibane eta Mochuelo-Arosadia bereziki) kideen presentzia geroz eta nabariagoa zen bitartean. La Jarana, peñen artean, auzoetako populazioa nabarmenki biltzeagatik bereizi egiten da nolabait.

Ogibideei dagokienean, aniztasun argiki atzematen ahal da eta langileak eta jornalariak, zurginak, iturginak, etxegintzazko langileak, jostunak, gozogileak edo ile-apaintzaileak eta bankako enplegatuek, saltzaileak edota bulegoko langileak topatzen ditugu. Hala ere, peña bakoitzak nola edo halako espezializaziorako joera azaltzen du. Esate baterako, La Jaranaren lehenbiziko zuzendaritza batzordeetan, langile elementua nagusi izan zen, berauetan auzoetako bizilagunek (Arrotxapeakoek eta San Pedrokoek, Mochueloek eta Donibanekoek) berauetan zuten pisuarengatik batez ere. La Únicaren batzordeetako kideen artean ere halako joera atzematen da, langileak eta ogibidedun ebanistak, iturginak, sokagileak edota zurginak nagusi zirelarik. Aipatu ezkerreko aurrekari soziopolitikoak zituzten elementuen presentzia, langile elementuen gehiengo honi lotuta ageri da nolabait. Txantreako peñaren batzordekideen artean are agerikoagoa da langileen presentzia. Kontutan hartzen badugu auzoko lehenbiziko etxegile-bizilagunak eraikuntzaren alorreko langileak eta industria desberdinetako langileak izan zirela, ez da harritzekoa batzordekide goiztiarrenak igeltseroak, zurginak eta iturginak izatea. Gerora, 60. hamarkadaren hasieran, enplegatuek edota saltzaileak agertzen hasi ziren ere. Bestelako peñetan aniztasun gehiago dago eta enplegatuen, bulegoko langileen eta saltzaileen, merkataritxikien eta zenbaitetan ikasleren presentzia garrantzitsu bat atzematen da. Los del Bronce peñan, zuzendaritza talde desberdinen osaerak agerian uzten duenez, ohikoa zen enplegatuek eta saltzaileek gehiengoak izatea, ogibide desberdinetako langileek -inprimatzaileak, ebanistak, zurginak- kontutan hartzeko papera zuten arren. Irrintzin ere aniztasuna nabari da, baina orokorrean, batzordekideen artean, enplegatuen nagusitasunerako joera igartzen ahal da. 50. hamarkadako batzordeak, enplegatuek, familiaren enpresan aritzen zen langileren batek, ikasleren batek eta neurri apalagoan ogibide desberdinetako langileek osatzen zituzten. Nabarmenezkoa da bankaren sektoreko enplegatuek zuten presentzia. Aldapan eta Alegria de Iruñan halako joera ikusten ahal da eta euren batzordeetan, era orekatuan, enplegatuek, bulegoko langileek eta ogibide ezberdinetako langileek parte hartzen zuten. Beraz, peñetan hiriko gizarte sektore herrikoiak elkartzen zirela esan daiteke. Guri dagokigunean, industria peoiak eta ogibide desberdinetako langileak biltzen zituztela nabarmenezkoa da. Hala ere, ikusi dugunez, enplegatuek eta bulegoko langileak elkartzeko guneak ere baziren.

Sektore herrikoi haien bilgune izan ziren heinean, peñak, egiazko sozializaziorako esparruak izan ziren Iruñean. Kideen arteko harreman pertsonalen alorretik hasita eta berauetatik sustatzen zen jarduera orora iritsi arte, elkarte hauen barne bizitza, ikusmolde kolektiboen eta komunitarioen arabera garatzen zen, hauek eragile soziopolitikoentzako eragingune potentzial bilakatzen zirelarik. Honela, berez helburu politikorik ez zuten elkarte bezala sortzen baziren ere (La Únicaren

---

<sup>641</sup> 1961, 1964 eta 1965ko batzordeetako kasuak adierazgarriak dira zentzu honetan. AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoa, Elkarrekin saila, 64. kutxa.

estatuetan kideei gai hauen inguruko eztabaida ere debekatzen zitzaien<sup>642</sup>) alderdi komunistak berak, peñak bere eragin sozial eta politikoa hedatzeko bide bat izaten ahal zirela ulertzen zuen. Iruñeko antolakundearen egoeraren diagnostikoa egiten zuen 1956ko txosten batean<sup>643</sup>, alderdiaren eraginguneak zabaldu ahal izateko Iruñean jarraitu behar zen estrategia planteatzerakoan, nazionalistengana, HOACarengana eta baita peñengana hurbiltzeko beharra zegoela aipatzen zen. Ildo horretan, txosten horrek, peñak, aisialdi, kirol eta familia izaerako masa erakundetzat jotzen bazituen ere, harreman politikoak egiteko esparru izaten ahal zirela ikusarazten zuen. Alderdia begiko zuen Iruñeko elementu errepublikar baten kasua jartzen zuen adibide bezala potentzial hori erakusteko, izan ere, bera eta hainbat kamarada, elkarrekin peña batean ibiltzen ziren. Peñek gizarteratze soziopolitikorako gune bezala izaten ahal zuten paperaren beste adibide adierazgarri bat da, hiritar batek Nafarroako Gobernadore Zibilari 1942an bidali zion ohar batean ikusten ahal dugu. Bertan, La Jarana peña propaganda komunista egiten zen gune bat zela salatzen zen: *"La Jarana aisialdirako peña kabaret bat da [...] bertara zintzoak ez diren neskak sartzen dira [...] ustelkeria gune beldurgarria da; eta hori gutxi ez balitz, propaganda komunista egiten da bertan, peñaren elementu garrantzitsuen babespean gainera [...] [haietariko] bat egun, afera politiko bat dela eta, auzibide bat abiarazita du, beste batek [...] denbora luzea eman du kontzentrazio esparru batean berebiziko gorria izan zelako [...] peñaren egoitzan modu klandestinoan elkartzen dira euren kontu politikoez aritu behar direnean"*<sup>644</sup>.

Peñen artetik, Muthiko Alaiak, erregimenaren aurkako jokamoldeak gizarteratzeko gune abantailatu gisara nabarmenkien funtzionatu zuenetariko bat izan zen. Karlismoari lotutako elkarteak zen eta horregatik, berekin frankismoaren aurreko jarrera jakin bat ekartzen zuen izaera politikoa zuen. Peñak berak bere historiaz egin zuen irakurketa batean, Muthikoko kideak, gerraosteko Iruñean azaleratu zen oposizio portaera ororen buruan agertzen dira, garai hartako peñakide ugari erregimenaren aurkako konspirazio jardueratan nahasita egon zela iradokitzeraino<sup>645</sup>. Hori izan zen 1951n Nafarroako Gobernadore Zibilak berak izan zuen ustea, urte hartan Iruñean bizi izan zen greba orokorrean gertatu ziren kale liskarrak (zehazki maiatzaren 9ko gauekoak) Muthikoko gazteei egozten baitzizkien: "gazte talde handi batek polizia armatua batetik bestera mugitzen zuen, hogeitabi urteko mutikoak ziren eta zalantzarik gabe, antzinako tradizionalismoaren elementuek, Falconderen adarrak edo Muthiko Alaiak gazte antolakunde herrikoiak, zuzentzen zituzten"<sup>646</sup>. Era berean, 1954ean, ustezko kontraforu baten harira gertatu zen Diputazioaren eta Gobernadore Zibilaren konfrontazioaren ondorioz izan ziren liskar eta mobilizazioen ostean, gobernuaren aginduz peña debekatu eta haren egoitza itxi egin zen, elkarteko hainbat kide istilu haietan parte hartzeagatik atxilotuak izan ondoren<sup>647</sup>. Guzti honengatik, are alderdi komunistak, aipatu 1956ko txostenean, peña hau, gazteria tradizionalistaren gotorleku zen arren, eragingune interesgarria izaten ahal zela ikusten zuen eta bertan alderdiaren ideiak zabaltzeko egiazko aukera zegoela uste zuen.

<sup>642</sup> Horrela xedatzen zen 1960ko abenduaren bederatziko elkartearen araudi berriaren hirugarren artikuluan. AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoa, Elkarteen saila, 66. kutxa.

<sup>643</sup> "Informe de (31) sobre la organización del P en (32) [1956]". AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 361 Jaq.

<sup>644</sup> Francisco Sanchezek Nafarroako Gobernadore Zibilari bidalitako oharra (1942-05-15). AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoa, Elkarteak saila, 64. kutxa. Honek ez du egiaztatzen La Jarana peña nukleo komunista bat zenik, baina nolabait peñak bilgune herrikoiak zirela eta horrek sozializazio politikorako aukera ematen ahal zuela iradokitzen du.

<sup>645</sup> Manuel Martorell, *75 años de...* Op. Cit., 23 orr.

<sup>646</sup> "Informe sobre el desarrollo político-social de la huelga de Pamplona del 8 al 10 de mayo (1951-05-15)". AGA-AAO, Presidentzia fondoa, 51-19015. kutxa.

<sup>647</sup> Manuel Martorell, *75 años de...* Op. Cit., 29-30 orr.

Acción Católicaak sortutako Oberena elkarteak, nazionalismoaren eragingune gisara agertzen zen txosten horretan bertan. Sozializatorako esparru oso garrantzitsua zen hirian, gazteriaren parte oso garrantzitsu bat erakartzen eta mugiarazten zuelako. Honengatik, eragile soziopolitiko desberdinentzat, balio handiko eragingunea zen. Nazionalismoa zen eragile haietariko bat. Bizitza politikoan eragina izateko inolako aukerarik ez zuenez, euskal nazionalismoak bere jardura gazte giroetara eta aisialdi eta kultura izaerako elkarreetara bideratu zuen eta Oberenak, zentzu honetan, Gipuzkoan OARGUI taldeek izan zuten antzeko papera bete zuen Iruñean. Izan ere, bereziki lehenbiziko urteetan garatu zuen jarduerak nazionalistek bigarren errepublikan hasitako lan kulturalari jarraipena eman zion, elkarteak sustatzen zituen ekimen folklorikoek (euskal dantzak, txistua) eta mendizaletasunak, gazteak nazionalismoaren ildoetatik nola edo hala gizarteratzeko aukera ematen zutelarik<sup>648</sup>. Nazionalismoarekiko lotura hau, Oberenako lehen kontsiliarioei atzematen ahal zitzaizen izaera euskaltzalearekin zerikusirik izan zuen. “División de Investigación social delakoak” adibidez, 1955ean, Oberenak gazteen artean ideologia nazionalista zabaltzen zuelako zurrumurruek erdian erakundeko kontsiliariora kokatzen zuten, “ideologia nazionalista oso errotuta zuen” elementua zela azpimarratuz eta “Oberena elkarteak hartzen ari zen izaera [nazionalistaren] eragile” nagusitzat joz<sup>649</sup>.

Sanferminetan jaien aspektu herrikoiak irudikatzeaz beste, peñek, urtean zehar, hiriko bizitza soziala dinamizatzen zuten kirol, aisialdi, kultura edota folklore jardura ugari antolatzen zuten. Horregatik, harreman sareak sortzeko aukera ezin hobeagoak eskaintzen zituzten. Lehenik eta behin, jardura hauek peñakideen arteko harremanak sendotzen zituzten, izan ere, sanferminen ondoren mantentzen ziren loturak sortzen laguntzen zuten. Bigarrenik, peña desberdinen arteko harremanak sortzen zituzten, jardura hauetariko askotan, peñaren markoa gainditu eta hiriaren markoan burutzen zirenean (elkarte arteko kirol txapelketak kasu), elkarte desberdinetako kideak biltzen zirelako eta konfluentzia horrek, harreman berriak eratzen zituelako.

Peñen kirol jardura oso bizia zen garai hartan. Hauetariko asko kirol eta aisialdi elkarten baitan sanferminetarako kuadrilla edo sail berezi bezala jaio zirela kontutan hartzen badugu, ez da harrizkoa peña gehienek urtearen bitartean garatzen zuten jardura, kirolari oso lotuta egotea. Are kirol elkarte baten baitan, sortu ez eta hutsetik abiatu izan zirenean, peñek kirol jardura oso garrantzitsu bat garatu zuten. Futbol, eskubaloi edo txirrindularitza sailak sortzen zituzten eta euren berezko taldeekin Iruña mailan antolatzen ziren txapelketetan eta lehiaketetan parte hartzen zuten, beste elkarte askorekin batera. Esate baterako ia-ia peña guztiek Iruñean oso famatua zen Boscok txapelketan parte hartzen zuten futbol taldea zuten. Askotan, eurak berak ziren kirol lehiaketak edo jaialdiak antolatzen zituztenak. Oberenak adibidez Iruña aldeko pilota txapelketa bat antolatzen zuen edota jardunaldi bakar batean eskubaloi eta saskibaloi emanaldiak barne hartzen zituzten jaialdiak egiten zituen Labrit frontoian; Anaitasunak, Labrit frontoian ere, eskubaloi jaialdiak egiten zituen eta berauetan, maila eta adin desberdinetako taldeak lehiatzen ziren; Irrintzik, elkarte eta peña desberdinetako taldeak biltzen zituen elkartearen izena zeraman futbol txapelketa antolatzen zuen<sup>650</sup>. Guztiarekin ere, peñetako kirol sailen helburu

<sup>648</sup> Ikusi Mikel Aranburu, “La actividad folclórica de la juventud pamplonesa en la posguerra civil: el Oberena de Maxi Aramburu”, *Jentilbaratz*, 7. zkia, 1997, 3-26 orr.

<sup>649</sup> Iruñeko “División de investigación social” delakoak Nafarroako Gobernadore Zibilarik bidalitako informazio oharra (1955-01-24). AGN-NAO, Gobernu Zibilarik fonda, Elkarteak saila, 69. kutxa.

<sup>650</sup> Oberenaren jarduerari buruz: “Oberena. Sección de pelota”, DN 1961-03-01, 7 orr. eta “Nota del Oberena”, DN 1961-06-25, 5 orr. Anaitasunaren jarduerari buruz: “Esta noche en el Labrit festival de balonmano organizado por la SDR Anaitasuna” DN 1961-06-24, 3 orr. Irrintziren jarduerari buruz: “Campeonato de fútbol del irrintzi”, DN 1961-12-16, 3 orr. Zerranda oso luzea

lehena, lehiaketa baino, bazkideen artean kirolaren praktika sustatzea eta praktika hartan elkarrekin tarte on bat bizitzea baino ez zen. Armonia Txantreanaren eskubaloi sailaren esperientzia, horren adibide argia da: *“lagun talde bat elkartzen ginen eta Felix tabernaren atzeko aldean entrenatzen ginen. Iruñean, Oberena eta Boscos bezalako sei edo zazpi talde zeuden eta kristoren jipoiak ematen zizkiguten [...] baina gu primeran pasatzen genuen. Peñan egiten zen kirola ez zen lehen mailakoa, tarte on bat pasatzeko elkartzen zen lagun taldeena baizik, aitzakiarik onena zen gainera gure hamaiketako goxoak hartzeko”*<sup>651</sup>. Aurrerago sakonkiago aztertuko dugun arren, ezin dugu mendizaletasuna peñetatik sustatzen zen kirol bezala aipatu barik utzi. Ia guztiek euren mendi sailak eratu zituzten eta hauek askotan, mendi talde berri eta independenteen sorrerako hazia izan ziren. Mendizaletasuna, 60. hamarkadaren bitartean gorantz egin zuen kirola izan zen eta peñek eta kirol elkarteek, euren mendi sailetatik, astebururo mendi irteerak antolatzen zituzten. Zaletasun hau ulertzeko, kontutan izan behar dugu mendia, Nafarroan tradizio handiko jarduera izateaz beste, garai hartan askatasunerako eta sozializazio politikorako gunea ere bazela. Kirolarekin edo kirol sailekin zuzenean lotuta ez egon arren, alor honetan aipatzekoa da ere urtero Aldapak antolatzen zuen Iruñeko elkarte ezberdinen arteko mus txapelketa. Lagunarte herrikoi eta euren bazkideen arteko harremanak estutzeko antolatzen zen eta urtero, hauen artean nagusi zen begikotasuna eta laguntasuna agerian uzten zituen <sup>652</sup>. Horrenbesterrainoko arrakasta izan zuen, peña desberdinen urteroko jardueran tradizio bezala errotu egin zela eta jaiotzen zen elkarte berri orori, lehiaren parte izateko gonbitea laster luzatzen zitzaioela.

Kultura, peñen jarduerak barne hartzen zuen bestelako alor garrantzitsua zen. Gai ezberdinen inguruko hitzaldi zikloen antolaketa eta euskal folkloreakin zerikusirik zuten jardunen sustapena, jarduera kultural honen ekimen adierazgarrienetarikoa bi izan ziren. Lehenengoei dagokienez, ospe handikoak ziren urtero Anaitasunak, ekainaren amaieran, jaiaren aspektu desberdinak lantzen zituzten hitzaldiez osatuta, sanferminen inguruan antolatzen zuen zikloa. Nabarmenezkoa izan zen, adibidez, 1966an Camino Oslék, gerora alderdi sozialistarekin Iruñeko udaleko zinegotzi izango zenak eta orduan Acción Católica militante zenak, emakumeek jaietan izaten zuten paperaren inguruan egin zuen hausnarketa<sup>653</sup>. Antolatzen ziren halako beste hitzaldi zikloetan artean, aipagarriak dira ere gazteriaren arazoak gaitzat zituztenak. 60. hamarkadaren hasieran, Anaitasunak berak, “Iruñeko gazteriaren maila moral eta kulturala goratzeko” asmoarekin, “gazteriaren arazoak” izenburua zuen ziklo bat antolatu zuen eta Armonia Txantreanak, ildo berean, gazteriari zuzendutako “Egungo arazoak” titulu pekoa<sup>654</sup>. Ekimen folklorikoen sustatzaile nagusienak Muthiko eta

---

egiten ahal dugu sustatzen zen halako kirol jarduera orekin, peña guztiek ekintzak antolatzen baitzituzten eta hamarkada osoan zehar hauen kopurua hazi baino ez zelako egin. Diario de Navarra egunkariko kirol saila jardun aberats hau azaleratzeko oso iturri erabilgarria da, bertan agertzen ziren jardueren iragarpen eta kronika ugariak, peñen bizitasuna agerian uzten baitute.

<sup>651</sup> Jesús Aranazen testigantza. Jasoa, David Mariezcurrena (koord.), *Armonía Chantreana* ... Op. Cit., 81 orr.

<sup>652</sup> "Mus. Esta noche tendrá lugar la gran final del campeonato intersociedades organizado por la SDR Aldapa", DN 1961-12-22, 3 orr.

<sup>653</sup> "Los sanfermines: ¿son unas fiestas decididamente masculinas?", DN 1966-06-07, 15 orr. Anaitasunak antolatutako ziklo honetan, hiriko figura nabarmenek parte hartu ohi zuten ere, El Pensamiento Navarro egunkariko zuzendari izandako Javier María Pascual edota Iruñeko alkate izandako Miguel Javier Urmeneta kasu. Gaiek beti jaiarekin zuten zerikusia: Sanferminen izaera bereziari, hauen nazioarteko dimentsioa edota entzierroa.

<sup>654</sup> Anaitasunaren hitzaldi zikloa burutzeko baimenaren eskaera: AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoa, Elkarteen saila, 69. kutxa. Armonia Chantreanak antolatutako zikloaren iragarpena: "Armonia Chantreana", DN 1962-03-04, 4 orr. Azken hauetan landu ziren gaiak, adibidez, "Nortasunaren porrotak eta honek elkarbizitza sozialean duen eragina", "Gaurko espainiar

Oberena izan ziren. Muthikoa, euskal dantzak berreskuratzeko eta bultzatzeko borondatea agertu zuen lehenbiziko elkarteetarikoa izan zen, Errepublika garaiaz geroztik ziharduen lan horretan. Orain, dantza talde oso aktibo bat mantentzen zuen eta txistu eskolak eskaintzen zituen. Oberenak, gerraren ondoren ekin zion euskal folklorea berreskuratzeari, euskal dantza talde bat sortuz edota jaialdi folkloriko anitz antolatuz, nazionalistek mende hasieran hasi zuten lan kulturalari jarraipena eman ziolarik<sup>655</sup>. Gainontzeko peñek ere alor folkloriko landu zuten, batez ere euren dantza taldeak sortuz edota euren jaialdi edo ospakizunetan ikuskizun folklorikoei lekua eginez. Armonia Txantreanak adibidez, Iruñeko udaleko dantzari taldearen ikasle zen dantza talde propioa zuen eta Aldapak, ikuskizun folklorikoak antolatzen zituen elkartearen zaindariaren egunerako prestatzen zuen programan.

Peñen bestelako jarduera errotu bat, aisialdia dinamizatzeko bazkideentzat eta euren familientzat antolatzen ziren jaialdi eta dantzaldi sozialak ziren. Gerraren ostean La Única berrosatu zenean, haren estatutu berrietan elkartearen xedea dantzaldiak antolatzea zela azpimarratzen zuen. Lehenbiziko urte haietan, hartara, lagunartean bizitza dantzaldi haien inguruan ardaztu zen. Hauek La Jaranarekin batera antolatutako saioak ziren, edozein aitzakia zela medio: *“San Crispín, zapatarien zaindaria; San Eloy, metalurgialarien zaindaria; modisten omenezko dantzaldia... eta jakina, ostegunekoa, neskameen jaieguna”*<sup>656</sup>. Are gehiago, dantzaldiak ospatzeko baimena, 50. hamarkadaren amaierako eta 60. hamarkadaren hasierako peñen zuzendaritza batzordeek gobernu zibilari egindako eskakizun errepikatuenetarikoa bat izan zen, bilera sozialek elkarteon barne bizitzan zelako pisua zuten adieraziz. Sozialki partekatzen ziren dibertsio moduei oso lotuta, peñek jai herrikoien berreskurapenean izan zuten papera ere aipatzekoa da. Aldapa, Sanfermin txikiko jaien berpiztearen sustatzailea izan zen, elkartearen zaindaria zen Aldapako San Ferminen omenez antolatzen hasi zen ospakizunetik abiatuta. Hiritarrek auzoko Navarrerria auzoko festatzat jo zuten eta ospakizun hura, urtez urte sendotu egin zen, auzoetako festak debekatzen zituen xedapena indargabetu zenean, San Fermin txikitoren jai herrikoiei bide emateraino. Peñaren eta jai herrikoien arteko harreman estua azken hauen antolaketaz arduratzeko bizilagunek sortu zuten jai batzordean ikusten ahal da. Ez bakarrik batzordea peñaren lokalean biltzen zelako, baita batean zein bestean ziharduten kideak partekatzen zituztelako. Adibidez, 1961ean jai batzordearen izenean gobernadore zibilari programa gauzatzeko baimenaren eskaera sinatu zuen pertsona, peñaren lehendakaria zen aldi berean<sup>657</sup>.

Guzti honekin batera, peñak, beste motatako proiektuen sustatzaileak izan ziren. 1965ean, berezko kirol instalaziorik ez zuten peña eta elkarteek, Amaya “kirol hiria” sortu zuten, euren bazkideei kirola egiteko behar zituzten azpiegitura ahalik eta egokienak eskaintzeko asmoz. Gaur egun, Amaya, hirian tradizio handienetarikoa eta jarduera aberatsenetarikoa duen kirol elkarte da. Etxebizitzaren eraikuntzaren alorrean ere saiakerak egin zituzten. Irrintzi izan zen gai honetan aitzindari eta 1966an peñak berak bazkideentzat sustatutako etxe multzo bat inauguratu zuen. 1968an peña guztiek San Fermin etxebizitza kooperatiba sortu zuten eta azkenean proiektua martxan jarri ezin izan zuten arren (ez ziren etxebizitzak eraikitzen iritsi), ekimenak elkarteok halako kezka soziala bazutela erakutsi zuen<sup>658</sup>.

---

prentsaren arazoak”, “Espainia eta Merkatu Komuna” eta “Zinema ikuskizun eta arte bezala” izan ziren.

<sup>655</sup> Muthiko Alaiak kasurako ikusi Manuel Martorell, *75 años de...* Op. Cit. eta Oberenaren kasurako Mikel Aramburu, “La actividad folclórica...” Op. Cit.

<sup>656</sup> Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 77-78 orr.

<sup>657</sup> Baimenaren eskaera: AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoa, Elkarte saila, 70. kutxa.

<sup>658</sup> “Ayer bendición y entrega de llaves en el bloque de viviendas del club deportivo Irrintzi”, DN 1966-12-31, 28 orr. eta Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 190 orr.

Jaiaren kontestuan, peñek, sanferminen aurpegiak herrikoiena azaleratzen zuten berezko tradizioak zituzten. Zezenketak esateko, oso modu berezian bizitzen zituzten eta oraindik ere egiten dute, zezen plaza, eguzkiko harmailetan, egiazko esparru herriko bilakatu. Hemen meriendak partekatzen ziren eta kantatzen zen, asko kantatzen zen. Iruñeko plazan entzuten diren kantuak momentuko agertoki soziopolitikoaren pertsonaiekiko eta gai nagusiekiko peñek eta herriak sentitzen dutena jasotzen dute, kritika eta aldarrikapena, umorezko letren eta abesti herrikoien zein diana ezagunen musikaren bitartez eginez. Espero izatekoa den moduan, kritika eta aldarrikapena 70. hamarkadan eta Francoren heriotzaren ondoren egin zen zorrotzagoa eta esplizituagoa. Orduan Euskal Herriaz mintzo ziren abestiak kantatzen hasi ziren, “*Geuria da eta Geuria da. Geuria da Euskal Herria*”; tokian-tokiko politikaren pertsonaiak gaitzesten ziren, “*Tres cosas hay en Pamplona que no las quiere ni Dios: El alcalde, el arzobispo y le señor gobernador*” eta “*Amadeo, Amadeo saco la cola y te meo*” (urte luzez Foru Diputazioko kide izan zen eta bertan lehendakariorde eta are lehendakari karguan izan zituen Amadeo Marcori erreferentzia eginez); eta are patronalari aparteko ordainsariak igotzeko eskatzen zitzaion, “*patrones, patrones, mas extraordinaria que solo nos llega hasta el día 10*”<sup>659</sup>. Peñek sanferminei egiten dizkieten ekarpenen artean, nabarmentzekoa da hauek urtero aurkeztu eta jaietan egunero Iruñeko kaleetatik eramaten dituzten pankartek egiten dutena. Pankarta hauetan ageri diren marrazkiak, zezen plazako kantuak bezala, adierazpen herrikoierako bide izan dira, hizkera sarkastiko eta barregarri batekin kritika sozial garratza eta urteko gertakari soziopolitiko adierazgarrien errepaso egiten baitute. Zentzu honetan, marrazki hauek Iruñeko errealitate sozialari pultsua hartzeko baliozko bitarteko gisara ulertzen ahal ditugu, hamarkadatan zehar zein gai jaso zituzten eta zein modutara islatu zituzten azaltzearekin, errealitate harenganako iritzi herrikoia nola bilakatu zen erakusten dutelako.

Gutxi gora behera 1975 urtera arte, pankartetan agertzen ziren gai nagusiak, batez ere hiriko eguneroko arazoekin zuten zerikusia: udal tasak, isunak, hiriaren hazkundeak berekin ekartzen zituen beharrak, gabezia urbanistikoak, obrak, prezioen igoera, diru sarreren urritasuna edota auzoek pairatzen zituzten ezbehar larrienak (garraioa, errepide zuloak) dira gairik errepikatuenak. Alegria de Iruña peñaren 1956ko pankartan “*Todo sube*” zen gai nagusia, etxebizitzaren eta haragiaren prezioetik hasita, udal tasetara eta zergetara iritsi arte. Aldapak 1959an aurkeztu zuenean ere tasek protagonismo handia zuten, baina kasu honetan ez ziren soilik prezioen igoeraren funtsezko eragile bezala agertzen eta zuzenean zinegotziekin jokabidearekin lotzen ziren, hauek zerga haiekin biltzen zuten dirua, eurak aberasteko zela iradokiz. Zinegotziak garai hartako pankarta askoren protagonista izan ziren, trajez jantzita irudikatuta beti, kritikaren eta kexuaren jomuga izan ohi ziren, konpontzen ez zituzten arazoengatik, hartzen zituzten eta hiritarren gustukoak ez ziren erabakiengatik edota ezartzen zituzten udal tasengatik. Ildo horretan, 1960 urtean, hainbat pankartek hirian oihartzun handia izan zuen gertakari bat jaso zuten: hotel berri baten eraikuntzaren gertatu zen Taconera parkeko antzaren kaleratzea. Alegria de Iruñako peñaren pankartan, adibidez, zinegotziak antzarak kozinatzen eta jaten agertzen ziren, hotelaren berri ematen zuen kartel baten ondoan. Aldapak 1965ean aurkeztu zuen pankarta are kritikagoa zen zinegotziekin eta zezenketarako sarreren prezioaren igoera kritikatzeko, zinegotzi baten karikatua egiten zuen, “*Que suben las entradas Que suban... yo voy gratis*” esanez salneurri berriei burla egiten agertzen zelarik. Pankarta hura zentsuratua izan zen. Armonia Txantreana eta San Fermin peñen eskutik auzoetako arazo larrienak eta aldarrikapen errepikatuenak iritsi ziren pankarten oihaletara. 1964an, Txantreakoak, auzoak pairatzen zituen arazo nagusienak, garraio zerbitzu publikoaren eskasia eta errepide zein kaleetan

<sup>659</sup> Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona... Op. Cit.*, 551-552 orr.



biderkatzen ziren bide zuloak, salatzen zituen: zuloz beteriko (“vache municipal, “vache particular”, “vache provisional”) errepide baten gainean, jendez gainezka zegoen autobus bat azaltzen zen eta leihatila batetik, pertsonaia batek burua atertzen zuen “aun cave una pulga” esanez. 1966koak berriz ere auzoaren gabezia nagusienak salatzen zituen. “Cuando llega ese millón que aprobaron en sesión...” gaia hizpide hartuta, diru horrekin Txantrean egin beharreko obrak (“obras a realizar con los intereses del millón”) zeintzuk ziren kartel ezberdinetan ikusten ahal ziren: argia, zaborra, telefonoak, bide zuloak, lupetzak eta pixatokiak. Urte haietan, San Fermin peñaren lehen pankartek, auzoko jendearen, hau da, langile sektoreen, arazo orokorrak azaleratzen zituen: ogiaren prezioaren igoera 1964koan eta etxebizitza eraikuntza promozioen urritasuna 1965ekoan. Azken gai honi berriz ere 70. hamarkadaren hasieran heltzen zion, 1971ko marrazkiak auzoko etxebizitzaren prezioarekin eta eraikuntzaren baldintza materialekin egiten zuten txantxa. Etxebizitza dorre garaiak agertzen ziren, aurrealdean pisuen ezaugarriak deskribatzen zituzten kartelak zintzilik zituztela, “No reírse fuerte”, “amplios, 23 m<sup>2</sup>”, “entrar de canto”, “Salgan a toser a la escalera” bezalakoak; hauei begira ari zen bikote baten inguruan ere pertsonaia ezberdinen arteko elkarrizketa barregarri bat jasotzen zen: gizon batek “y si no hay agua, habrá tintorro” esaten zuen, emakumeak “¿Y como nos lavamos? galdetzen zuen eta katu batek “con la lengua, como nosotros” erantzuten zion.

70. hamarkadaren hasierako pankartek aurreko hamarkadakoekin batera sailkatzen ahal dira, bai gaien aldetik eta baita kutsuaren aldetik ere. 1975etik aurrera, Francoren heriotzaren ostean, gai soziopolitikoek gero eta leku gehiago hartzen hasi ziren oihaletan: errepresioa eta polizia, auzo elkartearen legeztatzea, amnistia, euskara, 1978ko sanferminak edota langabezia, hiriko eta auzoetako eguneroko arazoaren salaketa ahaztu gabe. 1975ko Los del Bronceren pankartan, urte hartan erabaki zen Authi fabrikaren denboraldi baterako ixteak tarte bat izan zuen, fabrika irudikatzen zuen irudiaren marrazkiaren azpian zegoen kartel batek “se traspasa esta bajera” esaten zuelarik. Armonia Txantrean 1976an auzo elkartearen legeztatzeari egiten zion erreferentzia, auzoan oraindik konpontzeke zeuden arazoak salatzen ziren bitartean; amnistiak ere bere tokia zuen. Auzo elkarteak Oberenaren pankartan agertzen ziren urte horretan bertan ere: hirigintzako proiektu ezberdinak irudikatzen ziren eta zinegotzi batek ahoa estalita ageri zen pertsona talde bati bere iritzia eskatzen zion; auzo elkartearen irudikapena zen pertsona talde hori. Hurrengo urtean Los del Bronce errepresioa hartzen zuen gai nagusitzat eta frontoi batean gomazko pilota bat jaurtitzen ari zen polizia bat marrazten zuen, “nueva modalidad de pelota en el país vasco” titulupean. Donibanek 1978an langabezia zuen hizpide eta mamu batekin irudikatzen zuen. 1979an, 78ko sanferminen ostean, errepresioa eta poliziaren kargak izan ziren gai errepikatuenak. Iruñeko Algarak adibidez zezen plaza eta poliziaren karga bat irudikatzen zituen, hondarrean bi gazte agertzen ziren poliziek jaurtitzen zituzten gomazko pilotekin beisbolean jolasten. Gori zeuden gai soziopolitikoekin batera, auzoetako peñek, euren gertuko arazo larrienak salatzen jarraitu zuten. Arrotxapea peñak 1979 urte hartan egin zuen eta haren egoerari buruzko auzoaren ustea islatu zuen oihalean: zezenak gordetzen zituen kortaren horman “Lo mas casta de Pamplona es el barrio de la humedad, con sus huertas y sus puentes y los corrales del gas” esaten zuen pintaketa ageri zen eta pankarten beste aldean pertsonaia bat “Tenemos cuatro vientos, mucho tráfico y polución. Exijimos zonas verdes, politécnico y mejor urbanización” esaten zuen kartel bat jartzen ari zen. Urte berean, Arrosadian berpiztu zen San Fermin peñak ere, bere pankartan, auzoaren arazo nagusiak jasotzen zituen, urbanizatzea eta kale edo errepideen egoera: lurrian bi zulo ikaragarri azaltzen ziren, haietariko batean eroritako pertsonaia batek “yo me caí hace un año y aún estoy esperando a que haga algo el ayuntamiento” zioen eta bigarrean txakur batek pixa egiten zuen “en este meamos todos los perros del barrio y no se llena nunca” esaten zuen bitartean.

Pankartek bezala, peñen jarduerak ere bilakaera argia izan zuen 70. hamarkadaren bitartean. Erabatean aisialdikoak ziren jardueretatik, nolabaiteko aldarrikapen kutsua (politika, emakumea, euskara) erakusten zuten antolatzaera igaro ziren, beti ere lehenbizikoak alboratu gabe. Muthiko Alaiak adibidez gai soziopolitikoaren inguruko hitzaldi zikloak antolatzen zituen, berauetan euskararen egoera, sindikatuen legeztatzean, foru auzia edota emakumearen askapena mintzagai izan zirelarik; euskara klaseak antolatu zituen; zezen plazan, amnistiaren, askatasun politikoaren eta greban zeuden langileen aldeko kantuak abesten hasi zen, baita harmailetan lehenbizikoz ikurriña ipini ere<sup>660</sup>. Ildo horretan, 70. hamarkadaren bukaeran euskararen berreskuratzearren eta normalizazioaren aldeko mugimendu sozial indartsua jaio zenean, peñak askok, honek abiarazten zituen ekimen ezberdinekin bat egin zuen. Los del Bronce esateko, hasieratik konprometitu zen borroka horrekin eta Nafarroa oinez edo AEK bezalako ekimenetan parte hartze aktiboa izan zuen<sup>661</sup>. Aldarrikapen soziopolitikoaren aldeko jarrera hartze hura jaietan, sanferminen bitartean, islatzen hasi zen ere. Langileen eta euren borrokaren aldeko jarrerak bere tokia izan zuen eta 1973an, Motor Ibéricako grebak eragindako gatazka giroa, peñen eskutik iritsi zen zezen plazara: eguzkiko harmailetatik elkertasuna adierazi zitzaientzat enpresatik kaleratuak izan ziren langileei eta uztailaren 9an, seigarren zezena hil ostean, plazara euren desfile tradizionala egitera jaitsi beharrean, harmailetan geratu ziren, kaleraturiko langileen aldeko kantuak abestuz eta atxilotuak askatzeko eskatuz<sup>662</sup>.

1978ko sanferminetako gertakarien aurrean peñek izan zuten erreakzioak eta jokabideak agerian utzi zuten garai hartan hauek hiriko eragile sozial eta herrikoi bezala zuten garrantzia. Uztailaren 8an zezen plazan eta haren inguruan gertatu zenari eta German Rodriguezen erailketari erantzun bateratua ematearren, peña guztietako ordezkariak Alegria de Iruñaren lokalean bildu ziren hurrengo egunetan (horren ordainetan lokalak atentatu bat jasango zuen uztailaren 19an), hamaika asanbladatan. Komunikatu bat adostu zuten, non lehenik eta behin Ordena Publikoko Indarren jokabidea kondenatu eta hiritik atera zitezkeen exijitzen zuten, gero Gobernadore Zibilaren dimisioa eta gertatutakoei zegozkien erantzun zibil eta kriminalen zehaztapena eskatzen zuten, ondoren RTVE eta Diario de Navarra bezalako hedabideek gertakizunen inguruan egindako informazio estaldura salatzen zuten eta azkenik, beren eskaerak artatuak izan artean festarekin jarrarituko ez zutela iragartzen zuten. Honekin batera, ondoko egunetako protesta eta mobilizazioetan parte hartze aktiboa izan zuten, bereziki Germanen hileta egunetan burutu zen manifestazio jendetsuan, haiek izan baitziren mobilizazioaren ordena zaintzearen arduradunak. Uda horretan bertan, Peñen Batzordeak, gertatutakoa argitzea eta erantzukizunak banatzea helburu izango zuen batzorde ikertzaile bat abiaraztea erabaki zuen, haren gastu juridiko, notarial eta administratiboei aurre egiteko, hiritarren laguntza ekonomikoa izan zutelarik. Peñek kontestu honetan egiazko indar sozial gisara jardun zutela esan daiteke, nolabait sentipen herrikoia bozeramaileak izan ziretako.

#### 4.3.2 Kirol asoziazionismo: kirol elkarteak eta mendia

Iruñar gizartean oso errotuta zegoen sozializatorako beste forma bat kirola zen. Hirian kirolean aritzeko tradizio handia zegoen eta elkarteak, azpiegiturak, jarduerak eta lehiaketak ugariak ziren. 60. hamarkadaren hasieran, "Gazteriak kirola egiten du" izenburu bezala zuen artikulua batean, Diario de Navarrak igande baterako programatuta zegoen kirol egitaraua jasotzen zuen, Iruñean kirola lortzen ari zen

<sup>660</sup> Manuel Martorell, *75 años de...* Op. Cit., 36-37 orr. Ikurriñaren kontuak gainera, haustura eragin zuen peñaren baitan, zenbait horren ondorioz elkarteetan baja eman zuenean.

<sup>661</sup> Peñen Federazioa, *Peñas de Pamplona...* Op. Cit., 84 orr.

<sup>662</sup> *Ibid.*, 212 orr.

“garrantzi herrikoia eta soziala” islatzeko asmoarekin<sup>663</sup>. Ohikoa zen astero eskola arteko zein klub ezberdinen arteko maila desberdinetako futbol, eskubaloi edota saskibaloi txapelketetako jardunaldiak programatuta egotea, klubuen batek lasterketaren bat edo krossen bat antolatzea edota mendirako txango ugari prestatuta egotea. Hamarkadaren erdian, egunkariko orrien baitan, “Iruñea, kirolaren hiria” artikuluan, Iruñean zegoen kirol zaletasunari erreferentzia egiten zitzaion berriz ere eta hiria halako jardueren erdigune bezala sendotzen ari zela jasotzen zen. Egunero iristen omen ziren tokian-tokiko egunkarietako erredakzioetara federazio eta elkarte ezberdinen ohar ugari, antolatzen zituzten lehiaketen eta proben berri emanez eta honek, hirian kirolaren praktika oso aktiboa bazegoela adierazten zuen nolabait<sup>664</sup>. Elkarte sare eta kirolgune azpiegitura oso garatu batzuek, hala izatea ahalbidetzen zuten. Gerra aurretik bazegoen jada elkarte eta azpiegitura kopuru garrantzitsua hirian eta hau, 40. hamarkadatik aurrera, handitu baino ez zen egin. Instalazioei dagokienean, 1965ean Diario de Navarra Iruñeko kirolguneen historia eta egoerari buruz argitaratu zuen erreportaje sail batek jasotzen zuenez, Iruñeak kirolaren praktika garatzeko oso azpiegitura aproposa zuen. Gerra aurretiko tradizioari eusten zioten guneak mantentzen ziren<sup>665</sup> eta 40 eta 50. hamarkadetan sortutako gune berriak, erregimenaren erakundeei lotutakoak (Frente de Juventudes, Erakunde Sindikala)<sup>666</sup>, Acción Católicaak sustatutako Oberena edota auzoetako bizilagunek sortutakoak (Txantrea), sendotzen ari ziren<sup>667</sup>. Instalazio hauek ordea, ez zuten inolaz ere Iruñean existitu egiten zen kirol elkarten aberastasuna islatzen, elkarte askok berezko kirolgunerik ez zuelako. Peñetako kirol sailen kasua zen. Honengatik peñek, bestelako elkarte herrikoia batzuekin batera, Amaya kirol hiria sustatu zuten. Anaitasunak, sanferminetarako peñaren sail bat ere bazuen tradizio handiko beste elkarte batek, ez zuen 1968 urtera arte instalazio propioirik izan<sup>668</sup>. Hala gertatu zen ere auzoetan, Txantrean izan ezik, berantiarak izan baitziren auzo mailako kirolguneen sorrera: Donibane Kirol Elkarte 1965 urte hartan sortu zen eta Arrotxapean, kirol jarduera sustatzen zuten elkarteak zeuden arren, bizilagunek, oraindik 1970an, auzoan kirolgunerik ez zegoela salatzen zuten.

Amaya elkartearena esperientzia interesgarria izan zen. Esan bezala, berezko kirolgunerik ez zuten lagunarte ezberdinen elkartetik jaio zen, hauek instalazio batzuen eraikuntzaz, funtzionamenduz eta kudeaketaz arduratzeko elkarte berri bat sortu zutenean. Ekimen berriaren helburua, faltan zuten kirolgune bat eraikitzearen bitartez eta guztientzat izango zen esparru fisiko bat sortzearen bitartez, nafar lagunarte ezberdinen jardura osatzea, koordinatzea eta batzea zen<sup>669</sup>. Interes komuna eta elkarrekintza izan ziren proiektuaren bi oinarri garrantzitsuenak, kudeaketarako “demokratikoki herrikoia” izango zen eredu batengatik apustu egiten zelarik<sup>670</sup>. Ildo horretan, elkartearen lehen idazkaria izango zen Carlos Ainzua, modu honetan deskribatzen zuen Amayaren izaera: “Amaya oso bestelakoa da gainontzeko

<sup>663</sup> “La Juventud Hace deporte”, DN 1961-02-17, 3 orr.

<sup>664</sup> “Pamplona, ciudad deportiva”, DN 1965-06-05, 11 orr.

<sup>665</sup> Tenis, Larraina, Lagunartea eta Club Natación elkarteak ziren: “Tenis”, DN 1965-08-08, 13 orr.; “Club Natación”, DN 1965-08-10, 11 orr.; “Club Larraina”, DN 1965-08-11, 13 orr.; eta “Lagun-artea”, DN 1965-08-18, 13 orr.

<sup>666</sup> “Frente de Juventudes” delakoari lotuta, Ruiz de Alda: “Ruiz de Alda”, DN 1965-08-13, 9 orr.; Erakunde Sindikalari lotuta, Educación y Descanso: “Educación y Descanso”, DN 1965-08-14, 13 orr.; eta militarrei lotuta, Mola: “Mola”, DN 1965-08-19, 12 orr.

<sup>667</sup> “Oberena”, DN 1965-08-12, 12 orr. eta “UD Chantrea”, DN 1965-08-17, 10 orr.

<sup>668</sup> “Anaitasuna. Una sociedad pamplonesa que se renueva”, DN 1968-06-26, 11 eta 13 orr.

<sup>669</sup> “Las sociedades de Amaya piden la dimisión de la permanente. Deciden reunir el Pleno y constituir una comisión gestora en el plazo de ocho días. El secretario Carlos Ainzua presentó la dimisión.” (Carlos Ainzua aurkeztutako dimisio gutuna), DN 1969-11-19, 13 eta 19.

<sup>670</sup> Amaya proiektuaren sustatzaileek berek esaten zuten: “Kirol elkarte demokratikoki herrikoia izatea nahi dugu”. “Ciudad deportiva Amaya”, DN 1966-10-22, 15 orr.

*elkarteen aldean. Ezin da besteekin konparatu. 'batasun bikaina' ginela esaten zuten, 'kirol kooperatiba' bat ginela, 'aurrekaririk gabeko elkarte' edo 'familia handi' bat ginela esaten ziguten, esangura soziologiko garrantzitsua genuela esaten zen [...]*". Ainzua, idazkari bezala bere dimisioa ematerakoan idatzi zuen gutunean, elkartearen jatorrizko izatasun hau aldarrikatzen zuen eta hala egiten zuen, batzorde iraunkorrek printzipio hauek jada aintzakotzat hartzen ez zituela estimatzen zuelako. Izan ere, 1969an Amayak barne krisi larri bat bizi izan zuen eta Ainzua bere dimisio gutunean egiten zuen bezala, elkarte osatzen zuten lagunartek, "inor ordezkatzeko" ez zuelako, batzorde iraunkorren dimisioa eskatu zuten, haren beharrez, elkarteak egitan ordezkatzeko zituen behin-behineko kudeaketa batzorde bat izendatzea eskatzen zutelarik<sup>671</sup>.

Auzoetako kirol elkarte eta instalazioen sorrera berezko auzo bizitza baten garapenaren elementuak izan ziren. Auzokideek bere kirol jardura sustatzeko eta hura kolektiboki praktikatzeko sortu zituzten eta horregatik, aldi berean, harremanak egiteko elkargune garrantzitsuak izan ziren. Txantreako kasuan hala izan zela berriki ikusi dugu. Elkarte hauek berez langile esparruak ziren, auzoetako biztanleak eta ondorioz, elkarteon sustatzaileak eta bazkideak, nagusiki langileak zirelako. Honek, nola edo hala, langileen sozializatorako esparru bihurtzen zituen. Rochapeano Kirol Elkarte, esate baterako, Arrotxapea auzoko langileen topagune garrantzitsua izan zen Iruñeak 1956an bizi izan zuen greba orokorrean, alderdi komunistak burututako txosten baten arabera<sup>672</sup>. Bertan kontatzen denez, taberna batean egoitza zuen Rochapeano Kirol Elkarte hartan ehun eta berrogei ta hamar edo berrehun pertsona bildu ziren, haien arten nazionalismoarekin zerikusirik zuen apaiz bat eta auzoan oso ezaguna zen eta kartzelan egondakoa zen alderdiko kide bat zeudelarik. Grebaz aritzeko esparru bilakatu ziren taberna eta elkarte eta apaizak, bildutako guztien aurrean, langileek soldata hobeago bat jasotzeko eskubidea zutela, langileekin ados zegoela, grebarekin aurrera egin behar zela eta guztiek harekin bat egin behar zutela esan zuen eta alderdiko kideak ere, bere ikuspuntua emanez, langileen eta grebaren alde zegoela esan zien auzokideei. Hau ikusita, txostenaren egileak esparru sozialak, hots, elkartearen eta tabernaren antzeko bezalako sozializatorako esparruak, alderdiaren ideiak eta eragina zabaltzeko gune eraginkor izaten ahal zirela ondorioztatzen zuen. 60. hamarkadaren erdialdean jaio zen Donibane Kirol Elkarteak langile kutsua zuen ere. Izan ere, lehenbiziko urteetatik bazkide zen R.M.-ek azaltzen duen bezala, elkartearen sustatzaileak auzoko bizilagunak, zehazki Eguaras etxeetako langileak, izan ziren:

Hona etorri nintzenez Donibane Kirol elkarteko bazkidea egin nintzen nire lagunak bazkideak zirelako, orduan inauguratzeaz zegoen. Iritsi bezain pronto, esaten didate, aizu, sartu hona, egin zaitez bazkide... eta orduan bazkide egin nintzen iritsi bezain pronto [...] Noski, kontutan izan ni garai hartan... niri tenisa gustatzen zitzaidan eta tenisa orduan aberaskumeen gauza zen. Baina Donibane Kirol Elkarte tenisean aritzeko aukera eskaintzen zuen lehenbiziko elkarte izan zen, noski, Tenis elkartearen ostean, baina noski, han [Tenisean] elitea zegoen, ezta? [...] Donibane Kirol elkartean [...] langileak zeuden, elkarte sustatu zutenak Eguaras etxeetakoak izan zirelako, langileak, hirigunetik urrun zeudenak. Orduan dantzaleku handi bat jarri zuten eta gu, handik asko ibiltzen ginela, esan genien: tenis zelaiak jarri... eta orduan [esan ziguten], ados, sare batzuk jarriko dizkizuegu... [...] eta horrela hasi ginen, oso jende arrunta ginen [R.M.. Donibaneko bizilaguna. Donibane Kirol Elkarteko bazkidea]

<sup>671</sup> "Batzorde iraunkorari egiten zitzaion salaketa nagusia, elkartearen sortzetiko ezaugarri garrantzitsuenak, elkarteek sortutako elkarte zela, kontutan hartzen ez zuela zen. Las sociedades de Amaya piden la dimision de la permanente", DN 1969-11-19, 13 eta 19 orr.

<sup>672</sup> "Informe de (31) sobre la organización del P en (32) [1956]". AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoak, Nafarroa-Euskadi saila, 361 Jaq.

Donibane Kultur Elkarte hau San Vicente de Paul gizarte zentroaren baitan jaio zen<sup>673</sup>. 60. hamarkadaren hasieran Donibaneko parrokiaren eskutik sortua, zentro hark auzoko bizilagunen elkartzea zuen helburu, aisialdi, kultura edo asistentziazko jarduerak sustatuz, auzokideen arteko bizikidetzak osasungarri bat garatzeko. Kirola izan zen hori lortzeko zentroaren sustatzaileek jorratu zuten jarduera ildoetariko bat eta lehenbiziko urteetan, kirol elkarteak sortu zuten, futbol zelai bat egin zuten eta lehiaketa anitz antolatu zituzten. Kirolgunea eraikitzeko ekimena 1965an aurkeztu zen. Haren hastapenetatik, Donibanekoa, kirolaz haratago, haren bazkideen ongizatean eta garapenean laguntzearen, mota desberdinetako jarduerak eskaintzen zituen elkarteak izan zen. Esate baterako, lehenbiziko urteetan gazteriarentzako aste bat antolatzen zuten, gai desberdinen inguruko hitzaldiekin eta zinema emanaldiekin. Kirolgunearen proiektua aurkeztu zen 1965 urte hartan bigarren aldiz antolatzen zen ekimena eta aurreikusitako hitzaldien artean, HOACeko militante ezaguna zen Francisco Eguiluzek gazteria eta lan munduaren inguruan emango zuena aipatzekoa da<sup>674</sup>. Ildo horretan, kirol elkarteak eta kirolguneak berak ere, soilik kirola praktikatzeko esparruak izateari utzi zioten eta kutsu sozial, kultural eta are politikoa zuten ekimenen agertoki izatera igaro ziren ere, bereziki 70. hamarkadaren erdialdetik aurrera. Txantreako kirol elkartearen instalazioetan adibidez euskara klaseak ematen ziren, futbol zelaietan langileen asanbladak burutzen ziren eta jaialdi folklorikoak ospatzen ziren, 1976ko maiatzaren 1ean, auzoko jaien baitan, Auzo Elkarteak antolatu zuen Oskorraren emanaldia kasu<sup>675</sup>.

Iruñean praktikatzen ziren kirol ezberdinen artean 60 eta 70. hamarkadetan gorantz gehien egin zuenetariko bat, mendizaletasuna izan zen. Mendiak tradizioa zuen Nafarroan, baina garai hartan ezagutu izan zuen gorakada, ikaragarria izan zen. Gerraren ostean, bereziki Oberenak, Club Deportivo Navarrak eta Zentro Marianoaren baitan zegoen Orhyk berpiztu zuten mendizaletasunaren praktika hirian. Urte gutxiaren buruan, urte haietan sortzen ari ziren elkarte eta peñek euren baitan mendi sailak sustatzen hasi ziren eta azkenean, espresuki mendira dedikatzen ziren taldeak agertzen hasi ziren. Mochuelo auzoan jaio zen "Goiti begira" mendi taldearen sorrera bilakaera honen adibidetzat jotzen ahal dugu. 50. hamarkadaren hasieran Oberenarekin irteten zen hainbat gazte hasi zen mendizaletasun giroa auzoko bizilagunen artean zabaltzen<sup>676</sup>. 60. hamarkadaren erdialderako, hartara, elkarte ezberdinekin ibiltzen ziren mendizale andana zegoen auzoan. Iturmendi familia adibidez, Anaitasunarekin ateratzen zen eta auzoko gazte kuadrilla bat, La Únicako mendi sailarekin. 1966an, Ignacio Iturmendi eta azken kuadrilla honen artean, auzoko mendi taldea sortu zuten, urte hartan zentro parrokiarekin egin zen bilera batean<sup>677</sup>. Mendi irteerak espresuki antolatzea xede zuten halako berezko taldeen sorrerak, mendizaletasuna, gazteriaren eta gizarte sektore herrikoietako jendearen artean zale gehien, biltzen zuten jardueretariko bat zela erakusten du.

Asteburu oro Iruñean antolatzen zen mendirako txangoen kopuruak ere erakutsi egiten du. Diario de Navarra egunkariako kirol orrialdeen baitan, klub, peña edo talde desberdinek programatutako irtenaldien iragarkiak jasotzen ziren eta ohar hauen bilakaera aztertzerakoan, mendiarekin lotutako jardueren eta hauek sustatzen zituzten elkartearen zenbatekoaren hazkundera handia izan zela agerian geratzen da, 60.

<sup>673</sup> "Un nuevo complejo se está levantando en Pamplona: la ciudad deportiva San Juan", DN 1965-10-06, 12 orr.

<sup>674</sup> "Il Semana de la Juventud de la Agrupación Deportiva San Juan", DN 1965-10-15, 4 orr.

<sup>675</sup> J.P.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2014-11-18 eta 2014-11-25. Auzo Elkartearen antolatutako aipatu Oskorraren emanaldiari buruz: "Oskorri en la Chantrea. Algo más que un recital", Punto y Hora, 4. zkia, 1976ko maiatzaren 15-31, 35 orr.

<sup>676</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., Testigantza: "Los primeros 25 años de mi vida en el barrio del Mochuelo", p, 106.

<sup>677</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos...* Op. Cit., 174-175 orr.

hamarkadaren bitartean, mendizaletasunak nabarmenki gora egin zuela ondorioztatzen ahal delarik<sup>678</sup>. Iragarrita azaltzen ziren txango guzti hauek irekiak ziren eta berauetan izena ematea nahikoa izan ohi zen elkarte horietariko batekin autobusean joan, mendian eguna pasa, komunitatean hamaiketako egin eta bazkaldu eta are Iruñerako itzulera bidean, jaietan egongo zen herriren batean gelditu eta dantzaldira joateko aukera izateko. Beraz, klub edo peñaren bateko bazkide izan gabe mendizalea zen jende asko, antolatutako txango hauetan izena ematen ahal zuen, mendiaz, kirolaz eta mendizaleen artean sortzen zen giroaz disfrutatzeko. Izan ere, irteera hauetan sortzen zen giroa izugarria zen, batez ere mendi taldeek euren finalisten jaiak ospatzen zituztenean. Mochueloko Goiti begira taldeak berea Astobizkar mendian egiten zuen urtero. Mendi ibilaldiaren ostean sarien banaketa Ibañetako baselizan burutzen zen eta gero, parte hartzaile guztiak, elkarrekin eta giro ezin hobean, Auritzen bazkaltzen zuten. Jardunaldia dantzaldi herrikoi batekin bukatu ohi zen<sup>679</sup>. Armonia Txantreana peñak bere jai Burdindoguiko baselizan egiten zuen. Honek ere, ospakizun herrikoi baten forman burutzen zen: beste mendi taldeetako mendizaleek parte hartzen zuten, mendi ibilaldiaren ostean meza komunitarioa ematen zen, hamaiketako hartu eta talde desberdinen arteko lehiaketatxoak antolatzen ziren (sokatira probak) eta azkenean, eguna anaitasun bazkari batekin eta musikarekin girotutako erromeria herrikoi batekin amaitzen zen<sup>680</sup>.

Mendia sozializatorako egiazko esparru bat zen garai hartan. Gure ahozko iturrietariko asko mendizalea zen eta mendi taldeekin txango haietara joateko ohitura handia zuen, mendia munduko giroa gertutik bizi izan zutelarik: *“mendia asko erabiltzen genuen, mendizaletasuna asko praktikatzeko genuen, autobusak eta dena antolatzen ziren, ezta? eta kristona zen, abestiak, harreman afektiboak, harreman sozialak... oso gustura egoten ginen”*<sup>681</sup>. Euren esperientzietan, mendia, kirola osasungarriki praktikatzeko eta adiskidetasun harremanak egiteko esparrua da, baina baita hori baino askoz gehiago ere eta harreman soziopolitikoak egiteko, arazo sozialei buruz mintzatzeko, oposiziozko jokabideak barneratzeko eta ideia politikoak ezagutzeko esparrua da aldi berean. Hasteko, txangoetan jende askok elkar ezagutzen zuen eta honek, harreman mota ezberdinen jaiotza ahalbidetzen zuen,

---

<sup>678</sup> 60. hamarkadaren erdialdean, Diario de Navarra nafar mendizaletasunaren hazkundera nabarmentzen zuen: "El notable aumento del montañismo navarro en cifras", DN 1966-05-26, 11 orr. Datu hauen arabera, bederatzi ziren jarduera erregular eta dinamiko bat zuten mendi taldeak Nafarroan (Oberena, Club Deportivo Navarra, Anaitasuna, Irrintzi, Alegría de Iruña, Orhyemendi, Armonía Chantreana, club Montañero Estella eta Club Kirol). Talde berrien sorrera gainera, jarraitua zen eta Donibane, Goiti Begira edota Gaztedi bezalako taldeak orduan abian jartzen ziren. Ildo berean, egunkariaren kirol sailean egiten ziren antolatutako txangoen iragarkien kopuru eta maiztasunaren bitartez, posiblea da 60. hamarkadaren bitartean mendizaletasunaren goranzko joera hau ikustea, talde kopuruak eta txango kopuruak etengabe hasi egin baitziren. Esate baterako, 1966ko ekainaren bosterako, hamaika irtenaldi desberdin antolatuta zeuden: "Montañismo", DN 1966-06-02, 11 orr.

<sup>679</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos... Op. Cit.*, 176-177 orr.

<sup>680</sup> "La II finalista de la A. Chantreana se vio muy concurrida de montañeros", DN 1965-06-29, 10 orr. edota "Los montañeros de la UC Chantrea celebraron su fiesta en la ermita de eBurdindogui", DN 1969-06-26, 15 orr.

<sup>681</sup> J.M.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-06. Adierazgarria da ere, zentzu honetan, M.L.C.-en ondorengo testigantza: "Hasiara batean auzoko lagunak nituen, eskolakoak. Gero, institutuan hasi nintzenean beste auzoetako lagunak egin nituen; institutuan batxilergoa egiten zen eta orduan ba toki guztietako jendea joaten ginen hara, baita herrietatik etorritakoak zeuden ere, ezta? Orduan ba beste lagun batzuekin irtetzen hasi nintzen eta haietariko batzuri mendira joatea gustatzen zitzaien eta beno, ba... orduan oso ezagunak ziren Iruñean Club Deportivo Navarra eta Oberena eta orduan hara joaten ginen, besterik gabe, [haiek antolatutako] txangoetan izena ematen genuen... eta han adiskideak egiten zenituen eta mutilekin hasten zinen harremanetan (txangoak mistoak zirelako)". M.L.C.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-24.

mendiko kuadrillaren sorreratik hasi eta bikoteen eraketara iritsi arte. Mendian sortzen ziren harreman afektibo hauek, mendizaleak konfiantzazko sareetan elkarlotzeko bide izan ziren nolabait, mendia harreman sare sozial eta politikoak garatzeko esparru oso eraginkorrean bihurtuz. Gure subjektuak mendi taldeak eta txangoak sozializazio soziopolitikorako gune garrantzitsuak izan zirela azpimarratzean bat datoz. Vanguardia Obrerako militantziaren parte bat adibidez, Zentro Marianoan egoitza zuen Orhymendi taldean elkartzen hasitakoa zen: *“Nire anaia horretan oso sartuta egon zen, beti joaten zen mendira eta oso kuadrilla handi batekin harremana egin zuen bertan. Beti joaten zen mendira... eta jende guzti hori, ba nahiko jatorra zen [...] Vanguardiak hor, Zentro Marianoan, Kale Nagusian, ba mendi talde bat zuen, Orhy zuen izena. Jende asko biltzen zuen, ni ez nintzen hor sartuta ibili, baina han egon ziren nire anaia eta bere adineko jende asko, ezta? handik ibiltzen ziren eta bertan elkartzen ziren, mendi taldean, bertatik atera ziren”*<sup>682</sup>. Gerora, mendi taldeak eta jarduerak talde politikoen eragingune garrantzitsu bilakatu ziren, euren propagandaren eta ideien sozializatorako esparru oso eraginkorrak izan zirelarik: *“lan egiten ahal zenuen bi toki zeuden bereziki, auzo elkarteak eta Mendi taldeak. Mendi taldeak, ba bagenekien Errotazarren PTE zela nagusi, Arrotxapeakoak “txinoak” zirela, besteak... hau da, oso argi zegoen... eta noski, orduan mendi taldeak barra-barra zeuden eta oso definiturik zeuden, bakoitzak, nolabait esatearren, bere “marka” zuen... eta jende askok, askok parte hartzen zuen [...] mendi taldea... astebururo joaten zinen lekua zen, jendea “doktrinatzun” zen lekua, paperak ezkutuan zabaltzen ziren lekua”*<sup>683</sup>. Gauzak horrela, R.M. atxilotu zutenean, mendi taldeetan ibiltzen ote zen izan zen poliziaren kezka nagusienetarikoa bat, izan ere, berak azaltzen duen bezala, garai hartako “elementurik errebeldeenak” mendian mugitzen ziren<sup>684</sup>.

Bereziki estua izan zen, zentzu honetan, nazionalismoaren eta mendizaletasunaren arteko lotura. Mendia nazionalismoaren sozializatorako esparruen artean nagusienetarikoa bat izan zen Nafarroan. Alderdi komunistak, adibidez, 50. hamarkadaren erdialdean, jarduera politikotik al zegoen nazionalismoa, aisialdiaren eta kulturaren alorretan oso presente ikusten zuen, bere eragingune nagusienak Oberena, Club Deportivo Navarran eta mendizaleen giroa zirela zehazten zuelarik <sup>685</sup>. Mendia soilik nazionalismoaren sozializatorako giroa ez bazen ere, ezin ukatuzkoa da bien arteko harremana oso estua zela. Esate baterako, urte amaieran Aralarren egiten ziren elkarreratze mendizaleek, folkloreak ekimenetan zuen erabateko protagonismoak, ikurrinaren presentziak edota entzuten ziren euskal kanten doinuek erakusten zuten bezala, nolabaiteko kutsu nazionalista zuten. Mendi taldeetako figura nabarmenduen artean, tradizio nazionalista zuen elementu asko zegoen ere. Mochueloko Goiti Begira taldearen sustatzaileetarikoa bat zen Ignacio Iturmendiren kasua zen, *“Nazionalista porrokatua, ez zen inoiz saiatu besteak bere nazionalismoaz konbentzitzen, baina beti utzi zigun frankismoaren aurkako borrokarako atea irekita.*

<sup>682</sup> M.A.R.S.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-05.

<sup>683</sup> J.P.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2014-11-18. Mendi taldeek garai hartan sozializatze politikoa izan zuten zuten papera Germán Rodríguez LCRko militantearen ibilbidean ikusten ahal da: *“Germanentzat, Iruñeko hainbat gazte martxan jarritako Hemen eta Han mendi taldea politizatorako lehen eskola izan zen. Horren barruan sortu ziren lehen formakuntza taldeak, eztabaidak eta lerrotatze politikoak”*. Iosu Chueca, *Germán Rodríguez. Iraultzaile eroria*, Argia, 2142. alea, 2008-06-22.

<sup>684</sup> R.M.-i egindako elkarrizketa. 2013-05-07. Ildo horretan, adierazgarria da ere Arrotxapeako Mari Abrego mendizalearen honako testigantza: *“[...] Errebeldeak ginen, aurka eta momentu egoeraren [frankismoaren] legeen aurka geunden eta mendian, aske sentitzenginen, abestiak kantatuz barrenean genuena adierazten genuen, eta polizia ez zen etortzen. Mendia ihesbide bat zen”, “Entrevista al montañero Mari Abrego”, Ezkaba aldizkaria, 22. zkia, 1995, 5 orr.*

<sup>685</sup> “Informe de (31) sobre la organización del P en (32) [1956]”. AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 361 Jaq.

*Pertsonalki, berari esker ezagutu nuen lehenbizikoz ikurrina*<sup>686</sup>. Mendia, hartara, nazionalismora hurbiltzeko, bere sinbologia eta ideiak ezagutzeko, lehen pauso bat izan zen gazte askorentzat. M.S.S. esaterako, oso mendizalea izan zen gazte-gaztetik eta berak onartzen duenez, mendi giroan jabetu zen kontzientzia nazionalaren, herri kontzientziaren existentziaz:

Nire kuadrilla, mendikoa zen. Ni hamasei urterekin hasi nintzen mendira joaten, gero hemeretzi urterekin fabrika hasi nintzen eta ordutik aurrera, ba, nire lagunak fabrikakoak ziren [...] [mendikoa] oso giro jatorra zen. Giro hartan zure historia ezagutzen hasten zinen, zure historia... ez naiz historia sozialaz ari, historia nazionalaz ari naiz. Hau da, garai hartan mendira joaten ginenok euskarazko kantak abesten genituen eta "Euskal Herria" entzuten genuen... hau da, mendizalea zen jendea, momentu hartan nolabaiteko kontzientzia nazionala (aipu marken artean ipinita, noski) zuen jendea zen [...] beno eta orduan han Francoren kontrako abestiak kantatzen genituen, bai, bai... mendian ibili ostean, bazkaltzen genuen eta arratsaldean itzultzen ginen, eta orduan autobusetara kantatzen sartzen ginen, munduko abesti iraultzaileenak kantatzen! [...] eta hori zen nire giroa. Funtsean [...] kirol elkarteen gauza zen eta bakoitza nahi zuenarekin joaten zen, adibidez nire neba Club Deportivo Navarrarekin zihon beti eta ni Errotazarrekin. Zergatik joaten nintzen ni Errotazarrekin? Ba ez dakit zergatik sartu nintzen ni Errotazarren, suposatzen dut klubaren batean elkartu behar ginelako eta... [mendiak] denbora luzez mantendu izan diren harreman eta lotura pertsonak asko sortu zituen garai hartan... adiskidetasunak, bai. [M.S.S.. CCOOeko militantea. Mendizalea]

#### 4.3.3 Parrokiak. Bizitza sozialaren erdiguneak

Parrokiak katekesia eta halako gauzak antolatzen zituen. Parrokiak garai hartan [...] halako kontzientzia sozial agerikoa zuen, ezta? [...] bilerak egiten uzten zigun eta dirua eman zigun gazte klub bat sortzeko. Beno... [...] ni hona [auzora] iristen naiz eta... ez zegoen ezer eta orduan uste dut parrokiara joan nintzela, apaizarekin hitz egitera ba gazte klub baten moduko bat zutelako, katekesi moduko bat. Eta apaizarekin hitz egitera joan nintzen ba lokal batekin laguntzerik ba ote zuen galdetzera, gazte klub bat sortzeko lokal bat behar nuela eta... hori izan zen hasiera. Gazte klubarekin hasi ginen eta hortik gero auzo elkarteak jaio zen [A.L.. Sanduzelaiko bizilaguna. Sanduzelaiko Auzo Elkarteko sustatzaileetarikoa]

Parrokiak sozializazio herrikoierako oso esparru garrantzitsuak izan ziren frankismoaren bitartean. Egiatzko topagune bezala funtzionatzen zuten jendearentzako, harreman sareak sortu eta zabaltzeko nukleo abantailatuak izan zirelarik eta are jarduera soziopolitikoak sustatzeko gune eraginkorrak izatera iritsi zirelarik. Auzo komunitateen eta identitateen sorreran funtsezko eragile izan ziren. Auzoetako lehen antolakuntza moduen eta erakunde herrikoien bultzatzaile izan ziren, HOAC eta JOC bezalako langile erakundeen jardueraren bitartez, auzokideei biltzeko eta antolatzeko esparru fisikoak eskainiz eta ekimen sozial orori estaldura legala emanez. Elizari lotutako esparru eta eragile desberdinek berrosatzen ari garen zirkuituaren sorreran izan zuten paperean sakonki sartu gabe (datorren kapituluaren gai nagusia izanen da), oraingoan, parrokiak eta zentro parrokiak, auzo mailan, langileen sozializaziorako esparru gisara nola aritu ziren ikusiko dugu.

Hasteko, parrokiak, auzoek pairatzen zituzten hornidura sozialen gabeziak ekimen desberdinekin arintzen saiatzen ziren. Aurreko kapituluaren ikusi genuen bezala, langile auzoetan hezkuntza eta osasun zerbitzuen, baliabide sozial zein kulturalen edota kirol instalazioen eskasia horren agerikoak ziren, hutsune haiek parrokiaren bitartez Caritasek sustatzen zituen kontsultategi edota zentro sozialekin bete behar izaten zirela. Arrotxapean 1963an jarri zen martxan oinarritzko zerbitzu medikoa eta instantzia bat egiten irakasten edota langileen zein patroien zereginak argitzen zituen

<sup>686</sup> Blas Subiza eta Vicente Arroyo, *Historia y recuerdos... Op. Cit.*, 182 orr.



aholkularitza soziala eskaintzen zuen doako zentro bat<sup>687</sup>. Urte horretan ere Donibanen, parrokiak eta Caritasek sustatuta, eskola, kontsultategi bat eta taberna zituen zentro sozial bat jaiotzen zen eta Etxabakoizen, 1964an, oinarriko zerbitzu medikoa eta haurtzaindegi zerbitzua eskaintzen zituen halako kontsultategia sortzen zen eragile berdinen eskutik<sup>688</sup>. Guzti honek parrokiak eta euren zentroak promozio sozialerako erreferentziazko gune bilakatzen zituen auzoetan langileen begien aurrean.

Honekin batera, esparru fisiko bezala, zentro parrokialak, jarduera soziokultural jakinak garatzeko eta militantzia sozial zein politikoei auzoetan presentzia izaten hasteko ezinbesteko azpiegiturak izan ziren, klandestinitatearen urteetan eta berezko esparru herritarrik ez zegoenean. Martin Checa Artasuk aztertu zuen Bartzelonako Bon Pastor auzoan adibidez, sozialismo autogestionarioak izan zuen presentziak, parrokiatik mugitzen hasi zen gazte talde batekin izan zuen zerikusirik<sup>689</sup>. Gazte haiek zentro parrokiak hurbildu ziren jarduera sozial eta kulturalak sustatzeko asmoz. Parrokoaren babesa jaso zuten eta arte eszenikoei lotutako jarduerak antolatzen hasi ziren, zentroa, auzoaren aisialdia eta kultura dinamizatzeko gune nagusienean bilakatu zen arte. Talde hau bera, gerora, auzoko langile kooperatibaren muinoa izan zen, auzoan bizi zen hainbat militante sozialistarekin eta anarkistarekin batera. Autogestioaren filosofian oinarritutako kontsumo kooperatiba hura ordea, kooperatiba hutsa baino askoz ere gehiago izan zen eta jarduera kulturalen sustapenerako egiazko esparru izaten jarraitzeaz beste, gai politiko eta sindikalak zabaltzeko eta auzoaren arazoak eta aldarrikapenak ezagutarazteko eragingune garrantzitsu izatera iritsi zen. Adibide honek parrokiak eta bertan bildu zen gazte taldeak antolatutako jarduera, konfluentziarako gune izan zirela, auzo bizitza dinamizatzeko eta kezka edo ezinegonak bideratzeko gogoia zuten pertsonak harremanetan jartzeko eta elkartzeko funtsezko papera izan zutela erakusten du.

Aurreko atalean, auzoko parrokia, txantrear komunitatearen baitako sozializatorako esparru bezala aztertu dugu. Auzoaren hastapenetan, bizilagunen erlijiotasunak nahitaezko erreferentzia puntu bihurtzen zuen eta ondorioz, harremanak sortu eta garatzeko ezinbesteko elkargunea zen. Laster, bizitza soziala kirol eta kultura jardueren bitartez dinamizatzeko esparru bezala sendotuko zen, parrokiari lotutako Acción Católicaaren auzoko zentroa, HOACeko lehen militante nukleoaren bileretarako gune bezala egonkortzen zen bitartean. Bon Pastor auzoan gertatu zen bezala, Txantrean ere zentro parrokiaren esparrutik auzokideen antolakuntza modu herrikoiak sortu ziren. Parrokiaren inguruan bildu eta antolatu zen lehen HOAC nukleo hura adibidez, auzo elkartearen ernamuin edota auzoko lehen zentro sozial eta kulturala izan zen Auzotegiren<sup>690</sup> sustatzailea izan zen. Auzo mailako antolakuntza molde herrikoi bultzatzaile izan zen ere Donibanen jada aipatu dugun La Asunción parrokiari lotutako zentro soziala. San Vicente de Paúl zentroak errentan hartutako pisu soil batean zuen egoitza, baina auzokideentzat garrantzitsuak ziren hainbat

<sup>687</sup> "El domingo se inaugura un dispensario en la Rochapea. Se trata de una nueva obra asistencial de Cáritas", DN 1963-07-20, 12 orr. eta "Instalaciones sanitarias en la Rochapea", DN 1963-07-24, 6 orr.

<sup>688</sup> Donibanen: "Eguaras. Un centro social para una barriada de trabajadores", DN 1963-08-07, 12 orr.; Etxabakoitzen: "Nuevo dispensario en el grupo Urdanoz", DN 1964-02-02, 9 orr.

<sup>689</sup> Martin Checa Artasu, "Forces antifranquistes per..." Op. Cit., 51-52 orr.

<sup>690</sup> Zentro honetan antzerki taldeak, aldizkari bat, zineforuma edota argazkilaritza tailerrak antolatu ziren autoritateek Gobernadore Zibilaren baimenik gabe Olentzeroren kalejira bat antolatzeagatik itxi zuten arte. Josetxo Celaya, zentroaren sustatzaile haietariko bat eta aipatu HOACeko nukleoaren inguruko pertsona, honela ikusten zuen proiektuaren zerizana: "Kontua zen jendea kontzientzia harraraztea, nola? Ba jarduera kulturalen bitartez, irakurketa, eztabaida, mahai inguruak... kontua zen pertsona zentzu zabalean aberastea, kezka politikoak, sozialak, kulturalak... piztea" Fernando Mendiola, "Entre los viejos ..." Op. Cit., 228 orr.

zerbitzu eskaintzeko gaitasuna zuen: oinarrizko medikuntza eta hezkuntza zerbitzuen gabeziak arintzen zituen, kontsultategi bat eta haur eskola bat zeudelako bertan; emakumeentzako oinarrizko formakuntza eskolak ematen ziren; eta are taberna bat zegoen bertan, "Eguaras etxeetako eta San Alberto Magno kooperatibako familientzat etxe komun" bat zena eta "laneko arazoei buruzko benetako bilerak" izateko "topagune" zena<sup>691</sup>. Hemen ere auzo elkarteak bere lehen pausuak eman zituen. Elkarte erregistroan izena emateko zentroaren txostena ikusteko aukera izan dugu<sup>692</sup> eta bertan, 1962ko data duen "Donibane auzoko Auzo Elkartearen araudiaren proiektua" topatu dugu. Zirriborro horrek, Auzo Elkarte izena zeraman entitateak Caritas Diocesinari lotutako elkartea zela zehazten zuen; bere helburuak "auzokide guztien promozio moral, material eta kulturala, bazkide guztien ekintza kolektiboaren bitartez" lortzea eta "bizilagun guztienganako babesa" bermatzea zirela jasotzen zuen; bere jardueraren alorrak arazo asistentzialak eta sozialak (kulturalak, kooperatiboak, medikoak eta aisialdikoak) izango zirela xedatzen zuen; eta bizilagun zein bazkideen artean arrazoi politiko edo erlijiosoengatik diskriminaziorik egingo ez zuela esaten zuen. Honekin, auzo bizitza dinamizatzeko eta auzoko bizimodua hobetzen saiatzeko berezko jarduera herrikoi bat garatzeko hazia ipintzen zen.

Parrokien eragin eremu garrantzitsuenetariko bat gazteria izan zen. Zentro parrokialetan gazte taldeak sortzen ziren eta hauek jarduera mordoa antolatzen zuten gazteentzat: aisialdiarekin zerikusia zutenak, kulturaren alorrekoak, gazteen arazo nagusienak ezagutzeko eta konpontzeko lan egitera bideratutakoak. Kirola auzoetako gazteria esparru hauen ingurura biltzeko jarduera erakargarrienetariko bat izan zen. Txantrearen kasuan, ikusi dugunez, San José parrokiak futbol talde bat sortu zuen auzoko gazteen arteko harremanak sustatzeko. Are mendi saileko txangoei esker asteburuetan hiriko gazte asko elkartzen zituen Errotazar kirol elkarte, zentro parrokiaren baitan sortutakoa zen. Errotazar hau, gazteriarentzako talde eta jarduerak antolatzen aktiboenetariko bat izan zen Capuchinos parrokiako zentroari lotuta jaio zen. Honek, urtero, Gazteriaren Asteak prestatzen zituen eta gazteei zuzendutako mota askotariko ekimenak, hots, hausnarketa sozialerako hitzaldi zikloak, kirol txapelketak, zineforumak edota jaialdi artistiko-musikalak, barne hartzen zituen programa bat prestatzen zuen<sup>693</sup>. A.A.-k Gazteriaren Aste hauetariko hainbat antolatu zituen bertako parrokoa izan zen bitartean eta haren esperientzian, zentro parrokiak horrek San Pedro auzoko gazteentzako egiazko erreferentzia eta topagune izan zela ikusten ahal da:

Gazte mugimendu oso jatorra, oso jatorra zegoen. Hemen [zentro parrokiarean] bostehun gazte inguru biltzen ginen, hori bai gozamina! Ez zegoen telebistarik eta guztiak hona etortzen ziren; dantzalekua zegoen, jolasak zeuden, komediak eta antzerkiak egiten genituen... guztia hemen

<sup>691</sup> "Eguaras. Un centro social para una barriada de trabajadores", DN 1963-08-07, 12 orr.

<sup>692</sup> AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoak, Elkartearen saila, 72. kutxa.

<sup>693</sup> 1962ko Gazteriaren astean gazteriaren arazo nagusiei (lan mundua, harreman afektiboak, senar-emazteak) buruzko hitzaldi ziklo bat, zineforuma eta jaialdi artistiko eta musikal bat antolatu ziren: "Parroquia de San Pedro (Padres Capuchinos) IV semana de la juventud", DN 1962-05-20, 2 orr. Antzeko ekimenak antolatu ziren Burlatako lehenbiziko Gazteriaren Astea: zineforuma, musika jaialdia, mus txapelketa, futbola eta herri bazkaria. Kasu honetan, antolakuntza herriko gazteen arteko harremanak dinamizatu nahi zituen gazte talde baten esku egon zen: "gure proiektua Burlatako gazteak pixka bat gehiago batzea da. Harremanak sustatu. Burlata, hein handi batean emigrante familiez osatuta dago eta horregatik, nolabaiteko deserrotze edo atxikitasunik eza dago [...] Zoragarria izango zen gure artean, gazteon artean, giro [polit] bar sortzea". "Notas del Reporter. Una juventud, la de Burlada", DN 1969-09-21, 7 orr. Parrokiak paper garrantzitsua izan zuen ekimen honen jaiotzan, gazte hauek haren inguruan ibiltzen baitziren eta martxan jartzeko parrokoaren laguntza izan baitzuten: "ez genuen gazteentzako inolako klub edo halakorik. Hitzaldi kulturalak, formakuntza saioak, zineforuma, gau festak... egin nahi genituen [...] parrokoari esan genion eta oso ideia ona iruditu zitzaion". "En Burlada. Se celebra la I semana de la juventud", DN 1969-09-27, 24 orr.

egiten zen. Gero larunbatetan “Sabatina” egiten genuen, Ama Birjinari otoitz egiten zitzaion eta guztiak etortzen ziren, eliza Beteta zegoen [...] [egun batean] Ostizera joan ginen, landa giroko jai bat ospatzera eta autobusetan seihun gazte baino gehiago joan ginen. Meza egin genuen, gero sekulako “costillada”, gero jokatzeko bost behi mutilentzat eta beste bost neskentzat [...] eta gero zazpietatik hamarrek arte dantzaldia. Seihun gazte baino gehiago ziren... oso bizipen interesgarria zen, oso jatorra, oso sanao gainera, oso sanao. [A.A.. Capuchinoseko parrokoa lehenbizi eta Antsoingo parrokoa gero]

Sanduzelain ere parrokiaren papera funtsezkoa izan zen auzo antolakuntza molde herrikioen abiaraztean<sup>694</sup>. Berri samarra zen auzo honetan (parte berria 60. hamarkadan hasi zen eraikitzen), lehen uneko hutsune asoziatiboak, sozializatorako esparru aktibo eta dinamiko goiztiarrena parrokiaren inguruan sortutakoa izatea eragin zuen. Bihotz Santuko mojek adibidez, hezkuntzazko eta asistentziazko lan sozial garrantzitsua egiten hasi ziren parrokiari lotutako ekimenen bitartez: 1969an Lehen Hezkuntzako eskola bat jarri zuten martxan eta sekulako arrakasta izan zuen auzoan, hezkuntza zerbitzuen gabeziak, oso agerikoak zirelako; gaueko ordutegian helduentzako eskolak antolatu zituzten, ikasleek lehen mailako ikasketa titulua eskura zezaten. Hain zuzen ere gaueko eskola hauetatik sortu zen 70. hamarkadaren hasieran jarduera kulturalak antolatzea helburu zuen gazte talde bat. Antzerki eta musika taldeak sortu ziren honen baitan. Hasiera batean euren ekimenak bizitza parrokiaren baitan prestatzen bazituzten ere, laster auzoari zabaldu zizkieten, bizilagun guztiei zuzendutako dinamika sustatzen hasi zirelarik. Talde hau, hartara, ezinbestekoa izan zen auzoko bizitza asoziatiboaren bilakaeran, izan ere, hasierako jarduera horretatik abiatuta, auzoko kolektibo desberdinen (kirol batzordea, gazte kluba) hazia jarri zuen eta honekin, egiazki, auzoko bizitza komunitarioaren garapenaren eragile izan zen.

Parrokiak, era berean, 70. hamarkadaren hasieran auzoan sortu ziren mugimendu sozial berriak babestu zituen eta haiekin inplikatu zen. Centro de Cultura Popular y de Promoción de la Mujer delakoaren kasua izan zen. Halako zentroak Acción Católicaak etxearen eta familiaren alorren inguruan antolatzen zituen emakumeentzako ikastaroetatik abiatuta jaio ziren. 1971an zentro hauek Elizaren baitako erakunde autonomo bihurtu zirenean, oso garapen interesgarria bizi izan zuten euren jardueren edukien aldetik eta gai sozialen, emakumeen eskubideen eta metodologia parte hartzaileen inguruko ikastaroak eskaintzen hasi ziren. Urte horretan bertan auzoko zentroa sortu zenetik, parrokiak gogotsuki lan egin zuen bertako emakumeekin eta hitzaldien eta tailerren prestaketan lagundu zituen maiz. Elkarte honek auzoari ekarpen garrantzitsuak egin zizkion, bai emakumeei formakuntzarako, autoestimua lantzeko eta sistemari kritika hausnartua egiteko aukera ematen zielako eta baita, berezko ikastaroez gain, auzokide guztiei zuzentzen zitzaizkien gorian zeuden gaiei buruzko hitzaldiak eta eztabaidak antolatzen zituelako ere<sup>695</sup>. Auzo Elkarteari dagokionean, parrokiak mugimenduaren hastapenetan eman zuen laguntza nabarmentzekoa izan zen hainbat aspektutan. Alde batetik, parrokiak materialki lagundu zuen elkartearen aurrekaria izan zen gazte kluba, ekarpen ekonomikoak eginez eta biltzeko lokal bat erraztuz. Bestetik, auzo elkarteak gabeziak eta arazoak salatzen protesta jarduerak eta mobilizazioak hasi zituenean, parrokiak hauekin bat egiten zuen eta berauetan parte hartu ere<sup>696</sup>.

Arrotxapean, Virgen del Ríoko parrokia egiazko gune herrikoi bat izan zen. 1971 urtean sortu zen eta hasieratik izaera irekia, konprometitua, umila eta langilea agertu zuen. Topagune soziopolitiko garrantzitsua izan zen, non langile asanbladak eta

<sup>694</sup> Ikusi Irantzu Urdaniz eta Germán Esparza, *La historia escondida...* Op. Cit., 46-48 orr.

<sup>695</sup> *Ibid.*, 56-60 orr.

<sup>696</sup> Hau izan zen, adibidez, A.A.-ren kasua. Antsoingo parrokoa zela, protesta eta aldarrikapenen antolakuntzan parte hartu zuen eta baita haien buruan jarri ere.

talde politikoen bilerak burutzen ziren. Honekin batera, auzora begira, bizilagunentzako zerbitzu desberdinak eskaintzen zituen, zentro kultural herrikoi bezala funtzionatu zuelarik. Adibidez, umeentzako katekesi taldeak, helduentzako talde pastoralak, gau eskolak, emakumeen promoziorako zentro bat eta are jaien antolakuntza sustatu zituen. Giza eskubideen defentsan eta edonolako bidegabekeriaren eta torturaren salaketan nabarmendu zen<sup>697</sup>. Lino Otano, ikusiko dugun bezala Iruñerriko langile giroetan eta giro herrikoietan oso ezaguna zen figura bat, lehenbiziko parrokoa izan zen.

#### 4.3.4 Auzo Elkarteak. Gizarteratzerako eta borrokarako esparruak

Oso lotuta zegoen, bai, oso lotuta zegoen. Auzo elkarteon sartuta zegoen jendea, aldi berean sindikaturen batean edo beste nonbaiten sartuta zegoelako .... dena lotuta zegoen. Gogoratzen naiz Ignacio Soriakoen mobilizazioetan... Ignacio Soriako famatuak, gehienak, auzo elkarteko kideak ziren [...] jende berbera zen. [J.P.. Txantreako Auzo Elkarteko militantea<sup>698</sup>]

Auzo elkarteak, komunitateen existentzia argien azaleratzen zuten herri antolakuntza moldeak izan ziren. Zentzu honetan, elkarteon agerpena auzo komunitateen sorrera prozesuaren goren-unetzat jotzen ahal dugun arren, komunitate haiek garatu izandako berezko identitateei klase edukiak emango zizkieten eragile garrantzitsuak izan ziren ere aldi berean. Izan ere, auzo elkarteak, langile sozializatorako eta militantzia soziopolitikorako egiazko esparruak izan ziren 70. hamarkadatik aurrera. Egiten ari garen zirkuituaren berrosatze honetan, auzo elkarteak konexio puntu garrantzitsuak izan ziren eta horregatik, oraingoan auzo mugimenduaren mundurako lehen hurbilpen bat egingo dugu. Langile sozializatorako esparru bezala aztertuko ditugu, ez berezko objektu bezala. Ez dugu beraz auzo elkarteen berezko azterketa bat egingo gure helburua, auzo elkarteak berak aztertu baino, klasearen eraketa prozesuan izan zuten papera azaleratzea delako.

Azken aldian auzo mugimenduari buruzko azterlanen loraldi bat ari da ematen. Langile mugimendurekin gertatu bezala, diktaduraren oposizioaren baitan aztertuta izatetik, berezko ikerketarako objektu izatera igaro da. Auzo elkarteon sorrera, euren jarduera, bilakaera eta borroka, diktaduraren amaieran eta trantsizioaren bitartean izan zuten papera edota orduko mugimendu sozialekin izan zituzten loturak, geroz eta zabalagoa den auzo mugimenduari buruzko bibliografiak, orokorrak eta tokian tokikoak, lantzen dituen gai nagusienak dira<sup>699</sup>. Guri, zehazki, elkarteek auzo bizitza

<sup>697</sup> "Parroquia Virgen del Río: 25 años de vida, 25 urte bizirik", Ezkaba aldizkaria, 37. Zkia, 1996, 14-16 orr.

<sup>698</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketetatik lehenengoari dagokion testigantza. Iruñea, 2014-11-18.

<sup>699</sup> Auzo mugimendua 70 hamarkadaren amaieran eta 80. hamarkadan aztertzen zuten lan klasikoak oinarritzko bibliografia dira, AAVV, *Las asociaciones de vecinos en la encrucijada. El movimiento ciudadano en 1976-1977*, Ediciones de la torre, Madril, 1977 eta Juanjo de Andrés eta José Antonio Maisuetxe, *El movimiento ciudadano en Euskadi*, Txertoa, Donostia, 1980. Gu ordea, auzo mugimendua historiko ikertzen ari diren lanak nabarmendu nahi ditugu, azken urteotan hauen hazkunde nabarmen bat eman baita. Aipatzekoak dira, adibidez Vicente Pérez Quintana eta Pablo Sánchez León, *Memoria ciudadana y movimiento vecinal. Madrid 1968-2008*, Los libros de la Catarata, Madril, 2008 eta Carme Molinero eta Pere Ysás (koor.), *Construit la ciutat democrática, el moviment veïnal durant el tardofranquisme y la transició*, Icaria, Barcelona 2010. Bertan ekarpen garrantzitsuak ageri dira, besteak beste, Ivan Bordetas "De la supervivencia a la resitencia: la gestació del moviment veïnal a la Catalunya franquista"; Iván Bordetas eta Anna Sánchez, "El moviment veïnal en (la) transició, 1974-1979"; eta Ricard Martínez, "Construir futurs. La dimensió anticapitalista del moviment veïnal". Euskal Herriko auzo mugimenduaren kasurako, argitalpen berrien artean, Igor Ahedo, "Acción colectiva vecinal en el tardofranquismo: el caso de Rekalde", *Historia y política*, 23. zkia, 2010, 265-317 orr. aipatzen ahal dugu. Era berean, azken aldian gairi buruzko doktore tesiak ari dira burutzen: Constantino Gonzalo Morell, *Movimiento vecinal y cultura democrática en Castilla y León. El*

komunitarioan zuten presentzia eta bizilagunekin eta mugimendu herrikoiekin zuten harremana aztertzea interesatu izan zaigu. Ez da erraza izan, Iruñerriko auzo mugimendua erabatean ikertzeke baitago. Zentzu honetan, hurbilpen honek, geroko ikerketek berretsi beharreko zenbait ildo zabaldu baino ez du egiten.

Auzo elkarteak, aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, langileek auzoetan bizi zuten errealitate gatazkatsuari lotuta jaio ziren, 60 eta 70. hamarkadetako hirien hazkundeak eragindako hiri esparruaren hondatze orokortutik eta azpiegitura sozialen gabezia larritik eratorrita. Errealitate hauen aurrean, periferiako bizilagunen artean, pozik eza nagusitzen hasi zen, euren auzoetan ingurugiro benetan deitogarrietan bizi baitziren. Modu honetan, auzo elkarteak, kontrolik eta planifikaziorik gabeko hiri hazkundeak sorrarazitako arazoei emandako erantzun kolektibo bezala sortu zirela esan daiteke. Hasiera batean bizilagunek legeriaren baitako kanaletatik bideratu zituzten euren lehendabiziko ekintzak eta idatziak, protesta gutunak, sinadura bilketak edota tokian tokiko autoritateekin elkarriketatzeko eskaerak, aurrekari garrantzitsuak izan ziren interes kolektiboen babesaren aldeko jardura bat dinamizatzen hasteko. Aurreko kapituluan bildu ditugun periferiako bizilagunen *Reporter* sailerako salaketa eskutitzak, Etxabakoitzeko familiek garraio publikoaren gehiegizko salneurriarengatik protesta egiteko agintari lokalei bidalitako gutuna edota Arrotxapeako auzokideek kirol instalazioak eskatuz Iruñeko Udalari zuzendutako eskutitza, dinamika hasiberri honen adibideak dira.

Auzo mugimenduaren jarduerak bere goreneko unea 70. hamarkadaren erdialdean izan bazuen ere, auzo elkarteek 60. hamarkadan izan zuten abiapuntua. 1964ko Elkartearen lege berriak zerikusirik izan zuen horretan, legez, asoziazionismo berri bat baimentzen zuelako. Modu honetan, aipatu periferiako bizilagunen salaketak, kezkak eta aldarrikapenak, elkarretratze sozialaren eta herritarren antolakuntzaren bitartez bideratzeko legezko aukera sortu zen, lehen familia eta bizilagun elkarteak jaio zirelarik. Hauek auzoaren esparrura mugatzen ziren eta bizilagunen interesaren defentsarako entitate bezala definitzen ziren. San Vicente de Paúl zentro sozialak 60. hamarkadaren hasieran sustatu nahi izan zuen “Donibaneko Auzo Elkarte”, asoziazionismo forma hauen aurrekari goiztiarra dugu. “Familia elkarte”, izendapenarengatik, nola edo halako kutsu paternalista igartzen bazitzairen ere, Donibanekoa bezalako lehen elkarte hauek, langileentzako eta euren familientzako egiazko sozializaziorako esparruak izan ziren. Izan ere, erregimenaren egituretan kokatuta ez zeuden gizarte sektoreek, euren jardura soziala, kulturala edota aisialdizkoa, jarrera independente batekin garatzen hastea ahalbidetzen zuen<sup>700</sup>.

Lehenbizikoz halako elkarteak sortu ziren auzoak berez langile auzoak zirenez, langileek hauetan izan zuten parte hartzea, agerikoa izan zen. Baina ez eskusiboa. Bazkideen gehiengoa beti langilea zen arren, auzo elkartearen osaera, anitza izan zen

---

*caso de Valladolid (1964-1980)*, Pedro Casas Sotok zuzendutako doktore tesia, Valladolideko Unibertsitatea, Amerikako Historiako eta Historia Moderno eta Garaikideko Departamentua, 2011 eta Ivan Bordetas, *Nosotros somos los que hemos hecho esta ciudad. Autoorganización y movilización social durante el franquismo y el proceso de cambio político*, Martí Marín Corberak eta Pere Ysásek zuzendutako doktore tesia, Universitat Autònoma de Barcelona, Departament d'Historia Moderna i Contemporània, 2012. Javier Contreras Becerrak bere doktore tesia Andaluziako auzo mugimenduaz ari da egiten eta lan horretan oinarrituta hainbat gauza argitaratu ditu, adibidez, “El movimiento vecinal en Andalucía durante el tardofranquismo y el proceso de cambio político (1968-1986): ¿Excepcionalidad o actor destacado?”, *Gerónimo de Uztariz*, 28/29. zkia, 2012/2013, 95-122 orr.

<sup>700</sup> Rafael Quirosa-Cheyrouze y Muñoz eta Mónica Fernández Amador, “El movimiento vecinal: la lucha por la democracia desde los barrios”, Rafael Quirosa-Cheyrouze y Muñoz (ed.), *La sociedad española en la transición. Los movimientos sociales en el proceso democratizador*, Biblioteca nueva, 2011, Madril, 207-220 orr., 210-211 orr.

mugimendu bezala eta berauetan, langileekin batera, profesional kualifikatuek, teknikoek, medikuek edota irakasleek protagonismo handia izan zuten<sup>701</sup>. Hala ere, elkarreok langile izaera argia azaltzen zuten. Izan ere, loturagune garrantzitsuak zeuden auzo mugimenduaren eta langile mugimenduaren artean. Esate baterako, auzokideen eta langileen borroken arteko harremanak estuak ziren, hein handi batean problematika berberetatik, langileen problematiketatik, eratorzen zirelako. Honela, askotan bi mugimenduek bat egiten zuten eta protesta zein manifestazioetan indar handiagoa izateko, elkarrekin lan egiten zuten, aurreko ataletan ikusten genituen norabide bikoitzeko sareen bitartez. Sare hauen funtzionamenduari esker lortzen ziren, adibidez, langileen greba luzeak iraunarazteko laguntza ekonomikoak eta antolakuntzarako azpiegiturak. Langile mugimenduak ere auzo mugimenduaren borrokekin bat egiten zuen, batzuetan ekintza ikusgarrietan. Sanduzelain esaterako, bizilagunek eta langileek, elkarlanean, pikotx, pala eta soldatzeko erregailuekin, etxebizitza blokeen arteko etxabeak bota zituzten<sup>702</sup>. Aldi berean bi mugimenduetan lan egiten zuten militanteek zerikusirik izan zuten halako bateratzeetan. Garai hartan militantzia bikoitza eta are hirukoitza ohikoa izan zen, pertsonak, militanteak, protagonistak, esparru desberdinak elkarlotzen zituzten bilgune izan zirelarik. A.L.-ren ibilbidea alor desberdinetan garatzen zen militantzia baten adibide adierazgarria da. MCEko militantea zen, hezkuntzaren alorreko Nafarroako CCOOen sortzaileetariko bat izan zen eta aldi berean, Iruñerriko auzo mugimenduko figura nagusienetariko bat zen:

Auzo elkarte aurpegi publikoa zen, baina gero ere CCOOen lan egiten genuen, esparru politikoago batean, ezta? [militantzia bikoitzaren moduko bat zen] bai... beno, hiru militantzian ibiltzen ginen [ni adibidez] hezkuntzaren adarreko CCOOetan, auzo elkartearen eta politikoki MCEan, garai hartan MCEan, ibiltzen nintzen. Hori zen nire militantzia. [A.L.. Sanduzelaiko Auzo Elkarteko militantea]

Auzo elkartearen bilakaeran bi aldi nagusi bereizten ahal ditugu. Lehenbizikoan, elkartearen lehenbiziko nukleoak, auzoan jada sortuak ziren sareetatik eta jada antolatuta zeuden esparru eta mugimendu herrikoietatik sortzen ziren. Parrokiei lotutako elementuek auzo mugimenduen hastapen hauetan izan zuten papera, honen adibide adierazgarria da. Aldi honetan, auzoetako HOACeko eta JOCEko militanteak, auzo elkartearen jatorrizko nukleoak sortzaile izan ziren maiz. Txantreako eta Arrotxapeako elkartearen kasua izan zen<sup>703</sup>. Txantreako Auzo Elkartearen hain zuzen, aurreko atalean osatzen ikusi dugun HOAC militantearen lehenbiziko nukleo horrek sustatu zuen: *“[elkartera] HOACetik abiatuta hasi zen, orduan gutxi gora behera modu legalean zegoen gauza bakarra zen. Orduan handik ibiltzen zen jendea, Cecilio Goñi, Vicente Rey, Valentin Irisarri... mundu horretatik zetorren jendea izan zen, jende hori izan zen auzo elkartearekin hasi zena. Hauek hasi ziren baina laster jende asko batu egin zitzairen, ba, lan egiteko, ekimenak prestatzeko zegoen esparru legal bakarra*

<sup>701</sup> José Antonio Pérezek adibidez, Bilbo Handiko auzo elkartearen buruen artean teknikoak, medikuak edota lizentziatuak bezalako profesional kualifikatuen kopuru garrantzitsu bat zegoela baieztatu du. *Los años del...* Op. Cit., 95 orr.

<sup>702</sup> A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16. J.M.E. ez zen Sanduzelaiko bizilaguna baina, Super Serreko langile bezala, borroka horretan parte hartu zuen ere: “Sanduzelaiko Auzo Elkarteak sustatutako kriston mobida bat egon zen eta guk, langile mugimenduak, lagundu genuen. Bertara jaisten ginen [...] eta paretak botatzen genituen, habeak mozten genituen, teilatuak bota...” J.M.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-06.

<sup>703</sup> Sanduzelaiko Auzo elkartearen sustatzaile izan baino lehen, A.L. Arrotxapeako Auzo elkartearen ibili eta beraz, bertan parte hartzen zuen HOACeko nukleoa ezagutu zuen. A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16. Txantrearen kasuan, auzo elkartearen militante nabarmenduak izan ziren bai J.P.-ek eta baita A.G.-k ere azaldu dute elkartearen jatorria HOACeko militante nukleo bat izan zela. J.P.-i eta A.G.-ri egindako elkarrizketak. Iruñea, 2014-11-25 eta 2014-12-22, hurrenez-hurren.

*zelako*<sup>704</sup>. Honekin, parrokoek eta apaizek, lokalak eta azpiegiturak erraztuz eta eliztarrak mugiaraziz, auzo mugimendu hasiberri honen garapenean lagundu ohi zuten ere. Lehen nukleo hauei, bigarren aldi batean, mugitzeko gogoia zuten auzokideak gehitu zitzaizkien eta hauen eskutik, elkarteetara, talde politikoak sartzen hasi ziren. Auzo mugimendua erregimen frankistaren aurkako antolakuntza forma bezala sendotzeko bidean egoteak, talde politiko ezberdinak berauetan lan egin nahi izatea eragin zuen. Ezkerreko taldeetako militanteak auzo mugimenduko militante egin ziren eta presentzia honek, hasierako nukleoak indartu eta egonkortu zituen. Egiazki, 70. hamarkadaren hasieran, alderdi desberdinetako militanteek, auzo elkarteetako kideen portzentaje garrantzitsu bat osatzen zuten. Mugimenduaren liderren kasuan, ehunekoa are handiagoa zen. Presentzia hori horren nabaria izan zen, auzo elkarteak berak, askotan, talde politiko jakinekin identifikatzen zirela: Sanduzelaikoa adibidez MCEarekin lotu ohi zen, haren sustatzaileak eta militante nabarmenduenak alderdi honetakoak zirelako<sup>705</sup>. Hala ere, auzo elkarte baten baitan talde batek izaten ahal zuen halako nagusigoak ez zuen zuzenean orientabide ideologiko baten nagusigoarekin zerikusirik, talde desberdinek elkarteetan izaten zuten pisua, gehiago, alderdiak auzoko harreman sareetan lortua zuen eraginetik eratortzen baitzen.

Auzo elkarteen jarduera anitza eta aberatsa izan zen. Alor desberdinetan lan egiten zuten eta mota askotariko ekimenak sustatzen zituzten: hiri esparruaren eta ingurugiroaren hondamenari hala nola hornikuntza sozialen gabeziari lotutako salaketa, protesta eta aldarrikapen ekintzetatik hasita, bizilagunen promozio kolektiboan laguntzearen auzo bizitza soziala dinamizatzen zuten ekimenetara iritsi arte. Jarduera guzti hau, elkarteek euren estatutuetan definitzen zituzten helburu jakin batzuekin bat etortzen zen. Iruñeko Alde Zaharreko Auzo Elkarteko estatutuek adibidez, "elkarbizitza gizatiarrago bat eta maila kultural, sozial eta herritar hobeago bat sortzea" xedatzen zuten elkartearen helburu nagusi bezala eta Berriozarreko elkarteek, "bizitza komunitario aberatsago bat lortzearen, bazkide eta bizilagunen arteko anaitasun harremanak estutzea"<sup>706</sup>. Halako helburuek auzo errealitatearen alor guztietan garatu beharreko jarduera bat eskatzen zuen eta horregatik, elkarteetan lan egiteko modua, gai desberdinez arduratzen ziren komisioren bidezko antolakuntza izan zen: *"Txantreako [Auzo Elkarteetan] jende asko sartu zen, jende asko. Eta komisioko ezberdin asko sortu ziren. Komisiotan lan egiten genuen, ezta? hirigintza komisioko, ez dakit zer komisioko... eta jarduera zabaltzen genuen heinean, komisioko berriak sortzen genituen... ba kukuso merkatua egin zenean, kukuso merkatuaren batzorde eskusiboa bat egin genuen; gero ere kultura komisioko bat zegoen, zineforuma egiten zuen, asteburu oro zineforuma zegoen, eta hitzaldiak... hau da, jarduera benetan kementsua zen, benetan kementsua... orduan jende asko konprometituta zegoen, lan egiten ahal zen esparru bakarra zelako*<sup>707</sup>. Txantreako Auzo elkarteko komisiokoak, hirigintzako batzordea, osasun batzordea, emakumearen batzordea eta kultura batzordea izan ziren, besteak beste.

Bereziki euren hastapenetan, elkarteon aldarrikapenen gehiengoa hirigintza arazoetatik eta oinarrizko horniduren arazoetatik eratortzen zen, izan ere, arazo hauen konpontzea, bizitza duin baten garapenerako ezinbesteko baldintzat jotzen zen. Lanik handiena izaten zuten komisiokoak, hartara, hirigintzakoak izan ohi ziren.

---

<sup>704</sup> J.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-11-25.

<sup>705</sup> *Ibid.* A.L., auzo elkartearen sustatzaileetarako bat eta militante nabarmenduenetako bat, MCEko militantea zen, adibidez.

<sup>706</sup> Alde Zaharreko Auzo Elkartearen estatutuen proiektua, AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoak, Elkarteak saila, 74. kutxa. Berriozarreko Auzo Elkartearen estatutuei buruzko informazioa, "La Asociación de Vecinos de Berriozar: objetivos, posibilidades y problemas", DN 1971-10-31, 13 orr.

<sup>707</sup> J.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-11-25.

Iruñerriko auzo mugimenduaren mugarrietako batzuk, adibidez, hirigintzaren alorreko aldarrikapenetan izan zuten jatorria. Sanduzelain, auzo elkarteak lurpeko pasabide bat lortzearren hasi zuena izan zen borrokarik ezagunena, “Nafarroan inoiz egin diren barrikadarik handienak” haren erdian gertatu zirelarik<sup>708</sup>. Txantrean, elkartearen hirigintza batzordeak, auzoaren interesaren aurkakotzat jotzen ziren garapen urbanistikorako planen aurka borrokatu zuen; kale eta errepideen egoera deitogarria salatu zuen (batzuetan umorearekin, jaietan kale zuloak baliatuta golf txapelketa bat antolatu zuenean bezala); eta “atariak kakaz betetzen zituen” estolda sistema negargarriaren aurka protesta egin zuen, abesti batekin “ya están aquí los desagües, siempre los mismos desagües, con su...” eta komun ontzi bat txaranga baten laguntzarekin auzotik paseatuz. Oinarrizko hornikuntza sozialen eskaerak komisió desberdinen bitartez bideratu ziren: hezkuntza batzordeak ikastetxeen eraikuntza, haurtzaindegien sorrera eta hezkuntzaren doakotasunerako politikak exijitzeaz arduratzen ziren eta osasun batzordeak, behar bezalako osasun-etxeen instalatzea eskatzeaz. Emakume batzordeek hauen problematika zehatzak lantzeaz arduratzen ziren. Txantreako emakumearen batzordeak, esaterako, familia planifikaziorako eta sexu orientabiderako Iruñerriko lehen zentroa, Andraize, martxan jartzea lortu zuen. Guztiarekin ere, auzo elkarteak ez ziren protesta egitera eta eskaerak egitera mugatu eta arazo guzti haiek konpontzearren, bizilagunak berezko ekimenenak martxan jarri zituzten. Txantrean, berriz ere, adibide adierazgarriak ditugu. Hirigintzaren alorrean, auzo elkarteetan ibiltzen zen gazte talde batek, errepideetako kale zuloak estaltzeko lanak egin zituen eta hezkuntzaren alorrean, guraso talde batek, auzo elkarteak kudeatzen zuten Auzotegi zentroan, euskarazko bi haur hezkuntza gela sortu zituen, 70. hamarkadaren amaieran Iruñean martxan jarri zen udal ikastolan ikasteko tokirik gabe geratu zirenean.

Baina auzo elkarteetan jarduerak, auzoen eta bizilagunen bizitza aspektu materialean hobetzeaz beste, hauen erabateko promozioa bilatzen zuen, baita aspektu sozialean eta kulturaletan ere. Elkarteek aspektu hauetan garatzen zuten jardueraren ikuspegi orokor bat izateko, elkarteek berek zein ekimen mota antolatzea aurreikusten zuten begiratzen ahal dugu euren estatutuetan. Berriozarrekoak “kirol taldeak, musika eta folklore taldeak, liburutegiak, zine emanaldiak eta antzerkia, hitzaldiak, elkartruke kulturalak, txangoak eta kooperatibak” antolatzea aurreikusten zuen; Iruñeko Alde Zaharrekoak “kirol, kultura eta aisialdi jarduerak” sustatzea eta “alor ekonomikoko gaiekiko gogo kooperatiboa” piztea<sup>709</sup>. Txantreako Auzo Elkarteko kultura batzordeak, ildo horretan, oso jarduerak aberatsa garatu zuen. Lehenik eta behin zentro kultural bat kudeatzen zuen -Auzotegi- eta bertan zinema emanaldiak, antzerkia eta hitzaldiak antolatzen zituen eta argazkilaritza tailer bat eratu zuen; bigarrenik, jai herrikoiak (auzoko jaiak edota Eguberriak, Olentzeroren kalejirarekin) aurrera ateratzeaz arduratzen zen. Auzo mailan topatu izan dugun esperientzia interesgarrienetarikoa baten sustatzailea izan zen ere, arrakasta handia izango zuen kukuso merkatu bat sortuz. Auzo elkarteek abiarazten zituzten jarduerak guzti hauetatik, egun Iruñeko auzoetako bizitza dinamizatzen jarraitzen duten kolektibo berriak jaió ziren. Honela, auzo elkarteak sortu aurretik apenas bizitza asoziatiboa zuten Sanduzelai bezalako auzoetan, auzo elkarteak, geroago sortuko ziren mugimendu sozial eta kolektiboen jatorrizko nukleoa izan zen: *“Hemendik gero kolektibo ezberdinak sortu ziren, ezta? hau da, guraso elkarteak, [auzoko] lehen guraso elkarteak, auzo elkarteetan zegoen*

<sup>708</sup> A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16.

<sup>709</sup> Berriozarreko Auzo Elkartearen estatutuei buruzko informazioa, “La Asociación de Vecinos de Berriozar: objetivos, posibilidades y problemas”, DN 1971-10-31, 13 orr. Alde Zaharreko Auzo Elkartearen estatutuen proiektua, AGN-NAO, Gobernu Zibilaren fondoak, Elkarteak saila, 74 kutxa.



*hainbat pertsonaren ekimenez sortu zen [...] edota kirol elkarteak eta peña ere... dinamika guzti hauek orduan genuen nukleo bakarretik [auzo elkartetik] sortu ziren*<sup>710</sup>.

Auzo elkarteak beraz, hirigintza arazoek sortutako ezinegonetik sortutako herritarren antolakuntza eredu bat baino askoz ere gehiago izan ziren. Euren ekimenak salaketa jokabideetatik alternatiba erreala proposatzera igaro ziren, frankismoak arbuatzen zituen zenbait praktika jendarteratuz eta behetik, herritarrengandik, jaiotzen ziren parte hartze ereduak praktikan jarritz<sup>711</sup> eta are bizimodu komunitario bat garatzea posible zela erakutsiz. Txantreako Andraize, Auzotegi eta kukuso merkatua, horren adibide adierazgarriak dira<sup>712</sup>:

Beste auzoetan, auzo mugimenduaren mugari izan ziren, adibidez, Txantrean izan zuten kukuso merkatua. Egun Landabenen dagoena, hasiera batean Txantrean zegoen... Txantreako kukuso merkatua, oso ezaguna izan zena, auzo elkarteak sortu eta antolatu zuen. Kukuso merkatu hartan igandero jarduera ezberdinak egiten ziren: protesta jarduerak, ohol zabalekin egindako eszenatoki bat jartzen zen eta han egiten ziren... bai, jai giroko jardueraz aparte, baita protesta jarduerak egiten ziren ere. Auzo elkarte guztiok, [...] koltza olioarengatik egon zen pozoitze masiboarekin elkartasun jarduerak egin genituen han, kukuso merkatuan, ezta? Hau da, bizilagunek eta Auzo elkarteok nahi genituen gai politiko eta publikoak eramaten ahal genituen kukuso merkatura igandetan, ezta? Andraize, sexu orientabiderako lehen zentroa izango zena, Txantreako mugimendu asoziatibotik sortzen da ere. [A.L.. Sanduzelaiko Auzo Elkarteoko militantea]

Auzotegi kultur etxea, Txantreako Auzo Elkarteak bizi izan zuen garapenaren beste erakusleetariko bat da. Elkartearen lehen nukleoaren eskutik jaiotzen zena, honek bizilagunek asanbladak egin ahal izateko lokal bat lortu nahi izan zuenean. Parrokiaren bitartez, zentroa kokatzeko, Udal Aurrezki Kutxaren lokal bat eskuratu zuten. Orduan aurrera, zentroa, auzoko jarduera kulturalaren erdigune bilakatu zen, inolako hornidura kulturalik ez zegoen auzo batean, egiazko erdigune kultural herrikoi gisara funtzionatu zuelarik<sup>713</sup>. Auzotegi sortzeko ekimenak, nolabait, auzokideek garai hartan izan zuten auto-antolakuntzarako gaitasuna islatzen du, auzo elkartetik ere sortu zen kukuso merkatuak bezala. Ekimen hau, elkarbizitza komunitario bat garatzeko eta kulturaren, giza harremanen eta are merkataritzaren alorrean alternatiba herrikoiak eraikitzeo helburuak erdiesterakoan, auzo mugimenduak lortu izan zuen arrakastaren irudipen nagusi bezala jotzen ahal dugu. Ondorengo lehen zentroan kukuso merkatu horren esperientziaz arituko gara. Ez bakarrik langile sozializazioari buruzko atal bati amaiera emateko, baita langile komunitateen sorrera eta garapenaren prozesuaren azalpenari amaiera emateko ere. Izan ere, Txantrea komunitate haien bilakaera azaltzeko hari bezala izan dugun heinean, zirkulua ixteko, haren heldutasuna iragartzen duen auzokideen berezko ekimen bat aztertzea baino modu egokiagorik ez dugu.

<sup>710</sup> A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16.

<sup>711</sup> Rafael Quirosa-Cheyrouze y Muñoz eta Mónica Fernández Amador, "El movimiento vecinal..." Op. Cit., 207 orr.

<sup>712</sup> Txantrea, nolabait aitzindari izan zen halako ekimenetan: "Txantrea aitzindari izan da emakumeentzako zentro bat sortzen, [auzoko] eskola-tailer bat sortzen... estatu mailaz ari naiz, ezta? Euskal Herriko okupatutako zentro zaharrena Auzotegi da [...] Auzo elkarte batek argitaratutako lehenbiziko aldizkarietako bat hemen egin zen...". J.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-11-25. Baina ez bakarra. Arrotxapeako Auzo Elkarteak adibidez, bazkideentzako berezko aldizkari bat zuen, "Rochapea nuestro". Hogeita bat orrialde zituen eta bertan biltzen ziren edukiak auzoren intereko gaien ingurukoak ziren. Aldarrikapen kutsua eta formakuntza helburua agerikoak ziren. "Rochapea Nuestro", Ezkaba aldizkaria, 17. zkia, 1994, 22 orr.

<sup>713</sup> Alberto Goñi, *El rastro de...* Op. Cit., 16 orr.

*Esperientzia komunitario bat eta alternatiba herrikoi bat: Txantreako kukuso merkatua*<sup>714</sup>

Txantrea hutsetik sortutako auzoa izan zen. Patroi batentzat lan egiten zuten bitartean euren etxeak orube batean eraiki zituzten langileen eskutik jaiotzen eta berezko komunitate bezala garatzen ikusi dugu. Lehen uneko harreman sareak eta lehenbiziko sozializaziorako esparru nola sortu eta auzo elkarte indartsu eta dinamiko batean bat egin arte nola bilakatu ziren azaldu dugu. Txantrea auzo borrokazalea izan da, hori behintzat da auzokide askok bere auzoaz izan duen eta oraindik duen irudia: “Oso borrokazaleak izan gara beti hemen auzoan, gauzak diren bezala”<sup>715</sup>. Izaera borrokazale hori periferian, hirigunetik eta hiriko erdigune instituzionaletik urrun, kokatua egoteagatik, hau da, azpiegitura eta zerbitzuei zagokienean hirigunearekiko desoreka egoera nabarmenean egoteagatik, berezkoa izan zitzaion. Azken batean, utzikeriaren aurrean, bizilagunek, auzoaren eta euren bizi kalitatea hobetzeko, borrokatzea baina beste erremediorik ez zuten izan. Izaera borrokazalearekin batera, auzoari, auzolanean lan egiteko gaitasuna ere berezkoa izan zitazion, auzoaren sorrera bera, lan kolektiboaren bitartez burutu zelako. Honek, aipatu borrokari izaera kolektiboa eman zion, aipatu hobekuntzak ere lan kolektibo horren bitartez erdiestea posible zelako uste osoa eman baitzien. Kukuso merkatua, borrokarako eta lan kolektiborako gaitasun horren adibide bikaina da.

Auzo Elkartearen ekimenez jaiotzen 1977an. Helburu bikoitza zuen: alde batetik, igande goizetako auzo bizitza dinamizatzea; bestetik, merkatar handien negozioaren aurreko merkatu herrikoi bat sortzea. Hasiera batean bizilagunen arteko elkartrukea sustatzeko merkatutxo bat baino ez zuen izan nahi, auzoko plazan gauza zaharrak (liburuak, altzariak edota lanabesak) saltzeko aukera ematen zuena. Merkatutxo hark bizilagunen artean sortzen zuen giroa ikusita, lehenengo saltzaileak euren salguneekin bertaratzeko hasi ziren, baita Iruñeko beste tokietatik etorritako bisitariak ere. Auzo elkarteko kideek orduan, merkatutxoa iganderoko merkatu bihurtzen ahal zela pentsatu zuten, ideia honetatik “Txantreako kukuso merkatua” jaiotzen zelarik. Arrakasta sekulakoa izan zen, salguneen kopurua bizkor areagotu zen eta Txantrea, Iruñeko benetako erdigune bihurtu zen igande goizetan. Kudeaketari dagokionean, kukuso merkatuaren titulartasuna beti auzo elkartearena izan zen, baina honek, modu autonomoan funtzionatzen zuen barne batzorde bat osatu zuen, merkatuaren inguruan sortzen ziren kontu eta lan guztien ardura hartzeko. Batzorde honen lana egiazki autogestio herritarraren esperientzia erreal bat izan zen, “auzoak auzoarentzat egina” premisa erabatean betetzen baitzuen. Batzordeko kideak, merkatuaren jardueran inplikaturako alde guztien artean adostutako arauen arabera, saltzaileekiko harremanaz eta salguneen kokapenaren antolaketaz arduratzen ziren; igandeko jardunaldia amaitutakoan garbiketa lanak antolatzen zituen; merkatuko giroa berotzeko programazio kultural aberats bat prestatzen zuen; eta auzoko eta kukuso merkatuko jarduera guztien inguruko informazioa biltzen zuen aldizkari bat argitaratzen zuen<sup>716</sup>.

Kukuso merkatuaren esperientzia oso bizipen interesgarria izan zen hainbat arrazoiengatik. Aipatu kudeaketarako eredu autogestionarioaren arrakasta, haietarikoa bat izan zen eta bertan gauzatu merkatu herrikoi baten ereduaren saiakera, beste bat.

<sup>714</sup> Txantreako kukuso merkatuaren jatorria, garapena et ezaugarri nagusiak, Alberto Goñi, *El rastro de...* Op. Cit.

<sup>715</sup> J.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-11-25.

<sup>716</sup> “Batzorde horretan salguneak antolatu eta kokatzeaz arduratzen zen jendea zegoen. Beste batzuek salguneei [kuota] kobratzen zieten, diru bat kobratzen zelako, eta beste batzuk bertan egiten ziren jardueraz arduratzen ziren, igandero ekitaldiren bat, erakusketaren bat edo beste zerbait baitzegoen. J.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-11-25.

Azken honek, merkataritza harremanak “irauli” egiten zituen nolabait. Kukuso merkatuak, nekazariei, euren produktuak bertara eraman eta bitartekariak saihestuz, zuzenean saltzeko aukera ematen zien. Honekin, salgune handien dinamikatik eta autoritateen kontroletik kanpo geratzen zen eta bitartekariak garestitzen ez zituzten bidezko prezioetan oinarritzen zen arrazoizko salerosketa modu bat garatu zela esan daiteke. Merkatal jarduera horrek berekin gastuaren kultura berri bat ekartzen zuen ere. Kukuso merkatuaren salerosketa jardueraren gehiengoa oinarritzko premiak asetzean eta eguneko kontsumorako produktuetan oinarritzen zenez, honetatik eratortzen zen gastu eredia, alferrikako xahupenen eredutik aldenitu eta kontsumo arrazionalago batetara hurbiltzen zen. Gastua ulertzeko modu hau, kukuso merkatuko batzordekide izandako bizilagunek berek interpretatzen duten bezala, dirua erabiltzerakoan arrazionaltasunari lehentasuna ematen zion herrietako bizimoduari jarraipena ematen zion, landatik etorri ziren emigranteei esker halako mentalitatea Iruñean nahiko zabaldua zegoenez, kukuso merkatuak, arrakasta, oso modu naturalean lortu zuelarik<sup>717</sup>. Honekin batera, saltzaileek euren salgunea kokatzeagatik egiten zuten borondatezko ordainsariak, parte hartzaileen artean merkatua bera ulertzeko beste modu bat bazela azaleratzen zuen. Saltzaileak berak izan ziren salguneko ordainsari bat egitea proposatu zutenak eta auzo elkartearekin batera, bildutako diru hori garbiketa lanetan eta merkatuan egiten ziren jarduera kulturalak antolatzean erabiliko zela adostu zuten. Are gehiago, ordainsaria, borondatezkoa izateaz aparte (saltzaile guztiek egiten zuten), aldakorra izan ohi zen eta kutxa txikia egiten zenean auzo elkarteko kideak ordainsaria kobratzera salguneetatik pasatzen ez baziren, kutxa handia egiten zenean, hainbat saltzailek, adostutakoa baino gehiago ordaindu nahi izaten zuten<sup>718</sup>, merkatuaren eta auzo elkartearen jardueraren bitartez, komunitatearen onuran erabiliko zela bazekitelako.

Kukuso merkatua ordea, erdigune komertzial bat baino askoz gehiago zen. Jarduera sozialerako gune izan zen zentzu askotan eta honengatik, egiazko sozializatorako esparru gisara funtzionatu zuen. Hasteko, harreman sareak sortzeko toki abantailatsua zen. Saltzaileen, bizilagunen eta batzordekideen artean adibidez, merkatuaren izaera herrikoia agerian uzten zuten harreman mota bereziak sortu ziren eta igande askotan, plazaren ondoko kaleetako etxabeetan hauen arteko hamaiketakoak egiten ziren: bizilagunek tokia eta lapikoa jartzen zuten, saltzaileek barazkiak, olioak eta ardoak eta batzordekideek, untzia<sup>719</sup>. Bestalde, kezka soziopolitikoak eta kulturalak plazaratzeko gune bat izan zen ere. Merkatal jarduerarekin batera, ekimen kulturalak, protesta ekintzak eta eduki politikoko jarduerak burutzen ziren kukuso merkatuan. Esate baterako, igandero jartzen ziren salguneen artean, leku nabarmena zuten liburu eta argitalpenen salmentan jarduten zutenak: batean auzo elkartearen argitalpenak aurkitzen ahal ziren, beste batean ORTaren prentsa eta haren ideologiaren hurbileko liburuak, salgune batek Marxen eta Leninen lanak eta mugimendu iraultzaileei zein Euskal Herriari buruzko irakurgaiak zituen eta beste batek EAJren pegatinak eta EGIren liburuak<sup>720</sup>. Baina Txantreako merkatuaren jarduera soziala berezi egiten zuena, izaera herrikoieko ikuskizun kultural anitz antolatzen zirela eta “herriaren bozgorailu” izateko, plazaren erdian kokatzen zen oholtza batean, esparru bat eskaintzen zela zen.

Auzo elkarreak sustatu nahi zuten aisialdi eta kultura eredia, entretenimendua modu ludikoan eta dibertigarrian, baina baita era kolektiboan, solidarioan eta herrikoian

<sup>717</sup> Alberto Goñi, *El rastro de...* Op. Cit., 78 orr.

<sup>718</sup> *Ibid.*, 50-51 orr.

<sup>719</sup> *Ibid.*, 73 orr.

<sup>720</sup> “El mercadillo de la Chantrea, punto de atracción de la mañana de los domingos. En el se ofrecen desde cerámica a ropa barata, pasando por artículos de magia, dulces y libros políticos”, DN 1978-06-13, 15 orr.

ulertzean oinarritzen zen. Elkartearen ikusmolde honek, nola edo hala, garai hartan lruñeak bizi zuen irakinaldi kulturalarekin bat egiten zuen eta merkatuaren plaza, kulturaren alorrean jaiotzen ziren proiektu eta ekimen herrikoiak jendarteratzeko esparru bilakatu zen. Izan ere, igande goizeko merkatu jardunaldiaren giroa berotzeko, batzordeak, musika kontzertuak, dantza eta antzerki emanaldiak edota kirol ikuskizunak barne hartzen zituen programa osatzen zuen, bertan, prestigiozko musika taldeekin batera, antzerki talde amateurrek ere tokia zutelarik. Kukuso merkatuko oholtzara euskal kantagintzan erreferente ziren Oskorri edo oraindik ezezagunak ziren Barricada bezalako taldeak igotzen ziren eta plazaren erdian, dantza taldeek euskal folklorea ezagutzera zuten, txotxongiloek zein pailazoen umeak entretenitzen zituzten eta kaleko antzerkiak, bide eszeniko esperimentalak jorratzen zituen edota hausnarketako gaiak planteatzen zituen.

Barricadak bere lehenbiziko kontzertua eman zuen oholtza hura edozein gizabanako edo erakunderen arazo sozialak partekatzeko eta ezagutarazteko agertokia izan zen ere. Besteak beste errepresioaren aurkako taldeak, greban zeuden langileak, langiletzat hartuak izan nahi ziren etxekoandreak eta euskalduntzearen alde lan egiten zuen AEK izan ziren, besteak beste, eszenatoki hartara igo izan ziren kolektiboetako batzuk. Nahi zuen orok bertara igotzeko eta bere egoera azaltzeko aukera zuenez, ez ziren ere gutxi izan euren pobrezia eta marjinazio egoera salatzen igo zirenak. Kukuso merkatua beraz, merkatal jarduerarako esparru, harremanak egiteko toki eta dibertimendurako leku izateaz beste, aldarrikapenerako eta protestarako gune izan zen ere urteetan zehar. Adierazpen askatasuna zegoen, kritika konprometituta egiten zen, ideiak eta informazioa ahoz aho ibiltzen zen eta elkartasuna erruz zabaltzen zen. Zentzu honetan, merkatuaren historia kontatzen duen liburuak jasotzen duen argazkietako bat oso adierazgarria da: kale baten bi aldeetara salguneak ageri dira, kalea jendez gainezka dago eta lehen planoan “Orbaiceta Cacique. Readmisión despedidos” pankarta ageri da<sup>721</sup>.

---

<sup>721</sup> Alberto Goñi, *El rastro de...* Op. Cit., 91 orr.



## **5.KAPITULUA:**

### **ELIZAREN ESPARRUAK ETA APOSTOLUTZA MUGIMENDU SEKULARRAK. LANGILE KULTURA BERRI BAT SORTZEKO GUNEA**

Oraingoan, zirkuituaren parte bezala, Eliza bera eta honek bere ingurura biltzen zuen gune, pertsona, azpiegitura eta baliabide sorta aztertuko dugu. Izan ere, Elizari lotutako esparruak, sareak sortzeko, konexioak ezartzeko eta berauen bitartez esperientziak, ideiak eta langile izateko moduak eta jokaerak zabaltzeko erreferentzia puntu garrantzitsuak izan ziren. Aurreko kapituluan, adibidez, Elizari lotutako eragile hauetariko batzuk, parrokiak (auzoetako bizitza soziala dinamizatzen) edota militante kristau taldeak (auzo elkarteetako lehenbiziko nukleoak sortzen), auzoetako klase komunitateen sorreran funtsezko elementuak izan zirela ikusi dugu.

Gure kasuan, esparru hauek aparteko garrantzia dute sortzen goiztiarrenak izan zirelako eta ondorioz, zirkuituaren barneko lehenbiziko sareak ehundu eta konexioak egin zituztelako. Nola edo hala, horrela izan behar zen halabeharrez. Erlijioa “nafar tradizioaren” elementu nagusienetariko bat zen eta horregatik, Eliza nafar gizartean oso errotuta zegoen, oraindik erreferentzia sozial nagusienetariko bat zen eta eragingune egitura oso bat zuen bere esku. Erregimenaren erakundeez beste legez onartzen zen asoziazionismo bakarra garatu ahal izateak ere, garai hartan, Elizaren eragin soziala indartzen lagundu zuen. 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkadaren bitartean, eragin horrek, aldaketa garrantzitsuak bizi izan zituen, formetan zein edukietan aldatu zen arte. Vatikanoko II.aren berrikuntzarako gogoak, Eliza berri baten oinarrien xedapenak eta gizartearekin eta bere arazoekin konprometitzeko hautua egiten zuen ikusmolde erlijioso berriak, Elizaren baitako hainbat sektore erregimenarengandik aldentzera eta haren aurkako oposizioan kokatzera eraman zituen, Elizaren eragingune desberdinak, oposizioaren sozializazioarako erreferentziazko esparru bihurtu zirelarik. Era berean, mentalitate eta jarrera hartze erlijioso berri hauek sektore kristauak langile mundura gerturatzeko faktore izan ziren heinean, langileen sozializazio soziopolitikorako egiazko esparru izan ziren ere.

Esparru hauek, guretzat, zirkuiturako sarbideak edo haren baitako konexioak izango dira. Bereziki apostolutza mugimendu sekularrak. Acción Católicaaren HOAC eta JOC eta jesuiten Vanguardias mugimenduen baitan pertsonak elkartu ziren, harremanak sortu ziren, formakuntza eman zen, ideiak zabaldu ziren eta kontzeptuak, baloreak eta jokabideak barneratu ziren, berauetatik mugitzen ziren elementuak, langile kultura politiko berri jakin batean, kristaua eta ezkertiarra, sozializatuko zirelarik. Hau da, hainbat sektore kristauak elizaren esparru desberdinetan (parrokietan esaterako) eta apostolutza mugimendu sekularretan izan zuten sozializazioak, mentalitate eta praktika politiko jakinak sortu zituen, subjektu erlijioso eta ezkertiar bat itxuratuz. Gure protagonistetariko asko, halako gizarteratzea bizi ondoren, molde horretako subjektu izan zen.

## 5.1 ERLIJOAREN ETA ELIZAREN ERAGINA NAFAR ETA IRUÑAR GIZARTEAN

1931 urteko Nafarroan “erlijio katolikoak oraindik funtsezko betekizuna zuen tokian-tokiko identitate kolektiboen konfigurazioan”<sup>722</sup>. Izan ere, urteko ospakizun gehienek, hots, erromesaldiak, prozesioak, zaindariaren jaiak edota igarobide errituak, erlijiosoak izaten jarraitzen zuten, aldi berean, tokian-tokiko komunitateetan, barna sozializaziorako forma nagusienak izan ohi ziren bitartean. Klero erregularra zein sekularra eragin handiko eragileak ziren gizarte egituran eta haren presentzia pertsonen eta komunitateen bizitzetan oso agerikoa zen. Elkarte katoliko ezberdinek euren jarduera alor sozial ia-ia guztietan garatzen zuten. Egiazki, Iruñeko diozesia, estatukoen artean, katolikoenetariko bat zen. Eragile bezala ulertuta, Eliza, funtsezko identitate eta gizarte erreferentea zen Nafarroan. Beraz, Iruñerrikoa nabarmenki nafar jatorriko langile klasea izaterakoan, hau da, protagonisten edo euren familien gehiengoa nafar nekazal mundutik, hain zuzen ere Elizak tokian-tokiko komunitateen gaineko eragina argien gauzatzen zuen giroetatik, etorritakoak izaterakoan, erlijiozaletasuna eta katolikotasuna eta haietatik eratorzen ziren praktika, estamentu eta elkarteak, klasea sortuko zutenen tradizioen eta mentalitatearen parte ziren.

Javier Drona historialariak, erlijio katolikoak nafar gizartean zuen eragin soziala eta kulturala aztertuta, Errepublikaren aldaketen aurrean ohiturei lotuta jarraitzen zuen Nafarroa bat aurkezten zuen bere doktoretza tesian. Bertan, probintzian bizi izan zen kausa erlijiosoaren aldeko mobilizazio soziala, honen adierazpen nabarmenena izan zela ondorioztatzen zuen. Errotutako erlijiozaletasun hura, berez, oraindik oso egitura tradizionalak azaltzen zituen gizarte baten ezaugarrietako bat baino ez zen. Bereziki bi aspektutan agerikoa zen honako hau. Gizarte egituraketari dagokionean, leialtasun pertsonaletan oinarritutako segiziozaletasun harremanak ziren nagusi eta ertain klaseek, kleroak nabarmenki, klase ezberdinen arteko bitartekaritza lan garrantzitsua egiten zuten egonkortasun sozialaren mesedetan. Mentalitateei dagokienean, modernizazioak berekin zekarren egongaiztasunaren aurrean, tradizioa eta egonkortasuna gailentzen ziren, honekin, hiri elementuaren aurrean, nekazal munduko giroa eta gizakia goratzen zirelarik. Are Iruñeak berak, nolabait, kutsu tradizional hau bera azaltzen zuen. Lehenbiziko kapituluan ikusi genuen bezala, hiriburuak mende hasieran modernizazioaren biderei ekin bazion ere, oso modu partikularrean egin zuen: atzera begira, landa mundura lotutako gizarte bati berezkoak zitzaizkion kultura kodeei eutsiz eta iraganeko oinarritzko elementuekiko haustura sozial, ekonomiko edota kultural funtsezkorik eragin gabe. Iruñerrian, hartara, nafar gizarte tradizional haren marka atzematen ahal zen, batez ere Javier Ugartek azaleratu izan zuen tokian-tokiko idiosinkrasia oso bereizgarri batean<sup>723</sup>.

Beraz, identitate molde gertukoena, hots, tokian-tokikoak edo komunitate identitateak, erreferentzia nagusi izaten jarraitzen zuten eta berauetan, dimentsio handia hartzen zuten erritu eta ikur katolikoek, identitate kolektiboen sostengu gisara jarduten zuten. Tokian-tokiko komunitate hauetako giroetan praktika erlijiosoek egunerokotasuna gainezka betetzen zuten. Erlijioa, egiazki, nafar gehienen eguneroko bizitzan nonahi zegoen elementua zen: bizitza erritual katolikoak, erlijioa herriarengana oso modu eraginkorrean hurbiltzen zuten debozio herrikoiei lotutako errituak barne hartzen zituen eta elizkizunak, sozializaziorako aukera onenak izan ohi ziren<sup>724</sup>.

<sup>722</sup> Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit., 476 orr.

<sup>723</sup> “[...]. Leinua duen hiri zahar baten idiosinkrasia, hirigintza eta gizarte ingurune itxi gisara hazi egin dena [...] balore tradizionalak, baloreen zein kulturaren alorreko edozein motatako modernizazioaren gainetik, nagusi ziren. Bere itxuraketa fisiko zein mentalak, hiria itxia eta kontserbadorea egin zuen [...]”. Javier Ugarte, *La nueva Covadonga...* Op. Cit., 168 orr.

<sup>724</sup> Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit., 22-23 orr.



Erlijiozaletasun herrikoiairen jaiak azken alor honen adierazle argiak ditugu, izan ere, tokian-tokiko identitate kolektiboaren osakeran funtsezko papera izaten zuten, komunitateetako soziabilitatean garrantziari handia. Erromesaldiak adibidez, praktika erlijioso herrikoiak, bazkari eta dantzaldiekin uztartzerakoan erlijiotasuna eta soziabilitatea bateratzen zituztenez, identitate kolektiboaren erreproduktzioarako bitarteko bikainak ziren<sup>725</sup>.

Eliza populazioarengan eragin sozial izugarria zuten eragile ezberdinen bitartez egiten zen presente ere haren baitan, bereziki aipatu tokian-tokiko komunitateetan. Eragile haietariko bat kleroa zen. Beste bat, nafar gizarte bizitzaren alor ezberdinetan (sozialean, kulturean eta are ekonomikoan) jarduten zuen elkarte katolikoek saila. Bien artean, parrokia, tokiko bizitza ardatzen zuen erdigune fisiko eta espiritual bezala agertzen zen: bertatik kleroak bere autoritate soziala gauzatzen zuen eta bertatik elkarte katolikoek jarduera desberdinak martxan jartzen zituzten. Ildo horretan, parrokiak komunitateetako harreman eta bilera gune nagusienak izan ohi ziren. Aurreko kapituluaren ikusi dugun bezala, parrokiek orduan zuten erreferente izatearen betekizun hau, nola edo hala, 50 eta 60. hamarkadatan zehar sortuz joan ziren auzo komunitateen hastapenetan mantendu egingo zen. Txantrea auzo berriaren kasuan adibidez, parrokia 1951 urtean hasi zen eraikitzen, lehenbiziko etxebizitzak oraindik eraikitze aldiaren zeudenean<sup>726</sup>. Auzo berriko lehenbiziko erdigune sozial bilakatu zen laster, hein handi batean nafar landa mundutik etortzen zen jendeak, hura, jatorrizko komunitateetan parrokiak izan ohi ziren kohesio elementutzat hartzen zuelako.

Kleroak, erregeladunak zein sekularrak, egongune abantailatua zuen gizartearen baitan, soziabilitatean, egitura sozialean eta baita balore edota ideien transmisioan oso funtzio garrantzitsuak betetzen baitzuten. Klero erregeladunak esateko, 60. hamarkadaraino iraun zuten berezko eraginguneak erroto zituen Iruñerrian, gizartearen presentzia edukitzen eta eragina izaten jarraituko zuela bermatuz. Salestarrek beren Lanbide Heziketarako eskola 1926an abian jarri zuten. Bertan, irakaskuntza jardueraz beste, ekimen kultural eta erlijiosoak sustatzen ziren Ikasle Ohien Elkartearen eskutik, kleroaren eragina nolabait, soziabilitatearen alorreraino iristen zelarik. Mota honetako elkarten jarduerak egiazki, identitate komunitario bat gorpuzten laguntzen zuen, behin ikasketak amaituta ere. Jesuitek euren aldetik, klase herrikoiei zuzendutako jarduera eta ekimen ezberdinak sustatzen zituzten haien artean presente egoteko: doako eskolak, ongintzazko lanak edota zirkulu katolikoak. Hala ere, jesuitak ez ziren garai hartan katoliko sozial aurreratuenen artean izan eta sustatzen zituzten ekimen sozial haiek, izatez, elitistak eta paternalistak izan ohi ziren, klase aberatsuenen eskuzabaltasunean oinarritzen zirelako.

Klero sekularren eragin soziala, klase ezberdinen artean egiten zuen aipatu bitartekaritza lanean funtsatzen zen bereziki. Apaizek egitura sozialean zuten erdi mailako egonguneari esker bi modutara gauzatzen zuen eragin hura: alde batetik, jende apalaren alde aritzen ahal ziren goi klaseen aurrean; baina bestetik ere, jende apal hura goi klaseekiko erabateko menpekotasunetik askatzearen, klase herrikoien berezko antolakuntza ekimenak sustatu zituen. Egiatan, kleroak saiaturako antolakuntzarako ahalegin hauek, gizarte sektore umilenek euren kabuz eta sozialismoaren inguruan biltzea galaraztea eta elizaren eraginerako gune berriak sortzea zuten helburu. Eragin sozial honi esker, kleroa, zuzenki edo zeharka, ideia

<sup>725</sup> Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit., 27 orr.

<sup>726</sup> Etxeak eraikitzen hasi bezain pronto, 1951ko 03aren 20an, auzoko San Jose parrokiaren lehen harria jarri zen. Ekitaldia amaituta, prelatuak, hitza hartu eta langileentzako etxebizitzaren eraikuntza proiektu hura parrokiaren eraikuntzarekin birbiltzen zela esan zuen, izan ere parrokia komunitate kristau ororen oinarritzako elementua zen eta auzo berriak ezin zuten faltan izan. "Bendición de la primera piedra de la parroquia y las escuelas", DN 1951-03-20, 8 orr.

politiko hainbaten transmisioa bermatzen zuen, balore kontserbadore sorta bat gizarteratuta, indarrean zeuden gizarte ordena eta jabetza egiturak legitimatzen zituelarik. Langile mugimenduaren sektore garrantzitsuak axolagabetasun erlijiosotik antiklerikalismora igarotzeak zerikusirik izan zuen jarrera politiko jakin batzuei oso lotuta agertzen zen Elizaren diskurtso honekin<sup>727</sup>.

Erakunde katolikoei dagokienean, Nafarroan, sozializatorako esparru bezala izan zuten paperarengatik nabarmendu ziren, izan ere, funtsezkoak izan ziren Errepublikaren aurkako diskurtsoa jendarteratzeko. Javier Dronbaren ikerketak azaleratu duenez, elkarre guzti hauek zuzenean propaganda egiten ez zuten arren, oso paper garrantzitsua izan zuten nafar katolikoak mugitzen ziren soziabilitate sareen elkargune bezala. Militantzia anitzaren fenomenoaren bitartez, erakunde katolikoek eta erakunde politikoek (karlismoaren) arteko loturak bazirela ikusi du, elkarre mota hauek dimentsio politikoa zuen identitate katoliko baten osieran oso garrantzitsuak izan zirela ondorioztatuz<sup>728</sup>. Hauen artean langile elkarre<sup>729</sup>, landa munduko kleroak sustatutako erakunde ekonomikoak (baserritar kutzak, kooperatibak) edota aisialdirako zentro katolikoak aurkitzen ditugu.

Iruñerriko langile klasearen parte handi baten jatorri nekazaria kontutan hartuta, egiazki interesgarria da nekazal munduko mugimendu katolikoan arreta jartzea. Izan ere, mugimendu haren antolakuntza forma ezberdinen esperientziak, benetako “nafar tradizio” edo aurrekari izan ziren langileria berriko kide askorentzat. XIX. mende amaierako krisiaren testuinguruan, mugimendu hauek, nekazaritza-ustiategi familiarren errentagarritasunari buruzko aurreikuspen txarrei eta berreskurapen bizkor baterako itxaropenen suntsiketari emaniko erantzun gisara jaio ziren. Honela, nekazal munduko mugimendu katolikoak barne hartzen zituen erakundeek eta egiturek (Nafar Federazio Katoliko Sozialean bateratuak), hots, baserritar kutxek, nekazari sindikatu katolikoek edota kooperatibek, nekazari txikien sektorearen nekazal errenten berreskurapenean oso lagungarriak izan ziren<sup>730</sup>. Lurjabe txikiei eskaintzen zizkieten abantailen artean, nabarmentzekoak dira, besteak beste, ongarrien erosketa komuna edota finantzatorako baldintza onuragarriak ematen zituzten jarduera sozioekonomikoak. Zentzu honetan, berauetan lur jabetza txikia nagusitzen zen heinean, ez da harritzekoa nekazal katolizismo hau bereziki Nafarroako Ertain Zonaldean eta Iruñeko harroan errotuen aurkitzea.

Halako ekimenekin, nekazal munduko mugimendu katolikoak sozialismoaren aurrerakada gelditzeko asmoa zuen nolabait. Nekazari txikiei eta ertainei zuzendutako proiektuen bitartez, sektore hauek pairatzen zituzten arazo larrienak arintzera zetorren, arazo haiek gatazka sozial edota sozialismorako hurbilketa ez bihurtzeko. Baserritarren kutxen sorrera arrakasta handiko ekimena izan zen zentzu honetan. Proiektuak lurjabe txikiei finantzazioa erraztea zuen helburu, honek hauen egoerak okerrera egitea ekiditen lagunduko zuelakoan eta honek, era berean, egoera zailek eragiten ahal zuten sozialismoarenganako kidetasunaren areagotzea galaraziko zuelakoan. Ildo berean sortu ziren mugimendu katolikoaren baitako bestelako erakundeak: kooperatibak, upeltegiak, irin-fabrikak, aisialdirako zentroak edota helduentzako eskolak. Nekazal klase hauen hobekuntza sozioekonomikoa hartara,

---

<sup>727</sup> Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit., 122 orr.

<sup>728</sup> *Ibid.*, 171-172 orr.

<sup>729</sup> Adibidez langile sindikatu kristauak, La Conciliación eta Sindikatu askeak, esaterako. Besteak beste, Salvador Carrasco, “Los Sindicatos Libres en Navarra, *Príncipe de Viana*, 5. *Eranskina*, 1986, 53-67 orr. edota Ana Calavia, “La Conciliación de Pamplona y su relación con los Sindicatos Libres 1915-1923), *Príncipe de Viana*, 10. *Eranskina*, 1988, 73-84 orr.

<sup>730</sup> Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y...” Op. Cit., 296 orr. Nekazal kooperatibismo katolikoaz gehiago, Emilio Majuelo eta Ángel Pascual, *Del catolicismo agrario...* Op. Cit.

nekazaritza errentak berreskuratzeko eta bide batez, klaseen arteko bake soziala bermatzeko tresna gisara erabili behar zen. Izan ere, nekazari ertain-txikiak bizitza duin eta errotik erlijioso bat eramateko moduko baliabide ekonomiko nahikoen jabe egitea, oreka soziala bermatzeko modurik onena zela ulertzen zen. Mugimenduaren ekimen kopururik handiena biltzen zuten Ertain Zonaldean eta mendialdean adibidez, ez zen Errepublikaren garaian “korrailizen” zonaldean bizi zirenen hainako gatazka sozial larririk gertatu.

Sozialki konprometituta zegoen kleroak, nekazal mugimendu katolikoaren eskutik, proiektu interesgarriak jarri nahi izan zituen martxan, nafar Elizaren baitan gatazka sozialen sakoneko arrazoiak ulertzen zituen eta hauek errotik konpontzeari ekin nahi zion sektore bat bazegoela azaleratuaraziz. Esate baterako, produkzioaren eraldaketatik eta komertzializaziotik hasita (aipatu upeltegi edota irin-fabrikak) eta ongarri kimikoen produkzioa iritsi arte, nekazal jarduera ekonomiko garrantzitsuen izari handiko kooperatibizazioa erdiesteko saiakerak egin ziren. Baina halako proiektuak laster ekimen sekularizatzailetzat eta hauek defendatzen zituzten eragileak merkatuaren legeen eta jabetza pribatuaren kontrakotzat jo ziren. Horregatik, ordutik aurrera, sektore hauen oligarkiaren kontrako kritikak kapitalismoaren gehiegikerien gaitzespen morala egitera mugatu ziren, gorabehera handiko kooperatibismo baten gauzapenera bideratutakoak izan gabe<sup>731</sup>. Are gehiago, Nafar Federazio Katoliko sozialak kontserbatismoaren eta indar soziopolitiko atzerakoien bastioi garrantzitsua izaten jarraitu zuen, hauei masa sozial oso garrantzitsu bat bermatzen zelarik.

Hala izan zen, hein handi batean, nagusi zen kultura katolikoak ez zuelako apenas berrikuntzarik ezagutu eta auzi sozialari arreta jartzen hasten bazion ere, espainiar Eliza oraindik gatazka sozialen egiazko kausak ulertzeko gai ez zelako (gatazka beti hirietatik zabaltzen zen propaganda marxista eta ateoaren eraginez gertatzen zen). Honek katolizismo sozialaren garapenari mugak jarri zizkion nolabait. Alde batetik, ikuspuntu moraletik eta kutsu antiliberal batekin, kapitalismoaren ondorioak, hots, honek sortzen zituen bidegabekeria eta desoreka sozialak, salatzen zituen. Baina bestetik, ez zituen inolaz ere egitura sozioekonomikoak, jabetza egitura pribatua kasu, zalantzan jartzen. Horregatik, katolizismo sozialaren eragina, haren ekimenez onura ateratzen zuten gizarte sektoreetara, hau da, jabe ertain-txikietara mugatzen zen; sistemak gehien kaltetzen zituen sektoreak, bereziki jornalariak, sozialismora errazago hurbiltzen ziren bitartean. Zentzu honetan, katolikoak edota antiklerikalak izateko sektore batzuen zein besteen arrazoiak, soilik erlijiosoak izan ez zirela eta hein handi batean Elizak sistemaren bermatzaile gisara zuen paper sozialarekin zerikusirik izan zuela esan daiteke<sup>732</sup>.

Guztiarekin ere, Nafarroan gertatu zen Errepublikaren aurkako mobilizazioak, erlijio katolikoa, populazioaren parte handi batek berezkotzat jotzen zuen identitate baten parte oso garrantzitsua zela erakutsi zuen. Gai honetan hizpide izan dugun Javier Dronaren tesiaren arabera adibidez, erlijioa, Errepublika garaian, nafar populazioaren sozializazio politikoarengatiko “eskuinaren” eta “ezkerraren” arteko borrokan, emaitza lehenengoaren alde jarri zuen faktore bereizgarria izan zen. Nahiz eta Errepublika ez zen herrialdean gaizki hartua izan, haren diskurtso eta jardute laizistak, aipatu nafar gizartearen parte handi horrek hura onartzea zaildu egin zuen, mundu erritual eta sinboliko katolikoa oraindik nafar askoren identitate kolektiboaren osagai oso garrantzitsuak baitziren. Hau da, erlijiotasun herrikoiak formei eta ikurrei garrantzi handia ematen zenez eta bera haien kontra, gurtza publikoen eta erlijio sinboloen kontra, aritu zenez, Errepublika, nafarren berezko baloreei eraso egiten zien komunitateaz kanpoko elementu bezala, balore tradizionalekin eta erlijioekin

<sup>731</sup> Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y...” Op. Cit., 298 orr.

<sup>732</sup> Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit., 211 orr.

amaitzeko “konspiratzaile atzerritar eta iraultzailek eragindako kaos” bezala hartua izan zen<sup>733</sup>. Izan ere, Errepublikaren kontrako sektoreek euren komunikabideez eta elkarte sareez baliatu ziren diskurtso hau zabaltzeko eta hura bai, probintzian nagusi zen mundu ikuskerarekin oso ongi uztartzen zenez, arrakasta handia izan zuen nafar gizartearen artean.

Mundu ikuskera katoliko honi lotutako erlijiozaletasuna, bigarren kapituluan ikusi genuen bezala, nafar jatorriko gure protagonista askoren ondare kulturalaren elementu garrantzitsua izan zen. Ahozko iturrien azterketa egiterakoan, subjektuek euren inguru hurbiletik (familiarengandik gehienetan) jaso izan zituzten erreferentzia sozial eta kulturalak, nafar mentalitatean eta kultura politikoa orduan nagusi ziren elementuei lotutakoak zirela eta hauen artean bereziki erlijiozaletasuna nabarmentzen zela azalatu genuen. Orduan, aurreko lerroetan egin dugun bezala, erlijioa, nekazal gizartearen ondareari lotuta ageri zen berezko identitate kultural jakin baten egituratzailetzat hartu genuen. Honela, euren ingurunean erlijiozaletasun oso bizi eta aktiboa ezagutu izan zuten iturriak, erlijioa ardatz zuen identitate hartan hazi egin zirela ikusi genuen eta horrek askotan elizarekiko eta haren sozializazio esparruekiko harreman goiztiar bat sortzera eramane zituela ohartzeko aukera izan genuen. Ildo horretan, hauek Elizarenak ziren esparruetan eta berauetatik bideratutako jardueretan parte hartzeak, hau da, umetan edo gaztetan Acción Católica bezalako elkarte katolikoetan ibiltzeak, erakunde katoliko hauek aurreko hamarkadetan nafar gizartearen artean eragin sozialarekiko nolabaiteko jarraitutasuna ematen zela adieraziko luke. Ondare katolikoak ordea, are Nafarroan, aldaera ezberdinak aurkeztu zituen. Jesús Equizak esaterako, 40. hamarkadatik aurrerako erlijiozaletasunaren bilakaera aztertzerakoan, nafar identitate erlijiosoaren inguruko oso ñabardura interesgarria egiten zuen. Equizak gerraosteko nafar kristautasuna monolitikoa ez zela eta nagusi zen kristautasunaren adierarekin batera, gerraurreko giro liberal eta sozialistetatik zetorren bestelako kristautasun bat bazegoela esaten zuen. Hau, Elizarekiko atxikimenduan baino, kristorenganako fedean funtsatzen zen, ez zen erritualista edo sakramentuzkoa eta sozialagoa eta politikoagoa zen<sup>734</sup>. Beraz, Nafarroan, kristautasuna ebanjeliotik, errealtetatik eta gizartetik gertuago ulertzen zuen substratu erlijioso bat bazegoen, “*bizitza errealarari lotuta, Eliza ofizialetik baino ebanjeliotik gertuago*”<sup>735</sup> zegoena eta fededunak “*Erljiozaleak [...], baina [...] elizkoiak izan gabe*” egiten zituena<sup>736</sup>. Equizak iradoki lez, bestelako substratu erlijioso hau giro errepublikazaleetan aurkitzen ahal zen, A.G.-ren familia adar batean gertatzen zen bezala. Bere birramona eta amona militantziaz errepublikazaleak ziren eta amona, aldi berean, errotik katolikoa<sup>737</sup>. Bere garaian amonak errepublikazaletasuna eta aipatu

<sup>733</sup> Javier Drona, *La cuestión religiosa...* Op. Cit., 255 orr.

<sup>734</sup> Jesús Equiza, *¿Política o profecía?: el profetismo de la Iglesia navarra en los años 70*, Fundación para el desarrollo formativo navarro, Iruñea, 1983, 12 orr.

<sup>735</sup> J.I.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-12-26.

<sup>736</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

<sup>737</sup> Galo Vierge militante anarkista nafarraren figurak ere uztartze hau erakusten du, errotik kristau baitzen. 1936ko altxamenduan atxilotua eta kartzelaratua izan zen. Iruñeko presondegian zela, berak kontatzen duenez, bertako kapilaua zen Alejandro Maisterrarekin solasaldi bat izan zuen, bere mintzaldiak substratu erlijioso honen izatea oso ongi jasotzen duelarik: “kristautasunaren aspektu asko ariman ditut errotuak, lanetik eratorritako arazo sozial asko jasotzen dituztelako eta indar moral bizi batekin, aberastasuna klase ahaltsuen eskuetan pilatzea arbuizatzen dutelako. [...] Duela bi mila urte baino gehiago Jesu Kristok justizia sozialez beteriko esaerak eman zituen. Historia unibertsaleko iraultzaile handiek, langile klaseen eta klase ahulen defendatzaile izan diren Bakunin, Kropotkin, Eliseo Reclus, Cafeiro, Brosse eta Malatesta bezalakoek, bere egin zituzten, egia bihurtzeko [...] lan mundua bake leku bat, justizia soziala dagoen leku bat, egiteko”. Galo Vierge, *Los culpables. Pamplona 1936 (ensayo y testimonio)*, Pamiela, Iruñea, 2006, 132-133 orr.

erlijiozaletasuna uztartu zituen moduan, gerora, frankismoaren bitartean, erlijiosotasun hori bera mantendu eta diktaduraren aurkako oposizio sentimenduekin uztartu zuen:

nire amona, errepublikazalea zena, errotik erlijiozalea zen, ezta? orduan nik gogoratzen dut... Orduan poliziaren frekuentzia entzuten ahal zen irratiak zeuden, ezta? Orduan amonak, arratsaldean, [...] egunero arrosarioa esaten zuen eta... bere arrosarioarekin zegoen eta aldi berean, beste irrati batean, polizia entzuten zuen; polizia entzuteko irrati bat zuen eta arrosarioa entzuteko beste bat; orduan amona han zegoen: "Dios te salve María, llena eres de..." eta [beste irratiari] "F 25, pase a detener..." [eta nire amona] "¡hijoputas! Dios te salve María llena eres de... ¡hijoputas!" eta horrela ematen zuen arrosario guztia, ezta? Orduan nire amona izan zen niri fede katolikoaren kontu guzti hori helarazi zidana. [A.G.. Txantreako Auzo Elkarteko militantea. Erlijiozaletasun errotukoa]

## 5.2 ELIZA FRANKISMOAN. JARRERA HARTZE BERRIEN GIZARTERATZEA

Jendea etorri zen, elizarengana hurbildu zen eta gurekin egon zen, eta gu beraiekin; orduan hori, ba ez dakit, ezkontze baten modukoa izan zen, ezta? Eliza eta jende apalaren, langile jendearen, arteko ezkontza baten modukoa [A.A.. Antsoingo parrokoa]

Elizak eragin handia izaten jarraitu zuen Nafarroan frankismoaren bitartean. Gerraostean, erregimen berriarekin bat eginda eta bere sostengu nagusienetariko batean bilakatuta, haren berezko esparruak mantendu ahal izan zituen eta bestelako eragileek debekatuta zuten ekintzarako gaitasuna izan zuen, nafar gizartearen baitan zuen erreferente sozial eta are kultural bezala zuen pisua egonkortuz. 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkada osoan zehar ordea, eragin hura, nolabait murrizten hastearekin batera, forman zein edukietan aldatuz joan zen. Izan ere, Eliza horren sektore bat, frankismoaren aurkako oposizioan kokatzen joan zen. Aurreko atalean aztertzen genuen erlijiozaletasunak bere aldetik, tokian-tokiko nafar identitateetan ordura arte izandako protagonismoa galdu zuen aldaketa sozialak errotu ahala, baina era berean, erlijiozaletasun hori bera, aipatu forma eta edukietan eraldatuta, nagusitzen joango ziren identitate berriak, langile identitatea kasu, artikulatzeko bide oinarritzkoenatariko bat izan zen.

1970eko Foessa txostenean jasoak dauden hainbat datuk, Nafarroa oraindik erlijiozaletasun indize handienetarikoak agertzen zituen estatuko zonalde bezala aurkezten dute. Halako ikuspegia ematen duten adierazle esanguratsuak aurkitzen ditugu erlijiozaletasuna “neurtzen” ahal den zenbait alorretan. Hasteko, identifikatze eta bizitasun erlijiosoari buruzko bi datu: orduan euren burua praktikazaille katolikotzat edota katoliko amorratutzat hartzen zuten pertsonen portzentajea, %95a zen eta hamar mila biztanleko apaizgaien kopurua, hogeita sei, alde handiz kopururik handiena estatu mailan (Barnealdeko Galiziarenak jarraitzen zion, hamazazpirekin)<sup>738</sup>. Hauekin batera, praktika erlijiosoaren maila nolabait azaleratzen duen datu bat: gutxienez igandetan eta jaiegunetan mezan zen pertsonen portzentajea, %99a zen<sup>739</sup>. Bestelako aspektuetan, ortodoxia katolikoaren onartzeari edota informazio erlijiosoari dagokionean esateko, Nafarroak berriz ere estatu mailako indizerik altuenak azaltzen zituen: dogma katoliko ezberdinen, hirutasuna edo eukaristiaren presentzia erreala kasu, onarpenaren portzentajea, %90 eta %100aren artean kokatzen zen, dogmaren arabera eta Aita Santuaren izena, sakramentuen kopurua eta Elizako aginduen kopurua bezalako gaietan informatuta zegoen etxeoandreen portzentajea, %95 eta 98aren artean kokatzen zen<sup>740</sup>. Beraz, 1970 aldera, Elizak eta erlijiozaletasunak Nafarroan oraindino presentzia eta are eragin handia izaten jarraitzen zutela esan daiteke.

Iruñean, gerraostetik aurrera, eragin hura elementu ezberdinen bitartez gauzatu zen: erlijiozaletasun herrikoia bitartez; parrokiaren bitartez; kongregazio erlijiosoek zein Elizako hierarkiaren elementuek zuzentzen zituzten ikastetxe, lanbide eskola edota seminarioen bitartez; eta ikastetxe erlijiosoetako Ikasle Ohien Elkarteak, Oberenaren antzeko aisialdiari eta kulturari lotutako elkarteetatik eta apostolutza mugimen erakundeak barne hartzen zituen asoziazionismo oparo baten bitartez.

<sup>738</sup> 1970eko Foessa txostena. 6.2 Taula: “Identificación religiosa y vitalidad religiosa por regiones”, 466 orr.

<sup>739</sup> 1970eko Foessa txostena, 451 orr. Kontutan izan behar dugu, hala ere, txostenak berak alor honetako emaitzak “neurtu” ahal izateko zailtasun handiak daudela onartzen duela. Izan ere, igandean edo jaiegunetan mezatara joatea sozialki begien-bistakoa den jokabidea denez, gizartearen presio eta kontrola baldintzatuta egon daiteke eta honek, nolabait, aipatu emaitzak, desitxuratzen ahal ditu.

<sup>740</sup> 1970eko Foessa txostena, 454 eta 455 orr, hurrenez-hurren.

Erlijiozaletasun herrikoiairen hainbat debozioren edo gurtzen jarraitutasunak, nafar landa mundutik etorritako emigranteekin izan zuen zerikusia. Herrietatik Iruñera iristen zen familien gehiengoak, nafar tradizioetik jasotako erlijiozaletasuna ekartzen zuen berekin, hari lotutako irudiak (Puyko, Uxueko, Orreagako, Yugoko, Nievako, Jesusalmeneko Ama Birjinenak esateko<sup>741</sup>) eta ospakizunak hirian erreproduzitzen zituztelarik. Sorterrietako debozioak mantentzeko formarik agerikoenetariko bat zaindarien jaiegunen ospakizunena izan zen. Corellakoek adibidez, euren zaindaria zen Villarreko Ama Birjinaren jaieguna bi ekitaldi erlijiosoekin eta bien erdian eskaintzen zen anaitasun hamaiketako batekin ospatzen zuten<sup>742</sup>. Txantrea auzoan, denbora luzez bertako parrokoa izan zen Manuel Elviraren hitzetan, "*Parrokiara euren herrietako debozioak eskatzera etortzen ziren. Gogoratzen dut Uxueko oso talde handia zegoela eta hauek eskatu, ia exijitu, egiten ziguten Uxueko Ama Birjinaren bederatzurrrena egitea. Euren ohiturak eta euren erlijiosotasuna mantentzen zuten honela*"<sup>743</sup>. Bestalde, erlijiosotasun herrikoiak eta haren irudiek zein praktikek, tokiantokiko identitate komunitarioen elementu garrantzitsuak izaten jarraitu zuten zenbait kasu adierazgarrietan. 1966an Potasaseko meatzariek, lan jantzia soinean, Santa Barbararen irudia, sorbaldan hartuta, herrixkako elizara eraman zuten<sup>744</sup>. Meatzarien zaindari zenaren irudiaren kokapenarekin honela, komunitateak bere burua erlijiosoki meatzari gisara berresten zuen. Are auzoetan, komunitateen jai herrikoiak zaindarien oroitza ospakizunekin batera ospatzen ziren, bizilagunek antolatutako programek ekitaldi erlijiosoak eta jarduera profanoak nahasten zituztelarik. Esate baterako Txantrean jaiak San Joséren jaiegunarekin batera ospatzen hasi ziren, martxoaren 19an, eta gero maiatzaren 1era aldatu ziren, San José Artesanoren egunarekin bat etortzeko; Arrotxapean abuztuan antolatzen ziren, El Salvadorren omenez; Navarrerian irailean, San Fermin de Aldaparen ospakizunarekin batera; eta Arrosadian urrian, zaindaritzat zuten Pilarreko Ama Birjinaren bestaldien baitan.

Honekin batera, eguneroko bizitza, praktika zein jarduera erlijioez josita zegoen, honek nafar askoren ingurugiro hurbila eta hezkuntza baldintzatzen zituelarik: "*Hezkuntza erlijioso jaso nuen, nire aita oso, oso, oso erlijiozalea zelako, egunero meza joaten zen, egunero jaunartzea egiten zuen eta egunero arrosarioa errezatzen zuen; eta ni, horren ondorioz, gaztetan, hogeita bi urte bete eta soldaduzka egitera joan nintzen arte, ideia erlijiosoari [...] oso lotuta egon nintzen nolabait*"<sup>745</sup>. Meza, otoitzak, prozesioak edota sakramentuen ospakizunak, gizartearen baitan erlijioaren presentzia bermatzen zuten praktikak ziren oraindik, gogo jardunen zein kristaudi ikastaroen antzekoek, eguneroko praktikez haraindi, erlijiosotasuna garatzeko eta sakontzeko jarduera gisara errotuta jarraitzen zuten bitartean.

Guztiarekin ere, parrokia izan zen Elizaren eragina gizartean eraginkorkien gauzatzen zuen elementua. Iruñearen hazkunde fisikoak eta demografikoak, auzoetako populazio geroz eta ugariagoei erantzun zieten parrokia berrien sorrera ekarri zuten berekin. Txantrean esateko, parrokia 1951 urtean bertan hasi zen eraikitzen, lehenbiziko etxebizitzak oraindik altxatzen ari zirela. Honekin, parrokia hura auzo berriko lehenbiziko erdigune soziala izango zela ziurtatzen zen. Parrokiaren presazko sorrerarekin, egiten ari ziren zonalde hiritar berrietan honek herrietan zuen

<sup>741</sup> "Rogativa parroquial a la virgen del camino", DN 1963-05-11, 7 orr.

<sup>742</sup> Euren herriko ohitura eta tradizioak hirian gogoratzeko modu bat zen. "El Reporter al día", DN 1963-04-30, 4 orr.

<sup>743</sup> Manuel Elviraren hitzak. Jasoa, VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida...* Op Cit., 107 orr. Iruñean orokorrean, Uxueko Ama Birjinaren jaieradun asko omen zegoen eta honen jaieguna hemen gogotsuki ospatua izaten zen: "Hoy, festividad de la virgen de Ujué", DN 1961-09-08, 2 orr.

<sup>744</sup> "Solemne entronización de Santa Bárbara en el poblado de Potasas", DN 1966-12-04, 20 orr. Argazkian deskribatutako eszena ikusten ahal da.

<sup>745</sup> PE.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-09.

erreferente gisarako betekizuna izango zuela bermatzen. 50 eta 60. hamarkadetan sortutako auzo komunitateen hastapenetan hala gertatu zen, berauetako lehen bizilagunen artean, nafar landa mundutik etorritako jende asko zegoelako eta hauek, auzo parrokiari, sorterriko komunitatekoak ematen zien kohesio elementua bilatzen zutelako. Txantrearen ereduarekin jarraituz, San José elizaren lehen harria jarri zeneko ekitaldian, prelatuak hitza hartu zuen eta Txantrea zen langileentzako etxebizitzaren eraikuntzaren proiektua, parrokiarekin komunitate kristau ororen garapenean oinarritzeko elementua zelako, elizaren eraikuntzarekin biribiltzen zela esan zuen<sup>746</sup>. Azken batean, parrokiak, eraikin huts bat baino askoz gehiago ziren, Elizaren eragina gauzatzeko eta giza komunitate berrien erlijiozaletasuna babesteko oinarritzeko piezak ziren.

Parrokia berrien sorrerak hiri garapenari eutsi egin zion<sup>747</sup>. Horretarako, alde zaharretako parrokiak zaharrak berri eta handitu ziren, eliza berriak eraiki ziren eta are etxabeak zentro gisara erabili ahal izateko egokitu ziren. Txantrean, auzoaren zabalkuntzari eusteko, San José parrokiarekin beste, bi parrokiak berri sortu behar izan ziren 60 eta 70. hamarkadetan: Santiagokoa eta San Cristobalekoa. Lehenbizikoak, eraikina egin bitartean, zonaldean zegoen Josefinen ikastetxean egiten zituen gurtzak eta jarduerak eta bigarrenak, behin-behineko egoitza Canosianas ikastetxean izan zuten. 1966an inauguratu zen Donibaneko La Asunción tenplu parrokiarekin berria, berezko eraikina egin artean, zinema bat izandako eraikin batean kokatu zen. 1964ean Arrosadiako zonaldean martxan jarri zen zentro berria, San Enrique, etxabe bat zen, egun Eroski supermerkatu bat den Antsoaingo San Cosme y San Damian zentroa zen bezala. Garrantzitsuenak beraz ez zen eliza bat eraikitzea, funtzio sozial eta erlijioso zehatz bat betetzen zuten erdigune bat sortzea baizik.

Funtzio honek, parrokiak, bizitza komunitate eta komunitate erlijioso gisara ulertzeko moduarekin zerikusirik izan zuen. Parrokiek zentzu honetan planifikatzen zituzten euren jarduerak eta bideratzen zuten euren eliztarren formakuntza, komunitatearen ideia hori gauzatzeko, hitzaldiak, ikastaroak, topaketak eta bestelako kirol eta kultur jarduerak (parrokiako zinema adibidez) antolatzen zituztelarik. Aipatu Donibaneko La Asunción parrokiaren tenplu berriaren proiektuak eliza, bilera areto bat, zentro sozial bat (lehenbizi eraiki zen zinema aretoa) eta etxebizitzak aurrekusten zituzten eta Txantreako bigarren parrokiak izango zen Santiagokoa, parrokiako gelez gain, apaizen etxea, zinema aretoa eta kafetegia barne hartzen zituzten<sup>748</sup>. Modu honetan parrokiak ez ziren soilik praktika erlijiosorako esparruak izango eta egiazko sozializatorako esparruak izango ziren, euren eragina gizartearengan bereziki bide honetatik gauzatzeko zutelarik.

Nafar gizartearen gaineko eragin hura finkatzen lagundu zuen bestelako elementu bat heziketa izan zen. Erregimenari esker Elizak honen monopolioa bere eskuetan zuenez, ikastetxeak, kongregazio erlijiosoek zuzentzen zituzten lanbide eskolak eta seminarioak, funtsezko eraginguneak izan ziren haren pisu soziala gordetzeko. Lehen Hezkuntzako eskolen eta Bigarren Hezkuntzako institutuen zuzendaritza izateaz beste, Eliza diozesiarrek eta kongregazio erlijiosoek euren berezko ikastetxeak eta haur kantarien eskolak zituzten: jesuitek adibidez institutua zuten Tuteran, eskolapioek ikastetxea Iruñean eta kaputxinoek, ikastetxea Altsasun eta San Antonio haur kantarien eskola Iruñean. Salestarrek bere aldetik, lanbide heziketan

---

<sup>746</sup> "Bendición de la primera piedra de la parroquia y las escuelas", DN 1951-03-20, 8 orr.

<sup>747</sup> Jesús Equiza, "Urbanismo y parroquias..." Op. Cit.

<sup>748</sup> "Hoy será bendecido el nuevo templo parroquial de La Asunción. En realidad es un cine que hará de iglesia hasta que se construya ésta. En el plazo de dos años se levantará el templo, el centro y las viviendas parroquiales", DN 1966-05-18, 20 orr. eta "En la Chantrea se va a construir la iglesia mas moderna de Pamplona", DN 1963-09-04, 12 orr., hurrenez-hurren.



jardun zuten eta Nafarroako Lanbide Heziketa Eskola eta Imenasa enpresaren eskola profesionala zuzentzen zituzten.

Ildo berean, seminarioen kasua, nabarmentzekoa da. Bigarren kapituluan, instituzio erlijiosoak, langile askorentzat heziketa lortzeko bide bakarrak izan zirela ikusi dugu. 50 eta 60. hamarkadetan zehar, hartara, seminarioetarako eta fraide eskoletarako umeen etorrera ugaria izan zen, halako eskola erlijiosoak baliabide ekonomiko eskaseko familia apalenek euren semeei hezkuntza eman ahal izateko aukera bakarrenetariakoak baitziren. Modu honetan, eskola erlijiosoak, gizarte klase eta sektore umilenetako familien semeek, beste modu batean jaso ezingo zituzten hezkuntza baliabideak eskuratzeko bitarteko nagusi bilakatu ziren. Nafarroaren kasuan gainera, gizartean errotutako erlijiozaletasunak apaiztegi hauek are gehiago elikatzen zituen, apaizen bitartekari gisarako paper sozialak eta apaizgaiei bereziki euren sorterrietan zitzaien errespetu sozialak<sup>749</sup>, ume askorengan “jainkoaren deia” garatzea ahalbidetzen baitzuen. Nafarroan, besteak beste Altsasuko kaputxinoen seminarioa<sup>750</sup> eta bereziki Iruñeko seminario diozesiarra izan ziren instituzio erlijioso hauen adibide adierazgarrienak. Aipatu dugu jada Nafarroak hamar mila biztanleko estatuko apaizgai kopururik handiena zuen herrialdea zela eta bokazio handiko zonalde bezala nabarmentzen zela: *“Mundu guztiak ezagutzen du honako esaldia edo leloa, ‘Nafarroa, bokazioen lurraldea’*<sup>751</sup>. Ildo horretan, Iruñeko seminarioa, nafar erlijiozaletasunaren ikur nagusienetariko bat izan zen, 60. hamarkadaren amaieran husten hasi zen arte, beteta egon zelako, hots, ikasle kopuru handia jasotzen zuelako. Haietariko asko, ikusiko dugun bezala, Iruñeko langile klasearen sortze prozesuan protagonista nabarmenduak izan ziren.

Azkenik, nafar gizartearen bizitzaren alor desberdinetan jarduten zuten erakunde katoliko desberdinak ere ezinbestekoak izan zen Elizaren presentzia soziala gizartearen baitan iraunarazteko. Adibidez Acción Católica eta bere mugimendu espezializatu guztiak, batez ere langile erakundeak, zentzu honetan eragile oso eraginkorrak izan ziren, bai Elizaren elementu sekularren antolakuntzarako eta parte hartzerako tresnak zirelako eta baita frankismo betean, erregimenarenaz besteko legezko esparru bakarrak zirelako ere. Hurrengo atalean luze arituko gara hauei buruz, beraz, momentuz, euren jarduerarekin, presente zegoen arlo guztietan elizaren eragina nolabait bermatzen zutela aipatu baino ez dugu egingo.

Elementu guzti hauek, Elizaren hainbat sektorek gizartearekiko eta diktadurarekiko euren jarrera hartzeak aldatu zituztenean, sektore haien diskurtso berriak gizarteratzeko orduan funtsezkoak izan ziren. Beraz, halako elementuak 30. hamarkadan Errepublikaren kontrako diskurtso bat sozializatzeko jardun izan zuten bezala, orain lan mundura hurbiltzen zen eta diktaduraren aurka azaltzen zen diskurtso bat zabaltzeko esku hartu behar zuten. Eliza katolikoaren barnean eman zen aldaketa garrantzitsu hau, Vatikanoko II. a. kontzilioaren barnean eman zen bere printzipioei buruzko hausnarketa sakon batean ostean gertatu zen. Honek, espainiar errealitate soziopolitikoarekiko jarrera aldaketa inportante bat ekarri zuen berekin, izan ere, hausnarketa haren bidetik, diktaduraren egitura politiko, sozial eta ekonomikoak garaiz kanpokoak zirela eta ebanjelioaren oinarrien kontra zihoazela estimatu zen. Elizak eta erlijiozaletasunak

---

<sup>749</sup> “Apaizgaia da. Eta horrekin dena esanda dago. [Herritarren] badakite seminarioan, gazteak, euren apaizak izateko formatzen dituztela. Badakite herriko seminarista bat berezkoa zaiela, euren odola daramala, euren bizitzen parte dela [...], herri horren ikurra dela. [Herriak] apaizgaia seminarioari uzten diola eta honek gero apaiz bihurtuta itzuliko diola uste du”. “Día del seminario. Nuestro día”, DN 1963-09-06, 2 orr.

<sup>750</sup> “Tú, pequeño, puedes ser capuchino”, DN 1962-05-12, 3 orr.

<sup>751</sup> “Día del seminario. Pamplona y sus vocaciones”, DN 1963-09-07, 2 orr.

Nafarroan bezainbeste zuten pisu soziala eta are kulturala zuten leku batean, aldaketa hauek berebiziko eragina izan behar zuten nahi ta nahiez.

### 5.2.1 Eliza frankismoan: erregimenaren sostengu izatetik, oposizioan kokatzera

Igarobide honek, 60. hamarkadaren lehen erdialdean Vatikanoko II. konkilioak garatu zuen berrikuntzarako gogoarekin izan zuen zerikusirik. Konkilioan Eliza eredu berri baten oinarriak ipini ziren. Hasteko, ordurarte Elizaren baitan nagusi izandako mundu modernoarekiko harreman modua berrikusi zen: barrura begira, gizarte modernoari bizkarra emanez, bizi izandako Eliza hura, orain, errealitate berriei begira jartzen zen eta gizartearekin eta bere arazoekin konprometitzeko hautua egiten zuen. Konkilioak berekin ekarri zituen berrikuntzen artean, pobreeganako eta sufritzen zutenenganako kezka, barne demokratizazio bat igartzen zuen eta laikoaren eta euren betekizunari buruzko ikusmolde berri barne hartzen zuen Elizaren egituren berrikuspenean eta askatasun erlijiosoaren adierazpenean, nabarmentzen ahal ditugu. Aldaketa guzti hauek eragin handia izan zuten bai laikoengan (batez ere apostolutza mugimendu sekularretako militanteengan) eta baita kleroaren zein Elizaren hierarkiaren hainbat sektoreengan ere.

Feliciano Montero historialariaren hitzetan, Konkilioa, aurretik, espainiar katolizismoan jada presentzia zuten jarrera eta ikusmolde zenbaiten bultzatzailea, bizkortzailea eta zabaltzailea izan zen<sup>752</sup>. Zentzu honetan, Espainiako Elizak frankismoaren bitartean izan zuen bilakaera aztertuta, Konkilioaren berrikuntzek erregimenarekiko Elizaren aldentzea berekin ekarri zutela eta haren baitako sektore garrantzitsuak diktaduraren aurkako oposizioan kokatu zituztela ondorioztatzen du. Bilakaera prozesu honetan, lehenbiziko jarrera aldaketak, Elizaren oinarri sozialen baitan, hots, Acción Católicaaren eta bere erakundeen baitan, eman ziren. 70. hamarkadan, kleroarengan eta are hierarkiarengan. Honela, 1968 urtera arte, oinarri sozialak (laikoak eta maila baxuko kleroa) izan ziren disidentzia katolikoaren protagonista nagusiak, ordutik aurrera, diktaduraren aurkako jarrera argiak azalduz, geroz eta gehiago erradikalizatzen eta sekularizatzen ari ziren oinarri sozial hauei, hierarkia bera gehitu zitzaielarik.

50. hamarkadan, 1953an sinatutako konkordatuaren katolizismo "triumfalistaren" testuingurua nagusi zen arren, katolizismo espainiarraren oinarriak zalantzan jartzen zituzten lehen autokritikak entzuten hasi ziren jada. Esate baterako, Elizaren baitako hainbat sektore intelektualek, gutxienekoek, autokritika erlijioso bat egiten hasi ziren, espainiar katolizismoak, europar korrante eta hausnarketa berriei begirako berrikuspene bat behar zuela aldarrikatuz. Estrategia pastoral berri baten beharraz ohartarazten zuen José María García Escuderoaren edota katolizismo klerikal baten eta katolizismo antiklerikal baten artean, erdibideko katolizismo laiko bat proposatzen zuen Luis Arangurenen jarrera hartzeak, ikusmolde erlijioso autokritikoen adibide adierazgarriak izan ziren. Honekin batera, Eliza eta estatuaren arteko harremana ardazteko estatu konfesionalaren ereduak zalantzan jartzen zuten lehenbiziko ahotsak entzuten hasi ziren ere, adibidez Carlos Santamariak 1947-1957 bitartean Donostian sustatu zituen *Nazioarteko Elkarrizketa Katolikoetan*. Alor sozialean, orduan ere hasi zen sorospene eta karitatezko egintzetan oinarritutako justizia sozialaren ereduari buruzko eztabaida mahaigaineratzen. Kasu honetan, autokritika, Elizaren doktrina soziala praktikara eramateko paternalismoan eta karitatean funtsatutako espainiar katolizismoaren ereduak gaitzestearen bidetik etorri zen, honen aurrean, adibidez *El Ciervo* aldizkariak egin bezala, hausnarketa sozialerako ildo berriak planteatzen zirelarik. Kritika honen bidetik, hamarkadaren amaieran bi apezpiku-batzorde desberdin sortu ziren, Karitate

<sup>752</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de la colaboración a la disidencia (1956-1975)*, Ediciones Encuentro, Madril, 2009, 100 orr.

eta ongintza batzordea eta Gai Sozialetarako Batzordea, obra eta jarrera paternalistak, justizia sozialean funtsatutako ekimenetatik eta mintzaeretatik bereizten hasten zirelaren seinale. Guztiarekin ere, 50. hamarkadako autokritika erlijioso hauek, orduan espainiar katolizismoak hasten zuen katolizismo frantsesak egindako hausnarketa doktrinal eta politikoarekiko hurbilpen teorikoaren lehen adierazleak baino ez ziren izan eta praktikan, soilik pastoralaren forman izan zuen nolabaiteko eragina, espainiar Elizaren egiturak eta estatu konfesionalaren eredia zuzenean zalantzan jartzera iritsi gabe<sup>753</sup>.

60. hamarkadan, Elizaren oinarri sozialen eskutik, halako autokritikak praktikara eramane ziren. Orduan, esaten genuen bezala, disidentzia katolikoaren protagonismoa laikoek izan zuten, bereziki apostolutza mugimendu sekularrek. Acción Católicaaren baitako HOAC eta JOC bezalako erakundeek “urrezko aroa” izan zen. Vatikanoko II. erakunde hauen gaparenean izan zuen eragina, militanteen formakuntza eta konpromisoa, hauek gatazka eta borroka sozialean izan zuten esku hartzea edota ezkerreko kultura kristau berri baten sortzea, oinarri sozialen jarrera hartze berriak sustatu zituzten faktoreak izan ziren. Hauek, aurrerantzean, Kontzilioaren orientabide berriak aplikatzeko gogo eta erregimenarekiko harremana ulertzeko modu desberdinak zituzten bi sektoreen arteko barne tentsioak eragin zituen espainiar Elizaren baitan. Esate baterako, bi sektoreen ikusmolde desberdinek talka egiten zutenean, hierarkiak beti Acción Católicaaren berezko izaerak barne hartzen zituen obediencia eta diziplina gogorarazten zituen, nahiz eta hauek berez apostolutza sekularren heldutasunari eta autonomiari buruzko Kontzilioaren doktrinaren aurkakoak izan. Gatazka honek Acción Católicaaren eta bere mugimendu espezializatuen krisi larria sortzen amaituko zuen, bereziki mugimendu espezializatuen estatutuen indargabetzeak, erakunde desberdinen lehendakarien dimisioa eta militante askoren erretiratzea eragin zuenean.

Ordutik aurrera, oinarri sozial “garaituak” geroz eta gehiago erradikalizatzen eta sekularizatzen ziren bitartean, aipatu gatazka hori bera, instituzioen eta hierarkiaren mailara igaroko zen. Acción Católicaaren krisia eragindako gazta hura, gordinki azaltzen zen orain, izan ere, José María González Ruizek azaltzen uzten bezala: *“A Elizak (kontserbadorea) bere jarrerak gogortu behar izan zituen, baina lehen errebeldeak ordenara eramateko zituen tresna ahaltzuek, orain jada ez zituela onartu behar izan zuen ere. Gatazka, lehenik eta behin, santutegiaren baitan azaleratu zen: seminarioetan eta fraidegaitegietan ideia eta kezka berriak borborrean hasi ziren... B. Eliza, orokorrean, Acción Católicaaren militante espezializatuek, apaiz eta elizgizon gazte ugari eta zenbait gotzainek babesten zuten apaiz mailako behi sakratuen talde txiki batek osatzen zuten. Oso zaila da gatazka hau soilik elizaren gatazka zen edota zabalagoa zen gatazka politikoaren generoari zegokion argitzea. Nik uste bata eta bestearen bitartean zegoela”*<sup>754</sup>. Eliza instituzionalaren sektore bat frankismoarengandik urruntzera eramane zuen prozesua, Eliza bera, haren misio pastoralak eta haren estatuarekiko harreman politikoa ulertzeko modu desberdinak aurrez-aurre jartzen zituen gatazka orokorrago baten garapenarekin batera eman zen. Zentzu honetan, Vatikanoko II.aren erreformen gauzapenaren inguruko barne gatazka pastoralak, erregimenarekin bat egiten zuten edo erregimenari kontra egiten zioten jarrerak ekartzen zituen dimentsio politiko bat bazuela esan daiteke, Kontzilioaren aldeko sektoreen eta Kontzilioaren aurkako sektoreen arteko gatazkak, nola edo hala, frankismoaren aurkako sektore disidenteak eta sektore frankisten arteko gatazkak zirelarik aldi berean. Elizaren baitako sektore desberdin hauen arteko tentsioak diozesiaren esparruan azaleratu ziren argien. Feliciano Monterok deskribatu izan dituen moduan, gatazka diozesiar hauek, gotzainek euren apaiz aurrerakoien eta

<sup>753</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 51 orr.

<sup>754</sup> José María González Ruiz, “Las dos iglesias”. Jasoa, Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 227 orr.

laikoen jardunbideen alde egiterakoan sektore “tradizionalak” asaldatzen zirenean edota gotzain tradizionalen jarduerak sektore aurrerakoien protesta mugimenduak pizten zituztenean gertatu ohi ziren<sup>755</sup>. Fenomeno orokortua izan zen eta halako gatazkak, estatuko diozesi guztietan jazo ziren. Nafarroa ez zen salbuespena izan eta bertan, erlijiozaletasunak eta Elizak iraganean gizartearengan izan zuten eta oraindik zuten eragin soziala zela eta, gatazkak oldar biziz azaleratu ziren.

Iruñean, 60. hamarkadaren amaieran, oihartzun handiko hainbat tentsiune bizi izan ziren. Seminarioaren gatazka izan zen larriena. Hamarkadaren erdialdetik aurrera Jesús Lezaunen zuzendaritza pean abian jarri ziren berrikuntzak errotik ebaki ziren 1967an. Nafar Elizaren sektore tradizionalenek seminarioaren “gogo berriaren” kontra egindako kanpainak arrakasta izan zuen eta urte horretan Enrique Delgado Gomez gotzainak Lezaun kargutik kendu zuen gatazka amaitutzat eman. Aipatu gatazka diozesiarren eskemari jarraiki, erabaki honek sektore aurrerakoien protesta mugimenduak piztu zituen: hogeitaz bat apaizek gotzainari zuzenean eskutitz bat idatzi zioten, erabakiarekin, seminarioko zuzendaritza taldea babestu beharrean, haren kontrako kanpainak zabaldutako zurrumurruei sinesgarritasuna ematen ziela iradokitzen ahal zelaz kezkatuta; eta gazte talde batek Diario de Navarra egunkarira eskutitz bat bidali zuen, seminarioaren ibilbide berria goraiatu ondoren, halako erabakietan, hierarkiak, herri sekularren iritzia kontutan hartu behar zituela aldarrikatzeko<sup>756</sup>. Ildo berean, urtebete geroago, mugimendu sekular ezberdinei lotutako hainbat pertsonak, Blas Piñarrek hirian eman behar zuen hitzaldi batengatik protesta egiteko eskutitz bat bidali zuen egunkarira, honek “Fuerza Nueva” aldizkarian idatzitako editorial batean Iruñeko seminarioaren aurkako salaketa handiak egin zituela argudiatuta<sup>757</sup>.

1969an berriz ere bi sektoreok aurrez-aurre jarri zituen beste liskar bat gertatu zen. Apaiz talde batek Arturo Tabera Araoz artzapezpikuari urte hartan gobernuak dekretatutako salbuespen egoera salatzeke pastoral bat ematea eskatzen zion bitartean, kleroaren sektore kontserbadoreak halako testu bat egitearen desegokitasunaz ohartarazten zuen. Elizak gai soziopolitikoaren aurrean izan behar zuen jarrera hartzearen inguruko eztabaidak, nafar Elizaren baitan ikusmolde kontrajarriak zituzten bi sektore zeudela azaleratzen zuen ere. Bien arteko konfrontazioaren bizitasunaren adibide, apaiz kontserbadoreen taldeak orduan artzapezpikuari bidali zion gutuna dugu<sup>758</sup>. Bertan, pastoralaren eskakizuna egin zuen apaiz taldeari *“euren burua kristautzat hartu baina egiatan kristau ez diren errebelde”* izatea, *“bizi garen gizartearekin eta jaio garen Elizarekin amaituko duen Iraultza handia erdiesteko komunistekin eta elementu anarkistekin elkarlanean aritzea”* eta *“euren onberatasunaz eta xalotasunaz, euren idealismoaz eta apostolutzarako grinaz”*

<sup>755</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 327 orr.

<sup>756</sup> Hogeitaz bat apaizek gotzainari bidalitako eskutitza: Nafar elizaren sektore batzuk gotzainak seminarioan egindako aldatetekin ados ez daudela adierazteko apaiz talde batek gotzainari bidalitako eskutitzari buruzko berria (1967-09-19), AGA-AAO, Kultua fondoak, Gabinete de Enlace saila, 42-08999. kutxa. Gazte taldearen eskutitza: "Cartas al director. En torno al seminario", DN 1967-09-05, 20 eta 6 orr. Eskutitz hau sinatzen zutenen artean, VOJeko lehendakaria izan zen Javier Iturbe zegoen.

<sup>757</sup> "Cartas al director. Sobre la conferencia del Sr. Piñar". DN 2 1968-03-02, 9 orr. Eskutitza sinatzen zutenen artean José Antonio López Cristóbal, Miguel Ángel Muez eta Francisco Eguiluz bezalako HOACeko militante nabarmenduak; JOCEko lehendakaria izan zen José Miguel Ibarrola; JOCEko militantea zen R.U. eta VOJeko militanteak ziren Jesús Aos eta Alfredo Caparroso; hala nola Manuel Burguete bezalako apaizgaiak aurkitzen ditugu.

<sup>758</sup> "Salbuespen-egoerari buruz iritzia emateak izaten ahal dituen ondorioez" ohartarazteko nafar apaiz talde batek gotzainari bidalitako eskutitza (1969-02-10). AGA-AAO, Kultua fondoak, Gabinete de Enlace saila, 42-08999. Kutxa.

*baliatuta, apaiz gazte talde baten arima pozoitzea eta fedea aztoratzea*” egotzen zitzaion, bi taldeen arteko desberdintasunak ezin gaindituzkoak zirela agerian utziz.

1970ean Elizaren baitako sektoreen arteko gatazkaren beste adibide bat eman zen Lizarran<sup>759</sup>. Tabera Araoz artzapezpikuaren aginduz, herriko San Juan Bautista parrokiako bi apaiz lagunkide kargugabetuak izan ziren. Erabaki honek protesta mugimenduak sorrarazi zituen Lizarran. Lehenbizi, haiekin lan pastoralerako talde bat sortua zuten herriko beste hiru apaizek, erabakiarekiko euren desadostasuna azaldu zioten artzapezpikuari, hura gauzatzekotan haiek ere Lizarra utziko zutela adieraziz. Ondoren, apaiz talde honekin lan egiten zuen laikoen talde bat izan zen protesta egitera artzapezpikuarengana joan zena. “Affaire” guzti honek liskar sozial eta erlijioso sakona eragin zuen Lizarran. Laikoen inplikatzeari, kasu honetan, gatazkaren beste alderdi bat azaleratu zuen, laikoek Eliza diozesiarraren martxan izan behar zuten parte hartzearen inguruko eztabaidarena. Izan ere, laikoen taldeak, eztabaida hartan, haiek Elizaren baitan bete behar zuten paperari zegokionean, Kontzilioan oinarritutako ikusmolde berriak mahaigaineratu zituen: haiengain eragina zuten erabakietan (apaizen izendatzean edo kargugabetzean, adibidez) parte hartze aktiboa izan behar zutela aldarrikatzen zuten eta hura bideratzeko, hierarkiaren eta haien arteko elkarrizketarako bide eraginkorrak eskatzen zituzten.

1971an aldaketak egon ziren diozesiaren zuzendaritzan. 1970aren amaieran José María Larrauri gotzain laguntzaile izendatua izan ostean, 1971aren amaieran José Mendez Asensio artzapezpiku izendatua izan zen. Biak, nola edo hala, sektore aurrerakoiarengandik gertu kokatzen ahal ditugu<sup>760</sup>, tentsioak sektore kontserbadoreak euren lerro eta jardun pastoralarekiko adostasunik eza adierazten zutenean azaleratu zirelarik. Esate baterako, azken sektore honetako apaiz talde batek 1973an artzapezpikuari bidali zion gutun batean, seminarioaren, liturgiaren, katiximaren, jarraibide pastoralen, kontseilu diozesiarren edota apaiz askoren jardunaren alorretan kritika gogorak egiten zizkion, diozesiaren buruan egiten ari zen gestioa zalantzan jarriz. Argiki ez zeuden haren ildo pastoralarekin konforme, sektore progresistak babesten zituela, hauek erantzukizun handieneko karguetarako izendatzen zituela eta Larraurik, progresista haien defendatzaile sutsua, harengain eragin handia zuela estimatzen zutelako.

Aldaketek, ikusmolde berrien zabaltzeak eta Elizaren parte baten jarrera hartze soziopolitikoaren garapenak barne oposizio gogor bati aurre egin behar izan zioten arren (gatazka diozesiarrak), 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, espainiar Elizak egiazko eraberritze zantzuak azaldu zituen. Aldaketa sakona ematen ari zela, 1971ko irailean burutu zen gotzain eta apaizen baterako asanbladak erakutsi zuen argien. Asanblada hau, mugarri bezala hartu ohi da frankismoaren bitarteko espainiar Elizaren bilakabidean bereziki bi arrazoirengatik, gotzainak eta apaizak baldintza beretan bildu zituelako (adibidez, batzuen zein besteen botoek berdin balio

---

<sup>759</sup> "Informe sobre el catolicismo en Navarra. El 'affaire' de Estella", DN 1970-08-23, 20 eta 9 orr. Txosten honetan, Lizarran gertatutakoak Nafarroan konfrontazio erlijioso bat gertatzen ari zela agerian uzten zuela eta Lizarrako liskarrarena diozesiko kasu bakarra ez zela jasotzen zen.

<sup>760</sup> Larraurik berak hasieratik iradokitzen zuen bere burua “Kontzilioaren garaia bizi nahi zuen gotzaintzat” aurkeztu zuenean: "D. Jose Maria Larrauri obispo auxiliar de Navarra", DN 1970-10-01, 24 eta 20 orr. Are adierazgarriagoa da sektore honen baitakoak bai Mendez Asensiori buruz eta baita Larrauriri buruz zuten iritzia. Esate baterako, M.P. apaiz langileak, modu honetan gogoratzen ditu bi figura hauek: “Garai hartan gehien konprometitu zenetako bat, adibidez, Larrauri izan zen [...], honek publikoki salatua zituen torturak [...] sekulako tipoa zen Larrauri...; José Méndez, gotzaina ere, [sekulakoa zen] ere; behin, atxilotua izan eta komisarian nintzela, ni ikustera etorri zen komisariara eta pastel bat ekarri zidan... oso gotzain xumea zen, eta oso erlijiozalea”. M.P.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-14.

izan zuten lehenbizikoz) eta aurkeztutako txostenetan, emandako eztabaidetan eta ateratako konklusioetan, nolabait, nazionalkatolizismoaren autokritika egin zelako eta gerra zibilaren bitartean Elizak izandako papera zalantzan jarri zelako nolabait. 1969-1970 tartean, inkesta handi bat burutu zen apaiz diozesiarren artean, hauen zailtasunak, zalantzak eta kezak ezagutzeko. Inkesta hau berez, burutzekoa zen gotzaintzaren asanblada batean datu erabilgarriak izan ahal izateko egin zen. Baina bertan ageri ziren problematikak ikusita, gotzaintzaren asanblada hura, gotzain eta apaizen baterako asanblada bihurtu zen azkenean. Inkestak, berrehun ta berrogeita hamar galdera baino gehiagotan, Kontzilioaz geroztik gorian zeuden gai guztiei heltzen zien. Arazo politiko zein sozialez hausnartzen laguntzeko apaizek zuten gaitasuna, apaiz betebeharrak lanarekin bateragarri egitearen egokitasuna, apaizen eta Elizako hierarkiaren arteko liskarra eta bokazioa garatzeko modua (auzi politiko eta sozialetan komunitatearekin bat eginda inplikatur edo auzi mundutarrak aintzat hartu gabe, solik auzi espiritualetan arituz) izan ziren, besteak beste jorratu ziren gai nagusienak. Emaitez, aipatu espainiar Elizaren baitako sektoreen arteko bereizketa argiki azaleratu zuten, bereziki Kontzilioko eraberritzeari eta gai politiko zein sozialei zegokionean. Erreformen eta apaizen inplikatzeko sozio politikoen alde argien eta sutsuen agertzen zirenak apaiz gazteak eta seminarioetako irakasleak eta teologoak bezalako "gutxiengo estrategikoak" zirela adierazi zuten ere<sup>761</sup>. Asanbladaren problematika guzti horien azterketa egin zen txosten desberdinen bitartez. Ondorioetan, lehenbizikoz, nazionalkatolizismoaren berrikuspen autokritikoa egiten zen modu finkoan. "Eliza eta mundua gaur egungo Espainian" izenburutzat izan zuen lehenbiziko txostenean adibidez, Eliza-estatu harremanen berrikuspenaren aldeko jarrera hartzeak nabarmentzen ziren eta beharrezko botoen gehiengoa lortu ez zuen arren, asanbladaren konklusio entzutetsuena izango zenean, Eliza gerra zibilaren bitartean baketzearen aldeko eragile izan ez zela onartu zen, horregatik barkamena eskatu zelarik ere.

Ildo horretan, Vatikanoren beraren esku hartzeak ere aldaketa esanguratsuak bultzatu zituen Elizako hierarkiaren baitan hura gogo kontziliar berriaren arabera berriztatzeko. Horretarako, konkordatuak gotzainak izendatzeko ezartzen zizkion mugak gainditu eta Pablo VIak, Vatikanok zuzenean izendatzen ahal zituen gotzain laguntzaileen figura eta gotzain emerituen erretiroa erabili zituen espainiar hierarkiaren barnean sektoreen arteko indar oreka berri bat lortzeko. Estrategiak arrakasta izan zuen eta 1972an Tarancón Espainiako Gotzainen Batzarreko buru izendatua izan zen, Kontzilioaren ildoko ikusmoldeak zituen eta nazionalkatolizismoarekin kritiko azaltzen zen sektorea indartua irten zelarik. Diozesietan ere aldaketa garrantzitsuak egon ziren. Berauetan, berrikuntzak ez ziren soilik izen eta aurpegieta nabaritu eta Kontzilioaren gidalerroak gauzatzeko sortu ziren erakunde ireki eta parte hartzaileetan egin ziren ikusgarri. Nafarroan adibidez, gotzainak gobernu lanetan laguntzeko bi kontsulta erakunde sortu ziren 60. hamarkadaren amaieran: Presbiterioaren Kontseilua eta Pastoralaren Kontseilua. Bietan, Elizaren egiturak demokratizatzen hasteko nolabaiteko borondatea igartzen zen, batez ere lehenengoaren kideen parte bat Nafarroa osoko apaizek zuzenean demokratikoki hautatuko zutelako eta bigarrean, laikoen parte hartze aktiboa sustatuko zelako<sup>762</sup>. 1968tik aurrera, bereziki 70. hamarkadaren lehen erdialdean, Eliza instituzionalaren sektore geroz eta

<sup>761</sup> José Andrés Gallego eta Antón Pazos, *La Iglesia en la España contemporánea*, II. Liburukia, Ediciones Encuentro, Madril, 1999.

<sup>762</sup> "En fecha próxima se van a constituir en la diócesis de Pamplona y Tudela el Consejo del Presbiterio y el Consejo de Pastoral. Parte de los miembros serán elegidos a votación entre los sacerdotes", DN 1967-01-11, 16 orr. eta "Se va a crear en Navarra el consejo de pastoral. Estará formado por sacerdotes, religiosas y laicos", DN 1969-11-09, 11 orr. Pastoralaren Kontseiluan J. M. M.-ek parte hartu zuen, HOACeko eta USOk militantea, Harakintza Sindikatuko sail sozialeko lehendakari, Nafarroako Langile Kontseiluko kide eta Foru Kontseiluko kide izandakoa.

garrantzitsuagoak, berrikuntza hauen bidetik, erregimenarengandik aldentzen hasi ziren. Gobernuak kezka bizi izan zuen prozesu hau, lehenbizikoz Espainian frankismoarekin oso kritiko azaltzen ziren eta ekintza eta adierazpen subertsiboak babesa ematen zieten gotzainak bazirela baieztatzerik izan baitzuen<sup>763</sup>.

### 5.2.2 Elizaren Eraginguneak langileen arteko loturak sortzen dituzten esparru bezala

Frankismoaren bitartean Elizak bizi izan zituen berrikuntzek eta eraldaketek, erlijiozaletasuna eta praktika erlijiosoak, parrokia, hezkuntza (ikastetxeak, eskola profesionalak, apaiztegiak) eta asoziazionismo katolikoa zeharkatu zituzten, hauek Kontzilioko ideiak eta frankismoaren aurkako jarrerak gizarteratzeko gune oso eraginkorrak izan zirelarik. Horregatik, gune horiek, zirkuituan konexioak sortzeko elementu bezala eta sareetan sartzeko eta berauetatik mugitzeko funtsezko erreferentzia bezala ikusiko ditugu oraingoan.

1967-1974 bitartean Nafarroako Langile Kontseiluaren lehendakari izango zen eta garai hartako nafar langile munduan eta gure zirkuituaren hainbat esparrutan erreferentziako pertsonaia izango zen Tomás Caballeroren ibilbidea, Elizaren esparruen, konpromiso sozialaren eta militantzia soziopolitikoaren arteko harremanen adibide adierazgarria da<sup>764</sup>. Caballero erroitik erlijiozalea zen. Bere familiaren egunerokotasunean erlijioa funtsezko elementua zen. Tuterako jesuiten kolegioan ikasi zuen, bertan jesuiten espiritualtasunaz ongi jabetu zelarik. Tuteran Muskaria peñako eta Iruñean Oberenako bazkidea zen, biak Acción Católicaren baitan sortutako elkarteak ziren. Apostolutza mugimenduei lotuta egon zen eta militante izan ez zen arren, HOACaren inguruan ibili zen eta erakunde hartako militante askorekin Erakunde sindikalean, Langile Kontseiluan eta Udaletxean lan egin zuen<sup>765</sup>. Erlijiozaletasuna oso aktiboki bizitzen zuen: bere parrokiaren bizitzan oso konprometituta zegoen, kristandade ikastaroetan parte hartu zuen eta bestelako mugimenduetan sartuta egon zen ere. Azken hauen artean, Equipos de Nuestra Señora delako mugimendua aipatzekoa da. Bertan, senar-emazteez osatutako talde batean, gogo jardunak egiten ziren, beti mugimenduaren zuzendaritzatik ematen zitzaizkien materialetatik abiatuta. Baina laster bere taldea mugimendutik bereizi egin zen era autonomoan funtzionatzen hasteko. Orduan gai sozial eta politikoak lantzen hasi ziren. Gure subjektuetariko askok, modu batean edo bestean, erlijiosotasunarekiko edota Elizaren esparru ezberdinekiko halako loturak azaltzen dituzte ere.

Euren inguruan erlijiozaletasun oso bizi eta aktiboa ezagutu izan zuten protagonistek, erlijioa ardatz zuen identitate batean murgilduta hazi egin ziren. Huentzat, erlijiozaletasun hori bera, euren ibilbideen abiapuntua izan ohi zen. Esate baterako, erlijiozaletasun horrek, Elizarekiko eta haren sozializatorako esparruekiko harreman goiztiarra sortzen ahal zuen gaztetan, erlazio hura, heldutzerakoan, zirkuituan sartzeko ate batean bilakatzen ahal zelarik. E. A.-ren kasua izan zen. Herrian, gaztetan, Acción Católicaren gazteria sailean ibiltzen hasi zen eta heldutzerakoan, hirira iritsi zenean, HOACeko militante izatera igaro zen, hasierako

<sup>763</sup> 1973ko "Radiografía urgente del episcopado español" txostenean, bereziki. Ikusi Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 296-299 orr.

<sup>764</sup> Bere biografiak, erlijiozaletasuna eta honekin lotutako zenbait esparrutan izan zuen parte hartzea, bere bizitzaren oso alderdi garrantzitsuak izan zirela erakusten du. Ikusi Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato de Tomás Caballero: 50 años de lucha democrática en Navarra*, Nobel, Oviedo, 2006.

<sup>765</sup> "Tomásek berak onartu zuen, urteak geroago, HOACeko gizonekin harremanak izan zituela; izan ere, askatasunarengatik eta langileen benetako ordezkaritza batengatik lehen borroken sustatzailetzat zituen. Euren ideien aldekoa zen, baina ez zuen inoiz HOACekin egoteko beharrik sentitu". Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 59 orr.

militantzia horren jarraipen natural bezala. Bestetik, ingurune hurbiletik jasotako erlijiosotasuna, protagonistengan kezka sozialak garatzeko abiarazlea izaten ahal zen. Hau, Nafarroan existitu egiten zen kristautasuna ulertzeko beste modu bati lotuta agertzen diren kasuetan gertatzen da bereziki. Kristautasuna ebanjeliotik, errealitatetik eta gizartetik gertuago ulertzen zuen substratu erlijiosoaren zen hau. J.I.S.-ek adibidez, familiarengandik jasotako halako ikusmolde erlijiosoari esker uztartu zituen erlijiozaletasuna eta auzi soziala, “*Niretzat bi habe horiek, fede erlijiosoak, oraindik ere mantentzen dudana, eta auzi soziala [...] estuki elkarlotzen diren baloreak biltzen dituzte euren baitan, ezta? gutxienez niretzat, ba, funtsezkoak diren baloreak dira, ezta? Ebanjelioaren baloreak*”<sup>766</sup>. Uztartze hori gerora, bere ibilbidearen bultzatzaile nagusienetariko bat izango zen, bai zirkuituan kokatuko zuten saretarako bere lehen sarbideak esparru erlijiosoak izan zirelako (kristandade ikastaroak) eta baita militantzia sindikalera eraman zuen bideak, esparru erlijiosoei lotutako sare horietan garatu zuen auzi sozialarekiko konpromisoa ardatz izan zuelako ere.

Praktika erlijiosoak, erlijiosotasun bizi eta aktibo bezala ulertuta, aukera desberdinak ematen zituen aipatu konexioak sortzeko. Meza bera, harremanak egin eta kidetasunez jabetzeko edota ideia eta ikusmolde jakinak zabaltzeko unea izaten ahal zen. Esparru eraginkorra zen, adibidez, apostolutza mugimenduen egitura parrokialak sendotzeko edo hauek sustatzen zituzten ekimenetarako sostenguak bilatzeko eta konpromiso sozial handiko apaizen eskutik, arazo zein gatazka sozialen ingurukoak entzuten hasteko. Bakarraldiak, gogo jardunak eta kristandade ikastaroak, esparruak irekitzen eta sareak ehuntzen lagundu zuten praktika erlijiosoen artean egon ziren ere. Gogo jardunak adibidez, militantzia aurre-politikoaren hazia izan ziren maiz. J.S.M. Potasaseko eskola profesionaleko ikasle zela, bertako irakasle batek gogo jardunak egitera eraman zituen Tuterara. Esperientzia hau Vanguardia Obreran hasteko pizgarria izan zen harentzat:

[Apostolutza mugimenduetan] ibiltzen hasteko pizgarria... jesuitek Tuteran ematen zizkiguten gogo jarduera batzuk izan ziren [...] eskolatik apaiz bat batek eraman gintuen, gizon aparta zen, jesuita aurrerakoi bat [...] guztiak komunista egin gintuen [...] [ordu] bertara, egun batean, Bilboko Bandas [de Echevarritik] kaleratuta izan zen apaiz langile bat -gerora Madrilen CCOOeko buru izategatik ospetsu egingo zena- eraman zuen hitzaldi bat emateko. Aizu, Madriletik etorritako komunista bat! [...] sekulako mitina eman zigun... hunkitzen duen horietarikoa [...]; eta halako indarrarekin mintzatzen ziren halako pertsonak ikustea... Iruñera etorri [...] eta [ordu] erabaki nuen urrats bat gehiago ematea eta Kale Nagusira [Zentro Marianora] joaten hastea erabaki nuen. [J.S.M.. VOJeko militantea]

Ildo berean bilakatu ziren kristandade ikastaroak. Elkarreratze komunitarioaren bidetik kristautasunaren funtsa ezagutzeko eta bizitzeko mugimendu bezala jaiotzen eta horrek ideien eta esperientzien elkartrukerako, ikusmoldeen eta pertsonen topagunerako esparru bihurtzen zituen, nolabait. Halako kristandade ikastaroak J.I.S. zirkuituan kokatuko zuten saretarako lehen sarbideak izan zirela aipatu berri dugu<sup>767</sup>. Tarragonako lan unibertsitatera joan zen ikastera eta bertan, bere errotiko erlijiozaletasuna zela eta, kristandade ikastaroen giroan murgildu zen. Berauetan, kutsu espiritualistaren gainetik, Kontzilioaren ondoko ikusmoldeetatik gai

<sup>766</sup> J.I.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-12-26.

<sup>767</sup> Horrela izan zen ere, nolabait, nafar karlismoaren figura nabarmendua izan en Mariano Zufiaren kasuan. Gerraren osteko karlismoaz aldendu zen haren baitan eroso sentitzen ez zelako. Euskal Herriko karlista alderdiarenganako eta sozialismo autogestionarioarenganako bidea, elementu erlijiosoaren eskutik ibili zuen. Izan ere, bere biografia ikusten ahal denez, 1958an kristandade ikastaroetan hasi zenean, eman zen bere pentsamendu politiko eta erlijiosoaren garapena, gizarte justuago eta askeago baten alde, berdintasuneko gizarte baten alde borrokatzen amaituko zuen arte. Carlos López López, *Biografía de Zufia*, FIASEP, Madril, 2009, 31-32 orr.



soziala funtsezko elementu bezala ulertzen zuten sektoreak topatu zituen. Behin Iruñean, kristandade ikastaroen mugimenduari lotuta jarraitu zuen, lotura hori, klase ikusmoldeak zituzten giroetara hurbilduko zuten sareetarako sarbidea emango zion elementua izan zelarik:

Hona etortzen nintzenean [...] ba kristandade ikastaroen giro horrekin harremana egin nuen, hau da, ni horretan ibiltzen nintzen eta orduan ba... esan daiteke kide aktiboa nintzela [...] Beraz, hemen ere, Iruñera etortzen nintzenean, ba... harremana egiten nuen, hau da, jendea bilatzen zenuen, non biltzen zen eta guzti hori [...] eta hor ere, kristandade ikastaroetan fenomeno bat ematen zen, ezta? [...] kristandade ikastaroak egin eta, aldi berean, fabrikari lanean ari zen eta sozialki konprometitzen eta erlijiozaletasuna zein ebanjelioa Kontzilioaren arabera ulertzen hasia zen jendea ezagutzen duzunean [...]; ba klase ikusmoldeak, nolabait esateko, nahiko bizirik zeuden giro bat topatzen duzu, ezta? [J.I.S.. ELAko militantea. Erlijiozaletasun errotokoa]

Beraz, praktika erlijiosoak esparru hauek, Kontzilioko erlijiosotasunean oinarritutako formakuntza jasotzeko esparruak izan zirela eta sozializazioarako esparruak izan zirela izan zuten komunean. Honakoa, baliozkoa da praktika erlijiosoarekin zerikusirik zuten bestelako gune edo ekimenei buruz mintzatzeko baliozkoa da ere. J.I.S.-en adibidearekin jarraituz, honek, kristandade ikastaroek beste, praktika eta formakuntza erlijiosoari lotutako bestelako esparruak topatu zituen Iruñean, Nafarroako Elizako pertsonaia aipagarriak izan ziren Jesús Lezáunek eta Jesús Equizak zuzendu zuten "laikoentzako teologia ikastaroa" kasu. Esparru honek bere ibilbidean izan zuen eraginaren gakoa, formakuntzaren eta sozializazioaren funtzio bikoitza izan zen, izan ere " [hor] ere harremanak egin nituen. Orduan alde batetik kristandade ikastaroak nituen, bestetik hau nuen... noski, [bertan] formakuntza erlijiosoa Kontziliokoa zen, baina zer gertatzen zen? oso sentikorra zen, nolabaiteko baloreak zituen, alor sozialetara, herrikoietara eta aurre-politikoetara bideratuta zegoen jendearekin topo egiteko esparru bat ere bazela [...], hau da, hor zegoen nolabaiteko magma bat eta zu gustura sentitzen zinen han, zure hautuak egiten zenituen, jendearekin harremanak egiten zenituen eta jendeak zurekin harremanak egiten zituen, ezta? eta hor elkarrekiko harreman bat sortzen zen"<sup>768</sup> .

Guztiarekin ere, praktika erlijiosoari edo Elizaren jarduerari lotuta, formakuntzarako eta elkarrekiko harremanak egiteko gune bezala itxuratu ziren guneen artean adierazgarriena, zalantzarik gabe, parroquia izan zen. Aurreko kapituluan jada parrokiek auzo komunitateen hastapenetan izan zuten betekizunaz aritu izan gara. Komunitate berri hauetako populazioei kohesioa ematen zieten elementu bezala eta auzoetako bizitza sozialaren dinamizatzaile bezala jarduten zuten, hirian ere, nekazal munduko herrietan betetzen zituzten funtzioak euren gain hartuz. 70. hamarkadaren hasierarako, parrokiari eta honek komunitateetan bete behar zituen funtzioei buruzko ikusmoldeak, Kontzilioko oinarrien arabera definitu ziren. 1970ean, Acción Católicaaren mugimendu espezializatuak, ezkontza taldeetako, emakumearen promoziorako zentroetako eta unibertsitate taldeetako ehun ta laurogeita hemezortzi laikori, parroquia berrien eta euren apaizen eta jardueren inguruko inkesta bat egin zitzaion. Emaizak Diario de Navarran argitaratu ziren<sup>769</sup> eta berauetan, laikoek euren komunitateen errealitatean haragitu egiten ziren, oinarri ebanjelikoaren arabera jarduten zuten eta laikoaren esku hartzea sustatzen zuten parrokiak eskatzen zituztela ikusten ahal zen. Eskaerekin batera egiten zituzten iradokizunen artean, aipatzekoak dira, besteak beste, jarduerak planifikatzeko eta arazoak konpontzeko, talde parrokiak komunitateetan bizi eta pairatzen ziren egoera

<sup>768</sup> J.I.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-12-26.

<sup>769</sup> "Encuesta. 188 seglares opinan sobre las nuevas parroquias, los sacerdotes y sus actividades", DN 1970-05-01, 20 orr. eta "Encuesta. 188 seglares opinan sobre las nuevas parroquias, los sacerdotes y sus actividades", DN 1970-05-02, 10 eta 11 orr.

errealitateak abiatu behar zirela; eliztarrei emaniko formakuntzak erro ebanjelikoa izan behar zuela; jendearen motibazioak hitzaldi, ikastaro edota topaguneen bitartez zaindu behar zituztela; gizartearekiko kezka eta lan, aisialdi edota bestelako arazoekiko konpromisoa azaltzen zuten laikoaren parte hartzea ahalbidetu behar zutela; eta are predikuak, egitateak eta esperientziak eskaintzen ahal zituzten laikoekin batera prestatu behar zirela. Laikoek eskatutakoaren ildoan, parrokiak, egiazki, errealitatean murgildu eta harekin konprometitu ziren, militantzia soziopolitikoak, hots, langile eta auzo militantziak, artikulatzeko erdigune garrantzitsu bilakatzeraino.

Zentzu honetan, parrokiak, hasteko, elkartruckerako eta ikaskuntzarako gune garrantzitsuak izan ziren. Berauetan, adibidez, eztabaida eta hausnarketaren bitartez, hiritar gisara bizitzen irakasten zen eta helburu komunitarioak igartzen eta barneratzen ziren<sup>770</sup>. Horretarako, parroketan hitzaldiak eta formakuntza ikastaroak antolatzen ziren intelektual katolikoen eta are langile liderren eskutik eta hauen ostean, erregimenari eginiko kritika iragartzen zuten solasaldiak ematen ziren. Jarduera hauen antolakuntzak, apostolutza mugimenduen parrokia mailako egiturarekin eta haren baitan sortzen ziren bestelako talde antolatuekin (gazte taldeak, komunitate kristauak) zerikusirik zuen. Honekin batera, parrokiek, komunitateek abiatutako ekimen sozial edo kulturaletan eta protesta mugimenduetan parte hartze zuzena izaten zuten askotan. Aipatzen genuen bezala, Antsoingo parrokiak protesta mugimendu herrikoien antolakuntzan aktiboki esku hartu zuen eta Txantrean, parrokia, gazteentzako Auzotegi zentro sozial eta kulturalaren sorreran inplikaturik egon zen. Bi jardunbide hauek gerora, Antsoainen zein Txantrean garatuko zen auzo mugimenduen parte izango ziren. Dinamika guzti hauei esker, eduki soziopolitikoak zuen kontzientzia kritiko bat hasi zen sortzen parrokiaren inguruan. A.G.-k, Txantrea auzoko San Cristóbal parrokiaren, halako ezaugarriak biltzen zituen erdigune bat topatu zuen:

Ni umea nintzela [...] igandero mezara joateko beharra zegoenez, San Joséra joaten ginen, orduan [Txantrean] zegoen parrokia bakarra zelako. San José, nola edo hala, inolako kutsurik gabekoa zen eta bapatean... halako gauzak ahoz-ahoz zabaltzen direlako, moja kanosianetan [...] meza "jatorrak" egiten zirela jakin genuen. Eta orduan mezara bertara joaten hasi ginen eta han, oso bestelakoa zen diskurtso bat aurkitu genuen, langileengaineko zapalkuntza salatzen zuena, sistemaren zapalkuntza salatzen zuena... sekulako predikuak egiten zituzten apaizak aurkitzen dituzu, [bapatean] desagertu eta Carabanchelen agertzen diren apaizak, ezta? Eta orduan San José ba, nolabait, santujaleentzako geratu zen eta konprometituak denak batera etorri ginen San Cristóbalera. Hor hasi nintzen gazte taldeetan sartzen... komunitate kristauetan. [A.G.. Txantreako Auzo elkarteko militantea. Erlijiozaleen errotukoak]

Bestalde, parrokiek, mugimendu soziopolitikoaren eta euren militantzien antolakuntzan betekizun garrantzitsuak izan zuten, azpiegitura desberdinen bermatzaile gisara. Bilerak egiteko esparru ezin hobeak ziren. Langileek askotan erabili izan zituzten fabrika batzordeetako bilerak egiteko eta protestarako agertoki bezala (itxialdiak kasu). Talde politikoek ere bilerak egiten zituzten berauetan. Alderdi komunistak esaterako, parrokia desberdinetan egin ohi zituen eta erreferentziazko jendea elizaren inguruan bilduta ikustea, alderdiaren bila ari ziren elementuak bertara hurbiltzeko pizgarria izan zen zenbaitetan<sup>771</sup>. Zenbait parroketan gainera, propaganda egiteko beharrezkoak ziren

<sup>770</sup> Juan Manuel Guillem Mesado, "Luz y sal: Movimiento católico en tiempos de cambio", Rafael Quirosa-Cheyrouze y Muñoz (ed.), *La sociedad española en la transición. Los movimientos sociales en el proceso democratizador*, Biblioteca nueva, Madrid, 2011, 237-255 orr., 247-248 orr.

<sup>771</sup> A-H.R.-enkasua izan zen. Andaluziatik etorria, ezagutzen zituen bestelako andaluziar emigranteak Sanduzelaiko elizan biltzen ikusten zituelako "topo egin" zuen alderdi komunistarekin: "Elizan, Sanduzelaiko elizan, han bilera asko zegoen eta orduan nik, han, jendea ikusten nuen... Andaluziako jendea zegoen, oso famatua zen bat ibiltzen zen handik, Arrotxapeko bat, "Almendo" esaten zioten [...] nik eraikuntzaren sektoreko jendea ezagutzen nuen, "Almendo" hau bezala eta [...] Pozo bezala. Orduan han ikusten nituen

makinak zituzten eta hauetariko bat erabiltzeko beharra zuenean, militante askok, berauetara jotzen zuen panfletoak egiteko laguntza eske<sup>772</sup>. Azpiegiturazko funtzio honek, militantzia soziopolitikoen lana egiazki ahalbidetu eta erraztu egin zuen eta honengatik, Iruñeko hainbat parrokia (San Blas Burlatan, Nuestra Señora del Río Arrotxapean edota San Cristóbal Txantrean) eta euren parrokoak, erreferentzia garrantzitsuak dira gure protagonisten memoria kolektiboan:

Garai hartan elizetan erlazionatzen ginen. Noski, apaiz jatorren, erreprimituak izaten ziren apaizen, ardurapeko elizak ziren [...] apaiz [horiek] jatorrak ziren, asanbladak eta bilerak egiten uzten ziguten eta hori guretzat nolabaiteko bermea zen, ezta? [J.M.E.. CCOOeko militantea]

Langile mugimendua parroketan, batez ere auzoetako parrokia konprometituenetan (ni adibidez Burlatan nengoen), eratzuz joan zen, berauetan jendea babesten genuelako. Adibidez [...] Potasaseko greba. Potasaseko greba berrogei eguneko greba orokorra izan zen, Nafarroa osoak utzi zuen lana... eta orduan... [...] langileak meatze putzuan itxiak zeuden eta liderrak [...] San Blasen, parrokan, biltzen ziren. Hau da, han guztiak babesten genituen... [bertaratzten zen] mundu guztia babesten genuen, inori ez zitzaion galdetzen kristaua zen edo ez [M.P.. Apaiz langilea]

Elizaren heziketa guneak ere garrantzitsuak izan ziren ikusmolde erlijioso berriak gizarteratzeko edota sareak ehuntzen hasteko. Ikastetxe erlijiosoak, lanbide eskola eta apaiztegiak, egiazko gizarteratze soziopolitikorako abiapuntu izan ziren protagonista nahikoren kasuan. Izan ere, halako esparruak, elkar ezagutzeko, harremanak egiteko eta gerora langile mugimenduan hala nola erakunde sozial zein politikoetan jarraipena izango zuten sareak sortzeko topaguneak izan ziren. Sare hauetatik gainera, zeharka bada ere, ideia erlijioso eta sozial berriak ibiltzen ziren, ikastegietan jarduten zuten irakasleen, apostoluzta mugimenduei lotutako apaizen edota mugimendu hauetako kideen bitartez. Adibidez, eskola profesionalak edota Iruñeko seminarioa, JOCen, Vanguardiasen edota komunitate kristauen taldeak sortzeko eta militanteak erakartzeko harrobi oparoak izan ziren.

Hala gertatu zen eskola profesionaletan, bai salearretan eta baita Imenasako eta Potasas enpresetako eskoletan ere. 50. hamarkadaren erdialdean, Imenasako eskola profesionaleko azken urteko ikastun batzuk, JOCera eramango zituzten erakundeko bi militanterekin harremanetan hasi ziren, apostoluzta mugimenduetan interesa zuen eskolako apaiz baten ekimenez. C.A., Nafarroako JOCeko eta USO sindikatuko militante nabarmenduenetariko bat, ikastun haietariko bat zen: *“Behin, langile batzuk etorri ziren JOCari buruz hitz egitera... Juventud Obrera de Acción Católicari buruz. Orduan, ba, eskolan ginen ikastunenen talde bat, azken urtekoak, animatu egin ginen eta geure JOC taldea sortu genuen ba... gure formakuntzarekin jarraitzeko”*<sup>773</sup>. Hastapen ikastaro bat egin zuten, honek ikastunen interesa piztu zuen eta talde bat sortu zuten. 1958/1959 ikasturtean, talde hori fabrikatik eta eskolatik kanpo biltzen hasi zen, egitura diozesiarrean JOC talde bezala txertatu zen arte<sup>774</sup>. Bestalde, 60. hamarkadaren erdialdean fabrikako langile komisioa gorpuztu zuen belaunaldi berri eta gazteak, eskola profesionalean sortu zituen

---

eta niretzat ezagunak ziren [...] [orduan ni] alderdi komunistako jendearen bila ari nintzen eta bilerak hor, elizan, egiten zituela ikusten nuenez, [bertara joan nintzen] alderdi komunistako jendea zirelako”. A.H.R.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-08-14.

<sup>772</sup> Adibidez, J.S.M.-i eta C.O.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2013-01-10 eta Aísa, 2103-09-10, hurrenez-hurren.

<sup>773</sup> C.A.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-09-03.

<sup>774</sup> José Elena Santamaria Blasco, “Movimiento obrero apostólico en Navarra (1946-1970)”, *Príncipe de Viana*, 16. eranskina, 1992, 699-724 orr., 706-707 orr. Imenasako taldearen lehenbiziko harreman hau, Acción Católicaren baitako JOACekin izan zen; taldea erakundearen baitan egituratu zenean, ordea, hura mugimendu internazionalaren baitako JOC zen jada.

batzordea mugitzeko beharrezkoak ziren konfiantzazko harremanak. Izan ere, CCOOen aitzindari izan ziren Vanguardiasen bileratara joaten ziren fabrikako langileak, eskolako ikasleak izandako gazteak ziren, berauetara orduan sortu zituzten konexioen bitartez heldu zirelarik. I.B. adibidez, Vanguardiasen alderdi erlijiosoarekin inoiz bat egin ez zuelako mugimenduko militantea izan ez zen arren, eskolako ikaskide izandako lankide baten eskutik iritsi zen Zentro Marianoan egiten ziren bilkura haietara<sup>775</sup>.

Potasaseko eskola Vanguardiaserako sarbide garrantzitsua izan zen ere. J.S.M.-ek eta P.A.S.-ek, bertan irakasle zen apaiz jesuita baten eskutik ezagutu zuten mugimendua. Honek, eskolako ikasleekin hausnarketarako eta formakuntzarako talde bat sortu zuen eta bertan ikasitakoaren bidetik, biak azkenean Vanguardiasen egitura antolatuan sartu ziren: *“Gu orduan umeak ginen eta Potasaseko lanbide eskolan hasi ginen; orduan, bertan zegoen apaiz jesuita batekin harremana egiterakoan -Adolfo Goñi Ayestarán apaiz famatua zen-, berak proposatu zigun... nolabaiteko jakin-nahia genuenak bildu egin ginen eta Elizarekin lotutako gaiak, Elizaren doktrina sozialari buruzkoak, ikasten hasi ginen. Hortik aurrera, lehenbiziko urratsak eman genituen [...] Zentro Marianoan, Kale Nagusian. Taldeek forma autonomoan funtzionatzen zuten, antolakuntzan pauso bat gehiago eman eta Vanguardias Obrerasen sartu ginen arte”*<sup>776</sup>. Imenasako eskola profesionaleko ikasle haiek egin bezala, hauek ere, kasu honetan 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, enpresan jada lantoki ezberdinetan sortzen hasiak ziren langile batzordeen lerroak gorpuztu zituzten. A.L.-k antzeko esperientzia bat bizi izan zuen salearretan. Kasu honetan, Erakunde Sindikalaren Virgen del Camino eskola-tailerrean maisutza industrialala egiten ari zela, apaiz baten ekimenez, bertan sortu zen talde batean gazte klub batean, ibiltzen hasi zen. Klub hau, komunitate kristauen mugimenduan sartzeko bere abiapuntua izan zen: *“Nola hasten naiz komunitate kristauan? [...] Salestarretan izan zen, ezta? Salestarretan klaseak ematen ez zituen apaiz bat agertuz zen eta gazteekin harremanak egiten hasi zen eta batzuo, gazte klub bat sortzea proposatu zigun [...] salestarretatik kanpo, ezta? apaiz hura miresgarria zen... izugarritzko burua zuen [...] Momentu hartan ideia hori, jende gaztea, gauzak egitea, humanismoa... gogoko izan nuen eta orduan, ba, ikasturte hartan ginen batzuan artean gazte klub bat sortu genuen. Eta klub horretatik kristau komunitate bat eratzeko ideia sortu zen”*. Eskolako taldetik sortutako komunitate hori, bere militantzia soziopolitiko gidatuko zuten gako sozialak topatzeko aurrekaria izan zen<sup>777</sup>. Zentzu honetan, eskola profesionalak eragile desberdinen zuzeneko eraginguneak izan zirela esan daiteke, ikasleak (etorkizunean fabriketako langileak izango zirenak) harreman eta antolakuntza sare ezberdinetan gizarteratzeko oso esparru eraginkorrak izan baitziren.

Bigarren kapituluan langile antolakuntzaren eta protestaren erdiguneetan izan ziren protagonista asko Iruñeako seminariotik pasa izan zela aipatu genuen. Esperientzia hura, gure protagonista ezberdinen ibilbideak behatuta (M.B., M.P. edota P.L.) edota langile mugimenduaren eta frankismoaren aurkako oposizioaren lider asko seminarioan ikasi zuela gogoratzen duen militanteen memoria kolektiboaren bitartez baieztatzen ahal da<sup>778</sup>. Horregatik, seminarioa

<sup>775</sup> I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olaz, 2011-08-02.

<sup>776</sup> P.A.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-13. J.S.M. ere Potasaseko eskolako talde honen kideetako bat izan zen. J.S.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-10.

<sup>777</sup> A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16.

<sup>778</sup> “Alderdi politiko hauen jaiotzan eta euren militantzietan, Elizak zerikusirik izan zuen. Nire alderdikide nahikotxo, eta beste alderdietako [nahiko] ere... [...], liderrak izan zirenak, seminarioan izan ziren. Gero bat ere ez zen apaiz egin, noski, ezta? baina seminarioan izan ziren, bai. [...] jendea ikastera joaten zen seminariora eta nire alderdian badago, orduko jende

eragingune gisara itxuratzen duen azterketa bat egitea egiatan interesgarria izan daiteke. Azken batean, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera, haren baitan bizi izan ziren aldaketa garrantzitsuei esker, piztutze erlijioso, sozial eta kultural bizi baten agertoki izan zen eta horrek, egiazko gizarteratze soziopolitikorako esparru bihurtu zuen.

Garai hartan, seminarioak Jesús Lezaúnen zuzendaritza pean<sup>779</sup> eta Jesús Equiza, Javier Osés edota Patxi Larrainzar bezalako irakasleen eskutik, berrikuntza etapa bati ekin zion, *"leihoak ireki"* ziren eta *"errautsa guztia mugitu zen"*<sup>780</sup>. Seminarioaren nolabaiteko irekitzea eman zen eta askatasun haize berriak sartu ziren bertara. Are seminarioko apaizgai berrien itxura, berrikuntza garrantzitsua gertatzen ari zirelaren seinale agerikoa zen: *"koloreetako jantziak erabiltzen dituzte, ilea labanarekin mozten dute, Chester erretzen dute, asteburu oso bat kanpadendan ematen dute, taldeka lan egiten dute, kirol lehiaketetan parte hartzen dute"*<sup>781</sup>. Kontzilioaren aginduak praktikan jarri nahian, Lezaunek abiatutako erreformek, apaizgaien munduarekiko eta gizartearekiko harreman estuago bat sortzea eta haiengan bizitza eta haren arazoekiko konpromiso errealak errotzea zuten helburu eta horretarako, zenbait alorretan, nolabaiteko irekitzeari edota liberalizatzeari ekin zion zuzendaritza berriak<sup>782</sup>. Orduan martxan jarri ziren neurrien artean inpaktu eta eztabaida gehien sortu zuenatariko bat, apaizgaiei udako hilabetetan nekazaritzan, fabriketan, meatzetan edota komertzioan lan egiteko eman zitzaizen aukerarena izan zen.

Ildo berean, seminarioa, Kontziliotik eratorritako ikusmolde erlijiosoetan formatzeko, teologia mugimendu berriak ezagutzeko eta pentsamendu korrante erlijioso zein sozialez, are marxismoaz, hausnartzeko esparru abantailatua izan zen ere. Apaizgai belaunaldi haren jakin-nahiak piztu egin ziren, seminarioa, ikasleen kontzientziak astintzeko funtsezko eragile izan zelarik. "Kristautasun berri" bat izan zen, formakuntza eta gogoeta giro hartan, aurkikuntzarik funtsezkoena ikasle haietako askorentzat. M.P. adibidez, gako sozialetan eta konpromisoan oinarritzen zen kristautasuna ulertzeko modu batean murgildu zen bertan eta honek gerora, bere apaiz

---

historikoaren artean, han egon zenik, seminarioan ikasi zuenik... [...] langile mugimenduaren eta frankismo garaiko borroka politikoaren jende historikoa". A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16.

<sup>779</sup> Jesús Lezaunen figurarenganako hurbilpen bat, Cástor Olcoz, *Jesús Lezaun. La afonía de Ezequiel*, Txalaparta, Tafalla, 2009.

<sup>780</sup> P.U.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-13. Ildo berean, garai hartan seminarioko ikasle zen M.P.-k, orduan seminarioak bizi izan zituen berrikuntzak irakasle hauen eskutik etorri zirela gogoratzen du ere: "oso garrantzitsuak izan ziren ere momentu jakin batean han izan genituen irakasle batzuk... Don Jesús Lezaún, Equiza - Don Jesús- [...] eta baita Javier Osés [...] izan ziren, esan beharra dago. Hiru horiek izan ziren bereziki; gero ere beste irakasle batzuk zeuden, baina hiru horiek nabarmentzekoak dira, eragin handia izan zuten guregan [...] irakasle berri hauekin, Jesús Lezaun, Equiza eta Javier Osés hauekin, seminarioaren irekitzea eman zen seminarioaren irekitzea eman zen; ordura arte monasterio bat zirudien, ordutik aurrera nolabaiteko askatasuna ematen hasi ziren". M.P.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-14.

<sup>781</sup> "El domingo el seminario abrió las puertas a los familiares de los seminaristas. El Rector: "Estamos en el comienzo de las reformas. No se trata de aflojar, sino de exigir muchísimo mas". Todos los seminaristas van a trabajar durante las vacaciones en fábricas, minas, campos...", DN 1966-05-17, 24 orr.

<sup>782</sup> Lezaunen hitzetan, "apaizgaiak bizitza kritikatzeko, hau da, gertaera eta arazo guztiak juzgatzea eta aintzat hartzea nahi dugu". "El domingo el seminario abrió las puertas a los familiares de los seminaristas. El Rector: "Estamos en el comienzo de las reformas. No se trata de aflojar, sino de exigir muchísimo mas". Todos los seminaristas van a trabajar durante las vacaciones en fábricas, minas, campos...", DN 1966-05-17, 24 orr.

bezalako karrera apaiz langile eta auzoko parroko izatera bideratzera eta langile mugimenduko militante bihurtzera eraman zuen:

Hemen, langile mugimenduarengan, ezinbesteko garrantzia izan zuen kristautasun berriak, hau da, orduan iratzarri eta ideia berriak barneratzen ari genuen jendeak. [Eta] zehazki, azpimarratu behar dut Iruñeko seminarioa guzti horren abangoardia izan zela nolabait. Hantxe bertan hasi ziren eratzen ba ideia berri batzuk, kristautasuna konpromiso bezala ulertzera eramaten gintuztenak; ez zen otoitz egiteko kristautasun bat... ez, ez, kristautasuna exijentzia zen... besteekin, bereziki pobreekin, konprometitzera behartzen zintuen [M.P.. Seminarioko ikaslea. Apaiz langilea]

P.U.-k ez zuen seminarioko garai hori bizi izan, izan ere, Jesús Lezaunek zuzendaritza hartu aurretik amaitu zituen ikasketak bertan. Aita Zuriekin misiolari gisara aritzeko utzi zuen Iruñea eta Kanadan egin zituen “urte interesgarri” haiek. Bertatik bizi izan zuen Medellingo konferentzia eta bertan irakurri zuen *“idea erlijioso eta filosofiko aitzineratuez”*. Bertan entzun zuen Helder Cámara, Errezifeko artzapezpikuaren hitzaldi bat. Bere iratzartzea Iruñeko seminarioko ikasleen iratzartzearen oso desberdina izan bazen ere, berak, prozesu orokor berberaren baitan, hots, Vatikanoko II. euren mentalitateetan eragin eta kristautasuna ulertzeko modu berri batean formatuak eta gizarteratuak izateak euren ibilbideak baldintzatu zituen prozesuaren baitan, kokatzen ditu biak:

erlijio guztietan izaten da gainera, lagun hurkoari laguntza ematea, edo bertez arduratzea edo maitasuna, karitatea, beraien erraten dutena ¿ez? Justizia, karitatea ta hola... horrelako gauzak. Eta azkenean, nahi edo ez nahi, horrelakoak ere barneratzen dituzu, ¿ez? Eta klaro, orduan ideia berriak, Vatikanoko, II. Vatikanoko... teorikoki ere hau dena nolabait ere askoz ere aurrerago eramaten zuen, desakralizatu egiten zuen, iluntasun guztiak pittin bat argitu zituen, ¿ez? Ta horren ondorioz, klaro, gu hasi ginen bertze liburuak irakurtzen, bertze gauzak ikusten, bertze eztabaidak izaten [...] nolabait ere, pues klaro hor hasi ziren bertze gauz hoiak irekitzen eta, bueno gazte zaren... es que klaro, denak gazteak ginen han, gaztea zarenez zuk ideei hoiak barneratu egiten dituzu, zuk ikasi egiten dituzu eta ikusten duzu gainera joder, zergatia badutela eta balioa ere bai, ¿ez? Eta orduan hasi zen seminarioan nolabait ere hor egosten, olla-express batean bezala, hor egosten egoera bat... [P.U.. Seminarioko ikasle izandakoa. Aita Zurien kidea. Afrikan misiolaria]

1969an, artzapezpikuari bidalitako gutun batean, nafar apaiz talde batek seminarioan ematen zen ikastaldi soziala erabatean “ikastaldi marxista” bat zela eta bertan antolatzeak ziren “izaera materialistako” hitzaldi batzuetan Errusiako eta Jugoslaviako sistema komunisten apologia egingo zela salatzen zuen<sup>783</sup>. Halako salaketak barne tentsio diozesiarren kontestu batean hartzen ziren muturreko jarreretatik eratorritakoak badira ere, apaiz talde honen sumindurak, seminarioan ikusmolde eta pentsamendu berri eta ezberdinei buruzko hausnarketa eta eztabaida sustatzen hasiak zirela iradokitzen du nolabait<sup>784</sup>. Are gehiago, aipatu hitzaldiek seminarioa ikastegi hutsa baino gehiago zela eta ikasketez haratago, haren inguruan hitzaldi, mintegi, ikastaro eta halakoekin gauzatzen zen jarduera bat zegoela

<sup>783</sup> “Salbuespen-egoerari buruz iritzia emateak izaten ahal dituen ondorioez” ohararazteko nafar apaiz talde batek gotzainari bidalitako eskutitza (1969-02-10). AGA-AAO, Kultua fondoa, Gabinete de Enlace saila, 42-08999. kutxa

<sup>784</sup> Hausnarketa eta eztabaida giroa hau, ez seminarioan baina bai probintziako beste ikastetxe erlijioso batean, J.M.E.-k bizi izan zuen: “ [...] [jendea] gauzak zalantzan jartzen hasi zen, ba, eliza zertarako? apaizak zertarako?... Orduan, beno, ba, jende gazteak.... halako sentsibilitate bat zuenak segituan egiten zuen harremana, ba, marxismoa, leninismoa, maoismoa... hau da, garai hartan boladan zeuden teoriak, aztertzen zituen jendearekin, ezta? Orduan jendeak horrenbeste jarri zuen zalantzan guzti hori, ikastetxea azkenean desagertu egin zela. Orduan, bertan nolabaiteko oinarri bat, etika bat, [...] kontzientzia bat hartu genuenak, kalera irten ginen eta fabriketara eta ikastetxeetara sartu ginen”. J.M.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea. 2013-05-06

azaleratzen dute<sup>785</sup>. Jarduerak, berauetara gonbidatzen ziren alor desberdinetako pertsona ospetsuak eta berauetan gertatzen ziren elkartrukeak, kontzientziak astintzen lagundu zuten elementuak izan ziren ere: *“gu hemen, seminarioan... Pedro Altares, Tusell, Ruiz Giménez... jende guzti hori ikusi dugu... eta Bandrés, gogoratzen dut hau ere behin etorri zela, abokatu zena... hauek seminarioan ikusten genituen eta guretzat jainkoak ziren eta noski, guretzat orduan zabaltzen hasten zen mundu liluragarria zen hura”*<sup>786</sup>.

Protagonisten eta ideien topagune izatearekin, gerora militantzia sozial zein politikoen artikulazioan funtsezkoak izango ziren konexioak sortu ziren sozializatorako esparru izan zen ere. Adibidez, ikasketak amaitu eta seminarioa uzterakoan, ikasgelan sortutako harremanek, zenbait talde politikoren egituretan jarraipena izan zuten maiz<sup>787</sup>. Eskola profesionalean gertatu bezala, hemen ere ikasleak oraindik bertan zirela, apostoluz mugimenduek haiei lotutako ikasleen talde antolatuak sortu zituzten bertan. Talde hauek gerora, militantzia politikoen oinarria izan ziren askotan. P.I. ikaslea zen garaian Lino Otano JOCeke kontsiliaria zen. Ikaskide batzuk apaiza seminarioan ezagutu zuten eta haren ekimenez, talde bat sortzea erabaki zuten, honekin JOCare mundurako sarbidea izan zutelarik. Militantzia politikorako jauzia eman zutenean, jatorrizko talde hori, talde berriaren egitura mantendu egin zen nola edo hala,:

[unibertsitateko] ikasle taldetxo bat bildu ginen [...] talde hori, gure taldea, bizitza politikora, JOCare bitartez jaio zen. Zergatik JOCare bitartez? JOCare aholkularia Lino Otano zelako. Bera zen gu erlijioaren aldetik gidatzen gintuena, ezta? Gu, seminarioan, seminarioko azkenekimo urteetan, gizon honekin, Linorekin, harremanetan hasi ginen.[P.L.. Seminarioko ikaslea. JOCeke militantea. PCI-PTEko militantea]

### **5.2.3 Kleroa. Ikusmolde erlijioso eta sozial berrien hedapenerako funtsezko eragilea**

“Nafar kleroa ez da lehengoa. Gerraosteko eredu integrista atzean utzi zen behin, batzuegan sumindura eta beste batzuegan poztasuna eraginez [...] Kontzilioa mugari erabakigarria izan zen, klero gaztearen eta ez horren gaztearen senak berretsi egin zituen mailuko kolpea. 1967ko seminarioko gatazkak aurkako bi ikusmoldeen arteko hauste puntua izan zen. Klero berriak, ordutik aurrera, zailtasunez beteriko bide bati ekin zion, konpromiso jarrera ausartak hartuta. Azkeneko urteetan, predikuak eta apaizei jarritako isunak, hautabide berriaren azkeneko adierazleak izan dira”<sup>788</sup>

<sup>785</sup> Bertan, adibidez, laikoentzako teologia ikastaro bat antolatu zen. J.I.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-12-26.

<sup>786</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

<sup>787</sup> MCEko oso nukleo garrantzitsu bat sortu zen seminarioko ikasturte bereko elementuen eskutik: “MCEak Iruñera ekarri zuen bat, J. L. E. seminarioan ibili zen ere; oso tipo bikaina zen, azkarra, Lovainatik etorri zen jada MCEan sartuta [...] eta honek M. B. eta J. U. Sartu zituen MCEan, guztiak seminarioko ikasturte berekoak ziren”. P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07. Ikusi dugun bezala, MCEko militantea zen A.L.-k, alderdiko lider garrantzitsu zenbait seminarioan izan zela aipatzen zuen ere: “[...]nire alderdian badago, orduko jende historikoaren artean, han egon zenik, seminarioan ikasi zuenik [...]”. A.L.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-10-16. M.B.-k berak baieztatzen du seminarioan eta Lovainako unibertsitatean ikasi zuela eta MCEko militantea izan zela. M.B.-ri egindako elkarrizketa 2013-05-06.

<sup>788</sup> “Mesa a debate. Con Dios y con el pueblo. Curas en la izquierda”, Punto y Hora, 2. zkia, 1976ko apirilaren 16-maiatzaren 1, 6-10 orr. Apaiz ezkonformistena Euskal Herri mailan nabarmentasun handia izan zuen fenomeno izan zen. Ikusi, adibidez, Paulo Iztueta, *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco*, Elkar, Donostia, 1981 edota Anabella Barroso, “Luces y sombras en la iglesia vasca durante el franquismo y la transición”, Manuel Ortiz Heras, *De la cruzada al desenganche: la iglesia española entre el franquismo y la transición*, Silex ediciones, Madril, 2011, 207-234 orr.

Kleroaren sektore hau, Kontzilioaren osteko testuinguruan Eliza katolikoaren baitan azaleratzen ari ziren aldaketen, hots, Vatikanoko II. eratorritako ikusmolde erlijiosoaren asimilatzearen, kristautasun berriaren praktikaren eta diktaduraren aurkako Elizako elementuen jarrera hartzearen adierazle nabarmenatariko bat izan zen. Atal honetan gatazka diozesiarrez aritzerakoan ikusi dugun bezala, Kontzilioaren berrikuntzen aurka zegoen kleroaren sektore erreakzionario garrantzitsu bat zegoen nafar Elizaren baitan. Baina gu, oraingoan, ez gara klero nafarraz orokorrean arituko, sektore horietariko bakar baten inguruan arituko gara, hain zuzen klero "aurrerakoiaren" sektoreaz. Izan ere, apaiz hauek izan ziren langileriaren alde eta langileriaren ondoan egon ziren eta, nola edo hala, aztertzen ari garen prozesuan parte hartu zutenak. Interesatzen zaiguna beraz ez da nafar kleroaz, bere barne bilakaeraz, haren baitako sektore desberdinez eta hauen arteko harremanez aritzea<sup>789</sup>, baizik eta sektore zehatz batek, "aurrerakoiak", langileriarekin izan zituen harremanak aztertzea. Nafarroan, "apaiz aurrerakoi" hauek oihartzun handia izan zuten: kritika gordinak jaso zituzten nafar Elizaren sektore kontserbadoreen partetik liskar diozesiarren kontestuan; autoritateen jomugan egon ziren, errepresioa pairatu behar izan zutelarik; eta nafar langile mugimenduaren sostengu izan ziren, hori behintzat izan zen euren asmoa eta hala izan zela sentitu zuen gure protagonistetariko askok. Azken alor honi buruz arituko gara ondorengo lerroetan.

1971an Nafarroan bizi zen egoera gatazkatsuen faktoreak azaleratu nahi zituen txosten batean, autoritate frankistek, kleroaren eta nafar langile mugimenduaren garapenaren arteko harreman zuzen bat ikusten zuten<sup>790</sup>. Alde batetik, klero gaztearen nafar langileriarekiko erlazioa, honek apostolutza mugimenduei emaniko babesaren bitartez gauzatzen zela ohartarazten zen: *"Klero gazteak, langile bihurtzeko euren ikasketak utzi izan zituzten seminarioko ikasle ohiak eta probintziako Elizako hierarkiaren sektore garrantzitsuenak, nafar langile mugimenduaren jatorri izan eta egun, oraindik, haren baitan fakzio garrantzitsuena diren langileen apostolutza mugimenduen ikusmolde ezagunekin bat egiten dute"*. Bestetik, ekintza zuzenen bitartez langile borrokak sostengatzen zituztela salatzen zen: *"Igandeko predikuetan ustezko langileen eta apaizgaien kontrako ustezko torturak salatu dira eta greban zeuden langileen aldeko diru biltzeak antolatu dira; bestalde, ez da zaila edozein gatazkaren jatorrian apaiz baten edo zenbaiten presentzia somatzea"*. Guzti honengatik, ondorioak ateratzerakoan, autoritateak irmoak ziren: *"Zentzu honetan Eliza Nafarroako langile munduan ideologia argi batekin eta ekintzarako lerro praktikoa batekin azaltzen lehenbizikoa izan da"*.

Beraz, apaizgoaren sektore bat, Nafarroako lan munduan egiazki murgilduta zegoen. Langile mugimenduarekiko harreman hura, kleroaren parte horren ikusmoldearen eta jardunbidearen aurpegietariko bat izan zen, borroka sozialetan inplikatzeko eta diktaduraren gehiegikeriak eta bidegabekeriak salatzea izan ziren bezala. Apaiz mota berri bat agertu zen, gaztea eta ekintzailea; langileekin auzoetan elkarrekin bizi zena, fabriketan lan egiten zuena edota apostolutza mugimenduetan langile militanteak prestatzen zituztena. Hau da, herrira gerturatzen zen eta herrian jarduten zuen apaiza zen:

---

<sup>789</sup> Edurne Yániz Berriok adibidez, nafar apezkeriaren sektore hauek desberdintzen ditu, hauek Kontzilioaren aurrean izan zuten jarrera ezberdinak aztertuz. Ikusi Edurne Yániz Berriok, "El impacto y la recepción del Concilio Euménico Vaticano II en Navarra. Una aproximación al primer postconcilio marcado por la figura del prelado Mons. Enrique Delgado Gómez (1965-1969)", *Historia Actual Online*, 35 (3). zkia, 2014, 127-142 orr. Egun, gai honetan sakonduz, bere doktore tesia burutzen ari da *El impacto y la recepción del Concilio Euménico Vaticano II en Navarra, 1959-1975* izenburupean.

<sup>790</sup> "Informe sobre la situación político-social de Navarra y sus antecedentes", AGA-AAO, Sindikatuen fondoak, 6549. kutxa.



Kleroaren beldur ziren. Eta kleroak orduan, garrantzia izan zuen? Ba bai, izan zuen. Apaiz talde bat astero biltzen ginen eta inolako beldurrik gabe, predikuak egiteko eskema bat adosten genuen [...] beti, gutxienez, puntu garrantzitsu batzuk elkarrekin zituena. Bazeuden puntuak jarraitzen zituztenak eta ez zituztenak; batzuk indarrez jarraitzen zituzten eta beste batzuk beldurrez... orduan batzuk, ba, ez ziren garbi hitz egitera ausartzen. Eta guztia, guzti-guztia salatzen zen, ezta? Orduan ikusten zenez apaiz batzuk langilearen alde zeudela y langilea nolabait justiziarik gabeko egoera batetik ateratzeko laguntzen ari zirela, jendea asko gerturatu zen Elizarengana, nik Eliza beti, ordu erdi lehenago, gainezka nuen, ordu erdi lehenago, ia ez zegoen elizara sartzerik... eta Iruñetik, Iruñeko toki desberdinetatik, etortzen ziren. [A.A.. Antsoaingoa parrokoa]

A.A.-k modu honetan bizi izan zuen langilegoarekiko hurreratze hura, langileek bere sentitu egin zuten ere. Militanteek, apaizek langile mugimenduaren garapenari eginiko ekarpena gogoratu eta eskertzen dute eta euren testigantzak, kleroak langileria zein alorretan eta zein ekintzekin lagundu zuen azalertzeko oso baliagarriak dira. Gehien errepikatzen diren inplikatzeko moduen artean, apaizek orokorrean mugimenduan eta hark sustatutako borroka soziopolitikoetan izandako zuzeneko parte hartzeaz beste, militanteen jardueraren sostengu izatea (bilerak egiteko esparruak utzi, propaganda egiteko makinak utzi) eta ekimen sozial ezberdinak martxan jartzea dira aipagarrienak:

Hemen, langile mugimenduarekin egon diren hainbat apaiz izan dira, baina aurreneko lerroan gainera [E. A.. CCOOeko militantea]

Apaiz haiek, elizak uzten zizkigutenak, ba barruraino sartutako apaizak ziren, eta antifrankistak; bi adibide [...] Capuchinosekoa eta Virgen del Ríokoa [...] are seminarioan, ezagutzen genuen apaiz jator baten bitartez [...] [bertan] bilera asko egiten genuen, palan jolastera joaten ginen eta palarekin eskuan, gela batean elkartzen ginen orduko egoeraz eztabaidatzeko [J.M.E.. CCOOeko militantea]

Parrokia enblematikoak baziren, Virgen del Rio... ni Virgen del Riora izan joan naiz inprimatzeko makinak kale egin eta premiazko panfleto bat egin behar nuelako. Ni inprentaren arduraduna nintzen eta behin, *¡Se me ha jodido el aparato!* eta orduan Virgen del Riora joan nintzen eta han, vietnamita haietako multikopista batekin [...] izan nintzen, Virgen del Rion. Bertan bazen gizon bat [...] Lino, *una institución ese hombre* [...] ba horrek atea ireki zidan eta hara eraman ninduen, multikopista zegoen tokira. [J.S.M.. CCOOeko militantea]

[auzoan] batez ere bi apaiz izan ziren, Juanjo San Martin eta Bernardo Maisterra, langile mugimenduarekin konprometituta egon zirenak, ezta? Ba batekin eta beste batekin hitz egiten, lokal batzuk lortu zituzten, Auzotegi, jende gazteari ba, bilgune bat emateko... eta Auzotegi apaiz haiengandik jaiotzen da, ezta? Apaiz hauek gainera, ba, Vatikanoko IIaren ondorioz, Elizaren filosofia aldatzen dute eta ez direla bakarrik apaiz izango eta lanean hasiko direla erabakitzen dute, lanaren esperientzia sufritzetik abiatuta, lekukotasuna eman ahal izateko. [A.G.. Txantreako Auzo Elkarteko militantea]

Nahiz eta apaizen eragin soziala hirian ez zen nekazal herrietan bezain estua eta zuzena, kleroak paper garrantzitsua zuen oraindik ere gizartearen baitan. Aztertu izan ditugun eragin esparru guztiak, adibidez, apaizgoak bere eragina gauzatzen zuen kanalak ziren. Ikusi dugun bezala, parrokiak auzo komunitateen sorreran erreferentziazko esparruak ziren eta honek, parrokoa, apaiza, erreferentziazko figura bihurtzen zuen komunitate haietako kideentzat. Berdin gertatzen zen hezkuntza instituzioetan eta asoziazionismo katolikoan, non apaizen presentziak nonahikoa izaten jarraitzen zuen. Klero "aurrerakoiak", hartara, guzti hauek zituen bere eragin soziala gauzatzeko eta ikusmolde sozial berriak zabaltzeko. Apaiz hauek langilariaren aldeko eta diktaduraren kontrako jarrera hartzeak gizarteratzeko eta mentalitateak zein kontzientziak astintzeko eragile eraginkorrak izan ziren,

ebanjelioaren iragartzea alor ekonomikora, sozialera, politikora eta etniko-kulturalera eramanez, *statu quo*a zalantzan jartzen zutelako nolabait<sup>791</sup>.

Apaizgo honek nafar bizitza soziopolitikoan lortu izan zuen nabarmentasunaren adierazleatariko bat, 1976an Punto y Hora aldizkari berriak bere bigarren zenbakirako antolatu zuen mahaingurua izan zen. “Con Dios y con el pueblo. Curas en la izquierda” izenburu pean, Jesus Equiza, Iruñeko Teologia Ikasketa Zentroko teologia irakaslea; Patxi Ilarraz, diozesiko katekesi zuzendaria; Esteban Irigoyen, Lizarrako San Juan Bautistako parrokoa; Jesús Lezaún, teologia irakaste eta seminarioko zuzendari ohia; eta Miguel Angel Portillo, apaiz langilea eta Burlatako San Blaseko apaiz taldeko kidea, bildu zituen<sup>792</sup>. Bertan landutako gaietariko bat, apaizaren figura berria izan zen. Parte hartzaileek, bereziki, apaizgo berriaren hiru aspektu nabarmentzen zituzten: haren jarrera hartzeek zuten dimentsio politikoa, ezkerreko erakunde soziopolitikoetan, alderdi marxistetan esaterako, garatzen zuen militantzia aktiboa eta egiten zuen apaiz langile izateko hautua. Lehenbizikoa, apaizgoaren jarrera hartzeen dimentsio politikoa, Eliza berez inoiz apolitikoa ez zelako, hots, Elizaren jarrera orok eduki politikoa zuelako, azaltzen zuten. Jesús Equizak esaten zuen bezala, Eliza *“isilik badago, indarrean dagoen ordena ari da berresten eta mintzatzen bada, onartu edo kritikatu egiten”* du, beraz haiek, euren jarrera hartzeekin, isiltasunaren eta hitzaren artean, onspenaren eta kritikaren artean kokatu baino ez ziren egiten. Ildo horretan, Miguel Portillok oso argi zuen zehazki non kokatzen ziren: *“herriaren eta boterearen arteko desberdintasunak areagotu egin direnez, azken honi leial iraun nahi izan duen sektoreak, bere jarrera hartzeak erradikalizatu ditu”*. Bigarrena, zenbait apaizek garatzen zuten militantzia soziopolitiko aktiboa, ez zuten zuzenean ezkerreko edo izaera marxistako hautu batekin lotzen eta haren atzean hautu ebanjeliko bat zegoela nabarmentzen zuten. Adibidez, Equizak esaten zuenez: *“ez da horrenbeste politika marxistako militantzia bat, apaizek pobreengatik eta marjnatuengatik egiten duten hautua baizik”*. Hau da, militantzia berez apaizek eginiko klasearengatik hautuan zuen jatorria eta marxismoa, hautabide hori gauzatzeko, apaiz horiek erabiltzen zuten tresna baino ez zen, izan ere, *“kristautasuna marxismoarekin bateragarria”* zen, azken hau *“bereizgarririk gabe, hau da, botere ekonomiko, politiko eta kulturalen partekatzea”* bezala ulertu ezker. Hirugarrenak, apaiz langileen fenomenoak, klero berriaren ezaugarri nagusienak oso modu berezian barne hartzen zituen. Orduan apaiz langilea zen Miguel Portillok adibidez, bere esperientzian oinarrituta, ezaugarri hauek identifikatzen ahal dituen hainbat gako ematen zituen eta kristautasuna ulertzeko modu berria, konpromiso soziala eta parte hartze sindikala, apaizaren figura berri horren berezitasuntzat hartzen zituen: *“bide hau aukeratu nuen nire konpromiso kristaua gauzatzeko eta lekukotasunak falta zirela uste nuelako. Laster, ikusi nuen horrekin ez zela nahikoa eta langile klasearen askapenean gogotsuki parte hartu behar nuela. Erabatean murgildu nintzen klase borrokan [...]”*. Apaiz ordenatu eta segituan hasi zen lan bila. Ez zekien ordea lanik egiten eta lehenik eta behin Lanbide Heziketa Lasterragotuko eskola batean izan zen hainbat hilabetez. Ondoren, tailer txiki batzuetan lan egin zuen, Arte Grafikoen sektoreko Onena fabrikara sartu zen arte. Bertan, peoi gisara lan egin zuen<sup>793</sup>.

<sup>791</sup> Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 9 orr. Lan hau erabilgarria izan da apaiz hauek eliztarren artean zabaltzen zituen edukiak aztertzeke. Bertan, apaizok publiko egindako ohar, eskutitz eta prediku desberdinak jasotzen dira, berauetatik eduki “profetikoak”, hots, munduko gai korapilatsuenak ebanjelioaren errebeldioen argitara azaltzen dituztenak, azaleratzeko. Egiatzki, oso iturri aproposa da apaizgoaren sektore honen ikusmolde eta jarrera hartze berriak behatzeko.

<sup>792</sup> “Mesa a debate. Con Dios y con el pueblo. Curas en la izquierda”, Punto y Hora, 2. zkia, 1976ko apirilaren 16-maiatzaren 1, 6-10 orr. Oso esanguratsua da mahai inguru honen antolakuntza eta argitalpena “ezkerreko apaizen” gaia gori zegoen gaia zela eta apaiz hauek bizitza soziopolitikoan presentzia garrantzitsua zutela adierazten duelako nolabait.

<sup>793</sup> M.P.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-14.

Apaiz langileen fenomenoak Frantzian izan zuen jatorria, estatu espainiarrean garatzen hasi baino hamarkada pare bat lehenago. Frantziako Elizaren hierarkiak berak, nekazal munduan eta langileria industrialaren artean agerikoa zen deskristautzeaz kezkatuta, misio bat jarri zuen martxan, *Mission France* deiturikoa, apaizak euren herrian bertan misiolari gisara aritzeko. Zenbait apaizentzat, misiolari lan hura gauzatzeko moduetako bat, lantokietan lanean hastearena izan zen eta urte gutxiren buruan, ehunka ziren fabriketan edo eraikuntzan lanean ari zirenak. Esperientzia ordea, Eliza katolikoaren baitako zenbait eztabaidaren ostean, bertan behera geratu zen eta Vatikanokoak, apaizek lanaren ondorioz euren apaiz egitekoak alboratzen zituztela eta ezkerreko indarrek apaizak euren mesederako erabiltzen ahal zituztela argudiatuta, esperientziarekin amaitzea eta *Mission Franceren* seminarioa ixtea agindu zuen. Esperientzia horretatik abiatuko zen, Vatikanoko Ilaren ostean, mundu osora zabaldu zen apaiz langileen fenomenoak. Espainiar estatuan, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera hasi ziren lehenbiziko apaizak fabriketan edo eraikuntzaren sektorean lanean, langileen errealitatea bizi eta euren konpromiso soziala gauzatzeko bide bezala. Periko Solabarria bizkaitarra, LABeko lehen labealdiko militante izango zena, lehenbizikoetariko bat izan zen. Nafarroan, seminarioko ikasleak izan ziren lehenak lan mundura irteten. 1965eko udan, lau apaizgai Etxauriko harrobietan lan egin zuten peoi gisara<sup>794</sup>. 1968an, Nafarroako lehen hiru apaiz langileen inguruko berria ematen zen: Juan Lorca, elektrizitate tailer batean langile zen, J. A. Marquina, tailer mekaniko batean eta Luis Mari Medigutxia, karrozeria lantegi batean<sup>795</sup>.

Lantokietara sartzearekin, apaiz hauek langileen errealitatera eta langile mugimenduaren borrokara sartu ziren ere. Fabriketako aldarrikapen mugimenduetarekin bat egin zuten eta honen antolakuntzaren eta egituraketaren garapenean lagundu zuten. Zentzu honetan, zuzeneko esku hartzea izan zuten langile mugimenduan, lehenik eta behin fabrika mailan: asanbladetan hitz egiten zuten eta askotan ere berauetan langileen ordezkari izendatuak izaten ziren; Sindikatu Bertikaleko ordezkariak kargu izateko hauteskundeetara aurkezten ziren eta alde handiz aukeratuak izaten ziren; fabriketan barna jarduten zuten oposizioko talde ezberdinekin harremanatzen ziren. Kasu askotan gainera, euren jarduerak fabrikaren markoa gainditu zuen eta zenbait apaiz langile sindikatu zein alderdi politikoen antolakuntzan parte hartu eta egitura berrietako funtseko piezak izan ziren. Aipatu Periko Solabarria esaterako, lehenbizi Sindikatu Bertikaleko ordezkari sindikal gisara aritu zen bere enpresan<sup>796</sup> eta gero, LAB sindikatuko militantea izateaz beste, HBko buru nabarmenatariko bat izango zen. M.P. bere aldetik, Orena fabrikako langile batzordeko kide izan zen hasieran eta gero, Sindicato Unitarioko lehen zuzendaritza taldean izan zen idazkari ordearen karguarekin; militante izan gabe, ORT-tik gertu ibili zen ere<sup>797</sup>.

Kleroaren sektore honetako zenbait apaizek, apostoluzta mugimenduetarako eta euren langile erakundeetarako sarbidean ezinbesteko erreferentzia puntuak izan

<sup>794</sup> "Cuatro seminaristas, peones en las canteras de Echauri. En nueve horas diarias manejando el pico y la pala han conocido la vida dura de muchos trabajadores", DN 1965-08-22, 16 orr.

<sup>795</sup> "Sacerdotes obreros en Pamplona. D. Juan Lorca en un taller de electricidad, D. José Antonio Marquina en un taller mecánico y D. Luis Mari Mendigutxia en un taller de carrocerías, son los 3 primeros curas obreros de Navarra", DN 1968-05-16, 24 orr.

<sup>796</sup> Patxi Abasolo, David Mendaza eta Joxerra Bustillo, *Nuestro mayo rojo. Aproximación a la historia del movimiento obrero vasco (1789-1990)*, Txalaparta, Tafalla, 2014.

<sup>797</sup> M.P.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-14. Haren hautaketaren berri ematen da ere, Nafarroako SUaren sorrerara azaltzen duen "A todos los afiliados al Sindicato Unitario de Navarra, a la clase obrera y al pueblo navarro" dokumentuan, Pablo Iglesias Fundazioaren Artxibategia, SUaren fondoak, 13. kutxa.

ziren heinean, oso konexio garrantzitsuak sortu zituzten zirkuituaren baitan. Esate baterako, militante askoren memorian, egiazko kontzientzia eragile bezala, hots, haien berria zen mentalitate batetara ireki zituen bultzatzaile bezala, ageri dira. Adolfo Goñi ospe handiko pertsonaia haietarako bat izan zen. Funtsezko elementua da Nafarroako VOJaren garapena azaltzeko. Zentro Marianoan bildu, hausnartu eta eztabaidatu egin zuten taldeen aholkularia izatearekin batera, zentrotik kanpo sortu ziren talde askoren sustatzailea izan zen ere. Potasen adibidez, ikusi dugun bezala, bere ikasleekin gerora Vanguardiasen txertatuko zen talde bat sortu zuen. Talde guzti haietan, gazteei, kristautasun berrirako eta konpromiso mundutarrerako, kezka eta gako sozialetarako (“Goñi aitak, jesuita, ni han izan nintzenean, arduraduna zena, halako kezka sozialak zituen, ezta? orduan ba kristautasuna, kezka edo ideia sozialekin uztartzen zituen”<sup>798</sup>) eta are marxismorako sarbidea eman zien. Lino Otano ere erreferentziazko pertsona bat izan zen. Virgen del Ríoeko parroko bezala eta JOCeke aholkulari bezala ezagutu izan dugu jada. Azken alderdi honetan, gogotsuki lan egin zuen JOC taldeak esparru desberdinetan (auzoetan, seminarioan) sortzen eta oso eraginkorki errotu zuen erakundearen metodologia (Behatu, Juzgatu eta Ekin) bere ardurapekoengan<sup>799</sup>. Lino Otanok langile mugimenduari eta euren ibilbideei egin zizkien ekarpenena, aipu errepikatua da militanteak apaiz hauei buruz mintzatzen direnean.

Lino Otanoren figuraz nabarmentzen den beste alderdietako bat, Virgen del Ríoeko parroko izatearena da. Parrokiek eta parrokoek, auzo komunitateen eta langile talde sindikal zein politikoen garapenean izan zuten betekizuna ikusi dugu, beraz, ez dugu jada azaldutakoa berriz ere errepikatuko. Horregatik, oraingoan, Víctor Manuel Arbeloak *Rima del Pueblo* delakoan apaiz horien figurak nola betikotu zituen ikusiko dugu, auzoetako parrokoek nafar sektore sozial herrikoien egiazki ospea lortu zutela erakusteko:

[...]

Los riñones de los curas  
de la Rochapea  
No hay proceso alguno que los estropea.  
los riñones de los jóvenes curas de Burlada  
no los entumece ninguna brigada  
Los riñones de los curas de  
la nueva Chantrea  
nadie los menea  
nadie los menea

[...]

Los riñones de los curas de la Parroquia del Río,  
Válgame Dios, qué trapío

[...]

Los riñones del cura Miguel Portillo  
Son redondos y duros como un anillo,

---

<sup>798</sup> P.O.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-06. Protagonista ezberdinek nabarmendu dute Goñi aitaren figura eta VOJen kontsiliario gisara bete izan zuen paper garrantzitsua. J.S.M.-ek adibidez, hari buruz “gizon aparta zen, jesuita aurrerakoi bat [...] guztiak komunista egin gintuen” esaten du. J.S.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-10. P.A.S. eta J.E.C. VOJeko militante izan ziren heinean, berarekin gogoratzen dira ere. J.E.C. eta P.A.S.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2011-06-02 eta 2013-02-13, hurrenez-hurren.

<sup>799</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07. Bi xehetasun adierazgarri ematen dira Lino Otanoz elkarrizketa honetan: lehenbizikoa, bere ardurapekoak “Linoski Otanov” deitzen zutela; bigarrena, haietariko asko ezkondu zituela. R.U.-en ibilbidean ere figura garrantzitsu bezala ageri da, bera izan baitzen iturriaren JOCerako sarbidea. R.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-03-06.

Tienen fuerza y firmeza,  
Color y brillo<sup>800</sup>

Poema hau, 1973ko otsailaren 4an, Torfinasa enpresako grebaren kontestuan eta ETAk bahituta zuen enpresa horren zuzendaria zen Felipe Huarte askatu eta egun batzuk geroago, prediku bat irakurtzeagatik komisariara deituak, galdekatuak eta isunduak izan ziren zenbait apaizei eskainitakoa zen<sup>801</sup>. Halako predikuak, apaiz hauen ekintza publikorik adierazgarrienak izan ziren. Hauen bitartez nolabaiteko adierazpen askatasunarekin mintzaten ahal ziren, eliztarrak hainbat gaiekiko sentikor bihurtzeko. Estatuaren errepresio neurriak salatzeke (salbuespen egoerak, Burgoseko epaiketa, tortura), greban zeuden langileei elkartasuna adierazteko eta askatasunak aldarrikatzeko kanalak izan ziren, apaiz hauek eta ematen zituzten mezak, gizarte sektore herrikoi eta konprometituentzat, erreferentzia puntu garrantzitsu bihurtu zirelarik. A.A.-k honela gogoratzen ditu prediku haiek eta hauek apaizen eta eliztarren (herriaren) artean sortzen zuten harremana:

Ba, gu, predikuetan, bidegabekeriaren bat gertatzen zenean, salatu egiten genuen. Adibidez, Potasaseko haiek hil zirenean... beste nonbaiten gehiegikeriaren bat gertatzen zenean ere, edo agian poliziak bortizki eraso egin bazuen [...] ba guzti hori, gu, predikuetan salatzen genuen. Orduan, zer gertatzen zen? Langileek hori entzuten zutela eta eliza desberdinetara joaten zirela halakoak entzutera... eta orduan gu defendatzen gintuzten ere, ezta? Nik ikusten nuen... begira, gogoratzen dut Antsoainen, xehetasun bat: polizia [elizara] sartzen zenean, keinuak egiten zizkidaten, isileko poliziaren bat sartzen zenean... begira noraino iristen zen. [A.A.. Antsoaingo parrokoa]

Behin baino gehiago ni oso prediku gogorrak, oso serioak, eman nituen [...] nik eman nuen prediku batengatik, "Javierada" Xabierrera beharrean Potasasera egin behar genuela esateagatik, ez zidaten kartzelaratu, baina bazituzten bai prediku guztiak fitxatuta ba ez dakit, politikoki irain bat zirela uste zutelako. Gainera ni, orduan, predikua mikrofonoa eskutan egiten nuen, elizan barna mugitzen, jendeak zer esaten zuen entzuteko eta mikrofonoa batari eta besteari ematen nion. Oso parte hartzailea zen, oso interesgarria" [A.A.. Antsoaingo parrokoa]

Prediku hauetan jorratzen ziren gaietarako hurbilpen bat egitea, apaizen ikusmoldeak eta jarrera hartzeak zeintzuk ziren, hots, gizarteratzen zituzten mezuak zeintzuk ziren azaltzeko bide on bat da. Gainera, Jesús Equizak aipatu "¿Política o profecía?" lanean, prediku hauetan adierazgarrienak biltzen eta iruzkintzen dituenek, aukera dugu horretarako. 1969ko garizumaren lehen igandeko predikuak adibidez, urte hartan gobernuak agindutako albuespen egoera salatzen zuen. Ikusi genuen bezala, albuespen egoeraren salaketaren auzia, Elizak gai soziopolitikoaren aurrean izan behar zuen jarrera hartzearen inguruko eztabaida piztu zuen ikusmolde kontrajarriak zituzten kleroaren bi sektoreen artean. Kontestu hartan, estatuaren errepresio neurriak gaitzesteaz beste, apaizen predikuak, eurak momentu hartan zituzten jarrera hartze

<sup>800</sup> "Gozos viriles de los curas del 4 de febrero y alfiles" (*La rima del pueblo. 1973-1978*). Victor Manuel Arbeloa, *Obra poética (1964-2010)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2010, 519-520 orr.

<sup>801</sup> Prediku honetan, beste gauza batzuen artean "Biolentzia egoera iraunkor baten eta bestelako biolentzia ekintzen arteko bereizketa egin nahi dugu. Biolentzia egoera iraunkorra, hiritarren gehiengoari oinarrizko askatasunak eta erabateko eskubideak ukatzen dizkion egoera da. Historiako lapurretari handiena, gutxiengo baten mesedetan gehiengoari bere eskubideak kentzean datzan hori, ahalbidetzen duen egoera da. Okerrena, gurea bezalako biolentzia egoera batek legezkotasunaren itxura duela da [...] zapaltzaileak, guztion aurrean bakezaleak izango balira agertzen [direla]. Hau da, biolentziaren gaindia, haren normalizazioa da. [...] Bestetik, biolentzia ekintza deigarriak ditugu, hots handia ematen zaie eta [ondorioz] iritzi publikoa hunkitzen dute. Biolentzia hau zapalduen erantzuna da, menderatsetik [askatu] nahi den herriak egiten duen protesta". Jaso, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 42-43 orr.

sozial eta politikoen alde egin zuen ere: “*Irrigarria da apaizak modaren, dantzaren, janzeraren eta halako gauzen inguruan aritzea ontzat ematen dutenek, apaiz [horiek berak] giza eskubideen, guztien ongiaren, hauteskunderen, salbuespen egoeraren, nagusikeriaren, gizarte kapitalisten, diruaren betekizun sozialaren eta abarren inguruan aritzea onartzen ez dutela egiaztatzea*”.<sup>802</sup>

1970ean, arazo sozial bat eta lan gatazka bat izan ziren prediku adierazgarrienen gai nagusiak. Hasteko, urtearen hasieran, Iruñean gori zegoen Ibañez etxeen afera, etxebizitzaren arazoa prediku batean salatzeke ildoan izan zen<sup>803</sup>. Bestalde, Ostegun Santuan, lanik gabe geratu berriak ziren ehunka langileen egoeraren berri eman zen Iruñeko parrokia guztietan irakurri zen ohar batean. Krisi espediente baten ondorioz Chalmeta enpresatik kaleratuak izan ziren langileen egoera zen. Langile haiek eta euren familiek bizi zuten premia larria arintzearen, laguntza ekonomikoa lortzeko diru-bilketa bat egingo zela jakinarazten zen ohar hartan. Laguntzarako harpidetza, parrokien, elizen, Cáritasen eta beste zenbait erakunderen bitartez bideratua izan zen eta hari esker bildutako diru guztia, Nafarroako Langile Kontseiluari eman zitzaion hark Chalmetako langile guztien artean banatzeko<sup>804</sup>.

Hurrengo urteko Ostegun Santuan Jose María Larrauri gotzain laguntzaileak eman zuen predikuak egiazki hautsak errotu zituen. Bertan, torturak zein bereizkuntzarik gabeko atxiloketak salatu eta gaitzetsi egiten zituen, 1971 urte hartan Nafarroako CCOOak desegin zituen polizia operazioari erreferentzia eginez. Atxilotuen artean apaizak, apaizgaiak eta elementu sekularrak zeuden. Euren egoera ikusi eta esperientzia entzun ondoren, predikuaren bitartez egin zuen salaketa. Arratsaldeko mezan, Iruñeko katedralean eta autoritateen aurrean, Monsinore Larrauri errepresioaz, torturaz eta atxiloketez aritu zen, datu zehatzak, bere begiekin egiaztatutako, zituela adieraziz<sup>805</sup>. 1973an, arestian aipatu otsailaren 4ko predikuan, Iruñeko kanpo auzoetako apaiz talde batek estatua baten bortizkeria kondenatzen zuen, indarkeria instituzionalaren larritasunaz ohartaraziz. Prediku hura, oso polemikoa izan zen, ez bakarrik apaizak komisariara bidali zituelako, baita Felipe Huarteren bahiketaren osteko giro nahasian, kleroaren eta nafar iritzi publikoaren parte batek publikoki arbuia egin zuelako ere<sup>806</sup>.

1973ko ekainean, greban zeuden Motor Ibéricako langileek itxialdi bat egin zuten Arrotxapea auzoko El Salvador elizan. Honek, langileen egoera salatzen zuen arazo sozialari buruzko bi prediku ekarri zituen berekin. Lehenbizikoa, Mendez Asensio artzapezpikuarena eta Larrauri gotzain laguntzailearena; bigarrena, apaiz talde batena. Lehenbizikoan, Iruñeko gotzainek, itxialdiaren aurrean hartu izan zuten langileen aldeko jarrera azaltzen zuten: langileei elizan egoten utzi zieten, autoritateei hura hutsarazteko baimenik eman gabe; Cáritasen bitartez, itxialdiak iraun bitartean langileei behar izango zuten janari guztia bermatu zieten; eta are gehiago, langileek

---

<sup>802</sup> “Homilía del domingo 1º de cuaresma (1969-02-23)”. Jasoa, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 26 orr.

<sup>803</sup> “Homilía sobre un problema de vivienda (1970-01-18)”. Jasoa, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 27-28 orr.

<sup>804</sup> “Jueves Santo en Pamplona. En todas las parroquias se leyó una nota en la que se habla del problema de mas de 400 personas sin trabajo”, DN 1970-03-27, 20 orr. eta “Dinero de la suscripción abierta el día de Jueves Santo para los despedidos de Chalmeta. Cáritas entregó al Consejo de Trabajadores 414.320 pts.”, DN 1970-04-10, 24 orr.

<sup>805</sup> “Texto de la homilía del obispo auxiliar”. Jasoa, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 30-31 orr.

<sup>806</sup> Horrela egin zuten, adibidez, San Francisco Javier apaizen elkarteko bostehun apaizek, predikuaren eta hura eman zuten apaizen aurka publikoki agertu zirenean. Adierazpen honen aurrean, beste berrehun eta hogeita bi apaizek, publikoki ere, elkertasuna adierazi zieten lehenbizikoei. Ikusi Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., ikusi 46-47 orr.

berek eskatuta, bitartekari gisara aritu ziren, egoera bideratzeko gestioak egitearren, autoritate zibilekin eta enpresako zuzendaritzako kideekin bildu zirelarik. Bigarrenean, apaizek, langileek hartutako neurrien, hots, grebaren eta baita itxialdiaren, alde egiten zuten. Bereziki adierazgarria izan zen eliza protestarako esparru gisara erabiltzeko langileen ekimenaz egiten zuten defentsa. Izan ere, tenpluak, informaziorako eta eztabaidarako berezko esparru edo bileraguneen faltan, ordezkapen funtzioak bete behar izan zituela salatzearekin, erregimenak bermatzen ez zituen oinarrizko askatasunen gabezia gogorki kritikatu zuten<sup>807</sup>.

Apaiz hauek protagonistatzat izan zituen ekintza ospetsuenetariko bat 1974ko azaroaren 23an eta 24an mezak ez emateko hartu zuten erabakia izan zen. Urte hartan, hitzarmen kolektiboak berritzeko negoziazio prozesuen giroan grebak eta lan uzteak bata bestearen ondoaren gertatzen ari zirela, langile asanblada bat desegitearren, polizia Iruñeko katedrala bortizki hutsarazi zuen. Ez zen lehenbiziko aldia. "Esparru sakratuaren" bortxaketa berri hau salatzeke eta herria bere arazoez mintzatzeko bildu ezin bazen, kristauak ere euren kultuak ospatzeko bildu ezingo zirela aldarrikatzeko, Iruñeko kanpo auzoetako zazpi parrokiatan (Berriozarren, Capuchinosen, San Martinen, Santa Soledaden, El Salvadorren, San Cristóbalen eta Nuestra Señora del Ríon) igandeko mezak bertan behera geratu ziren. Zazpi parrokia hauetako apaizek, jarrera hartze kolektibo honi eutsiz, euren eliztarrei eta artzapezpikuari zuzendutako ohar bitan emandako azalpenek, argi eta garbi erakutsi zuten eurak pobreengatik eta marjinauengatik, klasearengatik, eginiko hautua. Lehenbizikoei, meza ez ematearekin langileen bilerarako eta adierazpenerako askatasunak defendatzen ari zirela argitzen zieten; bigarrenari, euren keinuarekin borrokan zegoen herria lagundu nahi zutela esaten zioten: *"ekintzekin eta ez hitzekin egin nahi izan dugu. Egun, egiatan kezkatzen gaitu apaizen eta, orokorrean, Elizaren hitzetan dagoen eduki hutsunea"*<sup>808</sup>

Potasaseko meatzarien itxialdiaren testuinguruan, apaiz talde batek bi ekintza abiatu zituen. Predikuekin batera, hogeita hamar bat apaizek gose greba bat hasi zuten, artzapezpikuaren egoitzan, kaleratuei, errepresaliatuei eta meatze putzuko itxialdian zeudenei euren elkartasuna adierazteko. Bost egun eman zituzten gose greban, meatzariak putzutik atera ziren arte. 1975ko urtarrilaren 26an hainbat elizetan eman ziren predikuak gogorki zigortuak izan ziren. Jesús Equizak jasotzen duenaren testua, berez, prediku batena baino, borrokari, herriaren askatasunak irabazteari eginiko kanta baten antza zuen eta agian horregatik, azaldu ditugun guztien artetik, prediku hauen berezkotasuna hobekien erakusten duena da:

Nos habéis robado todo, los señoritos del pueblo,  
habéis quitado la paz y la mirada tranquila de las  
madres,  
robáis los sueños de los ojos dulces de los hijos;  
a los ganaderos del norte les robáis la leche  
y a los de la ribera su rica tierra, los enemigos  
del pueblo;  
al trabajador, su respeto  
y a todos nos vais robando la sangre a porrazos  
y desprecios  
[...]  
El decoro y la vergüenza de este pueblo, no hay

<sup>807</sup> "Dos homilías sobre el problema social. (1973-06-17)". Jasoak, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 59-62 orr. Lehenbiziko predikua gotzainena zen; bigarrena, apaizentzako teologia ikastaroko kideena.

<sup>808</sup> "Supresión de las misas en 7 parroquias del extrarradio de Pamplona el domingo (1974-11-24)". Jasoak, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 132-134 orr.

quien lo robe, patronos  
 pues no somos perros ni esclavos  
 porque no son unas pesetas lo que queremos, señores  
 es el vivir con orgullo, que según vosotros es delito  
 y preferimos recibir palos que vivir arrodillados  
 [...]

**¡VAMOS A SER SEÑORES DE NOSOTROS MISMOS!**  
 Y no esclavos de señoritos, señores,  
 no propiedad de propietarios caciques,  
 porque si nos robáis casi todo...  
 la dignidad del pueblo, eso sí que no, señores  
 Y es que uno de nosotros, vale más que cien señores, ¡señoritos!  
 [...]

Está ya muy cerca el reino, como canta hoy el profeta  
 y el pueblo vocea por las calles su libertad y vuestra derrota,  
 señores, señoritos  
 enemigos del pueblo y enemigos del reino y enemigos de Dios  
 porque sois enemigos del hombre  
 [...]

**¡Navarra libre o navarra esclava!**  
 no hay otra postura, no hay otra batalla.  
 así los sentimos, así lucharemos  
 esto es hacer patria y es hacer pueblo  
 y por eso mismo ¡Esto es hacer el reino que nos trajo Jesucristo!<sup>809</sup>

Apaiz hauen jarduera zenbait daturen bitartez ikusten ahal da ere. Honako bi hauek oso adierazgarriak dira. Lehena: 1974 eta 1975ean, meatzarien itxialdiarekin amaitu zen Potasaseko gatazka kolektiboa predikuekin eta diru-bilketekin babesteagatik, zenbait apaiz nafarrek lau milioi pezeta inguru ordaindu behar izan zuten isunetan. Bigarrena: Bilbo eta Iruñea ziren, hurrenez-hurren, apaiz aktibisten kopururik handiena agertzen zuten estatuko lurraldeak (berrehun ta hirurogeita hemezortzi eta berrehun ta berrogeita hamasei)<sup>810</sup>. Ildo berean, oso esanguratsuak dira ere, atxilotuak izaterakoan haien aurka egiten ziren akusazioak, hauekin, autoritate frankistek argiki erregimenaren aurkako oposizioan kokatzen ari baitzituzten. Jesús Equizak jasotako atxilotutako apaizen lehen zerrendan (1973ko predikuek eragindako atxiloketak, hein handi batean), honako karguak ziren nagusi: *“bake sozialaren aurka joatea”, “bake sozial eta politikoa suntsitzea”, “herritarren arteko desadostasunak eragitea eta bake soziala arriskuan jartzea”* eta, predikuen testuak eliztarren artean banatzeagatik, *“legez kanpoko propaganda egitea”*<sup>811</sup>. Bigarren zerrendan, aurreko akusazioen oso antzekoak ziren karguak errepikatzeaz beste (Burlatako Eugenio Lecumberri, esateko, *“Espainiaren batasunaren aurka joateaz eta ordena publikoa asaldatzen saiatzeaz”* akusatua izan zen), bestelako salaketak agertzen ziren ere: Arrotxapeako Patxi Larrainzar *“langabetuen alde baimenik gabeko diru bilketa bat egiteaz”* akusatu zuten eta Burlatako Miguel Portillo, emakumeak bizimoduaren garestitasunaren kontra mugiarazten zituelako, Portugalen gertatutako estatu kolpeari erreferentzia egiten ziolako eta Potasaseko grebarako milioi bat pezeta biltzea beharrezkoa zela esaten zuelako, legez kanpoko propaganda egiteaz<sup>812</sup>. Hirugarrenean, Miguel Portillo asaldatzaile sozialtzat jotzen zen, Patxi Larrainzar eta Lino Otano *“arriskugarritasun*

<sup>809</sup> “Texto de la homilía del 26 de enero”. Jaso, Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 144-146 orr.

<sup>810</sup> Datuak, Enrique Berzal de la Rosa, “Católicos en la lucha antifranquista. Militancia sindical y política”, *Historia del presente*, 10. zkia, 2007, 7-24 orr, 20 orr.

<sup>811</sup> “1ª relación de sacerdotes detenidos, interrogados, sancionados o/y encarcelados (febrero-marzo 1973)”. Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 52-53 orr.

<sup>812</sup> “2ª relación de sacerdotes detenidos, interrogados, sancionados o/y encarcelados (mayo 1973-junio 1974)”. Jesús Equiza, *Política o profecía...* Op. Cit., 92-99 orr.



sozialaz” akusatzen zituzten eta Victor Manuel Arbeloa, “*legez kontrako propaganda egiteaz eta subertsioa bultzatzeaz*”<sup>813</sup>. Erregimenaren informazio zerbitzuek nafar kleroaren jarduerari buruz egindako informazio txosten eta oharrek, apaizen jarduera hori autoritateentzat zein puntutaraino ari zen arazo bihurtzen erakusten dute<sup>814</sup>. Informazio guzti haietan nafar kleroaren jarduera separatistaren berri ematen zen; apaizek mezan Elizako hierarkia eta gobernua kritikatzeko zituztelaz ohartarazten zen; prediku korapilatsuenen eta hauek eragindako erreakzioen berri ematen zen; eta apaizei ezarritako isunak jasotzen ziren, nafar kleroaren atxiloketak, isuntzeak eta kartzelaratzeko, 70. hamarkadaren hasieran ia eguneroko bilakatu zirela erakusten dutelarik. Aipatu datuek igartzen zuten apaizen aktibismoaren ahalmena, hartara, erregimenak harengana erakusten zuen kezkan eta ezinegonean ikusten ahal da:

Gero, gobernua edo dena delakoak, mugimendu indartsu hori gelditu nahi bazuen, zenbait apaiz zigortu behar zituela ikusi zuen eta prediku batengatik, nirea, milioi erdi inguruko isuna jarri zidaten, 75ean, miloi erdia! Askoren artean ordaindu nahi izan zuten, ezta? nire familiak ere, baina nik ezetz esan nuen, ni hara [kartzela] joango naiz eta gobernua ordaindu dezala... eta egunero bost mila pezeta libratzen nituen. Ehun ta koska polizia ibiltzen ziren egunero hor, Carabanchelen, bueltan ematen eta gu zaintzen... eta guzti horrek [estatuarentzat] bost mila eta koskako kostua zuen. Batzuetan Espainia osoko [apaizak] elkartzen ginen bertan, ezta? hamabi edota hamahiru apaiz ere elkartu ginen eta Vatikanoko IIIa [ginela] esaten genuen. [A.A.. Antsoaingo parrokoa]

Apaiz hauek errepresioaren helburu izan ziren<sup>815</sup>. Hala izan zen, hein handi batean, kolektibo bezala jarduten zutelako, hots, elkarrekin estrategia komunak adosten zituztelako eta ekimen komunak gauzatzen zituztelako eta honek, langileriaren eta herriaren kontzientziaziorako eragile garrantzitsu bihurtzen zituelako. Adibidez, predikua prestatzeko biltzen ziren eta bilera haietan, landuko ziren gutxieneko gai edo puntuekin, guztiek predikua sortzeko erabiliko zuten eskema bat osatzen zuten, euren apaiz estatusetik protesta ekintza kolektiboak gauzatzen zituzten (mezak bertan behera uztea, gose greba egitea), langile taldeei eta hiritarrei bilerarako guneak eta eztabaidarako foroak zizkieten, mobilizazio edo manifestazio herritarretan parte hartzen zuten, greban edo langabezian zeuden langileak, diru-laguntzak sustatzearen bitartez, ekonomikoki laguntzen zituzten eta predikuekin eliztarrak arazo soziopolitikoekiko sentikor bihurtu nahi zituzten. Guzti honekin, apaizak, langile klasearen eta herriaren bidelagunak izan ziren azken hauek abiatu zituzten borroketan:

Garai hartan, nik uste dut, langile klaseak konfiantza handia izan zuela hainbat apaizengan, haiekin bat egin eta [haiekin] momentua bizi egiten genuen apaiz talde batengan. Jendea laguntzen genuen. Orduan, orain ez dagoen elkatasun bat zegoen; orduan, gaur inondik ere ikusten ez dudana justizia zentzu bat zegoen; eta batez ere nolabaiteko zentzu kritikoa bazegoen, ez kritika negatibo bat, baizik eta positiboa [...] Hizketa klerikalari arretoa handia jartzen genion, hori askotan ulertzen ez delako, eta arretoa handia jartzen genion Elizaren doktrina sozialari... batzuek iraultzaileak, eta ez dakit zer eta ez dakit zenbat, ginela esaten ziguten arren. Baina jendea laguntzen, langile masa horren masa ez izaten laguntzen,

<sup>813</sup> “3ª relación de sacerdotes detenidos, interrogados, sancionados o/y encarcelados (junio 1974-enero 1975)”. Jesús Equiza, *Política o profecía... Op. Cit.*, 148-150 orr.

<sup>814</sup> AGA-AAO, Kultura fondoa, Gabinete de Enlace saila, 42-9005. Kutxa. 4. dosierra, nafar diozesiko kleroaren jarduerak.

<sup>815</sup> Errepresio horren adierazlerik esanguratsuenetariko bat Zamoran delituren batengatik zigortutako apaiz eta elizgizonentzat espresuki funtzionatu zuen kartzela izan zen, Zamorako konkordatu espetxea. Bertan, giltzatuta egon ziren, besteak beste, Francisco García Salve jesuita, Lluís Maria Xirinacs edota Xabier Amuriza. Ikusi, Angel Zelaieta eta Edorta Jimenez (koord.), *Zamorako apaiz-kartzela. Eliza eta estatutaren presondegia 1968-1976*, Txalaparta, Tafalla, 2011. Bereziki euskal apaizerian kontrako errepresioaz, adibidez, Anabella Barroso, “Iglesia vasca, una iglesia de vencedores y vencidos: la represión del clero vasco durante el franquismo”, *Ayer*, 43. zkia, 2001, 87-110 orr.

formatzen... lan on bat egiten ari ginela uste genuen; eta langile taldeak sortzen genituen eta bertan noski, mintzatzen ginen... oso foro irekiak ziren. [A.A.. Antsoingo parrokoa]

Ni gogoratzen naiz, Antsoainen, polizia etortzen zenean, hor, errepidearen erdian jartzen nintzela eta esaten nuela: "Nada, nada, no os preocupéis, venga...", eta ¡Pas! tiro egiten zuten, sekulako tiroak, gomazko pilotekin tiro egiten zuten. Baina orduan langile klaseak nolabaiteko paper hori, ez lider izatearena, inolaz ere, baizik eta langile klasea, aurrera egin zezan, laguntzearena, bere gain hartu zuten apaizengan eredu bat ikusi zuen. Eta garrantzi handia zuen guretzat formakuntzak. Langile klase hori formatu nahi genuen, gutxika kontzientziak iratzartzen hasteko [A.A.. Antsoingo parrokoa]

[...] uste genuen momentu hartan... jendea laguntzen ari ginela, [langileak] euren bidea egiten laguntzen ari ginela... jende guzti honen bidelagunak izango bagina bezala, inoiz ez liderrak izanda [...] guk ez genuen lider izan nahi, hala esaten ziguten askotan, baina nik esaten nuen, ez, ez, gu jendearen bidelagun onak izan behar gara, langile sentimendu, langile klase izatearen zentzu bat, sortzen lagundu. [A.A.. Antsoingo parrokoa]

Apaiz hauen jarduna eta zirkuituaren baitan izan zuten papera hobe ulertzeko interesgarria izango litzateke apostolutza mugimenduetako gazteengan, seminarioko apaizgaietan edota euren eliztarrengan eragina izan zuten aipatu figurak, Jesús Lezaún, Lino Otano edota Patxi Larrainzar kasu, nola bilakatu ziren ikustea. Euren pentsamolde erlijiosoa nola itxuratu zen ikustea, kristautasunaren, ebanjelioaren eta Biblia beraren ikusi irakurketak egitera zein bidetatik iritsi ziren argitzea edota zein autore edo figuren eragina jaso zuten aztertzea, lan ildo oso interesgarria izaten ahal da. Baina lan horrek egiazki denboran atzera egitera behartuko gintuen eta ikerketa hau, berez, ez da hori egiteko markoa. Honekin gure asmoa kleroaren parte honek gure prozesuan izan zuen parte hartzea nabarmentzea izan da, zirkuituaren baitan mugitu zen eragileetariko bat izan zela erakustea. Halako figurak zirkuitura eraman zituen bilakabide pertsonal eta are intelektuala, geroko ikerketek jorratzen ahal duten gaia da.

### 5.3 APOSTOLUTZA MUGIMENDU SEKULARRAK: ESPARRU BERRIAK, LANGILE KULTURA BERRIA

Ni, esateko, ba aurre-mugimendu batez hitz egingo nuke pixka bat, ezta? 50. hamarkadatik 60. hamarkadaren erdialdera antolatu gabeko langile mugimendu bat eratzten da, ezta? langile mugimenduaren eratzea klandestinitatean, hasierako eratze bat, hastapeneko, kristau komunitateetatik eta halakoetatik abiatzen dena. [J.A.C.. CCOOeko militantea]

Nafarroan erakunde bat sortu genuen, Comisiones Obreras deitzen zen eta bertan guztiak apaiz izateko egondakoak edo HOAC, VOJen ibilitakoak ginen; hau da, elizarekin lotutako gazte erakundeetako jendea zen, ezta? erakunde sozial edo politikoetako jendea baino.... Nafarroan, ezta? nik dakidanez. Orduan jende horrek Nafarroan, estatu mailan jada existitu egiten zen erakunde bat sortu zuen, Comisiones Obreras klandestinitatean. [J.M.E.. CCOOeko militantea]

Azken urteotan historiografiak frankismoaren garaiko langileriaren antolakuntza apostolutza mugimendu sekularrei eman dien betekizuna<sup>816</sup>, bereziki garrantzitsua izan zen nafar langile mugimenduaren kasuan. Izan ere, langile indar eta sindikatu errepublikarren ezarpena nafar lurraldean ahula izan zenez eta altxamenduak berekin ekarri zuen errepresio bortitzak hemen gaingitu ezineko egitura, antolakuntza, militantzia eta langile ideologia zein kultura hutsunea eragin zuenez, tarte zabal hori, apostolutza mugimenduek hartu zuten erabatean hasiera batean. Mugimendu hauetako talde desberdinak lehenbizikoak izan ziren langileentzako berezko esparruak zabaltzen, euren formakuntzarako eta kontzientziatzerako tresnak martxan jartzen eta antolakuntzarako azpiegiturak errazten. Guzti honengatik, ezinbesteko guneak dira berrosatzen ari garen zirkuituan<sup>817</sup>.

Apostolutza mugimenduek zirkuituari eginiko ekarpen funtsezkoenak, zirkulazioan ipini izan zituzten formakuntzarako tresnak, antolakuntzarako oinarriak eta koadro militanteak izan ziren. Alde batetik, gizarteratze soziopolitikorako egiazko esparru izan ziren, militante haietariko asko, gerora, ezkerreko erakunde sindikal eta politikoetako buru, erdi mailako koadro edota afiliatu arrunt izan zirelarik. Bestetik, klasea eratu zen erdigune garrantzitsuak izan ziren, berauetan Iruñerriko langile militantziarengan berebiziko eragina izango zuen berezko ezkerreko kultura politiko

---

<sup>816</sup> Apostolutza mugimendu sekularrek, frankismoaren bitartean, langile mugimenduaren antolakuntza molde berrien sorreran, langileriaren kontzientziazioan eta protestaren suspertzean izan zuten funtsezko papera, bai mugimenduoi buruzko lan espezifikotan, hala nola langile mugimenduari buruzkoetan, azpimarratu ohi da. Lehenbizikoei dagokienean, paper hau, adibidez, Basilisa Lópezek burututako HOACaren historian, Enrique Berzalek azaleratutako erakundeetako kideen militantzia soziopolitikoan, Feliciano Monterok aztertutako Acción Católicaren eta honen baitako mugimenduen barne bilakaeran edota Rafael Díaz Salazarrek azaldutako kristautasunaren eta ezkerrean arteko harremanean ikusten ahal da. Bigarrenei dagokionean, frankismoaren bitarteko langile mugimenduari buruzko bibliografia zabalean, paper hau militante katolikoek CCOO mugimenduari egindako antolakuntza eta kultura ekarpenetan ikusten ahal da bereziki. Esate baterako, José Babianok militante katolikoek CCOO jatorrian izan zuten ezinbesteko papera azaldu izan du eta Xavier Domènechek, erakunde hauetan gizarteratzen zen kultura kristau berriak langile mugimenduaren kultura politikoari egindako ekarpena. Ez dira inolaz ere bakarrak. Egun, frankismoaren garaiko langile mugimenduari buruz topatzen ahal dugun lanetan, batez ere tokian-tokiko azterketatan, erakundeetako militanteen presentzia, ezinbestean nabarmentzen da.

<sup>817</sup> Nafarroan, apostolutza mugimendu sekularrak izan ziren, "hasiera batean, borroka klandestinoaren eta langile protestaren eskema berri baten itxuratzean garrantzia izan zutenak". Emilio Majuelo, "Movimientos sociales y..." Op. Cit., 309 orr. Zentzu honetan burutu zuen José Elena Santamaría Blascok Nafarroako mugimendu hauei buruzko azterketa sakon bat Emilio Majuelo irakasleak zuzendutako "Iglesia y movimiento obrero navarro en los años 60" lizentziatura memoria. Argitaragabea, autoreak berak utzita.

kristau baten sorrera, garapena eta gizarteratzea gertatu baitzen. Apostolutza mugimendu sekularrek, 50 eta 60. hamarkadetan, militanteen formakuntzaren eta errealitate politiko zein sozialaren eraldaketarekiko konpromisoaren alde egin zuten HOAC, JOC eta jesuiten Vanguardias bezalako erakundeak, Iruñerriko langile klasea sortu zen zirkuiturako sarbide goiztiar bihurtuz.

Oraingoan ez dugu apostolutza mugimendu hauen jatorri, garapen eta jarduerari buruzko azterketa sakon bat egingo. Egun badaukagu jada mugimendu hauek orokorrean edo banaka, estatu mailan edo tokian-toki aztertzen duten bibliografia zabal bat: Feliciano Monteroren Espainiar Elizaren eta Acción Católicaren bilakaerari buruzko lanak; Basilisa Lópezen HOACaren historia; Enrique Berzalen Gaztela eta Leongo HOACaren inguruko tesia zein Apostolutza mugimendu sekularrei buruzko argitalpen ezberdinak; eta orokorrean, mugimendu hauei buruz burutu izan diren bestelako azterketa edo hurbilpen txiki edo zabalak ere<sup>818</sup>. Nafarroako mugimenduen kasuan, José Elena Santamaría Blascok jada zehaztasunez aztertu izan ditu hauen sorrera eta bilakaera<sup>819</sup>. Hortaz, ikerketa guzti hauek jada jasotzen dituzten euren historiaren eta bilakabidearen xehetasunetan sartu nahi izan gabe, guk egindako azterketa, mugimendu hauek zirkuituaren sorrerari eta garapenari eginiko ekarpenak azaleratzera bideratu da.

### 5.3.1 Acción Católica eta Acción Católica Obrera

II. mundu gerraren ostean, falangismoak indarra galdu eta ministro katolikoak geroz eta eragin handiagoa lortzen ari ziren kontestu batean, Elizak, Acción Católicaren eragina sendotzeko aukera izan zuen. Adibidez, lan munduko zein unibertsitateko mugimendu espezializatuak berrantolatuta, gizarte giro garrantzitsuetan bere presentzia egonkortzeko aukera izan zuen. Acción Católica Elizaren eragingune sozial nagusienetarikoa batean bilakatu zen, haren baitan aurreko atalean ikusi dugun espainiar Elizaren bilakaera bereziki ikusgarri egingo delarik. Eliza 60. hamarkadan hasi zen erregimenarengandik nabarmenki aldentzen baina 50. hamarkadaren bitartean jada, urrutze horren lehen zantzuak somatu ziren, batez ere Acción Católicaren Ingurunean. Izan ere, urte haietan erakundearen baitan agertzen hasi ziren hainbat jarrerak, aldaketa garrantzitsua gertatzen ari zela iragartzen zuten. Arazo

---

<sup>818</sup> Feliciano Montero, *La Acción Católica y el franquismo: auge y crisis de la Acción Católica Especializada en los años sesenta*, UNED, Madril 2009 eta *La iglesia: de...* Op. Cit.; Basilisa López García, *Aproximación a la historia de la HOAC, 1946-1981*, HOAC, Madril, 1995; Enrique Berzal de la Rosa, *Del Nacionalcatolicismo a la lucha antifranquista. La HOAC de Castilla y León entre 1946 y 1975*, Pedro Casas Sotok zuzendutako doktore tesia, Valladolideko Unibertsitatea, Filosofia eta letren Fakultatea, 1999, *Sotanas rebeldes: contribución cristiana a la transición democrática*, Valladolideko Diputazioa, Valladolid, 2007 eta hainbat artikulua, adibidez, "Cristianos en el 'nuevo movimiento obrero'", *Historia social*, 54. zkia, 2006, 137-156 orr., "Católicos en la..." Op. Cit. edo "Movimientos seculares en el tardofranquismo y la transición", *Gerónimo de Uztariz*, 28/29. zkia, 2012/2013, 49-94 orr. Ikusten ahal denez, HOACa izan da espezifikoki gehien landu izan den mugimendua. Aipatu mugimendu hauei buruz burutu izan diren aipatu bestelako azterketa edo hurbilpen txiki edo zabalaren artean aipatzekoak dira, besteak beste, Fernando García de Cortázar, "La cruz y el martillo. La resistencia obrera católica", Javier Tusell, Alicia Alted eta Abdón Mateos (koord), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madrid, 1990, 129-147 orr. eta JOCen kasu espezifikoan, adibidez, Jesús González de la Cruz, "Del compromiso social al obrerismo nacionalista: la JOC durante el franquismo en el País Vasco", *Vasconia*, 30. zkia, 2000, 273-281 orr. edo "Una crisis continuada: la transición de la JOC durante los años setenta", *Aportes. Revista de Historia contemporánea*, 45. zkia, 2001, 77-90 orr. eta Florentino Sanz Fernández, "La aportación de la JOC a la cultura obrera y a la formación de militantes para el movimiento obrero", *XX siglos*, 22. zkia, 46-60 orr.

<sup>819</sup> Aipatu lizentziatura memorian oinarrituta, José Elena Santamaría Blasco, "Movimiento obrero apostólico..." Op. Cit.

sozial ezberdinen inguruko salaketak, Erakunde Sindikalari eginiko kritikak edota 1957ko apostolutza sekularren nazioarteko biltzarrean espainiar ordezkariak hizpide izandako paternalismoaren berrikuspina edota konpromiso sozialerako hurbilketa izan ziren, besteak beste, jarrera hartze berrien artean adierazgarrienak. Aldaketa txikiak izan ziren, baina garrantzi handikoak frankismoaren aurkako militantzia katolikoarengan, kritika politikoaren aurretik beti kritika soziala ematen dela kontutan hartzen badugu<sup>820</sup>. Inflexio-puntua 1959 eta 1960 urteetan gertatu zen, Acción Católicaren estatutuen erreforma gauzatu zenean eta honekin mugimendu espezializatuen ereduari bide eman zitzaionean.

Acción Católica Obrera (HOAC eta JOAC gizon zein emakumezkoen adarretan), Acción Católica orokorraren bilakaera honen eragile nagusienetariko bat izan zen. Erakunde hauek, Acción Católicaren baitako jarrera hartze berriak agertzen lehenbizikoak izan ziren, hauen bidetik laster obrerismorako bidea hartuko zutelarik. Bilakabide honek, 50. hamarkadan zehar Acción Católica Obreraren taldeak langile errealitatean erabatean murgildu zirelarekin izan zuen zerikusirik. Hamarkadaren amaieran eta Juan XIIIaren Mater et Magistra entziklikaren atarian, talde hauetako hainbat elementu, Elizaren doktrina sozialaren tradiziozko interpretazioaren irakurketa kritikoa egiten hasi zen eta honek 1959ko Egonkortze Planaren kostu sozialak salatzea eta orokorrean sistema ekonomikoa eta honek sortzen zituen desoreka sozialak kritikatzera eramán zituen. Mentalitate aldaketa honek, Acción Católica orokorraren egituren berrikuntza behartu zuen nolabait eta mugimendu espezializatuak gailentzen zituzten estatutu berrien eskutik, Acción Católica triunfalista batetik, Acción Católica espezializatu eta konprometitu baterako eraldaketa gauzatu zen.

60. hamarkadan, espezializazioaren bidetik, Acción Católicako mugimendu desberdinek funtsezko jauzi kualitatibo bat eman zuten: berauetan parte hartzen zuten elementuei zegokienean, bazkidea militante bihurtu zen; formakuntza metodoei zegokienean, ikasketa zirkuluek bizitza berrikusteko metodoari tokia egin zioten; eta apostolutza jarduerari zegokionean, parroketako jarduerari lotutako erlijio, katekesi zein asistentziatzko zerbitzuak, arazo errealean aurreko ekintza sozialerako konpromiso egin ziren<sup>821</sup>. Jarraian azalduko dugun apostolutza mugimendu sekularren bilakaeran, aldaketa kualitatibo hauek oso presente egongo direla ikusi ahal izango dugu.

### 5.3.2 Apostolutza Mugimendu Sekularrak. Jatorria.

Acción Católica Obrera berriaren jaiotza, gerraren ostean, oso helburu argia izan zuen: lan munduan Elizaren eragingune bat errotzea. Errepublikaren eta gerraren garaian langileriak orokorrean azaldu zuen Elizarekiko ezinikusia eta antikerikalismoa atzean utzi nahi baziren eta langileen Elizatiko urrutiratzea gainditu nahi bazen, ezinbestekoa zen Acción Católica Obrera suspertzea. Hori bai, suspertze honek arrakasta izateko, oraingoan, aurreko gizarte erakunde katolikoaren orientazio paternalista alde batera utzi eta euren lanari zentzu berri bat eman behar zitzaion. Acción Católica Obrera, hartara, egiazko langile edukietan oinarrituta berrosatu zen. HOAC honen adibide adierazgarria izan zen, erakundea laster, langile izaera argia azaltzeagatik bereizi egin baitzen: langile kontzientzia katoliko, eliztar eta antikapitalista berri baten oinarriak ipini zituen eta langile zintzoaren eta klaserik gabekoaren militante katolikoaren irudiarekin amaitu zuen, langile izatearen duintasun erradikala azpimarratzean oinarritzen zen langile santutasun eredu berri bat proposatuz<sup>822</sup>. Izaera obrerista honen garapenak harreman zuzena izan zuen erakundearen hastapenetan gailendu ziren militante

<sup>820</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 63 orr.

<sup>821</sup> Jauzi kualitatibo horretan bat datoz bai Enrique Berzal, *"Movimientos seculares en..."* Op. Cit., 50 orr. eta baita Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 64 orr.

<sup>822</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 67 orr.

garrantzitsuenek agertu zituzten profilekin. Jacinto Martín anarkista eta CNTko militante ohia zen; Julián Gomez del Castillo ere anarkista zen; Teofilo Perez Rey alderdi komunistan ibilitakoa zen; eta Tomas Malagón, marxismoa ezagutzeaz beste, PCEko militante ohia zen ere<sup>823</sup>. Ezkerreko langile erakundeetako militante izandakoak ziren eta haien eskutik, langile mugimendu tradizionalaren esperientzia ezberdinak iritsi ziren HOACera. Guillermo Rovirosaren figura ere funtsezkoa izan zen erakundea langile edukien bidetik eramateko, bere pentsaera sozialetik eratorri baitziren, HOACaren obrerismoari oso berezkoak izan zitzaizkion komunitarismoaren ideia edota enpresa lan sozietate anonimo gisara kudeatzeko jomuga.

1946an Madrilen HOACa sortu eta diozesi desberdinetara hedatzeko saiakera egin zenean, Sixto Iroiz elizgizonak hartu zuen Iruñean HOACaren lehen nukleo bat sortzeko ardura. Iroizek ordurako Acción Católicako kideez osatutako "Pan y Catecismo" kooperatiba zuzentzen zuen hemen eta hura abiapuntutzat hartuta, lehenbiziko komisio diozesiarra sustatu zuen San Lorenzo parrokiako zentroan, bera lehen kontsiliaria izan zelarik<sup>824</sup>. Hemendik aurrera mugimendua Iruñerriko beste parrokiatara, bereziki langile auzoetako eta udalerrietako parrokiatara, zabaltzen hasi zen 50. hamarkada osoan zehar. 1963rako, HOACa, nolabaiteko industria jarduera zegoen Nafarroako gunen gehienetan presente zegoen. Ordurako militanteak berrehun inguru ziren eta kideak, berrehun eta berrogeita hamar inguru. Jarraitzaileak kontutan hartuta, 1965ean, bi mila berrehun pertsona inguruk jasotzen zuen Nafarroan erakundearen buletina, kopururik handiena estatu mailan Bilbokoaren ostean<sup>825</sup>.

Iruñekoa erakunde heterogeneoa izan zen hastapenetatik. Lehen militanteen artean administrazio langileak, langile kualifikatuak eta erdi eta are goi mailako ikasketak zituzten teknikariak aurkitzen ahal ziren peoi eta langileekin batera<sup>826</sup>. Honek era berean, ikusmoldeei zegokienean, profil desberdinduko militanteak (kontserbadoreagoak edo obreristagoak) izatea eragin zuen. Alta, jatorri komuna zuten orokorrean, Acción Católicaaren inguruetatik zetozen ("*garai hartan guztiak Elizaren seme-alabak*" ginelako<sup>827</sup>) eta ez zuten aurreko esperientziarik jarduera politiko edo sindikalean<sup>828</sup>. Militantziaren erakarpena, erlijioari lotutako esparruetatik, abiatuta egin zen, Acción Católica bera, erregimenaren gizarte erakundeetatik kanpo formatzeko eta harremanak izateko esparru bakarrenetariko bat zen heinean, jakin-nahiak zituen elementu ororentzat erakargarria gertatzen zelako. Honekin batera, zentro parrokiak, berauetan antolatzen ziren jarduera, bilera zein ikastaroen bitartez eta "Adoración Nocturna" bezalako bestelako elkarte erlijiosoek, lehen momentuko HOACeko militantzia hura gorpuztu zuten.

<sup>823</sup> Basilisa López García, "Discrepancias y enfrentamientos entre el estado franquista y las asociaciones obreras católicas", *Anales de Historia Contemporánea*, 5. zkia, 1986, 177-187 orr., 181 orr.

<sup>824</sup> Lehenbiziko komisio diozesiarra 1946ko azaroaren 27an sortu zen eta lehendakari batek, idazkari batek, diruzain batek eta beste bost batzordekidek osatu zuten. Bilera eratzaile hartan, prentsan eta irratian taldearen sorreraren berri emango zutela eta HOACa eta bere militanteak jendaurrean aurkezteko bilera bat deituko zutela erabaki zen. "HOAC Pamplona. Acta constitucional", Zuriñe Sainz Pascualek utzitako dokumentua. Ikusi ere José Elena Santamaría Blasco, "Movimiento obrero apostólico..." Op. Cit., 702 orr.

<sup>825</sup> Datuak, José Elena Santamaría Blasco, "Movimiento obrero apostólico..." Op. Cit., 703 orr.

<sup>826</sup> Aniztasun hau ere, 60. hamarkadako militante nabarmenduen artean nabaria izango zen, hauen artean profil desberdinak bereizten ahal direlarik: Luis Donazar Diputazioko langilea zen, J.M.M. eta E. A. fabrikako langileak, Cecilio Goñi komertzio bateko enplegatua, J.L.A bulegoko enplegatua eta M.A.M., kimika teknikaria. 827 J.M.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-04

<sup>828</sup> Salbuespenak egon ziren. Francisco Sánchez Cortázar, HOACeko militante izan zena eta erakundearen hainbat esparruetan aktiboki parte hartu zuena (Langileentzako Ikasketa Taldeetan -hemendik aurrera GOES-, esateko), PCEko militantea zen.

JOC langile gazte mugimenduak, Acción Católica Obreraren baitan izan zuen jatorria ere. HOACaren bidea jarraituz, Acción Católicaren egituren barnean, langile gazteen talde antolatuak sortzen hasi ziren, JOAC siglen pean. Ordurako jada, bazegoen gazteria katolikoa biltzen zuen nazioarteko apostoluzta mugimendu bat, JOC, Joseph Cardjin apaizaren eskutik 1919an Belgikan sortu zena. Siglen desberdintasunak ordea bi gazte mugimenduak bereizi egiten zituen, espainiar erakundearen “A” horrek, Acción Católica orokorrekiko menpekotasun zuzena adierazteaz beste, nazioarteko erakundearekiko loturagabetasuna adierazten zuelako. Horregatik hain zuzen ere, Acción Católica orokorrak ipintzen zituen mugak gainditu eta nazioarteko JOCarekin zuzeneko harremanak izateko, JOACaren egituretatik kanpo talde autonomoak sortzen hasi ziren. JOACeko kontsiliario izendatua izan zenean, Mauro Rubiok, nazioarteko erakundearekiko harremana sustatu eta estutu egin zuen, espainiar erakundeak, europar Acción Católica espezializatuaren eredura gerturatzearekin, haren izaera eta metodologia barneratzeko aukera izan zuelarik. Bide honetan JOAC siglek “A” hori galdu zuten eta diozesi desberdinetan barreiatuak zeuden talde autonomoak, espainiar JOC berriaren egituretan txertatu egin ziren. 1956tik aurrera, JOC espainiarrak bere lehenbiziko urratsak eman zituen, langile gazteen artean euren lan eta gizarte arazoekiko kontzientzia hartzea sustatzeko helburuarekin.

Iruñean, Acción Católica Obreraren barneko JOAC egitura bat existitu egin zen 50. hamarkadaren lehenbiziko urteetan. Haren ekintza, langile gazteen bizitza fabrikaren, familiaren eta aisialdiaren alorretan bideratu nahi zuten ekintza espiritualetan baino ez zen oinarritzen. Aldi berean, egitura hauetatik kanpo talde autonomoak sortzen hasi ziren, zentro parrokialetatik abiatuta, baina baita ikastegi erlijiosoetan eta eskola profesioaletan ere. Imenasa enpresako eskola profesioalean sortu zen taldearen kasua izan zen. Aurreko atalean ikusi dugunez, 50. hamarkadaren erdialdean, Imenasako eskola profesioaleko azken urteko zenbait ikastun, erakundeko bi militanterekin harremanetan hasi ziren, apostoluzta mugimenduetan interesa zuen eskolako apaiz baten eskutik. Militante hauek ikastunei hastapen ikastaro bat eman zieten eta honek gazteen jakin-nahia piztu zuen, 1958/1959 ikasturtean, fabrikatik eta eskolatik kanpo biltzen hasi zen taldetxo bat sortu zutelarik. Talde autonomo bezala funtzionatu zuen azkenean JOC siglak zituen egitura diozesiarrean txertatu zen arte. Imenasako taldeko lehenbiziko kide haien artean C.A. zegoen, industria teknikaria eta marrazkigilea, Nafarroako JOACeko militante nabarmenduenetariko bat izango zena. Ordutik aurrera, JOC Nafarroan errotzeko, hau da, antolakuntza egiturak sendotzeko, militanteak erakartzeko eta langile gazteen erreferentzia puntu bilakatzeko, ahaleginak egin ziren<sup>829</sup>.

Acción Católica Obreraren egituretatik at, jesuitek Vanguardias Obreras bezala ezagutu ziren apostoluzta mugimenduak sortu zituzten. Goiztiarra gazteen Vanguardia izan zen, VOJ, 1954ean jaio zena. Iruñean, Kale Nagusiko jesuiten Zentro Marianoan sortu zen. Bertan emigranteentzako eta eskola goizei utzi behar izan zuten langileentzako gaueko eskolak ematen ziren, hauei lehen mailako ikasketa titulua zein kontabilitate edota mekanografia tituluak lortzeko aukera ematen zitzaielarik. Matrikulak prezio murriztua zuen eta ikasturte amaieran, arrazoirik gabe huts egin ezean, ikasleei honen dirua itzultzen zitzaien. Vanguardias erakundeetako lehen militante nukleoak, hein handi batean, eskola hauetan sortutakoak izan ziren. Eskola hauen jardura berez jesuiten langile adarretatik at gauzatzen bazen ere, honen eragina eskolatan ibiltzen ziren ikasleengan nabaria zen. Alde batetik, atsedendaldietan edota larunbateko otoitzetan, formakuntza hitzaldiak ematen zitzaizkien, non

---

<sup>829</sup> Iruñeko JOACaren jatorriaz gehiago, José Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 706-707 orr.

lankideekiko elkartasuna bezalako jarrerak errota eta protesta edota aldarrikapenerako gogoia pizten zitzairen, haiengan nolabaiteko jakin-nahia sortzeko asmoarekin. Bestetik, Zentro Marianoak berak antolatzen zituen aisialdirako jarduerak, hots, mendi taldeak edota kirol zein pilota partiduek, ikasleen eta langile adarreko elementuen arteko harremanak garatzeko aukera ematen zuten, eragin hura esparru informalogetan gauzatuz<sup>830</sup>. Honek, eskola Vanguardias mugimenduekin eta Vanguardias mugimenduak eskolarekin lotzen zituen sareak sortu zituen. Berauetan adibidez, Adolfo Goñi Ayestarán Aita, eskola hauetako zuzendaria eta VOJ mugimenduko kontsiliaria, konexio puntu garrantzitsua izan zen. Mugimendua, Zentro Marianoak antolatzen zituen jardueretan ibiltzen ziren elementuekin eta beste esparru batzuetan, adibidez eskola profesionalean, sortzen ziren taldeekin gorpuztu zen.

HOAC eta JOC mugimenduekin alderatuta, VOJeko militanteek, profil homogeneoagoak agertu zituzten hasieratik. Gaueko eskoletako ikaslegoaren ezaugarriekin bat eginez, Vanguardias mugimenduetako lehen militanteak, orokorrean, peoiak eta kualifikatu gabeko langileak ziren, HOAC eta JOCen, hauekin batera, bulegoko langileak, langile kualifikatuak eta are teknikariak ere aurkitzen ahal ziren bitartean. Homogeneotasun nabariagoak, langile errealtatearen egoera gordinekiko harreman zuzenagoak eta jesuitek euren militanteei ematen zieten askatasun handiagoak, VOJeko militanteak goiz erradikalizatzen eman zituen, 60. hamarkadaren hasieran militante talde batek Acción Sindical de Trabajadores talde sindikala sortu zuen arte. Hala ere, VOJek 60. hamarkada osoan zehar jarraitu zuen langile gazteak erakartzen eta militantzia talde berriak sortzen.

50. hamarkada apostolutza mugimenduen sorreraren eta euren mailaz mailako ezarpenaren aldia izan zen. Goiztiarrena izaterakoan (1946), HOACa izan zen hamarkada osoan nolabaiteko jarduerak bat, ahula lehenbiziko urteetan eta garatuagoa 1956tik aurrera<sup>831</sup>, izan zuena. JOC eta Vanguardias mugimenduak hamarkadaren erdialdera abian jarri zirenez, euren presentzia urte hauetan oraindik oso txikia izan zen. Guztiarekin ere, hamarkada osoan zehar apostolutza mugimendu ezberdinen jarduerak jarraitu bat ikusten ahal da (bilerak, Acción Católica Obreraren egunaren edo San José Artesano egunaren ospakizunak, lehenbiziko formakuntza ikastaroak<sup>832</sup>). Arina zen oraindik, baina erakundeok 60. hamarkadan zehar biziko zuten hazkunde eta garapenaren oinarriak ipini zituen.

### 5.3.3 Apostolutza mugimenduen urrezko aroa: “Konpromiso mundutarraren” aldia

---

<sup>830</sup> Iruñeko VOJen jatorriaz gehiago, José Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 710 orr.

<sup>831</sup> Adibidez, prentsan, orduan aurrera Iruñeko HOACak formakuntza ikastaroen eskaintza nabarmenki areagotu zuela ikusten ahal da berauetan izena ematera deitzen zuten iragarkien maiztasunaren bitartez.

<sup>832</sup> 50. hamarkadaren bitartean mugimendu hauek Iruñerrian izan zuten presentzia azalera, 2010. urtean, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Geografia eta Historia Departamentuko “Arazo politiko eta sozialak Europako historian” Doktoretza programaren baitan eta Emilio Majuelo irakaslearen zuzendaritzan pean, egin genuen *Langile klasearen konformazioa. Iruñea 1950-1962: hurbilpen bat* ikerlanaren helburu nagusienetarikoa bat izan zen. Horretarako erakunde hauek orduko prentsan izan zuten presentzia aztertzen. Honela, HOACaren bilera eta ikastaroen iragarkiek edota zenbait ospakizunen harira (Acción Católica Obreraren eguna, San José Obrero taldeen urteroko gau bilera edota San José Artesanoren jaia) antolatzen ziren ekitaldi publikoen kronikek, gehiegi nabarmen ez zen jarduerak bat utzi zuten agerian; baina era berean, erakundeok presentzia erreala jarraitu bat izan zutela baieztatzen zuten ere.



60. hamarkadaren hasieran, Idoia Estornés gaztea Nafarroako Unibertsitatean ikasteko Iruñera iritsi zenean, borborrean zegoen giro sozial bat topatu zuen hiriko apostolutza mugimenduetan: *“Ez zen zaila Acción Católicaren gazteria sailetan edota HOACen moduko guneetan babes hartzea. Ezkerreko kristauak ziren; katolizismo soziala, “anarko-kristau-komunistak” Xabier Escaladaren hitzetan, Felipeen eta Comínen haztegia. [...] Nafarroako anarko-kristau-komunista haiek Vatikanoko Ilaren uholdea hartuta zuten, [...] Espainiako, Italiako edota Hego Amerikako beste edozein txokotan ematen ari zenarekin erkatzen ahal zen eraberritzean murgilduta zeuden. Haietariko asko frankismotik zetorren; 1936an armak hartu zituzten boluntarioen seme-alabak ziren. Mezako gazteak ziren, baina Elizaren eta estatu totalitarioaren arteko aliantza arbuizatzen zuten. Santos Beguiristain jaunaren gizonezkoen Acción Católicaren aldia atzean geratzen ari zen, neskek jada ez zuten emakumezkoen adarretan sartu nahi, neska-mutilen taldeak nahi zituzten”*<sup>833</sup>. Momentu hartan, erakunde haiek berezko garapen prozesu batean murgilduta zeuden, euren “urrezko aroa” bizitzen.

60. hamarkada apostolutza mugimendu sekularren hazkunde garaia izan zen. HOAC, JOC eta Vanguardias erakundeak egonkortu eta euren jardura biziagotu egin zen, eurak gizartean eta langile munduan zuten presentzia biziki indartu zelarik. Espezializazioaren eredia lehenesten zuen 50. hamarkadaren amaierako Acción Católicaren estatutuen erreformak honekin zerikusirik izan zuen, mugimenduon dinamikan aldaketa garrantzitsuak eragin baitzituen. Acción Católica espezializatu berriaren metodologiak (bizitza berrikusteko metodoa, inkesta) adibidez, militanteen artean errealitatearen zuzeneko ezagupena, ebanjelioaren behetiko irakurketa, bestelako militantziekiko harremana eta erakunde katolikoez kanpoko konpromisoen hartzea sustatu zituen, haiengan jarrera eta balore berriak errotuz. Hauen zabaltzea gainera ez zen soilik erakundeetako militanteen artean egin eta orokorrean langileriarengana eta gizartearengana iritsi zen ere, kontzientziazio eta mobilizazio prozesua herritarrak abiatuaraziz. Zentzu honetan, 60. hamarkadaren bitartean, apostolutza mugimenduetan ibiltzen ziren Elizaren barneko sektoreak erregimenarengandik aldentzen ziren bitartean, HOAC, JOC eta Vanguardias, langile militantiaren eta militanzia antifrankistaren erreferentziazko gune bihurtzen ari zirela esan daiteke. Mugimendu hauek eta euren militanteak, hartara, funtsezko piezak izan ziren frankismoaren bitarteko langileen protestaren abiaraztean eta langile mugimenduaren antolakuntzan. Horregatik, gure zirkuituaren baitan funtsezko pieza dira ere. Izan ere, hauek, subjektu askorentzat, lehenbizi, sozializatorako egiazko esparru eta Iruñerriko langile mugimenduaren egitura antolatuetarako sarbide izan ziren; gero formakuntza sozial eta politikoa jasotzeko eskolak izan ziren; eta azkenik, errealitatea aldatzeko konpromiso aktibora, hots, fabriken baitako mugimenduak eta protestak sustatzera, sindikatuak sortzera eta alderdi politikoetan parte hartzera, eraman zuten plataformak izan ziren.

Sarritan, apostolutza mugimendu sekularrak Espainia autoritarioaren baitan egiazko askatasun esparruak izan zirela esan ohi da<sup>834</sup>. Are gehiago, garai hartan mugimendu hauek sindikalismoa, politika eta are marxismoa ezagutzeko eta langileriarekin, haren errealitatearekin eta haren klase izaerarekin topo egiteko esparruak izan zirela nabarmentzen da ere. Baina lehenik eta behin, HOAC, JOC eta

---

<sup>833</sup> Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 167-168 orr. Gizonezkoen Acción Católica zuzentzen zuen Santos Beguiristain, jardura erlijioso eta kulturalen sustatzaile izateagatik (Oberena elkarrean sortzailea izan zen) ezaguna izan baino lehen, 30. hamarkadan, Azagrako parrako izandakoa zen. Bertan, Errepublikaren aurkako proselitismoa egiteagatik eta gerra zibilean bizilagun errepublikanoen kontrako errepresioan parte hartzeagatik nabarmendu zen.

<sup>834</sup> Enrique Berzal, “Movimientos seculares en...” Op. Cit., 58 orr.

Vanguardias bezalako erakundeak, topaguneak izan ziren, harremanak egiteko, hitz egiteko, irakurtzeko, hausnartzeko eta eztabaidatzeko guneak. Diktadurak onartzen ez zituen bestelako esparruen faltan, hauek, jende andana biltzen zuten euren ingurura eta honek, pertsonak, materialak eta edukiak gizarteratzeko eragile ezin hobean bihurtzen zituen. Izan ere, berauetan, “*neska-mutilek norberaren hobekuntzaz, bidezko soldatez, gizarte misioaz hitz egiteko, irakurgaiez eta zinemas eztabaidatzeko, mendi txangoetara joateko, aukera izan zuten*”, eta bertan “*espero ez zuten irekitasun*” giro bat topatzen zuten<sup>835</sup>.

Giro hartan sekulako pisua zuten apostolutza mugimenduek formakuntza baliabideen eta berezko argitalpenen bitartez gizarteratzen zituzten obrerismo, sindikalismo eta antikapitalismo kutsua zuten edukiek eta diskurtsoek. Honekin batera, giro hauetara euren esperientzia sindikalista, komunista, sozialista edota anarkista eramaten zuten elementuen nolabaiteko joan-etorria ematen zen ere. Guzti honek, apostolutza mugimenduak igarobide esparru bezala itxuratu zituen nolabait, berauetan langileek, gazteek eta militanteek elkartzeko, hitz egiteko, irakurtzeko eta are egitura antolatuagoetara sartzeko aukera topatzen baitzuten.

### *Sozializatorako esparru, zirkuiturako sarbide*

Apostolutza mugimenduei lotutako langile erakundeak erreferentziazko sozializatorako esparru bezala eraginkorrak egin zituen faktoreetariko bat, euren jarduerak dimentsio ludiko bat bazuela izan zen. Aisialdiaren, kirolaren edota kulturaren alorreko ekintzak sustatzearekin, bereziki JOC eta VOJ, parte hartzeko gune desberdinak eskaintzen zituzten, “[*HOAC eta JOCen egoitzetan*] *jarduera kultural guztietan parte hartzen genuen, zineforumetan (ni oso aktiboa nintzen hauetan), antzerki eta musika jardueretan... hau da, Iruñean burutzen zen jarduerak kultural orotan, han geunden gu*”<sup>836</sup>; honekin eraginguneak zabaltzeko, hau da, langilego gaztearengana iritsi eta militantzia berriak abiarazteko, nukleoak ezarri ahal izatean zituztelarik. Zentzu honetan, dimentsio ludikoko jarduerak hauek erakunde hauetarako sarbidea izan ziren maiz. M.G.-k esaterako, dantza talde bat izan VOJ-erako sarbide bezala: “*ni eskolan nintzela emakume bat etorri zen [...] eta esan zigun ba ea dantzak ikasi nahi ote genituen; eta niri dantza egitea beti asko gustatu izan zaidanez, ba dantza haiek ikasteko izena eman nuen. [...] Dantza haietatik abiatuta, ba hasi ginen... zentro batean bilera informalak, ludikoak egiten. Zentro Marianoan ziren, kale Nagusian. Han ere mendi talde bat zegoen, Orhymendi, eta orduan, ba mendira joaten hasi ginen ere. Eta horrela hasi nintzen ni komunitate kristauekin, Vanguardia Obrera Juvenil zuten izena”; P.O.-ek, igandeko Zentro Marianoko zinema emanaldiak: “*ni San Antón kalean bizi nintzen eta Zentro Mariano kale Nagusian zegoen eta orduan ba, bertara joaten ginen zinemara, igandean Vanguardiasetako jendeak pobreontzako zinema ematen zuelako, ezta? umeentzako zinema. Orduan bertara joaten hasi ginen eta orduan, hor ere mendian ibiltzen zen jendea, bazegoela ikusten zenuen. Orduan bertan maiz ibiltzen hasten zara, lagunak egiten dituzu... eta orduan noski, mugimendu horretan [Vanguardiasetan] sartzen zara*”<sup>837</sup>.*

JOCek ere langileria gaztearengana gerturatzeko bideei garrantzi handia ematen zien eta ekimen edota jarduerak mota desberdinak aurreikusitako zituen hari zenbait esparru partizipatibo eskaintzeko helburuarekin: antzerkia, irtenaldiak,

<sup>835</sup> Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 306 orr.

<sup>836</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

<sup>837</sup> M.G.-ri eta P.O.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2011-06-09 eta 2013-02-06, hurrenez-hurren.

guatequeak, disco-forumak, meriendak, kanpaldiak...<sup>838</sup>. 1964/1965 ikasturtean adibidez, euskal JOCaren gazteen sailak batzorde desberdinen sorrera proposatzen zuen halako esparruak sortzeko: elkarreak sortzeko batzordea, hitzaldiak antolatzeko batzordea, zine-forumaren batzordea, esku-pilota partidua prestatzeko batzordea edota irtenaldien batzordea ziren, besteak beste, adierazgarrienak<sup>839</sup>. 1971. urtean Nafarroako JOCak militantzia berriak erakartzeko burutu izan zituen jardueren artean, halako esparruekin zerikusirik zutenak nabarmendu ziren eta militanteek, alfabetatze eskolak sortu zituzten, adinduentzako zein neska-mutilentzako klubak sustatu zituzten, gazte-asteak eta hitzaldiak antolatu zituzten eta antzezlanak eszenaratu zituzten<sup>840</sup>. Ekimen guzti hauekin JOCaren eragina gazteriaren artean bideratuko zuten harremanak egitea eta sareak sortzea bilatzen zen.

JOCak, militantzia berriak abiaraztearren, bereziki hiru girotan garatu zuen halako jardura bat: langile auzoetan, eskola profesionaletan eta lantokietan<sup>841</sup>. Hirurak langile presentzia handiko erdiguneak ziren eta jada berauetan murgilduta zeuden militanteen ekintzaren bitartez, hauen baitan erakunderako sarbide puntuak sortzerik bazegoen. Lehenbiziko bi giroetara, hots, langile auzoetara eta eskola profesionaletara, nola edo hala, gerturatu gara aurreko kapituluan eta aurreko atalean, hurrenez hurren. Eskola profesionalak adibidez, militante berriak erakartzeko funtsezko guneak ziren gazte sektore oso garrantzitsuak biltzen zituztelako. Ikusi dugun bezala, Iruñeko eskola profesional desberdinetan, apostolutza mugimendu desberdinen taldeak sortu ziren, bai erakundeetako militanteen zuzeneko esku-hartzearen bitartez eta baita berauetako irakasleen ekimenez ere. Imenasako eskolan adibidez, Iruñeko JOC talde goiztiarrenetariko bat sortu zen. Langile auzoei dagokienean, zentro parrokialak JOCeko militanteen ekintzarako gune nagusienak izan ziren. Berauetan lan egiten zuten taldeek komunitatearen arazoak aztertzen zituzten, gazte-asteak eta hitzaldiak antolatzen zituzten eta are gazteentzako elkarreak eta zentroak sortzen zituzten ere. Lantokirako hurbilpena, aurrerago egingo dugu fabrika berezko esparru bezala aztertzen dugunean.

Iruñean jesuitek babesten zuten Zentro Marianoa izan zen apostolutza mugimendu sekularrek, Vanguardiasek kasu honetan, erreferentziazko sozializatorako esparru fisiko eta funtzional gisara izan zuten betekizunaren adibide adierazgarriena. Jarduera mota ezberdinak eskaintzen zituen langileentzako berezko esparru izatearekin batera, Vanguardias mugimenduen militantziarako sarbide izan zen, gerora are Nafarroako Comisiones Obreras sortu zutenen lehenbiziko elkargunea izatera iritsi zelarik:

Garai hartan [60. hamarkadaren hasieran] langile erakundeak mugitzen edo sortzen ari ziren hiru esparru edo erdigune zeuden. Haietariko bat jesuitek babesten zuten: Zentro Marianoa. Zentro Marianoan mendi sail bat zegoen, musika sail bat, mutil koxkorrei alfabetatze eskolak ematen zitzaizkien gauean... beno, eta jardura kultural asko egiten ziren. Baina Zentro Marianoaren baitan, bazegoen nukleo bat, itxiagoa, berez erakunde erdi-klandestino bat zena

---

<sup>838</sup> Hauek ziren Espainiako JOCaren Ikasturteko Plangintza batean proposatzen ziren eragingune posibleak. "Plan del curso. Análisis del punto B" (datarik gabe). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak, 76. kutxa.

<sup>839</sup> "Campaña. Último comité ejecutivo. Curso 1964/1965". AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. kutxa.

<sup>840</sup> "Navarra. Iniciación (1971)". AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>841</sup> JOCaren inimiziazorako hainbat plan desberdinetan, bereziki hiru esparru hauek nabarmentzen dira, adibidez: "Reunion de dirigentes de la JOC de la zona vasca", AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. Kutxa edota "La importancia de la iniciación", AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. Kutxa.

eta langile mugimenduaren antolakuntza sustatzen ari zuena. AST deitzen zen, Acción Sindical de Trabajadores [M.BU.. Nafarroako CCOOeko lehen nukleoko kidea]

Zentro Marianoa jarduera biziko esparrua zen. Mota askotariko ekintzak burutzen ziren bertan, aipatu gaueko alfabetatze eskoletatik hasita, izaera ludikoagoa zuten mendi irtenaldietara, ekimen kulturaletara edota zinema emanaldietara iritsi arte. Horrek hasierako erreferentzialtasun bat ematen zion langileen topagune bezala. Baina Zentro Marianoa, zentro “ludiko” bat baino askoz gehiago zen. Vanguardias mugimenduak bertan zuen egoitza eta bilerak bertan burutzen zituen. Adolfo Goñi Aitaren eskutik hainbat esparru edo girotan abiatu ziren taldeak eta bestelako gazte militanteak, adibidez, zentroan elkartzen ziren. Bilera haiek, ebanjelioa hizpide hartuta eta bizitza berrikusteko metodoan oinarrituta, langileen arazoez mintzatzeko eta hauen inguruko kezkak partekatzeko, hauei aurre egiteko ekintzak proposatzeko, langile mugimenduaren historia ezagutzeko, marxismoa aztertze eta politikaz eztabaida egiteko egiazko esparruak izan ziren, gure subjektuetariko nahikotxok are euren kontzientziak esnatzen hasi ziren tokizat jotzen dituztelarik:

Vanguardia Obreran, nik gogoratzen dudala, astero bilera bat egiten genuen, han, kale Nagusian, Zentro Marianoan elkartzen ginen, Elizaren lokal batean [...] Zentro Marianoa gazteentzako lokal bat zen eta bertan gazteentzako ekintzak, Elizari lotutakoak, burutzen ziren. Baina guzti horren erdian, jesuita bat egon zen, ba [...] Vanguardia Obrera sortu zuena, ba hortik biltzen zituen gazte guztiekin ezta? eta orduan hor, hor egoten ginen, lokal horretan. Askotan joaten ginen, nik gogoratzen dudala, astero bilera bat zegoen, beti mezaren baten, arrosario baten edo halako gauzaren baten aitzakiarekin.... Baina gero ez genituen halako gauzak egiten, apaizarekin egoten ginen badaezpada, baina beste gauza batzuek mintzaten ginen, bera [apaiza], ezta? oso gizon oldarkorra zen [...] Orduan hara, bertan egotera joaten zinen [...] goizean lan egiten zenuen eta arratsaldean Zentro Marianora joaten zinen eta han batekin eta bestearekin mintzaten zinen [...] fabrikaz, egoera politikoaz, genuen askatasun irrikaz eta ez dakit zer gehiagoz... gauza haietaz, ba... Pariseko 68ko maiatzaren berri han izan genuen, han, Vanguardian. [JE.C.. VOJeko militantea]

Kale Nagusira [Zentro Marianora] joaten hasi nitzen eta han bilerak egiten genituen, han marxismoaz eztabaidan aritzen ginen, sekulakoak ikusi behar, Elizaren erakundeak marxismoaz hitz egiten... [J.S.M.. VOJeko militantea]

[hemen] [...] kezka horiek lantzen hasi ginen, gure artean bilerak eginez eta arazo sozialen inguruan arituz, urte haietan bizi genuen oinarritzko askatasunen faltaz mintzaten...pixka bat helduagoak ginenean Frantziako 68ko iraultzari buruzko istorioak entzuten genituen eta oso garrantzitsuak ziren ere orduko Vietnameko gerraren aurkako mugimenduak... hau da, gauza guzti horiek hemen zentsuratuta zeuden arren... ba hori [hemen lantzen genituen] Orduan hor ere, talde hauek [Vanguardias] beste jarduera asko barne hartzen zituzten, hau da, adibidez bazegoen mendizalea zen jende talde bat, gero haiek ere jakin-nahi sozialak zituzten eta hori. “Orhymendi” taldea sortu zuten. Gero ere fabrika desberdinetako langileak elkartzen ziren. Eta gu, oraindik oso gazteak ginen arren, nolabaiteko harremana genuen beraiekin. Orduan noski, guztion artean harremana genuen eta erlazioak sortzen ziren. [PA.S. kidea]

Vanguardias mugimenduko hainbat elementuk AST talde sindikala sortu zutenean, Zentro Marianoa fabrika desberdinetan mugitzen hasiak ziren langileentzako erreferentzia puntu bihurtu zen. Ikusiko dugun bezala, langile hauek bertan burutzen zituzten bilera haietan, Nafarroako Comisiones Obrerasen jatorrizko nukleoa osatu zen, Zentro Marianoa, komisioren mugimendurako sarbide nagusienetariko bat izan zelarik. Ildo horretan, zentroak langileen sozializaziorako esparru bezala eta zirkuiturako sarbide bezala izan zuen erreferentziazko papera, Vanguardias mugimenduetan ibili ez baina aipatu bilera hauetan parte hartu zuten langileen kasuetan egiten da bereziki ikusgarria. Granadan jaio, 60. hamarkadaren erdialdean Gipuzkoatik Iruñera etorri eta “antolakunderik gabeko” komunista zen M.BU.-k, Zentro Marianoan aurkitu zuen mugitzen hasteko aukera bakarra: *“Tailer batean hasi nintzen lanean eta han apaiz izateko ikasten ibilitako mutiko bat ezagutu nuen eta*

*haren bitartez, nolabait, Zentro Marianoarekin harremanetan jarri nintzen [...] Orduan hara joan nintzen eta ni, ba, nahiz eta ez nintzen... kristaua nintzen hala behartuta, mundu guztia bezala, baina ez nintzen praktikatzailea, ez dut jakingoarengan sinesten, uste osoko ateoia naiz... baina aurkitu nuen [esparru] bakarra izan zen, [lankideak] esan zidan "oye, pues como a ti te gusta esto, pues allí estarás bien" eta orduan hara joaten hasi nintzen. Eta egia esan, oso harrera ona egin zidaten"*<sup>842</sup>. Antzeko zerbait gertatu zitzaion A.H.R.-i. 60. hamarkadaren erdialdean Jaendik etorri zen, aldez aurreko nolabaiteko militantzia komunistaren esperientzia zuela. Haren Jakin-nahiak bideratzeko bestelako esparruen faltan, Zentro Marianoko bileretara joaten hasi zen, lan egiten zuen fabrikako lankide baten eskutik. Gogoratzen duenez, bertan hasi zen jada zenbait manifestazioetatik ezagutzen zuen jendearekin harremana egiten eta komisioen mugimendura gerturatzen<sup>843</sup>. I.B.-k, VOJeko militantea zen Imenasako eskola profesionaleko ikaskide baten bitartez izan zuen Zentro Marianoaren eta bertan burutzen ziren bileren berri. Berak ez zuen inoiz mugimenduan parte hartu nahi izan euren izaera erlijiosoarekin ez zuelako inolaz ere bat egiten, baina langileen bileretara joatea onartu zuen, aurreko kasuetan bezala, hauen bitartez Comisiones Obrerasen dinamikan bete-betean sartu zelarik<sup>844</sup>.

### *Militanteen formakuntzarako eskolak. Metodologia eta edukiak*

Apostolutza mugimendu sekularren urrezko aroa, Vatikanoko II. abiatutako eraberritzearen goren aldiarekin batera gertatu zen. Kontzilioak berekin ekarritako orientabide berriek, bestelako sineskizun erlijiosoekiko eta korrante filosofikoekiko tolerantzia eta interesa kasu, aurretik jada abian zen langile mundurako gerturatzea ahalbidetu zuten. Honek, Elizaren baitan esplotazio kapitalistaren, desoreka sozialen eta justiziarik gabeko egoeren aurrean ikusmolde desberdinak bazirela agerian utzi zuen. Apostolutza mugimenduek Kontzilioaren uholdea hartu zuten, Elizaren berriztatzearen adierazpen nagusienetarikoa bat izan zirelarik. Berauetan, ikuspegi berri hauek, formakuntzaren bitartez barneratu ziren. Formakuntzarako elementu ezberdinak (metodologia, formakuntza planak eta lan materialak), hartara, eduki eta diskurtso berriak gizarteratzeko tresna eraginkorrenak izan ziren.

Apostolutza mugimenduak, frankismoaren amaierako eta trantsizioaren garaiko sindikatuetako eta langile alderdietako lider, erdi mailako koadro eta militante asko formatu zituzten egiazko eskolak izan ziren. Gure protagonistetarikoa asko berauetatik igaro zen<sup>845</sup> eta hauen metodologian eta diskurtsoetan oinarritutako formakuntza jasotzeko aukera izan zuen. Esperientzia formatibo honetan, militanteek metodoaren garrantzia nabarmentzen dute maiz. Hura, ebanjelioaren beheko irakurketatik abiatuta, errealitatea aztertzeko metodo bat zen, militanteak zuzenean konpromiso eraldatzaile bat hartzera eramaten zituen. Metodo horren arabera errealitatea ezagutzeak, militanteek fedea, erlijioa eta kristautasuna ulertzeko modu berri bat bereganatzea eta problematika soziopolitikoak ikusmolde berrietatik begiratzea eragin zuen, formakuntzarako metodologia hori euren kontzientziak astintzeko ezinbesteko elementua izan zelarik:

Ni HOACen sartu nintzen eta HOACen sartu bezain laster ba hori Acción Católicako gazteria sailarekin zerikusik ez zuelaz konturatu nintzen [...] kontrakoa zen, HOACen sartu nintzen egun berean konturatu nintzen horretaz... gainera niri asko gustatu zitzaidan. Galtzerdi bat hartu eta y hari buelta ematea bezalakoa izan zen, ba ni hogeita hamar urtetan zehar izandakoaz hustu egin behar nintzen. Erabatean hustu eta orduan, behin hutsik nengoela, beste gauza bat izaten hasi. Eta noski, nik ordura arte bizi nuen kristautasuna ez zitzaidan ezertarako balio, hori fedea

<sup>842</sup> M.BU.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-05-20.

<sup>843</sup> A.H.R.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-08-19.

<sup>844</sup> I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olaz, 2011-08-02.

<sup>845</sup> Aurrerago ikusiko dugu, euren ibilbide militanteak aztertzen ditugunean

baino ez zen, sinestu behar zenuela esaten zizutelako sinesten zenuen, baina ez zinen gai zure kabuz inolako hausnarketarik egiteko, ezin zenuen zalantzan jarri... HOACen jasotzen genuen formakuntza erabat desberdina zen. [E. A.. HOACeko militantea]

hortik aurrera, ba langile klasearekiko konpromisorako bokazioa garatzen joan zen gugan; hau da, langile klasea zer zen, langile mugimenduak zer ziren, sindikatua zer zen, sindikalismoa zer zen... ezagutu genuen [...] orduan, nola esango nuke? Ba gugan norberaren garapena erdiesteko eta lankideek euren garapena lor zezaten laguntzeko kezka handitzen joan zen. Orduan azterketak egitetik abiatzen ginen: zein arazo ikusten genituen gure inguruan, nola laguntzen ahal genuen, nola juzgatzen ahal genituen gure arazoak, zeintzuk ziren kausak, zeintzuk ondorioak... [...] garai hartan "bizitza berrikuspenean" esaten genion [C.A.. JOCEko militantea]

Bizitza berrikuspenearen metodo honek jarrera eta balore aldaketa garrantzitsu bat ekarri zuen berekin. Arazo errealean ezagutza, ebanjelioko balioen lehentasuna, erakunde katolikoetatik kanpo konpromisoak hartzea edota bestelako militantziekin harremanak egitea izan ziren, besteak beste, honek militanteengan errotu zituen manera berriak. Bizitza berrikusteko metodoa taldeka eta bilera parte-hartzaileetan gauzatzen zen eta berauetan, militanteek, elkarrekin, inkesa delakoaren emaitzak azaltzen eta eztabaidatzen zituzten. Inkesta berez bizitza berrikuspen hori egiteko tresna zen. Militanteak zuzenean euren hurbileko errealitatean eta arazoetan murgiltzea zuen helburu eta horretarako, Behatu, Juzgatu eta Ekin printzipioa erabiltzen zuen. Errealitate hura arretaz begiratzea (Behatu), balio ebanjelikoaren arabera aztertzea (Juzgatu) eta errealitate hori bera eraldatzeko konpromisoak hartzea (Ekin)<sup>846</sup>, subjektu askok euren kontzientzien iratzartze prozesuan ibili zuten bidea izan zen:

[...] langilea pentsatzen jartzen zuen. Orduan [horrek] [...] bete ninduen... metodoak bete ninduen. Parrokia bakoitzaren inguruan talde bat zegoen, ezta? sistema zen... bizitza berrikuspenean gauzatzea, ezta? bizitza berrikuspenean zen ba... Behatu, egitate bat behatzea; Juzgatu, eskuartean genituen liburuetan agertzen zen ebanjelioko testuren baten argitan juzgatzea; eta Ekin. Orduan militantearen konpromiso mundutarra iristen zen. [J.M.M.. HOACeko militantea]<sup>847</sup>

Behatu, behatu egoera bat aztertzea da, behatu; Juzgatu eta gero, Ekin. Eta [printzipio] horrekin edozein gauza aztertzen genuen. Adibidez, gogoratzen dut behin ¡Hola! aldizkaria aztertu genuela *Behatu, Juzgatu eta Ekin* horrekin. Ea ba, aldizkari horrek zer esaten dizue? Behatu; gero juzgatu, zer iruditzen zaizue aldizkari hori?; eta gero ekin, ekin... aldizkari horiek guztiak pikutara! Ez erosi inoiz; eta gainera begira, bete egin dut, ez dut inoiz bat bera ere erosi. [P.L.. JOCEko militantea]

---

<sup>846</sup> 1964ko abenduaren 9, 10 eta 11an burutu zen ikastunentzako ikastaro batean, modu honetan azaltzen zen bizitza berrikuspenean zer zen eta Behatu, Juzgatu eta Ekin metodologia nola erabili behar zen: "Zer ematen digu bizitza berrikuspeneak? Behaketarako gogoia, bizitzaren aurreko errealismoa, gauzak sakonean ikusteko gaitasuna [...], Jainkoa lagun hurkoarengan ikustea, jarduteko indarra. Metodoa. Nola egiten da bizitza berrikuspenean? Gertaeren azalpena: hauek xumeak, zehatzak, errealak, gure bizitzakoak edo gure ingurune hurbilekoak izan behar dira [...] gertaeren azalpen sakona: [protagonistaren] adina, tokia, [protagonistarekin batera gertaeran] parte hartzen duten [beste] pertsona[ia]k, zenbait eta zein pertsona izan dira gertaeraren lekuko, guzti hauen eta baita militantearen gertaeraren aurreko erantzuna [...] Arrazoiak: pertsonalak, familiarak, kulturalak, erlijiosoak, sozialak. Ondorioak: langile gaztearentzat, beste pertsonentzat (lekuko izan direnentzat), militantearentzat. Judizio kristaua: zer uste dut nik honi buruz? Zer uste du Kristok? Zein izango zen Kristoren jokabidea? (ebanjelioaren parabola). Ekin: hau da parterik garrantzitsuena, izan ere, ongi behartu eta juzgatu arren gero ezer egiten ez badugu, kritikatzailerik hutsak baino ez gara izango. Konpromisoak hartu behar ditugu". "Cursillo para aprendices (1965)", AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>847</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Iruñea, 2010-03-04.

[HOACaren metodoa] zen egitate bat behatzea [...] eta gero ebanjelioaren argitan juzgatu behar genuen, dena ebanjelioaren argitan, Kristok momentu horretan pentsatu edo egingo zuenaren arabera. Eta gero ba ekin, beti ekintza bat egiteko konpromisoa hartu behar zenuen [...] Orduan hortik datorren formakuntzaren ondorioz, gutxika borroka eta kontzientziario espirtu bat jabetzen da zutaz eta egiten duzun guztia, gutxi iruditzen zaizu; eta gainera honek geroz eta [konpromiso] gehiago exijitzen dizu, zenbat eta gauza gehiago egin, orduan eta gehiago exijitzen diozu zeure buruari. [E. A.. HOACeko militantea]

Bitzta berrikuspenak langile bizitzaren aspektu desberdinen inguruan egiten ziren: aisialdiaren eta heziketaren inguruan, auzoaren eta auzo bizitza zein arazoaren inguruan eta batez ere, fabrikaren eta lanaren inguruan. Azken alor honi dagokionean adibidez, militanteek euren enpresan bizi zituzten egoera desberdinak aztertzen zituzten eta azaleratzen zituzten patroien paternalismoa eta lankideen norberekoitasuna edo elkartasunik eza bezalako jarreretatik hasita, pairatzen zituzten bidegabekerietara iritsi arte, lan harremanak eta lan baldintzak kritikoki juzgatzen zituzten. Halako berrikuspenak, fabriken baitan, aldarrikapen, protestarako eta langile auto-antolakuntzarako abiapuntu bihurtu ziren maiz:

Ba ni, hamazazpi urterekin JOCen, Juventud Obrera Católica, agertu nintzen, ezta? [...] eta orduan [han nintzela] hasi ziren aldarrikapenez hitz egiten, jendea ezin zela esplotatu, komunak eta halako gauzak behar bezala izan behar genituela [...] eta metodoa oso ona zen, nik inon ez dut halako azterketarik egin. Guztiak elkartzen ginen eta, zer gertatzen da zuren enpresan? Adibidez, ba komunak hola edo hala daudela... eta zergatik daude komunak horrela? Eta zergatik...? Orduan esaten zenuen, kontxo! Orain hau eta hau egin behar dugu... [...] eta konprometitzen zinen, eta zerbait egiteko konpromisoa hartzen zenuenean, egin behar zenuen [...]. [R.U.. JOCeko militantea]

Vanguardia Obrerak JOCaren antzeko dinamika zuen. Taldeka biltzen ginen, hamar-hamabost pertsona, eta arazoak aztertzen genituen... bertan azaltzen zirenak, arazo horiek aztertzen genituen [...] aztertzen genituen eta saiatzzen ginen... saiatzzen ginen... beno, ni saiatzzen nintzen ebanjelioko ikuskera bat ematen... baina beno, normalean, ikuspuntu marxista batetik egiten genituen azterketak, ezta? klase borrokaren ikuspuntutik. Arazo zehatzak aztertzen genituen, batzuetan familia arazoak ere aztertzen genituen... baina beno, ba [gehienetan] fabrikaren, lanaren, arazoak ziren. Eta orduan ba hortik, ondorioak ateratzen ziren eta gero ba, konpromisoak hartzen ziren... konpromiso zehatzak. ba, ez dakit... "Mira, tú tienes que hablar con fulanito o con menganito. Tienes que decirle al jefe o tienes hacer..." edo are konpromiso handiagoak hartzen ziren, fabrikaren edo tailerren batean egiten ahal zen grebaren bat aztertzea, esateko. [M.P.. Apaiz langilea]

Ebanjelioa, kristautasuna, erlijioa... aztertzen genituen, baina... konpromiso sozialaren ikuspuntutik, ez aberatsik eta ezta ere pobrerik egon behar ez zelaren ikuspuntutik. Han hasten zara nolabaiteko kontzientzia hartzen. Eta gero fabrikara zoaz; eta zuk jada baduzu kontzientzia bat justiziaz, berdintasunaz... eta hasten zara ikusten [fabrika] zer den eta hasten zara zenbait lankiderekin hitz egiten, batzuk HOACen daude, beste batzuk JOCen... mugimendu kristauak guztiak, baina konprometituak. Orduan han [fabrikan] elkarretaratzen hasi ginen eta geroz eta gehiago konprometitu ginen. Hasi ginen gauzak proposatzen: bazkariarena, ordutegiarena, garbitasunarena... [M.G.. VOJeko militantea]

Bitzta berrikusteko metodoaren lorpen handienetariko bat militanteak euren langile esperientziaz eta langileriaaren egoeraz kontziente egitea izan zen. Kontzientzia hartze oso berezia izan zen gainera, honek berekin topatutako egoera hura aldatzeko nahia ekartzen baitzuen. Izan ere, klasearen promozio kolektiboa jomugan, konpromiso hura, langileen garapen materiala (lan baldintzen, auzoen biziegokitasunaren edota oinarrizko zerbitzu sozialen hobekuntza) eta kulturala (formakuntza sozial eta politikoa, pentsamendu kritikoaren garatzea) sustatzea bilatzen zuen praxi batean gauzatzen zen. Zentzu honetan, metodoak, militanteengan esperientziatik ekintzara eramaten zituen eta errealitate soziala eraldatzeko konpromiso gogotsu batean hezurramitzen zen kontzientzia eraldatzaile bat errotzen zuela esan daiteke.

HOACak adibidez, militanteen formakuntzarako berezko tresnak, metodologia honetan funtsatu zituen. Haien artean oinarritzkoenak, bere lan metodoak ezagutzera ematen zituzten abiatze ikastaroak izan ziren. Garatu izan zuen formakuntza lan sistematikoaren adierazlerik nagusiena ordea, “plan zikliko” delakoa izan zen. Formaren aldetik, “plan ziklikoa”, langile militanteak formatzeko ikasketa plan bat zen, hiru urteko iraupena zuen eta aipatu bizitza berrikusteko metodotik eta inkestaren metodotik abiatuta, doktrina, erlijio eta gizarte gai ezberdinen inguruko azterketa eta hausnarketa egitean oinarritzen zen. Edukien aldetik, Elizaren tradiziozko doktrina sozialaren irakurketa obrerista eta kritikoa bat egiteko gida zen. Planaren helburua, aldi berean kristaua eta langilea zen mistika eta espiritualtasun berezi bat militantearengan errotzea zen<sup>848</sup>.

Apostolutza mugimendu sekularrek, euren burua, hezkuntza mugimendutzat jotzen zuten nolabait. Azken batean, mugimendu politikoak, sindikalak eta herritarrak elikatuko zituzten militanteak (askeak, euren berezko iritzien arabera jarduten zutenak, konprometituak, kristauak, langileak) formatzea zuten helburu. JOCak esaterako, formakuntzarako bokazioa erakundearen izaerari berezkoa zitzaiola nabarmentzen zuen haren “misioa” zein zen azaltzen zuen aldiro: “*JOCa formakuntza eskola bat da, kideen arazoan aurreko ekintzaren bitartez, langile gazteak euren bizitzaz, duintasunaz eta bokazioaz kontzientzia hartzea, euren erantzukizunez jabetzea egiten duena eta bizitzarekiko konpromiso bat hartzea eramaten dituena. JOCak ere, iragana, oraina eta etorkizuna juzgatzen duen arlo sozial, politiko, ekonomiko, sindikal, kultural eta erlijiosoko formakuntza teorikoa ematen die ere langile gazteei*”<sup>849</sup>. Kontzientziaren eta konpromisoaren bidetik borroka politiko, sindikal eta herrikoietan parte hartu zuen militante katoliko andana ikusita, apostolutza mugimenduen formakuntza lan honek egiatan arrakasta izan zuela ondorioztatzen ahal da.

Bai HOACek eta baita JOCek langile militanteak espezifikoki gai sindikal, sozial, ekonomiko eta politikoen analisisan eta berezko alternatiben sorreran formatzeko esparru bereziak izan zituzten ere. Erabatean teorikoa zen formakuntza jasotzen zen haietan eta sindikalismoari, langile mugimenduaren historiari, munduan ziren sistema ekonomiko ezberdinen azterketari edota pentsamendu korrante desberdinei, are marxismoari, lekua ematen zitzaaien berauetan. HOACak GOES taldeak martxan jarri zituen eta JOCek Eskola sozialak. Esparru hauek, nolabait, langile erakunde tradizionaleri berezkoak zitzaizkien funtzio garrantzitsuak bereganatu zituzten: langileen eta euren esperientzien bateragune izateko betekizunetik hasita (langile militante historiko anitz erakarri zituzten), langile kontzientzia sortu eta hedatzeko betekizunera iritsi arte.

Lehenbiziko GOESak 40. hamarkadaren amaieran abiatu ziren, gai desberdinen inguruko hausnarketak egiteko esparru izateko. Lehen momentu haietan, militante buruei zuzendutako buletinean proposatzen ziren inkestak hizpide, lantzen ziren gaiak enpresaren erreforma, produkzio bideen jabetza, enpresa kapitalisten aurreko alternatibak edota kooperatibismoa ziren lantzen ziren gaiak. Hasiera batean ez zuten garapen handiegirik izan eta 50 hamarkadan zehar, euren egoera ahuldu zen. Baina 60. hamarkadaren hasieran berpiztu egin ziren eta arazo sozialak aztertzeke guzuz gisara sendotu ziren. Hiru talde mota desberdinetan banatuta (sindikala, herritarra eta ekonomikoa), militante batzuk lan munduko gaietan espezializatu ziren, beste batzuk gai soziopolitikoetan eta azkenekoak auzi ekonomikoetan. Hirurak langile klasearen arazo nagusiei irtenbide ematea zuten jomuga. Adibidez, 1962 eta 1967

<sup>848</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 71 orr.

<sup>849</sup> “Misión de la JOC (1972)”. AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.



urteen arteko ikasturteetan GOESetan landu ziren gaiak, “Kontratazio kolektiboa eta jabetza”, “Udalerrria, familiez osatutako unitatea”, eta “Enpresaren izateari buruko azterketa”; “Sindikatu langile borrokaren baitan”, “Indar ideologikoak”, eta “Egungo ordena ekonomikoa (garapen plana); “Egungo sindikalismoaren ezagutzan sakontzeko ikastaroa”, “Problematika herritarrean murgiltzeko ikastaroa” eta “Sistema ekonomiko desberdinetan sakontzeko ikastaroa”; “Sindikatuan, erakunde politikoetan eta ekonomian gizarteratzea” izan ziren<sup>850</sup>.

1964/1965 eta 1966/1967 ikasturteen bitartean, hiru adarretako hogeita zortzi talde inguruk funtzionatu zuen Nafarroa osoan. Horietatik hamalau, GOES Sindikalak ziren<sup>851</sup>. Azken hauetan arreta jarri nahi izan dugu bereziki, bai hemen eta baita estatu mailan ere ugarienak izateaz beste, militanteen langile izaerarekin lotura zuzenena zutenak zirelako nolabait. HOACaren artxibategian GOES guztien datu fitxak eta taldeek lan egiteko gidatzat erabiltzen zituzten galderei emaniko erantzunak eskuragarri daude. Iturri hauei esker, Iruñean funtzionatu izan zuten hainbat GOES sindikal azaleratu ahal izan ditugu. El Salvador izenekoak 1962/1963 eta 1966/1967 ikasturteen bitartean jarduera jarraitua izan zuen. Erabatean Arrotxapea auzoko militanteek osatzen zuten eta haien artean gerora, diktaduraren azkeneko urteetan, Iruñeko udalean zinegotzi izango zen Juan Manuel Perez Balda zegoen<sup>852</sup>. San Andrés izenekoak Atarrabian zuen egoitza eta goiztiarra izan zen ere. 1963/1964 ikasturterako martxan zegoen eta 1966/1967 ikasturtera arte egon zen jardunean. Kideen artean Luis Donazar zegoen, Iruñeko HOACeko figura aipagarrienetariko bat eta hemengo USO sindikatuko sortzaileetariko bat<sup>853</sup>. 1964/1965 ikasturtean San Cristóbal izena zeraman GOESa, bere kideengatik da bereziki esanguratsua. Taldearen arduraduna Miguel Ángel Muez zen. HOACeko itzal handiko militantea zen, Sindikatu Bertikalean ordezkaritza karguak betetzen zituen eta 1966tik aurrera, Iruñeko Udaleko zinegotzia izango zen. Harekin batera, Sindikatu Bertikalean ordezkaritza karguak betetzen zituen eta USOk militante izango zen José María Monreal; Sindikatu Bertikalean ordezkaritza karguak izan zituzten José Ramón Lebrón eta Agustín Zárraga; 1966tik aurrera Iruñeko Udaleko zinegotzi izango zen José Antonio López Cristóbal; eta 60. hamarkadaren bitartean Nafarroako PCEaren erreferentziatzeko figura izango zen Francisco Sánchez Cortázar militante komunista aritu ziren<sup>854</sup>.

GOESen bilakaerak autoritate frankistengan kezka sortu zuen, *“pasa den urtetik, 63tik, ari dira jardunean eta 64ean, marxismotzat jotzen ahal den desbideratze ideologikoa ezagutu dute, ahal duten neurrian gure sindikatuak erasotu eta behetik botatzen dituztelarik. Etorkizunera begira, egiatzki arriskutsuak izan daitezke, gure*

<sup>850</sup> Basilisa López García, *Aproximación a la...* Op. Cit., ikusi 164. oin oharra, 103-104 orr. GOESei buruz gehiago, Basilisa López García, “La formación y el análisis social en el Movimiento Obrero Católico bajo el franquismo”, *XX siglos*, 22.zkia, 1994, 69-86 orr.

<sup>851</sup> Zortzi GOES Herritarrak ziren eta sei GOES ekonomikoak. Nafarroako GOESen fitxak (GOESaren izena, mota, identifikaziorako kodea eta zentroa, hala nola taldeko kideen izenak zehazten zituztenak) kontsultatu ondoren lortutako datua. 1954/1966-1966/1967 denbora tarteko nafar GOES fitxa guztiak, Zuriñe Sainz Pascualek bilduak eta utziak. Archivo HOAC-HOACaren Artxibategia (hemendik aurrera, AHOAC-HOACA), GOES saila, 78. kutxa.

<sup>852</sup> 1962/1963 ikasturteko jarduera, GOESak ikasturteko lehen gaiaren galdetegiari emandako erantzunak aurkitu ditugulako baieztatu ahal izan dugu. AHOAC-HOACA, GOES saila, 74. kutxa. Haren jarduera jarraitua izan zela, aipatu fitxen bitartez ikusten ahal da. Gainera berauetan kideen helbideak azaltzen direnez, hauek Arrotxapeako bizilagunak zirela eta hauen artean Juan Manuel Perez Balda egon zela zehazteko aukera izan dugu.

<sup>853</sup> 1963/1964 ikasturteko jarduera, GOESak PEOaren (sic) galdetegiari emandako erantzunak aurkitu ditugulako baieztatu ahal izan dugu. AHOAC-HOACA, GOES saila, 75. kutxa. Haren jarduera jarraitua izan zela eta Luis Donazarrek parte hartu zuela, aipatu fitxen bitartez ikusten ahal da.

<sup>854</sup> GOES hau 194/1965 ikasturtean osatu zuten kideak, aipatu fitxetan zehazten dira.

*sindikalisten gelditasuna kontutan hartuta, eurak, bere bizitasun eta prestakuntza etengabearekin, gure sindikatuak apurtzen ahal dituen bultzada izan baitaitezke*<sup>855</sup>; formakuntzarako erreminta bezala, eduki zabaltzaile bezala eta korronte zein elementu anarkisten, sozialisten eta komunisten topagune bezala lortzen ari ziren hedaduraren seinale.

GOESen antzera, JOCaren eskola sozialak koadro militanteen formakuntzarako guneak izan ziren ere. 60. hamarkadaren erdialdean jaio ziren, Ricardo Alberdi apaiz gipuzkoarraren eskutik. Honek, militanteek jada fabriketan, sindikatuetan edota auzoetan gauzatzen zuten jarduera osatzearen, ideologiaren eta sistemen inguruko gaietan sakontzeko ikasketa taldeak sortu zituen. Militanteen lan eguna amaitutakoan eta are asteburutan biltzen ziren eta sistema sozioekonomikoak, sindikalismoa, demokrazia eta SESB, Txina edota Jugoslaviako eredu sozialistak aztertzen zituzten. Eskolan, alde aurretik banatutako eta landutako oharren inguruan eztabaidatzen zen, gaietan sakontzeko hitzaldiak ematen ziren eta bukatzeko, solasaldi bat egiten zen. Hiru mila militante inguru ibili zen eskola hauetan, beste askori, zeharka, aipatu oharren kopiak iritsi zitzaizkien bitartean. Horregatik, kristautasunetik hasita eta marxismora iritsi arte, ideia desberdinen dinamizazioarako eta sozializazioarako tresna oso eraginkorrak izan zirela esan daiteke<sup>856</sup>.

C.A., aipatu Iruñeko JOCeko militante nabarmendu bat, eskola hauetan parte hartu zuen, hemen ere halako formakuntzarako nukleoak existitu egin zirela agerian utziz: *“Eskola sindikal bat sortu genuen, Ricardo Alberdi izena zuen apaiz euskaldun baten pentsamenduan oinarritutako eskola sozial bat; orduan Ricardo Alberdik egin zuen lana... Setienen, Setien apezpikua, laguna zen... Setienena eta Abaituarena. Hirurak etorri ziren... 59an edo horrela, gobernuaren egonkortze planaren garaian. San Nicolás elizan hitz egin zuten eta eliza langileez gainezka zegoen. Eta hauek izan ziren elkartasunaz, lagun hurkoarekiko maitasunaz eta holakoez definizio jakinak eman zituztenak, orduko Espainiako egoera sozial eta ekonomikotik abiatuta [...] orduan taldeka biltzen ginen... talde horietan ekonomia jugoslaviarrari buruz, langile kontseilu errusiarrei buruz... eztabaida egiten genuen. Bakoitza bere taldea zuen, etxeetan, zentroetan eta hortik barreiatua biltzen ziren taldeak; noizean behin, bilera batean elkartzen ginen eta Ricardo Alberdi etortzen zen, hausnarketak komuneean jartzen genituen, hitz egiten genuen [...] langile kulturarekin eta are kultura politikoarekin zerikusirik zuten jarduerak planteatzen ziren... bai, politika ikastaro bat eman genuen ere*<sup>857</sup>. Militante askorentzat autogestioa, sozialismoa eta demokrazia bezalako kontzeptuak aurkitzeko esparru izan ziren heinean, hauek kontzientzia sindikal eta politiko jakin bat barneratuz joan ziren halako eskoletan. C.A.-en esperientziarekin jarraituz: *“[...] hasieratik autogestioak erakarri ninduen gehien... orduan sistema ekonomikoak, politika eta sindikalismoa lantzen genituen. Autogestioa izan genuen hizpide 1971tik aurrera... abangoardiako ideologia bat ez izatearen konplexua genuen eta bete-betean murgildu ginen autogestioan, sozialismo demokratikoa egiteko bidean; Jugoslaviako kasua, Poloniako langile kontseiluak, Argelia... aztertzen genituen. Teoria sozialista demokratikoa eta langile botereari buruzkoak pisu handia zuten*<sup>858</sup>. Eskola hauetatik igaro izana, garaiko

<sup>855</sup> Jaso, Alberto Sabio Alcutén, *Peligrosos demócratas. Antifranquistas vistos por la policía política*, Cátedra, Madril, 2001, 67 orr.

<sup>856</sup> Patxi Abasolo, David Mendaza eta Joxerra Bustillo, *Nuestro mayo rojo...* Op. Cit., 489 orr.

<sup>857</sup> C.A.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-10.

<sup>858</sup> Chema Amigoten hitzak, jasoak, Antonio Martín Artiles, “Del blindaje de la sotana al sindicalismo aconfesional (breve intrroducción a la historia de la Unión Sindical Obrera, 1960-1975). Origen de la USO”, Javier Tusell, Alicia Alted eta Abdón Mateos (koord), *La oposición al régimen de Franco, II*. Liburukia, UNED, Madrid, 1990, 165-188 orr., 171 orr.

borroketan eta langile erakunde politiko zein sindikaletan parte hartu zuen elementu ugari komunean izan zuten esperientzia izan zen.

### *Formakuntzarako eta kontzientziaziorako bestelako elementuak*

Formakuntzarako erraminta guzti hauekin batera, apostolutza mugimendu sekularrek, bestelako elementuak izan zituzten langileengan langile kontzientzia sortzeko eta errotzeko. Zentzu honetan nabarmentzekoak izan ziren, adibidez, HOACeko hainbat militanteren eskutik jaio zen eta izaera obreristadun testu ugari argitaratu zituen ZYX argitaletxea eta mugimendu guztiek sustatu zuten eta langileek publikoki euren langile izaera azaltzeko eta aldarrikatzeko balio izan zuen maiatzaren leheneko ospakizunaren berreskurapena.

60. hamarkadaren hasieran, jarrera hartze obreristago eta konprometituago batetarako HOACaren bilakaera agerikoa zen. 1962ko grebetan erakundeko militanteek izan zuten parte hartzea honen adierazleatariko bat izan zen. Erakundea hartzen ari zen bidearen aurrean Elizako hierarkiak, lehenago edo geroago, haren jarduerari mugak jarriko zizkiola pentsatuz, Tomás Malagón kargugabetua izan ondoren, HOACeko buru nabarmenduenak, inolako interferentziarik gabe lanean jarraitzeko esparru bat izatearren, argitaletxe bat sortu zuten. Sozietate anonimo gisara eratu zuten, militanteak berak akziodunak izan zirelarik<sup>859</sup>. Acción Católicaren egituretatik kanpo jarduten zuen. Beraz, haren babesa galdu zuen, baina hierarkiaren kontrolpean ez egotearen mesedetan. Honek, militanteak HOACen burutzen zuten formakuntza eta kontzientziazio lanak jarraipena izatea ahalbidetu zuen, orain testuen argitalpenaren bitartez, ideia ekonomikoen, politikoen eta sozialen hedapena egiten ahal zelako. Proiektuak emaitza onak izan zituen, sozialismoaren, anarkismoaren, marxismoaren, Espainiako eta nazioarteko langile mugimenduaren historiaren eta Roviroso bezalako HOACaren pentsamenduaren aitzindarien testu klasiko eta dibulgatzaileen zabalkuntza eginez, kultura langile eta herrikoi bat zabaltzen lagundu baitzuen.

ZYXek argitaratu zituen lan esanguratsuenen artean, Guillermo Rovirosak idatzi zuen “¿De quién es la empresa?”; Julián Zugazagoitiaren “Pablo Iglesias, de su vida y de su obra” klasikoaren berrinprimatzea; Ángel Pestaña eta Juan Gómez Casas autore libertarioen testuak; eta Eskandinaviako sozialismoari buruzko, Kubako nekazal iraultzari buruzko, Israelgo kibbutzei buruzko eta Jugoslaviako zein Txekoslovakiako autogestioari buruzko liburuak izan ziren esanguratsuenak. Honekin batera, Julián Besteiro errepublikazalearen alargunak haren “Marxismo y antimarxismo” lanaren egile eskubideak eman zizkion eta Ciprinano Mera lider anarkosindikalistak, bere artxibategia eskaini zion<sup>860</sup>. Argiki ezkerreko bideratutako katalogoa zen, argitaletxeak gizarteratu nahi zituen ideia eta pentsamendu korronteak zeintzuk ziren iragartzen zuena.

HOACaren propaganda eta militante sarearen parean garatuta, liburuaren eta liburuxken zabalkuntza egiteko martxan jarri zen azpiegitura, langileak eta langile kultura baten oinarriak barne hartzen zituen sare bihurtu zen<sup>861</sup>. C.B. sare honetan sartu zen. Erronkarin jaioa, Bartzelonara joan zen ikasketak burutzera. Han,

<sup>859</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 131 orr.

<sup>860</sup> ZYX argitaletxeak argitaratu zituen lan eta autore esanguratsu gehiago, Rafael Díaz Salazar, *Nuevo socialismo y cristianos de izquierda*, HOAC, Madril, 2001, 56 orr.

<sup>861</sup> J. M. M.-ek adibidez, argitaletxearen liburuak gizarteratzeko, Iruñeko HOACeko militante talde batek kalean mahai bat jartzen zutela eta bertan liburuak lau pezetatan saltzen zituztela gogoratzen du. J.M.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-04.

ZYX, militantzia soziopolitikorako eta berezko langile kultura baterako ateak zabaldu zizkion esparrua izan zen:

Ni argialetxe batean hasi nintzen, ZYXen [...] bertan HOACetik zetorren jendea zegoen, ezta? Elizako hierarkia [jende hau] gehiegi lotzen hasten da, ba plataforma independente bat sortzen dute, ZYX argialetxea. Eta horretan hasten naiz pixka bat, ezta? nire lehenbiziko esperientzia han da... eta gainera ez nuen dirurik kobratzen, liburuak saltzen nituen... motozikleta bat nuen, liburuak saltzeko saltoki bat eta han jartzen nintzen, botatzen ninduten arte [...] argialetxearen inguruko giroak, ba, kezka kultural izugarria zuten giroak ziren, hau da, kultura, lan kulturala, kontzientzia hartzea ezinbestekoa zela jotzen zutenak, ezta? Orduan hori, ba formakuntza kulturalerako farduera handia zegoen [...] [ZYXen] ... bazegoen nolabait langile kultura zenaz idealizazio bat, ezta? Kultura burgesetik desberdintzen zen langile kultura bat, elkartasunean eta bizimodu latzetan oinarritzen zena. [C.B.. ZYX argialetxearen proiektuko kidea]

Hasiera batean kutsu erlijiosoko jai bezala ospatzen hasi zen arren, maiatzaren lehenen, San José Artesano, aldarrikapen, konpromiso eta borroka kutsu agerikoko langileraren jai bezala itxuratuz joan zen 60. hamarkadaren bitartean. Apostolutza mugimendu sekularrek ekitaldi ezberdinak antolatzen zituzten jardunaldia ospatzeko eta bai Iruñeko militantziari eta baita Iruñeko langileria guztiari ere, berauetan parte hartzeko gonbidapena egiten zieten. Lehenbiziko maiatzaren lehenak goiz-goizeko meza batekin hasten ziren, katedralean edo Jarauta kaleko dominiketan. Gero, hamabiak aldera, artzapezpikua buru zen ekitaldi publiko bat ospatzen zen Labrit pilotalekuan, non Nafarroaz kanpoko apostolutza mugimendu desberdinetako hainbat kidek parte hartzen zuten, gai sozioekonomikoen inguruko hitzaldiak emanez. Azkenik, bertaratutako guztiek hamaiketako elkarrekin egiten zuten anaitasunean eta giro onean<sup>862</sup>. Orduan oraindik aldarrikapena bigarren maila batean geratzen zen San José Artesanoren figuraren eta ospakizun erlijiosoaren aurrean: *“JOCekoak ginen, ba al dakizu maiatzaren lehenen nola ospatzen genuen? Meza egiten zen katedralean eta gero San Agustin parrokian saltxitxo edo gazta ogitartekoak prestatzen zizkiguten eta hara joaten ginen gosaltzera eta zoriontsuak ginen hor, apaizekin kontenplazioak egiten... maiatzaren lehenekoa goiz hunkigarria zen”*<sup>863</sup>

60. hamarkadak aurrera egin ahala ordea, ospakizunaren kutsu obrerista, kutsu erlijiosoari gailendu zitzaion. 1959an erakunde katolikoek Bilbon antolatu zuten ekitaldiak, bilakaera hau aurreratu egin zuten nolabait. Urte hartan Arriaga antzokian entzun ziren diskurtsoen erradikalizazioa agerikoa izan zen eta HOACeko eta JOCEko hainbat militante isunduak izan ziren horren ondorioz<sup>864</sup>. Orduan aurrera langile izaera beraren gorespenak eta egoera sozioekonomikoaren eta haren erantzuletzat jotzen ziren erakundeen aurreko salaketek, geroz eta protagonismo gehiago izan zuten maiatzaren lehenaren ospakizunetan. Iruñean 1964ko ekitaldia izan zen maiatzaren lehenaren ospakizunean inflexio puntu bat ipini zuena. Urte hartan, orduan HOACeko presidente nazionala zen Teófilo Pérez Reyk parte hartu zuen. Hitzaldia Eugenio Lecumberri JOCEko militantearen mintzaldiarekin hasi ziren, non hizlariak, beste gauza askoren artean, prentsa eta elkartzeko askatasuna eskatu zuen eta hitzarmen kolektiboak gezur hutsa baino ez zirela eta garapen planean langilea kontutan hartu izaten ari ez zela salatu zuen. Ekitaldiaren eztanda eragin zuen mintzaldia ordea, Teófilo Pérez Reyrena izan zen, Delgado Gomez artzapezpikuak haren hitzak gaitzetsi eta segituan Labrit pilotalekua utzi baitzuen. Zenbait zirkulu sozialek hizpide zituzten arau paternalisten kontra jo zuten; maiatzaren lehenen soilik urtean behin ez eta

<sup>862</sup> Jose Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 714-715 orr. HOAC eta JOCEko militantek ere halaxe gogoratzen dute apostolutza mugimenduek antolatzen zuten maiatzaren lehenaren ospakizuna. J.M.M.-i egindako elkarrizketa, Iruñea, 2010-03-04 eta F.E.-ri egindako elkarrizketa, Iruñea, 2013-01-30.

<sup>863</sup> F.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-30.

<sup>864</sup> Enrique Berzal de la Rosa, “Católicos en la...” Op. Cit. , 11 orr.

kartzelan, erbestean eta emigrazioan sufritzen zuten anaien omenez, egunero ospatu behar zela esan zuen; langileei euren klase espiritua eta elkartasuna erakusteko eskatu zien; artzapezpikuari langile klasea elizarengandik aldentzen ez zela eta hierarkiak berak, bere jokabide politikoarekin langileak urruntzen zituela gogorarazi zion; eta langile klasearentzat bizitza politikoan, ekonomian eta sindikatueta parte hartzeko askatasuna eskatu zuen. Artzapezpikuak alde egin zuenean eta ekitaldia amaitutzat eman zenean, pilotalekura bertaratutakoek, manifestazioa egin zuten Gaztelu enparantzarraino eta bertan kioskoaren inguruan jira eta biraka ibili ziren, isilik, poliziak plaza hutsarazi egin zuen arte<sup>865</sup>.

Orditik aurrera, maiatzaren leheneko ekitaldia artzapezpikuaren presentziarik gabe ospatu zen. Deialdia oraindik apostolutza mugimenduek egiten zuten, baina ekitaldi horiek laster, mugimendu haiekin zerikusirik ez zuten langileen topagune bihurtu ziren ere. Maiatzaren lehena, hartara, norberaren langile izaera adierazteko momentu sinbolikoa izateaz beste, aurpegiak ezagutzeko eta sareetan kokatzeko aukera paregabea zen: *“maiatzaren lehenetan parte hartzen zenuen eta bapatean, HOACekoa zen pertsona bat Giza Eskubideen deklarazio Unibertsala banatzen ikusten zenuen eta orduan, lehenbizikoz kokatzen duzu [pertsona hori] [...] 68ko maiatzaren lehenean Gaztelu enparantzan izan nintzen eta “jaian”, nolabait esatearren, azkenekoak geratu ginenen artean, nire lankideren bat zegoen eta [ordura arte] ez genekien besteak halako sentsibilitaterik zuenik, ezta? sentsibilitate bera genuenik; ez zen horretarako aukerarik egon... ni arduraduna nintzen eta haiek ofizial edo tornulari edo fresatzaile edo argiketari bezala zeuden [...] eta orduan lanean nik ez nuen inoiz horren inguruan hitz egiten”*<sup>866</sup>. 1967. urtean, apostolutza mugimenduen Labriteko ekitaldiaren ostean, ehunka langile bildu zituen manifestazio bat egin zen Sindikatuen eraikineraino. Hura amaitu zenean, Iruñeko PCEko kide zen Francisco Sanchez Cortázarrek, Madrilgo CCOOek egindako proposamenetan oinarritutako manifestu bat irakurri zuen<sup>867</sup>. Poliziak elkarretaratzea desegin zuen eta hiru pertsona atxilotu zituen. Honen ostean, nafar langile mugimenduaren bilakaerarekin bat eginez, 1968ko maiatzaren lehenerako deialdia jada USOk eta CCOOek egin zuten.

### *Militante kristauak eta konpromiso mundutarra*

---

<sup>865</sup> Jose Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 715 orr. Manifestazioaren datua autoreak ematen du; guk ordea, ez dugu egiaztatzerik izan. Ildo berean, autoreak maiatzaren leheneko gertakari hau 1965ko ospakizunean kokatzen du, baina guk 1964ko ospakizunean kokatzen duen dokumentu bat topatu dugu: “El arzobispo de Pamplona desautoriza públicamente al presidente nacional de la HOAC (1964-05-02)”, AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondoa, 184. kutxa. Prentsaren bitartez ere ez dugu egiazko data egiaztatzerik izan. Hala ere, Teófilo Pérez Rey eta Delgado Gómezen arteko liskarra, J.M.M.-en ondoko testigantzak baieztatzen du: “Behin, maiatzaren lehenean, Labriteko mitinean, gotzainak hitza kendu zion Teófilo Pérez Reyri, halako gauzak, bera aurrean zela ezin zirela esan esateko... orduan Teófilok esan zion: “Dígame usted lo que no se puede decir, y hablaremos” [...] gotzainak ezetz esan zion, [mitina] bukatu behar zela... eta mitina hor amaitu zen”. J.M.M.-i egindako elkarrizketa, Iruñea, 2010-03-04.

<sup>866</sup> J.I.S.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2012-12-26.

<sup>867</sup> PCEaren Artxibategi historikoan topatu dugun dokumentazioak, manifestazioaren ekimena, alderdi komunistako kideek sustatutakoa izan zela jasotzen du. “Informe de Félix. Viaje a Pamplona. Mayo 1967”, AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 601 Jaq. Andrés Herrerak militante komunisten parte hartze hau egiaztatzeko aukera izan du, “De la célula al partido de masas. Una aproximación al desarrollo del PCE en Navarra durante el tardofranquismo”, *I Congreso sobre la Historia del PCE, 1920-1977 (Oviedo 6,7 y 8 de mayo de 2004)*, CD formatuan, txostenaren 9 orr. Andrés Herrerak utzia. José Vicente Iriarte Aresok ordea, deialdia ASTren ekimena izan zela eta panfletoen bitartez eta ahoz-ahoz zabaldu zela azaltzen du. José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en ...* Op. Cit., 67 orr.

Rafael Diaz Salazar soziologoaren hitzetan, militante eredu berri baten sorrera izan zen, programen, ideologiaren edota estrategia militanteen definizio baten gaitetik, mugimendu kristauek garai hartako espainiar ezkerari egin zioten ekarpenik nagusia<sup>868</sup>. Apostoluzta mugimendu sekularrek, zabaldu zituzten berezko esparruetan, erabili zituzten formakuntzarako erremintak bitartez, ezaugarri bereizgarriak agertzen zituzten subjektuak sortu ziren. Berezko espiritualtasun edo mistika militante bat, militantzia ulertzeko eta bizitzeko modu jakin bat eta balore zein jokabide kristau eta langileen arteko nahasketa bat, eurak definituko zituzten elementu nagusiak izan ziren. Iruñeko HOACeko militanteentzat, esaterako, eredu militante berria “mesianismo langile eta kristau” batean oinarritutakoa izan behar zen. 1963/1964 ikasturtean hemen funtzionatzen zuen “El otro pensamiento navarro” izeneko GOES talde batek “la institución sindical” galdeketa emaniko erantzunetan, mesianismo hura mundua justizia handiagoko aldi berri batetara eramango zuen ahulen, pobreen gaineko jardueran funtsatutako izan behar zela azaltzen zuen, baita hura besarkatzeko langile militante berriek izan behar zituzten ezaugarri nagusiak zehaztu ere: militante komunisten giza bertuteetatik, eskuzabaltasuna, pairamena, sakrifizioa, diziplina eta eraspina hartu behar zituzten; hauei kristautasunari berezkoak zitzaizkion santutasuna eta presentzia soziala, euren buruak gizartearen baitan hezuramaitzea (ezinezkotzat jotzen baitzen berrerospena kanpotik sustatzea eta Kristok egin bezala, barrutik egin behar zela estimatzen zen) gehitu behar zitzaizkion<sup>869</sup>. Txantrea auzoko HOAC nukleoko kide izandako hainbat figura adibidez, militante izateko modu berri honen oso adibide onak izan ziren:

Bereziki umila zen jendea zen, bereziki konprometitua... eta konprometituta esaten dudanean, amaieraraino [konprometituta] esaten dut, hau da, beste batengatik bizitza arriskuan jartzeko gai zena [...] Zoritxarrez duela gutxi hil den pertsona bat, pertsona ikaragarria zen, ikaragarria: V. I. [...] itsua edo erdi itsua zen pentsioduna zen eta hilerro, bere soldatetik, hogeita bost mila pezeta ematen zituen presoentzako [...] gizon horrek, literalki, jateari utzi izan zion, ezta? hau da, ez zuen urteetan arropa erosi, ikusmena galdu zuen prozesua atzeratu ahal izango zioten medikuengana joateko aukera ez zuen baliatu...; baina berarentzat, bere bizitza, konpromisoa zen, besteak ziren [...] Bigarrena, C. G.; C. G. bazen... izatez ona zen pertsona zen, baina barruraino konprometituta [...] C. bileretara joaten zen nahiz eta marxismoa zer zen oso argi ez izan... baina argi zuen berarentzat Jesusen eredu jarraitzea, pobreekin egotea zela, ezta? hirugarrena [...] zurgina, zurgina. Gizon honek milaka lan egin ditu debalde, jendeak ordaindu ezin ziola esan eta berak ¿no me puedes pagar [y] te lo voy a dejar de hacer?... hau da, Txantrean jende askori leihoak jarri dizkio, armairuak egin dizkio eta ezin izan diote ordaindu, baina berak egiten zuen, egin behar zuela, egiten ahal zuela uste zuelako [...] bereziki umila zen jendea zen, bereziki isila [...] barruraino, ondorioak zirenak zirela, konprometitutako jendea zen... eta kristoneko testigantzak utzi dituzte, baina askotan ez dira nabarmendu, hain zuzen, umiltasun horrek ez nabarmentzera eraman dituelako [...] [baina] guretzat, nire belaunaldiarentzat, hauek izan ziren ereduak. Gu jende honekin elkartzen ginen eta naturaltasun osoz hitz egiten ziguten langile mugimenduz, langileengatik, bizi baldintzengatik, borrokatu beharra zegoelaz... beti ere Jesu Kristo erreferente edukita. [A.G.. Txantreako Auzo Mugimenduko militantea]

Profil hauetan bereziki ezaugarri bat nabarmentzen da: konpromisoa. Errealitatearen eraldaketarekin konprometitutako militanteak sortzea, apostoluzta mugimenduen lorpen handienetarikoa izan zen. Konpromisoa langile askoren praxi militantearen ardatza izan zen eta haren garapena, euren ibilbide militantearen bilakaeraren bultzatzailea. JOCEko edo VOJeko militanteek bizitako bilakaera adierazgarria da zentzu honetan. Erakundearen lehenbiziko etapa batean, 1955-1960 urteen bitartean gutxi gora behera, gizarte eta lan arazoez kontzientzia hartzen hasi ziren, honek lehenbiziko konpromiso batzuk hartzera eraman zituelarik. Konpromiso mundutarrak

<sup>868</sup> Rafael Diaz Salazar, *Nuevo socialismo y...* Op. Cit., 58 orr.

<sup>869</sup> “El otro pensamiento Navarro” izeneko GOESak 1963/1964 ikasturteko bigarren galdetegiari (“La institución sindical”) emandako erantzunak. AHOAC-HOACA, GOES saila, 75. kutxa.

orduan ez zuen oraindik dimentsio sindikal edo politikorik eta alor sozialera eta formakuntzaren alorrera begira gauzatzen zen<sup>870</sup>. Baina eurengan konpromiso hura geroz eta gehiago errotuz joan zen heinean, hura JOCen eta VOJen parametroetatik kanpo garatzeko beharra izan zuten, alor politiko eta sindikaleraino (USO edota AST bezalako talde sindikalen sorrera) iritsiz:

Iruñera etorri nintzen, Etxabakoitzera. Eta han, ba, apostolutza mugimenduetan hasi nintzen, Juventudes Obreras Católicas, mota desberdinetako mugimenduak zeuden, JOC, JEC, JIC ziren, Juventudes Obreras, Juventudes Estudiantes, Juventudes Independientes... guzti hori. Noski, mugimendu horiek pixka bat *progres* ziren, batez ere gurekin zeuden apaiz batzuegatik, baina beti Elizaren menpe zeuden. Zintzoak izan behar ginen, zintzoki lan egin, beste langileen eredu izan... baina beti ebanjelioari jarraituz. Orduan inoiz ez zizuten esaten greba egin behar zenuen edo ez, hau edo bestea aldarrikatu behar zenuela... ez, gauza horiek ez. Baina gu gauza horiek barneratzen hasi ginen eta orduan taldeka biltzen ginen, ni baino prestatuagoa edo formatuagoa zegoen jendearekin, eta bestelako mugimenduak egin genituen. [F.E.. JOCeko militantea]

Hor, Kale Nagusian zuten egoitza, hor ba, orain musika eskola dagoen hortan. Eta hauek hasi ziren pixket VOJ, Vanguardia Obrera; hor hasi ziren lanean, Acción Católica bezala baina pixkanaka joan ziren gero... klaro, hori gero praktikara eraman behar zen, lantegietan, eta bueno pues hor ikusten zen gero bertze pauso bat eman behar zela, ez zela aski Jaungoikoa maitatu eta elkar lagunak zarete... ez, borroka da inportantea eta hortarako ere ideiak behar dituzu, bertze ideia batzu behar dituzu. [P.U.. Seminarioko ikasle izandakoa. Aita Zurién kidea. Afrikan misiolaria]

Konpromiso mundutarraren garapenak, militante kristauak, 60 eta 70. hamarkadetako borroka eta mugimendu sozialetan modu desberdinetara, baina beti eraginkorki, parte hartzera eraman zituen. Ildo horretan, militante hauek langile mugimenduaren bilakaeran izan zuten esku hartzea, oso nabarmena izan zen. Alde batetik, apostolutza mugimenduak, langile erakundeei beharrezkoak zituzten azpiegiturak bermatzen ahal zizkieten eragileak ziren: adibidez, Acción Católicaren egoitzak eta militanteen etxeak erregimenaren jazarpena pairatzen zuten langileen babesleku ziren eta apostolutza mugimenduek, klase sindikatuen erresistentzia kutxen antzeko diru bilketak martxan jartzen zituzten<sup>871</sup>. Bestetik, Sindikatu Bertikalaren egituretara sartu ziren berauetatik fabriken baitan langile aldarrikapenak dinamizatzeko, greba garrantzitsuetan parte hartu zuten eta orduan sortzen hasten ziren langile sindikatu eta alderdien militantzia elikatzeaz beste, eurak berak hainbat erakunde sortu izan zituzten: alor sindikalean, adibidez, aipatu USO eta AST (CCOOen sorreran ere paper garrantzitsua izan zuten) eta alor politikoan, esate baterako, Frente de Liberación Popular delakoa (FLP), hirugarren mundua, marxismoa, katolizismoa eta Jugoslaviako sozialismoa oinarri, ezker berri baten aurrekaria izan zena. Are gehiago, langile mugimenduz haratago, militante kristauak, mugimendu kooperatibistan (kontsumo, etxebizitza edota produkzio kooperatibak sustatzen) eta mugimendu hiritarretan, bereziki Auzo Elkarteetan, mugitu ziren ere. Izan ere, herriarekin konprometitutako kristaua zena, herrian eta herriarekin egon behar zen:

Komunitate kristauean izan ginenok, filosofia kristau bat, humanista, oso humanista ezagutu genuen [...] [eta honekin] herriarekiko konpromisoa ezagutu genuen ere. Orduan zuri esaten zizuten: begira, sentitzen duzunaren arabera, gogoko duzunaren arabera, talde ekologistaren batera, talde politikoren batera, talde herrikoiren batera... jai herrikoien antolakuntzan lan

<sup>870</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 76 orr.

<sup>871</sup> Enrique Berzal de la Rosa, "Movimientos seculares en..." Op. Cit., 59 orr. eta Basilisa López García, "Discrepancias y enfrentamientos..." Op. Cit., 185 orr. Azken honek, adibidez, HOACaren komisi nazionalak elkartasun fondo bat zuela eta diru hori komisi diozesiarren bitartez eta partikularren izenean zeuden kontu korronteen bitartez banatzen zuela aipatzen du.

egitera joaten ahal zara. Baina herriarekin konprometitzen den kristaua bazara, han, herriaren baitan, egon behar zara. [A.G.. Txantreako Auzo Elkarteko militantea]

Langile arazoetan murgiltzera eramaten zituen mistika eta konpromiso mundutarrak, formakuntza prozesuaren bitartez eskuratutako izaera partehartzaileak eta lankideekin burutzen zuten kontzientziazio lanak, militante hauen presentzia indartu egin zuten lantokietan<sup>872</sup>. Honengatik, militante kristauak, fabriketan barna langile lidergoak gauzatzen lehenbizikoetarikoak izan ziren. Lehenbiziko nukleo antolatua dinamizatu zituzten, sortuko ziren lehen fabrika batzordeetako militanteak izan ziren (Torfinasa fabrikako langile batzordearen ernamuina, adibidez, HOACeko militante bat, Vanguardiaseko bi militante gazte eta erakunde hauekin loturarik ez zuen laugarren elementu batek osatzen zuten<sup>873</sup>) eta Sindikatu Bertikalaren baitan ordezkariak karguak bete zituzten, figura hauei egiazko eraginkortasuna eta langile edukiak emanaz. Fabrikaren esparrua eta bertan sortu ziren harreman edo sareak, hurrengo kapituluan aztertuko ditugu, baina hizpide ditugun militante kristauak, konpromiso mundutarraren gauzapenean sare hauen sortzaile garrantzitsuak izan ziren heinean, lankideen kontzientziaren iratzargarri bezala eta langile aldarrikapenen bideratzaile bezala izan zuten papera ezin dugu aipatu gabe utzi:

[...] eta fabriketan langile antolatuen nukleoak sortzen hasi ziren, fabriketan ba... borrokak, errebeliak, lehen ikusten ez ziren patroien kontrako jarrerak pizten zituztenak ziren [...] 60tik aurrera edo, HOACa, orduan zegoen bakarra zela, zaharrena bai, Hermandad Obrera de Acción Católica, ba hori... HOACekoak ziren hainbat pertsona izan ziren, nolabait, jarrera horiek abiatu zituztenak... hitz egiten hasi zirenak, enpresetan errebeliaz, eskubideez... langile klasearen eskubideez, pertsonen eskubideez, askatasunaz hitz egiten hasi zirenak [...] haiek izan ziren gauza guzti hauek hitz egiten hasi zirenak. Ezkutuan lehenbizi, aldamenen zenuenarekin, konfiantza zenuen horrekin... niri adibidez, guzti horretaz, HOACekoa zen bat hitz egiten hasi zitzaidan, nik ordura arte ez nuen inoiz guzti horretaz hitz egiten entzun. [JE.C.. VOJeko militantea]

Han hamabost urte nituela izan nintzen lanean eta zortzietatik hamabiak arte lan egiten genuen eta gero, arratsaldean bueltatzen ginen. Hamar egunero berrehun pezeta ordaintzen zizkiguten... gainera, Eguberritan saski bat ematen ziguten oilasko batekin, gurlache batzuekin eta gorringozko gozoki batzuekin; eta orduan nik esan nion [patroiari]... nik egun oraindik galdetzen diot nire buruari... eta nolatan ausartu nintzen? Ni orduan jada JOC-aurrekoaren bileretara joaten nintzen, ezta? eta [lankideei] eramaten nien "Ikastunen eskubideak" izeneko liburuxka bat [...] orduan protesta egin nuen eta esan nion saski hori eman beharrean [...] egin behar zuena guri aseguru egitea zela, bageundelako... sei hilabete egon ginen asegururik gabe, ezta? orduan berak ez zuen ezer esan eta guztiei kontratua berri zien niri izan ezik [...] ni beti, astero, lanetik ateratzen nintzen, korrika eta presaka lisaketa egiten nuen eta gero, ziztu bizian Iruñera joaten nintzen, Zapateria kalera, [JOCaren] bileretara; eta hamasei edo hamazazpi urtetatik han izan nintzen, han "ikastunen eskubideekin". [gora eta behera] [I.N.. JOCeko militantea]

Bete izan zituzten Sindikatu Bertikaleko ordezkariak karguei dagokienean, militante kristauen presentzia maila desberdinetan nabaritu zen. Fabriketan ordezkari sindikal eta enpresako epaimahaikide izan ziren. Erakunde Sindikalaren baitan, sindikatu ezberdinetako sail sozialen lehendakari izatera iritzi ziren eta are Langile Kontseilu probintzian lekua izan zuten. Apostolutza mugimendu sekularretako militante

<sup>872</sup> Basilisa López García, *Aproximación a la...* Op. Cit., 143 orr.

<sup>873</sup> "fabrikan lau ginen. Lau ginen: bi Vanguardiasekoak ginen, HOACekoa zen gizon helduago bat [...] eta gero... beste bat, inondik ibiltzen ez zen beste bat. Baina lauak elkartzen hasi ginen eta lehenbiziko talde bat sortu genuen, Torfinasako Langile batzordea izango zenaren lehen nukleoa zen". M.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-09. Haietarikoa bat E. A. zen, HOACeko militantea (E. A.-ri egindako elkarrizketa. 2010-03-11) eta JE.C., beste bat. Azken hau hasiera batean ez zen erakundeetako militantea izan, baina lankide baten eskutik, VOJen hasi zen (JE.C.-i egindako elkarrizketa. 2011-06-02)



aktiboak izan ziren gure iturrien artetik, besteak beste F.E. (JOCEko militantea, Inquinasako langilea), I.N. (JOCEko militantea, Onenako langilea), E. A. (HOACEko militantea, Torfinasako langilea), J.L.A. (HOACEko militantea, El Pamplonicako langilea) J.M.M. (HOACEko militantea, Minako langilea) eta M.A.M. (HOACEko militantea eta Penibéricako langilea) izan ziren ordezkarri sindikalak euren lantokietan<sup>874</sup>. Azkeneko biak gainera, HOACari lotutako GOES batean ikusi dugun Francisco Sanchez Cortázar militante komunistarekin batera, Abelazkuntzaren, Industria Kimikoen eta Metalaren sindikatueta sail sozialen lehendakariak ziren 1966an<sup>875</sup>. Are Langile Kontseiluaren lehendakaritza, 1967an, HOACetik gertu zegoen Tomás Caballeroren esku zegoen<sup>876</sup>. 1965en izan zen Frenos Iruña fabrikako grebaren bitartean, gatazka bideratzeko hamasei kideko batzorde bat eratu zen. Bertan, militante kristauen presentzia nabarmena izan zen: lau kide HOACEko militanteak ziren (haietariko bi euren sindikatueta sail sozialetako lehendakariak ziren) eta bost, Vanguardiaseko kideak ziren (haietariko bat bere enpresako epaimahaikidea eta metalaren sindikatuko sail sozialeko batzordekide probintziala)<sup>877</sup>.

Esan dugun bezala, militante kristauak greba garrantzitsuetan parte hartu zuten, are haietariko zenbait sustatu ere. Adibiderik goiztiarrenak estatuko hainbat puntutan 1951n eta 1956an gertatu ziren greba orokorrak izan ziren. Enrique Berzalek aipatzen duenez, 1951ko martxoan, tranbiaren salneurriaren igoeraren ondorioz Bartzelonan gertatu ziren protesta mugimenduetatik eratorritako greba orokorrean, ordezkarri sindikal katolikoek zerikusirik izan zuten eta HOACEko militanteen parte hartzea nabaria izan zen, erakundeko lau militante ere atxilotuak izan zirelarik<sup>878</sup>. Urte horretan bertan, greba izan zen Iruñean ere. Nahiz eta protesta mugimendua antolatua izan zela adierazten duen ebidentziarik ez dagoen, elementu katolikoek grebaren bilakaeran, protestan zuzenean parte hartuz edo behintzat hura begi onez ikusiz,

---

<sup>874</sup> F.E.-ri egindako elkarrizketa, Iruña, 2013-01-30; I.N.-ri egindako elkarrizketa, Iruña, 2014-01-07; E. A.-ri egindako elkarrizketa, 2010-03-11; J.L.A.-ri egindako elkarrizketa, Iruña, 2011-12-16; J.M.M.-i egindako elkarrizketak, Iruña, 2010-03-04 eta 2011-10-26; eta M.A.M.-i egindako elkarrizketa, Iruña, 2011-12-23.

<sup>875</sup> Hirurek, euren sail sozialetako lehendakari bezala sinatu zuten 60. hamarkadaren erdialdean prentsan argitaratu zen hauteskunde sindikalen eta Lege Sindikalaren inguruko eskutitz bat. PN 1963-09-13, 3 orr.

<sup>876</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 59 orr. 1965an osatu zen lehenbiziko Langile Kontseiluan, Caballeroz beste (oraindik ez lehendakari bezala), HOACEko militanteak ziren José María Monrealek eta José Ramón Lebrónek parte hartu zuten. Ikusi Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 43 orr. 1971an osatu zen kontseiluan, HOACEko beste militante batzuk identifikatzen ahal ditugu, besteak beste, José Luis Aldasoro edota Lizarrako Nieves Errazquin (1965ean GOES Herritar bateko kide bezala azaltzen dena). Kontseiluko kide gisara agertzen dira guztiak 1971ko azaroan 6an burutu zen osoko bilkuran. "Acta de la reunión extraordinaria del Pleno del Consejo de Trabajadores de Navarra, celebrada el día 6 de noviembre de 1971", AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5759. kutxa.

<sup>877</sup> Jose Elena Santamaría Blasco, *Iglesia y movimiento obrero navarro en los años 60*, Emilio Majuelo irakasleak zuzendutako lizentziatura memoria, argitaragabea. Autoreak utzita. Azkeneko hau, seguru asko Pedro Beunza izango da. Metalaren Sindikatuko sail sozialeko batzordekide bezala, eskutitz bat sinatu zuen prentsan 1966an Francisco Sánchez Cortázarrekin batera: "Cartas al director. Retirada del voto", DN 1966-11-18, 16 orr. Gerora, Metalaren Sindikatuko sail sozialeko lehendakari izatera iritsiko zen ere, Sánchez Cortázar atxilotua izan ondoren (kargu honekin azaltzen da Lege Sindikal berriaren proiektuaren aurkako lehenbiziko protestatan, Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 84 orr. J. M. M.-ek VOJeko militante bezala kokatzen du. J.M.M.-i egindako elkarrizketa. Iruña, 2010-03-04),

<sup>878</sup> Enrique Berzal de la Rosa, "Católicos en la..." Op. Cit., 10 orr.

nolabaiteko pisua izan zutela igartzen ahal da<sup>879</sup>. Hamarkada horretan, 1956an, Iruñean gertatu zen beste greba orokorrean ere, militante kristauek presentzia eta parte hartze garrantzitsua izan zuten<sup>880</sup>. Guztiarekin ere, langile mugimendu apostolikoetako militanteen inplikatzeari grebetan, 60. hamarkadako lan gatazketan egin zen bereziki nabarmena. Hauen artean, zehazki, 1962ko Asturiaseko meatzarien grebak eta 1966-1967ko Bilboko Bandas de Echevarri enpresaren greba luzea hartu ohi dira parte hartze honen adibide adierazgarritzat. Asturiaseko greban, presentzia nabarmena izan zuten orduan jada USO erakunde sindikal klandestinoko kide ziren JOC eta HOACeko zenbait militanteek (ikusiko dugun bezala bi mugimenduen militantzia sindikatu haren sortzaile zen era berean). Bandaseko greba, enpresako "HOAC taldeak", aldi berean behin GOEsen lanen eta ZYXen liburuen laguntzaz fabrikaren arazoak aztertzeko biltzen zen militante eta langile taldeak, sustatu zuen<sup>881</sup>. Militante

---

<sup>879</sup> 1951ko Iruñeko greba orokorra, bizitzaren garestitasunarengatik eta hornikuntza arazoarengatik populazio sektore herrikoiek bizi zuten egoera ekonomiko latzaren aurreko protesta mugimendu zabal eta heterogeneoa izan zen. Espontaneo, antolatuta baino; irakurketa desberdinak daude honen gutxieneko antolakuntzan eta hedapenean indar edota sektore soziopolitiko desberdinek izan zuten paperaz. José Luis Díaz Monrealek adibidez, karlismoaren pisu handiagoa ikusten du, nahiz eta HOACeko elementuek parte hartze aktiboa izan zutela aipatu. José Luis Díaz Monreal, *La huelga de 1951...* Op. Cit., 130-131 orr. Aurora Villanuevak ordea, nolabaiteko antolakuntza maila atzematen du grebaren garapenean eta honetan apostoluzako erakunde katolikoak protagonista izan zirela aipatzen du. Aurora Villanueva, "La sorpresa navarra: mayo 1951", VV.AA., *Mito y realidad en la historia de Navarra (IV. Congreso de historia de Navarra)*, II. Liburukia, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, Iruñea, 1998, 135-146 orr., 145 orr. Irakurketa hau, hein handi batean, orduan Nafarroako Gobernadore Zibila zen Luis Valero Bermejok egin zuen irakurketan oinarrituta dago: "komisarioak erabat baztertu zuen grebaren jatorria marxista izatearen ideia eta halako mugimendu bat soilik indar katolikoek antolatu dezaketela adierazi du. Haiek bakarrik mugitu eta antolatu baitezakete halako zerbait Nafarroan". "Informe reservado. Desarrollo de los incidentes de los días 8 y 9 en esta capital", AGA-AAO, Presidentzia fondoak, 51-19015. kutxa. Greba hura Katalunian hasi zen martxoan, salneurrien igoerarengatik tranbiei boikota egiteko deialdi batekin. Hemendik Euskal Herrira hedatu zen, Bizkaira, Gipuzkoara eta Arabara. Ondoren Iruñera iritsi zen. Kataluniako grebari buruz ikusi, adibidez, Gemma Ramos Ramos, "Tranvías y conflictividad social en Barcelona (marzo 1951): actitudes políticas y sociales de una huelga mítica", *Historia Contemporánea*, 5. zkia, 1991, 203-220 orr. 1951ko grebak Euskal Herrian izan zuten eraginari buruz gehiago, Koldo San Sebastián, "La huelga general de 1951 en Euskadi", *Muga*, 48. zkia, 1985, 28-49 orr. Zehazki Arabari buruz, Santiago de Pablo Contreras, *El nacionalismo vasco en la posguerra. Alava 1939-1955*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1991.

<sup>880</sup> Basilisa López García azaltzen duenez, urte hartan estatuan gertatu ziren grebetan, HOACeko militanteak egon ziren gatazken buruan. Arrazoia, hein handi batean, haietarik askok jada enpresa epaimahaietako kide izatea hobetsi eta lortu zuela izan zen, kargu sindikalek grebaren garapenean figura eraginkor izateko aukera ematen baitzieten. Basilisa López García, *Aproximación a la...* Op. Cit., 80 orr. Iruñeko grebari dagokionean, José Luis Díaz Monrealek, 1951koarekin alderatuta, oraingoan HOACeko militanteen presentzia nabarmenagoa izan zela aipatzen du. José Luis Díaz Monreal, *La huelga de...* Op. Cit., 140 orr. Parte hartze hori, HOACeko militante izanda greban parte hartu zuen J.M.M.-en ondoko testigantzan ikusten ahal da: "enpresa guztietan elkartasun mugimendu bat eman zen. Hori bai bizi nuen, industrietatik [...] hirin fabriketatik, lmenasatik... ba [industria] kimikoetatik, ezta? Ibili ginen. Oso mugimendu indartsua egon zen eta atxilotetak izan ziren. Nire lagun bat atxilotu zuten, C. eta baita E. M., biak HOACeko militanteak ziren. Honek ez du inolaz ere protagonista izan ginela adierazten, baina greba mugimenduan egon ginela adierazten du". J.M.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-04.

<sup>881</sup> Elementu katolikoek 1962ko Asturiareko meatzarien grebetan bete zuten paper garrantzitsua, adibidez, Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 126-129 orr. Bandaseko greban fabrikako HOAC taldeak izan zuten protagonismoaz, adibidez, Basilisa López García, *Aproximación a la...* Op. Cit., 146 orr. eta José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 300-301 orr. Azken honek gainera, HOACeko militanteen inplikazioa fabrikaren barrenetik haratago, parrokiek eta probintziako militantzia sareek eman zuten laguntzara, zabaltzen du. ZYX argitaletxeak berak grebaren esperientzia jasotzen zuen liburuxka bat argitaratu zuen

kristauak 60 eta 70. hamarkadetako grebetan izaten zuten parte hartze hau mota desberdinetakoa izaten ahal zen: fabriketako militante gisara gatazkak antolatzen zituzten, langile gisara mugimenduetan parte hartzen zuten eta enpresako ordezkari sindikal zein Bertikaleko kargudun gisara, greben bilakaera bideratzen zuten.

Lan munduan murgiltze honek, hots, fabrikaren baitan lidergoak gauzatzeak eta grebetan parte hartzeak, obrerismo kristauari buruzko tradiziozko ikuspegiak aldatu zituen langileen, gizartearen eta are erregimenaren begien aurrean. Alta, konpromisoa norberaren hautabide askea zen, militantearen erantzukizuna baizik ez eta apostolutza mugimendu sekularrek, izatez jarduera ekonomiko edo sindikala debekatua zutenez, ez zuten inoiz zuzeneko zerikusirik izan konpromiso jarduera zehatz haien garapenean. Honek militanteen dimentsio kristaua txikietsi egin du nolabait, konpromisoa norberarena, akonfesionala eta anonimoa izaterakoan, identitate kristaua eta apostolutza langile erakundeen eskua, bestelako identitate eta eragileen baitan (langile mugimenduen baitan, CCOOren baitan), bigarren mailan batean geratzen zelako<sup>882</sup>. Azken batean, militante kristauak, euren konpromiso mundutarra, bestelako erakundeen baitan gauzatzen hasi ziren. Apostolutza mugimendu sekularrek frankismoaren amaierako eta trantsizioaren garaiko langile mugimenduari eta are mugimendu politiko zein sozialei eginiko ekarpen nagusia, militantzia soziopolitiko on eta gaituak sortzea izan zen. Izan ere, militanteek berek, apostolutza erakundeetatik kanpo, euren ekimenez, berezko sindikatu edo alderdi politikoak sortu zituzten eta 60 eta 70. hamarkadetan sortuz joan ziren erakunde soziopolitiko desberdinak, militanteek hornitu zituzten. CCOO eta USOren, PCE eta alderdi sozialistaren, ezker iraultzaileko ORT, MCE eta are HBren eta mugimendu feminista edota Auzo Elkartearen militantziaren parte adierazgarri bat, militante kristaua izandakoa zen.

USO sindikatuaren sorrera, militante kristauak konpromiso mundutarretik militantzia soziopolitikora eraman zituen bilakabidearen adibide goiztiarrenetariko bat izan zen. *"Sindikatu autonomo bezala jaio zen, 'goitik' inolako erreferentziarik izan gabe eta alderdi politikoren batetik inolako menpekotasunik izan gabe. Nahiz eta apostolutza mugimenduei gertukoa izan, sotanaren blindatzeak, sindikalismo ez-konfesionalera igaro zen, estilo berri bat eman zioten balore humanista eta sozialisten bitartez"* <sup>883</sup>. 1960an sortu zen, Ooreretako JOCeke militante talde baten eskutik. Erakunde hartako presidente izandako Eugenio Royo, sustatzaile haien artean zegoen. Momentu horretan, Royo, JOCeke Nazioarteko Batzorde Eragileko kidea zen, kargu horrek nazioarteko korrante eta langile erakunde kristau ezberdinekin harremanetan jarri zuen. Hauen eragina agerikoa izan zen USOren lehenbiziko nukleo horrengan eta honek burutu izan zuen erakunde berriaren sortze agirian, non sindikatuaren ezaugarri bereizgarri izango zen sozialismo autogestionarioaren bidea hartzen zen. 1960 eta 1965 urteen arteko lehen etapa batean, lehen USO taldeek eta JOCekeok gainezarrira lan egiten zuten, apostolutza nukleoak, JOC bera baina baita ere HOAC, sindikatu berriaren hazkunde eta garapenerako eragile nagusi eginez. Lehenbiziko aldi hau amaitzear zela, militante talde ezberdinen koordinazioak, egitura klandestino sendoak eman zituen. Bigarren etapa batean, 1965tik aurrera, enpresetan indartu egin zen, militante berriak bildu zituen (orain ez bakarrik militante kristauak) eta JOCarengandik erabatean banandu zen bere bide propioa egiteko. Bigarren aldi honetan jaio zen sindikatua Iruñean.

---

1967an bertan, "La huelga de Bandas".

<sup>882</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 127 orr.

<sup>883</sup> Antonio Martín Artilles, "Del blindaje de..." Op. Cit., 188 orr. USOren jatorriaz gehiago, Abdón Mateos, "Los Orígenes de la Unión Sindical Obrera: obrerismo juvenil cristiano, cultura sindicalista y proyecto socialista", *XX siglos*, 22.zkia, 1994, 107-117 orr.

USOk langileen artean ezaguterraza izango zen izaera berezi bat garatu zuen, izan ere, bertan, pentsamendu korrante, balore eta langile kultura ezberdinek bat egin zuten. Aipatu sortze agirian adibidez, aise atzematen ahal dira humanismo kristaua, sozialismo demokratikoa eta are anarkosindikalismoaren hainbat kontzeptu<sup>884</sup>. Humanismo kristautik, gizakiarenganako eta giza aurrerabidearenganako fedean oinarritutako bizitza molde pertsonal eta soziala hala nola Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalarekin bat etortzen ziren giza baloreak hartu zituen; sozialismo demokratikoak askatasuna, justizia eta berdintasuna bezalako baloreak eman zizkion; eta anarkosindikalismoak, alderdi politikoen aurreko autonomia sindikala aldeztu zuen sindikatua ulertzeko modua. Bestalde, bilakaera betean zegoela, Frantziako 68ko maiatzaren asaldaketa ideologikoak USOren ideietan eragina izan zuen, hauek nolabaiteko erradikalismo ekonomiko eta antikapitalistaren kutsua hartu zutelarik<sup>885</sup>. Finean militanteek apostolutza mugimenduetan eta GOES zein eskola sozialetan barneratutako balore, kontzeptu eta ideietatik gertukoak ziren.

USO Iruñera Zumarragako Orbegozo enpresatik kaleratua izandako HOACeko militante gipuzkoar baten eskutik etorri zen. Hau, hemengo HOACeko zenbait militanterekin harremanetan hasi zen eta elkarrekin hirian USO sortzeko lehen bilerak egin zituzten. Lehenbiziko militantzia nukleo bat sortu zen, HOAC zein JOCEko militanteak biltzen zituena. HOACeko militanteak eta USOko militanteak ziren adibidez, gure iturrien artean dauden J.M.M. eta J.L.A.. HOACeko militanteak ziren ere 1970ean atxilotuak izan ondoren, Frantziara ihes egin eta gero kartzelaratuak izan ziren USOko hiru buru sindikal<sup>886</sup>. C.A. Iruñeko USOko lehenbiziko militanteen artean egon zen ere. Ikusi dugun bezala, JOCEko militante nabarmendu izandakoa eta Alberdiren eskola sozialetan ibilitakoa zen. Haren esperientziaren arabera: *“Nafarroan, urte batzuetan, noizbehinkako ekintzak zeuden, zerbait egiten zenuen... eta orduan beste leku batzuetan jada USO sortzen hasia zen, baina gu, gehiengoak, ez genekien, ezta? Ez genuen ezagutzen. Eta 67 urtean hemen agertzen da Gipuzkoako grebetako errepresaliatu bat, HOACekoa da eta USOri buruzko istorioak kontatzen dizkigu [...] Orduan batzuk erabakitzen dugu gure kezka edo jakin-nahiak USOren bitartez bideratuko ditugula y orduan funtzionatzen hasten gara”*<sup>887</sup>. Kezka edo Jakin-nahi haiek apostolutza mugimenduetan (HOACen eta JOCEn) jasotako formakuntzarekin eta barneratutako konpromisoaren zentzuarekin zerikusirik zuten, zalantzarik gabe. Honela, C.A.-en esperientziarekin jarraituz, *“gauzak xirmi-xarma gertatzen ez zirelako kontzientzia hartu genuen [...] boteretsuen, enpresa zuzendarien, gobernuen jokamoldeak bideratzen dituzten arrazoi sakonagoak eta zabalagoak bazirela [...] orduan zerbait sendoa sortzeko beharra izan genuen [...] apostolutza ekintzarekin edo karitate kristauarekin zerikusirik ez zuena [...] [hortik azaldu zen] momentu hartan existitu egiten ziren erakunde klandestinoetan sartzeko edo erakunde berri bat sortzeko beharra”*. Ordutik aurrera USO, Iruñerriko langile mugimendua antolatuko zuen esparru sindikaletariko bat izango zen.

<sup>884</sup> Antonio Martín Artilesek USOren sortze-agiriaz egiten duen irakurketa. Antonio Martín Artiles, “Del blindaje de...” Op. Cit., 166-169 orr.

<sup>885</sup> Fernando García de Cortázarrek, USOko militanteek, besteak beste, produkzio bideen jabetza pribatuaren desagerpena edota klase sozialen amaiera bezalako oinarriak barneratzen hasi zirela dio, “La cruz y...” Op. Cit., 134 orr.

<sup>886</sup> J.M.M.-i eta J.L.A.-ri egindako elkarrizketak. Iruñea 2010-03-04/ 2011-10-26 eta 2011-12-16, hurrenez-hurren

<sup>887</sup> C.A.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-10. Antzeko moduan kontatzen du USOren sorrera Iruñean sindikatuko kide izan zen J. M. M.-ek: *“Hona USO, Conrado izeneko baten eskutik etorri zen [...] Gipuzkoako enpresa batetik zetorren, Gipuzkoakoa bai... ez dut ongi gogoratzen non lan egiten zuen, ez dakit Legazpian edo hortikan zen... Zumarraga. Eta Arrotxapean elkartzen hasi ginen eta USOekin hasi ginen”*. Iruñeko USOren sorreraz gehiago, Jose Elena Santamaría Blasco, *“Movimiento obrero apostólico...”* Op. Cit., 719 orr.

Beste esparruetariko bat, noski, CCOO izan zen. Hemen, militante kristauen presentzia oso nabaria izan zen ere. Langile komisioren fenomeno aztertu izan duen autoreen gehiengoak, hauen presentzia nabarmendu izan du mugimenduaren hastapenez aritzerakoan. Jose Babianok, adibidez, modu esplizituan azalatu zuen militante kristauen parte hartze hau, estatuko puntu desberdinetako CCOOen sorrera prozesuetan HOAC, JOC eta Vanguardiaseko militanteak presente egon zirela azalduz<sup>888</sup>. Are gehiago, mugimenduaren eratze aldi hartan, apostolutza mugimenduetako militanteek komisiotan, lidergoak gauzaten, nabarmentasun handia izan zutela baieztatu zuen<sup>889</sup>. Mugimenduaren hastapenetan are USOk militanteek parte hartu zuten, baina 60. hamarkadaren amaieran, alderdi komunistak haren baitan lortu zuen nagusigoa ikusita, komisiostatik atera eta euren bide propioa garatu zuten. Iruñean ordea, USO beraren sorrera CCOOen sorrera prozesuarekin batera eman zen, José Elena Santamaria Blascok dioenez, USO, ASTko militanteek CCOO mugimenduan hartu zuten abantailari emaniko erantzun bezala jaio baitzen hein handi batean<sup>890</sup>. Azken batean, jada ikusi dugun bezala, Vanguardiaseko militanteak biltzen zituen AST erakundea izan zen, Zentro Marianoaren lokalean, Nafarroako CCOOak sustatu zituen.

60. hamarkadaren lehen erdialdean Vanguardiaseko militante batzuek AST erakunde sindikala sortu zuten<sup>891</sup>. Apostolutza mugimendutik aparteko egitura zen, baina militanteek euren bilerak Zentro Marianoan egiten zituzten. Taldeak hasiera batean hazkunde motela izan zuen, baina militante kristauek fabriketan barna gauzatu zuten aipatu lidergoei esker taldekideak lankideengan eragin handia zuten elementuak zirenez, AST langileentzako erreferentziazko esparru bilakatzen joan zen. Honela, taldeak Zentro Marianoan burutzen zituen bilera haiek, fabrika ezberdinetan jada existitu egiten ziren komisiotako ordezkarien topagune bihurtuta, Nafarroako CCOOak sortuko ziren esparrua izan ziren. Gure ahozko iturrien testigantza anitz, Nafarroako CCOOen sorrera, Zentro Marianoan, Vanguardiasi eta ASTri lotuta, kokatzen dute:

Estatuan CCOO PCEak sustatu zituen, klandestinitatean, baina Nafarroan PCEak ez zuen apenas indarrik. Badakizu zeinek zuen hemengo Comisionesen indarra, indar asko? Ba... VOJek, Vanguardia Obrera Juvenil. Gero hortik ORTra sartzen zinen. Orduan gogoratzen dut [kide] batek esan zidala "Oye, mira, nos solemos reunir de varias empresas, en el Centro Mariano, en la calle Mayor" [...] han egiten zituzten... apaiz bat zegoen, Gofii Aita, oso jatorra zen... noski, erakunde hauek, elizari esker... beno, elizaren baitako hainbat sektoreri, apaiz jatorrei esker... ba babesa ematen zuten, bilerak egiteko azpiegiturak [...] eta horrela hasi

---

<sup>888</sup> José Babiano, "Los católicos en..." Op. Cit. Bertan, CCOOen jatorrian militante katolikoek, komunistekin lankidetzan, izan zuten paper garrantzitsua aztertzen da. Babianoren ustetan, bi dira katolikoek parte hartzea hau eta komunistekiko lankidetzaz azaltzen duten faktoreak: alde batetik, fordismoaren eklosioa; eta bestetik, katolikoek eta komunistek nolabait partekatzen zuten kultura militantea, formakuntzaren beharra, masen interesak defendatzea helburu zuen jarduera edota diziplina zorrotza bezalako elementuak barne hartzen zituen.

<sup>889</sup> *Ibid.*, 281 orr.

<sup>890</sup> Jose Elena Santamaria Blasco, "Movimiento obrero apostólico..." Op. Cit., 719 orr.

<sup>891</sup> 1962-1963 bitartean, fabrika desberdinetan jarduten zuten langile katolikoek taldeak (VOJeko militantez osatutakoak gehienak) euren jarduera eta borrorak elkarren artean koordinatzea erabaki zuten, koordinatuta eraginkortasun eta indar handiagoa izango zutelakoan. Nukleo koordinatu hauek orduan, euren jarduera egonkortzearen, erakundetzearen bidea hartzea erabaki eta berauetatik, ASTren lehenbiziko egiturak sortu ziren Madrilan. Estatu mailan burutzen ziren mugimendu katolikoek asanblada eta ikastaroen bitartez, Madrilgo nukleo zuzendariak beste probintziatiko talde koordinatuekin harremanak egin zituzten, hauek progresiboki ASTren egiturekin bat egingo zutelarik. ASTren jatorriaz gehiago, Consuelo Laiz, La lucha final... Op. Cit., 51-52 orr.

ginen. Enpresa desberdinetako hainbat langile biltzen ginen han. [I.B.. Imenasako langilea. ASTko bileretan parte hartzen zuen]

Vanguardia Nafarroako CCOOen hasikina da. Vanguardiasen geunden ia guztiak, guztiak esatea gehiegizkoa izango litzateke [...] Nafarroako CCOOak sortu genituen 67 urtean, 67... edo 68, ez nago ziur [...] eta hantxe bertan egin genuen, lokal berbera erabiliz, bai, bai, Zentro Marianoan, lokal berbera erabiliz. Han erabaki genuen... CCOOak jada Madrilen eta Asturiasen, Madrilen eta Asturiasen entzuten ziren [...] eta hori, 67 edo 68 urtean, ez dut ongi gogoratzen noiz izan zen, ba... han, Zentro Marianoan, Vanguardian, geunden jende talde batek, ba Nafarroako CCOOak egin genituen. [J.E.C.. VOJeko militantea]

Fabrika desberdinetako jendea zen eta han, ba fabrika desberdinen bilera batzuk egin ziren, ba adibidez bat Potasas zen, beste batzuk metalaren sektorekoak ziren Torfinasa bezala, beste bat Super Ser zen, beste bat Imenasa... orduan zeudenak ziren [...] eta han, esan daiteke, jaio zen, hasikina izan zuen, 60. hamarkadaren amaieran, 67 edo 68 urtetik aurrera, Nafarroan CCOO izango zema. Han, [bilera] haietan, Zentro Mariano hartan [...] han antolatzen ziren. [P.A.S. VOJeko militantea]

Alor politikoan militante kristauak esperientzia interesgarriak izan zituzten ere. Izan ere, ezker berriaren fenomeno politiko gehienek, ezkerreko langile kultura politiko kristau berri baten garapenarekin eta hura erreferentziatza izan zuten militante kristauen bilakaera pertsonal eta politikoarekin izan zuten zerikusirik<sup>892</sup>. 50. hamarkadan sortu zen Frente de Liberación Popular alderdi politikoa honen adibiderik goiztiarrena izan zen. Hastapenetan konpromiso kristauaren eta militantzia marxistaren arteko nahasketa moduko bat izan zen. Sortzaileek, haien artean Alfonso Carlos Comín<sup>893</sup>, unibertsitatean eta giro intelektual kristauetan zuten jatorria: Madrilgo lehenbiziko nukleoa unibertsitateko parrokiaren inguruan jaio zen, Donostikoa Carlos Santamaria apaizak antolatutako Nazioarteko Elkarrizketa katolikoetan parte hartu izan zutenen inguruan eta Bartzelonakoa El Ciervo aldizkariaren inguruan<sup>894</sup>. Hasierako militante guzti hauen ikuspegi ideologikoak, berez, zehaztugabeak ziren eta berauetan, marxismoaren eta humanismoaren elementuak nahastuta azaltzen ziren: estalinismoarekiko kritikotasuna, askapen mugimendu nazionalistikiko (Kuba, Aljeria) gogoberotasuna edota planteamendu humanistak kontutan hartzen zituen boluntarismo iraultzaile bat ziren garrantzizkoenak<sup>895</sup>. Zentzu honetan, FLPa, ordura arte Espainian ezezaguna zen kultura politiko berri baten, hots, ezkerreko kristautasunaren, aurrekaritzat hartu ohi da.

Ildo berean, Nafarroan indar handia izan zuen ORT alderdi marxista-leninista eta haren lehen militanteen, jatorria kristaua izan zen ere. Javier Iturbe, alderdiak Nafarroan izan zuen figura gailena, 1964ean VOJen lehendakaria zen Iruñean<sup>896</sup>.

<sup>892</sup> Consuelo Laizek azaltzen duenez, katolikoak, ezker berriko taldeetako militanteen jatorri nagusienetariko bat izan zen (beste biak, komunismoa eta nazionalismoa ziren). Consuelo Laiz, *La lucha final...* Op. Cit., 36 orr. Zentzu honetan, ez da harrizkoa aipatu dugun AST eta jarraian ikusiko dugun FLPa, jatorri kristauko taldeak biak, maiz JOCecko eta VOJeko militante gazteen marxismorako eta sozialismorako bidea izatea. Heine Harmut, "La contribución de..." Op. Cit., 150 orr. Kristauak ezkerrentzako esparru berrien sorreran izan zuten paperaz gehiago ikusteko, José Bada, Bernardo Bayona, Luis Betés, *La izquierda ¿de origen cristiano? Estudio sociológico de la izquierda aragonesa*, Cometa, Zaragoza, 1979.

<sup>893</sup> Alfonso Carlos Comín-en figurari buruz, Francisco José Carmona, *Cambios en la identidad católica: juventud de Alfonso Carlos Comín*, Libertarias-Prodhoufi, Madril, 1995.

<sup>894</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 206 orr. Asturiasen, JOCecko eta JECeko militanteengandik jaio zen. Valentín Burgos Salas, "La izquierda revolucionaria en Asturias. Los diferentes intentos de construcción de un proyecto alternativo al PCE", Francisco Erice (koord.), *Los comunistas en Asturias (1920-1982)*, Trea, Gijón, 1996, 459-502 orr., 466 orr.

<sup>895</sup> Valentín Burgos Salas, "La izquierda revolucionaria..." Op. Cit., 463 orr.

<sup>896</sup> ORTko militante izan edo ez, gure protagonistetariko askok, Javier Iturbe Nafarroako erakundeko erreferentziatzko figura bezala nabarmentzen du. Haren jatorri kristaua, berak

Alderdia Vanguardiaseko militanteek sortutako aipatu AST taldearen eskutik jaio zen. Borroka sindikalean murgilduta, erradikalizatzeko prozesu jarraitu bat bizi zuen eta 1968tik, osoki eman zen marxismora, talde sindikala, 1970ean, alderdi politiko bihurtuz. Nafarroan, lehenbiziko urteetan, ORTren jarduera politikoa ASTren jarduera sindikalarekin nahasten zen, 1973ra arte alderdi politiko gisara bereiztuko ez zelarik. Orokorrean, frankismoaren amaierako eta trantsizioaren garaiko Nafarroako alderdi politiko ezkertiarretan, militante kristauen presentzia argia eta garrantzitsua izan zen. Aipatu dugun ORTaren kasuan, alderdiaren jatorria bera Vanguardiasen lotuta dagoelako, oso agerikoa izan zen, baina ildoko bestelako alderdietan, ohikoa izan zen ere jatorri kristauko militanteekin topo egitea. Gure protagonisten artean, JOCen ibilitako PCI-PTEko militanteak (P.I., I.N. edota R.U.) eta komunitate kristauetako ekintzaile izandako MCEko eta HBko militanteak aurkitu ditugu (A.L. eta A.G.):

Talde guzti hori, gure taldea, bizitza politikora JOCaren bitartez jaio zen [P.L.. PCI-PTEko militantea]

Kontzientzia soziala hartzen dut, hasiera batean komunitate kristauekin parte hartzen dut [...] handik gutxira, komunitatea osatzen genuen guztiak, beno guztiak ez, bat izan ezik, Mugimendu Komunistan hasi ginen [...] kristau komunitateetan egon nintzen [eta] Elizaren aurkakoak ziren oso [...] elizaren sistemaren aurkakoak, ezta? Eliza instituzioaren aurkakoak [...] hierarkiaren aurkakoak [...] Noski, gero ere beste gauza batzuk, [orduko] asaldaketa sozial guztia zopatzeko duzu eta azkenean, antolatze beharra ikusten duzu, ezta? Orduan, martxan zeuden alderdi politikoetan antolatzen zara. Esan dizut, nire kristau komunitatekin (zortzi bat edo izango ginen), guztiak MCEan amaitu genuen, bat izan ezik. Hau USO sindikatuko buru izan zen. Begira nolakoak diren batzuetan ibilbide ideologikoak... noski, humanismotik... nik, hasieran, komunitate horretan humanismoa zopatzeko dut eta gero ba... noski, alderdi politiko guzti horiek asko hartzen zuten humanismotik, ezta?[A.L.. MCEko militantea]

Garai batean [aizoko] Herri Batasunako ehuneko laurogeita hamarra, militanteak ezta? ehuneko laurogeita hamarra, [kristau] komunitateetako jendea ginen. Momentu batean hori, komunitateetako jendea han egotea, naturaltasun osoz ikusten zen. Orduan oso garai polita izan zen inori ez zitzaion arraroa egiten ni manifestazio baten buruan egotea edo mitin batean egotea eta gero mezan Jauna ematen egotea... ez zen arraroa auzoan, ezta? ni lasai asko egoten ahal nintzen barrkada bat jartzen eta ordubete geroago mezan irakurgai bat irakurtzen. Azken batean manifestaziora zihoan jendea gero ere mezara joaten zen eta orduan gehiago "Ah mira, pues este más vale que ha podido salir del fregao" moduko bat zen, naturaltasun osoz. [A.G.. HBren inguruko]

Are alderdi sozialista, Nafarroan bere egiturak berrantolatu zituenean, militante kristauez hornitu zen. Figura nabarmenduenak aldi hartan Victor Manuel Arbeloa eta Gabriel Urralburu izan ziren, apaizak biak. Baina bestelako giro kristauekin zetozen militantzia ere bazegoen. Julio Garcia Perez tuterarra, 1977 Madrilgo Gorteetan diputatu izango zena, komunitate kristauekin zetozen adibidez. Berak elkarrizketa batean kontatzen duenez, komunitate kristauekin aurkitu zuen kontzientzia soziala

---

zehazten zuen 90. hamarkadan Arrotxapea aizoko aldizkarian egin zioten elkarrizketa batean. Politikan oso gazte hasi zela (hamalau edo hamabost urterekin) eta horretan sartzera eraman zuena eragile erlijiosoak izan zela (besteak, egoera okerrean daudenak laguntzea) aipatzen zuen. Salestarretan ikasia, garai hartan murgildu zen auzi sozialean, jakin-nahi hau piztuta, Kale Nagusiko Zentro Marianoan hasi zelarik. VOJen eskutik hasi zen mugimendu sozialean, lehenbizi mundu sindikalean (Nafarroako ASTko eta CCOOeko sortzaileetarikoa bat izan zen) eta gero politikan (ORTn). Ezkaba aldizkaria, 13. zkia, 1994, 4-6 orr. Are VOJeko lehendakari izatera iritsi zen. Ikusi "Hoy, fiesta cristiana del trabajo. Los obreros hablan de sus problemas" DN 1964-05-01, 16 orr.

hartzeko esparrua eta alderdi sozialistako militante eta diputatua zela, oraindik hauetan parte hartzen zuen<sup>897</sup>.

Langile mugimenduz eta alderdi politikoez haratago, diktaduraren amaieran eta trantsizioan militante kristauak izan zuten presentzia soziala, garai hartan irakinaldi betean zeuden mugimendu sozial zein hiritarretara eta are instituzioetara iristen zen. Bereziki adierazgarria izan zen HOACeko militante talde batek 1966az geroztik Iruñeko Udalean izan zuen ordezkartza jarraitua. Zinegotzi karguetatik, militante hauek, udalbatza egiazko eduki sozial eta politikoa zuten eztabaiden agertoki bihurtu zuten eta herriaren eta udalaren arteko harreman bat sustatzen saiatu ziren,<sup>898</sup>. Auzo Elkarteak militante kristauak protagonismo garrantzitsua izan zuten bestelako esparruak izan ziren. Apostolutza mugimenduek auzoa ekintzarako esparrutzat hartzen zuten heinean, berauetan, auzoetako bizitza dinamizatzea eta bizilagunen bizi kalitatea hobetzea helburu zuten erakunde eta elkarteak sustatu zituzten. Aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, parrokiak, parrokoak eta apostolutza mugimenduetako militanteak funtsezko eragileak izan ziren auzo identitate komunitarioak gorpuzteko eta eurak klase terminoetan definitzeko. Ildo honi jarraiki, funtsezkoak izan behar ziren ere auzo mugimenduen hastapenetan. 60. hamarkadaren amaierako eta 70. hamarkadako auzo elkarteetako militantzian, hartara, soziopolitikoki apostolutza mugimenduetan edo komunitate kristauean gizarteratu izan ziren militanteen kopurua handia izan zen, batez ere elkarten hastapenetan. Adibidetzat hartu izan dugu jada, baina Txantreako Auzo Elkartearen kasua oso esanguratsua da zentzu honetan, HOACeko militanteak izan zirelako, hain zuzen ere, haren sustatzaileak lehenbiziko momentuan. Militante kristauen presentzia eta ekintza nabarmena izan zen ere Nafarroako emakume talde eta plataforma desberdinen sustapen eta garapenean. Acción Católicaren mugimendu espezializatuak, egiazki, emakumezkoen sozializatorako esparru garrantzitsuak izan ziren. Esate baterako, Acción Católicaren emakume taldeek Centros de Cultura Popular y Promoción Femenina direlakoak martxan jarri zituzten, emakumeak euren formakuntzaren eta promozioaren protagonista egiteko (sexualitateari eta planifikazio familiarri buruzko eztabaidak, ikastaroak edota tailerrak antolatzen zituzten berauetan) eta emakumeen parte hartze soziala sustatzeko asmoarekin. Ildo horretan, I.N.-ren esperientziaren arabera, JOCa, emakumeak elkarrekin antolatzen hasi ziren lehenbizikoetariko esparruak izan ziren<sup>899</sup>. Mugimendu guzti hauetan ibili ziren militanteak gerora, emakumezkoen asoziazionismoaren garapenerako eta emakumea bizitza sozial eta publikora irtenarazteko funtsezko piezak izan ziren<sup>900</sup>.

*kontzeptualizazio lana: langile kultura kristau berri baten elementuak*

---

<sup>897</sup> “Julio García, el único diputado que dijo ‘No’ a Martín Villa”, Punto y Hora, Punto y Hora, 99. zkia, 1978ko abuztuaren 3-9, 36-39 orr. Familia karlista baten zuen jatorria. Momentu hartan, diputatuaren figura denen ahotan zegoen, 1978ko Sanferminetako gertakarien berri emateko Manuel Fragaren agerraldia exijitzeko botazioan alderdiaren boto diziplina bete ez zuelako. Berak agerraldiaren alde eman zuen botoa.

<sup>898</sup> Zuriñe Sainz Pascualek, bere doktore tesian garai hartako Iruñeko udala, zinegotzi hauen eta euren udal jardueraren bitartez aztertzen ari da.

<sup>899</sup> I.N.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

<sup>900</sup> Emakumeen parte hartze sozial eta politikoari buruzko Carmen Bravoren doktore tesian, Acción Católicako emakumeek toki nabarmena hartzen dute 60. hamarkadako marko kronologikoan. Aipatu Centros de Cultura Popular y Promoción Femenina direlakoak, marko honetan, emakumeentzako berezko esparruen sorreran eta emakumeen berezko asoziazionismoaren itxuraketan parte hartzen azaltzen dira. Carmen Bravo Sueskun, *La participación social y política de las mujeres en Navarra: de la domesticidad a la emancipación (1961-1991)*”, Juan Madariagak zuzendutako doktore tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Geografia eta Historiako Departamentua, 2011.



Bada nafar langile mugimenduari komuna zaion elementu bat, ekintzaileok edota buruok ez gara, orokorrean, [langile] tradizioetatik datorren jendea... ongi prestatutako jendea gara, Lanbide Heziketako ikasleak, maisutza eta merkataritza ikasketatako ikasleak eta halakoetakoak, ezta? [baita ere] unibertsitatea uzten duen jendea... komunean, ezkerreko erakunde politikoen tradizioetan jatorria ez duena; humanismoak zuen gugan eragina, humanismo kristauak, azken batean, batak zein besteak, konpromisoa erakunde sozial katolikoei -HOACari, VOJari, HOACari- lotutako bizipenetan funtsatu du... eta honek kutsu berezi bat ematen omen dio nafar langile mugimenduari urte hauetan [M.B.. Seminarioko ikaslea. MCEko militantea]

Orain arte apostolutza mugimendu sekularrak sozializatorako esparru gisara, formakuntzarako eskola gisara eta militante konprometituen haztegi gisara ikusi ditugu. Oraingoan, berauetan gauzatutako gizarteratzearen edukiak zeintzuk ziren, hau da, militanteek esparru haietan eta formakuntza prozesu horretan zein ikusmolde eta jokamolde ezagutzen zituzten, azaleratzea falta zaigu. Izan ere, apostolutza mugimenduen barnean sozializatorako eta formakuntzarako elementuen bitartez gauzatu zen militanteen kontzientzia hartzeak, kultura politiko berri baten sorrera ekarri zuen berekin: kultura kristau eta ezkertiar bat. Rafael Díaz Salazar soziologoak jada espainiar kristau ezkertiarren kultura eta praktika politikoak aztertu izan ditu. "Nuevo socialismo y cristianos de izquierda" erreferentziazko lanean, aipatu kultura politiko berri hori, militante kristauak sindikatuen eta alderdi politikoen bilakaeran parte hartzeko eta trantsizioaren bitartean eta ondoren erakundeotako buru izateko jokabideak ahalbidetu zituen elementutzat jotzen da<sup>901</sup>. Berak egindako azterketari jarriki, kultura bereizi haren ezaugarriak ezagutzen ahal ditugu.

Lanak, militante kristauak esparru desberdinetan izan zuten sozializazioak, mentalitate eta praktika politiko jakinak sortu zituela eta subjektu erlijioso eta ezkertiar bat itxuratu zuela planteatzean du abiapuntua. Zentzu honetan, apostolutza mugimendu sekularren eta kristau komunitateen giro erlijiosoan gauzatzen zen sozializazioa, militanteen jokabide politikoa bideratzen duen faktore bezala agertzen zaigu. Hau da, esparru guzti hauetan mugimendu katolikoen eskutik eman zen sozializazio bereziak, dimentsio politiko ezkertiarra zuen kultura erlijioso bat sortu zuen, sozializazioa bera militante kristauak politikoki ezkerrean kokatu zituen eragile erabakigarria gertatu zelarik. Esate baterako, esparru hauetan ematen zen formakuntza, ideologia edo programa ideologiko batean baino, berezko balore kristauetan oinarritzen zen mentalitate berezi bat osatzeko bidea izan zen. Honela, militante kristauak, euren jarrera hartze politikoak, hautabide batzuk arbuiatzen zituen eta beste batzuk laguntzen zituen berariazko sozializazio erlijioso baten bitartez barneratu zituzten: alor politikoan eskuineko eta zentroko jarrera hartzeak eta alor ekonomikoan egitura kapitalistak baztertzeko zituzten bitartean; politikoki ezkerrean kokatzen ziren eta ekonomiarentzako oinarri antikapitalistak defendatzen zituzten<sup>902</sup>. Hala ere, apostolutza mugimendu sekularrak ez ziren jaiotzez ezkerreko ikusmolde ideologikoetatik abiatzen eta are gutxiago eredu politiko sozialista, komunista edo anarkistekin identifikatzen. Baina 50. hamarkadaren erdialdetik 60. hamarkadaren erdialdera bitarte kristau ezkertiarrek sozialistatzat, komunistatzat edo anarkistatzat hartuak izan baziren, ez zen berez sozialistak, komunistak edo anarkistak zirelako izan, euren oinarritzko pentsamendua eta euren eguneroko praktika hauengandik gertu kokatzen zelako baizik. Berariaz ideologizatu gabeko sozializazioa zen beraz, ikusmolde erlijiosoak eta ebanjeliokoak, korrante obreristekin, sindikalekin eta politikoeekin harremanetan jartzen zituena eta berez, berekin hautabide ideologiko jakin bat ekartzen ez zuena.

<sup>901</sup> Rafael Díaz Salazar, *Nuevo socialismo y...* Op. Cit.

<sup>902</sup> *Ibid.*, 47 orr.

Apostolutza mugimendu sekularretan gizarteratu zen kulturak, noski, erro erlijiosoa zuen. Molde bereziko erlijiozaletasuna zen, “jatorrizko berdinaletasun kristauaren” printzipioetan oinarritzen zena eta nolabait, ondasun ekonomikoari buruzko ikuspegi komunitarista eta hauen metatze pribatuaren aurreko kritika zorrotza barne hartzen zituen. Anaitasun unibertsalaren ebanjelioko ikusmoldeetatik eratorritzen zen pobrezia, aberastasunari eta ondasunen jabetzari buruzko doktrina soziala hizpide, erlijiozaletasun honek, jatorrizko kristautasunaren funtsa berreskuratzea suposatzen zuen. Hainbat adibidek jatorrizko doktrina honek denboran bizirik iraun duela agerian uzten du. Esate baterako, Engelsek, Kautskyk edota Luxemburgek, hainbat adierazpen historikotan, Erdi Aroan edo Aro Modernoan nekazari matxinadak bultzatu zituzten mugimenduetan bezala, jatorrizko kristautasunean atzematen ahal zen komunismo erlijiosoa ikusgarri egiten zela adierazi zuten. Are gaur egun, hainbat esperientzia garaikidek, jatorrizko kristautasun hari lotutako antikapitalismo katolikoaren kutsu argia azaltzen dute, Brasilgo Partido de los Trabajadores eta Movimiento de los sin tierra direlakoak kasu<sup>903</sup>.

Diaz Salazarren lanari jarraiki, erlijiozaletasun hau ezaugarri bereziekin errotu zen apostolutza mugimendu sekularretan gizarteratu ziren militante kristauen mentalitatean. Aipatu jatorrizko kristautasunaren ildoan, militanteen misioa, berdinaletasun sozioekonomikoa ekarriko zuen eta jabetza eta produkzio eredu kapitalista atzean utziko zuen anaitasun unibertsala sortzera eta justizia sozialarengatik borrokatzera bideratzen zen. Misio hori gidatzen zuena ebanjelioa zen, erlijioaren eta zapalduen askapenaren arteko loturak ezartzen zituen elementua: *“bazen, nolabait esateko, pobreengatik, langileengatik borrokaren ideologizazio moduko bat... ideologizatu egin zen, ebanjeliotik beretik abiatuta; orduan ikusten genuen ebanjelioa oso zorrotza zela, pobreekin egon behar ginela eta orduan, ba, hori izan zen... orduan hori bizitza konpromiso bezala ulertzen zuten laikoak egon ziren ere, ez bakarrik apaizak [...] nik horrela ulertzen nuen... orduan nik ebanjelioa besteekiko eraspen bezala ulertu behar zela ulertzen nuen, ebanjelioaren agindurik funtsezkoena maitasunaren agindua delako; orduan, non gauzatzen da hobekien besteekiko maitasuna? Ba behartsuenengan, langileengan, ezta? Orduan ni, horregatik, egin nintzen... balore erlijioso eta gizatiarrak hizpide, noski, erlijiosoa eta gizatiarra ez daude elkarren kontra, ez, alderantziz, elkarrekin doaz... eta orduan horregatik egin nintzen apaiz langilea”<sup>904</sup>*. Jesu Kristoren irudiak berak ikusmolde honekin bat egiten zuen, sufritzen zuen Kristo bat baitzen, sinbolikoki pobreak eta zapalduak irudikatzen zituen eta militanteek eredutzat hartzen zutena: *“ni orduan eukaristiaren Kristoren oso zalea nintzen eta HOACarena Kristo akitu bat zen, hondatuta, langile klasea itxuratzen zuena, ezer ez duena, txiroa, zorigaiztokoa”<sup>905</sup>*. Irudi honek,aldi berean, kristoren zapalduen askapenarengatik borroka, erlijiozaletasun haren erdigune bilakatzen zuen, gurutziltzatzea, honek aurrera eramaten zituen praktika askatzaileekin, zabaltzen zuen salatze profetikoarekin eta azaltzen zuen botere politiko eta erlijiosoaren aurreko oposizioarekin lotzen zelarik. Zentzu honetan Jesu Kristoren irudiak, dimentsio iraultzailea hartzen zuela esan daiteke: *“Ni ez nago Elizaren aurka, inolaz ere... hau da, ni fededuna naiz eta badut nire jaungoikoa. Begira, niretzat Jesu Kristo gauza guztien jaungoikoa da, baina gertatzen dena da Elizak Kristo besteen eredu izateko jarri duela... niretzat Kristo hil zuten iraultzailea zelako, hori hasteko, utzi ergelkeriak... orduan Kristo iraultzaileaz aprobetxatu egin dira; erabili egin dute...”<sup>906</sup>*. Ildo horretan,

<sup>903</sup> Rafael Díaz Salazar, *Nuevo socialismo y...* Op. Cit., 135-136 orr.

<sup>904</sup> M.P.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-14.

<sup>905</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-11.

<sup>906</sup> F.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-30. Jesu Kristoren irudi hau bera aurkezten zuen Patxi Larrainzarrek:  
“Yo creo en ti, Señor, el peón del carpintero,  
por compartir con el hombre el pan salado

kristoren misio emantzipatzailea euren errealitatean gauzatzea, kristau ezkertiarren identitate erlijiosoaren eta praxi militantearen ardatz bihurtzen zen.

Apostolutza mugimendu sekularrek 50 eta 60. hamarkadetan ebanjelioko kristautasunaz egiten zuten irakurketak, nolabait, errealitate sozialaren, ekonomikoaren eta politikoaren azterketa egiteko irizpideak ematen zituen. Azterketa hori eginda, desarrollismoaren gizartea ez zen onik ateratzen, hura erabatean ebanjelioren aurkakotzat jotzen baitzen. Azken batean, garapen industrialak berekin ekarritako arazo sozialek, ebanjeliorekin ezer gutxitan zerikusirik zuten egoerak sortzen zituzten: ongizatearen gozamenean, klaseen arteko desberdintasunak sakontzen ari ziren, bereziki ondasunen jabetza eta zerbitzuen eskuragarritasunari zegokionean. Bestela esanda, militante kristauentzat, jabeek hazkunde ekonomikotik eratorritako aberastasunaren banaketari ezetz esatea, ebanjelioren oinarriekiko kontraesan bihurtzen zen.

Erlijiozaletasun honen gizarteratzea, aztertu berri ditugun apostolutza mugimendu sekularren formakuntzarako elementuen bitartez gertatu zen. Lehenik eta behin, bizitza berrikusteko metodoaren eta Behatu, Juzgatu eta Ekin metodoaren bitartez. Militante kristauek errealitate soziala behatzen zuten, ebanjelioren argitan juzgatzen zuten eta haren eraldaketan jarduteko konpromisoa hartzen zuten. Hau da, Itun berriaren irakurketa erabiltzen zuten errealitate sozialaren analisia egiteko. Sozializazio erlijiosorako molde erabat berria zen hau, estatu espainiarrean erlijiozaletasuna bereziki erritu eta debozioetan oinarritzen zelako eta ondorioz, Bibliaren irakurketa sozializazio erlijiosorako bitarteko bat izan ohi ez zelako<sup>907</sup>. Orain ordea, Biblia, militanteen formakuntzarako ikasliburu funtsezkoenean bihurtzen zen, bere edukiei buruzko oso irakurketa bereziak eginda. Patxi Larrainzar apaizak, adibidez, zapaltzaileen aurkako herrien matxinadarako eta norbanakoaren tiranoen aurkako erreboltarako deialdia irakurtzen zuen bertan<sup>908</sup>. Kristau ezkertiarrek beraz, halako irakurketatan gizarteratu ziren. Bigarrenik, formakuntzarako bestelako erremintek, GOEsek, eskola sozialek eta mugimenduen edota militanteentzako buletin eta aldizkariak, ebanjelioren berdinaletasun eta anaitasun baloreetan oinarrituta, politika, ekonomia eta harreman sozialak berregituratuko zituen ekintza eraldatzaile baterako jarraibideak erantsi zizkieten erlijiosotasun kritiko honi.

Sozializazio erlijiosorako molde honen emaitza nagusienetariko bat militantea bera izan zen. Militante horrentzat, fedea izateak, konpromisoak hartzea esan nahi zuen eta horregatik, bizitza bera militantzia bezala ulertzen zuen (arestian aipatu Txantreako HOACeko militante taldea honen adibide ona da) eta eraspenera, sakrifizioa eta konpromisoa balore nagusitzat zituen mistika edo espiritualtasun berezi baten arabera jarduten zuen. Are gehiago, espiritualtasun honek kristau ezkertiarren jarduera politikoan, alor kulturean garatutakoan (prentsa, jarduera intelektuala, formakuntza lana) eta herri borroketan parte hartzerakoan edota erakunde soziopolitikoak sustatzerakoan garatutakoan, laguntzen zuen.

Kristau ezkertiarren mentalitate politikoa osatu zuten elementu guztiak, batez ere apostolutza mugimenduek gizarteratu zituzten materialen bitartez hedatu ziren.

---

y el sudor y la rabia del obrero;  
porque vas por los caminos sin documentos y a pie;  
repartiendo propagandas ilegales  
de destronar al injusto y elevar al pordiosero”

Patxi Larrainzar, *Pecados veniales de un cura asilvestrado*, Txalaparta, Tafalla, 1995, 80 orr.

<sup>907</sup> Rafael Díaz Salazar, *Nuevo socialismo y...* Op. Cit., 54 orr.

<sup>908</sup> “Etxean dudak libururik subertsiboena Biblia da, non pasarte matxistez eta despotikoez haratago, herriei euren zapaltzaileen aurka eta gizabanakoei despoten aurka matxinatzaera dei egiten zaie”. Patxi Larrainzar, *Pega, pero escucha*, Txalaparta, Tafalla, 1991, 61 orr.

Berauetan, hots, formakuntza ikastaroetan, talde bileratan edota buletin zein aldizkarietan irakurtzen ziren testuetan, aise bereizten ahal dira antikapitalismoa, obrerismoa, sindikalismoa, demokrazia, sozialismoa edota autogestioa, berariazko osagai bezala. Antikapitalismoa, adibidez, aipatu erlijiozaletasunarekin lotzen zen zuzenean. Erdigune erlijiosoaren proletarizazioak (Jesu Kristo proletarioaren figura), ebanjelioko erradikalismoak (berdinzaletasuna, zapalduen askapena) eta komunitarismo erlijiosoak, kapitalismoari kritika egiten zioten eta bide honetatik, sistemaren deslegitimatze erlijioso gertatzen zen. Izan ere, ebanjelioko irakurketak, zapalkuntza eta esplotazioa, klase borroka, justizia soziala eta pobreen emantzipazioa bezalako kontzeptuak azaleratzen zituen. Kontzeptu hauen artean, obrerismoa nabarmentzen zen. Obrerismoak, kapitalismoak ukatzen zion protagonismoa ematen zion langileari. Haren duintasunaren defentsa egiterakoan edota langileen promozio integrala -bereziki kulturala- aldarrikatzerakoan, langile izaera definitzen eta indartzen laguntzen zuen elementua zen. 50. hamarkadaren bitartean, antikapitalismoa, obrerismoa eta bi elementuok barne hartzen zituzten beste zenbait eduki, bitarteko desberdinen bitartez iritsi ziren apostolutza mugimenduen militanteengana eta are langileengana. Iruñeko HOACak esate baterako, hamarkadaren bigarren erdialdetik aurrera, langileak erakundearen jardura ezberdinetan (bileretan, ikastaroetan, maiatzaren lehenaren ospakizunetan) parte hartzera gonbidatzeko, manifestu moduko idazki txiki batzuk argitaratzen zituen prentsan eta berauetan, osagai guzti hauek oso ongi azaleratzen dira<sup>909</sup>.

Manifestu haietan, kapitalismoak, klase baten gailentzea eta beste baten zapalkuntza iraunarazten zuen eta ondorioz, klaseen arteko desoreka, justizia sozialik eza eta klase arteko borroka sorrarazten zituen sistema gisara azaltzen zen: *“gizabanako aberats gutxi batzuek proletarioen bizkar gainean esklaboaren oso desberdina ez den uztarri bat jari dute”*<sup>910</sup>. Esklabotzaren gertuko egoera honen aurrean, “mundu hobea” baten irudia ematen zen. Komunitarismo kristauaren mundua zen, bestelako ordena ekonomiko eta sozial batean oinarrituta zegoena eta klasearen zapalkuntza desagerrarazi ondoren, justizia soziala bermatzen zuena: *“kristautasunaren zentzu komunitarioa gizaki ekonomikoaren bizitze gizagabetuari [...] gailentzen zaio. Kristautasuna eta ordenarik eza, kristautasuna eta injustizia, ez dira bateragarriak. Gizarte bat kristaua da haren baitan ordena eta justizia nagusi diren heinean. Eta injustizia nagusi denean -arrazoia dena dela-, artean kristautasunik ez dagoela esan nahi du”*<sup>911</sup>. Manifestuak, hartara, kontzientziak iratzartzen saiatzen ziren, langileak “mundu hobea” hura lortzeko borrokan subjektu aktibo bilakatu asmoz. Aipatu obrerismoa, orduan egiten da bereziki ikusgarria: *“Mundo osoa odoletan dago berekoikeriaren, esplotazioaren eta moralgabetasunaren ondorioz eta biktima nagusienak langileak dira. Errealitate honetaz jabetu behar zara! Euren egoeraz kontziente den langile askok langile batasunarekiko elkartasuna agertzen du. Zuk haiei elkartasuna agertu behar diezu!”*<sup>912</sup>. Beraz, langileria kontziente bat behar zen. Horretarako, ezinbestekoa zen, formakuntza sozial eta kulturalaren bitartez, haren promozio kolektiboa sustatzea: *“Gizarte egitura justua izango bada, langile formatu eta arduratsuak beharrezkoak dira. Langile klase indartsu eta antolatu batekin batera. Aise ulertzen eta onartzen da langileen banakako promozioa, baina ez euren promozio*

<sup>909</sup> *Langile klasearen konformazioa. Iruñea 1950-1962: hurbilpen bat* ikerlanean 50. hamarkadaren bitartean apostolutza mugimenduek Iruñerrian izan zuten presentzia azaleratzeko garaiko prentsa aztertu genuenean, halako manifestuak topatu genituen Diario de Navarra. Hauen bitartez, 50. hamarkadaren erdialdetik aurrera, HOACak maneiatu zituen kontzeptu eta ideia nagusiak ikusten ahal dira. Manifestuen edukiak, azaltzen ari garen ezkerreko kristauen mentalitate politikoaren adibide adierazgarriak dira. Zentzu honetan, idazki hauek, apostolutza mugimenduek gizarteratutako materialtzat jotzen ahal ditugu.

<sup>910</sup> “HOAC. Moderna esclavitud”, DN 1958-02-22, 2 orr.

<sup>911</sup> “HOAC. Decepción y esperanza”, DN 1958-06-26, 2 orr.

<sup>912</sup> “HOAC. Posibilidades obreras”, DN 1958-10-14, 2 orr.

*kolektiboa. Langile klasea garatu eta indartu behar da beste klase sozialekin hizketan jardun ahal izateko. Horretarako, langileen artean, klase ekintza ahalbidetuko duen elkartasun gogoia sentitu behar da*<sup>913</sup>. Promozio kolektibo horrek langile izaera balioestean zuen abiapuntua eta duintasuna zen, zentzu honetan, kontzeptu gakoa: *“Lanak gizakia bikaindu egiten badu eta gizarteari mesede egiten badio, langilea eskubide osoz Jaungoikoaren semea bada, bai lanak eta baita langileek ere eskubide osoa dute gizarteak eurak estimutan edukitzeko eta zuzen tratatzeko, behar duten ordain ekonomikoari dagokionean eta begirune sozialari dagokionean*”<sup>914</sup>.

Osagai hauek era berean, produkzio ekonomikoa eta gizartea antolatzeko sistema kapitalistaren aurreko alternatiben sorrera eskatzen zuen. Kristau ezkertiarren kulturaren bereizgarri ziren bestelako elementuak, alternatiba horiek eratzera bideratzen ziren, hain zuzen. Sindikalismoak adibidez, sindikatuan ikusten zuen eraldaketa sozialerako tresnarik egokiena eta betekizun horretan autonomia osoz, alderdi politikoen edo estatuaren menpeko izan gabe jardun behar zuela xedatzen zuen. Antiestatalismoak, nolabait, herria estatuaren aurrean egiten zuen protagonista. Herriaren promozioaren kontzeptuak, kultura herrikoi kritiko eta askatzaile bat hedatzearen beharra aldarrikatzen zuen. Guzti honekin batera, erradikalismo demokratikoak askatasuna, pluraltasuna eta herriaren subiranotasuna eskatzen zituen eta demokrazia ekonomikoak, autogestio sozialista, jabetza eta produkzio eredu kapitalistaren aurreko alternatiba bezala proposatzen zuen<sup>915</sup>. Nahasketa honen emaitza jatorri kristauko berezko pentsamolde batetik abiatzen zen mentalitate iraultzaile eta sozialista berri baten sorrera izan zen.

Mentalitate kristau, sozialista, iraultzaile eta antikapitalista honen zehazte praktikoaren adibide adierazgarri bezala, HOACaren “Langile Frontearen” proposamena dugu<sup>916</sup>. Langileen antolakuntzarako eredu bat zen. Proiektuaren oinarrian zeuden kontzeptuak egiazki obreristak izateagatik bereizten ziren, autogestioa, asanblada, langile klasearen promozio integrala eta langile boterea bezalakoek, protagonismo handia zutelarik. Praxiari begira, kristau ez ziren elementuek eta pentsaera heterodoxoek tokia izango zuten erakunde akonfesional eta irekiak edota plataforma batasundun eta autonomoak sortzearen alde egiten zuen. Helburua, produkzio bideen langile jabetza aldarrikatuko zuen eta fabrikako asanblada eztabaidarako eta ordezkartzarako elementu nagusitzat izango zuen langile mugimendu antikapitalista eta bateratu bat eratzea zen. Ikusiko dugunez, proposamen honek, nola edo hala, Comisiones Obreras mugimenduaren ezaugarri asko aurreratzen zituen.

Kultura honen sorrera, adierazpen intelektualei dagokienean, kristautasunaren eta marxismoaren arteko harremanarekin batera gertatu zen. Harreman honen bidea, lehenbizikoz, unibertsitatearen eta langile munduaren alorreko zenbait sektore kristauak hartu izan zuten. Alfonso Carlos Comín edota Guillermo Roviroa eta Tomás Malagónen kasuak izan ziren, euren pentsaerak, 50. hamarkadan zehar, orientatze sozialista eta marxista bat azaldu baitzuen<sup>917</sup>. 60. hamarkadaren bitartean, mugimendu sekularretan eta hauen inguruan gizarteratzen ziren elementuak, errealitatearen azterketa egiteko, tresna zientifikoak erabiltzen hasi ziren. Marxismoa noski, haietariko bat zen: *“Are apaizak, langile apaizak eta auzoetako parroketako apaizak marxismoa ezagutu nahi zuten. Ni hainbat eguneko ikastaro batean egon naiz, Veruelan,*

<sup>913</sup> “Ante el 1º de Mayo: Promoción obrera”, DN 1959-04-30, 7. orr.

<sup>914</sup> “1º de Mayo: Dignidad del trabajador”, DN 1958-05-01, 2 orr.

<sup>915</sup> Ezkerreko kristauen kultura politikoen ezaugarriak, Rafael Díaz Salazar, *Nuevo socialismo* y... Op. Cit., 102-105 orr.

<sup>916</sup> HOACaren “Langile Fronteaz” gehiago, Enrique Berzal de la Rosa, “Movimientos seculares en...” Op. Cit., 56-57 orr.

<sup>917</sup> *Ibid.*, 52-53 orr.

*apaizekin bilduta (beno hiru laiko ere ginen) marxismoaz ikasten. Orduan gauza bat zen marxismoa erabatean ez barneratzea... baina marxismoak analisirako, gauzei eta gertakizunei buruzko judizioak egiterakoan, jarraibide oso interesgarriak proposatzen zituela ulertzen genuen*<sup>918</sup>. Marxismoak alde positiboak eta baliozkoak zituela onartu zen orduan, langile klasearengan kontzientzia soziala errotzea edota langileak kapitalismoaren aurka bat egitera mugiaraztea, esaterako. Hurbilpen hau, 60. hamarkadan zehar Europan hedatzen joan zen fenomeno bat izan zen. Intelektual kristauen eta marxisten arteko topaketak, eztabaidak eta elkarlanak sustatu ziren, adibidez Frantzia, Italia eta Alemanian, hauen emaitza, bien arteko jarduna izan zelarik. Materialismoaren edota SESBen eta demokrazia herrikoien “sozialismo errealearen” aurreko kritikak kristau horien pentsamoldearen ezaugarri bereizgarri izaten jarraitu zuen arren, marxismoak haren dogmatismoa malgutu eta estalinismoaren aurreko kritika zorrotz zuen heinean, harremanak geroz eta gehiago estutu ziren. Bide beretik lortu zuen marxismoak, espainiar estuan, apostolutza mugimenduengan eta euren militanteengan eragina izatea. Zentzu honetan, Alfonso Carlos Comínek 1973an sustatu zuen “Cristianos por el socialismo” mugimenduaren sorrera, kristautasunaren eta marxismoaren arteko eztabaida eta elkartruke prozesu honen goren-unetzat hartu ohi da.

Marxismoarenganako hurbilketak, militante kristauak bestelako langile kultura politikoen zenbait elementu asimilatzea erraztu egin zuen. Sozialismoaren eta anarkismoaren eragina bereziki agerikoa izan zen. Militante sozialista zaharregandik adibidez, egiazko apostolutza lan eraginkor bat burutzeko baliagarriak izaten ahal ziren baloreak hartzen ziren: borrokarako gogoia, nekaezintasuna, antolakuntzarako gaitasuna, herriarekiko fidelitasuna, proselitismoarako joera, zintzotasun morala, oinazea jasateko gaitasuna edota zentzu demokratikoa. Ildo horretan, UGTari zehazki, langileengan elkartasuna errotzearen, langileen egoeraren hobekuntzarengatik eta promozio intelektualengatik borrokatzearen eta langileak kapitalismoaren ondorio larrien aurrean defendatzearen mereziak aitortzen zitzaizkion<sup>919</sup>. Anarkismotik eta joera libertarioetatik, CNTko militante ziren kristauengan eta USOkoko sindikalista dezenterengan agerikoa zen autonomia sindikalaren printzipioa hartzen zen lehenik eta behin. C.B.-ren bilakaera militantea esaterako, kristau mentalitate ezkertiarren joera anarkista honi lotuta egon zen. Izan ere, soziopolitikoki ZYX argitaletxearen inguruko talde batean gizarteratu ondoren, sozializazio horrek, Autonomia Obrera mugimendura eta CNTra eraman zuen<sup>920</sup>. Sindikalismoarekin eta autonomiarekin batera, anarkismoaren eragina balore sorta batean ikusten ahal zen ere: idealismoan eta ez konformismoan, eraspenean, buruargitasunean, elkartasunean eta kapitalismoaren ukatzean.

<sup>918</sup> C.A.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-10.

<sup>919</sup> Enrique Berzal de la Rosa, “Movimientos seculares en...” Op. Cit., 56 orr. 1965/1966 ikasturtean Iruñeako 46A GOESak bigarren galdetegiari emandako erantzunetan, HOACEko militanteen UGTari buruzko ikuspegi hau atzematen ahal da: hasteko, “UGTak langile promozioaren exigentziak ulertu zituen [...] langile elkartearen beharrak ulertu zituen; balore profesionalen defentsarako eta promoziorako prest agertu zen [...] elkartasuna sustatu zuen; sistema kapitalistaren aurkako defentsa antolatu zuen; langile kulturaren sustatzaile handia izan zen, balia handiko liderrak sortuaz” eta aurrerago “langileak euren duintasunaz kontziente egin zituen, klase kontzientzia eman zien; borroka zailtan gidatu zituen; langile klasearen eskubide diren abantaila ekonomiko eta sozial gehienak (soldata duina, segurtasun eta higiene baldintzen bermea lantokietan, zortzi orduko lanaldia...) lortu zituen borroka eta sakrifizioaren bitartez eta guztiaren gainetik, langileak pertsonak bezala eta ez makina bezala ikusiak izatea lortu zuen. Erantzun egokia eman zion indarrean den sistema ekonomiko hotz, gizagabe eta materialistari”. AHOAC-HOACA, GOES saila, 78. kutxa.

<sup>920</sup> C.B.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-09-03.

1955-1965 bitartean, hainbat faktorek militante kristauen eta marxismoaren arteko elkarganatzea erraztu zuen. Vatikanoko II.aren eskutik mundura zabaltzen ari zen katolizismo berria, teologialari kristau eta filosofo marxisten arteko topaketak edota PCEak 1956an iragarritako adiskidetzeko nazionalaren politika faktore haietarik batzuk izan ziren. Guztiarekin ere, kristautasunaren eta marxismoaren arteko harremana ahalbidetu zuen eragilerik funtsezkoena, lankidetzako praktikoa izan zen. Espainiar estatuko fabriketan, orokorrean, praxi militanteak, hots, lantokian egiten zituen harremanak eta sustatzen ziren borrokak edota militante eta erakunde desberdinen ekintza bateratuak, kristauak eta marxistak, kristautasuna eta marxismoa, oso modu eraginkorrean uztartzen zituen. Izan ere, hemen, batzuk zein besteek, egitekoak, helburuak eta konpromisoak partekatzen zituzten. Uztartze honen adibiderik adierazgarriena, bai kristauak eta bai komunistek Comisiones Obreras mugimenduaren sorreran izan zuten protagonismoa izan zen. Zentzu honetan José Babianok, CCOOen sorrera bultzatu zuen elkarrekintzaren atzean, militante kristauak eta militante komunistek lanekuaren kudeaketarako paradigma fordista orokortzeak berekin ekarritako esperientzia eta aspektu askotan (formakuntzaren ezinbestekotasunean, langile masaren bizi interesak defendatzean zituen jardueraren garapenean, disziplina zorrotzean) antzekoa zen kultura militante batean bat egin zutela ikusi zuen<sup>921</sup>. Hurrengo kapituluan ikusiko dugun bezala, esperientzia komuneko bizipena, zuzeneko harremana eta egunerokotasunean elkarrekin lan egitea, ikusmoldeak gerturatzeko biderik ohikoena izan zen.

Bide honetatik, militantzia kristaua, 1968tik aurrera, erradikalizatzen hasi zen. Kristautasunaren eta marxismoaren arteko goren unea, 1968ko maiatzaren eragina eta Acción Católicaaren erakundearen eta hierarkiaren arteko gatazkak sorrarazitako antolakuntza eta identitate krisia, funtsezko eragileak izan ziren militante kristau ugariaren ikusmolde marxista iraultzaileagoetarako bilakaeran. Militante kristauen marxismorako bidea berez, prozesu teoriko edo doktrinala baino, prozesu praktikoa bat izan zen. Are gehiago, askorentzat prozesu naturala izan zen, jasotako formakuntzak, barneratutako kultura politikoak eta gauzatutako jardura soziopolitikoak eskatzen zuten hurrengo pausu logikoa. Iruñeko militante askoren kasuan, bilakabide hau, adibidez, Vanguardias mugimenduetan hasi zen, ASTn antolatzearekin jarraitu zuen eta ORTn amaitu zen. José Elena Santamaria Blascok jasotzen duenez, militante hauetariko zenbaitek *“marxismoa kristautasuna onartu izan zuten modu berean onartu zuten. Haien oso erakargarria zen; [...] 68ko maiatzak [zentzu honetan] eman zuen bultzada oso garrantzitsua izan zen. Haiek ere iraultza egin nahi zuten eta Fidelekin zeuden”*<sup>922</sup>. Beste militante batzuentzat ordea, fede eta identitate krisi sakon batean murgilduta, zailagoa eta kontraesankorra izan zen alderdi marxistetan integratzea. Izan ere, aldi berean Elizaren baitan jada tokirik ez zutela eta alderdi marxistek, oraindik erabatean onartzen ez zituztela sentitzen zuten<sup>923</sup>.

### 5.3.4 Acción Católicaaren mugimendu espezializatuen krisia

Zirkuituaren baitan gizarteratze soziopolitikorako erreferentziatzeko esparru egin zituen urrezko aroa bizi ostean, apostolutza mugimendu sekularrak krisi prozesu sakon batean murgildu ziren. HOAC, JOC eta Vanguardias bezalako erakundeak kaltetuak gertatu ziren eta aurreko urteetan izandako protagonismoa galdu zuten. Acción Católicaaren eta bere mugimendu espezializatuen krisia, espezializazioarekin amaitzen zuten estatutu berrikuntzan eta erakundeotako lehendakari eta kontsiliario nazionalen dimisioetan gauzatua, inflexio puntu bat izan zen zentzu honetan. Orduetik aurrera,

<sup>921</sup> José Babiano, “Los católicos en...” Op. Cit.

<sup>922</sup> José Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 712 orr.

<sup>923</sup> Francisco Fernández Bueyren esperientzia eta ikuspegia, jasoa, Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 201 orr.

gauzak inoiz ez ziren lehen bezala izan mugimendu hauentzat. Dena dela, krisi instituzional hura, dimentsio sakonagoak zituen krisialdi sakonago baten adierazpen bat baino ez zen izan. Konpromiso mundutarrak, borroka soziopolitikoaren esperientziak eta marxismoarekiko harremanak, militante kristau ugari fede eta identitate krisi batetara eraman zituen, apostolutza mugimenduek, erakunde sindikal eta politiko marxisten mesedetan, euren militantziaren parte handi bat galdu zutelarik. Honela, langile sindikatu eta alderdi berriak hazi eta sendotu egiten ziren neurrian, mugimendu katolikoek tokia galdu eta erabatean gaindituak izan ziren.

Acción Católica espezializatuaren mugimenduen krisia, hauen kontrako erregimenaren errepresioarekin eta hierarkiak, konpromiso mundutarra hartzen ari zen formarekin beldurtuta, apostolutza mugimenduen jarduera kontrolatzeko agertu zuen nahiarekin izan zuen zerikusia. Zuzeneko jarduera politiko eta sindikala jorratu ezean, apostolutza mugimendu sekularrek, euren izenean publikoki burutzen zuten jarduera adierazgarriena, errealitate espainiarrean eta langileengan eragiten zuten gaiei buruzko adierazpen eta epai moralak egitearena zen. Ildo horretan, erregimenari, bere instituzioei eta zenbait politika eta neurri euren prentsan, adierazpen publikoetan eta are autoritate frankistei zuzenean eginiko interpelazioetan egiten zizkieten kritikek, diktadorearekiko liskar garrantzitsuak ekarri zituzten berekin. Esate baterako, 1960an, hauteskunde sindikalak burutzekoak ziren testuinguruan, mugimenduotako zuzendaritzek Sindikatuotako Ordezkarri Nazionala zen José Solís idatzi bat bidali zioten, non hauteskundeen araudi orokorrean atzematen ahal ziren hainbat irregularitasun salatzen zituzten. Idatzi horrek Elizako hierarkiaren eta erregimenaren botereen arteko lehenbiziko konfrontazioetariko bat sortu zuen, Sindikatuen Ordezkarriaren eta Plan i Deniel kardinal primatuaren artean polemika entzutetsu bat piztuz: gutun elkartruke batean, apostolutza mugimendu sekularren identitateaz eta jardueraren izaeraz gogor eztabaida egin zuten<sup>924</sup>. Nafarroako apostolutza mugimenduek ere halako adierazpen publikoak egin zituzten. Esanguratsuen 1970 urtekoa izan zen. Apirilaren 26an, El pensamiento Navarro egunkariak, HOAC, JOC eta Vanguardiaseko lehendakariak sinatuta, nafar langile klaseak pairatzen zituen arazo nagusienak deskribatzen zituen adierazpen bat argitaratu zuen. Bertan, probintziak bizi zuen egoera gatazkatsua eta haren azpian zeuden langile aldarrikapenak jasotzen zituzten eta Sindikatu Bertikalean langile ordezkariak errealik ez zegoela, langile liderren kaleratze sistematikoa bat burutzen zela eta oinarriko eskubideak bermaturik ez zeudela salatzen zuten. Testu honengatik, José Luis Aldasoro (HOACeko lehendakaria), José Miguel Ibarrola San Martín (JOCeko lehendakaria) eta Joaquín Rafael Soria Mugueta (Vanguardiaseko lehendakaria) auzipetuak izan ziren, adierazpenaren edukian kriminalitate zantzuak somatzen zirela argudiatuta<sup>925</sup>. Kasu zehatz hauek erakusten dutenez, apostolutza mugimendu sekularren halako jarrera hartze publikoek, haien kontrako erregimenaren errepresioa areagotu zuten, euren jarduera, argitalpenen zentsurarekin, erakundearen seinatze publikoarekin eta liderren jazarpenarekin, geroz eta gehiago oztopatu zelarik. Horrek, halaber, mugimenduak berak eta militanteak higatu egin zituen.

Konpromiso mundutarrak Acción Católicaaren erakundeak noraino eramaten zituen ikusita, Elizako hierarkiak berak ere, higatze prozesu honetan parte hartu zuen.

<sup>924</sup> Polemika eta gutun elkartruke honen inguruan gehiago, Basilisa López García, "Discrepancias entre el estado franquista y las asociaciones obreras católicas en 1960. La correspondencia entre el cardenal Pla I Deniel y el ministro Solís", *Anales de Historia contemporánea*, 4. zkia, 1985, 259-282 orr.

<sup>925</sup> Adierazpena: "Declaración de los movimientos Apostólicos sobre la situación social de Navarra", PN 1970-04-26, 20 y 6 orr. Auzipetzea: "Auto del juez Sr. Ruiz Ocaña. Juzgado de Orden Público (19-8-1970)", AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. kutxa. Ikusi ere, Jose Elena Santamaría Blasco, "Movimiento obrero apostólico..." Op. Cit., 717-718 orr.



Mugimenduotako buruei publikoki indarra kentzeak edota jarduera zein adierazpen oro kontrolatzen saiatzeak, mugimendu espezializatuen eta hierarkiaren arteko bat ez etortzeen goraldi bat abiatu zuen, 1968ko espainiar Acción Católicaren estatutuen berrikuntzarekin, eztanda egin zuen arte. Izan ere, estatutu berriek, espezializazioaren gaitetik, Acción Católica orokor eta parrokiolari lehentasuna ematen zioten eta erakunde sekularren hierarkiarekiko menpekotasun zorrotza ezartzen zuten. Urte horretan bertan krisiak bere puntu gorena bizi izan zuen erakunde desberdinetako buru eta kontsiliarioek dimisioa aurkeztu zutenean. Acción Católica Obrerako langile mugimenduek, HOAC eta JOC, estatutu berrien baitan estatus berezi bat negoziatzetik izan zuten, baina oro har, mugimendu espezializatuak, JECek edo emakumezkoen zenbait adarrek bereziki, indarra galdu zuten, kuantitatiboki eta kualitatiboki. Honek ondorio ikaragarriak izan zituen militanteengan, euren militantzia sindikal eta politikoak nolabait sortu zien identitate krisia, larriagotu egin zelarik. Mugimendu espezializatuetakoa militante askok orduan, militantzia bikoitza, kristaua eta soziopolitikoak, alde batera utzi zuten, esperientzia erlijioso berrietan edota klandestinitatean buru belarri sartzeko<sup>926</sup>.

Elizarekiko loturari eutsi izan ziotenak, kristau komunitateen mugimenduetan ibili ziren. E. A. 50. hamarkadatik zen HOACeko militantea. Konpromiso mundutarraren bidetik, bere fabrikari militante sindikal nabarmendua izatera iritsi zen; alor sindikalean CCOOn ibili zen eta alor politikoan, nahiz eta inoiz ez zen inongo alderdi politikoko kide izan, ORTaren inguruan egon zen. HOACa utzi zuen bertan jada muga jo zuela ikusten zuelako eta ordutik aurrera, komunitate kristauek jarraitu zuen bere berariazko erlijiozaleatasuna lantzen<sup>927</sup>. 1970ean Diario de Navarrak "komunitate kristau txikiei" buruzko lau artikulua laburren segida bat argitaratu zuen, mugimendua gora egiten ari zelaren seinale<sup>928</sup>. Testuotan, fenomenoaren jatorri eta izaera azaltzen ziren. Berez, parrokiaren baitan edota bestelako giroetan -unibertsitate giroetan eta langile giroetan bereziki- modu espontaneoan sortutako talde autonomoak ziren. Hauen baitan, Kontzilioaren berrikuntzekin bat zetorren kristautasun haragituago bat gauzatzen zen eta horregatik, fedea bizitzen zen eta konpromiso soziala errotzen zen esparruak ziren. E. A.-k berak komunitate hauetan bizi izan zuen esperientziaren testigantza, fenomenoaren esentzia atzemateko oso baliagarria gertatzen da:

HOACa guretzat urtzen zihoan... jada behar genuena barneratua genuen,... ikasketak burutzen duenarentzat karrera amaitzea bezalakoa de. Eta orduan esaten duzu beno, orain jada guzti hau badudala... orain horren arabera bizi behar naiz [...] Orduan guk zera egin genuen, apaiz baten eskutik, komunitate kristau bat sortu genuen. Komunitate hartan munduarentzako nahi genuen horren utopia bizi egiten genuen, taldean bizi egiten genuen; hogeita hamabost edo berrogei inguru izango ginen [...] erraz sei ordu irauten zuten bilerak ziren. HOACen Behatu, Juzgatu eta Ekin metodoa genuen bezala, hemen gure bizitzak komunean jartzen genituen, hau da, bakoitzak barnean zuen guztia askatu behar zuen, han zaren guztia, bizi duzun guztia, sufritzen duzun guztia agerian utzi behar zen [...] orduan ba, agian bi orduko aurkezpena egiten zenuen eta arazo bakoitza, guztion artean aztertzen zen [...] ondoren bi orduko eukaristia izaten genuen... behin baino gehiagotan, laneko goizeko txanda nuenean, bilerara gaueko hamarretan joaten nintzen, goizeko bostetan amaitzen genuen eta hortik, zuzenean, fabrikara joaten nintzen [...] egun batean, lagun batek...gure arazoaren aurkezpena egiten ari ginela, isilune batean, [lagun] honen emazteak hitz egin zuen; nik auto zahar bat nuen eta beti hemendik hara ibiltzen nintzen nire paperekin eta gauzekin... eta orduan emakume honek esaten du "Oye, pues mira, aquí está E. A. que anda con un coche viejo, que algún día se

<sup>926</sup> Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 238 orr.

<sup>927</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-11.

<sup>928</sup> "Sobre las pequeñas comunidades de cristianos (I)", DN 1970-03-05, 20 orr.; "Sobre las pequeñas comunidades de cristianos (II)", DN 1970-03-06, 20 orr.; "Sobre las pequeñas comunidades de cristianos (III)", DN 1970-03-07, 24 orr.; "Sobre las pequeñas comunidades de cristianos (y IV)", DN 1970-03-10, 14 orr.

va a matar por ahí con ese coche... y da la casualidad que en este momento nos encontramos en casa con cincuenta mil pesetas, que nos sobran y se las vamos a dar para que se compre otro coche"; berrogeita hamar mila pezeta! Auto hobeago bat erosi ahal izan nuen... eta halako kasuak, asko, arazo ekonomikoak edo bestelakoak zituztenei laguntzea... [E. A.. HOACeko militantea. Komunitate kristau bateko kidea]

70. hamarkadan, Acción Católica Obreraren mugimenduak, orduan agertzen ziren plataforma sindikal eta politiko berriek gaitzuta, bigarren maila batean geratu ziren oposizio soziopolitikoak egiteko lanetan. Are gehiago, erakunde berri hauen hazkunde eta indartzea, apostolutza mugimendu sekularrak uzten zituzten militante kristauak elikatu zituztelako gertatu zen, neurri handi batean. 60. hamarkadaren bitartean, militante asko langile aktibismoan sakonki murgildu zen, ikusmoldeak erradikalizatu zituen eta Elizaren doktrina sozialaren egitura ideologikoetan barna goiena jo zuelaz konbentzitu zen. Bilakaera honek militante hauen sekularizatzea eta langile erakunde kristauen identitate krisia ekarri zuen berekin. Espainiar Acción Católicaren krisialdiak egoera larriagotu baino ez zuen egin. Kontestu hartan, militante kristauen arrastoa, bestelako militantzietan, bereziki militantzia marxistetan, urtu egiten zen eta elementu erradikalizatuenean HOAC eta JOC taldeak uzten zituzten euren ibilbidea ezker marxistaren arloko langile erakunde sindikal eta politiko akonfesionaletan jarraitzeko<sup>929</sup>. Idoia Estornés deskribatzen duen ikuspegiaren arabera, Nafarroako erakundeak eta militanteak kasua ez zen desberdina izan: "70. hamarkadaren hasieran JOC eta HOAC [erakunde] kristauak behea jo zuten. Juanjo Diaz Yarzaren MCE nafarra orduan agertzen hasten zen. Nafarroako fabriketan Vanguardias Obreras Juveniles (jesuitak) ziren nagusi, non troskoek, txinoek eta katoliko ezkertiarrek gerrarako danborrak jotzen zituzten. VOJ 50. hamarkadan kongregazio marianoengandik sortu zen; momentu hartan izaki maoista batez hardun zeuden: ORTa"<sup>930</sup>

70. hamarkadaren hasierako mugimendu kristauen behea jotze hura, nafar JOCaren krisian egin zen bereziki ikusgarria. Erakundearen Artxibategian euskal eta nafar zonaldeaz topatu izan dugun dokumentazioak (bileren laburpenak, txostenak edota gutunak) orduan Nafarroako JOCak bizi zuen egoera zaila azaleratzen du: egiazko barne zatiketa bat ari zen gertatzen, kontestu ideologiko berri batean eta Acción Católicaren mugimendu espezializatuaren krisiaren ostean, JOCaren izaera eta antolaketari buruzko bi ikuspegiaren arteko konfrontazioan oinarrituta.

Hasteko, erakundearen garapena bera geldirik eta are atzera egite nabarian zegoen. Nafar langile mugimenduaren eta borroka sozialaren indartzeak, hala nola talde eta elementu marxista eta politikoen agerpenak, JOCeko militante asko (helduenak neurri handi batean) bestelako talde sindikal, politiko edo sozialetan sartzea eramaten zituen eta militantzia berri hauen aldean, JOCa bigarren maila batean geratzen zen eurentzat<sup>931</sup>. Egoera honen aurrean, JOC talde berriak abiaraztea eta hauek koordinatzea erakundearen egitekorik nagusienean bilakatu zen, baina bide horretan, JOCa izan behar zenaren eta erakundeak funtzionatu behar zuen moduaren inguruan bi ikusmolde ezberdin elkarren aurka egon ziren. Alde batetik Iruñeko batzorde federaleko lehendakaria, bestetik liberatua; lehenbizikoa klerikalizatzen hartua eta bigarrena, lerro politiko jakin baten ordezkari zat salatu.

Bi sektoreen arteko desberdintasunak, talde berrien abiatze politikan atzematen ahal ziren argi eta garbi. 1972an lehendakariak, taldeen abiatze horren arduradunek batzorde federala bazterrean utzita jarduten zutela salatzen zuen eta autonomia honen

<sup>929</sup> Honen adibide adierazgarria JECen kasua izan zen. Ikusi Feliciano Montero, *La iglesia: de...* Op. Cit., 208-211 orr.

<sup>930</sup> Idoia Estornés, *Cómo pudo pasarnos...* Op. Cit., 327 orr.

<sup>931</sup> "Reunión zonas vascas. San Sebastian (1969)", AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 90. Kutxa.

atzean, JOC erakunde politikoren baten plataforma gisara erabiltzeko gogoia egon zitekeela susmatzen zuen. Liberatuaren figura polemikaren erdian kokatzen zen. Izan ere, militanteekin zuzeneko harremana zuen eta alderdi jakin bateko kide zela uste zen heinean, euren nolabaiteko eragin politikoa gauzatzen ari zela, hots, militanteengan kontzientzia nazionala errotzen ari zela, estimatzen zuen<sup>932</sup>. José Elena Santamaria Blascok auzi nazionala du, hain zuzen ere, nafar JOCaren zatiketarako faktore nagusizat, militanteengan euskal nazionalismoaren sentimendua errotuz joan zen heinean, nafarrak egitura nazionala aldendu zirelako eta lehendakariak sentimendu nazional hura partekatzen ez zuenez, nafar federazioaren barne egoera nahastu egin zuelako<sup>933</sup>. Konfrontazio ideologikoz haratago, nafar federazioaren barne arazoek, antolakuntza ereduarekin eta eguneroko funtzionamenduekin ere izan zuten zerikusirik. Lehendakariaren karguak pisua galdu zuen, abiatze, formakuntza eta eskola profesional, auzo eta enpresa taldeen arduradunak gerotik eta autonomoago bihurtu eta zuzenean, liberatuarekin harremanetan jartzen ziren heinean. JOCekin koordinatu gabe eta askatasun osoz jarduten zuten taldeak nagusi ziren. Lehendakaria bere aldetik, JOCaren baitako taldeen koordinazioaren aldekoa zen, nagusitzen ari zen autonomia horrek, erakundea “beste gauza batzuk ezkutatzeko” tresna bihurtzen zuela uste zuelako<sup>934</sup>.

Guztiarekin ere, militanteak berak ziren ekintza zuzenago baten aldeko hautua egiten ari zirenak. Mugimenduaz bereizten ari ziren, ibilbide propio bat garatu nahi zutelako. JOCa 1973an desagertu zen, militanteen parte bat mugimendu sindikal eta politikoetara igaro zenean eta beste parte batek, JOC egituretatik kanpo, talde berriak sustatu zituen.

Apostolutza mugimendu sekularren krisiarekin, militante kristauen sakabanatze prozesu bat hasi zen. Haietariko askok klase ideologietara eta erakunde politikoetara jo zuen, euren konpromisoa indartzeko eta jarduera soziopolitikoarekin jarraitzeko bide bezala. Zentzu honetan, militante kristau hauen bilakaera pertsonal eta militantea, garai hartako ezkerreko erakunde langile eta marxisten militantziak ulertzeko funtsezko elementu bat dela esan daiteke. Kristauen marxismoarako bidea eta militantzia ezkertiarra, aurreko atalean ikusi dugun Punto y Hora aldizkariak hainbat apaiz nafarrekin egindako mahai inguruko gai nagusietako bat izan zen. Patxi Illarazek errealtatearen ezagutzak berak eta arazo berberei aurre egiteko borrokatzen zuten bestelako elementuekin bat egiteak, militante kristau asko euren ikusmolde kristauak zein politikoak berrikustera eramane zituela azaltzen zuen. Miguel Portillok, marxismoaren asimilatze prozesuaren bidetik jotzen zuen eta militante haiek marxismoan, errealtatearen analisi bat egiteko tresna erabilgarri bat aurkitu zutela adierazten zuen, honek modu naturalean, konpromisotik ezkerreko taldeak sortzea eramane zituela gaineratzen zuelarik. Are gehiago, alderdi marxista baten baitan, kristau eta ateo baten arteko egiazko desberdintasunak ohartaraztea oso zaila zela

---

<sup>932</sup> “Informe de Paco Torres. Trabajo en Pamplona (1971)”, AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>933</sup> Jose Elena, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 723-724 orr. Nafarroako JOCaren barne dokumentazioan, auzi nazionalak sortutako tentsioak gordinki azaleratzen dira. “Informe de Paco Torres. Trabajo en Pamplona (1971)”, AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa.

<sup>934</sup> Zentzu honetan, lehendakariak, Nafarroako JOCak oraindik erakundearen helburu orokorrak sektore batzuen erruz xedatu ez zituela eta horrek sektore haiei taldeak norabide politikoan, eramateko aukera ematen ziela salatzen zuen. Esate baterako, abiatze talde batean ETA VI edo Ligan sartzea aukera bezala planteatu zelako oso kezkatuta azaltzen zen. “Federación de Pamplona (datarik gabe)”, AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa. Egiazki, lehendakaria, bai bileretan eta baita federazio nazionalari bidalitako gutun desberdinetan, Nafarroako JOCaren baitan bizi zen egoerarekin eta konfrontazioarekin oso nekatuta agertzen zen.

azpimarratzen zuen. Jesús Equizak, apostolutza mugimenduetako militanteek alderdi ezkertiarretan gauzatzen zuten militantzia azaltzeko, euren erlijiozaletasunak bizi izandako konpromiso eta askapen eredu baterako eboluzioa zuen hizpide.

Beraz, militante kristauen aldatze prozesu honetan, apostolutza mugimendu sekularretan gertatu zen sozializazio politikoaz nabarmendu izan ditugun elementu guztiek, hots, ikusmolde erlijioso berriak, arazo errealen zuzeneko ezagutza, konpromiso mundutarra, joera anitzetako militanteekin abiatutako harremana edota lankidetzeta eta marxismoaren aurkikuntza zein barneratzea, parte hartu izan zutela ikusten ahal dugu.

Kristau ezkertiar hauen garapen politiko eta mentalaz gehien nabarmendu ohi den aspektuetariko bat, haietariko askok, militantzia berrietan murgiltzerakoan, euren fede kristaua galdu egin zutela da. Díaz Salazarrek esaterako, hizpide izan dugun kristau ezkertiarrei buruzko azterlan horretan, egitate hau, Gramsciren “kristautasunaren suizidioaren” kontzeptuarekin lotzen zuen. Honela, kristautasun sozial erradikalak, zenbait pertsonaren mentalitatea desblokeatuz, militante kristauek sozialismorako bidea hartzea errazten zuela baieztatzen zuen arren, behin klase kultura barneratuta eta langile erakundeetan sartuta hauek euren jatorrizko erlijiosotasuna galtzeko joera zutela azaleratzen zuen<sup>935</sup>. Modu honetan, kristau ezkertiarren ibilbide militantea aztertuz, bidean haietariko askok fede galdu zuela aipatzen zuen, baina aldi berean, militante askoren jatorri sozial eta kulturala kontutan hartuta, gaztaroan eta lehen helduaroan izan zuten sozializatzeko kristaurik gabe hauek ezker sozialistaren, komunistaren edo anarkistaren ikusmoldeak barneratzea zaila izango zela azpimarratu zuen ere<sup>936</sup>. Azken honek nabarmentasun berezia du gure kasuan, protagonista askoren jatorri sozial eta kultural zein zen ikusita.

---

<sup>935</sup> Edo Gramsci beraren hitzetan esanda, “zenbat eta presenteago egon kristautasuna eraldaketa sozialean, geroz eta azkarrago hiltzen du bere burua”. Jaso, Rafael Díaz Salazar, *Nuevo socialismo y...* Op. Cit., 107 orr.

<sup>936</sup> Victor Manuel Arbeloa, apaiza lehenbizi eta militante sozialista gero, oso kritiko azaldu da egun militante kristauek garai hartan bizi izan zituzten garapen prozesu pertsonalekin eta euren bilakabide militante zein politikoeekin: “mundu demokratikoaren ezagutza eta are jarduera politikoa, urriak ziren zirkulu klandestinoetatik kanpo; gaizki ikasitako eta ulertutako marxismoarenganako konfiantza, gehiegizkoa zen eta askotan, inozoa ere; ez zen gutxitan gertatu kritikarik gabeko sindikatu edo alderdietarako atxikitze itsua, bereziki hauek izaera marxistakoak edo nazionalistakok zirenean; era berean, elizako mugimendu haietariko askotan ematen zen formakuntza idealistaegia zen eta ez zen apenas bitartekaritza mundutarren sare konplexuak zuen eraginaz arduratzen. Guzti honek [...] hondamendia eragin zuen apaiz, elizgizon eta militanten laikoengan; laster euren eliz egitekoak utzi zituzten, baita askotan Eliza bera eta fede ere; guzti hori, inportatutako formakuntza kristaua askotan, kristaua baino, edozer gauza zela kontutan hartu gabe”. Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 703-704 orr.



## 6.KAPITULUA

### FRABRIKAREN BAITAKO LANGILEEN GIZARTERATZE SOZIOPOLITIKOA ETA LANGILE MUGIMENDUA

Langile klasea eratu zen zirkuituaren berrosatze honetan, azkeneko geldialdia fabrika izanen da. Izatez, fabrika klasearen eraketaren esparru nagusia da. Esplotazioa modu argien, bizien, bortitzen bizi eta sentitzen den esparrua da. Langileak bildu eta pareko bihurtzen dituen esparrua da. Frankismoaren bitartean, langile klaseak lantokiaz kanpoko erreprodukziorako berezko esparrurik eta bere interesen defentsarako antolakuntza esparrurik ez duenean, protagonisten gizarteratze soziopolitikorako esparru nagusia da.

Fabrikak klasearen eraketa prozesuan bete zuen paper garrantzitsua, Iruñerriko langile mugimendua eta honek sortutako gatazka eredu berria, fabrikaren baitako errealitateetatik eta harreman sareetatik sortu zirela azaleratzen denean egiten da ikusgai. Honela, egingo dugun fabrikaren esparruaren azterketa, langile mugimenduaren azterketa bihurtuko da hein handi batean.

Hasteko, fabriketan barna langilegoaren antolakuntza forma berriak sortzen ikusiko ditugu. Kezka, ezinegona eta protesta bideratzeko nukleoak eta sareak nola sortu ziren aztertuko dugu. Bide honetatik, eguneroko kontuetan garaipen txikiak eta langile militanteak Sindikatu Bertikalaren egituretara eraman eta hauek langileen sozializaziorako eta ordezkartzarako esparru bihurtu zituzten garaipen handiagoak lortu zirela baieztatuko dugu. CCOO fabriketan jaiotzen ikusiko dugu. Hain zuzen ere CCOO frankismoaren bitartean sortu zen langile mugimenduaren eredutzat hartuko dugu eta haren ezaugarri nagusiak eta bilakabidea aztertuko ditugu. Ildo honi jarraiki, Iruñerriko eta Nafarroako CCOOek azaldu zituen aipatu ezaugarrietan zein bilakabidean eragina izango duen elementu bezala, langile mugimenduaren garapenean parte hartzen duten kultura langile eta politikoetara iritsiko gara. Hauen azterketak, nafar langile tradizioetik, apostolutza mugimendu sekularretara, alderdi komunistara eta ezker iraultzailearen talde politikoetara eramango gaitu, guztien artean berezitasun interesgarriak izan zituen langile mugimendu bat sortu zutela ikusiko dugularik.

Azkenik, ahozko iturrien analisi kualitatibo baten bitartez, gure protagonisten ibilbide eta esperientzia militanteak aztertuko ditugu, Berauetan, ez ditugu soilik aurretik azaleratutako langile mugimenduaren sare, esparru eta ezaugarriak islatuta ikusiko; berauetan, protagonistak militantziara eraman zituzten bide ezberdinak islatuko dira ere, aktibismoa abian jartzen zuten eta elikatzen zuten motibazioak agerian utziz nolabait.

## 6.1 FABRIKAK, LANGILEAK, MILITANTEAK, KOMISIOAK

E.P. Thompsonen The making-en seigarren kapitulua, “esplotazioa”, fabrika eta langile klasearen sorreraren arteko harremanarekin hasten zuen. Hark jasotzen zuenez, XVIII. mendaren amaierako eta XIX. mendearen lehen erdiko behatzaileen begietan, fabrikak errebolta politikorako erdigune garrantzitsuak ziren. Hala iradokitzen zuten 1792an Yorkshireko bailarak bisitatu zituen bidaiari aristokrata baten hitzek: *“Orain hemen fabrika handi eta harro bat dago [...] Ezkila hotsaren eta fabrikatik ateratzen den oihu zalapartaren erruz, bailara osoa aztoratuta dabil; traizioa eta berdintasunezko sistemak solasbide dira eta errebolta gertu egon daiteke”*<sup>937</sup>. Hitz hauekin, fabrika eta gizarte industrial berriaren arteko elkar harremana eta produkzio eta gizarte harreman forma berrien arteko elkarrekikotasuna aurkezten ziren. Ildo horretan, nahiz eta euren ikusmoldeak oso desberdinak izan, behatzaile kontserbadore, erradikal eta sozialistek ekuazio berbera proposatzen zuten: *“lurrun energia eta kotoi lantegia=langile klase berria”* ospetsua<sup>938</sup>. Hau da, makinek eta fabrikek zuzenean langile klasea sortzen zutela estimatzen zen. Thompsonen 1811 eta 1850 bitarteko asaldura sozial eta politikoa bizitasunak aipatu ekuazioak iradokitzen zuten harreman kausalean pentsatzera eramaten zuela ulertzen zuen. Alta, korrelazio hura horren zuzena ez izatea gerta zitekeen, hasteko, Thompsonen berak maneiaturako datuen arabera 1830ean oraindik, esku ehuleak, kuantitatiboki, fabriketako langileak baino gehiago zirelako eta lantegietako langileak, industria iraultzaren lehensortuak baino, iristen azkenekoak zirelako. Auzia garrantzitsua izan zen historialari britainiarrak aztertu izan zuten klasearen eraketaren prozesuan, izan ere, fabriketako langileen ideia eta antolakuntza moldeetariko asko jada beste motatako langileek, hots, etxeko langileek, artisauek, ehuleek, liburu-saltzaileek edota inprimatzaileek azaltzen zituztela azaleratzerakoan, lantegiek erabateko protagonismoa galtzen zuten. Langile klaseak fabrika sistematik eratorritako berezko sorrera izan ez zuela esatera zetorren<sup>939</sup>.

Gure kasuan, langile klaseak ez zuten ere fabrika sistematik eratorritako berezko sorrera izan. Baina fabrikak, funtsezko betekizuna izan zuten klasearen eraketaren prozesuan. Esate baterako, bigarren kapituluan gure subjektuak aztertu ditugunean, fabrikako langile bezala, are fabrika handietako langile bezala ezagutu ditugu eta horrek nolabait, fabrikari arreta jartzea eskatzen du. Ez du esan nahi, ordea, fabriken ezarpenaren eta klasearen jaiotzaren arteko harremana ekuazio baten moduan ulertzen dugunik. Guretzat fabrika Iruñerriko langile klasea sortu zen agertokietariko bat, agertoki garrantzitsuenetariko bat, izan zen eta horregatik, behatu beharreko esparru bat da.

Fabrikaren esparrua, frankismoaren bitarteko militantzia langile eta sindikalei buruzko lanetan, azterketa alor errepikaria izan ohi da. Javier Tebar eta bere ikerketa taldeak adibidez, auzoaren esparruarekin ikusi genuen bezala, fabrika, langile militanteen formakuntzaren esparruetariko bat bezala bereizten zuten eta protagonista ezberdinek bertan zuten presentzia aztertzen zuten, pertsonen, banaka zein kolektiboki, gizartearen aldaketei erantzunak ematen zieten guneetako bat baitzen<sup>940</sup>. Xavier Domènechek bere aldetik, fabrikaren baitan bizitako esperientzia, frankismoaren bitartean sortu ziren langile identitate berrien eratzea ulertzeko ezinbestekotzat jotzen zuen. Izan ere, fabrikak orduan, sozializatzerako eta balore zein jokabide berriak sortzeko erdigune nagusienak ziren: bertan, militante zahar eta berrien arteko topaketak ematen ziren edota jakintza eta jokaera kodeak transmititzen

<sup>937</sup> Edward Palmer Thompson, *La formación de...* Op. Cit., 215 orr.

<sup>938</sup> *Ibid.*, 217 orr.

<sup>939</sup> *Ibid.*, 221 orr.

<sup>940</sup> Javier Tebar, *“Entre el barri ...”* Op. Cit., 140 orr.



ziren, gatazkaren testuinguruetan adibidez<sup>941</sup>. Ildo horretan, frankismoaren garaian, langile protestaren eta antolakuntzaren piztutzean fabrikak funtsezko papera izan zuela esan daiteke. Langileen bizitzaren eta denboraren parte handi bat hartzen zuen eta horregatik, hein handi batean, esperientziak bizi eta partekatzeke hala nola bizikidetzarako esparru nagusienetariko bat zen langileentzat. Iruñerriko langileriak, hartara, fabriketan barna topo egin eta elkar ezagutu zuen hein handi batean, bertan langile mugimendua sortzeko eta artikulatzeko harreman eta konfiantza sareak itxuratu eta zabaldu zituelarik. Guretzat fabrikak langile esperientziaren erdigune den heinean du interesa: belaunaldi, jatorri eta giro desberdinetako langileen elkargunea da, esplotazioa zuzenean bizi den tokia da, hari erantzun antolatua ematen hasten zaion esparrua da eta langile gatazkaren agertoki abantailatua da. Are diktaduraren kontestuan, funtzio berezia izango du, berezko esparrurik ez zutenean, langileek bere egin eta euren arazoez hitzegiteko, politikaz aritzeko eta militantzia praktikatzeko eremu bihurtu baitzuten:

Orduko egoera zen askatasunarik gabeko egoera, kontzientzia lantzen genuen eta gero... politika egiteko zegoen leku kasik bakarra edo inportanteena ziren lantegiak, lantegiak ziren politikako eremuak; non bueno pues, adierazpen askatasuna bazegoen, asanbladak lantzen ziren gehien bat; zengatik asanblada zen eztabaidatzeko lekua eta erabakiak hartzeko lekua, eta gero bueno fabrikari beti bazenuen babesa, zure lana egiteko eta zure militantzia praktikatzeko. Orri aunitz banatzen genituen, propaganda eta egiten genuen asko. [P.U.. El Pamplonicako langilea. CCOOeko militantea]

Fabrikaren barruan politikaz asko hitz egiten zen, asko [...] politikaz asko hitz egiten zen... politikaz, asko. Asanblada askotan, azkenean, ba... asanblada politiko asko ere egon ziren, ez soilik fabrikaren arazoei buruzkoak [...] kasik adierazpen askatasun gehien zegoen tokia zen fabrika, bai, egia da, asanblada batean, edonork nahi zuenari buruz hitz egiteko aukera zuen. [K.P.. Imenasako langilea. CCOOeko langilea]

Guzti honengatik, gure subjektuetariko askok fabrika bera izan zuen militantzia soziopolitikoan gizarteratzeko lehenbiziko sarbide bezala: *“eta fabrikari nahasten zara eta orduan, txipa aldatzen duzu eta uzten diozu... tontakeriatan pentsatzeari uzten diozu eta zure bizitza fabrikaren inguruan ardazten da; eta panfleto bat egin behar ez zenean, ez dakit zer jarri behar zenuen edo ez dakit nora joan... ba... [horrela] hasi ginen jarduera politikoan”*<sup>942</sup>. Protagonisten militante ibilbideetan, fabrikak, hiru eredu nagusi desberdinetan jarduten du gizarteratze soziopolitikorako esparru bezala. Sozializazio goiztiarretan adibidez, fabrikari ematen ziren langileen arteko harremanek lehenbizi, apostolutza mugimenduetarako sarbide gisara balio izan zuten, era berean mugimenduetatik jaio zen Comisiones Obreras mugimenduetarako sarbide izango zirelarik nolabait ere. 60. hamarkadaren erdialdean, J.E.C.-en eta M.BU.-ren kasuak izan ziren. Biek euren lantokietan, Torfinasa fabrikari lehenbizikoa eta tailer txiki batean bigarrena, Vanguardiaseko militanteak ezagutu zituzten eta hauen bitartez hasi ziren Zentro Marianora joaten. Hemendik, biek parte hartu zuten Nafarroako Comisiones Obrerasen sorreran<sup>943</sup>. M.L.C.-en kasua antzekoa izan zen, desberdintasun gutxi batzuekin. 1969an hasi zen lanean Potasaseko bulegoetan. Lankide zuen militante baten eskutik, JOCen hasi zen, berarekin mekanografian aritzen ziren beste langile batzuekin batera. Taldetxo hau, gerora, aurrerago ikusiko dugun bezala, bulegoetako langile komisioren aurrekaria izanen zen:

<sup>941</sup> Xavier Domènech, “La formación de...” Op. Cit.

<sup>942</sup> M.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-09.

<sup>943</sup> J.E.C.-i eta M.BU.-ri egindako elkarrizketak. Iruñea, 2011-06-02 eta 2014-05- 20, hurrenez-hurren. Antzeko moduan, ezagun batek gonbidatuta, ezagutu zuten zentroa bai C.O.-k eta baita A.H.R.-ek. C.O.-i eta A.H.R.-i egindako elkarrizketak. Aisa, 2013-09-19 eta Iruñea, 2014-08-19, hurrenez-hurren.

Ni, nolabait esatearren, langile sentitzen hasi nintzen gutxika, Potasasen, Potasasen gehien bat. Ez, nik ez nuen ezagutzen... beno, diot, gaztea nintzen eta ordura arte ez nuen inoiz [langile mugimendurekin] harremanik izan, nire munduan bizi nintzen [...] baina mekanografian jakin-nahia genuen hainbat neska ginen, ezta? Hasi ginen ikusten bulegoko jendeak, haiei *los de buzo* esaten zirela, zerbait eskatzen zutenean, ba esaten zutela “ya están ahí los de buzo”, askotan etortzen zirelako tailerrekoak edo fabrikakoak bulegoetako atera, ezta? “Ya están ahí los de buzo, ¿Qué querrán?”; baina gero ikusten genuen haiek [bulegokoek] gero eskua beste guztiek bezala jartzen zutela, ezta? ez zuten ezertan nahastuta egon nahi, baina gero *los de buzo* soldata igoera bat lortzen bazuten, ez zuten arazorik eskua jartzeko. Orduan Zapateria kalean zeuden JOCen lokaletan biltzen hasi ginen, elkartzen hasi ginen eta langile mugimenduz hitz egiten hasi ginen... [...] gure artean hitz egiten hasi ginen “Oye, pues nosotras en la oficina, pues es que también deberíamos hacer algo, no tenemos por que chupar de lo demás...” ezta?; bueno, oso gaztea eta oso idealista nintzen momentu hartan eta beno, nik ideia hori barneratu nuen eta bileretara joaten hasi nintzen [...] egiatan gurekin jada JOCekoa zen neska bat zegoen eta bera izan zen esan ziguna... “Oye, pues podéis venir y tal”. Eta joaten hasi ginen eta langile mugimenduz hitz egiten hasi ginen. [M.L.C.. Potasaseko bulegoko langilea. JOCeko militantea. CCOOeko militantea]

Bigarren eredia oso ohikoa zen beranduago, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, aurretiko inolako esperientziarik gabe edota aurretik apostolutza mugimenduetatik igaro gabe, fabrika gizarteratu egin ziren militanteen artean. Hauek, zuzenean, euren lantokietan jada funtzionatzen zuten langile komisiotara sartu ziren, berauetan militatzen zuten lankideekin egindako harremanaren bitartez. Hau izan zen, esate baterako, P.M. eta K.P.-en kasuak<sup>944</sup>. Biak, pertsona berberaren eskutik sartu ziren Imenasako langile komisiara. Azken honen esperientzia bereziki interesgarria eta esanguratsua da, oso gazte (hamalau urterekin) sartu baitzen fabrikara ikastun bezala, militante horren laguntzailea izatea egokitu zitzaizolarik. Harreman hau gerora, funtsezkoa izango zen bere militante ibilbidean:

Ni beste langile baten laguntzaile bezala hasi nintzen. Laguntzaile bezala sartu nintzen... noski, ikastuna zarenez, sartzeko zara eta ikasten joateko, jada ofiziala den beste langile batekin lanean jartzen dizute. Orduan ni ikastun sartu nintzen eta [mugimenduan] sartuta zegoen beste langile batekin jarri zidaten. Orduan, horren harira, noski, jendea etortzen zen, hitz egiten zuten, ez dakit zer, ez dakit zenbat... orduan zuk gauzak entzuten dituzu [...] orduan, denbora pasa ahala, geroz eta gehiago nahasten zara, ezta? jendea jada hasten zaizu esaten “Oye K.P., no se que, no se cuantos, esto...” eta gutxika sartzeko zoaz. Agian, hasieratik eta bi edo hiru urtez tipo hau ez zen beste pertsona batekin egon izan banintz, ba agian ez nintzen kontzientzia hori garatzera iritsiko... Baina noski, tipo horrekin tokatu zitzaidan. Gainera orduan fabrika sortzen ari zen mugimenduaren baitan oso pertsona garrantzitsua zen. [...] Orduan noski, hitz egiten duzu. Horrenbeste ordu elkarrekin lanean eta hitz egiten duzu; eta berak gauzak galdetzen eta kontatzen zizkidan; eta esaten zidan “esto, ¿qué te parece esto?” eta ez dakit zer, ez dakit zenbat. Orduan guzti hori barneratzen hasten zara. [...] Gero, ba mekanizatuaren sailetik bat etortzen zen berarekin hitz egitera eta ni hor aurren nengoen eta dena entzuten nuen... I.B. etortzen zen, gero beste bat, gero beste bat... gainera beti erdi ezkutuan, arduradunek elkarrekin zeudela ez ikusteko; batzuetan ere zelatari bezala ibiltzen nintzen, bai noski, hitz egiten ari ziren eta esaten zidaten “K.P., vigila a ver si viene este o no. Si viene...” [K.P.. Imenasako langilea. CCOOeko militantea]

M.S.S.-ren kasua ere halakoa izan zen. Inquinasa fabrikako bulegoan hasi zen lanean eta handik gutxira, jada martxan zegoen langile komisioko bi kidek bilera batetara gonbidatu zuten. Hori izan zen berarentzat lehenbiziko kontaktua aldeaz

<sup>944</sup> P.M.-ri eta K.P.-i egindako elkarrizketak. Atarrabia, 2011-09-24 eta Iruñea, 2015-01-04. P.M.-k aipatzen duenez, “fabrikan panfletoak eta halakoak pasatzen zizkizuten eta hauek irakurtzen hasten ziren y bileretara joaten hasten ziren [...] langile mundua ezagutzen hastea bezala zen”

aurretik ezagutzen ez zuen langile mugimenduarekin eta bere militantzia soziopolitikoaren abiapuntua:

Fabrikari sartzen naiz ezer jakin gabe, ezagutzarik gabe, ezer bereizi gabe [...]. Orduan hilabete batzuen buruan, lankideren bat hurbiltzen zait, eta bilera batera gonbidatzen nau. [...] hain zuzen marrazkigile bat eta telefonista [...] orduan haiek gonbidatzen naute, bilera batetara gonbidatzen naute. Ongi da. Bilera horretara joaten naiz eta hasten naiz inoiz entzun ez nituen hitzak, kontzeptuak, entzuten: langile klasea, antolakuntza, bizi eta lan baldintzak... eta nik pentsatzen nuen... baina zer da hau? Zertaz ari gara? Beno ba... handik gutxira beste bilera bat, eta gero ya batzuetan, are nire etxean egiten genituen] eta beno... jende honek, ba, ni baino askoz esperientzia gehiago zuen. [M.S.S.. Inkuinasako langilea. CCOOeko militantea]

Hirugarren eremuan, fabrika, jada erakunderen batean politikoki antolatuta zeuden militanteen helmuga zen, orduan sortzen eta garatzen ari zen langile mugimenduan sartzeko eta parte hartzeko biderik zuzenena zelako, hain zuzen ere. M.B.-ren kasua izan zen. Lovainako unibertsitateetik itzuli eta jada MCEko militantea zelarik, Iruñerriko hainbat fabriketatik igaro zen Unión Carbiden finkatu eta bertan langile komisioren sorreran parte hartu zuen arte. V.D.-k bere herria (Viana) jada LCRko militante bezala utzi zuen. Militantzia hura gauzatzeko, Iruñeko fabrika handi batean sartzea bilatu zuen, Potasasen lanean hasi eta bertako langile komisiorekin bat egin zuelarik. P.U. Afrikan ibilia zen misiolari bezala. Sorterrira “iraultza egitera” itzuli zen 1972an eta horretarako ezinbestekotzat jo zuen ezkerreko erakunde batean militatzea eta fabrika batean lanean hastea. El Pamplonican lan egingo zuen eta bertako langile komisioko kide izango zen:

handikan etorri nintzen ideia batekin, hemen militatu egin behar nuela talde ezkertiarretan gizarteari erabat... bueno, bertze printzipio batzutan oinarritzeko eta bertze gizarte bat antolatzeko [...] orduan, militatu nahi bazenuen, lehenbiziko helburua edo lehenbiziko bidea zen lantegietara joan. Hemen iraultza edo lantegietatik hasten da edo ez dago iraultzarik. Erran nahi dut, iraultzaileak egon behar dugu sistema honen kontra, eta sistema honen kontra egiteko eta sistema hau bertze leku batetik bideratzeko, egin behar duzuna da kontrolatu, eta non kontrolatzen duzu? Ekoizten den lekutan. Zuk ekoizpenak kontrolatzen badituzu... zu zara azken finean gizarte hontan ardatza, langilea, zuk produzitzen duzu aberastasuna, zuk jartzen duzu gizartea martxan, zuk agintzen duzu eta zu aginte horren nagusi bazara eta podere hori erabiltzen baduzu, aldaketa egin dezakezu. Eta hori zen helburu nagusia eta orduan, fabriketara lanera. [P.U.. El Pamplonicako langilea. LCko militantea. CCOOeko militantea]

Fabrikek langile antolakuntzaren eta protestaren suspertzean izan zuten paperaz nabarmentzen den alorretariko bat, militante zahar eta berrien arteko egiazko elkarguneak izan zirela da. Xavier Domènechek eta Rubén Vegak, adibidez, fabrikaren esparruaren baitan langileen identitateen formakuntzan eragina zuten langile zahar eta gazteen artean, sindikalista zahar eta militante berrien artean, kontaktuak eta elkartrukeak ematen zirela azaleratu izan dute<sup>945</sup>. Langile gazte eta militante berri bezala sailkatzen ahal ditugun gure subjektuen esperientzietan, lantokian emandako militante zaharrekiko harremanek presentzia garrantzitsua izan duten zenbaitetan<sup>946</sup>:

<sup>945</sup> Autoreok argitaratu dituzten lanen artean, bereziki bi hauetaz ari gara: Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit. eta Rubén Vega, “Entre la derrota...” Op. Cit.

<sup>946</sup> Baina egiatan, ez da funtsezko elementu bat izan. Kontutan izan behar dugu, klase ideologiak eta erakundeak gerraren aurretik erabatean erroto ez zirela Nafarroan eta 1936ko errepresio bortitzak, hauek garatzeko saiakera orekin bukatu zuela. Beraz, 50 eta 60. hamarkadetan Iruñeko fabriketan geratzen ahal ziren militante zaharrak, egon zirela, ez ziren asko izan. Probintziaz besteko emigrazioarekin, 60. hamarkadaren erditik aurrera, halako figurak iritsi ziren, baina erreferentzia bilakatu baino, ohikoagoa izan zen hauek Iruñean jada sortzen hasiak ziren esparru eta egituretara sartzea. Hala ere, ikusiko dugun bezala, militante

Bazegoen gizon bat [...] ez zen ezertan nahasten, ezta? beldurtuta zegoen erabat [...] eta egun batean esaten dit "Oye, tener cuidado", horrela hitz egiten zidan, fabrikan, ahopeka "tener cuidado..." eta nik "¿Pues? ¿De que?"; orduan [...] orduan berak bere historia kontatu zidan. Ba gizon hau CNTkoa izan zen [...] kartzelan egon zen denboraldi batez, gero erbesteratuta... [...] Errepublikara garaian bizitako guztia kontatu zidan eta "No cuentes a nadie, ¿eh?" esaten zidan. [...] Nik harremana egin nuen berarekin eta lagunak egin ginen nolabait, gu bion arteko sekretua zen. Orduan libururen bat edo eman zidan. Gero, beste bat... horietakoak, debekatuta zeuden horietakoak. Orduan irakurtzen hasten zara eta [...] "Oye, ¿Has leído el libro tal? ¿Has leído el libro cual?". [I.B.. Imenasako langilea. CCOOeko militantea]

Nik uste dut nigan ere kanpotik zetorren jendeak eragina izango zuela... Ciudad Realeko bat ezagutu nuen, F. Delako bat, komunista zahar bat... horrek segurorik nigan eragina izan zuela ideia sozialei eta eduki politikoei dagokienean. Seguro gizon horrek nahiko eragin zuela nigan, bai... [...] batez ere eduki politikoko jakin-nahiak errotzerako orduan. [J.U.. Potasaseko meatzetako langilea. CCOOeko militantea]

Belaunaldi desberdinetako langileen arteko kontaktu hauek, fabrika, gerraurreko langile tradizioaren nolabaiteko transmisioa ematen zen esparru nagusienean bihurtu zuten. Izan ere, langile "berriek", sindikalista zaharrekin lantokietan izan zuten topaketatik, tradizio hari berezkoak zitzaizkion hainbat jokabide eredu jaso zituzten, haiek gerora, euren egoeraren eta beharren arabera, moldatu edo egokitu egin zituztelarik<sup>947</sup>. Batzuen eta besteen arteko topaketa hauek, patroien kontrako eguneroko jarduera txikiak erreferentziazko lidergoak azaleratzen zituzten kontestuetan gertatu ohi ziren. Izan ere, 50. hamarkadaren amaiera aldera, lidergo hauen protagonistak, laster euren lankideentzat eredu bilakatuko zirenak, gerra bizi izan zuten langileak izan ziren maiz. 1956an Iruñean gertatu zen greba orokorrak zentzu honetan, Pablo Vallejo edota Celestino Garcia "Quino" bezalako sindikalista zaharrek nolabaiteko protagonismoa eskuratzeko eta euren eskutik langile gazteagoak jakin-nahi sozialetan abiarazteko balio izan zuen adibidez<sup>948</sup>. Langile militante zaharrak Iruñerriko fabriketara eramanez izan zituen bide nagusienetariko bat, emigrazioa izan zen. Potasas enpresarena kasua adierazgarria izan zen. Jada ikusi dugunez, hirian meatzaritza tradizioz ez zegoenez, enpresak meatzari esperientzia zuten estatuko beste puntuetako langileak kontratatu behar izan zituen. Arestian ezagutu dugun J.U.-en testigantzak, adibidez, etorkin hauen artean langile militanteren bat bazegoela iragartzen du.

Dena dela, topagune bezala, fabrikak ez zituen esparru berean soilik belaunaldi desberdinetako langileak elkartu. Lantokiek kultura eta giro desberdinetatik zetozen militanteak ere bildu zituzten euren baitan. Oso nabarmendua izan da tailerretan eta fabriketan barna langile eta militante komunista eta katolikoen artean sortutako harremana. José Babianok esaterako, topaketa hori Comisiones Obreras mugimenduaren jatorrian egon zela azaldu zuen, batzuek eta besteek lantokietan elkarrekin bizi izan zituzten esperientzia bateratzaileei erantzuna ematearren,

---

zaharrak eta probintziaz bestetik, batez ere Andaluziatik, etorritako emigrante hauek, Nafarroako alderdi komunistaren egituraketan bai, funtsezko elementuak izan ziren.

<sup>947</sup> Xavier Domènech, ikusi, besteak beste, "La formación de..." Op. Cit. eta *Cambio político y...* Op. Cit., 52-53 orr.

<sup>948</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 109 orr. (ikusi ere 1. oin oharra). Celestino Garciaen figura José Luis Díaz Monrealek nabarmendu du ere, 1956ko Iruñeko greba orokorrean parte hartu zuten militante zaharrez aritzerakoan. Celestino eta José Luis Sabater aipatzen ditu. 1936ko uztaileko altxamenduaren lehenbiziko egunetan eraila izandako aita zuen lehenak; Gazte Sozialistetakoa militantea izandakoa zen bigarrena. Grebaren ostean, biak fabrikatik kaleratuak izan ziren. José Luis Díaz Monreal, *La huelga de...* Op. Cit., 147-149 orr.

beraueetan antolatu zirela ondorioztatuta<sup>949</sup>. Zentzu honetan, fabrika esparru garrantzitsua da gure prozesuan lehenik eta behin langileak biltzen dituelako eta harremanetan jartzen dituelako hala nola esperientzia beretsuetan murgildu arazten dituelako. Oraingoan harreman horiek fabriketan barna nola sortu ziren, noraino bilakatu ziren eta berauetatik berezko antolakuntza molde eta erantzun eredu berriak nola sortu ziren ikusiko dugu. Izan ere, CCOOen antolakuntza modua eta 60. hamarkadan zehar orokortuz joan zen lan gatazken dinamika, fabrikari oso lotuta egon ziren fenomenoak izan ziren.

### 6.1.1 Fabrikaren baitan jaiotzen diren antolakuntza eta protesta moduak

1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legearen promulgazioak, Sindikatu Bertikalaren baitan izanda ere, langileek eta patroiek lan baldintzak eta soldatak negoziatzea ahalbidetzen zuen lan harremanetarako marko berri bat sortu zuen<sup>950</sup>. Legeak lan baldintzak fabrikaren baitan xedatzeko aukera ematen zuen heinean, lehenbiziko negoziazio prozesuak, antolakuntza formak eta gatazkak, fabrika mailan gertuta ziren halabeharrez. Hau da, lan harremanen marko berriak fabrika bakoitzaren baitan langileei ematen zien parte hartze minimo baterako aukerak, lantokiari lotutako berezko antolakuntza eta gatazka eredu propioen sorrera, langile mugimendu berri baten jaiotza, ahalbidetu zuen. Zentzu honetan, negoziazio kolektiboak, fabrikari lotutako langile mugimendu bat ekarri zuen berekin, aldarrikapenak bertan egiten zituena, negoziazioaren eta gatazkaren erritmoak bertako egoeraren arabera markatzen zituena eta langileek bertan sortzen ahal zituzten antolakuntza baliabideen eta ekintza kolektibo erreperitorioaren arabera egonkortzen zena. 60. hamarkadatik aurrera, hartara, langileek euren fabriketako lan baldintzak aldatzeko parada izan behar zuten, baina industriaren sektore dinamikoetako lantoki handienetan soilik. Izan ere, berauetako langileak ziren negoziazioak eta gatazkak garatzeko indar gehien zutenak<sup>951</sup>.

Eredu hau, praktikan, Comisiones Obreras mugimenduaren forma hartu zuen. Comisiones Obreras, langile mugimenduak frankismoaren bitartean hartu izan zuen antolakuntza forma nagusia izan zen. Lehen kapituluan ikusi dugun diktaduraren markoan, langileek berezko eta legezko esparruak edo baliabideak erabiltzerik ez zutenez, langileen antolakuntza forma berriak, fabriketan jaio ziren, hauetan gertatzen ziren egoera edo arazo zehatzei aurre egiteko langileen elkartze espontaneo bezala. 50. hamarkadaren bitartean eta 60. hamarkadaren hasieran, langile elkartze hauek behin-behineko batzordeak baino ez ziren izan. Gatazka edo aldarrikapen espezifikoko bat bideratzeko sortzen ziren eta behin honi irtenbidea ematen zitzaioela, desegiten ziren. Bilakaera prozesu baten ostean, Comisiones Obreras, 60. hamarkadaren amaieran (zenbait tokitan jada erdialdean) mugimendu antolatu, zabaldu eta iraunkor bezala egonkoritu zen.

---

<sup>949</sup> José Babiano, *“Los católicos en...” Op. Cit.* Ildo berean, Sebastian Balfourrek, CCOOen sortzaileek izan zuten batasunerako joera, hauek tailerrean edo lantokian zapalkuntzari aurre egiteko modu bakarra batasun hura zela ulertu zutelako azaltzen du. Sebastián Balfour, *La dictadura, los...* Op. Cit., 90 orr.

<sup>950</sup> Hitzarmen kolektiboen legearen promulgazioak zerikusirik izan zuen, hazkunde ekonomikoaren sustapenean laguntzeko faktore bezala, soldatak eta produkzioa elkarri lotzeko ikusi zen beharrezkin; horretarako, langile eta enpresarien arteko nolabaiteko negoziazio kolektiboari bide eman behar baitzitzaion. Hala ere, ez dugu ahaztu behar 1956ko grebek jada, langileek soldaten eta lan baldintzen inguruko euren aldarrikapenak adierazteko egiazko bitartekoak behar zituztela ohartarazi zutela.

<sup>951</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 87 orr. Gerora, langileriak antolakuntzarako eta borrokarako baliabide berriak garatu ahala, aldarrikapenen eta gatazken markoa, fabrika handienetatik haratago zabalduko zen.

Madriren 1954ean hasi zen gertatzen batzordeen noizbehinkako eratzea, bai patroien aurrean eta baita Sindikatu Bertikalaren aurrean ere lan baldintzen hobekuntza bat, soldaten igoera bat edota enpresari gobernua lan araudietan ezarritako abantailak betetzea eskatzeko helburuarekin. Era Berean, hauteskunde sindikaletarako deialdiek (1954, 1957, 1960 eta 1963), fabriketan barna langileen elkarteak sustatu zituzten, hautagaitza ofizialen aurreko hautagaitza alternatiboak gauzatu eta lankideei aurkezteko programa txikiak osatzearen<sup>952</sup>. 1956-1958 hirurtekoan, estatuko puntu ezberdinetan gertatu zen gatazka uholdean, langile antolakuntzan berrikuntza zantzu nabariak atzeman ahal izan ziren formei eta protagonistei zegokienean. 1956ko Bizkaiko metalaren sektoreko grebetan esterako, lantokietan batzordeak sortu ziren eta euren arteko koordinazio bat lortu zen, lan geldialdian zeuden enpresa eta langile ugari barne hartzen zituen aldarrikapen zerrenda bateratu bat osatu zelarik. Katalunian 1962an berrogeita hamar mila langile geldirik izan zituzten grebetan ere antzeko formulak ikusi ziren: enpresa desberdinetan asanbladak burutu ziren eta berauetatik, zuzendaritzarekin negoziatuko zuten langile batzordeak sortu ziren<sup>953</sup>. Langile batzordeak beraz, langile gatazkak adierazpenerako biderik ez zuen marko batean agertu ziren, langileek Sindikatu Bertikalarekiko zuten mesfidantza eta sindikatu klandestinoen hutsunea edo eragingabetasuna gainditzeko modu bezala<sup>954</sup>.

Berauetan parte hartzea sindikatuetan militatzea bezain arriskutsua ez izatea, helburuen berehalakotasuna eta malgutasuna hala nola konnotazio politiko espezifikoaren gabezia, batzordeak langileen bateratzerako tresna benetan egoki egin zituen. Hauen sorrerak, fabriketako langile komunistak, kristauak, sozialistak edo anarkosindikalistak batu egin zituen eta oso lankidetzat emankorra sustatu zuen euren artean. Hainbat faktorek lagundu zuen eredu berriak arrakasta hori izan zezan. Lehenik eta behin, aipatu heterogeneotasunak eta aipatu konnotazio politiko bereizgarrien gabeziak, batasuna eta belaunaldi eta jatorri ezberdinetako langileen arteko elkarrekintza mesedetzen zuten. Bigarrenik, erakunde sindikal tradizionalak fabrikaren baitan eta langileen artean militantzia errotu bat ez izateak, antolakuntza berriak (batzordeak), 50. hamarkadako protestetan nabarmendu ziren langile liderrentzat eta lantokietako egunerokotasunean nabarmentzen ziren langileentzat, langile jarduerarako erreferentzia nagusi bihurtzen zituen<sup>955</sup>. Azkenik, batzordeetako kideak, euren jatorri, ideologia eta kulturaren gainera, lankideen izenean enpresari eskaerak egiteko erabakitasuna azaltzen zuten elementuak ziren heinean, batzordeak berak fabrikaren baitako lehenbiziko lidergoak azaleratzeko eta konfiantza sareak eratzeke gune abantailatutzat funtzionatzen zuten.

Euren presentzia lantokietan egonkortu ahala eta antolakuntzarako egitura iraunkor bihurtu ahala, fabriketako langile batzordeak, lan baldintzen hobekuntzan lan egiteko, langileen interesak defendatzeko eta hitzarmen kolektiboen negoziazioa prestatzeko tresna nagusienak izan ziren langileentzat. Hitzarmen kolektiboak enpresaren eta langileen ordezkariak osatutako batzorde negoziatzaile baten bitartez ituntzen ziren. Langileek prozesu honetan zuten parte hartzeari zegokionean, euren ordezkariak, Sindikatu Bertikalaren egituren baitan, maila profesional ezberdinek aukeratutako enpresa epaimahaietako kideak edo ordezkari sindikalak ziren.

---

<sup>952</sup> José Babiano eta José Antonio de Mingo, "De la comisión de enlaces y jurados del metal a la unión sindical de Madrid: las comisiones obreras madrileñas durante el franquismo", David Ruiz (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 191-214 orr., 193 orr.

<sup>953</sup> Carme Molinero, Javier Tebar eta Pere Ysás, "Comisiones obreras de Cataluña: de movimiento sociopolítico a confederación sindical", David Ruiz (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 69-110 orr., 72 orr.

<sup>954</sup> Rubén Vega, "Entre la derrota..." Op. Cit., 194 orr.

<sup>955</sup> Sebastián Balfour, *La dictadura, los...* Op. Cit., 90-91 orr.

Negoziazioen bilakaera eta hauen arrakasta posiblea, honela, langileek euren ordezkari sindikal haiei ematen zieten konfiantzaren eta zilegitasunaren araberakoa zen hein handi batean. Honek negoziazio prozesuetan langileen parte hartzea bermatzeko arazoak sortzen zituen nolabait, izan ere, ordezkari sindikala, Sindikatu Bertikalaren egituretatik bideratua zen heinean, araudi arbitrarioetan oinarritzen ziren hauteskunde prozesuen mende zegoen. Praktikan agerikoa zen langilegoaren berezko ordezkariaren falta hau, fabrikako batzordeen sorrera sustatu zuen beste faktoreetariko bat izan zen. Alta, behin lantokietan komisioak sortzen zirela, hauek, epaimahaietako kideekin elkar adituz jardun zuten maiz, bai hautetsiek berezko batzordeak sortu eta berauetako kideak zirelako eta baita zenbaitetan, nahiz eta ordezkari sindikalak batzordeetan ez izan, komisioek hauekin lankidetzan aritzea beharrezkotzat jotzen zutelako ere. Modu honetan, negoziazio prozesu hauetan, langileen parte hartzerako bide bat zabaldu zen eta fabrikaren baitan, hitzarmenen inguruan, langile eskakizun eta aldarrikapenak artikulatzeko berezko antolaketa moldeak irromtu ziren. Azken batean, batzordeak, langilegoaren aldarrikapenak jasotzearen eta hauek epaimahaietako kideei jakinaraztearen arduradunak ziren.

Lantokietako batzordeen sorrera, langile mugimenduaren antolakuntzaren lehen urratsa izan zen Iruñerriko fabriketan ere. Hauek, lantegietan barna, langile jarduera dinamizatzen hasi ziren eta hastapen momentu hauetan, are ekintza antolatuak burutzea lortu zuten, nahiz eta hauek ez zuten oraindik fabrikaren markoa gainditzerik eta oihartzun handiko gatazken dimentsioa hartzerik izan. 60. hamarkadaren hasieratik jada, batzorde txiki hauen inguruan, langile mugimendu bat eratzen hasia zen. Laster, bere helburuak erdiesteko estrategia desberdinak saiatu zituen eta hauek, zenbaitetan, egiazko arrakasta izan zuten. Ikusiko dugun bezala, lehenbiziko momentu hauetan, nolabaiteko arrakasta izan zuen izan, adibidez, Sindikatu Bertikalaren egiturez baliatzearen estrategiak. Kargu sindikalak langileen ordezkarietarako egiazko plataforma bihurtu nahi zituzten hainbat langile, hauteskunde sindikaletara aurkeztea eta are hautatua izatea lortu zuen (ordezkari sindikal, enpresa epaimahaietako kide eta are sindikatuetako sail sozialetako kide izatea lortu zuten), fabriken baitako langile jarduera, hauei esker, biziagotu egin zelarik.

José Babianok, batzordeena, “tailerreko” mugimendu deitu izan zuen, tailerretako langileak, hots, oinarriko militanteak, antolakuntza forma berri hauen sorreraren, itxuraketaren eta hedapenaren protagonista nagusienak izan baitziren <sup>956</sup>. Zentzu honetan, mugimendu berria, erakunde mugimendua baino, militante mugimendua zela esaten ahal da. Zeintzuk izan ziren komisioak sortu zituzten lehenbiziko militante hauek? Euren fabriken errealitate zehatzei lotutako berehalako eskakizun eta aldarrikapen jakinen inguruan biltzen hasi ziren langile independenteak eta joera desberdinetako militanteak, bereziki katolikoak eta komunistak. Fabriketan jada euren ekintzengatik edo jarrerengatik nabarmentzen hasiak ziren pertsonak ziren, erreferentziazko figurak euren lankideentzat. Iruñerriko fabriketan, mugimenduaren hastapenetan, erreferentziazko paper hau apostolutza mugimenduetako militanteek bete zuten bereziki. Hauen jarduera aztertuta, José Elena Santamaria Blascok, euren borrokak, hasiera batean, langilearen duintasuna defendatzera bideratu zirela azaltzen zuen. Berak elkarrizketatu zituen militante katolikoek, adibidez, arazoren bat zuten lankideak, horren inguruan aritzeko nagusiengana lagundu ohi zituztela gogoratzen zuten. Kasu hauetan, militanteak ziren nagusiei arazoa azaltzen zietenak eta lankideen interesen defentsa egiten zutenak, honek zuzendaritzarekin arazo bat edo beste ekartzen ahal bazien ere (batek baino gehiagok ez zuten honengatik egokitzen zitaion mailaz igotzea lortu). Honela, halako jardunbideek, langile haiek, lankideen begiko

---

<sup>956</sup> José Babiano, “Los católicos en...” Op. Cit., 284 orr.

bihurtu zituzten, langileen eskubideen defentsan erreferentziazko pertsonak bilakatu zirelarik eta ondorioz, fabriketan barna lider bezala itxuratuz joan zirelarik<sup>957</sup>.

Apostolutza mugimendu sekularrek garrantzi handia ematen zioten fabriketan modu honetan lan egiteari. 1963/1964 ikasturtean Iruñeko GOES talde batek galdetegi bati emandako erantzunetan adibidez, Nafarroa bezalako zonalde industrial berrietan, lantokietakoa jorratu beharreko lan ildoak, langile kontzientzia hartze prozesuari begira, ezinbestekoa zela aipatzen zen. Militanteek enpresa mailan lan egin behar zen *“ahalik eta langile gehienak ekintza sindikal txikietan konprometitzuz: sinadura bilketak; hitzarmen kolektiboez hitz egiteko bilerak; hitzarmen hauei buruzko edota higiene eta segurtasun arazoei buruzko enpresa osoko asanbladak; enpresa paternalismoaren aurkako, hots, amaren eguneko edo errege eguneko oparien zein [enpresako] futbol taldearen afarien kontrako ahoz ahoko ekintzak; elementu aktiboak biltzen dituen enpresa sailen antolaketa [...]”*<sup>958</sup>. Ildo berean, JOCeke militanteek erreferentziazko figura bihurtzeko eta talde txikiak artikulatzen hasteko fabriketan barna burutzen zituzten ekintzak nolakoak ziren ikusteko, oso interesgarriak izan dira erakundearen artxibategian aurkitu dugun dokumentu sorta bat. Militanteek berek idatzitako monografia batzuk dira, non euren fabriketan egindako lan guztia laburtu eta baloratzen dute. Dokumentu hauen arazoa, data ipinita ez dutela eta ondorioz, ekintza hauek orain aztertzen ari garen hastapen momentu hauei dagozkien edo aurreragokoak diren jakiterik ez dugula da<sup>959</sup>. Hala ere, oso erabilgarriak dira, JOCeke militanteek fabriketan oraindik langile mugimendu antolatu bat ez zegoenean nola jarduten zuten, nolako lankideekiko harremanak egiten zituzten eta nukleo antolatuak ezartzeko ematen zituzten urratsak zeintzuk ziren oso ongi azaleratzen baitute.

Kasu batean adibidez, fabrikaren baitako langile jarduera dinamizatzeko eta hasierako nukleo antolatu bat osatzeko militanteak erabili izan zituen bideak, honakoak izan ziren: harreman pertsonalak, formakuntzarako liburu eta materialen irakurketa, fabrikako arazoei buruz eta arazo hauei erantzuna emateko aukerei buruz hitz egiteko bilerak, asanbladak jantokian, idatziak, esku orri informatiboak, inkestak, ekintza guzti hauetan erantzun eta jarrera positiboa izateagatik nabarmentzen ziren pertsonen kontakutuzuzena eta jende konprometituena biltzeko batzorde baten sorrera. Lehenik eta behin lehenbiziko nukleo bat sortu zen irakurketa talde batetik abiatuta. Talde honek enpresaren problematikak aztertu eta eztabaidatu zituen eta asanblada bat prestatu zuen gainontzeko langileei egoera aurkezteko. Gero, hainbat ekimen txiki burutu ziren hasierako dinamizari jarraipena emateko: bilera bat deitu zen enpresak igandetan ere lan egiteko egin zuen proposamenaz aritzeko, Eguberrietako opariari ezetz esateko kanpaina bat martxan jarri zen, enpresaren arazo nagusienak (soldata ezberdintasunak, ordutegiak, segurtasuna eta higiena) salatzen zituen idatzi bat egin zen eta nagusiak langileei oparitzen zizkien freskagarriei ezetz esateko beste kanpaina bat abiatu zen. Azkenik, zuzendaritzari enpresaren arazoak aurkeztuko zizkion langile komisioko bat aukeratu zen. Beste kasu batean, narrazioa, militante talde batek lantokiko lana egiteko hizpide izan zuen ekintzarako planaren xehetasunak ematen hasten da, aurreikusitako jarraibideen artean, jendearekin hamaiketakoaren orduan hitz egitea eta euren arazo eta kezka nagusiaz zeintzuk ziren ezagutzea, arazoren bat edo

<sup>957</sup> José Elena Santamaría Blascok Nafarroako mugimendu hauei buruzko azterketa sakon bat egin zuen Emilio Majuelo irakasleak zuzendutako *Iglesia y movimiento obrero navarro en los años 60* lizentziatura memoria, argitaragabea. Autoreak berak utzita.

<sup>958</sup> 73A GOESak 1963/1964 ikasturteko seigarren galdetegiari emandako erantzunak. AHOAC-HOACA, GOES saila, 75. kutxa.

<sup>959</sup> Monografia hauetan jasotzen dena ez da, berez, Nafarroako militanteei eta fabrikei buruzko informazioa. Estatuko puntu desberdinetako militanteek euren fabriketan izandako esperientziak biltzen dituzte. Hala ere, oso dokumentazio interesgarria iruditu zaigu JOCeke militanteen dinamika komunak, jarduteko antzeko moduak azaleratzen dituztelakoan gaudelako. AJOC-JOCA, Espainiako JOC-gai anitzak, 119. kutxa.



gatazkaren bat gertatzerakoan lankideen erreakzioez ohartzea eta egoera jakinekin ados ez zeuden langileen bilakaera gertutik jarraitzea nabarmentzen ziren. Praktikan, enpresa horretan burutu zen lehenbiziko ekintza aipagarria hauteskunde sindikalen harira burutu zen. Helburua, ordura arte gertatu ez bezala, fabriketan lan egiten zuten patrioiaren senitarteak hautetsi ez gertatzea zen. Horretarako, ahalik eta lankide gehienekin pertsonalki hitz egin ondoren, langileen gehiengoak onartuko zituen hautagaiak bilatu eta aurkeztu ziren eta hauteskundeak irabaztea lortu zen. Hauteskundearen ostean, aldarrikapen ekintza zehatz bat burutu zen. Nagusiek ez zuten lanjantziarik ematen eta langileek, hauek erosi edota euren arropa erabili behar zuten, beraz, militanteek, lanjantziak lortzeko ekintza bat egitea erabaki zuten. Tailerreko langile guztiak hitz egin ondoren, langile gehienek lanjantziak eskatu behar zirela ikusi zuten eta ordezkari sindikalek eskatu egin zituzten. Patrioiaren proposamena lau urtetan lau jantzi emango zizkiela izan zen. Hura langileekin kontsultatu ostean, ez zen onartu eta kontraproposamen bat egin zen: bi lanjantzi momentu hartan eta gero lanjantzi bat urtero. Patrioiak onartu egin zuen. Azkenik taldetxo bat sortu zen eta jada lanean ari ziren JOCEko militante haiei, hauteskunde eta lanjantzi ekimenetan nabarmendu izan ziren bi elementu berri gehitu zitzaizkien.

Bi adibide hauetan, hasierako ekintza hauetatik azkenean langile batzordeen oinarrian egongo ziren talde edo nukleo txiki antolatuak sortzen zirela eta militante kristauek, fabriketan, zirkuitutako sarbide garrantzitsuak zabaldu zituztela ikusten ahal da. Aurreko kapituluan jada ezagutu genuen JE.C. Torfinasako langilearen ondoko testigantza, oso adierazgarria da zentzu honetan:

[...] eta fabriketan langile antolatuen nukleoak sortzen hasi ziren, fabriketan ba... borrokak, errebeldiak, lehen ikusten ez ziren patrioiaren kontrako jarrerak pizten zituztenak ziren [...] HOACEkoak ziren hainbat pertsona izan ziren, nolabait, jarrera horiek abiatu zituztenak... hitz egiten hasi zirenak, enpresetan errebeldiaz, eskubideez... langile klasearen eskubideez, pertsonen eskubideez, askatasunaz hitz egiten hasi zirenak [...] haiek izan ziren gauza guzti hauetatik hitz egiten hasi zirenak. Ezkutuan lehenbizi, aldamenean zenuenarekin, konfiantza zenuen horrekin... niri adibidez, guzti horretaz, HOACEkoa zen bat hitz egiten hasi zitzaidan, nik ordura arte ez nuen inoiz guzti horretaz hitz egiten entzun. [JE.C.. Torfinasako langile komisiorekin lehen kideetarikoa]

J.U. Potasaseko meatzariaren esperientzia ere esanguratsua da:

HOACEkin harremana zuten bizpahiru pertsona baziren eta jende hau... orduan boladan zegoen langile komisiorekin sortzeko ideia. Orduan horrela esaten zitzaie fabrika bakoitzeko langile komisiorekin, garai hartan horrela esaten zitzaie, horrela, bai. Eta hasi ginen ba, jakin-nahien arabera elkartzeko, jende honekin ba... putzurako sarbidean komentatzen zenuen puztearen gaizki zegoen zure lana, segurtasunaren egoera zeinen txarra zen... nik ez dut gogoratzen nor izango zen zehazki pertsona hori, zein hasten zen hitz egiten, protesta egiten, zuzendaritza kritikatzeko, bilera bat egin behar genuela esaten, bilera deitzen... baina horrela elkartzeko haste ginen, bai. [J.U.. Potasaseko meategietako langile komisiorekin kidea]

Aurreratzen genuen bezala, Iruñerriko fabriketan, militante kristauek izan ziren, gehien bat, lehenbiziko langile nukleo antolatuak sustatu zituztenak 60. hamarkadaren hasieran. Chema Amigot JOCEko militanteak 1962an kokatzen ditu militante kristauek abiatutako "enpresa taldeak"<sup>960</sup>. Sektore kimikoaren Penibérica enpresan esaterako, HOACEko militanteek, halako talde bat sortua zuten: "HOACEkoek talde bat genuen... zelula moduko bat osatzen genuen, nolabait esatearren, ezta? Gu ginen zera prestatzen genuenak... oso esaldi bitxia gogoratzen dut. Laborategian nintzela, hor, esneontzi deitzen genituen haietan, barruan zegoen oreka nahasten zegoen... B.G; B. G. HOAC eta langile erakunde haietariko aktibista bat zen [...] beno, eta hor zegoen, makil batekin eta [esaten diot] "¿Que haces B.?" eta

<sup>960</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 59 orr.

esaten dit: *“Aquí, agitando la masa”, agitando la masa...*<sup>961</sup>. Ez da harritzekoa beraz, 60. hamarkadaren bitartean fabrika desberdinetan sortzen joan ziren komisiotan, apostolutza mugimenduetako militante kristauek, ageriko protagonismoa izatea. P.O. VOJeko militantea zen eta 1967an Eaton enpresan lanean hasi zenean, fabrikari jada Vanguardiaseko eta JOCEko militantez osatutako langile komisioko moduko batek funtzionatzen zuen: *“Ni sartu nintzenez ez zegoen mugimendu sindikalik, oraindik ez zegoen ezer [...] orduan izan ziren nire lehenbiziko urrats sindikalak, konturatzen zarenean... hasten zara batzuekin kontaktuan [...] zirkulu katoliko aurreratuen bitartez. Garai hartan HOACa JOCa eta Vanguardias Obreras zeuden [...] Eatonen hasten zara eta Eatonen ya zeozer antolatuta zegoen, langile batzorde bat antolatuta zegoen [...] Vanguardia Obrerako jendea zegoen, JOCEko baten bat ere.. eta gero ere inon ez zeudenak ere baziren, ezta? beste batzuek bat egiten zuten besterik gabe zerbait egin behar zela uste zutelako eta egiteko prest zeudelako*<sup>962</sup>.

Iruñerriko hainbat fabrika garrantzitsuetako langile komisioren jatorria ahozko iturrien bitartez eta batzordeotan parte hartu izan zuten protagonisten testigantzen bitartez berrosatzeko aukera izan dugu, hastapen haiek orain arte azaldu dugun langile antolakuntza molde berrien sorrera dinamikarekin bat egiten dutela ikusi ahal izan dugularik. Berauetan, fabrikari bizi zuten egoerari lotutako berehalako eskakizun edo salaketen inguruko langileen taldekatzeak, taldeen izaera heterogeneoa eta militante kristauen presentzia nabaria topatu dugu. C.O., Authi automobil fabrika Iruñean ezarri bezain pronto hasi zen bertan lanean, 1966 urtearen inguruan. Harremana egin zuen hainbat langilek, *“hitz egiten hasi ginenak... ba, zentzu horretan, arraioa! hemen gehiago eskatu behar dugu oso izorratuta gaudelako, hemen ez dago segurtasunik, ez dakit zer... hitz egiten hasi ginenak”,* lehenbiziko “presio talde” bat sortu zuen, komisioko izango zenaren aurrekaria. Talde horretan hainbat militante elkartu ziren, bera independente bezala hasi zen eta berarekin, militante kristauek zuten presentzia agerikoena: *“gu hasi ginen “grupo de presión” delako hori osatzen, ez zen Comisiones Obreras deitzen. Kontua da, Ba “grupos de presión” horiek beste fabriketan ere sortu zirela, inertziak nolabait... komunistengandik baino (orduan Nafarroan gutxi zirelako) HOC, VOJ eta JOC bezalako mugimendu erlijiosoetatik sortu ziren*<sup>963</sup>. Imenasa, nolabaiteko gatazka tradizioa zuen fabrika bat zen, izan ere, Huarte y Cía eraikuntza enpresako langileek lehenbizi eta talde bereko aipatu Imenasakoek gero, protagonismo nabarmena izan zuten 50. hamarkadako grebetan. 60. hamarkadaren hasieran, aurreko esperientzia horietan formatu ziren militanteak baziren arren, enpresaren eskola profesionaletik zetorren langile berri eta gazteez osatutako talde bat izan zen militante prestuak bildu eta fabrikaren baitako langile jarduera era antolatu eta egonkor batean dinamizatzen hasi zen: *“batera sartu ginen, gure ikasturtetik, mugituagoak ginen talde bat [...] [eta] azkenean jende gazteaz osatutako talde bat sortu genuen. Jende apur bat formatuagoa ginen [...] eta ideietan ere, irekiagoak eta liberalagoak ginen nolabait... eta orduan ba, hortik hasi ginen mugimendua pixka bat sortzen”.* Talde hori enpresaren paternalismoaren aurkako edota aparteko orduen aurkako ekintza txikiekin hasi zen, dinamika hauetatik, fabrikako langile komisioko izango zenaren nukleoa osatuz joan zelarik<sup>964</sup>.

Torfinasa enpresako langile komisioren sorrera, jatorrian hura osatu zuten lau kideetako hiruren testigantzekin berrosatu dugu. Lehenbizikoa, E. A., HOACEko militantea zen. 60. hamarkadaren hasieran, bere burua hauteskunde

<sup>961</sup>J.M.V.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-12-22. HOACEko militante nabarmendua zen M.A.M.-ek Penibérrican lan egiten zuen. J.M.V. haren bitartez gizarteratu zen bai enpresa taldean eta baita HOACen bertan ere.

<sup>962</sup> P.O.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-06.

<sup>963</sup> C.O.-i egindako elkarrizketa. Aisa, 2013-09-10.

<sup>964</sup> I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olaz, 2011-08-02.

sindikaletara aurkeztea erabaki zuen, hautetsia gertatu zen eta fabrikako gaien inguruan serioski lanean hasteko taldetxo bat bildu zuen bere ingurura: *“egin nuena fabrikari jada ezagutzen nuen eta ezagutzen ari nintzen jendea bilatzea izan zen. Nik jendea bilatu nahi nuen, ez tontakeriak egiteko, gauza serioak, ordura arte inoiz aldarrikatzen ez ziren gauzak, aldarrikatzeko”*; lau pertsona elkartu eta talde moduan funtzionatzen hasi ziren<sup>965</sup>. Talde hau gerora fabrikako langile komisioa izango zenaren ernamuina izan zen. JE.C. eta M.G. talde hartako kide izan ziren. JE.C.-ek ez zuen inon militatzen. Fabrikari zela, lanean, HOACeko militantea zen E. A. eta VOJeko beste militante bat ezagutu zituen, haiekin harremanetan jarri eta azkenean, bigarrenaren eskutik, VOJen sartu eta fabrikako taldean lanean hasi zen: *“ehun ta hogeita bost langileetatik, ba... lau geunden antolatuta, lau ginen. Bat HOACekoa zen eta besteak Vanguardiasekoak, ez zegoen besterik [...] Vanguardia, JOC, HOACeko jende sakabanatua ginen... fabriketan gauzak egiten genituenak”* VOJeko militante zen M.G., lehenbiziko talde horren parte izan zen ere eta lehenbiziko nukleo hori fabrikako langile komisio bihurtu arteko bilakaera barrutik bizi izan zuen: *“lau ginen: bi Vanguardiasekoak ginen, gu baino helduagoa zen gizon bat [...] HOACekoa eta gero beste bat, inon ez zegoena. Orduan lauak elkartzen hasi ginen y hortik, ba lehenbiziko talde bat sortu genuen, Torfinasako langile komisioa izango zenaren lehen nukleoa. Gero hedatzen hasi ginen eta... azkenean oso talde jatorra egin genuen, oso konprometituta, oso, oso, oso konprometituta. Eta gero hori... ba beste fabriketan ere antzeko zerbait gertatuko zela suposatzen dut”*.

Halako nukleo hasiberrietatik, langile mugimendu haren lehenbiziko ekintzak dinamizatzen hasi ziren. Iruñerriko lehen fabriketan topatzen ditugun lehen erresistentzia eta errebeldia jarrera zein ekimenak, oraindik garatugabeko ekintzak diren arren, fabrikari baitako zenbait errealitate aldatzearen aldeko giro bat jaiotzen ari zela erakusten dute. Hastapen momentu hauetan, langileek agertzen dituzten hainbat jokamoldeetatik, erantzun eta borroka mugimendu txikiak azaleratzen dira. Hauen motibazioetan, begiratu batean berariazko eduki politikorik ikusten ez den arren, protesta molde antolatuagoak garatzeko abiapuntu interesgarri bat ezartzen dutela esan daiteke nolabait. Izan ere, fabrikako errealitate haien (esplotazioaren) zuzeneko esperientzia izatea, militantzia konprometituagoan amaitzen ahal zen aktibismo hasiberri baten eragile izan zen. Lehenbiziko langile komisioen hastapenetan parte hartzen ikusi ditugun protagonistetariko batzuen ondoko testigantzek oso ongi jasotzen dute erantzun eta ekintza horiek, jokamolde aldaketa horiek nolakoak ziren eta langileentzat zer esan nahi zuten:

[...] txistu egiten zuen arduradun bat zegoen, beti txistu egiten zuen, norbait deitzeko txistu egiten zuen, artzain bat izango balitz bezala. Azkenean esan genion: *somos personas, no nos vas a silbar más*. Eta orduan txistu egiten zuenean... kontsigna baten modukoa zen, ez genuen begiratzen, ez genion kasurik egiten eta azkenean gugana etortzen zen eta izena esaten zigun [...] Gauza hauek orain oso sotil eta txiki ikusten dira, baina orduan garrantzitsuak ziren. Hau da, arduradunak txistu egiten zizunean *No voy a acudir si me silbas* esateak eta gainera hori guztion artean adostutako erantzun bat izateak, ba artalde izatearen sentsazioa izateari uzten hastea esan nahi zuen, zure gainetik dagoenak nahi duena egin dezakeela zalantzan jartzen hastea. [M.G.. Torfinasako langile komisioaren lehen kideetariko bat]

[...] uztailaren seian enpresak ordaintzen zuen bazkari bat egiten zen; niri hori ez zitzaidan batere gustatzen. Lehenbiziko urtean joan nintzen, hamazazpi urte nituen eta bazkaria ordaindu ziguten. Zuzendaria Etxebeste delako bat zen y gogoratzen naiz bazirela lankide batzuk haren besotik esekitzen zirela eta *¡Viva el señor Etxebeste!* Oihukatzen zutela. Eta niri hori oso itsusia iruditu zitzaidan, oso, oso gaizki... hau da, zergatik *¡Viva el señor Etxebeste!* Urte osoan zehar gu izorratzen ari bada? Ni, bazkari haietara, ez nintzen gehiago joan; eta gainera, gure nagusiak eta gu berdinak ez ginelaz kontzientzia hartzen hasi ginenean egin genuen lehenbiziko ekintzetariko bat, bazkari horiekin amaitzea izan zen eta iragarki taulan errotulu

<sup>965</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. 2010-03-11.

batzuk jarri genituen: *no vamos a ir porque no queremos migajas, queremos justicia*, esaten zuten. [M.G.. Torfinasako langile komisioren lehen kideetariko bat]

Patroiari elkarrekin aurre egiten genion gauza txikietan... ba, ez dakit, langile bat, pieza bat gaizki egin duelako zigortzen dutelako edo halako zerbait. Erantzun maila oraindik txikia zen, txikia, baina nolabaiteko erantzun bat zegoen, bai. Eta horrek patroia erabat nahasten zuen ohituta ez zegoelako, ez zekien... patroia arrazoia izatera eta inork arrazoi hori zalantzan ez jartzera ohituta zegoen. Pizte txiki haietatik abiatuta [...] nolabaiteko kontzientzia maila sortzen da; konfrontazio txiki haietariko batzuk gure garaipenarekin amaitzen zirenez, elkarrekin lortzen ahal zelako kontzientzia sortuz joan zen [...] orduan guzti horrek gauzak lortzen ahal genituelako kontzientzia eman ziguten... elkarrekin eta erabakitasunez egiten bagenuen, ahal genuen [J.E.C.. Torfinasako langile komisioren lehen kideetariko bat]

Urtean behin agertzen zen zuzendaria [fabrikan]. Zuzendari plantak egiten agertzen zen eta guztiak hor... *casi como besándole los pies*... auzo lotsa nuen nik. Nik pentsatzen nuen... ba zuzendaria izango da, baina pertsona da, ni bezala, nik bezala jaten du, nik bezala lo egiten du eta... horrek nahiko harritu ninduen; eta gero gainera, hurrengo egunean jendeak “joder, me dio la mano el director...”, hau da gauzarik goitarrena izango balitz bezala, ezta? orduan noski, nik gauzak aldatu behar zirela ikusten hasi nintzen [...] gainera oso soldata baxuak ordaintzen zizkigun! Orduan jada kontzientzia pixka bat genuenok hasi ginen esaten “Oye esto, este paternalismo es nefasto. Porque a costa de este paternalismo... la empresa se está forrando con nosotros. Entonces yo creo que hay que derivar esto a reivindicar un salario digno, y un horario de trabajo digno” [...] orduan gauzak mugitzen hasi ginen. Egin genuen lehenbiziko ekintza enpresa afari batetan izan zen, bonba kirasdun piloa erosi genuen eta... gu noski, ez ginen afarira joan eta gainera [...] panfleto batzuk atera genituen eta mahaiak non egongo ziren neurtuta, hara bota genituen eta bonba kirasdunak ere... eta horrela hasi ginen. [I.B.. Imenasako langile komisioren lehen kideetariko bat]

Fabriken baitan antolatutako langile nukleoak sendotu ahala, ekintza kolektiboa biziagoa egin zen, formetan berritu eta zabaldu egin zelarik. Lantokietan garatuz zihoan langile mugimendu honen dinamika, honela, lanuzte partzialekin, lan erritmoen moteltzearekin, aparteko orduen murrizpenarekin, enpresaren jantokietara ez bertaratzearekin, gutun kolektiboen bidalketarekin, sinadura bilketekin, erakunde ofizialen sarreraren aurreko elkarreratzeekin edota oinezko martxekin aberastu egin zen. Protestarako formulen aniztasuna eta malgutasuna, egiazki, 60. hamarkadaren bitartean sortu izan zen industria militantziaren ezaugarri bereizgarriena izan zen<sup>966</sup>. Iruñerrian, halako moldeak, 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera azaleratzen hasi ziren, langileak protagonista izan ziren hainbat ekintza eta protestatan. Langile erantzuna, fabrikaren baitako lehenbiziko nukleo antolatuek egindako ekintza txiki haietatik, langile kopuru handiagoa inplikatzeko zuten eta gatazka kolektiboen berezko markoetan ematen ziren ekintza handiagoetara igarotzen zen modu honetan.

1965ean greba batean amaitu zen Frenos Iruña enpresako langileen eta zuzendaritzaren arteko gatazkan, lehenbizikoen jardunbide desberdinek, honen adibide goiztiarrenak ematen dizkigute. Hasteko, euren soldata egoera hobetu baino okertu egiten zuen alorreko hitzarmen probintzialak xedatzen zuen produkzio-pizgarrien sistemaren aurkako azterketa bat egin zuten eta zuzendaritzari idatziz aurkeztu zioten, egoera konpontzeko bilera bat egitea eskatuz. Enpresaren erantzunik ezaren aurrean, langileek euren hurrengo ekintza planteatu zuten: protesta moduan lanuzte partzial bat egitea. Oraingoan, zuzendaritzaren erantzuna, zigor eta kaleratzeen forman jaso zuten eta horren aurka, hirugarren ekintza bati ekin zioten: lanuzte totala, greba. Fabrikaren esparruaren baitan eman ziren ekimen hauekin batera, protesta, kalera atera zen ere. Adibidez, Sindikatuen egoitzan egindako

<sup>966</sup> Langileak 60. hamarkadatik aurrera erabiltzen hasi ziren ekintza kolektiborako eta protestarako formula berri hauek, José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 249 orr.

elkarreratze batekin hasi, espaloietatik oinez Gobernu Zibilaren egoitzaraino ibili eta Gaztelu enparantzan, hiriguneko plazarik adierazgarrienean amaitu zuen manifestazio jendetsu bat egin zen<sup>967</sup>. Gaztelu Enparantza, aurrerantzean, langile protesta publikoaren erdigune nagusia izango zen, Sindikatuen egoitzarekin batera. Esate baterako, 60. hamarkadaren amaieran ohiko bihurtu ziren maiatzaren leheneko manifestaldiak, Gaztelu Enparantzan amaitzen hasi ziren, langileek plazaren erdiko kioskoari bueltak ematen zizkiotela<sup>968</sup>.

60. hamarkadaren amaierako lan gatazka garrantzitsuenetan ere protesta molde desberdinak identifikatzen ahal dira. 1968an eta 1969an Imenasa eta Super Ser enpresa garrantzitsuetan gertatu ziren grebak, langileek alde aurretik hainbat protesta ekintza burutu eta hauek emaitzari ez izaterakoan piztu ziren. Imenasa enpresan adibidez, 1968an, beso gurutzatuko greba batekin eman zitzaion hasiera gatazkari. Gobernuak aurreko urtearen amaieran dekretatu zuen soldaten izoztearen kontestuan, soldata igoerak negoziatzeko ezintasunak, langileak mugiarazi zituen. Zuzendaritza eta langileen ordezkarik sindikalak legedia urratzen ez zuen soldatak areagotzeko formula bat negoziatzen saiatu ziren, baina langilegoak ez zuen enpresaren lehenbiziko proposamena hainbat puntutan onartu (hitzarmena berritzeko aukera egon bitartean lan gatazkarik bazegoen, igoerak bertan behera geratuko zirela, adibidez) eta negoziazioak eten egin ziren. Langileek orduan aipatu beso gurutzatuko greba bat hasi zuten protesta egiteko modu bezala, hortik aurrera gatazka handitu eta greba bilakatuko zelarik<sup>969</sup>. 1969an Super Serreko enpresa zuzendaritzak alde bakarretik erabaki zuen denbora sistemak aldatu eta produkzio erritmoak igotzea. Protesta egiteko, produkzio kate berberako hamazazpi langilek lan erritmoa moteldu eta aurreko erritmoaren %85an aritu ziren. Enpresak ekintza honi eman zion erantzuna zigorrak eta kaleratzeak izan ziren eta honek langile guztiak greban jartzea ekarri zuen berekin<sup>970</sup>. 1970eko Industrias Esteban enpresako gatazkan ere protesta modu berriak ikusi ahal izan ziren, kasu honetan, grebaren bitartean. Alde batetik, grebalariak, fabrikaren inguruan elkarreratzea egin zuten egunero, “*paseoan ibiltzen, euria ari izan arren eta inolako istilurik sortu gabe*”. Bestetik, Landaben industria poligonoko milaka langilek, grebalariekiko protesta eta elkartasun keinu bezala, oinezko martxa bat egin zuten poligonotik hiriguneraino<sup>971</sup>.

Fabrikaren barnean, mobilizazioa, erantzuna eta protesta, negoziazio kolektiboaren eta soldaten igoeraren harira planteatzen zen bereziki. Gatazken lehen motibazioa beraz, 60. hamarkadako langile mugimenduaren dinamikan, fabrikaren errealitateari oso lotuta azaltzen da, lehen begiratuan behintzat. Antolakuntza molde berrien jatorrian ikusten genuenez, hitzarmen kolektiboek ekarri zuten lan harremanen

---

<sup>967</sup> Frenos Iruñako grebari buruz gehiago, ORT-Comité Provincial de Navarra, *Historia del movimiento obrero navarro. 25 años de lucha*, ORT, Iruñea 1975, 27-28 orr. eta José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 67-67 orr. Biek, oker, 1966 ematen dute greba gertatu zen urtea bezala. Guk ordea, 1965an kokatu ahal izan dugu, bai prentsan “Conflicto laboral en la empresa Frenos Iruña S.A.” DN 1965-10-31, 1. Orr. eta baita Alderdi Komunistaren Artxibategi historikoan topatu dugun gutun batean ere: “Carta desde Pamplona (09-11-1965)”, AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondoa, 190. kutxa. Greba honi buruz ere, labur, Patxi Abasolo, David Mendaza eta Joxerra Bustillo, *Nuestro mayo rojo...* Op. Cit., 514-515 orr.

<sup>968</sup> “Nueve detenidos en Pamplona”, DN 1968-05-02, 3 orr. eta “Los incidentes de ayer”, DN 1969-05-02, 20 orr.

<sup>969</sup> “Nota Informativa del conflicto laboral en Imenasa (perteneciente al Sindicato del Metal y con plantilla de 919 trabajadores) (06-02-1069)”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4093. kutxa.

<sup>970</sup> Super Serreko grebaren bilakaerari buruz ikusi, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 70 orr.

<sup>971</sup> “Nota Informativa: por solidaridad con los trabajadores de Industrias Esteban S.A. han parado los productores...” Industrias Esteban. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5209. kutxa.

eredu berria, funtsezkoa izan zen fabrikaren baitan langileen ekintza bateratu bat garatzen hasteko. Ildo horretan, hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren kontestatuak eta haren inguruan artikulatutako langile jarduerak, lan gatazken sorburuan zeresan nabarmena izan zuten. Gure subjektuen memoria kolektiboan adibidez, hitzarmenen negoziazioaren eta gatazken arteko harremana, argiki azaleratzen da. Langile militante askoren testigantzetatik, lantokiaren esparruan sortzen ziren gatazken piztutzea antzeko jarraibideetan oinarritzen zela ondorioztatzen ahal da: hitzarmen kolektiboaren negoziazioaren markoan, langileen aldarrikapenak eta eskakizunak jasotzen zituzten zerrendak osatzeko bilera eta asanbladak burutzen ziren, enpresa eta langile ordezkariaren (ordezkaritza sindikala edota langileek berek asanbladan hautatutako ordezkari) arteko negoziazioa ematen zen eta negoziazioaren emaitzak langileen interesen aldekoak ez zirenean, fabrikako langile mugimenduak ekintza kolektiboan abiatzen zuten. Negozioa, protesta, greba:

Normalean, urtero, lehenbiziko gauza hitzarmena zen. Hitzarmena enpresakoa zen noski, espresa bakoitzak bere hitzarmena zuen. Orduan, gatazka gehien sortzen zuena, ba, hitzarmena zen. Momentu batean, hainbateko soldata igoera edo lan baldintza hobetoak eskatzen zenituen eta enpresak ezetz esaten zuen. Plataforma bat sortzen zen -hala esaten zitzaion, hitzarmenerako plataforma- eta eskakizun guztiak zerrenda batean jasotzen genituen... horrela zen, ezta? zerrenda bat zen eta orduan enpresari esaten zitzaion "oye, una reunión. Queremos esto, esto y esto". Enpresak baietz edo ezetz esaten zuen eta [enpresak esaten zuen arabera], greba eta kito! [K.P.. Imenasako CCOOeko militantea]

Gehienak enpresari berezkoak zitzaizkion gatazka ziren. Gehienetan, hitzarmenarengatik. Hitzarmena berritzeko ordua iristen zenean, ba hainbat puntu, bai soldataren igoera eta baita lan baldintzak gogoan hartuta, jasotzen zituen plataforma bat egiten zen. Orduan normalean enpresak ez zuen onartzen eta greba egiten genuen [M.L.C.. Potasaseko CCOOeko kidea]

Hitzarmenen negoziazio prozesu haietan protagonismo handiena zuten eskakizunak soldaten ingurukoak ziren. Kontutan izanda 60. hamarkadan espainiar ekonomiak egiazko hazkundea bizitzen ari zela, ez zen harrizkoa langileek, egonkortze planarekin egin behar izan zituzten sakrifizioen ostean, sortzen lagundu zuten oparotasun berriarengandik etekinak espero izatea. Alta, jasotzen zutena, lanegun luze eta neketsuen ondoren, bizitzaren kostuaren mailaren presioari apenas eusten zioten eta gerra aurreko mailak berreskuratu berri zituzten soldadak ziren. Soldata errealean igotzea, aipatu etekinetan parte hartzeko biderik zuzenean bilakatu zen, soldaten goititzea, hedatuki legitimatutako aldarrikapena izango zirelarik langileentzat. Ez bakarrik militante aktiboentzat, baita langileen gehiengoarentzat ere. José Babianok, zentzu honetan, soldaten inguruan, protestari, ekintzari eta gatazkari, langileen onarpena ematen zien "ekonomia moral" berri moduko bat sortu zela aipatzen zuen<sup>972</sup>. Ikusi izan ditugun Iruñerriko lehen lan gatazketan, soldaten gaia izan zen langileen protesta piztu zuen motibazioa. Frenos Iruña enpresako grebaren kasuan, enpresak xedatutako produkzio-pizgarrien sistema berriak langileen soldatetan eragiten zuen kaltea izan zen; 1968ko Imenasako grebaren kasuan, gobernuak agindu zuen soldaten izozteak eragin zuen hitzarmena eta soldaten igotzea negoziatzeko ezintasuna; eta 1969ko Super Serreko grebaren kasuan, pizgarriei eta soldatari eusteko langileak lanerako erritmoa bizkortzera behartzen zituen denbora sistemen aldaketa.

### 6.1.2 Langile mugimendua eta erregimenaren egitura sindikalak

---

<sup>972</sup> José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 259-260 orr. Autoreak ekonomia moral berria dio, soldaten inguruko hau ez delako, argi eta garbi, E. P. Thompsonen azaleratutako eskubide tradizionalen inguruko XVII. mendeko ekonomia moral hura.

Langile mugimendu hau Erakunde Sindikaletik kanpo eta kontra sortu zen nolabait. Alta, mugimenduak agertu izan zuen ezaugarri nabarmenduenetariko bat, hazteko eta garatzeko erakundearen egiturak erabili zituela izan zen. Erakunde sindikalaren baitan, 40. hamarkadatik jada, aginte lerro bat eta ordezkatzeko lerro bat bereizten ziren. Hala ere, ordezkatzeko lerro horrek ez zuen, bereziki Erakunde sindikalaren ezartzealdian, apenas edukirik izan. 40 eta 50. hamarkadetan, ordezkari funtzio hau betetzen zuten figurak, ordezkari sindikalak eta enpresa epaimahaiak ziren, batez ere azken hauek. Enpresa epaimahaien betebeharrak enpresaren baitan kapitalaren eta lanekuaren arteko lankidetzak gauzatzea zen. Berez fabrikaren baitan eragile sozioekonomikoen arteko harmonia bermatzeko figura izateko sortu bazen ere, praktikan, enpresak lan legedia betetzen ez zuenean langileen erreklamazioak bideratzeko bitarteko bezala itxuratu ziren. Zentzu honetan, haiekin enpresetan botere sindikal moduko bat sortzen ahal zela esan daiteke eta hein handi batean horregatik, patronalaren botereari aurka egiten ahal zion langileen entitate sindikal kolektibo bihurtzen ahal zirelako kezka zegoelako, hauek ezartzea kostatu zen<sup>973</sup>. 1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legeak ordezkari sindikala negoziazioen protagonista bihurtu zuenean, kezka hauek funtsa izaten ahal zutela ikusten hasi zen.

Egiazki, Hitzarmen Kolektiboen legeak aldaketa garrantzitsuak eragin zituen Erakunde Sindikalaren baitan. Haren gogoetabidea berritzen hasi zen, honen adierazle lehenak, zenbait egitura horizontal berrirak sorrera eta langileen parte hartze handiago baten sustapena izan zelarik. Adibidez, hautatuak izaten ahal ziren karguen aukera zabalduta zen eta hautatua izateko erraztasun gehiago eman zen. Ildo berean, ordezkari lerroaren baitan, bakarrik langileenak eta bakarrik enpresariena izango ziren erakundeak sortu ziren (aginte lerroa osorik gelditzen zen), Sindikatuari itxura dinamikoago bat emateko asmoz. Honela, 1964an langile kontseiluak eta enpresari kontseiluak eratu ziren, herrialde mailan eta maila nazionalan. Bi Kontseiluak, bi partearen artean nolabaiteko autonomia zegoelako itxura emateaz beste, Sindikatuen ordezkari eta erabakitze autoritate gorenak ziren Kongresu Sindikal Nazionalaren eta Kontseilu Sindikal probintzialen parte izatera igaro ziren. Bi erakunde hauetan langileak, teknikoak eta enpresariak, buru sindikalekin biltzen ziren egoera sozioekonomikoa aztertu, arazoak eta kezkak identifikatu eta jardura sindikalaren ildoak erabakitzeko eta kontseiluei esker, langileek, berauetan parte hartze handiagoa izateko aukera gehiago izaten ahal zuten.

Kargu, erakunde eta parte hartzerako esparru berri hauetara sarbide izateko aukera, hauteskunde sindikalak biziagotu egin zituen. Alor honetan ere irekitasun zantzuak nabaritu ziren. 1966ko hauteskunde sindikalak irekitasunaren aldeko joera honen adierazle nagusia izan ziren. Langileen parte hartzea errazteko, hauteskunde araudian aldaketa garrantzitsuak egin ziren eta Sindikatuen Ordezkari Nazionala zen José Solís Ruizek langile guztiei, are lantokietan sortzen hasia zen langile mugimendu berriari, hauteskunde deialdian parte hartzeko deia egin zien. Langile mugimenduak hala egin zuen eta langile batzordeetako militante andana Erakunde Sindikalaren ordezkari egituretara sartu zen.

### *Karguen erabilpena, hauteskunde sindikaletan parte hartzea*

Langileen antolakuntza forma berrien sorreran eta garapenean, garrantzitsua izan zen langile militanteek Erakunde Sindikalak eskaintzen zituen tresna desberdinez egin zuten erabilpena. Izan ere, fabriken baitan, ordezkari sindikalen eta enpresa epaimahaikideen karguak eta Sindikatu Bertikalaren baitan, sindikatu desberdinen sail

---

<sup>973</sup> Enpresa epaimahaien figurak eta funtzioak definitzen dituen araudia 1953an onartua izan zen, aurreko hamarkadan itxura hartzen hasi ostean. Ikusi Manuel Ludevid, *Cuarenta años de...* Op. Cit., 26-32 orr.

sozialetako kide eta are lehendakari karguak, langileen interesen defentsarako plataforma bihurtzen saiatu ziren, berauetatik, nolabait, langile mugimendua sendotzen laguntzeko. Langileek, 40. hamarkadaren erdian ordezkari sindikalen figurak sortu ziren arte, ez zuten Erakunde Sindikalean parte hartzeko aukerarik izan eta ordutik aurrera lortu zutena, oso mugatua izan zen. Azken batean, hauteskunde sindikalak beti baldintzatuak eta kontrolatuak izan ziren eta hautetsiek “aginte lerroaren” menpe egon ziren, euren karguetan aritzekoan askatasunez jarduteko zailtasunak eta hertsapenak topatzen zituztelarik. Beraz, 60. hamarkadaren bitartean langile militanteek figura hauek langileen aldarrikapenerako tresna eraginkor bihurtuko zituzten arte, langileen hauek jarraera axolagabetasunezkoa edo mesfidantzazkoa izan zen. Hauteskunde prozesuetan adibidez, jarraera abstentzionistak ziren nagusi eta are askotan, burla egiteko, futbolari edo artista famatuei bozka ematen zitzaien<sup>974</sup>.

Hala ere, hainbat langile militanteek bide sindikala erabili eta halako karguek ematen zituzten aukera mugatuak, langileak defendatzeko eta aldarrikapenak egiteko erabiltzea erabaki zuten. Komisioen jatorriarekin gertatu bezala, tresna sindikalez baliatzeko estrategian ere langile komunistek eta katolikoei bat egin zuten<sup>975</sup>. Militante komunistek Sindikatu Bertikalean izango zuten presentziak, alderdi komunistak egindako estrategia politikoaren aldaketarekin zerikusirik izan zuen. Gerrillaren bideak porrot eginda, abangoardia politiko eta sindikalak barnealdeko masa borrokatik abiatuta berrosatzearengatik apustu egin zuen eta horretarako, langileak zeuden tokietan presentzia lortzea ezinbestekoa zen, fabriketan eta Sindikatu Bertikalaren baitan lan egitea helburu nagusi bihurtu zelarik. Militante katolikoei dagokienean, kargu sindikalak betetzeko dinamikan sartzea, apostolutza mugimendu sekularretan jasotako formakuntzaren eta garatutako konpromiso mundutarraren ondorio izan zen hein handi batean. Izan ere, ordezkariak sindikala, euren militantziak azken helburutzat zuen errealitatearen eraldaketarako, fabrikaren baitako errealitatearen eraldaketarako kasu honetan, plataforma eraginkor gertatzen ahal zen. Ildo horretan, batzuek zein besteek, kargu sindikaletatik, langileen antolakuntza forma berrien sorreran (are fabriketako langile komisioen lehen nukleoetan) parte hartu zuten, euren karguan aritzean, konfiantza sareak sortzeko eta langile edukiak eta esperientzien transmititzeko aukera izan baitzuten. Hasteko, hauteskunde prozesuek berek, militanteak lankideengana hurbiltzeko eta hauei euren ideiak eta proposamenak ezagutarazteko kontestu bat ematen zuten. Gero, karguan aritzeak, militanteak, askotan langileen interesen defentsarako erreferentziazko figura bihurtzen zituen. Are gehiago, ordezkari sindikalek hitzarmen kolektiboen negoziazio prozesuetan zuten papera, langile aldarrikapenen bozgorailu izateko parada ematen zien.

“Entrismoaren” politika honen emaitzak 50. hamarkadaren amaieran eta 60. hamarkadaren hasieran hasi ziren ikusten. Zaila da 50. hamarkadaren erdialdetik aurrera eta 1966ra arte, hots, langile militanteek hauteskunde sindikaletan erabateko arrakasta lortu zuten arte, militante komunistek eta kristauek Sindikatu Bertikalean izan

---

<sup>974</sup> Carme Molinero eta Pere Ysás, “La historia social...” Op. Cit., 146 orr. Gure iturrien artean Sindikatu Bertikalari buruzko eta kargu sindikalei buruzko ikusmoldea, axolagabetasunaren eta mesfidantzaren artean kokatzen da. Sindikatu Bertikala ezertarako balio ez zuen erakundea zela, ezer egiten ez zuela pentsatzen dutenak daude. Kargu sindikalak enpresari eta erregimenari lotutako elementuak zirela eta karguan etekin pertsonalak lortzeko (promozio profesionala, opor egunak, bazkariak) zeudela salatzen dutenak daude. Are gehiago, Sindikatu Bertikalarekin zuzenean esperientzia oso txar bat bizi ondoren, sindikatuak langileen interesak defendatzeko baino, enpresariaren defendatzeko jarduten zuelaz konbentziturik zeudenak daude ere.

<sup>975</sup> Langile indar desberdinek kargu sindikalen erabilpenaren eta hauteskunde sindikalen parte hartzearen aurrean izan zuten jarreraz gehiago ikusteko, adibidez, Abdón Mateos, “Comunistas, socialistas y sindicalistas ante las elecciones del Sindicato Vertical 1944-1967”, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 1. Zkia, 1988, 379-412 orr.



zuten presentzia azaleratzea. Nafarroako Gobernu Zibilaren artxibategi osatu baten ezean, Administrazioaren Artxibategi Orokorrean aurkitzerik izan dugun dokumentazioa ez da hori egiteko lagungarria izan eta erabili izan ditugun ahozko iturrien artean, 60. hamarkadaren aurretik ordezkari sindikal izan zen langilerik ez dugu topatu. Hala ere, 1956an jada bai komunistek eta baita katolikoek ere sindikatueta eta ordezkaritza karguetan nolabaiteko presentzia bazutela iradokitzen duen hainbat informazio aurkitu dugu.

1956ko azaroan PCEaren arduradun batek Nafarroako egituraren egoeraz egindako txostenek, honek hemen ordezkaritza sindikalean aritzen ziren alderdikideez eta zaleez osatutako sare txiki bat bazuela agerian uzten dute<sup>976</sup>. Zaletzat jotzen ziren kamarada baten neska-lagunak eta bi koinatuk, ordezkaritza karguak zituzten, lehenbizikoak berrehun ta berrogeita hamar langileko fabrika batean eta bigarrenek botoi fabrika batean. Azken hauek gainera, ordezkari eta ehungintzaren sindikatuko sail sozialeko kideak ziren. Beste kamarada batekin lan egiten zuen zale bat bere sindikatuko sail sozialeko kidea zen ere, maila probintzian zein maila nazionalen. Gaztea zen, katolikoa eta oso harreman ona zuen kamaradekin. Arazo sozialei buruzko gaietan interes handia zuen. Beste bi kamarada ordezkari sindikalak ziren euren fabriketan. Honekin batera, kamaraden artean sindikatueta lan egitearen aldeko eta militante eta zaleak ordezkari karguetarako gaitzearen aldeko jarrera nagusi zela jasotzen da. Urte horretan bertan Iruñeak bizi izan zuen greba orokorra adibide adierazgarria da ere zentzu honetan, ordezkari sindikalek haren piztutzean izan zuten garrantzia ikusita, kamaradek, karguak etorkizunean oso erabilgarriak izaten ahal zirela uste baitzuten<sup>977</sup>. Ordezkari sindikalei egozten zitzairen grebak izan zuen gutxieneko antolakuntza, bereziki hauek, Sindikatuen egoitzan Erakunde Sindikaleko agintariekin eta Nafarroako Sindikatuen ordezkariarekin izan zuten bilera batean, denak batera jardun izan zutelako, soldaten goititzeaz hitz egingo zen arte langileei lanera itzultzeko deialdia egiteari elkarrekin uko eginez. Bilera hartan parte hartu zuten ordezkarien artean komunistak, sozialistak eta katolikoak zeuden, “entrismoak” jada lehenengo urratsak ematen zituela agerian utziz nolabait. Grebaren ostean, bide sindikala indartzeko apustua egin eta komunistek, sindikatuaren egituraren baitan lanean jarraitzeko beharra azpimarratzeaz beste, euren ordezkariak lantokietan eta sindikatueta jarduteko hobe gaitzeko prestatu behar zirelaz ohartarazten zen. Katolikoek euren aldetik, Erakunde sindikalarekin kritiko azaltzen ziren arren, ahalik eta ordezkari sindikal eta sail sozialetako batzordekide kargu gehienak bereganatzen saiatzen ari zirela esaten zen ere.

Basilisa Lopezek dioenez, 1956an bertan planteatu zuen HOACak kargu sindikalak erabiltzeko eztabaida. Urte horretan, diozesi desberdinetako militanteek, murgilduta zeuden langile giroari buruzko azterketa sakona egin zuten. Iruñeko militanteek aurkeztutako ondorioetariko bat, enpresako epaimahaiak borroka egiteko plataforma gisara erabiltzen ahal zirela izan zen<sup>978</sup>. Ildo horretan, Lopezek berak ere jasotzen duenez, HOACeko militanteek 1956ko grebetan paper nabarmena izateko aukera izan zuten. Izan ere, Iruñean, Bizkaian eta Gipuzkoan epaimahaiak jada langileen aldarrikapenak publiko egiteko plataforma bezala erabiltzen hasiak zirenez, hauek laster gatazkaren buruan jarri ahal izan ziren. Erregimena bera ere konturatu zen, 50. hamarkadaren amaieran, HOACeko militanteak sindikatuen baitan presentzia garrantzitsua lortzen ari zirelaz. 1958an, kezka puntu batekin, autoritate sindikalek, militante katolikoek sindikatuen ordezkaritza lerroetan, hots, sail sozialetako

---

<sup>976</sup> “Informe de (31) sobre la organización del P en (32) [1956]”. AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 361 Jaq.

<sup>977</sup> *Ibid.*

<sup>978</sup> Basilisa López García, *Aproximación a la...* Op. Cit., 79 orr.

batzordeetan, presentzia eta eragin nabarmena zutela eta sailetako bilera sindikaletan HOACaren ildoko teoriak azaltzen eta defendatzen ari zirela ikusten zuten<sup>979</sup>.

Guztiarekin ere, “entrismoaren” estrategiak 60. hamarkadaren hasieratik aurrera hasi zen emaitza garrantzitsuak ematen. Hamarkada horren bitartean langile mugimenduaren garapenean parte hartuko zuten militante askok, horien artean gure subjektuetariko batzuk, ordezkariak sindikaleko karguetan aritzeko hautatuak izan ziren. 1963an lehenbiziko aldiz. Tomás Caballero, sindikalista independentea eta Nafarroako Langile Kontseiluko lehendakari izango zena, urte horretan aukeratu zuten ordezkari sindikal. 1957 urtetik Fensa enpresan lan egiten zuen. Sartu zenetik eta 1963an hauteskunde sindikaletara aurkeztu zen arte, ordezkari sindikalen eta enpresako epaimahaiko kideen ondoan lan egin zuen, adibidez ekonomatua, langileen arteko mozkinen banaketa edota langileentzako laguntza ekonomikoak lortzeko<sup>980</sup>. Nahiz eta oraindik kargurik ez izan, bitarte horretan egin zuen lanak prestigioa eman zion lankideen artean eta 1963ko hauteskundeetan, azkenik, hautatuta izan zen. Caballerok berak urteak geroago gogoratuko zuenez, urte hartako hauteskundeek langileen interesa piztu zuten nolabait. Emaitzek sindikatu bertikalen ildoarekin ados ez zeuden eta gainera argi eta garbi esaten zuten pertsonak kargu sindikaletan izateko hautatuak izan zirela erakutsi zuten<sup>981</sup>.

Orokorrean, sindikatu bertikaletan infiltratzearen estrategiak, arrakasta partziala izan zuen oraindik 1963an. Orduan hautatuak izan ziren karguei enpresaren baitan presentzia handiagoa izateko antolakuntza garatuago bat eta enpresa desberdinetako hautetsien arteko koordinazioa falta zitzaie oraindik, Erakunde Sindikalaren ordezkariak maila altuenetara iristeko zailtasunak izan zituztelarik. Iruñean ordea, arrakasta kontutan hartzekoa izan zen. 1963an hautetsi izatea lortu zuten militante katolikoek, komunistek eta independenteek<sup>982</sup>, sindikatu desberdin eta garrantzitsuetako sail sozialetako batzordeen lehendakariak lortu zituzten. Berezi hiru egitatek adierazten dute arrakasta hau. Lehena, 1965eko Frenos Iruña enpresako grebaren kontestuan, langileen eta enpresari eta hierarkia sindikalaren arteko bitartekaritza lanak eginez hala nola azken hauen aurrean enpresak gauzatutako langileen kaleratze masiboaren legezkontrakotasuna salatuz, Abelazkuntzaren, Industria Kimikoen, Metalaren eta Bankaren Sektoreko sindikatuetako sail sozialetako lehendakariak izan zuten langileen aldeko jokabidea<sup>983</sup>. Bigarrena, urte berean hautatua izan zen lehenbiziko Nafarroako Langile Kontseiluaren osaera, non Tomas Caballero independenteak (Uraren, Gasaren eta Elektrizitatearen sindikatuko sail sozialeko batzordearen lehendakaria), Francisco Sánchez Cortázar PCEko militanteak (Metalaren Sindikatuko lehendakaria), José María Monreal HOACeko militanteak (Abelazkuntzaren sindikatuko lehendakaria) eta HOACen inguruan ibiltzen zen José

---

<sup>979</sup> “Informe de investigación, asunto: Actividades de la HOAC en Sevilla. Información de las actividades de la HOAC según referencias recibidas en esta vicesecretaría Nacional entre el 1 de enero y 1 de abril del año en curso 58”. AGA-AAO, Presidentzia fondoak, 51-19090. kutxa.

<sup>980</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 25 orr.

<sup>981</sup> 1976an Nafarroak etorkizunaren aurrean zituen erronka nagusiez hausnartzeko antolatu zen hitzaldi ziklo batean nafar sindikalismoari buruz eman zuen hitzaldi batean izan zen. Tomás Caballero, “Momento actual del sindicalismo en Navarra”, VV.AA, Navarra ante el futuro, Diario de Navarra, Iruñea, 1976, 79-88, 79 orr.

<sup>982</sup> Gure protagonisten artean, adibidez, urte hartan J.M.M. (Minako langilea eta HOACeko militantea, E. A. (Torfinasako langilea eta HOACeko militantea) eta M.A.M. (Penibéricako langilea eta HOACeko militantea) izan ziren hautatuak. J.M.M.-i, E. A.-ri eta M.A.M.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2010-03-04, 2010-03-11 eta 2011-12-23, hurrenez-hurren.

<sup>983</sup> Jose Elena Santamaría Blasco, “Iglesia y movimiento obrero navarro en los años 60” lizentziatura memoria. Argitaragabea.

Ramón Lebrónek (Aseguruen Sindikatuko lehendakaria) parte hartu zuten<sup>984</sup>. Hirugarrena, aipatu Francisco Sánchez Cortázarrek eta José María Monrealek, Industria Kimikoen sindikatuko sail sozialeko lehendakaria zen Miguel Angel Muez HOACeko militantearekin batera, prentsara bidali zuten gutuna. Gutun horrek, 1966ko hauteskunde sindikalen atarian, prozesuak langileen egiazko ordezkariak bermatzen zuela zalantzan jartzen zuen, abiatzear zer erreforma sindikalaren proiektuaren gauzapenean langileek izango zuten parte hartze mugatua salatzen zuen eta euren jardueran autoreek topatu izan zituzten oztopoak (eskola sindikalaren eraginkortasunik eza, gatazka markoetan egoitza sindikalean bilerak egiteko zailtasunak) jasotzen zituen<sup>985</sup>.

Militanteek 1966ko hauteskunde sindikaletan izan zuten arrakasta, mugarrizko izan zen langile mugimenduaren garapenean. Erakunde Sindikala legitimatu asmoz, hauteskunde prozesuari irekitasun kutsu bat eman nahi izan zitzaion, langileen parte hartzea sustatuz. Horretarako, hautagaitza ofizialez besteko hautagaiei mugak eta trabak jarriko ez zitzaizkiela iragarri zen<sup>986</sup>. Egiatan, hauteskunde haien irekitasun haizeak, berez arriskurik ekarri behar ez zuen itxura garbitze bezala planteatu ziren, baina emaitzak ikusita, erregimenari, jokaldia ez zitzaion oso ongi aterata. Langileen parte hartzea sustatzea lortu zen (estatu mailan<sup>83</sup> ingurukoa izan zen, ordura arteko hauteskunde lehiaketetako portzentajerik altuena), baina bozkak hautagaitza ez ofizialetan aurkeztu ziren militanteengana, hau da, langile batzordeetako kideengana eta frankismoaren aurkako oposizioko kideengana joan ziren. Izan ere, autoritate sindikalek *“funtsezko hutsegite bat egin zuten (...) hogeita hamar urte soilik euren buruei entzuteak eta ezeztatzen ahal zituen [elementu] oro isilarazteak, frankismoaren agintari asko euren erretorika propioa sinestera eta propaganda eta errealitatea ez bereiztera eraman zituen. Hauteskunde haien ardatza izan zen goiburua, “¡Que gane el mejor!” izan zen eta herrialdeko industria gune nagusienetan, langileek onenei bozka eman zieten”*<sup>987</sup>.

1966ko egoera, langile indarren oso aldekoa zen Iruñerrian: 60. hamarkadaren lehen erdialdearen bitartean bizitako esperientziei, 1963ko hauteskundeetan lortutako garaipenei, kargu sindikaletatik eskuratutako lorpeni eta fabriketako lehen langile komisioren sorrerari esker, langileak euren jarduerarako gaitasunaz kontzienteagoak ziren; langileek, orokorrean, hauteskunde prozesuan parte hartzeko jarrera azaltzen zuten; eta oposizioko hautagaitzak osatzen zituzten korronteen arteko giroa batasunduna zen gatazkatsua baino<sup>988</sup>. Emaitzak oso positiboak izan ziren. 1963an lortutakoaren ildoari jarraiki, militante katolikoak, independenteak eta orain ere fabriketako langile komisiotako kideak, euren lantokietan ordezkari sindikal eta enpresako epaimahaietako kide izateko hautatuak izan ziren. Hautagaitza ez ofizialek ere, Erakunde Sindikalaren goiko mailetan sindikatu garrantzitsuenen sail sozialetako lehendakariak lortu zituzten, aurrerago ikusiko dugun bezala, are Nafarroako Langile Kontseiluko lehendakariak, Tomás Caballero independentearentzat lortu zutelarik. 1966ko hauteskunde sindikaletan hautagaitza ez ofizialek eta komisiotako militanteek lortu zuten arrakastak, hartara, antolakuntza molde berriek indarra bazutela eta

<sup>984</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 43 orr.

<sup>985</sup> “Cartas al director, El sindicato en la hora de las elecciones”, PN 1966-09-13, 3 orr.

<sup>986</sup> Irekitasun honen helburu nagusia, sindikatuaren zuzendaritzan eta lerro politikoan ez, baina bai ordezkariak maila baxuenetan, langileek berezki hartzen ahal zituen ordezkarien presentzia bermatzea zen. Horretarako, ezinbestekoa zen erregimenarekin zuzeneko lotura ez zuten elementuen nolabaiteko parte hartze sindikala sustatzea; bide horretan, hautagaitza ez ofizialen osara onartu beharko zelarik.

<sup>987</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 154 orr.

<sup>988</sup> 1966ko hauteskunde sindikalen Nafarroako emaitzez gehiago, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 65-66 orr.

mugimendua jendaurrera azaltzeko eta langile borrokan aritzeko prest zegoen militante belaunaldi berri batek osatzen zuela azaleratu zuen nolabait.

Estrategia “entristak” 1963an izan zuen arrakasta goiztiarra eta 1966an izan zuen arrakasta handia nafar langile mugimenduaren ezaugarri nagusienetariko bat izan zen 60. hamarkadaren bitartean, CCOO herrialdean ofizialki aurkeztu zen arte behintzat. Ikusi ditugun Iruñerriko hauteskunde emaitzak harritzekoak izan daitezke, Nafarroa berez langile mugimenduaren garapen erdigune nagusien artean ez zegoela kontutan hartuta eta halako emaitzek, nolabait, mugimendu horren bilakaera oso azkarra ematen ari zela adierazten dutela kontutan hartuta. Xavier Domènechek jarraibide interesgarriak eman izan ditu Iruñerrikoa bezalako prozesu azkar hauek azaltzeko<sup>989</sup>. Alde batetik, langile mugimenduaren garapen erdiguneak ez ziren leketan, aukera politiko eta sindikalak ia hauteman ezinezkoak ziren, hutsune horrek, langile politikaren ildo desberdinen arteko polemiketarik urrun, praktika sindikal batasundun bat erraz garatzea ahalbidetzen zuelarik. Bestetik, leku hauen eredu izan ohi ziren hirien tamaina ertainak laguntzen zuen, berauetan, hiri oso handietan ez bezala, auzoaren eta fabrikaren arteko harremana hurbila izaterakoan eta harreman eta komunikazio sareak apenas zatikatuta egoterakoan, mugimenduaren garapena azkarragoa izatea posible egiten zuelako. Iruñerrian baldintza hauek nola edo hala ematen ziren eta zentzu honetan, estrategia “entristaren” arrakasta goiztiarra eta orokortua azaltzeko baliagarriak suertatzen zaizkigu.

Egitura sindikaletan parte hartzeak aukera sorta handia eman zien militante hauei euren jarduera garatzeko. Hasteko, bilerak eta harremanak egiteko esparruak ematen zizkien. Sindikatuen egoitzan burutzen ziren bilerak, esaterako, langile topagune garrantzitsuak izan ziren eta hauek harremanak eta sareak sortzeko (*“garai hartan Sindikatu Bertikala zegoen [eta] gu ordezkari sindikalak ginen, horrela esaten zitzairen orduan; eta bilerak han, [egoitza sindikalean] egiten genituen, hor bilerak eta asanbladak egiten genituen [...] Caballero, Langile Kontseiluko lehendakaria zena [...] gurekin egoten zen hor asanbladetan eta oso sana zen, handik ibiltzen zen jende asko bezala. Jende horrek agian ideia desberdinak zituen, ez horren aurrerakoiak, baina [hala ere] oso giro ona egiten zen garai hartan [...] beti jende aurreratua zegoelako ere”*<sup>990</sup>) eta langile mugimenduari zegozkion gaiez, hots, antolakuntzaz, koordinazioaz, gatazkez, estrategiez, hitz egiteko (*“gu sindikatuaz baliatzen ginen... guk, bertan ginenak eta [langile mugimenduz] kontzientzia hartzen hasiak ginenek, bilerak egiteko erabiltzen genuen. Legala zen leku batean biltzen ginen, baina bertan ilegalak ziren gauzez mintzatzen ginen”*<sup>991</sup>) gune oso erabilgarriak izan ziren.

Alta, estrategia sindikalak, fabriketan bertan eskaini zizkion aukera gehienak langile mugimenduari. Langileek hautatutako ordezkari sindikalaren figura denbora luzez garrantzi gabea izandakoa zen. Baina hitzarmen kolektiboen sistemak, nabarmentasun handiagoa eman zien, negoziazio prozesuetan langileen legezko solaskide bakarra zirelako. Ikusi dugun bezala, paper honek lankideen eskaerak eta aldarrikapenak bideratzeko tresna bihurtu zituen. Legezko karguak betetzeak, hartara, lan baldintzak hobetzen saiatzeko jarduera bat garatzeko aukera bat ematen zuen nola edo hala. Esate baterako, hauteskunde prozesuetan, hautagaitza alternatiboek berezko programak osatu zituzten euren lankideei aurkezteko<sup>992</sup> eta haietariko asko, hautatuta izan zenean, konpromiso haiek betetzeko lan egin behar zuen: *“enpresan... belaunaldi berri bat sartu ginenean, jendearekin hitz egiten genuen. Lanetik*

<sup>989</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 158-159 orr.

<sup>990</sup> F.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-30.

<sup>991</sup> E. A.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-11.

<sup>992</sup> Horrela egin zuten, adibidez, Madrilen 1963ko hauteskundeetarako. José Babiano eta José Antonio de Mingo, “De la comisión...” Op. Cit., 197 orr.

*ateratzerakoan, ba han gelditzen zinen eta biribilki batean gauzak azaltzen zenituen [...] Minan lanekuaren %50a emakumeak ziren eta gogoratzen naiz programan, orduan, emakumeari buruz hitz egiten genuela, ezta? gutxiago irabazten zuten... nahiko egoera txarrean zeuden*<sup>993</sup>. Hain zuzen ere emakumeen halako berezko lan aldarrikapenak bideratzeko, ordezkari sindikal emakumeen figura oso garrantzitsua izan zen. “Emakumeen arazoak eta aldarrikapenak apenas bere gain hartzen ez zituen langile mugimendu baten baitan”<sup>994</sup>, kargu sindikalek euren problematikak mahaigaineratzeko eta hauen konponbiderako eskakizunak egiteko parada ematen zieten emakumeei eta hauek, euren lantokietan bizi zuten egoera hobetzen saiatzeko erabili izan zituzten. Esate baterako, emakume langileen kezka nagusienetarikoa bat, soldata bereizkeria izan zen eta ordezkari sindikalek, horren aurreran, emakumezkoek ikastun bezalako soldata lau urtez jaso behar ez izatea (gizonezkoek bi urtez jasotzen zuten) egin zuten euren berezko aldarrikapenen ardatz nagusienetarikoa bat. I.N. Iruñerriko lehen emakumezko ordezkari sindikaletarikoa bat izan zen. Gutxi ziren, baina elkarrekin egin izandako aldarrikapenen artean, emakumeentzat ezkondu eta gero lanean jarraitzeko eskubidea eskatzen zutela gogoratzen du, izan ere, ezkonduetakoan hiru hilabeteko diru saria (“ezkonsaria”) emango zitzaizela eta ondoren, lana utziko zutela hitzarmen bitartez arautua zegoen.

CCOOeko militante izandakoak diren gure subjektuetariko askok berez ez du ordezkari sindikal bezala eta fabriketako langile komisioko kide bezala garatu zuen jardura esplizituki bereizten. Karguetatik bideratu zituzten borrokak eta komisiotatik sustatutakoak lotuta agertzen dira maiz, elkarren osagarri izango balira bezala. “Militantzia bikoitzaren” eta egitura legal eta egitura klandestinoen konbinatzearen adierazlerik garbiena zen hau: *“gehienek “afiliazio bikoitza” genuen, hau da, Sindikatu Bertikalean zeunden, han langileak zeudenez “proselitismoa” egiten ahal zenuelako eta han [barrutik] sindikatuarekin amaitzen laguntzen ahal zenuelako; gero ere bestean sartuta zeunden, oso klandestinoak zen mugimenduan*<sup>995</sup>. Langile militanteentzat egitura sindikaletan parte hartzea euren langile jardueraren osagarri bat izan zen, egiturek legezko ordezkatzeko plataforma bihurtuta, emaitza onak eman zituen estrategia bat. Fabriketan, langileen legezko solaskide bakarrek kokagunetik, ordezkari sindikal eta enpresako epaimahaiko kideek, langile komisiorekin eta asanbladarekin batera jardun ohi zuten, baita lan gatazketan ere, askotan honengatik kargutik kenduak eta enpresatik kaleratuak izatera iritsi zirelarik. Erakunde Sindikalaren baitan, egiturak langileen zerbitzura jartzen saiatu ziren, Sindikatu Bertikalaren eraldaketa bultzatzeko eta harekin barrutik amaitzeko. Helburua, aginte lerroak ezartzen zituen muga gaitetik, sindikatua langileen interesen defentsarako egiazko tresna bihurtzea eta egituretan langileen ordezkariak eta parte hartzea areagotzea zen. Lorpen garrantzitsuak eskuratu zituzten zentzu honetan, batez ere Nafarroako Langile Kontseiluan.

### *Nafarroako Langile Kontseilua*

1966an erakunde kristaueko eta langile komisiotako militanteek eta militante independenteez lortu zuten arrakastaren ostean, Iruñerriko langile mugimendua pausu bat gehiago ematen zuen eta bere ordura arteko lorpenik handiena eskuratzen zuen: 1967an Tomás Caballero, HOACaren hurbileko militante sindikal

<sup>993</sup> J.M.M.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2010-03-04.

<sup>994</sup> Horrelakoa zen nafar langile mugimendua emakumeen berezko problematikarekiko, Carmen Bravoren hitzetan. Carmen Bravo Sueskun, *La participación social y política de las mujeres en Navarra: de la domesticidad a la emancipación (1961-1991)*, Juan Madariagak zuzendutako doktore tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Geografia eta Historiako Departamentua, 2011.

<sup>995</sup> M.BU.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-05-20.

independientea, Nafarroako Langile Kontseiluko lehendakari hautatua izan zen. Caballero alde handiz nagusitu zitzaion hautagaitza ofizialari. Aldez aurretik sindikalista independente bezalako izen ona zuen eta hari esker, HOACeko militanteen sostenguarekin batera, mugimendu klandestinoaren militante garrantzitsuen eta prestigio nabarmeneko sindikalisten atxikimendua lortu zuen. Caballeroren hautagaitza babestu zutenen artean, sindikatu handienak eta aktiboenak (Metalarena eta Industria Kimikoena) ordezkatzeko zituzten Francisco Sanchez Cortázar eta Francisco Vitas (PCEko militantea lehenbizikoa eta Potasasen langileen artean ospe handia zuen sindikalista independentea bigarrena) egon ziren. Harekin batera, kontseilu hartara, USO eta jada antolatzen hasiak ziren Nafarroako CCOOetako kideak, hots, apostoluzta mugimenduetako militanteak, karlistak eta langile independenteak, sartu ziren, organo plural baina era berean batasundun bat osatu zutelarik. Tomás Caballerok berak urteak geroago gogoratu zuenez: *“kontseilu hartan denetatik zegoen: oraindik eskasak ziren langile erakundeetatik [gertu] zeudenetatik hasita, talde orotik aparte kontseilura gure kezka soziala eta justizia eta askatasun gosea eramaten genuen [independienteetara] iritsi arte [...] gazte ezezagunak ginen, borrokarako grina handia zutenak, inolako diziplinari atxikiturik egon gabe, joera sozialista agerikoa azaltzen zutenak”*<sup>996</sup>. Nafarroan beraz, langile mugimendu “errealak” sindikalismo ofizialaren ordezkatzeko egituretan sartzea eta are Nafarroako Langile Kontseiluaren kontrolarekin egitea lortu zuen. Kasu bakarra zen estatu osoan<sup>997</sup>.

Kontseiluaz eta haren jardueraz zein politikaz azterketa on bat egiteko iturririk emankorra, zalantzarik gabe, haren osoko bilkuraren akten bilduma izango litzateke. Ez dugu, ordea, bilduma osoa aurkitzerik izan. Nafarroako Artxibategi Orokorrean artxibategian dokumentazio hori ez dagoenez, aurkitzerik izan dugun dokumentazio guztia, Administrazioaren Artxibategi Orokorrean gordetzen dena izan da. Badirudi hemen akta guztiak bilduta daudela, baina artxibategian barna, kutxa sail luze batean inork ez aurkitzeko moduan daude eta ezin izan ditugu kontsultatu. Hala ere, hainbat akta topatu ditugu, bai Langile Kontseilu Nazionalaren sailean hainbat solte gordetzen delako eta baita, osoko bilkuraren bat bereziki gatazkatsua suertatzen zenean, Erakunde Sindikalak hari buruz egiten zuen txostenari akta atxikitzen zitzaizolako ere. Hauek erabilgarriak izan dira kontseiluaren funtzionamenduaz eta honek jorratu izan zituen lan ildo nagusiez oinarritzeko azalpen bat osatzeko. Tomas Caballeroren biografia ere baliozko iturria da zentzu honetan. Izan ere, lehendakari bezalako Caballeroren papera pertsonaiaren bizitza militantearen eta politikoaren aurpegi nabarmenatariko bat izan zenez, kontseiluaren jarduerak berak bertan tarte luzea hartzen du, hura berrosatzeko autoreak protagonistaren artxibategi pertsonalean bildutako bilera aktak, postazko harremana eta oharrak erabiltzerik izan dituzenez, informazioan eta dokumentazio erreferentzian aberatsa delarik.

Nafarroako Langile Kontseiluaz jarraian egingo dugun azterketak, hark garatu zuen langile jarduera azalratzea izango du helburu, kontseilua Iruñerriko langile klasea sortu zen esparruetariko bat bezala itxuratu zela ikusteko. Berrosatzen ari garen zirkuituaren baitako esparrutzat jotzen dugu bertan langileak bildu egiten zirelako, klase jarrerak sortu eta hedatzen zirelako eta langile politikak saiatzen zirelako. Langile Kontseilua, erregimenaren instituzio bat zen arren, egiazki langileen eta langileentzako esparru bezala funtzionatu zuen aspektu askotan, azken batean, bere jarduera langilea zen hein handi batean. Langileen bizi eta lan baldintzak hobetzeko ekimenen sustapena, bitartekaritza funtzioak eta ekintza solidarioak lan gatazken markoan, askatasun sindikalaren defentsa edota hierarkia sindikalen eta

<sup>996</sup> Tomás Caballero, “Momento actual del...” Op. Cit., 79-80 eta 81 orr.

<sup>997</sup> Baieztapena, Víctor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 155 orr. (ikus ere 22. oin oharra).

Nafarroako Ordezkaritza Sindikalaren aurreko langileen parte hartzearen aldeko aldarrikapena izan ziren, besteak beste, haren langile politikaren ardatz nagusienak. 1967an osatua izan zen momentutik, bere jardunbide lerroa zein izango zen argi geratu zen. Caballerok adibidez, bere lehen mintzaldi publikoan, kontseiluak ordezkaritasun akatsak zituela onartu zuen, lege sindikal berria langileek sortu eta adostu behar zutela aldarrikatu zuen eta sindikatu aske eta batasundun baten alde azaldu zen. Ildo berean, kontseiluak berak, 1968ko Tarragonako kongresu sindikalean, langileen sindikatuen eta enpresarien sindikatuen arteko independentzia eta greba eskubideari buruzko zigor kodearen 222. artikularen aldaketa defendatu zituen. Hasiera batean, probintziako autoritate sindikalek begi onez ikusi zuten kontseiluaren jarduera hori, *“mentalizazioa, aldarrikapena eta langile parte hartzea”* sustatzen zuen *“lan ikaragarria”* egiten zuen heinean, Erakunde Sindikalaren jarduerari bizitasuna ematen ziolako eta langileak egitura sindikaletara erakartzen zituelako<sup>998</sup>. Alta, haren politikak hartzen ari ziren norabidea ikusita, laster, autoritate horiek berak kontseiluarekin oso kezkatuta agertzen ziren eta haren jarduera *“errebeldiaz eta legalitatearen kontrakoaz”* ohartarazten zuten<sup>999</sup>. Izan ere, kontseilua, *“euren ardura ziren lan arazoak konpontzeaz baino, sistema sindikal eta politikoaren subertsioaz kezkatuagoak zeuden agintari politizatuen”* esku zegoen<sup>1000</sup> eta lehendakaria *“oso gizon gatazkatsua zen, ekintza subertsiboak sustatzen zituen, oposizio sindikalaren liderra zen [eta] ageriko joera sozialista azaltzen zuen”*<sup>1001</sup>. Langile kontseilua oposiziorako plataforma zela zirudien.

Egitura sindikalak langileen interesen defentsarako plataforma bihurtzeko helburua betez, kontseilua, langileen bizi eta lan baldintzen hobekuntza lortzean inplikatu zen. Langileriak bizi zituen arazo sozial nagusien konponketan laguntzen saiatu zen, etxebizitzaren arazoa eta garraio publiko edota osasun zerbitzuen gabeziak hizpide izan zituelarik. Adibidez, hirugarren kapituluan ikusi dugun bezala, paper garrantzitsua izan zuen Etxabakoitz auzoko bizilagunek pairatu izan zuten garraio publikoen salneurrien gatazkan. Auzokideei momentu oro elkartasuna adierazteaz beste, txartel murriztuak indargabetzeko Diputazioaren erabakiaren kontra azaldu zen publikoki. Hasteko, erabakiaren kontrako helegitea sustatu zuen. Gero, Diputazioaren jokatzeko erarekin kritiko agertu zen Tomas Caballerok Etxabakoitzeko familiei idatzi zien gutun ireki batean, bertan, Diputazioko Garraio Batzordeak, erabakia hartzerakoan, langile familien interesen aurrean enpresa pribatu batenak lehenetsi zituela salatzen baitzen. Etxebizitzaren arazoari dagokionean, aipatzekoak izan ziren, *“Ibañez etxeen”* aferaren ondorioz euren etxeak galdu zituzten familientzako Metalaren Sindikatuarenak ziren etxebizitzaren egokitzapena edota etxebizitzak eraikitzeko proiektuen sustapena<sup>1002</sup>. Osasun zerbitzuen gabezia arintzeko ahaleginak egin zituen

---

<sup>998</sup> “Movimientos obreros en Navarra (1970)” txostena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa. Modu berean hitz egiten zen ere kontseiluaz 1970eko uztaileko kontseiluaren osoko bilkurari buruzko beste informazio txosten batean: “Kontseiluak, lan hezigarri garrantzitsu bat burutzen du, konpromisoak hartzera bultzatzen duena. [Langileek] sindikalismoan interesik ez duten eta sindikalismoarekin konprometitzen ez diren momentu honetan, [kontseiluarena bezalako] jardun hau, oso positiboa dau”. “Pleno del Consejo General de Trabajadores, julio 1970”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 34-5598. kutxa.

<sup>999</sup> “Informe sobre los incidentes de la reunión del 17 de marzo (30-06-1972)” (1972ko martxoaren 17ko Langile Kontseiluaren osoko bilkurari buruzko informazio txostena). AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>1000</sup> *Ibid.*

<sup>1001</sup> “Informe sobre incidentes sindicales en Navarra (31-10-1972)”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>1002</sup> Esate baterako, kontseiluak Ermitagañan lauhun etxebizitza eraikitzeko proiektu bat sustatu zuen, proiektuak langileen hiru mila eskakizun inguru jaso zituelarik. Erakunde Sindikalak bere aldetik, halako ekimenekin kontseiluak sindikatuaren lerro politikoaren aurkako

ere, Virgen del Camino erietxearen handiagotzea eta Txantrea auzoarentzako osasun-etxea eskatuz<sup>1003</sup>. Lan baldintzen alorrean, soldatak izan ziren bere kezka nagusia. 1967an, gobernuak dekretuz agindutako soldaten izoztearen kontra eta gutxieneko soldaten urritasunaren kontra azaldu zen, pertsonaren oinarrizko premiak (etxebizitza, janaria eta janztekoa) asetzeko moduko soldata duin bat aldarrikatuz. Salaketa eta eskakizun hauek funtsatzeko, langile familien beharren inguruko azterketak egin zituen, hauen oinarrizko aurrekontuaren arabera gutxieneko soldata zein izan behar zen neurtuta, indarrean zen gutxieneko soldataren eta soldata duin baten arteko aldea azaleratu zuelarik<sup>1004</sup>. Ildo horretan, 1972ko abenduko osoko bilkurarako prestatu zuen lehendakariaren txostenean, Caballerok, gobernuak ezarritako soldaten mugatzearen kontra egin zuen eta soldaten eguneratzea eta salneurrien egonkortasuna aldarrikatu zuen, soldata errealean eta soldata duinen arteko desorekak irauin bitartean estatu sozialaz, bakeaz eta justiziaz hitz egiterik ez zegoela argudiatuta<sup>1005</sup>.

60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran gertatu ziren lan gatazkek, langile jarduerari berezkoa zaion gatazkaren markoan paper garrantzitsua izateko aukera eman zioten kontseiluari. 1969ko Super Ser enpresako grebak, gatazka egoeretan bere jokaera zein izango zen iragarri zuen: elkartasun ekonomikoa eta bitartekaritza. Lehenik eta behin, fabrika ixteak langabezian zituen langileen aldeko diru bilketa bat antolatuko zela erabaki zen, horretarako nafar langileriari, ordezkari sindikalen bitartez, Super Serreko kideak ekonomikoki laguntzeko deialdia luzatuko zitzaizela aurreikusi zelarik. Bigarrenik, aldean arteko negoziazioak bideratzeko formula berri bat sustatu zuen, Super Serreko langileek bere aukeratutako beste enpresetako langileekin eta enpresak zuzenean aukeratutako ordezkariekin, arbitraje-batzorde bat osatu zuelarik. Arbitraje-batzorde horren papera funtsezkoa izan zen akordioa egiteko, grebarekin amaitzeko eta grebalarien artean kaleraturik eta zigorturik ez egoteko<sup>1006</sup>. Laurehun ta hirurogei langile kalean utzi zituen Chalmeta enpresaren krisiaren aurrean kontseiluak izan zuen jarrera hartzea, laguntza eta elkartasun ekonomikoaren adibide adierazgarria da. Alde batetik, langabeentzako dirulaguntzen urritasuna kontutan hartuta, lantoki guztietan harpidetza bat martxan jartzea eta jasoko zen diru guztiaren banaketaren azalpen publikoa ematea erabaki zuen. Honekin, langabetuen babesari zegokionean legediak oraindik konpondu beharreko hutsuneak zituela azaleratzen zuen<sup>1007</sup>. Kontseiluak bildutako diruari, Cáritasen bitartez jaso ziren dohainak gehitu zitzaizkion. Erakunde honek, diozesiak abiatutako beste harpidetza baten bitartez lortutako laguntza hori, Langile Kontseiluari eman zion hark Chalmetako langile guztien artean banatzeko<sup>1008</sup>. Bestetik, Metalaren hitzarmenaren negoziazioan ari zen

---

kanpaina bat burutzen ari zela uste zuen; bera sustatzaile gisara azaltzerakoan, Erakunde Sindikalaren etxebizitzaren politikaren gabeziak nabarmentzen ari zituela ikusten baitzuen.

<sup>1003</sup> Nafarroako Langile Kontseiluaren memoria (1968). AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 11128. kutxa.

<sup>1004</sup> 1967an adibidez, kontseiluak lau kidek osatutako familia batek, duintasunez bizi ahal izateko, egin behar zuen gutxieneko gastua ezagutzeko azterketa bat burutu zuen. Emaitez, eguneko aurrekontua 308,06 pezetakoa zela argitzen zuten. "Presupuesto diario: 308,06 pesetas", DN 1967-09-02, 20 orr. Soldatei, langile familien beharrei eta bizitzaren kostuari buruzko kontseiluaren azterketak, C.O.-en ondoko testigantzan azaltzen dira ere: "Langile Kontseiluak Nafarroako hainbat denda kontrolatzen zituen bizitzaren kostua neurtzeko, prezioen igoera ezagutzeko, bai, bai... eta gero, enpresei exijitzen ziena, [soldaten goititza], kostu erreale honen arabera zen. C.O.-i egindako elkarrizketa. Aisa, 2013-09-10.

<sup>1005</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 177-178 orr.

<sup>1006</sup> Kontseiluak Super Serreko greban izan zuen paperaz gehiago, Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 117-119 orr.

<sup>1007</sup> "Acta de la reunión del Pleno del Consejo de Trabajadores de Navarra celebrada el día 30 de junio a las 10 30 horas en la sala de juntas del primer piso de la Delegación de Sindicatos de Navarra". AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5749. kutxa.

<sup>1008</sup> "Jueves Santo en Pamplona. En todas las parroquias se leyó una nota en la que se habla del problema de mas de 400 personas sin trabajo", DN 1970-03-27, 20 orr. eta "Dinero de la



ordezkaritza sozialari, hogeita bost langileetatik gorako enpresengandik, kaleratutako langileen kopuru jakin bat kontratatuko zutelako konpromisoa lortzea eskatu zion.

Nafarroako Langile Kontseilua, langile ordezkari eta parte hartzearen hala nola autonomia sindikalaren aldeko aldarrikapenen bozgorailu eta Erakunde Sindikalaren egiturak kritikatzeko eta askatasun sindikala eskatzeko esparru izan zen ere. Hasiera batean autoritate sindikalek, halako kontseilu bat, egitura sindikalei bizitasuna eman zielako eta hauen baitan langileen parte hartzea sustatzen zuelako, begi onez ikusi bazuten ere, laster, kontseiluaren jarrera hartzeak langileen aldekoak eta Erakunde Sindikalarekin kritikoak egin ahala, agintaritza eta ordezkari lerro sindikalen arteko liskarrak gertatu ziren. Hauen emaitza, langile kontseiluaren jarreraren erradikalizatzea izan zen. Konfrontazio honen lehenbiziko gertaera entzutetsuak, Nafarroako Foru Diputazioarekin zerikusirik izan zuen. 1969ko urtarrilean, Diputazioak, Hiri eta Nekazal Lur eremuen Balio Handitzearen gaineko Zerga aztertuko zuen komisioko bat sortzeko erabakia hartu zuen, bertan sail sozialeko Sindikatuen Ordezkaritza Probintzialeko kide batek parte hartuko zuela xedatu zelarik. Gatazka, ordezkari sindikalak bere kabuz, kontseiluarekin mintzatu gabe, komisioko kide titularra eta ordezkari izendatu zituenean piztu zen. Urtarrilean bertan egin zen osoko bilkuran, kontseilua, ordezkari sindikalaren alde bakarreko jardunbidearen kontra azaldu zen, komisioko ordezkariak berak, kontseiluak, izendatu behar zituela ulertzen zuelako. Bilera hartan hartu ziren erabakiek, kontseiluaren eta Sindikatuen Ordezkaritza Probintzialaren artean egiazko konfrontazio bat zegoela agerian utzi zuten: ez ziren ordezkariak egindako izendapenak onartu, honen jokaerarengatik protesta egingo zela eta izendapenak baliogabetzea eskatuko zela adostu zen, ordezkari kontseiluaren eta Diputazioaren arteko harremanetan ez sartzearen aldeko adierazpena egitea proposatu zen eta komisioko ordezkari berriak izendatzeko bozketa egin zen, Francisco Vitas eta Francisco Eguiluz, hurrenez hurren kide titular eta ordezkari izateko hautatuak izan zirelarik<sup>1009</sup>. Kontseiluak, langileen ordezkari eta parte hartzea, aginte lerro sindikalaren gainetik jartzeko jarrera argia azaltzen zuen.

1972an, El Ferroleko gertaeren harira, kontseiluaren eta ordezkari sindikalaren arteko haustura oso garbi azalatu zen. Bi langile, hainbat enpresa epaimahaikideri eta ordezkari sindikali ezarritako zigorren kontra protesta egiteko manifestazio batean zirela, poliziak erailak izan ziren urte hartako martxoan. Nafarroako Langile Kontseiluko hainbat kidek, sindikatu indartsuenetako ordezkariak hain zuzen, ohiz kanpoko osoko bilkura egitea eskatu zuen, erailketen aurreko jarrera hartu behar zela estimatzen baitzuten. Osoko bilkura bera eta bertan hartu ziren erabakiak, liskar gogorren sorburu izango ziren. Azken hauek erakusten dutenez, kontseiluak, jarrera hartze gogor bat azaldu zuen<sup>1010</sup>. Langileen kontrako indarkeria gaitzetsi zuen, are gehiago hau langileek bidegabekotzat jotzen zutenaren aurrean euren desadostasuna publikoki erakusten zutenean gertatzen zenean. Biktimen familiei elkartasuna adierazi zien,

---

suscripción abierta el día de Jueves Santo para los despedidos de Chalmeta. Cáritas entregó al Consejo de Trabajadores 414.320 pts.", DN 1970-04-10, 24 orr.

<sup>1009</sup> "Acta nº 1 de la Reunión del Pleno del Consejo de Trabajadores de Navarra celebrado el día 20-01-1969". AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 4093. kutxa.

<sup>1010</sup> Osoko bilkura hartutako erabaki hauen legezketasuna aztertzeko, Ordena Publikoaren Epaitegiak, Nafarroako Sindikatuen Ordezkaritari, bilera honi buruzko informazio txosten bat eskatu zion. Bertan, ordezkariak, oso kritikoak zen kontseiluaren jardunarekin eta, bereziki, aipatu erabakiekin. Hasteko, kontseiluak gertaerak jazo ziren tokiarekin (El Ferrol) zerikusirik ez zuelako, erabakiak lekuz kanpo zeudela argudiatzen zuen; ondoren, erabakiak, gai ordenatik kanpo zeudelako, baliotasunik ez zutela salatzen zen; eta azkenik, erabakien testuari buruzko bere iritzia ematen zuen, testuan agertzen ziren hainbat esapide autoritateak iraintzen zituztela eta delitutzat hartzen ahal zirela nabarmenduz. "Notificación del Juzgado de Orden Público pidiendo al Delegado Provincial de Navarra informe sobre la reunión del consejo de trabajadores de 13-03-1972". AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

hauek ekonomikoki laguntzeko harpidetza publiko bat abiaraztea erabaki zuelarik. Hildakoen omenez antolatzen ziren ekitaldiei atxikimendua adieraztea adostu zuen. Manifestaldi bat prestatuko zuela iragarri zuen. Azkenik, Lan eta Harreman Sindikalen ministroei heriotza haiek lan istriputzat jotzea eskatuko ziela ebatzi zuen ere. Kontseilua, publikoki, autoritateen jarrerarekin eta errepresioarekin kritiko eta langileen eta euren protesten alde agertzen ari zen, azken hauekin argiki identifikatzen zen jarrera bat hartuz. Gatazka, kontseiluko idazkariak, hauen legezketasunaren inguruko zalantzak izateagatik, erabakiak aktan jasoko ez zirela jakinarazi zuenean piztu zen. Izan ere honek tentsioa azaleratu baino ez zuen egin. Ordezkarri sindikalak, kontseiluak deitutako ondorengo osoko bilkurak bertan behera utzi zituen eta Tomás Caballerok, Diario de Navarra egunkarira bidali zuen gutun batean, idazkariaren eta ordezkarriaren jarrera gaitzetsi zuen: lehendabizikoarena, kontseiluaren erabakiak baliogabetzen saiatzeagatik eta bigarrenarena, *“langile kontseiluaren bilera oro debekatzeagatik”*<sup>1011</sup>. Hurrengo osoko bilkura ez zen ekainaren 23ra arte egin. Bertan kontseiluak autoritate sindikalen jardunbideari eman zion erantzunak, bi lerroen arteko konfrontazioa erabatekoa zela ikusarazi zuen: lehenbiziko aldiz, kontseiluaren osoko bilkurak, gehiengo zabalak onartuta, idazkariaren eta, batez ere ordezkarri sindikalaren jokabidea gaitzesten zuen.

Ikusi ditugun gatazka hauen jatorria, langile kontseiluaren ikuspuntutik, aginte lerro sindikalak alde bakarretik, kontseilua eta langileen ordezkarriak kontutan izan gabe, jarduten zuela zen. Ildo horretan, haren parte zen arren, kontseilua oso kritikoa zen eredu sindikal bertikalarekin. Adibidez, *“ez gara eta ezin gara langile sindikatu ordezkarri aske eta indartsu bat izan”* eta *“Sindikatu [...] estatuaren eta gobernuaren tresna baino ez da, herriaren ginetik dagoena eta gai sindikalei buruz askatasunez hitz egitea galarazten duena”* esan zion Tomás Caballerok Erakunde Sindikaleko idazkari nagusiari 1972ko ekainean idatzi zion gutun batean, El Ferroleko gertaerari buruzko osoko bilkuraren ondoren, kontseiluaren bilerak debekatuta, autoritate sindikalak kontseiluaren jarduera blokeatzen ari zirela salatze<sup>1012</sup>. Honekin batera, Nafarroako Langile Kontseiluaren eztabaidagai nagusienetariko bat, Lege Sindikal berria izan zen. Oposizio argi eta aktibo bat egin zuen, lehenbizi lege proiektuaren aurka eta gero, onartua izan zen legearen beraren aurka ere: *“bere garaian ez zitzaigun Lege Sindikala gustatu, baina are gutxiago gustatzen zaigu bere garapena eta ezer ez bere aplikatzea”*<sup>1013</sup>. Dena dela, Lege Sindikalaren auziak nafar langile mugimenduaren garapenean izan zuen garrantzia kontutan hartuta, gaiari aurrerago helduko diogu.

### 6.1.3 Langile mugimendu antolatu baterantz: fabrika komisiotatik CCOOetara

60. hamarkadaren hasieratik 1966ko hauteskunde sindikaletara arte, langile mugimendua fabriken baitan hazi egin zen. Sortzen ikusi berri ditugun langileen lehen nukleo antolatuen garapena, kargu sindikalen erabilpena eta hitzarmen kolektiboen negoziazioari lotutako gatazkak, mugimendu horren bilakaeraren ardatz izan ziren bitarte horretan. 60. hamarkada, zentzu honetan, mugimenduaren eratze alditzat jotzen ahal dugu. Izan ere, ikusi dugun bezala, orduan militante sindikalek lehen nukleo antolatuak sortu zituzten, antolakuntza forma berrien funtzionamendurako

<sup>1011</sup> “Cartas al director: Sobre el consejo de trabajadores de Navarra”, DN 1972-04-21, 9 orr. Caballerok kontseiluaren bilera guztiak debekatu zirela ulertzen zuen. Alta, egun batzuk geroago, kontseiluko kideen talde batek, prentsara bidalitako gutun baten bitartez ere, osoko bilkurak bai, baina batzorde iraunkorraren eta batzorde desberdinen funtzionamendua debekatu ez zirela esanez kontra egin zioten. “Cartas al director: Sobre el consejo de trabajadores”, DN 1972-04-27, 8 orr.

<sup>1012</sup> “Carta del Presidente del Consejo de Trabajadores, Tomás Caballero (08-06-1972)”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549 orr.

<sup>1013</sup> *Ibid.*

jarraibideak definitu ziren eta hitzarmenak negoziatzeko hala nola hauteskunde sindikaletan parte hartzeko egin ziren langileen lehen mobilizazioek arrakasta izan zuten. Hau da, urte haietan, fabrikaren esparruaren baitan, langileek askatasun esparru eta botere maila txikiak lortu zituzten. Iruñerrian hainbat langile militantek hauteskunde sindikaletan lortu zituzten garaipenak eta ordezkari sindikalek, zenbait enpresetan, gobernuak baimenduaren gainera soldata igotzeak negoziatzea lortzea<sup>1014</sup>, horren adibide adierazgarriak dira.

Alta, Iruñerrian, bitarte honetan, ez zen apenas mobilizazio adierazgarririk gertatu, 1965ko Frenos Iruña enpresako greba kenduta. Gatazka hau CCOO antolatzen hasia zela gertatu zen, mugimenduaren garapenerako bultzada garrantzitsua izan zelarik<sup>1015</sup>. 1965eko urriaren amaieran hasi zen greba honetan, orain arte fabriken baitan jarduten ikusi ditugun langile antolakuntzarako forma berrien elementu gehienak identifikatzen ahal dira, gatazkaren sorburuan, ekintza kolektiborako moldeetan eta kargu sindikalek izandako paperan. Greba honen inguruan aritu izan gara jada. Langileen soldatak kaltetu zituen diru sarien eta produkzio erritmoen arteko desoreka batean jatorria izan zuela ikusi dugu; langileek, nolabaiteko antolakuntza maila azalduz, ekintza kolektibo mota ezberdinak (euren soldata egoerari buruzko azterketa, sinadura bilketa, zuzendaritzarekin elkarrizketak saiatzeko enpresako epaimahaikideen bitartekaritza, lan erritmoen mantsotzea, lanuzte partziala) gauzatu zituztela; eta greba, ekintza guzti hauetan nabarmendu ziren langileak (epaimahaikide eta ordezkari sindikalak barne) zigortu eta kaleratu zituenean piztu zela. Greba hasita, egoera larriena, langileak euren lanpostuetan berriz hasten ez zirela ikusita, enpresak kaleratze masibo bat agindu zuenean gertatu zen. Momentu horretan hainbat kargu sindikal gatazkaren konponketan inplikatu zen, Abelazkuntzaren, Industria Kimikoen, Metalaren eta Bankaren Sektoreko sindikatuetak sail sozialetako lehendakariak kasu. Langileen eta enpresari eta hierarkia sindikalaren arteko bitartekaritza lanak egin zituzten eta azken hauen aurrean, enpresak gauzatutako langileen kaleratze masiboaren legekontrakotasuna salatu zuten, langileen aldeko jokabidea agertuz. Bitartekaritza honi esker eta bere momentuan aipatu genuen fabrika ezberdinetako langileak bildu zituen manifestazioari esker, gatazka azaroaren 2an amaitu zen, enpresak amore eman eta grebalari guztiak (lehenbiziko kaleratu eta zigortuak barne) berriro hartu zituenean.

Frenos Iruña enpresako greba nabarmengarri egiten duena, 1956az geroztik fabrikaren markoa gainditu eta hiriko beste langileengan eragina izan zuen lehenbiziko gatazka izan zela da. Aipatu manifestazioan esaterako, Iruñerriko langileen inplikatzeko eta elkartasuna lortu zelaren adierazlea da. Are gehiago, Frenos Iruñako langile batek, Radio Pirenaicari bidalitako gutun batean, grebaren amaiera *"Iruñeko langileen laguntzari esker"* lortu zela esaten zuen<sup>1016</sup>. Zentzu honetan, honek, fabriken baitako langile mugimendua fabrikaz kanpo ere antolatzeko eta koordinatzeko bidean zegoela azalera du nolabait. Nafarroako CCOOen koordinakundearen sorrera segituan gertatu zen.

---

<sup>1014</sup> Fernando Mendiola, "Entre los viejos..." Op. Cit., 218 orr.

<sup>1015</sup> José Vicente Iriarte Aresorentzat, greba hau, nafar langile mugimenduaren aldi berri baten lehen gatazka izan zen, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 67 orr. Jose Elena Santamaria Blasok bere aldetik, grebaren zuzendaritzarekin egiteko HOACaren eta Vanguardiasen arteko nolabaiteko norgehiagoka izan zela eta ondorioz gatazkaren ostean, haietarik bakoitzak, bere eragin esparruan, USOri eta CCOOi azkeneko bultzada eman ziola aipatzen du. Jose Elena Santamaria Blasco, "Movimiento obrero apostólico..." Op. Cit., 717 orr.

<sup>1016</sup> "Carta desde Pamplona (09-11-1965)", AHPC-AKAH, La Pirenaica posta fondoa, 190. kutxa. Are gehiago, gutunaren idazleak, Iruñeko langileen parte hartze aktiboak eta elkartasunak sortzen ahal zuten egoera gatazkatsu orokorra zela eta, Gobernadore Zibilak eta hiriko beste enpresariak, grebarekin amaitzeko enpresa estutu egin zutela iradokitzen du.

1966 urtearen hasieran, Nafarroako CCOO sortzen zen behin-behinean, estatu mailan garatzen ari zen mugimendu orokorraren ildoari jarraituz. Mugimendua, fabriketan jarduten zuten lehen militante antolatuek, bereziki ASTkoek eta PCEkoek, sustatu zuten, Zentro Marianoan burutzen ziren fabrika desberdinetako langileen bileretan. 1968rako, behin-behineko antolakuntza nukleo hura heldu zegoen jada eta oinarritzko dokumentu batekin ezagutzera eman zen nafar langilegoaren aurrean: *“Nafarroako Comisiones Obreras sortzen da, manifestu bat egiten da, manifestu bat argitaratzen da -klandestinoa noski- eta ahal dugun enpresa guztietara eramaten dugu. Hortik aurrera, fabrika bakoitzean langile komision bat sortzen da, fabrika bakoitzeko Comisiones Obreras”*<sup>1017</sup>. CCOOen sorrera aurrerapauso garrantzitsua izan zen langile antolakuntzan. Mugimenduari fabrikaz kanpoko dimentsio bat eman zion eta lantoki desberdinen artean, koordinaziorako eta informazioaren zirkulaziorako, hau da, elkarren arteko ekintzarako, bideak ireki zituen. Guztiarekin ere, CCOOek, lantokiko asanbladaren inguruko langileen autoantolaketa bateratuan oinarritzen zen lehen fabrikako komisionen antolakuntza eredu gorde zuen. Langile jardueraren parterik handiena, hartara, fabrikaren baitan gauzatzen jarraitu zen, CCOOen beraren jardueraren zatirik handiena ere bertan garatuko zelarik. Ez da erraza jarduera hau aztertu eta azalera. Jarduera sindikalean aritzeko behartutako klandestinitateak zaildu egin du hura nolakoa zen jasotzen duten bitartekorik egotea. Egon, badaude adibidez CCOOek egindako adierazpenak eta sortutako idazki edo panfletoak. Hauetan, lan gatazken markoan burutzen ziren ekintzak azaltzen dira, baina ezer gutxi esaten digute fabriketan burutzen zen eguneroko lanaz. Zentzu honetan, ahozko iturriak oso baliagarriak izan zaizkigu fabriketako egunerokotasun hori ezagutu ahal izateko. CCOOeko militante izan ziren protagonisten esperientzia aztertuta, hauek fabrikaren baitan garatu zuten jarduerak lau ardatz nagusi izan zituela ondorioztatzen ahal da: langile informazioa zabaltzea, langile jarduera dinamizatzea, asanblada sustatzea eta lankideak kontzientzia harraraztea.

Militanteek fabrikaren errealitateaz, beste fabriken gatazkez eta CCOOen lan ildoei buruzko informazioa zabaltzen zuten lankideen artean. Horretarako panfletoak egin eta ezkutuan sartzen zituzten fabrikara, gero bertan ahal zuten moduan banatzen zituztelarik. Propaganda hau CCOOen oinarritzko ideiak langileengana iristeko bide eraginkorrenetariko bat izan zen:

Grebetan egunero orrialde bat ateratzen genuen eta egunen batean orrialderik ez bazegoen, jendea mobilizatzen zen fabrikatik orrialdea bilatzeko, hau da, bazegoen... jendeak bizi egiten, ezta? “¡Pues hoy no ha habido hoja!” eta noski, horren inguruan zerbait jakin genezakeengana etortzen ziren eta... “Pues hoy no ha habido hoja ¿qué habrá pasado?” eta zuk “Pues no se...” zer esango zenien ba! “Pues no se lo que habrá pasado... no ha habido, no”. [C.O..Authiko CCOOeko militantea]<sup>1018</sup>

[Fabrikan] orriak, pegatinak... agertzen ziren baina dena oso klandestino zenez, inork ez zekien nork egiten zuen... dena ezkutuan egiten genuen [...] inork ez zekien nortzuk ginen. Baina lan asko egiten genuen, ideiak zabaltzen genituen, ideia laburrak, baina oso justuak... [M.G.. Torfinasako CCOOeko militantea]

Fabrikara propaganda eramaten genuen. Niri adibidez, postontzian, fardel bat uzten zidaten eta ni, goizean goiz, lanera joan aurretik, postontzira jaisten nintzen ea zerbait nuen ikustera [...] orduan propaganda hartzen nuen eta hiru edo lau “ogitarteko” egiten nituen eta fabrikara iristen nintzenez, adibidez P.-ri eta beste batzuei esaten nien “Oye, que te he dejado el bocadillo en tal sitio”, joaten ziren, propaganda hartzen zuten eta banatzen zuten. [F.E.. Inquinasako CCOOeko militantea]

<sup>1017</sup> JE.C.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-20.

<sup>1018</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Aísa, 2013-09-10.

Nik aktiboki parte hartzen nuen langile komisiotan. Gogoratzen du nire etxean, erreketaren etxean, nire aitaren etxean, klaxea egiten genuela. F.E.-k, telefonistak, klaxak egiteko makina zuen; gero gauean, ordu txikietan, nire etxean inprimatu behar genituen, vietnamita batekin... guk panfletoak egiten genituen eta nire aitak, sukaldean jartzen genituen soka batzuetan zintzilikatzen zituen. Hurrengo egunean, paperak fabrikara sartzeko kuloetan eramaten genituen eta gero banatzen genituen. Edozein gatazkaren aurrean gure ikusmoldea emateko ba hori, panfletoak egiten genituen. [M.S.S.. Inkuinasako CCOOeko militantea]

Langile jardura fabrikako langile komisiotatik haratago dinamizatzeko eta hedatzeko, "Comisiones Obreras Ampliadas" deitu zen formula erabili zen. "Ampliada" delakoa, hitzarmenaren negoziatioak prestatu behar zirenean, ekintza kolektiboak planteatu behar zirenean edota estrategiak eztabaidatu behar zirenean, komisioko kideek fabrikaren baitan sortutako konfiantzazko harreman sareez baliatuta, bilerak langile gehiagori "irekitzean" zetzan. Honekin, nukleo militantean ez egon arren, aktiboak ziren langileak mugimenduan inplikatzea lortzen zen:

Hitzarmenaren aurretik "ampliada" delakoa egiten genuen, hori da erabiltzen genuen hitza. Orduan biltzen ginen fabrikaren eremu bakoitzeko komisiota eta beste jende bat, ezagutzen zenuena... jada haiekin nolabaiteko harremana zenuen eta zer egingo zen kontatzeko eta zelaietara eramateko konfiantza zenuen... noski, den-dena klandestino zelako. Eta esaten zenien "Pues mira, vamos a hacer esto con más gente para proponer a la empresa estos puntos, ¿Te parece bien?" hori zen egiten genuena. [J.U.. Potasaseko CCOOeko militantea]

Asanblada klandestinoak egiten ziren ere, "ampliadas" esaten zitzaizkien, mendian edo edozein lekutan. Ni askotan joan izan naiz Iruñea inguruko mendietara Potasaseko jendearekin biltzera... hori egiten zen bai, asanbladak, "Comisiones Obreras ampliadas" esaten zitzaizkien. Eta han ez zegoen bakarrik normalean militatzen zuen jendea, astero edo bi astetan behin biltzen zena, bestelako jendea ere biltzen zen, gertukoa, zu komisionen ibiltzen zirela zekiena eta "Oye, mira, que vamos a plantear el convenio [y] vamos a hacer una "ampliada" y tal" esaten zionean, etortzen zena eta are inplikatzen zena. [M.L.C.. Potasaseko CCOOeko militantea]

Jendearen bila joaten ginen beti, konprometituazteko, baina ikaratu gabe noski... Gero ere informazio bilerak egiten genituen, hitzarmena edo baldin bazegoen eta horri "ampliada" esaten genion. Orduan agian hogeita hamarren, berrogeita hamarren, hogeiren bat pertsona elkartzen ginen... halakoak ez ziren bakarrik gure fabrikaren egiten, beste guztietan ere egiten ziren eta horrek, nolabait, ehun moduko bat sortuz joaten zen, ezta? [I.N.. Onenako CCOOeko militantea]

Komisiotako militanteak geunden fabrikaren, baino igual ginen bost, sei, zazpi, erran nahi dut, ez gehiago. Lan plan bat edo mobilizazioen bat prestatu nahi bazen, orduan egiten genuen *las ampliadas*, bertze zenbait jende ere deitu, eta bilera bat egin, eta bueno hor denak adostu zer egin behar genuen, eta orduan hor ya bagenuen fabrikara joaten ginenean, bueno baginen hamabost edo hogeita lagun ia jakinaren gainean, babesteko, bakoitza bere lantokian, lanlekuan ere hori argitzeko bere lagunei... eta bueno, nolabait ere lan egiteko. [P.U.. El Pamplonikako CCOOeko militantea]

Asanblada, langile antolaketa eredu haren elementuen artean, protagonista askok gehien balioesten duenatariko bat da. Ezagutzen zaion subiranotasuna eta fabrikaren baitako langile jarduran zein gatazkaren bilakaeran ematen zaion protagonismoa, aipamen errepikatuak izan dira militanteen gehiengoaren testigantzetan. Asanbladak 60. hamarkadan zehar garatu ziren fabriketan barna, langileen aldarrikapenen adierazpenerako eta eztabaidarako egiazko foro bezala egonkortu ziren arte. Enpresetan antolatzen hasi ziren lehen nukleo edo taldeek sustatu zituzten lehenbizikoz, langileen aldarrikapen eta mobilizazioei forma eta bide emateko modu bezala. Orduetik aurrera, langile mugimenduaren funtsezko pieza bihurtu ziren. Asanbladek langileen artean lortu zuten onarpenak zein arrakastak, beraz

enpresako langileek izaten ahal zuten parte hartze zuzenak, langileen asanbladarekiko identifikatzea errazten zuelarekin zerikusirik izan zuen. Esate baterako, langile guztien aurrean hartzen ziren erabakiak, langileenak ez ziren bestelako esparruetan hartzen ziren erabakiak baino zilegizkoak izaten ziren eurentzat<sup>1019</sup>. Asanbladen errotzea, langileen eta sindikalismo ofizialaren arteko urruntzearen erakusle izan zen hein handi batean. Izan ere, lantokietan asanbladak egiteak, langileen eskaerak bideratzeko legezko kanalei zilegitasuna kentzen ez zienean, hauek, langileen bilkuren dinamikaren menpe jartzen zituen. Are gehiago diktaturarena bezalako marko soziopolitiko batean, bide ofizialen aurrean baimenik gabeko bilerak hobesteak, nolabaiteko errebeldia kutsua hartzen zuela kontutan hartzen badugu. Gure protagonisten esperientzian, jardun asanblearioaren hainbat aspektu nabarmentzen dira. Lehenik eta behin, asanblada beraren jatorria eta garapena, hamaiketakoaren orduko langileen elkarreratze arrunta izatetik, gauza garrantzitsuagoez hitz egiteko bilera bilakatzen den arte; bigarrenik, bere papera fabrikaren baitako langile mugimenduaren organo nagusi gisara; eta azkenik, ideien eta jarreraren transmisiorako esparru bezala egiten duen ekarpena:

Hamaiketako egiteko ordu laurden genuen [...] orduan, ordu laurden horretan, elkartzen ginen eta elkarrekin hamaiketako egiten genuen; eta ordu laurden horretan edozer gauzaz mintzatzen ginen, edozer gauzaz, elkarri adarra jotzen genion... eta gero ya, hasi ginen... gauza garrantzitsuagoez mintzatzen. Eta hor, ordu laurden haietan, hasi ziren erantzunak sortzen, hor, ba ados jartzen ahal ginelako. [M.G.. Torfinasako CCOOeko militantea]

Aldagela nazkagarrietan elkartzen ginen, gizonen aldageletan (emakumeok gelazulo bat baino ez genuen). Orduan gizonen aldageletan bazegoen, hor erdian, iturri moduko bat eskuak garbitzeko eta orduan, iturri horren inguruan elkartzen ginen eta asanbladak egiten genituen. Eta hor mundu guztiak hitz egiten zuen. Noski, gu [CCOOetako kideok]... alde zurretik pixka bat antolatuta genuen... landu beharreko gai nagusiak zeintzuk izango ziren erabakiak genituen eta asanbladan, ba errepikatzen genituen, gainontzekoek barneratzen zituzten arte. [M.G.. Torfinasako CCOOeko militantea]

Modu asanblearioan funtzionatzen genuen eta erabakiak... [...] erabakiak beti asanbladan hartzen ziren. Hemen [asanbladan] ere [...] enpresarekin gai desberdinak negoziatu behar zituen jendea izendatzen zen. Asanbladak aukeratzen zituen. Eta asanblada subiranoa zen zentzu horretan. [K.P.. Imenasako CCOOeko militantea]

Erabat asanblearioa zen eta beti bozkaketak. Beti asanbladak egiten ari ginen, eta bozkaten, beti, beti... guztia bozkaten genuen. [M.G.. Torfinasako CCOOeko militantea]

inportanteena hor izaten zen alde batetik, asanblada, edozein gauza dela, lehenbiziko gauza zen asanblada; asanbladan eztabaidatu eta asanbladan erabaki [...] Orduan eztabaida zen inportanteena hor, jendeak behar zuen ikusi [ez ginela] sindikalista hutsak gure, proposamenak eta gure eztabaidak... azken finean ez geunden han beren egoera ekonomikoa hobetzeko, hortarako ere bai, eta hori oso inportantea zen, baina han geunden gizarte hau aldatzeko, erreboluzioa prestatzeko eta bueno, gure helburuak askoz ere zabalagoak ziren, sindikalismo hutsa baino gehiago. Horregatik zen oso inportantea, alde batetik asanbladak, jendeak parte har dezan, jendeari esplikatu... eta gehien bat esplikatzeko saiatu behar zinen zure askatasun falta, zure esplotazio maila... hoiak denak bazuten zer ikusirik askatasun orokorrean, askatasun faltarekin, ¿ez? Eta hor izaten genuen beti, ideia hori izaten genuen beti buruan, ¿ez? Erran nahi dut, bueno pues askatasuna landu behar dugu... gero bazeuden ere bertze gauz batzu, eta gure fabrikari behintzat lantzen genituenak, itsuskeria, eh jendeari nolabait ere azaltzeko, ¿ez? Personak, inportanteak gara personak izateagatik eta inor ez da gu baino gehiago, ez nagusia, ez *jefe de personala*, ezta inor ere. [P.U.. El Pamplonicako CCOOeko militantea]

---

<sup>1019</sup> Bai José Babianok eta baita José Antonio Pérezek ere ideia hau nabarmendu egiten dute fabrika asanbladei buruz: José Babiano, *Emigrantes, cronómetros y...* Op. Cit., 308 orr. eta José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 384 orr.

Baina CCOOeko militanteek fabriken baitan burutu zuten lanik esanguratsuena, euren lankideak kontzientziatzearena izan zen. Lantokian sortutako konfiantza sareen bitartez, hau da, harreman pertsonalaren bitartez eta jendearekiko komunikazio zuzen eta hurbilaren bitartez, komisiostatik langilegoaren gehiengoarengana langile ideiak eta jokabideak (injustizia, errealitatearen aldaketa, protesta, ekintza kolektiboa, elkartasuna, batasuna) helarazten ziren, aipatu kontzientziatze lana sustatuz. Zentzu honetan, CCOOeko kideek, fabrika, langile gizarteratzeko esparru nagusienean bihurtu zuten, non egunerokotasunean zein antolakuntza egituretan, asanbladan edota gatazkaren bizipenetan, langile kontzientzia pizterik zuten:

Lehen aldageletan, aldageletara sartzen zinenean, ez zuten inork hitz egiten. Aldatzera joaten zinen eta erabateko isiltasuna zegoen, ez zuten inork hitz egiten. Baina gero, denborarekin, ya [fabrikan] egin behar ziren gauzez hitz egiten hasten ziren [...] dinamika bat izan zen, ezta? nik uste dut hori izan zela, hitz egiteko dinamika bat, jendearekin egotekoa, jendearengana joan eta gauzak azaltzekoa... haiengana joatekoa, ezta? Noski, gero dinamika horrek, zer egiten du? Norbaitek arazo bat zuenean, zugana hurbiltzen zela eta "Oye, me ha pasado esto, no se que..."; [...] azkenean, ba, lan hori... azkenean kasik proselitismo lana da [...] fabrikan zaude, lanean, baina azkenean ere hor kontzientziatze eta inplikatzeko lan bat egiten ari zara; jendea inplikatuazaten saiatzen zara, ezta? [K.P.. Imenasako CCOOeko militantea]

[...] jendearengana hurbiltzen zara. Ni adibidez, fabrikan, ez nintzen [zentzu horretan] HOACeko batekin mintzatzen, badakit hark nola pentsatzen duen, egin behar dudana besteengana joatea da... eta jendea ezagutzen zoaz, jendearekin hitz egiten duzu, gauza batez, besteaz, arazoren bat dagoenean... onartuko zaituela pentsatzen duzunarengana hurbiltzen zara eta ez zara gelditzen, hau, bestea... nik taldeak izan ditut, hilabeteak eta hilabeteak haien atzetik, eta zaila zen, baina azkenean, konbentzitzen nituen. [E. A. Torfinasako eta Imenasako CCOOeko militantea]

gero bileretan tailerreko eta produkzioko jendea zegoen ere eta orduan haren bizipenak ezagutzen zenituen, zure txokotik ateratzen bazara, ezagutzen ez dituzun haiek: berotzea neguan, aire egokitua udaran, ez dakit zer... halakoak, zure girotik ateratzen ez bazinen, ez zenituen ezagutzen. Orduan noski, guzti horretaz jabetzen zara: jendea nola dagoen lanaldi eta txandekin... eta guzti hori. Orduan arazo guzti horietan, fabrikaren arazo komun guztietan nahasten zara. [M.S.S.. Inquinasako CCOOeko militantea]

Gutxika egin zen lan bat izan zen. Hor [komisioan] zegoen jendeak gutxika egin zuten. Eta orduan besteek [...] egiten zutena eraginkorra zela ikusi zuten, gauzak lortzen zirela eta... arrazoa zutelaz, arrazoa genuelaz konturatu ziren [...] orduan, nola kontzientziatu ziren? Ba nik uste dut horrela izan zela, gauzak lortzen ahal zirela ikusiz; gauzak lortzen zirela eta geroz eta gehiago lortu behar genituela ikusiz... eta baita ere, ba, ordura arte bizi zuten egoera egiatan nolakoa zen ikusiz, ezta? jende guzti hau iritsi eta mugitzen hasi zen arte, nola egon ziren ikusiz. [...] Zentzu horretan, jendea, gauzak lortzeko langile mugimendu bat sortu behar zelaz kontzientziatu genuen, [mugimendurik] gabe, deus ere lortuko ez genuelaz eta beti berdin jarraituko genuelaz. [K.P.. Imenasako CCOOeko langilea]

### *Fabrikaz kanpoko dimentsioa: Nafarroako CCOO*

CCOOen mugimendua, langile mugimenduaren antolakuntza eredu erabat berria izan zen. Langile borroka eredu bereizi bat itxuratu zuten, lantokietan gertatzen zen langileen autoantolaketatik eta jardute asanbleariotik abiatzen zen modelo sindikal batasundun eta deszentralizatu batean oinarritzen zena<sup>1020</sup>. Fabriketako langile komisioren koordinakundeek urrats bat gehiago eman zuten langile mugimenduaren antolakuntzan eta langileen borrokak eta mobilizazioak batzeko eta bideratzeko tresna eraginkor bihurtu ziren.

<sup>1020</sup> Fernando Mendiola, "Entre los viejos..." *Op. Cit.*, 221 orr.

Fabrikaren baitako hasierako langile mugimenduaren koordinatzea eta CCOO mugimenduaren abiatzea, modu desberdinetara eman zen estatuko puntu desberdinetan. Madrilen, CCOOek metalaren sektoreko ordezkari sindikalen eta enpresa epaimahai kideen komisiio batean izan zuen jatorria 1964ean. Probintziako sektoreko hitzarmen kolektiboaren negoziazioen markoan, metalaren langile batzorde bat sortu zen, lehenbizi Erakunde Sindikalaren baitan eta gero, kargu ofizialik ez zuten fabriketako bestelako langile ekintzaileek asanbladarekin bat eginda<sup>1021</sup>. Bartzelonan, langile komisiioen lehenbiziko koordinakundea eliza batean egin zen bilera klandestino batean sortu zen, 1964ean ere. Sektore desberdinetako hirurehun bat langilek parte hartu zuen bertan; batzuk ordezkari sindikalak ziren eta beste batzuk ez; batzuk komunistak ziren, beste batzuk HOACeko eta JOCEko katolikoak, beste batzuk Alianza Sindikal Obreraren parte ziren erakundeetako militanteak eta beste batzuk langile independenteak. Madrilgo kasuan ez bezala, prozesua ez zen Erakunde Sindikalaren baitatik bideratu eta oposizioko indarrek egindako deialdi batetik abiatu zen<sup>1022</sup>. Bizkaiko CCOOren jaiotza 1962ko grebaren testuinguruan gertatu ziren atxilotetekin eta kaleratzeekin izan zuen zerikusia. Fabriketako komisiio desberdinen ordezkarien arteko harremanak kaleratutako berriz onartzea eskatzeko biziagotu egin ziren, berez sortu ziren fabrika komisiioak, lehenbizikoz, izaera iraunkorreko enpresaz gaindiko plataforma batean artikulatu zirelarik. Ondorengo bi urtetan, probintziako langileen hizketakide gisara jarduteko tresna eraginkorra izaten saiatu zen, Bizkaiko Langile Batzordeen koordinakundearen esperientzia aurrekaria ezarriz<sup>1023</sup>.

Valentziako eta Nafarroako kasuak antzekoak izan ziren, bereziki denboraren eta formaren aldetik. Valentziako CCOOen koordinakundeak 1966an erakunde kultural baten egoitzan egindako bilera batean izan zuen jatorria. Bertan, fabriketako langile komisiioen esperientzietan jada elkarrekin lanean aritutakoak ziren hogeita hamar bat militante komunistak eta katoliko bildu ziren. Antolakuntzan urrats bat gehiago ematea erabaki eta indarrak koordinatzen hasia erabaki zuten, estatu mailan ematen ari ziren CCOO mugimenduen ereduari jarriki<sup>1024</sup>. Nafarroako CCOO ere Iruñeko hainbat fabriketan jada existitu egiten ziren langile komisioretatik abiatuta sortu zen. Aurreko kapituluan ikusi genuen bezala, lehenbiziko komisiio hauetako kideak, Zentro Marianoan AST erakundeak egiten zituen bileretan elkartzeko hasi ziren, koordinakunde bat sortzeko erabakia berabiatetik irten zelarik<sup>1025</sup>. Nafarroako CCOO 1966ko

---

<sup>1021</sup> José Babiano eta José Antonio de Mingo, “De la comisión...” Op. Cit., 198 orr.

<sup>1022</sup> Sebastian Balfourrek egin zuen Madrilgo eta Bartzelonako CCOOen jatorri desberdinaren arteko alderaketa hau. Madrilen, ordezkari sindikalek probintzia mailako hitzarmena batera negoziatzeko indarra zuten bitartean, Bartzelonan zailagoa zen halako ekimen bat arrakasta izatea, bertako fabrikak handiak eta borroka tradizio handiagokoak izaterakoan, jada bereko hitzarmenak sinatuak zituzten eta ez zuten probintzia mailako hitzarmen bat negoziatzeko beharrik. Sebastian Balfour, “El movimiento obrero...” Op. Cit., 14-15 orr. Hemen, CCOO, langile militante talde batek sustatu bilera klandestino batean sortu zen. Sants auzoko eliza batean burutu zen eta berrehun bat langile bildu zituen. Madrilgo CCOOen sorreraz gehiago, José Babiano eta José Antonio de Mingo, “De la comisión de enlaces...” Op. Cit., 196-199 orr. eta Bartzelonako CCOOen sorreraz gehiago, Carme Molinero, Javier Tebar eta Pere Ysás, “Comisiones obreras de Cataluña...” Op. Cit., 79-80 orr.

<sup>1023</sup> José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 265-266 orr. Bizkaiko CCOOen jatorriaz ere, Pedro Ibarra, *Movimiento obrero en...* Op. Cit. eta Pedro Ibarra eta Chelo García Marroquín “De la primavera de 1956 a Lejona 1978. Comisiones Obreras de Euskadi”, David Ruiz (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 11-140 orr., 15-117 orr.

<sup>1024</sup> Valentziako CCOO jatorriari buruz gehiago, Joan-Lluís Soler eta Ismael Saz, “De lo rat panat al Congreso de Castellón: Las Comisiones Obreras en el País Valenciano (1966-1978)”, David Ruiz (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 289-314 orr., 289 eta 301-302 orr.

<sup>1025</sup> José Vicente Iriarte Aresok aipatzen duenez, ASTk USOrekin eta ETArekin hainbat elkarrizketa izan zituen hauek mugimendu berriarekin bat egitea lortzeko. USOren kasuan,



urtarrilean sortu zen behin-behinean, ASTko eta neurri apalagoan, PCEko hainbat militanteren eskutik eta Zentro Marianoaren lokaletan. Lehen koordinakunde haren hasierako jarduera antolakuntza egituren sendotzean, aldarrikapen eta borroka orotan parte hartzean eta Sindikatu Bertikalaren egituretatik lan egitean -enpresetako langile komisiok 1966ko hauteskunde sindikaletan parte hartu zuten arrakasta handia lortu-oinarritu zen. 1968an, Nafarroako CCOO publikoki azaltzen zen azkenean, Madrilgo CCOOek 1966 aurkeztutako “ante el futuro del sindicalismo” dokumentua jasotzen zuen eta aldarrikapen programa bat atxikitzen zuen agiri batekin. Bertan, antolakunde berria, langile klasearen mugimendu ireki, batasundun eta independente bezala eta langileen protestarako mugimendu bezala definitzen zen. Ordutik aurrera, Nafarroako CCOOen jarduera, 60. hamarkada haren bukaeran, lege sindikal berria salatzeraz, egitura sindikal frankistaren aurka borrokatzeraz eta gobernuak ezarritako soldaten muga gainditzera bideratu zen.

Behin mugimendu egituratua eta koordinatua zela, CCOO, Iruñerriko langile mugimenduaren abangoardia bezala sendotu zen, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran. Antolakuntza eredu honen arrakasta hau ahalbidetu zuten faktoreen artean, nabarmenezkoa da Iruñerriko langileen artean nagusi zen praktika sindikalaren izaera batasunduna, non ez zegoen erabatean hegemonikoa zen langile korrontarik<sup>1026</sup>. Komisionen praxia, berez lausoak ziren oinarrietan funtsatzen zen eta honek, mugimenduaren baitan ziharduten jatorri askotariko militanteek eta langile korronte desberdinek, langile mugimenduak oro har partekatzen zituen elkartasun, berdinaletasun eta injustiziaren aurreko errebeldia printzipioetan bat egitea ahalbidetzen zuen<sup>1027</sup>. Praktika sindikal batasundun hartatik abiatuta eta langile mugimenduaren tradiziozko desadostasunen presentziarik ez zegoen marko batean, “CCOOen agertze eta egonkortze prozesuaren berezko onarpena gertatu zen”<sup>1028</sup>.

Zaila da berez antolakundearen indarra kopuru batean neurtzea, koadro eta militante aktiboekin batera, hauen ingurura biltzen ziren eta hauek sustatutako jardueretan hala nola antolakuntza lanetan parte hartzen zuten langileak ere kontutan hartu behar baitira. Hau da, neurketa bat egiteko, inplikatzeko eta konpromiso maila eta modu desberdinak zeudela gogoan izan behar dugu: probintziako koordinakundeko kide izatea, fabrikako langile komisioko kide izatea, momentu berezietan komisioko hari laguntza ematea (adibidez propaganda etxean gordez), “comisiones ampliadas” bileretan parte hartzea edota besterik gabe, fabriketako asanbladetan parte hartzea hala nola berauetan erabakitako grebekin bat egitea. Honela, modu batean edo bestean langileak, bereziki fabriketakoak, mobilizatzeko gaitasuna areagotzen zen eta langile mobilizazioetan parte hartu zuten langileen gehiengoak inoiz konpromiso militanterik hartu ez zuen arren, CCOOek sustatutako ekintzetan parte hartzeko prest egon zen.

Koordinakundeari esker lortu egin zen antolakuntza mailak eta aipatu konpromiso maila desberdinak barne hartzen zituen militantzia sare zabalak, Iruñerriko fabrika gehienak elkarren artean lotzea ahalbideratu zuten. Lehenik eta behin, koordinakundearen bitartez, fabrika bakoitzeko errealitatea, gainontzeko fabriketako errealitateekin eta orokorrean, langile mugimenduarekin konektatzea lortu zen.

---

proposamenak ez zuen aurrera egin. José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 63 orr.

<sup>1026</sup> Nafarroako CCOOetan ORTa izan zen indar nagusia, baina protagonismoa MCE, PCE(i)-PTE edota LCR-ETA Virekin partekatzen zuen. Korronte hegemonikorik egotekotan beraz, alderdi komunistaren ezkerrean kokatzen ziren talde desberdinek zutena zen.

<sup>1027</sup> Hauek dira Rubén Vegak identifikatu dituen langile militante berrien oinarritzko ideia partekatuen elementu nagusienak. Rubén Vega, “Entre la derrota...” Op. Cit., 187-188 orr.

<sup>1028</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 57 orr.

Enpresa desberdinen arazoan eta gatazken inguruko informazioaren zirkulazioak hala nola baterako mobilizazioen antolakuntzak, hartara, dimentsioa eta izatasuna eman zioten langile mugimenduari fabrikaz kanpo:

Nukleo nagusi hori bazen... ba beno, egiten zuena... egin beharrekoak ipintzen zituen: zer egin behar zen, materialak, fabriketan ateratzen genituen orrialdeak argitaratzeaz zein arduratzen zen, zer gauza orokor antolatzean ziren... fabrika bakoitzeko gauzak, ba, fabrika bakoitzeko langile komisiok egiten zituen, baina gauza orokorrak, ba fabrika bakar baten markoa gainditzeko grebaren bat antolatzeaz, nukleo hori arduratzen zen, maiatzaren lehena ere... orduan, gauza guzti horiek hortik ateratzen ziren eta horretaz guztiaz arduratzen zen. Haren zaintzapean ere argitaratu beharreko material guztia zegoen. Noski, guztia klandestino zen, ezta? guztia ezkutuan... beno, enpresetan atera behar ziren orrialdeen banaketa ere [hortik] egiten zen. [J.E.C.. Torfinasako CCOOeko militantea]

Fabrika desberdinetan taldeak sortzen hasi ziren eta koordinatzen hasi ginen, eta orduan jada elkarrekin lan egiten genuen, fabrika bakoitzak zituen arazoak jakinarazten ziren... arazo larriagoak zeudenean, elkartasuna sustatzen zen, diru bilketak egiten ziren, deialdiak egiten ziren arazoak salatzeko, maiatzaren lehena [antolatzen zen]. [M.G.. Torfinasako CCOOeko militantea]

Fabrika bakoitzean langile mugimendu bat sortu zen eta gero koordinatzen zen, koordinatzen zen, arratsaldean, elkartzen ziren eta, ba... gero fabriketan berriz elkartzen ziren eta esaten zuten "se ha decidido esto", ba fabrika desberdinen artean, ezta? orduan Authi, Super Ser, porcelanas... eta guzti hori zenaren artean. Fabrika asko zegoen [koordinadoran] eta erabakiak hartzen ziren, "oye, pues se ha decidido esto". Hori grebetarako eta halako gauzetarako izaten zen. [K.P.. Imenasako CCOOeko militantea]

Era berean, antolakuntza harreman egituratuak ekarri zituen berekin. Mugimendua handituz joan zen heinean, Nafarroko CCOO zonaldeka antolatu zen. Zonalde bakoitzeko fabrika guztiak elkarrekin koordinatzen ziren, bilerak egiten zituzten eta euren ordezkariak izendatzen zituzten "inter" sindikala deitzen zuten koordinakunde orokorrean parte hartzeko:

CCOOren lehenbiziko "inter" sindikala sortu genuen, horrela esaten genion. Orduan hasieran fabrika guztiak elkartzen ginen baina gero, mugimendua handituz joan zein heinean, zonaldeka biltzen hasi ginen: Landaben industrialdeko zonaldea, Zaragoza etorbideko zonaldea... horrela. Eta beno, Iruñean, Nafarroan garrantzi handia izan zuen sarea izan zen [...] "inter" hura. Hori, ba, hasieran fabrika bakoitzetik [ordezkari] bat joaten ginen eta gero, ba, zonalde bakoitzetik... zonaldeka biltzen ginen eta gero ["inter"]era] zonalde bakoitzetik bat edo bi joaten ginen. [M.G.. Torfinasako CCOOeko militantea]

Orduan, adibidez, bazegoen... Beriain eta Zaragoza etorbidea barne hartzen zituen zonalde bat. Bertako fabrikek harremana zuten euren artean eta koordinadora moduko bat zuten fabrika bakoitzeko arduradunetz osatuta. Landabenen, orduan jada industrialdea martxan zegoenez, berdin gertatzen zen, ezta? Eta berdin gertatzen zen ere Berriozarrerako bidean eta Arrotxapean zeuden enpresekin, hauek ere euren koordinazioa zuten. Eta horrela jaio ziren CCOOen koordinadorak, horrela jaio ziren. [P.A.S. Potasaseko CCOOeko militantea]

Elkartzen ginen Onenakoak eta gero, ba... nola deitzen da? Don Carlos hotela dagoen zera... Areta industrialdea egin duten zonalde horretan... ba hor ere tailer mekaniko batzuk kokatzen hasi ziren, orain ez dut gogoratzen nola deitzen ziren... orduan Huarte, Atarrabia eta guzti hori, zonalde bat osatzen genuen; sei edo zazpi fabrika egongo ginen eta gure ordezkariak genituen. Bai, asteen behin fabrikakoak elkartzen ginen, aste horretan bertan industrialde edo zonaldekoak eta gero koordinadora orokorrekoak. Bai, Zaragoza etorbidea beste zonalde bat zen eta hainbat fabrika barne hartzen zituen; beste bat Landaben zen... Orduan gero, zonalde guztietako ordezkariak biltzen ginen. Ni urte askotan izan nintzen nire zonaldeko arduraduna. [I.N.. Onenako CCOOeko militantea]

Fabriken arteko harremana zonaldeka sendotzea lortu zen modu honetan.

Bigarrenik, bestelako militantzia sare zabalak ere, CCOO nafar langile mugimenduaren erreferentzia nagusi egin zuten eragile garrantzitsua izan ziren. Iruñea bezalako tamaina ertaineko hiri batean, erraz samarra zen mugimenduaren eragina, militanteen sareetatik hedatzeaz gain, hauen lagun talde, familia edota auzoetatik abiatzen ziren sare informagoetatik zabaltzea. Hiriko sektore herrikoiak nolabait elkarlotzen zituzten harreman hurbil eta zuzenek, antolakuntza eta mobilizazioa errazten lagundu zuten:

Orduan hainbat fabrika handi zegoen, orain Volkswagen kenduta beste guztiak ertainak diren moduan, lehen, ba... noski, gu mila langile ginen, Super Ser beste mila, Potasasen osotara lau mila edo egongo ziren lanean, Authin ere bi mila edo... orduan noski, nahiko kolektibo homogeneoa ginen enpresetan eta baita, denera jota, [gure] erantzuna, homogeneoa zen nolabait ere... [...] are gehiago, aldi berean enpresa guztietako langileok, ba, anai-arrebak, gurasoak, lehengusu-lehengusinak, senideak, lagunak... genituen eta horrek nolabait, [gure] eragina handitzen zuen [I.B.. Imenasako CCOOeko militantea]

Iruñea ez zen berez oso hiria handia, orduan existitu egiten ziren harremanak... hain zuzen, nolabait, ba... kuadrilla harremana edo dena delakoa... noski, tailertxoren batean lan egiten zuenak tragoak hartzen zituen zurekin eta halako harremanek, ba... laguntzen zuten [J.S.M.. Potasaseko CCOOeko militantea]

Nafarroako CCOOen ekintza eremua Iruñerria izan zen bereziki. 1971an, agerikoa zen hiriburuko fabrika handietan jarduten zuen langile mugimendu indartsuaren eta probintziako bete zonaldeetakoaren arteko loturarik eza, ez baitzegoen koordinakunde lokalik herrialdeko hiri nagusienetan<sup>1029</sup>. Nafarroako zonalde desberdinetako langile mugimenduaren presentzia ordea, industria nukleo garrantzitsuak zituzten Lesaka, Altsasu, Lizarra, Tafalla eta Tuteran bezala guneetan gertatu ziren lan gatazken bitartez ikusten ahal da<sup>1030</sup>. Hauen artean, bai Lesakako Laminaciones de Lecasa, Tafallako Victorio Luzuriaga edota Tuterako SFK bezalako fabrika garrantzitsuen baitako lehenbiziko berezko gatazkak eta baita Iruñerriko langile mugimendurekin harremanetan jartzen zituzten borroka orokorrak (grebekin bat egin, tokian tokiko manifestazioak antolatu, diru eta janari bilketak egun) aurkitzen ditugu ere. Hala ere, herrialdeko zonalde desberdinetako langile mugimenduek euren berezko garapen, erritmo eta dinamika izan zuten, lantokien eta eskualdeen errealitateetatik eratorria.

Tuteran adibidez, langile mugimenduaren garapena berantiarra izan zen, bertako CCOOen sorrera 1973ko udazkenean izan baitzen<sup>1031</sup>. Lau fabrika garrantzitsuren (Imetusa, Piher, Sanyo eta SFK) ezartzea erabakigarria izan zen horretarako. Kasu honetan, CCOO, SFKn lan egiten zuen eta jada politikoki MCEan antolatuta zegoen langile talde baten eskutik jaio zen. Lehenbiziko talde hau, inguruko bestelako fabriketako zenbait militanterekin elkartu zen eta Tuterako CCOO sortu zuten. hau, berehala, langile konprometituak biltzeko erdigune bihurtu zelarik. Orditik aurrera, CCOO langile mobilizazioak eta borroka dinamizatu zituen, bai fabriken baitan eta baita, nafar langile mugimenduaren greba, mobilizazio eta borroka orokorrekin bat eginez (1973an Motor Ibérica, 1975ean Potasas) ere.

Tafallako kasua bereziagoa izan zen. Hemen ere CCOOen sortze berantiarra nabarmentzen ahal da, koordinakunde lokala 1974an eman baitzuten lehen

<sup>1029</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 184 orr.

<sup>1030</sup> Ikusi José Vicente Iriarte Areso, "Aproximación a la conflictividad social en Navarra 1970-1975", *Principe de Viana*, 177. zkia, 1986, 271-318 orr.

<sup>1031</sup> Iñigo Pérez Ochoa, "Oposición Política y movimiento obrero en Tudela en los últimos años del régimen franquista (1968-1977)", *Sancho el Sabio*, 10. zkia, 1999, 27-51 orr, 33 orr.

urratsak<sup>1032</sup>. Hemen, langile mugimenduaren garapena, gipuzkoar jatorriko Victorio Luzuriaga galdategiaren ezartzeari oso lotuta dago. Enpresa 1969an iritsi zen eta abiatzea errazteko, profesionalak eta langile adituak ekarri zituen berekin Gipuzkoatik. Hauen artean, gatazka esperientzia zutenak eta langile mugimenduarekin lotura zuten langileak zeuden. Horregatik, fabrikaren baitan sortzen hasi zen langile mugimenduak, nolabait, Gipuzkoarekin lotura izan zuen lehenbiziko urte hauetan. Esate baterako, Tafallako fabrika, Gipuzkoako fabriketan egiten zen “Forja Obrera” buletina irakurtzen zen eta Tafallako fabrikako eta Gipuzkoako fabriketako langileak harremanetan zeuden, askotan borrokak elkarrekin planteatzen baitzituzten. Honek, antolakuntza eta borroka esperientzia ematen zien Luzuriagakoei, Tafallako langile mugimenduaren buruan jartzen zituelarik. Hain zuzen ere, lantokien baitan gertatu ziren lehenbiziko lan gatazka nabarmenduak fabrika honetan gertatu ziren, 1970ean eta 1972an. 1973ko greba orokorrearekin bat egin zuen lehenbiziko fabrika izan zen ere. Tokian tokiko CCOOen koordinakundeari dagokionean, esan bezala, 1974an sortu zen. Haren lehenbiziko nukleoa bost pertsonak osatu zuten. Guztiak, mendi taldearen inguruan ibiltzen zen gazte talde batek sustatuta, gipuzkoar jatorriko bi gazterekin formakuntza politiko eta sindikaleko bilerak egiten zituen ikasketa talde bateko kideak ziren<sup>1033</sup>. 1975etik aurrera, lehenbiziko nukleo horri, langile militante berriak gehitu zitzaizkion.

---

<sup>1032</sup> Colectivo Unitario-LAB, *Obreros somos... 1969-1989 El movimiento obrero en l comarca de Tafalla*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla 1989, 45-46 orr.

<sup>1033</sup> *Ibid.*, 22 orr.

## 6.2 IRUÑERRIKO LANGILEEN KULTURA POLITIKOAK

Nafarroan, noski, desberdina zen... hemen, ezkerreko tradizioek gerran eragin gutxi dute. Sektoreak baziren, ezta? baina hemen karlismoa izan zen nagusi. Baina ondoren karlismoaren baitan, nolabaiteko errebeldia agertzen hasten da, [erregimenarekiko] nolabaiteko asegabetasun sentimendua. Izan ere, karlismoa baztertua izaten da eta orduan jada, ezer gutxi du esateko... orduan, ba hortik sortzen da guzti hori [asegabetasuna]. Ni adibidez, gaztetan, Jurramendira joaten nintzen eta hor ikusten zen... nolabaiteko errebeldia, bai, erregimen frankistarekiko asegabetasun sentimendu hori, orduan... Baina nire kasuan, bereziki seminarioa da [inflexio puntua]. Nik, seminarioaren bitartez hausten dut guztiarekin. Orduko apaizgai asko, harremana dute JOCarekin (eta ORTrekin gero), hau da, eragin handia duten halako talde kristauekin... hauek dira hemen, Iruñean, langile mugimendua antolatzen dutenak, haiek dira erakargarriak iruditzen zaizkigunak. [V.D.. LCRko militantea]

Sebastian Balfour historialariak aspaldi frankismoaren bitartean langile mugimendu asko eta desberdinak sortu zirela planteatu zuen, hauen artean berezko borrokarako moldeak eta berezko azpikulturak bereizten ahal zirela azaleratuz. Horretarako, Bartzelonako metropoli eremuko industria zonalde desberdinetan jardun zuten langile mugimenduak azertu zituen<sup>1034</sup>, mugimendu haietariko bakoitzaren hazkunde erritmoa, indarra eta ezaugarriak, faktore ezberdinen konbinatzearen arabekoak izan zirela ondorioztatu zuen. Zonaldearen industria profila, egitura soziala, langile militanteen jatorria, aurreko tradizio soziopolitikoen hondakinak eta are hiri morfologia (enpresen arteko hala nola industria zonalde eta bizitokien arteko harreman geografikoa) faktore hauetariko batzuk izan ziren<sup>1035</sup>. Zentzu honetan, faktore hauek, langile mugimendu ezberdinen izaera eta jokabidea azaltzeko jarraibide interesgarriak izaten ahal dira. Iruñerriko langile mugimenduak hainbat ezaugarri bereizgarri aurkezten ditu, ikusi berri ditugun estrategia “entristaren” arrakasta goiztiarra, Sindikatu Bertikalerako goi mailako ordezkariak karguetarako sarbidea eta Nafarroako Langile Kontseiluaren erabilpena, edota Nafarroako CCOOek, estatuko beste CCOOen aldean, azaltzen zuen osaera zein ikuspegi estrategiko bereziak, esate baterako. Aipatu Balfourrek zehaztutako faktoreak berezitasun hauek aztertzeko erabiliiko ditugun ardatzak izango dira, bereziki haietariko bi, langile militanteen jatorria eta tradizio soziopolitikoen hondakinak. Jarraian, bi elementu hauek Iruñerriko langile mugimenduaren kultura sindikalaren, borrokarako moldeen eta hautabide estrategiko eta politikoen itxuraketan funtsezkoak izan zirela ikusiko dugu.

Aurreko atalean 60. hamarkadaren bitartean sortzen ikusi dugun Iruñerriko langile mugimendua, nolabait hutsetik eratu zen, jarraibide ideologiko zehatzei erantzun gabe eta langile erakunde tradizionalerikiko, hots, alderdi zein sindikatuerikiko, harremanik izan gabe. Alderdi sozialistak adibidez, ez zuen hemen antolakuntza egiturarik izan frankismoaren bitartean eta alderdi komunista, CCOOren sorreran parte hartu zuen arren, bigarren maila batean egon zen beti bere ezkerrean zeuden bestelako indarrekiko. Hutsune hartan, apostolutza mugimendu sekularrak izan ziren langile mugimenduaren lehen itxuraketa hartan paper nagusia izan zutenak. Abiapuntu hau erabakigarria izango da, langile militanteen jatorria eta langile mugimenduaren baitan jardungo zuten kultura politiko eta sindikalen garapena baldintzatu baitzituen. CCOOi dagokionean, haren jaiotzak eta garapenak, zenbait sektore kristau ezkerreko ikusmoldeak barneratuz mugimendu sindikal klandestinoan sartzera eraman zituen bilakaera pertsonal eta militantearekin izan zuten zerikusirik: Nafarroako CCOOen lehen nukleoa sortu zuten militanteetariko asko Vanguardias Obreras mugimenduan hasi zen, ASTko sindikalista bilakatu zen eta ORT alderdi marxista-leninistako kide egin zen. Ildo horretan, langile borrokaaren sektore dinamikoaren jatorri honek, CCOOen baitan jarduten zuten indar politikoen arteko orekan eragina izan zuen.

<sup>1034</sup> Sebastián Balfour, *La dictadura, los...* Op. Cit.

<sup>1035</sup> Sebastian Balfour, “El movimiento obrero...” Op. Cit., 15 orr.

Alderdi komunistak, esan bezala, Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu izan zuen arren, ez zuen hemen inoiz estatuko beste koordinakundeetan (Bizkaikoan, Kataluniakoan edota Madrilgoan) izan zuen nagusitasuna lortu. Hemen, nagusigoa, bestelako langile indarren esku egon zen, hain justu alderdi komunistaren ezkerrera kokatzen ziren indarren esku: ORT MCE, PCE(i)-PTE edota LCR- ETA VI. Alderdi guzti hauetako militantziaren parte handi bat, nola edo hala, aipatu berri dugun sektore kristauen bilakaera haren emaitza izan zen.

Hain zuzen ere, PCEa erreferentzia nagusitzat ez zuen indar oreka berezi hau, nafar CCOOen bereizgarri adierazgarrienetarikoa bat izan zen. Ezaugarri bezala, Iruñerriko langile mugimendu osora estrapolatzen ahal dugu orokorrean, bai alderdi komunistak hemen, frankismoaren bitartean (batez ere 60. hamarkadaren bitartean, langile mugimendua eratu zen urteetan), oso presentzia txikia izan zuelako eta baita, aurreko kapituluan ikusi genuen bezala, apostolutza mugimenduetan gizarteratzea, 60. hamarkadako militante askok bizi izan zuen esperientzia izan zelako ere. Alderdi komunistaren indarrak ezak eta erakunde kristauen zein ezker iraultzailearen alderdien protagonismoak, bigarren faktorerak, hots, tradizio soziopolitikoaren hondakinen iraupenera, eramaten gaituzte. Alderdi komunistak ez zuen apenas presentziarik izan, hein handi batean, gure subjektuek, orokorrean, alde aurreko langile erreferente kultural zein ideologikorik ez zutelako eta ondorioz aurreko erakundeekin, hauen egiturekin eta militantziekin harremanik ez zutelako. Era berean, erakunde kristauak eta hauen militantzietatik eratorri ziren alderdiek egiazko protagonismoa izan zuten, bosgarren kapituluan osatzen ikusi dugun langile kultura kristau eta ezkertiarra, eurentzat erreferente garrantzitsuena -eta ia bakarra- izan zelako. Zentzu honetan, alderdi komunistaren tradizioaren indar urria eta sortu berria zen langile kultura kristau eta ezkertiarren arrakasta, protagonistei, euren mentalitateari, euren tradizio kulturalari eta euren erreferente sozial zein ideologikoei lotuta egon zirela esaten ahal da. Izan ere, langileak, eurekin berezko ondare kultural bat eramaten zuten subjektuak ziren eta honek, euren jokabide eta hautabideak bide batetik edo bestetik eramateko erabakigarria zen nola edo hala.

Nafar tradizioa kontserbatismoari lotuta agertzen zen, erlijiozaletasuna eta karlismoa, bereziki landa munduan, erreferente sozial eta kultural nagusi bezala jarduten zutelarik. Bigarren kapituluan ikusi genuenez, gure protagonistetarikoa askoren jatorrizko familia edo gizarte inguruneetan, bi erreferentzia hauek nagusi ziren, nahiz eta salbuespen garrantzitsuak egon. Klasearen eraketari lehenbizikoz ekin zioten elementuen tradizio kulturalak, hartara, gertuago egon ziren substratu kontserbadore honetatik, klase ideologiaren substratutik baino. Azken hauek, gerraren aurretik, apenas zuten presentzia antolatuta egonkortu bat herrialdean eta ondorioz, egiazki zaila izan zuten bertan indarrarekin errotzea. Nekazal eremuko zonalde zehatzetan, nekazal mugimenduen, protesta mugimenduen eta are antolakuntza saiakeren esperientzia garrantzitsuak egon ziren. Lur komunalen pribatizazioak eta lurren banaketa desorekatuak arazo sozial larriak sortzen zituen Ertain Zonaldean eta Erriberan adibidez. Baina are kasu hauetan, esperientzia hauek ez zuten klase kultura politiko, ideologia edota erakundeekiko lotura zuzen eta iraunkor bat berekin ekarri.

Nafarroako hegoaldean bizi izan ziren nekazal gatazketan ez zen berez protesta ekintzak aldarrikatuko zituen eta nekazarien mugimendua antolatuko zuen definizio ideologikorik izan. Hots, ez zegoen klase ideologiei lotutako diskurtsorik. XIX. mendearen bigarren erdialdearen bitartean, pribatizatutako "koralizak" bizilagunen jabetza komunalera itzultzeko aldarrikapenaren inguruan, nekazariak talde ekintzara bultzatzen zituen kontzientzia kolektiboa sortu zen. Emilio Majuelok aipatu bezala, esperientzia honek nekazal klaseak, klase historiko bihurtu zituen, euren egoeraz kontziente egin eta hura aldatzeko prestatu zituelarik. Baina egitate hark ez zituen

nekazariak, orduan hiriguneetako langileekin gertatzen ari zen bezala, egitura antolatuak, erakunde politiko eta sindikalak garatzera eraman<sup>1036</sup>.

Beraz, nekazal eremuetan aldarrikapenerako eta ekintza kolektiborako tradizio bat existitu egin zen arren, hura ez zuten, inolaz ere, ez klase ideologiek eta ezta klase erakundeek ere bideratzen<sup>1037</sup>. Nafar mugimendu komuneroa oso ongi aztertu izan duen José Miguel Gastónek ematen du, nolabait, ikuspegi hau. Nekazarien artean berezko identitateak sortu zirela baina hauek, zurrinak edo aldatu gabeak izan ez zirenez, abaguneen eta kontestuen bilakaeraren arabera egokitu behar izan zirela azaltzen du. Izan ere, nekazal munduko lan prozesuek ez zuten, fabrika handiek eta langile auzoek egiten zuten bezala, nekazarien klase kokapena berekin ekartzen eta honek, aipatu nekazari identitateek klase eduki gutxi izatea eragiten zuen<sup>1038</sup>. Honekin batera, nekazal munduan Elizak betetzen zuen nekazarien laguntzarako papera, bertan klase ideologiaren errotzea zaildu zuen bestelako faktore garrantzitsu bat izan zen. Aurreko kapituluan ikusi dugunez, Elizak landa munduko desorekak arintzeko, lurren banaketa eta erabilera erraztea eta produkziarako bestelako elementuen (haziak, ongarriak, tresneria) eskuragarritasuna ahalbidetzea helburu zuten hainbat ekimen martxa jarri zituen. Halako politikek, ordena sozioekonomikoa ikuspegi hausle batetik zalantzan jarri beharrean, ikuspegi zuzentzaile batetik egiten zuten eta honek, berez, hausleak ziren jarrera hartzeen aurrerakada oztopatzen zuen.

Hala ere, XX. mendearen lehen herenean, mugimendu komuneroak antolakuntza forma egituratuagoetarako bilakaera izan zuen, klase erakundeekiko harreman bat sortzen hasi zelarik. Bitarte honetan, nekazarien protestarako moduak, aurreko urteetan agertu zuten izaera espontaneoak (lapurreak, suteak, jabetza pribatuaren kontrako ekintzak) nolabait mantendu zuten arren, geroz eta forma antolatuagoak hartu zituzten, mugimendua bera instituzionalizatzen ari zelaren eta erresistentzia elkarte sozialisten zein anarkisten presentzia nabaritzen hasten zelaren seinale. Adibidez komuneroen elkarteak sortzen hasi ziren. Hauek, lanaren alorreko aldarrikapenak bideratzeaz beste, euren jarduera, bizitzaren bestelako alorretara, aisialdira kasu, zabaltzen zuten eta elkarteetako kideen eta jornalarien formakuntza hobetzeko ekintzak antolatzen zituzten. XX. mendearen lehen hereneko urteetan, haien eskutik, antolakuntza esperientzia interesgarriak bizi izan ziren, boterearen kontrolpetik kanpo zeuden sare alternatiboak sortu ziren eta protestarako bide berriak saiatu ziren. Autoritateen aurrean eskari orriak aurkezten zituzten edota manifestazioak antolatzen zituzten, komunitatea egiten zuten eta euren baitan komuneroak eta sindikalistak biltzen zituzten bizilagun elkarteak ziren<sup>1039</sup>.

Mendeak aurrera egin ahala, mugimendu komuneroak, UGTak proposatutako erreforma sozialerako proiektuekin bat egin zuen. Izan ere, berauetan, lur komunalen erabilera bizilagunengana itzultzeko aldarrikapena bideratu ahal izateko esparru

---

<sup>1036</sup> Emilio Majuelo, "Movimientos sociales y..." Op. Cit., 292 orr.

<sup>1037</sup> Gatazka soziala, iraultza burgesak berekin ekarri zuen lur komunalen pribatizazioari berezkoa izan zitzaion. Ikusi adibidez José Miguel Lana eta Joseba de la Torre, "El asalto a los bienes comunales: cambio económico y conflictos sociales en Navarra 1808-1936", *Historia Social*, 37. zkia, 2000, 75.96 orr. eta José Miguel Gastón Aguas, *¡Arriba jornaleros!: los campesinos navarros ante la revolución burguesa (1841-1868)*, Txalaparta, Tafalla, 2003.

<sup>1038</sup> José Miguel Gastón, *¡Vivan los comunes! Movimiento comunero y sucesos corraliceros en Navarra (1896-1930)*, Txalaparta, Tafalla, 2010, 25 orr. Ikusi ere, adibidez, Juan Jesús Virto Ibañez eta Victor Manuel Arbeloa: "La cuestión agraria en Navarra (I)", *Príncipe de Viana*, 171. Zkia, 1984, 117-130 orr., "La cuestión agraria en Navarra (II)", *Príncipe de Viana*, 173. zkia, 1984, 617-654 orr. eta "La cuestión agraria en Navarra (y III)", *Príncipe de Viana*, 174. zkia, 1985, 247-246; eta Emilio Majuelo Gil, *Luchas de clases en Navarra (1931-1936)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1989

<sup>1039</sup> José Miguel Gastón, *¡Vivan los comunes!...*, Op. Cit., 380 orr.

soziopolitiko bat aurkitu zuen. Nafar landa munduan aspaldidanik gertatzen ziren nekazari borrokak, hartara, forma berrieekin, hots, nekazal erreformaren aldeko aldarrikapenaren formarekin, agertu ziren Errepublikaren garaian, marko legal berriak, “korrallizen” auziaren konponbidea instituzioetatik bideratzea posible zela iragartzen baitzuen<sup>1040</sup>. Momentu hartan izan zuten klase erakundeek, bereziki UGTak, indar gehien nekazal munduan. Beraz, protestarako tradizioaz, antolakuntzarako esperientziatz eta klase erakundeen presentziatz mintzatzen ahal gara, baina hasiberriak ziren ibilbide bezala, ez jada errotuta zegoen tradizio bezala.

Hiriaren kasuan, sozialismoak eta erresistentzia elkarteek nabarmentasuna lortu zuten Iruñean XX. mendearen lehen herenaren bitartean. Langileen antolakuntza eta mobilizazioa piztu egin zen eta langile erakundeek herriaren nolabaiteko berrespena lortu zuten. Sozialistak 1913an sartu ziren lehenbizikoz Iruñeko udalean eta klase sindikatuek, 1936ra arte etenik izango ez zuen jarduera jarraitu bati ekin zioten: propagandaren zabalkundea, langile elkartearen kopuruaren biderkatzea, maiatzaren lehenaren ospakizuna, lan eta gizarte arazoetan esku hartzeko dinamika edota 1917ko bezalako unean uneko greben sustatzea, jarduera honen adierazpenik adierazgarrienak izan ziren<sup>1041</sup>. Sozialismoarekin batera, hainbat nukleo anarkista zeuden, alderdi komunistak egitura antolatuak zituen eta ELA, nahiz eta zailtasunekin, presente zegoen<sup>1042</sup>. Alta, indar errepublikazaleen eta langile erakundearen finkatzea berantiarra, geldoa eta ahula izan zen, Errepublikaren etorrerarekin, hauen jarduera biziagotu zen arren. Alderdi komunistaren kasua adierazgarria izan zen zentzu honetan. 30. hamarkadaren hasieran erakundea oso txikia zen, militanteak nekez iristen ziren herrialde osoan ehun izatera eta alderdiak ez zuten inolako hauteskunde eraginik. Errepublikaren etorrerak eta Jesús Monzón bezalako liderren agerpenak, bizitasuna eman zioten bere jarduerari<sup>1043</sup>. Sanjurjo jeneralaren estatu kolpe saiakeraren ondoko panfletoen zabalkundea eta manifestazio baterako deialdia, zelula eta kolaboratzaile sareen hedakuntza, “Socorro Rojo Internacional” zerbitzuaren abian jartzea, grebetan eta gatazketan parte hartzea, Ezkabako presondegiko presoaren aldeko elkartasun ekinaldiak eta 1936ko hauteskundearen ondoren Diputazioa sinbolikoki erasoz hartzeko saiakera izan ziren, besteak beste, 30. hamarkadaren hasieratik 1936ra arte, nafar komunistek burutu zituzten ekintzarik adierazgarrienak. Honekin batera, presentzia komunistak garrantzitsuko hainbat nukleo nabarmentzen hasten zen ere. Arrotxapea auzoa adibidez, hiriko gune komunistak nabarmendua zen. Bertan, burdinbideetako enplegatuen eta orokorrean langileen zentro bat sortu zen eta

---

<sup>1040</sup> Ikusi Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y...” Op. Cit., 292-293 orr.

<sup>1041</sup> Nafar sozialismoaz ikusi, adibidez, Angel García-Sanz, *Los “obreros conscientes navarros”*: Gregorio Angulo (1868. 1937), Fundación Juan José Gorriño: Unión General de Trabajadores de Navarra, Iruñea, 1999. Gregorio Angulo buru sozialista nabarmendua kontakizunaren haria den arren, XX. mendearen lehen hereneko nafar sozialismoari buruzko ikuspegi zabala ematen da.

<sup>1042</sup> Anarkismoaz, adibidez, Emilio Majuelo, “Algunas noticias de los anarquistas navarros en los años 1922-23”, *Príncipe de Viana*, 173. zkia, 1984, 497-516 orr. ELA sindikatu abertzaleaz, Iván Giménez, *ELA en Nafarroa. 100 años de transformación y lucha (1911-2011)*, Txalaparta, Tafalla, 2012; ikusi, batez ere, lehenengo kapitulua “El nacimiento de un sindicato. Fallida implantación en Iruñea (1911-1931)”, 13-21 orr. Bertan ikus daitekeenez, 1912an sindikatu sortzeko saiakera bat egon zen. Ez zuen arrakastarik izan, baina aurrekari horrek nolabait, 1931an sortuko zen Iruñeko elkartearen nukleoa izango zenaren oinarriak ipintzeko balio izan zuen. Ikusi ere Darío Ansel, *ELA en la Segunda República. Evolución sindicalista de una organización obrera*, Txalaparta, Tafalla, 2011.

<sup>1043</sup> Kasu honetan ere pertsonaia baten biografiari esker (Jesús Monzón), 30. hamarkadako nafar alderdi komunistari buruzko oinarriko ikuspegi bat lortzen ahal dugu. Bertan, alderdiaren presentzia eta nolabaiteko garapena baieztatzen dira. Manuel Martorell, *Jesús Monzón, el líder comunista olvidado por la historia*, Pamiela, Iruñea, 2000.



neurri handi batean auzoko langileez eta nekazariez osatzen zen milizia antifaxista bat eratu zen.

Mendearen lehenbiziko heren honetan, klase erakundeen presentzia, euren antolakuntza egituren bizitasunarengatik baino, euren militante eta figurengatik egiten da nabarmena<sup>1044</sup>. Sozialisten artean aipatzekoak dira, adibidez, Gregorio Angulo eta Ricardo Zabala<sup>1045</sup>. Gregorio Angulo, Tafallan jaioa, hargina, Nafarroako UGTko liderretariko bat, Iruñeko Elkarte Sozialistaren sortzaileetariko bat eta Iruñeko udaleko zinegotzi izan zen. Ricardo Zabala, Erratzun jaioa, maisua, “Federación de Trabajadores de la Tierra” erakundearen idazkari orokor izatera eta Fronte Popularraren izenean 1936ko gorteetan diputatu izatera iritsi zen. Galo Viergeren figuraren bitartez, anarkismoaren berri dugu. Militante anarkosindikalista eta CNTaren metalaren sindikatuko kidea, oso kultura zalea zen. Zezenketa kazetaria eta idazlea zen. 1936an atxilotua izan eta orduan bizi izandako guztia, “Los culpables” bere liburu ospetsuan jaso zuen. Lan horretan, CNTko militante nabarmenduen izenak agertzeaz beste, hauen harremani eta giroei buruzko erreferentziak azaltzen dira<sup>1046</sup>. Komunisteri dagokienean, adierazgarriak dira Jacinto Ochoaren eta aipatu Jesús Monzonen izenak<sup>1047</sup>. Lehenbizikoa, militante politikoa eta sindikala, “Juventudes Socialistas Unificadaseko” kidea, 1936an atxilotua izan zen eta hogeitau urte baino gehiago eman zituen espetxeratuta. 60. hamarkadaren erdian aske geratu zenean, ikusiko dugun bezala, PCEa Iruñean berregituratzeko figura garrantzitsua izan zen. Jesús Monzón, “historiak ahaztu duen lider komunista”, 30. hamarkadaren lehen erdialdeko nafar PCEaren buru nagusia izateaz beste, zuzendaritza nazionalako buru bezala nabarmendu zen ere. Gerraosteko lehenbiziko urteetan, bere kabuz alderdia berregiten saiatu zen eta Espainia inbaditu eta Franco erorarazteko saiakera armatu bakarraren protagonista izan zen. Ostera, alderdiak berak garbitu egin zuen

---

<sup>1044</sup> 1936an klase antolakundearen eta militanteen kontra Nafarroan gauzatu errepresioa, berez, presentzia honen erakuslerik adierazgarriena da. Fusilatuak (hiru mila inguru), errepresioarengatik hildakoak eta erbesteratutakoak, substratu errepublikar horren adierazleak dira. Nafarroan gauzatutako jazarpenari eta errepresioari buruz ikusi Altaffaylla Kultur Taldea, *Navarra 1936: de la esperanza al terror*, Altaffaylla, Tafalla, 2004. erbesteari buruz, Ángel García-Sanz (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001. Bertan, erbesteratutako sozialisten, anarkisten, komunisten edo nazionalisten presentzia azaleratzen da.

<sup>1045</sup> Aipatu Angel García-Sanz, *Los “obreros conscientes”...* Op. Cit., Gregorio Angulori buruz; eta Emilio Majuelo, *La generación del sacrificio. Ricardo Zabala 1898-1940*, Txalaparta, Tafalla, 2008, Ricardo Zabalar buruz. Ikusi ere, Pedro Barruso, “El socialismo navarro en el exilio (1936-1948)”, Ángel García-Sanz (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001, 63-95 orr.

<sup>1046</sup> Besteak beste Enrique Melchor, 1921ean Iruñean erakunde sindikalista sortu zuena eta Jaime Lluch, Katalunian jaioa baina aspalditik hirian bizi zena. Biak altxamenduak Iruñean utzi zituen lehenbiziko biktimen artean egon ziren. Galo Vierge, *Los culpables, Pamplona...* Op. Cit., 78 orr. Hauekin batera, kontakizunean berarekin lankideak, lagunak edota militantzia kideak ziren beste hainbat izan azaltzen dira: Miguel Yoldi, CNTko militante nabarmendua (Iruñean liburudenda bat zuena eta gerora Bartzelonara joan eta CNTaren idazkari Orokor izatera iritsiko zena, 21-22 orr.), José Díaz (Iruñeko CNTaren militante nabarmendua), José Gurpegi (militante aktiboa), Jacinto Molinero (eraikuntzaren alorrean kargu sindikala zuena edota Felipe Azpiliaga (lankidea eta sindikatuko kidea). Iruñeko presondegian kartzelaratua izan zenean, bertan CNTko militanteko hainbat kideekin topo egin zuela kontatzen du ere. Haietariko batzuk Erriberakoak ziren. Ikusi ere Iñigo Pérez Ochoa, “Notas sobre los anarcosindicalistas navarros en el exilio”, Ángel García-Sanz (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001, 155-176 orr.

<sup>1047</sup> José Luis Díaz Monreal, *Jacinto Ochoa. La prisión más larga*, Ahaztuak, Algorta, 2013 eta Manuel Martorell, *Jesús Monzón, el...* Op. Cit. Ikusi ere, Manuel Martorell, “Los años de plomo de los comunistas navarros”, Ángel García-Sanz (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001.

traidoretzat salatuz eta zokoratua izan zen. Pertsonaia guzti hauen bizitzek eta biografiek Nafarroako eta Iruñerriko ezkerreko giro eta zirkulu guztiak zeharkatzen dituzte eta hauen existentzia azaleratzen dute. Militante sozialistak, anarkistak eta komunistak biltzen zituen jarduera sindikala (1935eko eraikuntzaren sektoreko greba adibidez), Jesús Monzonek eta bere emazteak -Izquierda Republicanako militantea zen Aurora Gomez Urrutia- elkar ezagutu zuten Iruñeko Izquierda Republicanako zirkulua edota Nafarroako Fronte Popularraren buru izan zen Ramón Bengarayren etxea, non 1936ko uztailaren 18an errepublikazaleak, sozialistak eta komunistak (haien artean Jacinto Ochoa eta Jesús Monzón) bildu ziren, pertsonaia hauen ibilbideetan agertzen diren esparruak dira. Berauetan, nafar tradizio errepublikarraren presentzia ikusten ahal dugu nolabait.

1931tik aurrera, Errepublikaren etorrerarekin, nafar nekazari, soldatapeko, langile beregain eta nekazal zein industria jabe txiki askok, erakunde politiko errepublikazaleekin eta klase sindikatuekin bat egin zuen. Ondorengo bi urteetan, indar hauen hazkundera nabarmena izan zen. Orduan adibidez bat egin zuen mugimendu komuneroak UGTaren nekazari adarrarekin, Federación Nacional de Trabajadores de la Tierraren hazkundera ikusgarri bat ahalbidetuz<sup>1048</sup>. Beraz Nafarroan, langile eta klase ideologiak eta erakundeak existitu egiten ziren, militante aktiboak zituzten, jarduera gutxi gora behera jarraitu bat zuten eta gatazka eta borroka sozialen protagonista ziren, bai nekazal munduan eta baita hirian ere. Hala eta guztiz ere, antolakuntza eta gatazka esperientzia hauek ez zuten eurekin klase eta langile tradizioen benetako errotzea ekarri. Gerra zibilak euren ibilbidea bortizki eten egin zuenean, langile eta klase erakunde zein ideologiek ez zuten oraindik heldutasun nahikorik Nafarroan. Nekez berezko esparru soziopolitiko bat lortzen hasi berriak ziren eta ondorioz, oso zaila izan behar zuten, gerraren bitartean pairatutako errepresio gogorraren ostean, substratu kultural nabarmen bat uztea. Emilio Majuelok adierazi zuen bezala, Nafarroan, *“gerra zibila amaitu zenetik, berez, mugimendu sozial klasiko bakarraren iraunkortasunaz mintzatzen ahal gara soilik [...] nekazal [mugimendu] katoliko sozialaz. Gainontzekoak errepresio frankistak desagerrarazi zituen, 1936an, XX. mendearen lehen herenean garatu izan ziren kultura politiko liberal errepublikarrekiko eta langileekiko gertatu zen ezin gaudituko hausturak baieztatzen duenez”*<sup>1049</sup>.

Bigarren kapituluan ikusi genuen bezala, kultura politiko langile eta errepublikazalea ez da, orokorrean, gure protagonisten iraganean, hots, tradizio familiarrean eta hazi edota sozializatu egin ziren giroetan, agertzen. Hala ere, zenbait protagonistarengan, kultura hauen aztarnak ikusten ahal dira eta kasu asko ez diren arren, protagonisten artean tradizio kultural nagusienetarikoa bat ez den arren, esanguratsuak dira azaldu berri ditugun iruñar giro langile eta errepublikazaleetara eramaten gaituztelako. Ahozko iturriek, kultura hauen iraunkortasun oso lauso bat azaleratzen duten jarrerak edo sareak azalerratu dituzte. La Dolorosa prozesiora joateari uko egiteak edota hura kaletik pasatzerakoan etxeko leihoak ixteak, ileapaindegi batean egiten ziren lagunarteko hizketaldiek, denda txiki batean gertatzen ziren solasaldiek, liburu-denda batean isilka komentatzen ziren Ezkabako presondegiari buruzko istorioek<sup>1050</sup> edota gerra errepresaliatu baten alarguna

<sup>1048</sup> Hazkundera horrenbesterainokoa izan zen, Nafarroako UGTa, nagusiki nekazaria zen sindikatu batean bihurtu zela. Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y...” Op. Cit., 302 orr.

<sup>1049</sup> *Ibid.*, 305-306 orr.

<sup>1050</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07. Bigarren kapituluan ikusi dugun bezala, bere familia tradizio errepublikanokoa zen. Amaren familiari zegokionean, amona hiriko zirkulu errepublikano eta sozialisten oso gertukoa izandakoa zen. Aitaren familiari zegokionean, aita,aitona eta osaba, gerran Errepublikaren alde borroka egindakoak ziren. Aipatu denda,amonarena zen; prozesiora joan nahi ez zuena eta ileapaindegian Francori buruz eta politikari buruz aritzen zena, aita zen; Ezkabako presondegian gertatutakoa, aitaren lagun batek kontatu zion berak bizitako esperientziatik abiatuta.

arduraduntzat zuen kiosko baten aurrean bildu eta elkarri euren “istorio lazgarriak” kontatzen zizkieten emakumeen bilerek<sup>1051</sup>, iruñar errepublikazaletasunaren tradizioa bizirik gorde zuten. Alta, halako esperientziak ez dira berez Iruñerriko langile mugimenduaren eraketa eta ibilbidea bideratuko dutenak izango, horrela behintzat ikusten du protagonisten gehiengoak:

Nafarroan berez, ez da [industria] langile mugimenduaren tradizioirik existitzen. Hau da, langile mugimenduarekin erakunde tradizionalak, alderdi sozialista edota alderdi komunista adibidez, ia ez ziren existitzen. [JA.C.. CCOOeko militantea]

Hemen ez zegoen erakunde sindikal klasikoen tradizioirik, ezta? [...] hemen, nafar mugimendu sindikala berez... espero izatekoa da, ezta? Nafarroan industrializazioa ez dator lehenagotik, 60. hamarkadaren inguruan gertatzen da eta orduan hemen... hemen ez zegoen tradizio handirik... nik uste dut ba 36an, hemen zegoen tradizio sindikalista handiena, UGTa, suntsitzen dutela. UGTaren ehunka eta ehunka sindikalista arekatan amaitzen dute eta nik uste dut, tira, horrek eragina izan zuela [...] gu jende berria ginen, gaztea, eta ez genuen apenas iraganaren pisurik sentitzen. [M.B.. CCOOeko militantea. MCEko militantea]

1951ko udaberrian Iruñean greba orokor bat gertatu zen. Hainbat egunetan zehar hiria geldirik egon zen, langileek euren lanpostuak utzi zituzten, manifestazioak kaleetatik ibili ziren eta hiritarren eta polizien arteko liskarrak sortu ziren. Grebak oihartzun handia izan zuen, izan ere, lehenbizikoz erregimen frankista ezarri zenetik, langileria eta gatazka indarrez agertzen ziren Iruñean, erabateko ezustekoa gerran hasieratik garaileen aldean kokatu zen herrialde batean. Zerbait piztu zen Iruñean, baina ez zirudien 30. hamarkadako aipatu tradizio errepublikar hura izan zenik. Hori izan zen behintzat autoritate frankista ezberdinen ikuspuntua. Gobernadore Zibilak grebaren inguruan burutu zuen informazio txosten sakonean, langile erakunde politiko eta sindikal tradizionalak, hots, “elementu marxistek”, eraginik izan ez zutela iradokitzen da. Mugimenduaren probintziako buruordeak adibidez, grebak alde zureko antolatzaileak izatekotan, hauek, elementu marxistak izan ordez, elementu katolikoak izan behar zirela uste zuen. Iruñean elementu marxistak zeudela eta greban parte hartu zutela bazekiten. Aurreko klase tradizioekiko jarraitutasun ildo interesgarri bat seinalatuz, neskame gisara edo tailerretan lan egitera etorri ziren gerrako fusilatuen alabak edo senideak, “*erresumin handi*” batek gidatuta eta “*bizi izan ziren giroetan entzundako [erregimenarekiko] kritikek bultzatuta*”, greban euren sentimenduak azaltzeko eta oposizioko jarrerak hartzeko aukera aproposa ikusi zutela adierazten zuten<sup>1052</sup>. Baina hauek, gatazkaren bitartean, ez zuten nabarmentasun handirik izan. Ildo horretan, polizia-komisarioak eta polizia armatuaren buruak, ez zuen alderdi komunista grebaren antolakuntzaren arduraduntzat hartzen, alderdi komunista Nafarroan, berez, existitzen ez zelako. Klase erakunde tradizionalak protagonista ez ziren heinean, txostenak beste indar batzuen papera nabarmentzen zuen, paradoxikoki, Nafarroan matxinatuen euskarri izan ziren tradizionalismoaren eta Elizaren zenbait sektore<sup>1053</sup>.

---

<sup>1051</sup> A.G.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-12-22. Halako bilerak bere amonaren lagun taldeak burutzen zituen eta berak, behin baino gehiagotan parte hartu izan zuen solasaldi hauetan. Berak gogoratzen duenez, gerora, 70. hamarkadatik aurrera bereziki Iruñean manifestaldiak eta liskarrak areagotzen hasi zirenean, emakumeok mobilizazio guztietan parte hartzen zuten, gazteak babesteko poliziarri aurre egingo ziotelarik askotan.

<sup>1052</sup> “Informe sobre el desarrollo político-social de la huelga del 8 al 10 de mayo”, AGA-AAO, Presidentzia fondoak, 51-19015. kutxa.

<sup>1053</sup> Ildo berean egin dute irakurketa greba hau landu izan duten bi autoreek. José Luis Díaz Monrealek karlismoaren papera nabarmentzen du, *La huelga de...* Op. Cit., 130-131 orr. eta Aurora Villanuevak, apostolutzako erakunde katolikoena, “La sorpresa navarra...” Op. Cit., 145 orr.

60. hamarkadaren bitartean ere, langile erakunde politiko eta sindikal klasikoak ez ziren, Nafarroako autoritate frankistentzat, kontutan hartzeko oposizio indarra izan. Hamarkada hartako Gobernadore Zibilaren memorietan, esaterako, gai politiko eta sindikalen atalean, oso gutxitan aipatzen dira alderdi sozialista, alderdi komunista edo CNT-a<sup>1054</sup> eta gehienez jota, propagandaren zabalkundeari lotutako jarduera txikiren baten berri ematen da: *“PC[E]jak, CNT-FAlaren sindikalismoak, PSOEak eta UGTak ez dute inolako jarduerarik erakutsi, pertsona apolitikoei zuzendutako Mundo Obrero bezalako propaganda eskupaperen postazko bidalketa gutxi batzuk kenduta”*<sup>1055</sup>. Alor sindikalean bereziki HOAC eta JOC bezalako erakundeen presentzia nabarmentzen da, lan munduan oposiziozko ekintzak, greba batzordeak antolatzea kasu<sup>1056</sup>, burutzen zituztela adierazten delarik. Ez dago aurreko erakundeen edota euren militanteen inguruko aipamenik. Alor politikoan, arreta bereziki bi sektoreen artean banatzen da: tradizionalismoa eta nazionalismoa<sup>1057</sup>. Berriz ere, ez zaie langile alderdi tradizionalari apenas erreferentziarik egiten.

Ildo horretan, agintari frankistengan kezka gehien sortzen zuen oposizioa, herrialdearen berezitasun politikoetatik eratortzen ziren elementuek gauzatzen zutena zen. Erakunde Sindikalak adibidez, hemen, botere zentralaren eta tokian tokiko botereen artean, bizitza publikoaren alor desberdinetan (alor politikoan, ekonomikoan, sindikalen edota judizialean) nagusitasuna lortzeko lehia argia zegoela atzematen zuen<sup>1058</sup>. Nafarroa biziki politizatutako probintziatzat jotzen zen eta horretan noski, foruak zenbait momentutan “Madrilgo zentralismoaren” aurkako oposizio sortzen zuelarekin zerikusirik zuen. Botere zentralaren inposaketatzat jotzen zen neurri edo erabaki ororen arbuioa izan zen, hain zuzen ere, 60. hamarkadaren bitartean autoritate frankistak gehien kezkatu zituen oposizio modua. Alor sindikalean, Erakunde Sindikalak berak honela ulertzen zituen Nafarroako Langile Kontseiluaren eta autoritate sindikalen arteko liskarrak. Alor politikoan, oposizio modu horrek karlismoaren forma hartzen zuen, haren baitako zenbait sektore oposiziozko indar nabarmendu gisara seinalatuta izaten hasia zelarik.

Baina tradizionalismo karlista, egia esan, gainbeheran zegoen mugimendu soziopolitiko zen. Aurreko hamarkadetan izandako erabateko nagusitasuna galduta, barne zatiketa eta errealtate berrietara egokitzeke eraldaketa prozesu zailetan murgilduta zegoen. Sozialismo autogestionarioa izan zen prozesu hauetariko zenbaiten helmuga. Karlismoa, urte luzez izan zen Nafarroan erreferentzia politiko garrantzitsuena eta harreman sozialak egituratzen zituen elementu nagusia. Beraz, nafar landa mundutik etorritakoak edo Iruñean bertan jaiotakoak izan, Iruñerriko langileen parte handi batek, modu batean edo bestean, ordura arte hegemonikoa izandako karlismo horrekin lotura izan behar zuen halabeharrez. Bigarren kapituluaren ikusi genuen bezala, familia tradizioaren bitartez karlismoari lotuta zeuden subjektuak ditugu, XIX mendeko gerretatik jatorri karlista luzeko familietan hazi zirenak edota

---

<sup>1054</sup> AGA-AAOn, Nafarroako Gobernadore Zibilaren 1961-1971 bitarteko memoriak ikusteko aukera izan dugu. 60. hamarkadatik aurrera kontsultatu ahal diren guztiak dira; 1971koaz haratagokoak, ezin dira oraindik ikusi.

<sup>1055</sup> “Nafarroako Gobernadore Zibilaren Memoria: 1963. urtea”, AGA-AAO, Barne Arazaetako sailaren fondoa, 44-11461 kutxa.

<sup>1056</sup> “Nafarroako Gobernadore Zibilaren Memoria: 1965. urtea”, AGA-AAO, Barne Arazaetako sailaren fondoa, 44-11693 kutxa. Ordutik aurrera, ondorengo memorietan, beti egingo zaie aipamena HOACari eta kleroaren korrante aurrerakoari txostenaren lan munduari eta sindikalismoari buruzko ataletan.

<sup>1057</sup> Nahiz eta nafar populazioaren artean bi talde hauek erabat nagusi zirela pentsatu behar ez zela adierazten zen

<sup>1058</sup> M<sup>a</sup> Luisa Garde Etayo, “Sindicatos y sindicalismo en la Navarra de los sesenta”, Francisco Javier Caspistegui eta Carmen Erro (zuz.), *De agrícola a industrial 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 259-285 orr., 271 orr.

familia adar batean karlismoaren tradizioa atzematen zutenak eta baita, substratu kultural orokor kontserbadore eta erlijioso batetan oinarrituta, erreketekarekin gerra zibilean parte hartu zuen aita zutenak ere. Kontua da karlisten edo gerra beteranoen seme-alaba eta biloba zen protagonista hauetariko bat bera ere, ez zuela tradizio edo identitate karlista hori bereganatu. Bi kasu adierazgarri ditugu. M.S.S.-ren aita erreketekarekin borroka egin zuen gerran, karlismoak nekazal munduko herrietan egituratzen zituen harreman sareen bitartez errekrutatuta izaterakoan. Oinarritzko identitate karlista hura gerora bi modutara desegin zela ikusten dugu: alde batetik, aita berak, 70. hamarkadako hauteskundeetan, ezker iraultzailearen alderdiei bozka emango zien; bestetik, alabak, aitaren txapel gorria eta tertzio erreketekaren ikurrak gordetzen dituen arren, hauek berarekin zerikusirik ez dutela onartzen du<sup>1059</sup>. I.N.-ren amaren familia karlista zen, Atarrabiako zirkulu karlistaren arduradun izandakoa. Hala ere, ez zien euren seme-alabei tradizio hura transmititu eta are gehiago, alabak neskato karlistak biltzen zituen *Margaritas* erakundean parte hartzea eskaini ziotenean, ezetz esan zuen. Aitzitik, ez zuen arazorik izan hauek JOCen hasi zirenean<sup>1060</sup>.

Argi dago oinarriko karlismoan zerbait aldatzen ari zela. Karlismoaren oinarri sozialen eraldaketa nolakoa izan zen eta zein bideetatik gertatu zen egun ezezaguna da hein handi batean. Frankismoaren garaiko karlismoa azaltzen duten lan onak ditugun arren, hauek bereziki elite politikoak eta erregimenaren aurkako oposiziora eta sozialismo autogestionariara eramaten duten antolakuntza politiko karlistaren bilakaera dute aztergai<sup>1061</sup>. Gutxitan ekiten diote ordura arte karlismoa erreferentzia soziopolitiko nagusizat izan zuen jende arruntarengan tradizio eta identitate karlista nola eraldatu zen azaleratzera. Guk ere ez dugu egingo, baina auzi honi heltzeko baliozkoa izan daitekeen hausnarketa bat planteatzen ahal dugu: nola egokitu zen (edo ez zen egokitu) karlismoa hiri, industria eta klase errealtate berri batera? Izan ere, familian edo hazi ziren ingurugiro sozialean iragan karlista duten gure protagonisten esperientziak erakusten duenez, 60. hamarkadaren bitartean, oinarriko karlista askoren seme-alabek hirian, langile auzoetan eta fabriketan topo egin zuten eta marko sozial, ekonomiko eta kultural berrietara egokitu ziren<sup>1062</sup>, klase borroka errealtate bati erantzuten zioten identitate berrietan parte hartuz. Karlismoa jada ez zen baliozko identitate horietariko bat. M.A.M.-k karlismoaren bilakaeraz eginiko ondoko irakurketak abiapuntu interesgarri bat ematen du zentzu honetan:

[karlismoa] , nik uste, jada edukirik ez duelako hiltzen da, ez du inolako edukirik eta hiltzen da [...] egiatan, inor ez du inoiz "he dejado de ser carlista" esango, baina nabaritzen da, nabaritzen da, ezta? Gutxiagotan esaten dute "Viva el rey" eta hori... Eta orduan, nik uste... karlismoa... esan daiteke karlista batek inoiz ez diola karlista izateari uzten, baina bai bere karlismoaren neurria, ia-ia galtzen den arte, murriztuz doala. [izan ere orduan, karlismoak] jauzi bat eman behar du eta jauzi hori non dagoen oso argi dago. Non dago? Klase borrokan. Klase borrokaz

<sup>1059</sup> M.S.S.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-23.

<sup>1060</sup> I.N.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

<sup>1061</sup> Gai honen inguruan aipatu ditugu, adibidez, Francisco Javier Caspistegui, *El naufragio de...* Op. Cit. eta Aurora Villanueva, *El carlismo navarro...* Op. Cit. Aipagarria da ere Manuel Martorellek gerraosteko frankismoaz egin zuen azterketa, Batasun Dekretuak karlismoaren baitan eragin zuen atsekabean, sortu zuen barne zatiketaren eta azaleratu zituen erregimenaren aurkako lehen jokabideetan arreta jartzen duena: Manuel Martorell, *Retorno a la...* Op. Cit.

<sup>1062</sup> Zentzu honetan, José Vicente Iriarte Aresok nekazari jabe txiki eta beregainek, tailerretan eta fabriketan lanean hasten direnean eta makinak eta erramintak erabiltzen hasten direnean, karlista izateari uzten diotela eta karlista izaten jarraitzen duenak ikusmolde antikapitalistetatik eta sozialistetatik egiten duela esaten du. Karlismoaren bilakaeraz ikusi ere, antropologiaren ikuspuntutik, Jeremy MacClancy, "Navarra", Carmelo Lisón Tolosana (konp.) *Antropología de los pueblos del norte de España*, Complutense Unibertsitatea eta Kantabriako Unibertsitatea, Madril, 1991, 115-130 orr.

jabetzen den unean, batek karlista izateari uzten dio. [M.A.M.. HOACeko militantea]

Modu honetan, sozialismo autogestionariorako bilakaera, klase borrokaren errealitate berriari egokitzeko ahalegin bezala ulertzen ahal da. Mariano Zufia esaterako, tradizio luzeko familia karlista batetik zetorren. Gerraren bitartean matxinatuen alde egin zuen arren, gerraostean karlismo horretaz alden du zen jada berarekin identifikatzen ez zelako. Orduan bilakaera pertsonaleko prozesu bati ekin zion eta beste motatako ideiak bilatu zituen erreferentzia bezala. Kristaudi ikastaroak haren pentsamolde politiko eta erlijiosoaren bilakaera bizitzeko esparrua izan ziren, bertan gizarte justuago, askeago eta berdinzaleago bat lortzeko helburua barneratu zuelarik. Errealitate berrietarako egokitzapena bide erlijiosotik burutu ondoren, alderdi karlistarengana itzuli zen, sozialismo autogestionariorako bidean zegoenez, orain bai harekin identifikatzen ahal zelako<sup>1063</sup>.

### 6.2.1 “Ideologikoki birjina” zen langile mugimendu bat?

Ikusi dugun bezala, 60. hamarkadaren bitartean, langile mugimenduaren sorrera eta antolakuntza ia hutsetik egin zen, alderdi sozialistarekiko eta komunistarekiko harreman zuzenik izan gabe. Beraz, langile mugimendu hura, neurri handi batean “ideologikoki birjina”<sup>1064</sup> zela esan daiteke, klase ideologiei eta kultura politiko langileei zegokienean behintzat. Langile gutxiak zuen alde aurreko esperientzia sindikala eta ondorioz, ez zegoen abiapuntutzat hartzen ahal ziren lehenagoko militantzia sindikal edota politikorik. Militantzia haiei lotutako kultura, ideologia eta antolakuntza erreferenterik izan ez zuten, Iruñerriko langileek, guztia, hots, esparruak, langile kulturak, oinarri ideologikoak eta antolakuntza moldeak, sortu behar izan zuten. Hala ere, erakunde eta kultura politiko langile eta errepublikanoen elementuek nolabaiteko presentzia izan zuten, bereziki fabriketan lanean ari ziren militante nafar zaharren, ezkerreko familia tradizioen eta beste probintzietatik etorritako emigranteen eskutik. Baina hauek ez ziren klaseak, berez, langile mugimendua eratzen hasteko izan zituen erreferenteak izan:

Errepublikaren garaiko mugimendu sindikal txikia suntsitu egin zuten; eta ez zegoen tradiziorik [...] orduan “hutsetik” hasten ginen. [J.S.M.. CCOOeko militantea]

Nafarroako [langile] mugimenduak ez dauka tradiziorik. Hori oso kontutan hartzekoa da, ezta? Kataluniako langile mugimenduarekin [...] edota Euskal Herriko, *baskongadetako* langile mugimenduarekin alderatuta, Nafarroan ez dago langile mugimenduaren tradiziorik. Beraz, tradizioz langile mugimenduari lotuta ageri diren erakundeak, alderdi sozialista eta alderdi komunistak esaterako, ez ziren berez existitzen [...] Orduan hemen, tradiziorik ez duenez, langile mugimendua, sortzen da, ba ideologia desberdinetatik. Hori oso osagai garrantzitsua da. Ez da tradizio klasikoetatik sortzen [...] orduan langile mugimenduaren sektore aurreratuenaren hausnarketa hor sortzen da, mugimendu kristauetan. Baina antolakuntza bat beharrezkoa denez, gero hortik bilakaera bat egongo da... hau da, nafar langile mugimenduaren ideiak ideologia berriekiko oso irekiak dira, horregatik hemen ere nolabaiteko desbideratzea dago... beno, ba 68ko maiatza deitu izan zeneko ideologiaren *boom* guzti horretara. [Hauek] eragin handia izan zuten Nafarroan. Zergatik? Tradizio hori, adibidez alderdi sozialistarena edo alderdi komunistarena, ez zegoelako eta mugimendu kristauetatik beste motatako ideologietarako (ideologia komunistak bai, baina ez alderdi komunistaren lerrokoak) eraldaketa bat dagoelako. [J.A.C.. CCOOeko militantea]

Hau da, Iruñerriko langile mugimendua (bereziki CCOO) antolatu zuten talde eta militanteak, orduan eraikitzen ari zen kultura politiko berri batean murgilduta bizi izan

<sup>1063</sup> Carlos López López, *Biografía de Mariano...* Op. Cit., FIASEP, 32 orr.

<sup>1064</sup> Esapide hau I.B.-k erabili zuen eta oso adierazgarria iruditu zitzaigun. I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olaz, 11-08-02.

ziren. Hau, aurreko kapituluan sortzen ikusi dugun langile kultura kristauari oso lotuta egon zen hasiera batean, baina bere eratze prozesuak aurrera egin ahala, 1968ko maiatzetik edo Txinako iraultzatik eratorritako erreferente berriak barneratzen zituzten bestelako ideologiei ireki zen ere.

Frankismoaren garaiko langileriari buruzko historiografiak maiz, erabatean berria zen langile klase bat, hots, gerraren esperientzia bizi izan ez zuen eta haren oroimena erreferentetzat ez zuen klase berri bat, sortu zela azaldu izan du. Haren sorrerari buruzko azterketetan, iraganarekiko haustura nagusi zen eta aurreko tradizioen jarraitutasuna, planteatu ere ez zen egiten, protagonistek ez omen baitzuten aztertzen ahal zen inolako alde aurreko tradiziorik. Noski, langile militante berriak ez ziren ezerezetik sortu eta Rubén Vega edo Xavier Domènech bezalako autoreek, azken urteotan, langile mugimendu berrian bizirik iraun zuten gerra aurreko langile tradizioen elementuak azaleratu egin dituzte. Biak, langile klasearen eraketa prozesuan zaharraren eta berriaren, hausturaren eta jarraitutasunaren, arteko harremana uste baino konplexuagoa izan zela esatean bat datoz, tradizioak euren planteamenduetan tokia hartu izan duelarik. Xavier Domènechentzat tradizio hori bide desberdinetatik iritsi zen langile berriengana, beraz, hauengan tradizio haren berezko jokamoldeak ikusten ahal dira<sup>1065</sup>. Bide hauek, besteak beste, familia giroan bizi izandako errepresioaren esperientzia (familiaren tradizio edo kultura politikoaren transmisioa), arrazoi politikoengatik burututako emigrazioa eta fabrikaren esparruan ematen zen langile berri eta militante zaharren arteko elkartrukea izan ziren. Iruñerrian, tradizioen transmisiorako bide hauek, ez zuten modu berean funtzionatu. Ez behintzat gure subjektuen gehiengoaren kasuan. Nafar familiek gutxitan izan zuten klase tradizio bat haiei transmititzeko. Arrazoi politikoengatik Iruñerako emigrazioa ez zen kopuruz oso garrantzitsua izan. Fabriken baitan langile berri eta militante zaharren arteko kontaktuak gertatu ziren, baina azken hauek, bai gerra aurretik langile erakundeen indarra oraindik handia ez zelako eta baita errepresioak hauen garbiketa ikaragarria egin zuelako ere, gutxi ziren berez.

Ildo berean, Rubén Vegak, belaunaldi berrien klase tradizioaren ikaskuntza prozesua familietan, auzoetan eta fabriketan barna sortutako sareen baitan eman zela planteatzen du. Izan ere, sare hauei eta berauen bitartez gauzatu ziren transmisioei esker, ordura arte ezkutatuta egondako langile erakundeak, kultura sindikalak, identitateak eta atxikitze ideologikoak azaleratu ziren<sup>1066</sup>. Familien baitan ematen zen belaunaldi desberdinen arteko elkartrukea, transmisio hura nola ematen zen ikusteko adibide adierazgarri bat da. Frankismoa besterik ezagutzen ez zuten gazteak oposizio mugimenduetan militatzera eramaten zituen faktoreen artean, euren aurrekoen eskutik erregimenaren kontrako baloreetan sozializatzen zirela nabarmentzen da. Azken batean, euren ingurugiro hurbilean barneratzen zuten diktadurarenganako ezinikusiak, antolakuntzaren bidea jarraituzera eramaten zituen sentimendu hura gauzatzeko modu bezala. Modu honetan, maiz gertatzen zen anarkista izandako aiton-amonak edukitzea, 60. hamarkadako gazteak erakunde komunistetan sartuzera eramaten zituen lehenbiziko arrazoia izatea, nahiz eta doktrina koherentziari zegokionean, aiton-amonak, hautabide hura, euren idealekiko leialtasun erakustalditzat baino, traiziotzat jotzen ahal zuten<sup>1067</sup>. Familiak transmititzen zuen ondareak, zentzu honetan, frankismoaren kontrako sentimendu bat, errepresioak eragindako oinazearen kontzientzia bat eta berdinaletasunean eta justizia sozialean oinarritutako corpus ideologiko orokor bat barne hartzen zituen eta era berean, komunismoari, sozialismoari edota anarkismoari atxikitzeko balio zuen.

<sup>1065</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 31 orr.

<sup>1066</sup> Rubén Vega, "Entre la derrota..." Op. Cit., 186 orr.

<sup>1067</sup> *Ibid.*, 187 orr.

Familiaren baitan gertatzen zen iraganaren transmisioaren bitartez belaunaldien artean bermatzen zen tradizioen jarraitutasuna, langile mugimenduaren kasuan, atxikimendu ideologikoak erabakitzeo eta militantziarako gogoia pizteko garrantzitsua izan bazen, oso bestelakoa izan zen ikasle mugimenduaren kasuan familiaren tradizioak nola eragin izan zuen. Bitxiki, gure subjektuetariko asko, zentzu honetan ikasle mugimenduaren ereduaz gertuago daude langile mugimenduaren ereduaz baino. 50 eta 60. hamarkadetako ikasleen jatorri sozialak eta familia iraganak, egiak, ez zuten langile militanteek zituztenekin zerikusirik. Ikasle mugimenduaren kasuan, jarraitutasuna baino, gurasoen ideia eta leialtasun politikoekiko erabateko haustura bat gertatzen da, orduko ikasleria, hein handi batean, gerra zibileko garaileen seme-alabez osatuta baitzegoen. Orokorrean, polizien, militarren, alferezen edota bestelako soldadu ohien hala nola enpresari handi eta burges txikien seme-alabak ziren eta honek askotan, ikasleek bere egingo zuten gogo ezkertiarra eta langile diskurtsoa piztu egiten zuten, oztopatu beharrean. Iruñerriko langile askoren familia iragana, hain zuzen, hori bera zen. Gerra garaileen seme-alabak ziren ere eta euren familia tradizioak, ordura arte Nafarroan nagusi izandako hautabide soziopolitikoek, hau da, erlijiozaletasunari eta tradizionalismoari, lotutakoak ziren. Beraz, ikasleek egin bezala, Iruñerriko langileek, familiarengandik jasotako iraganarekin hautsi zuten, ondare horren eraldaketa sakona burutuz. Erlijiozaletasuna, aurreko kapituluan ikusten genuen bezala, langile giroetan hautsi, eraldatu eta berriro zen nafar tradizioaren adibide adierazgarria izan zen.

Langile militante zahar eta berrien arteko jakintza praktiko eta politikoen arteko elkartrukea, hau da, iraganeko ondarearen eta orainaldiko bizipenen arteko eragin-trukea, langile alderdi eta sindikatuak gerra aurretik ongi errotuta zeuden tokietan errazago gertatu zen. Hauetan, langile erakundeek euren oinarri sozialen artean lortu zuten eragin kultural eta ideologiko garrantzitsuak, *“frankismoak erabili zuenaren moduko kirurgia zorrotz batek ere erabatean erazi ezin duen memoria eta leialtasun ondare”* bat sustraitu zuen eta honek, gerraren ostean langile ideiak eta baloreak azaltzeko sozializaziorako zenbait esparru eta elkartasun sare bizirik irautea posible egin zuen<sup>1068</sup>. Alta, eskema hau ezin zaie, gerra aurretik klase erakundeen presentzia garrantzitsua ez zuten tokiei edota migrazio mugimenduek eta eraldaketa ekonomikoek erabatean eraldatu zituzten komunitateei modu berean egokitu. Iruñean adibidez, gerra aurretik errotzerik izan ez zutelako eta gerraren bitartean errepresio oso gogorra pairatu zutelako, klase erakundeek ez zuten apenas tradizioa transmitituko zuen elementurik edo eragilerik izan. Madrilen, hiriak eta haren industria gerrikoak 50. hamarkadatik aurrera bizi izan zuten immigrazioak eta industria abiatzeak, funtsean 30. hamarkadakoaz desberdina zen langile klase bat sortu zuten. Ia erabatean iritsi berria zen populazioaz osatutako auzo eta herri berri asko sortu ziren eta berauetan, alde aurretik partekatutako tradizioak eta memoriak eskasak ziren, transmititzen ahal ziren berezko ohiturak existitzea zaila zelarik.

Orokorrean, transmisioak gertatu zirenean, erraza izan ohi da berauetatik eratorritako jarraitutasunak azaleratzea. Prozesu hauek langile mugimendu “berriaren” bilakaeran izan zuten garrantzia balioztatzea ordea, askoz zailagoa da. Izan ere, kontutan izan behar dugu langile militante berriek jasotzen zuten ondarea, hauei kohesiorako elementuak, jokaera ereduak edota erreferente sinbolikoak ematen zizkien arren, errealitate berrietara, hots, diktadurak erabatean aldatu zuen kontestu berri batetara, egokitu behar zela eta egokitzapen honetan, iraganeko erreferente ideologikoak eta antolakuntza moduak maiz, giro eta baldintza berrietara hobe moldatzen ziren hautabide berrien mesedetan, bigarren maila batean geratzen zirela. Zentzu honetan, tradizioaren transmisio prozesuak kontestu erabat berrietan gertatzen

---

<sup>1068</sup>Rubén Vega, “Entre la derrota...” Op. Cit., 194 orr.



ziren heinean, kultura politiko zaharren moldatze hura, marko berrietara oso ongi egokitzen ziren erakundeen gorakadarekin batera eman zela esan daiteke.

Frankismoaren bitartean, militante belaunaldi berrientzat erreferentziazkoak izan ziren kultura politiko nagusienak, bi izan ziren: kultura komunista eta langile kultura kristaua<sup>1069</sup>. Batak zein besteak langile antolakuntza forma berrien sorreran, bereziki CCOOen jaiotzan, izan zuten papera, honen adibiderik argiena da. Biak, militante belaunaldi berri baten sorreraren oinarrian egon ziren, esparruak partekatu zituzten eta erakunde eta borroka berberetan parte hartu zuten. Hala ere, bien artean desberdintasun handi bat zegoen: langile kultura kristaua oraindik sortze prozesuan zegoen kultura zen bitartean, kultura komunista jada ideologikoki zein politikoki oso definitua zegoen eta 50. hamarkadaz geroztik, berezko garapen estrategiko eta taktiko bat zuen kultura zen. Desberdintasun honek, ingurugiro zehatz batean marko berriei hobekien egokitzen zen hautabidea bata ala bestea izatea baldintzatzen ahal zuen.

Kultura komunistaz, bere erreferente internazionalak, historikoak eta ideologikoak zeintzuk ziren jakina zen. Beraz, kultura horretan parte hartzearekin, militanteak erreferente haiekin bat egiten ari ziren. Baina Nafarroan, hain zuzen ere kultura komunistaren erreferenteak horren ezagunak izatea<sup>1070</sup>, alderdi komunistaren garapena baldintzatu zuen faktoreetariko bat izan zen. Klase ideologiak errotu ezin izan ziren herrialde batean, langile kultura kristauak errazagoa izan zuen ingurugirora moldatu eta langileriarentzako erreferentziazko esparru soziopolitiko nagusienean bihurtzeko. Izan ere, “ideologikoki birjinak” ziren langile militante berrientzat, errazagoa izan zen sortzen ari zen kultura politiko batean parte hartzea, jada oso definituta agertzen zen beste batean parte hartzea baino. Ildo horretan, langile kultura kristauak, kultura komunistak ez zuen abantaila zuen: tokian tokiko idiosinkrasia erlijiozalearekin konektatzen zuen, marko berriek eskatzen zuten bezala, honen eraldaketa gauzatzen zuen bitartean. Nafarroan langile kultura kristauak komunistari nagusitu zitzaiola adierazten duen fenomenoetariko bat, eraldaketa prozesu horren emaitza izan ziren ezker iraultzailearen taldeek, 70. hamarkadaren lehen erdialdean, nafar langile mugimenduaren baitan izan zuten nagusitasuna da. Azken batean, “*militantziak tokian-tokiko markoetan garatzen direnean, gehienen hautabide politikoak, metabolizatze estrategiko, taktiko eta propagandistikorako esparru bezala duten erabilgarritasunaren arabera, [tokiko] errealtateetara hobe moldatzen diren aukeretara bideratzen dira*”<sup>1071</sup>, eta hemen, Iruñerrian, metabolizatzerako esparru erabilgarrienak, langile erakunde kristauak ziren,

Dena dela, sozializazio antifrankistarako gune nagusia zen heinean, alderdi komunista, metabolizatzerako esparru hori izan zen estatuko beste herrialde askotan. PCEak gizarteratze soziopolitikorako erreferentziazko eragile gisara lortu zuen arrakastak, nolabait, memoriaz eta kulturaz beste, klandestinitateko militantziak itxuratzen zituen beste faktore bat azaleratzen du. Frankismoaren bitartean, langile militanteek egiten zituzten antolaketa hautabideek, lantokietan edota norberaren harreman sareetan gauzatzen ziren lidergoekin eta egunerokotasunean abiatzen ziren ekintzarako proposamenekin zerikusirik izan zuten [batez] ere. Ildo horretan, alderdi komunista, langile mugimenduaren lehen erreferente soziopolitiko bihurtu zen,

<sup>1069</sup> Xavier Domènechek berez, lau bereizten ditu: sozialista, anarkista eta aipatu kultura komunista eta langile kultura kristaua; baina azkeneko biak, hain zuzen ere, espainiar klase herrikoien artean ibilbiderik luzeenak ez zituztenak, errealtate berrietara hobekien egokitzen jakin zutenak izan zirela azaltzen du. Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 45-46 orr.

<sup>1070</sup> Kultura komunistaren erreferente ezagun adibide adierazgarriak ikusteko, Xavier Domènech, “Comunismo y antifranquismo: una aproximación”, María Encarna Nicolás Marín eta Camen González Martínez (koord.), *Ayeres en discusión: temas clave de historia contemporánea hoy*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia, 2008, CD formatua.

<sup>1071</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 48 orr.

antolakuntza, protesta eta borroka marko berrietara egokituta, kezka sozialak zituen elementu orori hauek bideratzeko abagune bat (ia bakarra) ematen ziolako. Horregatik, hain zuzen, lortu zuen langile mugimenduaren bestelako korronteen ondareetatik zetozen elementuak erakartzea, beste kulturetatik (kultura anarkistatik, sozialistatik) komunismora igarotzeak, berez, jardunean ez zeuden kulturetatik, kultura aktibo batetara igarotzea suposatzen zuelako<sup>1072</sup>, hots, alderdi komunista funtzionatzen zuen esparru bakarra zelako. Joe Forewakerrek, antzeko ondorioak ateratu zituen Cadizen PCEa sortu eta garatu zuten militantzia sarea aztertu zituenean. Azaldu zuenez, alderdia, erreferentziatzko esparru bezala nagusitu zen militanteei borrokarako eraginkorra zen antolakuntzarako eta koordinaziorako egitura bat eman zuelako, izan ere, toki askotan, Francori aurre egin nahi zieten aukera politiko bakarra zen<sup>1073</sup>. Iruñerrian ez zen, berez, horrela gertatu.

## 6.2.2 Alderdi komunistaren “hamarkada iluna”

Gerra zibilaren aurretik alderdi komunistaren esperientzia Nafarroan murrizta izaterakoan, ezin izan zuen, gerrak eragindako errepresioaren ostean, egitura antolaturik mantendu. Alderdiak, hartara, oso zaila izan behar zuen Iruñerriko langile mugimenduaren hasierako zirkuituaren parte izatea. Ia 60. hamarkada osoan zehar, fabriketan langile antolakuntzarako forma berriak garatu ziren unean, PCEa militante gutxi eta jarduera eskasa zuen zelula txiki antolatu bat izatera baino ez zen iritsi. Bere egiturak oso ahulak ziren, zituen lider gutxien atxiloketek eta erorikoek kalte handia egin ziotelarik<sup>1074</sup>. Ondorioz, ez zen masa mugimendu gisara garatu 70. hamarkadaren hasieran Unibertsitate ikasle talde batek bultzada garrantzitsu bat emango zion arte<sup>1075</sup>. Beraz Nafarroan alderdi komunista ez zen gizarteratze soziopolitikorako esparru, metabolizatze esparru edota langile militantziarako erreferentziatzko esparru izan. Hemen paper hori, hasiera batean, apostolutza mugimenduek bete izan zuten. Alderdi komunistak Iruñerrian sozializaziorako esparru bihurtzeko izan zuen ezintasuna ikusteko, jarraian, Nafarroako PCEari buruzko azterketa labur bat egingo dugu.

Egun oraindik gutxi dakigu nafar alderdi komunistak frankismoaren bitartean izan zuen bilakaeraz. Andrés Herrerak PCEaren historiari buruzko I. Kongresuan aurkeztu zuen komunikazioaz beste, ezer gehiago argitaratu da haren inguruan. Autore honek berak, lan hartan, hainbat gako ematen zituen hutsune historiografiko hau azaltzeko: alderdiaren gerra aurreko antolakuntzaren ahultasuna, errepresioa, Monzónen kasuak (traizioz salatua izan ondoren, alderdiaren baitan haren kontra abiatu zen prozesua) izan zuen eragin negatiboa eta talde ezkertiarrek langile borroketan gauzatu zuten lidergo agerikoagoa<sup>1076</sup>. Hauei, alderdiak 60. hamarkadaren bitartean Nafarroan izan zuen presentzia txikia eta langile mugimenduaren baitan izan zuen protagonismo eskasa gehitu behar diegu. Guzti honek, PCEaren figurarenganako nolabaiteko interesik eza eragin du. Gainera, presentzia eta jarduera txiki batek arrasto txikia uzten duen heinean, hura esparru bezala berregitea zailtzen du nolabait. Baina

<sup>1072</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 46-47 orr.

<sup>1073</sup> Joe Forewaker, *La democracia española. Los verdaderos artifices de la democracia en España*, Arias Montano editores, Madril, 1990, 26 orr.

<sup>1074</sup> Francisco Sánchez Cortázarren kasua izan zen. Nafarroako alderdi komunistako militante nabarmendua izan zen, CCOOen sorreran parte hartu zuen eta goiz hasi zen Sindikatu Bertikalean, Metalaren Sindikatu Sail sozialaren lehendakari izatera iritsi zelarik. Hala ere, Iruñean, alderdiak ez zuen hemen egitura antolaturik eta isolatuta lan egin behar izan zuen. Horregatik, bere jarduera militantea lan mendumu dinamizatzeko, apostolutza mugimendu sekularretako elementuekin batera aritu zen. Erakunde nafarraren erreferente nagusia, atxilotua izan zenean, hain zuzen ere alderdia berrantolatzen hasia zela, gainontzeko militante komunistak barreiatu egin ziren. Andrés Herrera, “De la célula...” Op. Cit., txostenaren 9-10 orr.

<sup>1075</sup> Andrés Herrera, “De la célula...” Op. Cit., txostenaren 15-16 orr.

<sup>1076</sup> *Ibid.*, txostenaren 1. orr.

hori egitea izan da, hain zuzen, gure asmoa eta horretarako, PCEaren Artxibategi Historikoaren fondoak erabili ditugu. Hauetan, alderdiak 60. hamarkadaren bitartean Nafarroan izan zuen antolakuntza hutsunea, hutsune dokumental bihurtzen den arren (bildutako dokumentazio kopururik handienak 50. hamarkadaren amaierari eta 60, hamarkadaren amaierari dagozkie), Iruñeko antolakundeari buruko hainbat txosten aurkitu ditugu eta hauei esker, PCEak hemen jarduteko izan zituen harreman eta esparru sareak berrosatzerik izan dugu nola edo hala. Era berean, hauen bilakaera nolakoa izan zen eta bilakabide hartan topatu zituzten zailtasun nagusienak zeintzuk izan ziren azalertzeko aukera izan dugu ere.

1956an Iruñeko alderdiaren egoeraren berri emateko burutu zen txosten batean, PCEak Nafarroan hazkunderako aukerak bazituela zirudien<sup>1077</sup>. Lau kidek osatzen zuten tokian tokiko komite bat zegoen eta honen inguruan, hamabost militante eta kontaktu zein aldekoen zirkulu zabal bat. Alderdiak beraz, oinarrizko egitura bat zuen, funtsean militante zaharrek (komunistak zein beste langile indarretako militanteak) eta hauek kartzeletan (komiteko kide eta militante gehienak kartzelaratuak izandakoak ziren) sortu zituzten harreman sareek osatzen zutena. Deskribatzen den erakundea ia erabatean militantzia zaharren hondarretatik osatutakoa da, oraindik militantzia berriak erakartzea lortu ez zela ondorioztatzen ahal delarik. Esate baterako, aipatzen diren militante guztietatik, baten kasuan bakarrik zehazten da gaztea zela eta polizia fitxarik ez zuela. Alderdi komunistaren garapena Nafarroan, honela, militante zaharren eta hauek militante berriak erakartzeko izango zuten gaitasunaren esku zegoen. 50. hamarkadaren erdian bide onean zeudela ematen zuen, militante komunistak lantoki garrantzitsuetan eta hiriko giro desberdinak zeharkatzen zituzten harreman sareetan ongi kokatuak baitzeuden. Lehenengoei dagokienean, zerratoki bateko arduradun bat, iturgin bat, futbol talde bateko masajista bat, txofer bat eta kontulari bat aurkitzen ahal ziren arren, gehienak fabriketako eta tailerretako langileak ziren, hauen bitartez, alderdiaren presentzia hiriko lantoki garrantzitsuetan bermatua zegoelarik: zerratoki batean, Renferen tailerretan eta fabrika desberdinetan, handietan (bostehun langileko batean) eta txikiagoetan. Lantegi hauetariko bitan gainera, elkarrekin lan egiten zuten hainbat kamarada fabrika zelula txikiak sortzen hasiak ziren. Harreman sareei dagokienean, Iruñea bezalako hiri txiki batean, alderdiaren eragina zabaltzeko bitarteko gisara erabiltzeko aukera onak zeudela estimatzen zen. Familia sareen bitartez, hainbat zale (militanteen neska edo mutil-lagunak, anai-arrebak, koinatuak) lortuak zituzten eta harreman edo adiskidetasun sareen bitartez, bestelako erakundeetako edo giroetako elementuekin, hots, militante sozialistekin, talde errepublikazaleekin, nazionalistekin, intelektualekin (medikuak, laborantza teknikariak, abokatuak) edota HOACarekin, kontaktuak.

Erreferentziazko esparru bezala itxuratzeko aukera hau ordea, ez zen gauzatzera iritsi. 1960 urtearen hasieran, aurreko urteko abenduan Pragan izan zen PCEaren VI. kongresuan parte hartu zuten ordezkariak atxilotuak izan ziren. Kolpeak gogor jo zuen Nafarroako antolakundea, bereziki atxilotetak ahalbidetu izan zituen poliziaren isilmandataria, kongresu hartan izan zen Nafarroako ordezkaria izatea litekeena denean<sup>1078</sup>. Erorikoak hutsune bat utzi zuen Iruñeko antolakundean eta 1967ra arte ez zen berriz ere beste zelula komunistarik egon hirian. Alderdia 1960-1967 bitartean desagertuta egon zen nolabait, langile mugimenduaren antolakuntza forma berrien sorreran, garapenean eta egonkortzean, egitura antolatu bezala (militante barreiatuak zeuden), presente egon ez zelarik. Hutsune luze honek, erorikoaren ostean alderdia bere egiturak berrosatzeko gai izan ez zela, hots, militantzia berriengana iristerik izan ez zuela erakusten du. Bitartean, apostolutza

<sup>1077</sup> "Informe de (31) sobre la organización del P en (32) [1956]". AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 361 Jaq.

<sup>1078</sup> Andrés Herrera, "De la célula..." Op. Cit., txostenaren 6 orr.

mugimendu sekularrak eta langile kultura kristauak, azpiegitura eta kultura faktoreen eskutik, Iruñerriko langileentzako erreferentziazko elementu nagusi bilakatzen ziren. Gure protagonistetariko biren ibilbide militanteetan, oso agerikoa egiten da egoera hau. Biak, Andaluziatik etorritako emigranteak ziren, alderdi komunistari edo klase ideologiei lotutako iragana zuten eta Iruñera iristerakoan ez zuten inon alderdi komunistak topatzerik izan. Horregatik, bien gizareratze soziopolitikorako esparrua, langile mugimendu antolatutako sarbidea, Zentro Marianoa izan zen<sup>1079</sup>. Kasu hauetan, hartara, alderdikoa azkeneko militantzia izango da, behin zirkuitura egokitzeko eta haren sareetan kokatzeko bestelako baliabideak erabili behar izan dituztela (60. hamarkadan) eta sustraietarako itzulera izango balitz bezala (70. hamarkadan):

Gehien bat tradizioarengatik izan zen, noski, bestela, beste edozein tokitara hurbiltzen ahal nintzen, ezta? tradizioa zen bai, ni alderdi komunistako jendearen bila ari nintzen [...] hamahiru edo hamalau urterekin, [herrian, Jaenen] klandestinitatean biltzen ginen eta orduan noski, hona etorri eta hasieran nora ezean ibiltzen zara, baina gero, argi pixkat ikusten duzun momentuan... orduan haien bila ibiltzen zinen, esan ohi den bezala, sustraian bila. [A.H.R. PCEko militantea]

Hala ere, 60. hamarkadaren bitartean Iruñeako PCEak militante garrantzitsuak izan zituen, baina barreiatuta eta isolatuta zeuden. Francisco Sanchez Cortázar, figurarik adierazgarriena izan zen urte hauetan. Bere izena jada hainbat esparrutan agertu zaigu, izan ere, HOACeko GOESetan parte hartzen, Metalaren Sindikatu sail sozialaren lehendakari paperean, Nafarroako Langile Kontseiluko batzordekide bezala eta CCOO sustatzen ikusi dugu. Ia militante komunistak ezagun bakarrik izan zen 1964ean Jacinto Ochoa, kamarada zahar bat, Juventudes Socialistas Unificadaseko militante, Ezkabako presondegiko iheslari eta Burgoseko espetxean alderdiko buru izandakoa, kartzelatik atera eta Iruñera itzuli zen<sup>1080</sup>. 1967an, txosten berri batek, Sanchez Cortázarren eta Ochoaren eskutik Iruñean nukleo edo zelula bat sortzen ahal zela nabarmentzen zen<sup>1081</sup>. Hiru kidek (Sanchez Cortázar, Ochoa eta hirugarren pertsona bat) osatutako komite txiki bat martxan zegoen eta haien ingurura, taldetxo bat "tertulia" irregular batean biltzen zen gaurkotasan-arazoaren inguruan aritzeko. Honekin batera, talde hartako kideek hiriko giro eta lagunarte antifrankista desberdinetan zituzten harreman edo kontaktuak alderdiari bultzada berri bat emateko erabiltzen ahal zirela aurreikusten zen. Baina urte hartan ez zegoen oraindik ekintzak prestatu eta ardurak banatuko zituen antolakunde definitu eta egonkorturik. Hala eta guztiz ere, militante komunistek, euren presentzia nabarmentzeko aukera izan zuten. Maiatzaren lehenean manifestazio bat egon zen apostolutza erakunde kristauak Labrit frontoian urtero antolatzen zuten mitinaren ondoren. Aipatu txostenean aipatzen denez, manifestazio hura, alderdi komunistaren tokian tokiko komite txiki haren ekimena izan zen, honen amaieran, Sánchez Cortázarrek berak, Madrilgo CCOOek eginiko proposamenetan oinarritutako komunikatu bat irakurri zuelarik<sup>1082</sup>. Jarduera honi jarraipena eman nahian, militante komunistek, CCOOen Koordinakunde Orokorrak urte hartako urrian deitutako borroka egunean parte hartzeko deialdia egin zuten Iruñean. Ez zuten arrakastarik izan<sup>1083</sup> eta gainera Sánchez Cortázar atxilotua eta espetxeratua izan zen. Nafarroako antolakundearen ardatz nagusia zen

<sup>1079</sup> M.BU.-ri eta A.H.R.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2014-05-20 eta 2014-08-19, hurrenez-hurren.

<sup>1080</sup> Andrés Herrera, "De la célula..." Op. Cit., txostenaren 7 orr. Jacinto Ochoaren figuraz gehiago, José Luis Díaz Monreal, *Jacinto Ochoa, la...* Op. Cit.

<sup>1081</sup> "Informe de Félix. Viaje a Pamplona. Mayo 1967", AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 601 Jaq.

<sup>1082</sup> *Ibid.*

<sup>1083</sup> Apostolutza mugimendu sekularrek ez zuten parte hartu eta militante komunistak bakarrik geratu ziren. Andrés Herrera, "De la célula..." Op. Cit., txostenaren 9 orr.

heinean, bere erorikoaren ostean, berriz ere, militanteak barreiatu eta egiturak desegin ziren.

1969 urtearen amaieran, Eulalio Tamames, antolakundean alde zuzeneko esperientzia zuen militante zahar bat, Iruñera iritsi zen. Marseillatik zetorren. 70. hamarkadaren hasieran hasi zen Potasasen lanean, hiriko enpresarik handiena izateagatik eta langile mugimendu jaio berriaren erdigune nagusienetarikoa izateagatik, PCEak bertan presentzia lortu behar zuelako. Zerbait geroago, Gipuzkoatik, Zumarragako Orbegozo enpresatik, lan gatazka batean protagonista izateagatik errepresaliatuta izandako militante komunista talde bat iritsi zen. Laster sartu ziren Iruñeko antolakundean. 1970ko data duen nafar antolakuntzari buruzko hirugarren txosten batek, PCEaren etapa berri hau deskribatzen du<sup>1084</sup>. Bertan jasotzen den informaziotik, alderdi komunistak, 60. hamarkadan zehar militantzia berrientzako erreferentziazko esparru gisara itxuratzeko izan zituen zailtasun nagusiak ondorioztatzen ahal ditugu. Momentu hartan antolakuntza egiturak suspertzen ari ziren kamaraden artean, ez zegoen ez bigarren kapituluan azaldutako Iruñeko gazteriaren edota nafar landa munduko emigrantearen profilerak egokitzen zen langilerik, ez eta Iruñean 60. hamarkadaren bitartean osatu ziren militante berrien labealdietatik irtendakorik ere. Aitzitik, guztiek alde zuzeneko esperientzia zuten alderdian: espetxean antolatu ziren militante zaharrak ez zirenean (Jacinto Ochoa), Frantziatik jada alderdikoak izaten etortzen ziren militanteak ziren (aipatu Tamames edota Bordeletik etorri berria eta nahiko gaztea zen nafar bat) edota Orbegozokoa bezalako antolakuntzazko eta borrokazko esperientzia zuten batekin etortzen ziren. Honek, 60. hamarkadaren bitartean PCEa Iruñeko belaunaldi berrien militantzia soziopolitikorako sarbide izan ez zela, hots, militantzia berriak alderdian gizarteratu ez zirela, adierazten du nolabait.

Elkarri eragiten dioten bi faktorek azaltzen dute ezintasun hau: lehenbizikoa, militante aktiboak izan zituen arren eta gutxieneko jarduera bat garatu zuen arren (1967ko maiatzaren leheneko manifestazioaren antolakuntza, CCOOen sorrera), berez antolakuntza egitura indartsurik eta garrantzitsurik ez zuela (erakunde bat baino, "militante artxipelago txiki" bat zen<sup>1085</sup>); bigarrena, bereziki Iruñeko jendeak sortutako sareetatik eta zirkuitutik at geratu zela. Egiazki, hein handi batean militante iruñar zein nafarrek euren berezko sareetan osatu zuten langile mugimendu batean parte hartzea, oso zaila izan zen zirkuitu horretarako sarbiderik ez zuen antolakunde batentzat<sup>1086</sup>:

Iruñeko jende gutxi zegoen, jende gutxi. Orduan Iruñean Mugimendu Komunista zegoen [MCE] eta honek Iruñeko jende gehiena bereganatzen zuen. Eta gero ere ORT-a hasi zen, eta Iruñeko jende asko bereganatzen zuen ere... eta emigrante asko ere. Baina orduan bai, Iruñeko jendea gehien bat han zegoen, Mugimendu Komunistan. [A.H.R. PCEko militantea]

1970 urtetik aurrera, antolakundeak abiada hartu zuen. Orduan Sánchez Cortázar espetxetik atera zen eta Madrilen ikasle zela alderdian antolatu zen Paco Jimenez, Iruñeko nukleoarekin bat egin zuen. Bultzada berri honekin, antolakuntza egiturak egonkortu egin ziren, 70. hamarkadaren lehen erdialdean behin-betiko helduko eta sendotuko ziren arte. PCEak azkenean "hamarkada ilun" bat uzten zuen atzean.

---

<sup>1084</sup> "Informe sobre cuadros en Navarra (1970)", AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 667 Jaq.

<sup>1085</sup> Andrés Herrera, "De la célula..." Op. Cit., txostenaren 10 orr.

<sup>1086</sup> Hainbatetan aipatu den 1956 alderdiaren antolakuntzari buruzko informazio txostenaren ikusten ahal den bezala, alderdiko militante zaharrek bazituzten gutxieneko harreman sare eta eragin esparru batzuk. 60. hamarkadan zehar militantzia berriak sortuko diren sare eta esparruetan ordea, ez zuen apenas presentziarik izan.

### 6.2.3 Apostolutza mugimendu sekularretatik ezker iraultzailera

Alderdi komunistak bere “hamarkada ilun” hura bizitzen zuen bitartean, bestelako indar eta subjektuek Iruñerriko langile mugimendua eratzen zuten. Apostolutza mugimendu sekularrak eta militante kristauak izan ziren protagonista prozesu horretan ez bakarrik mugimenduaren antolakuntza forma berrien sorreran paper aktibo bat izan zutelako, baita sortu zituzten sareek, hauek bai, militantzia berriengana iritsi eta gizarteratze soziopolitikorako egiazko sarbide izan zirelako ere. Arestian, militante belaunaldi berrientzat erreferentzia izan ziren kultura politikoez aritzerakoan, langile kultura kristaua oraindik sortze prozesuan zegoela aipatzen genuen. Iruñerriko langile klasea bera ere sortze prozesuan egotea eta horretan abiapuntu gisara erabiltzeko alde zureko ideologia, militantzia edota antolakuntza erreferenterik ez izatea, faktore erabakigarriak izan ziren Iruñeko langileak, politikoki gizarteratzeko eta euren kezka eta jakin-nahiak bideratzeko erreferentziak bilatzerakoan, oso ezaugarri definituak zituen kultura batetara ez eta oraindik malgua eta irekia zen kultura batetara gerturatzeko.

Hurbilpen hori gauzatzeko tresnarik eraginkorrena, apostolutza mugimendu sekularrak izan ziren. Horregatik, Iruñerriko langile mugimenduaren garapenak, erakunde kristauak eta euren militanteek berek izan behar zuten garapenarekin zerikusirik izan zuen ezinbestean. Gure subjektuen ibilbide militanteei begiratu bat ematen baldin badiegu, militantzia berrien artean, langile kultura kristauan gizarteratzetik abiatzen direnak nagusi direla ikusiko dugu. Iruñerriko langile mugimenduaren abangoardia aktiboena berez berriak ziren, ez zuten langile erakunde tradizionalerikiko zuzeneko loturarik eta orokorrean, apostolutza mugimendu sekularren militantzietan lotuta agertzen ziren. Izan ere, langile mugimenduaren baitan CCOO agertu zen arte, mugimendu hauek, langile jardueraren antolatzailearen eskusibak izan zuten eta euren militanteek, protesta eta borroka mugimenduen ekimena. Ildo horretan, gizarteratze politikoa erakunde kristauetan hasi zuten lehenbiziko militante haien ezker iraultzailerako bilakabidea, erabakigarria gertatzen da langile mugimendu nafarraren berezitasunak, CCOOen baitako indar oreka berezia adibidez, ulertzeko.

Bilakabide hau, apostolutza mugimenduen edota lehen fabrika komisioren bitartez 60. hamarkadan zehar zirkuitura sartu ziren eta bertan eman ziren antolakuntza eta protesta esperientzia haietan eskarmentu hartu zuten militante kristau aitzindariena eta 60. hamarkadaren amaieran, aurreko urte haietan sortuz joan ziren esparru soziopolitikoetan parte hartzen hasten zen militante belaunaldi gazte berriarena izan zen. Batzuen zein besteen garapen pertsonal eta militantea, berezko idiosinkrasia nafarrari arrotza ez zitzaizkion erlijiozaletasunaren eta kristautasunaren esparruetara eta sareetara lotzearekin abiatzen zen eta esperientziaren eta konpromisoaren bidetik, iraganarekin (gerra aurreko sindikalismo katolikoarekin) hautsiz eta berezko identitate bat sortuz, aurrera egiten zuten<sup>1087</sup>. Bilakabide horretan, lehenbizi, nukleo sindikalak sortu ziren apostolutza mugimenduetatik abiatuta. Aurreko kapituluan ikusi genuen bezala, 1967an, HOAC eta JOCEko militante talde baten eskutik USO jaio zen Iruñean, militanteok apostolutza mugimendu haietan barnerratu zuten obrerismoa eta konpromiso mundutarra sindikalismotik bideratzeko helburuarekin<sup>1088</sup>. 60. hamarkadan ere, jesuitek sustatutako Vanguardias Obreras mugimenduetatik, fabrika ezberdinetan jada existitu egiten ziren komisiotako

<sup>1087</sup> Ikusi Rubén Vega, “Entre la derrota...” Op. Cit., 194 orr.

<sup>1088</sup> Iruñeko USOren jatorriaz ikusi, Jose Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 718-719 orr.

ordezkarien topagune bihurtuko zen AST jaio zen<sup>1089</sup>. Esparru sindikal hauetan jatorria izango du CCOOeko eta langile talde politikoetako militanteen gehiengoak.

Hori izan zen, hain zuzen, aipatu bilakabidearen bigarren geltokia, alderdi politikoetan, bereziki ezker iraultzailearen alderdi politikoetan, antolatzea. 1968an, Elizako hierarkiaren eta apostolutza mugimenduen zuzendaritzen arteko krisia gertatu zenean, langile erakunde kristauetako militante asko, sakabanatu egin ziren eta Nafarroan orduan presentzia izaten hasten ziren erakunde sindikal zein politikoeekin bat egiteko hautua egin zuten, euren konpromiso eta militantzia soziopolitikoari jarraipena emateko bide bezala. Modu honetan, apostolutza mugimenduetan gizarteratu ziren Iruñerriko langile gazte gehienak, 1968ko maiatzean, Hirugarren Munduko askapen mugimenduetan, anti-inperialismoan edota iraultza kubatar zein txinatarrean inspiratu egiten ziren ezker berriaren erakunde politikoetako militantziarako jauzia eman zuten. Erakunde berri hauen baitan militanteen ezker iraultzailerako bilakaera eman zen moduan, militante kristauen presentziari esker, sindikatu eta langile alderdi politiko sortu berriak, sendotu eta garatu egin ziren. Ildo horretan, ezker berriaren fenomeno politikoek aipatu militante kristauen bilakaera honekin zerikusirik izan zuten heinean, ez da harrizkoa izango Iruñerriko langile mugimenduaren baitan, fenomeno hauek, euren kultura politikoak eta erakundeak nagusi izatea:

nafar langile mugimenduaren ideiak, ba, ideologia berriekiko oso irekiak dira, horregatik hemen ere nolabaiteko desbideratzea dago... beno, ba 68ko maiatza deitu izan zeneko ideologiaren *boom* guzti horretara, ezta? [...] mugimendu kristauetatik beste motatako ideologietarako (ideologia komunistak bai, baina ez alderdi komunistaren lerrokoak) eraldaketa bat dago [...] orduan CCOOen baitan lan egiten zuten alderdiak, lider sindikal gehienak sustengatzen zituzten alderdiak, ba alderdi komunistak tradizionalari lotzen ez zirenak ziren, esaterako Liga Comunista Revolucionaria, Movimiento Comunista de España, Organización Revolucionaria de Trabajadores. [JA.C.. CCOOeko militantea]

Militante kristauen halako bilakabidea, aurreko kapituluan berregin dugun zirkuituaren partean, bereziki apostolutza mugimenduei dagokien partean, sortu ziren esparruetatik, sareetatik, militantzia ereduetatik eta ezkerreko langile kultura kristautik abiatu zen. Ezkerreko langile kultura kristau berria, adibidez, kapitulu honetan ikusi dugun bezala, sortze prozesuan egoteagatik, malgua eta bestelako ideietara eta pentsamendu korranteetara irekia zen eta honek, militanteen ezker iraultzailerako garapena erraztu egin zuen nolabait. Gure protagonisten ibilbideetan, hauek langile erakunde kristauetarako sarbidearekin hasten zirela; esparru hauetan langile kultura kristaua barneratzearen bidetik garatzen zirela; eta ezker berriaren fenomeno eta kultura politikoetan funtsatutako militantzia sindikal edo politikoan jarduterakoan gailurrera iristen zirela topatzen dugu askotan. P.O.-ek bere ibilbide militantea VOJen hasi zuen, non langile kultura kristauaren aurkikuntza: *“Justizia sozialaren ideia zen. Eta ideia hau, nire kasuan horrela izan zen, kristautasunetik abiatzen da. Justizia ulertzeko modua berezkoa zaio kristautasun sanoari, ezta? [...] orduan, justizia ulertzeko modu horren arabera, sumindurak, klase batek besteak ekoizten duena eramaten duela ikusteak, kontraesanak sortzen dizkizu eta esaten duzu ‘Joder, esto no puede ser, hay que pelear contra eso’. Balore horiek, ideia horiek eramaten zaituzte horretara”*<sup>1090</sup>. ORTraino eramango zuen bilakabidearen abiapuntua izan zen. P.I.-en kasuan, seminarioa eta bertan jasotako formakuntza izan zen ibilbidearen abiapuntua. Bertan, Kontzilioak ahalbidetutako liberalizazioaren kontestuan, langile kultura kristauan formatzeko aukera izan zuen eta formakuntza horrek gero,

<sup>1089</sup> Iruñeko AST nukleoaren jatorriaz ikusi Jose Elena Santamaría Blasco, “Movimiento obrero apostólico...” Op. Cit., 719-720 orr. eta Javier De Miguel Sáez, “La Organización Revolucionaria de Trabajadores en Navarra. Orígenes y desarrollo (1964-1977)”, Príncipe de Viana, 16. Eranskina, 1992, 739-755 orr., 742-743 orr.

<sup>1090</sup> P.O.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-06.

unibertsitatean, bestelako pentsamendu korronteetarako hurbilketa erraztu zion: *“Ni bizitza politikora sartzen naiz, zalantzarik gabe, seminariora sartzen naizenean. Bertan, [politikara] bide intelektualetik sartu nintzen, bide intelektualetik eta gainera modu autonomoan, ikaskideekin solasean eta gero ere, Kontzilioak berekin ekarri zuen liberalizazio giroan, non argitalpen berri eta desberdinak sartzen hasten ziren... eta guzti horrek, gutxika, formatzen zintuen. Gero unibertsitatean, ba erabatean eman nintzen marxismo-leninismo-pensamiento Mao Tse Tungera; liburuetan oinarrিতා zegoen modu batean gainera. Garai hartan gu... ni 70. hamarkadan egin nintzen alderdiko kide, klandestinitatean. Orduan Zuzenbideko hirugarren mailan nengoan eta ia ikasteari utzi nion, urte hori eta hurrengo irakurtzen eman nituen, erabatean irakurtzen... esan bezala, ia ikasteari utzi nion eta”<sup>1091</sup>*. PCE(i)a zen alderdi hori.

Acción Católicaren krisiaren eraginez barreiatu eta bilakabide honetan murgildu ziren ekintzaile kristauak ezein lan merkatura eta bizitza soziopolitikora orduan sartzen ziren langile gazteek, 68ko maiatzetik eratorri ziren ideologia eta kultura politikoak izan zituzten hizpide, orduan jaiotzen ari ziren talde politiko marxista (marxista-leninista, komunista, maoista, troskista) eta iraultzaileetan antolatzen hasi zirelarik. Gure protagonisten giroetan Mao eta Fidel Castro agertzen hasi ziren, hizkera iraultzailea erabiltzen hasi zen, Vietnam eta Aljeriako gerrez hitz egiten hasi zen eta inperialismo yankia, hala nola alderdi komunista bera (moderatuegia izateagatik) kritikatzeko hasi zen. Jada erabili izan dugun J.S.M.-en ondoko esperientziak, oso ongi islatzen du pentsamendu korronte berriek langile gazte iruñarengan izan zuten eragina:

Zerbait bitxia da, nik neure buruari galdetu izan diot noizbait, gu nola erabaki genuen maoista izatea? Hau da, [pentsamendu] korronte hori gureganatzea...eta azalpena oso erraza da. Gu 68ko maiatzaren eraginpeko belaunaldikoak ginen nolabait, berrikuntza ideiak hunkitutakoa. SESB intelektualen begien aurrean gainbeheran zegoen, sistema hark zituen akatsak azaleratzen ari ziren, ba Stalin eta hori guztiarengatik, eta Europako intelektualak fenomeno hari bizkarra ematen ari ziren, ezta? orduan [gurezat] hurrengo pausoa, gauzak modu ezberdinean egiten zituztenengan sinestea zen... eta nor zer pertsona hori? ba Mao Tse Tung, orduan halako gauzak esaten zituelako: burokraziaren aurka borrokatu behar zela, jendea landara lan egitera bidali behar zela [...] teoria batzuk oraindik pixka bat... [J.S.M.. ORTko militantea]

J.S.M., zehazki, maoismoaz ari da. Iruñerriko langile mugimenduan eragin handia izan zuen korrontea izan zen, hein handi batean ORTa, presentzia zuten erakundeen artean, garrantzitsuena zelako. Ildo maoistako erakunde marxista-leninista, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran mendebaldeko European ezker berriak eman zituenen moduko alderdia izan zen. Estatu espainiarrean, European bezala, alderdi komunista eta honen politika egiteko modu “zaharkitua” gairatuz zetozen talde politiko ugari sortzen hasi zen garai hartan. Aipatu ORT, MCE, PCE(i)-PTE, LCR eta ETA bera, haietariko batzuk izan ziren. Consuelo Laiz politologoak estatuan izan ziren halako taldeen bilakaera aztertuz egin zuen ikerketa<sup>1092</sup> baliagarria izan zaigu hauen jaiotza eta ezaugarri nagusienak, hala nola erakundeek frankismoaren bitartean bete zuten papera zein izan zen ezagutzeko. 60. hamarkadaren amaieratik aurrera Nafar langile mugimenduaren baitan indar nagusienak izango zirela kontutan hartuta, jarraian, ezker erradikalaren talde hauenganako hurbilketa txiki bat egingo dugu.

<sup>1091</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07.

<sup>1092</sup> Consuelo Laiz, *La lucha final...* Op. Cit. Ezker iraultzailearen talde politiko ezberdinei buruz ikusi ere, Jose Manuel Roca (ed.), *El proyecto radical...* Op. Cit. edota Heine Harmut, “La contribución de...” Op. Cit.



## *Ezker iraultzailearen talde politikoak*

“Ezker berria” deitu izan dena, nazioarteko momentu zehatz batean izan zuen sorburu. Hain zuzen ere, nazioarteko mugimendu komunistaren krisiaren kontestuan. 1959az geroztik agerikoak ziren SESBen eta Txinaren arteko desadostasunak, laster haustura bihurtu ziren eta nazioarteko mugimendu komunista bi korrontetan banatu zen: sobietarra eta txinatarra<sup>1093</sup>. Bereizketa hura ez zen soilik nazioarteko komunismoaren lidergoa nork gauzatuko zuen zuzeneko aurrez-aurreko baten kontua izan, arrazoi sakonagoak zeuden: nazioarteko komunismo horren proiektu politikoa bera. SESBek tirabirarik gabeko eta bakezko koexistentziaren aldeko hautua egiten zuten bitartean eta ildo sobietarreko alderdi komunista europarrek eurokomunismora eramango zituen bidea hartzen zuten bitartean, Txinak, sobietarrak, errebisionista izateaz eta iraultza saltzeaz salatzen zituen. Haustura honek zatiketak eragin zituen europar alderdi komunisten baitan 60. hamarkada osoan zehar, hauek, marxismoaren, leninismoaren eta iraultzaren jatorrizko ortodoxia berreskuratu nahi zuten berezko korronteak osatzu joango zirelarik. Hizpide ditugun ezker erradikalaren talde politikoak, ildo honetan kokatzen ditugu.

60. hamarkadaren bitartean Mendebaleko European sortu ziren ezkerreko alderdi berriak, hartara, euren herrialdeetako alderdi komunisten kontra jaio ziren, hauek hartu izandako demokrazien bizitza parlamentarioaren parte izateko politikei eta proiektu iraultzailea bertan behera utzi izateari emandako erantzun bezala. Alderdi komunistekiko aurkakotasun hau bereziki agerikoa izan zen Frantzia eta Italia. Italiako alderdi komunistak presentzia politikoa oso garrantzitsua zuen. Bost milioi bozka inguru jasotzen zituen eta haietatik bi milioi ta erdi afiliatuak ziren. Beraz, haren oinarri sozialak oso ideologizatuta zeuden. Indar honek alderdiak gerraostean hartutako lerro politikoa indartzen zuen, faxismoak deuseztatutako demokraziaren instituzioak berrezartzearen, burgesiaren sektore aurrerakoiekin lankidetzan aritzean oinarritzen zen “interes nazionalari” lehentasuna ematen zion ildo bermatuz. Prozesu iraultzailearen gaitetik, bide demokratikoa hobesten zen. Lerro horrekiko lehenbiziko desbideratzeak fabriketan barna ematen hasi ziren. Berauetan, gerra garaiko kultura komunistan eta antifaxistan formatu ez ziren langile berriak (Turineko Fiaten lan egiten zuten hegoaldeko emigranteak esaterako), klaseen arteko indarren orekara egokitzen oinarritzen ziren estrategia politikoa eta sindikalekin hausten zuten borroka molde espontaneoak eta antikapitalistak garatzen hasi ziren. Fabrikaren baitako borroka hauekiko alderdiaren konpromiso falta, polemikarako elementu izan zen 60. hamarkadaren hasieran, hartatik korronte politikoa-teorikoa obrerista berri bat jaioko zelarik<sup>1094</sup>. Italiako ezker berria 1960ean bertan azaldu zen lehenbizikoz jendaurrean, gazteriak eta langileriak Genoan burutzekoa zen Movimento Sozial Italiano alderdi eskuindarraren kongresuaren aurka protesta egin zutenean. Protesta mugimendu horrek, aipatzen dugun ezkerreko zatiketa azaleratu zuen nolabait: agintari ezkertiarrek ekintza zuzena gelditzen eta mugimendua legearen eta instituzioen bidetik eramaten saiatu ziren bitartean, gazte eta langile berriek, erakunde tradizionalak eskaintzen ez zituzten borrokarako forma berriak eskatzen zituzten<sup>1095</sup>.

Frantzia, 1968ko maiatzaren bitartean, ikusi ahal izan zen garbiki “bi ezker” haien arteko banaketa itzulbiderik gabeko puntu batetan zegoela. Geof Eleyk aurrez

---

<sup>1093</sup> Ikusi, adibidez, Jean Jacques Leveque, *El conflicto chino-soviético*, Oikos-Tau,artzelona, 1974 (frantsesez argitaratu zen “Que sais-je?” bilduman 1973an) edota Jean Baby, *Los orígenes de la controversia chino-soviética*, Emiliano Escobar editor, 1976 (hamar urte lehenago frantsesez argitaratuta, hemen ORTri lortutako Emiliano Escobar argitaletxeak argitaratu zuen)

<sup>1094</sup> Nanni Balestrini eta Primo Moroni, *La horda de...* Op. Cit., 41 orr.

<sup>1095</sup> *Ibid.*, 45 orr.

aurreko baten moduan deskribatu zuen puntu hau, non “*batak, bizitza politiko arrunta berriz hasia espero zuen, besteak hura berriz hasi ezingo zela uste zuen. Lehenbizikoa gerran eta askapenean, mitologia politikoen eta erresistentziari buruzko istorioen, gerra hotzaren eta berreraiketaren bitartez osatu zen. Bigarrena jaio berria zen eta 60. hamarkadaren emaitza zen: Aljeriako gerraren krisi nazionalaren, De Gaulleren modernizazioaren ondore sozialen, oparotasun promesen eta kontsumo kapitalismo berriari ikusten zitzaizkion alde txarren emaitza. Bi jarrera hartze hauek elkarrekiko ulertu ezina azaltzen zuten*”<sup>1096</sup>. Frantziako alderdi komunista lehenbiziko ezker hori zen, ezker zaharra eta 68ko maiatzetik sortutako korrante eta mugimenduak bigarrena, ezker berri bat.

Espainiar estatua ez zen prozesu hauetatik at geratu, baina bertan dinamikak egiazki desberdinak izan ziren. Izan ere, frankismoaren kontestuak parte hartze politikorako aukerarik ematen ez zuen heinean eta militante komunistak diktaduraren kontrako borrokaren ekintzaile nabarmenduenak ziren heinean (60. hamarkadan barne oposizioan nagusi ziren), Espainiako Alderdi Komunistak, ezkerren erreferentzia nagusia izaten jarraitzen zuen. CCOOen baitan zuen hegemonia, honen adibide adierazgarria da. 60. hamarkadaren bitartean nazioarteko mugimendu komunista eta Europako ezkerreko aztoratzen hasi zirenean, PCEak ez zuen espainiar ezkerren baitan apenas lehiarik izan. Noski, orduan alderdi eta mugimendu berrien lehen nukleoak sortzen hasi ziren, baina oso talde minoritarioak ziren oraindik eta gainera, ez ziren berez komunismoaren aldetik jaiotzen, sektore kristau aurrerakoiengandik baizik (FLPa esperientzia goiztiarra izango da). Ezker berriaren alderdiak, espainiar estatuan, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran hasiko ziren gorpuzten, batez ere gazteriaren eta ikasleriaren (ez horrenbeste langileriaren) eskutik eta 68ko maiatzaren eraginez. Beti PCEarekiko gutxiengoan izan ziren arren eta trantsizioaren ostean bizkor desagertu ziren arren, euren eragina nabaria izan zen 70. hamarkadaren lehen erdiko espainiar ezkerren bizitza soziopolitikoan. Instituzio politikoen eta nagusi ziren baloreen kontrako iritziak erein zituzten, gizarte sektore langile eta herrikoiengan zenbait jarraibide kultural hedatu zituzten, langile auzoetan alfabetatze kanpainak burutu zituzten edota emakumeak gizartean izan behar zuen funtzioari buruzko ikuspegi berri baten zabalkundea egin zuten<sup>1097</sup>, ezkerreko politika eta borroka egiteko formen eraberritzea gauzatu nahian.

Halako alderdiek, fenomeno berberaren parte egiten dituzten hainbat ezaugarri izan zituzten elkarrekin. Jatorrian adibidez, hiru pentsamolde korranteekiko (nazionalismoa, katolizismoa eta komunismoa) haustura batetatik jaiotakoak ziren. Orokorrean, aipatu korranteek irudikatzen zituzten alderdi edo taldeetatik bereizten ziren nukleoetatik abiatuta eratzen ziren, hasiera batean “*euren jatorri ideologikoekiko disidentzia erradikalak*” planteatzen zituzten “*talde txikiak*” baino izan ez zirelarik<sup>1098</sup>. Pentsamolde korrante desberdinetan sorburu zuten arren, euren jatorrizko taldeen ezkerretara kokatutako bereizketak izatea izan zuten komunean eta honek, ezker horrek ematen zuen enbor ideologikoa, marxismo-leninismoa, partekatuzera eraman zituen. Behin euren jatorri ideologikoekin hausten zutelara, alderdi berrien lehen nukleoak ezaugarritzen zituena, marxismoarenganako interesa eta jarrera hartze iraultzailea zen, nukleo hauek alderdi politiko bilakatzen zirenean, sozialismorako bidea ibiltzeko, doktrinatzat marxismo-leninismoa hartzen zutelarik. Honela, iraultza soziala praxi politikoaren azkeneko helburu egitea, alderdia langile klasearen abangoardiatzat hartzea edota proletarismoaren diktadura botere politikoa bereganatzearen emaitza bezala aurreikustea, halako alderdien diskurtso politikoaren

<sup>1096</sup> Geof Eley, *La historia de la izquierda en Europa 1850-200*, Crítica, Bartzelona, 2003, 347 orr.

<sup>1097</sup> Consuelo Laiz, *La lucha final...* Op. Cit., 14-15 orr.

<sup>1098</sup> *Ibid.*, 24 orr.

erreferentziako ideiak ziren. Ildo horretan, hain justu ideia hauek nolabait berautetan gauzatuta ikusten zituztelako, Hirugarren Munduko iraultza eta askapen prozesuek eragin handia izan zuten talde guzti hauengan, eredu hauetan nolabait, mendebaldean porrot egindako iraultzaren garaipenerako itxaropen berri bat ikusten baitzuten. Txinako eta Kubako iraultzak, Mao, Fidel Castro, Che Guevara edota Vietnameko zein Aljeriako gerrak, erreferentzia bilakatu ziren ezker berriarentzat, Hirugarren Munduko herrialdeen borroketatik eta mugimendu askatzaileetatik eredu hartzea jomuga zutela adieraziz. Adibidez, sobietar komunismoaren krisiaren eta Europako proiektu iraultzaileen agortzearen markoan askapen herrikoierako eredu bihurtzen ziren heinean, Hirugarren Munduko prozesu iraultzaileak, maoismorako sarbidea izan ziren batzuentzat. Beste batzuentzat, troskistentzat esaterako, prozesu haiek, inperialismoaren krisia azaleratzen zuten heinean, munduko iraultzak aukera bat bazuela iragartzen zuten<sup>1099</sup>.

Espainiar estatuan gertatu ez bezala, non ezker iraultzaileak ez zuen inoiz PCEaren hegemonia zalantzan jartzetik izan, Nafarroan, halako alderdiak ezkerren panorama soziopolitikoan eta are langile mugimenduan nagusi izan ziren. Berriz ere CCOOen baitako indar oreka da honen adibiderik adierazgarriena. Izan ere, alderdi ezkertiar hauek, ORT, MCE, PCE(i)-PTE edota LCR-ETA VI, alderdi komunistaren gaitetik, erabatean nagusi izan ziren. Honek, ikusiko dugun bezala, alderdi hauei berezkoa zitzaien izaera erradikala emango zion Nafarroako CCOOi. Antzeko zerbait gertatzen zen Euskal Herri mailan. Bertan, langile mugimenduan jarduten zuten indarren aniztasun politikoa, alderdi komunistaren erabatean nagusi ez izatea eragiten zuen eta honek, protagonismoa, ezkerreko iraultzaileekin eta nazionalistekin partekatu behar zuen. Euskal Herriko CCOOeko koordinakunde ezberdinek zonaldeka izan zuten indar oreka desberdina, honen adierazle da. Bizkaian, orokorrean, PCEaren ildoak nagusi zen, ezkerrean bereziki; baina hainbat zonaldeetan, Bilboko eskuinaldea, Durangaldea eta Basauri kasu, ezker iraultzailearen taldeak nagusi ziren. Gipuzkoan aldiz, azken talde hauek ziren nagusi, baina bazegoen PCEaren ildoko talde garrantzitsu bat (*Biltzar* lerroa). Arabako CCOOen kasuan, parte bat PCEren ildokoa eta beste bat ezker iraultzailearen ildokoa zen<sup>1100</sup>. Indar oreka hau Euskal Herriko koordinakundearen egituren barnean gertatu zen bereizketarekin egin zen ikusgarria. 1974ean, PCEaren ildoko taldeak, hots, Bizkaiko CCOOen koordinakundeak, Gipuzkoako CCOOen aipatu taldea eta Arabako CCOOen parte bat, CONE koordinakundeak sortu zuten. Kanpoan gelditu zirenak euren aldetik, Gipuzkoako Koordinakundeak, Bilboko eskuinaldeko koordinakundeak eta Nafarroakoak, CECO

---

<sup>1099</sup> Ezker iraultzailearen erreferentzia berri hauei buruz gehiago, Consuelo Laiz, *La lucha final...* Op. Cit., 19-21 orr.

<sup>1100</sup> Bizkaiko langile mugimenduaren era CCOOen kasurako ikusi Pedro Ibarra, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 284-289 orr. Bertan oso ongi ikusten da Bizkaian zonaldeka ematen zen indar oreka desberdintasuna. Gipuzkoaren kasuan, CCOOen sorrera jada konplexua izan zen. Alderdi komunistaren eskutik eta ETArekin eskutik sustatuta, lehenbiziko koordinakundeak 1967an desegin zen, barne tentsioen ondorioz (auzi nazionala izan zen hasieratik tentsio puntu nagusienetarikoa bat, Gipuzkoako behin-behineko koordinakundeak, auzi nazionalari buruzko adierazpen publiko bat egiten lehenbizikoa izan baitzen). Probintzia komite berriak sortzen saiatuko ziren eta 1969an, PCEaren ildoaren eraginpean ez dagoen CCOO aurkitzen dugu herrialdean. Ikusi Pedro Ibarra eta Chelo García Marroquín, "De la primavera..." Op. Cit., 117-118 eta 122 orr. Araban, langile mugimenduaren baitako indar oreka konplexuagoa zen, izan ere, CCOO berak eta haren baitan jarduten zuten bi ildoek, hots, PCEaren ingurukoa eta ezker iraultzaileko taldeen ingurukoa, indar mugatua zuten 1976ra arte. Hemen, bestelako langile indarrek, sozialistak, plataforma antikapitalistak eta euskal FLPtik eratorriko OICE sektoreen eragin handiagoa zuten. Ikusi, Antonio Rivera, "Amoldados, disidentes y opositores: antifranquistas en territorio leal". Antonio Rivera (zuz.), *Dictadura y desarrollismo. El franquismo en Alava*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 2009.

koordinakundea sortu zuten. Arabako CCOOen beste parteak eta Bilboko ezkeraldeko zenbait fabriketako langile komisioek, azken honekin bat egin zuten.

Iruñerriko langile mugimenduaren baitan aritu ziren ezker iraultzailearen alderdi guzti hauen artetik, presentzia indartsuena izan zuena ORTa izan zen<sup>1101</sup>. Alderdiak Nafarroako CCOOen izan zuen protagonismoa, langile militante askoren ekintzaile sindikal eta ORTko kide bezalako militantzia bikoitza edota Nafarroa taldeak indar gehien zuen herrialdeetariko bat izatea, honen adierazle esanguratsuak dira. Kontakizun honen bitartean hainbat momentu desberdinetan azaldu dugun moduan, ORTak Nafarroan izan zuen arrakasta, erakundearen jatorri kristautik abiatuta azaltzen ahal da. ORT, Vanguardias Obreras mugimenduetatik AST talde sindikala osatu eta hau alderdi politiko bilakatu zuten militante kristauen eskutik sortu zen. Alderdi marxista-leninista eta maoista baterako bilakabidea, estatu mailan, ASTk ikasle talde txiki batekin harremana egin zuenean eta hauek erakunde sindikalari gutxieneko doktrina politikoko oinarri bat eman ziotenean gauzatu zen. 1971an, hartutako norabide politikoarekin ados ez zeuden ASTko militante zaharrak borondatez erretiratu zirenean edota buruzagitza berriak kanpora bidali zituenean, ORT jaio zen. Politika sindikalistak, abangoardiako antolakunde politikoari lekua uzten zion<sup>1102</sup>.

70. hamarkadaren hasieran, ORTaren jarduera funtsean sindikala zen Nafarroan. Langile mugimenduaren koadro eta lider askok alderdian izan zuten protagonismoa, honen adierazle argia da. Lehenbiziko zuzendaritza taldea, adibidez, bankako langile batek, Potasaseko bi langilek eta Authiko langile batek osatzen zuten; 1974an, zuzendaritza komiteak, erabatean langileez (langile espezialistez bereziki) osatuta jarraitzen zuen: hauetariko lau Potasaseko langileak ziren, bat Papelerakoa, bi Authikoak eta beste bat langabezia zegoen<sup>1103</sup>. Guztiek alde aurreko esperientzia zuten langile erakundeetan eta borroka sindikalean formatutakoak ziren: hiru, Vanguardias mugimenduetako militante izandakoak ziren eta bi, HOACeko militante izandakoak. Are gehiago, haietariko bost CCOOeko lider izateagatik euren enpresetatik kaleratuak izango ziren 1971 eta 1974 urteen artean. Beraz, militantzia sindikala militantzia politikoaren aurretikoa izan zela esan daiteke nolabait. Oinarriko militantziari dagokionean, %80a inguru Iruñerriko fabrika garrantzitsuenetako (Potasas, Eaton, Authi, Torfinasa, Imenasa eta Papelera) langile industrialak ziren<sup>1104</sup>. Honek,

<sup>1101</sup> ORTari buruz, orokorrean, ikusi Emanuele Treglia, "Izquierda comunista y cambio político: el caso de la ORT", *Ayer*, 92. zkia, 2013, 47-71 orr.

<sup>1102</sup> Bihurtze prozesua hau, alderdiaren zuzendaritza batzordeak berak azaltzen zion ETARI "Kemen" aldizkarian erakunde hartako militante batek ORTari eginiko kritikei erantzuna emateko bidalitako gutun batean. ETAKo militanteak, ORTak izaera sindikalista zuela salatzen zuen; are gehiago, haren sindikalismoak nafar langile mugimenduari borroka politikoan aurrera egitea uzten ez ziola gogorki kritikatzeko zuen. ORTaren zuzendaritza batzordeak, erantzunean, taldearen iragan sindikalista onartzen zuen, baina alderdi politikoan bihurtzeko prozesua jada burutu zuela defendatzen zuen, langile klasearen abangoardia alderdia izateko prest zegoela aldarrikatuz. "Carta abierta del c.r.p. y del c.d.p. de la ort a la II parte de la VI asamblea, al biltzar tipia y a todos los organismos y militantes de e.t.a. (datarik gabe)", AFPI-PIFA, ORTaren fondoan, 8. kutxa. Ildo horretan, Javier De Miguelek esaten duenez, bihurtze prozesuan Nafarroako taldeak hasieratik Madrilgo zuzendaritza taldearen alderdi marxista-leninista bat sortzearen aldeko tesiekin bat egin zuen, honek nafar taldearen baitan bereizketarik eragin ez zuelarik. Hemen, tesi marxistak naturaltasunez barneratu ziren, nafar militante askoren uste sendo kristauekin elkarrekin biziz. Javier De Miguel Sáez, "La Organización Revolucionaria..." Op. Cit., 744-745 orr.

<sup>1103</sup> *Ibid.*, lehenbiziko zuzendaritzari buruz 745 orr. eta 1974ko zuzendaritzari buruz, 749 orr. Bi kasuetan, militanteen batz besteko adina ez zen hogeitasei edo hogeita zazpi urtetik gorakoa

<sup>1104</sup> ORTko militantziari buruzko datu hauek, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 107 orr. Militanteen %15a ikasleak eta maisuak zuten eta zenbait banka enplegatu zegoen. Militantziaren batezbesteko adina ez zen hogeita sei urtetik gorakoa. Javier De Miguel Sáez, "La Organización Revolucionaria..." Op. Cit., 739-755 orr.

langile mugimenduaren baitan, batez ere CCOOen eta haren idazkaritzan, presentzia handia eman zion alderdiari, 70. hamarkadaren erdialdean langile mugimenduak biziko zuen bilakaeran paper erabakigarria beteko zuelarik. Honen adibide adierazgarriak dira, besteak beste, 1975ean Nafarroako probintzia komiteak argiratu zituen Potasaseko meatzarien egunerokoa edota Nafarroako langile mugimenduaren hogeita bost urteei buruzko liburua<sup>1105</sup>.

Antolakuntzari dagokionean, alderdiak ez zuen inoiz militante askorik izan. Izan ere, bere ezarmendua motela izan zen. 1971an adibidez, gerora alderdiko militante nabarmenduenak izango zirenak ez ziren oraindik militante eta 1971-1973 bitartean ez ziren hamalau edo hamasei bat militante izango<sup>1106</sup>. Orduetik aurrera, zelulen egituraketaren bitartez, alderdiaren militantzia handitzea eta langilegoa eta sektore herrikoiak mobilizatzeko gaitasuna handitzea lortu zuelarik<sup>1107</sup>. Eragin hau azaltzeko, bere abangoardiak oso militanteak eta oso aktiboak zirela eta alderdiak bere jardura politikoa alor desberdinetan garatzen zuela kontutan izan behar dugu. Fabriketan, auzoetan edota ikastetxeetan, ikasketa taldeak, aurre-zelulak eta zelulak sortzen zituzten militanteentzat eta hauen ingurura biltzen ziren zaleentzat, militantziarako sarbide eraginkorrak itxuratuz. Lehenbizi Ikasketa taldeak zeuden, non fabriketan, auzoetan eta ikasle mugimenduan nabarmentzen ziren elementuak erakarriz eta bilduz, militantziarako prestasun bat sortzen saiatzen zen. Ondoren, aurre-zeluletan marxismoa lantzen zen, alderdiaren politika ezagutzen zen eta ekintza asaldatzaileak burutzen ziren: *“Zelulan eztabaida politiko asko egiten genuen eta ekintzak prestatu ere; hau da, ekintzak egin behar ziren, prestatu eta gauzatu. Bai, edozer gauza egiten genuen, propaganda banatu, orrialdeak atera, pankartak egin, edozer gauzarengatik manifestazio espontaneoak egin [...] [eta] langile mugimenduaren zelulak zeuden, ikasleen zelulak, auzo zelulak... gutxienez, hiru horiek bai. Orduan militanteak, alor desberdin hauetatik mugitzen ziren, ezta? langileak, langile zeluletan geunden eta beno, mugimendu sindikalean eta borroka sindikalean aritzen ginen; baina gero ikasleak baziren, unibertsitatean eta institutuetan lan egiten. Eta auzoetan, orduan jardura asko zegoen, auzoetako zentroak eta guzti hori”*<sup>1108</sup>. Zelula, alderdiko militanteek osatzen zuten.

ORTarenganako hurbilketa txiki honek, ez zuen honen pentsamoldea, diskurtsoa edota portaera politikoa aztertzea helburu, alderdia Nafarroan eta bereziki langile mugimenduaren baitan presentzia eta eragina izan zuela azaleratzea baizik. Hala ere, ezin dugu aipatu gabe utzi korrante txinatarreko erakunde marxista-leninista zen heinean, ORTak maoismoa 70. hamarkadako nafar ezkerrearen lerro politiko nagusienetarikoa batean bihurtu zuela. Maoismoak, urte haietan bizitza politikora hutsune ideologiko batekin sartzen zen militante askori doktrina elementuak, testuak eta materialak eta are erreferentziazko figurak eta sinbolo identifikagarriak eman zizkion. Ildo horretan, Maoren pentsamoldea Iruñerriko langile militante askoren formakuntza teoriko-politikoaren ardatza izan zen eta ez bakarrik ORTan, baita MCE bezalako ezker berriaren bestelako alderdietan ere.

MCEak ere presentzia nabarmena izan zuen 70. hamarkadako nafar ezkerrearen baitan. 1966ko ETaren V. Asanbladaren zatiketa batean izan zuen sorburu, erakundearen baitako korrante bat, tesi nazionalisten aldean tesi marxista-obreristei

<sup>1105</sup> “Diario del encierro de la mina de Potasas”, J.U.-ek utzitako dokumentua; eta *Historia del movimiento obrero navarro. 25 años de lucha*, ORT, Iruñea, 1975.

<sup>1106</sup> Javier De Miguel Sáez, “La Organización Revolucionaria...” Op. Cit., 746 orr.

<sup>1107</sup> 1972an hiru zelula funtzionatzen zuten, Landabenekoa, Potasasekoa eta Zaragoza etorbidekoa, langile mugimendukoak guztiak. 1974ean zortzi zelula ziren, horietatik sei langile mugimendukoak ziren.

<sup>1108</sup> P.O.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-02-06.

lehenetasuna eman nahi izaterakoan, bereizi egin zenean. Bereiztutako taldeak bere bidea egin zuen mugimendu politiko komunista berri bat sortu arte. Txinaren aldeko korrontean kokatzen zen eta Maoren testuek eragin handia zuten harengan. Mugimendu berri hura lehenbizi ETA-berri deitu zen, ondoren Komunistak edo Movimiento Comunista Vasco eta azkenean, estatuko beste hainbat talderekin harremana egin ondoren, Movimiento Comunista de España bezala egonkortu zen. Aipatzekoa da ETAREN baitako lehenbiziko korronte hura osatu zuten lehen militanteak erakundearen talde bezala sartu zirela eta guztiek jatorri kristaua zutela<sup>1109</sup>. Alderdian sartzen zihoazen nukleoak osatzen zituzten Iruñerriko militante askok ere, sektore kristauekiko nola edo halako harremana izan zuen. Batzuk, komunitate kristauekiko iritziak ziren, beste batzuk, militante nabarmenduenetarikoen parte handi bat, Iruñeko seminarioko ikasturte beretik. MCEak ere kontutan hartzeko indarra izan zuen langile mugimenduaren baitan. 1971an Erakunde Sindikalak Nafarroako egoera soziopolitikoaz burutu zituen txosten desberdinetan, adibidez, mugimendu sindikalean jarduten zutenen artetik aipatzen den talde politiko antolatua bakarra da. Hari buruz, minoritarioa izan arren, langileen artean eragin gehien zuen taldea zela esaten zen, berezko argitalpen klandestinoak zabaltzen zituela eta Potasaseko zenbait sektoretan, Super Serren, Eaton Ibérica edo Imenasan indartsua zela eta are bankaren sektoreko zenbait puntu garrantzitsuetan presentzia zuela<sup>1110</sup>. Beraz, alderdiak militanteak zituen Iruñeko fabrika garrantzitsuetan, honek CCOOen aktiboki parte hartzea bermatzen ziolarik. Are gehiago, ORTarekin batera, koordinakundearen idazkaritzan presentzia gehien zuen talde politikoa zen.

Hauekin batera, nafar ezkeraren eta langile mugimenduaren baitako indar pluraltasuna, PCE(i)-PTE eta LCR-ETA VI alderdien presentziarekin eta jarduerarekin aberasten zen<sup>1111</sup>. Lehenbizikoa, alderdi komunistaren zatiketa batetik jaio zen Katalunian PCE(i) izenarekin. Nazioarteko mugimendu komunistaren banaketaren kontestuan, taldeak Txinaren aldeko korrontean kokatu zen eta Maoren eta alderdi komunista txinatarraren doktrina hartu zuen. C.O., Authiko langilea eta CCOOeko militantea, Nafarroako lehen militanteatariko bat izan zen<sup>1112</sup>. Hein handi batean hari esker, militante nukleo garrantzitsua izan zuen Authin, Iruñerriko fabrika handienetariko eta garrantzitsuenetariko batean. Beste enpresa garrantzitsuetan langile militante eta lider sindikal nabarmenduak izateaz beste eta eraikuntzaren sektorean indar handia izateaz beste, unibertsitate talde nukleo garrantzitsuak zituen ere<sup>1113</sup>. LCR-ETA VI korronte Troskistan kokatzen zen. FLPTik sortutako "Comunismo" taldean izan zuen sorburu, honek gerora Liga Comunista Revolucionaria izena hartu zuelarik. 70. hamarkadaren hasieran ETAREN VI. Asanbladatik bereiztutako talde

---

<sup>1109</sup> Consuelo Laiz, *La lucha final...* Op. Cit., 41 orr. Lehen militante hauen ETArako sarreraz eta erakundearen baitan izan zuten paperaz gehiago, ETAREN historiari buruzko lanetan, besteak beste, Pedro Ibarra, *La evolución estratégica de ETA. De la guerra revolucionaria (1963) hasta después de la tregua (1989)*, Kriseilu, Donostia, 1989 eta Francisco Letamendia, *Historia del nacionalismo vasco y de ETA*, R&B, Donostia, 1994.

<sup>1110</sup> 1971ko urriko "Información sobre la situación político social de Navarra y sus antecedentes" txostena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa. Kontutan izan behar dugu, txostenean, taldeak zenbait lan materialetan CCOO izena hartzen duela esaten dela. Beraz, posiblea da berriemailea CCOO mugimenduaz mintzatzen aritea eta talde politiko gisara soilik MCEzagutzen duenez (taldearen berezko argitalpenak ezagutzen dira), CCOOen egiturak MCEaren egiturekin nahastea.

<sup>1111</sup> PCE(i)-PTERen eta LCR-ETA Viren historiari buruzko bi liburu argitaratu berri dira: José Luis Martín Ramos (koor.), *Pan, trabajo y libertad. Historia del Partido del Trabajo de España*, El viejo topo, Mataró, 2011 eta Martí Caussa eta Ricard Martínez i Muntada (ed.), *Historia de la Liga Comunista Revolucionaria, La Oveja Roja, Torrejón de Ardoz, 2014*.

<sup>1112</sup> C.O.-i egindako elkarrizketa. Mutilva, 2013-09-16.

<sup>1113</sup> P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2014-01-07. Bera Nafarroako Unibertsitateko ikaslea zen alderdian hasi zenean eta bere nukleoko gainontzeko kide guztiak ere.

batekin bat egin zuen eta behin-betiko taldea osatu zuen aipatu LCR-ETA VI izenarekin. Ez zuen beste talde politikoek bezainbesteko presentzia izan Iruñerrian, baina CCOOen aritu zen hasieratik eta militante garrantzitsuak izan zituen bertan. Aipatzekoa da, adibidez, Iruñerriko fabrika garrantzitsuenetariko eta gatazkatsuenetariko bat izan zen Imenasan izan zuen indarra<sup>1114</sup>. LCRk Nafarroan izan zuen presentzia, 1978ko Sanferminetan poliziak eraila izan zen German Rodriguezen figuran azaleratzen da nolabait. Taldeko militante aktiboa zen heinean, haren ibilbideari jarraiki, talde politikoak Iruñerrian izan zituen hainbat eragingune ikusten ahal dira. Iosu Chueca historialariak honen bizitza militanteaz egin zuen berrikuspenak<sup>1115</sup>, zentzu honetan, Iruñerriko taldea osatu zen esparru desberdinak azaleratzen ditu: alde batetik, 1969az geroztik ETAk hirian zuen lehenbiziko langile talde bat; bestetik gazte talde bat, bereziki Hemen eta Han mendi taldean biltzen zen hainbat ikaslek osatutakoa. German Rodriguez azken honetan zegoen eta bere taldeak lehenbizikoarekin bat egin zuenean, ETA VI izango zenaren ingurunean murgildu zen. Orduetik aurrera, erakundearen jarduera, mugimendu sindikalean (CCOOen eta langile gatazka eta borroketan parte hartzen) eta beste hainbat alorretan garatuko zen, militanteek, Ikasle mugimenduan, gazte erakundeetan eta Auzo elkarteetan ere parte hartuko zutelarik.

Aipatu ETAREN lehen langile nukleo hura sortu zuten militanteen presentziak, ETAK berak eta auzi nazionalak nafar ezkerrearen eta langile mugimenduaren baitan izan zuten paperaren ildoak zabaltzen du. Militanteak baziren, ETAREN Langile Fronteak<sup>1116</sup> eta are ETA VI-koak, baina bai erakundeak eta baita ezkerreko nazionalismoak indar txikia zuten oraindik Iruñerrian 70. hamarkadaren hasieran. Are gehiago, erakundeak herrialdean burutu izan zuen lehen ekintza garrantzitsua, 1973an Torfinasako grebaren kontestuan gertatu zen Felipe Huarte enpresariaren bahiketa, eztabaida eta arbuioa sortu zuen Nafarroako langile mugimenduaren baitan. Izan ere, bahiketa enpresak langileen aldarrikapenak onartu zituela amaitu zen arren, CCOOek eta haren baitan nagusi ziren ezker iraultzailearen alderdiek, MCEak eta ORTK bereziki, bahiketa kritikatu zuten, hauen eta ETAREN arteko konfrontazioa eraginez<sup>1117</sup>. Nafar langile mugimenduaren sorreraren aldi honetan (60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasiera), nekez hartzen ahal da ETA ikusi ditugun beste talde politikoaren hainako nabarmentasuna duen erakunde bezala. Oposizioko indarra zen

---

<sup>1114</sup> P.I.-i eta K.P.-i egindako elkarrizketak. Iruñea, 2014-01-07 eta 2015-01-04 hurrenez-hurren. Iturri hauek fabrika honetan troskismoak zuen indarrak esandakoa kontutan hartuta, litekeena da alderdi komunistaren barne dokumentazioan "troskistak nagusi diren langile komisioa duen Iruñeko enpresa borrokalari" bezala azaltzen dena, Imenasa izatea. "De los camaradas de Navarra (1974)", AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoak, Nafarroa-Euskadi saila, 870 Jaq. Gure protagonistetariko hiru, I.B., P.M. eta aipatu K.P., Imenasako langileak ziren eta hirurak LCR-ETA VIren inguruan ibili ziren.

<sup>1115</sup> Iosu Chueca, *Germán Rodríguez. Iraultzaile eroria*, Argia, 2142. alea, 2008-06-22.

<sup>1116</sup> Langile frontearen sorrera ETAREN bilakaera ideologikoarekin izan zuen zerikusirik, Euskal Herriko askapen nazional eta sozialaren subjektua euskal herri langilea zelako oinarritzko ideia bere eginda, erakundeak langile mugimenduaren baitan lan egitea eta langile mugimenduaren eta mugimendu nazionalaren arteko harremana sustatzea helburu bihurtu zituenean. Langile Frontea ez zen berezko egitura bat, industria langileak zirelako edota langile munduan interesa zutelako ETAKo militanteek osatzen zuten eta bestelako langile erakunde edota taldeekin, hau da CCOOekin edota HOAC eta JOCEkin, adibidez. Eragin gehien Bizkaian izan zuen (CCOOen baitan lan egin zuen), baina Gipuzkoan, Nafarroan eta Araban ere presentzia izan zuen. Ikusi aipatutako Pedro Ibarra, *La evolución estratégica...* Op. Cit. eta Francisco Letamendia, *Historia del nacionalismo...* Op. Cit. ETAREN Langile Fronteaz labur, Patxi Abasolo, David Mendaza eta Joxerra Bustillo, *Nuestro mayo rojo...* Op. Cit., 523-525 orr.

<sup>1117</sup> Ezadostasunak, mugimendu sozial eta herrikoiek abangoardia armatuak izan behar zituzten edo ez gaiaren inguruan sortu ziren. Fernando Mendiola, "Entre los viejos..." Op. Cit., 227 orr. Ikusi ere Francisco Letamendia, *Historia del nacionalismo...* Op. Cit., 377-379 orr.

heinean, diktaduraren aurka borroka egiten zuen heinean eta errepresio gogorra pairatzen zuen heinean, ETAK militante antifrankisten elkartasuna eta are begikotasuna izan zuen zenbait momentutan<sup>1118</sup>, baina horrek ez zuen zuzenean berekin erakundearen pisuzko eraginik ekartzen momentu horretan. Auzi nazionala eta euskal masa mugimendua aurrerago sartuko zen Iruñerriko ezkerrearen panorama soziopolitikoan, trantsizioaren bitartean, LABen sorreraren eta HBk 1979ko hauteskundeetan lortu zituen emaitza arrakastatsuek adierazten dutenez. Bitarte horretan, euskaltasunaren berpizte prozesu bat eman zen alor kulturalan, sozialean zein politikoa eta haren eragina, euskal nazionalismoaz haratago, frankismoaren aurkako oposizioaren gainontzeko mugimendu sozial eta herrikoiegana iritsi zen nola edo hala. Zentzu horretan, amnistia edota autodeterminaziorako eskubidea bezalako aldarrikapen politikoak bere eginez, estatuko alderdi ezkertiarak, trantsizioaren bitartean, nolabait “euskaldundu” egin zirela esan daiteke.

Ezker iraultzaileak Iruñerriko langile mugimenduaren baitan izan zuen indarraren emaitza nabarmenatariko bat, abangoardia militanteen ideologizatze eta politizatze maila altua izan zen. ORTaren militantzia honen adibide argia izan zen. Oso aktiboa zen, alderdiarekin eta liderrekin erabatean konprometituta zegoen eta diktadura erorarazteko eta Iraultza soziala gauzatzeko kausara osoki ematen zen: *“ORTkoak [...] militante amorratuak, txinoak, militante amorratuak [ziren] eta gainera hauek sinesten zuten beraien, beraien...eh taldean, ta beraien filosofian erabat, eta bueno hauek sartzen zuten dena, bizi osoa sartzen zuten hor”*<sup>1119</sup>. Talde politiko hauetako militanteak berez, ez ziren inoiz kopuruz asko izan, baina kualitatiboki, langileak eta sektore sozial herrikoiak mobilizatzeko gaitasun handia zuten ekintzaileak izan ziren. Hala izan zen, hein handi batean, euren militantzia gizartearen alor desberdinetan garatzen zutelako, bai mugimendu sindikalean, baina baita ikasle mugimenduan, auzo mugimenduan, gazte erakundeetan, emakume taldeetan edota mugimendu ekologistan. Militantzia aniztasuna, ekintzaile politiko askoren ibilbidea zeharkatzen duen fenomeno da eta gure subjektuen artean, hainbat adibide adierazgarri ditugu. M.L.C.-en esaterako, lau esparru desberdinetan garatzen zuen bere militantzia aldi berean: PCE(i)-PTEan, CCOOen, Sanduzelaiko Auzo Elkarteetan eta Emakume Zentroetan<sup>1120</sup>. Giro eta esparru desberdinetan lan egitearekin, haietariko bakoitzean eragiteko eta mobilizazio soziala aktibatzeko aukerak areagotzen ziren.

---

<sup>1118</sup> Masiboak izan ez ziren arren, 1970an ETAKo militanteen aurka burutu zen Burgoseko epaiketaren kontestuan, propaganda, manifestazio bat eta atxiloketak izan ziren. “Nafarroako Gobernadore Zibilaren Memoria: 1970. urtea”, AGA-AAO, Barne Arazoetako sailaren fondoan, 52-496. kutxa. eta “Un grupo de personas se manifestó ayer en Pamplona”, DN 1970-12-05, 24 orr. Azken honetan esaten denez, egun batzuk aurrerago, langile indar klandestino batek, manifestaziora deitzen zuten orriak banatu zituen, modu honetan mobilizazioan hiruehun bat lagun biltzea lortu zelarik.

<sup>1119</sup> P.U.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-13. ORTko zenbait militanteren testigantzetan ikusten ahal dugu: “gorputz eta arima aritzea, geure buruen erabatean eskaintzea, erlojuan ez zegoen gauzak egiteko haina ordurik.... Oso gogorra zen, oso militantzia gogorra, gorputz eta arima aritzen ginen. Hamar urte, 70etik 80ra gutxi gora behera, militantzia maila horretan”, P.O.-i egindako elkarrizketa, Iruñea, 2013-02-06; eta : “Momentu hartan, bizitza, gure gure gisara bizitzen genuen, baina, nolabait, guren familien sufrimenduaz hitz egin behar da ere, [guzti horrek] gure emazteengan eragina zuelako, ezta? [...] gero, denborarekin, esaten duzu “Joder, que animal era, que, que...”. Nik eguneko ordu guztiak ematen nizkion [militantziari], etxera soilik bazkaltzera eta lo egitera joaten nintzen; seme-alabak nituen, bai, baina nire denbora osoa... zortzi ordu lanean ematen nituen eta gainontzeko denbora, ba han eta hemen ibiltzen nintzen, saltsa guztietan sartuta”, M.A.R.S., Iruñea, 2013-02-05.

<sup>1120</sup> M.L.C.-i egindako elkarrizkera, Iruñea, 2018-0 1-24.



Militanteekin batera, langile mugimendua bera ere ideologizatu egin zen haren baitan ezker erradikalaren talde politikoez izan zuten presentziaren eraginez. Zentzu honetan, ezker erradikalak "ideologikoki birjina" zen mugimendu bati beharrezkoak zituen ideologia, doktrina eta erreferenteak eman zizkion, 70. hamarkadatik aurrera langile mugimenduak marxismo-leninismoa eta maoismoa oinarri ideologiko nagusi bezala hartuko zituelarik. Horrela gertatu zen CCOOen kasuan. Nafarroako CCOOek, esan dugunez, osaera berezia zuen: haren baitan alderdi komunistak ez zuen nagusigorik eta honek indar aniztasuna ahalbidetzen zuen nolabait. Militante komunistak, independienteak eta are karlistak (FOSekoak) zeuden eta hauekin, ezker iraultzailearen talde politiko desberdinetako (AST-ORT, MCE, PCE (i)-PTE eta LCR-ETA VI) kideak. Guztien artetik ORT nabarmentzen zen arren, hegemoniarik izatekotan, oro har ezker erradikalak zuena zela esan daiteke. Honek, noski, Nafarroako CCOOek jarraitu zuen ildo politikoan eta izan zuen bilakaeran eragina izan zuen. Ezker erradikalaren alderdiek, PCEak aurreikusten zuenarekin alderatuta, CCOOi izaera iraultzaileago eta egonkorragoa eman nahi zioten eta alderdi komunistak *mugimendu* bezala ulertzen zituen bitartean, haren ezkerrean zeuden taldeek *antolakunde* bezala ulertzen zituzten, organo klandestino, egonkor, demokratiko, batasundun eta borrokalari bezala<sup>1121</sup>. Ikusmolde desberdintasun honek, Nafarroako CCOOak jarrera eta estrategia bereziak hartzerantz eraman zituen. Berezi bi egitatek azaleratu zuten berezitasun hura: alde batetik, 60. hamarkadaren amaieran, koordinakunde nazionalak xedatutakoaren kontra, lege sindikal berriaren kontrako protesten markoan Nafarroako CCOOek kargu sindikalak uzteko eta 1971ko hauteskunde sindikalei boikota egiteko estrategia sustatu zuela; bestetik, Nafarroako CCOOek, 1974ean, ezker berriko indarrek PCEari lotutako CONEren aurrean sortu zuen CECON parte hartu zuela. Hurrengo kapituluan izango dugu berezitasun hauetan sakontzeko aukera.

---

<sup>1121</sup> Talde hauek CCOOi buruz zuten ikusmoldeaz gehiago, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 97-104 orr.

### 6.3 LANGILE MILITANTZIA. LANGILEEN IBILBIDE MILITANTEAK

Aurreko ataletan ikusi berri ditugun dinamikak, hots, fabrikak langileen antolakuntzan eta protestarako modu berrien sorreran izan zuen funtsezko papera eta Iruñerriko langile mugimenduak agertu zituen ezaugarri bereziak (aldeaz aurreko langile ideologiaren eta erakundearen presentzia eskasa, alderdi komunistaren indar txikia, apostolutza mugimendu sekularren protagonismoa, langile kultura kristauaren errota eta bilakaera edota ezker iraultzailearen talde politikoen nagusigoa), gure protagonisten ibilbide militanteetan islatuta ikusten ahal dira. Halako ibilbideak, zentzu honetan, langile militanteen eta langile mugimenduaren sorrera eta garapen prozesuak lantzeko tresna baliagarriak izan daitezke. Javier Tebarrek eta bere ikerketa taldeak, esterako, Ibilbide militanteen azterketaren erabilgarritasuna erakutsi zuten, ibilbide militanteek langileek egiten zituzten militantziarako eta autoantolaketakarako bide anitz azaleratzen zituztela agerian utziz. Are gehiago, ikerketa taldeak langile militante ezberdinei egin zizkien elkarrizketetan, militantziarako sarbide desberdinak eta militante izateko modu desberdinak agertzen ziren, azterketaren ondorio nagusienetarikoa bat, langile ekintzaileak faktore ezberdinek (ez bakarrik gogoetabide ideologikoen edota erakunderen batekiko identifikatzeak) baldintzatzen zuten ibilbide baten emaitza zirela izan zelarik<sup>1122</sup>. Oraingoan, guk ere gure subjektuen ibilbideak aztertzeari ekingo diogu. Zirkuituaren berrosatzearekin hasi ginenetik, ibilbide haietariko asko aipatu ditugu jada, baina jarraian, guztiak bildu eta ibilbide eredu desberdinen arabera sailkatu ditugu, berauetan parte hartzen duten elementuak (sareak, esparruak, kultura politikoak) azaleratu asmoz.

Azterketa hau egiteko aukeratu ditugun subjektuak, edozein motatako ibilbide sindikal zein politikoa azaldu izan dutenak dira. Irizpide honen arabera, iturri gutxi batzuk kanpoan utzi ditugu: Txantrearen eraikuntzan parte hartu zuten lehen langileak eta apaizak (apaiza eta langilea den heinean, M.P.-k badu ibilbide militante nabarmendu bat)<sup>1123</sup>. Lehenik eta behin, topatu ditugun ibilbide eredu edo mota desberdinak azalduko ditugu. Gero, protagonisten ibilbideen kontaketa egingo dugu eredu haietariko bakoitzaren adibide gisara. Azkenik, taula batean, azaleratutako informazio guztia bilduko dugu.

Orokorrean, aztergai izan ditugun ibilbide militanteetan, militantzia sindikala, militantzia politikoa baino lehenagokoa da. Protagonisten gehiengoak, CCOOera edota bestelako erakunde sindikalen batetara eramaten duen lehenbiziko ibilbide bat du. Antolakuntza politikoa gero ematen da, aurreko ibilbidean garatutako sareetatik abiatuta askotan. Kasu hauetan, bi ibilbide nagusi bereiztu ditugu. Lehena, apostolutza mugimendu sekularren erakunderen batean abiapuntu duena; bigarrena, zuzenean lantokian, adibidez fabrika komisioan, hasten dena. Hauekin batera hirugarren ibilbide bat aurkitu dugu, militante komunistena, oraindik alderdian antolatuta egon gabe CCOOen hasten dena eta gero, momenturen batean, PCEra bideratzen dena. Laugarren ibilbide batek kontrako norabidea agertzen du: talde politiko batean antolatzearekin hasten da, subjektua militantzia sindikalera eramaten duena militantzia politikoa bera izango delarik. Azkenik, bosgarren eredu batean gazte ibilbideak sailkatu ditugu. Hauek, gure subjektuen kasuan, abiapuntua ikasle edo gazte mugimenduetan izateagatik eta auzo mugimenduetan helmuga izateagatik bereizi egiten dira. Hala eta guztiz ere, guztietan elementu komunak (sareak, esparruak, kulturak) topatuko ditugu eta protagonisten esperientzia askotan, ibilbide desberdinen dinamikak nahasten ahal direla ikusiko dugu.

<sup>1122</sup> Javier Tebar, "Entre el barri..." Op. Cit., 140 orr.

<sup>1123</sup> C.B., gure 40. iturria, sailkapen honetatik kanpo utzi dugu bere ibilbide guztia, frankismoaren bitartean, Bartzelonan garatu zelako eta ondorioz, Iruñerriko militantzia ibilbideen dinamikak azaleratzen ez dituelako.

### 6.3.1 Ibilbide militanteen azterketa

*Apostolutza mugimendu sekularretatik abiatzen diren ibilbideak*

#### 1.Ibilbidea: Apostolutza mugimenduetatik militantzia sindikalera: USO

Ibilbide hauetan, HOAC eta JOC mugimendu sekularrak dira subjektuen langile errealiterako eta militantziarako sarbidea, hauek halako erakundeetara sare desberdinen bitartez (parrokia, praktika erlijiosoa, eskola profesionalak) iristen zirelarik. Militanteek, esparru hauetan, aurreko kapituluan aztertutako formakuntza jaso eta militantzia ereduak garatu zuten, batetik zein bestetik eratorrita barneratu zuten konpromiso mundutarrak, ibilbideak erakunde kristauetatik kanpo bideratzera eraman zituen arte. Kasu hauetan, ohikoena zen ibilbide haren helmuga militantzia sindikala izatea: Sindikatu Bertikalaren egituretan parte hartuta (non ordezkariak kargu sindikal garrantzitsuak betetzera iristen ziren) edota legezko esparru hauek, esparru klandestinoen erabilerarekin uztartuta. Haietariko bat, HOACeko eta JOCeko militante talde batek Iruñean sortu zuen USO sindikatua izan zen. Ibilbide eredu honetan USOk etapa berri bat abiatzen du ekintzaileen militantzian. Aipatzekoa da halako ibilbideak ez direla militantzia politiko nabarmendu bateraino bilakatzen<sup>1124</sup>.

J. M. M.-ek bere Ibilbidea parrokia talde baten bitartez HOACen sartu zenean hasi zuen. Militantzia bizia izan zuen bertan: formakuntza ikastaroak eta planak burutu zituen, GOES taldeetan ibili zen eta kargu garrantzitsuak bete zituen komisiario diocesiarrean. Militantzia honen emaitza, aipatu konpromiso mundutarraren garapena izan zen, harentzat aktibismo sindikalean murgiltzeko pizgarri izango zena. Deskribatutako ibilbide ereduari jarraiki, bere jardura sindikala Sindikatu Bertikalaren egituretan hasi zuen, abelazkuntzaren sindikatuko sail sozialaren lehendakari izatera iritsi zelarik. Gero bidea USOn jarraitu zuen, sindikatu honen lehen nukleo iruñarraren parte izan zelarik. Antzeko jarraibideen arabera bilakatzen da J.L.A.-ren ibilbidea. Bera ere HOACen hasi zen, Iruñeko Adoración Nocturnan egin zuen harreman sarearen bitartez. Erakundearen militante nabarmendua izan zen eta komisiario diocesiarreko lehendakari izatera iritsi zen. HOACen konpromiso mundutarraren zentzua barneratu ondoren, bere ibilbidea militantzia sindikalera bideratu zuen ere: Sindikatu Bertikalean (J.M.M bezala, abelazkuntzaren sindikatuko sail sozialeko lehendakari izan zen) eta USOn. Indar handia izan zuen USOren nukleo garrantzitsu bat sortu zuen bere fabrikari.

C.A.-en kasuan sarbide erakundeak ez zen HOAC izan, JOC baizik. Imenasako eskola profesionalean ezagutu zuen mugimendua, ikaskide batzuekin erakundearen lehenbiziko nukleo antolatuetariko bat sortu zuelarik. JOCen eta honen inguruko eskola sozialetan jasotako formakuntzak, HOACeko militanteei gertatu bezala, konpromiso mundutarreraino eraman zuen. Bere ibilbide militantea JOCetik kanpo jarraitu behar zuela sentituta, HOACeko militante batzuekin batera USO sortu zuen Iruñean. Orduetik aurrera, bertan bilakatu zen bere ibilbidea osoa. Sindikatuko militantea izan zen urte luzez, legezkatuta izan zenean, bertan zuzendaritza kargu garrantzitsuak bete izan zituelarik.

Ibilbide eredu honetan M.A.M-ena sailkatzen ahal dugu nolabait. Hasteko, HOACeko militanteen ibilbide tipikoa azaltzen du: talde parrokiaren bitartez sartu zen mugimenduan, ikastaroak eta formakuntza planak bete zituen, GOESetan parte hartu zuen, komisiario diocesiarrean kargu garrantzitsuak bete zituen eta ZYX argitaletxearen proiektuan parte hartu zuen. Kasu honetan, bilakabide

<sup>1124</sup> Kasu honetan militantzia politikoa, talde politiko jakin batean militatzea bezala ulertzen dugu.

honetan garatu zuen konpromiso mundutarrak militantzia sindikalera eraman zuen hasiera batean eta Sindikatu Bertikalean ordezkari sindikal eta Industria Kimikoen Sindikatuko sail sozialeko lehendakari gisara aritu zen. Baina 1966tik aurrera, bere ibilbideak, ikusi dugun bide sindikala alde batera utzi eta beste norabide batean garatu zen. Urte hartan Iruñeko Udaleko zinegotzi hautatu zuten eta ordutik aurrera, bere konpromisoa, bereziki alor hiritar eta instituzionalean gauzatu zuen.

Kasu guzti hauetan, apostolutza mugimendu sekularretan gauzatutako lehenbiziko militantzia hura, erabakigarria suertatu zen ondorengo ibilbide militantea abiatu ahal izateko. Izan ere, aztertu ibilbideek azaleratzen duten bezala, aipatu militante guztiek, militantzia soziopolitikora bultzatzen zuen konpromiso mundutarra esparru hauetan baneratu zuten eta Sindikatu Bertikaleko karguak lortzeko beharrezkoak ziren atxikimenduak eskuratzeko eta USOk militantzia abiatzeko sarbideak, mugimendu hauetatik sortutako harreman sareetan topatu zituzten.

## 2. Ibilbidea: Apostolutza mugimenduetatik militantzia sindikalera: CCOO eta militantzia sindikaletik politikora: ezker iraultzailearen talde politikoak

Honakoa, protagonisten artean oso maiz ematen den ibilbidea da. Kasu honetan ere militantzia sindikalerako eta militantzia politikorako sarbidea, apostolutza mugimenduak dira. Langile kultura kristauaren eraginak eta konpromiso mundutarraren garapenak, hartara, protagonismo handia dute berriz ere. Aurreko ibilbideekiko desberdintasun nagusienak militantzia sindikala gauzatzeko esparrua (CCOO gehienetan) eta militantzia politiko baten garapena (ezker iraultzailearen talde politikoetan gehienetan) izango dira.

Ibilbide hauetan, aipatu apostolutza mugimendu sekularrak, VOJ eta JOC izango dira batez ere. Alta, E. A.-rena bezalako ibilbideak ere aurkitzen ahal dira, aurrekoak bezala HOACen hasi eta Sindikatu Bertikalean ordezkari sindikal bezalako karguak betez garatzen hasten direnak, baina militantzia sindikala, USOran beharrean, fabrika komisioan parte hartzearen bitartez, CCOOera bideratzen direnak. Apostolutza mugimendu sekular desberdinetatik, VOJ izan zen protagonisten militantzia sindikala CCOOera modu zuzenen eraman zuena. Espero izatekoa da, Vanguardiasetik AST jai zela eta ASTk Zentro Marianoan burutzen zituen bileretatik Nafarroako CCOO sortu zela kontutan hartuta. VOJetik M.G.-ren, J.S.M.-en, PA.S.-en eta P.O.-en ibilbideak abiatu ziren. J.S.M. eta PA.S. Potasaseko eskola profesionaleko ikasleekin osatu zen nukleo edo talde berean hasi ziren, M.G. Zentro Marianotik eskaintzen ziren jarduera kulturaletariko bat zen dantza taldearen bitartez sartu zen eta P.O., zentro hori bera aisialdirako esparru erabiltzearen bitartez. Guztiek hemen formakuntza jaso zuten, langile mugimendua eta marxismoa ezagutu zituzten eta ezkerreko kultura kristauan murgildu ziren. Gizarteratze honen ostean, euren fabriketan sortzen hasiak ziren fabrika komisioekin bat egin eta CCOOen militatzen hasi ziren. Militantzia politikoari dagokionean, gehienak ORTko militanteak izan ziren. JE.C.-en kasuak, aurreko ibilbide hauekiko zenbait desberdintasun agertzen ditu. VOJeko militantea izan zen ere, baina mugimendurako sarbidea lantokian aurkitu zuen. Bertan, jada erakundeko militantea zen lankide bat ezagutu zuen eta harekin batera hasi zen Zentro Marianoko bileretara joaten. Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu zuen eta bere fabrikako komisioko kide izan zen hasieratik. Aurrekoekin alderatuta, desberdina izan zen ere bere garapen politikoa, MCEko militantea izan baitzen.

JOCetik abiatzen diren ibilbideak, berez, dinamika berdina jarraitzen dute, desberdintasun bakarra, militanteen lehenbiziko gizarteratzea mugimendu desberdin batean ematen dela da. Kasu hauetan, aipatu JOC edota Acción Católicaren bestelako gazte mugimenduak dira militantzia sindikal eta politikora eramaten duten kontzientzia

eta konpromiso soziala (konpromiso mundutarra) garatzeko abiapuntua. F.E., adibidez, Etxabakoitzeko zentro parrokialean JOCEko militantea izaten hasi zen. JOCetik ikasten ahal zuen guztia barneratuta, bere ibilbidea aktibismo sindikal zein politikora bideratu zuen, aurreko militantzia hura alde batera utzita. Lehenbizi, fabrika komisioren sorreran parte hartu zuen beste lankide batzuekin batera (gehienez apostolutza mugimendu sekularretan ere jatorria zuten ere) eta ordutik aurrera, CCOO mugimenduaren parte izan zen. Politikoki, ORTaren bidetik jo zuen. I.N. JOCEko militante egin zen ikastun zenean. Gogo biziz parte hartzen zuen mugimenduaren bileretan eta ekimen handia azaltzen zuen bere lantokietan bertan ikasitakoa aplikatzeko: lankideen artean “ikastunen eskubideak” ezagutarazten zituen edota nagusien ekintza paternalistak (gabonsariak, anaitasun otordu arinak) arbuatzen zituen. Orena enpresan hasi zenean, bertan sortzen ari zen langile komisiotan inplikatu zen, koordinakundean bere sektore edo zonaldeko ordezkaria izatera iritsi zelarik. Politikari dagokionean, PCE(i)-PTEko militantea izan zen. M. M.L.C. ere JOCEko militantea izan zen. Bere kasuan, mugimendurako sarbidea lantokian izan zuen, jada militantea zen lankide baten bitartez. Hemen ezagutu zuen lehenbizikoz langile mugimendua eta laster, orduan ere JOCarekin bat egin zuten beste lankide batzuekin, Potasaseko bulegoko langile komisiota sortu zuen. CCOOeko militante egin zen, politikoki PCE(i)-PTEan antolatuta zegoen bitartean. R.U.-en ibilbide sindikal eta politikoaren abiapuntua berez fabrika izan zen arren (fabrika komisiotan lan egiten zuten CCOOeko eta PCE(i)-PTEko militanteak ziren lankideen eskutik hasi zuen), hemen sailkatzen dugu tailer batean ikastun zela, JOCen ibili zelako. Beraz, alde aurreko etapa hau betetzen du, modu batean edo bestean, JOCen formakuntza metodoekin eta langile kultura kristauarekin harremanetan egon zelako. Acción Católicaaren bestelako gazte mugimenduetan hasi izandakoen kasu bakarra topatu dugu, J.Z.-rena. Bankaren sektoreko langile komisioko kide izan baino lehen, Acción Católicaaren gazte erakunde bateko militante izan zen, zuzendaritza kargu batean aritu zen gainera.

M.P.-ren ibilbidea, eredu honen adibide oso adierazgarria da, apaiz langilea izaterakoan, apostolutza mugimenduekiko oso harreman zuzena izan zuelako. Are JOCEko hainbat abiatze talderen arduraduna izan zen 70. hamarkadaren hasieran<sup>1125</sup>. Kontzientzia sozialak eta langile kultura kristauak eragin handia izan zuten bere ibilbidean hasieratik, bata zein bestea, Iruñeko seminarioan ikasle zen garaitik, Kontzilioak berekin ekarritako irekitasun giroan, barneratu baitzituen. Langileen alde egon behar zelaz konbentziturik, fabrika batean hasi zen lanean peoi gisara, bertan langile mugimendua antolatzen hasi eta fabrika komisioren buru nagusi bilakatu zelarik. Inoiz ORTko militantea izan ez zen arren, trantsizioan, askatasun sindikalak erakunde desberdinen sorrera ahalbideratu zuenean, ORTak babestutako Sindicato Unitarioaren lehenbiziko idazkaritzaren parte izan zen.

Ibilbide hauekin, hainbat kasu berezi sailkatu ditugu. Hasteko, nahiz eta militantzia sindikaleko etaparik azaltzen ez duten, apostolutza mugimenduetatik ezker erradikalaren talde politikoetarako bilakabidea betetzen dutenak ditugu. A.L.-k, iturrien sailkapenean auzo mugimenduko protagonista bezala izendatu duguna, bere ibilbidea kristau komunitate batean hasi zuen. Hemendik, bera eta berarekin bertan parte hartzen zuen kideen gehiengoa, MCEra sartu ziren. Langileen abokatu izandako P.L., oraindik zuzenbide ikasle zela hasi zen PCE(i)-PTEan militatzen. Ordurako jada bazuen esperientzia JOCen, seminarioko bere ikasturteko ikasleez osatutako talde batekin batera erakundean ibili baitzen. Bukatzeko, J.I.S.-en kasua ere berezia da eredu honen baitan. Berea, ibilbide militante sindikala da, baina oso berandu garatzen dena. Egiazki, zirkuiturako sozializazioa esparru

<sup>1125</sup> “Federación de Pamplona” (datarik gabe). AJOC-JOCA, Espainiako JOC-Zonaldeak: euskal-nafar zonaldea saila, 91. kutxa

erlijiosoetatik (kristaudi ikastaroak) burutu zuen eta langile kultura kristauan murgildu zen. Berez garai honetan militantzia aktibo bat garatu izan ez zuen arren, hiriko giro sindikal eta politikoekin nolabaiteko harremana izan zuen, aipatu esparru erlijiosoetan egindako sareen eta harremanen bitartez. Trantsizioan, askatasun sindikala bermatu zenean, ELAko militante egin zen, azkenik militantzia antolatuko ibilbideari hasiera emanez.

Ikusten dugunez, apostolutza mugimendu sekularrak edota bestelako esparru erlijiosoak, subjektu askok ezagutu zuen sozializaziorako lehenbiziko esparrua izan ziren, euren ibilbideen abiapuntu ere bilakatuko zelarik. Orokorrean, hemendik, militantzia sindikala CCOOen bitartez bideratu zen eta militantzia politikoa, ezker iraultzailearen talde politikoen bitartez. Bilakabide hauek ulertzeko kontutan izan behar dugu hemen sailkatu ditugun subjektuak, abiapuntutzat izan zituzten apostolutza mugimenduetatik 60. hamarkadaren amaieran edota 70. hamarkadaren hasieran, hots, Acción Católicaaren krisia bor-bor zegoenean eta honen ondorioz mugimendu espezializatuetao militanteak barreiatzen hasi zirenean, pasatu zirela.

### *Fabrikan hasten diren ibilbideak*

#### 3. Ibilbidea: Fabrikatik zuzenean CCOOra eta ezker iraultzailearen talde politikoetara

Aurrekoarekin batera, hirugarren hau protagonisten artean maizen agertzen den ibilbide eredu da. Hemen sailkatu ditugun kasuetan, militanteen sozializaziorako esparru nagusia, langile mugimendurako sarbidea, zuzenean fabrika da. Protagonistek bertan, jada mugimendu sindikalean edota talde politikoetan nahastuta dauden elementuak ezagutzen dituzte eta hauen eskutik hasten dute euren aktibismo militantea: fabriketako langile komisiotan lanean hasten dira, CCOOeko militante egiten dira eta askotan ere, talde politikoekin bat egiten dute.

Potasaseko meatzaria zen J.U.-ek, bere ibilbidea, lan egiten zuen meatze putzuaren ahoan hasi zuen ia-ia. Ez zuen langile mugimenduaz inolako kontzientzia edo ezagutzarik, aho hartan euren kezkei buruz, lan baldintzen eta segurtasunaren egoeraz, hitz egiten zuten langile batzuekin elkartzen hasi zen arte. Langile hauek bilerak antolatzen zituzten eta bera hauetan parte hartzen hasi zen. Modu honetan, meategiko langile komisiara sartu zen, fabrikako langile mugimenduan nahastuz. CCOOeko militante bezala, aktiboki esku hartu zuen fabrikako jarduera zein borroka sindikalean, militantzia horrengatik kaleratua izango zelarik. Bere militantzia politikoa ere lantokian izan zuen abiapuntua. Meategian lanean eta meategiko langile komisiotan, ORTko militanteak ziren hainbat lankiderekin harreman estua egin zuen eta haien eskutik egin zen alderdiko kide. J.A.C. 70. hamarkadaren hasieran herritik Iruñeara iritsi eta Authin lanean hasi zenean, fabrikan jada langile komisiota, langile mugimendu antolatu bat, existitu egiten zen. Hasiera batean bigarren maila batean mantendu zen arren, bazuen mugimendurekin bat egiteko nolabaiteko alde aurretiko joera bat, irakurgaien bitartez jada nolabaiteko balore eta oinarri sozialak barneratuak baitzituen. Berak kontatzen duenez, militantzia sindikalera alde aurreko joera honen eta baita kasualitatearen eskutik iritsi zen:

Hona iritsi eta asanbladak eta guzti hori ikusi nituenean... ba hasieran ez nintzen nahasi, ezta? Noski, fabrikan jada lanean ari ziren sindikalistak bazeuden eta ni iritsi berria nintzen. [...] baina [handik gutxira] sindikalista nabarmenduenak kaleratu zituztenez, ba, ez dakit zergatik, plazara irtetzea erabaki nuen, ezta? Eta beno, ba, jendearen gogokoa izan omen nintzen eta... beno, dinamikan sartzen zara. Erantzukizun zentzua baduzulako esaten duzu "Joder, es que era amigo mío, le han despedido...", asanbladetan plazara irten zara, jendeak esaten du "Pero este tío vale para lo que queremos" eta noski, jendeak onartzen zaituen momentutik, zuk, jendearekiko konpromiso bat duzula sentitzen duzu eta jada ezin duzu konpromiso hori

saihestu... orduan dinamikan sartzen zara eta hori da [mugimenduan hasteko] modua, ezta? [J.A.C.. CCOOeko militantea]

Orduetik aurrera, buru sindikal gisara nabarmendu zen bere fabrika eta baita Nafarroako CCOOen ere. Politikoki, ORTik gertu mugitu zen. Ibilbide sindikal eta politiko honek jarraitutasuna izan zuen trantsizioaren garaian, sindikatuen legeztatzearen ostean, ORTak babestutako Sindicato Unitarioko lehenbiziko Idazkari Nagusi izendatua izan zenean.

K.P.-ek y P.M.-k, Imenasako langileak biak, euren ibilbideak hutsetik abiatu zituzten fabrika hartan. Bi kasuetan, bilakabidea berbera izan zen: 60. hamarkadaren amaieran hasi ziren fabrika lanean eta ordurako jada langile mugimendu antolatu bat zegoen bertan. Bientzat langile komisioko buru nabarmenduenetariko bat zen pertsona jakin bat izan zen militantzia sindikalerako sarbidea. Militante honen eskutik, langile komisioko lanean hasi eta CCOOeko militante egin ziren. Harreman horretatik eratorri ziren konfiantza sareek jarraipena izan zuten militantzia politikoaren alorrean ere, sareetatik LCR-ETA/Ilko militantzia nukleo garrantzitsu bat sortu baitzen fabrika. M.S.S. Inquinasako bulegoan lanean hasi zenean, ez zuen langile mugimendua ezagutzen. Telefonistarekin (F.E., aurreko ibilbide ereduak ikusi duguna) egin zuen harremana izan zen fabrikako langile mugimendura eraman zuena, haren bitartez, komisioko kideek, burutuko zuten bilera batetara gonbidatu baitzuten. Halako bileretara joaten hasi zen, CCOO ezagutu zuen eta modu aktiboan parte hartzen hasi zen. Orduetik aurrera, bere ibilbide osoa CCOOn, militante sindikal bezala, garatu zuen. Militantzia honi trantsizioan, Sindicato Unitarioaren lehen idazkaritzako kide izatearekin jarraipena eman zion. S.L. Inquinasako langilea zen ere. Militantzia sindikalerako zein politikorako bere sarbidea, aldi berean eta modu berean gertatu zen: fabrika lanean hasi zenean, bazegoen jada langile komisioko osatu bat (F.E. eta M.S.S. kidetzat zituen hori bera); komisioko kide bat bere anaiarekin ORTaren zuzendaritza komitean zegoen eta hura izan zen bai CCOOerako eta baita alderdirako sarbidea eman ziona. Laster batean, erantzukizuna handiko karguak beteko zituen bi erakundeotan. R.M. herritik hirira eta fabrikara iritsi zen 1966an. Ez zituen ez langile mugimendua eta ezta langile erakundeak ere ezagutzen, baina fabrika, langile arazoez hitz egiten zioten eta "euren istorioak" kontatzen zizkieten pertsonekin harremana egiten hasi zen. Egun batean, soldaduzkaren garaiko kide batek bidali zion apostolutza mugimenduren batek (HOAC edo JOC) egindako egutegi bat eskegi zuen fabrika eta ekintza txiki honek, fabrika jada existitu egiten zen langile komisioko atentzioa eman zion. Militante sindikalak harengana hurbildu ziren eta haien eskutik CCOOen hasi zen. Norabide politikoa fabrikako langile komisioko baitan hartu zuen ere. Kide baten bitartez, komisioko MCEko militante batekin harremana egin zuen eta honek, kideei ematen zien hitzaldi eta materialen (Maoren testuak) bitartez, gehienak alderdira gerturatu zituen.

Eredu honetan sailkatu izan ditugun hainbat ibilbidek, modu argian fabrika militanziarako sarbide bezala duten arren, aurreko ibilbide ereduak elementuak agertzen dituzte, bereziki apostolutza mugimendu sekularren papera eta langile kultura kristauaren eragina. Kasu batzuetan, nahiz eta fabrika langilearen sozializazioarako gune nagusia izan, Zentro Marianoak paper garrantzitsua du hainbat ibilbideren hasieran, Vanguardias mugimenduan militantzia aktiborik ez dagoen arren. I.B.-ren eta C.O.-en kasua izan zen. I.B. ez zen inoiz Vanguardiaseko militantea izan mugimenduaren izaera erlijiosoarekin bat egiten ez zuelako. Hala ere, Lanbide Heziketa ikasketak amaitu eta Imenasan lanean hasi zenean, fabrikako eskola profesionalean ikaskide izandako lankide baten eskutik iritsi zen Zentro Marianoan egiten ziren bilketetara. Berauetan parte hartu zuen eta CCOO mugimenduan murgildu zen, bere fabrikako komisioko kide goiztiarrenetariko bat

izango zelarik. 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera, Imenasako erreferente sindikal nabarmendu bilakatu zen. Politikoki, LCR-ETA Viren bidetik jo zuen. C.O.-en kasua oso antzekoa izan zen. Authi fabrika 60. hamarkadaren erdialdean martxan jarri bezain pronto, bertan sortu zen aurre-komisioan parte hartu zuen. Talde horretan, Vanguardiaseko militante bat zegoen eta haren bitartez hasi zen Zentro Marianoko bileretara joaten. Bere ibilbide sindikala CCOOi lotuta geratu zen orduetik aurrera, fabrikako langile komisioko militante bezala eta Nafarroako CCOOen koordinakundeko kide bezala. M.A.R.S.-ren langile mugimendurako sarbidea fabrika izan zen ere, baina bere kasuan jada, langile mugimenduan militatzeko ideiarekin sartu zen lanera. Hain zuzen ere militatzeko alde zurreko joera hau da bere ibilbidea berezi egiten duena. Militantziarako gogo hura piztu zuten hainbat faktore aurkitzen ahal ditugu haren bilakabidean: aitaren tradizio anarkistak ezaugarritzen zuen etxeko giroa, Zentro Marianoarekiko nola edo halako harremana (anaia mendi taldeko kide izatetik sortzen zena) eta Huescako lan unibertsitatean izan zuen antolakuntza eta militantzia esperientzia txiki bat. Erraza izan zen berarentzat fabrikako langile komisioko hastea, enpresaren eskola profesionaleko ikasle izandakoa zenez, ikasle garaitik orain fabrikari antolatua zegoen jende asko ezagutzen zuelako. CCOOeko militante egin zen, Nafarroako koordinakundeko kide izatera iritsi zelarik ere. Politikoki, ORTko militantea izan zen.

Beste kasu batzuetan, apostolutza mugimenduekiko eta langile kultura kristaurekiko harremana, iragaitza izan beharrean, nabarmenagoa da. J.M.V.-rena, deskribatu ditugun fabrikari abiapuntua duten ibilbideen oso antzekoa da, baina protagonistaren bilakabidearen norabidea desberdina da. Eredu honetan kasu askotan ikusi dugun bezala, pertsona bat izan zen zirkuiturako sarbidea eman ziona, M.A.M.. Haren bitartez, HOACak Penibérica fabrikari zuen militante nukleoan hasi zen lanean, HOACeko militante egin zelarik<sup>1126</sup>. J.M.E. eta PE.S. hutsetik hasi ziren ere langile mugimenduan, fabrikaren esparruan, jada CCOOeko militanteak ziren elementuen eskutik. Lehenbizikoaren kasuan, aipatzekoa da ikastetxe erlijioso bateko ikaslea izan zela eta bertan, Kontzilioaren giroan murgilduta, *“oinarri bat, etika bat, mundua desberdina izan zitekeelako kontzientzia bat”* barneratua zuela eta ikastetxe hartatik bestelako mundu bat lortzeagatik borrokatu eta lan egin nahi zuelaz konbentziturik atera zela. Super Ser fabrikari sartu zen eta bertan, aipatu kontzientzia horren eraginez azaldu zituen hainbat jarrera ikusita, langile komisioko kideak gerturatu zitzaizkion mugimenduan parte hartzera gonbidatzeko. Horrela egin zen CCOOeko kide. Erlijiozaletasuna oso elementu garrantzitsua izan zen PE.S.-en ibilbidean. Kasu honetan ere, langile mugimendurako sarrera fabrikari eta jada antolatuak zeuden langile militanteen bitartez egin zen, baina hurbilketa erraztu zuena, oraingoan, protagonistak errotuta zuen erlijiozaletasuna izan zen. Izan ere, sarbide emango zion langile komisioko kidea M.P. apaiz langilea izateak, konfiantzazko harreman bat sortzea eta berak militantziarako jauzia ematea ahalbidetu zuen.

Fabrikak betetzen duen sozializazio sindikal eta politikorako esparru bezalako papera ibilbide eredu honen ezaugarri nagusia da. Halako bilakabide militanteak, orokorrean, hutsetik hasten dira, langile mugimenduari edota bere erakundeei buruzko kontzientzia edo ezagupenik izan gabe. Beraz, fabrikaren errealitatetik eta fabrikari sortutako harreman sareetatik eratortzen den eguneroko praktika da, berez, militantzia piztu eta garatzen duen indarra.

#### 4. Ibilbidea: PCEko militanteak

<sup>1126</sup> Nahiz eta, berak onartzen duen bezala, ez zuen inoiz “plan ziklikoa” amaitzea lortu. J.M.V.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-12-22. J.M.V. gainera, aurrerago, M.A.M.-ekin batera, Iruñeko Udakelo zinegotzia izango zen.



Alderdi komunistaren militantziara eramaten duten ibilbideak, aurreko eredu sailkatzen ahal genituen arren, berezko eredu batekin nabarmendu nahi izan ditugu aurreko atalean PCEaren bilakaeraz egindako azterketaren eranskin gisara. Topatzen ditugun ibilbide honen bi kasuak, kasik berdinak dira: langile mugimendurako lehen sarbidea lantokian eta Zentro Marianoan, militantzia sindikala CCOO eta militantzia politiko (berantiarra) alderdian. M.BU., Granadan jaioa, Gipuzkoatik etorri zen Iruñera eta tailer txiki batean hasi zen lanean. Bertan, apaiz izateko seminarioan ikasten ibilitako lankide bat ezagutu zuen eta haren bitartez Zentro Marianoa ezagutu zuen. Hemen, Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu zuen. Jada CCOOeko militantea zela hasi zen Eaton fabrian lanean eta laster, bertako militante sindikal nabarmendu bilakatu zen. PCEan beranduago hasi zen, hein batean, 60. hamarkadaren erdialdean Iruñera iritsi zenean, alderdiak, ikusi dugun bezala, ez zuelako egitura antolatua. 70. hamarkadan PCEaren egiturak egonkortu zirenean, bertan Granadatik ekartzen zuen tradizio komunista berreskuratu ahal izan zuen. A.H.R-en kasua berdina izan zen. Iruñera Jaendik etorri zen 60. hamarkadaren erdialdean. Lan egin zuen lehenbiziko fabriketako batean, Zentro Marianoa bideratu zuen pertsona bat ezagutu zuen. Giro hartan egingo zen CCOOeko militante. M.BU.-ren kasuan bezala, berandu antolatu zen alderdi komunistan, alderdiaren presentzia nabarmena izaten hasi zen bezain pronto. Beraz, euren PCEko militantzia gauzatuko zen arte, ibilbide hauek alor sindikalean garatzen dira, CCOOen, non komunista bezala parte hartzen duten, ez PCEko militante bezala.

*Militantzia politikotik militantzia sindikalera: ezker iraultzailearen taldeetatik CCOOera*

#### 5. Ibilbidea: ezker iraultzailearen talde politikoetatik fabrikara eta fabrikatik CCOOera

Ibilbide hau ez da berez, gure subjektuen artean, kasu askotan eman. Baina azaldu zaizkigunak, oso kasu interesgarriak dira, orain arte aztertu ditugun ibilbideen kontrako norabidean garatzen direlako. Bilakabide hauek zuzenean talde politikoetan, ezker erradikalaren taldeetan, dute abiapuntua. Zentzu honetan, militantzia politikoa bera izango da, alderdien estrategia iraultzailearen parte bezala, mugimendu sindikalean parte hartzera bultzatuko duen indarra. Gure protagonistak beraz, jada sortuta dagoen langile mugimenduan lanean hasteko berariazko asmoarekin sartzeko fabriketara eta laster batean, bertako langile komisiorekin bat egiten dute. Nolabait, laugarren kapituluaren ikusten genuen auzo militante batzuen antzeko esperientzia da. Auzoko militantzia ere alderdiaren estrategia izan zen ekintzaile politiko askorentzat eta hauek, hasiera batean, auzoetan talde politikoaren presentzia errotzea helburu zuten komunitatez kanpoko elementuak izan baziren, laster auzo bizitzarekin eta auzoko arazoekin konprometitutako auzo militante bezala garatuko zuten euren ibilbidea.

P.U., M.B. eta V.D.-ren bilakabideek gauza bat dute elkarrekin: hiru protagonistak seminarioko ikasleak izan ziren. Ondoren azaltzen dituzten esperientziak ordea, oso desberdinak dira. Kasu hauen artean bereziki P.U.-rena da. Seminarioan ikasketak burutu ostean, "aita zuriekin" joan zen misiolari eta Kanadan egon zen. Bertan, Kontzilioaren berrikuntzaren eragina jaso zuen. Gero Afrikara joan zen - oraingoan ez misiolari bezala- eta gaztelania irakasle gisara aritu zen Malin. Bertan, bere lehenbiziko esperientzia politikoak bizi izan zituen, beste irakasleekin eta hauen giroko pertsonekin harremana egiterakoan. Adiskide hauen artean elementu marxistak, komunistak eta troskistak zeuden eta haiekin teoriak (Marx, Lenin, Trotski) eta praktikaz hausnartzeko parada izan zuen. Afrikako esperientziaren ostean, 70. hamarkadaren hasieran, Iruñera talde ezkertiar batean militatu behar zuelako ideiarekin itzuli zen, "bertze gizarte bat antolatzeko" biderik zuzenena iruditzen baitzitzaien. Hasteko, seminarioan ikasle zela egindako harreman sarearen bitartez, halako talde batean sartzerik izan zuen (LCn) eta gero, El

Pamplonica fabrikan lana lortu zuen, bertako langile mugimenduan parte hartzeko intentzioarekin. CCOOeko militantea izan zen. M.B., seminarioan hezibidea izan ondoren, Lovainako Unibertsitatera joan zen goi mailako ikasketak burutzera. Ikasketak utzi zituen talde politiko ezkertiar batean militatzen hasi zelako, MCEan. *“Iraultzaren subjektua langile klasea zelako teoriari”* jarraiki, 70. hamarkadaren hasieran fabrika batean hasi zen lanean, hasieratik mugimendu sindikalean parte hartzea helburu izan zuelarik. Bere fabrikako langile komisiorekin bat egin zuen, Nafarroako CCOOeko militante nabarmendua izan zen (legeztatzearekin Nafarroako CCOOeko lehenbiziko Idazkari Orokorra izan zen) eta 1975ean hautatu zen azkeneko Langile Kontseiluko lehendakariordeetariko bat izan zen. V.D. ere seminarioan ikasi zuen eta ikasketa etapa hau amaitutakoan, bere jaiotze herrira itzuli zen. Urte batzuk geroago Iruñera itzuliko zen berriz, talde politiko bateko (LCR-ETA VI) kide bezala eta fabrika batean lanean hastea hala nola langile mugimenduan militatzea jomuga zuela. Talde politiko honetan antolatu zen herriko lagun bat lmenasan lan egiten zuelako eta haren bitartez jada, antolatuta zegoen jendea ezagutzen zuelako. Berak nonbaiten antolatzeko gogoak zituen (ordurako jada bere tradiziozko kulturekin, karlismoarekin eta katolizismoaren hautsi zuen) eta lagunaren eta elementu antolatu haien bitartez, alderdira erakarria izan zen. Iruñera abiatu zen fabrika batean, aukeran fabrika handi batean, lan egiteko eta bertatik langile mugimenduan sartzeko. Potasasen lanean hasi eta han CCOOekin bat egin zuen.

Bereziki ibilbide hauen bi aspektu nabarmentzen ahal dira: lehenbizikoa, talde politikoetarako sarbidea modu desberdinetan eta harreman sare desberdinen bitartez ematen dela; bigarrena, berandu abiatzen diren ibilbideak direla, 70. hamarkadaren hasieran, hain justu Iruñerriko langile mugimenduaren egiturak jada osatuak eta finkatuak zeudenean.

### *Bestelako militantzia ibilbide ereduak*

#### 6.Ibilbidea: Gazte ibilbideak

Ibilbide hauek, berez, berandu, 70. hamarkadaren erdian, abiatzen dira eta kapitulu honetan aztertu dugun Iruñerriko langile mugimenduaren sorreran parte hartzeko gazteegiak diren militanteak dituzte protagonista bezala. Are gehiago, hemen sailkatu ditugun kasuetan, ibilbideak ez dira alor sindikaletik bideratzen. Hala ere, bilakabide hauek, aurreko ereduaren hainbat dinamika militantzia ibilbide berrietan mantendu egin zirela azaleratzen dute. Bi kasu ditugu. Lehenbizikoan, J.P.-ek, bere ibilbidea, ikasle zen eskola profesionaleko ikasle mugimenduan antolatuz hasi zuen. Bere lehenbiziko militantzia Nafarroako Ikasle Batzordeetan (CEN) gauzatu zuen, non *“ez genuen ezer egiten, soilik Kilapayúnen musika entzun, zehaztasunik gabe hitz egin, apaizen kontrako lau bat pegatina ipini eta halako gauzak. Gero ere ikasketa nukleoak egiten genituen, ba, zergatik daude gauzak horren gaizki? eta are zergatik amnistiarik ez egotea gaizki zegoen eta ez dakit zer gehiago aztertzeke elkartzen ginen”*. Gero, auzo mailan, gazte erakunde politiko batean, Gaztedi Abertzale Iraultzailean (LAIaren gazte antolakundean) militatu zuen. Aurreko ibilbideetan erakunde politikoetako militanteek aktibismoarako esparruak zabaldu nahi zituztenean gertatzen zen bezala, kasu honetan ere taldekideek auzo mailan funtzionatzen zuten mugimendu eta antolakuntza nukleo desberdinekin bat egin zuten. Bera auzo militantziaren bidetik jo zuen eta Txantreako Auzo Elkarteko kide egin zuen, orduetik aurrera Iruñerriko auzo mugimenduko militante bezalako ibilbide bizia gauzatuko zuelarik. A.G. ere Txantreako Auzo Elkarteko militantea izan zen. Bere ibilbidea aurreko ereduaren ikusi ditugun bi elementu nagusi agertzen ditu: alde batetik, langile kultura kristauaren eragina; bestetik, harreman pertsonalek ibilbideak abiatzerakoan betetzen zuten funtsezko papera. Erlizjozaletasun errotukoa, kristau komunitate batean parte hartu zuen, non bere jardura militante osoan zehar presente

izango zuen konpromiso zentzua eta kontzientzia soziala barneratu zituen. Aktibismoan inplikatzeko prestatzen zuen alde zuzenaren batekin beraz, gutxi behar izan zuen bide militanteari ekiteko. Harreman pertsonalen sarearen bitartez abiatu zen auzo mugimenduan. Bere lagun batek, asteburu batean, Auzo Elkartearen ekimena zen kukuso merkatu hasiberriaren muntaia egiteko laguntza eskatu zion. Lehenbiziko laguntza emate berezi batetik abiatuta, erabatean murgildu zen auzo mugimenduan, 80. hamarkadako Iruñerriko mugimendu herrikoian barna ibilbide bizia garatuko zuelarik.

### *Ibilbide militanteen laburpen Taula*

Ondorengo taulan, aztertu ditugun ibilbide guztiak eta hauen ezaugarri nagusienak jasotzen dira. Informazioa zortzi eremutan sailkatuta dago, Iturriaren zenbakia, iturriaren izena, ibilbide ereduak, militantziarako sarbidea, militantziaren alor sindikala, militantziaren alor politikoa, ibilbidearen bestelako alorrak zein helmugak eta ibilbidean eragina duten kultura politikoak.

**1.Iturriaren zenbakia.** Ahozko iturrien sailkapen orokorrean dagokion identifikatze zenbakia. Baliagarria izango da, nahi izanez gero, atal metodologikoko sailkapen koadroan jasotzen den iturriaren profil osoa kokatzeko.

### **2.Iturriaren izena.**

**3.Ibilbidea.** Aztertu berri ditugun ibilbide ereduak. Koadroan, izenburuak egiteko erabili dugun sailkapen berbera erabiliko dugu (1=Apostolutza mugimenduetatik militantzia sindikalera: USO; 2=Apostolutza mugimenduetatik militantzia sindikalera: CCOO eta militantzia sindikaletik politikora: ezker iraultzailearen talde politikoak; 3=Fabrikatik zuzenean CCOOra eta ezker erradikalaren talde politikoetara; 4=PCEko militanteak; 5=ezker iraultzailearen talde politikoetatik fabrikara eta fabrikatik CCOOera; 6=Gazte ibilbideak)

**4.Sarbidea.** Ibilbidearen abiapuntua edo militantziarako sarbidea izan zen esparrua. AMS akronimoak Apostolutza Mugimendu Sekularrei dagokie.

**5.Langile mugimendua.** Militantzia sindikala garatu zen esparrua(k)

**6.Talde politikoa.** Militantzia politikoa garatu zen esparrua(k). Militantzia hori aktiboa izan daiteke edota, besterik gabe, talde politiko jakin baten inguruan mugitzea. Kasu guztietan iturriak ez du haren militantzia politikoa aipatu edo zehaztu, kasu honetan, zutabea hau hutsik utzi dugu.

**7. Bestelako alorrak/ helmugak.** Ibilbideak agertzen dituen militantziarako bestelako esparruak (adibidez, auzo mugimendua) eta iturriak berak zehaztu egin duenean, militantziak trantsizioaren garaian jarraitu izan zituen bestelako bideak.

**8. Jatorrizko ingurugiroko kultura politikoa.** Karlismoa (harekiko lotura argi bat zehaztu denean azaltzen denean), Tradizionalismoa (substratu kontserbadore orokorrago bat aipatzen denean. Erliziozaletasuna nabarmentzea eta gerra zibilean alde nazionalen parte hartu zuen aita izatea hemen sailkatu ditugu), Errepublikanismoa, sozialismoa, komunismoa eta anarkismoa barne hartzen dira. Iturriak kultura politikoa ezagutzen ez duenean edo zehaztugabe bezala definitzen duenean, "Ezezaguna edo zehaztugabea" bezala sailkatzen da.

**9.Kultura politikoak.** Langile kultura kristaua, ezker erradikalaren hautabideak (marxismo-leninismoaren korrante maoista, troskismoa) eta kultura komunista (honekin

soilik PCEko militantziak sailkatu dira) barne hartzen dira. Langile kultura kristaua protagonistek harekin nolabaiteko kontaktua izan duten kasu guztietan ageri da.

6.1 Taula. Protagonisten Ibilbide militanteak.

Iturri zkia.	Izena	Ibilbidea	Sarbidea	Langile Mugimendua	Talde politikoa	Bestelako alorrak/helmugak	Jatorrizko ingurugiroko kultura politikoa	kultura politikoak
4	J.M.M	1	AMS: HOAC	USO			Tradizionalismoa	Langile kultura kristaua
5	E. A.	2	AMS: HOAC	CCOO	ORT (ingurukoa)		Tradizionalismoa	Langile kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
7	E.P.M	3	Fabrika	CCOO	ORT (ingurukoa)		Ezezaguna edo zehaztugabea	Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
8	J.E.C.	2	AMS: VOJ (Fabrikaren bitartez)	CCOO			Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua
9	M.G.	2	AMS: VOJ	CCOO	ORT		Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
10	C.A.	1	AMS: JOC	USO			Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile kultura kristaua
11	J.U.	3	Fabrika	CCOO	ORT	Langabetuen	Ezezaguna edo	Ezker iraultzailea: marxismo-

						mugimendua	zehaztugabea	leninismo/korrante maoista
12	P.U.	4	Talde Politikoa	CCOO	LC		Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: troskismoa
13	I.B.	3	Fabrika (harremana Zentro Marianoarekin)	CCOO	LCR-ETA VI	LAB	Tradizionalismoa	Ezker iraultzailea: troskismoa
14	P.M.	3	Fabrika	CCOO	LCR-ETA VI (ingurukoa)	LAB	Karlismoa	Ezker iraultzailea: troskismoa
16	J.L.A.	1	AMS: HOAC	USO			Tradizionalismoa	Langile kultura kristaua
17	J.M.V.	3	Fabrika	HOAC (fabrikako taldea)		Iruñeko Udaleko zinegotzia (1970-1979)	Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile kultura kristaua
18	M.A.M.	1	AMS: HOAC			Iruñeko Udaleko zinegotzia (1966-1979)	-Tradizionalismoa -Sozialismoa (UGT)	Langile kultura kristaua
19	A.L.	2	Kristau komunitateak		MCE	Sanduzelaiko Auzo Elkarteak	Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker Iraultzailea: marxismo- leninismo/korrante maoista

20	J.I.S.	2	Kristaudi ikastaroak			ELA	-Karlismoa -Sozialismoa (UGT)	Langile kultura kristaua
22	J.S.M	2	AMS: VOJ	CCOO	ORT		Tradizionalismoa	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo- leninismo/korronte maoista
23	J.L.D.M	3		CCOO (ingurukoa)	ORT (ingurukoa)		Tradizionalismoa	
24	JA.C.	3	Fabrika	CCOO	ORT (ingurukoa)	SU	Tradizionalismoa	Ezker iraultzailea: marxismo- leninismo/korronte maoista
25	M.S.S.	3	Fabrika	CCOO		SU	Tradizionalismoa	
26	M.L.C.	2	AMS: JOC (Fabrikaren bitartez)	CCOO	PCE(i)-PTE		Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo- leninismo/korronte maoista
27	F.E.	2	AMS: JOC	CCOO	ORT		Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo- leninismo/korronte maoista
28	M.A.R.S.	3	Fabrika	CCOO	ORT		Anarkismoa	Ezker iraultzailea: marxismo-

			(harremana Zentro Marianoarekin)					leninismo/korronte maoista
29	P.O.	2	AMS: VOJ	CCOO	ORT		Tradizionalismoa	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
30	PA.S.	2	AMS: VOJ	CCOO			Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua
31	R.U.	2	AMS: JOC	CCOO	PCE(i)-PTE	CSUT	Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
32	V.D.	4	Talde politikoa	CCOO	LCR-ETA VI		Karlismoa	Karlismoa Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: Troskismoa
33	S.L.	3	Fabrika	CCOO	ORT		Ezezaguna edo zehaztugabea	Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
34	M.B.	4	Talde politikoa	CCOO	MCE		Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
35	J.Z.	2	AMS: Acción Católicaren gazte erakundea	CCOO			Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua



36	J.M.E.	3	Fabrika	CCOO			Tradizionalismoa	Langile Kultura kristaua (Kontzilioarekin aldaketak bizi izan zituen ikastetxe erlijioso batean ikasia)
37	R.M.	3	Fabrika	CCOO	MCE (ingurukoa)		Tradizionalismoa	Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
38	PE.S.	3	Fabrika	CCOO			Tradizionalismoa	Langile Kultura kristaua (erlijiozaletasun bizia)
39	M.P.	2	AMS: HOC, JOC, VOJ (apaiz langilea)	CCOO	ORT (ingurukoa)		Ezezaguna edo zehaztugabea	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
41	C.O.	3	Fabrika (harremana Zentro Marianoarekin)	CCOO	PCE(i)-PTE	CSUT	Tradizionalismoa	Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korronte maoista
42	P.I.	2	AMS: JOC		PCE(i)-PTE		Errepublikanismoa	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker erradikala: marxismo-leninismo/korronte maoista
43	I.N.	2	AMS: JOC	CCOO	PCE(i)-PTE		Karlismoa	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i>

								Ezker iraultzailea: marxismo-leninismo/korrante maoista
44	M.BU.	5	Fabrika (harremana Zentro Marianoarekin)	CCOO	PCE		Komunismoa (PCE)	Komunista
45	A.H.R	5	Fabrika (harremana Zentro Marianoarekin)	CCOO	PCE		Komunismoa (PCE)	Komunista
46	J.P.	6	Ikastetxea	CEN. Ikasle mugimendua	LAIA GAI. Gazte mugimendua	Txantreako Auzo Elkartea	Ezezaguna edo zehaztugabea	Ezker iraultzailea: ezker abertzalea
47	A.G.	6	Kristau komunitateak			Txantreako Auzo Elkartea Herri Batasuna	-Tradizionalismoa -Errepublikanismoa	Langile Kultura kristaua <i>Bilakaera</i> Ezker iraultzailea: ezker abertzalea
48	K.P.	3	Fabrika	CCOO	LCR (ingurukoa)	LAB	Ezezaguna edo zehaztugabea	Ezker iraultzailea: troskismoa

*Iturria: Ahozko iturrietan oinarrituta egina*

### 6.3.2 Ibilbide militanteak. Ondorioak

Protagonisten bilakabide militanteen azterketa honetatik, begi hutsez, kapitulu honetan zehar azaldu ditugun hainbat ildo baieztatzen dira: Apostolutza mugimendu sekularren presentzia oso garrantzitsua; fabrikaren funtsezko betekizuna langile sozializatorako gune bezala; militantzia sindikala gauzatzeko esparru aniztasuna, non CCOO erabatean erreferente nagusia den arren, USOk bere sareak (HOACekoak bereziki) eta nukleoak ditu eta Sindikatu Bertikala langile jarduerarako plataforma gisara erabiltzen da; ezker iraultzailearen talde politikoen hegemonia eta alderdi komunistaren presentzia eskasa.

Protagonistak bizitza militantean murgiltzen dituzten sarbideak bi dira alde handiz, apostolutza mugimendu sekularrak (batzuetan ere erlijiozaletasunarekin lotutako bestelako esparruak, komunitate kristauak edota kristaudi ikastaroak kasu) eta fabrika. Apostolutza Mugimendu Sekularretan hasiera duten ibilbideen bilakaera taulan begiratuta, militante kristauak, konpromiso mundutarraren bidetik, aktibismo sindikalera (USO, CCOO) eta politikora (ezker erradikalaren talde politikoak) eramaten dituen eboluzioa baieztatzen ahal da. Bide beretik, apostolutza mugimenduekin nolabaiteko harremana izan zuten ibilbide kopurua ikusita, langile kultura kristauak protagonista askorengan eragin zuela ondorioztatzen ahal da ere. Are ibilbideak zuzenean halako mugimenduetatik abiatzen ez direnean, hau da, lehenengo edo bigarren ereduetan sailkatzen ez ditugunean, zenbait kasutan, harekiko lotura bat igartzen da. Fabrikari sarbide izan zuen PE.S.-en erlijiozaletasuna, funtsezkoa izan zen M.P. apaiz langilearekin harremana egiteko eta honen bitartez, langile komisioan sartzeko. Militantzia politikoarekin hasten diren ibilbideetan, hiru subjektuak, P.U., M.B. eta V.D., seminarioan ikasle izandakoak ziren. Are gazte ibilbideetan sailkatutako A.G., kristau komunitateetan ibilitakoa zen. Apostolutza mugimendu sekularren garrantzia, militante kristauen eboluzioa eta langile kultura kristauaren eragina, nagusi diren militantzia politikoetan egiten dira ikusgarri. Ezker berriaren fenomeno politiko gehienek sorrera eta indartzea militante kristauen eta langile kultura kristauaren garapenarekin zerikusirik izan zuen heinean, protagonisten ibilbideak parte handi batean apostolutza mugimenduetatik abiatzen diren marko batean, militantzia politiko ezker berriaren talde politikoetara bideratzea espero izatekoa da. Taularen "talde politikoak" zutabeak hala baieztatzen du. ORTak Iruñerriko langile mugimenduaren baitan izan zuen nagusigoak, adibidez, honekin zerikusirik izan zuen. Izan ere taldea, maiz ibilbideen abiapuntu izan zen VOJen sare eta egituretatik garatu zenez gero, abiatu zenerako jada militantzia oinarri garrantzitsua izan zuen erreferente politiko nagusi bilakatzeko.

Apostolutza mugimendu sekularretan hasten diren ibilbideak, guztien artetik, goiztiarrenak izan ohi dira. Zentzu honetan, halako bilakabideak agertzen dituzten subjektuak eta militanteak, Iruñerriko langile mugimenduaren oinarriak, esparruak eta dinamikak ezartzen hasten direnak direla esan daiteke. Esate baterako, lehenbiziko eta bigarren ereduetan sailkatutako ibilbideak dituzten militante asko, fabriketan barna lider bezala nabarmentzen hasten direnak, Sindikatu Bertikalean ordezkartza karguak betetzen hasten direnak eta langile komisioen ernamuina izango ziren lehenbiziko nukleo antolatutakoak sortzen hasten direnak izango dira. Honen adibide dira Erakunde Sindikalean sindikatu desberdinetako sail sozialetako lehendakari izan ziren HOACeko militanteak edota Zentro Marianoan Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu zuten VOJ edo ASTko militanteak. Honek ez du esan nahi salbuespenik ez dagoenik eta langile mugimenduaren oinarriak ezarri zituzten artean apostolutza mugimenduetan ibili ez ziren militante independenteak aurkitzen ditugun bezala, militante kristau izandakoen artean, ibilbide berantiarago bat dutenak eta ondorioz, hastapen momentu honetan presente egon ez zirenak aurkitzen ditugu. Esate baterako, bigarren ereduko

ibilbidea izan zuten JOCeko hainbat militante, nahiko berandu hasi ziren militatzen, langile mugimenduaren lehenbiziko egiturak jada martxan zeudenean.

Hirugarren ereduko ibilbideak, fabrikan hutsetik abiatzen direnak, lehenbiziko hauekiko berantiarragoak izan ohi dira. Ibilbide hauek fabriketan jada nolabaiteko egitura antolatua daudenean gertatzen dira eta protagonistak, egitura hauetara jada berauetan antolatuta dauden elementuen eskutik sartzen dira. Askotan, elementu antolatu hauek, lehenbiziko edo bigarren ereduko ibilbide bat duten militanteak dira. Dinamika hauek kronologiaren arabera ikusten ahal ditugu. 60. hamarkadaren hasieran adibidez, lehenengo ereduko ibilbideak, bigarren ereduko ibilbideen parte bat eta hirugarren ereduko gutxi batzuk aurkitzen ditugu eta hamarkadaren erdian eta amaieran, bigarren ereduko ibilbideen beste partearekin batera, hirugarren ereduko ibilbideak nagusitzen dira. 60. hamarkadaren erdian ere laugarren ereduko militante komunisten ibilbideak gertatzen dira, hauek orduan aurreko ereduetako protagonistak mugitzen ziren esparru berberetan kokatzen baitziren. Bosgarren ereduko ibilbideen aurrekoekiko kontrako norabidea, kronologia horrekin berarekin lotzen ahal dugu. Izan ere, talde politikoak sarbidea diren heinean eta langile mugimendua helmuga den heinean, taldeek jada nolabaiteko presentzia dutenean eta langile mugimenduaren egitura nola edo hala egonkortuak daudenean gertatu behar dira. Hots. 70. hamarkadaren hasieran. Ordurako jada ezker iraultzailearen alderdi politikoek nola edo halako presentzia dute, militantzia ibilbideen abiapuntua izateko haina. Kasu hauetan aktibismo sindikala militantzia politiko horren parte bezala planteatzen denez, jada langile mugimendu bat existitu egiten zela eta funtzionatu egiten zuela iradokitzen da, ibilbide ereduaren etapa berri batean (langile mugimenduaren sorreraren ostekoan) kokatuz.

Egin dugun azterketa honetatik ere, ibilbideak bideratzen zituzten elementuak, hau da, sarbideak eta militantziarako esparruak, zeintzuk izan ziren ondorioztatzen ahal da. Elementu horietan adierazgarrienetarikoa bat, protagonistak mugitzen ziren harreman sareak izan zirela ikusi dugu. Aztertutako ibilbide askotan, adiskidetasun edota konfiantzazko harremanak funtsezkoak suertatzen dira protagonista asko zirkuitora erakartzeko eta behin barruan, bilakabidea esparru batzuetatik edo besteetatik (apostolutza mugimendu sekularrak, Sindikatu Bertikala, fabrika komisioak, Nafarroako CCOO, ezker iraultzailearen talde politikoak, PCEa, auzo mugimendua) eramateko. Kasu askotan, militantzia, bere inguruan duen harreman sarearen batek subjektua sarbideren batera eramaten duelako hasten da. Hau da, elkargune bat dago protagonistaren harreman sare informal baten eta militantzia sare baten artean eta konexio hau militantzia hasteko pizgarria gertatzen da. Gure protagonisten esperientzietan, apostolutza mugimendu sekularren militantziara eramaten zuten sare mota desberdinak identifikatu ditugu. Esate baterako, praktika erlijiosoetatik sortzen diren sareak ditugu, errotiko erlijiozaletasun bat partekatzeagatik, praktika hauek gauzatzen diren esparruetan bat egiten duten elementuen artean sortzen direnak. Ereduzkoa da zentzu honetan J.I.S.-en kasua. Ikusten genuen bezala, bere errotiko erlijiozaletasunak kristaudi ikastaroak edota seminarioan ematen zen laikoentzako teologia ikastaroa bezalako esparru erlijiosoetan kokatzera eraman zuen, bertan egindako harreman sareen bitartez, apostolutza mugimendu sekularren giroetara hurbilduko zelarik<sup>1127</sup>. Aisialdirako esparruetan ematen den sozializatzetik sortzen diren sareak ditugu ere eta hainbat kasutan, dantza talde bat edo mendi talde bat hala nola igande arratsaldeko zinema emanaldia, Zentro Marianora, bertako

---

<sup>1127</sup> J.I.S. berez ez zen ez apostolutza mugimenduetako militante edota erakunde sindikal edo politikoren bateko militante izan. Alta, horrek ez du esan nahi militante edo aktibista kristautzat hartu ezin dezakegunik. Izan ere, modu batean edo bestean, beti egon zen apostolutza mugimenduen eta mugimendu sindikalaren gertuko giroetan. Trantsizioa hasita, ordua bai, ELAko kide egin zen.

harreman sareetara eta azkenik, Vanguardias mugimenduetara sarbide ematen ahal zuten elementuak ziren. Langile mugimenduaren militantziara eramaten duten sareei dagokienean, fabrika da esparrurik abantailatuena hauek nola funtzionatzen duten ikusteko. Hirugarren ereduko ibilbideetan, protagonista fabrikaren baitako egitura antolatuetara eramaten duen militantearen figura oso ohikoa da. Harreman hau, subjektuek bere onartzen dutenez, euren abiatze militanteen giltzarria izan zen. K.P.-en kasua oso adibide esanguratsua da zentzu honetan. Oso gazte (hamalau urterekin) hasi zen fabrikan lanean ikastun bezala eta ofizial baten laguntzailea izatea egokitu zitzaion. Pertsona hori, fabrikan sortzen ari zen mugimenduaren militante nabarmenduenetariko bat izan zen eta berak kontaktatzen duenez, harekin egin zuen harremana eta harengandik jaso zituen ezagupenak, langile militantzian hasteko izan zuen motibazio nagusia izan zen: *“Agian, hasieratik eta bi edo hiru urtez tipo hau ez zen beste pertsona batekin egon izan banintz, ba agian ez nintzen kontzientzia hori garatzera iritsiko, ulertzen duzu? Baina noski, tipo horrekin tokatu zitzaidan, gainera orduan, fabrikan sortzen ari zen mugimenduaren baitan oso pertsona garrantzitsua zen”*<sup>1128</sup>.

Joe Forewaker, diktaduraren bitartean harreman pertsonaleko sareek militantzia sindikal eta politikoetan izan zuten paperari arreta gehien eskaini dion autoretariko bat da. “Espainiar demokraziaren egiazko egileei” buruzko bere azterketa, “aurre-politikotzat” jotzen ahal ditugun halako sareek militantzia antifrankistaren lehenbiziko hautabide politikoak bideratzerakoan nola jardun zuten azaleratzen duen analisi bikaina izaten jarraitzen du gaur ere<sup>1129</sup>. Lan horretan, Marco de Jerezeko CCOOren sorrera eta PCEaren militantziaren egituraketa, bi prozesuon azpian egon ziren harreman sareen berrosatzearen bitartez aztertzen du, harreman sare pertsonalak erakunde zein estrategia sindikal eta politikoen aurrekoak izan zirelaz beste, hauen erreprodukzioan ere lagundu zutela ondorioztatzen duelarik. Honela, modu argian azaleratzen du, adibidez, harreman sare pertsonalak izan zirela militanteak PCEan antolatzeko beharrezkoak zituzten kontaktu politikoak ezarri zituztenak edota fabrikaren baitan, langileen artean sortutako sareek, ordezkariak sindikaleko karguak betetzerakoan sortzen zen lankideen arteko konfiantza harremana edota lortzen zen hauen aurreko erreferentzialtasun edo lidergoa kasu, lantokietako langile komisioren antolakuntzan lagundu zutela.

PCEaren militantziaren egituraketari dagokionean, harreman sare pertsonalak, kontaktu politikoak egiteko eta ondorioz, antolakuntza nukleoak sortzeko eta militanteak erakartzeko bide bezala ageri dira. Ildo horretan, berak aztertutako kasuetan, alderdiarekin bat egitea ez da horrenbeste konpromiso politikoaren arabera izaten eta maiz, halabeharrezko kontaktu pertsonalekin du zerikusirik. Adibide adierazgarri bat ematen du gainera: Manolo Romero Ruiz, Antonio Palacios PCEko militantea erakarri zuen militantziara, horregatik egin zen “komunista”. Hala ere, lasai asko USO edo bestelako kristau erakunderen batean amaitzen ahal zen ere. Izan ere, protagonistak bazuen alde aurreko injustiziaren auka borrokatzeko bultzada bat edo “bihotz egongaitz” bat eta behar zuena, gogo hori bideratzeko esparru bat zen<sup>1130</sup>. Hori izan zen hain justu Antonio Palaciosen eskaini ziona. Horregatik, azken hau PCEko militantea izan beharrean USOk edo bestelako erakunderen bateko militantea izan balitz eta eskainitako esparrua beste bat izan balitz, berarentzat baliozkoa izango zen ere.

Fabriken baitan, langileen arteko harreman pertsonalak, funtsezko faktoreak izan ziren ere langile komisioren sorreran. Azken batean, tradizioz eta esperientzia

<sup>1128</sup> K.P.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2015-01-04.

<sup>1129</sup> Joe Forewaker, Forewaker, *La democracia española...* Op. Cit.

<sup>1130</sup> *Ibid.*, 53 orr.

sindikalik edota antolakuntzarako zein euren interesen defentsarako berezko erakunderik ez zuten langileei, ideologia bera baino, hura irudikatzen zuten pertsonak axola zitzaizkien. Honela, nukleo baten inguruko lehen elkartzeak ahalbidetzeko, langileek liderrengan zuten konfiantza pertsonala funtsezkoa gertatzen zen. Fabriketan agertuko ziren langileen lehen egitura antolatuen sorreraren azpian, hartara, konfiantzazko harreman sare horiek aurkitzen ahal dira. Fabrikako aldageletan izandako solasaldietan langilegoari zuzenean eragiten zizkieten gaiak planteatzeko gaitasuna izateagatik edota patrioiaren aurrean eta ordezkaritza sindikaleko karguetatik langile interesak defendatzeagatik, lankideen konfiantza eurengan zuten elementuak ziren harreman hauen ardatza. Langileek izatezko lider hauek erreferentziatzat ezagutzen zituztenean, haien inguruko sareak sortzen ziren. Zentzu honetan, fabriketan langileak bildu egiten zituen elementua, ideologia baino, pertsonak, liderrak, izan zirela esan daiteke nolabait:

Erabatean konbentziturata ez zeunden arren, ikusten zenuen goian zegoen jendea... [...] nik liderrengan erreparatzen nuen, niretzako lider horiek baziren... [...] oso sanoak zirela ikusten nuen, oso sanoak eta oso zintzoak, hau da, justizia sozialarengatik borroka egiten zutela ikuten nuen eta horrekin nahikoa zen niretzat. [F.E.. CCOOeko militantea. ORTko militantea]

Ideologia ez da berez borrokara eramaten nauena, askotan, lanekoak izateagatik edota giro berdinetan mugitzeagatik gertukoak zenituen pertsonak ideologia hori irudikatzen dutela da. Harreman horrek egiten du zu euren [mundura] hurbiltzea. [PA.S. CCOOeko militantea]

ia-ia ideologiarik ez duen langile klasea da, ezta? baina erradikalismo handia azaltzen du, agian landa munduko jendearengandik jarauntsi zuen berezko idiosinkrasiaren, baloreen, eraginez... baina horrek ez zuen inolako ideologiarekin zerikusirik. Orduan, nolabait, liderrak langileengana iristen dira ez horrenbeste ideologiarengatik, balore pertsonalengatik baizik... hori da funtsezko erreferentzia langileentzat, liderrak, liderrak pertsona borrokalariak, zintzoak... direla. Hori da langileak batzuegana edo besteegana eramaten dituen. [JA.C.. CCOOeko militantea]

Ildo honi jarraiki, ideologiak militantzien abiatzean eta ibilbideak garatzen ziren lehenbiziko esparruen zehaztean izan zuten bigarren mailako papera, gure subjektuen bilakabideek azaleratzen duten bestelako ezaugarri interesgarria da. Aztertutako ibilbideetan igartzen ahal denez, protagonista askok militantzian hasteko izan zuen erreferente nagusia ez zen berez ideologikoa izan. Hala zen, hein handi batean, diktaduraren markoan, askatasun faltak eta errepresioak, ikuspuntu ideologiko ezberdinen arteko eztabaidarako tarterik ez zegoelako eta ideologia, egiatan, premiazkoa ez zelako. Adibidez, aipatu Manolo Romero Ruizen kasuan, antifrankista izatearekin, zapalkuntzazko eta eskubide zein askatasun gabeziatzko sentimendu bat izatearekin, militantziarako jauzia emateko nahikoa izan zen<sup>1131</sup>. Paradoxazkoa gertatzen den arren, honakoa, oso argi ikusten da talde politikoen militantzien eraketan. Esaterako ezker iraultzailearen alderdietan antolatzen ziren abangoardia politikoak ideologiaz jantzita agertzen bazaizkigu ere, hura, praktikan eta alderdian militantzen gertatutako ideologizatzea izan zen, ez hautabide politiko egin baino lehenago garatutakoa. Beraz, ideologia hori ez zen, kasu askotan, militanteak talde politiko batera edo bestera eramaten zituen eragilea izan. Honetan, berriz ere, militantea kokatua zegoen harreman sareak agertzen dira elementu erabakigarri bezala: *“Eragin handia zuten begikotasunek eta adiskidetasunek... begikotasun pertsonalak, kideetasunak. Gu, berez, ez ginen ideologikoak, ez genuen hala izateko [tradizio] ideologikorik edota familiaren tradiziorik, gu... gu guztiak gainera, ezta? bitzita politikoan hasi ginen eztabaida prozesu baten bitartez, begikotasunen*

<sup>1131</sup> Joe Forewaker, *La democracia española...* Op. Cit., 64 orr.

*bitartez...*<sup>1132</sup>. Modu honetan, norabide politikoa, askotan, ezustean hartzen zen, hein handi batean, harreman, adiskidetasun eta kontaktuen arabera egiten zelako. Adibidez, fabriketan maiz gertatzen zen langile mugimenduko militantzia eginiko harreman sareak, talde politikoetan errepikatzea eta subjektuek, militantzia politikoa, lankideen eta militantzia kideen eskutik abiatzea:

Fabrikaren baitan, langile mugimenduaren bilerak genituen. Baina gero, ba [...] segun eta norekin elkartzen zinen, ba toki batera edo bestera joaten zinen, ezta? Orduan LCR, LCR zegoen. Nik, adibidez, azkenean harreman handia egin nuen LCRkoekin eta orduan haiekin ibili nintzen. LCR, jakingo duzun bezala, LCR-ETA VI zen... eta hori, haiekin ibili nintzen. Jende nahiko zegoen, bai. Eta hori ya, maila politikoan zen. [K.P.. CCOOeko militantea. LCRren inguruko]

Meategian ORTko jendea eta CCOOeko jendea zegoen [nire inguruan zegoen jendea zen]. Orduan, 75ean kaleratu nindutenean, ba orduan, ba... ba beno, ORTari buruz hitz egin zidaten eta ni haiekin ados nengoenez, egiten zituzten gauzekin ados nengoenez, zuzenean sartu nintzen ORTra] [...] ORTko jendea zegoen, baina gero PTEko jendea zegoen ere. Potasasen, garai hartan CCOOen ibiltzen zen jendearen artean, bereziki hiru talde nagusi ziren: ORT, PTE eta MCE... [...] orduan, zergatik [nire kasuan], ORT? Ba suposatzen dut [ORTko] jendearekin harremana nuelako izango zela. [J.U.. CCOOeko militantea. ORTko militantea]

gogoratzen dut tipo batekin egoten ginela, bai, langile komisiora, gure langile komisiora, gure fabrikako komisiora etortzen zen hitzalditxoak ematera eta, pixka bat, eztabaida sustatzera. MCEkoa zen. Orduan tipo honek zer ekartzen zigun? Ba Maoren Liburu Gorria eta orduan ba beti aipua, testuak eta “¿qué significado tiene esto? pues servir al pueblo, hay que servir al pueblo, hay que hacer todo por las masas...” eta hor hasten den hausnarketak eta eztabaidak nolabait klase kontzientzia bat ematen dizu [...] Orduan tipo hori zen arduraduna eta noski, bera ya alderdian sartuta zegoen [...] fabrika komisiora sartu ninduen lankidearen ezaguna zen eta esan zion: “Oye, pues ven y danos un poco...”, horrela hasi zen, ezta? noski, ba bera, pozpozik alderdia hedatzeko aukera ematen ziolako. Eta orduan ba astero hasi zen guregana etortzen. [R.M.. CCOOeko militantea. MCEko militantea]

Militantzia politikorako sarbidea ematen zuten harreman sare pertsonalek modu desberdinetara jarduten zuten. Alde batetik, oso ohikoa izan zen sareko elementu bat, bere kasa, sareaz kanpoko esparruren batean, talde politikoren batean, antolatzea eta elementu honek gerora, bere sarekide guztiak (edo behintzat haietariko asko) bertara sartzera. P.I. adibidez, Málaga unibertsitateetik alderdian antolatuta itzuli ziren bi lagun eraginez egin zen PCE(i)-PTEko militante:

Bi kide Málaga joan ziren [unibertsitatean] ikasketak burutzera [...]. Han, Málaga, alderdi bateko kide egin ziren, poliziak atxilotu ere egin zituen... haietariko bat, besteak ihes egin zuen. Gero Iruñera itzuli ziren. Orduan haiek antolatuta etorri ziren [...]. Noski, [hona etorri] eta virusa hemengo lagunetara txertatu ziguten. Egia esan, hemengo lagunak edonon sartzeko helduak ginen jada. Gu alderdi komunistan, MCEan, ORTn edo PTEn (beno, orduan PCE(i) zen) sartzeko prest geunden, baina zergatik antolatu ginen PCE(i)n? Ba [bi kide horiek] Malagatik itzuli zirenean jada alderdian zeudelako eta lagunak ginenez, ba alderdi horretan sartu ginen, ezta? Baina beno, alderdi horretan antolatu ginen, baina lasai asko beste edozein alderditan amaitzen ahal genuen. [P.L.. PCE(i)-PTEko militantea]

Bestetik, alde aurreko joera ideologikorik ez zuen militantziarako gogo bizia zegoenean, protagonistak berak jotzen zuen zuzenean bere harreman sare pertsonaletara hura garatzeko esparru politiko baten bila. P.U.-ren kasua izan zen. Ikusi dugun bezala, Afrikatik, talde politiko ezkertiar batean militatzeko erabakia hartuta itzuli zen. Horretarako, bere harreman sareaz baliatu zen honek LCraingo eraman zuen arte:

1132 P.I.-i egindako elkarrizketa. Iruñea 2014-01-07.

etorri nintzen eta hasi nintzen harat eta honet pixket galdezka, ia nor ibiltzen zen pixket nonbait sartua [...]tipo batek ere, nere lagun izandakoa, lehenagotik ezagutzen nuena, pues bueno solasean hasi ginen gero gauean ta... eta bueno pues harek erran ninduen joateko bizitzera bere etxera eta bueno, pues arituko ginela, berak paratuko ninduela kontaktuan beste batzuekin [...] tartean ere harrapatu nuen ere tipo bat... joder, kontatzen badizut nor den... tipo bat nerekin egona Logroñon, Zaragozako, bere gurasoak hemengoak, eh... eta harrapatu nuen, eta berarekin hasi nintzen solasean eta berehala mendira joan ginen hor solasean aritzera eta baietz, benga berak lagunduko ninduela hor sartzen bera ere hortan zegoela, ez dakit zer ta badakit zer. Bueno, bi hoiak ziren talde berekoak eta bueno, berehala sartu nintzen hor, orduan taldetxo bat zen, eh, Liga Comunista, Liga Comunistako... bueno, nere lagunak Liga Comunistakoak ziren. [P.U.. CCOOeko militantea. LCKo militantea]

Zentzu honetan, hautabide politiko desberdinek alor jakin batean (adibidez fabrika batean, CCOOen koordinakunde batean edota Auzo Elkarte batean) eta are toki jakin batean (Nafarroa osoan edota Iruñerrian bereziki) izaten ahal zuten indarra, gune hauek zeharkatzen zituzten militantzia sareetan zuten presentziaren arabera zen neurri handi batean. Horrela gertatu zen adibidez Tuteran, non MCE ezkerrearen erreferente politiko nagusia izan zen eta langile mugimenduan eragin gehien zuen taldea izan zen, ez bere planteamendu ideologikorengatik, CCOOen lehen egiturak sortu zituzten SFK fabrikako militanteak alderdiko militanteak zirenez, Tuterako langile mugimenduan finkatu zen lehenbiziko indar politikoa izan zelako eta ondorioz, sareetan kokagune abantailatsuagoa izan zuelako baizik<sup>1133</sup>.

Ibilbide militanteak hasi ziren esparruak eta moduak aztertzea, militantziaren abiatzearen momentu hori bilakabideen une erabakigarritzat jotzen dugulako, izan da horren garrantzitsua guretzat,. Xavier Domènechek, PCEaren baitan sortu eta garatu ziren militantziak aztertzerakoan, oso ongi jaso zuen momentu horrek protagonistatzat izan ohi zuen esanahia<sup>1134</sup>. Ibilbideen hastapenetan militante komunistentzat azaleratu zituen dinamikak militante kristauen, langile militanteen edota ezker iraultzailearen militante politikoen ibilbideen hastapenetan ere ikusten ahal direnez, gure egingo dugu bere planteamendu hori, une erabakigarri hori azaltzeko. Militantzia abiatzea erabateko aldaketa suposatzen zuen protagonisten bizitzetan, izan ere, sarbideetan, errealitatea ulertzeko modu berri bat aurkitzen zen eta honen ondorioz, nork bere burua, modu berri batean kokatzen ahal zuen errealitate horretan. Domènechek ideia hau oso adibide adierazgarri batekin azaltzen du. PCEko militante baten kasua da. Honek, militantziari esker bere bizitzari zentzu berri bat ematen ahal ziola ulertu zuen, militantziak proiektu kolektibo baten parte sentitzeko aukera, miresten zituen kideengandik ikasteko aukera eta pentsatu ere egin ezin zituen gauzak egiteko aukera ematen ziola ikusi baitzuen. Kasu honek adierazten duen bezala, militantziaren abiatze momentua garrantzitsua zen lehenbizikoz erabat berria eta ezezaguna zen mundu berri bat, non erreferentzia kulturalak, musikalak, bibliografikoak edota ikonografikoak frankismoaren antitesia ziren, orduan topatzen zelako. Gure subjektuen artean ez dira falta apostolutza mugimendu sekularretan eta langile kultura kristauan errealitatea begiratu, aztertu, ulertu eta eraldatzeko modu berri bat topatu zuten militanteak; fabrikari sartzearekin, bertako errealitatea bizitzarekin eta pairatzearekin hala nola nukleo antolatuegandik jasotako ideiak jasotzearekin iratzarri zirenak; edota talde politikoetan, Marxen zein Maoren testuen bitartez, beste mundu bat posiblea zela sinetsi zuten.

<sup>1133</sup> Iñigo Pérez Ochoa, "Oposición Política y..." Op. Cit., 28-29 orr.

<sup>1134</sup> Ikusi Xavier Domènech, "Comunismo y antifranquismo..." Op. Cit., txostenaren 6-7 orr.





## **7.KAPITULUA:**

### **BORROKAK ETA GATAZKAK. LANGILE IDENTITATEAREN PRESENTZIA FRANKISMOAREN AMAIERAN**

Orain arte, Iruñerriko langile klasea eratuz joan zen zirkuitua, esparruak, pertsonak, militanteak, esperientziak, ideiak eta are sentimenduak elkarlotzen zituen sarea aztertu dugu. Aurreko kapituluan, zirkuitu horren berrosatzea, Iruñerriko langile mugimendua, klasearen adierazpen antolatua, nola sortu zen ikusiz amaitu dugu. Mugimendu honen izaera edo funtsa nola edo hala deskribatu izan duten hainbat autorek, hain zuzen ere, zirkuituaren berrosatzean jada azaleratu izan ditugun hainbat elementu jotzen dituzte haren ezaugarri nagusitzat. M<sup>a</sup> Luisa Garde Etayok adibidez, nafar langile mugimenduak 60. hamarkadaren bitartean bizi izan zuen garapen eta erradikalizatzea, hein handi batean, langile berriek memoria historikorik eta alde aurreko esperientzia militanterik ez zutelako, gehienak familia zamarik gabeko gazteak zirelako eta asko eta asko, nekazal munduan jatorria izateagatik, meategietako edota metalaren sektoreko fabrika fordista handietako lan baldintza gogorretara egokitzeko zailtasunak izan zituelako azaltzen ahal dela aipatzen zuen<sup>1135</sup>. Azken batean, indarrean zegoen lan harremanen markoak euren aldarrikapenei bide ematen ez zenez, gatazkarako gogoia metatuz joan zen, azkenean eztanda egin zuen arte. Apostolutza mugimendu sekularrek eman zituzten, bereziki, lehenbiziko momentuetan ezinegon hura bideratu zuten liderrak.

Praxian, Emilio Majuelok aipatzen duenez<sup>1136</sup>, Iruñerriko langile mugimendua oso solidarioa zen, geroz eta gehiago ari zen erradikalizatzen eta protagonismoa lortuz zihoan lan eta gizarte gatazka ugaritan parte hartzen zuelako. Haren antolakuntza maila berez txikia zen, baina abangoardia oso militanteak eta konprometituak zituen. Hauek, langileria lan aldarrikapenengatik, aldarrikapen sozioekonomikoengatik eta are aldarrikapen politikoengatik mobilizatzeko gai ziren. Abangoardia militanteen eta fabriketako langileen antolakuntza moldea CCOO izan zen. Nafarroako CCOOen kutsu ideologiko ezkertiarra, haren baitan ematen zen korronteen arteko indar orekaren emaitza izan zen, alderdi komunistaren ezkerreko kokatzen ziren taldeak nagusi baitziren: ORT, PCE(i)-PTE, MCE eta LCR-ETA VI.

Oraingoan, zirkuituan sortzen ari zen klase horren jokabidea aztertzea izango da gure helburua. Horretarako, langile borrokaren “esparruan” arreta jarriko dugu. Langile borroka, marko bat bezala ulertzen dugu, klaseak, klase bezala borroka egiten duen momentu bezala. Horregatik, borrokaren kontestuan, langileriak bere klase kondizioa azaltzen du, izan ere, borroka, klasearen berezko esparru bat da, haren izaera sortzen eta definitzen den esparruetariko bat. Oraingoan beraz, aurreko kapituluan ikusi ditugun dinamikei jarraipena ematen dioten langile mugimenduaren borrokak aztertu ditugu. Hasteko, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran langile mugimenduari protagonismo nabarmen bat eman ziotenak jasotzen dira. Sindikatu Bertikalaren egituretatik kanpo egongo zen berezko langile ordezkariak zuzen bat lortzeko borrokak izan ziren hein handi batean, langileei berezkoak zitzaizkien antolakuntza moduen parte izatearen sentimendua errotu zutenak. Greba mugagabeak izan ziren, oso luzeak eta oso gogorrak, baina hauek iraun bitartean, borroka kolektiboaren, elkartasunaren eta autoantolaketa printzipioak hedatuz joan ziren langileen artean. 1970tik aurrera, gatazken kopurua izugarri hazi egin zen Nafarroan. Aldarrikapen sozioekonomikoengatik edota elkartasun sentimenduengatik piztutako lanuzte partzialei eta fabrikako grebei, gatazka egoera orokortuak, greba orokorrak eta motibazio politikoengatik langile mobilizazioak gehitu zitzaizkien. Gatazkaren hazkundearen momentu honetan, langile borrokaren bigarren epealdi bat ematen da Iruñerrian.

---

<sup>1135</sup> M<sup>a</sup> Luisa Garde Etayo, “Modelos sindicales en la Navarra contemporánea: relaciones y derechos”, Carmen Erro eta Iñigo Mugueta (ed.), *Grupos sociales en la historia de Navarra (V. Congreso de historia de Navarra)*, III. Liburukia, Eunete, Iruñea, 2002, 325-357 orr., 326 orr.

<sup>1136</sup> Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y...” Op. Cit., 311 orr.

Fase berri honetan nabarmentzen diren 1973ko ekaineko greba orokorra, 1974ko udazkeneko borrokak eta Potasaseko meatzarien itxialdia, langile klaseari berezkoak zaizkion balore eta jokamoldeak azaleratzen dituzten borroka gisara aztertuko ditugu. Honela, ildo honi jarraiki, borroka hauetan ikusgarri egiten den eta borroka hauetan osatzen den langile identitatearen elementuak azaleratzen amaituko dugu. Klasea, zirkuituan eta borrokan eratuta izan da jada.

## 7.1 LANGILERIAK PRESENTZIA HARTZEN DU

1971an, Nafarroako Enpresarien Kontseiluak, orduan gobernuko lehendakariordea zen Luis Carrero Blancori gutun bat bidali zion<sup>1137</sup>. Bertan, enpresariak, Nafarroak bizi zuen gatazka eta ezegonkortasun egoeraz oso kezkatuta azaltzen ziren, probintzia, erro politikoa zuen industria eta gizarte krisi larri bat pairatzen ari baitzen. Langile mugimendua erabat nagusi zen ikuspegi bat jasotzen zuten, non haien interesak oso kaltetua izaten ari ziren eta industria beraren etorkizuna kolokan zegoen. Ildo horretan, gutunak, hitzez hitz, hala zioen: *“estatuan parekorik ez duen neurritz gaineko tentsio sozialak, izaera iraultzailea du Nafarroan. Gertatzen ari den gatazka kolektiboan gehiengoak ez du aldarrikapen ekonomikoen izaerarik. Gatazka garrantzitsuenak [...] gatazka sortzea besterik ez dute izan jomugan. Dialektika marxista oso ohikoa da asanblada pribatuetan, fabriketan publikoki burutzen direnetan, negozioazio mahaietan eta argitalpen klandestinoetan.[...] egoera guztiz kritikoa da. Nafar industriaren hondamenak gatazka soziala ekarriko du berekin, probintzia subertsio politikaren helburu lehen bilakatuz”*. Politika horrek hemen emaitza garrantzitsuak ematen zituen, horrenbeste, enpresariak, langileek nagusikeria moduko bat ezarria zutela iradokitzen iristen zirela.

Bereziki bi elementu hartzen dira nagusikeria horren adibidetzat: greba eta langileen ordezkarietza. Greba, langileek enpresariak hertsatzeko erabiltzen zuten arma nagusia zen. Edozein aldarrikapen planteatzerakoan edota edozein motatako negozioari ekiterakoan, lanuzteekin eta grebarekin mehatxu egiten zuten. Are gehiago, xehetasun osoz prestatzen ziren produkzioaren momentu kritikoenekin batera gertatzeko eta oso luzeak izaten ziren. Eta guzti hau gutxi ez balitz, greban ez zeuden enpresetan beti elkartasunezko lanuzteak ematen ziren, enpresarien gaineko presioa areagotuz. Egoera honek, estatuan parekorik ez zuen soldaten igotzearen bidari lotzera behartzen zituen enpresak (esaterako, azkeneko bost urteetan, fabrika askotan, igotzeak %50aren gainekoak izan zirela salatzen zuten), honekin merkatuan lehiakortasuna galtzen zutelarik. Aurre egiteko aukerarik edo tresnarik ez zuten ere. Izan ere, praktikan langileak kaleratzea oso zaila zen, segituan gatazka berri bat sortzen zelako edota martxan zegoena kaleratuak berriz hartu arte luzatzen zelako. Langileen ordezkarietza dagokionean, nafar enpresetan legezko ordezkarietza sindikalaren hutsunea nabaria zela salatzen zuten, baita ordezkari sindikalik eta enpresa epaimahairik gabe, lan arazoak legearen markoaren baitan konpontzerik ez zutelara. Honek aukera paregabea ematen zuen langile talde klandestinoen eraketarako, hauek, asaldatzaileek zuzenduta, langileen ordezkari gisara jarduten zutelarik. Erraz identifikatzen ahal ziren ildo politikoen gidatuta egiten zuten gainera. Ildo hauek, antolatzen eta luzatzen zituzten grebetan hala nola langile batzordeek berek behartzen zituzten negozioetara iradokitzen zirela.

Eskutitzak egiten duen egoeraren azterketa erabatean partziala den arren eta erabiltzen duen tonua, kontrolatzen ez zuten egoera bati aurre egiteko Gobernuko lehendakariordearen laguntza lortu nahian, alarmistegia den arren, egiazki oso dokumentu interesgarria da 70. hamarkadaren hasieran Iruñerriko langile mugimenduak bizi zuen momentuaz hausnarketa egiteko. Izan ere, enpresariak kasik menderatzen zituzten “langileen nagusikeriaren” atzean, orduan langile mugimenduak zuen presentzia, protagonismoa eta indarra azaleratzen duten hainbat elementu garrantzitsu ikusten ahal dira. Hasteko, gatazka dinamika bizi bat iradokitzen da, non aipatzen diren grebak, benetan gogorak eta luzeak izan zirenak (kontestu honetan

---

<sup>1137</sup> Carta del Consejo de Empresarios de Navarra al vicepresidente del Gobierno Sr. Carrero Blanco”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5749. kutxa eta AGA-AAO, Presidentzia fondoa, 51-18769. kutxa. Gutun honen iruzkin edo azalpena, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 114-116 orr.

gertatzen dira Eatoneko berrogeita zazpi eguneko greba eta Imenasako berrogeita bost eguneko greba), antolakuntza eta elkartasun maila nabarmenetara iritsi gabe ezingo ziren sustatu. Honekin batera, ez zegoen gutunean aipatzen diren Nafarroako soldaten igotze garrantzitsuak lortzerik (hemengo metalaren hitzarmen kolektiboa estatu osoko altuena izatera iritsi zen 1968an<sup>1138</sup>) langileek kontutan hartzeko indar kolektiboa ez baldin bazuten. Era berean, legez kanpoko langile plataformen jardunarengatik kezka, fabriken baitako lan harremanetan hauek geroz eta protagonismo gehiago eskuratzen ari zirela adierazten zuen nolabait.

Baina Iruñerriko langile mugimenduaren garapena zein momentutan zegoen azaltzen duen elementurik adierazgarriena, gutunak langileen artean eragin zuen erantzuna izan zen. Esate baterako, Metalaren Sindikatuko Langile eta Teknikarien Batasuna edota Nafarroako Langile Kontseilua bezalako legezko bi erakunde sindikalek, enpresariei publikoki erantzun zieten, langile eta enpresarien artean aurrez aurreko interesak eta Iruñerrian bizi zen lan eta gizarte egoera ulertzeko ikuspuntu desberdinak zeudela agerian utziz. Aipatu Metalaren Langile eta Teknikarien Batasunak adibidez, beste eskutitz batekin erantzun zuen, non enpresarien adierazpenekin oso kritiko azaltzen zen eta langileak, enpresarien gutunak haien “nagusikeriaz” ematen zuen irudia ezeztatu nahian, klase jarrera batekin defendatzen zituen<sup>1139</sup>.

Metalaren langileek, enpresarien gutunak aipatzen zituen soldata maila “altuegiek”, langileriari, aurreko urteetan pentsaezinak ziren bizitza maila itxaropentsuak ematen zizkiola onartuz hasten zuten euren erantzuna. Baina jarraian, hainbat ñabardura adierazgarri egiten zituzten. Aurreko urte haietan bezala oinarritzko premiak asetzeko orain hamabi edo hamalau orduko lanaldiak egin behar ez ziren arren eta bizitza mailak, egiatan, itxaropentsuak ziren arren, langileek, zortzi orduko lanaldi batekin, oraindik duintasunarekin bizitzerik ez zutela salatzen zuten. Are gehiago, enpresan gauzak ongi zihoazenean enpresariak irabazten zutelaz eta gauzak gaizki zihoazenean langileek galtzen zutelaz kexu ziren. Izan ere, enpresak ixten zirenean, langilea zen “*jatekorik gabe*” gelditzen zena, enpresariak, askotan, etekinak ematen zizkieten bestelako enpresak zituen bitartean (“*haietariko asko, itxitako fabrikak emandako mozkinekin sortuak*”, gainera). Enpresariak batzuetan grebaren mehatxu pean negoziatu behar zutela onartzen zuten, baina langileen ordezkariak askotan hitzarmenak kaleratzearen mehatxu pean sinatu behar zituztela argitzen zuten ere. Langileak legezko sindikatuez kanpoko taldeetan antolatzeagatik salatzea lekuz kanpo zegoela estimatzen zuten, bereziki enpresariak Asociación de la Industria Navarra delakoan inongo arazorik gabe biltzeko aukera zutenean: “*ez al da hau sindikatuaz kanpoko elkarte bat? Langileok hori bera egingo bagenu, politikoak, iraultzaileak izango ginatke*”. Azkenik, enpresariak horrenbeste kezkatzen zituen elkartasunezko lanuzteei egiten zieten erreferentzia. Alde batetik, beste fabriketako kideek bizi zituzten arazoez kontziente ziren heinean, halako jarrerak ulertzekoak zirela esanez defendatzen zituzten, klase jarrera argia azalduz. Bestetik, enpresariei zuzenean aurre egiten zieten, hauei nolabaiteko itxurakeria aurpegiratuz: “*ez al zarete zuek elkartzen zenbait langileri boikota egiteko? Beharra edota interesa duzuenean, ez*

<sup>1138</sup> Datua, 1971ko urriko “Informe sobre la situación político-social de Navarra y sus antecedentes”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa. Ildo honetan, nafar enpresariak, estatu mailako eta Nafarroako hitzarmenak alderatzerakoan, azken hauetan soldata mailak nabarmenki altuagoak (zenbait sektoretan desberdintasunak %71koak izatera iristen ziren) zirela salatzen zuten. Carta del Consejo de Empresarios de Navarra al vicepresidente del Gobierno Sr. Carrero Blanco”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5749. kutxa eta AGA-AAO, Presidentzia fondoa, 51-18769. kutxa.

<sup>1139</sup> “Sindicato Provincial del Metal. Unión de Técnicos y Trabajadores. Acuerdo Comisión Permanente 20-20-1971”, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

*al diezue beste enpresariei laguntza eskatzen? Orduan, zuek bezala jokatzeko badugu, zertaz kezka zarete?”*

Langile Kontseiluak ere erantzuna eman nahi izan zion nafar enpresarien gutunari eta 1971ko azaroaren 6an egin zen ez-ohiko osoko bilkuran, kontseiluak Metalaren Sindikatuko Langile eta Teknikarien Batasunaren adierazpenekin bat egitea erabaki zuen<sup>1140</sup>. Bilera hartan egin ziren adierazpen esanguratsuenetan, berriz ere soldaten gaiari eta elkartasunaren gaiari egin zitzaien erreferentzia. Soldatei dagokienean, enpresariak aipatzen zituzten azken bost urteotako %50eko igotzeak, datua egiaztatzeko baliabiderik ez zuten arren, beste hainbat daturen kontestuan kokatzen zituzten. Azken sei urteetan probintzia errenta %87 batean areagotu zen eta irabaziak biztanleko % 63a hazi egin ziren. Orduan, soldatzen igotzeek kezka zirenean, ez al ziren enpresariak iradokitzen ari probintziako klase sozial guztien diru sarrerak areagotzen ari zirenean, langileenak ez zirela maila berean handitu behar? Elkartasunari dagokienean, langileen jarrera solidarioa defendatu eta are txalotu egiten zuten. Langile guztien ustezko erruengatik gutxi batzuen kaleratzeak edo zigorrak iragartzen zirenean sortzen ziren elkartasun erantzunak, jarrera duintzat eta langile zein nafar bezala harrotasuna sentiarazten zuten jokabideetat jotzen zituzten. Honekin batera, elkartasuna, langileek euren interesak defendatzeko izaten ahal zuten tresna gutxienetarikoa bat zela aldarrikatzen zuten. Izan ere, inolako eskubiderik ez zuten marko batean, kideen laguntza eta presioa, halako arrazoiengatik kaleratutakoekin lan berri bat lortzeko izaten zituzten zailtasunetatik babesteko modu bakarrenetarikoa bat zen.

Nafarroan beraz, langile mugimenduaren indarra ikusarazten zuen eta enpresariak zein erregimena biziki kezkatzen zituen tentsio sozial eta lan gatazka egoera bizi zen. Ildo horretan, 1970 eta 1971 urteetan datatutako Erakunde Sindikalaren hainbat txosten, egoera hura azaltzen saiatzen zen, herrialdea, enpresariak deskribatutako itxurara eraman zuten faktoreak argitu nahian<sup>1141</sup>. Berauetan, legezko sindikalismoak hemen topatzen zituen arazo nagusien aritza aritza, enpresarien gutunean azaltzen zen ikuspegiaren oso antzeko bat ematen zen. Hitzarmen kolektiboak egiteko zailtasunak lan baldintzak bide ofizialeetatik adostea zailtzen zuen, langileek, lanuzteekin edota grebarekin mehatxu eginez, legeak xedatutakoaren gainetik soldata igotze handiak lortzea erraza zutelarik. Erakunde Sindikalarentzat, honen ondorioz kezkarrienak, bere prestigio galera eta talde klandestinoen eta langile komisioren ospea ziren <sup>1142</sup>.

Txosten hauetan, bereziki faktore bat agertzen da nafar langile mugimenduak lortua zuen garapen maila horren erantzule bezala: langile eta industria kultura baten falta. Izan ere, nekazal egitura ekonomiko batetik, egitura ekonomiko industrial batetara igarotzea, esperientzia erabat berria izan zen bai langileentzat eta baita enpresariarentzat ere. Langileen kasuan, berritasun honek, jarrera hartzeen erradikalizatzea eta ikusmoldeen batasuna ekarri zuen berekin; enpresarien kasuan, norberekoitasuna, euren arteko elkartasunik eza eta egitura sindikalaren arbuio ageria. Honek, lan harremanen eredu oso berezia itxuratu zuen: enpresek, kutsu paternalista batekin langileen eskakizun guztiei erantzuten zieten, kontratatze kolektiboaz kanpo, noski; langile liderrak babesten zituzten eta grebak onartzen zituzten, zenbaitetan,

---

<sup>1140</sup> “Acta de la reunión extraordinaria del Pleno del Consejo de Trabajadores de Navarra celebrada el día 6 de noviembre de 1971”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 5749. kutxa

<sup>1141</sup> 1970eko iraileko “Movimientos obreros en Navarra” txostena, 1971ko urriko “Informe político social de Navarra y sus antecedentes” txostena eta 1971ko azaroko “informe sobre la situación político-laboral en navarra” txostena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>1142</sup> “Idea General sobre la situación actual en Navarra” txostena (datarik gabe). AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 34-5598. kutxa.

kalte handiegirik ez izateko, aldez aurretik adostuak izaten zirelarik. Hori gutxi ez balitz, enpresari zein langileek egitura sindikalak mespretxatu egiten zituzten, eragingabeko burokrazia hustzat jotzen baitziren. Erakunde Sindikalak, hartara, 60. hamarkadako nafar marko sindikala, langile mugimendu indartsu baten garapenerako egoerarik aproposena izango balitz bezala deskribatzen zuen. Bereziki deigarria da informazio hauetan nafar enpresariei egiten zaien kritika zorrotza. Errotik legezko sindikatuaren aurka jartzen ziren heinean eta kontratatze partikularra ahalbidetzen zuten heinean, enpresariak langile mugimenduaren garapenean eta indartzean laguntzen ari ziren, izan ere honek, sistemaren kontrako kritikei bide ematen zien eta subertsioari mesede egiten zion. Enpresariak berek sindikatuaz kanpo jarduten zuten langile liderrak onartzea, honen adibiderik adierazgarriena zen. Asaldatzaile gisara nabarmentzen ziren langileak (Erakunde Sindikalak zehazten zuenez, langile komisioetako eta HOACeko militanteak) mailaz igotzen zituzten eta are ekintza subertsiboengatik zigortuak izandako militanteei, berriz hartuak izan ondoren, soldata atzerapenak ordaintzen zizkieten (CCOOeko lider baten kasuan gertatu bezala)<sup>1143</sup>. Enpresarien jarrerak ahalbidetutako kontestu honek, egiatan, langile mugimendu indartsu eta antolatu bat sortzeko aukera eman zien langileei.

Erakunde Sindikalaren tesiaren ildo jarraituz, 60. hamarkadaren bitartean hazkunde ekonomikoa bere gorenean zela, nafar enpresariak zein langileek harreman industrialetan zuten aipatu esperientziarik eza, nabarmendu gabe gertatzen zen. Garai hartan, aipatu enpresarien norberekoitasunak, hauek langileekin kontratatze kolektiboaz kanpoko itunak egitera eramaten zituen, berauetan, lan gatazkak saihestu asmoz, langile aldarrikapen guztiei erantzuten zitelarik. 60. hamarkadan nagusi izan zen joera honek, lehenbiziko momentu batean enpresariak CCOOekin izan zuten permisibitatea azaltzen du nola edo hala, bitarte horretan, hauek, langileen eskakizun eta aldarrikapenak bideratzeko solaskide bezala onartuak izan baitziren. Harreman dinamika hau oso gatazkatsua bihurtu zen joera ekonomikoa aldatu eta enpresariak lan baldintzen hobekuntza aurreko mailetan negoziatzeko prest egon ez zirenean eta fabrika asko, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, legezko ordezkariak sindikalik gabe geratu zenean. Oparotasun ekonomikoaren garaian, enpresariak euren jokabide honek izaten ahal zituen ondorioez kezkatzen ez ziren bitartean, hazkunde joera ahuldu eta produkzio, merkaturatze eta finantzatze arazoak agertu zirenean, enpresek jada ez zieten haiek berek indartzen lagundu zuten langile mugimenduaren aldarrikapen erritmoari eutsi nahi izan. Orduan, langile eta enpresarien arteko gatazka gordinki azaleratu zen, enpresariak, *“legezko egituren aurkako joerak sostengatuta, langileak eurekin esker onekoak izango zirelako ustea [...]”* larrutik pagatu behar izan zutelarik <sup>1144</sup>.

### 7.1.1 Iruñerriko langile mugimendua etapa berri batean

Bai enpresariak zein Erakunde Sindikalak, azaldu berri ditugun euren ikuspegietan, kontutan hartzeko presentzia eta indarra zuen langile mugimendu bat aurkezten dute. Zentzu honetan, 70. hamarkadaren hasieran Iruñerriko langile mugimenduaren etapa berri bat abiatzen dela esan dezakegu, non aurreko kapituluan sortzen ikusi dugun mugimendua, heltze prozesu batean sartu eta lehen mailako eragile sozial bilakatuko da. CCOOen garapena eta honek jarduera sindikalean izan zuen eragina izango dira etapa berri honen elementurik adierazgarrienak.

---

<sup>1143</sup> 1971ko urriko “Informe político social de Navarra y sus antecedentes” txostena eta 1971ko azaroko “informe sobre la situación político-laboral en navarra” txostena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>1144</sup> *Ibid.*



CCOOen agerpena, inflexio puntua izan zen ordura arte Iruñerriko langile mugimenduaren dinamikan. Izan ere, CCOOen jarduerak, aldaketa garrantzitsuak eragin zituen 60. hamarkadaren hasieratik fabrika komizioek eta Sindikatu Bertikalaren egituretan aritzeko hautatuak izan ziren ordezkari sindikalek garatzen zuten jarduera sindikal bateratuan. 70. hamarkadaren hasieran, Nafarroako CCOO Sindikatu Bertikala arbuizatzeko politikari ekitea erabaki zuen eta ordezkari sindikal zein epaimahai kideen dimisioak gertatzen hasi ziren Iruñerriko enpresarik garrantzitsuenetan. Lege sindikal berriaren kontrako protesta mugimenduen kontestuan kokatu ziren dimisio hauen ondoren, estrategia berberaren parte bezala, 1971ko hauteskunde sindikalei eginiko boikota etorri zen<sup>1145</sup>. CCOOek 70. hamarkadaren hasieran hartu zuen estrategia honek, lehenbiziko aldiz, langileen ordezkarien sindikatu frankistaren bidezko hautaketaren egokitasuna eztabaidan jartzen zuen. 60. hamarkadan zehar langileen lan baldintzen hobekuntzaren alde fabriketan ordezkari eta epaimahai kide izandako militanteen lana eta eraginkortasuna (eta konpromisoa, egiazko langile ordezkari gisara jarduteagatik askotan zigorrak eta kaleratzeak pairatu behar izan baitzituzten) zalantzan jartzen ez bazen ere, aurreko urteetan emaitza garrantzitsuak eman zituen sindikatuaren jarduteko estrategiaren aurrean, langileek zuzenean euren ordezkariak hautatzeko izan behar zuten eskubidea lehenetsi zen oraingoan. Iruñerriko langile mugimenduaren baitan eta askatasun sindikala lortzeko borrokan, estrategia desberdinak aurrez aurre jartzen hasi ziren.

Orduan Nafarroako Langile Kontseiluaren lehendakaria zen Tomás Caballeroren hitzetan, honek ordura arte langile mugimenduak agertu izan zuen batasunaren haustura suposatu zuen<sup>1146</sup>. Antzeko tesiarekin bat zetorren 1970an, nafar langile mugimenduaren jatorri eta jarrera hartze ezberdinak azaltzeko, Nafarroako Erakunde Sindikalak burutu zuen txosten bat<sup>1147</sup>. Bertan, legezko egituretatik bideratutako mugimendu batasundun batetik, CCOOen agerpenarengatik eta estrategia desberdintasunarengatik zatitutako mugimendu baterako igarobidea aztertzen zen. Txostenean, langile mugimenduaren jatorria apostolutza mugimenduetan kokatzen zen eta lehenbiziko etapa batean, honen garapena, egitura sindikalean gertatu zela nabarmentzen zen. Mugimendu hasiberri hura bide ofizialetik bideratzea, Sindikatuaren Probintzia Ordezkari baten ekimena izan zela aipatzen zen. Estrategia sindikal hau deserosoa izan zitekeela pentsatzen ahal zen, baina etorkizun-sena aitortzen zitzaion, izan ere, momentu hartan, erregimenaren eraginkortasun sindikala eta herrialdeko are bake soziala, estrategia horren jarraitutasunaren esku zeuden. Batasunean eta legezketasunean oinarritutako eskema hau, 1969ko Super Serreko grebara arte baliozkoa izan zen. Gatazka hura, inflexion puntutzat jotzen da nafar langile mugimenduaren bilakaeran, bertan, langile mugimenduaren zatiketa eta jarrera hartzeen erradikalizatzea ikusi ahal izan baitziren. Aurreko kapituluan ikusten genuen bezala, Langile Kontseiluak bitartekaritza lanak egin zituen gatazka honetan, diru bilketa bat hala nola arbitraje batzorde bat sustatuz. Txostenak, bitartekaritza lan honi esker kontseiluko kideak eta enpresako langileak asebate zituen konponbide bat lortu zela nabarmentzen du, baina baita langileen artean eztabaida gogor bat piztu zuela ere. Langile gazte talde bat, konponbidearen aurka agertu zen *“probintzia osoan elkartasun greba bat”* abiarazteko asmoa omen zuelako. Gazte hauek, nolabait, langile mugimenduan agertzen ari zen joera berri bat irudikatzen zuten, kontseiluarena eta

---

<sup>1145</sup> Nafar CCOOen estatuko koordinakundearen estrategiarekiko desberdintasun hau, hemengo langile mugimenduaren baitako indar orekaren ondorio zuzena izan zen hein handi batean. Izan ere, Nafarroako CCOOetan nagusi ziren ezker iraultzailearen taldeek, ez zuten estatuko koordinakundearen nagusi zen alderdi komunistaren CCOOi eta estrategia “entristari” buruzko ikusmoldeekin bat egiten.

<sup>1146</sup> Tomás Caballero, “Momento actual del...” Op. Cit., 82-83 orr.

<sup>1147</sup> 1970eko iraileko “Movimientos obreros en Navarra” txostena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

lider sindikal nabarmenduena baino jarrera hartze erradikalagoak barne hartzen zituen eta Nafarroako langile mugimendua “*zaticetatik oso gertu*” uzten zuena. Baina Super Serreko grebak irudikatzen zuen banaketa hura, mugimenduak bizi zuen asalduzko egoeraren adierazleatariko bat baino ez zen. Gatazka bere kontestuan kokatzen baldin badugu, urte hartako bestelako gertakari sindikalek ere langile mugimenduaren zatiketa hori bera azaleratzen zutela ikusiko dugu. Adierazgarriena, lege sindikal berriaren agerpenak eragindako jarrera hartze desberdinen arteko konfrontazioa izan zen. Proiektuak, nahiz eta langile arduratsu eta kontzientziatuen gehiengoak arbuaiatua izan, bereizketa argia sortu zuen langile mugimenduaren jardunbide bateratuan eta lehenbizikoz, militante sindikalak euren artean aurrez aurre jartzen zituzten estrategia desberdinak agertu ziren: alde batean, lege sindikala, bere edukia zena zela, inolaz ere onartuko ez zutenak kokatzen ziren; bestean, edukiarekin ados ez egon arren, onartu egingo zutenak. Praktikan, ikusmolde desberdintasun honek, jokabide desberdintasuna ekarri zuen berarekin eta lehenbizikoen euren kargu sindikalak utzi zituzten bitartean, bigarrenak, berauetan mantendu ziren.

Hala ere, desberdintasun honek, zatiketa baino, Iruñerriko langile mugimenduaren jarduerarako esparru aniztasuna ekarri zuen berekin: Sindikatu Bertikalaren egituretan, Langile Kontseilua; klandestinitatean, USO sindikatua eta geroz edota aldarrikapen sozialagoen eta politikoagoen buru zen CCOO. Formetan eta estrategietan desberdinduko ziren arren, halako esparru edo plataformek, sare eta militante berberak partekatuko zituzten eta ekimen edota ekintza berberetan parte hartuko zuten, langile mugimenduak, zatiketaren gainetik, konexio garrantzitsuak mantentzen jarraitu zuelarik. Langile kontseilua “*askatasuna, demokrazia eta sozialismoa lortzeko tresna*” zen bitartean, “*langile klasearen defentsa ordura arte bestelako klaseek mendean edukitako esparruetatik*” gautzen zuen bitartean eta “*mentalizazioan zein lorpenen egonkortzean langile mugimenduaren abangoardia*” zen bitartean; ekintzari zegokionean, CCOO zen erreferentzia<sup>1148</sup>. Hala zen. 1972an, nahiz eta zuzendaritza oposiziozkotzat jotzen ahal zen, Langile Kontseilua oraindik ezezaguna zen langileen artean. CCOO, ordea, gaztaka sozial hasi berrien buruan zela, Iruñerriko langile mugimenduaren erreferente nagusia zen. Are gehiago, CCOO, nahiz eta bere antolakuntza egituraren tamaina handia ez izan, mobilizazio eta protesta sozialaren abiarazle izatera iritsi zen bere lider eta ekintzei esker, honekin langile mugimenduaren ingurura geroz eta sektore sozial gehiago biltzen zuelarik<sup>1149</sup>.

### 7.1.2 Lege sindikal berria

Aipatu bezala, 60. hamarkadaren amaieran Iruñerriko langile mugimenduaren baitan gertatu zen zatiketaren adierazle nagusienetariko bat, lege sindikal berriaren agerpenak eragindako jarrera hartze desberdinen arteko konfrontazioa izan zen. 1971an aldarrikatu zen, baina 1969an lege proiektua aurkeztu zenean jada, polemika piztu zuen. Eragile sindikal ezberdinek, militanteek, CCOO eta USO bezalako erakunde klandestinoek eta are OITak (lege berria zalantzan jartzen zuen txosten batekin), aho batez arbuaiatu zuten proiektua. Hari egin zitzaizkion kritikak, sindikalgintza demokratikoaren printzipio nagusienak urratzen zituelako etorri ziren: langileei askatasun sindikala ukatzen zitzaien, Sindikatuko kide egitea derrigorrezkoa zelako; autonomia eta independentziaren printzipioak ezeztatzen ziren, langile eta patrioiak erakunde berean elkarrekin jarraitzen zituelako eta goi mailako zuzendaritza karguak gobernuak izendatzen zituelako; eta langileen parte hartzea erabatean

<sup>1148</sup> Tomás Caballero, “Momento actual del...” Op. Cit., 83 orr.

<sup>1149</sup> Hein handi batean, M.B.-k aipatzen duenez, CCOOek jendartean nolabaiteko prestigio moralra lortu zuelako. M.B.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-05-06.

mugatzen zen, lehenik eta behin araudi berria behetik gora sortu beharrean, goitik behera inposatzen zelako<sup>1150</sup>.

Proiektuaren aurkako oposizio hau orokortua izan zen Nafarroan. Tokian tokiko prentsa esaterako, kritiken bozgorailu garrantzitsua izan ze eta lege berriaren kontrako kanpaina entzutetsuak egin zituen. Diario de Navarraren kasuan, egunkariak, 1969ko udazkenean aurreproiektua argitaratu bezain pronto, inkesta bat burutu zuen langile zein enpresari kontseiluetako lehendakarien eta Sindikatu desberdinetako sail sozial eta ekonomikoetako lehendakarien artean. Inkestak galdera bakarra, zuzena eta argia zuen: “Zer uste duzu zuk lege sindikal berriaren aurreproiektuaz?”<sup>1151</sup>. Hogeita sei elkarrizketatuetatik, solik zazpi ez ziren nabarmenki kritikoak aurreproiektuarekin. Jarrera hau azaltzen zutenek orokorrean, alde negatiboak ikusten zizkioten, baina positiboak gehiago zirela eta proiektua, gorteetatik pasa ondoren eta lege bezala definitu ondoren, hobetu egingo zuela uste zuten. Beste hemeretziak, bizitasun gehiagorekin edo gutxiagorekin, aurreproiektuaren aurka azaltzen ziren argi eta garbi. Batzuek alde negatiboak eta hutsuneak nabarmentzen zituzten, nahiz eta oraindik hobekuntzak egiteko aukerak bazeudela pentsatzen zuten. Gehienak ordea, estalkirik gabe, oso kritiko agertzen ziren. Azken hauen artean, Sindikatu etako sail sozialetako lehendakari asko egoteaz besten, sail ekonomikoetako zenbait lehendakari zegoen ere. Elkarrizketatu hauen erantzunetan, atzerapausoak ematen zirelako sentsazioaren edota langileen zilegizko helburuak kontutan hartzen ez zirelako ustearen moduko balorazio orokorrak errepikatzen dira, kritikak proiektuaren alde zehatzei egiten zitzaizkien bitartean.

Proiektua prestatua izan zen modua kritikatzeko zen, esaterako langile klasearen aldarrikapenen emaitza ez zela, langileen ekimenez sortua izan ez zela eta langileek berek egin ez zutela salatuz<sup>1152</sup>. Ordezkaritasun falta agerikoa zela kritikatzeko zen, lege berriak agintaritzaren politikoaren nagusitasuna eta langileen honekiko menpekotasuna iraunarazi egingo zuela salatuz. Izan ere, nahierarako izendapenek jarraituko zuten, ez zen hautaketarako askatasunik egongo eta agintariak goitik behera aukeratuak izaten jarraituko zuten. Manuel de Miguel, Olibondoaren Sindikatuko sail sozialeko lehendakaria, oso argia zen zentzu honetan, lege berriak “*sindikal gintza ofiziala printzipio autoritarioetan eta ez demokratikoetan oinarritzen den erakunde*” bezala itxuratuko zuela eta bi lerroren, “*sindikatuaren zuzendari eta erabiltzaileena, kokatzaileena eta kokatuena*” existentzia mantentzen zuela esaten zuenean<sup>1153</sup>. Honekin batera, afiliatzea derrigorrezkoa zenez elkartzeko askatasunik ez zegoela kritikatzeko zen. Manuel de Miguelek egiten zuen berriz ere salaketarik argiena zentzu honetan, proiektuak “*baimenik eman gabe [langilea] elkarte bateko kide egiteko iraina*”<sup>1154</sup> berriz egiten zuela adierazterakoan. Azkenik, erantzun askotan lege berriak grebarako eskubidea ezagutzen ez zuela kritikatzeko zen ere.

---

<sup>1150</sup> Lege sindikal berriaz ikusi, besteak beste, Ricardo Martín de la Guardia, “La Organización Sindical Española ante la ley de febrero de 1971. Tácticas propagandísticas en la conformación de un estado de opinión”, *Investigaciones históricas: época moderna y contemporánea*, 11. zkia, 1991, 271-296 orr. edota Álvaro Soto Carmona “Auge y caída de la Organización Sindical Española”, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 8, zkia., 1995, 247-276 orr.

<sup>1151</sup> Inkestaren emaitzak, 1969ko urriaren 8aren eta 15aren artean argitaratu ziren.

<sup>1152</sup> Jose María Monreal, Harakintza Sindikatuko sail sozialeko lehendakariaren erantzunak, “Encuesta sobre el anteproyecto de ley sindical. Contestan, José María Monreal, Presidente de la Sección Social del Sindicato de Ganadería”, DN 1969-10-12, 32 orr.

<sup>1153</sup> Manuel de Miguel, Olibondoaren Sindikatuko sail sozialeko lehendakariaren erantzunak, “Encuesta sobre el anteproyecto de ley sindical. Contestan, [...] Manuel de Miguel Alsúa, Presidente de la Sección Social del Sindicato del Olivo”, DN 1969-10-10, 20 orr.

<sup>1154</sup> *Ibid.*

Aurreproiektua egiteko oinarri izatekoa zen 1968ko Tarragonako kongresu sindikalaren<sup>1155</sup> harira jada, nafar sindikalgintza ofizialaren jarrera zein izango zen aurreikusi ahal izan zen. Langile Kontseiluak 1968ko udan egin zuen inkesta batek, sindikatu desberdinetako kideek kongresuaren eztabaidak arretaz jarraitu zituztela baieztatu ondoren, sindikalisten gehiengoak bertan langileen helburuak jaso ez zirela eta ondorioz, haren konklusioak onartezinak zirela uste zuela azaleratzen zuen. Kontseiluak berak ere ez zituen onartu. Are gogorragoa izan zen metalaren Sindikatuaren erreakzioa. Aurreproiektua argitaratu baino lehen, Super Ser fabrikako epaimahaiko kidea zen Pedro Beunza lehendakaritzat zuen sindikatuko sail sozialak, honen hutsuneak agerian uzten zituen mozio bat onartu zuen, non langileek euren etorkizuna inolako interferentziarik gabe erabakitzeko eskubidea zutela, langileek euren egitura sindikalak sortu behar zituztela eta kargu guztiak, asanbladen bitartez edota langilek egokitzat jotzen zuten beste edonolako formulen bitartez, oinarritik zuzenean hautatu behar zirela aldarrikatzen zen<sup>1156</sup>. Metalaren langileak, argi eta garbi, halako printzipioetan oinarritzen ez zen testurik onartuko ez zutela esaten ari ziren.

Langile Kontseiluaren aurreproiektuaren aurreko jarrera hartzeak, ikusitako kritika guzti hauekin bat egiten zuen. Tomás Caballerok, aipatu Diario de Navarra egunkariak egindako inkesta erantzuterakoan, kontseiluaren jarrera zein izango zen aurreratu zuen. Bereziki, aurreproiektuaren bi alde negatibo nabarmentzen zituen: lehena, soilik langileena zen eta langile horiek berek zuzentzen zuten sindikatu autonomo bat sortzen ez zuela; bigarrena, erakundearen kargu nagusienak gobernuak izendatutakoak izango zirenez, ordezkariatasuna bermatzen ez zuela<sup>1157</sup>. Urriaren 21ean burutu zen osoko bilkuran, kontseiluak publikoki arbuiatu zuen aurreproiektua bere osotasunean, honen erabateko zuzenketa eskatuko zuelako erabakia hartuz. Urtearen amaieran, kontseiluak proiektua Gorteetan atzera botatzea eskatu zuen eta horretarako, proiektuari buruzko antzeko iritzia zuten Nafarroako Gorteetako ordezkariekin harremanetan jarri zen, hauek eztabaidara euren ikusmoldeak eramatea eskatzeko. Honekin batera, presioa egiteko neurri bezala eta proiektuarekiko oposizioa agertzeko modu bezala, lehenbizikoz, kargu sindikalek eta kontseiluko kideek dimisioa aurkezten ahal zutela iradoki zen, nahiz eta gero, jarrera hartze hau, testu legala Gorteetan eztabaidatua izan arte karguetan mantentzea komenigarriagoa zela estimatu zelako, zuzendu zen. Orduan, Iruñerriko langile mugimenduaren baitan, gerora are aurrez aurre jarriko ziren aipatu bi jarrera hartze desberdinak sortu ziren: dimisioekin aurrera jarraitu nahi zutenena (bereziki CCOO) eta karguetan mantentzearen aldekoak zireneka (HOACeko militanteak eta egitura sindikalekin errespetutsuak ziren lider sindikal moderatuak)<sup>1158</sup>.

---

<sup>1155</sup> Ikusi Álvaro Soto Carmona "Auge y caída..." Op. Cit., 260-261 orr.

<sup>1156</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 93 orr.

<sup>1157</sup> Tomás Caballero, Nafarroako Langile Kontseiluko lehendakariaren erantzunak, "Encuesta sobre el anteproyecto de ley sindical. Contestan, [...] Tomás Caballero, presidente del Consejo de Trabajadores", DN 1969-10-04, 28 orr.

<sup>1158</sup> AGA-AAO "Movimientos obreros en Navarra" txostena, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549 kutxa. Erakunde sindikalak berak banatzen zituen nafar langile mugimenduko indar desberdinak bi talde hauetan. Txosten honetan ez da Nafarroako alderdi komunistako militanteen jarrera aipatzen. Ordura arte indarrak ez zutela eta gutxika geroz eta presentzia nabarmenagoa lortzen ari zirela aipatzen da, lehenengo taldeari buruzko informazioaren baitan. Baina alderdi komunistak, estatu mailan, karguetan aritzearen estrategiaren aldekoa izaten jarraitzen zuen. Baina alderdi komunistako kideak Nafarroako CCOOen oraindik presentzia murrizta zutela kontutan hartuta, militante komunisten jarrera, CCOOen jarrera orokorraren baitan urtzea. Berez ez dago militantzia komunistak momentu honetan hartu zuen jarrera bereizterik, are alderdi komunistaren beraren dokumentazioan ere ez. Andrés Herrera ez du Nafarroako militante komunistek gai honetan izan zuten jarrera hartzearen berririk ematen, bai ordea aipatzen du 1970-1971 denbora tartean antolakundeak aurrera egin zuela eta militante

### 7.1.3 Dimisioak eta hauteskunde sindikalei boikota

Langile Kontseiluarentzat ez zen dimisioak aurkezteko momenturik egokiena eta karguetatik aurreproiektua bideratu bitartean lider sindikalek zeresanik izaten ahal zutela eta batez ere, enpresa txikietako langileak hitzarmen kolektiboak negoziatzerakoan babesik gabe utzi ezin zituela argudiatzen zuen jarrera hartze hura defendatzeko. Izan ere, enpresariak antolatuta jarraitzen zuten bitartean, langileak ezin ziren ordezkari sindikal edo epaimahai kide eraginkorrik gabe edota edonolako elkarte sindikalik gabe egon, horrek euren interesei kalte handia eragingo baitzien.

Erakunde Sindikalak behintzat horrela interpretatzen zuen kontseiluaren jarrera hartze hau<sup>1159</sup>. Dimisioen aldekoen aurrean bere hautabidea balioesten saiatzen ari zela eta horretarako, CCOOen eta mugimendu klandestinoen aurrean, parte hartze sindikala eraginkorragoa zela erakutsi nahi zuela eta honekin *“kalea irabazten eta jarraitzaileak bereganatzen”* ari zela zioen. Ikusi dugun bezala kontseiluaren eta Erakunde Sindikalaren lerro politikoaren artean liskarrak izan ziren eta izango ziren arren, azken honek, oso modu positiboan baloratzen zuen lehenengoaren jarrera hartze hura. Izan ere, momentu hartan, fabrika garrantzitsuenetan dimisioak gertatzen ari zirenean eta lege sindikalaren aurreproiektuaren aurkako oposizioa gogorragoa zenean, hots, sindikalismo ofizialak eta lider sindikalen harenganako konpromisoak krisi larri bat bizitzen ari zirenean, kontseilua langileak bide ofizialetan parte hartzearen alde argi eta garbi azaltzea oso onuragarria zela estimatzen zuen. Are gehiago kontseiluak tokian tokiko prentsan presentzia handia zuenean eta honengatik, langileen artean lan hezigarri garrantzitsua egiten ahal zuenean.

Hala ere, hainbat sindikatuk lege sindikala behin behinean onartu arte dimisioak ez aurkezteko kontseiluaren deialdiarekin bat egin zuen arren, dimisioen tanta jarria etengabea izan zen aurreproiektua argitaratu ostean. Nafarroako enpresa garrantzitsuenetan gertatu ziren eta sindikatu handienetan izan zuten eragina, metalaren sindikatuan bereziki<sup>1160</sup>. Iruñerriko langile mugimenduaren parte handi batek, honela, estrategia berri bati bide ematen zion: berrehun ordezkari sindikal eta epaimahai kidek utzi zuten euren kargua eta alternatiba bezala, langile komisioak sortu ziren, hauek enpresa zuzendaritzen aurrean langileen “egiazko” ordezkari eta solaskide egiteko helburuarekin. Bertikaletik ateratzeko hautua egin ondoren, CCOOk estrategia honekin jarraituko zuen 1971ko hauteskunde sindikalei boikota deialdia egiterakoan. Nafarroako CCOOen jarrera hartze hau, estatu mailako mugimenduaren

---

aktiboenak CCOOen lan egiten zutela, fabriketan ordezkari sindikal edo batzordekide hautatuak izan zirelarik. Andrés Herrera “De la célula...” Op. Cit., txostenaren 11 orr.

<sup>1159</sup> “Informe sobre el Pleno del Consejo General de Trabajadores de julio de 1970” txostenean, AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 34-5598. kutxa.

<sup>1160</sup> Hauek izan ziren, Erakunde Sindikalaren txosten baten arabera, dimisioak izan zituzten enpresak: Comelsa (osotara 130 langile), sei dimisio; Eaton Ibérica (284 langile), hamaika dimisio; Frenos Iruña (116 langile), zortzi dimisio; Bendibérica (378 langile), hamar dimisio; Super Ser (511 langile), hamaika dimisio; Motor Ibérica (158 langile) zazpi dimisio; Inquinasa (283 langile), hamahiru dimisio; Potasas de Navarra (1627 langile), hamabi dimisio; Authi (615 langile), hemezortzi dimisio; Inasa (509 langile), hogeita hamabost dimisio; Gráficas Estella (264 langile), hamabost dimisio; Salvat (77 langile), bi dimisio; Imenasa (845 langile), hemeretzi dimisio; Chalmeta (407 langile), hamabi dimisio; Industrias Esteban (120 langile), zazpi dimisio; Imausa (124 langile), sei dimisio; Piher Navarra (359 langile), hamabi dimisio; Papelera Navarra-Cordovillako lantegia- (214 langile), sei dimisio; Gomariz (62 langile), bi dimisio; Talleres Oneca (51 langile), dimisio bat; Talleres Osacar (14 langile), dimisio bat; Hijos de Carlos Eugui (54 langile), dimisio bat; Industrias San Andrés (81 langile), dimisio bat. “Informe de la situación de las elecciones sindicales en Navarra (12-06-1970)”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

ildoetatik aldentzen zen, haren baitan PCEak langile ekintza indartzeko kargu sindikalak erabiltzeagatik apustu egiten jarraitzen baitzuen<sup>1161</sup>.

Lege sindikal berriaren kontrako protesten egoeraren arabera momentuaz haratago, dimisioen estrategiaren motibazioek, momentura arte Sindikatu Bertikalaren baitan hazi zen langile mugimendua orain, berezko garapen bati begira, haren baitan jarraitu nahi zuen edo bide berri bat zabaldu behar ote zuen planteatzen hasten zela azaleratzen dute. Izan ere, dimisioen aldeko hautua egiteko arrazoari nagusienetarikoa bat, berez langileena ez zen sindikatu batean karguak izatea erabatean eraginkorra ez zelaz aparte, bertan parte hartzea langile mugimendu beraren garapena mugatzen zuela estimatzen zela izan zen. CCOOen sendotzea eta 60. hamarkadaren amaieran gertatzen ari ziren lan gataketan, Erakunde Sindikalaren lerro politikoak ezarritako mugen ondorioz, kargu sindikalak falta izan zuten eraginkortasuna, dimisioen aldeko jarrera hartzea sustatzeko faktore nagusienak izan ziren<sup>1162</sup>.

Honekin batera, kargu sindikal ofizialetan aritzearekiko arbuioa, ordezkari sindikal askok egiazko ordezkari izateko ahal zitezkeen zailtasunean aurrean inolako babesik ez zuela sentitzen zuelarekin zerikusirik izan zuen ere. Kargu sindikaletan mantentzeak berekin, epe luzera, langile mugimenduaren burugabetzea ekartzen ahal zuela estimatzen zen. Izan ere, ordezkari sindikalak mugimenduaren "aurpegi publikoa" izaterakoan, enpresariaren errepresioaren (zigorrak, kaleratzeak) jomugan jartzen ziren. Metalaren Sindikatuaren sail sozialeko lehendakaria zen Pedro Beunzak adibidez, 1968an Langile Kontseiluari idatzi zion gutun batean, sindikalistak "enpresariaren eskuetan, babesgabe eta lankideen defentsa [eraginkorra] egin ezinean" aurkitzen zirelakoan xexu zen eta espainiar sindikalismoarekiko mesfidantza argia azaltzen zuen bere ordezkariak babesteko gai ez zelako<sup>1163</sup>. Ildo berean, Langile Kontseiluaren batzorde iraunkorrek, lehenbiziko momentu batean, sindikatuaren parte hartzearen egokitasuna zalantzan jarri zuen Sindikatu Bertikala soldatapekoen defentsarako eraginkorra ez zela salatuz. Momentu hartan gertatzen ari ziren hainbat lan gataketan mesfidantza horrek funtsarik bazuela ikusten ahal zen, zenbait ordezkari sindikal, langileen aldarrikapenak defendatzerakoan, kaleratuak izaten ari baitziren. Iruñerriko langile mugimenduaren parte batek, orduan, argi izan zuen: kargu sindikaletan aritzeak enpresaren aurrean aldarrikapenak egiteagatik gertatzen ahal ziren kaleratzeak saihesten ez bazuen, langile mugimenduari berdin zitzaion legearen barruan egon edo ez.

Metalaren sektorean, enpresa garrantzitsu gehienetan eman ziren dimisioak eta Industria kimikoaren sektorean, hiru enpresa garrantzitsuenetatik, bitan. Bi sektoreek

---

<sup>1161</sup> Hala ere, 60. hamarkadaren amaieran, ordezkari sindikalen higadura agerikoa zen, ez bakarrik Nafarroan. Bizkaian adibidez ordezkariaren gaineko errepresioak, nekeak eta kargu askoren izaera aldarrikatzailearen galerak, protesta mugimenduak mugatzen zituztela esaten zuten kritikek eta parte hartzearen kontrako plataformen sorrerak eta indartzeak, enpresen baitan, karguen indar galera bat ekarri zuten eurekin. José Antonio Pérez, *Los años del...* Op. Cit., 343-345 orr. Guztiarekin ere, CCOO eta alderdi komunista, parte hartzearen alde egiten jarraitzen zuten. Bizkaiko langile mugimenduan bestelako taldeek (Komunistak, USO, UGT, ELA, ETaren Langile Frontea) parte hartzen zuten eta hauek bai, epaimahaiaren aurkako kanpaina bat hasi zuten eta dimisioak eskatu zituzten. Ikusi Pedro Ibarra, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 179-180 orr. Euskal Herrian, orokorrean, alderdi komunistaz beste langile mugimenduaren baitan jarduten zuten bestelako taldeek kontutan hartzeko indarra zuten, 1897ko hauteskunde sindikalei boikota egiteko deialdiak izan zuten arrakasta garrantzitsuak erakusten duen bezala. Euskal Herriari buruzko ikuspegi oso orokor bat, Patxi Abasolo, David Mendaza eta Joxerra Bustillo, *Nuestro mayo rojo...* Op. Cit., 548-549 orr.

<sup>1162</sup> Ikusi José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 73 -74 orr.

<sup>1163</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 84-85 orr.

fabrika handi eta langile portzentajerik handienak hartzen zituztenak ziren. Bestelako produkzio alorretan, fabrika handiak ez zituztenetan bereziki, dimisioen estrategiaren eragina txikia izan zen, bankaren eta papergintzaren sektoreen zeinbait kasutan izan ezik. Orokorrean, dimisioek ez zuten arrakastarik izan ez enpresa txikietan, ez eta ordura arte protesta jarduera urria azaldu izan zutenetan ere. Erakunde Sindikalak, mugimenduaren eragina arras txikiagotu nahian, ez zituen dimisioak onartu nahi izan eta kargua utzitako ordekarari sindikalei dimisio haiek bakarka berrestea exijitu zien hauek ontzat emateko baldintza bezala. Honekin, ekintzari dimensio kolektiboa kendu nahi zitzaion. Baina 1970eko urtarrilaren 20an, dimisioa eman zuten ehun ta hogeita hamabi ordezkari sindikalen ohar bat argitaratu zen prentsan, non euren erabakia berrestez aparte, Erakunde Sindikalak exijitu egiten zuenaren aurrean, bakarka erantzuten ez zuen ordezkari orok kargua uzten zuela haintzat hartzea eskatzen zuten, estrategiari berriz ere hautu kolektiboaren itxura emanaz. Sindikatu ofiziala alboratzeak, langileen aldarrikapenak, borrokak eta protestak bideratzeko bestelako plataformen gorpuztea ekarri zuen berekin. Fabriketako lider eta ordezkari berriak, langileek berek asanbladetan aukeratutakoak ziren eta hauek zuzendaritzaren solaskide gisara ezagutuak izatea izango zen martxan jarriko zen estrategia berria. Asanbladetatik irtendako lider hauetariko asko langile komisiotako militanteak ziren. Dimisioen kanpainak, hartara, CCOOen sendotzea ahalbidetu zuen arrakasta izan zuen fabriketan.

Langile mugimenduaren baitan dimisioen strategiaren inguruan gertatu zen bereizketatik, ondorio interesgarrian ateratzen ahal ditugu. Hasteko, hausturak 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, planteamendu berriekin zetorren langile militante belaunaldi eta lidergo berri bat bazegoela aipatzen ahal da. Orokorrean, lan merkaturako sarbidea 60. hamarkadaren erdialdetik aurrera izan zuten gazteak ziren, fabriketako CCOOen sustatzaile izandakoak edota momentu haietan berauetan elementurik aktiboak zirenak. Haietzat, Erakunde Sindikalean parte hartzeko estrategiak emaitza onak izan zituen, are langile mugimenduaren antolaketarako funtsezkoa izan zen, baina langile klasearen askapen prozesuan urrats taktiko bat baino ez zela uste zuten eta Nafarroan behintzat, momentu hartan, taktika haren etapa jada amaitua zegoela uste zuten<sup>1164</sup>. Analisi honek zerikusirik izan zuen aipatu langile lider berri hauek, aurreko kapituluan ikusi dugun bezala, ezker iraultzailearen talde politikoetako kideak zirelarenkin. Nafarroako langile mugimenduaren parte honen strategiaren aldaketan beraz, Nafarroako CCOOen baitan ezker iraultzailearen alderdiek izan zuten nagusigoak zuzeneko eragina izan zuen. Izan ere, hauek jada ez zituzten ordura arte CCOOen betekizunaz eta Sindikatu Bertikalarekiko izan behar zuen harremanaz nagusi izandako ikusmoldeak ontzat ematen<sup>1165</sup>.

Funtsean, langile mugimenduak egitura sindikaletan lortzen ahal zuen guztia jada lortu zutela eta orain, aurrera egiteko, urrats berri bat eman behar zuela uste zuten. Nolabait, estrategia “entristak” Iruñerrian izan zuen arrakasta goiztiarrari esker langile mugimendua sindikatu desberdinetako sail sozialetan eta Langile Kontseiluan egonkortuta egoteak, langile militante gazteengan, mugimendua horrekin konformatu eta ez aurrera ez atzera egongo zuen egoera batean geldituko zelako kezka eragiten zuen. Izan ere, bide ofizialen erabilpenak, Erakunde Sindikalak legezkotzen zituen ekintzarako forma burokratikoak sortzen zituen eta horregatik, egituren baitako presentzia eta ekintza jarraituak, langile militanteak sistemaren kolaboratzaile aktibo bilakatzen ahal zituen eta langileen antolakuntza formak sistemari integratzen ahal

<sup>1164</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 75 orr.

<sup>1165</sup> Ikusi talde hauen, bereziki nafar CCOOetan nagusi zen ORTaren, CCOOi eta Sindikatu Bertikalaren erabilerrari buruzko ikuspegiak, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 97-104 orr.

zituen. Sindikatu Bertikaletik ateratzea, langile mugimenduaren bilakaerak aurrera egiteko beharrezkotzat jotzen zen.

Aztertzen ari garen langile mugimenduaren bereizketa honek bestelako eztabaidagai garrantzitsu bat mahaigaineratu zuen: langileen ordezkariaren. Zeintzuk ziren langileen egiazko ordezkariak enpresetan? Legezko karguak betetzen zituztenak edota militante klandestinoak? Eztabaidak honek egitura sindikaletan egotearen aldekoak eta dimisioen aldekoak berriz ere aurrez-aurre jarriko zituen, langile ordezkariaren aurrea izateko lehia piztuz. Sindikatu Bertikala uztearen alde zeudenentzat, karguak ez ziren langileen egiazko ordezkariak edo bozeramaileak, enpresarekin negoziatzerakoan lankideak ordeztzen zituzten figura hutsak baizik. Karguen agintaldien iraupena oso luzea zen eta berauetatik ezin ziren langileen asanbladak deitu. Baldintza haietan langileen egiazko ordezkari bat gauzatu ezin zela salatzen zuten. Egitura sindikalen baitan jarraitzearen aldekoak euren aldetik, karguetatik, langileen interesen defentsan eta lan baldintzen hobekuntzan oinarritzen zen langile ordezkariaren eraginkorra egiten ahal zen zela erakusten saiatzen ziren. Aurreko kapituluan ikusi dugun Nafarroako Langile Kontseiluaren langileen aldeko eta Erakunde Sindikalaren lerro politikoaren aurkako jarrera, hain justu, lehia honen kontestuan kokatu beharko genuke. Victor Manuel Arbeloa Tomás Caballeroren biografian interpretatzen duenez, Sindikatuen Probintzia Ordezkaria gaiztesteko erabakia, Super Ser edo Chalmetako grebetan negoziazioa sustatuz izan zuen parte hartzea, erregimenak aplikatutako soldaten mugen kontra protesta egitea edota berrogeita lau lanorduko astea eskatzea, kontseiluak berak diseinatutako estrategia izan zen, langile asko CCOOengana gerturatzen ari ziren momentu batean, egitura sindikaletatik egiten zen lana oso eraginkorra izaten ahal zela ikusarazteko<sup>1166</sup>. Ordezkariaren sindikalarengatik Iruñerriko langile mugimenduaren “bi parteen” arteko borroka bat zen nolabait, non iritzi eta metodoak kontrajartzen ziren arren, biek, bide desberdinetatik, langile klasearen aldeko helburu orokorrak erdiestea eta sindikalgintza bertikalaren kontra egitea bilatzen zuten. Gure subjektuetariko batek, J.Z.-k, oso ongi deskribatzen du momentu honetan Iruñerriko langile mugimendua agertzen zuen dualtasun hura:

Nafar langile mugimenduaren baitan, ordezkariaren dagokionean, bereziki lan gatazka handiak gertatzen direnean, euren artean nolabait norgehiagoka aritzen diren bi elementu agertzen dira. Alde batetik, egitura legala dago, Bertikalaren egitura dena... [adibidez] ordurako jada Langile kontseiluak badu pisua, nolabaiteko pisu politiko bat. Bestetik legez kanpoko egitura dago, klandestinoak, CCOO, ezta? Orduan zenbait gatazketan ba gertatzen da hori, bien arteko norgehiagoka... edo batzuetan elkarlana ere, ezta? Orduan Tomás Caballerok Langile Kontseiluko lehendakari gisara zenbait negoziazio prozesutan parte hartzen du, ba egitura klandestinoak ere gatazken [garapenean] parte hartzen duen bitartean. Gero, 75eko kontseiluan, dualtasun hori ya amaituko da, nahiz eta [partearen arteko] eztabaidak eta desberdintasunak agerikoak izaten jarraitu. [J.Z.. CCOOeko militantea. Azken Langile Kontseiluko kidea]

Langile mugimenduaren baitan ematen ari zen bereizketa hau 1971ko hauteskunde sindikaletan agerian geratu zen berriz ere. Urte horretan bertan lege sindikal berria aldarrikatzen zen azkenean eta honek, deialdi hartan boikotaren strategiarengatik hautua egiten zutenei, kanpaina egiteko aukera ezin hobea ematen zien, hauteskundeetan parte hartzea, langileen aurka egiten zuen lege berriari oniritzia ematea bezala zela planteatzen ahal zutelako. 60. hamarkadan zehar izan ziren hauteskunde sindikaletarako deialdiak CCOO mugimendua gorpuzteko balio izan bazuten, 1971an gertatutakoa oso bestelakoa izan zen. Oraingoan langile indarrak bereiztuta eta are kontrajarrita aurkeztu ziren deialdira. Estatu mailan, bereizketa CCOOen baitan bertan ikusi ahal izan zen. Alderdi komunistak sindikalgintza

---

<sup>1166</sup> Victor Manuel Arbeloa, *Vida y asesinato...* Op. Cit., 132 orr.



bertikalean parte hartzeko eta honen baitan ordezkarietarako karguak lortzeko estrategiarekin jarraitu zuen bitartean, mugimenduak parte hartzen zuten bestelako talde ezkertiarrek, boikota egitera deitu zuten. Nafarroan ordea, ez zen CCOOen baitako bereizketarik egon, ezker iraultzailearen taldeak nagusi izaterakoan, boikotaren aldeko kontsignak nagusitu zirelako. Dimisioekin gertatu bezala, nafar langile mugimenduaren banaketa, egitura sindikaletan oposizioa egiten ari zirenen eta CCOOen artean gertatu zen. Zentzu honetan, boikotak hemen izan zuen arrakasta erlatiboak, CCOOen presentzia jada oso kontutan hartzekoa zela adieraziko luke.

Nafarroako CCOOek hautagaiak ez aurkeztea, bozka ez ematea eta fabriketan komisiok eratztea edota jada funtzionatzen zutenak indartzea eskatzen zuten. Kanpainaren prestakuntzak hutsuneak izan zituen arren (kontsignak fabrika bakoitzaren egoera kontutan hartu gabe aplikatzea edota CCOO indartzeko helburu orokorra behar bezala ez nabarmentzea), boikotak arrakasta izan zuen Nafarroan. Hainbat datuk berresten dute baieztapen hau: Potasas, Eaton, Super Ser, Imenasa, Perfil en Frío eta Torfinasa bezalako fabrika handi eta garrantzitsuetan, emandako bozken portzentajeak ez zuten %50a gainditu, Super Serren esaterako, %6ra iritsi baino ez zelarik; boto baliogabe asko egon zen, adibidez Potasasen, non %40ak bozka eman bazuen ere, ez zen baliodun bozken portzentajerik erregistratu<sup>1167</sup>; zenbait fabriketan ere ez zen hautagairik egon. Hala ere, zenbait fabriketan, ordura arte militante konprometituak izandako langileei bozka eman zitzairen eta beste zenbaitetan, Mina, Authi eta Onenan esaterako, parte hartzea eta bozka kopurua nabarmena izan zen. Zentzu honetan, boikota arrakastatsutzat jotzen ahal dugun arren, parte hartzea garrantzitsua izaten jarraitu zuen, %75ekoa<sup>1168</sup>. Egia esan, kanpainak ez zuen boikotaren aldeko mobilizazio orokor eta aktiborik ekarri berekin eta haren emaitzak ez ziren erabatean ikusgarriak izan (borroka eta antolakuntza eskarmentu handia zuten fabriketan izan ezik), baina hauteskundeetan parte ez hartzeak Erakunde Sindikalaren langileen arteko ospearen galeran lagundu zuen eta lege sindikal berria kritikatzeko balio izan zuen, boikota langile oposizioa azaltzeko eta egiteko tresna bilakatuz.

#### 7.1.4 Lan gatazkak marko honetan

70. hamarkadaren hasieran, 1969tik abian ziren kargu sindikalen dimisioek eta Nafarroako CCOOek 1971an bultzatu zuen hauteskunde sindikalekiko boikotak, hitzarmen kolektiboen negoziazioak zaildu zituzten, legezko ordezkariak gabe, langileen eta enpresetako zuzendaritzen arteko elkarrizketa errealik ez zegoelako. Negoziatzerakoan langileek berek asanbladan aukeratutako ordezkariak solaskide gisara onartuak ez izatea, hartara, urte haietako lan gatazka askoren sorburu izan zen. Izan ere, berauetan, langileak, asanbladan adostutako aldarrikapen plataformak aldarrikatzen hastetik, eurak aukeratutako ordezkariak negoziazioetan parte hartzeko onartuak izatea eskatzera igarotzen ziren maiz. Langileen ordezkarietza onartua izatearengatik borroka, jarraitua izan zen urte hauetan eta gatazken sorburu ekonomikoaz haratago, hauen atzean, eskubide aldarrikapen bat edota norbere izaeraren berrespen bat atzematen ahal da ere:

<sup>1167</sup> Ikusi José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., "Elecciones sindicales 1971" taula, 111 orr. Imenasan adibidez, hautesle eroldaren %23ak bozka eman zuen eta epaimahaia osatzen zuten hamabi kideetatik, bost baino ez ziren aukeratu; Eatonen eroldaren %22ak bozka eman zuen, soilik lau epaimahai kide aukeratu zirelarik; Super Serren ez zen epaimahai kiderik aukeratu. Aukeratutako epaimahai kideei buruzko datuak, "Carta de Amadeo Fernández Martínez a Gabriel Castro Villalba, Delegado Provincial de la Organización Sindical (09-11-1971)". AGA-AAO, Sindikatuen fonda, 34-5598. kutxa.

<sup>1168</sup> Datua, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 111 orr. Hala ere, alderaketa egiterakoan, Nafarroan eman zen parte hartzea, estatu mailako batezbesteko parte hartzea baino bederatzi puntu baxuagoa izan zela ikusten ahal da. Kanpainaren nola edo halako eragina adierazten du horrek.

azkenean, zer egin behar izan zuten enpresek? Ba jada inor ordezkutzen ez zuten ordezkari sindikal haiek alboratu eta gurekin negoziatu. Langileek negoziatu beharra zegoela esaten zuten, noski, baina komisiorekin negoziatu behar zela... grebak eta dena egin genituen komisia onartua izateko. Noski, [komisio hori] berez ez zen CCOO, komisia zen, langileek asanbladan aukeratutako komisio bat... hori bai, [langileek] nor aukeratzten zuten? ba CCOOeko militanteak, noski. Baina orduan enpresak komisio haiek CCOOekin parekatu zituen [...] eta orduan.... gauza da [komisio hartako] kide guztiak kalera bota zituela. Orduan noski, kristona sortu zen fabrikan langileak komisioren alde zeudelako, ezta? Eta azkenean berriz ere hartu behar izan zituzten. Zaila izan zen, oso zaila, baina azkenean berriz hartu zituzten.

[C.O.. CCOOeko militantea]<sup>1169</sup>

Egiantan, langileen ordezkartzaren auzia, komisioren eraketan eta fabriketan negoziatzeko solaskide bezala betetzen zuten paperean itxuratuta, mahai gainean zegoen dimisioen eta boikotaren krisia lehertu aurretik jada. Gobernuak 1967aren amaieran agindutako soldaten izozteak, negoziazio kolektiboa blokeatu egin zuen, hain justu Nafarroan azkenik hitzarmenak sinatzen hasten zirela zirudienean. Are gehiago, izozteak, sindikatuetan parte hartzearekin eta bizitza sindikala dinamizatzearekin konprometituta zeuden lider sindikalak gogogabetu zituen, euren jardura sindikalaren gauzapenean, euren burua lehenbizikoz ezinduta ikusten baitzuten. Nafarroako Erakunde Sindikalak, behin baino gehiagotan ohartarazi zuen Nafarroan benetan kezkatzekoa zela hitzarmen kolektiboen urritasuna. 1970ko apirilean berrehun ta berrogeita hamar langile baino gehiagoko hamar bat enpresek baino ez zuen hitzarmen ofizialik eta haietariko bat bera ere ez zen metalaren sektorekoa. Erakunde Sindikalak 1971ko urrian burutu zuen aipatu txostenean, sinatutako hitzarmenen kopuru txiki hau, langile eta enpresariak bide ofizialetatik kanpo hitzarmen pribatuak egiten zituztelaren adierazle zela aipatzen da. Hitzarmen kolektiborik ez egoteak, nolabait, negoziaketa informalak sustatu zituen eta plataforma klandestinoen jarduna mesedetu zuen, gatazka egoeren kudeaketa eta langileen aldarrikapen zein lorpenen erritmoa (bereziki soldata maila igotzearena) Sindikalgintza ofizialaren kontrolpetik at utziz. Dimisioek eta hauek ordezkartzita sindikal ofizialean sortu zituzten hutsuneak, egoera hau larriagotu baino ez zuten egin. Dimisioak egon ziren fabrika garrantzitsu guztietan langile komisiok sortu ziren eta hauek, euren presentzia indartzearen eta langileen sostengua bereganatzearen, aldarrikapen ekonomikoak erdiesteko "erasoaldi" bat martxan jarri zuten. Aldarrikapen mugimendu honek, lan gatazka garrantzitsuak eragin zituen, berauetan, soldaten inguruko aldarrikapenak, langile ordezkartasunaren inguruko aldarrikapenekin nahastu egingo zirelarik.

Kontestu honetan, komisiok, indartsu egiteko aukera ezin hobea izan zuten. Izan ere, enpresari askok haiekin negoziatzea onartzen zuen, lanuzte egoeran ematen ziren negoziaketen ostean, langileek eskatutakoa ematen zitzaielarik. Honek lan gatazketan protagonista izateko gaitasuna eman zien, bereziki 1969tik aurrera, kargu sindikalen dimisioak gertatu zirenean. Aldi honetako gatazkek zentzu honetan antzekotasun nabariak azaltzen dituzten arren, hasieran, bilakaeran eta amaieran desberdintasunak agertzen dituzte. Hainbat faktorek, fabrika bakoitzean komisiok zuen indarra eta enpresak harekiko hartzen zuen jarrera edota gatazkek iraun bitartean sindikalgintza ofizialak izan zuen esku hartze maila kasu, hauen garapena nola edo hala baldintzatu egin zuen. Honela, enpresak komisiorekin negoziatu zuten eta langileek, errepresiozko kosturik gabe, euren eskakizunak lortu zituzten gatazkek izan ziren; enpresak komisiorekin negoziatzeari ezetza eman eta gatazka desblokeatzeko langileak bide ofizialetik ordezkari sindikalak hautatzera eta hitzarmen kolektiboa sinatzera behartu zituen gatazkek izan ziren; eta Erakunde Sindikalaren esku hartzeak enpresa, errepresalia judizialak abiatzearen mehatxu pean, legez

<sup>1169</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Aísa, 2013-09-10.

kanpoko ordezkarietako negoziatioak ez onartzera eta hauen eskakizunak ez onartzera behartu zituen gatazkak izan ziren.

Eaton Ibérica 1969an lege sindikal berriaren aurreproiektua aurkeztu zenetik zegoen ordezkari sindikal eta enpresa epaimahai kiderik gabe. Zuzendaritza, langileen aldarrikapenak eta eskakizunak helaraziko zizkion solaskide bat behar zuela jakinda eta langileek epaimahai berri bat aukeratu nahi ez zutela kontutan hartuta, asanbladak ordezkari libreak hautatzea onartu zuen eta aukeratutako langileei berarekin hileroko bilerak izateko ahalmena eman zien. Beraz fabrian, Sindikatu Bertikalaz kanpo funtzionatzen zuen ordezkari sindikal moduko bat jarduten zuen, enpresak onartuta. Langileen lanuzteak, negoziatio prozesuetan, langileen eskakizunak erdiestearren abiatzen ziren dinamikak izan ohi zen. 1971an, euren aldarrikapenak planteatzeko langileek berriz ere lanuzte bat egin zutenean, enpresak lanean berriz sartzea jarri zuen negoziaketara hasteko baldintza bezala. Langileek bere horretan jarraitzen zuten, lauhun ta laugoreita hamabosti euren kaleratzeak jakinarazteko gutunak bidali zizkien. Berrogeita zazpi egun iraungo zuen grebaren hasiera izan zen. Bilerak eta asanbladak burutu ziren, beste enpresetako langileek elkartasun lanuzteak egin zituzten eta Langile Kontseiluak bitartekaritza lanak egiteko bere burua eskaini zuen. Azkenean enpresak, komisiorekin honek planteatutako baldintzetan negoziatzea onartu zuen eta elkarrizketetan, langileak asebate zituen konponbide bat hitzartu zen. Ildo berean, Industrias Esteban fabrikaren grebaren bitartean, langileek aukeratutako komisiorekin bat eratu zen zuzendaritzarekin negoziatzeko eta kasu honetan, hitzartutako konponbidea langileen aldekoa izan zen ere.

1970ean gertatu zen Authiren gatazka bestelakoa izan zen. Langileek lehenbiziko lanuzte bat egin zuten txapa sailean pairatu behar zuten gehiegizko zaratarengatik eta oinarritzko baldintza batzuk xedatu zituzten berriz lanean hasteko. Negoziatzeko parte hartzeko ordezkari bat hautatu zen, asanbladak fabrikaren bertan egin ziren (indar erakustaldi garrantzitsua eginez) eta negoziaketara eramateko euren aldarrikapenak jasotzen zituen plataforma bat osatu zen langile guztien artean. Kasu honetan langileek gatazka Eatoneko langileen antzera planteatu zuten arren, enpresaren jarrera desberdina izan zen. Langileek hautatutako ordezkariak kaleratu zituen eta lehenik eta behin langileak lanera itzultzea eta normaltasuna berrezartzea eta bigarrenik epaimahaia osatzea jarri zuen negoziatzeko baldintza bezala. Enpresaren jarrera hartzea aldaezina zela ikusita, komisioren aldeko langileen batasuna hautsi egin zen eta hauteskunde sindikalak egin ziren gatazka bide sindikal ofizialetatik bideratzeko<sup>1170</sup>.

1971ko Potasaseko grebak, oso ongi itxuratzen du marko honetan gertatu ziren gatazken dinamika orokorra eta atal honetan deskribatzen ari garen Iruñerriko langile mugimenduaren egoera<sup>1171</sup>. Greba haren aurrekariak, kargu sindikalen dimisioekin eta komisioren sorrerarekin enpresan sortu zen giroan kokatzen ahal ditugu. 1970eko urtarrilean langile komisiorekin bat sortu zen, bide sindikal ofizialetatik kanpo, enpresarekin hileko zortziehun pezetako soldataren goititza hitzartzerik izan zuena. Enpresak

---

<sup>1170</sup>1970eko martxoaren 10aren eta 18aren artean grebaren nondik norakoei buruz eman zen informazioak, greba talde txiki batek lan arrazoiengatik baino, interes politikoengatik sustatutakoa zela iradokitzeaz beste, enpresak hartu zuen ez negoziatzeko jarrera nabarmentzen zen. Adibidez, "Se cierra la factoría de Authi tres días. 15 despedidos y la empresa pide como requisito indispensable para el diálogo que se vuelva a trabajar", DN, 1970-03-12, 24 orr. edota "Ayer no hubo diálogo en la empresa Authi pese a las gestiones realizadas por los enlaces sindicales y por la Vicesecretaría de Ordenación Social. Dice la empresa: 'para tener un diálogo es requisito indispensable que se trabaje normalmente en la factoría'", DN, 1970-03-14, 24 orr.

<sup>1171</sup> Potasaseko greba honi buruzko informazioa, "Informe conflicto colectivo de Potasas de Navarra SA". AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

harekin negoziatzea onartzean eta bereziki langileen eskaerak erdiestean izan zuen arrakastak, prestigioa eman zion eta oso indartsua egin zen. Erakunde Sindikalaren iritziz, komisioren arrakasta hura, enpresaren erantzukizuna izan zen eta esplizituki, enpresako Sail Soziala jotzen zuen Potasasen sortua zen egoeraren erantzuletzat. Izan ere, harek zuzenean *“oposizio sindikalaren talde guztiak adoratzen eta aholkatzen”* zituen eta *“langile komisioren funtsezko sostengua”* zen<sup>1172</sup>. Urteak aurrera egin ahala, enpresak zuzendaritzaren komisiorekiko bere jarrera aldatu zuen, 1971ko greba piztuko zuena, aldaketa hori izango zelarik.

1970 urtearen bitartean, enpresa zuzendaritzak komisiorekiko elkarrizketak eten egin zituen. Legezko ordezkari sindikalik gabe eta enpresak onartzen ez zuen komisiorekin, Potasaseko langile mugimenduak, nafar langile mugimenduak orokorrean pairatzen zuen bereizketa berbera bizi zuen. Urte horretan bertan, kargu sindikalean mantentzearen aldeko sindikalistek, langile kontseiluaren sostenguarekin eta langile komisioren aurka, hainbat eskaera eta aldarrikapen arrakastaz planteatu zituzten, bide sindikal ofizialen eraginkortasuna agerian utziz. 1971ko martxoan, komisiorekin, aurreko urtean zortziehun pezetako soldataren goititza negoziatu zenean hobetzeke geratu ziren lan baldintzen inguruko eskakizunak planteatu zituen, baina oraingoan, enpresak legez kanpoko ordezkariarekin negoziatzeari ezetz esan eta soilik ordezkari sindikalekin edo epaimahai kideekin mintzatuko zela jakinarazi zuen. Greba hasi zen orduan, P.A.S. Potasaseko langileak gogoratzen duenez, egiazkotzat jotzen zuten langile ordezkariarekin negoziaketetan onartua izateko: *“Lehenbiziko urteetan, adibidez hamaiketakoaren orduan taldeka hitz egiten genituen gauzak, aldarrikapenak, ba, enpresa epaimahai kideek bideratuak izan behar ziren haien bitartez enpresa zuzendaritzarengana iristeko. Gero ya, 1970tik aurrera bereziki, ba, epaimahaien eta halako kargu sindikalen ordezkariak, [gure bitartekariak] asanbladetan, bozkaren bidez, aukeratuak izandako ordezkariak izatea nahi izan genuen. Gure kasuan, helburu horrek, gatazka gogor bat sortu zuen 1971an”*

Greba gogorra izan zen. Enpresa itxi egin zen, langileak biltzeko eta asanbladak egiteko esparrurik gabe geratu ziren, zigorrak izan ziren eta are herrixkako dendetan “zorretan” saltzea debekatu zen. Ia komisiorekin osoa kaleratua izan zen eta zenbait langile ere atxilotuak eta auzipetuak izan ziren. P.A.S.-en testigantzarekin jarraituz, *“Azkenean [greba], porrota izan zen guretzat, baina ikaragarri ikasi genuen porrot horretatik. Noski, lehenbiziko borroketan gogoak eta ilusioak indarra ematen zigun [...] baina es que ezin zuten egiazko langile ordezkariarekin bat, zuzenean asanbladan langile bozketatik eratorritakoa, onartu... sistemaren kontra egiten zuen... Orduan noski, kaleratzeak eta oso errepresio gogorra ekarri zituen berekin...”*. Errepresioak, nekeak, enpresaren jarrera aldaezinak eta sindikalgintza ofizialak lan gatazkan langileen aldarrikapenak bideratzeko ematen zuen aukerak, langileen batasuna hautsi egin zuten eta azkenean, negoziaketak bide ofizialeetatik eraman eta langileak berriz hasi ziren lanean sartzen, nahiz eta langile kaleratuak egon. 1971ko grebaren amaiera kaltegarria izan zen komisiorentzat eta Potasaseko langile

<sup>1172</sup> Zehazki, departamentuaren zuzendaria, Enrique Cerdán, figura seinalatzen zen: “Enrique Cerdán Jaunak [...] karguen dimisioa gomendatzen du eta Lege Sindikalaren proiektua Elizaren doktrina sozialaren eta Giza Eskubideen kontraketatzat jotzen du. Jarrera hartze hau, ez du alor pertsonalera mugatzen, publikoki ere azaltzen du, formakuntza ikastaroetan eta hitzaldietan zentzu honetan mintzatzen delarik [...] futbol jokalaria izan da, Sindikatuen Nafarroako probintzia idazkaritzan abokatu bezala ibili da, kristandade ikastaroen zuzendari izan da eta [...] elizaren mugimendu sozialetan parte hartu du aktiboki. Berriz esango dugu, gizon honek, bere enpresan, oposizio sindikalaren talde guztiak laguntzen ditu; are enpresak kanpo ere, CCOO delakoi aholku eman die [...]. “Informe para el Excmo. Ministro Delegado Nacional de Sindicatos. Asunto: Potasas de Navarra”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoak, 6549. kutxa. Are gehiago, txostenak, departamentu sozialak “Potasas de Navarra SA enpresan oposizioko sindikatu bat sortzen saiatu dela eta hein batean lortu duela” salatzen zuen.

mugimenduari estrategia aldatzea baino ez zitzaion geratu batasuna berreskuratzeko<sup>1173</sup>.

Erakunde Sindikalak, langile komisioren jarduera indargabetzeko, kargu sindikalei prestigioa emateko taktika saiatu zuen gatazka honetan. Horretarako, euren eraginkortasuna ikusarazi zuen. Enpresa epaimahaia berrosatuta, honek erabateko protagonismoa eskuratu behar zuen enpresaren baitako lan harremanetan, horretarako negoziaketetan parte hartu eta eskakizun ekonomiko guztiak hala nola langileen artean zigorturik ez izatea lortu behar zuelarik. Esate baterako, komisioren alde zeuden langileak bereganatzeko, epaimahaiak kaleratutako ahalik eta langile gehien berriz onartuak izatea lortu behar zuen eta Erakunde Sindikalak are berriz onartuak izan beharreko langile horiek zeintzuk izan behar ziren iradokitzen iristen zen, seinalatutako militanteak Erakunde Sindikalaren egituren baitako jarduera sindikalerako “berreskuratzea” posible zela estimatzen baitzuten<sup>1174</sup>.

Beste modu batean izan bazen ere, Erakunde Sindikalaren esku hartzea erabakigarria izan zen baita Imenasa eta Super Serreko gatazketan ere. Imenasa, gatazka tradizioa zuen Iruñerriko fabrika garrantzitsu bat zen. 1968an, soldaten izoztearengatik hitzarmen kolektiboa berritzerik ez zegoelako, gatazka garrantzitsu bat sortu zen. Zenbait langile kaleratuak izan ziren, haien artean enpresa epaimahaiko kide ziren batzuk. Honekin, militanteak euren karguetan babesik gabe zeudela eta errepresioaren jomugan kokatzen zirela salatzen zutenen tesia berretsi egiten zen. 1969ean, dimisioen kanpaina abian jarri zenean, langile komisioko bat eratu zen. Honek, soldataren goititze bat lortzeko lehenbiziko mobilizazio bat sustatu zuen eta enpresak, Erakunde sindikalari haren berririk eman gabe, berarekin “hitzarmen kolektibo pribatu” bat egin zuen. Akordioak, aipatu goititzeaz beste, 1971ko uztailean, bizitza kostuaren araberako soldaten berrikuspena aurreikusten zuen, honek %6aren areagotzea gaituz gero, berrikuspenaren zenbatekoa adosteko bi parteen arteko negoziazioa aurreikusten zelarik. Zentzu honetan, Imenasan dimisioen estrategiak arrakasta izan zuela esan daiteke, enpresak legez kanpoko komisioko bat solaskide bezala onartu zuelako eta berarekin legez kanpoko akordio batetara iritsi zelako.

1971an berrogeita bost egun iraungo zuen greba, aipatu soldata berrikuspenarengatik piztu zen<sup>1175</sup>, langileek hitzarmen pribatuak xedatutako bizitza kostuaren areagotzearen araberako goititzea eskatu zuten bitartean, enpresak, %6tik gorako areagotzea izan ez zela argudiatuta, ezetza eman zienean. Adostasun faltaren aurrean eta langileak presiorako neurri bezala gauzatzen ari ziren lanuzteen aurrean, enpresak jarrera aldatu eta ordutik aurrera, negoziatzen jarraitzeko, epaimahai ofizial bat eratu behar zela iragarri zuen. Langileek ordea, asanbladan, legezko egituretatik at jarraitzea erabaki zuten eta legez kanpoko langile ordezkari bat aukeratu zuten soldataren goititzearen aldarrikapena lortzeko. Aipatu lanuzteen presio pean, enpresak azkenean komisioko solaskide bezala onartu zuen, lanuzteak eten eta negoziaketari ekin ahal izateko. Alta, langileek ez zuten enpresak eskainitakoa (soldaten goititzea

---

<sup>1173</sup> Potasaseko langile komisiok, urteak geroago, panfleto batean, greba honen ondorengo irakurketa egiten zuen: “[grebaren ostean], zuzendaritzari aurre egiteko, epaimahai kideak eta gu, batzuen eta besteon aldeko langileak, aurrez aurre ezin ginela gehiago jarri erabaki genuen”. Modu honetan, hurrengo urtean sortu zen lan gatazka batean, euren aldarrikapenak enpresari aurkezteko, langileek epaimahaiaren bidea hobetsi zuten eta komisiok, erabakia bere gain hartu zuen. “Boicot al Sindicato Vertical” panfletoa. AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 804 Jaq.

<sup>1174</sup> “Informe conflicto colectivo de Potasas de Navarra SA”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>1175</sup> Imenasako greba honi buruzko informazioa, “Carta de Jesus Echarte, Director General de Imenasa al Delegado Provincial de Trabajo de Navarra (13-09-1971)”. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

hurrengo urteko soldaten aurrerapenak erabilia egitea) onartu eta negoziaketa blokeatu zen. Orduan eman zitzaion hasiera mugarik gabeko grebari, langileek are fabrika okupatu egin zutelarik.

Gatazka, enpresak hogeit hamar bat langile kaleratu zituztenean, honen ondoren hauek grebarekin tinko jarraitu zutenean eta imenasarekin elkartzeko lanuzte eta manifestazioak biderkatzen hasi zirenean korapilatu zen. Momentu horretan, lehenbiziko aldiz, enpresak Erakunde Sindikalaren bitartekaritza eskatu zuen. Metalaren Sindikatuaren sail sozialeko lehendakaria eta lehendakariordea, enpresaren eta langileen arteko bitartekari izateko aurkeztu zuten euren burua. Bitartekaritza honen emaitza, soldatak goititzeko enpresaren eskaintza berri bat izan zen, baina langileek arbuiatu egin zuten berriz ere. Metalaren lehendakariaren eta lehendakariordearen esku hartze berri batek, langileak azkenik proposamena onartzera eramanean zituen, baina kaleratutakoak berriz hartuko zirelako baldintzarekin. Baina ordurako jada, enpresa, komisiorekin negoziatuko ez zuelako eta kaleratutakoak berriz ere onartuko ez zituelako jarreran indartsu egin zen. Potasasen gertatu bezala, nekeak eta zuzendaritzak berriz ere komisiorekin negoziatuko ote zuelaren inguruko zalantzak, langileak bereiztu egin zituen eta legezko ordezkariak hautatu behar izan ziren hitzarmen ofizial bat gauzatzeko<sup>1176</sup>.

1972ko Super Serreko gatazkak, aurrekoen antzeko abiapuntua izan zuen. Dimisioen kontestuan eta hauteskunde sindikalei eginiko boikotaren arrakasta fabrikari oso nabarmena izan ostean, aldarrikapenak eta eskakizunak negoziatzeko langile komisiorek eratu zituzten, enpresak solaskide bezala onartzen zituelarik. Erakunde Sindikalak 1972ko gatazka aztertzerakoan ohartarazten zuenez, Super Serren, langile komisiorek, oso indartsuak omen zituzten, horrenbeste, lan harremanen dinamika bera baldintzatzera ere iristen zirela<sup>1177</sup>. Komisio hauek enpresari arazoak edota gatazkak ez sortzearen, zuzendaritzak eurekin negoziatzea onartzen zuenez, langileek, nahikoa zuten halako ordezkari bat izendatzeari enpresariengandik lorpen aski onak eskuratzeko, enpresa epaimahai bat hautatu behar izan gabe. Halako egoera batean, onartzen zuen Erakunde Sindikalak, oso zaila egiten zitzaieen kargu sindikalei langileengana gerturatzeko. Marko honetan gertatu zen 1972ko gatazka, langileek lan baldintzen hobekuntza negoziatzeko komisio bat eratu zutenean eta enpresak honekin negoziatzea onartu zutenean.

Super Serreko grebaz nabarmentzen ahal dugun elementurik interesgarriena, ordeza, Erakunde Sindikalaren esku hartzearekin izan zuen zerikusirik. Argiki, legez kanpoko ordezkariaren kontrako politika gogortzeko prest zegoela agerian utzi zuen. Sindikatuaren lerro politikoak berak, berekin jardunbide judizial bat ekartzen ez zuen presio saiakera oro eraginkorra izango ez zela estimatzen zuen. Horregatik, estrategia berri bat saiatu zuen: langile komisiorek legez kontzako elkartzeko bitartekari eta enpresa, harekin negoziatzen zuten heinean, estalgile izateagatik salatu zituzten. Modu honetan, Erakunde Sindikalak, langile komisiorek baten sorrerak suposatzen zuten legez kontrako elkartzeari delitua zigortzea eskatu zien erakunde judizialei. Erraza izango zen egitea, komisioa osatzen zuten kideak zeintzuk ziren publikoak eta jakina zelako. Era berean, enpresari, "delituzko figura" harekin negoziatzeak errepresaliak

---

<sup>1176</sup> Imenasako grebaren amaierari buruz gehiago, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 122-123 orr.

<sup>1177</sup> Super Serreko greba honi buruzko informazioa, "Carta de Gabriel Castro Villalba, Delegado Provincial de Sindicatos de Navarra, a Rodolfo Martín Villa, Secretario General de la Organización Sindical (06-10-1972)", "Información de Gabriel Castro Villalba, Delegado Provincial de Sindicatos de Navarra (23-10-1972) eta "Información de Rodolfo Martín Villa, Secretario General de la Organización Sindical al fiscal del Tribunal Supremo (04-11-1972)". AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

izango zituelako ohartarazpen formala egin zion, zuzendaritzak komisiorekiko jarrera aldatzera behartzeko helburuarekin. Politika berri honek arrakasta izan zuen, instrukzioa abian zela jakin bezain pronto, enpresa zuzendaritzak jarrera aldatu zuelako: hauteskunde sindikalak deitu zituen eta hitzarmen kolektibo ofizial bat negoziatzeko prest agertu zen.

Potasaseko eta Super Serreko gatazkek erakusten dutenez, Erakunde Sindikalak estrategia berriak martxan jarri zituen dimisioen kanpainak Nafarroan sortutako egoerari aurre egin eta langile komisiok fabrika garrantzitsuetan izan zuten indarra baliogabetzeko. Gabriel Castro Villalba Sindikatuen Probintziako Ordezkarizendatua izan zenean egin zen nabaria norabide aldaketa hau<sup>1178</sup>. Erakunde Sindikalaren helburua, bide sindikal ofizialak langile plataforma ilegalen gainetik balioztatzea zen eta horretarako, enpresariei zein langileei zuzendutako estrategiak abiatu zituen<sup>1179</sup>. Lehenbizikoei dagokienean, ikusi dugun bezala, komisioren presentzia onartzeak eurentzako izaten ahal zituen ondorio txarrak ikusarazteko, errepresalia judizialekin mehatxu egin zitzairen. Langileei dagokienean, ordezkari sindikalari ahalik eta prestigio gehien ematea izan zen helburua. Horretarako, karguak langileen interesak defendatzeko eraginkorrek zirela erakutsi behar zen, hitzarmen kolektiboak lan baldintzen negoziaketetarako formula bezala sustatuz, gatazketan ordezkari sindikalen zuzeneko esku hartzea ahalbidetuz eta langile komisioren negoziaketetarako sarbidea blokeatuz. 1970 urtearen erdialdetik aurrera, politika berriak emaitza onak ematen zituela zirudien: Langile Kontseiluak azkenik lege sindikal berria onartzen zuen, nahiz eta zenbait erreparorekin egin; hitzarmen kolektibo gehiago sinatzen zen (hamabi inguru ordutik aurrera eta 1971 bitartean); eta ordezkari sindikalik gabeko enpresak bost baino ez ziren. Kargu sindikalak balioztatzekeo estrategiak arrakasta izateko, ordea, Bertikalean parte hartzea erabakitzen zuten langile militanteen lana errespetatu beharra zegoen, ez haiei eta ezta haiengan konfiantza zuten langileei ere huts egin behar ez zitzaielarik. Horrek, *“1969ko dimisioen kanpainaren antzeko jokabideak hartzeraz”* eramaten ahal zituen egoerak saihestuz, beharrezkoa izango zenean, karguen lana egiazki eraginkorra izan behar zela suposatzen zuen, horretarako *“zenbait heterodoxia onartu”* behar baziren ere<sup>1180</sup>. Erakunde Sindikala, hartara, oreka zail bat mantentzeko beharrezko zegoen, izan ere, komisiok indargabetzeko, ordezkari sindikala indartu behar zuen; baina ordezkari sindikala indartzeak, askotan, oposiziorako mekanismoak indartzeko aukera ekartzen zuen berekin. Langile Kontseilua izan zen honen adibiderik adierazgarriena.

Hausnarketarako ildo bat zabaltzen, Erakunde Sindikalak hartu behar izan zuen estrategia berria ikusita, ez da zentzugabea, Potasaseko langile komisiok 1971ko grebaren irakurketa autokritikoa egiterakoan egin zuen bezala, Nafarroan Sindikatu Bertikalaren aurka egin zen oposizio trinkoak, hemengo egitura sindikalen baitan beste inongoetan baino gauza gehiago lortzeko aukerak izatean lagundu ez ote zuen planteatzea<sup>1181</sup>.

---

<sup>1178</sup> Gabriel Castro Villalbare izendapena Authiko greba amaitu eta berehala geratu zen. “Toma de posesión de don Gabriel Castro como Delegado Provincial de Sindicatos en Navarra”, DN 1970-04-08, 24 orr.

<sup>1179</sup> 1971ko urriko “Informe político social de Navarra y sus antecedentes” txostena. AGA-AAO, Sindikatuen fondoa, 6549. kutxa.

<sup>1180</sup> *Ibid.*

<sup>1181</sup> “[...] nahiz eta gaur egun, Nafarroan, haren kontra egindako borrokaren ondorioz, beste tokietan baino gauza gehiago lortzen ahal diren arren [Sindikatu Bertikalaren baitan]; hau laster konturatuko da erabiltzen dugulaz eta langileei bere benetako misioa zein den, borrokak galarazi eta zapaltzea, erakutsiko die”. “Boicot al Sindicato Vertical” panfletoa. AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 804 Jaq.

### 7.1.5 Langile mugimenduaren etapa honen amaiera

Aipatu politika sindikalaren norabide aldaketak, Iruñerriko langile mugimenduaren etapa labur baina oso bizi baten amaiera iragarri zuen. Bitarte horretan, komisioren jarduerak eta indarrak erakusten dutenez, langile mugimenduak, honen parte oso garrantzitsu batek behintzat, protagonismoa bereganatu zuen, marko sindikala eta lan harremanen dinamika eraldatzen saiatu zen (eta zenbait momentutan lortu ere) eta lan baldintzak hobetzeko, langileak defendatzeko eta gauzak aldatzeko gaitasuna bazuela sinestu zuen. Ez zuen, ordea, garaipen handirik lortu. Izan ere, politika sindikalaren gogortzearekin batera, enpresariak zein erregimenak euren jarrera hartzeak gogortu zituzten: lehenbizikoek, hitzarmenak negoziatzerakoan edota antolakuntza modu ez legalekin tratatzerakoan intrantsigente agertuz; bigarrenak, lider sindikalen eta komisiotako militanteen kontrako errepresioa areagotuz. Honela, 1971an bertan, fabriketako langile komisiok burugabetu zituen atxiloteta uholde garrantzitsua egon zen Nafarroan<sup>1182</sup>. Sindikatu Bertikalaz kanpoko langile ordezkariak sortzeko saiakeran espero zena baino gehiago tratatu ondoren, langileen indarrak agortu zituzten lan gatazka gogorren ondoren eta zigorrek, kaleratzeak eta atxilotetek Iruñerriko langile mugimenduaren nukleo antolatu oso garrantzitsuak desegin ondoren, langile mobilizazioak eta lan gatazkek atzeraldi nabari batean murgildu ziren. Ez zen 1973ra arte berreskuratuko. Orduan, erabatean indarberrituta agertzen zen Nafarroako CCOOek, langile mugimendua eta langile borroka, bere momenturik gorenera eraman zituen<sup>1183</sup>.

---

<sup>1182</sup> 1971ko udaberrian, sarekada batean, hemezortzi lagun inguru atxilotuak izan ziren. Haietariko asko, aurreko hilabeteetan greban egondako fabriketako langileak ziren. Atxilotuen artean, Eaton, Potasas, Imenasa edota Chalmeta fabriketako langileak, ikasleak, apaizgaiak zeuden. "Homilías". AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 707 Jaq.

<sup>1183</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 87 orr.



## 7.2 LANGILERIAK BORROKA EGITEN DU. LANGILE IDENTITATEAREN PRESENTZIA

Badirudi ekonomismoan zeharo oinarritutako borrokez aritzen garela soilik... baina [gure borrokak] askoz gehiago ziren... noski, lan baldintzez aritzen ginenean, ba ez zen bakarrik bi pezetetako kontua, ordutegiak ziren, gure bizitza, batak eta bestea bateratzeko aukera, askatasunak, duintasuna... gauza askoz gehiago ziren. [M.S.S.. CCOOeko militantea]

Langile gatazken azterketa, langile mugimenduaren historia ulertzeko elementu nagusizat hartu izan ohi da, langile mugimendua eta langile klasea bera, bata zein bestea definitzen dituen gatazkaren fenomeno kontutan hartu gabe existitu egingo ez zirela ere esaten delarik<sup>1184</sup>. Gatazka beraz, langile klasearen presentzia azaleratzeko une abantailatua da. Bertan, elkarren aurka jartzen diren gizatalde bakoitzak ezaugarri komunak dituela eta epe luzera berezko kultura bat eta berezko antolakuntza moldeak sortzen dituela ikusten ahal da. Langile mugimenduari dagokionean, hartara, gatazkak aztertuta, militantziak, elementu estrategiko eta ideologikoak hala nola mugimenduaren politiziorako forma berriak atzeman daitezke. Guk oraingoan ez dugu Iruñerriko langileria protagonistatzat izan zuten gatazken azterketa sakona egingo, beste arrazoi askoren artean, José Vicente Iriarte Aresok, bere momentuan, xehetasun osoz azterketa hori egin zuelako<sup>1185</sup>. Gure helburua, Iruñerrian bizi izan ziren gatazka nagusienak aztertzea izango da, berauetan klasea bera nola azaleratzen den, hau da, klasean berezko antolakuntza moduek nola funtzionatzen duten, klase jarrerak nola hartzen diren, klase ideia eta baloreak nola bizi diren eta guzti honek klase kulturak, kontzientziak, identitateaz zer esaten duen ikusteko. Egingo dugun Iruñerriko langile borrokaren mugarren azterketak, bi dimentsio hartuko ditu: lehenbizikoa, gatazka bera klasearen eraketarako esparru bezala ulertzearena, non langileetarako askok, parte hartuz, klasea eta borroka ezagutu zituen eta identitate kolektibo baten parte sentitu zen; bigarrena, klasearen eraketa prozesuaren goren puntutzat hartzearena, non berezko langile identitate baten existentzia agerikoa egiten da eta hura osatzen duten elementuak ikusgai egiten dira.

Lehenbizikoari dagokionean, gatazka, klase kontzientziaren elementuak sortu eta zabaltzen diren momentu bezala agertzen zaigu. Adibidez, gatazkak, baldintza kolektiboen hobekuntza soilik grebaren eta protestarako bestelako moduen bitartez lortzen ahal zirelako uste osoa sortu zuen langileengan, borroka euren berezko jokabideetarako batean bihurtuz: *“jendeak bere buruarengan konfiantza hartzen hasi zen, elkarrekin borrokatzen baguen gauza asko lortzeko indarra genuela ikusten zuten; ez zegoen orain nagusi den norberekoitasuna, langile klase bezalako zure indar eta gaitasunarenganako konfiantza falta [...] [Garai hartan] jendeak esaten zuten “Este método funciona, la lucha es válida”<sup>1186</sup>*. Ildo berean, horren entzutetsua ez izan arren, oso adibide adierazgarria da gatazkaren markoan funtsezko papera bete izan zuten aldarrikapen plataformek langileen elkarren arteko identifikatzean izan zuten garrantzia. Izan ere, plataformak egiterakoan, enpresako langile guztien interesak komunak zirelako kontzientzia hartzen zen eta nolabait, langileen artean adostasun soziala lortu zuen lan harremanak ulertzeko modu alternatibo bat sortu zen, soldaten

<sup>1184</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 101 orr.

<sup>1185</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit. Lan honetan, nafar langile mugimendua protagonistatzat izan zuten 1967-1977 bitarteko gatazkak xehetasun osoz aztertzen dira. Alde batetik, gatazka garrantzitsuenen jatorri, garapen eta lorpen-porroten kontakizuna egiten da; eta bestetik, gatazka kolektiboen datu kuantitatiboak bildu (gatazka kopura, gatazkatan parte hartu zuen langile kopurua, galdurako lan orduen kopurua...) eta sailkatzen dira (adibidez, sektoreka edo motibazioka)

<sup>1186</sup> I.B.-ri egindako elkarrizketa. Olaz, 2011-08-02.

bilakaera bizitza kostuaren goititzearekin lotzen zituena edota soldaten gehitze lineala eskatzen zuena<sup>1187</sup>.

Bigarrenari dagokionean, 1973 urtetik aurrera Iruñerrian biziko zen gatazka zikloa, aztertzen ari garen prozesuaren azkeneko alditzat joko dugu, gatazka hauetan, nola edo hala, langile klasearen presentzia azaleratzen baita. Aurreko atala, politika sindikalaren gogortzeak, CCOOen geldierak eta militante sindikalen kontrako jazarpenak gatazken eta langile mugimenduaren beraren atzeraldi bat eragin zutela esanez amaitzen genuen. Bata zein bestea 1973 urtera arte berreskuratuko ez zirela aurreratzen genuen ere. 1973an gatazken hazkunde ikaragarri bat bizi izan zen, ekaineko greba orokorra urte gatazkatsu hartako momenturik adierazgarriena izan zelarik. 1974ean gatazkek gora egiten jarraitu zuten, bereziki udazken hartan abiatu zen gatazka uholdearekin eta abenduaren 11an deitu zen greba orokorrarekin. 1975aren hasieran eta Potasaseko meatzarien itxialdiaren kontestuan, beste greba orokor batek, gatazkek bere punturik gorenera eramane zituen. Hau izango da jarraian egingo dugun ibilbidea.

Lan gatazkek eta zehazki lan gatazka hauek aukeratu ditugu langile identitatea trinkotuta zegoela oso ongi erakusten dutela estimatzen dugulako. Noski, bestelako gatazkek eta borrokek gertatu ziren, lan munduan eta bestelako alorretan eta hauek baino lehenago eta aldi berean. Azken batean, langileak ez ziren bakarrik fabrika langileak eta zirkuitua berrosatu dugunean ikusi dugun bezala, hauek, auzoetako bizilagunak, eliztarrak, sindikalistak eta militante politikoak ziren, eremu guzti hauetan berezko ekimenak sustatzen eta borrokek eta gatazkek abiatzen zituztelarik. Baina guk hauek aukeratu ditugu langile klasearen presentzia oso agerikoa egiten dutela uste dugulako, subjektuak klaseari berezkoak zaizkion jokamoldeak hartzerantz eramaten dituen identitate komun bat existitu egiten zela oso ikusgarria egiten delako.

### **7.2.1 Lan gatazkek frankismoaren bitartean. Eztabaida bat**

Hainbat datuk 70. hamarkadatik aurrera Nafarroan lan gatazken piztutze oso garrantzitsu bat eman zela adierazten dute. 1973an adibidez, Nafarroa laugarren probintzia gatazkatsuen izan zen, estatu osoko lan gatazken %11 bertan gertatu zelarik<sup>1188</sup>. Fernando Mendiolak, ildo horretan, beste bi datu interesgarri ematen ditu iturri desberdinetatik ateratako zenbait datu elkarrekin lotu ondoren: lehenengoa, Nafarroako greben hazkunde proportzionala, estatu mailakoaren batezbestekoaren oso gainetik egon zela; bigarrena, lan gatazken eragina hemen, greba kopuru handiagoa azaltzen zuten bestelako probintzietan baino garrantzitsuagoa izan zela<sup>1189</sup>. Gatazka, klasearen eraketaren aldi honetan protagonista egiten da nolabait.

Hazkunde kuantitatibo honekin batera, lan gatazkek, garapen kualitatibo esanguratsua agertu zuten ere urte hauetan. Hau, gatazken motibazioek izan zuten bilakaeran islatzen da, arrazoi eta aldarrikapen ekonomikoetan jatorria zuten gatazkek, elkartasunaren baloreen jatorria zuten gatazkei bide eman baitzieten. Greban zeuden beste fabrikekin elkartasunean egiten ziren lanuzteak eta are greba orokorrak hala

<sup>1187</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 135-136 orr. Ideia honek oso ongi azaltzen du nola gatazkaren markoa aukera bat da langileak bildu, euren arteko esperientzia, ideia, jomuga elkartrukea gertatu eta kontzientzia hartzeko. Esate baterako, protesta legitimatzen zuten eta ekintzari, zein gatazkari langileen onarpena ematen zien José Babianok aipatu soldaten inguruko "ekonomia morala", halako marko batean itxuratzen da.

<sup>1188</sup> Datua, Emilio Majuelo, "Movimientos sociales y..." Op. Cit., 311 orr.

<sup>1189</sup> Datuak, Fernando Mendiola, "Entre los viejos..." Op. Cit., 1. Grafikoa: "Evolución de la conflictividad (total de jornadas de huelga no trabajadas, cuantificadas en índice 100 a partir de los datos de 1971)", 217 orr. eta 2. Taula: "Porcentaje de la población asalariada que ha participado en huelgas durante 1973", 218 orr.

nola euren jarduera sindikalarengatik kaleratuak izan ziren lankideei babes adierazteko abiarazten ziren grebak, ohikoak izan ziren. Are gehiago, gatazkak oso luzeak zirenean, askotan, borrokari eusteko elkartasun eta laguntza sareak martxan jarri ziren, sektore herrikoi garrantzitsuak langileen borrokarekin inplikatzeari ere lortuz. Era berean, diktaduraren amaiera hurbil egon zitekeela begiztatzeak, gatazkek geroz eta kutsu politikoagoa izatea eragin zuen, ez bakarrik gatazka askotan aldarrikapenak jada argi eta garbi politikoak zirelako (askatasuna, demokrazia, amnistia), baizik eta gobernuak protesta eta disidentzia forma ororen kontra erabiltzen zituen neurri errepresiboek, erregimenarekiko gaitzeste sentimenduak biziagotu egin zutelako.

Guztiarekin ere, frankismoaren bitarteko langile gatazken motibazioarena, historiografian eztabaidagai izan den auzia da. Gatazkek izaera ekonomikoa ala politikoa zuten? Álvaro Soto Carmona izan da gatazkek motibazio ekonomikoak zituztela defendatzen duen ildoaren erakusle nagusia, frankismoaren bitartean gertatu ziren grebek berez jatorri ekonomikoa zutela eta soilik gero ondorio politikoak izaten ahal zituztela adieraziz<sup>1190</sup>. Bere tesiaren arabera, gatazken jatorriak, langile klase berri baten eraketarekin eta langileak euren bizitza mailaren hobekuntza bilatzera eramaten zituen garapen ekonomikorako eta sozialerako eredu kontsumista berriarekin izan zuen zerikusirik. Beraz gatazkak, erregimenak arazo politikotzat eta ordena publikoaren arazotzat jotzen zituen heinean, langileen eskutik baino, diktaduraren eskutik politizatu egiten ziren. Modu honetan, Soto Carmonak lasai asko uztartzen ahal zituen langile klasea nabarmenki ekonomizista bihurtzerakoan sistema kapitalistan integragarria egin zelako bere tesia, gatazkek erregimenarekin konfrontazio etengabearen zegoen langile klasea bat azaleratzen zutelako errealitate eztabaidaezinezekin. Eztabaidaren beste aldean, mobilizazioek egiazko eduki politikoak izan zituztela eta hauek sustatzen zituzten erakundeek borondate eta helburu politikoetan oinarrituta egiten zutela planteatzen dituzten tesiak ditugu<sup>1191</sup>. Eztabaidan, mutur batera (ekonomikora) edo bestera (politikora) jotzen da, baina bi muturretariko batek ere ezin ditu bestearen argudioak erabatean arbuatu: batzuek, grebetan eduki politikoak ikusten dituzten arren, ezin dituzte arrazoi ekonomikoak ukatu; besteek, argi dute jatorria ekonomikoa dela, nahiz eta ondorio politikoak argiak direla onartu behar duten.

Soto Carmonak, bere tesia, motibazio ekonomikoa izan zuten grebak beti motibazio politikoa izan zutenak baino gehiago izan zirela adierazten duten datuetan oinarritzen du bereziki. Datuak ordea, ez dira nahikoa frankismoaren bitartean bizi izan ziren lan gatazken izaera azaltzeko. Xavier Domènechek esaterako, Soto Carmonak erabiltzen dituen datuei, hauek zalantzan jarri gabe, hainbat ñabardura egiten dizkie<sup>1192</sup>. Hasteko, edozein datu estatistikoren erabilpenak berekin metodologia eta interpretazio arazoak ekartzen ahal dituela ohartarazten du: alde batetik, erabilitako iturrien sortzailea zein den eta honek izan ditzakeen asmoak zeintzuk diren kontutan hartu behar da; bestetik, iturri berberak erabiltzeko modu bat baino gehiago dago eta zenbakien irakurketa desberdin batek, bestelako ondorioetara eramaten ahal gaituela kontutan hartu behar da. Honetaz gain, irakurketak egiterakoan zenbakiez haratago begiratu behar dela adierazten du ere. Adibidez, motibazio politikoko gatazkek datuetan motibazio ekonomikoek baino gutxiago izateak, ez luke arrazoi politikoengatik gatazkak espainiar estatutan beste toki askotan (berak Britainia Handiarekiko alderaketa egiten du) baino askoz gehiago izan zirela eta arrazoi ekonomikoengatik gatazken azpitik ere, politizazioa, espainiar langile klasearen gatazkak bereizi egiten dituen osagaia izan zela ezkutatu beharko. Ildo berean,

<sup>1190</sup> Álvaro Soto Carmona, "Huelgas en el...", Op. Cit. 1998.

<sup>1191</sup> Adibide paradigmaticoa, José Antonio Maravall, *Dictadura y disenso político. Obreros y estudiantes bajo el franquismo*, Alfaguara, Madril, 1979.

<sup>1192</sup> Ikusi Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 106-114 orr.

zenbakiak ere ez dituzte gatazkak ematen diren kontestuak kontutan hartzen eta hauek, gatazken kopurua eta izaera baldintzatzen ahal dituzten elementuak barne hartzen dituzten heinean, gogoan hartu beharrekoak dira. Esate baterako, kontestuak, egiazki, greba politiko bat egiteko aukerak baldintzatzen ahal ditu.

Orokorrean, 60. hamarkadaren amaieratik aurrera, bereziki 70. hamarkadan zehar, gatazkek politizazio argi bat bizi izan zuten. Geroz eta orokortuagoak ziren eta geroz eta gehiago agertzen ziren eduki politikoei lotuta, lan eta soldata baldintzak eztabaidatzearekin batera, askatasun sindikal eta politikoen aldarrikapenen alde ere egiten zelarik. Gatazken eduki politikoak eta hauek sustatzen zituzten erakunde zein liderrek agertzen zituzten jomuga politikoak ezin eztabaidatuzkoak dira urte hauetan. Alta, ezin da ukatu gatazken jatorria, hein handi batean, ekonomikoa zela. Aurreko kapituluan ikusten genuen moduan, 60. hamarkadaren bitartean fabriken baitan sortu zen langile mugimenduaren dinamikak, mobilizazioa, erantzuna eta protesta, negoziazio kolektiboaren eta soldaten igoeraren harira planteatzen zuen bereziki. Zentzu honetan, ezin da ukatu langile gatazkek aldarrikapen ekonomikoekiko izan zuten eta are errotu zuen harreman hura. Are gatazka politizatuenetan, eskabide ekonomikoek presentzia nabarmendua izan zuten.

Beste muturraren argudioak erabatean ezeztatu ezin izatean, bi paradigma hauek, ekonomikoa eta politikoa, frankismoaren garaiko lan gatazkak zuzen interpretatzeko hutsune nabariak agertzen dituzte. Horregatik, bere lanean lan gatazkak hizpide izan dituen Xavier Domènech, paradigmatik irten zen eta gatazkak aztertzeko bestelako aldagai bat sartu zuen eztabaidan: mutur batean zein bestean sailkatu ezin diren grebak<sup>1193</sup>. Adibidez, gure protagonisten testigantzetan jasotzen diren kontakizunak aztertzen baditugu, erabatean ekonomikotzat edo politikotzat sailkatu ezin diren gatazkak, motibazioak, aurkituko ditugu. Oinarri ekonomizistetatik baino, klase borrokaren oinarrietatik planteatzen ziren aldarrikapen ekonomikoak edo lan baldintzen inguruko aldarrikapenak (lan baldintzak patrioiak gauzatzen zuen esplotaziotzat ulertzen zirenean, aberastasunaren bidezko banaketa bat eskatzen zenean), berezko langile ordezkariak bat aldarrikatzeagatik hasten ziren gatazkak edota zigortutako edo kaleratutako kideak berriz hartzeko, hala nola borrokan zeuden bestelako fabrikei babesa adierazteko elkartasun grebak, ezin ditugu ez paradigma batean ez bestean kokatu. Langileen hitzei erreparatzea nahikoa dugu hori ikusteko.

Honakoak, klase borrokaren oinarrietatik planteatzen diren aldarrikapen ekonomikoaren edo lan baldintzen inguruko aldarrikapenen adibideak dira:

Patrioiek langileak horrenbeste ez esplotatzea aldarrikatzen genuen. Gauzak apurka biltzen joateko modu bat zen, ezta? Ez genituen zuzenean kapitalaren kontrako gauzak egiten... gu, egiten genuena, ba fabrian edo tailerrean lan egiteko modu hobekoak aldarrikatzea eta lortzen saiatzea zen: segurtasun gehiago, diru gehiago, [soldata] jatekoa bermatzeko hainakoa izatea... [abertasunaren] bidezko banaketa bat egitea. [C.O.. CCOOeko

militantea]<sup>1194</sup>

Argi genuen patrioi esplotatzaile bat zela eta orduan, horren kontra matxinatzen ginen, hau da... patrioi esplotatzaile bat zen, ezta? hala zen, bai eta nolabait, ba mundu guztiak hala zela sentitzen zuen, bereizketa hori sentitzen zuen: hauek alderdi batekoak dira eta gu beste alderdi batekoak gara, ezta? eta gure alderdiak borroka egin behar du, beste alderdi horren kontra borrokatu behar du [...] horregatik ez ziren soilik (lan munduko) aldarrikapen zehatzak, horren atzean... ba hori, nolabait gizartea aberasten duena zu zarelako eta aberastasun horretaz onura ateratzen duena beste bat delako, hori injustizia bat delako eta injustizia horren kontra

<sup>1193</sup> Ikusi Xavier Domènech, "El problema de la conflictividad bajo el franquismo: saliendo del paradigma", *Historia social*, 42. zkia, 2002, 123-143 orr.

<sup>1194</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik lehenengoari dagokion testigantza. Aísa, 2013-09-10.

borrokatu behar delako pentsamendu bat zegoen [C.B.. Autonomia Obrera eta CNTko militantea]

Honakoa, berezko langile ordezkari bat aldarrikatzeagatik hasten diren gatazken adibidea:

greba guztia izan zen beraiek gure ordezkapena onartzen ez zutelako. Asanbladak aukeratu zuen *comité de huelga* bat, eta beraiek ez zuten onartzen zerengatik bazeuden orduan frankismoaren sindikatuko ordezkariak, *el Sindicato Vertical*, eta haiek izan behar ziren, nola aukeratutakoak ziren... bueno aukeratuak, hauteskunde haietan aukeratutakoak ziren. Orduan haiek izan behar ziren. Eta guk ezetz. Eta orduan pastu genituen hogeai egun greban bakar bakarrik ordezkariaren arrazoiagatik. [P.U.. CCOOeko militantea]

Eta honakoak, zigortutako edo kaleratutako kideak berriz hartzeko hala nola borrokan zeuden bestelako fabrikei babes adierazteko elkartasun grebenak:

Kaleraturen bat zegoenean, berehala greba sortzen zen. Edo behintzat kaleratzea arbuizten zuen erantzun bat. Ez zen erraza, asko estutzen gintuzten eta kaleratu gehiago egoten zen, baina gutxienez beti erantzuten genuen... kristona zen. [J.U.. CCOOeko militantea]

Ez zen kaleratzerik onartzen borrokatu gabe, ezta? nahiz eta gero [borroka horretatik] kaleratu gehiago gertatu... baina ez zen kaleratzerik onartzen borroka egin gabe. [...] Adibidez, nire senarra atxilotu zutenean eta gero fidantza pean atera zenean, ba bere lankideek dirua bildu zuten fidantza ordaintzeko eta lanuzteak egin zituzten Potasasen enpresak bere lanpostua gordetzeko. [M.L.C.. CCOOeko militantea]

Nik, Nafarroako langile mugimenduaz beti nabarmendu izan dudana, elkartasuna agertzeko zuen gaitasuna da. Hau da, gatazkak jasanezinak bilakatzen zirenean... berezko negoziazioen ondoriozkoak ziren gatazketan ez horrenbeste, baina kaleratzeak, errepresaliatuak zeudenean... mugiarazten gintuen alarma moduko bat genuen. Nik uste dut hori funtsezkoa izan zela. Nik uste dut greba orokorretan mugiarazten gintuen eragile nagusia elkartasuna zela [...] beti, beti, beti langile mugimenduaren borrokak, orokorrean, nik ulertzen dudana bezala, elkartasunezkoak ziren. Gero, ba lantoki bakoitzean gertatzen zirenak berezkoak ziren, lantoki bakoitzak bere berezitasunak zituen eta berauetan, normalean, soldaten goititzearengatik, lan baldintzak hobetzeagatik gertatzen ziren... baina horiek fabriken baitakoak ziren, hauetan bakoitzak bere ingurunean borroka egiten zuen. Hori bai, gatazkak bestelako dimentsio bat hartzen zuenean, gu han ginen. [M.S.S.. CCOOeko militantea]

Azken hauei arreta jartzea bereziki interesgarria izango da, egiazki zaila baita elkartasun grebak motibazio ekonomiko edo motibazio politikoko greba bezala sailkatzea. Xavier Domènech zentzu honetan irten zen paradigmatic, izan ere, mutur batzukoek zein bestekoek kontutan hartzen ez duten elementua izanik, non kokatzen dira elkartasun grebak? “Ekonomia edo politika” binomioaren arabera, inon. Elkartasun grebak eztabaida historiografiko honetatik desagertzen dira, hain justu haren ardatza izan behar zirenean. Azken batean, elkartasun greba hauek, greba ekonomiko eta politikoen arteko harremana, langile klasearen barne eraketa eta garapena kontutan hartzen duen modu batean ulertzea ahalbidetzen duen lotura izaten ahal dira<sup>1195</sup>.

Zaila da elkartasun grebak sailkatzea eta eztabaidan kokatzea. Hasteko, lantokiaren baitan gertatzen direnean ere, ez dute berekin egoera ekonomikoaren berehalako hobekuntza ekartzen. Beraz, berauetan berehalako interes ekonomikoa baino, klase bereko kideen (lantoki berekoak izan edo beste fabriketakoak izan) arazoak berezki jotzen diren heinean, klase elkartasunaren eta klase kontzientziaren adierazle bat direla esan daiteke nolabait. Era berean, elkartasunak zuenean kontzientzia politikoa batean existentzia adierazten ez duenez, zaila da ere elkartasun greba hauek gatazka politikoen muturrean sailkatzea. Baina, esan bezala,

<sup>1195</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit., 105-106 orr.

klase kontzientzia baten existentzia adierazten dutenez, interes, balore, kultura eta proiektu bereziak dituen berezko talde bateko kide izatearen sentimendu baten existentzia azaleratzen dute, taldeko kideetat jotzen direnei babes eta elkartasuna agertzeko jokabideak hartzea ondorioz ekartzen duena. Ere bereko fabrika desberdinen arteko harremanean, elkartasun greben atzean dagoen guzti hau argi eta garbi ikusten ahal da. Langile mugimenduarentzat erreferentzia-koak ziren zenbait fabrika egon ohi zen, handienak edota borroka tradizio luzeak normalean (Iruñerrian esaterako, Potasas, Super Ser, Imenasa edota Authi hartzen ahal ditugu erreferentzia-koak). Berauetan, errazagoa izaten zen hobekuntzak lortzea, langileek, hitzarmen kolektibo onuragarriak negoziatzeko indarra baitzuten. Hala ere, euren berezko hitzarmenekiko hobekuntza errealik ekarriko ez zuten arren, fabrika hauek protagonismo handia izaten zuten probintziako hitzarmenen negoziazioen markoan piztu ohi ziren borroketan, izan ere, haien indarrari eta presioari esker, hitzarmen orokor onuragarriak lortzen ahal ziren, haiekin enpresa txikiagoetako langileentzat, beste modu batean eskuratu ezinezkoak izango ziren hobekuntzak lortzen zirelarik. J.S.M.-ek oso ongi azaltzen du fabrika handi eta txikien arteko halako elkartasun harremanak nolakoak ziren:

Zoritxarrez ez lehen eta ezta orain ere ez da berdin Potasasen lan egitea edo "Talleres Manolon" lan egitea; "Talleres Manolon" lan egiten duen langile gaixoak ez du inolako babesik... babesik handiena, ba zure lankideek ematen dizutelako, ezta? [...] gauzak lortzeko indarra ematen duena jendea delako. Enpresa bat handia bada, gauzak lortzen ahal dira; txikia bada, ez. Gero beste gauza bat da indar hori tailer txikiak laguntzeko erabiltzea... [...] [adibidez] gutxieneko soldata ezarri zenean, enpresa guztietan gutxieneko soldata goititzea eskatzen zen, hori ba, [enpresa txikietako langileei] laguntzeko. Are gehiago, nik deialdi asko egin izan ditut ba Artica kaleko tailerretako neskek laguntzeko. Han langile gutxiako tailer asko zegoen baina noski, ez ziren apenas mugitzen. Orduan, askotan, hauek mugiarazteko deialdiak egiten genituen... beno, ba pixka bat laguntza bezala, euren borroka adoretzeko eta bakarrik ez zeudela sentiarazteko... hori da langile klaseari kohesioa ematen diona. [J.S.M.. CCOOeko militantea]

Enpresa txikiei mesede egingo zien probintzia hitzarmen baten negoziazioaren markoan gertatzen ziren edota greba luze eta gogorretan murgilduta zeuden fabriketako langileak babesteko sustatzen ziren beste fabriketako elkartasun grebak, arlo honetako gatazken artean entzutetsuenak izan ohi ziren. Hala ere, fabrikaren baitan sortzen ziren elkartasun aldarrikapenak edo grebak (kideren bat zigortuta edo kaleratuta izaten zelako, adibidez), oso esanguratsuak dira ere klase kontzientziaren adierazle bezala:

73an greba bat izan genuen eta zenbait kide sindikalista kaleratu zituzten eta orduan noski, 74an hitzarmena negoziatu behar zenez, aldarrikapenen artean, kaleratutako kide hauek berriz hartzea zegoen. Adibidez, haietariko bat asanblada batean giza eskubideak irakurri zituelako kaleratu zuten, hori izan zen bere hutsegitea... beno, kaleratzearen arrazoia berez legez kanpoko asanblada bat zela, panfleto hori irakurri zuela eta ez dakit zer gehiago izan zen eta kaleratu zuten. Beno, lau kaleratu zituzten. Haietariko bat berriz hartu zuten, beste hirurak, ez. Orduan aldarrikapena, hiru horiek berriz hartzea izan zen eta gero, ba hitzarmenaren aldarrikapenak zeuden ere. [JA.C.. CCOOeko militantea]

langile mugimenduaren aldi honetan, bereziki 73 eta 78 urteen artean, langileen gehiengoa, ez dut guztiak zirela esaten, baina bai gehiengoa, euren liderrekin identifikatzen zen; gainera oso modu konprometituan identifikatzen zen, hau da, haietariko bat kaleratzen bazuten, lana uzten zen. Hau da, lana uzten zuten eta egunak ematen zituen greban. [JA.C.. CCOOeko militantea]

Aurreko kapitulutik hona ikusi izan ditugun fabrikaren baitako gatazka desberdinetan, elkartasunaren motibazioa, nola edo hala, agertu egin da. Gatazka hauetariko askok jatorria aldarrikapen ekonomikoetan edota hitzarmen kolektiboaren negoziatioetan izan

zuen arren, mugagabeko grebak, negoziazio horren bitartean zigortuak eta kaleratuak egoten zirenean piztu egiten zirela ikusi dugu. 1965eko Frenos Iruñako greba adibidez, produkzio pizgarriekin lotutako aldarrikapen batean izan zuen sorburu. Negoziazioak abiarazteko, protestak eta lanuzte partzialak egin ziren baina greba, enpresak protesta hauei zigor eta kaleratzeekin erantzun zienean hasi zen. Super Serreko 1969ko gatazkak, denbora neurketen sistemarekin eta produkzio erritmoekin izan zuen zerikusirik. Hauen kontrako lehenbiziko protestak egin ziren kasu honetan ere, lan erritmoa %85era murriztuz. Enpresak zigorrekin eta kaleratzeekin erantzun zuen, greba orduan hasi zelarik. Eatonen, kargu sindikalen dimisioen kanpainaren markoan, langileek zuzenean aukeratutako ordezkariak negoziatzen zituzten lan baldintzak, lanuzteekin presioa eginez. 1971an, lanuzte horietariko baten ostean, enpresak langile asko kaleratu zuen. Orduan hasi zen berrogeita zazpi eguneko greba. Gatazka hauen bilakaeraren harira, greben motibazioaren eztabaida historiografikoari buruzko hausnarketa interesgarri bat planteatzen ahal da: Izaten ahal dute gatazken jatorriak eta greben motibazioak sailkapen desberdin bat? Izan ere, jatorri ekonomikoko gatazka askotan, hauen bilakaeran sortzen diren bestelako motibazioak, kaleratzeak kasu, greben pizgarri eta ardatz bihurtzen dira. Beraz, gatazka batean motibazio desberdinak ikusten ahal direnean, zerk zehazte du batzuk besteen gainek daudela edo batzuk besteak baino garrantzitsuagoak direla?

Langile gatazkaren markoan parte hartzen duen bestelako elementu bat, ez baldintzatzailea baina bai kontutan hartzekoa, geratzen zaigu aipatzeke: fabriken baitan lan egiten zuten eta langile borroka elikatzen zuten lider eta erakundeek aldarrikapenak greben pizkunde eta bilakaeran izaten ahal zuten eragina. Izan ere, fabriketan eragile aktibo eta parte hartzaileak ziren eta are langile jarduera dinamizatzen zuten. Langile komisioren aldarrikapenak, bilakaera adierazgarri bat bizi izan zuten fabriken baitan. CCOOek aurkeztutako programei begiratu bat ematen badiegu, fabriketan mugimenduaren jarduera oinarritzen zuten aldarrikapenak bai ekonomikoak eta baita politikoak zirela ikusiko dugu. Madrilgo CCOOek adibidez, 1966-1967 bitartean, askatasun demokratikoetan eta lan baldintzen hobekuntzan oinarritutako programa osatuz joan zen<sup>1196</sup>. Lehenbizikoei dagokienean, askatasun eta eskubide sindikalak ziren eskakizun nagusienak: Sindikatu Bertikala arbuizaten zen eta sindikalgintza independente, demokratiko eta batasundun bat eskatzen zen. Honekin batera, elkartze, adierazpen, biltze eta greba eskubideak exijitzen ziren ere. Bigarrenei dagokienean, soldaten inguruko aldarrikapenak ziren nagusi: gutxieneko soldataren goititzea eta bizitza kostuaren arabera soldaten eskala mugikorra ezartzea. Honekin batera, lanaldiaren murrizpena edota lanaren behin behinekotasuna eskatzen ziren. 60. hamarkadaren amaieratik aurrera, bereziki 70. hamarkadan lehen erdian, aldarrikapen ekonomikoekin batera agertzen ziren aldarrikapen politiko haiek, geroz eta politikoagoak egin ziren. Ondoko testigantzak, muturrekoa izan daitekeen arren, langile mugimenduaren baitan eta fabrikaren aldarrikapenen baitan, eduki politikoak gutxika normaldu egin zirela eta are plataformetan jasotzen zirela adierazten du nolabait:

Plataformaren zirriborro bat egiten genuen. Aldarrikapen ekonomikoez beste, aldarrikapen politikoak ere sartzen genituen: preso politikoaren askatasuna, autodeterminazio eskubidea, euskara hizkuntza ofiziala izatea... fabriketan! Garai hartan! [...] orduan zuzendaritzarengana joaten ginen eta esaten genion: "Oye, esta plataforma" [eta orduan zuzendaritzak] "Dios mío, dios mío ¿Pero que es esto? Derecho de autodeterminación para Euskal Herria, el euskera lengua oficial, libertad para todos los presos políticos, libertades políticas y sindicales" eta gaineratzen zuen "¿Y nosotros qué tenemos que ver?" eta [esaten genuen] "No, no, vosotros tenéis que ver, vosotros no tenéis la capacidad de decidir esto, pero tenéis que ver porque sois parte de, del sistema. Y vosotros, cuando os juntéis con otros empresarios y vean o veáis que se reivindica esto en muchas empresas, vosotros canalizarlo hacia arriba, vosotros sabéis con

<sup>1196</sup> José Babiano eta José Antonio de Mingo, "De la comisión de enlaces..." Op. Cit., 203 orr.

quien tenéis que hablar, les informáis de lo que estamos reivindicando”. Eta horrela. [I.B.. CCOOeko militantea]

Baina kontutan izan behar dugu, CCOOeko militante ziren beste langile protagonista batzuen testigantzetan ikusten ahal denez, eduki politikoak euren esku sartu ohi zirela fabriketara eta asanbladetara. Helburua, langileen oinarrizko politizazioa sustatzea eta harengan borrokarako grina sortzea zen. Testigantza hauetan, subjektuak, gainontzeko langileen ideia hauekiko jarreraz positiboan aritzen dira, fabriken baitan kezka nagusienak beste batzuk zirela iradokitzen duten arren:

Gu aldarrikapen politiko guztiak sartzan saiatzen ginen, ezta? are erabakitze eskubidea! Autodeterminaziorako eskubidea... ba, oso politizatuta geunden heinean, aldarrikapen horiek sartzan genituen, guztia sartzan genuen: lehenbizi soldata, zergatik? Ba langileen gehiengoarekin konektatzen zuena zelako, nork ez du gehiago irabazi nahi? [...] baina gero aldarrikapen politikoak sartzan genituen, askatasunak, amnistia [...] Funtsean jendea aldarrikapen ekonomikoengatik eta lan baldintzengatik (baldintza hobekoak, lan ordu gutxiago, soldata hobekoak) mugitzen zen; besteak guk sartzan genituen ba jakinda, beno, kontzientzia sortzen ahal zutela [...] Noski, gu bagenekien enpresak ez zituela askatasunak emango, ez askatasunak eta ez ezer, baina behintzat langileek aldarrikapen haiek oinarritzat hartzeko, lortu beharreko helburu bezala ikusteko, balio zuen. [R.M.. CCOOeko militantea]

Nik gogoratzen dut egiten genituen asanbladetan, bizi eta lan baldintzak eta askatasun falta eta guzti hori lotu behar genuela, frankismoarekin lotu, frankismoarekin amaitu behar genuelarekin lotu... hau da, oso lotuta zegoen, oso lotuta, bai, bai. Hori eskirolek eta enpresek beti aurpegiatzen ziguten zerbait zen, “Estos son políticos, es que estos son políticos, estos no son...”. Noski, guk erantzuten genien: “bueno, bueno, respondernos a la petición salarial que hemos hecho, a la reivindicación salarial, a la reivindicación de horas y condiciones laborales que hemos hecho en el convenio este, por ejemplo, y ya verás como llegamos a un acuerdo en eso y se soluciona el problema de la huelga aunque no hayamos conseguido un avance político en este instante”. Hau da, aldarrikapen politikoekin lotzen genuen nahiz eta borroka jakin horretan aurrerapen politikorik egingo ez genuela jakin. Baina egiten genuen, egiten genuen langileengan orokorrean kontzientzia bat sortzeko, bizi genuena egoera politikoaren ondorioa zelako kontzientzia bat [pizteko]. [P.O.. CCOOeko militantea]

### **7.2.2 1973. Langile mugimendua agertokian sartzan da: Motor Ibéricako grebatik greba orokorrera**

1973a, urte garrantzitsua da Iruñerriko langile mugimenduaren irudimen kolektiboan. Urtearen hasieran, Torfinasako greba gogorraren kontestuan, ETAK Felipe Huarte enpresaria bahitu zuen<sup>1197</sup> eta ekainean, Motor Ibérica fabrikako gatazka batek, Iruñerria eta Nafarroa erabatean geldiaraziko zituen elkartasunezko greba orokor bat piztu zuen. Urte hau, bereziki Motor Ibéricako greba, inflexio puntu bat izan zen langile mugimendua indartzeko eta nafar gizartean presente egiteko. Motor Ibéricako greba adibidez, orduan jarduten zeuden militante askorentzat, Iruñerrian langile mugimendua azaleratuarazi egin zuena izan zen: *“Nigan eragin sakona izan zuen lehenbiziko greba, langile borrokak esan nahi duenari buruzko eta garai hartan borroka sindikal klandestinoa zenari buruzko nire ikuspegia urte luzez markatu izan zuena, Motor Ibéricako lehenbiziko greba orokorra izan zen [...] gainontzeko fabriketan sekulako elkartasun mugimendua sortu zen, egiazki orokorra izan zen greba bat sortu zelarik. Eta ikasleak izan ginen guzti hori komentatzen eta hori, ba... eztanda baten modukoa izan zen, ezta? poztasun eztanda bat... poztasuna eta mirespena, guretzat... esaten*

---

<sup>1197</sup> Torfinasako langileen gehiengoa, kaleratua izan zen urtarrilaren hasieran euren soldaten inguruko aldarrikapen baten alde lanuzte bat egiteagatik. Enpresak kaleratutakoak berriz hartzeari ezetz esan ondoren, hauek Arrotxapea auzoko El Salvador elizan itxialdi bat egin zuten. Bertan harrapatu zituen Huarteren bahiketa. Torfinasako grebaren inguruan gehiago, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 146-148 orr.



*genuen: ba posiblea da, posiblea da pertsona talde batek planto egitea eta momentu jakin batean gauzak zeharo aldrebestea...*"<sup>1198</sup>. Hainbat faktorek ematen diote Motor Ibéricako grebari mugarri izendapena: lehena, atzeraldi baten ondoren, aipatu langile mugimendu berriaren indarberritzearen abiapuntu izatea eta CCOOen berrantolakuntzarako pizgarri izatea; bigarrena, grebak izan zuen izaera orokorra; hirugarrena, elkartasunak izan zuen protagonismoa, grebaren motibazioa izan baitzen eta Iruñerriko fabrika guztietako langileak hala nola hiriko bestelako sektore herrikoiak borrokan inplikatuarazi baitzuten.

Motor Ibéricako greba garrantzitsua aztertzeko iturri desberdinak erabili ditugu. José Vicente Iriarte Aresok adibidez, xehetasunez beteriko gatazkaren kontaketa bat egiten du, azalpenak egiteko oso oinarri erabilgarria ematen digularik. Honekin batera, MCE talde politikoak burutu zuen txosten luze bat eta alderdi komunistaren Artxibategi Historikoan topatu dugun dokumentu sorta bat dugu ere<sup>1199</sup>. Badirudi azken hauek Iriarte Aresok berak erabili zituen iturriak direla. Hauek erabiltzerakoan kontutan izan behar dugu langileek berek edota euren talde politikoek sortutako iturriak direla eta ondorioz, ematen duten informazioa, hein handi batean langile jarduera eta herriaren borroka nabarmentzea eta goestea helburu duen heinean, lerrotuta egoten ahal dela. Hala ere, langileen ikuspegia eta hauek greba nola bizi izan zuten azaleratzeko baliagarriak dira. Jarraian, honek agertu zituen aspektu nabarmenenak aztertuz, Iruñerriko langile mugimenduaren bilakaeran mugarri izan zen greba honetarako hurbilketa egingo dugu,

Gatazka honek bi greba biltzen ditu haren baitan. Lehenbizikoa, fabrikako arazo batetik eratorritako egoera jakin baten ondorioz Motor Ibéricako langileek berek hasi zutena eta bigarrena, hauekin elkartasunean Iruñerriko eta are Nafarroako langileek hasi zutena. Lehenbizikoak maiatzaren 8tik ekainaren 26ra, ia bi hilabete, egon ziren geldirik; bigarrenak, ekainaren 14tik 22ra, bederatzi egun.

Motor Ibérica, industria ibilgailuen eta nekazal makineriaren produkzioan aritzen zen enpresa zen. Estatuko puntu desberdinetan zituen fabrikak, Bartzelonan, Egea de los Caballerosen, Kordoban, Madrilen eta Iruñerriko Noain udalerrian. Noaingo fabrikan hamarkadaren hasieratik giroa nahasita zegoen. 1971tik 1973ra bitartean, enpresak, soldataren %30a osatzen zuten zenbait gehigarri (toxikotasunekoak, bazkariengatikoa, kanpaina amaierako lansariarena), langileek askotan lortzerik ez zuten produkzioari lotutako sari bihurtu zituen, maila jaitsiera eragin zuen kategoria profesionalen balioespen berri bat egin zuen eta langileak, lanaldi trinkoan beharrean, txandetan lan egitera behartu nahi izan zituen. Langileek neurri hauen kontra protesta egin zuten, enpresak honengatik ordezkari sindikalak (epaimahai kideak) zigortu zituelarik. 1973an, protesta berri bat gertatu zen kanpaina amaierako lansariaren harira. Uztailean kobratzen zen, orduan nekazal kanpaina amaitzen zelako. Baina 1971az geroztik, gehigarri hau azarotik aurrera kobratzen zen produkzio sari bihurtu zenez, uztailean eta azaroaren arteko lansariaren zati proportzionala jaso gabe geratzen zelarik. Lansari hori izan zen gatazkaren sorburua<sup>1200</sup>. Langileek honen eskaria egin zuten eta enpresak erantzun ez zienean, maiatzaren hasieran, lanuzte

<sup>1198</sup> Pablo Ibáñez testigantza, jaso, *Ximeneiak*, Goizeder Urtasunen dokumentala, 2008.

<sup>1199</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 149-164 orr.; "La huelga general de Navarra. Junio de 1973" txostena, José Antonio Pidalek utzitako dokumentua; "Huelga de Motor Ibérica (08-1973), AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 814, 815 eta 816 Jaq.

<sup>1200</sup> 1971az geroztik ari ziren eskatzen, erantzunik jaso gabe. 1972an, enpresa epaimahaiko hamalau kidek salaketa jarri zituen enpresari Lan Magistraturan eta epaiketa burutu zen. Magistraturak epaimahai kideen alde egin zuen eta orduan enpresak, lansariaren atzerapenak soilik haiei ordainduko zizkiela iragarri zuen. Ikusi José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 149-150 orr.

segida bati ekin zioten presioa egiteko neurri bezala. Enpresak orduan 1971az geroztiko lansarien atzerapenak ordainduko zituela iragarri zuen, baina egindako lanuzteengatik zigorrak ezarriko zituela ere. Langileek, diziplina atxikitzekeo neurriak arbuiatu eta greba mugagabeari ekin zioten, zigorrak baliogabetuko ziren arte. Ikusten ahal denez, grebaren motibazioa ez zen soilikan lansariaren aldarrikapena izan, ezarritako zigorren aurkako protestek, are protagonismo handiagoa izan baitzuten. Motor Ibéricako langileen greba, sorburu ekonomikoa izan zuen, baina bilakaeran, zigortutako lankideekiko elkartasuna ardatz zuen greba bihurtu zen. Are gehiago hainbat egun geldirik egon ondoren, enpresak, epaimahai kideei izan ezik guztiei zigorrak kenduko zizkiela eskaini arren, langileek grebarekin aurrera jarraitzea erabaki zutenean.

Ordutik aurrera gatazkak biziko zuen bilakaeran, bereziki erabakigarria gertatu zen enpresak greba indarrik gabe uzteko hartu zuen neurri bat. Langileak geldirik zeuden bitartean produkzioarekin beste tokiren batean aurrera jarraitu ahal izateko, fabrikatik makineria eta materiala ateratzen saiatu zen. Langileak beti egon ziren fabrikaren atean, makinak eta materialak eramango zituzten kamioien sarrera galarazten saiatzen, baina guardia zibilak bertan egotea zaila egingo ziela ikusi zutenean, erabaki garrantzitsu bat hartu zuten asanbladan: Arrotxapeako El Salvador elizan itxialdia egitea. Ekainaren 12a zen. Elizan itxita zeudela, euren egoeraren berri ematen zuen eta langileen elkartasuna eskatzen zuen deialdi bat egin zuten<sup>1201</sup>. Iruñerriko langileen erantzuna greba orokorra izan zen.

Gatazkak jada irauten zuen hilabete eta koska honetan zehar, beste fabriketako langile asanbladetan maiz hitz egin zen Motor Ibéricako langileen egoeraz, fabrika askotan ere hauei elkartasuna adierazteko lanuzteak egin zirelarik. Baina Motor Ibéricakoek El Salvador elizatik deialdia egin zutenean, greba lehertu zen. Deialdi hura bizkor zabaldu zen fabriketatik, langile asanbladetatik eta auzoetatik, Iruñerria osoa geldiarazi zuen arte. Ekainaren 14ean, ordura arte fabriketan egiten ziren elkartasunezko lanuzte partzialak, erabateko lanuzte bihurtu ziren hainbat fabrika garrantzitsuetan eta hauetatik, piketeen ekintzaren bitartez, greba lantoki guztietara hedatuz joan zen<sup>1202</sup>. Ordutik aurrera, antolakuntza, elkartasuna eta mobilizazioa izan ziren nagusi bederatzi egunetan zehar.

Lehenbiziko momentuetan, CCOOen militanteen eta sareen funtzionamendua ezinbestekoa izan zen greba orokorrerako deialdiak arrakasta izateko. Koordinazioa zonaldeka egin zen, industrialde bakoitzeko asanbladetakako ordezkarien artean informazio eta jarraibide elkar truke jarraitua egon zelarik. Fabriketan egunero asanbladak egin ziren eta hauen ostean, egunero langileak manifestazioan irteten ziren kalera. Osotara, hogeita mila langile inguruk parte hartu zuen greban. Hauen eskakizunak: Motor Ibéricako zigortu guztien berriz hartzea eta greban parte hartzeagatik gainontzeko enpresetako langileen aurkako errepresaliarik ez egotea.

Bitartean hiria geldirik zegoen, kaleetan manifestazioak egiten ziren, auzoetan barrikadak ipintzen ziren eta grebalari zein manifestari eta poliziaren arteko konfrontazioak, bata bestearen ondotik gertatzen ziren. Emakumeek, gazteek, ikasleak eta saltzaileak grebarekin eta mobilizazioekin bat egiten zuten. Alderdi komunistak esaten zuen moduan, hiriko giroan, *“astintzea eta borrokarako grina”* nagusi ziren,

---

<sup>1201</sup> Hurrengo egunean atera ziren, poliziak eliza hutsaraziko zuelako mehatxuaren aurrean, asanbladak hala erabaki zuelako.

<sup>1202</sup> Alderdi komunistak adibidez piketeek izan zuten paper garrantzitsua nabarmendu zuen, grebaren bitartean borrokarako eta langileen antolakuntzarako tresna egiazki eraginkorrak izan zirela esanez. “Huelga de Motor Ibérica (08-1973), AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 814, 815 eta 816 Jaq.

“herria, kalearen jabe” zelarik<sup>1203</sup>. Etxekoandreek eta gazteek piketeak osatzen zituzten; langile auzoetako biztanleek manifestariekin bat egiten zuten eta kalera irten ziren grebalariekin batera poliziarri aurre egiteko eta barrikadak ipintzeko; enpresari txiki eta ertainek eta dendariak, laguntza eta elkartasun jarrerak hala nola parte hartze aktiboa agertzen zuten; Unzu saltegiatoko saltzaileek euren lanpostuak uzten zituzten eta manifestazioetara joaten ziren; ikastetxeak ixten ziren eta batxilergoko eta eskola profesionaleko ikasleak kalera ateratzen ziren... Egiatan, ez da erraza sektore herrikoia hauek greba orokorrean izan zuten parte hartzeari dagokion neurria ematea. Aipatu dugun moduan, gatazkaren azterketa egiteko eskura izan ditugun iturriak langileen ikuspuntutik sortutakoak dira eta beraz, herriaren borrokaren idealizazioerako joera nabaria da. Baina beste aldean, Diario de Navarra egun haietan grebari buruz eman zituen berrietan adibidez, parte hartze hau gutxiesten da edo zuzenean aipatu ere ez da egiten. Honela, grebaren lehenbiziko egunetan, elkartasunak lan munduaren markoa gainditu zuela onartzen zuen arren, aipatu denda, salgune eta ikastetxeen ixtea, parte hartze herrikoia ondo baino, indarkeriaren eta mehatxuaren ondorio izan zela salatzen zuen<sup>1204</sup>. Hurrengo egunetan, egunkariak eman zuen grebari buruzko informazio guztia, lan munduko aspektuei eta negoziazioei buruzkoa baino ez zen izan. Dena dela, 1973ko ekaineko greba orokorra, parte hartze maila handia izan zuen greba bezala, hiri osoa gelditu zuen greba bezala eta kalean presentzia handia izan zuen greba bezala irudikatzen da oraindik ere Iruñerriko langile mugimenduaren eta hiriarren beraren memoria kolektiboan.

Gatazkaren konponketa bideratzeko, langileek, euren autoantolaketa pausu bat gehiago eman zuten. Ekainaren 20an, metalaren sindikatuko bilera bat burutzeko zela baliatuta, enpresa desberdinetako ordezkariak (kargu sindikala eduki edo ez), Sindikatuen egoitzan bildu ziren, enpresarietako negoziatioerako irizpideak asanbladan zehazteko asmoarekin. Asanblada hartan hautatuak izan ziren hainbat ordezkari eta Langile Kontseiluko hainbat kide izango ziren, aurrerantzean, patronalaren ordezkarietako negoziatioerako zutenak. Ordurako jada, Enpresari Kontseiluak, grebari amaiera emateko lehenbiziko konponbide proposamen bat egina zuen. Honen arabera, Motor Ibéricako langile guztiak berriz hartuak izango ziren, azkeneko zigortuak (epaimahaiko kideak) izan ezik. Lan Magistraturak erabakiko zuen hauek berriz hartuak edo kaleratuak izango ziren, baina kaleratutakoak izatekotan, kontseiluak beste enpresa handiren batean kontratatuak izango zirelako konpromisoa hartzen zuen, hau gertatu arte, Diputazioak Motor Ibérican jasotzen zuten soldata bera ordainduko zelararik. Beste enpresetako langileek zegokienean, proposamenak, greban parte hartzeagatik zigortuta eta kaleratuta izandako langile oro berriz hartuak izango zela aurreikusten zuen. Nahiz eta Motor Ibéricako langileek ez zuten lehenbiziko momentu batean proposamena onartu (horrek zigortutako kaleratzea onartzea suposatzen zuelako), langileen ordezkariak orokorrak, enpresetako langile asanbladek euren oniritzia eman ostean, proposamena onartu eman zuen. Ekainaren 23tik aurrera fabrikak normaltasuna berreskuratzen joan ziren. Motor Ibérican ekainaren 26ra arte jarraitu zuten geldirik. Langileek elkartasuna zigortua ez izatea lortu zuten arren, garaipena partziala izan zen, Motor Ibérican oraindik zenbait langile zigorraren esperoan geratu zelako. Lan Magistraturak hamabosten kaleratzeak berretsi zituen, enpresak azkenean zazpi hartu zituen berriz eta zortzi, akordioak esaten zuenaren arabera beste fabrika batzuetan enplegatuak izatearen esperoan geratu ziren. Auzoak lau kontratatu zituen<sup>1205</sup>.

<sup>1203</sup> “Huelga de Motor Ibérica (08-1973), AHPC-AKAH, Nazionalitateak eta eskualdeak fondoa, Nafarroa-Euskadi saila, 814, 815 eta 816 Jaq.

<sup>1204</sup> “El contagio de la violencia”, DN 1973-06-16, 1 orr.

<sup>1205</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 158 orr.

Gatazkaren konponbidea eta amaiera gazi-gozoak izan ziren arren, elkartasuna, gatazka honen garrantzia haren lorpenetatik haratago balioestera eramaten gaituen elementua da. Elkartasuna, bi grebak definitzen dituen ezaugarria da. Hasteko, bi greben motibazio nagusia izan zen. Motor Ibéricako langileen kasuan, zigortuak izan ziren eta kaleratuak izateko arriskuan zeuden lankideekiko elkartasuna izan zen motibazio nagusia. Greba orokorraren kasuan, lehenbizikoekiko elkartasuna. Zentzu honetan, gatazka hau, “elkartasun grebaren” paradigmaren oso adibide adierazgarria da, Iruñerriko langileriak, argi eta garbi, beste fabrika bateko baina klase bereko kideen arazoak berezkotzat hartu baitzituen. Identifikatze hau erabatekoa izan zen Motor Ibéricako langileek El Salvador elizatik egin zuten deialdiaren aurrean. Deialdi honen zenbait pasartek, Motor Ibéricako langileen artean interes, balore, kultura eta proiektu bereziak zituen berezko talde bateko kide izatearen sentimendu bat existitu egiten zela iradokitzen du nolabait: *“Kamioiak [materialez eta makineriaz] beteta ateratzen hasi ziren, gu errepidearen erdian jarri ginen euren igarobidea eragozteko, kamioi haiek gure ogia eramaten ari ziren..”*; *“Adiskideak! Utziko al diegu gu esplotatzea, gu probokatzea, gu zama abereak izango bagina bezala zapaltzea?”*; *“langile batek esplotatzaile bat zigortu ezin duen bitartean, ezin dugu onartu esplotatzaileek langile bat bera ere zigortzea”*<sup>1206</sup>. Victor Manuel Arbeloak “Rima del Pueblo” lanean jaso zuen herriarentzako ondorengo kantak, era berean, sentimendu hori bikain adierazten du:

La fábrica es nuestra,  
no nos llevarán.  
El pan de nuestros hijos  
no nos quitarán  
UNIDOS TODOS EN UN MISMO FRENTE  
NO NOS LLEVARÁN.

El precio del trabajo  
no nos robarán.  
El temple de la lucha  
no nos quebrarán.  
UNIDOS TODOS EN UN MISMO FRENTE  
NO NOS ROBARÁN

Los puños bien cerrados  
no nos romperán.  
Las ganas de justicia  
no nos comprarán.  
UNIDOS TODOS EN UN MISMO FRENTE  
NO NOS ROMPERÁN.

El miedo, el paro, el hambre  
no nos rendirán;  
ni inútiles promesas  
no nos engañarán.  
UNIDOS TODOS EN UN MISMO FRENTE  
NO NOS RENDIRÁN

El porvenir es nuestro,  
no nos cerrarán.  
La fábrica que es nuestra,  
no nos llevarán.  
UNIDOS TODOS EN UN MISMO FRENTE

---

<sup>1206</sup> “La huelga general de Navarra. Junio de 1973” txostena, José Antonio Pidalek utzitako dokumentua

Iruñerriko langileriak, deialdiari greba orokorrarekin erantzun zionean, argi gelditu zen sentimendu hori partekatua zela.

Elkartasunaren balore hori bera, gainera, oso modu desberdinetan ikusi ahal izan zen grebak iraun zuen bitartean. Motor Ibéricako langileek adibidez, herritarren elkartasuna eta babesa izan zuten euren grebaren bi momentu garrantzitsuetan: fabrikaren atean materiala eta makineria eramaten zuten kamioien irteera galarazten zeudenean, Noaingo herritarrek mantak eta ogitartekoak eraman zizkieten eta euren etxeak eskaini zizkieten; El Salvador elizako itxialdiaren bitartean, beste gauza askoren artean, Arrotxapeako bizilagunek janaria eta sendagaiak eraman zizkieten.

### 7.2.3 1974ko udazkena

1974ko udazkena, aurreko urtetik nabaria zen gatazken hazkunde bizkorren ondorengo koska izan zen. Bi une bereizten ahal ditugu Jose Vicente Iriarte Aresok “udazken beroa”<sup>1208</sup> deitu zuen ia bi hilabeteko etenik gabeko gatazka egoera hartan: lehenbizikoa, hitzarmen kolektiboak berritzeko negoziazioen markoan fabrika desberdin askotan, aldi berean, sortu zen gatazka orokortuaren egoerarena; bigarrena, abenduaren 11rako deitu zen borroka egun orokorrarena. Lortutako parte hartze eta mobilizazio mailaz beste, 1974ko udazkena Iruñerriko langile mugimenduaren historiaren mugari egiten duena, orduan aldarrikapen ekonomikoak eta aldarrikapen politikoak oso modu argian uztartu zituzten borroka gertatu zirela da. Are gehiago, mobilizazioa piztekoan motibazio ekonomikoak eta politikoak, azkenean, elkarren osagarri bihurtu zirela ikusteko oso adibide adierazgarria da.

Hitzarmen kolektiboak berritzeko negoziazioen markoan fabrika desberdin askotan, aldi berean, sortu zen gatazka egoera orokortua, berez, Nafarroako CCOOek sustatutako ekimen bat izan zen. 1974ko udan zehar, udazkenean abiatuko zen hitzarmenak negoziatzeko denboraldi berriari begira, CCOOek aldarrikapen plataforma bat osatu zuen, fabrika guztiek bere egin zezaten eta hitzarmenen negoziazio prozesuetan, euren berezko aldarrikapenekin batera, bertan jasotzen zirenak ere mahaigaineratu zituzten. Plataforma bateratu horrek aldarrikapen sozioekonomikoak eta politikoak jasotzen zituen. Izan ere, CCOOek oso modu argian bateratzen zituen eduki ekonomiko eta eduki politikoak, fabriken baitako negoziazioetara, erabatean politikoak ziren aldarrikapenak eramatea lortu zuelarik<sup>1209</sup>.

---

<sup>1207</sup> “En la huelga de Motor Ibérica (“no nos moverán” doinuarekin kantatzeko)” (*La rima del pueblo. 1973-1978*). Victor Manuel Arbeloa, *Obra poética... Op. Cit.*, 524-525 orr.

<sup>1208</sup> José Vicente Iriarte Areso, “Otoño caliente en Navarra. La huelga general del 11 de diciembre de 1974”, *Gerónimo de Uztariz*, 14/145. zkia, 1999, 105-121 orr.

<sup>1209</sup> Hauek ziren Plataformaren puntuak: hitzarmenen urte bateko iraupena, baina sei hileroko berrikuspenarekin; soldataren 6.000 pezetako goititzea langile guztientzat; eguneko 500 pezetako gutxieneko soldata, adin, sexu eta kategoria profesionalaren arabera bereizketarik egin gabe; asteko 40 orduko lanaldia (astelehenean ostiralera); hogeita hamar opor egun; gaixotasun, istripu, elbarritasun eta desentzuek kasuetan, soldataren %100a; erretiroa 60 urterekin egitea eta [erretiro sariaren] soldaten urteroko eguneratzea; IRPF eta Gizarte-Segurantzaren enpresen kontura; langileen Gizarte-Segurantzaren kontrola; behin-behineko kontratuen deuseztatzea; asanbladak egiteko askatasuna, baldintza bakarra hauek egin nahi izatea izango delarik; grebarako eskubidea; langile sindikatua; adierazpen askatasuna, langileak euren iritzia azaltzeagatik zigortuak, kaleratuak edo espetxeratuak ezin izatea; elkarte askatasuna, bai alor sindikalean zein politikoan; biltzeko askatasuna; arrazoi sindikal zein politikoengatik espetxeratu eta erbesteratu guztientzako amnistia; kaleratu guztien berriz hartzea; espainiar estatuko gainontzeko herriekiko nafar herriaren lotura erabakitze

Plataforma fabriketako asanbladetan onartu zen, langileek, euren lantokietan, CCOOk osatutako plataforma bateratu bat eta are honek jasotzen zituen aldarrikapen “politikoenak” nola edo hala bere egiten zituztela agerian utziz. Orduetik aurrera gertatuko ziren gatazkek, hitzarmenen negoziazioaren markoan nagusiki motibazio ekonomikoa izan zuten arren, ezin ukatu halako plataforma onartu zen momentutik, langileek berek gatazkari eduki politikoa ematea ere onartu zutela. Hau argiago ikusiko da abenduaren 11ko borroka egunean.

CCOOen estrategia plataforma hura fabrika guztietan, aldi berean, defendatzean oinarritzen zen. Enpresariei, aldarrikapenei erantzuteko epe bat eman zitzaion, azaroaren 15etik 20rako tartea. Bitartean, hitzarmenen negoziazioetan, lanuzteak bata bestearen atzetik gertatzen ziren fabrika desberdinetan, gatazka egoera orokortzen zelarik: lanuzteak edo grebak bizi zituzten fabriken kopurua bizkor handitzen zen; lanuzte hauek egiteagatik, langile asko zegoen zigortuta, lanarik eta soldatarik gabe; fabriketan, asanbladak egunero burutzen ziren. Hala ere, azaroaren 20an, enpresariak ez zioten plataformari erantzunik eman eta orduan, geroz eta fabrika gehiago gehitu zitzaizkion gatazka egoerari. Abenduaren 10ean, hamar mila baino gehiago ziren hitzarmenen negoziazioen harira geldirik edota zigortuta zeuden langileak.

1974ko udazkenaz aritzerakoan, gure protagonistek hainbat aspektu nabarmentzen dituzte. Lehenbizikoa, ordukoa, aldarrikapen ekonomikoak eta politikoak uztartu egin zituen gatazka uholde bat izan zela. Bigarrena, plataforma bateratu bat aurkezteak, Nafarroako langileria antolakuntzan pausu bat haratago ematea suposatu zuela. Hirugarrena, CCOOek protagonismo handia izan zuela:

74ean Nafarroa osoan mobilizatorako plan bat egin genuen, CCOOek, aldarrikapen ekonomikoak eta askatasunen ingurukoak barne hartzen zituen. Dena eman behar genuen nahi genuen guztia, askatasuna eta gai ekonomikoak, eskuratzeko. Eta Potasasen, enpresari proposamen bat aurkeztu genion eta erantzuteko data bat eman genion, azaroaren 20a zen, ongi gogoratzen dut. Handik aste gutxira, Nafarroa osoan greba hasi genuen, aldarrikapen horiek eginez. Beste fabriketan ere halako grebak egin ziren, Super Serren, Eaton Ibérican, Torfinasan... Nafarroa osoan, gutxi gora behera, eskakizun horiek berak aurkezten ziren. [J.U.. CCOOeko militantea]

orduan estrategia bat asmatu genuen berritzekoak ziren hitzarmenei begira [...] orduan gure estrategia, ba, enpresaz enpresa, eskakizunak banaka egin beharrean, oinarrizko ideiak jasotzen zituen baterako plataforma bat aurkeztea izan zen, gero enpresa bakoitzak bere eskakizunak erantsiko zituelarik. Eta gainera, enpresariei, erantzuteko gehieneko data bat eman genien, berdina guztiek: azaroaren 20a. Kasu gehienetan ez genuen erantzunik izan [...] eta 20an, enpresa desberdinetako milaka langilek greba egin genuen. Geroz eta langile gehiago gehitu zitzaizkigun eta abenduan, milaka kaleratu utzi zituen. Greba mobilizazio ikaragarria izan zen, milaka kaleratu eta milaka grebalari... azaroaren 20tik! Abenduaren 11an greba izan zen ere Euskal Herri osoan, oso handia izan zen, bereziki ezkerreko korronteen deitutakoa. Orduan mugimendu guzti hori oso serio ari zen jartzen, prestigio handikoa izan zen, jendeak grebarekin bat egitea, enpresariei ultimatum bat ematea... sekulakoa izan zen. [J.S.M.. CCOOeko militantea]

[udazken hartan] CCOOen genuen antolakuntzak pausu bat gehiago eman zuen eta Iruñerriko industria gerrikoko fabrika guztien, fabrika askoren koordinazio gertatzen da, ezta? plataforma berbera aurkezten dugu eta bertan bizitzarekin, bizi eta lan baldintzekin zerikusirik zuten gaiak agertzen ziren, baina hauekin batera, askatasun faltaren egoerarekin zerikusirik zuten gaiak ere. [...] 74 urteko azaroaren amaieratik aurrera, patronalak esaten du: “esto nada” eta oso

---

askatasuna. José Vicente Iriarte Areskok jasotzen ditu, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 201-202 orr.

jarrera hartze itxia azaltzen du. Orduan greba segida bat hasten da, fabrika askotan hiru hilabete ere greban egon zirelarik... ba Super Ser, Eaton, Motor Ibérica, AP Ibérica, Potasas bera... [...] nik uste dut horrek, ba pixka bat... CCOOek, zuen antolakuntza indarra, indar morala itxuratu zen, elkartasuna benetan ikaragarria izan zelako. [M.B.. CCOOeko militantea]

Protagonistek berek azpimarratutako aspektu hauekin batera, plataforma bateratu bera, nabarmendu beharreko beste elementuetariko bat da. Izan ere, langile asanbladek plataforma bateratu bat onartzeak, bi gauza interesgarri aditzera ematen ditu. Hasteko, plataformak jasotzen zituen aldarrikapenak bere egiterakoan, asanbladetan parte hartzen zuen langileen gehiengoak, aldarrikapen hauen atzean zeuden langile arazoak, jomugak eta desirak partekatuak zirela ari zen onartzen. Honekin batera, plataforma bera fabrika guztietan, aldi berean, defendatzean oinarritzen zuen estrategia baten alde egiteak, fabrikaz haratago mugimendu handiago baten parte izateko sentimendu bat bazegoela adierazten du, baita batasunarekin jarduteko borondate bat bazegoela.

1974ko azarotik abian zen gatazka dinamika honek abenduaren 11rako deitu zen borroka egunean izan zuen bere punturik gorena. Egian, ekimena CCOOen koordinakunde orokorrarena izan zen, udazkenerako bizitasunaren garestitasunaren kontrako hogeita lau orduko greba bat egitea proposatu baitzuen. Nafarroako ordezkariak ados egon zen proposamenarekin. Alta, koordinakunde orokorrak azkenean, proposamena presazkoa zela estimatu eta aurreragorako uztea erabaki zuen. Nafarroako eta Gipuzkoako CCOOek ordea, estatu mailako deialdia bertan behera geratu zen arren, abenduaren 11rako, bizimoduaren garestitasunaren aurkako eta askatasun demokratikoen aldeko deialdi bat egingo zutela iragarri zuten<sup>1210</sup>. Nafarroako CCOOek gogoz prestatu zuen mobilizazioa. Alde batetik, oraindik borborrean zegoen hitzarmenen negoziazioengatik borrokekin lotu zuen, deialdiaren aldeko propaganda guztia horretan oinarritu zuelarik. Bestetik, erakunde politiko eta herrikoi guztiak prestakuntzan lan egitera eta deialdian parte hartzera gonbidatu zituen. Abenduaren 10an CCOOek, auzoetako eta herrietako batzordeak, ikasle batzordeak, Federación Obrera Socialistak, Alderdi Karlistak, ORTk eta MCE, borroka egunaren aldeko deialdia egin zuten elkarrekin<sup>1211</sup>. Indar politiko eta herrikoiaren parte hartze honek, kutsu politiko argia eman zion mobilizazioari.

Deialdiak egiazko arrakasta izan zuen. Iruñerriko fabrika askotan lanuzteak gertatu ziren, hemezortzi mila langile inguruk parte hartu zuelarik. Ikasleak ikastetxeetatik atera ziren eta zenbait salgunek ere itxi egin zuen. Piketeak eta manifestazioak egunaren erabateko giroa izan ziren. Arrakasta honek hitzarmenen negoziazioen markoan jada martxan zegoen gatazka dinamika orokortuarekin zerikusirik izan zuen zuzenean. Izan ere, langile asko, fabriken baitako gatazkengatik geldirik zegoen jada eta bizimoduaren garestitzearen kontrako kontsigna, lehertu berria zen krisialdi ekonomikoaren kontestuan eta lan baldintzak negoziatzen ari zirenean, langileak eta are populazioaren parte handi bat elkartzen zituen elementua zen. Hala ere, erakunde politiko eta herrikoiaren parte hartzeak aditzera ematen duen bezala, ekintzak esangura politikoa izan zuen eta frankismoaren aurkako oposizioaren mobilizazioaren zentzua hartu zuen nolabait. Alde batetik, erregimenaren kontrako indar erakustaldi baten dimentsioa hartu zuen; bestetik, populazioaren kontzientzia politikoa astintzeko balio izan zuen.

Abenduaren 11aren ostean, langile asko ez zen bere lanpostura itzuli. Enpresa askotan, hitzarmenen negoziazioen bitartean gertatutako lanuzteak eta zigorrak

<sup>1210</sup> Gero, Bizkaiko eta Arabako koordinakundeak gehitu zitzaizkien ere, greba orokorra Euskal Herri osora zabalduz. Guk, deialdiak Nafarroan izan zuen eraginari jarriko diogu arreta.

<sup>1211</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 205 orr.

aurrera jarraitu zuten, egoera honek oraindik pasarte gatazkatsu gehiago eragingo zituelarik. 1975eko urtarrilean Potasasen gertatutakoa, haietariko bat izan zen.

#### 7.2.4 “Meatzarien matxinada”<sup>1212</sup>

Potasas de Navarra Nafarroako enpresa handienetariko eta garrantzitsuenetariko bat zen. Haren baitan hiru lantoki ezberdin biltzen zituen: meategia, fabrika eta bulegoa. Beraz, laneku kopuru oso handia kontzentratzen zuen. Iruñerriko langile mugimenduaren erdigune nagusienetariko bat zen, izan ere, bide ofizialez baliatzen zen sindikalista kopuru garrantzitsua zuen, CCOOen nukleo oso aktibo bat zegoen eta gatazka garrantzitsuen protagonista izan zen. Potasaseko gatazkek oihartzun handia izan dute beti nafar langile mugimenduaren historian. Horretan, Potasas Industria Institutu nazionalaren enpresa bat zela eta ondorioz, enpresari greba egitea, nolabait gobernuari greba egitea bezalakoa zela, hots, gobernuari desafio egitea bezalakoa zela zerikusirik izan zuen, hein handi batean. Desafio itxura hori izan zuen, 1975ko urtarrilaren hasieran meatzari talde batek meategietako batean buru zuen itxialdiak. Potasaseko meatzarien itxialdia, Motor Ibéricako grebarekin batera, mugarri da Iruñerriko langile mugimenduaren historian. Ez horrenbeste lan gatazkaren ikuspuntutik (1974ko udazkenetik abian zen gatazka dinamika berean sartzen da), ekintzak berak izan zuen esanahiarengatik baizik. Meatzariek erabili zuten borrokarako formak (muturreko ekintza bat, itxialdia) eta honek Iruñerriko langileriarengan sortu zuen erantzunak (greba orokor berri bat), dimentsio berezia ematen diote.

Potasaseko meatzarien itxialdia aztertzeko zenbait iturri kontsultatu ahal izan ditugu. Motor Ibéricako grebarekin gertatu bezala, José Vicente Iriarte Aresoren lanak itxialdiari eta greba orokorrari buruzko kontaketa zabala egiten du. Potasaseko langilea izan zen José Luis Díaz Monreal historialaria ere, luze aritzen da itxialdiaz, argitaratu berri duen Potasaseko grebei buruzko liburuan. Ildo berean, Potasaseko langilea eta lider sindikal nabarmendua izan zen Gaudencio Remón Berradek, aspaldi idatzitako artikulu batean, hurbilpen txiki bat egiten zuen ere<sup>1213</sup>. Ikerketa eta esperientzia pertsonala bateratzen dituen bibliografia honekin batera, “itxialdiaren egunkaria” izan da gure iturri nagusia. Itxialdian parte hartu zuen CCOOeko militante batek idatzitako eta ORTaren probintzia batzordeak argitaratutako eguneroko bat da. Hogeita bost pezetatan saltzen zen langileei ezarritako isunak ordaintzen laguntzeko helburuarekin<sup>1214</sup>. Epika ukitu batekin idatzita dago, meatzarien eta langileriaren heroikotasuna nabarmendu nahian. Guretzat erabilgarria izan da, bereziki, meatzariek itxialdia nola bizi eta sentitu zuten nolabait azaleratzen duelako. Eguneroko prentsak ere egunez egun meategian, Potasasen eta Iruñerria osoa gertatzen zenaren berri eman zuen. Honek, orokorrean, bizi zen tentsio egoeraz kezka larria agertzen zuen eta gertakarien oinarri politikoa salatzen zuen informazioa ematerakoan.

1974an lehenbiziko itxialdi bat gertatu zen Potasaseko meategietan. Hurrengo urtean gertatuko zenaren aurrekaria izan zen. 1973ko abenduan, bi kargu sindikal, asanblada batean Indecasa enpresako langileen gutun bat irakurtzeagatik zigortuak izan ziren. Zigor hauen kontra protesta egiteko berrehun ta laurogeita zazpi langilek itxialdi bat egin zuten meategietako batean. Halako muturreko ekintza bat egiten zen lehenbiziko aldia zen. Berez itxialdi motza izan zen eta sartu zirenetatik, asko, mailaka

---

<sup>1212</sup> Izenburu hori bera eman zion Gaudencio Remón Berradek Potasaseko lan gatazkei buruzko artikulu bati, “La rebelión de los mineros: conflictividad laboral en la minería navarra de potasa durante el franquismo”, *Estudios de Ciencias Sociales*, 7. zkia, 1994, 241-260. orr.

<sup>1213</sup> Gaudencio Remón Berrade, “La rebelión de...”, Op. Cit.

<sup>1214</sup> “atxilotuei, isundutakoei, kaleratuei, espedienteak egin dietenei eta errepresaliatuei laguntzeko” esaten zuen aipatu egunkariaren azalak. “Diario del encierro de la mina de Potasas”, J.U.-ek utzitako dokumentua.



ateratzen joan zen, osasun arazoengatik, itxialdia eraman ezin izateagatik edota familia arazoengatik<sup>1215</sup>. Hala ere, presioa egiteko inpaktu handiko tresna berri bat eman zien langileei, hurrengo urteko itxialdirako oinarriak eta irakaspenak utziz. Esaterako, lehenbiziko itxialdi hartan, parte hartzaile guztien erdigunea izateko “meatzariaren etxea” deituriko esparru berezi bat sortu zen, bertan janaria biltzen zelarik eta asanbladak eta bilerak burutzen zirelarik. Hurrengo itxialdian erdigune honek protagonismo handia izango zuen.

1975eko itxialdiak aurreko urteko udazkeneko gatazka uholdean izan zuen sorburu. Potasaseko langileak azaroaren 20tik zeuden greban. Hilabete luzez geldirik egon ostean, enpresaren erantzuna bi hilabete gehiagorako lanarik eta soldatarik gabeko zigor bat izan zen. Greba luze baten ostean jasanezina iragartzen zen zigorrari erantzuna emateko, muturreko neurri bat hartzea erabaki zuten, azken aukeraz baliatzea izango balitz bezala. Urtarrilaren 7an, berrogeita zazpi meatzari meategietako batean itxi ziren hamabost egunez:

Greba luzea egin ondoren, abenduaren hasieratik geunden greban eta hilabete osoa eman genuen greban. Urtarrilaren 5ean edo 4an (ez dut data zehatza gogoratzen) hiru hilabeteko lan eta soldata zigorra jartzen digute langile guztiei. Zigor honen aurrean, ba guk hori gaintitzea ezinezkoa zela, greba galdu genuela, pentsatu genuen eta orduan... denbora generaman itxialdia prestatzen, ezta? janaria eta dena genuen... hau da, aurretik pentsatua genuen ideia zen. Zigor horrek greba beste hiru hilabetez mantentzea ezinezkoa izango zitzaigula ikusarazten digu eta azkeneko ahalegina egitea [erabaki genuen] eta meategira sartu ginen. [J.U.. Itxialdia parte hartu zuen meatzaria]

Muturreko neurri bat izan zen, aurrean genuen muturreko egoerari aurre egitekoa. Egoera hura... erabateko porrota edo... baina ezin genuen grebarekin jarraitu, neurriz gaineko zerbait egin gabe, hori zen gure mentalitatea orduan. Greban egun asko ziren ya eta ezin zen gehiago mantendu eta orduan ba, azken aukeraz baliatzea bezalakoa izan zen, ezta? “vamos a ver si haciendo esto...” [J.S.M.. Itxialdian parte hartu zuen meatzaria]

1974ko udazkeneko gatazka uholdearen markoan Potasasen bizi zen gatazkaren jatorria berez, hitzarmen kolektiboaren inguruko aldarrikapenak izan ziren (soldata, lan orduak, gaixotasunak). Negoziazioak abiatzeko eta berauetan indarra izateko, langileek, lanuzteak abiatu zituzten, laster batean lanarik eta soldatarik gabeko zigorrak hasi zirelarik. Potasaseko langileek azaroaren 20an hasi zuten greba, enpresariak CCOOek prestatutako plataforma bateratuari erantzuteko epea amaitzen zen egun berean. Hilabete bat baino gehiago greban egon ostean, enpresak jarrera aldatuko ez zuela argi zegoenean eta gatazkak konpontzeko itxurarik ez zuela zirudienean, langileei bi hilabeteko lanarik eta soldatarik gabeko zigor berri bat jarri zitzaien. Hau izan zen itxialdiaren ekintza abiarazi zuena, zigorra jasateko ezintasuna eta grebari behingoz amaiera emateko beharra. Presiorako neurri bezala, ikusgarria zen, inpaktua sortzen zuen eta Nafarroako langileria erantzun sendo bat eragingo zuen ekintza bat behar zuten. Itxialdia. Lortu zuten, itxialdiak, meatzariekin elkartasunean, greba orokor bat piztu baitzuen. Greba orokor hura, berez, 1974ko udazkeneko gatazka uholdeak berekin ekarritako zigorren eta kaleratzeen aurkako beharrezko ofentsiba izan zen arren, nabarmentzekoa da langileen partetik ez zela erantzun bateratu eta orokorturik egon, itxialdiak elkartasunaren sentimendua eragin zuen arte.

---

<sup>1215</sup> Lehenbiziko itxialdi honi buruz, ikusi José Luis Díaz Monreal, *Las huelgas de...* Op. Cit., 112-129 orr. ORTko Iruñeko tokian tokiko komiteak ere haren kontakizuna egin zuen “Relato del encierro de Potasas (24-04-1974)” izeneko dokumentu batean, AFPI-PIFA, ORTaren fondoan, 8. kutxa.

Potasaseko meatzarien itxialdia 1975eko urtarrilaren 7an hasi zen, goizeko hamaiketan. Lanarik eta soldatarik gabeko bi hilabeteko zigorra ezagutu aurretik ere greba egoera ezin luzatuzkoa zelako, jada aurreko urteko itxialdiaren moduko ekintza ikusgarri bat egitea pentsatuta zegoen eta horregatik, oinarrizko prestalanak eginak zeuden. Alde batetik, amaierara arte irauteko prest zeuden meatzariak bakarrik parte hartuko zutelara erabaki zen, Bestetik, aurreko urtekoa baino luzeagoa izango zela aurreikusten zelako, azpiegitura minimo bat (janaria, mantak, sendagaiak) prest zuten momentua iritsiko zenerako. Momentua, zigorraren berri izan zutenean iritsi zen. Guardia zibilaren zaintza pean ez zegoen meategi zulo batera kotxez joan eta bertatik sartu ziren, hamabost egun lurrazpian itxita izan zituen ekintzari hasiera emanez.

Ondorengo egunetan elkarreratzeak egin ziren meategiaren ahoan eta Potasaseko herrixkan. Urtarrilaren 12an elkarreratze masibo bat egiteko lehenbiziko saiakera bat egin zen, baina guardia zibilak saiakera zapuztu zuen. Urtarrilaren 14ean Potasaseko langileen asanbladak elkarreratze berri bat deitu zuen meategiaren ahotik gertu zegoen Iruñerriko Zizur udalerrian. Alderdi eta erakunde herrikoiek Potasaseko asanbladaren deialdiarekin bat egin zuten eta CCOO, auzoetako batzordeak edota ikasle batzordeak, borrokan inplikatu ziren. Zizurren lehenbiziko asanblada bat egin ostean, sei mila inguru izango ziren bertaratuek, meategiaren ahoan martxa egin zuten, baina ezin izan zuten bertan kontzentrazioa egin<sup>1216</sup>. Asanbladaren bi ordezkariak bertan kontzentrazioa egiteko baimena eskatzen ari zirela, poliziaren karga batek, bertan ziren guztiak korrika eta landan zehar ihes egitera behartu zituen. Hala ere, kontzentrazioak berregiteko aukera izan zuen beranduago eta Potasaseko asanbladak, bertan zeuden guztiarekin batera, itxialdian zeuden meatzarien alde eta Nafarroan bizi zen egoera errepresiboa kontra, ekintza orokor eta kolektibo bat abiaraztea erabaki zuen. Greba orokorrerako deialdia izan zen. Deialdi horrek, meatzarietako elkartasuna eta 1974ko udazkenetik zigorrak eta kaleratzeak pairatzen zituzten langileen egoera lotu zituen. Izan ere, kontutan izan behar dugu Nafarroan, momentu hartan, 1974eko udazkeneko borrokan ondorioz, mila bostehun kaleratu inguru zegoela, 1975eko urtarrileko greba, kaleratzeen aurkako borroka bezala ere ulertzen ahal delarik. Zentzu honetan, Itxialdia 1974ko udazkenetik konponbide barik zegoen gatazko orokortuko egoera hari amaiera emateko azken ahalegin kolektiboa eta bateratua egiteko bultzatzailea izan zela esan daiteke nolabait. Azken batean, ordura arteko egoera gatazkatsu larriak greba orokorrerako deialdia bultzatzerik izan ez zuen bitartean, meatzarietako elkartasun sentimendua erantzun hori aktibatzeke gait izan zen.

Urtarrilaren 15an, Nafarroako langileek greba orokorra hasi zuten, kaleratutako langile guztiak berriz hartuak izango ziren arte, zigor guztiak indargabetuak izango ziren arte eta itxialdian parte hartzen zuten meatzari guztiak, euren eskakizunak lortuta, inongo errepresaliaren mehatxu pean irtengo ziren arte geldirik egongo zirela aldarrikatuz. Nafarroa osoko fabrika desberdinetako hogeita mila langile inguruk parte hartu zuen. Landaben industrialdea erabatean gelditu zen. Erdigunean eta auzoetan manifestazioak egiten ziren eta barrikadak ipintzen ziren. Iruñerrian giroa nahastu zen eta tentsioa handituz zihoan. Hurrengo egunean, urtarrilaren 16an, kontzentrazio berri bat egin zen meategiaren ahoan. Enpresako epaimahaikide zen Francisco Vitas eta Javier Erice, Iruñeko udaleko zinegotzi eta enpresako mediku, meategira sartu ziren meatzarietako hitz egiteko. Kanpoan bizi zen egoera zailaren berri eman zieten eta irtetzeko eskatu ere, gauzak oraindik larriagotzen ahal zirelako. Meatzarietako ordea, aurrera jarraitzea erabaki zuten eta are gehiago, kanpora aterako ziren Vitasen, Ericeren eta gaixo zegoen kide baten bitartez, irtetzeko euren baldintzak jakinarazi

---

<sup>1216</sup> Itxialdian parte hartzen zuen meatzari bat larri zegoelako berria zabaldu zen eta lehenbiziko kontzentrazioan zeuden guztiak meategiaren sarrerara abiatu ziren informazio gehiagoren bila. José Luis Díaz Monreal, *Las huelgas de...* Op. Cit., 147 orr.

zituzten: kaleratuen berriz hartzea, eskakizunen erdiestea eta immunitatea ateratzen zirenerako. Nafar langileriak greba orokorrean bere egindako aldarrikapenen oso antzekoak ziren.

Hori kanpoan ari zen gertatzen. Meategiaren barruan bitartean, hamar egun luze ziren jada meatzariak baldintza oso txarretan (hezetasuna, hotza, inkomunikazioa) bizi zirela. “Itxialdiaren egunkaria”, meatzariak hamabost egun haiek nola bizi izan zituzten eta euren egunerokoa nolakoa zen ezagutzeko iturri erabilgarria da. Bertan jasotzen diren datu eta bitxikerien artean, aipatzekoa da adibidez hasieratik janaria razionalizatu behar izan zela. Jatekoak zeintzuk ziren (galletak, gaztatxoak, ondu gabeko babarrunak edo txitxirioak, laranjak, esne kondentsatua) eta jaten zuten kantitate txikia ikusita, hasieratik gosearen aldetik eta elikaduraren aldetik itxialdia oso gogorra izan zela agerikoa da. Bestalde, elkarbizitza eta elkarlana oso ongi antolatuta zirela ikusten ahal da. Esate baterako, sukaldatzeko txandak egin ziren eta asanbladak egiteko ordutegiak finkatu ziren. Egunean bi asanblada burutu ohi zituzten eta hauei bukaera emateko, abesti herrikoiak edota Internazionala kantatzen zuten. Denbora pasatzeko, langileek meategian ezkututzen zituzten irakurgaiak (“En lucha”, “Fundamentos del leninismo” edota “Citas del presidente Mao”) irakurtzen zituzten, musean jolasten ziren eta langileen egoerari buruzko, egoera politikoari buruzko eta nazioarteko egoerari buruzko (Vietnam, Afrika, Hegoamerika) solasaldiak zituzten.

Egunkarian egiten den kontakizunetik, bereziki bi gauza nabarmenduko ditugu. Lehena, meategia bera, zehazki bizitza komunitarioa egiteko zen “meatzariaren etxea”, hitz egiteko, eztabaidatzeko eta hausnartzeko esparru aske bat bezala funtzionatu zuela. Bertan, asanbladak burutzen ziren, non ekimen guztiak eztabaidatzen ziren eta erabaki guztiak hartzen ziren. Askatasunez egiten ahal zuten, inori baimena eskatu behar izan gabe eta polizien zein salatarien beldur izan gabe: *“lurrazpian gauden arren, zoragarria da ‘herri aske’ batean gaudela sentitzea”*. Bigarrena, egoera zehatz batetik langile sentimendu adierazgarriak azaleratu zirela. Bi ingeniari lantokien egoera aztertzeke jaitsi ziren meategira. Meatzariak ez zieten inongo arazorik jarri eta zaintze zerbitzua egiten utzi zieten. Gerora ordea, batzuen osasun egoera okerrera egiten zuela ikusita langileek mediku baten bisita eskatu zutenean, enpresak ezetz esan zien. Meatzariak mespretxatuak sentitu ziren eta biziki haserretu ziren, egunkarian halako erreakzioak jasotzen direlarik: *“Ederto! -esan zuen batek- euren kezka bakarra lantokiak dira eta guretzat munizio ogi gogor bat bera ere ez. Hurrengoan, gure eskakizunei erantzuna emateko ez bada, ez diogu ezta San Pedrori hona jaisten utziko”*; *“honi buruz pentsatzerakoan amorrua sentitzen dugu. Hemen gaude, zikinak, gosea pasatzen, kiratsa darigula, pizti hesituen moduan kaka pilatzen... eta hiltzaile hauen kezka bakarra lantokiak egoera honetan ote dauden da”*; *“gu adeitsuak izan gara lantokiak ikusteko jaisten utzi diegunean; baina orain haiek guk behar dugun osasun hori bera ukatzen digute”*. Bukatzeko, konklusio argi bat ateratzen zuten: *“haientzat segurtasuna eta bizitza; herri langilearentzat, zoritxarrak”*.

Kanpoan, langileriak greban jarraitzen zuen eta giroa geroz eta gehiago nahasten ari zen. Meategiaren ahoan egiten zen elkarreratze oro, poliziak desegiten zuen. Egun haietako mobilizazioetan parte hartu zuen protagonista orok adibidez, bertan gertatu ziren kargen ondorioz landan zehar korrika egin behar izan zutela eta ondoren poliziak NANA kendu ziela gogoratzen du <sup>1217</sup>. Apaiz talde batek publikoki egin

---

<sup>1217</sup> Oso ongi gogoratzen dute, adibidez, M.S.S-k edota F.E.-k. Azken honek bereziki: “[putzura joan ginenean], itxialdia egiten ari zirela, sekulako [poliziarren] karga izan zen han, mundu guztia korrika hasi ginen... nik gehiago ezin nuenean, furgoneta batean sartu ninduten... suposatzen dut ORTko lagunak izango zirela, esan zidatela: “Móntate en esta furgoneta” [...] Eta Zizurrera iritsi ginen [...] [baina] guardia zibilak furgonetatik atera gintuen: “Bajen todos a la calle menos el conductor”, eta nik [pentsatu] nuen: “Adiós, ya la tenemos buena...”, nortasun agiria kendu

zuen meatzarien alde. Bosgarren kapituluan zirkuitutan parte hartzen eta jarduten ikusi dugun kleroaren parte zen. Langileen aldeko eta erregimenaren eta errepresioaren aurkako predikuak eman zituzten, batez ere langile auzoetako parroketan. Hauen ondorioz, haien kontrako isunen kopuruak eta zenbatekoak, ordura arteko marka guztiak hautsi zituzten. Jarrera hartze hauen punturik gorena, apaiz batzuek meatzariak atera arteko gose greba bat hasi zutenean gertatu zen. Artzapezpikuaren egoitzan itxialdi bat egin zuten eta bertan zirela, prediku berri bat prestatu zuten, non Nafarroan bizi zen egoera aztertu ondoren, langileek pairatzen zituzten injustiziak eta biltzeko eta elkartzeko zituzten oztopoak salatzen zituzten.

Urtarrilaren 17an, patronalarekiko harremanak hasi eta bideratzeko, fabrika desberdinetako langileek osatutako negoziazio batzorde bat osatu zen. Ordutik aurrera, Iruñerriak eta Nafarroak normalizazioa berreskuratu zuten gutxika. 20an langileak lanera itzultzen hasi ziren eta 21ean, nahiz eta zenbait fabriketan gatazkak oraindik konpontzeke geratu, normaltasun osoz lan egin zen. Meatzariak erabakia zuten jada egun horretan, arratsaldean, irtengo zirela. Hala egin zuten. “Meatzariaren etxea” garbitu ostean eta azkeneko asanblada bat burutu ostean, “No nos moverán” eta Internazionala kantatzen, meategia utzi eta kalera irten ziren<sup>1218</sup>. Poliziaren zaintzapean, enpresako bulegoetan identifikatuak izan ziren eta ondoren, autobusez, euren etxeetara eraman zituzten. Itxialdia egun horretan amaitu zen, baina Potasasen eta beste hainbat enpresetan, gatazkak ez ziren konpondu eta egoera gatazkatsuek, gutxi gora behera, martxoaren hasierara arte iraun zuten.

Itxialdiaren ostean, kaleratzeak etorri ziren. Enpresak auzibidea abiarazi zuen parte hartu zuten berrogeita zazpi meatzarien aurka eta gobernuak isun gogorrek ezarri zizkien. Lan Magistraturan burutuko zen epaiketa, borroka berri bat bezala planteatu zen. CCOOek mobilizaziorako deialdia egin zuen, “sententzia, mobilizazio langile eta herrikoi garrantzitsu baten ezean, alde zuzenetik erabakita” zegoelako: kaleratuak izango ziren<sup>1219</sup>. Epaiketa apirilaren 7an hasi zen eta espero zen bezala, kaleratzeak bidezkoetat jo ziren. Berrogeita zazpiak kalean geratzen ziren. Haietariko seik gainera, lanarekin batera, etxebizitza galdu zuten, hauek, jabetzan, enpresarenak baitziren. J.U. meatzari horietariko bat izan zen. Kaleratua izan ondoko bere ibilbidean aski ongi ikusten da berrogeita zazpiek zer nolako egoerari aurre egin behar izan zioten. Hasiere batean, bizi zen Atarrabiako bizilagunen laguntza eta elkartasuna ezinbestekoak izan zituen; gero, bestelako fabriketan lanik ematen ez ziotenez, egunean eguneko lanak burutu behar izan zituen; ia urte batez Atarrabiako Zirkulu Karlistaren ardura hartu zuen, gobernuaren aginduz elkarteak bota behar izan zuen arte. Azkenean, Nafarroako langabetuen batzordeko figura nabarmenduenetariko bat izaten amaitu zuen<sup>1220</sup>.

Gatazkek oraindik hilabete luze gehiago iraun zutela eta itxialdiko meatzari guztiak kaleratuak izan ziela ikusita, zer nolako balorazioa egin daiteke itxialdiaz eta haren ondorioz piztu zen greba orokorraz? Arrakastak eta porrotak ikusten ditugu. Itxialdiari dagokionean, arrakastatsutzat jotzen ahal da halako muturreko ekintza batek langileek borrokarako gaitasun eta konpromiso maila izugarria zutela erakutsi zuelako eta batez ere, 1974ko udazkenean abiatutako borroka guztiak, greba orokor batean bateratzea lortu zuelako. Greba orokorraren arrakasta, bateratze hori bera izan zen, bost egunez fabrika askotan gertatzen ari ziren gatazkak, gatazka kolektibo bakar

---

ziguten eta gero, landan zehar, berriro ere korrika, Etxabakoitzera. Gero nortasun agiriaren bila joan behar izan ginen eta gero, isuna jarri ziguten”. F.E.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-30.

<sup>1218</sup> “Diario del encierro de la mina de Potasas”, J.U.-ek utzitako dokumentua. 1219 José Luis Díaz Monreal, *Las huelgas de...* Op. Cit., 171 orr.

<sup>1220</sup> J.U.-i egindako elkarrizketa. Iruñea, 2011-06-10.

batean bihurtu zituela. Porrotak, emaitzei begiratzekoan ikusten ditugu. Kaleratuak eta zigortuak asko izan ziren, izan ere, udazkeneko borrokek eragindakoei, greba orokorrak eragindako kaleratu eta zigortu berriak gehitu zitzaizkien. Potasaseko berrogeita zazpi kaleratuena, adibide adierazgarriena izan zen. Nafar langile mugimenduak, antolakuntzarako, elkartasunerako eta borrokarako grina izugarria zuela erakutsi zuen arren, oraingoan ez zuen, 1973an ez bezala, greba orokorra mantentzeko eta enpresak kaleratutakoak berriz hartzera behartzeko gaitasunik izan. Aurrean patronal oso indartsu eta gogor bat aurkitu zuten. José Vicente Iriarte Aresok jasotzen duen bezala, itxialdian parte hartu zuen Jesus San Martin meatzariak, epe motzeko emaitzen honako balorazio adierazgarria egiten zuen 1985ean: *“emaitza praktikoak ezin txarragoak izan ziren. Eta bai kaleratuak izan ginen itxialdiko kideek, hala nola, gainontzeko langileek asko sufritu genuen”*<sup>1221</sup>. Alta, aipu berean, San Martinek borroka horrek epe luzera eman zizkien etekinak zeintzuk izan ziren iradokitzen ditu ere. Izan ere, 80. hamarkadan Potasasen itxeari ekin zitzaionean, gertakari haiek sortu zuten langileen borrokarako gaitasunaren oroitzapenak, enpresaren desegituratze prozesuan langileen interesak ahal bezainbeste babestua izatean lagundu zuen.

Guztiarekin ere, Potasaseko itxialdiak, langile borrokaren bi aspektu oso adierazgarri azaleratzen ditu. Lehenbizikoa, motibazioetan, aldarrikapen ekonomiko ez haratago, halako ekintza askoren erroan langileen sentimenduek eta emozioek oso paper garrantzitsua betetzen zutela. Klase sentimenduez ari gara. Kasu honetan, J.S.M.-ek berak, honela deskribatzen du sentimenduak izan zirela langileak halako muturreko ekintza bat burutzera eramane zituena:

Momentu hori bizitzen ez baduzu, ezin da ulertu nola ia berrogeita hamar pertsonak hamabost egun meategian itxita, kanpokoarekiko komunikaziorik gabe, soilik alde zurretik prestatuta genuen janariarekin... eman ahal izan zituzten. Oso ongi antolatzen ginenez, ba jada janari pixka bat sartua genuen... baina berrogeita hamar tipo, higienerik gabe eta hor, edonola lo egiten, kanpoan zer gertatzen ari den eta ateratzekoan zer gertatuko zaizun ez jakiteak eragiten dizun urduritasunarekin... guzti hori, ezin da ulertu bizitzen ez baduzu. Hau da, sumindura hori, azalpen arrazionalak baino, sentimenduek pizten dute. [J.S.M.. Itxialdian parte hartu zuen meatzaria]

Bigarrena, halako borroka, berauetan parte hartzen zuten langileak batzeko, euren artean lotura estuak eta harreman iraunkorrak eratzeko hala nola memoria kolektibo bat sortzeko esparruak eta momentuak izan zirela. Gaur egun, bizirik dauden itxialdiko meatzariak, urtero elkartzeko dira urtarrilaren 21ean, bazkari batekin meategitik atera ziren eguna ospatzeko.

### 7.2.5 Langile borroka azaleratzen duen langile identitatea

Gu elkartasunean oinarritzen ginen. Elkartasuna. Oso garrantzitsua zen. Asanblada ere, mundu guztiaren artean erabakiak hartzea... zer gehiago? Aldarrikatzaileak ginen, noski eta demokratik eta diktaduraren aurkakoak. [C.O.. Authiko langilea. CCOOeko militantea]<sup>1222</sup>

Elkartasuna... ez dakit, baloreak... orduan elkartasuna, errebeldia, altruismoa eta halako baloreak boladan zeuden. Guzti horrek ere, garai hartan, diktaduraren erorketarekin, frankismoarekiko hausturarekin eta gizarte berri batera –solidarioagoa... ez dakit, behartsuenekin gehiago identifikatzen zena- gindoazelako ikuspegiarekin zuen zerikusia.

<sup>1221</sup> Jesús San Martini egindako elkarrizketa, Navarra Hoy, 1985-01-13, 20-21 orr. Jasoa, José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 224 orr.

<sup>1222</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik bigarrenari dagokion testigantza. Mutilva, 2013-09-16.

Balore mota horiek asko lantzen genituen. [V.D.. Potasaseko langilea. CCOOeko militantea]

Aztertu berri ditugun gatazka hauetan, hasiera batean azaltzen genuen gatazken motibazioei buruzko eztabaida konplexuagotu egiten duten elementuek parte hartu zutela ikusten ahal da. Elementu hauek, hain zuzen, klasearen eraketa prozesuan sortuz doan langile identitatea osatzen duten elementuak dira. Horregatik, gatazkak identitate honen existentzia eta izaera azaleratzen duten momentuak direla esaten ahal da. Era berean, gatazkak, langile borrokak diren heinean, identitate hori bera osatzeko eta erreproduzitzeko esparruak dira. Motor Ibéricako greba edota Potasaseko meatzarien itxialdia esaterako, lan merkaturako sarbidea 70. hamarkadaren hasieran izan zuten gazte askoren lehen esperientzia sindikala izan zen, langile mugimendua eta klasea bera, haren bitartez ezagutuko zutelarik. Ildo berean, bi borroka hauek protagonisten memoria kolektiboan egun oraindik duten toki abantailatuak, euren langile bezalako identitatearen sorreran paper garrantzitsua ematen dietela adieraziko luke nolabait.

Gure subjektuek sortu eta partekatu zuten identitatearen elementuak identifikatzeko, protagonistek euren identitatearen parte bezala ezagutzen dituzten elementuak azaleratzean jarriko dugu arreta. Hauek, oinarritzko kontzeptu, ideia edo baloreak izan daitezke. Horretarako, ahozko iturrien azterketa bat egin dugu, langile identitatearen oinarritzko osagaiak zeintzuk ziren eta langileen jokabideen motorrak zeintzuk ziren identifikatzea helburu izan duena. Azalpenek toki gutxi hartuko dute eta protagonisten ahotsa izango da nagusi, protagonistak berak euren identitatearen parte izan ziren elementuak zeintzuk izan ziren argitzen dutenak izatea nahi dugulako.

Orokorrean, testigantzetan erraz identifikatzen ahal diren oinarritzko kontzeptu, ideia edo balore sorta komun bat atzeman dugu. Korrante ideologiko desberdinen berezko elementuen gainetik, protagonistek partekatzen duten oinarritzko substratu bat ikusgarri egiten da, iturri guztiengan elkartasuna, anaitasuna, taldea eta kolektiboa, berdinaletasuna, injustiziaren aurkako errebeldia, antikapitalismoa, batasuna edota ekintza kolektiboan oinarritutako erantzuna bezalako printzipioen indarra agerikoa delarik<sup>1223</sup>. Adibide batzuk ikusiko ditugu.

Antikapitalismoa edo kapitalismoari, sistema sozial eta ekonomiko bezala, kritika zorrotza egitea oinarritzko elementu horietariko bat da. Antikapitalismoa modu desberdinetara adierazten da testigantza desberdinetan, langileei gizatasuna kentzen duen sistema dela salatuz (fordismoaren eta lanaren antolaketarako modu berrien salaketa eginez, adibidez), langile klaseak pairatzen duen esplotazioaz ohartaraziz edota patroik kapitalistak egoera horren erabateko erantzule eginez:

Oso argi genuen nondik zetozen gure miseria guztiak; langileen prekaritatearen kontura, beti botere egarriz, baldintzak okertzeko egarriz, etekina ateratzeko egarriz eta irabazien egarriz zegoen patronal diruzale batengandik eratorzen ziren. Nik hori beti oso argi izan dut. [M.S.S.. Inquinasako langilea. CCOOeko militantea]

Langile bat ez da inoiz esplotatua izatearekin ados egongo: zuk lan egiten baduzu eta hamar produzitzen baduzu, zuri hiru ematea eta besteek zazpirekin geratzea, esaten dutenez, haiek direlako kapitala jartzen omen dutenak, ba... baina nondik atera dute kapital hori? aurretik

---

<sup>1223</sup> Aipatu izan dugu jada Rubén Vega historialariarentzat, hain zuzen ere aipatu elkartasuna, anaitasuna, injustiziaren aurreko errebeldia eta ekintza kolektiboa, langile mugimenduak partekatu zuen substratu orokor baten elementu nagusienak izan zirela. Rubén Vega, "Entre la derrota..." Op. Cit., 187-188 orr.

esplotatu egin dituzten beste langile batzuegandik, ezta? [C.O.. Authiko langilea. CCOOeko militantea]<sup>1224</sup>

Justizia sozialaren aldarria, berdinaletasuna eta injustiziaren aurkako errebeldia, beste bat zen. Aurrekoarekin oso lotuta dago, hein handi batean kapitalismoa bera sistema injustuztat hartzen delako. Izan ere, kapitalismoa injustizia eta desoreka sozial larriak ekartzen ditu berekin. Justizia soziala, helburu gisara agertzen da testigantza askotan, injustizia egoerekin amaitzeko helburua, berdintasun soziala lortzeko helburua, behartsuenak eta gehien sufritzen dutenak babesteko helburu, hots, gizarte berri eta justuago bat lortzeko helburua, militante askoren jardunaren motore bihurtzen delarik:

Niretzat kontzientzia soziala hori da, guztiok hobe bizi ahal izatea. Ez dakit ongi azaldu ahal izango dudana... baina hori da nik sentitzen dudana. Hobe bizi... nik ez du gehiago izan nahi, beste baino gehiago irabazi, baina bizitza duin bat izateko haina izatea bai; adibidez, lehen, zergatik joaten ahal ziren unibertsitateko aberatsak bakarrik eta pobreak ezin ziren joan? [F.E.. Inkuinasako langilea. CCOOeko militantea]

Mundu desberdin batekin amets egiten genuen, non justizia, askatasuna, berdintasuna, guztiontzako eskubideak... posibleak ziren [...] [J.M.E.. Super Serreko langilea. CCOOeko militantea]

Kolektibo edo talde bat izatearen sentimendua, honen batasuna eta ekintza kolektiboan oinarritutako erantzunak ere elementu garrantzitsu bezala agertu zaizkigu. Kolektibitate baten existentzia eta haren parte izatearen sentimendua nabarmena da protagonistengan. Arazo kolektiboak soilik ekintza kolektiboaren bitartez gaintzen ahal zirelako sineste sendoa, ere. Protagonistek berek azaleratu izan dituzten ekimen eta borroka kolektiboek, Txantreako kukuso merkatua bezalako ekimena edota greba orokorrak kasu, langileen artean "bat" izatearen sentimendu bat bazegoela eta "batasun" horren indarrean konfiantza bazegoela adierazten dute nolabait:

Hemen baldintza miserable batzuk daude eta orduan sentimenduek kolektibora jotzen zuten, kolektiboa hobetzeko aukera bakarra zela ikusten zenuelako... [J.S.M.. Potasaseko langilea. CCOOeko militantea]

Greban zaudenean, ba elkarri laguntzen diozu, edo dena delakoa, ezta? elkartasuna agertzen duzu... guk janaria bildu izan dugu Potasasekoentzat... ba bat ginela sentitzen genuelako. Gainera, momentu horretan konturatzen zinen zeinen tontoak izan gaitzkeen gure kasara joateagatik. Horregatik saltsan zaudenean, greban ezta? gaizki pasatzen ari zarenean, beldurra duzunean [...] hori oso argi sentitzen da... orduan elkarrekin gaude eta elkarri laguntzen diogu [...] guztiok kausa bera helburu bilakatzen dugunean, guztiak anai-arrebak gara, orduan sentitzen zara... nik uste dut poz edo zorientasun sentimendu moduko bat. [R.U.. Authiko langilea. CCOOeko militantea]

Guztiarekin ere, bereziki bi elementu izan dira protagonisten testigantzetan sortutako langile identitatearen elementu garrantzitsuak nabarmendu izan direnak: elkartasuna eta antifrankismoa. Biak, gatazka eta borroketan markoan bereziki ikusgarriak izan dira. Protagonistak berak izan dira bi hauek beste elementuen gaintik nabarmendu egin dituztenak, bai ia iturri guztiek, nola edo hala, modu argian edo zeharka, aipatu egin dituztelako eta baita, aipu hauetariko askotan, esplizituki, ezaugarri nagusi gisara berezitu egin direlako.

Zalantzarik gabe, elkartasuna izan da protagonistek gehien nabarmendu izan duten elementua, izan ere, lehenik eta behin *"langile mugimendua sortzen duen balorea da: elkartasunik ez badago, orduan ez dago langile mugimendurik, lan*

---

<sup>1224</sup> Iturriari egindako bi elkarrizketatik bigarrenari dagokion testigantza. Aisa, 2013-09-10.

*aldarrikapenak daude, baina ez dago langile mugimendurik; mugimendua, euren berehalako interes partikularren gaitetik lotuta dauden langileak elkarretatzea da, ezta? eta hori elkartasuna dagoenean gertatzen da, hau da, guztiak talde bereko kideak direlako kontzientzia dagoenean eta gaur hau izorratzen badute bihar ni izorratzen ahal nautela ulertzen denean [...] elkartasuna sortzen denean, orduan langile mugimendua existitu egiten da; hau da, askotan, langile mugimendua hitzak berak topiko itxura du, baina langile mugimendua elkartasuna da eta momentu horretan, bereziki 73 eta 78 urteen bitartean, elkartasun hori bazegoen”<sup>1225</sup>. Elkartasuna bereziki bi modutara azaldu da protagonisten esperientzietan eta biak, gatazkaren markoan ikusgarri egiten dira.*

Lehenbizikoan, elkartasuna, gatazka pizten duen edota gatazka hedatzen duen elementua da. Elkartasuna motibaziozat zuten gatazkez aritu gara jada. Hala ere, oraingoan berriz hauen dinamika nagusiak gogoratuko ditugu. Fabrika bakar baten baitan elkartasunezko gatazkak gertatzen ahal ziren, zigortutako edo kaleratutako langile bat edo batzuk (militante sindikalak gehienetan) babestu nahi zirenean, normalean. Alta, elkartasun gatazken dinamikarik adierazgarriena, borrokan zeuden beste fabrika edo lantokietako langileak babesteko egiten ziren elkartasun lanuzte partzialak edota grebak ziren. Frankismoaren bitartean Nafarroan bizi izan ziren bi greba orokor handienak Motor Ibéricako langileekiko eta Potasaseko meatzariekiko elkartasuna izan zuten pizgarri, ikusi dugun bezala. Are “piperraren gerran”, Iruñerriko langileriak nafar nekazariekiko elkartasun ekintzak burutu zituen, protagonista askok, xehetasun sinbolikoak baino izan ez zen arren, garaiko elkartasunaren eredu bezala jartzen duelarik<sup>1226</sup>. Ondoko testigantzek oso ongi adierazten dute nolakoa zen elkartasun greba hauen izaera:

Momentu horretan, balorerik garrantzitsuena elkartasuna izan zen, zalantzarik gabe. Hemen Nafarroan gertatu izan ziren grebarik garrantzitsuenak, elkartasunarengatik izan ziren. 1973an greba bat sortu zen Motor Ibérica enpresan izan ziren kaleratze batzuegatik eta langile pila mobilizatu egin ziren horregatik. Potasasen berdin... balore garrantzitsuena, ideologiaren gaitetik, elkartasuna zen, nolabait erantzukizuna hartzen zuen jendea babestu behar zela ulertzea. [JA.C.. Authiko langilea. CCOOeko militantea]

Gogoratzen dut nekazariak greba bat egin zutela eta gu haiekin ere greba egin genuela; beno, ez greba, baina haiekin elkartasunean lanuzteak egin genituen. Orain ez dut ongi gogoratzen baina nekazal munduko jendeak prezioengatik edo halako zerbaitengatik egin zituen mobilizazioak izan ziren eta gu, beno, ba babestu nahi izan genituen. Sentimendu bat zegoen horren atzean, “Nosotros somos un pueblo que queremos cambiar el mundo, porque no estamos nada contentos con el lugar en el que nos habéis colocado en el mundo. Y entonces tenemos que ir abriéndonos hueco y además ir quitándoos a vosotros y toda esa imposición de ideas que nos habéis metido y...” moduko zerbait. Batzuetan, sentimendu hauek ezin ditugu egitate errealean ikusi, gure buruan [eta bihotzean] daude gehiago. [J.S.M.. Potasaseko langilea. CCOOeko militantea]

Bigarrenetan, gatazkaren kontestuan ere, elkartasuna grebak iraunarazteko eta borrokan zeuden langileak laguntzeko abian jartzen ziren ekimen desberdinetan egiten da ikusgarri. Diru bilketak eta janari biltzeak izan ziren ekimen solidario errepikatuenak. Hauek gainera, langileena ez beste, bestelako sektore herrikoien inplikazioa ekartzen zuten berekin, dirua bildu eta janaria biltzeko, harreman sareak, auzo sareak, emakume sareak, ezinbestekoak gertatzen baitziren. Elkartasunaren

<sup>1225</sup> JA.C.-ri egindako elkarrizketa. Iruñea, 2013-01-16.

<sup>1226</sup> Besteak beste, P.I.-ek eta I.N.-k (P.I. eta I.N.-ri egindako elkarrizketa, Iruñea, 2014-01-07), J.S.M.-ek (J.S.M.-i egindako elkarrizketa, Iruñea, 2013-01-10), J.M.E.-k (J.M.E.-ri egindako elkarrizketa, Iruñea, 2013-05-06) edota R.M.-ek (R.M.-i egindako elkarrizketa, Iruñea, 2013-05-07).



balorea eta hura barne hartzen zuen langile identitatea, hartara, sektore hauekin partekatzen ziren. Ekimen hauei buruz mintzatzen diren testigantza asko bildu ditugu. Jarraian horrenbeste ageri dira protagonista askorentzat biziki garrantzitsuak izan zirela eta elkartasunaren balorearen adierazle esanguratsuena izan zirela islatu nahian. Kontutan izan behar dugu subjektu hauetariko askok greba luze eta gogorrak bizi izan zituela eta ondorioz, elkartasun forma hauek zuzenean jaso izan zituela:

Elkartasun handia zegoen. Auzoetako jendea, ba fabrikaren sarrera joaten ziren eta janaria eramaten zizuten... halako gauzak gertatzen ziren. Eta gero noski, bestelako fabrikek babesten gintuzten, ba dirua biltzen zuten...greban zeuden langileek ez zuten soldata kobratzen orduan ba, greba bat iraupen luzekoa zenean, diru bilketak egiten ziren (eta klandestinoak ziren, poliziak jazartzen zituen) greban zeuden eta kobratzen ez zuten langileak laguntzeko... familiak zituzten eta noski, mantendu behar zituzten. Ba guzti hori asko egiten zen enpresen artean eta auzoek, auzoek ere laguntzen zuten. [J.E.C.. Torfinasako langilea. CCOOeko militantea]

Orduan noski greba egunak pilatzen ziren, Eguberriak oso gogorrak izan ziren... azaroaren 20tik [geunden greban], egun guzti horietan soldata kobratu gabe, ez ohiko diru saria geldiarazita ... eta Eguberriari beti gastu gehigarriak dituzu, sentipen asko azaleratzen dituzten egunak dira... eta nik oroitzapen oso latzak ditut, nahiz eta ume bat izan oraindik, hogeita lau urte nituen... baina familiak nola zeuden, nola bizi ziren ikusten nuen. Orduan jaki-gordailuak antolatu genituen, herrietatik janaria biltzen genuen, dirua biltzen genuen eta gero, estuen zeuden grebalariei artean banatzen genituen. [J.S.M.. Potasaseko langilea. CCOOeko militantea]

Hilabete osoa geldirik egon ginen grebak izan genituen. Haietan, herrietatik joaten ginen janaria biltzen, elkartasun handia topatzen genuen bertan: barazkiak, babarrunak, olioak, txitxirioak... are dirua bildu zuten fabrikaren batean guretzat eta guk ere beste fabrikentzako dirua biltzen genuen, estu ibiltzen zen jendea laguntzeko... nik oso oroitzapen politak ditut, elkartasun horren oso oroitzapen politak, elkartasuna, anaitasuna... [J.M.E.. Super Serreko langilea. CCOOeko militantea]

Besteen babesa izatea oso ohikoa zen. Garai hartan, 74a edo izango zen, enpresa desberdinetan ehunka kaleratzen gertatu ziren. Eta egiten genuena Nafarroa osotik janaria biltzea zen, kotxeetan joaten ginen eta jendeak janaria ematen zigun. Biltegi bat genuen eta han, ba denetatik, lekariak, esnea, arrautzak eta halakoak gordetzen genituen. Eta gero, zonaldeko arduradunek janari hori banatzeaz arduratzen ziren [J.U.. Potasaseko langilea. CCOOeko militantea]

Greba luzeen kontestuan halako elkartasun adierazpenak funtsezkoak izan ohi ziren borrokari eusteko:

Nabarmentzeko ezaugarri bat da bai, garai hartan zegoen elkartasun maila, kristona zen! Enpresa batek greba hasten zuen eta zuzenean, aste horretan bertan, beste enpresa guztietan, behientzat askotan, nirea bezalako handienetan, elkartasuna antolatzen zen: grebaren iraupenean laguntzeko diru bilketak... ikaragarria zen. Horrela zen bai, horrela zen. Are gure grebak iraurazteko, asko luzatzen zirenean... hiru hilabetetako grebak izan genituelako, ezta? ni eta beste hogeita hamar kaleratu gintuztenean, hiru hilabetez egin genuen greba... beno, ba autoantolatu ginen, janaria eta elikagaiak biltzen genituen: dirua greban ez zeuden beste enpresengandik eta elikagaiak Nafarroako herrietatik ; modu honetan greba iraurazten ahal genuen. Orduan dirua familiei artean banatzen genuen, oso ongi aztertuta genuen zeinek zuen behar gehiago, seme-alaba kopuruaren arabera... eta hori. [P.O.. Eatoneko langilea. CCOOeko militantea]

Ildo horretan, 1971an berrogeita bost egun iraun zuen Imenasako grebaren kasuan, protagonistek gogoratzen dutenez, elkartasuna, langile borrokaren ezinbesteko elementua izan zen:

Beste enpresen elkartasunari esker eusten genien grebei; haiek ez zuten grebarik egiten eta egiten zutena, ba, dirua biltzea zen, oso ohitura klasikoa zen enpresa handietan, ezta? Dirua

biltzen zen bai, enpresetan dirua biltzen zen greban zeuden langileentzat. Hau da, esaten zen dirua jarri behar da langile hauentzako, ez dakit zenbat egun daramatela greban eta kobratu gabe; orduan dirua jartzen zenuen eta langileen artean banatzeko ematen zen. Imenasan, Imenasako greba gertatu zenean, ez zen hori bakarrik izan [...] janaria ere [banatzen] zen; [...] oilaskoak eta premiazkoena zena; kamioetan ekartzen zuten eta Imenasako jendearen artean banatzen zen, familien artean. Harrigarria zen, harrigarria. Kamioia Txantreara iristen zen eta langileei deitzen zitzaien: "a ver, K.P., no se que, no se cuantos, tal"; orduan nire ama joaten zen eta oilaskoak eta ez dakit zer gehiago ematen zioten. Eta horri esker, nik uste dut horri esker, lortuko genuela pentsatu genuen eta [grebari eutsi genion]. [K.P.. Imenasako langilea. CCOOeko militantea]

Greba berrogeita bost egun iraun zuen. Janari banaketa bat egin genuen, arraina, txitxirioak, babarrunak, azukrea... halako gauzak [...] eta horrekin, ba, geratuak ginen tokietara joaten ginen; adibidez Txantrean, toki bat adostuta genuen eta bertara joaten ginen eta langileen eta familien artean zegoen guztia banatzen genuen [...] dirua ere banatu zen, ba baten bat oso estu ibiltzen zelako eta orduan, ba, laguntzen geniolako. [E. A.. Torfinasako langilea lehenbizi eta Imenasako langilea gero. CCOOeko militantea]

Enpresa batek greba hasten zuenean, handik hamar egunetara konponbiderik ez bazegoen, enpresa guztietan elkartasun lanuzteak gertatzen hasten ziren eta dirua biltzen zen... gu berrogeita bost egun eman genituen greban eta horrenbeste denbora eutsi ahal izan genion beste enpresek guretzako dirua bildu zutelako. Eta zer egin genuen gu diru horrekin? ba furgoneta batzuk alokatu genituen eta auzo batzordeetan antolatu ginen; eta orduan [janaria] erosten genuen, ba adibidez legatza, txitxirio zakuak, babarrun zakuak, arroza... eta banatzen genuen, beste fabrikek ematen ziguten diruarekin batera. [I.B.. Imenasako langilea. CCOOeko militantea]

Greban zeuden fabriketzako dirua biltzen genuen, inoiz ez genien bakarrik uzten, janaria biltzen genuen... hau da, langileok janaria biltzen genuen greban zeuden fabriketako langileen artean banatzeko. Gu berrogeita bost egun greban egon ginenean, gogoratzen dut kamioi bat etortzen zela eta arrain izoztua eta halakoak ematen zizkigutela. [P.M.. Imenasako langilea. CCOOeko militantea]

Antifrankismoa ere askotan nabarmentzen den osagaia da. Langile mugimenduren jardura eta lan gatazken dinamika (bereziki atal honetan ikusi duguna), erregimenaren deslegitimaziorako funtsezko faktoreak izan ziren. Hala izan zen, hein handi batean, autoritate frankistek edozein protesta, mobilizazio, gatazka edo grebari, errepresio gogorarekin erantzuten ziotelako eta honek, langilieriengan eta are sektore sozial herrikoengan, errepresioaren arbuioan, kaleratu eta atxilotuekiko elkartasunean eta mobilizazioekiko begikotasunean oinarritzen zen kontzientzia bat sortuz joan zelako. Langile mugimenduaren, langile gatazkaren eta orokorrean, langile klasearen politizazioa, bide honetatik etorri zen neurri handi batean. Izan ere, egoera sozioekonomikoa, egoera politikoari lotu zitzaion, lehenbizikoaren aldaketa, bigarrenaren aldaketari lotu zitzaierarik. Frankismoarekin amaitzea, demokraziaren etorrera eta aldaketaren ideia bera, hartara, mobilizazioa aktibatzen indar gisara jardun zuten eta antifrankismoa, indar haien alde agertzen ziren sektoreak batzen zituen elementu gisara. Zentzu honetan, antifrankismoa langile identitatearen parte izan zen, langileak frankismoaren eta errepresioaren aurka eta aldaketaren eta askatasunaren alde batu egin zituelako:

Langileek nolabait, kontzientzia politikoa hartzen dute. Langileek euren bizi baldintzak hobetu nahi dituztenean eta biltzeko, adierazteko, manifestatzeko aukerarik ematen ez dien erregimen batekin topo egiten dutenean hartzen dute kontzientzia politikoa... orduan hausnarketa garrantzitsu bat dago: askatasun politikoa egon behar dira zeurea defendatu ahal izateko, hau da [...] langileengan sakon sartu zen ideologia, liderrak ideologia komunistei lotuta agertzen diren arren, egiatan... langileen artean, langile masaren artean nagusi zen ideologia politikoa, askatasun politikoei lotutakoa da, eta kito. Askotan ez dago ezer gehiago... baina hori ba, hazi egiten da, ezta? hazi egiten da. [JA.C.. Authiko langilea. CCOOeko militantea]

lido berean doaz beste protagonista askoren testigantzak. Berriz ere kopuru esanguratsua bildu nahi izan dugu antifrankismoa egiatan protagonistek berek funtsezko elementutzat ezagutzen zutela islatzeko:

Adibidez berrogeita bost eguneko greba hartan, ba hitzarmen hobeago bat lortzeko borroka izan zen [...] baina nik uste dut ere, nolabaiteko ñabardura politikoa zegoela, ñabardura politiko bat langile mugimendua, era berean, frankismoaren kontra ari zelako borrokatzen, erregimenaren kontra borrokatzen. Nik horrela ikusten dut. Eta hori jende askoren iratzartzea da, ezta? esatea “Oye, vamos a acabar con el franquismo”. Horrela da. Ez zen bakarrik enpresaren arazoez hitz egiten, arazo politikoez ere hitz egiten zen, gertatzen ari zen guztiaz... noski, orduan jada, estatu mailan, konfrontazio politiko ikaragarria zegoen. [K.P.. Imenasako langilea. CCOOeko militantea]

Nik uste dut funtsezko elementua frankismoa izan zela, horrek lan eta bizi baldintzak, ba, oso auzi garrantzitsu bezala agertzea ahalbidetu zuen; eguneroko baldintza ekonomikoak, oporrak, gizon-emakumeen arteko berdintasuna... demokraziarako aldaketa politikorekin lotzen ziren. [J.M.E.. Super Serreko langilea. CCOOeko militantea]

Zerk mugiarazten gintuen? Nik uste dut, funtsean, demokraziarekin nahi genuen guztia lortzen ahal genuela pentsatzeak, ezta? guri gertatzen zitzaizkigun gauzak, kaleratzeak, soldata baxuak, eskubiderik ez izatea... guzti hori, ba askatasun faltarengatik zela uste genuen, guzti hori demokraziarekin... [...] Beraz, nik uste dut, ba, momentu hartan, mugiarazten gintuena, askatasunaren beharra eta frankismoaren kontra borrokatzea zela. Eta gero ya, ba bestelako gizarte batengatik egiten genuen, gizarte hobeago batengatik... hura gizarte komunista zela ulertzen genuen, ezta? uste dut horrek mugiarazten gintuela, bai, berdinzaletasuna, justizia, oinarrizko premia guztiak asetua izatea... [R.M.. Bendibéricako langilea. CCOOeko militantea]

Bi gauzak elkarrekin zihoazen, ezta? gu klase sentimendu oso indartsuak genituen eta gero frankismoa zegoen, guztiak elkartzen gintuena, izango zinen joera [politikoaren] gainetik, guztiak etsai komunarekin amaitzeko batuarazten gintuena. Etsai komun hori desagertu zenean, gauzak aldatzen dira eta barreiatu egiten dira. [...] Frankismoak batzen gintuen, bai, nik uste dut diktadurak borrokan batu egin gintuela. [R.M.. Bendibéricako langilea. CCOOeko militantea]

Nik uste dut langile mugimenduaren abangoardiak, Nafarroan, kontzientzia antifaxista zuela argi eta garbi [...] mugimendu sozial garrantzitsu guztiek, guztiek, izaera antifaxista zuten, guztiak. [M.S.S.. Inquinasako langilea. CCOOeko militantea]

Nik askotan pentsatu izan dut gure borrokaren edukia, ba... egiatan, zer nahi genuen? Gu antifrankistak ginen... Garai hartan, iraultza egiteko aukera zegoela pentsatu genuen, nahiz eta iraultza horren edukia zeintzuk izango ziren oso argi ez izan, baina gure prestakuntza teorikoa, nik uste, berez, oso pobrea zen, egiatan ez genuen apenas prestakuntza ideologikorik. Gehiago irakurtzen zuen gutxiengo bat zegoen... baina egiatan, langile borroka Nafarroan, eduki ideologiko sakona zuenik ezin da esan [...] bazegoen aldaketarako nahi argia, hori bai [...] baina gure borroka, argi eta garbi, frankismoaren kontrakoa eta askatasun demokratikoen aldekoa izan zen [P.L.. Nafarroako Unibertsitateko ikaslea. PCE(i)-PTEko militantea]

Are gehiago, antifrankismoa langileen praxian beran egiten zen ikusgarria, langile mugimenduaren jarduerak berez, nolabaiteko desafio izaera zuelako:

are lortu ezin ziren aldarrikapenak egiten ziren; hau da, zuk patrioiari indar errepresiboen desegitea eskatzen zenion, poliziaren desegitea enpresen aldarrikapen plataforma guztietan jasotzen zen! Gainera, jendeak eztabaidatu eta onartutako plataformak ziren, ezta? Orduan, nolabait, horretan ere, ba, desafio moduko bat planteatzen zen; ez zenuen manifestaziorako eskubiderik, baina asko manifestatzen zinen, ez zenuen biltzeko eskubiderik, baina nahi eta behar zenituen bilera guztiak egiten zenituen... ez dakit, hori nolabait desafio bat zen... hau da, zure praxiak desafio puntu bat zuen, ba, botereak ezartzen zituen bideen aurrean eta botereak ezartzen zitzaizkigun mugen aurrean, gu beste gauza batzuk ezartzeko gai ginelako, ezta? eta hori

berez, botereari desafio egitea zen. [C.B.. Eraikuntzaren sektoreko langilea Bartzelonan. Autonomia obrera eta CNTko militantea]

Sortutako langile identitatearen elementu edota ezaugarri nagusi zenbait Nafarroako azken Langile Kontseiluan ikusten ahal dira. Zentzu horretan, 1975ko hauteskunde sindikaletan oposizioko indarrek lortutako garapenaren ostean kontseiluak martxan jarri zituen langile politikak behatzea adierazgarria izan daiteke elementu hauek praxian nola islatzen ziren ikusteko.

Kargu sindikalen dimisioen kanpainaren ostean eta 1971ko hauteskunde sindikalei boikota egin ostean, Nafarroako CCOOen baita aritzen ziren talde gehienek, egitura sindikaletara itzultzea erabaki zuten. 1975ean, hartara, CCOOeko militanteek, sindikalista independientek eta Sindikatu Bertikalaren baitan ibilbide luzea zuten sindikalistek, azkeneko Langile Kontseilu hartan bat egin zuten, bertan, lehenbizikoz, Nafarroan presentzia zuten langile erakunde ia guztiek presentzia izan zutelarik. Langile Kontseilu horrek, nola edo hala, ordezkatzan zuten langile mugimenduaren ezaugarri nagusienetarik bat bere egin zuen hasieratik eta korrante aniztasunaren artean, batasun sindikalaren alde egin zuen. Javier Yaben izan zuen lehendakari zat. Vascongada de Seguroseko langilea zen, Foru kontseiluko kidea zen, Nafarroako Amnistiaren aldeko gestorako kidea zen eta pertsona ospetsua zen probintziako bizitza politikoan zein sindikalean. Kontseiluan bat egiten zuten indar herrikoi ezberdinak elkartzeko kontsentsuzko figura zen<sup>1227</sup>.

Azkeneko Langile kontseilu hura, langile politika egiteko eta frankismoari oposizioa egiteko egiazko plataforma izan zen. Martxan jarri nahiz izan zituen proiektuek mugimendu sindikalean nagusi ziren klase baloreak jaso zituzten eta askatasunak eta demokrazia aldarrikatu zituzten. Kontseilu horren asmoen artean, bereziki bi nabarmentzen dira: lehena, klase sindikatu batasundun, demokratiko eta independente bat sortzearena, horretarako *“lantokietako asanbladetatik abiatuta, langileen [egiazko] ordezkariak bilduko zituen”* kongresu eratzaille bat eskatzen zuelarik; bigarrena, langile nafar guztientzat gutxieneko soldata baldintzak eta oinarriko lan baldintzak xedatzea helburu zuen Hitzarmen Orokor bat<sup>1228</sup>. Azkeneko hau kontseiluaren “proiektu handia” izan zen. Kontseiluak eta langile mugimenduak oinarrian zituzten batasunaren eta elkartasunaren printzipioak bikain erakutsi zituen, izan ere, harekin zuzentasunari mesede egiten zitzaion argi eta garbi langile ahulenak, enpresa eta tailer txikietan lan egiteagatik hitzarmenen negoziazioetan presioa egiteko indarrak ez zuten haiek, babesten zituelako. Enpresarietako eta administrazioarekiko negoziazioak luzeak izan ziren eta ez zuten espero ziren emaitzak eman, proiektuak azkenean aurrera egiterik izan ez zuelarik. Alta, klase elkartasunaren adierazpen esanguratsu bat izateaz beste, ekimenak, nafar langileen gehiengo eta sektore herritar garrantzitsuak mobilizatu zituen presiorako ekintza edo neurri sorta adierazgarri bat ekarri zuen berekin: hogeita hamar mila bat pertsona bildu zituen frankismoaren osteko legezko lehen manifestazioa kasu<sup>1229</sup>.

Kontseilu hartan parte hartu izan zuten protagonistek haren jardueraz oso balorazio positiboa egiten duten zentzu honetan:

---

<sup>1227</sup> Kontseiluaren osaeraz eta lehendakariaren figuraz gehiago, M<sup>a</sup> Luisa Garde Etayo, “El último Consejo de Trabajadores de Navarra y el convenio general (1975-1977): unidad y ruptura”, María del Mar Larraza (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, Ediciones Eunate, Iruñea, 2006, 225-260 orr., 228-29 eta 231-232 orr.

<sup>1228</sup> José Vicente Iriarte Areso, *Movimiento obrero en...* Op. Cit., 257. orr. Kontseiluaren politikaz eta proiektuez gehiago, M<sup>a</sup> Luisa Garde Etayo, “El último Consejo ...” Op. Cit., 233-235 orr.

<sup>1229</sup> M<sup>a</sup> Luisa Garde Etayo, “El último Consejo...” Op. Cit., 240-241 orr.; Nafarroako Hitzarmen Orokorraren negoziazio prozesuaz gehiago, 236-259 orr.

Bertan jende talde bat geunden, ez ginen guztiak CCOOekoak, baina gehiengoa ginen [...] JOCEko jendea zegoen, USOkoa eta bestelako jendea, halako erakundeekin inolako harremanik ez zuena, baina jende aurrerakoia, askatasun politikoak eta sindikalak nahi zituen jendea... orduan bertan elkartu ginen eta Langile Kontseilu oso borrokalaria osatu genuen, oso borrokalaria [...] Momentu hartan, Langile Kontseilu horrek, funtsean, diktaturaren kontrako politika egin zuen. Teorian, beste gauza batzuk egin behar zituen, baina momentu horretan... politika egin zuen... diktaturaren kontrako eta Sindikatu Bertikalaren kontrako politika. [J.E.C.. Azken Langile Kontseiluko kidea]

Langile Kontseilu hark, ba, lehenbiziko aldiz, gehiengo plural bat izan zuen, baina beti ere, bertikalaren ikusmolde edo printzipioen kontrakoa; nik uste dut orduan, bertan, zera abiatu zen... Sindikatu Bertikalaren azkeneko aldia izan zen eta guk bizi izan genuen... hain zuzen ere Francoren heriotzarekin batera gertatu zen eta horrek ba, urte haietan eta alor guztietan gertatu zen trantsizioaren garaira eraman gintuen, ezta? Nik uste dut oso esperientzia ona izan zela... beno, historia idazten ari ginen, ezta? historia berri bat, ikasteko urteak izan ziren, baikortasun eta boluntarismo urteak [...] Iraun zuen urte eta koska hura, guretzat esperientzia oso, oso aberasgarria izan zen, ezta? Ba... noski, egitura antolatuetara, bitarteko askotara, azpiegiturretara... sarbide ematen zigulako; eta Sindikatu Bertikalak ematen zuen legezkotasunarekin funtzionatzen ahal zenuelako, baina hain zuzen ere legezkotasun hura hautsi edo irauli nahi zuten ideietan oinarrituta. [M.B.. Azken Langile Kontseiluko kidea]

Parlamentarismo kutsu hori bazuen, ezta? ongi zegoen, ongi zegoen. Ez zegoen gauzak esateko esparru askorik eta han [kontseiluan] gauzak esaten ziren. Eta egia esan, [kideak geure artean] desberdinak ginen, baina ez horrenbeste... ez behintzat bertan esaten genituen gauzei begira, ez dakit... agian panfletoetan eta norberaren jatorrian, ba ñabardurak zeuden, baina orokorrean, diskurtsoan... han guztiak geunden demokraziaren, askatasun sindikalaren eta Sindikatu Bertikalaren desagertzearen alde. [J.Z.. Azken Langile Kontseiluko kidea]

Langile Kontseilu honek egiten duen lehenbiziko gauzatariko bat... nafar langile guztientzako oinarritzko hitzarmen batengatik kanpaina bat abian jartzea izan zen, ezta? "Hitzarmen Orokorra" zuen izena, "Nafarroako Hitzarmen Orokorra". Oso ideia ona zen. Sektoreen arabera, soldaten eta lan baldintzen arteko desberdintasuna oso nabariak ziren, ezta? ez zen inolaz ere berdin irabazten metalaren enpresa handietan eta metalaren beraren enpresa txikietan... eta are... are desberdintasun nabariagoak egoten ahal ziren bestelako sektoreekiko, ezta? adibidez, komertzioarekiko, ostalaritzarekiko; eta orduan, momentu horretan egin genuena, nik uste, ba aldarrikapen on bat izan zen... eta ez zen batere erraza, ezta? sektore guztientzako, langile guztientzako, lantoki guztientzako soldata eta lan baldintza minimoak xedatzen zituen aldarrikapen marko bat sortzea. [M.B.. Azken Langile Kontseiluko kidea]

Hizpide izan dugun langile identitatearen ezarpenaren arrakasta bereziki trantsizioan egingo zen ikusgarri. Izan ere, ikusi berri ditugun elementu nagusi hauek, gizarte sektore herrikoiegana hedatu ziren, hauen protestarako eta borrokarako moduetan adibidez, aipatu printzipioen eragina agerikoa izango zelarik. Noski, trantsizioaren garaiko langile borroketan ikusgarriak izaten jarraitu zuten, nahiz eta marko sindikal berriak, langile mugimenduaren dinamikak erabatean aldatzeko bidean jarri zituen<sup>1230</sup>. Baina are 70. hamarkadaren hasieran azaleratzen hasi eta gailurrera trantsizioaren irakite soziopolitiko betean iritsi ziren mugimendu sozialen (auzo mugimenduak, ikasle mugimenduak, gazte mugimenduak, mugimendu feministak, mugimendu ekologistak, esaterako) planteamendu eta antolaketarako zein borrokarako formetan, aipatu

---

<sup>1230</sup> Denborarekin, askatasun sindikalarekin eta sindikatuen legeztatzearekin, langile mugimenduaren dinamikak aldatu zituen. Batasuna eta pluraltasuna uztartzeko ezintasuna, lantokietako asanbladen indarraren galera, sindikatu handien kontzertazio politika... Guzti honek, ordura arteko jarduera eta mentalitate sindikalaren oinarriak eraldatu zituen, honekin ere langile identitatearen eraldaketa sakonak abiatuko zirelarik.

identitatearen elementuak azaleratzen dira<sup>1231</sup>. Auzo mugimenduak jarri ohi dira beti identitate partekatu honek, hein handi batean, sustatzen duen langile mugimenduaren eta herri mugimenduen arteko konfluentziaren adibide gisara. Bataren eta bestearen berehalako interes eta helburu zehatzak berez berberak ez ziren arren, langileen eta auzokideen aldarrikapenak euren oinarritzko ikuspegietan bat egiten zuten, bien helburu goienak gizartearen eraldaketa sustatzea eta oinarritzko eskubide eta askatasunak berreskuratzea baitziren<sup>1232</sup>. Iruñerriko auzo mugimenduko militante nabarmendua izan zen A.L.-k, langile identitatearen elementu nagusiak partekatzen zituen eta horrek, bere auzo borrokan eragina zuen, langile mugimenduaren eta auzo mugimenduaren artean zubiak eraikiz. Kasu honetan, elkartasuna eta antifrankismoa, “batzen” duten elementu gisara agertzen dira berriz ere:

hirigintza, hezkuntza, osasuna eta halako motibazioek gizartea mobilizatzen zuten Auzo Elkartearen bitartez. Baina hauek ez ziren mugimendu politikoetatik, askatasun nahietatik, errepresioaren gaitzespenetik, erabatean kanpo geratu, ezta? Auzo elkarte bezala ere askatasunaren aldeko eta Frankismoaren kontrako mugimendu sozial guzti horretan parte hartu genuen. Elkarrekin deitzea, Potasaseko grebalariei sostengua ematea... halako gauzak egiten genituen, berezko auzo jarduerak egiten jarraitzeaz beste, noski [...] [Beraz] langileen aldeko elkartasuna, askatasunaren aldeko borroka, esparru garrantzitsuak ziren guretzat ere, 1975eko Potasaseko grebarekin bat egitea, 73ko Motor Ibéricako grebarekin bat egitea [...] boterearen kontra egiten zuen ekimen ororekin bat egiten genuen. [A.L.. Sanduzelaiko Auzo Elkarteko militantea]

Ildo berean, frankismoaren azkeneko urteetan eta trantsizioaren garaian langile identitatearekin harremanetan ikusten dugun bestelako elementu bat euskaltzaletasuna da. Euskaltzaletasunak eta nazionalismoak presentzia txikia izan dute gure zirkuituan. Hainbat saretan agertu zaizkigu, besteak beste dantza taldeak zituzten eta ekitaldi folklorikoak antolatzen zituzten peñetan, mendi taldeetan, Iruñeko JOCaren amaierako bidea ekarri zuen krisian edota Nafarroako CCOOen presentzia txikia zuen ETAREN Langile Frontean, baina nolabait oraindik bigarren maila batean zeuden. Oraindik diogu aurrerago, bereziki trantsizioaren bitartean, garatu egingo direlako eta nafar gizartearen baitan oso presentzia garrantzitsua izango dutelako. Presentzia hau trantsizioaren bitartean nola bilakatu zen eta sortzen ikusi dugun langile identitatean zer nolako eragina izan zuen, geroko ikerketek aztertzen ahal duten ildo oso interesgarria da. Baina gure kasuan, ikerketaren markoa gainditzen duen prozesu bat da. Hala ere, trantsizioan zehar ikusgarria izango zen abiada hartze hura ahalbidetu zuten oinarriak aurreko urteetatik ipiniak zeuden jada, hauek, gure zirkuituko esparru, sare eta eragileen artean, nola edo halako konexioak sortuak zituztelarik.

Francoren heriotzaz geroztik bilakatu egin ziren langile mugimenduan sektore askotan eta baita mugimendu sozial ezberdinetan, hots, auzo mugimenduetan, ikasle mugimenduetan, gazte mugimenduetan, mugimendu feministetan edota mugimendu ekologistan, hala nola erakunde sindikal zein politiko gehienetan, ageriko euskaltasun kutsu bat garatu egin zen. Hura, inferentzia politiko edo ideologikoaren bidetik baino, modu espontaneo batean barneratu zuten mugimendu haietan biltzen ziren gizarte sektoreek, bereziki 60. hamarkadan zehar eman zen euskal kulturaren berpizkundearen bidetik eta frankismoak erabiltzen zituen neurri errepresiboak pairatzen zuten artean sortzen zen elkartasunaren bidetik<sup>1233</sup>.

<sup>1231</sup> Xavier Domènechek “protestaren kulturaren hedapenaz” mintzatzen da zentzu honetan, *Cambio político y...* Op. Cit., 200-209 orr.

<sup>1232</sup> Rafael Quirosa-Cheyrouze y Muñoz eta Mónica Fernández Amador, “El movimiento vecinal...” Op. Cit., 211-212 orr.

<sup>1233</sup> Emilio Majuelo, “Movimientos sociales y...” Op. Cit., 315 orr.

Musikazaletasunak 60. hamarkadaren bitartean izan zuen eragin eremu nagusienetariko bat kulturaren alorra izan zen. Alde batetik, hamarkada hartan, Euskal Herri osoan, euskal kulturaren egiazko berpizkundera eta eraberritzea eman zen, hizkuntzan, literaturan, musikan eta artean adierazleak izan zituena. Hizkuntza berpizte horren elementu nagusienetariko bat izan zen. Euskara naziotasunaren oinarri bilakatu zen, hura baserri edo familia hizkuntza izateari uztea eta kaleko eta eguneroko bizitzarako hizkuntza izatea beharrezkoa eginez. Horretarako, hura ardatz izan zuten ekimen desberdinak abiatu ziren, besteak beste euskara batuaren inguruko eztabaida, hizkuntzaren berreskurapenerako ahaleginak, ikastolen sorrera (gehienak 1965-1969 urteetan sortu ziren, gerraurreko ereduak berreskuratuta) edota helduen alfabetatzerako inizatibak, euskararen aldeko aldarrikapenak eta ekintzak borrokarako esparru bilakatu zirelarik. Honekin batera, literaturan, Gabriel Aresti bezalako autore berrien eskutik gaiak berritzen ziren; musikan, bereziki “Ez dok amairu” taldeari esker, euskal kantagintza moderno bat sortzen zen, doinu berriak zituena eta gai berriak jorrotzen zituena; eta artean, Jorge Oteizak, euskal tradizioaren bereizgarri antropologiko eta etnikoak modernitateera eramaten zituen (modernitate prehistorikoa). Guzti honekin, euskal gizarte modernoa euskaltzaletasunarekin identifikatzea ahalbidetuko zuten elementu berriak gizarteratzen ziren. Bestetik, aisialdiaren esparruetan, euskaltzaletasunari berezkoak zitzaizkion hainbat elementu folkloriko eta sinboliko erreproduzitzen ziren, dantza taldeak zituzten edo ekitaldi eta ikuskizun folklorikoak antolatzen zituzten aisialdi elkarteak edota ikurriña eramaten zuten eta euskal kantak abesten zituzten mendizale taldeak, euskaltzaletasun horren oinarritzko gizarteratzea gauzatzeko funtsezko elementu izan zirelarik.

60 eta 70. hamarkadetan euskaltzaletasunaren sozializazioa ahalbidetu zuen aipatu bigarren bitartekoa, Francisco Letamendiak “errepresioaren aurkako euskal nazionalismo berria” deitu duena izan zen. Honen arabera, 60. hamarkadaren amaieratik aurrera erregimenak euskal lurretan gauzatu zuen bereizkuntzarik gabeko errepresioak, berauetan bizi zen populazioaren sektore anitz bateratu egin zituen, bai jazarpenaren beraren sufrimenduan eta baita errepresio horren aurkako erantzunetan ere. Ildo horretan, errepresioa eta haren aurreko elkartasuna, euskaltzaletasunarekin identifikatzea errazten zuten faktore bihurtzen ziren, sare desberdinetan bat egiten zuten elementu desberdinak aipatu nazionalismo berri horretan biltzea ahalbidetuz<sup>1234</sup>. Honen adibide adierazgarri bat, Euskal Herriko elkarte egituraren zuzenean eragiten zuten prebentzio atxiloketak izan ziren. Hauen bitartez, errepresioa, elkarte kulturaletara, aisialdi elkarteetara, mendi taldeetara eta are kuadrilletara iritsi zen, ingurune sozial zabal hau, jazarpenaren esperientzian militantzia soziopolitiko aktiboarekin bateratuta izango zelarik. Honek, errepresioa gauzatzen zuten segurtasun indarren kontrako oposizioa eta errepresioaren aurreko elkartasuna ezaugarri nagusizat zuen nazionalismoaren sektore berri bat sortuz joan zen.

Zentzu honetan, errepresioaren eta errepresioaren aurkako erantzunaren bide honetatik, gizarte sektore eta kolektibo desberdinak ere sektore nazionalista berri haren inguruan kokatu zirela esan daiteke. Izan ere, guztiak jazarpenaren objektu izan ziren heinean, kleroak, langile mugimenduko militante nabarmenduek, langile eta presoek abokatuek, oposizioko talde politikoetako buruek eta ETAko militanteek, aipatu segurtasun indarren kontrako oposizioa eta errepresioaren aurreko elkartasuna partekatzen zituzten eta honek, loturak eta identifikatzeak sortzen zituen euren artean. Ildo berean, hain zuzen jazarriak izateagatik, euskal ikurak, ikurriña eta euskara esaterako, transgresiorako elementu bihurtu ziren, frankismoaren azkeneko urteetan

---

<sup>1234</sup> Ikusi Francisco Letamendia, Francisco Letamendia, *Historia del nacionalismo vasco...* Op. Cit., 331-341 orr. Ikusi ere, orokorrean, Francis Jaureguiberry, *Question nationale et mouvements sociaux en Pays Basque*, L' Harmattan, Paris, 2007.

eta trantsizioaren bitartean, euskal sinboloen erabilpena, askatasun eta demokraziaren aldarrikapenekin lotura estua izango zuelarik. Bestela esanda, euskaltzaletasunaren aldarrikapenaren eta antifrankismoaren arteko identifikatze bat gertatu zen. Identifikatze honen bidetik, ezker iraultzailearen erakundeek eta alderdi sozialistak zein komunistak, euskaltzaletasuna bere egin zuten nola edo hala eta momentu hartan, guztiek, bai euren programetan zein praxi politikoan, amnistia politikoaren eskakizuna, errepresioaren salaketa eta autodeterminazio eskubidearen aldarrikapena jaso zituzten. Demokrazia eta askatasunarengatiko borrokaren, aurrerakoitasun sozialaren eta euskaltzaletasunaren arteko lotura estua zelaren seinale.

Nafarroan, euskaltzaletasunarekiko identifikatze prozesu hau ematen zela hainbat alorretan ikusten ahal da. Hasteko, trantsizioa hasi zenean, oposizioko talde politikoek zein sindikalek, besteak beste ORT, EMC, PCE, PSOE, USO edota CCOO, Hego Euskal Herriko lau lurraldeak barne hartzen zituzten egiturak azaltzen zituzten. Honekin batera, erakunde nazionalisten egiturak ezartzen hasten ziren: eremu sindikalean LAB sortzen zen eta ELA berregituratzen zen<sup>1235</sup>; eremu politikoan, 1978an jaiotako HB koalizioak, 1979ko hauteskundeetan emaitza garrantzitsuak lortzen zituen Iruñean eta Nafarroako parlamentuan. Euskaltzaletasuna bestelako sektore sozialetan, mugimendu sozialetan eta ekimen sozialetan, ikusgarri egin zen ere. Besteak beste, lau herrialdeetako apaizek elkarrekin egin zituzten bilkurak eta adierazpenak; euskararen sustapenaren aldeko ekintzak eta ikastolen mugimendua<sup>1236</sup>, 1979an Iruñean udal titulartasuna zuen lehenbiziko ikastola publiko bat sortzea lortzerakoan mugarri berri bat ipini zuena; foruen eta demokraziaren aldarrikapen bateratua egin zuen euskal alkateen mugimendua, non Nafarroako hainbat herrietako alkateek parte hartu zuen; amnistiaren aldeko mugimenduek eta mobilizazioek Nafarroan izan zuten jarraipena (1977ko amnistiaren aldeko astea, adibidez); edota Mirentxu Purroy kazetari nafarraren zuzendaritza pena Iruñean argitaratzen hasi zen euskal gaiei eta euskal politikari buruzko Punto y Hora aldizkaria, izan ziren nafar euskaltzaletasuna azaleratzen eta gizarteratzen zuten bestelako eragile horiek.

Egiazki, trantsizioaren garaian jardun zuten eragile soziopolitikoengan (talde politikoak, sindikatuak, mugimendu sozialak) eta gertatu ziren mobilizazio sozial eta herrikoietan (amnistiaren aldeko asteak, 1978ko sanferminak edota euskararen aldeko kanpainak), euskaltzaletasuna, langile identitateen partetzat identifikatu ditugun bestelako elementuekin batera nahastuta agertu zen. Baina hori beste historia bat da, kontestu berri batean gertatzen dena, dinamika, eragile eta protagonista desberdinak barne hartzen dituena eta gure prozesuaren markoa gainditzen duena.

---

<sup>1235</sup> LABi buruz ikusi Emilio Majuelo, *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-200)*, Txalaparta, Tafalla, 2000. ELAri buruz, orokorrean, adibidez José Elorrieta, *Renovación sindical. Una aproximación a la trayectoria de ELA*, Txalaparta, Tafalla, 2012. Nafarroako ELAri buruz zehazki, Iván Giménez, *ELA en Navarra...* Op. Cit.

<sup>1236</sup> Ikusi Irene López Goñi, "Las ikastolas en Navarra: antecedentes, génesis y proceso de institucionalización (siglo XX)", Pauli Dávila (koord.), *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*, Biblioteca Nueva, Madril, 2004, 251-302 orr. eta Irene López Goñi, *Ikastola, un movimiento popular y pedagógico: Historia de las ikastolas de Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2007.





## ONDORIOAK

1956 eta 1976 bitartean, Iruñerrian, langileria berri bat eratu zen. Ez dago frankismoaren amaieran hemen gertatu ziren langile borrokak eta mobilizazioak ulertzerik, aurreko urteetan, berezko identitate bat, soziala, kulturala eta politikoa, agertzen zuen subjektu historiko berri bat sortu zela azaldu gabe. Ikerketa honek identitate horren sorrera Iruñerriko langileek aipatu urteetan bizi izan zuten prozesu baten emaitza izan zela erakutsi du.

Prozesu horren protagonistak XX. mendearen bigarren erdian abiatu ziren eraldaketa sozioekonomikoekin sortu ziren langile berriak izan ziren. 50. hamarkadaren hasieran, Nafarroak, nagusiki nekazaria zen lurraldea izaten jarraitzen zuen, bai bere egitura ekonomikoetan eta baita bere egitura sozial eta kulturaletan ere eta aldaketen bizkortasunak eta bizitasunak, gizartearen eta eragile sozialen berebiziko eraldaketa ekarri zuten berekin: nekazalgo tradizionalaren eta honen bizimoduaren desagertzea eta ingurune eta errealitate erabat berrietan bizi zen industria eta hiri langileriaren agerpena. Gizarte talde berri bat sortu zen, fabrika handietan kontzentratzen ziren, periferiako auzoetan bizi ziren eta alde zuzeneko esperientzia sindikalik edo erakunde sindikal historikoekiko harremanik ez zuten langile gazteak osatzen zutena. Alta, ez dugu esaterik industria langile berri hauek, berez, klase sozial berri bat eratu zutenik. Ikerketak jaso duena, klasea historikoki eratu bitartean, langile horiek klase bereko kide bezala ezagutzen zituen berezko identitate bat sortu zutela izan da. Identitate hau frankismoaren azkeneko urteetan egin zen ikusgarri, langileek orduan azaldu zituzten jarrera hartzeen eta jokaeren motorea izan zelarik.

Iruñerriko Langileria berria, garapen industrial eta kapitalista orok abiarazten dituen fenomenoek, hots, fabrika eta enpresa berri eta handien ezarmenduak, industria sektorean jarduten duen populazio aktiboaren hazkundeak eta nekazal sektorean jarduten duen populazio aktiboaren murrizketak, nekazal sektorearen birmoldaketak, klase egituraren eraldaketak, nekazal exodoak eta populazioaren hiritartzeak, hiriburuaren hazkunde azkar eta kontrolik gabekoak edota geografikoki zein sozialki bereiztutako hiri esparru berrien sorrerak, baldintzatutako marko batean sortu zen. Zentzu honetan, industrializazio prozesuak berekin ekartzen dituen baldintza estrukturalak Nafarroan eta Iruñerrian orduan ezarri zirela baieztatzerik izan dugu.

Iruñerriko langile berriak fenomeno hauetatik eratorri zirela baieztatuta, ikerketak langile hauek zeintzuk ziren, hau da, nondik zetozen eta nolakoak ziren argitu du.

Langileria berria osatu zuten elementuez aritzerakoan, hauek kanpotik etorritako emigranteak zirela, landa munduan jatorria zutela, nekazaritzaren alorreko jardueretan aritutakoak zirela edo nekazaria zen familia zutela eta orokorrean inolako kualifikaziorik gabeko langileak zirela nabarmentzen da maiz. Guk, Iruñerriko langile berri hura osatu zuten langileen artean, ezaugarri desberdinak agertzen zituzten langileak egon zirela erakutsi dugu. Hauen artean, bertako langileen, iruñarren, kasua adierazgarria da. Langileriaren berritasuna nabarmentzeko, hiri eta industria langile bihurtu ziren emigranteak izan ohi dira hizpide, azken batean, bizitokiaren aldaketak berekin ekartzen zituen bizimoduaren eta bizibidearen aldaketak, nekazal jatorriak eta alde zuzeneko industriarekiko lotura faltak, berritasunaren ideia oso ongi azpimarratzen dute. Horregatik, gutxitan jartzen zaie arreta bertako langileei, hauek agertzen zituzten ezaugarriak eta haiek ere bizi izan zituzten aldaketei (aldaketarik bizi izan bazuten). Baina bertakoak, fabrika handien ezarmenduaren aurretik tailer txikietan lanean aritutako langileak izan edo orduan lehenbizikoz lan merkatura sartzen ziren gazteak izan, fabrika berrietan lan egiten zuen laneskuaren parte ziren ere. Are gehiago, orokorrean langileria berriaren parte garrantzitsua izan ziren eta zehazki langile militantzia berrien parte oso garrantzitsua izan ziren. Langile hauen artean profil oso

berezi bat nabarmendu zen, gutxienez Lanbide Heziketa ikasi ondoren fabrika handietan lanean hasten zen langile gaztearena. Formakuntza mailarena oso ezaugarri adierazgarria da, hura kualifikaziorik gabeko langileria bat zelako irudikapenekin apurtzen baitu nolabait. Zehazki langile identitatearen sorreran parte hartu zuten Iruñean jaiotako langileen artean, ofizial eta industria maisuak, batxilergoa zutenak eta are goi mailako ikasketak (bereziki ingeniariak) zituztenak asko ziren, langile kualifikatuen presentzia oso garrantzitsu bat adieraziz. Bertako langile hauek bizi izan zituzten aldaketak ez ziren langile emigranteek bizitukoak bezain errotikoak izan, hein handi batean hauek ez zutelako ez euren bizitokia eta ezta euren bizibidea ere bat-batean aldatu. Hala ere, alde zuzeneko esperientzia profesionalik gabeko gazteek eta jada tailer txikiren batean lanean aritu izandakoek ez zuten esperientziarik fabrika handietako lanean, langile industrial bezala, erabat berriak zirelarik. Honetan, emigranteekin bat etortzen ziren.

Emigranteen artean, nafar landa mundutik etorritakoak izan ziren nagusi. Bereziki 60. hamarkadaren bigarren erdian estatuko beste probintzietatik langile ugari iritsi zen arren, nafar jatorrikoak gehiago izan ziren beti. Etorkin nafarren nagusitasun hau eta bertako langileen presentzia garrantzitsua kontutan hartuta, Iruñerriko langileria nagusiki nafarra zela esan daiteke.

Hirikoak edo landa mundukoak, nafarrak edo estatuko beste probintzietatik etorritakoak izan, langile berriek hainbat ezaugarri izan zuten komunean. Hasteko, gazteak ziren, gerra zibila bizi izan ez zuten belaunaldietako kideak. Ez zuten gerraren memoriarik eta ondorioz, ez zuten honek eragindako beldur “paralizatzailea” sentitzen. Ez zuten ere aurreko langile erakunde, militantzia eta kultura politikoeekin harreman zuzenik. Harreman falta hau Iruñerriko langileen kasuan oso nabarmena izan zen. Honek, hein handi batean, aipatu langileen jatorri nafarrekin izan zuen zerikusirik, euren familia inguruneko substratu kulturala, langile erakunde, militantzia eta kulturei baino, nafar gizarteari orokorrean berezkoagoak zitzaizkion tradizionalismoari, erlijiozaletasunari edota espresuki karlismoari lotuta agertzen baitzen.

Komunean izan zuten ere sektore industrial berrietako (metala, automobilgintzaren adarra, sektore kimikoa) fabrika handietako langileak zirela. Fabrika, esperientzia komun eta partekatua bizitzeko gune nagusienetako bat izan zen. Langileak, fabriken baitan, fordismoaren lanaren antolaketarako dinamikan, lantokiaren baitako lan harremanen dinamikan eta lan baldintza berdinetan homogeneizatu egin ziren eta elkarrekin bizitzen zituzten egoera hauetatik, lantokietan, auzi kolektibo berriak sortzen hasi ziren. Langileen esperientziak, hots, problematikak, beharrak eta jomugak, berdindu eta partekatu egiten ziren, bat egite horretatik, langileen arteko identifikatzeak sortu zirelarik.

Fabrikatik kanpo ere, langile berriak homogeneizatu zituzten bestelako egoera eta baldintzak bizi izan ziren. Hauek, langileen bizitzan eragina izan zuten esperientziak izan ziren ere. Bizitza maila orokorrean hobetu egin zen eta gerraosteko eta 50. hamarkadako egoerarekin alderatuta, langileen baldintzak hobetu egin ziren. Hala ere, etxebizitzarena bezalako arazok eta hezkuntzaren edota osasunaren alorrean oraindik oso agerikoak ziren desorekak, desberdintasun sozialak oraindik sakonak zirela eta hazkunde ekonomikoaren etekinen bidezko banaketa egiten ari ez zela agerian utzi zuten. Langileek ondorioz, banaketatik onura gutxien ateratzen zuen taldean bat egin zuten. Langile auzoetan bizitzen ziren errealitate berriek ere horretan lagundu zuten. Auzoak langileria berriaren bizi esparru bezala itxuratu ziren. Periferian kokatzen ziren eta hirigunetik argi eta garbi desberdintzen ziren, geografikoki zein sozialki, baina batez ere berauetan bizi ziren biziegokitasun baldintzei zegokionean. Berauetan ere, langileak, behar eta interes kolektibo berberak zituzten auzo bizilagun bezala identifikatu ziren.

Esperientzia hauek azaleratzearekin, ikerketak, langile berriek, hots, beste estatuetatik etorritako emigranteek, nafar nekazal munduko nekazari izandakoek eta bertako gazteek, langile kualifikatuek eta kualifikaziorik gabekoek, peoiek eta ofizialek, fabrikari, egunerokoan eta auzoetan, errealtate berdinar bizi behar izan zituztela eta berauetan bat eginda, berdinu egin zirela baieztatu du. Berdintze honek langileak talde bezala itxuratu zituen, hauek, bizitzea egokitu zitzaizen errealtateari eta hazkunde ekonomikoak berekin ekarritako arazoei, talde bezala erantzuna ematera eraman zituelarik.

Auzoa eta fabrika, errealtate berriak bizitzen ziren agertoki nagusiak izanda, erantzunak asmatu, borrorak abiatu eta alternatibak saiatu ziren esparru nagusienak izan ziren. Bien tartean, apostolutza mugimendu sekularrek batean zein bestean jardun zuten, erantzun horien asmatzean, borroka horien abiatzean eta alternatiba horien saiakeran funtsezko eragile izan zirelarik. Guk, esparru eta eragile hauek, zirkuitu moduko baten baitan kokatu ditugu. Langileek berek sortu zuten zirkuitu bat izan zen. Bertan, langileak elkartu ziren, esparruak sortu ziren eta langile horiek eta esparru horiek elkarlotzen zituzten sareak ehundu ziren. Bertan, esparru desberdinetan, langile haiek, bizitzen zuten errealtatea aztertu zuten, haren inguruko hausnarketa egin zuten, hari aurre egiteko erantzunak eta alternatibak pentsatu zituzten eta hauek praktikara eraman zituzten, euren errealtatea eraldatzeko, modu kolektiboan jardunez. Langile identitatea, zirkuitu honen baitan eratu zen.

Auzoaren esparrua aztertuta, langile auzoetan klase terminoetan definitu ziren auzo komunitateak osatu zirela erakutsi dugu. Berauetan, errealtate berberak bizitzen zituzten populazio homogeneoak osatu ziren eta populazio hauek, eguneroko bizitzaren arazoei aurre egiteko laguntza eta elkartasun sareak sortuz eta berezko bizitza sozial bat dinamizatzeko ekintza desberdinak abiatuz, komunitate bezala itxuratu ziren. Auzoak zirkuituaren parte bihurtu zituztena, populazioen homogeneotasuna zela medio, itxuraketa horrek klase edukiak hartu zituztela izan zen. Eduki hauek, auzo bizitza sozialean parte hartzen zuten eragile desberdinen (alderdi politikoaren, parrokoaren, apostolutza mugimenduen) eskutik sartu ziren beratueta eta sozializaziorako esparru herrikoien bitartez hedatu ziren beratueta. Langileen topagune bezala jardun zuten heinean, azkeneko hauek, langileen gizarteratze soziopolitikorako (langileak zirkuitura sartzeko) egiazko esparru bilakatu ziren.

Auzoetan berezko borroka formak sortu ziren ere: auzokideen bizi kalitatea hobetzea helburu zuten erantzunak, hots, antolakuntza moduak eta alternatibak. Hirigintza egoki baten alde, zerbitzu publikoen hornidura hobe baten alde eta berezko bizitza sozial eta kultural dinamiko, aberats eta herrikoi baten alde borrokatu zuten auzo elkarteak edota alternatiba ekonomikoak, sozialak eta kulturalak posible zirela erakutsi zuten Txantreako kukuso merkatua bezalako ekimen zehatzak izan ziren haierariko batzuk. Hauek, aldi berean, klase komunitateen gorpuztu zuten eta klase komunitateen existentzia adierazi zuten elementuak izan ziren.

Ikerketa hau bereziki argigarria izan da apostolutza mugimendu sekularrek, HOAC, JOC eta VOJ, zirkuituaren baitan izan zuten paperaren garrantziari dagokionean: sareak sortzeko, pertsonak elkarlotzeko, errealtatea ezagutzeko, hura aldatzeko praxi bat garatzeko eta ibilbide militanteak hasteko esparru abantailatuak izan ziren Iruñerrian. Izan ere, langileentzat, kezkek eta ezinegonak bideratzeko, jakin-nahiak asetzeko eta errealtatea ezagutu eta ulertzeko erreferentziatzeko tresna nagusiak, hasiera batean kasik bakarrak, izan ziren. Aldez aurretik bagenekien orokorrean Elizaren esparruek eta bereziki apostolutza mugimendu sekularrek, bai estatu mailan eta baita Nafarroan ere, langile mugimenduaren egituraketan eta demokraziaren etorreran funtsezko papera izan zuten. Bibliografia orokorrak eta tokian

tokiko bibliografiak hala iradokitzen zuten. Gure ikerketak, Iruñerrian horrela izan zela baieztatu du, langile mugimenduaren egituraketaren kasuan eta langile klasearen eraketaren kasuan, parte hartze horrek Iruñerrian izan zuen dimentsioa azaleratuz. Ildo horretan, frankismoaren bitartean militantzia soziopolitikoak batez ere tokian tokiko erreferentzia markoetan garatu zirenez eta ondorioz, hautabide soziopolitiko horiek, tokian tokiko testuinguruetan erabilgarritasun gehiago zuten esparruetatik bideratu zirenez, egin duguna, Iruñerrian esparru horiek apostolutza mugimendu sekularrak izan zirela demostratzea izan da.

Hala izan zen bereziki hiru faktoreengatik. Lehenbizikoa, Elizak berak, erlijiozaletasunak eta jatorri nafarreko langileen ingurune hurbilean topatu dugun substratu kultural tradizionalistak Nafarroan zuten pisu sozial eta kulturala izan zen. Bigarrena, Elizak berak, espainiarrak zein nafarrak, bizi izan zuen barne eraldaketa sakona izan zen, Kontzilioak berekin ekarritako gogo eraberritzailearen eskutik, haren parte batek jarrera hartze sozial berriak, erregimenarengandik aldentzea kasu, hartu baitzituen. Hirugarrena, apostolutza mugimendu sekularrak berak legezko eta Elizaren babespeko esparruak zirela eta honek jarduteko aukera eta nolabaiteko askatasuna ematen ziela izan zen.

Apostolutza mugimendu sekularrak, mugimendu egiazki emankorrak izan ziren. Berauetan uneko egoeraren azterketa espiritual zein soziala egiten zen, hausnarketa bultzatzen zen eta egoera hori aldatzeko zenbait neurri praktikan jartzen zen. Mugimendu hauetan eman zen formakuntzak (Behatu, Juzgatu eta Ekin metodoa) eta formakuntza horrek gizarteratu zituen edukiek (sindikalismoa, langile mugimenduaren historia eta are marxismoa), militanteen konpromiso mundutarra eta militanteen izaera bera moldatu zuten, ekintza eraldatzailerak bultzatzen zuen kontzientzia baten eta ezkerreko kultura kristau berri baten arabera. Mugimendu hauetan ibili zen militante askok, hartara, konpromiso mundutarra edo ekintza eraldatzailea gauzatzeko modu bezala, militantzia sindikal eta politikoak garatu zituen. Egindako ibilbide militanteen azterketak, apostolutza mugimendu sekularrak langileen militantziarako eta zirkuiturako sarbide nagusienetariko bat izan zirela eta berauetatik gero, gehienetan, militantzia sindikal eta politikoak, biak, garatu zirela azaleratu du. Ibilbideen bilakaerak ikusita, zalantzarik gabe, gizarteratze soziopolitikoak burutzea, formakuntza jasotzea eta ezkerreko kultura kristaua barneratzea, langile asko zirkuituan sartzea, hots, identitatearen eraketan parte hartzea eraman zuten fenomenoak izan zirela ondorioztatzen ahal dugu.

Langileek, fabrikaren baitan bizi zuten errealtateari, antolakuntza molde berriak garatuz eta borroka mota desberdinak abiatuz, hau da, langile mugimendua sortuz, erantzun zioten. 1958ko Hitzarmen Kolektiboen Legeak patroiekin lan baldintzak negoziatzeko aukera ematen zuenez, langile jarduerarako marko bat sortu zuen, zeinean langileak, negoziatioetara eramateko aldarrikapenak adostearren, elkarrekin biltzen ziren, elkarrekin eztabaidatzen zuten eta elkarrekin eskakizunak erabakitzen zituzten. Honekin Iruñerriko langile mugimenduaren egituraketaren lehen etapa bat abiatu zen, fabrika sortu eta garatu zena eta tresna ezberdinen erabilpenean funtsatu zena. Fabrika komisioren sorreraren eta kargu sindikalen erabilpenaren aldia izan zen.

Langileek, Sindikatu Bertikalaren ordezkartza karguen bitartez (ordezkari sindikalak, enpresa epaimahaikideak, sindikatu desberdinetako sail sozialetako lehendakartzak eta Langile Kontseilua), erregimenaren egituren baitan langile jarduera sustatzeko modu bat lortu zuten. Estrategia entristaren arrakasta hau, Iruñerriko langile mugimenduaren aldi honetako ezaugarri adierazgarrienetariko bat izan zen. Hauteskunde sindikaletara hautagaitzak osatzea eta hauek nagusiaraztea izan zen lorpen honek, langileek ordurako kontutan hartzeko antolakuntza maila garatzen ari zirela erakutsi zuen nolabait. Honen atzean, zirkuituaren baitan, fabrika desberdinetako

langileak, apostolutza mugimendu sekularretako militanteak, industria sektore desberdinetako fabrikak eta auzoetako sozializatorako esparruak elkarrekin lotzen zituzten sareak aurkitzen ditugu.

Iruñerriko fabriketako lehen komisiok, langile independenteek, apostolutza mugimenduetako militanteek eta neurri apalagoan militante komunistek sortu zituzten, fabriken baitan berezko lidergoak gauzatzeari esker erreferentziatzeko figura bihurtuz eta lankideen artean konfiantza sareak ehunduz. Komisio hauen bitartez, militantzia aktiboenen eta gainontzeko langileen arteko elkarrekintza gauzatu zen, honetan (hautatutako kargu sindikalen bitartez plataformak bideratzean, sinadura bilketetan, beso gurutzatuko grebetan, produkzio erritmoen murrizketan edo greba mugagabeetan), langileek, euren burua, interes, kezka, behar eta jomuga berberak zituen talde bateko kide bezala identifikatu zutelarik. Zentzu honetan, fabrika bera, hots, haren baitan sortu zen langile mugimendua, militante askoren gizarteratze soziopolitikorako esparru lehena eta ibilbidearen abiapuntua izan zen zuzenean.

Fabrika desberdinetako komisioren arteko koordinaziotik, CCOO jaio zen. Honekin, langile mugimenduak lantokiaren markoa gainditu zuen eta langileak, euren interes hurbilenez haratago zeuden antolakuntza egiturekin eta borroka dinamikekin identifikatzera eraman zituen. Hura posible izan zen, hein handi batean, fabriken baitako langile mugimendua, CCOO eta honen koordinakunde ezberdinak, zirkuitua zeharkatzen zuten sareen bitartez elkarlotuta zeudelako. Fabrika bakoitzeko komisioren militantzia nukleoek, nukleo hau eta fabrikako beste langileak biltzen zituzten “comisiones ampliadas” direlakoek, hiriko industria zonalde desberdinetako koordinakundeek eta Nafarroako CCOOen koordinakunde orokorrak, ahalmen handiko militantzia sarea osatu zuten. Haren bitartez, lantokian lankideak mugiarazten ziren, fabrika desberdinen borroka koordinatzen ziren eta elkartasun ekimenak abiatzen ziren. Guzti honek, inplikatzeko eta konpromiso maila desberdinetan bazen ere, langile asko sartu zituen zirkuituan baitan.

CCOO, langile ekintzaren aitzinean egon zen. Abangoardien mugimendu bat izan zen berez, militanteak gutxi, baina oso aktiboak zirelako. 60. hamarkadaren amaierako eta 70. hamarkadaren lehen erdiko lan eta gizarte gatazken buruan jarri, langile mugimenduaren erreferente bihurtu zen. Langile liderrak eta hauen ekintzak, mobilizazio eta protesta sozialaren abiarazle bezala jardun zuten, geroz eta populazio sektore gehiago langile mugimenduaren inguruan batuz. Hau, gatazkak eta grebak areagotzen ziren neurrian, langile mugimenduak bere aldarrikapenak sozialagoak eta politikoagoak egiten zituen neurrian eta langile militanteen kontrako errepresioa gogortzen zen neurrian gertatu zen.

CCOOen sorrerak, Iruñerriko langile mugimenduaren egituraketaren bigarren etapa bat abiatu zuen. Langile mugimenduaren dinamika aldatu zen nolabait, langile jardura bideratzeko plataforma desberdinak, legalak (karguak eta kontseilua) eta ilegalak (CCOO) zeudelako orain. Ekintzarako esparru desberdinak izan ziren, askotan estrategietan eta borroka moldeetan bat etortzen ez zirenak eta inoiz aurkari izan gabe, langileen ordezkari izateko lehian egon zirenak. Euren arteko desberdintasunak, lan gatazken markoan eta egitura sindikaletan parte hartzearen strategiaren erabilpenari buruzko eztabaidan ikusi ahal izan ziren argien.

Langile berrien kultura politikoak ezagutzea funtsezkoa izan da langileek zirkuituaren baitan erabili zituzten tresnak, sortu zituzten sareak eta hauetatik mugitu ziren eragileak eta helarazi ziren ideiak edo baloreak azaltzeko.

Iruñerriko langileen kultura politikoei dagokionean egiaztatu duguna, langileen artean kultura politiko “zaharren” memoriaren transmisiorako aukera gutxi egon zela

izan da. Frankismoaren bitartean transmisio hauek eman ohi ziren moduek ez zuten, Iruñerrian, apenas biderik izan. Alde batetik, langile berrien parte handienaren nafar jatorriak, landa mundukoa edo hiriburukoa izan, langileen familia ingurunea, orokorrean, substratu tradizionalistari, are zenbaitetan espresuki karlistari, lotutakoa izatea eragin zuen, familiaren baitan langile kulturen memoria transmisio gutxi eman zelarik. Bestetik, Iruñerriko fabrika berrietan eta langile berrien artean, alde zurreko militanteen presentzia eskasa zen. Iragan errepublikarraren eta errepresioaren memoria gordetzen zuten jarraitutasunak izan ziren, noski. Izan ere, errepublikano eta sindikalista izandakoen eta errepresaliatu izandakoen seme-alabak eta ilobak, langileria berriaren parte izan ziren ere. Baina kontua, militantzia berrien sorreran, transmisio eta memoria honek zer nolako eragina izan zuen azaleratzea da. Hots, memoriaren biziraupena eta transmisioa eman zela baieztatzen ahal den arren, egiatan garrantzitsua baina zaila dena, hauek langileen praxian izan zuten garrantzia balioztatzea da. Gure kasuan, langile identitate berriaren sorreran, eragin hori erabakigarria izan ez zela esan dezakegu.

Langile erakunde eta ideologia klasikoek ez zuten presentziarik izan zirkuituaren baitan eta ez zuten langile berrientzako baliozko tresna bezala jardun. Errepresioak jota eta erbesteratuta, espainiar errealtatearekiko lotura galdu zuten nolabait eta honek, euren gogoetabideak eraldaketa sozioekonomikoetatik eratorritako errealtate berrietara egokitu ezin izatea eragin zuen. Beraz, presentzia antolatuz gabe eta langileek bizi zituzten egoera berriei erantzuteko diskurtsorik gabe, oso zaila izan zuten praxirako tresna izatea. Alderdi komunista ordea, estatu mailan, langileen ekintzarako erreferente gisara gailendu zen. Izan ere, PCEak bai, bere estrategia eta diskurtsoa espainiar barne marko ekonomikora, sozialera eta politikora egokitzen jakin zuen (CCOOen sorreran izan zuen inplikatzeko honen adierazle da) eta honi esker, langileria berriarentzat praxirako baliozko tresna bihurtu zen.

Iruñerrian ez zen horrela gertatu. Tradizio kulturalak, hauen errealtate berrietarako egokitzapena eta praxirako tresnak, desberdinak izan ziren. Hemen, alderdi komunista, ez zen langile ekintzaren erreferentziatzeko esparrua izan. Horretan zehazki izan zuten bai gerra aurretik alderdiak izan zuten indar eskasa, PCEa frankismoaren bitartean berrantolatuko zuen militantzia sarrerik ez baitzuen utzi eta baita langile berrien artean, kultura politikoa bezala, presentzia handiagoa zuen tradizionalismoa bera ere. Honek praxirako beste esparru batzuk lehenetsi zituen.

Hemen, langileek erabili zituzten tresna nagusienak, erlijiozaletasunari oso lotuta zegoen tradizionalismotik eratorritak izan ziren, apostolutza mugimendu sekularrak. Hauek, praxirako baliozko tresnak ziren berezko kultura politikotatik abiatuta, errealtate berrietara egokitzen zirelako. Frankismoaren bitartean, eraldaketa sozioekonomikoek eta hauek sortutako errealtate berriek, nafar kultura politikoa eta mugimendu sozial klasikoetan aldaketa garrantzitsuak abiatu zituzten. Karlismoak eragin soziala galdu zuen, klase errealtate berrian zentzua galdu baitzuen nolabait. Ez zen fabriketan eta hirian sortutako egoera berriei aurre egingo zieten erantzunak planteatzeko gai izan eta langile berriek, horretarako, beste tresna batzuetara jo zuten, karlismoa behin betiko alboratuz. Zentzu honetan, karlismoaren erregimenaren aurkako jarrera hartze argiak eta sozialismo autogestionariorako aldaketa, errealtate berrietara egokitzeko saiakera bezala ulertzen ahal dira. Katolizismoak ordea, haren parte batek behintzat, arrakastaz buru zuen egokitzapen hura. Bilakabide hartan, obrerismo konfesionalak berezko identitate baten itxuratze prozesuan murgildu zen, klase errealtaterako egokitzuz, apostolutza mugimendu sekularrak bezalako esparruak sortuz eta berarekin langile kultura kristau berri bat hedatuz. Apostolutza mugimendu haiek eta ezkerreko kultura kristau hori, Iruñerriko langileek eskuragarrien izan zituzten tresnak izan ziren.



Klase erakundeak eta ideologiak Nafarroan gutxi errotuta izateak, errepresioak egindako garbiketak eta langile berriek aurreko militantzietatik harremanik ez izateak, erreferente kultural, ideologia eta antolaketa hutsune bat sortu zuten. Langile berriek beraz, ia-ia guztia, hots, esparruak, oinarri ideologikoak, antolaketa ereduak eta erakunde sindikal zein politikoak, sortzeke izan zuten. Hori egiteko, langile kultura kristau berria izan zuten erreferente nagusitzat. Hura ia-ia sortzeke zegoen eta horregatik malguagoa eta irekiagoa zen. Langile kultura kristau honen antzera, Iruñerriko langileria bera, alde aurreko erreferenterik gabe, eraketa prozesuan egotea, erabakigarria izan zen langileak, soziopolitikoki gizarteratzeko erreferente horiek bilatzerakoan eta euren kezka eta jakin-nahiak bideratzeko mugitzerakoan, osatzen ari zen kultura batetara gerturatzeko. Modu honetan, apostolutza mugimendu sekularretara eta parrokiak, kristaudi ikastaroak edota kristau komunitateak bezalako erlijiozaletasunaren bestelako esparruetara hurbildu ziren, langile mugimenduaren eta ezkerreko talde politikoen, lider eta azpiegitura asko, nukleo hauetatik atera zelarik .

Esparru hauetan abiatutako militantzien garapena, ezker iraultzailearen talde politikoetaraino bilakatu zen. Langile identitatearen eraketan parte hartu zuen langileen ibilbide militanteei buruz egin dugun azterketa argigarria izan da zentzu honetan, euren ibilbidea esparru hauetan hasi zenetariko asko ezker iraultzailearen talde politikoetaraino (batez ere ORTraino, baina baita MCEraino eta PCE(i)-PTEraino) bilakatu zela baieztatu baitu. Bilakabide hauei esker, ezker berriaren fenomeno politiko gehienak militante kristauen bilakaera pertsonal eta militantetik sortu eta garatu zirela eta elkar harreman honen ondorioz fenomeno hauek (euren kultura politikoak eta erakundeak) Iruñerriko langileriaren artean nagusi izan zirela egiaztatzeke aukera izan dugu.

Ezker iraultzailearen kultura politikoak langile identitate berriaren eraketan parte hartu zuten langileen artean izan zuen nagusitasun hau, langile horiek apostolutza mugimenduetan izan zuten sozializatzearekin izan zuen zerikusirik. Militante kristauak ezker iraultzaileko taldeetara eramane zituzten bilakabide horien atzean, mugimendu hauetan jaso zuten errealitatearen ezagutza, hausnarketa kritikoa eta errealitatearen eraldaketarekiko konpromisoa sustatzen zuen formakuntzak euren garatu zuten kontzientzia egon zen. Baita hamarkadaren amaieran, Acción Católicaaren krisiaren ondorioz espezializazioa eta autonomia galduta eta esparru sindikal eta politiko berriak sortuta, erakundeok tresna eraginkor izateari utzi ziotela ere.

60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran soziopolitikoki gizarteratu ziren gazteentzat, apostolutza mugimenduak jada ez ziren horren funtsezkoak izan, ordurako tresna berriak eskura izan zituztelako eta euren ibilbidea, zuzenean, CCOOen edota ezker iraultzailearen talde politikoetan hasten ahal zutelako.

Ikerketa honek azaleratu duen langile militanteen jatorri, sozializatzeko, bilakaera eta kultura politikoen itxuraketa hau, Iruñerriko langile mugimenduaren ezaugarri bereizgarrietan eragina izan zuten fenomenoak izan ziren. Bereizgarri hauetan nabarmenena, CCOOen baitan ematen zen indar oreka izan zen. PCEak oso presentzia gutxi izan zuen beti, ezker iraultzailearen taldeak erabat nagusi izan ziren bitartean. Era berean, nafar CCOOek estatuko koordinakundeak proposatutako ildoen kontra hobetsi zituen hainbat estrategia, kargu sindikaletan aritzeari eta egitura sindikaletan parte hartzeari uko egitea bezala eta 1971an burutzekeak ziren hauteskunde sindikalei boikota egiteko deialdia bezala, hein handi batean indar oreka honen ondorio izan zela esan daiteke.

Ezker iraultzailearen taldeen artean, 60. hamarkadaren amaieran eta 70. hamarkadaren hasieran, ezkerreko euskaltzaleatasunak presentzia gutxi izan zuen. Honek ikerketan tarte gutxi izan du zirkuituan berez, gure marko kronologikoan,

presentzia txikia izan duelako langileen artean. Kulturaren alorrera, aisialdiko esparruetara eta ETako Langile Frontearen zenbait militantek langile mugimenduaren baitan izan zuen parte hartzea mugatu zen. Zirkuituan, indarrez eta lehen mailako presentzia batekin, ez zen 70. hamarkadaren erdialdera arte azaldu, errepresioaren aurkako euskal nazionalismo berriaren fenomenoari lotuta, euskaltzaletasuna, diktaduraren aurkako eta askatasunen aldeko borrokarekin identifikatu zenean. Gerora, trantsizioaren markoan, zirkuituaren funtsezko osagai izatera igaro zen, esparru eta sare sindikal zein politiko propioak sortu eta egonkortu zituelarik (ELA, LAB eta HB, esaterako).

Ezker iraultzailearen talde politikoek eta ideologia berriek zirkuituaren baitan, bereziki langile mugimenduaren baitan, izan zuten presentzia handia izan zen arren, ezin da esan langile berriak egiazki ideologizatuta zeudela. Ideologia berez, langileen ekintzaren sustatzaile bezala, ez zen lehen mailako faktorea izan. Frankismoak eragindako kultura politiko klasikoaren desagerpenarekin, langileek, errealitate eta egoera berriei aurre egiteko kultura politiko berriak eta egokiak bilatu behar izan zituzten. Baina horretarako, teoria politiko handiak edo ildo ideologiko definituak baino, eguneroko praktikan asmatzen zen “ildo sasi ideologiko”<sup>1237</sup> bat izan zuten hizpide. Zirkuituaren baitan hautabide politikoak egiterakoan erabakigarriak gertatzen ziren faktoreak, honen adierazle dira. Ibilbide militanteetan ikusi ahal izan denez, militanteen bilakaera eta hautabideak, ideologian beran funtsatu baino, subjektuak kokatuta zeuden sareen araberrakoak izan ziren. Hau da, langileak talde politiko batean militatzera eramaten zituena, maiz, hautabide ideologikoa baino, inguruko sareak, hau da, apostolutza mugimendu sekularretan sortutako militantzia sareak, fabrika sortutako konfiantza sareak eta are adiskidetasun eta familia sareak, izan ziren. Hala ere, ideologiek izan zuten pisua zehaztea konplexua da eta hemen ondorioztatu dugun hau, ondorengo ikerketek beste bideetatik aztertzea ongi legoke. Militanteek erreferentziazat izan zituzten irakurgaiak eta autoreak zeintzuk izan ziren ikustea edota trantsizioaren bitartean eta ondoren militante haiek izan zuten bilakaera nondik eraman zituen arakatzea (nola eta ze zentzutan eraldatu edo ez ziren eraldatu atxikitze ideologikoak) abiapuntu interesgarriak izan daitezke horretarako.

Ideologia zehatzak baino, ekintza kolektiboaren motorea, langileek, bereizgarri ideologikoen gaineratik, partekatzen zuten berezko identitate bat izan zen. Identitate honek elkarrekin identifikatu zituen eta modu kolektiboan jardutera eraman zituen. Izan ere, helburu eta itxaropen komun eta partekatuak barne hartzen zituen, langileak klase berberaren parte zirela sentituaraziz.

Identitate hori osatzen, oinarrizko kontzeptu eta ideia sorta bat atzeman dugu. Berez, korrante ideologiko desberdinen berezko elementuen gaineratik, protagonistek partekatu zuten oinarrizko substratu bat izan zen, elkartasuna, anaitasuna, taldea eta kolektiboa, berdintzaletasuna, injustiziaren aurkako errebeldia, antikapitalismoa, antifrankismoa batasuna edota ekintza kolektiboan oinarritutako erantzuna bezalako printzipioetan oinarritzen zena. Substratu honen langile kultura kristauarekiko lotura, argia izan zen, hura, besteak beste pobreen lehentasuna, justizia soziala, zapalduen askapena, komunitarismo erlijioso, kapitalismoaren aurreko autogestio sozialista, herri subiranotasuna, askatasuna eta pluraltasuna bezalako printzipioak barne hartzen zituen ikuspegi batean oinarritzen baitzen. Iruñerriko langileen artean nagusi izan zen langile kultura kristauaren nagusitasunaren ondorio izan zen lotura hau.

Aipatu oinarrizko kontzeptu eta ideietatik, bereziki bik jardun zuen langileen arteko batasunerako eta identifikatzerako indar bezala: elkartasuna eta antifrankismoa.

---

<sup>1237</sup> Emilio Majuelo, “50eko hamarkada: langileriaren...” Op Cit., 121 orr.

Elkartasunak zentzu honetan nola jarduten zuen bereziki gatazkaren kontestuan egin zen ikusgarri, fabrikaren baitan lankideei elkartasuna adierazteko eta fabrikatik kanpo beste fabriketako langileei elkartasuna adierazteko grebetan. Halakoetan, berehalako interes ekonomikoa baino, klase bereko kideen arazoak berezki jotzea zen langileak mugiarazten zituena eta honek, langileak, interes eta kezka, balore, kultura eta proiektu bereziak zituen berezko talde bateko kide bezala definitzen zituen. Taldeko kideak jotzen zirenei babes eta elkartasuna agertzeko jokabideak, hartara, identitate komun eta partekatu baten existentzia islatzen zuen. Hain zuzen elkartasuna, berezko langile identitate gorpuztu baten presentzia adierazi zuten frankismoaren amaierako greba garrantzitsuenetarikoen (Motor Ibérica, Potasaseko meatzarien itxialdia) erroa izan zen. Are gehiago, gatazkaren kontestuan, elkartasun jarrerak ez ziren solik lanuzteak edo grebak egitera mugatu eta langileak ez beste, gizarte sektore herrikoiak inplikatuazten zituzten bestelako ekimenetan ikusi ziren. Manifestazioekin, elkarreratzeekin eta asanbladekin batera, diru eta janari bilketak izan ziren ohikoak.

Alta, antifrankismoa, sortutako identitatearen ezaugarri bereizgarria izan zen. Hasteko, aldarrikapen sozioekonomikoek erregimenaren markoan biderik izango ez zutelako ustearen eskutik, borroka ekonomikoek eta borroka politikoek, borroka bakar batean bat egin zuten, langileek, eraldaketa oso batengatik, eraldaketa ekonomiko, sozial eta politiko batengatik borroka egin zutelarik. Langileen artean erregimena deslegitimatzen eta antifrankismoa zabaltzen gehien lagundu zuen faktoretariko bat, diktadurak langile mugimenduaren aurka eta langile militanteen aurka gauzatu zuen errepresio gogorra izan zen. Langile antolakuntza garatzen zen heinean eta gatazkak areagotzen ziren heinean, militanteen atxilotetak eta kartzelaratzak biderkatu egin ziren, guztien interesen alde lan egiteagatik zigortuak izaten ari zirela ulertuta, hauek langileria arbuioa, salaketa eta elkartasuna eragin zutelarik. Modu honetan, errepresioaren kostuak handiak izaten ziren arren, honek langileria artean antifrankismoa hedatu zuen, errepresioaren aukako arbuioaren bidetik, langile borrokarekiko atxikimenduak areagotuz.

Modu honetan ere lotu zitzaizkion gizarte sektore herrikoiak langile identitateari. 70. hamarkadaren lehen erdiko langile mobilizazioak populazioaren geroz eta atxikimendu gehiago lortuz joan ziren berauetan fabrikak, auzoak, parrokiak, elkarteak, mendi taldeak, apostoluz mugimenduak, langile mugimendua eta talde politikoak elkarlotzen zituen ehundura herriko batek jarduten zuelako. Zirkuituaren dinamika bera izan zen. Ehundura horren baitan militantzia sozial, sindikal eta politikorako esparru eta alorrak ez ziren erabatean zatikatuta edo bereiztuta egon. Aitzitik, elkarri eragin zioten eta elkarren osagarri izan ziren. Horregatik, fabriketan eta langile mugimenduaren erakunde desberdinetan antolatuta zeuden militante aktiboen kopurua inoiz ikusgarria izan ez zen arren, langileria eta hiriko sektore herrikoien elkartasuna eta jomugak, sentimenduak eta ametsak bateratzea lortu zen, auzo elkarteek, apaizek edota gazte, ikasle zein emakume taldeek, langileen aldarrikapenekin, borrokekin eta finean identitatearekin bat egin zuten arte.

Identitate hura, klase identitate bat eta identitate antifrankista bat zen, "frankismoarekin amaitu eta bizitza berri bati hasiera eman nahi ziona"<sup>1238</sup> eta hura adierazten eta berresten zuten mobilizazio kolektiboetan parte hartuz partekatzen zena. Kapitalismoaren zein diktaduraren deslegitimatzean eta bataren zein bestearen aurreko alternatibak sortzean (hots, errealitatea eraldatzean) oinarritzen zen. Ildo horretan, identitate honen eratze prozesuaren bitartean, langileriak, eraldaketa soziala bultzatzeko gaitasuna zuelaz kontzientzia hartu zuen, diktaduraren azkeneko urteak eta trantsizioa bera, gizarte aldatzeko abagune handi bezala hauteman zituelarik.

---

<sup>1238</sup> Xavier Domènech, *Cambio político y...* Op. Cit. 196 orr.

Zentzu honetan, frankismoaren aurka borrokatzea, eraldaketa hura posible izango zen agertoki berri batengatik borrokatzea izan zela esan daiteke.

Aztertu dugun prozesuaren bitartean, klaseak historikoki bere identitatea hartu zuen. Hori, ordea, ez zen bere historiaren amaiera izan, langileria horrek eta sortutako langile identitateak, trantsizioa eta are 80. hamarkada zeharkatu baitzituzten. Baina 1976tik aurrera, trantsizio prozesuarekin, langileria mugitu zen marko sozial eta politikoa errotik aldatu zen. Trantsizioak kontestu berri bat ekarri zuen berekin. Gertakarien erritmoa biziagotu egin zen, dinamikak aldatu ziren, eragile berriak agertu ziren eta sortzen ikusi dugun langileriaren bilakaerak, norabide berriak hartu zituen. Askatasun sindikalak berekin ekarritako sindikatu desberdinen sorrera eta euren arteko nolabaiteko lehia; askatasun politikoak berekin ekarritako nafar ezkerrearen itxuraketa berria, non hautabide batzuen gainbehera (ezker iraultzailearen taldeak), beste batzuen sendotzea (alderdi sozialista) eta berrien agerpena (ezker abertzalea) gertatu zen; eta euskaltzaletasunak bi esparrutan egin zuen sarraldia, langileriaren bilakaeran eragina izan zuten trantsizioak ekarritako berrikuntza haietariko batzuk izan ziren.

Halako aldaketek ez zuten, ordea, langile identitate berri bat sortu. Langileria bilakatuarazi egin zuten, baina ez zuten desagertuarazi. Ez behintzat 90. hamarkadara arte. Krisi ekonomikoari, birmoldaketa industrialari eta gobernu sozialistaren politika ekonomikoari aurre egin behar izan zion langileria, sortzen ikusi dugun langileria hori bera izan zen. Are gehiago, 1988ko abenduko greba orokorrean, langileria horren presentzia ikusi izan ahal zen. Baina azkeneko aldiz. Krisitik atera zena eta birmoldaketa industrialetik atera zena, jada ez zen langileria bera, kapitalismoa aldatuz joan zen heinean, frankismoaren azken urteetan ezagutu zen langileriaren errotiko moldaketa eta zenbait kasutan, desagerpena gertatu baitzen.



## **BEGIRATUTAKO ARTXIBATEGIAK**

Administrazioaren Artxibategi Orokorra (Alcalá de Henares)

Alderdi Komunistaren Artxibategi Orokorra (Madril)

HOACaren Artxibategi Orokorra (Madril)

JOCaren Artxibategi Orokorra (Madril)

Lazkaoko Beneditarren Fundazioaren Dokumentazio Gunea (Lazkao)

Nafarroako Artxibategi Orokorra (Iruñea)

Pablo Iglesias Fundazioaren Artxibategi Orokorra (Alcalá de Henares)

## **BEGIRATUTAKO PRENTSA**

Egunkariak:

Diario de Navarra

El Pensamiento Navarro

Erakundearen argitalpenak:

En Lucha (ORT)

Mundo obrero (PCE)

## **BEGIRATUTAKO ALDIKARIAK**

Garaikideak:

Pregón

Punto y Hora de Euskal Herria

Egunoak:

Ezkaba

Iruñerrian Auzolan

Txantrean Auzolan



## AHOZKO ITURRIAK

J.D.C.-ri egindako elkarrizketa, 2009ko otsaila. J.D.C. Huarte erakuntza enpresako langile zen eta Txantrea auzoko eraikuntzan parte hartu zuen.

N.L.-ri egindako elkarrizketa, 209ko otsaila. N.L. Martinicorena eraikuntza enpresako langilea zen eta Txantrea auzoko eraikuntzan parte hartu zuen.

S.G.-ri egindako elkarrizketa, 2009ko maiatza. S.G. Martinicorena eraikuntza enpresako langilea zen eta Txantrea auzoko eraikuntzan parte hartu zuen.

J.M.M.-i egindako elkarrizketak, 2010eko martxoa eta 2011ko urria. J.M.M. Mina enpresako langilea zen. Iruñeko HOACeko eta USOko militante izan zen.

E.A.-ri egindako elkarrizketa, 2010eko martxoa. E. A. Torfinasako langilea zen. Iruñeko HOACeko militantea izan zen eta Torfinasako fabrika komisioko sortzaileetariko bat izan zen.

F.A.-i egindako elkarrizketa, 2010eko otsaila. F.A. Imenasa langilea zen.

E.P.M.-i egindako elkarrizketa, 2011ko ekaina. E.P.M Potasaseko meatzaria izan zen. 1975eko meatzarien itxialdian parte hartu zuen.

JE.C.-i egindako elkarrizketa, 2011ko ekaina. JE.C. Torfinasako langilea zen. Torfinasako fabrika komisioko lehen kideetariko bat izan zen, VOJen inguruan ibili zen eta Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu zuen.

M.G.-ri egindako elkarrizketa, 2011ko ekaina. M.G. Torfinasako langilea zen. VOJeko militantea, Torfinasako fabrika komisioko lehen kideetariko bat eta CC OOeko eta ORTko militantea izan zen.

C.A.-i egindako elkarrizketa, 2011ko ekaina. C.A. Iruñeko JOCeke eta USOko militantea izan zen.

J.U.-i egindako elkarrizketa, 2011ko ekaina. J.U. Potasaseko meatzaria zen, CC OOeko eta ORTko militantea izan zen. Langabetuen Batzordeko kidea izan zen.

P.U.-ri egindako elkarrizketa, 2011ko ekaina. P.U. El Pamplonicako langilea zen. CC OOeko eta LCko militantea izan zen.

I.B.-ri egindako elkarrizketa, 2011ko abuztua. I.B. Imenasako langilea zen. Nafarroako CC OOen sorreran parte hartu zuen. LKI-ETA Viren inguruan ibili zen.

P.M.-ri egindako elkarrizketa, 2011ko abuztua. P.M. Imenasako langilea zen. CC OOeko militantea izan zen eta LKI-ETA Viren inguruan ibili zen.

L.O.-ri egindako elkarrizketa, 2011ko iraila. L.O. apaiza zen. Arrotxapea auzoko Virgen del Río parrokiako erretore izan zen eta JOCeke kontsiliariora izan zen.

J.L.A.-ri egindako elkarrizketa, 2011ko abendua. J.L.A. El Pamplonica enpresako langilea zen. Iruñeko HOACeko eta USOko militantea izan zen.



J.M.V.-ri egindako elkarrizketa, 2001ko abendua. J.M.V. Penibéricako langilea zen. Iruñeko HOACeko militantea izan zen. Iruñeko zinegotzi izan zen 1970-1979 bitartean, alkate izatera ere iritsi zelarik.

M.A.M.-i egindako elkarrizketa, 2011ko abendua. M.A.M. Penibéricako langilea zen. Iruñeko HOACeko militantea izan zen, Iruñeko zinegotzi izan zen 1966-1979 bitartean.

A.L.-ri egindako elkarrizketa, 2012ko urria. A.L. Sanduzelaiko Auzo Elkarteko eta MCEko militantea izan zen.

J.I.S.-i egindako elkarrizketa, 2012ko abendua. J.I.S., sindikatuak legeztatuta, ELAko kide egin zen.

A.A.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. A.A. San Pedroko Capuchinos parrokiako eta Antsoaingo San Cosme eta San Damian parrokiako erretore izan zen.

J.S.M.-i egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. J.S.M. Potasaseko meatzaria zen. Nafarroako CCOOeko koordinakundeko kidea eta ORTko militantea izan zen.

J.L.D.M.-i egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. J.L.D.M Potasaseko langilea zen.

JA.C.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. JA.C. Authiko langilea zen. CCOOeko militantea izan zen eta legeztatua izan zenean, SUaren lehenbiziko idazkari orokorra izan zen.

M.S.S.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. M.S.S. Inquinasako langilea zen. CCOO militantea izan zen.

M.L.C.-i egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. M.L.C. Potasaseko langilea zen. CCOOeko, PCE(i)-PTEko eta Sanduzelaiko Auzo elkarteko militantea izan zen.

F.E.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko urtarrila. F.E. Inquinasako langilea zen. JOCEko, CCOOeko eta ORTko militantea izan zen.

M.A.R.S.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko otsaila. M.A.R.S. Potasaseko langilea zen. Nafarroako CCOOeko koordinakundeko kidea eta ORTko militantea izan zen.

P.O.-i egindako elkarrizketa, 2013ko otsaila. P.O. Eatoneko langilea zen. VOJeko militantea, CCOOeko militantea eta ORTko militantea izan zen.

PA.S.-i egindako elkarrizketa, 2013ko otsaila. PA.S. Potasaseko langilea zen. CCOOeko militantea izan zen.

R.U.-i egindako elkarrizketa, 2013ko martxoa. R.U. Authiko langilea zen. JOCEko militantea, CCOOeko militantea eta PCE(i)-PTEko militantea izan zen.

V.D.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko apirila. V.D. Potasaseko langilea zen. CCOOeko militantea eta LKI-ETA VIko militantea izan zen.

S.L.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko apirila. S.L. Inquinasako langilea zen. CCOOeko militantea eta ORTko militantea izan zen.

M.B.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko maiatza. M.B. Unión Carbideko langilea zen. CCOO militantea, Nafarroako azken langile kontseiluko lehendakariordea eta MCEko militantea izan zen. Legeztatu ondoren, Nafarroako CCOOeko lehen idazkaria izan zen.

J.Z.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko maiatza. J.Z. bankaren sektoreko langilea zen. CCOOeko militantea izan zen.

J.M.E.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko maiatza. J.M.E. Super Serreko langilea zen. CCOOeko militantea zen.

R.M.-i egindako elkarrizketa, 2013ko maiatza. R.M. Bendibéricako langilea zen. CCOOeko militantea eta MCEko militantea izan zen.

PE.S.-i egindako elkarrizketa, 2013ko maiatza. PE.S. Onenako langilea zen. CCOOeko militantea izan zen.

M.P.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko maiatza. M.P. Onenako langilea zen. Apaiz langilea zen eta CCOOeko militantea izan zen.

C.B.-ri egindako elkarrizketa, 2013ko iraila. C.B. Autonomía Obreraren inguruan ibili zen Bartzelonan. CNTko militantea izan zen gerora.

C.O.-i egindako elkarrizketak, 2013ko iraila. C.O. Authiko langilea zen. Authiko fabrika komisioko sustatzaileetarikoa bat izan zen, Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu zuen eta PCE(i)-PTEko militantea izan zen.

P.I. eta I.N.-ri egindako elkarrizketa, 2014ko urtarrila. P.I. langileen abokatua zen eta I.N. Onenako langilea zen. Biak JOCEko militanteak eta PCE(i)-PTEko militanteak izan ziren.

M.BU.-ri egindako elkarrizketa, 2014ko maiatza. M.BU. Eatoneko langilea zen. Nafarroako CCOOen sorreran parte hartu zuen. PCEko militantea izan zen.

A.H.R.-i egindako elkarrizketa, 2014ko abuztua. A.H.R. El Pamplonicako langilea zen. CCOOeko militantea eta PCEko militantea izan zen.

J.P.-i egindako elkarrizketak, 2014ko azaroa. J.P. Txantreako Auzo Elkarteko militantea izan zen.

A.G.-ri egindako elkarrizketa, 2014ko abendua. A.G. Txantreako Auzo Elkarteko militantea izan zen.

K.P.-i egindako elkarrizketa, 2015eko urtarrila. K.P. Imenasako langilea zen. CCOOeko militantea izan zen eta LKI-ETA Viren inguruan ibili zen.



## BIBLIOGRAFIA

- AAVV, *Las asociaciones de vecinos en la encrucijada. El movimiento ciudadano en 1976-1977*, Ediciones de la torre, Madril, 1977.
- ABASOLO, Patxi, *Arrotxapea. Historia, memoria y compromiso*, Arrotxapeako Jai Batzordea, Lasarte-Horia, 2013 (2. edizioa).
- ABASOLO, Patxi, MENDAZA, David eta BUSTILLO, Joxerra, *Nuestro mayo rojo. Aproximación a la historia del movimiento obrero vasco (1789-1990)*, Txalaparta, Tafalla, 2014.
- AHEDO, Igor, "Acción colectiva vecinal en el tardofranquismo: el caso de Rekalde", *Historia y política*, 23. zkia, 2010, 265-317 orr.
- AIZPURU, Mikel, "El asociacionismo popular ¿Reverso de organización social del franquismo? El caso de Barakaldo", CASTILLO, Santiago eta ORTIZ DE ORRUÑO, José María (koord.), *Estado, Protesta y movimientos sociales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1998, 477-494 orr.
- AIZPURU, Mikel eta RIVERA, Antonio, *Lanaren gizarte historiaren esku-liburua: lana eginez goaz aurrera*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Leioa, 1995.
- ALTAFAYLLA KULTUR TALDEA, *Navarra 1936: de la esperanza al terror*, Altafaylla, Tafalla, 2004.
- ALTED, Alicia, MATEOS, Abdón, "Problemas de método en el estudio de la oposición al franquismo, La utilización del testimonio oral", *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 3. zkia, 1990, 57-68 orr.
- ALVAREZ JUNCO, José eta PÉREZ LEDESMA, Manuel, "Historia del movimiento obrero, ¿Una segunda ruptura?", *Revista de Occidente*, nº 12, 1982, 19-41 orr.
- ANDERSON, Perry, *Teoría, política e historia: un debate con E. P. Thompson*, Siglo XXI, Madril, 1985.
- ANDRÉS, Juanjo de eta MAISUETXE, José Antonio, *El movimiento ciudadano en Euskadi*, Txertoa, Donostia, 1980.
- ANSEL, Darío, *ELA en la Segunda República. Evolución sindicalista de una organización obrera*, Txalaparta, Tafalla, 2011.
- APARICIO, Miguel Ángel, "Sobre los comienzos del sindicalismo franquista", FONTANA, Josep (ed.), *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986, 78-99 orr.
- APARICIO, Miguel Ángel, *El sindicalismo vertical y la formación del estado franquista*, Editorial Eunibar, Bartzelona, 1980.
- ARANBURU, Mikel, "La actividad folclórica de la juventud pamplonesa en la posguerra civil: el Oberena de Maxi Aramburu", *Jentilbaratz*, 7. zkia, 1997, 3-26 orr.

- ARBELOA, Victor Manuel, *Vida y asesinato de Tomás Caballero: 50 años de lucha democrática en Navarra*, Nobel, Oviedo, 2006.
- ARBELOA, Victor Manuel, *Obra poética (1964-2010)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2010.
- ARCO BLANCO, Miguel Ángel del, "Morir de hambre. Autarquía, escasez y enfermedad en la España del primer franquismo", *Pasado y Memoria. Revista de historia contemporánea*, 5. zkia, 2006, 241-248 orr.
- ARCO BLANCO, Miguel Ángel del, "El estraperlo: pieza clave en la estabilización del régimen franquista", *Historia del Presente*, 15. zkia, 2010, 65-78 orr.
- ARDAIZ, Iosu, *Navarra elementos para su desarrollo regional*, bi liburuki, Eusko-Ikaskuntza, Iruñea, 1980-1981.
- ARGOS VILLAR, José Carlos eta GÓMEZ DÍAZ, José Emilio, *Movimiento obrero en Cantabria 1955-1977*, Puntal Libros, Santander, 1982.
- ASÍN SEMBERÓIZ, Francisco Javier, *Amadeo Marco Ilincheta: semblanza de un político navarro en el siglo XX*, F. J. Asín Semberóiz, Iruñea, 1996.
- BABIANO, José, "Las peculiaridades del fordismo español", *Cuadernos de relaciones laborales*, 3. zkia, 1993, 77-94 orr.
- BABIANO, José, "Los católicos en el origen de Comisiones Obreras", *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 8, zkia., 1995, 277-293 orr.
- BABIANO, José, *Emigrantes, cronómetros y huelgas. Un estudio sobre el trabajo y los trabajadores durante el franquismo (Madrid 1951-1977)*, Siglo XXI, Madril, 1995.
- BABIANO, José, *Paternalismo industrial y disciplina fabril en España (1938-1958)*, Consejo Económico y Social, Madril, 1998.
- BABIANO, José eta MINGO, José Antonio de, "De la comisión de enlaces y jurados del metal a la unión sindical de Madrid: las comisiones obreras madrileñas durante el franquismo", RUIZ, David (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 191-214 orr.
- BABY, Jean, *Los orígenes de la controversia chino-soviética*, Emiliano Escobar editor, 1976.
- BADA, José, BAYONA, Bernardo eta BETÉS, Luis, *La izquierda ¿de origen cristiano? Estudio sociológico de la izquierda aragonesa*, Cometa, Zaragoza, 1979.
- BALESTRINI, Nanni eta MORONI, Primo, *La horda de oro (1968-1977). La gran ola revolucionaria y creativa, política y existencias*, Traficantes de sueños, Madril, 2006.

- BALFOUR, Sebastián, “El movimiento obrero y la oposición obrera durante el franquismo”, TUSELL, Javier, ALTED, Alicia eta MATEOS, Abdón, (koord), *La oposición al régimen de Franco*, I. Liburukia, UNED, Madril, 1990.
- BALFOUR, Sebastián, *La dictadura, los trabajadores y la ciudad: el movimiento obrero en el área metropolitana de Barcelona (1939-1988)*, Edicions Alfons el Magnanim, Valentzia, 1994.
- BARCIELA, Carlos (koord.), *La autarquía y el mercado negro: el fracaso económico del primer franquismo 1939-1959*, Crítica, Bartzelona, 2003.
- BARCIELA, Carlos “Autarquía y mercado negro”, VIÑAS MARTIN, Ángel (ed.), *En el combate por la historia. La República, la guerra civil y el franquismo*, Pasado y presente, Bartzelona, 2012, 645-658 orr.
- BAROGA, José María, *La vida íntima de Pamplona (1950-1955). Los latidos de una ciudad*, Iruñea [s.n], 1974.
- BARRIO, Ángeles, “Historia obrera en los noventa: tradición y modernidad”, *Historia social*, 37. zkia, 2000, 143-160 orr.
- BARRIO, Ángeles., “Clase obrera y movimiento obrero: ¿dos compañeros inseparables?”, *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 30. zkia, 2008, 83-104 orr.
- BARROSO, Anabella, “Iglesia vasca, una iglesia de vencedores y vencidos: la represión del clero vasco durante el franquismo”, *Ayer*, 43. zkia, 2001, 87-110 orr.
- BARROSO, Anabella “Luces y sombras en la iglesia vasca durante el franquismo y la transición”, ORTIZ HERAS, Manuel, *De la cruzada al desenganche: la iglesia española entre el franquismo y la transición*, Sílex ediciones, Madril, 2011, 207-234 orr.
- BARRUSO, Pedro, “El socialismo navarro en el exilio (1936-1948)”, Ángel GARCÍA-SANZ, Ángel (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001, 63-95 orr.
- BENADIBA, Laura, *Historia oral, relatos y memorias*, Maipuei, Provincia de Buenos Aires, 2007.
- BENADIBA, Laura (komp.), *Historia Oral. Fundamentos Metodológicos para reconstruir el pasado desde la diversidad*, Suramérica ediciones, Rosario, 2010.
- BENITO DEL POZO, Carmen, *La clase obrera asturiana durante el franquismo*, Siglo XXI, Madril 1993.
- BERZAL DE LA ROSA, Enrique, *Del Nacionalcatolicismo a la lucha antifranquista. La HOAC de Castilla y León entre 1946 y 1975*, Pedro Casas Sotok zuzendutako doktore tesia, Valladolidedeko Unibertsitatea, Filosofía eta letren Fakultatea, 1999.

- BERZAL DE LA ROSA, Enrique, "Cristianos en el 'nuevo movimiento obrero'", *Historia social*, 54. zkia, 2006, 137-156 orr.
- BERZAL DE LA ROSA, Enrique, *Sotanas rebeldes: contribución cristiana a la transición democrática*, Valladolideko Diputazioa, Valladolid, 2007.
- BERZAL DE LA ROSA, Enrique, "Católicos en la lucha antifranquista. Militancia sindical y política", *Historia del presente*, 10. zkia, 2007, 7-24 orr.
- BERZAL DE LA ROSA, Enrique, "Movimientos seculares en el tardofranquismo y la transición", *Gerónimo de Uztariz*, 28/29. zkia, 2012/2013, 49-94 orr.
- BIESCAS, José Antonio eta TUÑÓN DE LARA, Manuel, *España bajo la dictadura franquista (1939-1975)*, Labor, 1980 Bartzelona.
- BORDERÍAS, Cristina, "Emigración y trayectorias sociales femeninas", *Historia social*, 17. zkia, 75-94 orr.
- BORDERÍAS, Cristina eta TEBAR, Javier, *Biografías obreras. Fuentes orales y militancia sindical (1939-1978): diseño y desarrollo de la producción de fondos orales del Arxiu Històric de CCOO de Catalunya*, Fundación Cipriano Mera García, Bartzelona, 1998.
- BORDETAS, Iván, "De la supervivencia a la resistencia: la gestació del moviment veinal a la Catalunya franquista", MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere (koord.), *Construit la ciutat democrática, el moviment veinal durant el tardofranquisme y la transició*, Icaria, Bartzelona 2010, 35-112 orr.
- BRAVO SUESKUN, Carmen, *La participación social y política de las mujeres en Navarra: de la domesticidad a la emancipación (1961-1991)*", Juan Madariagak zuzendutako doktore tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Geografia eta Historiako Departamentua, 2011.
- BUESA, Mikel eta MOLERO, José, "Cambio técnico y procesos de trabajo: una aproximación al papel del Estado en la introducción de los métodos de la Organización Científica del trabajo en la economía española durante los años 50", *Revista de Trabajo*, 67/68. zkia, 1982, 249-268 orr.
- BURGOS SALAS, Valentín, "La izquierda revolucionaria en Asturias. Los diferentes intentos de construcción de un proyecto alternativo al PCE", ERICE, Francisco (koord.), *Los comunistas en Asturias (1920-1982)*, Trea, Gijón, 1996, 459-502 orr.
- CABALLERO, Tomás, "Momento actual del sindicalismo en Navarra", VV.AA, *Navarra ante el futuro*, Diario de Navarra, Iruñea, 1976, 79-88 orr.
- CAÍNZOS LÓPEZ, Miguel Ángel, "Clase, acción y estructura: de E. P. Thompson al posmarxismo", *Zona abierta*, 50. zkia, 1989, 1-70 orr.
- CALAVIA, Ana, "La Conciliación de Pamplona y su relación con los Sindicatos Libres 1915-1923)", *Príncipe de Viana*, 10. Eranskina, 1988, 73-84 orr.

- CAMAS BAENA, Victoriano eta GARCÍA BORREGO, Iñaki, “La transcripción en la historia oral: para un modelo ‘vivo’ del paso de lo oral a lo escrito”, *Historia, antropología y fuentes orales*, 18. zkia, 1997, 41-61 orr.
- CARMONA, Francisco José, *Cambios en la identidad católica: juventud de Alfonso Carlos Comín*, Libertarias-Prodhoufi, Madril, 1995.
- CARRASCO, Salvador, “Los Sindicatos Libres en Navarra”, *Príncipe de Viana*, 5. Eranskina, 1986, 53-67 orr.
- CARRERAS, Juan José, *Seis lecciones sobre historia*, Institución Fernando el Católico, Zaragoza, 2003.
- CASPISTEGUI, Francisco Javier, *El naufragio de las ortodoxias: el carlismo (1962-1977)*, Eunsa, Iruñea, 1997.
- CASPISTEGUI, Francisco Javier, “La formación profesional en Navarra (1939-1964)”, CASPISTEGUI, Francisco Javier eta ERRO, Carmen (zuz.), *De agrícola a industrial: Navarra 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 43-103 orr.
- CASPISTEGUI, Francisco Javier, “Navarra desde 1944: modernidades en conflicto”, BERRUEZO, Reyes (koord.), *Iniciativas socioculturales en Navarra en la segunda mitad del siglo XX*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2010, 25-77 orr.
- CAUSSA, Martí eta MARTINEZ I MUNTADA, Ricard (ed.), *Historia de la Liga Comunista Revolucionaria*, La oveja Roja, Torrejón de Ardoz, 2014.
- CHECA ARTASU, Martin, “Forces antifranquistes per un barri: el cas del Bon Pastor (Barcelona)”, *Actes del Congrés “La transició de la dictadura franquista a la democràcia” (Barcelona 20, 21, 22 d’octubre de 2000)*, Universitat Autònoma de Barcelona-Centre d’estudis sobre les Epokes Franquista i Democràtica, Bartzelona, 2005, 47-55 orr.
- CHUECA INTXUSTA, Iosu, “Puntos y contrapuntos para la historia política de Navarra”, LANA BERASAIN, José Miguel (koord.), *En torno a la Navarra del siglo XX: veintiuna reflexiones acerca de sociedad, economía e historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002, 361-378 orr.
- CHUECA INTXUSTA, Iosu, *Germán Rodríguez. Iraultzaile eroria*, Argia, 2142. alea, 2008-06-22.
- CLAVERA, Joan, ESTEBAN, Joan M., MONES, M. Antònia, MONTSERRAT, Antoni eta ROS HOMBRAVELLA, Jacint, *Capitalismo español: de la autarquía a la estabilización (1939-1959)*, bi liburuki, Cuadernos para el Diálogo, Madril, 1973.
- COLECTIVO UNITARIO-LAB, *Obreros somos... 1969-1989 El movimiento obrero en la comarca de Tafalla*, Altaffaylla Kultur Taldea, Tafalla 1989.
- COLOMO UGARTE, Javier, “El desarrollo industrial y la evolución sindical en el periodo 1955-1975 en Navarra”, *Príncipe de Viana*, 16. Eranskina, 1992, 725-737 orr.



- COMÍN, Alfonso Carlos eta GARCÍA NIETO, Juan, *Juventud obrera y conciencia de clase*, Edicura, Madril, 1974.
- CONTRERAS BECERRA, Javier, "El movimiento vecinal en Andalucía durante el tardofranquismo y el proceso de cambio político (1968-1986): ¿excepcionalidad o actor destacado?", *Gerónimo de Uztariz*, 28/29. zkia, 2012/2013, 95-122 orr.
- CORIAT, Benjamin, *El taller y el cronometro: ensayo sobre el taylorismo, el fordismo y la producción en masa*, Siglo XXI, Madril, 1982.
- DÍAZ MONREAL, José Luis, *La huelga general de 1951 en Pamplona*, Estudios de Ciencias Sociales, 10. zkia, 1997, 101-121 orr.
- DÍAZ MONREAL, José Luis, *Las huelgas de Potasas*, Ahaztuak, Algorta, 2012.
- DÍAZ MONREAL, José Luis, *Jacinto Ochoa. La prisión más larga*, Ahaztuak, Algorta, 2013.
- DÍAZ MONREAL, José Luis, *La huelga de 1951 y otros conflictos en Navarra durante los años cincuenta*, Pamiela, Iruñea, 2013.
- DÍAZ SALAZAR, Rafael, *Iglesia, dictadura y democracia. Catolicismo y sociedad en España (1953-1979)*, HOAC, Madril, 1981.
- DÍAZ SALAZAR, Rafael, *Nuevo socialismo y cristianos de izquierda*, HOAC, Madril, 2001.
- DÍAZ SÁNCHEZ, Pilar, "Las fuentes orales y la construcción de relatos biográficos: mujeres trabajadoras en la dictadura franquista", LLONA, Miren (koord. led.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2012.
- DOMÈNECH, Xavier, *Cuan el carrer va a deixar de ser seu. Moviment obrer, societat civil i canvi politic. Sabadell (1966-1976)*, Abadia de Montserrat, Bartzelona, 2002.
- DOMÈNECH, Xavier "El problema de la conflictividad bajo el franquismo: saliendo del paradigma", *Historia social*, 42. zkia, 2002, 123-143 orr.
- DOMÈNECH, Xavier "La otra cara del milagro español. Clase obrera y movimiento obrero en los años del desarrollismo", *Historia Contemporánea*, 26. zkia, 2003, 91-112 orr.
- DOMÈNECH, Xavier, "La formación de la identidad obrera bajo el franquismo. Materiales para un aproximación", *Desafectos: publicació d'història crítica*, aldizkari digitala, 5. zkia, 2004.
- DOMENECH, Xavier, *Clase obrera, antifranquismo y cambio político: pequeños grandes cambios*, Catarata, Madril, 2008.
- DOMÈNECH, Xavier, "Comunismo y antifranquismo: una aproximación", NICOLÁS MARÍN, María Encarna eta GONZÁLEZ MARTÍNEZ, Carmen

- (koord.), *Ayeres en discusión: temas clave de historia contemporánea hoy*, Murtziako Unibertsitatea, Murtzia, 2008, CD formatua.
- DOMÈNECH, Xavier, *Cambio político y movimiento obrero bajo el franquismo. Lucha de clases, dictadura y democracia (1939-1977)*, Icaria, Bartzelona, 2012.
  - DRONDA, Javier, *La cuestión religiosa en Navarra, 1931-1933*, Emilio Majuelok zuzendutako doktore tesia, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Geografia eta Historiako Departamentua, 2010.
  - DRONDA, Javier, *Con o contra cristo. Religión y movilización antirrepublicana en Navarra (1931-1936)*, Txalaparta, Tafalla, 2013.
  - EAGLETON, Terry, *Por qué Marx tenía razón*, Península, Bartzelona, 2011.
  - ECHEVERRÍA ZABALZA, Javier, "Antecedentes de la Navarra actual. Algunos elementos sobre la estructura social de Navarra de los dos primeros tercios del siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, 9/10. zkia, 1994, 31-54 orr.
  - ECHEVERRÍA ZABALZA, Javier, *La movilidad social en España (1940-1991)*, Istmo, Madril, 1999.
  - ELEY, Geof, *La historia de la izquierda en Europa 1850-200*, Crítica, Bartzelona, 2003.
  - ELEY, Geof, *Una línea torcida: de la historia cultural a la historia de la sociedad*, Valentiako Unibertsitatea, Valentzia, 2008.
  - ELEY, Geof, *El futuro de la clase en la historia. ¿Qué queda de lo social?*, Valentiako Unibertsitatea, Valentzia, 2010.
  - ELLWOOD, Sheelagh, "La clase obrera bajo el régimen de Franco", PRESTON, Paul, *España en crisis: evolución y decadencia del régimen de Franco*, Kultura Ekonomikoaren Fondoa, Madril, 1978, 265-302 orr.
  - ELORRIETA, José, *Renovación sindical. Una aproximación a la trayectoria de ELA*, Txalaparta, Tafalla, 2012.
  - EQUIZA, Jesús, *¿Política o profecía?: el profetismo de la Iglesia navarra en los años 70*, Fundación para el desarrollo formativo navarro, Iruñea, 1983.
  - EQUIZA, Jesús, "Urbanismo y parroquias en Pamplona y comarca", *Vasconia*, 29. zkia, 1999, 47-65 orr.
  - ERDOZAIN, Pilar, *Propiedad, familia y trabajo en la Navarra contemporánea*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1999.
  - ERRO, Carmen eta CASPISTEGUI, Francisco Javier, "El naufragio de Arcadia. Esbozo del cambio social en Navarra durante el franquismo", VV.AA., *Mito y realidad en la historia de Navarra (IV. Congreso de historia de Navarra)*, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, Iruñea, 1998, 107-131 orr.
  - ESTORNÉS, Idoia, *Cómo pudo pasarnos Esto. Crónica de una chica de los 60*, Erein, Donostia, 2013.

- ESTRELLA, Alejandro, *Clío ante el espejo. Un socioanálisis de E. P. Thompson*, Cádizeko Unibertsitatea, Cádiz, 2012.
- FERRI, Llibert, SANJUÁN Eduardo eta MUIXÍ, Jordi, *Las huelgas contra Franco (1939-1956) Aproximación a una historia del movimiento obrero español de posguerra*, Planeta, Bartzelona, 1978.
- FOESSA FUNDAZIOA, *Informe sociológico de la situación social en España*, Madril, 1966.
- FOESSA FUNDAZIOA, *Informe sociológico de la situación social en España*, Madril, 1970
- FOLGUERA, Pilar, *Cómo se hace historia oral*, Eudema, Madril, 1994.
- FONTANA, Josep (ed.), *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986.
- FONTANA, Josep, "Introducción: reflexiones sobre la naturaleza y las consecuencias del franquismo", FONTANA, Josep (ed.), *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986.
- FONTANA, Josep, *La historia después del fin de la historia*, Crítica, Bartzelona, 1992.
- FOREWAKER, Joe, *La democracia española. Los verdaderos artífices de la democracia en España*, Arias Montano editores, Madril, 1990.
- FUSI Juan Pablo "La reaparición de la conflictividad en la España de los 60", FONTANA, Josep (ed.), *España bajo el franquismo*, Crítica, Bartzelona, 1986, 160-169 orr.
- GABRIEL, Pere, *Comissions Obreres de Catalunya 1964-1989*, Ampuries, Bartzelona, 1989.
- GABRIEL, Pere, "A vueltas y revueltas con la historia social obrera en España. Historia obrera, historia popular e historia contemporánea", *Historia social*, 22.zkia, 1995, 43-53 orr.
- GALLEGO, José Andrés eta PAZOS, Antón, *La Iglesia en la España contemporánea*, II. Liburukia, Ediciones Encuentro, Madril, 1999.
- GARCÍA DE CORTÁZAR, Fernando, "La cruz y el martillo. La resistencia obrera católica", TUSELL, Javier, ALTED, Alicia eta MATEOS, Abdón (koord), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madril, 1990, 129-147 orr.
- GARCÍA DELGADO, José Luis, "Estancamiento industrial e intervencionismo económico durante el primer franquismo", FONTANA, Josep (ed.), *España bajo el franquismo*, Editorial Crítica, Bartzelona, 1986, 170-191 orr.
- GARCÍA NIETO, María Carmen, "Marginalidad, movimientos sociales, oposición al franquismo. Palomeras, un barrio obrero de Madrid, 1950-1980", TUSELL, Javier, ALTED, Alicia eta MATEOS, Abdón (koord.), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madril, 1990, 129-147 orr.

- GARCÍA PIÑEIRO, Ramón, "Solidaridad de base. Asociaciones primarias y plataformas unitarias de resistencias al franquismo en Asturias", CASTILLO, Santiago eta ORTIZ DE ORRUÑO, José María (koord.), *Estado, Protesta y movimientos sociales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1998, 463-476 orr.
- GARCÍA-SANZ, Ángel, *Los "obreros conscientes navarros": Gregorio Angulo (1868. 1937)*, Fundación Juan José Gorricho: Unión General de Trabajadores de Navarra, Iruñea, 1999.
- GARCÍA-SANZ, Ángel, (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001.
- GARCÍA-SANZ, Ángel eta MIKELARENA, Fernando, "Evolución de la población y cambios demográficos en Navarra durante el siglo XX", *Gerónimo de Uztariz*, 16. zkia, 2000, 125-138 orr.
- GARDE ETAYO, María Luisa, "Modelos sindicales en la Navarra contemporánea: relaciones y derechos", ERRO, Carmen eta MUGUETA, Iñigo (ed.), *Grupos sociales en la historia de Navarra (V. Congreso de historia de Navarra)*, III. Liburukia, Eunate, Iruñea, 2002, 325-357 orr.
- GARDE ETAYO, María Luisa, "Sindicatos y sindicalismo en la Navarra de los sesenta", CASPISTEGUI, Francisco Javier eta ERRO, Carmen (zuz.), *De agrícola a industrial: Navarra 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 259-285 orr.
- GARDE ETAYO, María Luisa, "El último Consejo de Trabajadores de Navarra y el convenio general (1975-1977): unidad y ruptura", LARRAZA, María del Mar (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, Ediciones Eunate, Iruñea, 2006, 225-260 orr.
- GARDE ETAYO, María Luisa, HOMMEL, Klaus eta URABAYEN, Juan Pedro, "El desarrollo económico-social de Navarra entre 1960 y 1970", *Príncipe de Viana*, 16. Eranskina, 1992, 519-532 orr.
- GARRIDO CABALLERO, Magdalena, "Los comunistas murcianos en el franquismo y la transición", 2005eko irailaren 7, 8 eta 9an izandako *Ahozko eta irudizko iturriak* Nazioarteko Kongresura aurkeztutako komunikazioa, CD formatua.
- GASTÓN AGUAS, José Miguel, *¡Arriba jornaleros!: los campesinos navarros ante la revolución burguesa (1841-1868)*, Txalaparta, Tafalla, 2003.
- GASTÓN AGUAS, José Miguel, *¡Vivan los comunes! Movimiento comunero y sucesos corraliceros en Navarra (1896-1930)*, Txalaparta, Tafalla, 2010.
- GAVIRIA, Mario, "Presente y futuro de los recursos naturales navarros", VV.AA, *Navarra ante el futuro*, Diario de Navarra, Iruñea, 1976, 25-37 orr.
- GIMÉNEZ, Iván, *ELA en Nafarroa. 100 años de transformación y lucha (1911-2011)*, Txalaparta, Tafalla, 2012.
- GÓMEZ ALÉN, José, *As CCOO da Galicia*, Edicions Xerais, Vigo, 1995.

- GÓMEZ ALÉN, José, *Historia de Comisi3ns obreiras de Galicia nos seus documentos*, Edicions do Castro, A Coruña, 1996.
- GONZÁLEZ DE LA CRUZ, Jesús, “Del compromiso social al obrerismo nacionalista: la JOC durante el franquismo en el País Vasco”, *Vasconia*, 30. zkia, 2000, 273-281 orr.
- GONZÁLEZ DE LA CRUZ, Jesús, “Una crisis continuada: la transici3n de la JOC durante los años setenta”, *Aportes. Revista de Historia contemporánea*, 45. zkia, 2001, 77-90 orr.
- GONZÁLEZ PORTILLA, Manuel eta Garmendia, José María, *La posguerra en el País Vasco: política, acumulaci3n, miseria*, Kriseilu, Donostia, 1988.
- GOÑI, Alberto, *El rastro de la Txantrea. El poder contra la cultura popular*, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte, Iruñea, 2010.
- GRELE, Ronald J., “La historia y sus lenguajes en la entrevista de historia oral: Quien contesta a las preguntas de quién y por qué”, *Historia y fuente oral*, 5. zkia, 1991.
- GUILLEM MESADO, Juan Manuel, “Luz y sal: Movimiento cat3lico en tiempos de cambio”, QUIROSA-CHEYROUZE Y MUÑOZ, Rafael (ed.), *La sociedad española en la transici3n. Los movimientos sociales en el proceso democratizador*, Biblioteca nueva, Madrid, 2011, 237-255 orr.
- HAMMER, Dean eta WILDAVSKY, Aaron “La entrevista semi-estructurada de final abierto. Aproximaci3n a una guía operativa”, *Historia y fuente oral*, 4. zkia, 1990, 23-65 orr.
- HAUPT, Georges, *El historiador y el movimiento social*, Siglo XXI, Madrid, 1986.
- HEINE, Harmut, *La oposici3n política al franquismo*, Crítica, Barcelona, 1983.
- HEINE, Harmut, “La contribuci3n de la nueva izquierda al resurgir de la democracia española, 1957-19”, FONTANA, Josep (ed.), *España bajo el franquismo*, Crítica, Barcelona, 1986, 142-159 orr.
- HERMET, Guy, *Los cat3licos en la España franquista*, bi liburuki, Siglo XXI, Madrid, 1985-1986.
- HERNÁNDEZ SANDOICA, Elena, RUIZ CARNICER, Miguel Ángel eta BALDÓ, Marc, *Estudiantes contra Franco (1939-1975). Oposici3n política y movilizaci3n juvenil*, La esfera de los libros, Madrid, 2007.
- HERRERA FELIGRERAS, Andrés, “De la célula al partido de masas. Una aproximaci3n al desarrollo del PCE en Navarra durante el tardofranquismo”, *I Congreso sobre la Historia del PCE, 1920-1977 (Oviedo 6,7 y 8 de mayo de 2004)*, CD formatua.
- HOBBSAWM, Eric J., “Costumbre, salarios e intensidad de trabajo en la industria del siglo XIX”, HOBBSAWM, Eric J., *Trabajadores. Estudios de historia de la clase obrera*, Crítica, Barcelona, 1979, 352-382 orr.

- HOBBSAWM, Eric J., *Historia del siglo XX*, Crítica, Barcelona 2011.
- IBARRA, Pedro, *Movimiento obrero en Vizcaya (1967-1977). Ideología, organización y conflictividad*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 1987.
- IBARRA, Pedro, *La evolución estratégica de ETA. De la guerra revolucionaria (1963) hasta después de la tregua (1989)*, Kriseilu, Donostia, 1989.
- IBARRA, Pedro eta GARCÍA MARROQUÍN, Chelo, "De la primavera de 1956 a Lejona 1978. Comisiones Obreras de Euskadi", RUIZ, David (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madrid, 1994, 111-140 orr.
- IMBULUZQUETA, Gabriel eta SARRIÉS, Luis, *Aquellos conflictos de los 70... recuerdos y vivencias desde la dirección de personal*, AEDIPE, Iruñea, 2001.
- IRIARTE ARESO, José Vicente, "Aproximación a la conflictividad social en Navarra 1970-1975", *Príncipe de Viana*, 177. zkia, 1986, 271-318 orr.
- IRIARTE ARESO, José Vicente, *Movimiento obrero en Navarra. Organización y conflictividad (1967-1977)*, Gobierno de Navarra, Pamplona, 1995.
- IRIARTE ARESO, José Vicente, "Otoño caliente en Navarra. La huelga general del 11 de diciembre de 1974", *Gerónimo de Uztariz*, 14/15. zkia, 1999, 105-121 orr.
- IRUÑEKO PEÑEN FEDERAZIOA, *Peñas de Pamplona: una historia viva*, Iruñeko Peñen Federazioa, Iruñea, 2013.
- IZTUETA, Paulo, *Sociología del fenómeno contestatario del clero vasco*, Elkar, Donostia, 1981.
- JAUREGUIBERRY, Francis, *Question nationale et mouvements sociaux en Pays Basque*, L' Harmattan, Paris, 2007.
- JIMENO JURÍO, José María, *Historia de Pamplona y de sus lenguas*, Txalaparta, Tafalla, 1995.
- JULIÁ, Santos, "Los cambios estructurales de la sociedad en la etapa final de las dictaduras. El caso Español", TORRE, Hipólito de la (koord.), *Portugal y España en el cambio político: 1958-1978*, UNEDeko Extremadurako Zentroa, Mérida, 1989, 89-99 orr.
- JULIÁ, Santos, "Obreros y sacerdotes: cultura democrática y movimientos sociales de oposición", TUSELL, Javier, ALTED, Alicia eta MATEOS, Abdón (koord.), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madrid, 1990, 129-147 orr.
- JULIÁ, Santos, "La historia social y la historiografía española", *Ayer*, 10. zkia, 1993, 29-46 orr.
- JULIÁ, Santos, "Política y sociedad durante el régimen de Franco", Manuel GUTIÉRREZ NAVAS, Manuel eta RIVERA MENÉNDEZ, José (koord.), *Sociedad y política almeriense durante el Régimen de Franco. Actas de las*

*Jornadas celebradas en la UNED durante los días 8 al 12 de Abril de 2002*, Instituto de estudios Almerienses, Almería, 2003, 11-31 orr.

- KAYE, Harvey L., *Los historiadores marxistas británicos*, Zaragozako Unibertistatea, Zaragoza, 1989.
- LAIZ, Consuelo, *La lucha final: los partidos de la izquierda radical durante la transición española*, Los libros de la catarata, Madril, 1995.
- LAMIKIZ, Amaia, "El problema del ocio: la organización del tiempo libre de la juventud trabajadora en Guipúzcoa en la década de 1960", *Vasconia*, 30. zkia, 2000, 283-293 orr.
- LANA BERASAIN, José Miguel (koord.), *En torno a la Navarra del siglo XX: veintiuna reflexiones acerca de sociedad, economía e historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea.
- LANA, José Miguel eta TORRE, Joseba de la, "El asalto a los bienes comunales: cambio económico y conflictos sociales en Navarra 1808-1936", *Historia Social*, 37. zkia, 2000, 75-96 orr.
- LARRAINZAR, Patxi, *Pega, pero escucha*, Txalaparta, Tafalla, 1991.
- LARRAINZAR, Patxi, *Pecados veniales de un cura asilvestrado*, Txalaparta, Tafalla, 1995, 80 orr.
- LARRAZA, María del Mar, *Aprendiendo a ser ciudadanos: retrato socio-político de Pamplona, 1890-1923*, Eunsa, Iruñea, 1997.
- LARRAZA, María del Mar, "La industrialización desde el Ayuntamiento de Pamplona", CASPISTEGUI, Francisco Javier eta ERRO, Carmen (zuz.), *De agrícola a industrial: Navarra 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 40-61 orr.
- LARRAZA, María del Mar (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, Ediciones Eunate, Iruñea, 2006
- LARRAZA, María del Mar, "Leal, católica... y carlista: Pamplona (1936-1959)", LARRAZA, María del Mar (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona, 1936-1977*, Ediciones Eunate, Iruñea, 2006, 17-50 orr.
- LETAMENDIA, Francisco, *Historia del nacionalismo vasco y de ETA*, R&B, Donostia, 1994.
- LEVEQUE, Jean Jaques, *El conflicto chino-soviético*, Oikos-Tau, Bartzelona, 1974.
- LLONA, Miren, "Archivar la memoria, escribir la historia. Reflexiones en torno a la creación de un archivo de Historia Oral. AHOA, Ahozko Historiaren Artxiboa. Archivo de la memoria", BENADIBA, Laura (komp.), *Historia Oral. Fundamentos Metodológicos para reconstruir el pasado desde la diversidad*, Suramérica ediciones, Rosario, 2010, 197-214 orr.
- LLONA, Miren (koord. /ed.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2012.

- LLONA, Miren, "Historia oral: la exploración de las identidades a través de la historia de vida", Miren Llona (korrd/ed.), *Entreverse. Teoría y metodología práctica de las fuentes orales*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2012, 15-59 orr.
- LÓPEZ GARCÍA, Basilisa, "Discrepancias entre el estado franquista y las asociaciones obreras católicas en 1960. La correspondencia entre el cardenal Pla I Deniel y el ministro Solís", *Anales de Historia contemporánea*, 4. zkia, 1985, 259-282 orr.
- LÓPEZ GARCÍA, Basilisa, "La formación y el análisis social en el Movimiento Obrero Católico bajo el franquismo", *XX siglos*, 22.zkia, 1994, 69-86 orr.
- LÓPEZ GARCÍA, Basilisa, *Aproximación a la historia de la HOAC, 1946-1981*, HOAC, Madril, 1995.
- LÓPEZ GOÑI, Irene, "Las ikastolas en Navarra: antecedentes, génesis y proceso de institucionalización (siglo XX)", DÁVILA, Pauli (koord.), *Las políticas educativas en el País Vasco durante el siglo XX*, Biblioteca Nueva, Madril, 2004, 251-302 orr.
- LÓPEZ GOÑI, Irene, *Ikastola, un movimiento popular y pedagógico: Historia de las ikastolas de Navarra*, Euskara Kultur Elkargoa, Iruñea, 2007.
- LÓPEZ LÓPEZ, Carlos, "Biografía de Mariano Zufía", FIASEP, Madril, 2009.
- LÓPEZ, Dolores eta MONTORO, Carolina, "Cambios en la ciudad de Pamplona (1946-1975). Una mirada desde la demografía", LARRAZA, María del Mar (zuz.), *De leal a disidente: Pamplona 1936-1977*, Ediciones Eunete, Iruñea, 2006, 261-311 orr.
- LORENZO ESPINOSA, José María, *Rebelión en la ría: Vizcaya 1947, obreros, empresarios y falangistas*, Deustuko Unibertsitatea, Bilbo, 1988.
- LUDEVID, Manuel, *Cuarenta años de Sindicato Vertical. Aproximación a la Organización Sindical Española*, Laia, Bartzelona, 1977.
- MACCLANCY, Jeremy, "Navarra", Carmelo LISÓN TOLOSANA, Carmelo (konp.) *Antropología de los pueblos del norte de España*, Complutense Unibertsitatea eta Kantabriako Unibertsitatea, Madril, 1991, 115-130 orr.
- MAJUELO, Emilio, "Algunas noticias de los anarquistas navarros en los años 1922-23", *Príncipe de Viana*, 173. zkia, 1984, 497-516 orr.
- MAJUELO, Emilio, *Luchas de clases en Navarra (1931-1936)*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 1989.
- MAJUELO, Emilio *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-200)*, Txalaparta, Tafalla, 2000.
- MAJUELO, Emilio, "Movimientos sociales y protesta social en Navarra durante el siglo XX", LANA, José Miguel (koord.), *En torno a la Navarra del siglo XX: veintiuna reflexiones acerca de sociedad, economía e historia*, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Iruñea, 2002, 289-321 orr.



- MAJUELO, Emilio, "50eko hamarkada: langileriaren historiarako gunea", *Jakin*, 159. zkia, 2007, 109-125 orr.
- MAJUELO, Emilio, *La generación del sacrificio. Ricardo Zabalza 1898-1940*, Txalaparta, Tafalla, 2008.
- MAJUELO, Emilio eta PASCUAL, Ángel, *Del catolicismo agrario al cooperativismo empresarial. Setenta y cinco años de la federación de cooperativas navarras, 1910-1985*, Ministerio de Agricultura, pesca y alimentación, Madril, 1991.
- MARAVALL, Fernando, *Economía y política industrial en España*, Pirámide, Madril, 1987.
- MARAVALL, José Antonio, *Desarrollo económico y clase obrera*, Ariel, Bartzelona, 1970.
- MARAVALL, José Antonio, *Dictadura y disenso político. Obreros y estudiantes bajo el franquismo*, Alfaguara, Madril, 1979.
- MARIEZCURRENA, David (koord.), *Armonía Chantreana: 1956-2006*, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte, Iruñea, 2006.
- MARINAS, José Miguel eta SANTAMARINA, Cristina (ed.), *La historia oral: métodos y experiencias*, Debate, Madril, 1993.
- MARTÍN ARTILES, Antonio, "Del blindaje de la sotana al sindicalismo aconfesional (breve introducción a la historia de la Unión Sindical Obrera, 1960-1975). Origen de la USO", TUSELL, Javier, ALTED, Alicia eta MATEOS, Abdón (koord.), *La oposición al régimen de Franco*, II. Liburukia, UNED, Madril, 1990, 165-188 orr.
- MARTÍN DE LA GUARDIA, Ricardo, "La Organización Sindical Española ante la ley de febrero de 1971. Tácticas propagandísticas e la conformación de un estado de opinión", *Investigaciones históricas: época moderna y contemporánea*, 11. zkia, 1991, 271-296 orr.
- MARTÍN GARCÍA, Oscar, "Rojo, pero sobre todo demócrata. Memoria del antifranquismo" 2005eko irailaren 7, 8 eta 9an izandako *Ahozko eta irudizko iturriak* Nazioarteko Kongresura aurkeztutako komunikazioa, CD formatua.
- MARTÍN GARCÍA, Oscar, *A tientas con la democracia. Movilización, actitudes y cambio en la provincia de Albacete 1966-1977*, Los libros de la Catarata, Madril, 2008.
- MARTÍN RAMOS, José Luis, (koord.), *Pan, trabajo y libertad. Historia del Partido del Trabajo de España*, El viejo topo, Mataró, 2011.
- MARTÍN RAMOS, José Luis eta GABRIEL, Pere, "Clase obrera, sectores populares y clases medias", SERRALLONGA, Joan eta BONAMUSA, Francisco (koord.), *Las sociedades urbanas*, Asociación de Historia Contemporánea, Bartzelona, 1994, 133-156 orr.

- MARTINEZ I MUNTADA, Ricard, “Construir futurs. La dimensió anticapitalista del moviment veïnal”, MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere (koord), *Construit la ciutat democrática, el moviment veïnal durant el tardofranquisme y la transició*, Icaria, Bartzelona, 2010.
- MARTORELL, Manuel, *Jesús Monzón, el líder comunista olvidado por la historia*, Pamiela, Iruñea, 2000.
- MARTORELL, Manuel “Los años de plomo de los comunistas navarros”, GARCÍA-SANZ, Ángel (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001.
- MARTORELL, Manuel, *75 años de nuestra historia: Muthiko Alaiak*, Muthiko Alaiak, Iruñea, 2006.
- MARTORELL, Manuel, *Retorno a la lealtad: el desafío carlista al franquismo*, Actas, Madril, 2010.
- MATEOS, Abdón, “Organización, lucha y culturas obreras bajo el franquismo. Consideraciones en torno a la bibliografía reciente”, *Perspectiva Contemporánea. España siglo XX*, 1. zkia, 1988, 263-271 orr.
- MATEOS, Abdón. “Comunistas, socialistas y sindicalistas ante las elecciones del Sindicato Vertical 1944-1967”, *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 1. zkia, 1988, 379-412 orr.
- MATEOS, Abdón, “Los Orígenes de la Unión Sindical Obrera: obrerismo juvenil cristiano, cultura sindicalista y proyecto socialista”, *XX siglos*, 22.zkia, 1994, 107-117 orr.
- MATEOS, Abdón (ed.), *La España de los cincuenta*, Eneida, Madril, 2008.
- MEDINA GARCÍA, Eusebio, “Autarquía y racionamiento. El mercado negro a finales de los años cuarenta”, *Cuadernos de Investigación histórica*, 21. zkia, 2004, 427-434 orr.
- MEIKSINS WOOD, Ellen, “El concepto de clase en E. P. Thompson”, *Zona abierta*, 32. zkia, 1984, 47-86 orr.
- MENDAZA, David, “Cambio en la estructura de clases y procesos históricos en Navarra y Zaragoza (1960-1980)”, *Gerónimo de Uztariz*, 9/10. zkia, 1994, 55-74 orr.
- MENDIOLA, Fernando, *Inmigración, familia y empleo: estrategias familiares en los inicios de la industrialización; Pamplona (1840-1930)*, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo, 2002.
- MENDIOLA, Fernando, “Entre los viejos y los nuevos moldes: cambio social y político en Pamplona y su comarca (1951-1981)”, *Gerónimo de Uztariz*, 17/18. zkia, 2002, 211-250 orr.
- MIGUEL SÁEZ, Javier de, “La Organización Revolucionaria de Trabajadores en Navarra. Orígenes y desarrollo (1964-1977)”, *Príncipe de Viana*, 16. Eranskina, 1992, 739-755 orr.

- MIR, Conxita, “Violencia política, coacción legal y oposición interior”, *Ayer*, 33. zkia, 1999, 115-146 orr.
- MOLINERO, Carme, TEBAR, Javier eta YSÁS, Pere, “Comisiones obreras de Cataluña: de movimiento sociopolítico a confederación sindical”, RUIZ, David (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 69-110 orr.
- MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere, *‘Patria, justicia y pan’, Nivell de vida i condicions de treball a Catalunya 1939-1951*, Edicions de La Magrama, Bartzelona, 1985.
- MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere, “Productores disciplinados: control y represión laboral durante el franquismo”, *Cuadernos de relaciones laborales*, 3. zkia, 1993, 33-50 orr.
- MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere, “Cambio socioeconómico y conflictividad social en la España del Desarrollo”, TRUJILLANO SÁNCHEZ, José Manuel eta DÍAZ SÁNCHEZ, Pilar (koord.), *Testimonios orales y escritos. España 1936-1996*, Fundación Cultural Santa Teresa, Ávila, 1996, 27-48 orr.
- MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere, *Productores disciplinados y minorías subversivas. Clase obrera y conflictividad laboral en la España franquista*, Siglo XXI, Madril, 1998.
- MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere, “Historia social de la época franquista: una aproximación”, *Historia social*, 30. zkia, 1998, 133-154 orr.
- MOLINERO, Carme eta YSÁS, Pere, “El malestar popular por las condiciones de vida. ¿Un problema político para el régimen franquista?”, *Ayer*, 52. zkia, 2003, 255-282 orr.
- MONTERO, Feliciano, *La Acción Católica y el franquismo: auge y crisis de la Acción Católica Especializada en los años sesenta*, UNED, Madril 2009.
- MONTERO, Feliciano, *La iglesia: de la colaboración a la disidencia (1956-1975)*, Ediciones Encuentro, Madril, 2009.
- MOORE, Kate, “Sentido y sensibilidad: forma y contenido en las transcripciones de la historia oral”, *Historia, antropología y fuentes orales*, 21. zkia, 1999, 163-179 orr.
- MORADIELLOS, Enrique, *La España de Franco (1939-1975)*, Síntesis, Madril, 2000.
- MORAL SANTÍN, José A., “El cambio de rumbo del capitalismo español: de la autarquía a la liberalización. Del agrarismo a la industrialización”, CARBALLO, Roberto, TEMPRANO, Antonio G. eta MORAL SANTÍN, José A., *Crecimiento económico y crisis estructural en España (1959-1980)*, Akal, Madril, 1980, 67-88 orr.
- OLCOZ, Cástor, *Jesús Lezaún. La afonía de Ezequiel*, Txalaparta, Tafalla, 2009.

- OLIVA, Jesús eta RIVERA, María José, “Utopías y sentidos de habitar la ciudad dispersa: estrategias residenciales en el área metropolitana de Pamplona-Iruñea”, *Zainak Cuadernos de Antropología y Etnografía*, 23. zkia, 2003, 137-153 orr.
- ORT-NAFARROKO PROBINTZIA KOMITEA, *Historia del movimiento obrero navarro. 25 años de lucha*, ORT, Iruñea, 1975.
- ORTEGA LÓPEZ, Teresa, *Trabajadores y jornaleros contra patronos y verticalistas. Conflictividad laboral y reivindicación democrática en una provincia periférica y escasamente desarrollada: Granada 1936-1982*, Granadako Unibertsitatea, Granada, 2001.
- ORTEGA LÓPEZ, Teresa eta COBO ROMERO, Francisco “La protesta de sólo unos pocos: el débil y tardío surgimiento de la protesta laboral y la oposición democrática al régimen franquista en Andalucía Oriental, 1951-1976”, *Historia Contemporánea*, 26. zkia, 2003, 113-160 orr.
- ORTIZ HERAS, Manuel, “Control social y represión en la dictadura franquista”, MATEOS, Abdón (ed.), *La España de los cincuenta*, Eneida, 2008, 15-43 orr.
- PABLO CONTRERAS, Santiago de, *El nacionalismo vasco en la posguerra. Álava 1939-1955*, Sabino Arana Fundazioa, Bilbo, 1991.
- PALMER, Bryan, *E. P. Thompson: objeciones y oposiciones*, Valentziako Unibertsitatea, Valentzia, 2004.
- PAREDES, Javier, *Félix Huarte 1896-1971: un luchador enamorado de Navarra*, Ariel, Bartzelona, 1997.
- PASTOR, Jaime, “El movimiento estudiantil bajo la dictadura franquista y el 68 español”, GARÍ, Manuel, PASTOR, Jaime eta ROMERO, Miguel (ed.), *1968. El mundo pudo cambiar de base*, Catarata, Madril, 2008, 283-298 orr.
- PENSADO, Patricia (koord.), *Experimentar en la izquierda. Historias de militancia en América Latina 1950-1990*, Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales, Ciudad Autónoma de Buenos Aires, 2013.
- PÉREZ DIAZ, Victor, *Emigración y cambio social*, Ariel, Bartzelona, 1971.
- PEREZ IBARROLA, Nerea, “Klase komunitate baten hastapenak: Txantrea eraikitzen”, *Gerónimo de Uztariz*, 26/27. zkia, 2010-2011, 145-174 orr.
- PÉREZ LEDESMA, Manuel, “La formación de la clase obrera: una creación cultural”, PÉREZ LEDESMA, Manuel eta CRUZ MARTÍNEZ, Rafael (koord.), *Cultura y movilización en la España contemporánea*, Alianza Editorial, Madril, 1997.
- PÉREZ OCHOA, Iñigo, “Oposición Política y movimiento obrero en Tudela en los últimos años del régimen franquista (1968-1977)”, *Sancho el Sabio*, 10. zkia, 1999, 27-51 orr.

- PÉREZ OCHOA, Iñigo, “Notas sobre los anarcosindicalistas navarros en el exilio”, GARCÍA-SANZ, Ángel (koord.), *El exilio republicano navarro de 1939*, Nafarroako Gobernua, Iruñea, 2001, 155-176 orr.
- PÉREZ PÉREZ, José Antonio, *Los años del acero. La transformación del mundo laboral en el área industrial del gran Bilbao (1958-1977). Trabajos, convenios y conflictos*, Biblioteca nueva, Madril, 2001.
- PÉREZ QUINTANA, Vicente eta SÁNCHEZ LEÓN, Pablo, *Memoria ciudadana y movimiento vecinal. Madrid 1968-2008*, Los libros de la Catarata, Madril, 2008.
- PICO, Josep, *El moviment obrer al País Valencià sota el franquismo*, Ed. E. Climent, Valentzia, 1977.
- PRESTON, Paul (koord), *España en crisis. Evolución y decadencia del régimen de Franco*, Kultura Ekonomikoaren Fonda, Madril, 1978.
- QUIROSA-CHEYROUZE Y MUÑOZ, Rafael eta FERNÁNDEZ AMADOR, Mónica, “El movimiento vecinal: la lucha por la democracia desde los barrios”, QUIROSA-CHEYROUZE Y MUÑOZ, Rafael (ed.), *La sociedad española en la transición. Los movimientos sociales en el proceso democratizador*, Biblioteca nueva, 2011, Madril, 207-220 orr., 210-211 orr.
- RAMOS RAMOS, Gemma, “Tranvías y conflictividad social en Barcelona (marzo 1951): actitudes políticas y sociales de una huelga mítica”, *Historia Contemporánea*, 5. zkia, 1991, 203-220 orr.
- REMÓN BERRADE, Gaudencio “La rebelión de los mineros: conflictividad laboral en la minería navarra de potasa durante el franquismo”, *Estudios de Ciencias Sociales*, 7. zkia, 1994, 241-260 orr.
- RIVERA, Antonio, “Amoldados, disidentes y opositores: antifranquistas en territorio leal”, RIVERA, Antonio (zuz.), *Dictadura y desarrollismo. El franquismo en Álava*, Gasteizko Udala, Gasteiz, 2009.
- ROCA, José Manuel (ed.), *El proyecto radical: auge y declive de la izquierda revolucionaria en España (1964-1992)*, Los libros de la catarata, Madril, 1994.
- ROS HOMBRAVELLA, Jacint, *Política económica española*, Blume, Bartzelona, 1979.
- RUDÉ, George, *La multitud en la historia. Los disturbios populares en Francia e Inglaterra, 1730-1848*, Siglo XXI, Madril, 2009.
- RUIZ CARNICER, Miguel Ángel, *El Sindicato Español Universitario (SEU) 1939-1965. La socialización política de la juventud universitaria en el franquismo*, Siglo XXI, Madril, 1996.
- RUIZ CARNICER, Miguel Ángel, “Estudiantes, cultura y violencia política en las universidades españolas (1925-1975)”, MUÑOZ, Javier, LEDESMA, José Luis eta RODRIGO, Javier (koord.), *Cultura y políticas de la violencia. España siglo XX*, Siete Mares, Madril, 2005, 251-278 orr.

- RUIZ, David (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994.
- RUIZ, David, "De la supervivencia a la negociación. Actitudes obreras en las primeras décadas de la dictadura (1939-1958)", RUIZ, David (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 47-68 orr.
- SABIO ALCUTÉN, Alberto, *Peligrosos demócratas. Antifranquistas vistos pos la policía política*, Cátedra, Madril, 2001.
- SAINZ PASCUAL, Zuriñe, "El despertar de una conciencia ciudadana a través del urbanismo: el ayuntamiento de Pamplona 1966-1976", *Gerónimo de Uztariz*, 23/24. zkia, 2008, 123-174 orr.
- SAINZ PASCUAL, Zuriñe eta PEREZ IBARROLA, Nerea, "Transformación urbanística y evolución socioeconómica de una ciudad", LARREA, Andeka (koord.), *Euskal Hiria: reflexión sobre la ciudad y las ciudades vascas*, ex liburuak, Bilbo, 2012, 105-159 orr.
- SAMUEL, Raphael (ed.), *Historia popular y teoría socialista*, Crítica, Bartzelona, 1984.
- SANZ FERNÁNDEZ, Florentino, "La aportación de la JOC a la cultura obrera y a la formación de militantes para el movimiento obrero", *XX siglos*, 22.zkia, 46-60 orr.
- SAN SEBASTIÁN, Koldo, "La huelga general de 1951 en Euskadi", *Muga*, 48. zkia, 1985, 28-49 orr.
- SÁNCHEZ LÓPEZ, Rosario eta NICOLÁS MARÍN, María Encarna, "Sindicalismo vertical franquista", RUIZ, David (zuz.), *Historia de CCOO*, Siglo XXI, Madril, 1994, 1-46 orr.
- SÁNCHEZ RECIO, Glicerio, "El Sindicato Vertical como instrumento político y económico del régimen franquista", *Pasado y Memoria*, 1. zkia., 2002, 19-33 orr.
- SÁNCHEZ RECIO, Glicerio, "Inmovilismo político y cambio social en los años sesenta", *Historia contemporánea*, 26. zkia, 2003, 13-33 orr.
- SANTAMARÍA BLASCO, José Elena, *Iglesia y movimiento obrero navarro en los años 60*, lizentziatura memoria, argitaragabea.
- SANTAMARÍA BLASCO, José Elena, "Movimiento obrero apostólico en Navarra", *Príncipe de Viana*, 16. Eranskina, 1992, 699-724 orr.
- SEWELL, William H., "Cómo se forman las clases: reflexiones críticas en torno a la teoría de E. P. Thompson sobre la formación de la clase obrera" *Historia social*, 18. zkia, 1994, 77-100 orr.
- SHOPES, Linda, "Diseño de proyectos de historia oral y formas de entrevistar", *Historia, antropología y fuentes orales*, 25. zkia, 2001, 133-141 orr.

- SOLER, Joan-Lluís eta SAZ, Ismael, "De lo rat panat al Congreso de Castellón: Las Comisiones Obreras en el País Valenciano (1966-1978)", RUIZ, David (zuz.), *Historia de Comisiones Obreras*, Siglo XXI, Madril, 1994, 289-314 orr.
- SOTO CARMONA, Álvaro, *Clase obrera, conflicto laboral y representación sindical. Evolución socio-laboral de Madrid. 1939-1991*, Ediciones GPS-Madrid, Madril, 1994.
- SOTO CARMONA, Álvaro, "Auge y caída de la Organización Sindical Española", *Espacio, Tiempo y Forma, Serie V, Historia Contemporánea*, 8, zkia., 1995, 247-276 orr.
- SOTO CARMONA, Álvaro, *Huelgas en el franquismo: causas laborales, consecuencias políticas*, Historia social, 30. zkia, 1998.
- SOTO CARMONA, Álvaro, "No todo fue igual. Cambios en las relaciones laborales, trabajo y nivel de vida de los españoles: 1958-1975", *Pasado y Memoria*, 5. zkia, 2006, 15-43 orr.
- STEDMAN JONES, Gareth, "El proceso de la configuración histórica de la clase obrera y su conciencia histórica", *Historia social*, 17.zkia, 1993, 115-129 orr.
- STONE, Lawrence eta HOBBSAWM, Eric J., "La historia como narrativa", *Debats*, 4. zkia, 1983, 92-105 orr.
- SUBIZA, Blas eta ARROYO, Vicente, *Historia y recuerdos del mochuelo*, Lamiñarra, Iruñea, 2011.
- TAYLOR, Charles, *Hegel*, Anthropos, Bartzelona, 2010.
- TEBAR, Javier, "Historia oral y militancia sindical: la creación de fuentes orales para un archivo histórico sindical", *Historia, antropología y fuentes orales*, 18. zkia, 1997, 173-175 orr.
- TEBAR, Javier, "Entre el barri i la fàbrica. Cultures de la militancia sindical a l'àrea metropolitana de Barcelona (1939-1988)", *Revista d'etnologia de Catalunya*, 25. zkia, 2004, 136-140 orr.
- TEBAR, Javier, "Sobre las imágenes del pasado: memoria, auto-representación y militancia obrera antifranquista", *Historia, antropología y fuentes orales*, 44. zkia, 2010, 147-166 orr.
- THOMPSON, Edward Palmer, "Tiempo, disciplina de trabajo y capitalismo industrial", THOMPSON, Edward Palmer *Costumbres en común*, Crítica, Bartzelona, 1995, 395-552 orr.
- THOMPSON, Edward Palmer, *La formación de la clase obrera en Inglaterra, Capitán Swing*, Madril, 2012.
- THOMPSON, Paul, *La voz del pasado. La historia oral*, Edicions Alfons el Magnánim, Valentzia, 1988.

- TORRAS, Jaume, “¿Contrarrevolución campesina?”, IZQUIERDO, Jesús eta SÁNCHEZ LEÓN, Pablo, *Clásicos de la historia social en España*, UNED, Francisco Tomás y Valiente Zentroa eta Instituto Historia Social Fundazioa, Valentzia, 2000.
- TORRE, Joseba de la, “Instituciones empresarios y mercado: la industrialización navarra bajo el franquismo”, *Revista de historia industrial*, 27. zkia, 2005, 121-160 orr.
- TORRE, Joseba de la, “Trabajadores, empresarios y tecnócratas en el desarrollo industrial de Navarra (1950-1980)”, *Gerónimo de Uztariz*, 22. zkia, 2006, 75-103.
- TORRE, Joseba de la, “Industria del automóvil y desarrollo económico regional: la experiencia de Navarra (1955-1980)”, *Investigaciones de historia económica*, 9. zkia, 2007, 109-140 orr.
- TOURIER-BONAZZI, Chantal, “Propuestas metodológicas”, *Historia y fuente oral*, 6. zkia, 1991, 181-189 orr.
- TREGLIA, Emanuele, “Izquierda comunista y cambio político: el caso de la ORT”, *Ayer*, 92. zkia, 2013, 47-71 orr.
- TUÑÓN DE LARA, Manuel, “Navarra en los movimientos sociales de la historia contemporánea de España”, *Príncipe de Viana*, 5. Eranskina, 1986, 9-22 orr.
- TUSELL, Javier, *Franco y los Católicos. La política interior española entre 1945 y 1957*, Alianza universidad, Madril, 1984.
- TUSELL, Javier, *La dictadura de Franco*, Altaya, Madril, 1996.
- TUSELL, Javier, *Dictadura franquista y democracia 1939-2004*, Crítica, Bartzelona, 2010.
- TUSELL, Javier eta SOTO CARMONA, Álvaro, *Historia de la transición (1975-1986)*, Alianza, Madril, 1996.
- UGARTE, Javier, *La nueva Covadonga insurgente. Orígenes sociales de la sublevación de 1936 en Navarra y País Vasco*, Biblioteca Nueva, Madril, 1998.
- URDANIZ, Irantzu eta ESPARZA, Germán, *La historia escondida. Historia de los movimientos sociales en San Jorge-Sanduzelai*, Umetxea-Sanduzelai, Iruñea, 2008.
- URMENETA, Miguel Javier, *Memorias de mis tres años*, bi liburuki, Pamiela, Iruñea, 1989-1991.
- VAZQUEZ DE PRADA, Mercedes, “Navarra en los años sesenta: el marco histórico de la industrialización”, CASPISTEGUI, Francisco Javier eta ERRO, Carmen (zuz.), *De agrícola a industrial: Navarra 1939-2001*, Eunsa, Barañain, 2005, 13-42 orr.
- VEGA, Rubén, *Clandestinidad, represión y lucha política: el movimiento obrero en Gijón bajo el franquismo (1937-1962)*, Ayuntamiento de Gijón, Gijón, 1998.



- VEGA, Rubén, “Entre la derrota y la renovación generacional. Continuidad y ruptura en la protesta social”, MATEOS, Abdón (ed.), *La España de los cincuenta*, Eneida, Madril, 2008, 171-200 orr.
- VIERGE, Galo, *Los culpables. Pamplona 1936 (ensayo y testimonio)*, Pamiela, Iruñea, 2006.
- VILANOVA, Mercedes, *Las mayorías invisibles. Explotación fabril, revolución y represión*, Icaria, Bartzelona, 1996.
- VILANOVA, Mercedes “Rememoración en la historia”, *Historia, antropología y fuentes orales*, 30. zkia, 2003, 23-40 orr.
- VILLANUEVA, Aurora, *El carlismo navarro durante el primer franquismo*, Actas, Madril, 1998.
- VILLANUEVA, Aurora, “La sorpresa navarra: mayo 1951”, VV.AA., *Mito y realidad en la historia de Navarra (IV. Congreso de historia de Navarra)*, Sociedad de Estudios Históricos de Navarra, Iruñea, 1998, 135-146 orr.
- VIRTO IBAÑEZ, Juan Jesús eta ARBELOA, Victor Manuel, “La cuestión agraria en Navarra (I)”, *Príncipe de Viana*, 171. zkia, 1984, 117-130 orr.
- VIRTO IBAÑEZ, Juan Jesús eta ARBELOA, Victor Manuel, “La cuestión agraria en Navarra (II)”, *Príncipe de Viana*, 173. zkia, 1984, 617-654 orr.
- VIRTO IBAÑEZ, Juan Jesús eta ARBELOA, Victor Manuel, “La cuestión agraria en Navarra (y III)”, *Príncipe de Viana*, 174. zkia, 1985, 247-246 orr.
- VV.AA., *Txantrea. Sembrando vida en la piedra*, Txantrean Auzolan Kultur Elkarte, Iruñea, 2002.
- YÁNIZ BERRIO, Edurne, “El impacto y la recepción del Concilio Ecuménico Vaticano II en Navarra. Una aproximación al primer postconcilio marcado por la figura del prelado Mons. Enrique Delgado Gómez (1965-1969)”, *Historia Actual Online*, 35 (3). zkia, 2014, 127-142 orr.
- YSÁS, Pere, “Huelga Laboral y huelga política. España 1939-1975”, *Ayer*, 4. zkia, 1991, 192-212 orr.
- YSÁS, Pere, “¿Una sociedad pasiva? Actitudes, activismo y conflictividad social en el franquismo tardío”, *Ayer*, 68. zkia, 2007, 31-57 orr.
- ZELAIETA, Ángel eta JIMENEZ, Edorta (koord.), *Zamorako apaiz-kartzela. Eliza eta estatuaren presondegia 1968-1976*, Txalaparta, Tafalla, 2011.

-